

## **ESKAINTZA**

Lan hau, Deba Barreneko euskarazko komunikazio-sistema idatzian diharduten soldatapeko langile eta borondatez ari diren langileei eskainita dago.

## **ESKERRAK**

Jose Inazio Basterretxea, Estibalitz González, Andoni Esmeralda, Angel Aiestaran, Berta Yarza, Koldo Mitxelena Zumaran, Ainara Riveras, Silvia Hernandez, Jose Luis Gorostegi, Iker Aranberri, Marisol Uriarte, Itziar Albizu, Isabel Arregi, Naia Olaizola, Marifeli Manzidor, Kristina Palacios, Bea Narbaiza, Egoitz Unamuno, Joseba Palenzuela, Asier Orbea, Nagore Dorronsoro, Lukas Dorronsoro, Ina Oiartzabal, Xabi Laka, Amaia Arrizabalaga, Eider Iriondo, Imanol Larrañaga, Edurne Ramon, Topagunea, Euskara Elkarteen Federazioa, Fernando Aranberri, Miguel Angel González, Zuriñe Arrieta, Reme Vargas, Piedi Eizagirre, Rosa Martin, Idoia Camacho, Jose Inazio Armentia, Txema Ramirez de la Piscina, Petxo Idoiaga, Aitor Zuberogoitia, Xarles Videgain, Jon Sarasua, Ur Apalategi, Gotzon Garate.

## AURKIBIDEA

<b><u>1- SARRERA</u></b>	<b>13</b>
1.1- Herri-aldizkariak ikergai	15
1.2- Deba Barreneko tokian tokiko euskarazko prentsa aztergai	16
1.3- Ikerketa honen arrazoiak	17
<b><u>2- EUSKARAZKO KAZETARITZA</u></b>	<b>21</b>
<b><u>2.1- EUSKARA 1834-1936 URTEETAKO PRENTSAN</u></b>	<b>23</b>
2.1.1- Ipar eta Hego Euskal Herriko almanakak	25
2.1.2- Ameriketako prentsa	25
2.1.3- Aldizkari politikoak	26
2.1.4- Aldizkari kulturalak	29
2.1.5- Aldizkari erlijiosoak	31
2.1.6- Nekazariei zuzendutako aldizkariak	33
2.1.7- Informazio prentsa	33
2.1.8- Tokian tokiko informazioa	35
<b><u>2.2- EUSKARAZKO PRENTSA ESPAINIAKO GERRA ZIBILEAN</u></b>	<b>36</b>
2.2.1- Lehen egunkaria euskaraz <i>Eguna</i>	37
2.2.1- Tokian tokiko informazioa	39
<b><u>2.3- EUSKARAZKO PRENTSA ERBESTEAN ETA DIKTADURAN</u></b>	<b>39</b>
2.3.1- Aldizkari politikoak	40
2.3.2- Aldizkari kulturalak	42
2.3.3- Aldizkari informatiboak	44
2.3.4- Aldizkari erlijiosoak	45
2.3.5- Nekazariei eta haurrei zuzendutako aldizkariak	46
2.3.6- Tokian tokiko informazioa	46

---

<u>2.4- EUSKARAZKO PRENTSA 1976 URTETIK AURRERA</u>	47
2.4.1- Euskaldunon Egunkaria	50
2.4.2- 1976ko aldarrikapenak gaur egun	52
2.4.3- Prentsaren espezializazioa	53
2.4.3.1- Zientzia eta kultur aldizkariak	53
2.4.3.2- Literatur aldizkariak	54
2.4.3.3- Haurrentzako aldizkariak	55
2.4.3.4- Hezkuntza eta euskalgintzako aldizkariak	55
<u>2.5- HERRI-ALDIZKARI MODERNOEN SORRERA</u>	
<u>80KO HAMARKADAREN BUKAERAN</u>	56
<u>2.6- EUSKARAZKO HERRI-PRENTSAREN GARAPENA</u>	
<u>90EKO HAMARKADAN. BEHAR BATI ERANTZUNA</u>	59
2.6.1- Herri-aldizkarien ezaugarriak	59
2.6.2- Herri-aldizkarien ekarpena eta funtzioak	60
<u>2.7- JOERA BERRIAK EUSKARAZKO TOKIAN TOKIKO PRENTSAN</u>	62
2.7.1- Goiena Komunikazio Zerbitzuak	62
2.7.2- Durangaldeko Herri Komunikabideak (DHK)	63
2.7.3- Guaixe eta Baleixe	63
2.7.4- Hernaniko Kronika	63
2.7.5- Txintzarri	64
2.7.6- Eskualdeetako <i>Hitzak</i>	64
2.7.7- Milurteko berrian maiztasun berrian	64
<u>2.8- ESKUALDEETAKO EGUNKARIAK</u>	65
2.8.1- Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT)	65

---

<u>2.9- TOPAGUNEA, EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA</u>	71
2.9.1- <i>Asteon</i> telebista-astekariaren ibilbide laburra	74
2.9.2- Topagunea, euskara elkarten federazioa aurrera begira	75
<u>2.10- TOKIAN TOKIKO PRENTSAREN EGOERA 2006AN</u>	76
2.10.1- 2006an hurbileko informazioa lantzen duten aldizkarien zerrenda	77
2.10.2- 2000-2006 bitartean desagertu diren herri-aldizkariak	80
2.10.3- Herri-aldizkariak lurraldeka	81
<u>2.11- TOKIAN TOKIKO PRENTSA ETA DIRU-LAGUNTZAK</u>	85
2.11.1- Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak 2000-2004 bitartean	86
2.11.2- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren azterketaren emaitzak	89
<u>2.12- TOKIAN TOKIKO PRENTSA ETORKIZUNEAN</u>	94
2.12.1- Multimedia egitasmoak	95
<u>2.13- EUSKARAZKO HEDABIDEEN SEKTOREA</u>	
<u>ETORKIZUNARI BEGIRA</u>	96
2.13.1- Tokiko Hedabideak Etorkizunari Begira jardunaldiak	97
2.13.2- Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua	98
2.13.3- Euskarazko prentsa, Telebista, Irrati eta Sarearen Mintegia	101
2.13.4- Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa	102
<u>2.14- DEBA BARRENEAN ETORKIZUNA LANTZEN</u>	103
2.14.1- Fernando Muniozguren Deba Barreneko sustatzailea	105
2.14.2- Eskualderako egitasmoa	106
2.14.3- 2006ko egoera	108



<b><u>3- METODOLOGIA</u></b>	<b>111</b>
<u>3.1- AZTERKETA KUALITATIBOA</u>	113
3.1.1- Galdetegiaren ereduak	114
<u>3.2- AZTERKETA KUANTITATIBOA</u>	116
3.2.1- Ikerlanaren unibertsoa	117
3.2.2- Laginaren aukeraketa	118
<u>3.3- HIPOTESIAK ETA LAN-GALERAK</u>	120
3.3.1- Deba Barreneko komunikazio sistemaren ezaugarriak	120
3.3.2- Epe laburreko erronka berriak	121
3.3.3- Etorkizunaren diseinua	121
<u>3.4- KATEGORIA SISTEMA</u>	121
<u>3.5- IKERKETA FITXA</u>	148
<u>3.6- IKERKETAREN FIDAGARRITASUNA</u>	148
<b><u>4- DATUEN AURKEZPENA</u></b>	<b>153</b>
<b><u>4.1- ...ETA KITTO! ALDIZKARIAREN ANALISIA</u></b>	<b>159</b>
4.1.1- ... <i>Eta kitto!</i> aldizkariko fitxa teknikoak	163
4.1.2- ... <i>Eta kitto!</i> aldizkariko aurrekontuak eta balantzeak	167
<u>4.1.3- KAZETARITZA-GENEROAK</u>	170
4.1.3.1- Informazioa	175
4.1.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean	175
4.1.3.1.2- Informazioaren bilakaera	179
4.1.3.2.- Iritzia	184
4.1.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean	184
4.1.3.2.2- Iritziaren bilakaera	187
4.1.3.3- Zerbitzuak	191
4.1.3.3.1- Zerbitzuak 2000-2004 bitartean	192
4.1.3.3.2- Zerbitzuen bilakaera	195
<u>4.1.4- GAIAK</u>	198
4.1.4.1- Politika	201
4.1.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean	201

4.1.4.1.2- Politikaren bilakaera	205
4.1.4.2- Ekonomia	210
4.1.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean	210
4.1.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera	213
4.1.4.3- Gizarte-gaiak	216
4.1.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean	216
4.1.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera	221
4.1.4.4- Kultura	227
4.1.4.4.1- Kultura gaiak 2000-2004 bitartean	227
4.1.4.4.2- Kultura gaien bilakaera	231
4.1.4.5- Kirola	236
4.1.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean	236
4.1.4.5.2- Kirolaren bilakaera	240
<b><u>4.1.5- ...ETA KITTO! ALDIZKARIAREN ARDATZAK</u></b>	244
4.1.5.1- Kazetaritza-generoak	244
4.1.5.2- Gaiak	245
4.1.5.3- Gibel-iruzkinak	246
<b><u>4.2- PIL-PILEAN ALDIZKARIAREN ANALISIA</u></b>	<b>249</b>
4.2.1- <i>Pil pilean</i> aldizkariko fitxa teknikoak	253
4.2.2- <i>Pil pilean</i> aldizkariko balantze ekonomikoa	257
<b><u>4.2.3- KAZETARITZA-GENEROAK</u></b>	259
4.2.3.1- Informazioa	262
4.2.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean	262
4.2.3.1.2- Informazioaren bilakaera	266
4.2.3.2- Iritzia	269
4.2.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean	269
4.2.3.2.2- Iritziaren bilakaera	272
4.2.3.3- Literatura	276
4.2.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean	276
4.2.3.3.2- Literaturaren bilakaera	279

4.2.3.4- Zerbitzuak	282
4.2.3.4.1- Zerbitzuak 2000-2004 bitartean	282
4.2.3.4.2- Zerbitzuen bilakaera	285
<b><u>4.2.4- GAIAK</u></b>	<b>289</b>
4.2.4.1- Politika	292
4.2.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean	292
4.2.4.1.2- Politikaren bilakaera	295
4.2.4.2- Ekonomia	298
4.2.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean	298
4.2.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera	300
4.2.4.3- Gizarte-gaiak	304
4.2.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean	304
4.2.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera	308
4.2.4.4- Kultura	313
4.2.4.4.1- Kultura 2000-2004 bitartean	314
4.2.4.4.2- Kulturaren bilakaera	318
4.2.4.5- Kirola	323
4.2.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean	323
4.2.4.5.2- Kirolaren bilakaera	325
<b><u>4.2.5- PIL-PILEAN ALDIZKARIAREN ARDATZAK</u></b>	<b>329</b>
4.2.5.1- Kazetaritza-generoak	329
4.2.5.2- Gaiak	330
4.2.5.3- Gibel-iruzkinak	332
<b><u>4.3- BARREN ALDIZKARIAREN ANALISIA</u></b>	<b>335</b>
4.3.1- Barren aldizkariko fitxa teknikoak	340
4.3.2- Barren aldizkariko aurrekontua eta balantze ekonomikoa	344
<b><u>4.3.3- KAZETARITZA-GENEROAK</u></b>	<b>347</b>
4.3.3.1- Informazioa	351
4.3.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean	351
4.3.3.1.2- Informazioaren bilakaera	355

---

4.3.3.2- Iritzia	359
4.3.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean	360
4.3.3.2.2- Iritziaren bilakaera	364
4.3.3.3- Literatura	367
4.3.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean	368
4.3.3.3.2- Literaturaren bilakaera	370
4.3.3.4- Komikia	372
4.3.3.4.1- Komikia 2000-2004 bitartean	372
4.3.3.4.2- Komikiaren bilakaera	373
4.3.3.5- Zerbitzuak	376
4.3.3.5.1- Zerbitzuak 2000-2004 bitartean	376
4.3.3.5.2- Zerbitzuen bilakaera	380
<u>4.4.4- GAIAK</u>	384
4.3.4.1- Politika	387
4.3.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean	387
4.3.4.1.2- Politikaren bilakaera	391
4.3.4.2- Ekonomia	397
4.3.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean	397
4.3.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera	400
4.3.4.3- Gizarte-gaiak	404
4.3.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean	404
4.3.4.3.4- Gizarte-gaien bilakaera	409
4.3.4.4- Kultura	415
4.3.4.4.1- Kultura 2000-2004 bitartean	416
4.3.4.4.2- Kulturaren bilakaera	420
4.3.4.5- Kirola	425
4.3.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean	426
4.3.4.5.2- Kirolaren bilakaera	429
<u>4.3.5- BARREN ALDIZKARIAREN ARDATZAK</u>	434
4.3.5.1- Kazetaritza-generoak	434
4.3.5.2- Gaiak	436

4.3.5.3- Gibel-iruzkinak	439
<b><u>4.4- KALAPUTXI ALDIZKARIAREN ANALISIA</u></b>	<b>443</b>
4.4.1- <i>Kalaputxi</i> aldizkariaren fitxa teknikoak	448
4.4.2- <i>Kalaputxi</i> aldizkariaren aurrekontua	451
<b><u>4.4.3- KAZETARITZA-GENEROAK</u></b>	<b>453</b>
4.4.3.1- Informazioa	457
4.4.3.1.1- Informazioa 2002-2004 bitartean	457
4.4.3.1.2- Informazioaren bilakaera	461
4.4.3.2- Iritzia	465
4.4.3.2.1- Iritzia 2002-2004 bitartean	465
4.4.3.2.2- Iritziaren bilakaera	468
4.4.3.3- Komikia	471
4.4.3.3.1- Komikia 2002-2004	472
4.4.3.3.2- Komikiaren bilakaera	473
4.4.3.4- Zerbitzuak	475
4.4.3.4.1- Zerbitzuak 2002-2004 bitartean	475
4.4.3.4.2- Zerbitzuen bilakaera	478
<b><u>4.4.4- GAIK</u></b>	<b>482</b>
4.4.4.1- Politika	485
4.4.4.1.1- Politika 2002-2004 bitartean	485
4.4.4.1.2- Politikaren bilakaera	489
4.4.4.2- Ekonomia	492
4.4.4.2.1- Ekonomia 2002-2004 bitartean	492
4.4.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera	495
4.4.4.3- Gizarte-gaiak	499
4.4.4.3.1- Gizarte-gaiak 2002-2004	499
4.4.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera	504
4.4.4.4- Kultura	511
4.4.4.4.1- Kultura 2002-2004 bitartean	511
4.4.4.4.2- Kulturaren bilakaera	515

4.4.4.5- Kirola	519
4.4.4.5.1- Kirola 2002-2004 bitartean	519
4.4.4.5.2- Kirolaren bilakaera	522
<b><u>4.4.5- KALAPUTXI ALDIZKARIAREN ARDATZAK</u></b>	<b>526</b>
4.4.5.1- Kazetaritza-generoak	526
4.4.5.2- Gaiak	528
4.4.5.3- Gibel-iruzkinak	531
<b><u>4.5- BERRIKETAN ALDIZKARIAREN ANALISIA</u></b>	<b>535</b>
4.5.1- <i>Berriketan</i> aldizkariaren fitxa teknikoak	540
4.5.2- <i>Berriketan</i> aldizkariaren aurrekontua	543
<b><u>4.5.3- KAZETARITZA-GENEROAK</u></b>	<b>545</b>
4.5.3.1- Informazioa	549
4.5.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean	549
4.5.3.1.2- Informazioaren bilakaera	553
4.5.3.2- Iritzia	558
4.5.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean	558
4.5.3.2.2- Iritziaren bilakaera	562
4.5.3.3- Literatura	565
4.5.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean	565
4.5.3.3.2- Literaturaren bilakaera	568
4.5.3.4- Zerbitzuak	571
4.5.3.4.1- Zerbitzuak 2000-2004 bitartean	571
4.5.3.4.2- Zerbitzuen bilakaera	574
<b><u>4.5.4- GAIAK</u></b>	<b>577</b>
4.5.4.1- Politika	580
4.5.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean	580
4.5.4.1.2- Politikaren bilakaera	583
4.5.4.2- Ekonomia	587
4.5.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean	587
4.5.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera	590

4.5.4.3- Gizarte-gaiak	593
4.5.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean	593
4.5.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera	598
4.5.4.4- Kultura	603
4.5.4.4.1- Kultura 2000-2004 bitartean	603
4.5.4.4.2- Kulturaren bilakaera	607
4.5.4.5- Kirola	612
4.5.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean	612
4.5.4.5.2- Kirolaren bilakaera	615
<b><u>4.5.5- BERRIKETAN ALDIZKARIAREN ARDATZAK</u></b>	619
4.5.5.1- Kazetaritza-generoak	619
4.5.5.2- Gaiak	621
4.5.5.3- Gibel-iruzkinak	624
<b><u>4.6- DROGETENITTURRI ALDIZKARIAREN ANALISIA</u></b>	<b>629</b>
4.6.1- <i>Drogetenitturri</i> aldizkariko fitxa teknikoak	633
4.6.2- <i>Drogetenitturri</i> aldizkariko balantze ekonomikoa	637
<b><u>4.6.3- KAZETARITZA-GENEROAK</u></b>	638
4.6.3.1- Informazioa	640
4.6.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean	641
4.6.3.1.2- Informazioren bilakaera	644
4.6.3.2- Iritzia	647
4.6.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean	647
4.6.3.2.2- Iritziaren bilakaera	650
4.6.3.3- Literatura	654
4.6.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean	654
4.6.3.3.2- Literaturaren bilakaera	657
4.6.3.4- Zerbitzuak	660
4.6.3.4.1- Zerbitzuak 2000-2004 bitartean	660
4.6.3.4.2- Zerbitzuen bilakaera	663

<u>4.6.4- GAIAK</u>	666
4.6.4.1- Politika	669
4.6.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean	669
4.6.4.1.2- Politikaren bilakaera	673
4.6.4.2- Ekonomia	677
4.6.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean	677
4.6.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera	680
4.6.4.3- Gizarte-gaiak	683
4.1.4.3.1- Gizarte gaiak 2000-2004 bitartean	683
4.1.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera	688
4.6.4.4- Kultura	694
4.6.4.4.1- Kultura 2000-2004 bitartean	694
4.6.4.4.2- Kulturaren bilakaera	699
4.6.4.5- Kirola	704
4.6.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean	704
4.6.4.5.2- Kirolaren bilakaera	708
<u>4.6.5- DROGETENITTURRI ALDIZKARIAREN ARDATZAK</u>	712
4.6.5.1- Kazetaritza-generoak	712
4.6.5.2- Gaiak	713
4.6.5.3- Gibel-iruzkinak	716
<b><u>5- EMAITZA OROKORRAK</u></b>	<b>719</b>
<u>5.1- ALDIZKARIEN ARKETIPOA</u>	722
5.1.1- EIBARKO ... <i>ETA KITTO!</i> ASTEKARIA	723
5.1.2- SORALUZEKO <i>PIL-PILEAN</i> HAMABOSTEKARIA	724
5.1.3- ELGOIBARKO <i>BARREN</i> ASTEKARIA	725
5.1.4- MUTRIKUKO <i>KALAPUTXI</i> HILABETEKARIA	726
5.1.5- DEBAKO <i>BERRIKETAN</i> HILABETEKARIA	727
5.1.6- ERMUA ETA MALLABIKO <i>DROGETENITTURRI</i> HILABETEKARIA	728
<u>5.2- ONDORIOAK</u>	729



<u>5.3- PROPOSAMEN BERRIAK</u>	747
<u>6- BIBLIOGRAFIA</u>	749
<u>7- CD-AREN EDUKIEN ZERRENDA*</u>	

### 7.1- ELKARRIZKETAK

7.1.1- **Koldo Mitxelena Zumaran**, Eibarko ...eta kitto! Euskara Elkarteko komunikabide batzordeko koordinatzailea. (2006/02/8an Eibarren egindako elkarrizketa).

7.1.2- **Egoitz Unamuno**, Soroluzeko *Pil-pilean* hamabostekariko erredakzio burua. (2006/02/15ean Plaentzian egindako elkarrizketa).

7.1.3- **Asier Orbea**, Elgoibarko *Barren* astekariko kazetaria. (2006/02/17an Elgoibarren egindako elkarrizketa).

7.1.4- **Joseba Palenzuela**, Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekariko zuzendaria. (2006/02/23an egindako elkarrizketa).

7.1.5- **Lukas Dorronsoro, Ina Oiartzabal, Nagore Dorronsoro eta Xabier Laka**, *Berriketan* hilabetekariko lan-taldeko kideak. (2006/02/24an Deban egindako elkarrizketa).

### 7.2- GRAFIKOAK KOLORETAN

7.2.1- Eibarko ...eta kitto! astekariko grafikoak.

7.2.2- Soroluzeko *Pil-pilean* hamabostekariko grafikoak.

7.2.3- Elgoibarko *Barren* astekariko grafikoak.

7.2.4- Mutrikuko *Kalputxi* hilabetekariko grafikoak.

7.2.5- Debako *Berriketan* hilabetekariko grafikoak.

7.2.6- Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturri* hilabetekariko grafikoak.

### 7.3- IKERKETA FITXAREN EREDUA KOLORETAN

7.3.1- Ikerketa fitxa eredua hutsik.

7.3.2- Ikerketa fitxa eredua beteta.

---

\* Aurkibide hau paperezko bertsiorako eginda dago eta CD bat dauka erantsita. Bertsio digitalean, ordea, karpeta ezberdinetan jaso dira grafikoak eta elkarrizketa osoak.

## **1- SARRERA**



## 1- SARRERA

Ikerlan honetan, Deba Barreneko euskarazko prentsa idatzia aztertzen da: zehazki kazetaritza-generoak eta gaiak hartu dira kontuan. Izan ere, 2000-2004 bitartean, bailaran euskaraz argitaratzen diren aldizkariak zeri buruz informatzen duten, eta zein genero erabiliz kaleratzen dituzten euren edukiak ezagutzeko. Horretarako, Bizkaia eta Gipuzkoa artean dagoen eskualdean kaleratzen den tokian tokiko euskarazko prentsaren sei argitalpen aukeratu ditugu: Ermua eta Mallabiko *Drogetenitturri* hilabetekaria, Eibarko *...eta kitto!* astekaria, Sorluzeko *Pil-pilean* hamabostekaria, Elgoibarko *Barren* astekaria, Debako *Berriketan* hilabetekaria eta Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekaria. Ikertu diren sei errebistetatik bost, 90eko hamarkadan sortu ziren herri-aldizkariak dira; azkenak, *Kalaputxik* alegia, 2001ean ikusi zuen lehenengoz argia.

### 1.1- Herri-aldizkariak ikergai

Tokian tokiko euskarazko prentsa idatziaren urrezko aroa 90eko hamarkadan eman zen eta horren harira, euskarazko herri-aldizkarien fenomenoak espresuki aztertu duten bi doktore-tesi defendatu dira azken sei urteetan Euskal Herriko Unibertsitatean: Asier Arangurenen *“Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian”* eta Idoia Camachoren *“Herri-aldizkariaren funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)”* doktore-tesia. Lehenengoan, 1999an argira emana, euskarazko komunikabide lokalak definitu eta horien errolda osatzeaz gain, hedabide lokal horiek (prentsa, telebista eta irratiak) dituzten ahulezia, mehatxu, indar-guneak identifikatzen dira eta etorkizunerako proposamenak luzatu ere. Idoia Camachok 1999an datatutako doktore-tesian, Euskal Autonomi Erkidegoko herri-aldizkariaren eduki azterketa egitearekin batera, aldizkariok euskara normaltzeko prozesuan izan duten eragina ikertzen du.

Euskal Herriko Unibertsitatetik kanpo ere, tokian tokiko argitalpenen inguruan bestelako ikerketak eta lan ezberdinak kaleratu dira: Eusko Ikaskuntzaren 1994ko *Angel Apraiz* ikerketabekari esker, Jotxo Larrañaga, Miren Gabantxo eta Asier Aranguren *“Sei herri-aldizkari eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat”* ikerlana burutu zuten 1997an. Ordura arte aztertzeke zegoen euskarazko herri-prentsaren esparrua ikertzea eta ezagutzea zuen helburu lan horrek. Bertan, sei aldizkariaren (*Arrasate Press*, *Ttipi-Ttapa*, *Akats*, *Goierritarra*, *Barren* eta *Irutxulo*) edukiak, aldizkariaren igorleak eta hartzaileak nolakoak diren azaltzen dira.

Ikerketa lanez gain, makina bat izan dira euskarazko herri-prentsaren inguruan idatzi diren testu, txosten eta antolatu diren jardunaldiak ere. Besteak beste, *Jakin* aldizkariak, tokian tokiko prentsari ale monografikoa eskaini zion 1992ko 69. alean. Arrasateko AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) Euskara Elkarteak, herri komunikabideei buruzko hiru jardunaldi antolatu zituen 1991, 1992 eta 1993 urteetan hurrenez hurren. Jardunaldiok, herri hedabideen fenomenoak finkatzeko eta ezagutarazteko helburua izan zuten ardatz. Bere aldetik, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioak 2003an “Tokiko hedabideak etorkizunari begira” jardunaldiak antolatu zituen Zamudion. Bertan, tokian tokiko prentsa, irratia, telebista, sarea eta horien etorkizuna izan ziren aztergai. Han aurkeztu ziren txosten guztiak, “*Tokiko hedabideak etorkizunari begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak*” liburuan<sup>1</sup> jasota geratu ziren.

### **1.2- Deba Barreneko tokian tokiko euskarazko prentsa aztergai**

Euskarazko herri-aldizkarien sektorean 2000. urtea klabea da, garapen unea baita. Era berean, 2003an Deba Barreneko elkarte guztiak bateratze prozesu baterako lehenengo ahalegina egin zuten. Hortaz, bi data horiek erabakigarriak izan dira lan honen azterketa-epea finkatzeko, gure ikerketa 2000. urtean hasi eta 2004an bukatzen baita.

Beraz, 2000. urtea mugarri bilakatu da hurbileko informazioa lantzen duten komunikabideen esparruan. Milurteko berria, aldaketa, mugimendu eta garapen handiko garaia izan baita euskarazko tokian tokiko prentsarentzat eta horrek ikertzeko interesgarri bilakatu du. Aldaketok Deba Barrean ere izan zuten oihartzuna: 2003ko maiatzean Deba arroaren barreneko sei euskara eta kultur elkarteak, herri-aldizkarien bateratze prozesurako lehen urratsak ematen hasi baitziren.

80eko hamarkadaren bukaeran *Arrasate Press* herri-aldizkarien eredu bilakatu zen bezalaxe, 2000. urtean Deba Goienan, Goiena talde multimedia sortuz, beste urrats bat eman zen euskarazko herri komunikabideen arloan, multimedia egitasmoak hedatzeko eredu bilakatzeko nahiarekin. Hala eta guztiz ere, multimedia proiektuen zabalkundea Euskal Herrian ez da izan herri-aldizkariak 90. hamarkadan izan zutenaren parekoa, ezta gutxiago ere.

<sup>1</sup>- Askoren artean. (2003): *Tokiko hedabideak etorkizunera begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak*, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.

Kontuak kontu, aztergai dugun eskualde osoan zabalduko zen astekari bat kaleratzeko bideragarritasun plana martxan jarri zuten Deba Barrenean. Horretan ari zirela, bailara osorako telebista sortzeko aukera azaldu zen eta aldizkarien bateratze prozesua alde batera utzita, eskualde osorako euskarazko telebista sortzea izan zen orduetik aurrera elkarten lehentasuna, beti ere, euskara elkarte eta kultur elkarte bakoitzak bere agerkaria kaleratzeari jarraituz.

Gogoratu beharra dago, Deba Barrenean 1988an Eibarko *..eta kitto!* aldizkaria sortu zenetik, inork ez duela bailarako euskarazko herri-prentsaren fenomenoaren bere osotasunean aztertu, ez da inoiz bailarako aldizkarien eduki azterketa bateraturik egin. Ondorioz, euskarazko tokian tokiko prentsan ia hogeituro urteko ibilbidea egin eta gero, ez da inon jaso zein izan den Deba Barreneko sei herri-aldizkarien historia eta bilakaera: argitalpen horiek zeri buruz idazten duten eta zer nolako zerbitzua eskaintzen duten herri zein eskualde mailan.

Ikerlan honi heltzeko arrazoiak honako hauek izan dira: alde batetik, hutsune hori betetzeko nahia eta bestetik, aztertzeke dagoen esparru horretan gogoeta bultzatzeko asmoak gaian sakontzera bultzatu ninduen. Izan ere, 2000. urtean doktore-tesi honen egilea Ermua eta Mallabiko *Drogetenitturri* aldizkarian hasi zen lanean koordinatzaile moduan. Beraz, urteetan gertutik ikusi eta ikasitakoan oinarrituta, ikerketa lan honek datuak eskaintzeaz batera, egilearen ekarpenak eta hausnarketak ezagutzera emateko helburua ere badu, barrutik bizi izateak beste ikuspegi bat eskaintzen duelako.

### **1.3- Ikerketa honen arrazoiak**

Ikerlan honen helburu nagusia, Deba Barrenean argia ikusten duten euskarazko sei herri-aldizkarien eduki analisiaren bitartez, 2000-2004 bitartean agerkari horiek kaleratzen dituzten kazetaritza-genero eta gaiak ezagutzea izan da. Horrela, milurteko berrian bailarako aldizkari ezberdinek zer kaleratzen duten eta nola argitaratzen duten jakin gura izan dugu eta baita, Deba Barreneko herri bakoitzean argitaratzen diren aldizkarien ezaugarriak eta horiek eskaintzen duten zerbitzuaren nondik norakoak identifikatu ere.

Era berean, Deba Barreneko aldizkari bakoitzean bost urte horietan argitaratu diren kazetaritza-genero eta gaiak izan duten bilakaera nolakoa izan den eta horren arrazoiak bildu nahi izan ditugu ikerketa honetan. Alde batetik, aldizkari bakoitza sortzen denetik gure ikerketa-epaia bukatzen den arte, 2004ra arte alegia, bere bilakaera orokorrean zerikusia izan duten

zioak identifikatu dira eta bestetik, ikerketa-epeak iraun duen bost urteetan, aldizkari bakoitzean argitaratu diren kazetaritza-genero eta gaien bilakaeraren arrazoiak bilatu nahi izan dira. Hots, errebistetan kazetaritza-genero eta gai batzuek beste batzuk baino gehiago agertzearen arrazoiak bilatu gura izan ditugu. Horrek milurteko berrian Deba Barreneko aldizkari bakoitzaren egoera zein den ezagutzeko aukera eskaini digu eta aurrera begira landu behar den perspektiba ezagutzeko bide eman ere. Orobat, aldizkari bakoitzak ikerketa-epan kaleratu dituen edukiei dagokionez, zertan asmatu eta zertan kale egin duen jakiteko balio izan du.

Beraz, kazetaritza-genero eta gaien azterketatik abiatuz, Deba Barreneko esperientzia eta errealitate ezberdinak islatu nahi izan dira lan honetan, aztergai dugun bailarako sei aldizkarien artean aniztasuna egon badagoelako. Espektroa zabala eta anitza delako oso: maiztasunez, tiradez, lan-taldeen egitura eta antolaketaz besteak beste. Beraz, bailarako herri-aldizkarien fenomeno bere osotasunean aztertzeaz gain, proiektu bakoitzaren errealitate eta ezaugarrietara hurbiltze ahalegina egin dugu.

Deba Barreneko tokian tokiko aldizkarien eguneroko errealitatea, horien bilakaera, euren funtzionamendua, aldizkarietako lan-taldeen eguneroko jarduna nola bizi duten, nola antolatzen duten edota lan-taldeen antolaketa moduak nolako eragina duen aldizkariak argitaratzen dituen edukietan (kazetaritza-genero eta gaietan), orain arte egin diren ikerketa eta lanetan jaso gabe geratu diren giltzarriak dira eta guk ikerlan honetan bildu nahi izan ditugu. Horren adierazle, sei errebistetan argia ikusi duten milatik gora adibideak, Deba Barreneko argitalpenen benetako muina hortxe baitago. Halaber, astuna eta nekagarria izan den lan horrek, tokiko aldizkariak herrien egunerokotasunean sortzen diren gai aberastasun eta aniztasunaren ispilu nagusi direla erakusteko balio izan du. Milatik gorako izenburu horiek herritarren interes, bizitzeko era eta pentsamoldeen isla baitira neurri handi batean.

Herri-aldizkari bakoitzaren egunerokotasunera hurbiltzeko ahalegin horretan, errebistetan diharduten lan-taldeak nolakoak diren definitzen saiatu gara, ezin delako ahaztu aldizkarion *alma materra* eta zutabea bertoko langile profesional eta ez profesionalak direla. Horregatik hain justu bertan ari direnen profila, kopurua, prestakuntza, osaketa, lan egiteko dinamika edo bakoitzaren betebeharrak ezagutarazteari eman diogu guk horrenbeste garrantzi. Batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak lan honetan agerian uztea ezinbesteko iruditu zaigu. Lan-taldearen antolaketak aldizkariaren produkzioan eta edukietan duen garrantzia eta eragina, uste baino handiagoa dela

pentsatzen dugu: erredakzio kideen izaerak, antolakuntzak eta lan egiteko moduak, aldizkarien kazetaritza-generoak eta gaiak erabat baldintzatzen ditu, produkzioan, ekoizpenean eta edukietan eraginez. Are gehiago, erromantizismoan sinisteko garaiak atzean geratu dira eta militantzia hutsarekin herri-aldizkariak, egunak zenbatuta dituzte.

Sarrera honetan bildutakoaz gain, atalka antolatu dugu lan hau:

- a) Irakurlea testuinguruan kokatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu eta horretarako, azterketa gaiaren marko teorikoa aurkituko du jarraian. Bertan, euskarazko prentsaren historiaren baitan, tokian tokiko agerkarien bilakaeran sakondu dugu.
- b) Marko teorikoa zehaztuta, ikerketa burutzeko metodologiaren nondik norakoak azaltzen dira hurrengo sailean. Bertan, ikerlanaren unibertsoa, laginaren aukeraketa, azterketarako sortu den kategoria sistema eta erabili den ikerketa fitxaren gaineko zehaztasunak topatuko ditu irakurleak.
- c) Lan honen laugarren kapitulua, ikerketaren datuen muina da; sei aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisisetatik lortutako emaitzen aurkezpena azaltzen delako. Errebista bakoitzaren aurkezpenean, sarrera-kokapena, fitxa teknikoa eta balantze ekonomikoak agertzen dira. Ondoren, kazetaritza-genero eta gai ezberdinak sail berezietan antolatu dira; atal bakoitzaren bukaeran, kazetaritza-genero eta gai zehatz horren ezaugarri nagusiak bilduz. Bukatzeko, agerkari bakoitzaren ardatz nagusiekin azken atala antolatu da. Eredu bera jarraitu da sei aldizkariotan.
- d) Bosgarren atalean, hipotesi eta iker galderen arabera, azterketaren ondorio nagusiak hiru multzotan batu ditugu.
- e) Azken aurreko zatian, lan hau burutzeko erabili den bibliografia kontsultatu ahal izango du irakurleak.
- f) Azken kapituluan hiru eranskin agertzen dira: lehenengoan, ikerlan hau egiteko aztertu diren ale guztien zerrenda jaso dugu; bigarren eranskinean, tesi honetan agertzen diren grafiko eta taula guztien zerrenda dator bilduta eta hirugarrenean, aldizkarien hustuketa egiteko erabili den fitxa ereduaz azaltzen da.



Honi guztiari itsatsita dagoen CDaren baitan, irakurleak, 2006ko otsailean sei aldizkarietako arduradunei egindako elkarrizketa guztiak, entzun ahal izango ditu MP3 formatuan. Halaber, tesiaren laugarren kapituluaren agertzen diren grafiko guztiak eta hustuketa egiteko erabili diren fitxak (zuri beltzean inprimatuta daudenak) kolore originalarekin aurkitu ahal izango ditu.

Alazne Aiestaran Yarza.

Ermuan, 2007ko udaberria.

## **2- EUSKARAZKO KAZETARITZA**



## **2- EUSKARAZKO KAZETARITZA**

Euskarazko lehenengo testu informatiboak agertu zirenetik gaur egun arte, ia 200 urte pasa dira. Euskarazko kazetaritzaren hastapenak ezagutzeko, XIX. mendera egin behar dugu jauzia, euskarazko kazetaritza oro har berandu hasi baitzen, Euskal Herrian.

Lehenengo euskarazko testuak almanaketan aurkitu ziren; Díaz Nociren<sup>2</sup> arabera, almanakek berebiziko garrantzia izan zuten euskarazko prentsaren hastapenetan. Frantsesez eta gazteleraz idatzitako almanakekin alderatuz gero, beranduago sortu ziren, XIX. mendearen erdialdera hain zuzen ere. Garai hartako almanaken artean 1815ean Jose Paulo Ulibarri arabarrak kaleratutako egutegia aipatu daiteke: *Egutegi eusquerascoa*. Arazo ekonomikoak medio, ez zen gehiago kaleratu, baina ordurako euskaldunen artean informatzeko beharra hedatu zen eta euskaraz informazioa ematea komenigarria ikusten zuten euskaraz idazten zekitenek.

XIX. mendeak aurrera egin ahala, Bizkaia eta Gipuzkoan bestelako testuak agertu ziren euskaraz, bertsoak esaterako. Propaganda egiteko eta informazioa emateko hasierako bertso haiek ahozko tradiziotik testu idatzietara pasa ziren.

### **2.1- EUSKARA 1834-1936 URTEETAKO PRENTSAN**

Orain arte aipatutakoak euskarazko lehenengo idatzien testuinguruan kokatzen gaitu. Hala eta guztiz ere, euskarazko prentsaren hastapenak zedarritu zituen sasoiari epea jartzekotan, Javier Díaz Nocik ezarritako sailkapena kontuan hartuko dugu eta 1834. urtea izango da gure abiapuntua. Urte horretan kazeta batean lehenengo euskarazko testuak agertu baitziren, *El Correo del Norte* aldizkarian hain zuzen ere. Lehenengo karlistadaren ondorengo garai hartan euskarari tokia egin zion lehenengo aldizkaria liberala zen, Gipuzkoako nekazariak ideia liberaletara hurbiltzeko helburuarekin.

Hamalau urte pasatu behar izan ziren euskara hutsez kaleratutako lehenengo aldizkariak argia ikus zezan: Joseph-Agustin Chaho politikari errepublikarraren ekimenez sortutako *Uscal-Herrico Gasetaz* ari gara. Díaz Nociren lanean ziurtatzen denez, aldizkariak astean behin kaleratzeko asmoa zuen baina birritan agertu zen, hilabeteko maiztasunarekin. Frantzia eta Espainiako berriak zabaltzen bazituen ere, iritzia nagusitzen zen, garai hartan aldizkari gehienetan gertatzen zen bezalaxe. “Elizak berebiziko garrantzia zuen garai hartan, bere menpe

---

<sup>2</sup>- Díaz Noci, Javier. (1995)a: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.

baitzegoen ia testu idatzi guztien ekoizpena. Sasoi hartan (1834-1919 bitartean), polarizazio politikoa prentsaren lagungarri gertatu zen, bai Iparraldean zein Hegoaldean” (Ramirez de la Piscina, 1998: 177). Chahoren *Gaseta*, gerora gizarteko gatazken isla erakutsiko zuten aldizkarien aitzindaria izango zen.

### **2.1.1- Ipar eta Hego Euskal Herriko almanakak**

Atal honen sarreran aipatu bezala, almanakak euskarazko prentsan garrantzi berezia izan zuten. Ipar Euskal Herrian kaleratu ziren almanakak oso politizatuta zeuden eta garai hartako jarrera politiko polarizatuaren isla garbia ziren. Batzuek, xurien (monarkiko, elizkoi eta erreazionarioen) ikuspegia zabaltzen zuten; besteek ordea, gorrien (errepublikazaleen) ideologiaren ispilu izan ziren.

*Uscal-Herrico Gaseta* kaleratu zen urte berean, 1848an alegia, Jean-Baptiste Etcheberry apaizaren eskutik Ipar Euskal Herrian, *Escualdun laborarien adiskidea* almanaka kaleratu zen. “Aldizkaria egutegi hutsa da eta ez luke arreta handirik mereziko hurrengo urteetan oso mami politikoa hartu ez balu” (Díaz Noci, 1995a: 35). Berehala, almanaka orritsuagoak, informazioz eta iritziz beterikoak kaleratu baitzituen. Hurrengo urteetan, makina bat almanaka sortu ziren: 1852an, *Egunari berria edo conseillu oneco alamaca* errerepublikazalea. 1879an, *Almanaca berria edo egunaria* kaleratu zuten errerepublikazaleek. Errepublikaren aurka zeuden almanakak ere kaleratu ziren, *Armanak Uskara* 1888an.

Hego Euskal Herrian argia ikusi zuten euskarazko almanakei dagokionez, arestian aipatu dugun Ulibarriren almanakaz gain, besteek ez zuten izan Ipar Euskal Herriko almanakak izan zuten garrantzi politikorik. Hego Euskal Herrian kaleratu ziren almanaka gehienak egutegi hutsak eta literarioak izan baitziren.

1858 eta 1859an Josef Gorosabelek *Eusquerasco pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuzcuaraco eta Aravarac. Eta dá ateria icusbide luce batzuc daucazan Mendi altu batetic, derichona hermita bat Santa Eufemia. Eta da Medicua Arlabanco erditic. Aurtengo urteraco dauca epactida zazpi urtekaria* kaleratu zuen.

Tolosan 1865ean *Euscaldun necazarien adisquidea eta guitaria* argitaratu zen. Tituluan antzeman daitekeen moduan, almanaka hau nekazariei zuzendua zegoen, beronen helburu nagusia nekazariak euskaraz irakurtzen ohitzea baitzen.

1877an, Serafin Barojak *Santo Tomasco Feriya* eta *Almanaque bilingüe (erderaz eta eusqueraz)* para el año de 1879 kaleratu zituen.

### **2.1.2- Ameriketako prentsa**

Euskarazko prentsaren hastapenak gogora ekarri ditugun honetan, Atlantiko Ozeanoaren bestaldean euskaraz idatzi ziren kazetak ezin ditugu aipatu gabe utzi labur-labur bada ere.

XIX. mendearen bigarren erdialdean, Hego Amerikara joan ziren euskaldunek hainbat kazeta kaleratu zituzten, baina gehienek toki txikia egiten zioten euskarari<sup>3</sup>. Hala ere, euskara hutsean idatzitako prentsa Estatu Batuetan sortzen da, Ipar Euskal Herriko euskaldunen eskutik. Bi izan ziren XIX. mendean Ameriketara euskara hutsez argia ikusi zuten gazetak: *Escualdun Gazeta* (1885-1886) eta *California-ko Eskual Herria* (1893-1897).

*Escualdun Gazeta*ren arduraduna, Martin V. Biscailuz abokatu demokrata izan zen. Los Angelesen argitaratzen zen astekari informatiboa zen eta publizitateari ere lekua eskaintzen zion agerkariak. “Kazetaren protagonistak euskaldunak ditugu. Bertan kontatzen zaizkigu beren lanbideak, beren etorrerak, hildakoak, gaixorik zeudenen berri zehatza dugu. M.V. Biscailuz lurralde hartako eta bere garaiko semea dugu: gizon praktikoa, kultura zuena, negozioetan interesatua” (Díaz Noci, 1995: 41).

*California-ko Eskual Herria* astekaria beranduago kaleratu zen, J. P. Goytino abokatu errepublikazalearen ekimenez. Agerkari honek *Escualdun Gazeta*k baino arrakasta handiagoa lortu zuen eta bere helburu garrantzitsuena informazioa eskaintzea zen. Euskara garbiz idatzita, albiste labur eta iritzi sail gutxiarekin, literaturari ere lekua egiten zaio. Astekari horrek ere publizitatea sartzen zuen bere orrietan. “Lehen zenbaitik Goytinok, Estatu Batuetako informazioaz gain, Europako (Espainia eta Frantziakoak, baina logikoki, Ipar Euskal Herrikoa izanik, azken honetako informazioak Espainiakoa baina leku gehiago betetzen zuelarik) eta Amerikako beste lurralde batzuetako berriak ere eman zituen” (Díaz Noci, 1995: 43).

Javier Díaz Nociren ustez, *Escualdun Gazeta* eta *California-ko Eskual Herria* astekariak, euskaraz idatzitako informazio-generoei hasiera eman zieten.

---

<sup>3</sup>- Ikus, Díaz Noci, Javier. (1995)a: “*Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*”, Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 40. or.

### **2.1.3- Aldizkari politikoak**

XIX. mende osoan zehar nabaria izan zen polarizazio politikoa prentsan. Izan ere, sasoi hartan kaleratu ziren agerkari gehienek, jendearengan eragina bilatzen zuten. Ipar Euskal Herrian horren erakusle garbiak, *Le Réveil basque* errepublikazalea eta *Eskualduna* aldizkari kontserbadorea izan ziren.

*Le Réveil basque* 1886tik 1894ra bitartean kaleratu zen astekari elebiduna izan zen. Javier Díaz Nocik jasotzen duen moduan, aldizkari honen garrantzia *Eskualdunaren* sorrerarako akuilu izatean datza.

*Eskualduna* aldizkaria Baionan sortu zen 1887an eta ordura arte euskara hutsezko aldizkaririk iraunkorrena bilakatu zen. Guztira berrogeita hamazazpi zenbaki kaleratu zituen, baina 1944an desagertu zen. 1944ko urrian, Piarres Lafitte zuzendari zela, */Herria* astekaria argitaratu zen, gaur egun ere kalean dena. *Eskualdunak* Ipar Euskal Herriko biztanleengan eragitea bilatzen zuen, batez ere laborariengan. Hasieran oso politizatua zegoen arren, urteekin batera informazioa nagusituz joan zen bere orrietan. Aldizkariaren bigarren zuzendaria izan zen Jean Hiriart-Urrutyk aldizkariari bultzada handia eman zion eta gailurrera eraman zuen, 7.000 ale argitaratuz. “*Eskualdunak* iraupen luze bat izan zuenez, 1887tik 1944arte, aldi batzuetan izenburua aldatu arren, etenik gabeko kazeta tradizio bat sortu zuen. Lapurtar eta baxenafar euskalkien batasuna oinarritu eta finkatu zuen, euskara komunikazio-tresna bihurtu zuelarik” (Agirreazkuenaga, 1989: 96). *Eskualdunak* hasieratik egin zion lekua herrietako informazioari; informazio lokala, aldizkariaren zutaberik inportanteenetarikoa bilakatu, bere bi ardatz nagusiak, fedea eta nekazaritza ziren, kontserbadore eta tradizionalista baitzen.

1934an Ipar Euskal Herrian *Aintzina* hilabetekari politikoa kaleratu zen Piarres Lafitten zuzendaritzapean. Erdia euskaraz eta erdia frantsesez (%50) argitaratu zen 1937ra arte; arazo ekonomikoak zirela eta, desagertu zen.

Hego Euskal Herrian, ordea, aldizkari politikoak alderdien babesleku bilakatu ziren. Abertzaletasuna sortu zenean, hainbat agerkari kaleratu ziren, nork bere ideologia aldizkarion orrietan defendatuz eta aldizkariak, propaganda politiko tresna garrantzitsu bilakatu. Horren adibide esanguratsuenak, Sabino Arana jeltkidearen ekimenez sortu ziren hainbat aldizkari elebidun dira: *Bizkaitarra* (1894-1895), *Baserritarra* (1897-1897), *Gipuzkoarra* (1907-1913), *Arabarra* (1912-1933), *Napartarra* (1911-1919), *La Patria* (1901-1903), *Aberri* (1906-1908) eta *Aberrija* (1908) besteak beste. Guztietan euskararen agerpena eskasa zen.

- **Euzkadi**

Ildo beretik, pentsamolde abertzalea hedatzeko asmoz, sortu zen *Euzkadi* egunkari elebiduna 1913. urtean. Hego Euskal Herriko lurralde bakoitzean aldizkari jeltzale bana martxan jarri ondoren eta abertzaletasunaren indarra aprobetxatuz, egunkari jeltzale bat argitaratzea erabaki zuten. Ebaristo Bustintza *Kirikiño*, Esteban Urkiaga *Lauaxeta* eta Nikolas Ormaetxea *Orixek* idatzi eta zuzendu zuten egunkaria.

Bustintzak egunero idazten zuen euskarazko atalean, herrietako informazioaren aldeko apustua egin zuen, geroago euskal prentsa osoarentzat eredu bilakatuz. Halaber, “*Euzkadiren* euskarazko atalek irakurle berri bat sortzen ari ziren nonbait. Euskaldun askok, maiz beren hizkuntzan ez alfabetatuak, zailtasunak omen zituzten euskaraz irakurri ahal izateko, eta euskara eguneroko prentsan agertzeak dudarik gabe laguntza handia ekar ziezaiekeen”. (Díaz Noci: 1995b, 83). *Euzkadi* egunkariaren azken alea 1937ko ekainaren 15ean kaleratu zen.

- **Euzko**

Jeltzaleen eskutik, *Euzko* euskara hutsezko astekaria sortu zen 1932. urtean. Askoren ustez, berau izan zen jeltzaleen aldetik euskarazko egunkaria sortzeko egin zen lehen ahalegina.

*Euzkok* hamabi orrialde zituen eta gai ezberdinei buruzko informazio eta iritziak ematen zituen: Ebanjelioa, atzerriko informazio laburrak, nekazariak, doktrina ideologikoa, sindikalismoa, kirolak, errezetak, janarien salneurriak, ipuin eta kontakizunak ziren besteak beste aldizkarian agertzen zirenak. Halaber, herri informazioa aztertzen ari garen lan honetan, aipagarria iruditzen zaigun atala kaleratzen zen *Euzkon*, “Euzkadi errijetako izparrak”. Bertan, herri informazioa modu laburrean lantzen zen. “Berriak, labur-laburrak izaten ziren, lerro bakan batzuk baino ez gehienetan, herriko ohiko gauzei zegozkienak” (Díaz Noci: 1995b, 91). Tokian tokiko informazioari garrantzi handia aitortu zion aldizkariak eta horren erakusle, herri ezberdinetan (Bizkaian batik bat) lortu zuen berri-emaile sarea<sup>4</sup> izan zen.

Egitasmo honetan parte hartu zuten idazleen zerrenda luzea da: Manuel Ziarsolo *Abeletxe*, Tomas Agirre *Barrenso*, Inazio Eizmendi *Basarri* eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*, besteak beste.

---

<sup>4</sup>- Díaz Noci, Javier. (1995b): “Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: Euzkadi eta Euzko”, in *Uztaro*, 15. zenbakia, UEU, Bilbo, 90.-91. or. Bertan, herri bakoitza zein den zehazten da.



Sabino Aranak proposatutako euskarazko idatzia zegoen *Euzko*, garbizalea eta neologismoz betea. Atzerritarrenganako gorrotoa oso nabaria zen aldizkarian eta, ideologikoki, sozialistek jasotzen zuten gorrotorik handiena.

Ez zuen bizitza luzerik izan, sortu eta bi urte beranduago, 1934an, arazo ekonomikoen ondorioz, kaleratzeari utzi zitzaion. Hala ere, *Euzkori* zeregin garrantzitsua aitortzen zaio, euskara hutsezko egunkariaren (*Eguna*) eredu izateko meritua izan zuelako.

Abertzale eskuindarrek (EAJren eskuin adarrekoek), *Jagi-Jagi!* aldizkari politikoa kaleratu zuten 1932an. Urte berean, *Mendigoxale* hamabostekari abertzale eskuindarra argitaratu zen Federación de Mendigoxales de Bizkairen eskutik. Aldizkaria elebiduna zen eta 1934an desagertu zen. *Jagi-Jagi!* astero kaleratzen zen eta ez zion euskarari leku handirik egiten bere orrietan. 1936an argitaratu zen azken alea.

Badira prentsa abertzale jeltzaleko beste adibide batzuk ere baina elebidunak izanik, gaztelera nagusitzen zen aldizkari hauetan: *Bermeotarra* hilabetekaria (1932-1932), *Amayur* astekaria (1931-1936), *Aberrri* astekaria (1916-1922) edo *El Día* egunkaria (1930-1936).

- **Aldizkari politiko ez jeltzale abertzaleak**

Jeltzale abertzaleak ez eze, izan ziren prentsa politiko elebidunean bestelako ekimen batzuk ere. Resurrección María de Azkue idazle lekeitiarrak *Euskalduna*, *periódico fuerista* 1896. urtean sortu zuen. Astekaria zen eta Díaz Nocik argitu bezala, foruzaletasunetik abertzaletasunera jo zuen, nahiz eta abertzaletasun hori jeltzalea ez den izango.

Deba Barreneko euskarazko sei herri-aldizkari aztergai ditugun ikerlan honetan, ezin aipatu gabe utzi Eibarren, 1901ean, PSOE-ren ekimenez kaleratutako *El Adelante* astekaria. Desagertze datari buruz ezer gutxi irakurri ahal izan dugu, baina badirudi, 1914an ez zela kaleratzen.

Eibarko jeltzaleek *Jaiki* aldizkari elebiduna argitaratu zuten. Ekimen honen bultzatzailea Euzko Gastedi taldea izan zen. Sasoi batean kaleratu gabe egon ondoren, 1932an berrargitaratu zen aldizkaria.

Aipatu berri dugunez, abertzaletasun jeltzaleaz gain, izan ziren bestelako argitalpen politikoak ere. ANV-EAE alderdiak 1933an *Tierra Vasca* egunkari elebiduna argitaratu zuen, herritarren artean ideologikoki eragiteko asmoz. Bertan ez zen tokian tokiko informazioa jasotzen, iritzia gehiago lantzen baitzen. Egunkari abertzalea eta demokratikoa. Jeltzaleek ez

bezala, *Tierra Vasca* egunkariaren argitaratzaileek, Euskaltzaindiaren arauak onartzen zituzten eta batasunaren alde zeuden (Díaz Noci, 1995a: 212). 1934an azken alea argitaratu bazen ere, Espainiako Gerra Zibilaren garaian eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, berriz kaleratu zen 1937ra arte.

#### **2.1.4- Aldizkari kulturalak**

XIX. mendearen bukaeran aldizkari kulturekin ildo berri bat irekitzen da Euskal Herrian. Kulturak ez ezik, politikak ere bazuen tokirik aldizkariotan. “XX. mendearen hasierako Hego Euskal Herriko zenbait mugimendu politikoren sustraiak (fuerismoa, euskalerrikoena eta Aranaren abertzaletasuna) talde eta aldizkari kultural hauetan aurki ditzakegu” (Díaz Noci, 1995a: 55). Aldizkari kultural horien bultzatzaileen artean Azkue, Campion, Manterola, Mujika, Urkixo eta *Kirikiño* euskaltzaleak aurki daitezke.

*Revista Euskara* izan zen kultur aldizkariaren aitzindari; 1878an 1883ra arte Iruñean kaleratu zen eta Arturo Campion izan zen sortzailea. Hilabetero argitaratzen zen eta testuetan gaztelera nagusitu arren, literatur idatziak (poesiak, ipuinak, leiendak eta errefrauek) euskaraz argitaratzen ziren, portzentajeetan %25 euskaraz idatziz.

Bi urte beranduago, 1880ean Jose Manterolak *Euskal Erria* aldizkari literarioa kaleratu zuen. Hau ere gazteleraz eta euskaraz (%40) argitaratzen zen hamabostean behin, eta euskal literatura eta kulturaren alde egindako lana oso garrantzitsua izan zen. 1918an desagertu zen.

Atal honetan, 1907an Julio Urkixok sortu zuen *RIEV* (Revista Internacional de los Estudios Vascos) aldizkaria aipatu beharra dago. Euskal kultura eta euskarari buruzko ikerketa zientifikoei esker egindako bere ekarpena ezinbestekoa izan da, euskal kultura aldizkari zientifikoen gailurrean kokatzeko. Bertan gazteleraz, frantsesez, euskaraz, alemanez, ingelesez, portugesez eta arabieraz idatzitako testuak kaleratzen ziren. 1922an Eusko Ikaskuntzaren<sup>5</sup> organo bilakatu ondoren eta 1936an desagertu bazen ere, 1983an berrargitaratu zen. Gaur egun ere kalean da, hileroko maiztasunarekin.

Ipar Euskal Herrian 1911an eta izen bereko taldearen eskutik *Euskaltzaleen Biltzarra* urtekaria 1936ra arte argitaratu zen, Martin Landerretcheren zuzendaritzapean. Bitartean, Hego

---

<sup>5</sup>- Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen. Urte bereko udan Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzaren lehenengo Batzarra. Euskaltzale askoren laguntza jaso zuen. Oparoa izan zen bere ibilbidea: Euskaltzaindia sortu, hiru aldizkari sostengatu, zazpi Eusko Ikaskuntzaren Batzar antolatu zituen, erakusketak, omenaldiak, estatistikak egin zituen, liburu argitalpenak, bilduma batzuk osatu, partituras bildu eta argitara eman, jaino berriak ziren, ikastolak lagundu, Euskal Herriko unibertsitatea eskatu... euskal kulturarekin edozein gauzaz arduratu zen Eusko Ikaskuntza. (Díaz Noci, 1995a: 133-134).

Euskal Herrian, Gregorio Mujikak Euskal Esnalea elkartearen sortu zuen eta 1908an *Euskal Esnalea* aldizkari elebiduna kaleratu zuten. Hasieran hilabeteko maiztasuna izan arren, 1910etik aurrera hamabostero kaleratzen hasi zen eta 1931ra arte hala segitu zuen. “Lehenengo urteetan, Euskal Esnalearen beharra etengabea izan zen, euskara kultur hizkuntza bihur zedin neurri ofizialak ere eskatuz” (Díaz Noci, 1995a: 64).

Halaber, Baionan 1921ean *Gure Herria* aldizkari kulturala argitaratu zen. Gai anitz landu zituen hilabetekari honek: kultura, antropologia, euskal kirolak, historia, literatura eta natur zientziak besteak beste. 1936an kaleratu zen azkenekoz, baina 1950ean berriro argitaratu zen.

1907tik 1908ra bitartean, *JEL (Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra)* hamabostekari kulturalak argia ikusi zuen Euzko Aldedi Jeltzalearen eskutik, Luis Maria Urkixoren zuzendaritzapean. Elebiduna zen, baina euskarazko testuek %10eko portzentajea zuten aldizkarian, hots, hamasei orrialdeetatik, bat euskaraz idatzita zegoen.

*Hermes* aldizkari elebiduna 1917an kaleratu zen lehenengoz, egitasmo kultural zabalagoa eskaini nahian. “Hermesek Euskal Herriko gizartearen isla berri bat eman nahi zuen, alderdi eta kutsu anitzeko isla” (Díaz Noci, 1995a: 89). Euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez idatzitako testuak agertzen ziren eta euskal kulturaren egin zuen ekarpena garrantzitsua izan zen. Bere ibilbidea 1922an bukatu zen.

Hurrengo lerroetan *Euskaltzale*, *Ibaizabal* eta *Euzko-Deyari* buruz arituko gara, horiek izan baitziren garai hartan euskara hutsean kaleratu ziren aldizkari kulturalak.

Euskara hutsezko lehenengo aldizkari kulturala, Resurrección María Azkueren eskutik heldu zen. *Euskaltzale* izan zen eta 1897an ikusi zuen argia estreinako. Astero argitaratu zen 1899ra arte. Kaleratu zen hiru urteetan, euskaraz egindako lehenengo aldizkari modernoa bilakatu zen. Aldizkari kultural eta informatiboa zen: testu zaharrak, olerkiak, ipuinak, kantak argitaratzen zituen, baina iritzi linguistikoek ere bazuten tokia bertan; irudiak eta argazkiak askotan agertzen ziren *Euskaltzalen*.

Bost urte ondoren, 1902an, R.M<sup>a</sup> Azkue berak euskarazko bigarren aldizkari kulturala kaleratu zuen, *Ibaizabal* astekaria. Azkuek argi zeukan komunikabideen bitartez, hizkuntzan eragitea posible zela. Horregatik, jende gehiagorengana heltzeko hizkuntzak ahalik eta errazena izan behar zuela uste zuen. *Euskaltzale* baino informatiboagoa zen *Ibaizabal*, nahiz eta poesiak, ipuinak eta bestelako testu literarioak ere tokia izan. Nolanahi ere, gerora Hego Euskal Herriko hainbat aldizkaritan garrantzi berezia hartuko duen informazioa lantzeari ekin zion *Ibaizabalek*,

informazio lokalari benetako garrantzia emanaz. Ekimen horrek urtebete baino ez zuen iraun kalean, 1903an desagertu baitzen.

Abertzaleek euskara hutsez argitaratutako lehen aldizkari kulturala 1916an sortu zen, *Euzko-Deya*<sup>6</sup>. Hamabostean behin argitaratu zen 1923ra arte, Josu Telletxea eta Arsenio Beazkoetxearen gidaritzapean. Aldizkari horrek publizitateari eta osagai grafikoei toki nabarmena egin zien bere orrialdeetan. Lehen euskarazko komikia izan zena, “Teles eta Niko”, bertan agertu zen.

Euskaltzaindia 1919an sortu zen, bere lehenengo lehendakaria R.M<sup>a</sup> Azkue izan zelarik. Euskaltzaindiaren organoa zen *Euskera* (1919-1936) aldizkaria, urte berean kaleratu zen eta beste batzuen artean, Pierre Lhandek zuzendu zuen. Euskaltzaindiaren lanak eta agiriak argitaratzen ziren bertan.

1929an *Euzkerea* hilabetekari kulturala argitaratu zuten Sabino Aranaren jarraitzaileek. Hau ere, 1936an desagertu zen.

Gerra aurretikoa da *Yakintza* (1933-1936) aldizkari kultural elebiduna ere, Jose de Ariztimuño *Aitzolek* zuzendutakoa. Berori izan zen Euskaltzaleak<sup>7</sup> taldearen kultur aldizkari zientifikoa: historia, soziologia, literatura eta hezkuntzari buruzko testuak kaleratzen zituen.

### **2.1.5- Aldizkari erlijiosoak**

Aldizkari erlijiosoak XX. mendeko 20 eta batez ere 30eko hamarkadetan garrantzi handikoak izan ziren Euskal Herrian. Erlijio kontuez gain, gai politiko eta sozialak ere argitaratzen zituzten aldizkarietan, esaterako Espainiako II. Errepublikaren aurkako iritziak. Besteak beste, *Jaungoiko-Zale*, *Jesus'en Biotza'ren Deya*, *Gure Mutillak* eta *Ekin* argitalpenak kaleratu ziren.

*Jaungoiko-Zale* 1912an argitaratu zen Zornotzako Jaungoiko-Zale Bazkunaren ekimenez. Erlijioa, euskara eta hezkuntza ziren bere hiru oinarriak. Hamabostean behin kaleratzen zen euskara hutsez eta 1932an desagertu zen.

*Jesus'en Biotza'ren Deya* 1917an kaleratu zen Ramon Laskibar zuzendari zela eta beste batzuen artean, Nikolas Ormaetxea *Orixek* idazten zuen bertan. Euskara hutsez kaleratu zen hilabetekari honen ibilbidea 1936an bukatu zen.

<sup>6</sup>- *Euzko-Deyak* bi aro izan zituen, 1916-1920 eta 1921-1923. Primo de Riveraren diktaduran behin betirako desagertu zen.

<sup>7</sup>- Talde hau Jose Ariztimuño *Aitzolek* sortu zuen 1927an eta euskararen aldeko lana egin zuen 30eko hamarkadan. Eurek ez zirela politikoak esaten zuten baina, Díaz Nociren ustez, Euskaltzaleak, egitasmo abertzale jeltzalearen baitan koka daitezke.

*Gure Mutillak* hilabetekaria Donostiako Luistarrek bultzatu zuten eta 1927an kaleratu zen euskara hutsez. Berezia zen aldizkaria, gazteei zuzendutakoa eta ez zuen ordura arte kaleratu ziren aldizkari erlijiosoekin antzekotasun handirik. 1934an utzi zioten kaleratzeari.

Errepublikara garaian sortu zen *Ekin*, 1932an, *Jaungoiko-Zale* Bazkunaren eskutik eta Gabriel Manterola zuzendari zela. 20 urte lehenago kaleratu zen *Jaungoiko-Zale* egindako bideari jarraitu zion. *Ekin* astero argitaratzen zen euskara hutsez eta bere ardurak nagusiak, hezkuntza, sindikalismoa eta abertzaletasuna izan ziren, gai erlijiosoekin batera. 1936an azkenekoz kaleratu zen.

Ildo beretik, euskaraz kaleratu ziren *Gure Mixiolaria* (1924-1936), *Karmen'go Argia* (1931-1936) eta *Arrati'ko Deya* (1931-1931). Azken horrek oso ibilbide laburra izan bazuen ere, azpimarratu beharra dago ezaugarri garrantzitsua izan zuela, tesi honetako ardatza dena. Euskarazko informazio lokala hain zuzen ere. *Arrati'ko Deyak* hamabostean behin, herriko eta inguruetako berriak eskaintzen zituen euskara hutsez. “Arratiari buruzko aldizkaria izanik, -pentsatzekoa da zonalde honetan bakarrik irakurtzen zela- garrantzitsutzat jotzen dugu arrazoi batengatik: informazio lokala, herri edo zonalde txiki bateko berriak bakarrik ematen dituen aldizkaria baitzen. Horrek argi eta garbi erakusten digu euskaraz informazio lokala egitea zein garrantzitsua den” (Díaz Noci, 1995a: 181). Badira euskaraz eta gazteleraz kaleratu ziren beste aldizkari erlijioso batzuk ere: *Ecos de San Felicísimo* (1924-1936), *Junior* (1919-1932), *Aranzazu* (1921-1936), *Gymnasium* (1927-1932).

- **Zeruko Argia**

*Zeruko Argia* aldizkariak aipamen berezia merezi du orrialde hauetan. 1919an Iruñeko kaputxinoek lehenengoz argitaratu zuten hilabetekari erlijioso hura, berriz argitaratu zuten gerra ostean eta ordutik gaur egun arte etengabe kaleratu da, *Argia* astekari informatiboa bihurtzeraino. Hilabetekariaren ibilbide osoa, atalez atal aztertuko dugu lan honetan. Lehenengo eta behin, 1919-1936 bitarteko garaiari buruz arituko gara.

*Zeruko argia* (1919-1936) euskarazko kazetaritzan gehien iraun zuen aldizkari erlijiosoak izan zen. 1919an Damaso Intza zuzendari zela ikusi zuen lehenengoz argia. Hasieran aldizkariak gai erlijiosoak lantzen zituen soilik, bere idazle gehienak kaputxinoak baitziren. Hala eta guztiz ere, jende guztiari zuzendutako aldizkaria zen, Euskal Herri osora hedatu zen eta garai hartako

beste aldizkari batzuek bezala, euskaraz irakurtzeko gai zen irakurleriari<sup>8</sup> erantzuten zion *Zeruko Argiak*. Aldizkaria erlijiosoak izaki, ez zituen inoiz politika kontuak bere egin, ezta giro politikoa aldrebestua zegoen Espainiako II. Errepublika garaian ere. Eliztar aldizkari gehienek antzera, erlijio katolikoa zuten ideologia nagusi eta politikari dagokionez, hobeto ikusten zituzten sindikatuak alderdi politikoak baino.

### **2.1.6- Nekazariei zuzendutako aldizkariak**

XX. mendean kaleratu ziren nekazaritzari buruzko aldizkariak aitzindari, almanakak eta egutegiak izan baziren ere, ez zuten hauekin zerikusirik. Mende hasierako aldizkari hauek oso espezializatuak ziren. Horren erakusle, *Gipuzkoako Nekazaritza* eta *Baserritarra*<sup>9</sup> hamaboskariak ditugu.

*Gipuzkoako Nekazaritza*, 1903an hasi zen argitaratzen euskaraz eta gazteleraz (%50). Ignacio C. Núñez Arizmendiren zuzendaritzapean hamabostean behin plazaratu zen lau urtez, 1907ra arte.

1904an sortutako *Baserritarra* ere, Ignacio C. Núñez Arizmendik zuzentzen zuen. Hasieran, Nekazarien Elkarte Anaitasunak argitaratzen zuenean, euskaraz kaleratzen zen; baina gerora, elebidun bilakatu zen. *Baserritarra* hamaboskarian, nekazaritzarekin zerikusirik ez zuten gaiak ere kaleratzen ziren: poesiak, ipuinak eta istorioak besteak beste. Laborantza gaiak arinagoak ziren eta aldizkariak, nekazarien sindikatuen aldeko lana egiten zuen. 1911an kaleratzeari utzi zioten.

Arestian aipatu ez badugu ere, Bizkaian izan zen nekazaritzari buruzko hilabetekari bat, 1919an Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta kaleratu zena: *Bizkai-Aldundujaren Abeluin-Basotz Ingurtija*. Elebiduna zen (%50), oso teknikoa zen eta nekazaritzari buruzko testuez gain, bestelako informaziorik ere ematen zuen<sup>10</sup>.

### **2.1.7- Informazio prentsa**

Euskal Herritik kanpo kazetaritza informatiboan lehenengo urratsak emanda zeudela, Euskal Herrira XX. mendean sartuta heltzen da. 20 eta 30.eko hamarkadak izan ziren euskarazko

<sup>8</sup>- Bazegoen euskaraz irakurtzeko gai zen audientzia bat, lehenengo aldizkariak eta literatur ekoizpenek prestatua, alde batetik, eta alfabetazioak beste alde batetik, azken hura gehien bat erdarazkoa bazen ere. Garai hartantxe, hain zuzen ere, hasi ziren euskarazko irakaskuntzaren lehen saiakerak, Gipuzkoan ikastola batzuk sortuak ziren. (Díaz Noci, 1995a: 140).

<sup>9</sup>- *Baserritarra* aldizkari honek ez du zerikusirik, 1893an Sabino Aranak argitaratu zuen *Baserritarra* astekari elebidunarekin.

<sup>10</sup>- Ez dago argi noiz desagertu zen. Javier Díaz Nociren "Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)" liburuan ez da argitzen noiz kaleratu zen azkeneko alea.

kazetaritza informatiboaren gailurra, Bilbo eta Donostia hiriak izan ziren horren lekuko. “Kontuan hartu behar dugu, gure ustez, euskarazko komunikabide gehienek beste irakurleko bat, modernua, sortu eta hezi nahi dutela. Ezin dugu ukatu hirien garrantzia, mundu osoan, Europan, Espainian eta Euskal Herrian. Eta hirietan, batez ere sortzen dira komunikabideak – eta haien irakurleak – baita euskarazko komunikabideetan ere” (Díaz Noci, 1995a: 132). Orain arte esandakoaren adierazle, 1921ean Donostian sortzen den *Argia* astekaria dugu. Argitalpen honek frogatu zuen euskaraz ere posible zela kazetaritza informatiboa egitea.

- **Argia**

*Argiaren* lehenengo alea, 1921eko apirilaren 21ean kaleratu zen Donostian, karmeldar fraide talde batek bultzatuta. Euskaltzaleak ziren ekimena martxan jarri zuten guztiak eta euren asmo nagusia, hizkuntza (euskara) bultzatzea zen eta euskaraz irakurtzera ohituta ez zeudenak euskara irakurtzen jarri nahi zituzten.

*Argian* gai erlijiosoekin batera, gai kulturalak eta bestelakoak ere agertzen ziren. Izan ere, ordura arte R.M<sup>a</sup> Azkuek *Ibaizabal* eta *Euskalzale* aldizkari kulturaletan landutako ildo jarraitu zuen *Argiak* ere. Nolanahi ere, hasieratik oso argi geratu zen zeintzuk ziren aldizkariak landuko zituen hiru ardatz nagusiak: euskara, fede katolikoa eta nekazaritza. Poliki-poliki astekaria finkatuz joan zen eta astero 800 ale kaleratzen zituen.

Primo de Riveraren diktadura garaia pasatuta, 1929an *Argia* egunkari bilakatzeko ahalegina egin zen, euskara hutsezko egunkari informatiboa, Euskal Herri osoan hedatuko zena eta kristau guztientzat izango zena. Egitasmoak, ordea, arazo ekonomikoen ondorioz ez zuen aurrera egiterik lortu.

*Argiak* defendatu zuen ideologiari dagokionez, hasieran foruen aldeko jarrera izan zuen eta lehenengo urte haietan, ez ziren nazionalismoarekin identifikatzen erabat. Astekaria ez zen politika kontutan gehiegi sartu Primo de Riveraren diktadura garaira arte. Hala ere, diktaduran zentsuraren hatzaparretatik ihes egitea lortu zuen.

Errepublika mehatxua zen aldizkariarentzat eta ezkertiarren beldur, eskuindarren alde jarri zen, eskuineko euskal alderdi bat proposatuz. Dena dela, nazionalismoaren aldeko jarrera hartu zuen, abertzale jeltzaleen alde arituz, euren aldeko botoa eskatzera heldu zirelarik. Autonomia Estatutua ere gogor defendatu zuten aldizkariaren orrialdeetan.

Horrela laburbiltzen du *Argiaren* ibilbide politikoa Díaz Nocik, astekariak iraun bitartean: “Hasierako urteetan, nazionalismo epelagoa erakusten bazuten ere, gero nabarmenagoa izango da. Azken finean, mugimendu zabal horretan tokatu zitzaion eginbeharra bete zuen. Euskararen alde hasieran, kutsu politikorik gabe, politika arazoetan murgildurik gero eta nekazarietazako sindikatu bat sortuz, azkenik” (Díaz Noci, 1995a: 173).

*Argia* astekaria garai hartako masa-komunikabide gisa kontsideratu daiteke, mass-mediak zuten ezaugarri asko eta asko bere egin zituelako. Sasoi berrietara egokitzeko asmoz, egunkari bihurtzeko ahaleginak egin zituen eta horrek porrot egin ostean, magazine bihurtzen ere saiatu zen. 1936ko, Guda Zibilak *Argiaren* distira betiko itzali zuen.

### **2.1.8- Tokian tokiko informazioa**

Ehun urteko euskal prentsa gogora ekarri dugun atal honetan, aipamen berezia merezi dute tokian tokiko informazioa landu zuten aldizkariak, ikerlan honen ardatza herrietako informazioa baita.

Orain arte esandakoak agerian uzten du, herrietako gertakariak ia hasieratik izan dutela tokia euskarazko prentsan. Aldizkaria elebidun izanik ere, gertuko informazioa euskaraz zabaltzen baitzen maiz.

Hasierako epearen adibideen artean, *Eskualduna* astekaria dugu. 1887an Baionan sortu zenetik, herrietako informazioa bere zutabe garrantzitsua bilakatu zen. Desagertu zenean, *Herria* astekariak hartu zuen lekukoa. Gaur egun Iparraldean argitaratzen den tokian tokiko euskarazko aldizkari bakarra da *Herria*.

XX. mendearen hasieran, *Ibaizabal* astekariak jorratu zuen herrietako informazioa euskaraz eta prentsan eredu bilakatu ere; informazio lokala zaintzearena, gerora sortutako euskal aldizkari ia guztietan errepikatuko baitzen. Azkue eta Bustintzaren argitalpen horrek, 22 lagunez osatutako korrespontsal sarea zuen. Horietatik hamabost gipuzkoarrak ziren eta bost bizkaitarrak. Halaber, R.M<sup>a</sup> Azkuek *Ibaizabalen* bitartez euskara bultzatu nahi izan zuen, argi baitzuen munduko bazterrik ezkutuenen ere, komunikabideek hizkuntzan eragin handia zutela. Ordura arte euskarazko prentsan berriak ziren arloak bereziki zaindu zituen *Ibaizabalek*: ortografia, idazkera eta euskalkiak (bizkaiera eta gipuzkera).

1919-1934 bitartean, *Euzkadik* eta *Euzkok* argitaratu zuten gertuko informazioa. *Eskualdunak* bere sasoiaren egin bezala, *Euzkadik* tokian tokiko informazioari garrantzi handia



eman zion eta atal hori euskaraz argitaratuz, euskaraz alfabetatu gabe zeudenak euskaraz irakurtzen ohitu nahi zituzten.

1932an sortu zen *Euzko* astekariak tokian tokiko informazioa euskaraz eskaintzen zuen “Euzkadi errijetako izparrak” atalean. Euskal Herriko herrietako berriei garrantzi handia ematen zioten. Horregatik eta, informazio lokala behar bezala lantzeko, 45etik gorako berri-emaile sare garrantzitsua sortu zuten Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait herritan: esaterako Abandon, Bilbon, Galdakaon, Markinan, Bermeon, Durangon, Ermuan, Soroluzen, Elgoibarren eta Mutrikun besteak beste. Herrietako informazioa lantzerako orduan, gaur egungo tokian tokiko prentsaren ezaugarri bilakatu den elementua agertu zen *Euzkon*: albiste laburrak

Sasoi berekoa dugu *Arrati'ko Deya*. Hamabostekari horrek Arratia eta inguruko herrietako (Areatza, Billaro, Zeanuri, Arantzazu, Galdakao eta Bedia) berriak euskaraz kaleratzen zituen. Aurretik argitaratu ziren egunkari eta aldizkarietan, aldizkari oso batean herrietako atalak landu zitezkeela erakutsi zuen *Arrati'ko Deyak*.

Arestian aipatu ez ditugun *Renteria* (1922-1936) eta *Oarso* (1930-1933) urtekariak ere gogora ekarri behar dira informazio lokalaz ari bagara, nahiz eta bi argitalpen horietan agertzen ziren euskarazko idazti kopurua urria izan.

Beraz, XIX. eta XX. mendeetako euskarazko prentsan, egun tokian tokikoak bere egin dituen zenbait ezaugarri aurkitu ditugu:

- 1- Herriko informazioa, hurbilekoa, euskaraz eskaintzea.
- 2- Informazio lokala era laburrean ematea.
- 3- Komunikabideen bitartez hizkuntzan (euskaran) eragitea.
- 4- Euskalkiak erabiltzea.

## **2.2- EUSKARAZKO PRENTSA ESPAINIAKO GERRA ZIBILEAN**

1936ko uztailaren 18an Espainiako Gerra Zibila hasi zen eta gertaera horrek, garai hartako euskarazko zein gaztelerazko komunikabideengan eragin zuzena izan zuen. Guk, euskaraz argitaratzen zen prentsa hartuko dugu kontuan, batez ere urte horretan sortu zena.

Gerrarekin batera, Hego Euskal Herrian ordura arte kalean zeuden hainbat aldizkari desagertu egin ziren. Nafarroa eta Araban esaterako, euskarazko prentsa eta euskaraz ezer kaleratzeko aukerak desagertu ziren gerratearen lehen urtean. Gipuzkoan ezberdina izan bazen ere, ez zen egoera samurra izan. Gerra piztu zen une beretik uztailaren 28ra bitartean ez zen

aldizkari eta egunkaririk argitaratu, ez euskaraz ezta gazteleraz ere ez. Gipuzkoan *Argia* eta *Gipuzkoarra* jelkidea desagertu ziren.

1936ko irailaren 13an matxinatuek Gipuzkoa hartu zuten eta ordutik aurrera, Hego Euskal Herrian Bilbon zegoen euskaraz argitaratzeko aukera bakarra.

Hona hemen, gerraren lehenengo 3 hilabeteetan desagertu ziren euskarazko aldizkarien zerrenda: Nafarroan, *Amayur* eta *Zeruko Argia*; Araban, *Gure Mixiolari*; Gipuzkoan, *Antzerti*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Argia*, *El Día*, *Eusko Langille*, *Igandeko Orria*, *Poxpolin* eta *Yakintza*; Bizkaian, *Ekin*, *Euskera*, *Euzkerea*, *Karmen'go Argia*, *Txistularia*, *Bizkaitarra* eta *Jagi-jagi*.

Desagertu ziren aldizkako zerrenda hori luzea den arren, guda garaian aldizkari batzuk berrargitaratu eta berriak ere sortu ziren, gehienak Euskal Gobernuaren ekimenez. 1934an desagertutako *Tierra Vasca*, Eusko Jaurlaritzak 1937an berrargitaratu zuen.

Sortutako aldizkarien artean, Eusko Jaurlaritzak plazaratutako *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* (1936-1937) argitalpen elebiduna dugu; Euskal Gobernuak, Nekazaritza Sailaren ekimenez, euskara hutsez kaleratu zuen *Ereintza* (1936-1937) aldizkaria, *Gudari* (1936-1937) astekari jelkide elebiduna eta *Euzko Deya* (1936-1940) aldizkaria. Azken hori Felipe de Urkolaren zuzendaritzapean, Parisen atzerriratutako Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen bere bozeramaile izateko asmoz. Euskaraz, gazteleraz eta frantsesez idatzitako astekaria zen.

PCE-ren *Euskadi Roja* ere 1937an berriz argitaratu zen, nahiz eta bertan euskararen presentzia oso txikia izan. Euskadiko Alderdi Komunistak *Erri* astekari elebiduna kaleratu zuen 1937an. Hemen euskarak agerpen handiagoa zuen baina egitasmoak ez zuen luzaroan iraun, urte berean desagertu baitzen. Iritzia nagusitzen zen haren orrietan.

### **2.2.1- Lehen egunkaria euskaraz *Eguna***

Espainiako Gerra Zibila bete-betean zela sortu zen euskara hutsezko lehenengo egunkaria, *Eguna*. Hala ere, gerra aurretikoak ziren euskarazko egunkaria sortzeko lehen ahaleginak eta ordukoak emandako lehen urratsak. Guda garaian, *Euzkadi* egunkari abertzaleko euskal atalean Nikolas Ormaetxea *Orixek*, Estepan Urkiaga *Lauaxetak* eta Jose Maria de Agirre *Xabier Lizardik* idatzi zuten. *Orixe* eta *Lauaxeta* euskal ataleko arduradunak izan ziren eta bertan, albiste kultural eta lokal ugari kaleratzen ziren. 1929an euskarazko egunkariari buruzko eztabaida garrantzitsuaren lekuko izan zen euskal atala. Beranduago, 1932an *Euzko* euskara

hutsezko astekaria kaleratu zen eta egunkari izatera heldu ez bazen ere, bazuen egunkaria izateko ezaugarriarik. Izan ere, “1932tik 1934ra Bizkaiko jeltzaleen eraginez argitaratu zen *Euzko* euskal astekaria *Eguna*-ren aitzindaritzat har genezake, itxuran, ataletan eta sarritan mamian ere, gauza berbera ez izan arren” (Agirreazkuenaga, 1989: 101). Gerrarekin batera, *Euzkadiko* euskal atala aldatuz joan zen eta gerraren gaiak gero eta presentzia nabarmenagoa zuen euskal ataleko orrialdean.

1937an *Euzkadin* gainerako egunkarietan bezalaxe, orrialde kopurua murriztu behar izan zuten eta euskal atala ez zen berriro argitaratu. Bai, ordea, egunkari berri bat: *Eguna*.

*Eguna*, 1937ko urtarrilaren 1ean kaleratu zen eta oso bizitza laburra izan zuen, 6 hilabete besterik ez. Gudariei sostengu morala emateko betebeharra izan zuen nagusiki baina, *Egunaren* sorrerak, ordura arte euskarazko prentsan izan zen betiko ametsa frogatu nahi zuen: komunikabide eta harremanetarako baliagarria eta eraginkorra zela euskara. Honatx Joseba Agirreazkuenagak eginiko interpretazioa:

“Gure ustez, *Eguna* ez zen gudariei begira sortu zen egunkari soil bat, gudarien artean indarra, kemena eta abar eragiteko tresna. Jakina, horretarako ere bai izan zitekeen erabilia baina gudaldiko egunkari gisa ez zegoen asmaturik. Beste helburu batzuek eragin zuten euskal egunkari horren sorrera, hots helburu euskaltzaleak, euskara gizarteko harremanetarako eta komunikabideetarako tresna egokia izan zitekeela ere frogatu nahi zuten, besteak beste. Unamunoren heriotzaren berri eman zutenean, euskara kultur eta zibilizazio hizkuntza bezala azaltzen zela azpimarratu zuten egunkari jaio berrian” (Agirreazkuenaga, 1989: 100).

Manu Ziarsolo *Abeletxeren* zuzendaritzapean, Agustin Zubikarai, Estepan Urkiaga, Jose Mari Arizmendarreta eta Alejandro Mendizabal kazetari eta idazle gazteak jardun zuten. Agirreazkuenagaren esanetan, ez zuten kazetari lanetan eskarmentu handirik, gehienak herriko kronikagile izatetik edo apaiztegitik, kazetari profesional izatera pasa ziren.

*Eguna* egunkariak 10.000 aleko tirada zuen eta gehienak gudarien artean banatzen ziren. Egunkarian 20.000 ateratzen zirela jartzen zuen. *Egunak* ideologia jeltzalea zuen eta bere zutabe informatibo nagusiak honako hauek ziren: gerrari buruzko nondik norakoak azaldu, faxismoaren aurka egin, euskal abertzaletasun jeltzalea zabaldu, Euskal Gobernua defendatu, kristautasuna hedatu, nekazariak defendatu eta arazo sozialak landu eta euskara eta euskal kultura zabaldu.

1937ko ekainaren 13an *Egunaren* azken zenbakia kaleratu zen. Euskaldunok 1990eko abendura arte itxaron behar izango genuen, berriz ere euskara hutsezko egunkari bat sortu arte, *Euskaldunon Egunkaria*.

### **2.2.1- Tokian tokiko informazioa**

Espainiako Gerra Zibilaren garaian, egoera ez zen batere erraza izan euskarazko prentsarentzat oro har, euskaraz ezer kaleratzea oso zaila edo ia ezinezkoa bilakatu baitzen. Sasoi hartako euskarazko hurbileko gertakarien adibiderik esanguratsuena, *Eguna* egunkarian aurki daiteke, “Euzkadi, errijetako izparrak” orrialdean. Bertan, tokian tokiko kronikagileek herriko berriak bidaltzen zituzten. Atal honen bitartez, hainbat herritako gorabeherak ezagutzeko aukera eskaintzen zen. Gogoratu beharra dago, *Euzko* astekarian (1932-1934) izen bereko eta eduki bera zuen atala kaleratzen zela.

Gerra garaian tokian tokiko informazioari buruzko bi ezaugarri azpimarratu daitezke eta bi horiek *Eguna* egunkariak bere egin zituen: alde batetik, euskal prentsaren historian sortu zen euskarazko lehen egunerokoak, hurbileko informazioari tokia egin zion bere orrietan. Alegia, euskara komunikabideetan baliagarria eta eraginkorra zela frogatzeaz gain, gertuko informazioari garrantzia aitortu zion, berau gai gisa hartuz. Bestetik, aurreko urteetan herrietako informazioa lantzen zuten kronikagileak, euskarazko lehenengo egunkariko kazetari profesionalak bilakatu ziren. Beraz, hurbileko informazioa euskaraz lantzea, profesionalak trebatzeko tresna baliagarria bihurtu zen.

### **2.3- EUSKARAZKO PRENTSA ERBESTEAN ETA DIKTADURAN**

1939an, Espainiako Guda Zibila amaitu zenean, euskararen eta euskal kulturaren egoera ezin larriagoa zen. Gerra galtzeak ez zion euskal kulturari eta Francoren diktaduraren aurka zegoen edozein manifestazio kulturali inolako onurarik ekarri, ordura arteko lorpen gehienak suntsituta geratu baitziren. Frankistak ziren guztiaren jabe eta agintari nagusiak, baita kaleratzen zen prentsaren jabe ere. Bestalde, euskaltzale kopurua jaitsiz joan zen: hilda asko, fusilatuta beste hainbat (*Lauaxeta* kasu), bizirik geratutako ugarik, erbesterako bidea hartu behar izan zuten, 150.000 euskaldun (umeak tarteko) eta Eusko Jaurlaritzak berak egin zuten bezalaxe. Sasoi hartan euskara bera debekatu zuten. “Gerra bukatuta, gero ere gerran segitu zuen frankismoak euskal nortasunaren ezaugarri guztien aurka, legearen bidez, poliziaren bidez, prentsaren bidez. Euskarari agerpen publiko guztiak debekatu zaizkio. Exilioan zirkulazio handia

zuen esaldi batek zionez, sehaskatik kanposanturaino pertsegitu du euskara frankismoak” (Torrealdai, 1997: 123).

Erbesteko kazetaritza hasiko da egoera horretan, euskaldunek erbestean eraiki behar izan zuten beren bizitza eta era berean, euskal kultura eta hizkuntza gal ez zedin eutsi behar izan zioten. Nolanahi ere, erbestean eta etxean egindako beharrari esker, bizirik mantendu zen euskal kultura eta kazetaritza.

### **2.3.1- Aldizkari politikoak**

Espainiako Gerra Zibila bukatu eta hasierako urteetan ez zen gauza handirik kaleratu, garai latzak ziren, Francoren diktadurapean euskara eta euskal kulturaren aurkako errepresioa oso bortitza baitzen. Gerra bukatu eta 1976ra bitartean, makina bat aldizkari politiko argitaratu ziren, baina gehienak klandestinitatean edo erbestean, Ipar Euskal Herrian eta Ameriketan gehienak eta gutxi batzuk Hego Euskal Herrian.

Hego Euskal Herritik erbesteratutakoek *Euzko Enda. Boletín Mensual dedicado a la unión de la raza vasca* hilabetekaria (1939-1940) kaleratu zuten Baionan. Gazteleraz, frantsesez eta zertxobait euskaraz idazten zuten. Urte berean, erbestean zeuden euskal apaizek *Anayak* bihilabetekaria (1939-1939) argitaratu zuten Parisen. Frantsesez idatzita zegoen nagusiki, %10 bakarrik euskaraz.

Hego Euskal Herrian 1937an klandestinitatean idatzitako *Espetxean* aldizkari elebiduna 1938an desagertu zen. Larrinagako preso abertzaleek kartzelan eskuz eginikoa zen.

Gerra garaiko prentsa atalean aipatu dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak 1936an *Euzko Deya* aldizkaria sortu zuen Parisen, atzerrian propaganda eta informazioa zabaltzeko asmoz. Maiztasun irregularra izan bazuen ere, gerra ondoren ere kaleratu zen, 1940ra arte, II. Mundu Gerra piztu zen arte. Orduan Eusko Jaurlaritzaren egoitzak itxi eta jeltzale askok Ameriketarako bidea hartu zuten. Amerika eta Europako toki ezberdinetan 40ko hamarkadan hainbat *Euzko Deya* argitaratu ziren, Mexikon, Parisen eta Londresen besteak beste.

Era berean, jeltzaleen eskutik, 1946an *Argia* izeneko hilabetekaria kaleratu zen Caracasen (lehenengo lau zenbakiak) eta New Yorken ondoren. Aldizkari horrek ez du zerikusirik gerra aurrean kaleratu zenarekin, izena bakarrik. Lehenengoa, ideologia jeltzalea jarraitzen zuen aldizkari politikoa zen eta bi urte beranduago, 1948an, desagertu egin zen.

40ko hamarkadan EAJ-k honako aldizkari hauek argitaratu zituen, *Alderdi* (1947-1975) hilabetekaria Baionan, *Azkatasuna* (1945-1953) Donibane Lohitzunen eta *Euzko Gaztedi* (1948-1974) Caracasen. Aldizkari horietan, euskararen presentzia oso txikia zen.

50eko hamarkadan, ANV-EAE alderdiak *Tierra Vasca-Euzko Lurra* (1956-1975) aldizkaria, Buenos Airesen kaleratu zuen.

Caracasen Frente Nacional Vascok, *Irrintzi* (1958-1962) aldizkari elebidun jelkidea kaleratu zuen.

Jeltzaleek ez ezik, komunistek ere kaleratu zituzten erbestean euren aldizkariak, *Alkartu* (1942-1947) hilabetekaria esaterako, Mexikon. Bertan gaztelera nagusitu arren, euskararentzako beti zegoen tokiren bat. Gerra ostean *Euzkadi Roja* (1947-1955) izenburua berreskuratu zuten komunistek eta Parisen *Euzkadi Obrera* (1957-1977) hilabetekari elebiduna argitaratu zuten.

60. eta 70.eko. hamarkadetan honako aldizkari politiko eta sindikal hauek ikusi zuten argia:

*Enbata* (1960-gaur egun): ikasle talde baten ekimenez sortu zen aldizkaria Baionan. Gaur egun astero kaleratzen da.

*Igela* (1962-1964): Txomin Peillen eta Jon Mirandek bultzatuta Parisen kaleratu zen hiru hilabetekaria. “Bertan ironia, izpiritu kritikoa, sarkasmoa eta umorea nahasten zen” (Ramirez de la Piscina, 1998: 194).

*Zabal* (1973-1976): Baionan bi hilean behin kaleratu zen aldizkari abertzale sozialista. Euskal Herriko gizarte egoeraz eta Euskal Herritik kanpo zeuden abertzaleei buruzko informazioa ematen zuen.

*Goazen* (1966) ETAk Caracasen argitaratu zuen aldizkari politikoak.

*Iraultza* (1968) ETAk Bruselan kaleratu zuen aldizkari politikoak.

*Berriak* (1970-1973) ETAk Caracasen argitaratu zuen hiru hilabetekari politikoak.

*Euzkadiko egiak* (1970-1971) ETAk Mexikon kaleratu zuen aldizkari politikoak.

*Lan Deya* (1971-1973) ELAk Caracasen argitaratu zuen hiru hilabetekari sindikalista. 1972an, hilabetekari moduan Baionan eta Miarritzen kaleratu zen.

*Hautsi* (1972-1979) ETA-V (p.m)-k argitaratu eman zuen hiru hilabetekari politikoak Donibane Lohitzunen.

### **2.3.2- Aldizkari kulturalak**

Francoren diktadurapean politikoez erbesteko bidea hartu zuten bezala, kultura munduak ere diktaduraren bortizkeria ezagutu zuen eta euskarazko kulturaren zati bat Euskal Herritik kanpo ekoiztu zen.

*Gernika* (1948-1953) Donibane Lohitzunen argitaratu zen hiru hilabetekarian, euskal kultura ezagunak ziren idazle eta kazetariak idatzi zuten, Inazio Eizmendi *Baserri*, Nikolas Ormaetxea, Pierre Lafitte, Federico Krutwig, Jon Mirande edo Luis Villasantek besteak beste.

Baziren beste aldizkari kultural batzuk ere, non euskararen presentzia gutxiengoa zen: *Ikuska* (1946-1951) Saran eta *Eusko Folklore* (1947-1975) lehenengo Baionan eta gero Donostian. Ipar Euskal Herritik kanpo, Parisen argitaratzen zen *Elgar* (1948-1975) hilabetekaria.

Gerra osteko kultur argitalpen garrantzitsuenetakoa, Guatemalan argitaratutako *Euzko Gogo* (1949-1959) izan zen. Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia izan ziren ekimen honen bultzatzaileak, Nikolas Ormaetxea *Orixeren* laguntzarekin. Erbestean zeuden idazleak biltzea, euskara bultzatzea eta hizkuntza kultur tresna bihurtzea ziren bere helburu nagusiak. 1956tik aurrera Miarritzen argitaratzen hasi zen. Literatura, historia, filosofia eta euskal gaiak buruzko idatziak kaleratu ziren bere orrietan. Gabriel Aresti, Jon Etxaide, Salvatore Mitxelena edota Txillardegia agertzen dira aldizkariaren kolaboratzaile gisa.

Hego Euskal Herrian, 1948tik 1953ra Donostian argitaratu zen *Egan* kultur hiru hilabetekaria. Egitasmo honen atzean, Koldo Mitxelena, Antonio Arrue eta Angel Irigaray izan ziren. Literatur lanak, itzulpenak, zinema kritika eta liburu iruzkinak agertzen ziren. Hasieran, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* gehigarri gisa kaleratzen zen, baina gero bere bidea egin zuen.

50. eta 70.eko hamarkaden bitartean, hainbat kultur aldizkari kaleratu ziren eta horietako batzuk gaur egun ere kalean dira.

*Olerti* (1959-1969): *Karmel* aldizkariaren gehigarri moduan kaleratzen hasi zen Zornotzan, bertoko karmeldarren eskutik. Euskarazko poesiari buruzko hiru hilabetekariaren zuzendaria Aita Santiago Onandia izan zen.

*Ustela* (1975-1976): Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre eta Ramon Saizarbitoriaren ekimenez sortu zen euskarazko literatur aldizkaria dugu.

*Karmel* (1950-gaur egun): Zornotzako fraide karmeldarrek sortu zuten bihilabetekariak, erlijioari eta kulturari buruzko gaiak kaleratzen zituen; zentsura frankistaren garaian arazoak eta debekuak izan zituen. 1970etik aurrera berriztatu eta gaur egun literatura, erlijioa, kultura eta gizarte-gaiei buruzko informazio eta iritziak jasotzen ditu.

*Munibe* (1949-gaur egun): Aranzadi Zientzia Elkarteak sortu zuen aldizkaria da, zientzia gaiak lantzen dituena nagusiki. Testu gehienak gazteleraz kaleratzen dira baina noizean behin bestelako hizkuntzetan argitaratutako artikuluak ere agertzen dira.

*Jakin*: 1956an kaleratu zen lehenengoz, *Yakin* izenarekin eta Arantzazuko frantziskotarrek sortu zuten aldizkari kulturala da. Ondoren, gaur egun ezagutzen dugun *Jakin* izatera pasa zen. Hasieran, teologia, filosofia, historia eta literaturari buruzko testuak kaleratzen ziren. Gaur egun, kultur eta pentsamendu aldizkaria da. Joan Mari Torrealdai dioen moduan, “*Jakin* da, agian gerraosteko lehen belaunaldi autonomoaren ibilbidea egokien islatzen duen organoa, 1969 bitartean. Pentsamendu aldizkaria da, ez literarioa, orduko gehientsuenen antzera; euskara modernizatzean *Orixerekin* hautsi eta eredu berriak proposatu ditu; Europako korranteetara begira jartzen da” (Torrealdai, 1997: 130). Zentsuraren atzaparretatik ezin izan zuen ihes egin *Jakinek*, 1962 eta 1963an debekatu egin zuen Francoren zentsurak. 1964an berrargitaratu zen Joan Mari Torrealdai zuzendari zelarik, baina 1969an frankistek berriz itxi zuten. Franco hil ostean, eta zazpi urtez isilik egon ondoren, 1977an aldizkariak argia ikusi zuen berriro. Ordutik aurrera bere bidea egin du eta egiten dihardu, Joan Mari Torrealdai, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi eta Paulo Agirrebaltzategiren gidaritzapean. Gaur egun bi hiletik behin kaleratzen da eta giza eta gizarte zientziei buruzko lanak argitaratzen dira batik bat.

Elhuyar 1972an jaio zen, zientzia eta euskara uztartzeko helburuarekin. Izen bereko *Elhuyar*, zientzia eta teknologiari buruzko eranskina argitaratu zuten 1974an eta urtean bitan kaleratu zuten 1998ra arte. Bere helburua, euskararen gaitasuna zientzia gaietan frogatzea izan zen. Bestalde, Elhuyar Kultur Elkarteak 1985ean *Elhuyar* hilabetekaria argitaratzen hasi zen, zientziak eta teknikak aztertu eta ezagutarazteko helburuarekin. Gaur egun ere, argitaratzen da hilerok. 2002an Elhuyar Fundazioa sortu zen; gizarte, hezkuntza eta hizkuntza esparruetan lan egiten duelarik gaur egun.



### **2.3.3- Aldizkari informatiboak**

60ko hamarkadan euskarazko kazetaritza berpizten hasi zen Hego Euskal Herrian eta II. Mundu gerra bukatu bezain laster, Iparraldean *Herria* aldizkaria sortu zen, gaur egun arte heldu dena. 60ko hamarkadan egiten zen kazetaritza horrela gogoratzen du Mikel Atxaga kazetariak: “Borondatez, doanik, egiten zen kazetaritza zen: herrietako berriak bidaliz, iritzi-artikuluak onduz, kanpoko berriak hemengo egoerara egokituz egiten zen kazetaritza, norberak bere kabuz eta ahaleginez ikasi eta landutako euskara batuan. Baliabide gutxirekin eta zentsuraren begi zorrotzen eta adierazpen askatasunaren muga estuen mehatxupearan egindako kazetaritza. Debekualdiak eta zigorrak ere noiznahi pairatzen baitzituzten” (Atxaga, 2001: 18). Arazoak arazo, sasoi hartan idazle berriak sortu ziren: Txillardegia, Joxe Azurmendi, Rikardo Arregi, Ramon Saizarbitoria, Xabier Lete, Ibon Sarasola, Xabier Kintana, Arantza Urretabizkaia eta Lurdes Iriondo, besteak beste.

Hego Euskal Herrian garrantzi berezia izan zuten hiru aldizkari aipatuko ditugu atal honetan: *Zeruko Argia* eta Tolosan sortu zen *Anaitasuna* (1945-1975). Bi aldizkarion atzean orden erlijiosoak izan ziren: kaputxinoek sortu zituzten *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* eta *Goiz Argi*, frantziskotarrek. Nolanahi ere, aldizkariok zuten helburu informatiboa aurrera ateratzea lortu zuten, zentsura oso gertu izan arren. Horregatik sailkatu ditugu atal honetan aldizkari informatibo moduan.

*Zeruko Argia* gerrarekin desagertu zen eta Iruñako kaputxinoek 1954an berrargitaratu zuten. Hilero euskara hutsez kaleratzen zen, baina ezin izan zuen zentsuraren bortizkeriatik ihes egin eta 1960an Turismo Ministerioak emandako agindu baten ondorioz, kaleratzeari utzi behar izan zioten. Hiru urte pasatuta, 1963an hain zuzen ere, *Zeruko Argia* eraberrituta birkaleratu zen. Astero kaleratzen hasi zen eta informatibo bilakatu zen, Agustin Ezeizaren ekimenez. Orduan ere, zentsurarekin hainbat arazo izan zituen, baina poliki-poliki bere bidea egitea lortu zuen. Agustin Ezeizak berak aitortzen duenez, “Aldizkaria bidali aurretik, artikulu guztiak zehatz-mehatz aztertu beharra zegoen. Orduko zentsura ez zen nolana hikoia! Edo aldizkaria atera nahi genuen, edo hitz bat pasaz gero, kito! Aberri Eguna ezin zen ezta aitatu ere. Horrelako hitz guztiak kendu behar ziren” (Iparragirre eta Irustabarrena, 2001: 23) Nemesio Etxanizek eta Rikardo Arregik ere idatzi eta lagundu zuten garai berria eraikitzen. 1980an, aldiz, diru arazoak medio, *Zeruko Argia* ixtear zegoen; Joxemi Zumalabe eta Jose Mari Ostolazak, oster, aldizkaria kaputxinoei erosi eta kooperatiba bihurtu zuten. Izena ere aldatu zioten, *Zeruko* kendu eta

ordutik aurrera, *Argia* kaleratzen hasi zen. Gaur egun, informazio orokorreko euskarazko astekari inportanteena bilakatu da. Lasarten egiten da eta Euskal Herri osoan banatzen da.

*Anaitasuna* 1953an kaleratu zen lehenbizikoz eta urteetan aldizkari garrantzitsuenetakoa izan zen. Frantziskotarrek Tolosan sortu eta gipuzkeraz idazten zen; ondoren, Bizkaiko frantziskotarrek bizkaieraz kaleratu zuten beraien *Anaitasuna*. Gipuzkoakoa, Eugenio Agirretxek eta Bizkaikoa, Imanol Berriatuak zuzentzen zuten. Hasieran hilabetekariak ziren, baina 1957tik 1967ra bitartean erlijiosoak egin ziren *Anaitasunaren* jabe eta hamabostekari bihurtu zuten. Hamar hilabetez kaleratu gabe egon ondoren, itxura berrituarekin argitaratzen hasi zen astero 1982ra arte. Bere azken zuzendaria, Joan Mari Torrealdei izan zen.

*Goiz Argi* (1958-1986): Jose Antonio Garateren ekimenez Arantzazun sortu zen aldizkaria eta Garate bera izan zen bere lehenengo zuzendaria. *Aranzazu* aldizkariaren nekazal gehigarri moduan argitaratzen hasi zen. Erlijio gaiak lantzeaz gain, nekazaritzari buruzko idatziak kaleratzen ziren, erlijiosoak ez ziren idazleek idatzita. Agerkariaren orri kopurua eta maiztasuna aldakorrak izan ziren. *Goiz Argi* ere, ezagutu zuen zentsuraren bortizkeria: 1975eko urriaren 29an Donostiako Informazio Delegazioak *Goiz Argi* bahitu zuen. Urte bereko azaroaren 20an astekaria itxuraz aldatu zen eta eraberrituta kaleratu zen. 1983tik 1986ra bitartean hilero argitaratu zen, informazio orokorreko gaiak jorratuz.

Iparaldean, 1944an gaur egun oraindik ere astero kaleratzen den *Herria* aldizkaria, argitaratu zen. Pierre Lafittek berebiziko garrantzia izan zuen *Herriaren* sorreran. Bere aitzindari *Eskualdunaren* pausuak jarraitu zituen, jarrera kontserbadorea mantenduz hasieran. Gaur egun *Herria* astekarian, herrietako informazioa da nagusi eta Ipar Euskal Herrian euskara hutsez kaleratzen den astekari garrantzitsuena da.

### **2.3.4- Aldizkari erlijiosoak**

40ko hamarkadan Ipar Euskal Herrian, euskaldunek argitaratutako aldizkariak kutsu erlijiosoak zuten. Adibidez, Baionan 1947an kaleratu zen *Oiarzuna Euskaldun Emazten Kaseta*. *Etchea* (1947-1975) hilabetekari informatiboa eta *Gazte* (1947-1963) Baionan kaleratzen zen hilabetekari elebiduna (euskara eta frantsesa).

Parisen Euskadiko Apaiz euskaldunek *Egiz* (1950-1952) hilabetekari elebiduna eta *Egi Billa* (1954-1961) argitaratu zituzten, nahiz eta bietan euskarari emandako lekua txikia izan (%10).

Hego aldean 50eko hamarkadaren erdialdetik aurrera honako aldizkari erlijiosoak aurkitu daitezke: *Irun da Ondarribiko Kaputxinoen Irugarren Ordena Orria* (1955), *Ekin* (1956-1960) eta *Laiketan* (1959-1969). Guztiak euskara hutsez kaleratu ziren, *Elkartasuna* (1955) eta *Arnas* (1959-1967), ordea, elebidunak izan ziren.

### **2.3.5- Nekazariei eta haurrei zuzendutako aldizkariak**

Nekazarien eremuan 1939-1975 bitartean, honako adibide hauek aurkitu ditugu: *Artzai-Deia* eta *Luberri*.

*Artzai Deia* 1955ean kaleratu zuten lehenengoz Lekarotzeko kaputxinoek. Euskara hutsez argitaratu zen hilabetekari horren desagertze data ez da zehatz-mehatz ezagutzen. Díaz Nociren arabera, “Ziur aski 1956an ez zen agertu, ez baitu Alzolak urte hartako bere erroldean aipatzen” (Díaz Noci, 1994, 136).

*Luberri* 1954an Gipuzkoako nekazariarentzat argitaratu zen hilabetekaria dugu. Gaztelera eta euskaraz kaleratu zen eta 1955ean desagertu zen.

50eko hamarkadan haurrei zuzendutako bi aldizkari kaleratu ziren: Ipar Euskal Herrian 1950ean *Pottolo* astekaria eta Iruñan 1959an *Umeen Deia*. Biak euskara hutsez argitaratu ziren. Beranduago, 70eko hamarkadan, *Kili-Kili* hilabetekaria (1966-?) eta *Pospolin* hilabetekaria (1973-1974) kaleratu ziren.

### **2.3.6- Tokian tokiko informazioa**

Gerra aurrean eta haren ostean tokian tokiko informazioa euskaraz lantzen zuten aldizkariak egon bazeuden, eta horietako batzuk aipatuak ditugu lan honetan. XIX. mendean, *Uscal Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* eta *Californiako Eskual Herria*. XX. mendean, aldiz, *Arrati'ko Deya*. Ez ahaztu bestelako argitalpenetan ere, berri lokalek garrantzi handia zutela, *Euzkadi* egunkarian edo *Euzko* astekarian esaterako.

Guda ostean, 50eko hamarkadan euskarazko kazetaritza herrietan landu zen, tokian tokiko kazetak argitaratuz eta gehienek elizarekin lotura estua zuten. Hona hemen orduko adibide batzuk: *Eibar* (1952-gaur egun arte), *Ondarribi'ko Izparrak* (1956-1959) eta *Sirimiri zonzano* (1959-1962) elebidunak eta euskara hutsez kaleratutakoa *Gure Erria* (1957-1984).

Adibide horiek guztiek argi eta garbi erakusten dute euskarazko herri-kazetaritza egitea posible dela. Aurrerago ikusi eta aztertuko dugunez, tokian tokiko prentsa 80eko hamarkadaren

bigarren erdialdean berpiztu, eta hurrengo hamarkadetan izugarritzko hazkundera izan duen fenomeno bilakatu da.

#### **2.4- EUSKARAZKO PRENTSA 1976 URTETIK AURRERA**

Franco hil eta diktaduraren garai latzak atzean lagata, euskal kultura apurka-apurka ilunpetik ateratzen hasi zen eta euskarazko kazetaritzak sasoi berri bati eman zion hasiera. 1976. urtea euskarazko prentsan mugarri bilakatu zen. Izan ere, 1976a Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu zuten *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak. Horrela zioen *Zeruko Argia* astekariko 669. zenbakian kaleratu zen editorialak: “Eskolarako ez ezik, komunikabide eta administrazio lekuetarako ere balio duela euskarak irakatsi behar dugu”<sup>11</sup> eta horretarako “beste urrats bat egin behar dugu orain. Komunikabideetan sartu behar dugu euskara”<sup>12</sup>.

1976a Euskarazko Kazetaritzaren Urtea izendatzearekin batera, sasoi hartako prentsaren ardatzak hiru direla esan daiteke:

a) Euskara hutsezko prentsaren aldeko hautua egiten da eta horren adibide garbia, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* izan ziren. Gainerako euskarazko prentsari elkarlanean aritzeko gonbitea luzatzen zaio, gaztelaniazko prentsaren aurrean indarrak batzeko eta aurrera egiteko. Argi zuten euskal prentsak euskaraz izan behar zuela. Izan ere, “Euskal kazetaritzak 1976an eman zuen urratsa erabateko apusturen fruitua da. Historia ez zuen bitan zatitu, baina duda barik bultzada berria emanaz norabide berrirantz abiarazi zuen, abertzaletasun euskaldunaren zentzua errekuperatuz. Gertakizun fundatzailea da, gerora prentsan sortutako ugaritasuna ulertzeko, gaur egun indar betean loratzen ari den prentsa lokala, adibidez”. (Zalakain, 2003: 36). Ez ziren asko, ordea, euskara hutsez argitaratzen ziren aldizkariak, Jose Inazio Basterretxearen esanetan, “Aldizkari gutxik ziharduen euskaraz une hartan Euskal Herrian: *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Herria* eta *Goiz Argi*, gogoratzen zaidanez”<sup>13</sup>.

b) Kazetaritza modernoaren aldeko apustua egiten da, gaien eta formatuen aldaketa dator, modernotasuna, “Newsweek” aldizkari eredu jarraituz., “*Anaitasunak* iragarritako aldakuntzak iritsi ziren euskal kazetaritzara, oztopoak oztopo. Urteari hasiera eman orduko, eraberrituta azaldu ziren *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Goiz Argi*. Egunkari neurria baztertu eta aldizkari

<sup>11</sup>- *Zeruko Argia*. (1976): “1976: Euskal kazetaritzaren urtea”, in Askoren Artean. (2006): “*Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*” DVD-an, UEU, Bilbo.

<sup>12</sup>- *Zeruko Argia*. (1976): “1976: Euskal kazetaritzaren urtea”, in Askoren Artean. (2006): “*Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*” DVD-an, UEU, Bilbo.

<sup>13</sup>- Basterretxea, Jose Inazio. (2006): “Euskarazko kazetaritzaren emantzipazioa (1976-2006)”, in *Berria*, 2005/ XI/ 19.

formatua hartu zuten eta, bide batez, kolorez janztea erabaki. Aldizkarietako idazle eta kolaboratzaile gehienek goitizena erabiliz beren testuak sinatzeko ohitura zaharra utzi zuten”<sup>14</sup>.

c) Hirugarren ardatza euskarazko kazetaritzaren eta kazetarien profesionaltasunean dago. “1976 -lehen konstatazioa- euskal kazetaritzak ez du oraindik bere lehen liberaturik ezagutzen, hartara dedikatu eta hortatik bizitzez ahal duena. Mixeriaren seinale, kazetaritza konbentzionaletik begiratuta. Hortik, seguraski, seinalatzen den lehen premia: kazetarien profesionalizazioa” (Zalakain, 1993: 88). Garai hartan kazetarien profesionalizatzearen inguruan hainbatek teorizatu zuen, Luis Alberto Aranbarri *Amatiño* edo Joan Mari Torrealdaik<sup>15</sup>, esate bateralp. Ekar ditzagun gogora, L.A. Aranbarri *Amatiñok Zeruko Argiako* 675. alean idatzitakoa:

“Profesionalizazioa nahitanahiezkoa da kazetaritzan baldin egiazko kazetaritza egingo bada. Aje honetatik atera ezinik gabiltza”<sup>16</sup>. Era berean, “euskal kazetari amateurrei hutsaren truke lan egitea tokatu zaie eta orain agertzen ari zaizkigun tituludunei, berriz, zuhur eta eskabide guztiz jokatzeko histori-unea. Heroeak izan behar ote diren (hainbat irakasle izan da) nik ez dut esango; baina halako goi pedestal batez euskal kazetaritza (euskarazkoa bederen) salbatzera datorrenak laster hartuko du matraileko bat edo beste”<sup>17</sup>.

Euskara batuaren inguruko eztabaidak ere, alde batera uztea erabaki zuen euskal prentsak eta irakurleak biderkatzeko asmoz, batasunaren alde egin zuen.

Prentsan ez eze, irratiak ere bat egin zuen kazetaritza eta euskararekin. 1976ko martxoaren 27an, *24 Orduak Euskaraz* ekimena antolatu zen. Loiolako eta Donostiako Herri Irratietan 24 orduz jarraian euskaraz aritu ziren. Mahai inguruak, zuzeneko elkarrizketak, musika, kronikak... Eguna bukatzeko, Donostiako Belodromoan jaialdia izan zen, Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Mikel Laboa eta Benito Lertxundiren parte-hartzearekin, besteak beste. Ekimenaren hasierako helburua Euskaltzaindiarentzat dirua biltzea bazen ere, argi geratu zen beste aldarrikapen hau: “24 orduetan euskaraz aritzeko gai izango ziren komunikabideak sortu behar ziren”<sup>18</sup>.

<sup>14</sup>- Askoren Artean. (2006): “Euskal Kazetaritzaren urtea”, in Askoren Artean. *Gu gara Euskal Prentsa. Hautu baten kronika 1976-2006 DVD*, UEU, Bilbo.

<sup>15</sup>- Ikus, Zalakain, Jesus Mari. (1993): *Euskal prentsa herri proiektua da. Joxemiren uzta*, Txalaparta, Tafalla, 88.-90. or.

<sup>16</sup>- Aranbarri, L.A. *Amatiño*. (1976): “Euskal kazetaritzaren inguruan”, *Zeruko Argia*, 1976/II/1, in Askoren Artean. (2006): “*Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*” DVD-an, UEU, Bilbo.

<sup>17</sup>- Aranbarri, L.A. *Amatiño*. (1976): “Euskal kazetaritzaren inguruan”, *Zeruko Argia*, 1976/II/1, in Askoren Artean. (2006): “*Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*” DVD-an, UEU, Bilbo.

<sup>18</sup>- Aranbarri, L.A. *Amatiño*. (1976): “Euskal kazetaritzaren inguruan”, *Zeruko Argia*, 1976/II/1, in Askoren Artean. (2006): “*Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika 1976/2006*” DVD-an, UEU, Bilbo.

Urte horretan *Punto y Hora de Euskal Herria*, *Garaia* eta *Berriak* aldizkariak sortu ziren. Hasieran elebidun plazaratu ziren, denborak ordea, euskarak bertan zuen tokia eskasa zela erakutsi zuen. Talde politikoen eskutik sortu ziren eta Euskal Herrian kazetaritza informatibo politikoa estreinakoz aldizkari horiek landu zuten. *Garaia* eta *Berriak* argitalpenek ez zuten luzaroan iraun, lehenengoak 1977ko apirilean ikusi zuen azkenez argia eta bigarrena 1977ko ekainean desagertu zen. Ildo beretik, 1979an *Ere* astekari elebiduna sortu zen eta ez zuen bizitza luzerik izan azken horrek ere.

Aldizkariak ez ezik, egunkari elebidunak ere ate joka zetozen, *Deia* eta *Egin* 1977.an sortu ziren eta elebidun aurkeztu zuten bere burua nahiz eta euskararen presentzia bietan oso urria izan. Biak egitasmo politikoaren organo izateko atera ziren eta halaxe iraun dute. *Egin* bortizki itxi zuten 1998an, Auzitegi Nazionalaren epailearen aginduz, eta haren ordezkari gaur egun kalean den *Gara* argitaratu zen.

Prentsa elebidunak izan zuen eraginik euskarazko prentsan. *Goiz Argi* elebidun bilakatu zen; kolaboratzaile, kazetari eta iragarle asko prentsa elebidunera joan ziren eta euskarazko kazetek irakurleak galdu zituzten. Ondorioak nabarmenak izan ziren *Anaitasuna* eta *Zeruko Argian*. *Anaitasunak* ezin izan zion egoera berriari aurre egin eta 1982an desagertu egin zen<sup>19</sup>. *Anaitasunako* zenbait kazetari *Zeruko Argiara* joan ziren. 80ko hamarkadan, arazo ekonomikoak medio, kaputxinoek aldizkaria saldu behar izan zuten eta ordutik aurrera kooperatiba bihurtuta eta zailtasun ugari bidean topatuz, aurrera egitea lortu zuen gaur egun arte.

Egoera horretan Euskadi Irratiak bere lehenengo saioa aireratu zuen 1982an, eguneko 24 orduak euskaraz egiteko asmoarekin. Pentsatu eta egin, egin zuen.

1983an, telebista euskaraz estreinakoz ikusteko aukera izan zen ETBren eskutik. Lehenengo emanaldi horrek 4 orduko iraupena izan zuen. 1986an, aldiz, euskarazko eta gaztelerazko programazioa banatu egin ziren, ETB1ean eta ETB2an hurrenez hurren.

80ko hamarkadaren bukaeran tokian tokiko komunikabideen loraldia gauzatzen da, Euskal Herriko zenbait txokotan, herri eta eskualde mailako komunikabide txikiak sortuz. Herri-aldizkariaren fenomenoak aurrerago ikusiko dugu atal berezi batean, beraz oraingoan aipatu baino ez dugu egingo. Euskara talde eta kultur elkarteek bultzatu zituzten egitasmo gehienak; haien

---

<sup>19</sup>- Askoren artean. (2006): "Anaitasunatik Argiara. Anaitasunako langileen agiria, 1983ko martxoa", in Askoren Artean. (2006): *Gu gara Euskal Prentsa, hautu baten kronika 1976-2006 DVD-an*, UEU, Bilbo. Bertan *Anaitasuna* aldizkaria ixteko arrazoien berri ematen da.

aitzindari, prentsa idatzian *Arrasate Press* eta *Ttipi-ttapa* baziren, irratian *Xorroxin* irratia gailenduko zen.

Halaber, 80ko hamarkadaren amaieran, gero eta nabarmenagoa zen euskarazko egunkari baten beharra euskal gizartean. Euskal kulturaren eremuko 75 lagunek Egunkaria Sortzen talde eragilea osatu zuten eta bere proiektua prestatzen hasi ziren. Aldi berean, Jose Ramon Belokik zuzenduta, Eusko Jaurlaritza bere egitasmoaren alde lanean hasi zen. Izan ere, *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera baino bi egun lehenago, abenduaren 4an, *Egunero* izeneko zortzi orrialde zituen argitalpena aurkeztu zuten Josu Lejarreta Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileko euskara zuzendariak eta Jose Ramon Belokik, egunkari publikoaren eredua izan zitekeena erakusteko asmoz. Bi proposamenak mahai gainean, egunkari publikoa ala pribatua, makina bat eztabaida eta ika-mika sortu zituen gaiak<sup>20</sup>.

Eztabaidak eztabaida, 1990eko abenduaren 6an jaio zen *Euskaldunon Egunkaria*, euskara hutsezko historiako bigarren egunkaria.

#### **2.4.1- Euskaldunon Egunkaria**

2003an Guardia Zibilek indarrez itxi zuten arte, euskal prentsaren historian euskara hutsez iraupen luzeena izan zuen kazeta izan zen *Euskaldunon Egunkaria*, euskaraz soilik informazio orokorreko egunkari nazional bakarra izan zena. *Argia* aldizkariko kazetari talde batek bultzatuta, Joxemi Zumalabe buru zutela ikusi zuen lehenengoz argia *Euskaldunon Egunkariak* 1990ean. Zumalaberekin batera honako hauek osatu zuten administrazio taldea: Martin Ugaldek, *Euskaldunon Egunkariako* Administrazio Kontseiluko lehendakariak; Joxemi Zumalabek, Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkariak; Joan Mari Torrealdaik, Kontseilu Editorialeko presidenteak; Pello Zubiria zuzendariak eta Iñaki Uria zuzendariordeak. Zubiriaren ondoren, Iñaki Uria eta Martxelo Otamendi izan ziren *Egunkariako* zuzendari.

Euskal egunkari nazional gisa definitu zuen bere burua eta Euskal Herri osoan zabaltzen zen. Independente izanik, joera ideologikoari dagokionez, sektore sozial, politiko eta ideologikoekiko irekitasuna erakutsi zuen. Ekimen eta oinarri herritar eta sozialak izaki, erakunde publikoen parte-hartzea eta laguntza ekonomikoa bilatzen ahalegindu zen. 1998an, OJD erakundearen arabera, 12.000 aletik gorako tirada zuen.

---

<sup>20</sup>- Eztabaida horri buruzko informazio gehiago aurki daiteke: Zalakain, Jesus Mari. (1993): *Euskal Prentsa Herri proiektua da. Joxemiren Uzta*, Txalaparta, Tafalla.

Euskarazko prentsaren historia aztertzen ari garen atal honetan, labur-labur bada ere, ezin dugu aipatu gabe utzi *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera, euskarazko kazetaritzaren historian mugarri bihurtu zena.

- ***Euskaldunon Egunkariaren itxiera***

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epaileak aginduta, ETArekin lotura zuela frogatu nahian, 2003ko otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen eta hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak: Martxelo Otamendi (*Egunkariako* zuzendaria), Iñaki Uria (*Egunkariako* kontseilari ordezkaria), Joan Mari Torrealdai (*Egunkariako* Administrazio Kontseiluko lehendakaria eta *Jakineko* zuzendaria), Pello Zubiria (*Argiako* zuzendariaren albokoa eta *Egunkariako* zuzendari ohia), Xabier Oleaga (Ikastolen Elkarte-Partaideko langilea eta *Egunkariako* zuzendariorde ohia), Fermin Lazkano (Plazaguneko kudeatzailea, *Egunkariako* gerente ohia), Luis Goya (*Egunkaria* Sortzen-en bultzatzailea), Txema Auzmendi (*Egunkariako* Administrazio Kontseiluko kidea eta Herri Irratiko zuzendariordea), Inma Gomila (*Egunkariako* gerente ohia) eta Xabier Alegria (Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea).

*Egunkariaren* Andoaingo, Bilboko, Gasteizko eta Iruñeko egoitzak miatu ondoren, bertoko artxibo, CD, ordenagailu eta dokumentuak eraman zituzten. Lau egoitzak zigilatu eta diru kontuak blokeatu zituzten. Era berean, *Jakin*, *Argia*, Herri Irratia eta Ikastolen Elkarte miatu eta hango zenbait ordenadore eta dokumentu eraman zituen Guardia Zibilak. Atxilotuek tortura-salaketak egin zituzten kaleratu eta gero. *Egunkaria* itxita, hurrengo egunean bertan, otsailaren 21ean, *Egunkariako* langileek hamasei orriko tabloide monografikoa Euskal Herri osora zabaltzea lortu zuten *Eguneroren*<sup>21</sup> mantxetarekin. Kaleratu ziren 50.000 aleak agortu egin ziren eta egitasmo berria martxan jarri bitartean, *Egunero* izan zen euskarazko egunkari nazionala, hiru hilabetez.

*Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren ondorioz, ia hirurehun langile, zuzenak, kolaboratzaileak eta autonomoak lanik gabe geratu ziren.

Gizartearen erantzuna, zabala eta berehalakoa izan zen itxieraren aurrean. Egun berean euskalgintzako, kultur munduko, sindikalgintzako eta politikako ordezkari ugari egin zuten bat *Euskaldunon Egunkariarekin*, atxilotuekin eta langileekin. Herri-mobilizazioak eta elkarteratzeak etengabeak eta ugariak izan ziren. Itxieraren egun berean, Euskarazko Gizarte

---

<sup>21</sup>- *Egunero*, Tolosaldean kaleratzen zen egunkaria zen, gaur egun *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* dena.



Eragileen Kontseiluak 2003ko otsailaren 22rako manifestazioa deitu zuen Donostian, “Egunkaria aurrera! Bai Euskarari” lelopean. Milaka eta milaka lagun hurbildu ziren Donostiara *Euskaldunon Egunkariari* babesa agertzeko. Hurrengo eguneko *Eguneroaren* portadak horrela zioen: “Mundu bat Egunkariaren alde”.

Halaber, *Euskaldunon Egunkariako* langileak eta Euskarazko Gizarte Eragileen Kontseiluak, 2003ko martxoaren 13an Elkartasun Egunerako deia egin zuten Euskal Herrian. Lan uzteetan eta kontzentrazioetan milaka herritarrek hartu zuten parte, itxieraren aurkako erantzun sendo eta irmoa emanaz.

Berehala jarri zen martxan egitasmo berria, eta 2003ko ekainaren 21ean *Berria* euskarazko egunkari nazionala kalean zen, *Egunkariako* lan-taldearen ekimenez sortua. Euskarazko Komunikazio Taldea S.A. enpresa berria, ehun eta berrogeita hamaika langilek jarri zuten martxan 60.350 euroko kapitalarekin. Proiektu berriak, *Egunkariaren* ildo nagusiei jarraitu zien eta aurretik egindako lan eta esperientziatik indartuta abiatu zen.

#### **2.4.2- 1976ko aldarrikapenak gaur egun**

1976an Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu zenean, arestian aipatu ditugun hiru oinarri nagusi zituen prentsak: Euskara, modernotasuna eta profesionalizatzea. urteen joan etorriarekin lehenengo biek aurrera egitea lortu dutela esan daiteke. Hirugarrenak, ordea, erabat lortu gabe jarraitzen du.

Alegia 1976an, hiru aldizkari argitaratzen ziren euskara hutsez eta gaur egun kopuruak nabarmen egin du gora: euskara hutsezko egunkari nazional bat (*Berria*), euskaraz argitaratzen diren eskualdeetako 7 egunkari<sup>22</sup>, 3 astekari nazional, 71 herri-aldizkari, 61 aldizkari espezializatu eta 60 berripaper ditugu gaur egun merkatuan. Guztira 202 argitalpen. “2006. urtea da, eta 30 urte joan dira oharkabean. Baina 76ko izpirituak bizirik dirau, eta horren adierazle dira urte hauetan sortu diren euskarazko komunikabideak. Bizirik dirau Euskal Kazetaritzaren Urteko izpirituak, bizirik, komunikazioren aroa omen den honetan”<sup>23</sup>.

1976an formatuen aldaketa eta prentsaren modernotasunaren aldeko apustua egin zutenek, hurrengo urteetan sortu ziren aldizkarien jarraipena izan zuten. Egun, euskarazko

---

<sup>22</sup>- *Hernaniko Kronika* astean zazpi egunetan kaleratzen da, eskualdeetako *Hitzak* astean sei bider argitaratzen dira.

<sup>23</sup>- Askoren Artean. (2006): “Euskal kazetaritzaren urtea”, in Askoren artean. *Gu gara Euskal Prentsa, hautu baten kronika 1976-2006 DVD-an*, UEU, Bilbo.

aldizkarien espektroa zabala bezain anitza da. Zabala, Euskal Herri osora hedaturik dagoelako; anitza edukiz, formatuz eta ildo editorialez kolore eta ezpal guztietako argitalpenak direlako.

Profesionalizatze kontuak, ostera, ez dute neurri berean aurrera egin azken 30 urteotan. Euskarazko prentsan diharduten profesionalak orduan baino hobeto dauden arren, oraindik orain euskarazko prentsaren ahulezien artean, lan baldintzak eta langileek jasotzen dituzten soldata eskasak aipatu behar dira<sup>24</sup>.

### **2.4.3- Prentsaren espezializazioa**

“Espezializazioak markatutako garaian gaude eta honetara iristeko, kazetaritzak hiru fase ezberdin gainditu behar izan ditu: kazetaritza ideologikoa (iritzizkoa, moralizantea, dogmatikoa...) XIX. mendean bereziki garatu zena; kazetaritza informatiboa (XX. mendeko lehen zati erdian, gutxi gora behera) eta kazetaritza interpretatiboa (II. Mundu Gerraren amaieratik aurrera landu dena)” (Ramirez de la Piscina, 1998: 197).

Kazetagitzaaren espezializazioaren garaian murgilduta gauden honetan, euskarazko prentsak ez du espezializazioaren trena galdu nahi izan. Ikustea baino besterik ez dago argitalpen kopurua esparru ezberdinetan. 80ko eta 90eko hamarkadetan, gaur egun arte iraun duten hainbat aldizkari espezializatu sortu ziren. Guztiak aipatzea ezinezkoa denez, esanguratsuenak zerrendatuko ditugu adibide gisa<sup>25</sup>.

#### **2.4.3.1- Zientzia eta kultur aldizkariak**

Zientzia eta kultura arloan aurreko hamarkadetan sortu ziren *Jakin* eta *Elhuyar* aldizkariak gogora ekartzeko beharrezkoa da, bi aldizkariok euskal kultura eta zientziaren erakusleho eta erreferentzia bilakatu baitira.

Horiez gain, bestelako kultur eta zientzia aldizkari hauek euskarazko prentsaren esparrua aberastu dute azken urteetan:

---

<sup>24</sup>- Ikus ondoko bi lan hauek: Askoren artean. (2006): *Prentsa, Irrati, Sarea, Telebista, Euskarazko Hedabideen Topaketa Mintegia* txostena, UEU, Eibar.

Askoren artean. (2005): *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, EHU, Bilbo.

<sup>25</sup> Zerrenda osatuagoa honako bi argitalpen hauetan aurki daiteke: Muxika, Joxemari. (2002): “Euskaraz idatzitako aldizkarien errolda: 1960-1999”, in *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación* aldizkaria, 9. zenbakia, Eusko Ikaskuntza, Donostia. Torrealdei, Joan Mari. (1997): *Euskal kultura gaur, liburuaren mundua*, Jakin, Donostia.

*RIEV* (Revista Internacional de los Estudios Vascos); Gerrate garaian desagertu ondoren, Eusko Ikaskuntzak berrargitaratu zuen 1983an. Munduko euskaltzaleek idazten dute bertan, euskaraz eta gazteleraz.

*Uztaro* 1990ean sortu zuen UEUk, giza eta gizarte-zientzietan unibertsitaterako materiala garatzeko helburuarekin. Urtean lautan argitaratzen da euskarazko kultura orokorreko aldizkari hau.

#### **2.4.3.2- Literatur aldizkariak**

*Hegats* literatur aldizkaria 1989an kaleratu zen lehenengoz Euskal Idazleen Elkartearen ekimenez. Literatura, kritika eta liburu-iruzkinak argitaratzen dira besteak beste, literatura sormena sustatzeko helburuarekin. Gaur egun 700 aleko tiradarekin kaleratzen da.

*Idatz & Mintz* 1982tik Labayru Ikastegiak kaleratzen duen literatur aldizkaria dugu. Urtean bitan argitaratzen da eta bere helburu nagusia, literatura sorkuntza eta literatura zaharrari zein aho literaturari aukera eskaintzea da.

*Maiatz* 1982an Baionan sortu zen aldizkaria dugu, literatura sorkuntzari plaza jartzeko xedearekin. Gaur egun ere, urtean hiru aldiz kaleratzen da Luzien Etxezaharretak bultzatutako hau.

*Oh! Euzkadi* 1980an abiatu zen Donostian literatura sorkuntzari aukera emateko asmoz, baina ez zuen asko iraun, 1983an desagertu baitzen. Bertan, Koldo Izagirrek eta Ramon Saizarbitoriak idazten zuten besteak beste.

*Pott* literatur aldizkaria Donostian sortu zen 1977an, literatur sorkuntza sustatzeko. Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionaindia eta Joxemari Iturralde izan ziren beste batzuen artean ekimena bultzatu zutenak. Maiztasun irregularra izan zuen eta sei ale baino ez ziren kaleratu; 1980an desagertu zen.

Euskal Filologia ikasten ari zen lagun talde batek, 1979an *Susa* martxan jarri zuen Donostian. Sasoi hartako literatur aldizkari gehienen antzera, sorkuntzari aukera ematea zuen helburu. Urtean bitan kaleratu zen 1994ra arte.

*Vladimir* 1997an argitaratu zen estreinakoz Zarauzko Vladimir Brigada Elkartearen eskutik.

Urtean bitan kaleratzen da *Zantzoa*, 1994tik. Poesia nagusitzen da Arratiako gazteen literatur taldeak kaleratzen duen aldizkari honetan.

*Literatur Gazeta* 1982an sortu zen Donostian, Koro Barojak bultzatuta. Urtebeteko etenaldia izan zuen 1989an azken zenbakia atera aurretik. Urtean bitan kaleratzen zen.

#### **2.4.3.3- Haurrentzako aldizkariak**

Haurrei begira kaleratzen diren aldizkariaren artean *Kili-Kili* da beteteranoena; 1966an Bilbon sortu zen. Komikiak eta ipuinak argitaratzen zituen eta euskararen erabileran eragitea helburu zuen hilabetekaria izan zen.

*Ipurbeltz* Donostian sortu zen 1997an eta gaur egun 2500 ale banatzen ditu Euskal Herrian barrena 8-12 urte bitarteko umeei zuzendua dagoen aldizkariaren gaiak honako hauek dira: komikiak, ipuinak, zinema, musika, kirola, literatura eta bideo jokoak.

*Kometa* 1996an Hendaian sortu zen. Komikiak eta ipuinak argitaratzen zituen, 8 urtetik gorako umeak euskaraz irakurtzera bultzatzeko helburuarekin. Bi hilean behin kaleratu zen, 1998an desagertu zen arte.

*Xirrixta* ere Hendaian argitaratu zen lehenengoz 1992an, *Kometa* argitaratzen zuen talde beraren eskutik. (Xirrixtazeak Elkarteak eta Letrazopa Elkarteak). Hilabetekaria zen eta haurrentzako ipuin marraztuen bidez, txikienak euskarara hurbiltzea zuen helburu. 1998an desagertu zen.

#### **2.4.3.4- Hezkuntza eta euskalgintzako aldizkariak**

Hezkuntza alorrean eta euskalgintzaren atalean hainbat dira 80-90.eko hamarkadetan sortu ziren aldizkariak. Hona hemen horietako batzuk:

*Aizu* 1981ean sortu zen Bilbon. AEK-k hilero kaleratzen du gaur egun aldizkaria, euskara ikasteko eta oinarritzkoa den irakurketa ahalbidetzeko helburuarekin. Euskal Herri osoan saltzen da eta 15.000 aleko tirada dauka.

*Bat* soziolinguistika aldizkaria Donostian sortu zen 1989an. SEI elkarteak kaleratzen du Urtean lau aldiz, euskalgintzako kideak soziolinguistika gaietan janztea helburuarekin.

*Habe* hilabetekaria 1981ean HABE erakundearen eskutik Donostian sortu zen. Bertan, material didaktikoa argitaratzen da, euskararen garapenaren inguruko gai orokorrak lantzeko. Gaur egun ere argitaratzen da.

*Hik hasi* euskal heziketarako aldizkaria, 1995ean sortu zen Lasarte-Orian, pedagogia euskaraz ahalbidetzeko xedez. Euskal Herri osoan hilero 5.000 ale banatzen dira.

*Zutabe* euskalduntze alfabetatze aldizkaria, 1983an Donostian argitaratu zen, hizkuntzarekin zerikusia zuten zientzia arloak gizarteratzeko helburuarekin. Urtean hiru ale kaleratuz, HABEren zuzendaritzapean; saltokietan 1996ra arte iraun zuen.

Orain arte esandakoa, euskarazko prentsaren historiaren laburpena izan da, euskarazko kazetaritzaren historiara hurbiltzeko asmoz, laburtu baino ez dugu egin. Euskarazko herri-prentsa aztertzen ari garen lan honetan, aitzindariak gogora ekartzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu, horrek hurrengo atalak hobeto ulertzen lagunduko digu-eta. Bestalde, orain arte aipatu ditugun autoreek euskarazko prentsaren historia jasotzen duten lan bikainak egin dituzte eta bertan sakonean aztertzen da euskarazko prentsa aldi ezberdinetan. Hori dela eta, aldizkari eta argitalpen esanguratsuenenak bildu ditugu hemen<sup>26</sup>.

## **2.5- HERRI-ALDIZKARI MODERNOEN SORRERA 80KO HAMARKADAREN BUKAERAN**

Gatozen bada herri-aldizkariaren alorrera, berau baita ikerketa lan honen ardatza eta zutabe nagusia. Euskarazko prentsaren historian, herri informazioa landu duten hainbat aldizkariaren adibideak ikusi eta aipatu ditugu orain arte. Euskarazko tokian tokiko prentsaren fenomenoak, ordea, duela 20 urte eskas sortu zen Euskal Herrian. 1988an, *Arrasate Press* eta *Ttiti-ttipa* sortu ziren herri-prentsaren eredu bilakatu zirenak. Orduz gozotik makina bat izan dira Euskal Herrian barrena sortu diren herri-aldizkariak, gehienak Gipuzkoan kokatu badira ere. Ordura arte euskarazko aldizkariak ez zuten inoiz lortu 80ko hamarkadan eta hurrengo urteetan euskarazko prentsak izan duen indarra eta hedapena.

1988tik aurrera Euskal Herrian ezagutu zen herri komunikabideen hazkundera, Europan eta Estatu Batuetan ere gertatu zen lehenago. Horrezaz gain, 80ko hamarkadan Euskal Herrian ezagututakoa, aurreko hamarkadan prentsa lokalak hasia zuen hazkunderaren ondorioa izan zen. Gainera, informazio lokalaren goranzko joera, euskarri ezberdinetan azaldu zen bai Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere. Irratiak eta herri telebistak dira horren adierazle garbia.

<sup>26</sup>- Argitalpen guztiak honako lan hauetan aurki daitezke: Díaz Noci, Javier. (1994): *Euskarazko aldizkari eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 13.-55. eta 139.-159. or. Torrealdai, Joan Mari. (1997): *Euskal kultura gaur, liburuen mundua*, Jakin, Donostia, 140.-147. or. Muxika, Joxemari. (2002): "Euskaraz idatzitako aldizkariaren errolda: 1960-1999", in *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación* aldizkaria, 9. zenbakia, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 19.-94. or.

Euskal Herrian informazio lokalak gora egitearen arrazoiaren artean, Txema Ramirez de la Piscina aitpatzen dituenak ekarriko ditugu gogora (1998:29):

- 1- Diktaduraren ostean garatu zen erakundetze-prozesu eta antolamendu politiko berria.
- 2- Herriko informazioak izan zuen profesionalizatzeko eta modernizazio prozesua.
- 3- Herriko informazioak duen gertutasuna eta komunitatea kohesionatzeko gaitasuna.
- 4- Publizitatearen munduak merkatu lokalean zegoen etekinaz jabetuta, egindako apustua.

5- Birmoldaketa teknologikoen kostuen merkatzea ahalbidetu izatea.

Aipatu bost faktore horien erlazioak, izugarri lagundu zuen 1975-1988 epealdian informazio lokalak gora egin zezan.

Horrela bada, epe berri bat irekitzen da herri-aldizkarigintzan *Arrasate Press* eta *Ttipi-ttapa* aldizkariaren eskutik. Aurretik lantzen hasia zen informazio lokalak, euskaraz kaleratuko da tokian tokiko prentsaren bitartez.

Euskal Herriko herri-aldizkari gehienek sortzaile eta bultzatzaileak, euskara elkarte eta elkarte kulturalak izan ziren orduan, eta halaxe dira gaur egun ere. Euskararen inguruko kezka eta hizkuntzarekiko konpromisoak eraman zituen herri-aldizkariak sortzera. “80ko hamarkadaren hasiera hartan, euskarak, komunikaziorako hizkuntza gisa, aldizkari lokal jaioberrietan aurkitu zuen habia epela. Eta informazio lokalaren eta euskararen uztartze horretatik etorri da euskarazko kazetaritzaren garapenean atalik itxuraz xumeena, baina errealitatean sendoen txertatua” (Garmendia, 2005: 23).

Prentsa-euskarriaz gain, euskarazko herri-telebistak eta irratiak ere sortu ziren; gure lan honetan, baina bi esparru horiek ez ditugu aztertuko, paperean oinarrituko gara.

1988an sortu eta hurrengo hamarkadetan indartu eta finkatuz joan zen euskarazko herri-prentsa, ez zen bat-batean gertatu. Egoera horretan sortu zen *Arrasate Press* 1988an Arrasate Euskal Dezagun (AED) elkartearen baitan, bi erronka nagusi zituela: alde batetik, euskaraz ezer gutxi irakurtzen zuten irakurle potentzialak irakurtzera gehiago bultzatzea eta bestetik, herri mailako informazioa aberastea, integrazio-bide izan zedin.

Izan ere, herri-prentsaren adituen arabera, orduko hainbat faktorek ahalbidetu eta erraztu zuten prozesu hura (Irizar, 2002: 5-6):

- Auto-edizioaren sorrera: 80ko hamarkadaren erdialdean auto-edizioari esker, lanak eta denbora aurreratzen hasi ziren eta kostuak jaisten. Auto-edizioak asko erraztu zuen herri-aldizkari bat egiteko prozesua.
- Euskararen batasuna: *Arrasate Press* sortu zenerako euskara batua finkatuta zegoen. Era berean, irakaskuntzan, administrazioan eta komunikabideetan euskararen erabilera zabaldua zegoen.
- Euskara taldeak: Arrasaten bertan sortu zen gerora Euskal Herrian hedatuko ziren euskara taldeen eredia. Euskara talde hauen zeregin nagusia, euskararen erabilera gizarte esparru guztietan zabaldu eta sustatzea da.
- Herri erakundeen irekitasuna: Udalak eta Foru Aldundiak demokratizatu ziren lehenengo eta Eusko Jurlarritza eta Nafarroako Gobernua sortu ziren ondoren. Orduan, euskararekiko eta euskal kulturarekiko jarrera irekiagoak azaldu ziren erakunde horietan. Kasu askotan ontzat hartu zuten euskarazko herri komunikabideak sustatzea, euskara elkarrekin lankidetzan. Udaletako teknikari eta euskara arduradun askok zerikusi handia izan zuten jarrera aldaketa honekin. Geroztik, asko izan dira euskarazko herri-prentsaren barruan ekimen pribatuarekin batera herriko aldizkarietan parte-hartzen ari diren udalak.
- Euskal kazetari berrien agerpena: 1976an Leioako Kazetaritza ikasketak martxan jarri ziren. Hasieran Bartzelonako Informazio Zientzien Fakultateko unitate delegatu gisa bazen ere, geroago Fakultate bihurtu zen eta euskarazko ikasketak indartuz joan ziren poliki-poliki. 80ko hamarkadaren bigarren zatian lehenengo kazetari euskaldunak atera ziren Kazetaritza Fakultatetik eta horietako batzuk herri-aldizkarietako erredakzioetara joango ziren. Herri-aldizkarietara zuzendutako berriok, euskaraz trebatutako kazetari ikasiak izango ziren.

Beste bi faktore gehitzen dizkie aurrean aipatutakoei Ramirez de la Piscinak (1998: 234):

- Herriko informazioa euskaraz emateko beharra: Herri-aldizkariak bestelako hedabideek betetzen ez duten espazioa bete dute, tokian tokiko informazioa zabal eta luze eskaintzen dute eta gainera euskaraz.
- Banaketa sistema erraza: Herri-aldizkari gehienak harpidetzaren bitartez banatzen dira, banaketa izenduna egiten da eta herritarren postontzira zuzen-zuzenean heltzen dira.

## **2.6- EUSKARAZKO HERRI-PRENTSAREN GARAPENA 90EKO HAMARKADAN. BEHAR BATI ERANTZUNA**

80ko hamarkadaren bigarren erdi aldean sortu ziren Euskal Herriko euskarazko lehenengo herri-aldizkariak. Hala ere, euskarazko tokian tokiko prentsaren benetako garapena eta hazkundera, 90eko hamarkadan izan zela esan daiteke, orduan sortu baitziren euskarazko herri-aldizkari asko eta asko. Ikus ditzagun euskarazko herri-aldizkarien sorrerari buruzko hamarkada horretako datuak: “1989an 11 herri-aldizkari sortu ziren, 1990ean, 10; 1991an, 5; 1992an, 5; 1993an, 7; 1994an, 4; 1995ean, 4 eta 1996an 6. Guztira 52 herri-aldizkari euskaraz” (Irizar, 2002: 8). 1990etik 1996ra bitartean 41 aldizkari sortu ziren Euskal Herriko paraje ezberdinetan.

### **2.6.1- Herri-aldizkarien ezaugarriak**

80-90eko hamarkadetan sortu ziren herri-aldizkari gehienek kalean diraute gaur egun ere eta badute meriturik. Gaur egun bizi dugun informazio gizartean, euskara hutsez informazioa eman ez euren tokia egitea lortu dute idatzizko hedabideen merkatuan eta herritarren artean arrakasta. Nola lortu du, ordea, euskarazko tokian tokiko prentsak horrenbesteko oihartzuna eta eragina izatea herritarren artean?

Honatx, euskarazko herri-prentsa erakargarri bihurtu duten zenbait ezaugarri (Aranzabal, 1999: 30):

- **Albisteen hurbiltasuna:** Albisteak zenbat eta lotuago egon inguru hurbilari, orduan eta arrakasta handiagoa dute. Herritarrek, herrian eta inguruan gertatzen den informazioa estimatu egiten dute. “Gizakiok betidanik kezkatu gaitu gehiago etxetik gertu jazo den ezbehar tamalgarri batek (biktimarik gabeko sute batek, adibidez), gugandik urruti izan den uholde ikaragarriak baino (nahiz eta ehunka hildako izan). Joera arras naturala da hori, gizakiok ingurukoengan bilatzen baitugu beti geure lehenengo erreferentzia, eta ez gure mugez gaindi gertatzen diren kontuetan” (Ramirez de la Piscina, 1998: 226).
- **Eduki arin eta irakurterrazak:** Gertuko informazio orokorra eskaintzen da modu labur, arin eta irakurterrazean. Gehiengoak ulertzeko moduko produktuak egiten dituzte, euskaraz irakurtzeko gai ez direnak ere, irakurtzen jartzeko, ahalik eta jende gehienarengana heltzeko. Izan ere, “tokiko hedabideari dagokio bere herri zein



eskualdeko euskaldun orenen komunikazio beharrak asetzeko moduko produktuak eskaintzea” (Mendizabal, 2005: 140).

- Doanekoa izatea: Euskarazko herri-prentsa gehiena doan banatzen da. Horrela, euskarazko prentsa irakurtzearen ordaintzeko prest ez dagoen jendearengana ere heltzen da, tirada handiagoa izanik eta ondorioz, publizitatea errazago lortuz.
- Publizitatea eramatea: Herrietako denda, taberna eta bezeroek herri-aldizkarietan publizitatea egiteak baduela saririk ikusten dute, alegia, euskarak ere saltzen duela. Horrek auto-finantziatorako bide ematen die aldizkariari, gehienek finantziario sistema partekatua dute-eta: hau da, publizitatea eta erakunde ezberdinetako<sup>27</sup> diru-laguntzak dira herri-aldizkari gehienek diru sarrera nagusiak.
- Egitura profesionala izatea: Kazetari profesional ordainduak idazgeletan izateak, produktua hobea izatea bermatzen du, nahiz eta herri-aldizkari guztietako erredakzio geletan kazetari profesional ordainduak ez izan.
- Herri erakundeen laguntza izatea: Herri-aldizkari gehienek euskara elkarteetan dute euren oinarria eta horrek ematen die bizitasuna, gertutasuna eta herrigintzan aritzeko behar duten indarra.
- Maiztasun ezberdina: Aurrerago ikusiko dugunez, herri-prentsa anitza da maiztasunari dagokionez: egunerokoek, astean bitan kaleratzen direnek, astekariek, hamabostekariak hilabetekariak, bihilabetekariak osatzen dute esparru zabal eta anitz hau.

### **2.6.2- Herri-aldizkariaren ekarpena eta funtzioak**

Testuinguru jakin horretan, ezin ahaztu daiteke euskarazko herri-aldizkariak azken 18 urteotan euskal prentsari egin dion ekarpena eta euskararen normalizazioan bete duen funtzioa oso garrantzitsua izan dela. Izan ere, herri-aldizkariak sortu zituzten euskara elkarte eta kultur elkarteek, herriko informazioa emanaz, euskara bultzatzeko asmoz sortu zituzten euskarazko agerkariak eta horiek izan dira hain zuzen ere gizartean bete dituzten funtzio nagusiak.

---

<sup>27</sup>- Gehienetan, herrietako udal, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dituzte diru-laguntzak.

Idoia Camachoren arabera, honako funtzio hauek bete ditu herri-prentsak<sup>28</sup> euskararen normaltzeko prozesuan (1999: 315-316):

Herri-aldizkariak bi funtzio nagusi izan dituzte: alde batetik euskararen normalkuntzan lagungarri izatea eta bestetik, herriko informazioa eskaintzea. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, euskaraz izatearena bigarren mailara igaro da. Hots, agerkari hauen orrialdeetan euskara normaltasun osoz erabiltzen da herritarren artean mota guztietako gaiak zein kazetaritza-generoak zabaltzeko, hizkuntzaren aberastasuna erakutsiz.

Gauzak horrela, aldizkariak beste funtzio batzuk hartu dituzte euren gain: herritarren arteko harremanak bultzatzea, iritzi ezberdinen bilgune izatea, jendearen interesetatik gertu dauden edukiak hedatzea, kultura bultzatzea, informazio erabilgarria eskaintzea, beste hedabideetako informazio-iturri izatea, euskarazko publizitatea suspertzea...

Izan ere, euskarazko herri-aldizkariak euren tokia aurkitu dute hedabideen merkatuan. Kasu batzuetan euren esparruan hurbileko informazioa hedatzen duten komunikabide bakarrak izanik, zuzeneko lehiakiderik gabe aurkitu dira. Beraz, gainerako hedabide handiagoek uzten dituzten hutsuneak betetzen saiatzen dira, herriko eta herritarren informazioa jasotzeko aukera eskainiz.

Euskarari ez eze, euskal prentsari ere ekarpen garrantzitsua egin diote herri-aldizkariak. Adituen ustetan, euskarazko herri-prentsak euskal prentsa orokorarentzat eremu berria sortu du eta horren azalpena honako arrazoi hauetan oinarritzen dute (Irizar, 2001: 10):

- Herri-prentsak informazio lokalaren hutsunea bete du, herrietako hutsune informatiboa hain zuzen ere. Horrek bestelako prentsan ere eragina izanik, gainerako komunikabideak behartu dituelako tokian tokiko informazioa zabalago tratatzera.
- Herri-prentsak informazioaren demokratizazioa ekarri du. Tokian tokiko argitalpenei esker, gainerako komunikabideetan agertzeko ia aukerarik ez duten ahots askori espazioa eta nortasuna eman zaie. Bere orrialdeetan ideien eta iritzien arteko eztabaidak bideratzen dira.
- Kazetarien eratze profesionala gorpuztu da herri-prentsaren bidez. Oro har aldizkarien eratze profesionala ekarri du, bere aro berrian. Orain arte pentsaezina zirudiena, egia bihurtu da.

---

<sup>28</sup> - 1989-1999 bitartean, Euskal Herriko gune ezberdinetan argitaratzen diren 9 herri-aldizkari aztertu zituen. Ondorio nagusiak 9 aldizkarietan oinarrituz atera dira. Emaitzak herri-prentsaren unibertso osoarenak ez badira ere, euskarazko tokian tokiko prentsaren joerak adierazten dituzte ondorio nagusiek.

- Gertuko prentsak irakurle berriak lortu ditu. Izan ere, inoiz izan den irakurle kopururik handiena sortu du. Inoiz euskaraz irakurri gabe zeuden asko eta asko euskaraz ari dira irakurtzen orain.
- Herri-aldizkariak publizitatea erakartzea lortu dute. Euskarazko prentsa idatzian inoiz euskaraz egin den publizitate kopururik handiena irabazi du. Negozio moduan planteatu zenetik, merkatari askok finantzatzen dute herri-prentsa, euren publizitatea bertan eginez.
- Teknologia berriak sartzen lagundu du. Euskarazko herri-prentsaren aro berri hau aurrerapen teknologikoen eskutik etorri da. Hori dela eta, kazetari eta teknikariak jantziago daude auto-edizioan.
- Euskarazko tokian tokiko aldizkariak euskarari izen ona eta prestigioa ematea lortu dute. Herri-prentsaren arrakastak izen ona eta ospea eman dizkio euskarari.
- Euskalkian idatzita izateak ere, merkatu-ezpal berriak ireki ditu.

## **2.7- JOERA BERRIAK EUSKARAZKO TOKIAN TOKIKO PRENTSAN**

Euskarazko herri komunikabideetan oro har eta batez ere tokian tokiko prentsaren alorrean, 2000. urtea erabakigarria eta mugarri izan zen. Informazioaren gizartea ate joka zegoela, aro berrietara egokitzeko formulen bila hasi ziren aldizkariok, euren baitan aldaketa ugari sortuz. Aldaketa horien artean, multimedia proiektuak sortu ziren (gehienez edizio digitala erantsi diote paperaren euskarriari), agerkarien maiztasunak areagotu ziren, herrietako eta bailaretako egunkariak sortu ziren, formatuak aldatuz eta prentsa papera erabiliz...

Hona hemen 2000-2005 bitartean euskarazko tokian tokiko prentsan izan ziren aldaketen adibideak:

### **2.7.1- Goiena Komunikazio Zerbitzuak**

2000ko ekainean Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba sortu zen, Deba Goiena bailarako egitasmo multimedia bat kudeatzeko. Horrela, 2000ko abenduaren 1ean, *Goienkaria* Deba Goiena eskualdeko astekaria jaio zen eta 2001eko urriaren 19an bailarako aldizkari ezberdinak (*Arrasate Press*, *Berrigara*, *Aretxagazeta*, *Kontuola*, *Goibekokale*, *Ze berri?* eta *Txirritola*) *Goienkarian* bildu ziren hiru edizio ezberdin sortuz. 21.500 aleko tirada zuten eta hiru edizioekin laurogeita hamasei orrialde betetzen zituzten astero. 2006an herrietako hiru edizioek bat egin zuten *Goienkariaren* atal bihurtuz. Azken aldaketa horren bitartez eskualdean 19.000 ale

banatzen dira. 2004ko otsailetik aurrera, astelehenetan *Asteleheneko Goienkaria* kaleratzen hasi ziren, harpidetzaren bitartez edo egunkari saltokietan ordainduz banatzen dira bere 5.000 aleak.

Arrasate eta Aretxabaletako telebistek bat egin zuten 2000ko maiatzean *GoiTB* Deba Goiena eskualdeko telebista sortu zen. Multimedia proiektua borobiltze aldera, interneten *Sustatu.com* eta *Goiena.net* jarri ziren martxan, *Arrasate irratia* (udal irratia) Goienaren kudeaketa sarean dagoela ahaztu gabe.

### **2.7.2- Durangaldeko Herri Komunikabideak (DHK)**

2001eko azaroan, Durangoko *Eraz* astekaria (3.000 aleko tirada) Durangaldeko *Anboto* astekaria bilakatu zen. Gaur egun, *Anbotok* bailarako informazioa jorratzen du eta Berbaro Euskara Elkarteak kaleratzen du. Astero, hogeita lau orrialdeko 8.000 ale kaleratzen dituzte. 2003ko urrian Anbotoko web orrialdea ([www.anboto.org](http://www.anboto.org)) jarri zuten sarean eta 2003ko azaroan *Anboto Irratia* aireratu zuten estreinako aldiz.

### **2.7.3- Guaixe eta Baleixe**

2004ko urtarrilean, Sakanako astekari bihurtu zen *Guaixe* hilabetekaria, irakurleari zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz eta egunerokotasunari era egokiagoan heldu nahian. Diseinua guztiz aldatu zuten; aldizkariaren euskarria alde batera utzi eta egunkari papera eta formatua bere egin zuten, berri gehiagoren bozgorailu izan ahal izateko. Prentsaren alorrean bi produktu zituzten (*Guaixe* hilabetekaria eta *Oixe* astekaria). Bietatik onena hartu eta bakar bat egin zuten. Gaur egun *Guaixe* astekaria ostiralero kaleratzen da. Aldizkaria, Bierrik Euskara Elkarteak kaleratzen du 1994tik eta 4.500 etxetara ailegatzen da. Prentsaren alorretik kanpo ere badu zer esana Bierrik elkarteak, 1999an *Beleixe* irratia jarri baitzuten martxan.

### **2.7.4- Hernaniko Kronika**

2000. urteko ekainean, *Hernaniko Kronika*, Dobera Euskara Elkartearen babesean, eskualde eta tokiko informazioa jasotzen duen lehenengo egunkaria agertu zen, euskarazko herri-prentsan ildo berria irekiz. Astean 5 egunez kaleratzen hasi zen eta 2003ko udaberritik aurrera, astean 6 egunez kaleratzen zen. Gaur egun, astean zazpi egunez argitaratzen den euskarazko “herri-egunkari” bakarra da. Kaleratze bakoitzeko 3.700 ale zabaltzen dituzte; normalean bi

orrialde izaten ditu nahiz eta batzuetan laura ere iritsi diren. Egunkariak gain, [www.kronika.net](http://www.kronika.net) edizio digitala martxan dute gaur egun.

### **2.7.5- Txintxarri**

2002an Lasarte-Oriako *Txintxarri* hamabostekaria zena, astekaria bihurtu zen eta 2003an herri-prentsan ordura arte erabiltzen ez zen formula jarri zuten abian: astean bi egunez kaleratzearena. Egun, astelehenero kirolei buruzko monografikoa ateratzen dute eta ostiraletan hurbileko informazio orokorra. Egun bakoitzean, 7.100 ale ematen dituzte argira.

### **2.7.6- Eskualdeetako Hitzak**

*Euskaldunon Egunkariak* 2001ean, *Tolosaldean Egunero*, gerora *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* izango zena sortu zuen Galtzaundi Euskara Elkartearekin eta gizarte eragileekin elkarlanean. Formula honen ereduari jarraituz, hurrengo urteetan beste egunkari batzuk ere sortu ziren:

- ✓ 2003an *Oarsoaldeko Hitza*, egunerokoa.
- ✓ 2003an *Lea Artibai eta Mutrikuko Hitza*, egunerokoa.
- ✓ 2004an *Urola Kostako Hitza*, egunerokoa.
- ✓ 2004an *Goierriko Hitza*, egunerokoa.
- ✓ 2005ean *Irutxuluko Hitza* (Donostia aldekoa), egunerokoa.
- ✓ 2005ean *Busturialdeko Hitza*, egunerokoa.

Gaur egun, eskualde ezberdinetan, guztira zazpi *Hitza* kaleratzen dira.

### **2.7.7- Milurteko berrian maiztasun berrian**

- ✓ 2000. urtean Tolosaldeko *Galtzaundi* hilabetekari, hamabostekaria bihurtu zen.
- ✓ 2001ean Orioko *Karkara*, hilabetekari izatetik hamabostekari izatera pasa zen.
- ✓ 2003an Soralezeko *Pil-pilean* hilabetekaria, hamabostekari bilakatu zen.
- ✓ 2003an Azkoitiko *Maxixatzen* hilabetekaria, astekari bilakatu zen.
- ✓ 2004an Uribe Kostako *UK* hilabetekaria, hamabostekari bihurtzen da.
- ✓ 2004an *Aiurri* Beterri-Aiztondoko hamabostekariak, asteroko beste argitalpen bat kaleratzeari ekin zion. Azken hau, *Aiurri* Beterri-Buruntzako astekaria da. Hamabostekarian, aldizkari formatua (DIN-A4) mantendu dute eta hamabostean behin

2.500 ale kaleratzen dituzte. Astekarian, aldiz, egunkari papera eta tabloide formatuan 4.000 ale argitaratzen dituzte.

Adibideak adibide, ezin ukatu 2000. urtetik aurrera aldaketa ugari izan direla hurbileko informazioa lantzen duten komunikabideen artean, prentsa arloan batik bat eta hori da guri interesatzen zaiguna, lan honen muina tokian tokiko prentsa idatzia aztertzean baitatza.

## **2.8- ESKUALDEETAKO EGUNKARIAK**

Dobera Euskara Elkarteak egunerokoetan irekitako bideari jarraituz, 2001eko abenduan, *Euskaldunon Egunkaria* eta Galtzaundik, *Tolosaldean Egunero* sortu zuten: Tolosaldeko herrietako informazio lokala biltzen zuen eskualdeko egunkaria. 2003an, *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren ondoren eta ondorioz sortu zen Euskarazko Komunikazio Taldea S.A.-k (EKT S.A.), *Egunkariak* ekindako bideari eustea eta berau indartzea lortu du.

### **2.8.1- Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT)**

*Euskaldunon Egunkaria* itxi eta gero, euskarazko egunerokoa argitaratzeko proiektua abiatzea erabaki zuten *Euskaldunon Egunkariako* langile ohiek. Horretarako, enpresa berri bat sortu behar zen, hainbat enpresa barnean biltzen zituen enpresa bakarra: EKT izena jarri zitzaion martxan abiatutako euskarazko komunikazio taldeari, euskarazko komunikabideak (egunkari nazionala eta eskualdeetako egunkariak) sustatzeko asmoz bultzatutakoa. Dena dela, Joanmari Larrarte EKTko Administrazio Kontseiluko idazkariaren esanetan, “EKT-k hori baino askoz ere egiteko zabalagoa du: euskarazko komunikazio-eremua zabaldu eta aberastea du helburu nagusia, eta horretara bideratu ditu bere egitekoak” (Larrarte, 2005: 129).

EKTk bere menpeko enpresa ezberdinak sortu zituen, bakoitzari betebeharrak ezberdina egokituz: **Euskal Editorea** enpresa *Berria* egunerokoa argitaratzeaz arduratzen da; **Ehuntzen** Interneteko edizio jarraitua kudeatzeaz eta elikatzeaz arduratzen da; **Etixeraino** enpresak, *Berria* eta eskualde bakoitzeko *Hitzak* eramaten dizkie etxera egunero harpidedun guztiei; **Jarduna** enpresa administrazio lanez arduratzen da; **Iragarrik** publizitatea lortzen du *Berriarentzat* eta **Bertako Hedabideak** enpresak herrietako komunikabideekin elkarlanean eskualdeetako egunerokoetan EKT ordezkatzeaz gain, eskualdeetako komunikabideak sortu eta garatzea du helburu. Azken honen bitartez, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*, *Oarsoaldeko Hitza*, *Lea-*

*Artibai eta Mutrikuko Hitza, Urola Kostako Hitza, Goierriko Hitza eta Busturialdeko Hitza* gaur egun eta eskualde ezberdinetan kaleratzen dira; astean sei egunetan.

*Hitza* egunkariaren sortzaileak *Tolosaldeko Hitza*, Galtzaundi Euskara Elkarateak, bailarako gizarte eragile ezberdinek eta Euskarazko Komunikazio Taldea S.A.-k sortu zuten.

*Oarsoaldeko Hitza*, Errenteriako Lau Haizetara Euskara Elkaratea, Lezoko Orratx, Pasaiako Branka eta Abaraska eta Oiartzungo Hitz-Hots Euskara Elkarateek, eskualdeko gizarte eragile ezberdinek eta Euskarazko Komunikazio Taldea S.A.-k jarri zuten abian.

*Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzaren* sortzaileak, Lea-Artibaiko 11 Barri Euskara Elkaratea, Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekaria, tokiko eragileak eta Euskarazko Komunikazio Taldea S.A. izan ziren.

*Urola Kostako Hitzaren* sortzaileak, bailarako bost euskara eta kultur elkarte (Zarauzko Txaparro Euskara Elkaratea, Zestoako Danbolinzulo Kultur Elkaratea, Zumaiako Baleike Euskara Elkaratea, Azpeitiko Uztarria Euskara Elkaratea, Getariako Gure Txeru Kultur Elkaratea), Urola Kostako gizarte eragileak eta Euskarazko Komunikazio Taldea S.A. izan ziren.

*Goierriko Hitza*, Euskarazko Komunikazio Taldea S.A., Goierritarra eta Zintzo Mintzo euskara elkaratek eta eskualdeko gizarte eragileek (Maizpide euskaltegia, AEK, Hitzaro euskara taldea, Goierriko Euskal Eskola, Lekaio eta Bertso-Olariak elkarteak) bultzatu zuten.

*Irutxuloko Hitza*, ordura arte *Irutxulo* astekariaren argitaratzailea zen Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarateak, EKT-k Bertako Hedabideen bitartez eta Donostiako 32 gizarte eragilek (euskaltegi ezberdinak, kirol taldeak eta kultur elkarte ezberdinak)<sup>29</sup>, jarri zuten martxan.

*Busturialdeko Hitza*, Bertako Hedabideak Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) enpresak eta eskualdeko euskalgintzako eta gizarte eragileak (Busturialdeko ia berrogei elkarte: euskalgintza, ikastolak, ikastetxeak, hainbat enpresa eta kooperatiba, kultur elkarateak, kirol elkarateak, euskaltegiak eta beste) izan ziren egitasmoa martxan jarri zutenak.

*Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Oarsoaldeko Hitza, Lea Artibai eta Mutrikuko Hitza, Urola Kostako Hitza, Goierriko Hitza, Irutxuloko Hitza*<sup>30</sup> eta *Busturialdeko Hitza* egunero, astelehenetan izan ezik, kaleratzen dira. Bailara ezberdinetako berriei jarraipena eginez eta egunkari formatuan, 8 orrialde inprimatzen dituzte. Ale kopuruari dagokionez, *Tolosaldeko eta*

<sup>29</sup> - Eragileen zerrenda *Irutxuloko Hitza*, 0 zenbakian 2005/01/19.

<sup>30</sup> - *Irutxuloko Hitza* asteazkenetik igandera kaleratzen da, hamabi orri ditu eta astelehenetan zortzi orri. Asteartean ez da kaleratzen. Martxan dauden *Hitza* guztien artean, *Irutxulokoa* da astelehenetan kaleratzen den bakarra eta orain arte hiriburu batean (Donostian) sortu den lehenengoa.

*Leitzaldeko Hitzak* 7.500 ale kaleratzen ditu, *Oarsoaleko Hitzak* 6.000 ale, *Lea Artibai eta Mutrikuko Hitzak* 5.300 ale banatzen ditu eskualdean, *Urola Kostako Hitzak* 10.000 ale banatzen ditu, *Goierriko Hitzak* 8.500 aleko tirada dauka, *Iruxuloko Hitzak* 8.000 ale kaleratzen ditu eta *Busturialdeko Hitzak* 6.000 ale inguru argitaratzen ditu astean sei egunetan. *Busturialdeko Hitza* egunkariak 2007ko otsailean bost egunetan (asteartetik larunbatera) kaleratzeko erabakia hartu zuen, diru-laguntza publikoen faltagatik. Hasieran *Hitzak* sortu ziren eskualde guztietan banaketa masiboa eta doakoa egin zen eta gero, harpidetzaren bitartez *Hitza* etxe eta leku publikoetara banatzeari ekin zitzaion. Urtean, 40-50 euro kobratzen zaio egunero etxean *Hitza* jaso nahi duen bazkideari. Egun, kalean dauden zazpi *Hitza* horiek kudeatzen dituzten enpresak, EKT eta euskara elkarteek sortu dituzte eta, tokian tokiko gizarte eragileek enpresa horien hirugarren hanka osatzen dute. Enpresa berriaren egitura, Sozietate mugatua izaten da eta kasu gehienez horrela osatzen da:

Eskualdeko euskara elkarteak: %40

Bertako Hedabideak (EKT): %40

Eskualdeko gizarte eragileak: %20-30

*Hitzaren* helburu nagusia, euskararen normalizazio bidean, eskualde mailako komunikabideak osatzea da. Halaber, honako xede hauek izango dituzte eskualde ezberdinetan sortzen diren *Hitzek* (Amenabarro, 2005: 284):

- Euskara, euskararen inguruko mugimenduak eta euskaltzaletasuna sustatzea eta laguntzea, euskararen normalizazioa eta garapena lortzeko baliagarri izatea, herritarrei eta taldeei hitza ematea.
- *Hitza* sortzen den eskualdeko komunikabideen elkarteetan eta Euskal Herri mailako euskarazko egunkariaren erakundearen artean elkar ezagutza handiagoa lortzea, guztien artean eskualdeko informaziorako erakunde bakarra eta sendoa sortzea, proiektu berrietarako akordioak lortzeko eta elkarrekin lan egiteko.
- Euskarazko komunikabideen erreferentzialtasuna lortzea.
- Asteartetik larunbatera. Egunkari normala, egunekoa, ohiko orri banaketarekin eta ohiko atalekin. Herriek presentzia finkoa izango dute, herritarrei ohitura sortzeko. Orrialde banaketa malgua izan daiteke, ordea. Gertakizun bereziek ere aparteko tratamendua izango lukete: inauteriak, jaiak, egun jakinak (maiatzaren 1, matxoaren 8...).



- Igandekoa. Bereziagoa: iritzi-artikuluak eta atalak, erreportaje zabala, elkarrizketa luzea... Eta larunbateko eta jai eguneko albisteak. Igande batzuetan 12 orrialde egin daitezke.

Eskualdeetako *Hitzak* sortzerako orduan, EKT-k harremanak beti eskualde horretan dauden euskara taldeekin eta herri-aldizkariekin lehenetsiko ditu, tokian tokiko aldizkariaren inguruan proiektu sendo eta profesionalen premia ikusten duelako. Orobat, aldizkariak eguneroko bihurtzeko salto kualitatibo horretan, EKT-k badu zer eskaini: ezinbestekoa dela uste baitu, bailarako eguneroko egitasmoetan, egiturak profesionalizatzea eta kalitatea eskaintzea. Joanmari Larrarteren ustetan, alde askotatik begiratuta, *Hitza* proiektua sendoa da gaur egun (Larrarte, 2005: 134).

- Enpresa sortzeko garaian, EKTren izenean ari den Bertako Hedabideak S.L enpresa indarrak batzea lortzen ari da: herrietako aldizkari eta euskara elkarteekin batera abiatu dira proiektu guztiak, eta elkarlan hori garrantzi handikoa da, lan egiteko modu bat garatzen duelako.
- *Hitza*ren bidez, herritarrari hurbileko informazio aberatsa, kalitatekoa eta plurala eskaintzeko bidea egiten da. Erreferentzial bihurtzen ari da eskualde bakoitzeko euskaldunen artean. Informazioa ematen duelako erreferentziala izatea da garrantzitsua - eta ez bakarrik euskaraz delako-, horrek ekartzen baitu harpidedunak baleko produktu bat eskuratu nahi duelako egitea harpidetza, eta ez izatea proiektua laguntzeko beste ekintza bat.
- Tokiko informazioa bakarrik jasotzen duen egunkaria izan arren, *Hitza* bakoitza eskualdean gehien irakurtzen den egunkaria izatea lortu nahi da, eta horretarako modua egin behar da. Tolosaldean, gaur egun, gehien banatzen den egunkaria *Hitza* da, ez espainierazko bat.
- Banaketa sistema garestia da egunero etxeraino eramatea, baina urteetan herri-aldizkariaren, astekariaren eta egunkariaren bidearekin euskal prentsaren zabalkundea handitu ez bada, bestelako urratsak nahitaez egin behar dira, helburua euskal prentsa osoarentzat irakurle eremua zabaltzea izan behar baitu. Harpidetza bidez eta etxeraino banatzeak aukera ematen digu euskal prentsara hurbiltzeko prest dagoena identifikatzeko.

Hala ere, *Hitzak* sortu diren eskualdeetako euskara talde edo kultur elkarte batzuk ez dute bat egin EKT S.A.-ren proiektuarekin. Tolosaldean, *Aiurri* aldizkaria kaleratzen duen Manuel Larramendi Kultur Bazkuna ez da *Hitza* egitasmoan sartu. Urola Kostan Orioko Karkara Euskara Elkartea eta Azkoitiko Maxixatzen Euskara Elkartea, *Urola Kostako Hitza* proiektutik kanpo geratu dira. Tartean batzuen eta besteen artean liskarrak sortu dira, EKT-ren jokaera ez baita toki guztietan ondo ikusi, herrietako esparruan sartzeko erabili ohi duen estrategiarengatik. Batzuek mehatxu gisa ikusi dute EKT; talde handiak hedabide txikiak irensteko beldurrak eta mesfidantzak sortu dira<sup>31</sup>.

EKT-k, aldiz, sektorean lan egin nahi duelako elkarlan proiektu gisa ikusten ditu *Hitzak*. Martxelo Otamendik horrela azaldu zuen *Larrun* aldizkarian argitaratu zen mahai inguruan: “Pentsatzea gu garela euskararen *Correo*, kontzeptu okerra da. Ez soziologiaz, ez jarreraz, ez tamainaz, ez pisuz... Gu zerk bereizten gaitu beste hauetatik? Benetan sentitu eta sinesten dugula sektorearekin egin nahi dugula lan. Asmatu behar dugu ustez handiagoak garenak, ustez txikiagoekin, kolaborazio ez irenstaileak lortzen” (Eizagirre eta Irureta, 2004: 15).

EKT -rekin lanean ari diren herrietako komunikabide gehienek, ordea, aurretik aldizkari bat kaleratzen zuten beren herrian. Gaur egun, *Hitza* banatzen dute eta eskualde gehienetan, Oarsoaldean eta Donostian izan ezik, lehendik zituzten aldizkariak argitaratzen dituzte. Tolosaldeko Galtzaundi Euskara Elkartek *Galtzaundi* hamabostekaria argitaratzen du, Urola Kostako Baleike Euskara Elkartek *Baleike* hilabetekaria kaleratzen du, Uztarria Euskara Elkartek *Uztarria* hilabetekaria, Txaparro Euskara Elkartek *Txaparro* hamabostekaria, Danbolinzulo Kultur Elkartek *Danbolin* hilabetekaria eta Gure Txeru Kultur Elkartek *Artzape* hilabetekaria kaleratzen jarraitzen du. Lea-Artibain *Hitza* sortu aurretik Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekaria bakarrik kaleratzen zen. Goierriin ere, *Goierritarra* hamabostekaria kaleratzen da gaur egun. Donostian *Irutxulo* astekaria desagertu egin zen eta horren ordez, *Irutxuloko Hitza* kaleratzen da astean sei egunetan. Oarsoaldean, *Lau Haizetara*, *Branka* eta *Orratx* aldizkariak desagertu egin ziren *Oarsoaldeko Hitza* sortu zenean, baina EKT -rekin batera proiektu berria sortu zuten: Oarsoaldeko *ON* hilabetekaria 2004ko maiatzean kaleratzen hasi ziren, *Lau Haizetara*, *Branka* eta *Orratx* aldizkariak betetzen zuten funtzioa osatu eta hobetzeko asmoz.

<sup>31</sup>- Aiestaran, Alazne. (2003): “*Herri-prentsa eta nazio-prentsa, elkarbizitza eta elkarlana*”, Gizarte komunikazioa Euskal Herrian doktore-programan (2002-2003) aurkeztutako lana, EHU, Leioa. Bertan, EKT-k sortu dituen *Hitzen* inguruko iritzi ezberdinak jasotzen dira.

*Oarsoaldeko Hitza* eta *ON* elkarren osagarri dira. *Hitza* bezala, *ON* aldizkaria ez da doakoa; etxean jaso nahi duenak 50 euroko kuota ordaintzen du urtero.

Paperezko egunkari eta aldizkarietaz gain, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*, *Oarsoaldeko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* eta *Urola Kostako Hitzak* bere web orrialde dauzkate: [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info), [www.oarsoaldekohitza.info](http://www.oarsoaldekohitza.info), [www.11barri.info](http://www.11barri.info) eta [www.urola-kostakohitza.info](http://www.urola-kostakohitza.info). Eskualde horietan banatzen diren egunkarietaz jasotzen dituzten albisteak biltzeaz gain, azken orduko berriak, agenda, eztabaida, inkesta eta egun bereko albisteak ere eskura izaten ditu erabiltzaileak edizio digitalean.

Gaur egun kaleratzen diren 7 *Hitzek* 71.000 irakurle dituzte. 2005ean lehenengo aldiz neurtu zuen CIESeK *Hitza* egunkarietaz irakurle kopurua. Horren arabera, 71.000 irakurle dituzte guztira. Gipuzkoan, gehien irakurritako egunkarietaz bigarrena da *Hitza*, *El Diario Vascoren* atzetik. Guztira abian dauden 7 *Hitza* proiektuetan 75 langile inguru ari dira lanean eta astean 6 egunetan 51.300 aleko tirada dute *Hitzek* orotara.

Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT-k), 2003. urtean sortu zenetik, prentsa idatzian egin ditu urratsik garrantzitsuenak. *Berria* egunkari nazionala eta eskualde ezberdinetan 7 *Hitza* jarri ditu martxan 3 urteren buruan. Horrezaz gain, etorkizunera begira, EKT-k beste egitasmo batzuen alde egingo du lan, kontuan hartuta, bere helburua euskarazko komunikabideak sortu eta sustatzea dela. Horrela bada, EKT-k ikus-entzunezkoak ere aintzat hartuko ditu aurrerantzean. Telebistaren arloan euskarak tokia izan dezan eta erdarazko komunikabideek ez dezaten eremu osoa hartu, esparru horretan esku hartzeko dauden aukerak aztertuko ditu eta multimedietan ideia garatu nahi du EKT-k aurrerantzean, esparru berriak landuz. Horretarako, 2006ko irailaren 19an aurkeztu zen **Hamaika** enpresaren partaideetako bat EKT da, CMN, Euskaltel, Baintel, Elkar eta EKHEREkin batera. Proiektu berriaren bitartez, eskualde guztietan euskarazko telebistak sortu nahi dira.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Toki Telebista Digitalaren garapenerako Dekretua onartu zuen 2006ko urriaren 4an. Dekretu horrek, lurreko uhinen bidezko telebista horiek garatzeko marko legala ezartzen du, zerbitzu publiko honen baldintzak zehaztuz eta esparru honetan euskarari eman beharreko tokia arautuz. Dekretuak estimatzen duenez, lizentzia lortzen duten kanal guztiek -udalek zein enpresa eta erakunde pribatuek kudeatu- gutxienezko kopuru bat eman beharko dute euskaraz. Kasu guztietan, udalek edo erakunde pribatuek kudeatzen dituzten telebistetan, goizeko 7:00etatik gaueko 24:00etara arteko ordu-tartean

eskainiko dira bereziki euskarazko emisioak. Ikus-entzule gehiago dagoen orduetan “prime time”-ean (12:00-16:00 eta 19:00-24:00), euskarazko programazioak, mugape horretako indize soziolinguistikoari dagokion ordu-portzentajea hartu beharko du gutxienez. Udalek kudeatzen dituzten telebisten gutxienekoa %50 izango da. Beraz, Dekretuak ez du bermatzen euskara hutsez emitituko duen katerik egoterik. Are gehiago Dekretuari erreparatzen badiogu helburuen artean, eskaintza elebiduna sustatzea dagoela.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak tokiko telebista digitalen araubidea plazaratu eta lehiaketa 2006ko abenduaren 29an deitu zuen. Horrela, 2008an, tokiko informazioa, berariazko programazioa eta euskara ezaugarri izango dituen lurreko uhinen bidezko telebista Euskal Autonomi Erkidegoan abian izatea aurreikusten da. Guztira, 15 barrutitan (eskualdeen parekoak) 60 kate izango dira.

## **2.9- TOPAGUNEA, EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA**

Topagunearen sorrerako lehen pausuak 1996an hasi baziren ere, ofizialki lehenengo sorrerabilera, 1997ko otsailaren 1ean egin zen Durangon. 2006an, 84 euskara elkarte bazkide dituen federazioa da Topagunea eta beronen eginkizuna, euskara elkarteak sustatu eta bazkideei zerbitzua ematea da. Euskara elkarten eginkizuna, gizarte esparru guztietan euskararen erabilera sustatzea da eta elkarten lan ardatzak bost arlotara zuzentzen dira bereziki: Entitateen euskalduntzea, haur eta gazteen aisialdia jorratzea, kulturgintza, euskaldun berrien mintzapraktika sustatzea eta tokian tokiko hedabideak garatzea. Topaguneak, euskara elkarteak bezala, bere lan esparruak aipatu bost arlo horietara bideratzen ditu. Bestalde, federazioak euskara elkarten beharretara egokitutako zerbitzuak antolatzen ditu, sustapen eta zerbitzu horiek hiru helburu nagusiren inguruan bilduz:

- ✓ Hedapena: Hedapeneko programatan euskara elkarten egitasmo ezberdinak herriz herri hedatzeko ekintzak jasotzen dira eta esperientziak trukatu.
- ✓ Garapena: Garapenerako programek euskara elkarten egitasmoak osatu, aberastu eta garatzeko helburua dute.
- ✓ Formazioa: Formazioan ikastaro eta saio zehatzak sailik sail jasotzen dira jorratzen diren helburuen arabera.

Euskara Elkarteek sortutako komunikabideak dira lan honetan guri interesatzen zaizkigunak eta ildo horretan Topaguneko Komunikabide Sailak, 2001ean, hainbat zerbitzu jarri

zituen martxan bertako bazkide diren komunikabideen onurarako: herriz gaindiko erakunde publikoetan aurkezten diren diru-eskarien kudeaketa egiten du Topaguneak bertoko bazkide diren komunikabideen izenean; Topagunearen eta bertoko bazkideen erosketak negoziatzen dira prezioak merkatzeko informatika tresnerian, argazkietan, postako tarifetan, besteak beste; era beran, komunikabide sailetik, herri ezberdinetan sortzen diren proiektu berriak sustatzen dira eta aholkularitza ematen zaie horrela eskatzen badute; formazioari dagokionez, ikastaro ezberdinak antolatzen ditu federazioak herri komunikabideetan ari diren langile eta programa erabiltzaileentzat.

Helburu hauek kontuan hartuta aritu da lanean Topagunea eta gaur egun bere hedabideen sailaren barnean, tokiko 2 telebista, tokiko 5 irrati, eta 34 herri-aldizkari daude. Aldizkarietako batzuk, bere edukiak sarean jarri dituzte dagoeneko.

Gaur egun<sup>32</sup>, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko bazkide diren komunikabideen zerrenda:

<i>Izena</i>	<i>Herria/eskualdea</i>
1. Aikor	Txorierrri
2. Aiurri, Beterri-Aiztondo	Beterri-Aiztondo
3. Aiurri, Beterri- Buruntza	Beterri-Buruntza
4. Anboto	Durangaldea
5. Aldaize	IDíazabal
6. Asteleheneko Goienkaria	Deba Garaia
7. Artzape	Getaria
8. Baleike	Zumaia
9. Barren	Elgoibar, Mendaro
10. Begitu	Arratia
11. Berton	Mahatserria
12. Danbolin	Zestoa
13. Drogeteniturri	Ermua, Mallabia
14. ...eta kitto!	Eibar
15. Galtzaundi	Tolosaldea
16. Gaztetxulo	Donostia
17. Geu Gasteiz	Gasteiz
18. Goienkaria	Deba Garaia
19. Guaixe	Sakana
20. Hernaniko Kronika	Hernani
21. Kalaputxi	Mutriku
22. Karkara	Orio

<sup>32</sup>- Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioan bazkide diren komunikabideak, 2006/10/10.

23. Mailope	Larraun eta Araitz Bailarak
24. Maxixatzen	Azkoitia
25. Noaua!	Usurbil
26. Otamotz	Urretxu-Zumarraga
27. Pil-Pilean	Soraluze
28. Prest	Deustua
29. Pulunpe	Ultzamaldea eta Basaburua
30. Ttipi-Ttapa	Bera
31. Txaparro	Zarautz
32. Txintxarri	Lasarte-Oria
33. UK	Uribe Kosta
34. Uztarria	Azpeitia

**IRRATIAK**

<i>Izena</i>	<i>Herria/eskualdea</i>
Beleixe Irratia	Sakana
Arrasate Irratia	Arrasate
Bilbo Hiria Irratia	Bilbo Handia
Anboto Irratia	Durangaldea
Esan-Erran Irratia	Ultzamaldea eta Basaburua

**TELEBISTAK**

<i>Izena</i>	<i>Herria/eskualdea</i>
GoiTB	Debagoiena
Ttipi-ttapa TB	Bidasoa, Baztan, Leitzaldea, Malerreka

Topagunean idatzizko prentsak dauka pisu espezifikorik handiena. Guztira 34 kazeta dira bertoko bazkide. Horietatik, 1 urtean lau aldiz argitaratzen da, bi hileko maiztasuna duen aldizkari bakarra dago, 13 hilabetekariak dira, 8 hamaboskariak, 9 astekariak, 1 astean birritan kaleratzen da eta beste bat egunero.

Hogeita hamalau agerkariek 150.000 aleko botaldi globala dute. Gaur egun ez dago Euskal Herrian euskara hutsez tirada hori duen argitalpen talderik, ez informazio orokorreko nazio ezta herri mailan kaleratzen den agerkaririk ere. Edozelan ere, Topaguneak euren baitan

ahalik eta arlorik gehien biltzen dituzten egitasmoak eta proiektu multimediak bultzatu nahi ditu, etorkizunean joera nagusia horixe delako.

Topagunearen bazkide diren hedabideen hazkunde prozesuak aldaketa nabarmenak izan ditu: egunkaririk hasi eta bihilabetekarira, hedabide bakarretik multimedia egitasmora, langile bakarreko elkartetik 40 pertsonatik gora biltzen dituen enpresara, euskara batutik euskalkira, aldizkari formatutik tabloidera...

Nolanahi ere eta desberdintasunen gainetik, hedabideen sektore hau definitzen duen ezaugarri komuna, euskararen erabilerari lotuta agertzen den helburua da. Herri hedabideek tokian tokiko zein eskualdeko euskaldun ororen komunikazio beharrak asetzeko moduko produktuak ekoiztea, era guztietako euskarri komunikatiboez baliatuz (irradi, telebista, internet edo aldizkarien bitartez). Azken finean, euskaldunen “*merkatua*” zabaltzea izango da xedea eta euskal hiztun guztiengana naturaltasunez heltzea: ikasten ari direnengana, seme-alaba euskaldunak dituzten etorkinengana, publizitatea jarri duten merkatariegana... eta bide batez, euskaraz ez dakitenei ere, normaltasunez erreferentzia bat eskainiz eta aldeko jarrerak bilduz. Beraz, produktuak ekoizteaz gain, euskararen erabileran eragitea bilatzen du Topaguneak, euskarazko hedabide horiek ahalik eta jende gehienarengana hel daitezen eta era horretan, giza komunitate horren informaziorako erreferentzia izan daitezen. Horretarako, euskaraz irakurri eta ulertzeko gai diren guztiei zuzendutako produktuak egiten ahalegintzen dira. Hedabide lokalek, bakarka eta sektore gisa jarduteko independentzia izan behar dute eta beste hedabide zein erakunde ekonomiko, politiko eta administratiboenganako autonomia mantentzeko gai izan behar dira. Horrela bermatuko baita beregaintasuna eta erreferentzialtasuna.

### **2.9.1- Asteon telebista-astekariaren ibilbide laburra**

2004ko otsailaren 27an kaleratu zen *Asteon* telebista-astekariaren lehen zenbakia. Publiko orokorrari zuzendutako astekari ludikoa zen eta bere edukiaren oinarrietako bat telebista programazioa zen. Topagunearekin batera 8 herri-aldizkarik Herri Komunikabideak Koop. Elkartearen zuten *Asteon* argitaratzeko. Astekariaren xedea, Euskal Herriko irakurleak entretenitzea, informatzea eta era berean, erabilgarria eta kritikoa izatea zen. Herrietatik nazio mailara jauzia egin zen egitasmo berritzaile harekin; telebista aldizkariaren ardatz izanik eta herri-prentsaren banaketa-sarea aprobetxatuz, Euskal Herri osoan doan banatuko zen astekaririk ez baitzen ordura arte. Arlo kualitatiboari dagokionean, urrats handia izan zen, Euskal Herrian

ordura arte gaztelerazko aldizkariak jorratu zuten arloa, euskaraz jorratzeari ekin zitzaion-eta. 75.000 aleko tirada zeukan, euskal astekari batek inoiz izan duen zabalkunderik handiena, alegia. Zoritxarrez, proiektuak 5 hilabete eskas iraun zuen, 10 zenbaki baino ez ziren kaleratu, aldizkariaren finantzaketarako bi ardatz nagusiak kolokan zeudelako: alde batetik, hasierako hilabeteetan publizitate sarrerak aurreikusitako baino txikiagoak izan zirelako eta bestetik, Eusko Jaurlaritzatik jasotzea aurreikusita zegoen diru-laguntza guztia ez zelako bermatu.

Herri Komunikabideak Kooperatiba, ordea, ez zen desegin eta *Aldizka* gehigarria kaleratu nahi zuten. *Aldizka* bi hilean behin argitaratuko zen monografikoa. Herri Komunikabideak Kooperatiba osatzen duten zortzi herri-aldizkariok euren argitalpenekin batera, lehenengo eta ale bakarra, 2006ko urriaren 3an kaleratu zuten. Hurrengo zenbakia argitaratzeko publizitate bezero nahiko ez zegoela-eta, ez zen gehiago argitaratu.

### **2.9.2- Topagunea, euskara elkarten federazioa aurrera begira**

Federazioak tokiko hedabideen etorkizuna multimedia egitasmoetan ikusten du, tokian tokiko multimedia enpresak sortuz. Izan ere, tokiko hedabideak txikiak izanik, zaila izango dute etorkizuna hedabide-kate handiekin lehiatu behar badute. Horretarako ezinbestekoa izango da enpresak sortu eta hauek eskaintzen dituzten tresna guztiez baliatuta jokatzeko. Ezin ahaztu daiteke ordea, gizarte ekimenez sortu direla herri-aldizkari gehienak, beraz, bi ikuspegiak uztartuta egin beharko da aurrerantzean bidea.

Multimedia ekimenezkin batera, eskualdeko antolaketaren bidez argitaratu diren eta zabalkunde masiboa duten doako astekariak bultzatzean eta sortzean ikusten du etorkizuna Federazioak, xede bezala, euskaldun bat dagoen etxe bakoitzean euskarazko astekari bat egotea bermatuz.

Topagunean, aldizkarien zabalkunde eta maiztasuna elkarrekin lotuta ulertzen dira. Ahalik eta euskaldun gehienengana iritsi nahi da maiztasun handienarekin, inpaktua ere, ahalik eta handiena izan dadin. Doakotasunean oinarritutako zabalkunde erabatekoa lehenesten du Federazioak, eskualde-astekarien hautua hobetsiz. Izan ere, produktuaren irakurketa bermatzeko bidean, komunikazio talde handiek doakotasunaren bidea gero eta gehiago aukeratzen ari diren garai hauetan, euskarazko aldizkariak indarra egitekotan doakotasunari eutsi beharko diote.



- **Asterokoak eta doan**

Arestian aipatu bezala, Topaguneak eskualdeko astekarietan ikusten du etorkizuna, orain bezala doan banatuz. Hona hemen Federazioaren arrazoiak bere jarrerari eusteko:

Tokiko prentsa bultzatzerako orduan, aldizkari horien atzean dauden Euskara Elkartek helburu argi bat finkatu zuten: euskararen erabileran eragitea. Hori lortzeko, astekariak produktu egokiak dira. Eskualdeko astekariak informazioa nahiko gaurkotua lantzen dute; are gehiago, aldizkariekin batera, telebista, irrati edo internet bidezko produktuekin (Multimedia egitasmoekin) informazioa osatzen bada. Asterokoak ekonomikoki bideragarriak eta publizitaterako ere, euskarri interesgarriak direla frogatuta dago.

Erabateko zabalkundea egitea bideragarria da, eguneroko banaketak duen arazo logistiko zein ekonomikoak saihestuz. Izan ere, euskarazko prentsagatik ordaintzeko prest egongo liratekeen herritarrak ez ezik, gainontzeko beste euskal hiztunengana ere heltzea izan da euskara elkarten helburua eta lorpena. Alegia, beste modu batean inongo euskarazko produkturik jasoko ez luketenengana heltzea. Produktua kobratzeak, automatikoki botaldiaren jaitsiera ekarriko lukeela frogatuta dago. Kobratzearen bitartez, diru sarrera garrantzitsua lortuko litzateke, baina tiradaren murrizketak publizitate bidezko diru sarreraren jaitsiera ekarriko luke. Produktuaren eskuragarritasunak zein doakotasunak, irakurle berri horiengana heltzea ahalbidetu du. Bestalde, Topaguneak tokiko aldizkariaren sarea indartzeko lan egiten du, horrek aurrerantzean ekarriko dituen abantailak (zerbitzu komun berriak antolatu, baliabideak optimizatu, elkarlana handitu) beharrezko ikusten dituelako.

Elkarlanari gagozkiola, 2000. urtetik aurrera idatzizko prentsan sortu ziren aldaketez ohartuta, Topaguneak sektorearen gogoeta eta elkarlana beharrezko ikusten zuen aurrerantzean. Izan ere, herri-aldizkariaren aitzindariak sortu zirela 15 urte pasa ziren eta Federazioak premiazkoa iritzi zion gogoeta orokorra egiteari; horrela hausnarketaren bitartez, produktuak txukundu, estrategiak doitu eta euskal hizkuntza komunitatean modu eraginkorragoan eragiteko asmoz. Helburu horrekin, 2003ko azaroan, Federazioak tokian tokiko hedabideei buruzko jardunaldiak antolatu zituen Zamudion.

## **2.10- TOKIAN TOKIKO PRENTSAREN EGOERA 2006AN**

Orain arte aipatutako joera berriez gain, tokian tokiko prentsaren tiradak, maiztasunak, eta ezaugarriak oro har ezberdinak dira oso. Etengabe aldatzen ari da herri-prentsa eta atal honetan

2006an kaleratzen diren agerkariak, 2006ra arte desagertu direnak eta Euskal Herriko lurralde ezberdinetan dauden aldizkarien zerrendak jasoko ditugu.

### **2.10.1- 2006an hurbileko informazioa lantzen duten aldizkarien zerrenda**

Arestian aipatu bezala, tokian tokiko argitalpenen maiztasuna oso ezberdina da: egunkariak, astean sei aldiz kaleratzen direnak, astekariak, hamaboskariak, hilabetekariak, bihilabetekariak edota, urtean lau, hiru edo bi aldiz kaleratzen direnek osatzen dute herri-prentsaren multzoa. 2004an, 72 argitalpen zeuden herri-prentsaren baitan, 2006an eta azken urteetako aldaketak kontuan hartuta, tokian tokiko 71 aldizkari<sup>33</sup> kaleratzen dira Euskal Herrian:

<b>Izena</b>	<b>Argitalpen eremua</b>	<b>Probintzia</b>	<b>Maiztasuna</b>	<b>Tirada</b>
AIKOR	Txorierrri	BIZKAIA	Hilabetekaria	4.750
AIURRI Beterri- Aiztondoko hamaboskaria	Aduna, Amasa- Villabona, Elbarrena, Andoain, Asteasu, Larraul, Zizurkil	GIPUZKOA	Hamaboskaria	2.500
AIURRI Beterri- Buruntzako astekaria	Andoain eta Urnieta	GIPUZKOA	Astekaria	4.000
AKATZ	Bermeo	BIZKAIA	Hamaboskaria	2.300
ANBOTO	Durangaldea	BIZKAIA	Astekaria	8.000
ALDAIZE	IDiazabal	GIPUZKOA	Bihilabetekaria	700
ARRANONDO	Ondarroa	BIZKAIA	Hilabetekaria	3.500
ARTZAPE	Getaria	GIPUZKOA	Hilabetekaria	950
AXULAR	Burlata	NAFARROA	Urtean lautan	2.500
AZPEITIAN ZER	Azpeitia	GIPUZKOA	Hilabetekaria	3.500
BAGABIZ	Gernika	BIZKAIA	Hilabetekaria	5.000
BALEIKE	Zumaia	GIPUZKOA	Hilabetekaria	2.300
BARREN	Elgoibar, Mendaro	GIPUZKOA	Astekaria	4.000
BATU ETA ZABALDU	Mungia	BIZKAIA	Urtean lautan	
BEGITU	Arratia	BIZKAIA	Hilabetekaria	4.500
BERBARO	Arrigorriaga	BIZKAIA	Urtean lautan	4.000
BERRIETAN BLAI	Bermeo	BIZKAIA	Hilabetekaria	6.000
BERRIKETAN	Deba	GIPUZKOA	Hilabetekaria	500
BERTON	Bilbo-Mahatserria	BIZKAIA	Hilabetekaria	1.200
BOLO BOLO	Ondarroa	BIZKAIA	Urtean lautan	1.200
BUSTURIALDEKO HITZA	Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz- Arteaga, Gernika- Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika,	BIZKAIA	Astean seitan	

<sup>33</sup>- Lan honetan prestatu dugun zerrendan ez dira agertzen Eusko Jaurlaritzaren ikerketan agertzen diren aldizkari asko. Izan ere, lan honetan herriko informazioa euskara hutsean emandako aldizkariak hartu dira kontuan soilik, ez elebidunak direnak.

	Nabarniz eta Sukarrieta.			
DANBOLIN	Zestoa	GIPUZKOA	Hilabetekaria	1.300
DROGETENITURRI	Ermua, Mallabia	BIZKAIA	Hilabetekaria	1.650
DZINGO	Lekeitio	BIZKAIA	Urtean hirutan	2.000
EL SOCIAL	Bilbo	BIZKAIA	Hilabetekaria	5.000
ETA KITTO	Eibar	GIPUZKOA	Astekaria	7.300
EUSKARRI	Barakaldo	BIZKAIA	Urtean lautan	2.000
EUP	Ezkio-Itsaso	GIPUZKOA	Bihilabetekaria	200
EUTSI	Gernika	BIZKAIA	Hilabetekaria	1.200
GALTZAUNDI	Tolosa	GIPUZKOA	Hamaboskaria	5.500
GEU GASTEIZ	Gasteiz	ARABA	Hilabetekaria	2.500
GOIENKARIA	Deba Goiena	GIPUZKOA	Astekaria	19.000
ASTELEHENEKO GOIENKARIA	Deba Goiena	GIPUZKOA	Astekaria	5.000
GOIERRIKO HITZA	Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, IDíazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zerain eta Zumarraga	GIPUZKOA	Astean seitan	10.000
GOIERRITARRA	Ordizia	GIPUZKOA	Hamaboskaria	7.300
GUAIXE	Sakana	NAFARROA	Astekaria	4.500
HERNANIKO KRONIKA	Hernani	GIPUZKOA	Egunero	3.200
HERRIA	Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoa	IPARRALDEA	Astekaria	2.850
HONDARRIBIA	Hondarribia	GIPUZKOA	Hilabetekaria	1.200
IRUNERO	Irun	GIPUZKOA	Hilabetekaria	3.500
IRUTXULOKO HITZA	Donostia eta inguruko auzoak	GIPUZKOA	Astean seitan	8.000
KALAPUTXI	Mutriku	GIPUZKOA	Hilabetekaria	1.700
KANTILAPE	Itsasondo	GIPUZKOA	Urtean hirutan	250
KARKARA	Orio	GIPUZKOA	Hamaboskaria	2.700
KARRIKA	Iruña	NAFARROA	Hilabetekaria	-
KONTZEJUPETIK	Oñati	GIPUZKOA	Hilabetekaria	3.800
LEA ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA	Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarri, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Mutriku	BIZKAIA	Astean seitan	5.300
MAILOPE	Araitz-Betelu	NAFARROA	Hilabetekaria	1.300
MARMARI	Leitza	NAFARROA	Urtean bitan	900
MAXIXATZEN	Azkoitia	GIPUZKOA	Astekaria	1.800
MURUGARREN	Gares	NAFARROA	Urtean lautan	250
NOAUA!	Usurbil	GIPUZKOA	Hamaboskaria	2.600
OARSOALDEKO HITZA	Antxo, Errenteria-Orereta, Lezo, Oiartzun, Pasai Donibane, Pasai San Pedro, Trintxerpe	GIPUZKOA	Astean seitan	6.000
OIARTZUN	Oiartzun	GIPUZKOA	Urtean lautan	3.000
	Antxo, Errenteria-Orereta, Lezo,	GIPUZKOA	Hilabetekaria	5.900

ON <sup>34</sup>	Oiartzun, Pasai Donibane, Pasai San Pedro, Trintxerpe			
OTAMOTZ	Urretxu -Zumarraga	GIPUZKOA	Hilabetekaria	2.000
PIL-PILEAN	Soraluze	GIPUZKOA	Hamaboskaria	1.850
PREST	Deustualdea	BIZKAIA	Hilabetekaria	2.000
PULUNPE	Ultzamaldea	NAFARROA	Urtean lautan	1.200
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA	Alegia, Hernani, Ibarra, Lizartza, Tolosa, Villabona, Zizurkil	GIPUZKOA	Astean seitan	7.500
TTIPI-TTAPA	Bortziriak, Leitza, Sara, Senpere	NAFARROA	Hamaboskaria	7.100
TXAPARRO	Zarautz	GIPUZKOA	Hamaboskaria	9.500
TXINTXARRI	Lasarte-Oria	GIPUZKOA	Astean bitan	7.100
TXIRRITXOLA	Bakio	BIZKAIA	Urtean lautan	800
TXORIBERRI	Derio	BIZKAIA	Bihilabetekaria	6.000
UK	Barrika, Berango, Erandio, Getxo, Gorniz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz.	BIZKAIA	Hamaboskaria	4.000
UROLA - KOSTAKO HITZA	Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, Zumaia	GIPUZKOA	Astean seitan	7.000
UZTARRIA	Azpeitia	GIPUZKOA	Hilabetekaria	1.800
XUKA	Ataribia	NAFARROA	Hilabetekaria	700
ZER DIÑO	Orozko	BIZKAIA	Urtean lautan	750
ZORROTZ MORROTZ	Zorrotza	BIZKAIA	Urtean hirutan	1.000

Guztira tokian tokiko euskarazko prentsaren sektorean kaleratzen diren 71 aldizkarien tiradak batuta, tirada bakoitzeko eta maiztasun ezberdinak kontuan izanik, **250.500** ale argitaratzen dira. Datu hori kontuan hartuta, ez da gehiegikeria honako baieztapen hau egitea: herri eta gertuko prentsak ez du parekorik botaldiari dagokionez euskarazko prentsan. Hainbat herri-aldizkarik egindako ikerketetatik ondorioztatzen da, aldizkariaren ale bakoitza hiru lagunek irakurtzen dutela. “Zenbaki hau kalkulu zuhurrak eginda ateratzen da. Izan ere, egunkariei lautik gora irakurle kalkulatu baitzaizkie” (Irizar, 2001: 9). Beraz, inoiz euskarazko prentsak izan duen irakurle goiena izango luke gaur egun euskaraz argitaratzen den prentsak.

### **2.10.2- 2000-2006 bitartean desagertu diren herri-aldizkariak**

<sup>34</sup>- 2004ko maiatzean sortu zen eta hilabetekari honek *Lau Haizetara, Orratz!* eta *Branka* herri-aldizkarien lekua hartzen du.

Behin baino gehiagotan errepikatu dugu, herri-aldizkarien esparruan etengabe aldaketak sortzen ari direla. Horren adierazle garbia, proiektu berrien ondorioz sortzen eta desagertzen diren aldizkarien ondoko zerrenda hau dugu:

Izena	Argitalpen eremua	Probintzia	Maiztasuna	Tirada
ARETXAGAZETA <sup>35</sup>	Aretxabaleta, Ezkoriatza	GIPUZKOA	Astekaria	4.100
ARRASATE PRESS <sup>36</sup>	Arraste, Aramaio	GIPUZKOA	Astekaria	7.100
BERRIGARA <sup>37</sup>	Bergara, Elgeta, Antzuola	GIPUZKOA	Astekaria	6.100
GOIBEKOKALE <sup>38</sup>	Elgeta	GIPUZKOA	Astekaria	650
ZER BERRI <sup>39</sup>	Eskoriatza	GIPUZKOA	Astekaria	2.500
BRANKA <sup>40</sup>	Pasaia	GIPUZKOA	Hilabetekaria	2.000
LAU HAIZETARA <sup>41</sup>	Errenteria, Orereta	GIPUZKOA	Hilabetekaria	2.500
ORRATX <sup>42</sup>	Lezo	GIPUZKOA	Hilabetekaria	2.000
OTAMOTZ	Urretxu- Zumarraga	GIPUZKOA	Hilabetekaria	2.000
IRUTXULO <sup>43</sup>	Donostia	GIPUZKOA		
ARTANDAPE <sup>44</sup>	Arrigorriaga, Zaratamo, Arrankudiaga eta Ugao	BIZKAIA	Hilabetekaria	5.000
NONTZENBARRI <sup>45</sup>	Mungia	BIZKAIA	Bihilabetekaria	1.000
OIXE <sup>46</sup>	Sakana	NAFARROA	Astekaria	3.500

### **2.10.3- Herri-aldizkariak lurraldeka**

<sup>35</sup>- 2006an *Goienkariaren* proiektu berrian biltzen dira herrietako edizio guztiak eta desagertu egiten da.

<sup>36</sup>- 2006an *Goienkariaren* proiektu berrian biltzen dira herrietako edizio guztiak eta desagertu egiten da.

<sup>37</sup>- 2006an *Goienkariaren* proiektu berrian biltzen dira herrietako edizio guztiak eta desagertu egiten da.

<sup>38</sup>- 2006an *Goienkariaren* proiektu berrian biltzen dira herrietako edizio guztiak eta desagertu egiten da.

<sup>39</sup>- 2006an *Goienkariaren* proiektu berrian biltzen dira herrietako edizio guztiak eta desagertu egiten da.

<sup>40</sup>- 2003an desagertu eta *Oarsoaldeko Hitzaren* proiektura bildu zen.

<sup>41</sup>- 2003an desagertu eta *Oarsoaldeko Hitzaren* proiektura bildu zen.

<sup>42</sup>- 2003an desagertu eta *Oarsoaldeko Hitzaren* proiektura bildu zen.

<sup>43</sup>- 2006an desagertu eta *Irutxuloko Hitzaren* proiektura bildu zen.

<sup>44</sup>- 2005ean desagertu zen arazo ekonomikoak eta baliabide ezagatik.

<sup>45</sup>- 2005ean desagertu zen.

<sup>46</sup>- 2001ean sortu eta 2004an desagertu zen *Guaixe* astekari bihurtu zenean.

Euskal Herrian argitaratzen diren eta herri-aldizkari izaera duten agerkarien taulari begiratzen badiogu eta aldizkarien kopurua probintziaka aztertuz gero, Gipuzkoa da tokian tokiko euskarazko aldizkari gehien duen herrialdea. Halaber, tokiko prentsaren egoera oso ezberdina da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean. Azter dezagun herrialde bakoitzeko egoera herri-aldizkarien fenomenoari dagokiola.

<b>GIPUZKOA</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>IPARRALDEA</b>	<b>NAFARROA</b>	<b>ARABA</b>
AIURRI Beterrri- Aiztondoko hamaboskaria	AIKOR	HERRIA	AXULAR	GEU
AIURRI Beterrri- Buruntzako astekaria	AKATZ		GUAIXE	
ALDAIZE	ANBOTO		KARRIKA	
ARTZAPE	ARRANONDO		MAILOPE	
AZPEITIAN ZER	BAGABIZ		MARMARI	
BALEIKE	BATU ETA ZABALDU		MURUGARREN	
BARREN	BEGITU		PULUNPE	
BERRIKETAN	BERBARO		TTIPI- TTAPA	
DANBOLIN	BERRIETAN BLAI		XUKA	
ETA KITTO	BERTON			
EUP	BOLO BOLO			
GALTZAUNDI	BUSTURIALDEKO HITZA			
GOIENKARIA	DROGETENITTURRI			
ASTELEHENEKO GOIENKARIA	DZINGO			
GOIERRITARRA	EL SOCIAL			
HERNANIKO KRONIKA	EUSKARRI			
GOIERRIKO HITZA	EUTSI			
HONDARRIBIA	LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA			
IRUNERO	PREST			
IRUTXULOKO HITZA	TXIRRITXOLA			
KALAPUTXI	TXORIBERRI			
KANTILAPE	UK			
<b>GIPUZKOA</b>	<b>BIZKAIA</b>	<b>IPARRALDEA</b>	<b>NAFARROA</b>	<b>ARABA</b>

KARKARA	ZER DIÑO			
KONTZEJUPETIK	ZORROTZ MORROTZ			
MAXIXATZEN				
NOAUA!				
OARSOALDEKO HITZA				
OIARTZUN				
ON				
OTAMOTZ				
PIL-PILEAN				
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA				
TXAPARRO				
TXINTXARRI				
UROLA- KOSTAKO HITZA				
UZTARRIA				
<b>36</b>	<b>24</b>	<b>1</b>	<b>9</b>	<b>1</b>

### **GIPUZKOA**

Gipuzkoa da herri-aldizkarien kontzentrazio handiena duen probintzia. 2006an 36 aldizkari argitaratzen baitira bertan, Euskal Herri osoan kaleratzen diren tokian tokiko aldizkarien %50,70 hain zuzen ere. Horietatik, 1 egunero kaleratzen da, 5 astean sei aldiz, 1 astean bi aldiz kaleratzen da, 6 astekariak dira, 7 hamabostekariak, 12 hilabetekariak, 2 bihilabetekariak, 1 urtean lautan argitaratzen da eta beste bat, urtean hiru aldiz. 2000. urtetik gaur egun arte, 12 aldizkari berri sortu dira Gipuzkoan: Astean 6 aldiz kaleratzen diren *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*, *Urola Kostako Hitza*, *Irutxuloko Hitza*, *Goierriko Hitza*, *Oarsoaldeko Hitza*, *ON* hilabetekaria, *Txaparro* hamaboskaria, *Danbolin* hilabetekaria, *Aldaize* hilabetekaria, *Kalaputxi* hilabetekaria, *Asteleheneko Goienkaria* astekaria eta *Aiurri* astekaria.

## **BIZKAIA**

Bizkaian orotara, hurbileko informazioa lantzen duten 24 aldizkari argitaratzen dira, Euskal Herri osoan kaleratzen direnen % 33,80. Argitalpen 2 daude Bizkaian asteen 6 aldiz kaleratzen direnak, 2 astekari, 2 hamabostekari, 9 hilabetekari, bihilabetekari bakarra, urtean lau aldiz kaleratzen diren 6 eta urtean hiru aldiz kaleratzen diren 3 aldizkari. Milurteko berrian sortu diren agerkariak honako hauek izan dira: *Anboto* astekaria, *Bagabiz* hilabetekaria, *Begitu* hilabetekaria, *Busturialdeko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* asteen 6 aldiz kaleratzen direnak eta *Aikor* hilabetekaria.

## **ARABA**

Araban ordea, Bizkaia eta Gipuzkoarekin alderatuz, oso gutxi hedatu da hurbileko informazioa jorratzen duten aldizkariaren eredia. *Geu Gasteiz* hilabetekaria 1992an sortu zenetik gaur egun arte, berau da Araban argitaratzen den euskarazko herri-aldizkari bakarra.

## **IPARRALDEA**

Iparraldean, 1944an sortu zen *Herria* astekaria da, gaur egun hurbileko informazioa euskaraz jorratzen duen aldizkari bakarra da. Aztertu dugu *Herria* aldizkariaren ibilbidea eta garai zailak pasa ostean, 62 urte bete zituen 2006an. 60ko hamarkadaren bigarren aldirian, egitasmoaren bultzatzaileek orri kopurua gehitu zutenean, poliki-poliki herrietako berriak sartzen hasi ziren eta tokian tokiko korrespontsal sarea osatzea lortu zuten. Egun, *Herriak* 2.850 ale kaleratzen ditu eta horietatik 2.600 harpidetzaren bitartez banatzen dira, gainerako 250 saldu egiten dira. Gaur eguneko *Herriaren* funtzioa euskarazko berriak hedatzea da, euskal kulturaren, kazetaritzaren eta iritzien truke-gunea izanik eta luma berriak sortuz. Komunikazio-tresna den euskara bera kontuan hartzen dute. Emeki-emeki euskara baturantz doaz baina betiere tokiko euskalkiak errespetatuz.

Iparraldean, tokian tokiko informazioa lantzen duen prentsaren egoera ezin esan daiteke ona denik, euskarazko prentsa idatziaren egoera oro har kezagarria baita. Hori bai, Hegoaldean hain landua ez den alor bati ematen diote garrantzia: haur literatura eta haurrak. Hor daude adibibide bezala, *Nanai* eta *Pika* haur-hilabetekariak eta *Maiatz* literatur hiruhilabetekaria dira. Iparraldean zabaltzen den euskarazko gainerako prentsa, Hegoaldetik datorrena da: *Berria*, *Argia*, *Ttipi-Ttapa* eta *Nabarra* besteak beste, baina gutxi hedatzen dira, Iparraldean euskarazko irakurleak



gutxituz doaz-eta. Gainera, euskaldunek ere, askok nahiago dute erdal aldizkariak irakurri (*Sud-Ouest, Le Semaine, Le Journal du Pays Basque, Le Journal de St Palais, Le Miroir de la Soule...*). Ahaztu gabe noski, Iparraldeko botere publikoek eta udalek ez diotela diru-laguntzarik ematen euskarazko prentsari eta ematen dutenean oso diru gutxi izaten dela. Departamenduan 2003an egin zen Hitzarmen Bereziak, euskarazko prentsa idatzia bere finantziatortik kanpo utzi zuen. *Herria* aldizkariak Eusko Jaurlaritzatik<sup>47</sup> diru-laguntza jasotzen du.

### **NAFARROA**

Nafarroan Euskal Herri osoan kaleratzen diren euskarazko aldizkarien %12,68 argitaratzen da. 9 dira hurbileko informazioa lantzen duten agerkariak, astekari bakarra dago, hamabostekari bakarra eta 3 hilabetekari. Gainerako 4 aldizkariak maiztasun txikiago dute: 1 urtean bi bider kaleratzen da eta urtean lau aldiz argitaratzen diren 3 aldizkari daude.

1990etik gaur egun arte, Nafarroako Gobernuak urtero komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzen lerro bat zabaltzen du. Deialdi horretan sartzen dira, oro har, herri-aldizkari, irrati eta telebistak. Diruz laguntzen dira, bai euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak eta baita horretarako kontratatzen diren bekadunak ere. Azken 5 urteetan Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren bidez banatzen duen diru-laguntza kopurua murriztuz joan da urtez urte. Bierrik Euskara Elkarteko Garbiñe Petriatiren esanetan, “Tokiko prentsaren bideragarritasuna baldintzatu eta egitasmo berrien garapena oztopatuz. Gero eta komunikabide gehiago eta horien sustapenerako gero eta diru-poltsa txikiago” (*Berria*: 2006/03/1).

Nafarroan, egoera onena bizi duten aldizkariak *Ttipi-ttapa* hamabostekaria eta *Guaixe* astekaria direla esan daiteke. *Ttipi-ttapa* aldizkaria izan zen *Arrasate Pressekin* (1988) batera herri-aldizkarien aitzindaria 1989an. Gerora, sarean agertu zen lehendabiziko euskarazko herri-aldizkaria izan zen; 1996ko irailaren 12an web orrialdea jarri zuten sarean eta 1998ko ekainean *Ttipi-ttapa* Telebista sortu zuten.

Euskalerrira Irratia Nafarroan ari da 18 urtetan, euskara hutsean eta gertuko informazioa (Iruñerrian egin eta bertan emititzen da) emanez. Hasi zirenetik gaur egun arte, Nafarroako Gobernuak etengabe ukatu dizkio lizentzia administratiboak. Astean 40 orduko programazio

---

<sup>47</sup>- Ikus lan honetako 86-87 orrialdeko taula.

lokala eskaintzen badute ere, 24 orduko zerbitzua ematen du, programazio propioa ez denean, *Euskadi Irratia* zabaltzen baitute.

Ondorioz, atal honetan begi bistako datuen arabera, gaur egun Gipuzkoako Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Bizkaiko Herri Komunikabideekin batera, Euskal Herrian tokian tokiko komunikabideen esparruan dauden talde multimedia garrantzitsuenak direla esan daiteke. Bestalde, Nafarroan *Guaixe* astekaria eta *Beleixe* irratia kudeatzen dituen Bierrik Euskara Elkarte osasuntsu dago.

### **2.11- TOKIAN TOKIKO PRENTSA ETA DIRU-LAGUNTZAK**

Esparru zabal bezain anitza da euskaraz argitaratzen den tokian tokiko prentsarena. Zabala, Euskal Herri osoan hedaturik baitago; anitza edukiei, formatuei, ildo editorialei eta izaera juridikoei dagokionez. Batzuek kultur elkarte edo euskara elkarte bat dute atzean, beste batzuek fundazio izaera dute; badira herri ezberdinetako udalek kaleratzen dituzten aldizkariak, komunikazio enpresak argitara ateratakoak eta enpresa (sozietate mota ezberdinak edota kooperatibak) izaera dutenak. Finantziario iturriei dagokionez, aztertutako tokian tokiko argitalpen guztiek ez dute eredu bera jarraitzen: gehienentzat finantziario-iturri nagusiak diru publikoak (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernuak eta tokian tokiko udalak) eta publizitatea izaten dira. Herri-aldizkari gehiengoa doan banatzen da, baina badira saldutakoak edota bazkidetzaren bitartez helarazitakoak ere. EAE-ko, Nafarroako eta Iparraldeko komunikabide ezberdinek Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzak jasotzen dituzte, betiere, agindutako baldintzak betez gero. Gaur egun Eusko Jaurlaritzak honako baldintza hauek hartzen ditu kontuan diru-laguntzak jasotzeko:

- Argitalpen-eremua.
- Aldizkaria euskara hutsez kaleratzea.
- Diru-sarreraren %40an autofinantzatua izatea (publizitatearen bitartez edo iturri ez instituzionaletatik lortzen diren beste finantziario bide batzuen bitartez)
- Urtean 10 ale gutxienez kaleratzea.

Hurrengo tauletan, 2000-2004 bitartean Eusko Jaurlaritzak eskatutako baldintzak bete dituzten herri-aldizkariak jasotako diru-laguntzak agertzen dira.

**2.11.1- Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak<sup>48</sup> 2000-2004 bitartean**

ALDIZKARIA	2000 URTEA	2001 URTEA	2002 URTEA	2003 URTEA	2004 URTEA
Herria	12.020,24	12.020,24	16.000,00	8.737,30	20.000,00
Hernaniko Kronika	-----	16.517,65	19.516,50	29.000,00	34.000,00
Tolosaldean Egunero/Tolosaldeko Hitza	-----	-----	41.536,20	56.490,00	64.136,22
Otamotz Aldizkaria	2.899,88	4.026,78	3.423,40	5.095,00	4.000,00
Irunero	5.559,36	5.072,54	3.577,00	6.090,00	6.784,60
Oarsoaldeko Hitza	-----	-----	-----	58.888,00	67.848,59
Lea Artibai eta Mutriku Hitza	-----	-----	-----	-----	83.824,19
Aikor, Txorierriko aldizkaria	-----	-----	5.187,40	11.761,00	7.788,18
Aiurri, Beterri-Aiztondoko aldizkaria	6.531,08	11.903,65	12.852,70	14.641,00	11.377,65
Aiurri, Beterri-Buruntzako astekaria	-----	-----	-----	-----	0,00
Anboto, Durangoko aldizkaria <sup>49</sup>	10.997,02	20.224,06	26.690,80	55.589,00	27.391,19
Barren, Elgoibarko eta Mendaroko aldizkaria	18.909,97	17.753,30	18.996,00	21.215,00	17.374,08
Begitu, Arratiako aldizkaria	-----	-----	5.010,12	10.349,00	8.286,61
Branka, Pasaiako aldizkaria	661,11	3.567,01	3.652,95	DESAGERTUA	DESAGERTU A
Eta kitto! Eibarko aldizkaria	20.684,56	19.908,53	21.591,36	27.017,00	24.474,38
Galtzaundi, Tolosaldeko aldizkaria	10.578,87	9.872,23	11.200,00	13.100,00	11.579,12
Geu, Gasteizko eta Arabako aldizkaria	9.035,23	7.031,84	7.452,30	11.585,00	7.524,32
Aretxagazeta, Aretxabaletako aldizkaria	7.362,40	7.726,61	13.073,25	15.200,00	13.021,45
Arrasate Press, Arrasateko aldizkaria	30.718,41	28.558,89	28.537,50	34.175,00	25.388,57
Berrigara, Bergarako aldizkaria	26.067,37	25.069,30	26.858,92	27.165,00	23.379,33
Goienkaria, Debagoienako aldizkaria	-----	25.919,25	28.682,60	35.700,00	36.941,80
Asteleheneko Goienkaria	-----	-----	-----	-----	0,00
Goierriarra, Goierriko aldizkaria	14.736,73	13.348,48	16.718,85	17.800,00	14.291,47
Irutxulo, Donostiako aldizkaria	30.137,34	28.575,21	30.123,83	31.241,00	25.362,71
Karkara, Orio eta Aiako Aldizkaria	7.437,53	4.507,59	6.447,78	7.000,00	6.898,38
Lau haizetara, Errenteriako aldizkaria	4.382,34	4.112,13	4.519,47	DESAGERTUA	DESAGERT UA
Maxixatzen, Azkoitiko aldizkaria	5.023,08	7.225,76	7.271,05	8.056,00	11.971,75
Noua! , Usurbilgo aldizkaria	8.387,96	8.097,14	8.758,25	9.669,00	9.127,99

<sup>48</sup>- Taulan ageri diren kopuru guztiak eurotan daude.<sup>49</sup>- Anboto 2001ean sortu zen. 2000 eta 2001eko deialdien diru-laguntza, aurretik Durangaldean zegoen *Eraz* aldizkariak jaso zuen.

<b>ALDIZKARIA</b>	<b>2000 URTEA</b>	<b>2001 URTEA</b>	<b>2002 URTEA</b>	<b>2003 URTEA</b>	<b>2004 URTEA</b>
Txaparro, Zarauzko aldizkaria	-----	-----	10.051,69	10.317,00	11.000,00
Txintzarri, Lasarte-Oriako aldizkaria	13.867,81	17.430,99	19.232,48	36.883,00	20.133,32
UK, Uribe Kostako aldizkaria	4.261,18	9.224,33	0,00	8.905,00	13.000,00
Uztarria, Azpeitiko aldizkaria	6.921,11	5.209,13	6.911,64	8.223,00	7.102,44
Baleike	5.100,39	7.524,67	4.600,00	6.090,00	4.398,27
El social	-----	7.266,47	5.784,35	5.000,00	5.176,96
Akatz	300,51	2.554,30	5.050,00	5.940,00	4.191,80
Arranondo	5.409,11	-----	-----	-----	-----
Artzape, Getariako aldizkaria	-----	-----	4.500,00	5.600,00	3.550,34
Danbolin, Zestoako aldizkaria	-----	5.484,01	5.758,21	6.885,00	3.772,98
Berton, Bilboko Mahatserriko aldizkaria	4.776,84	5.363,05	5.440,49	5.460,00	5.072,99
Drogeteniturrri, Ermua-Mallabiako Aldizkaria	2.853,94	5.188,90	5.225,90	5.300,00	4.471,23
Kalaputxi Mutrikuko aldizkaria	-----	-----	4.421,25	4.895,00	4.406,60
Orratx, Lezoko Aldizkaria	4.413,88	5.192,06	5.555,07	DESAGERTUA	DESAGERTUA
Pil-pilean, Soraluzeko aldizkaria	2.667,95	6.433,83	6.940,08	7.176,00	6.631,82
Prest, Deustualdeko aldizkaria	-----	5.980,07	6.129,86	6.500,00	5.718,94
Zer barri Eskoriatzako aldizkaria	5.015,37	4.834,31	-----	-----	-----
Goibeko Elgetako aldizkaria	4.328,80	4.175,80	-----	-----	-----

Taulan ikus daitekeen moduan, 2003. urtean komunikabide gehienek diru gehiago jaso zuten, baina urte berezia izan zen. 2004an aurreko urteetako joera mantendu zen eta hurrengo urteetan euskarazko hedabideen arloan izan diren diru-laguntzak ez dira sektorearen hazkunderaren erritmo berebean handitu. Hots, komunikabide berriak etengabe sortzen ari dira eta horrek komunikabideei banatzeko dagoen diru-poltsa, gehiagoren artean partitu beharra ekarri du. Ondorioz, komunikabide batzuek gero eta diru gutxiago jasotzen dute urtetik urtera. Esaterako, 2005ean 3.800.000 euro jarri zituen Jaurlaritzak komunikabideetan euskararen erabilera sendotzeko. 2006an, 4.750.000 euro. Euskaraz ari diren komunikabideen artean banatzen den diru-poltsak orokorrean 450.000 euroko igoera izan zuen.

Hori dela eta, euskarazko hedabide idatzietako eragileak kexu agertzen dira batez ere 2003tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak euskarazko komunikabideak laguntzeko diru-poltsa, azken urteetan oso gutxi handitu duelako. Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak,

diru-laguntzak handiak ez zirela onartzen zuen 2006ko otsailean *Berria* egunkarian egin zioten elkarrizketan. Hona hemen elkarrizketaren pasarte batzuk (*Berria*, 2006/02/4):

“Galdera: *Herrietako hedabideak berezko hizkuntzan izatea funtsezkoa da. Hori estrategikoa den neurrian, euskarazko hedabideentzat dauden laguntzak estrategikotzat jo daitezke?*

Erantzuna: Bai, baina estrategikoak dira, era berean, helduak euskalduntzeko diru-laguntzak, enpresak euskalduntzeko laguntzak, euskara sustatzeko dituen diru-laguntzak. Estrategikoak dira bai, baina beste alor batzuk ere estrategikoak dira, eta guztion artean aurkitu behar da oreka.

Galdera: *Dena den, azken urteotan euskarazko komunikabideentzako laguntzetan ez da igoerarik egon.*

Erantzuna: Igoera txikiak izan dira, baina igoerak izan dira.

Galdera: *2003, 2004 eta 2005ean 1.7000.000 euro izan ziren egunekoentzat. Sektoreak dio hori ozta-ozta bizirik irauteko kantitatea dela. Zer dio Jaurlaritzak horretaz?*

Erantzuna: Jaurlaritzak esaten duena da urtero aurrekontu bat duela, aurrekontuak lehenago onartu behar direla eta onartzen direnean ikusi behar dela ze aurrekontu diren, norekin negoziatu diren eta negoziazio horren bidez ze diru gehigarri etorri den. Eta, alderdi horretatik, ez hizkuntza politikak bakarrik, Kultura Sailak eta gainerako sailek ere urtero duten aurrekontua da kudeatu behar dutena”.

Patxi Baztarririk, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, aldiz, 2006ko ekainean hedabide berari, *Berriari* alegia, zera aipatu zion: “Hedabideen diru-laguntzetarako jartzen diren kopuruak ez dira eskasak” (*Berria*, 2006/06/7). Baztarririk, hausnarketaren beharra aipatu zuen elkarrizketa berean: “Uste dut beharrezkoa dela gogoeta bat egitea aurreiritzirik gabe, zintzotasunez, errespetu osoz eta elkarlanerako giroan: hedabideek egin duten bideari buruz, errealitateari buruz eta etorkizuneko perspektibei buruz. Giltzarri bat hartu behar dugu horretarako: hedabidea eta irakurlea. Hedabide baten epailea irakurlea baita. Gogoeta hori bultzatu nahi dugu, aurrena herri erakundeekin eta gero, jakina, sektorearekin” (*Berria*, 2006/06/7).

Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak banatzeko irizpideen aurrean, euskarazko prentsaren sektoreak bat eginik, prentsaurrekoa antolatu eta agiri bat prestatu zuen. Agirian hiru eskaera nagusi egin zizkieten Eusko Jaurlaritzari:

1- Diru-laguntzen zenbatekoa urteko lehen sei hilabetekoan jakin eta ordaintzeko modua egitea. Diru-laguntzen jakinarazpena oso berandu (urria edo azaroan) heltzen da hedabideetara eta horrek hedabideen funtzionamenduan arazoak dakartza.

2- Diru-laguntzen kopurua handitzeko eskatu zioten Jaurlaritzari, 2000-2005 bitartean ez baitzen diru-laguntzen kopurua igo. Euskarak eta euskal prentsak aurrera egiteko, gainerako sektoreetan gertatzen den bezala, inbertitu egin behar da eta inbertitzeko baliabideak behar dira.

3- Euskarazko eskaintza indartzea lehenetsi dezan. Euskarazko eskaintzan zeregin handia dagoela kontuan hartuta, lehentasuna euskara hutsezko eskaintza indartzeari eta zabaltzeari eman behar zaiola uste du sektoreak.

Eskaerak eskaera, Eusko Jaurlaritzak 2006an esleitutako diru-laguntzetan igoerak izan zituzten aldizkari askok. Bestalde, lehenengo aldiz, prentsa erdaldunak euskarazko gehigarriak egiteko diru-laguntzak jaso zituen 2006an. Guztira, *Xirika 16*, *Ortzadar*, *Araba Gaztea* eta *Izan gazte-gehigarri* 297.393 euro banatu zitzairen.

### **2.11.2- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren azterketaren emaitzak**

Gauzak horrela, 2006ko ekainean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, euskarazko hedabideen bilakaerari eta etorkizuneko erronkei buruzko hausnarketa hasi zuen euskarazko hedabideetako ordezkariekin batera. Besteak beste, HAKOBak (Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordeak)<sup>50</sup> txosten bat prestatu zuen. Txostenaren helburua, euskarazko hedabideen audientziak neurtzea zen, eta datu horietan oinarrituz, HAKOBak hausnarketa egin zuen, euskarazko prentsaren sektorea nola sustatu aztertzeke. HAKOBak egindako txostenean euskara hutsean edo ia osorik euskaraz argitaratzen diren idatzizko, entzunezko eta ikus-entzunezko hedabideak aztertu dira. Hortaz, euskarazko egunkarien, aldizkarien, irrastien, telebisten eta internet bidezko komunikabideen azterketa egin zen. Ikerketa horretan irakurlea, entzulea eta ikus-entzulea aintzat hartu dira, euskarazko komunikabideak zenbaterik kontsumitzen dituen eta horien oinarrizko ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzeko asmoz.

<sup>50</sup>- HAKOBA euskararen inguruko politika publikoak bateratzen dituen organismoa da. Bilgune horretan, arian-arian batzarrak egiten dira Eusko Jaurlaritzako Kultura, Hezkuntza, Herri Administrazioa eta Ogasun sailean, HAEEn foru aldundien eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuen ordezkarien artean, euskararen sustapenarekin, alderdi guztietatik, zerikusia duten politiken gainean gogoeta egin eta neurriak proposatzeko aginteei. (Lobera, 2005: 332).

Euskarazko herri-aldizkariak aztertzen ari garenez, hauei buruzko ondorioak<sup>51</sup> ekarriko ditugu gurerara. Audientziari dagokionez, *Goienkaria*, *Goierritarra*, *Anboto*, ...*eta kitto!*, *Aiurri*, *UK* eta *Galtzaundi* aldizkariak dira ordena horretan irakurle gehien dituzten tokiko aldizkariak. 16.100 irakurletik 7.600 irakurle bitarteko audientziak dituzte aipatu aldizkariok.

Gainerako tokiko aldizkariak 6.000 irakurletik behera dituzte, honako irakurle tarteetan banatuta:

Aipatu ikerketaren arabera, 5.900 eta 4.500 irakurle dituzten aldizkarien artean honako hauek azaltzen dira hurrenez hurren: *Barren*, *Txintxarri*, *Maxixatzen*, *Begitu*, *Txaparro*, *Uztarria* eta *Geu*.

4.100 eta 2.100 irakurle dituzten agerkarien multzoa honako aldizkariak osatuko lukete: *Aikor*, *Kontzejupetik*, *Hondarribia*, *Karkara*, *Noaua*, *Kalaputxi*, *Artzape*, *Drogetenitturri*, *Otamotz*, *Berrigara*, *Irunero* eta *Pil-pilean*.

Honatz 2.000 eta 1.000 irakurle bitartean dituzten aldizkarien zerrenda: *Akats*, *Arranondo*, *El Social*, *On*, *Zuhatza*, *Hilero*, *Berrietan Blai*, *Pasaia*, *Zer*, *Baleike* eta *Mugitarra*.

Azkenik, 1.000 irakurletik behera dituzten aldizkariak *Arkalaz*, *Aldaize*, *Berton*, *Oarsoaldea*, *Txanpa*, *Hauexe da* eta *Zuin* dira besteak beste.

Eskualde ezberdinetako *Hitzak* eta *Hernaniko Kronika*, *Berria* egunkariarekin batera aztertu dira.

*Hitza* egunkaria 116.100 lagunek irakurtzen dute. Horietatik 93.900 ohiko irakurleak dira eta 49.100ek erantzun dute aurreko egunean irakurri zutela.

*Hernaniko Kronika* egunerokoa, 5.300 pertsonak irakurtzen dute. Datuen arabera, 4.800 ohiko irakurleak dira eta 3.200ek aurreko egunean irakurri zutela aitortu zuten.

Azterketaren ondorio orokorren<sup>52</sup> arabera, euskarazko hedabideak irakurtzeko zailtasun handia dute euskaldun askok eta horrek ondorio nabarmena du euskarazko hedabide idatzien audientzian. Nahiko handia da oraindik alfabetatu gabeen edo erdi alfabetatutakoen euskaldun kopurua, batez ere adin batetik aurrera (ia %24koa 40 urtetik aurrerakoan artean eta %40koa 65 urtetik aurrerakoetan).

<sup>51</sup>- Iturria: Eusko Jaurlaritzak. (2006): *Euskarazko Hedabideak* barne txostena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. Azterketa honetan Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideak aztertu dira soilik. Euskara hutsean edota ia osorik euskaraz kaleratzen diren idatzizko, entzunezko eta ikus-entzunezko hedabideak.

<sup>52</sup>- Ondorio orokorrak, euskara hutsean edo ia euskaraz osorik kaleratzen diren hedabide idatzien arabera atera dira. Beraz, egunkariak, tokiko aldizkariak, aldizkari orokorrak eta aldizkari espezializatuak hartu dira kontuan.

Ikerketaren arabera, euskarazko hedabide idatziak irakurtzen dituenaren profila honakoa litzateke: 14-36 bitarteko gaztea, gizonezkoa (nahiz eta emakumezkoak ere %40tik gora izan), goi mailako ikasketak dituen (tokiko aldizkarien kasuan ez) eta gipuzkoarra.

Azterketaren ondorioei erreparatuz, aldizkaria edo egunkaria irakurtzen 15-30 minutu ematen ditu irakurleak. Halaber, euskarazko hedabide idatzien irakurleak etxean ikasi du euskara. Hala ere, inkesten arabera, etxeko hizkuntza gaztelania zela aitortu zutenen kopurua nabarmena izan zen, %20tik gorakoa.

Aipatu beharra dago Bizkaian, gainerako idatzizko hedabideen ezaugarrietatik nabarmen aldentzen den UK hamaboskariaren irakurlearen profila agertzen dela. Uribe Kostako agerkariaren irakurle ia guztiak lehen gune soziolinguistikokoak dira (%65) edo bigarrenekoak (%30) eta gainera, %66ren lehen hizkuntza gaztelania da.

Euskarazko hedabide idatzien irakurleak, oro har, erraztasun handiagoa du gaztelaniaz irakurtzeko, batez ere tokiko aldizkarien eta egunkarien irakurleak. Hala ere, errazago hitz egiten du euskaraz gaztelaniaz baino.

Bukatzeko, euskarazko komunikabide idatzien irakurleak etxean egiten du euskaraz nagusiki eta baita lagunekin eta lankideekin ere.

Hurrengo taulan, Eusko Jaurlaritzak egindako azterketan ikertu diren eta gure zerrendan agertzen diren herri-aldizkarien datuak erakusten dira:

Aldizkariak		Guztira irakurleak	Ohiko irakurleak	Azken zenbakia	Tiradak	Guztira irakurleak – tiradak
Aikor		4.100	3.500	2.200	4.750	<b>-650</b>
Aiurri		10.200	8.700	5.800	6.500	3.700
Akats		1.900	1.300	600	2.300	<b>-400</b>
Aldaize		800	800	800	700	100
Anboto		1.5500	13.900	8.500	8.000	7.500
Arranondo		1.600	1.400	1.000	3.500	<b>-1.900</b>
Artzape		3.000	3.000	3.000	950	2.050
Bagabiz		400	400	300	5.000	<b>-4.600</b>
Baleike		1.100	1.100	800	2.300	<b>-1.200</b>
Barren		5.900	5.100	3.200	4.000	1.900
Begitu		5.300	4.800	4.300	4.500	800
Berriketan		600	600	600	500	100
Berritan Blai		1.200	1.100	600	6000	<b>-4.800</b>
Berton		800	800	500	1200	<b>-400</b>
Bolo bolo		500	500	200	1200	<b>-700</b>



Aldizkariak		Guztira irakurleak	Ohiko irakurleak	Azken zenbakia	Tiradak	Guztira irakurleak – tiradak
Danbolin		200	200	200	1300	-1100
Drogetenitturri		3.000	2.600	1.800	1.750	1250
El Social		1.600	1.100	700	5000	-3400
Eta kitto		10.400	9.700	6.500	7.300	3100
Eutsi		200	200	200	1.200	-1000
Galtzaundi		7.600	5.900	2.900	5.500	2100
Geu		4.500	3.800	3.400	2.500	2.000
Goienkaria		28.800	26.500	16.600	19.000	9.800
Goierritarra		16.100	12.700	9.200	7.300	8.800
Hernaniko kronika		5.300	4.800	3.200	3.200	2.100
Hitzak (zazpiak)		11.6100	93.900	49.100	51.300	64.800
Hondarribia		3.500	3.300	2.500	1.200	2.300
Irunero		2.400	2.000	1.000	3.500	-1100
Kalaputxi		3.100	3.100	2.200	1.700	1.400
Karkara		3.400	3.000	2.900	2.700	700
Kontzejupetik		3.800	3.600	3.000	3.800	0
Maxixatzen		5.500	4.300	3.400	1.800	3.700
Noaua		3.300	3.100	2.200	2.600	700
On		1.500	1.500	1.100	5.900	-4400
Otamotz		2.900	2.700	2.500	2.000	900
Pil-pilean		2.100	1.800	1.500	1.850	250
Prest		200	200	200	2000	-1800
Txaparro		5.100	3.800	1.900	9.500	-4400
Txintzarri		5.500	4.400	3.300	7.100	-1.600
UK		8.600	7.500	5.100	4.000	4.600
Uztarria		4.900	4.500	3.800	1.800	3.100
Zorrotz Morrotz		400	400	400	1.000	-600
		<b>30.2900</b>	<b>257.600</b>	<b>163.200</b>	<b>209.200</b>	

2006an HAKOBak egindako ikerketaren emaitzek ñabardura batzuk merezi dituztela uste dugu:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako azterketan hainbat aldizkarik gaztelera erabiltzen dute euren orrietan; guk ez ditugu lan honetan kontuan hartu, tokian tokiko euskarazko prentsa delako ikerlan honen ardatza. Bestalde, gure zerrendan dauden hainbat aldizkari ez dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ikerketan agertzen, ez baitira Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan kaleratzen, esaterako Nafarroan eta Iparraldean argitaratzen diren herri-aldizkariak ez dira aztertu Eusko Jaurlaritzaren ikerketan.

Bestalde, guk osatutako 71 herri-aldizkariaren zerrendatik, 48<sup>53</sup> agerkari aztertu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. 48 agerkari horiek orotara, 302.900<sup>54</sup> irakurle dituzte. Horietatik, 257.600<sup>55</sup> ohiko irakurleak dira eta 163.200<sup>56</sup> pertsonak inkesta egin zenean, herri-aldizkariaren azken zenbakia irakurria zuten. 16 urte edo gehiagoko EAEko euskaldun eta ia euskaldunen kopurua 613.200<sup>57</sup> lagunekoa dela kontuan hartzen badugu, ia erdiak (%49,39) irakurtzen du tokian tokiko aldizkari bat. %42 herri-aldizkariaren ohiko irakurleak dira eta emaitzak behera egiten du nabarmen, azken zenbakia zenbatek irakurri duten galdetu zaienean, %26, 6k irakurria izan du.

Atentzioa ematen duen beste datu bat ere azpimarratu behar dugu azterketa honetan. Bertoko emaitzen arabera, gure zerrendan agertzen diren hamazazpi aldizkariaren tirada, euren irakurle kopuruaren gaineratik agertzen da. Hau da, *Txintzarri*, *Txaparro*, *Aikor*, *Irunero*, *Akats*, *Arranondo*, *El Social*, *On*, *Berrietan Blai*, *Baleike*, *Berton*, *Bolo bolo*, *Zorrotz Morrotz*, *Bagabiz*, *Eutsi*, *Danbolin* eta *Prest* aldizkariaren irakurle kopurua, euren tiradaren azpitik agertzen da. Esate baterako, *Txintzarri* aldizkariak Eusko Jaurlaritzaren ikerketaren arabera, 5.500 irakurle ditu guztira eta 7.100 ale plazaratzen ditu asteen bi aldiz: gauza bera gertatzen da gainerako hamasei aldizkariaren kasuan. Dena dela, kontrara beharko luke izan, aldizkariaren tiradaren gaineratik egotea irakurle kopuruak. Horren frogara, zenbait aldizkari egindako ikerketak dira: ale bakoitza 2'5-3 lagunek irakurtzen baitute.

Euskarazko tokian tokiko prentsa gainerako euskarazko hedabideekin batera aztertzen bada, ez dugu uste datu fidagarririk lortu daitekeenik. Izan ere, HAKOBak eginiko ikerketa<sup>58</sup> horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan 4.000 elkarrizketa egin ziren telefonoz eta euskarazko hedabide guztien audientziak – tokian tokiko prentsa barne – neurtu ziren. Bertan ez da agertzen herriz herri erabilitako laginen daturik, ezta galdetegia egiteko erabili zen metodologia zehatzaren inguruko azalpenik ere. Ondorioz, EAE-ko edozeini, bere herrikoa ez den aldizkariari buruz galdetu ahal

<sup>53</sup> - Azterketan Goienkariak zituen edizio ezberdinak ere kontuan hartu dira. Gaur egun ez direnez argitaratzen, goiko taulan ez ditugu sartu.

<sup>54</sup> - Iturria: Eusko Jaurlaritza. (2006): *Euskarazko Hedabideak* barne txostena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. Azterketa honetan Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideak soilik aztertu dira. Euskara hutsean edota ia osorik euskaraz kaleratzen diren idatzizko, entzunezko eta ikus-entzunezko hedabideak. Emaitzak irakurle kopuruak batuz lortu dira.

<sup>55</sup> - Iturria: Eusko Jaurlaritza. (2006): *Euskarazko Hedabideak* barne txostena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. Azterketa honetan Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideak soilik aztertu dira. Euskara hutsean edota ia osorik euskaraz kaleratzen diren idatzizko, entzunezko eta ikus-entzunezko hedabideak. Emaitzak irakurle kopuruak batuz lortu dira.

<sup>56</sup> - Iturria: Eusko Jaurlaritza. (2006): *Euskarazko Hedabideak* barne txostena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. Azterketa honetan Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideak soilik aztertu dira. Euskara hutsean edota ia osorik euskaraz kaleratzen diren idatzizko, entzunezko eta ikus-entzunezko hedabideak. Emaitzak irakurle kopuruak batuz lortu dira.

<sup>57</sup> - Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *16 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde eremuaren eta euskara maila orokorraren arabera*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

<sup>58</sup> - Eusko Jaurlaritza. (2006): *Euskarazko Hedabideak* barne txostena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

zioten telefonoz. Hau da, Zarauzko biztanle batek *Euskadi Irratia*, *Berria*, *Argia* edo *ETBI* ezagutzen zituen eta seguru asko, entzun, irakurri edo ikusi egin zituen noizbait. Zarauzko biztanle berak Eibarko ...*eta kitto!* aldizkaria ez zuen ezagutuko eta bai, ordea, Zarauzko *Txaparro* aldizkaria. Alegia, tokian tokiko prentsaren azterketa, berau zabaltzen den eremuan egitea beharrezkoa da. Gainera, tokian tokiko datuak ateratzeko lagin esanguratsuak erabiltzea ezinbestekoa da, horrela bakarrik lortuko baitira emaitza fidagarriak. Bide hori erabili duten ikerketa batzuekin alderatuta, *Hernaniko Kronikak* egindako azterketa kasu, HAKOBAREN datuak ez datoz bat.

Era berean aipatu beharra dago, telefono bidezko inkestak izan zirela guztiak, baina aurrez aurre eginda, emaitza errealagoak lortu ahal direla uste dugu. Zenbait kasutan, herriko jendeak bertoko aldizkaria ezagutzen du, baina izena esanez soilik ez zaio ezaguna egiten, ale bat erakutsiz gero, berehala identifikatzen du herri-aldizkariarekin. HAKOBA-k burutu duen azterketan ez da horrelakorik aipatzen metodologian, herri-aldizkarien izena bakarrik eman zaio inkesta egiten zaionari. Gainera, ikerketan agertzen diren aldizkari batzuen izenak, lan honetarako kontsultatu diren tokian tokiko prentsaren ikerketetan, inoiz agertu ez diren izenak izan dira, erabat ezezagunak: *Sopelanete*, *Eibar Sortzen*, *Frizberri* bezalakoak esaterako.

Azkenik, horrelako ikerketa bakanek gure ustez, ez dute egoeraren ikuspegi globala aztertzeke balio, ez baitute bilakaeraren ikuspegi objektiboa erakusten, ezta unean uneko egoera zein den kontuan hartzen ere. Beraz, ikerketok modu sistematikoan eta lagin esanguratsuekin egin beharko lirateke.

## **2.12- TOKIAN TOKIKO PRENTSA ETORKIZUNEAN**

Lan honetan behin baino gehiagotan aipatu dugu *Arrasate Pressek* bide berria eraiki zuela, 1988an euskarazko herri-prentsaren baitan eredu bilakatuz. 12 urte geroago, *Arrasate Press* eta Deba Goiena bailarako komunikabideak izan ziren Euskal Herrian dagoen euskarazko eskualde talde multimedia garrantzitsua sortu zutenak. Atzera begira jartzen bagara, Arrasaten 1988an bertan hasitako ekimena, multimediararen aitzindari izan zela konturatuko gara. *Irratia* sortu aurretik 1992an Arrasate Komunikabideak (Arko) elkarteak sortu zen, *Arrasate Press* astekaria eta Arrasate Telebista kudeatzeko. Arkok egitasmoa aurkeztu zuenean, euskarazko lehen toki multimedia gisa aurkeztu zuen bere burua.

Arkorekin batera, Bortzirietako *Ttipi-Ttapa* izan zen multimediaren beste adibide garrantzitsu bat, aipatu bezala berau izan baitzen aitzindari aldizkaria interneten jartzen.

### **2.12.1- Multimedia egitasmoak**

Milurteko berriak komunikazioan ekarri eta eragin duen aldaketa apartekoa izan da. Komunikazioak gizartean hartu duen garrantzia eta zentraltasunaz badirudi herri-prentsa jabetu dela. Azken urteetan eskualdeko eta bailarako informazioak garrantzia irabazi du, gero eta egitasmo gehiago eta sendoagoak sortu dira eta sortzen ari dira gertuko aldizkarien inguruan, informazioa jorratzeko ahaleginez. Etengabe aldatzen ari den esparrua da euskarazko herri-prentsaarena. Halaber, gero eta gehiago dira talde multimedien aldeko apustua egiten dutenak. “Multimediaren teoriak dio mezu baten eragina handiagoa dela hiru mediotan behin aipatzen bada, medio berean hiru aldiz aipatuta baino. Lehenik irratian zuzenean entzun dugun albisteak, handik gutxira telebistan ikusten badugu eta biharamunean egunkarian irakurtzen, albisteak ontzat emango dugu. Nekezago lortzen da hori, medio bakarrean hiru aldiz emanda” (Irizar, 2001: 34).

Badira euskarazko tokian tokiko hedabideetan, eskualdeko proiektu multimedialak bultzatzeko hainbat arrazoi, Jasone Mendizabal, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko zuzendariaren arabera (2005:143):

1. Hurbileko informazioa bere forma guztietan euskaraz lantzeko aukeraz baliazkoa beharrezkoa da. Hots, hedabideen helburu komuna, hurbileko komunikazioa modu osatuan garatzea izan behar da, euskararentzat esparru berri eta entzutetsua irabaztearekin batera, gizartearen kohesioa eta komunitate zentzua bultzatuz. Helburu hori bete-betean lortzeko, tokiko hedabideek ahalegina egin behar dute beren esparrua guztiz betetzeko, eta esparru horretan lehenak izateko. Hori multimedia izanda bakarrik lortu ahal da: tokiko informazioa lantzeko medio anitz izanda.
2. Hedabide ezberdinetan emandako informazioaren inpaktu komunikatibo biderkatzailea geuk erabakitako irizpideen arabera landu beharra dago. Arestian aipatu bezala, mezu bera euskarri ezberdinetan aipatzeak inpaktu handiagoa lortzen du, euskarri berean lau aldiz aipatuta baino.

3. Hedabide ezberdinen arteko sinergieez baliatuz baliabideak optimizatzeko aukera izango dute. Medio ezberdinetako erredaktoreak, bakoitza bere mediorako jarduteaz gain, talde osorako eduki hornitzaile bihurtzen badira, sekulako aurrezteak eta sinergiak sortzen dira taldearentzat. Herriko aldizkaria eta eskualde telebista, bakoitza bere aldetik badabilta, ekitaldi batera medio bakoitzak erredaktore bana bidali beharko du, kameralaria eta agian argazkilariarekin batera. Talde bereko bi medio izanik, erredaktore bakarrak jasoko du informazioa bi medioetarako eta kameralariak egin lezake argazkilariena ere. Honek berdin balio du bi medio baino gehiago badira ere. Alegia, eduki hornitzaileak eramandako informazioa, gero medio bakoitzeko erredaktoreak egokitu beharko du bere medio horretarako, baina pertsona bakarrak egin du bestelakoetan hiru edo laurekin egingo litzatekeena.
4. Hedabideen batasunaren bidez eskualde osoko enpresa egonkorrak sortu eta beraien arteko elkarlanaren bidez sare indartsua eratu beharra dago. Komunikazioaren esparruan interes ekonomiko eta politiko handiak daude eta lehiakideak gero eta indartsuagoak dira. Lehian irabazteko, edo gutxienez irauteko, indarra behar da. Euskarazko hedabide lokalen kasuan, handien aurrean, txikien indarra batasuna da, elkartasuna eta herritarren atxikimendua.
5. Etorkizuneko multimedia-komunikazioa euskaraz landuko bada, horretarako multimedia enpresak prestatu behar dira. Horretarako, komunikaziorako elementu berriak integratzeko baliabideak gure esku izan beharko ditugu.

### **2.13- EUSKARAZKO HEDABIDEEN SEKTOREA ETORKIZUNARI BEGIRA**

Milurteko berrian, euskarazko prentsan garrantzitsua den beste gertaera bat izan da. Etorkizunaz kezkatuta eta elkarlanaren beharraz ohartuta, euskaraz diharduten hedabide ezberdinak bildu egiten dira eta euskarazko komunikabideak lehenengo aldiz, sektore gisa agertzen dira administrazioaren aurrean. Euskaraz ari diren hedabide ezberdinek bat egiten dute Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak banatzeko politika salatzeke. Azken urteetan, alde bateko erakunde horrek euskarazkoei banatzen dien diru-kopuruaren murrizketa eta besteko, laguntzok

oso berandu banatzen dituela salatu dute aho batez euskarazko hedabide gehienek. Era berean, euskarazko komunikabideak gai horri buruzko hausnarketari ekiteko prest agertu dira.

Diru-laguntzez gain, euskarazko hedabideen sektorean zalantza asko sumatzen dira etorkizunari begira. Elkar ezagutzeko, elkarri buruz gehiago jakiteko, bakoitzaren ezaugarriak eta guztienak mahai gainean jarri eta hitz egiteko... Hausnartzeko beharra gero eta nabarmenagoa da inplikatuaren artean.

Gaur egun euskarazko kazetaritza Euskal Herri osoan presentzia duen errealitatea da: “700 profesional inguru eta 250tik gora hedabide dira horren lekuko. Euskal Herri osoan eta euskaraz ari diren egunkari, atari elektronikoko, astekari, irrati eta telebistak daude. Halaber, herriz herri, eta sektorez sektore, osatzen joan den hedabide txiki berri eta ertainen sare zabala ere ari da lanean: zortzi herri telebista, 30 irrati, 60 herri-aldizkari, 61 aldizkari espezializatu, 60 berripaper, 34 eskoletako argitalpen eta hamarnaka hedabide elektronikoko. Hori guztia 779.788 hiztun dituen komunitate batean” (Askoren artean, 2005: 9).

Euskarazko hedabideen etorkizuna diseinatzeko premia ikusten da eta horren harira, zenbait bilera, mintegi, jardunaldi eta kongresu antolatu dira milurteko berrian.

### **2.13.1- Tokiko Hedabideak Etorkizunari Begira jardunaldiak**

2003ko azaroaren 28 eta 29an Zamudioko Teknologia Parkean, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak, “Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira” izeneko jardunaldiak antolatu zituen, 80ko hamarkadaren bigarren erdialdetik, euskarazko lehenengo herri-aldizkariak sortu zirenetik alegia, gaur egun arte, aldaketa handiak izan dira tokian tokiko prentsaren esparruan, antolaketa modua eta inguruko errealitatea ere aldatu direlako.

Jardunaldion helburua, euskarazko kazetagitza garaikidearen diagnosia egitea, aukerak aztertzea eta etorkizunera begira, tokiko hedabideentzat estrategia egokiak prestatzea izan zen. Horretarako, bi eguneko jardunaldiotan, euskaraz diharduten hedabideen esperientzia zehatzak jasotzeaz gain, Europako beste hizkuntza gutxitu batzuen esperientziak ere aztertu ziren. Tokian tokiko periodiko, telebistak, irratiak, web orrialdeak, atari digitalak eta proiektu multimediei buruzko hainbat txosten eta mahai inguru izan ziren. Tokian tokiko hedabideei eragiten dien legedia, euskarazko hedabideen arteko elkarlan-aukerak, egitasmo berriak, internetek ekarritako aldaketak eta multimedia egitasmoak mahai gainean jarri ziren, besteak beste. Jardunaldietan landu ziren gai ezberdinen artean, tokian tokiko prentsaren alorrean egun dauden estrategia

ezberdinak azaldu ziren eta argi geratu zen, gaiarekin lotura zuzena duten agenteen artean hitz egiteko beharra zegoela.

### **2.13.2- Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua**

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Euskal Idazleen Elkarteak (EIE), Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioak eta *Berria* egunkariak, Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua antolatu zuten 2004ko azaroaren 9tik 12ra bitartean. Euskarazko kazetaritzaren historian inoiz antolatu den eta horrenbeste aditu eta profesional batzerik lortu ez duen asmo handiko ekimena izan zen kongresua. Lehenengo kongresu horrek izan zituen helburuen artean honako hauek azpimarra daitezke:

- Euskarazko kazetaritzaren diagnostikoa egitea, horren ahuleziak eta indar-guneak sektorez sektore zehaztea.
- Euskarazko kazetaritzaren etorkizunari buruzko hausnarketa egitea.
- Aurreko bi helburuetatik ondorioztatuta, euskarazko kazetaritzaren Liburu Zuriaren abiapuntua finkatzeko asmoa, beharrezko plangintza estrategikoa azalduz.
- Eztabaida, maila teorikoan jartzea.

Lau eguneko iraupena izan zuen kongresuan, euskarazko kazetaritzan diharduten 50 profesional eta adituk hartu zuten parte: euren txostenak, iritzi eta ikuspegiak azaltzeko, beren ikerketak azaltzeko, beren kezkek agertzeko eta, etorkizunari begira, planteatzen ziren erronkez beren gogoetak egiteko.

Horrela bada, lehenengo egunean Euskarazko Komunikazioaren Esparruaren inguruan eztabaidatu zen eta berau definitzen saiatu ziren. Kanpoko ereduak kontuan hartu ziren, hala nola Europako ikus-entzunezko hedabide eta hizkuntza gutxituen egunkarien esperientzia eta ikuspegiak aurkeztuz.

Bigarren egunean, “XXI. mendeko kazetaritza” izenburupean, euskaraz jarduten duten komunikabideen etorkizuneko erronkak bertan aritzen diren profesionalen eskutik ezagutzeko aukera izan zen. Telebista, irrati, prentsa eta sareko komunikabideetako buruek euren esperientziak eta erronkak plazaratu zituzten. Euskarazko publizitatearen inguruko gabeziez gogoeta egin zen.

Hirugarren egunak, euskal komunikabideek aurrera egiteko behar izan duten elkarlana aztertzeke bidea zabaldu zuen, “Elkarlanaren beharra: sinergia bila” tituluaren azpiko esanahiari

helduz. Euskarazko Kazetaritza gaur egun errealitate emankorra bada, neurri handi batean bertan ari diren eragileek historikoki elkarlanerako erakutsi dute prestutasunari esker izan da. Administrazioaren eta gizarte ekimenaren ikuspegiak ez eze, elkarlan horren fruituak ezagutzera eman ziren. Sinergiak sustatu eta baliabideen erabilera optimizatzearen beharra parte-hartzaile guztien ahotan egon zen.

Laugarren egunean, “Aurrera begira” izenburuarekin bukatu ziren jardunaldiok. Teknologia berriak, hizkuntza eta kazetari euskaldunen lan-baldintzak aztertu ziren bertan.

Kongresuan aurkeztu ziren txosten guztiak eta handik atera ziren ondorio nagusiak, [www.kazetaritza.org](http://www.kazetaritza.org) web orrialdean dagoen “Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa” lan mardulean bilduta daude. Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresu hartatik, antolatzaile eta editore taldeak 11 ondorio nagusi atera zituen eta labur-labur bada ere, aipatzea merezi dute, ezinbestekoa baitira euskarazko kazetaritzaren iragana, oraina eta etorkizuna ulertzeko. (Askoren Artean, 2005: 447-448):

- 1. Azken hiru hamarkadetan euskarazko kazetaritzan aldaketa handiak izan dira. Dozena bat profesional izatetik, 700dik gora berriemaileren taldea izatera pasa da.*
- 2. Euskarazko kazetaritzaren garapena nabarmena bada ere, agerian dira arlo honetako ahuleziak: Egoera soziolinguistikoa, merkatu txikia, behar baino eskaintza urriagoa, gehiegizko sakabanaketa...*
- 3. Euskara hiztun-kopuru murrizak (ez da 800.000 hiztunetara heltzen) arazo asko eta asko sortu ditu. Hala ere, bermatu beharreko gizarte-erantzukizuna da informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea. Gizarteak eta administrazioek esku-hartze aktiboagoa zor diote euskal komunitateari. Euskarazko kazetaritzaren mundua ezin da merkatuaren legeen menpe utzi, eta horregatik ere, behar beharrezkoa du erakunde publikoen diru-laguntza bidezko, arautu eta garbi bat. Etorkizunari begira ere, orain arte mamitu den elkarlanak berebiziko garrantzia izaten jarraituko du: Hortaz, sinergiak sustatu eta garatu behar dira, eta baliabideen optimizazioa bilatu ere.*
- 4. Euskarazko kazetaritzak aurrera egingo badu, kalitatezko gutxieneko estandar batzuk bermatzen direlako izango da. Imajinario kolektiboaren sortzaile garen heinean, ekoizten eta igortzen ditugun edukietan ere jarri behar dugu ardura. Kalitatezkoa behar du izan,*



- maila guztietan, euskarazko komunikazioak: produktuen eraketan, ekoizpen-prozesuan, banaketa sisteman eta baita erabiltzen den hizkuntza ereduan ere.*
5. *Hainbat kasu eredugarri alde batera utzita, sarritan euskarazko hedabideetan ari diren kazetariak lan baldintza ez duinetan dihardute lanean: Lan jardun amaigabeak, ordain-sari eskasak eta badaezpadako kontratuak. Kazetaritza eredu duin, etiko eta beregaina lortzea helburu izanik, funtsezkoa da egoera horiek errotik ezabatzea.*
  6. *Euskaratik eta euskaraz sortu eta landutako publizitate-sareak sustatu behar dira. Inon funtsezkoa bada administrazioen laguntza, publizitatearen eremuan da, dudarik gabe.*
  7. *Euskararen komunikazio esparruaren hedapena ez da soilik hedabideen egitekoa. Izan ere, informazio-iturriak dira kazetari-lanaren lehengaiak. Informazio-iturri euskaldun barik ezin dira albisteak euskaraz taxuz landu. Euskal Herrian dauden gizarte-eragile gehienek erdaraz pentsatu eta ekoizten dituzte euren jardun publikoak. Horregatik, besteak beste, albiste iturrien euskalduntzea eskatzen du euskararen komunikazio-esparruaren garapenak.*
  8. *Elkar elikatzen duten munduak dira gurean kazetaritza eta literatura. Sistema propio baten aldeko apustua da harreman emankor horretan sakontzea, kohesio soziokulturala helburu duen eredu baten alde ekinez.*
  9. *Azken 30 urteotan espezializazioak ez du etenik izan. Zientzia eta ezagutzaren mundua abiada betean garatu da eta horren ondorioetako bat kazetaritza espezializatua da. Euskarazko kazetaritzak kontuan hartu beharko luke fenomeno hori.*
  10. *Euskarazko kazetaritzak jomuga garrantzitsuak ditu geroari begira. Horren adierazle garbiak dira Internet eta teknologia berriak. Mundu horietara egokitzeko egin dituen ahaleginak garrantzitsuak badira ere, oraindik asko falta zaio beregaintasuna lortzeko bidean euskarazko kazetaritzari. Bide horretan estrategiko deritzogu multimedia egitasmoak garatzeari.*
  11. *Euskarazko komunikazioaren erkidegoak bere burua ezagutu behar du, bere burua egokitu behar du abagune berrietara, bere esku hartu behar du etorkizuna marrazteko ahala. Horretarako, aipaturiko gabeziak zuzendu eta zedarritutako egitasmoak garatzeko, plangintza estrategiko baten beharra dakusagu. Berori egiteko, foro edo erakunde ireki eta iraunkor bat sortzeari ezinbesteko irizten diogu, euskarazko komunikaziogintzan diharduten eragileak eta Euskal Herriko ikastegi, unibertsitate zein*

*administrazioak bertako partaide direla. Foro hori gauza dadin lanean jarraituko dugula berresten dugu editore-taldeko kideok.*

Azken ondorio horrek, bide eman zuen hurrengo atalean aztertuko dugun Mintegia antolatzeke. Izan ere, euskarazko hedabideen sektorean jarraikortasunez eta elkarlanean aritzeko premia nabarmen geratu zen 1. Kongresu hartan. Aurrera begira, bertan hasitako lanak izan du jarraipenik.

### **2.13.3- Euskarazko prentsa, Telebista, Irrati eta Sarearen Mintegia**

Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua izan zenetik bi urte baino gutxiagora, EKT SA, Elhuyar, Erein-Ipurbeltz, Nabarra, Topagunea Euskara Elkarten Federazioa eta Udako Euskal Unibertsitatea-Uztarok, 2006ko martxoaren 25ean Eibarko Markeskoa UEUren Ikastetxe Nagusian “Euskarazko hedabideen topaketa-mintegia” antolatu zuten, euskarazko hedabideen arteko ezagutza areagotzeko, diagnosia egiteko, aurrera begira euskarazko hedabideen artean giro bat sortzeko eta etorkizunari begira, administrazioan eragiteko xedearekin.

Gizarte komunikazioaren esparru ezberdinetan (prentsa, irrati, sarea, telebista...) euskaraz diharduten 50 lagun inguru bildu ziren goiz osoko mintegian. Kazetari, marrazkilari, publizista, banatzaile, kamara, esatari, blogari eta sustatzaile bildu ziren besteak beste, euren kezka eta ekarpenak egiteko asmoz.

Mintegi-topaketa hartan, prentsa, irrati, sare eta telebistako tailerrak sortu ziren eta bakoitzak lau esparru (aukerak, indar-guneak, mehatxuak eta ahuleziak) landu zituen. Tailer bakoitzean bildutako emaitzarik nabarmenak aurkeztu ondoren, ekitaldian behin-behinekotasunez onartu ziren ondorioak esparruka honako hauek izan ziren:

1- Aukeren artean, gizartean gero eta euskaldun gehiago dagoela azpimarratu zen. Produktu berriak sortu eta daudenak gehiago indartzeko modua egon badagoela ikusten da eta horretan, teknologia berriak lagungarri suerta daitezkeela aurreikusi ere.

2- Euskarazko hedabideen indar-guneei dagokionez, sektorean dagoen giza kapital handia azpimarratu zen. Kasu batzuetan, euskarazko hedabideak interneteko produktuetan abangoardian egon direla gogora ekarri zen. Bestalde, euskarazko hedabideetan dihardutenentzat euskara bera, elementu identifikagarria eta bateragarria dela ondorioztatu zen. Azkenik, euskaraz ari diren

komunikabideek, audientzien presiotik kanpoko produktuak egiteko aukera zabala dutela aipatu zen.

3- Mehatxuen atalean, azken urteotan administrazio publikoen diru-laguntzen jaitsiera nabarmena azpimarratzen da. Era berean, egun, gazte belaunaldiak euskarazko produktuetara erakartzeko zailtasunak sumatzen dira. Teknologia berriak lagungarri izan badaitezke ere, maiz euskara urtu egiten da hain handia den eskaintzan. Doaneko prentsa erdaldunaren agerpen indartsuak, batzuetan euskarazkoari kalte egin diola gogoratu zen.

4- Euskarazko hedabideen ahulezien atalari erreparatzen badiogu, oraindik lan asko egiteko dagoela ondoriozta daiteke. Euskarazko komunikabideetan ari den jende gehiena, paperetik dator, prentsa idatzitik alegia eta medio gisa, ez du internet ondo menderatzen. Era berean, euskarazko komunikabideen sektorea oso atomizatua dagoela sumatzen da eta bertan, tamaina txikiko taldeak ari dira lanean. Oro har, euskarazko medioetan ari direnek ez dakite euren produktuak saltzen eta salbuespenak salbu, sektorean ez da antzematen enpresa-egitura sendorik; ondorioz sektoreak ez du eragile ekonomikorik erakartzen.

Era berean, hizkuntzak bizi duen egoera dela eta, euskarazko komunikabideak ez daude banaketa kanal normalizatu batean eta produkzio ahalmen handirik ez dagoela igartzen da. Orokorrean lan baldintza txarrak pairatzen dituzte euskarazko medioetako langileek eta lan prekarietatea begi-bistakoa da. Euskarri bakoitza (prentsa, irratia, telebista eta sarea) nor bere aldetik ibiltzeak ere, ez dio sektoreari mesederik egiten. Azkenik, sektorean nagusi diren medioen mimetismoa praktikatzen dela gogoratu zen eta horrek ez dio inori mesederik egiten. Ondorioak ondorio, aurrerantzean lan-talde bat sortu nahi da gune edo egitura iraunkor bat martxan jartzeko.

#### **2.13.4- Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa**

Etorkizunari begira, Euskal Herriko Unibertsitateak euskarazko hedabideen sektoreko eragile batzuekin batera, Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa sortzea proposatzen du. Euskarazko hedabideen ikerketa eta garapenerako fundazioa izango litzakeena. Ludger Mees EHUko Euskara errektoreordearen esanetan “Iruditzen baitzaigu Unibertsitatean ditugun giza baliabidez eta sortzen ari garen jakintzaz baliatuz, Unibertsitatea eta gizartearen arteko lotura estutzeko unea heldu dela. Euskararen normalizazioa bultzatu nahi badugu, ez dela nahikoa Unibertsitatearen barruan aritzeko uste dugu. Askotan egiten zaigun kritikak dioenez, ez dakigu

egiten dugun lana gizarteratzen, ez dakigu guk landu duguna gizarteari eskaintzen. Kritika honen ildotik eta kazetaritzaren gaiari helduz, esan genezake ez garela nahikoa saiatu euskal kazetaritzaren inguruan Unibertsitatearen barruan ditugun giza baliabideak eta jakintza gizartearen zerbitzuetan jartzen. Gabezi hori gainditu nahi dugu eta horretarako euskarazko komunikazio-esparrua aztergai izango duen Unibertsitateko Ikerketa Institutu bat sortzea proposatzen dugu” (Mees, 2005: 59).

Zentro horrek bete behar dituen eginbeharrak eta xehetasun guztiak zehazteko, Euskal Herriko Unibertsitateko arduradunak, euskarazko hedabideen sektoreko eragileekin bilduko dira. EHUko euskara errektoreordeak, Ikerketa Institutuak bete beharko lituzkeen ezinbesteko bi baldintza aipatzen ditu (Mees, 2005: 59):

- Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen VI. kapituluan jasotako Ikerkuntza Institutuei buruzko arauak errespetatzea (besteak beste, 206. artikulua: “Unibertsitateko ikerketa institutuen finantzabidea eurek sortutako baliabidez bermatu beharko da”).
- Euskarazko kazetaritzaren esparru desberdinetako interesak jasotzea eta horrela gizartearen aniztasuna bermatzea.

Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa oraindik bidean dagoen egitasmoa da

Ekimenak ekimen, egun euskarazko hedabideen sektorea aurrera begira jarri dela ezin da ukatu, dagoeneko hori errealitate bat da. Oraindik orain mesfidantzak dauden arren, sektorea osatzen duten eragile gehienak aurrerantzean elkarlana eta sinergiak sustatu eta garatzeko beharraz ohartu dira; dauden ahuleziaz jabetu eta horiek guztiak hobetzeko asmoz lanean jarduteko prest agertu ere.

#### **2.14- DEBA BARRENEAN ETORKIZUNA LANTZEN**

Ikerlan hau, Deba Barrenean kaleratzen diren sei herri-aldizkarien miaketan oinarrituko da. 2000-2004 bitartean landu dituzten kazetaritza-genero eta gaien azterketa sakona egingo dugu eta hortik abiatuz, aldizkari bakoitzaren egoera erreala zein den islatzen saiatuko gara.

Atal honetan, bailararen ezaugarriak aurreratuko ditugu eta aurrerantzean aztergai izango diren sei errebistak, gaur egungo tokian tokiko prentsaren markoan kokatuko ditugu, orain arte esandako guztia kontuan hartuz.

Deba Barrena bailara honako herri hauek osatzen dute: Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Eibar, Soraluze, Eibar, Ermua eta Mallabiak (azken biak Bizkaikoak dira). Guztira bailara osoan 60.307<sup>59</sup> biztanle bizi dira eta horietatik 49.375<sup>60</sup> euskaldunak edo ia euskaldunak dira. Gaur egun bailara osoan sei euskara elkarte daude: Zuhatza (Deban), Elgoibarko Izarra (Elgoibarren), Pil pilean (Soraluzen), ...eta kitto! (Eibarren), Euskal Birusa (Ermuan) eta Orraitio (Mallabian). Euskara Elkarte guztiek, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko bazkide diren neurrian, bertan izena emandako euskara eta kultur elkarteek dituzten helburu eta eginbehar berberak dituzte. Euren eginkizun nagusia, euskararen erabilera gizarte esparru guztietan sustatzea izaki, hainbat arlotan (aisialdian, merkataritzan, kulturean, eta nola ez, komunikabideetan) euskara bultzatu, indartu eta prestigiatzeko xedearekin dihardute beharrez.

Deba Barreneko sei aldizkariok, herriko eta gertuko informazioa emanez, hurbileko euskarazko informazioan zegoen hutsunea bete nahian sortu ziren. 1988. urtean sortu zen ...*eta kitto!*, eta berau dugu beteteranoena. Ondoren, 90eko hamarkadan ikusi zuten argia bailarako agerkari gehienek: *Barren*, *Pil-pilean*, *Drogetenitturri* eta *Berriketan* aldizkariak hain zuzen ere. Azkena, Mutrikuko *Kalaputxi* izan zen, estreinakoz 2001ean kaleratu zena.

Maiztasun ezberdinak izaki, euskara elkarte ezberdinek bere herri-aldizkaria kaleratzen dute Deba Barrenean. *Kalaputxi* hilabetekaria Mutriku<sup>61</sup>, *Berriketan* hilabetekaria Deban, *Barren* astekaria Mendaron eta Elgoibarren, *Pil-pilean* hamaboskaria Soraluzen, ...*eta kitto!* astekaria Eibarren eta *Drogetenitturri* hilabetekaria Ermua eta Mallabian. Mallabiko Orraitio Euskara Elkarteak 2005ean sortu zen eta momentuz ez du aldizkaririk kaleratzeko asmorik.

Aurretik bileraren batzuk egin baziren ere, 2003. urtetik aurrera Deba Barreneko euskara elkarte guztiak maiztasunez elkartzen hasi ziren, honako arrazoi nagusiak tarteko: alde batetik elkar ezagutzea eta bestetik, elkarte bakoitzak kaleratzen zuten produktuaren etorkizunaren inguruko hausnarketa egitea. Gizartearen komunikazioan gertatzen ari ziren aldaketa orokorrak eta tokian tokiko prentsan lantzen hasi ziren joera berriei erreparatzean oinarritu ziren gogoetak. Hilabetekari zirenek, epe laburrean oso zaila ikusten zuten hamaboskari edo astekari bihurtu ahal izatea. Astekari zirenek, ordea, aurrerantzean maiztasuna areagotzeko zailtasunak sumatzen zituzten. Azken finean, ordura arte egindako bidea agortzear egon zitekeela antzeman zen eta

<sup>59</sup>- Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *2 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde eremuaren eta euskara maila orokorraren arabera*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. Udalerri bakoitzeko datuak batu egin dira.

<sup>60</sup>- Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *2 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde eremuaren eta euskara maila orokorraren arabera*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. Udalerri bakoitzeko euskaldun eta ia euskaldunen kopuruak batu egin dira.

<sup>61</sup>- Mutriku ez dago euskara elkarterik. *Kalaputxi* aldizkaria kaleratzen duen elkarteak, Karenka Komunikazio Elkarteak baita.

bailarako indarrak eta sinergiak batuz, etorkizunari errazago aurre egingo zitzaiola pentsatuz, elkarlanean aritzeko bidea hasi zuten.

#### **2.14.1- Fernando Muniozguren Deba Barreneko sustatzailea**

Deba Barreneko egitasmoaren inguruan ezin dugu aipatu gabe utzi Fernando Muniozguren, eta berak bailaran egindako lana.

Bera izan zen beste gauza batzuen artean, Deba Barreneko telebista eta multimediarren sustatzaile nagusienetakoa. Hasieratik sinestu zuen eskualderako proiektu komunean eta inguruko guztiak kutsatu eta konbentzitu zituen hura posible izan zitekeela eta etorkizuna, multimediarren zegoela. Bailarako euskara elkarte eta herri-aldizkariaren lana gertutik jarraitzen zuen eta aholku eta laguntza eskaintzeko beti prest zegoen. 2000. urtean Ermua eta Mallabiko *Drogetenitturri* aldizkaria kolokan zegoela, *...eta kitto!* astekariko langileen eta Muniozgurenen eskuzabaltasuna eta konfiantza ziztada ezinbesteko izan ziren aurrera ateratzeko.

Euskararen alde egindako lan mardulak bere lanbidearen arlorik nagusiena bete zuen eta beste hainbeste esparru jorratu zituen, batez ere pentsalari eta komunikatzaile moduan.

Eibarko udaleko euskara teknikaria eta Euskara Batzordeko arduraduna izan zen 20 urtez eta Eibarren euskara zabaltzeko eta normalizatzeko zereginean aitzindari. *...eta kitto!* astekariaren sortzailea izateaz gain, izen bereko Euskara Elkartearen sorreran hartu zuen parte.

Badihardugu Deba Bailarako Euskara Elkartearen jaiotzan eta Zarauzko Txaparro Euskara Elkartearen sorreran parte hartu zuen. Topagunea, Euskara Elkarteen Federazioko lehenengo lehendakaria izan zen. Azken urteetan, *Argia* astekarian, *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria* egunkarian, *Herri Irratiko* eta *Euskadi Irratiko* irratsaioetan eta beste hainbat komunikabidetan ohiko kolaboratzailea zen.

Euskararen normalizazioaren inguruan hainbat proposamen berri egin zituen eta baita beste bide batzuk zabaldu ere. Ia urtebete gaixorik egon ostean, 2006ko ekainaren 8an hil zen. 2006ko uztailaren 15ean Eibarko Txaltxa Zelain egindako omenaldian argi geratu zuen bere bizitzan egin zuen lanaren emaitza oparoa. “Maisua”, “intelektuala”, “etorkizuneko bisñua zuena”, “animadorea”, “estratega”, “sortzeko ahalmena zuena”, aitzindaria”, “langile nekaezina”, “bidegile, eragile eta egile”, “aurrerakoia”, “irekia”, “jendearekin lan egiten zekiena”, “teorikoa”, “euskaltzale nekagaitza”, “saltsa askotako perrexila”, “filosofoa”, “gazteak lanean

jartzeko abilezia zuena”, “ekimen handiko gizona”... izan ziren besteak beste Fernando Muniozguren omenez esandakoak.

Azken unera arte lanean jardun zuen Muniozgurenek eta berak idatzita utzi zituen proiektuen artean, Deba Barreneko Telebistaren egitasmoa dago, poliki bada ere, gauzatzen ari dela ematen du.

### **2.14.2- Eskualderako egitasmoa**

2003ko maiatzean, bailarako sei<sup>62</sup> euskara elkarteek bilera egin zuten eta herri-aldizkari ezberdinen bateratze prozesua emateko lehen urratsak adosten hasi ziren. Bailara osoan zabalduko zen astekari komun bat kaleratzeko bideragarritasun plana egiteko erabakia hartu zen bilera hartan. Horrela bada, 2003ko irailean bideragarritasun ekonomikoa prestatzen hasi ziren, kudeatzaile baten laguntzaz.

Eskualdeko astekariaren proiektu berri horrek honako ezaugarriak izango lituzke: bailara osoan banatuko zen tabloide formatuko astekaria, edizio ezberdinez osatutakoa (2-3) eta guztira 20.000 - 21.000 ale kaleratuz. Formatu berrian herrietako izaera eta aldizkari bakoitzaren izena eta goiburua errespetatuko lirateke formatu berrian. Oraingo bideari jarraituz, astekaria doan banatuko litzateke eta herrietako informazioa emanaz, euskararen erabileran eragitea izango litzateke helburua. 2003ko azaroan, aldizkariaren bideragarritasun plana bukatzeaz zela, albiste berri bat heldu zen elkarteetara.

- **Bailarako Telebista**

2003ko maiatzeko hauteskunderen ostean, Mendaroko udalean aldaketa politiko garrantzitsua izan zen eta EAJ-PNV alderdiak agintea galdu zuen. Ordura arte Mendaroko udalak kudeatzen zuen Mendaroko Telebista, Localiarekin zuen lotura apurtzeaz zegoen, udal hauteskunderak irabazi zituen talde politiko berriak (talde independentea) ez zuelako ekonomikoki bideragarria ikusten udalak Mendaroko telebista kudeatzea. Izan ere, Mendaro bezalako udal txiki batentzat gastu ekonomiko handia zekarren tamaina horretako proiektu batek.

Euskara elkarteek albistea entzun orduko, gaia mahai gainean jarri eta Mendaroko udalarekin lehenengo hartu emanak hasi zituzten. Bitartean, arestian aipatu aldizkari komunaren

---

<sup>62</sup>- 2003an Mallabiko Orraitio Euskara Elkarte sortu gabe zegoen, nahiz eta Mallabiko ordezkariak parte hartu zuten hasieran. Orraitio, 2005ean jaio zen.

bideragarritasun plana bukatu zen eta bertan agertzen diren datuek, bailarako astekaria ekonomikoki bideragarria izango litzatekeela adierazten dute.

2003ko abenduan euskara elkarteek Mendaroko udalari euskarazko eskualdeko telebista egiteko proiektua aurkeztu zioten. Egitasmo horretan, ordura arte Mendaro Telebista herrian soilik ikusten zena, eskualde osorako telebista bilakatzeko eman beharreko urratsak jasotzen ziren. Mendaroko udalak oniritzia eman zion hasierako txosten horri eta aurrera begira eman beharreko pausoetan, udalak euskara elkartei laguntzeko borondate politiko osoa azaldu zuen. Bilera horren ostean telebistarako bideragarritasun plana egiteko erabakia hartu zen eta 2004ko otsailaren bukaerarako plana eginda edukitzea onartu zen. 2004ko urtarrilean DEBEGESA-rekin<sup>63</sup>, lehen hartu emanak izan ziren bertan proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. DEBEGESA euskara elkarteekin proiektu osoa garatzeko prest zegoela adierazi zuen.

- **Internet**

Eskualdeko atari digitala martxan jartzeko bideragarritasun plana egiteari ekin zitzaion poliki-poliki, internet izango zelako proiektuaren hirugarren hanka. DEBEGESA-k eskualdean epe ertainean Deba Digitala proiektua garatzea aurreikusten zuen eta euskara elkarten egitasmo multimedia bete-betean sartuko litzateke bertan.

Egitasmoa zehazten joan ahala, oztopoak izan ziren nagusi. Alde batetik, udalen artean mesfidantzak sortu ziren eta Garapen Ekonomikorako Elkarteak udalekin banan-banan biltzeko aholkua eman zien euskara elkartei eta hor hasi ziren benetako tira-birak. Izan ere, Deba Barreneko udal askok ez zuten ekonomikoki bideragarri ikusten eskualde osorako euskarazko telebistaren egitasmoa.

Hala eta guztiz ere, aukera aprobeztatu behar zela eta, aurrera egitea erabaki zuten euskara elkarteek. Administrazioaren aldetik jasoko ziren diru-laguntzek inolako ziurtasunik ematen ez zuten, auto-finantziazio bideak lortzeko plangintza diseinatu zen. Horrekin batera, proiektuaren arduradunak, “erreta” zegoela-eta, utzi egin zuen kudeaketa.

Bitartean, Euskal Herriko hiriburuetan euskarazko telebista kateak sustatzeko Hamaika taldea sortu zen. Bertan, *Berria* argitaratzen duen EKT, Gara-Le Journal eta Deia-Noticias komunikazio taldeak daude, Euskaltel, Baint telebista eta zinema ekoiztetxea, Elkar liburu eta

---

<sup>63</sup>- Deba Barreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea da DEBEGESA. Bertan, Deba Barreneko zortzi herriak eta euretako alkateak biltzen dira maiztasunez.



disco etxearekin batera. Hamaika interesatuta agertu da Deba Barreneko telebistaren egitasmoa bultzatzeko.

*Goiena esperientzia, Eskualdeko talde multimedia baten sorrera* txostenean Mikel Irizarrek jasotzen duen bezala, “bailarako herri komunikabideak herrietan sortu ziren, eta herrirako. Hala ere, elkar hartzeko ordua etorri zaie. Urte gutxi barrurako aurreikusten den panoraman, nekez iraungo dute bakarka. Herri eta hedabide bakoitzaren nortasunari eutsiz, egitasmo bateratua abiatu behar da, herri komunikabideak –gure eskualdean behintzat- euskaraz eta gizalegez jardun daitezen” (Irizar, 2001: 18)

Etorkizunari errazago aurre egiteko Deba Goienan elkartzearen beharra ikusi zuten moduan, Deba Barrenean ere, indarrak batzeko ordua heldu zela konturatu ziren bailarako euskara elkarteak. Horrela bada, Goiena egitasmoa erreferente hartuta, talde multimedia garatzeko lehenengo pausuak eman ziren 2003an.

*Arrasate Press* 80ko hamarkadaren bukaeran eta 90eko hamarkadaren lehen erdialdean herri-aldizkari gintzan eredu bilakatu zen bezala, Goienaren ereduak ez du aurrera egin, ez ditu Euskal Herriko bazterrak kutsatu eta zoritxarrez, ez dira euskarazko talde multimediak barra-barra sortu. Goienako kudeatzaile izan zen Mikel Irizarrek horrela onartzen du, *Larrun* aldizkari 80. zenbakian: “Goienaren kasuan, egitasmo bat bagenuen, Debagoiena bailara antolatzeko, eta juridikoki sekulako ahalegina egin zen egiturari sendotasuna emateko. Administrazioa inplikatu genuen eta egun Goienako bazkide dira, euskara elkarteaz gain, baita bailarako udalak ere. Gainera, saiatu ginen Goiena erakundeei eta Topagunearen bidez sektoreari ere zabaltzen. Baina Topagunea ahul zegoen eta ez zen aparteko dinamikarik sortu; bestalde, administrazioak berehala susmopean jarri zuen proiektua. Urtebete inguruko koarentenan jarri zuen. Diseinatuta geneukan Gipuzkoarako plan berezi bat, zortzi eskualdeko multimedia garatzeko, eta ari ginen Aldundiarekin lantzen, baina koarentena horretan galdu zen hori garatzeko aukera. Egun Goiena sendo dago, baina eredu horrek ez du aurrera egin” (Eizagirre eta Irureta, 2004: 13).

### **2.14.3- 2006ko egoera**

Gaur egun Deba Barrenean ez da talde multimedia sortzerik lortu, bidea larregi luzatu delako eta bidean oztopoak aurkitu direlako. Alde batetik, bailarako udal gehienetan proiektua ez delako bideragarria ikusi edo egitasmoa bera ez dutelako beharrezko ikusi, eta administrazioaren

inplikaziorik gabe, dirua lortzea eta aurrera egitea zaila da. Are zailagoa telebista bezalako hedabide bat sortzea, oso garestia baita. Bestalde, proiektua kudeatzeko arduradun ezberdinak izan dira eta horrek, ez dio egonkortasun eta sendotasunik eman egitasmoari.

Zailtasunak zailtasun prozesua astiro doa, baina geratu gabe. 2006ko bukaeran, bailarako eragileek urte berean sortu den Hamaika taldearekin harremanetan jarraitzen zuten, aurrerantzean hitzarmenak egiteko asmoarekin.

Egun, herri-aldizkariak dira bailarako elkarte guztiek komunean dituzten produktuak eta bateratze prozesua berez, eskualdeko astekaria sortzeko asmoarekin hasi zen; nahiz eta tartean telebista eta internet garatzeko aukera agertu eta horri eman zitzaion lehentasuna 2004. urtean eta hori sustatzea izan da bailarako euskara elkarteek elkarlanean egin duten lana 2006ra bitartean.



### **3- METODOLOGIA**



### 3- METODOLOGIA

Lan honetan finkatu diren helburuak lortzeko eta hipotesiak frogatzeko, ikerketa zientifikoak egiteko erabili ohi diren ikerketa-eredu nagusiak erabili dira: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Izan ere, ikerketa-eredu bakoitzaren bitartez, helburu ezberdinak lortu ditugu. Alde batetik, metodo kuantitatiboa erabiliz, bost urteko epean lan honetan ikertu diren sei aldizkari ezberdinetan argitaratu diren kazetaritza-genero eta gaiak zeintzuk eta nolakoak diren jakin ahal izan dugu. Bestetik, kazetaritza-generoak eta gai horiek erabiltzeko dauden arrazoiak ezagutu eta aldizkariaren eguneroko errealitatera hurbiltzeko, metodo kualitatiboak erabiltzea egokiago iruditu zaigu.

#### 3.1- AZTERKETA KUALITATIBOA

Metodo kualitatibo interpretatzaileen baitan dauden teknika ezberdinen artean, elkarrizketa sakonak egitea iruditu zaigu aproposena. Herri-aldizkarietako igorle-protagonisten iritzia jasotzea giltzarria izan da, agerkariaren eguneroko errealitatea sakonago ezagutzeko eta aldizkariaren ahuleziak eta indar-guneak zeintzuk diren identifikatu ahal izateko. Guztira sakoneko bost elkarrizketa egin dira, honako aldizkariotako koordinatzaile eta zuzendariekin:

- ✓ Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturrri* aldizkarian ez da elkarrizketarik egin, iker lan honen egilea den **Alazne Aiestaran** ari delako 2000-2006 bitartean errebistako koordinatzaile lanean.
- ✓ **Koldo Mitxelena**, Eibarko ...eta kitto! Euskara Elkarteko komunikabide batzordeko koordinatzailea, 2000-2004 bitartean. (2006ko otsailaren 8an egina)
- ✓ **Egoitz Unamuno**, Sorluzeko *Pil-pilean* hamabostekariko erredakzio burua 2000-2004 bitartean. (2006ko otsailaren 15ean jasota)
- ✓ **Asier Orbea**, Elgoibarko *Barren* astekarian 2002ko ekainetik 2004ko ekainera zuzendaria eta 2000-2004 bitartean kazetaria. (2006ko otsailaren 17an grabatua).
- ✓ **Joseba Palenzuela**, Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekariko zuzendaria 2001-2004 bitartean. (2006ko otsailaren 23an jasota).
- ✓ **Lukas Dorronsoro, Ina Oiartzabal, Nagore Dorronsoro eta Xabier Laka**, Debako *Berriketan* hilabetekariko lan-taldeko kideak. (2006ko otsailaren 24an egina).

Elkarrizketa guztiak banakakoak izan dira, Debako *Berriketan* aldizkariko protagonistekin egindakoa izan ezik, bertoko lan-taldean diharduten 4 kideri taldeko elkarrizketa egin baitzitzaien. 70 galderaz osatutako elkarrizketa sakonak izan dira guztiak, eta ordu t'erdiko iraupena izan dute batzuek beste. Galdetegiak bi zati nagusi izan ditu. Alde batetik elkarrizketatu guztientzat komunak izan diren galderak prestatu dira eta bestetik, aldizkari bakoitzaren berezitasunak aztertzeko erabili diren galdetegi espezifikoak prestatu dira. Hona hemen elkarrizketaren ardatzak biltzen dituen galdera sorta:

### **3.1.1- Galdetegiaren erdua**

**-Aldizkariaren kaleratze data.**

**-Aldizkaria kaleratzearen helburua.**

*1-Zein izan da aldizkariaren bilakaera 2000-2004 tartean, zer azpimarratuko zenuke aldizkarian?*

*2-Aldizkaria sortu zeneko helburuaz gain, zeintzuk dira helburuak gaur egun?*

*3-Zer egiten da helburu horiek lortzeko?*

*4-2000-2004 tarte horretan aldizkaria bera finkatuta dagoela uste duzu?*

*5-Egun zenbat publizitate bezero finko dituzue?*

**-Lan-taldeari buruz:**

*6-Zenbatek egiten dute lan aldizkarian?*

*7-Idazten dutenen artean, zenbat dira kazetariak?*

*8-Zenbat kolaboratzaile finko izan dituzue 2000-2004 artean?*

*9-Zeintzuk dira kolaboratzaileekin lan egitearen alde on eta txarrak?*

*10-Nola eta zein irizpideren arabera erabakitzen dira aldizkarian sartuko diren gaiak zeintzuk izango diren?*

*11-Aldizkarian sartuko diren gaiak aukeratzeko orduan, batzuk beste batzuek baino lehentasun gehiago dute?*

*12-Kolaboratzaile finkoek, alegia, langileak ez direnek, landuko diren gaiak erabakitze bileretan parte-hartzen dute?*

*13-Zeri buruz idatzi, agindu egiten zaie ala eurak aukeratutako gaiei buruz aritzen dira?*

**-Sailei eta diseinu aldaketei buruz:**

Atal hau aldizkari bakoitzarentzat espezifikoa izan da. Agerkari bakoitzak 2000-2004 bitartean argitaratu dituen sail eta atal bakoitzaren erreposoa egiten da.

**-Kazetaritza-generoei buruz:**

Aldizkari bakoitzaren ikerketa kuantitatibotik ateratako datuekin prestatu dira kazetaritza-generoei buruzko galderak. (Guztientzat gidoi bera jarraitu da), errebista bakoitzak dituen ezaugarrietara egokituz galderak: **informazioa, iritzia, literatura, komikia** eta **bestelako zerbitzuei** buruzkoak prestatu dira hain zuzen ere eta horien baitan gehien eta gutxien erabiltzen diren azpi-kategorien gainean galdetu zaie protagonistei. Elkarrizketatu guztiei egin zaizkien galderak honako hauek izan dira:

*14- Informazioa da gehien erabiltzen den kazetaritza-generoa. Badago horren azpian hausnarketarik, hori lortzeko helburu zehatzik?*

*15- Iritziari eskaintzen zaion espazioa finkoa al da?*

*16- Zein da aldizkarian iritzi-zutabeak idazten dituzten egileen perfila?*

*17- Kaleko inkestak betidanik kaleratu dituzue?*

*18- Kaleko inkesta finkoa da? Erakargarria delako?*

*19- Zergatik sartzten da zerbitzu-informazioa aldizkarian?*

*20- Hasieratik sartzten duzue informazio mota hau?*

*21- Literatura gutxiago lantzen da. Zer dela eta?*

*22- Komikia ere agertzen da zuen aldizkarian. Zein helbururekin sartzten duzue?*

*23- (Editoriala kaleratzen ez duten aldizkariak) Editorialik ez da inoiz kaleratu? Zergatik?*

*24- (Editoriala argitaratzen duten aldizkariak) Zergatik argitaratzen duzue editoriala?*

**-Gaiet buruz:**

Kazetaritza-generoen atalean bezala, gidoi bera jarraitu da gaiet buruzko galderak prestatzeko; dena den, aldizkari bakoitzaren ikerketa kuantitatibotik lortutako emaitzekin, **politika, ekonomia, gizarte-gaiak, kultura** eta **kirolari** buruzko galdera espezifikoak prestatu dira. Honatx, gaiet buruz elkarrizketatu guztiei egindako galdera-sorta komuna:

*25- Gaiet gaurkotasunak, zenbateko garrantzia dauka aldizkarian?*

*26- Gaiet agerpena, egunerokotasunak berak markatzen du?*

*27- Nola heltzen zaio gaurkotasunari?*

*28- Gertatu direnek ala gertatuko direnek dute pisu gehiago aldizkarian?*

*29- Oro har, gairen bat gehiago edo gutxiago agertzearen arrazoiak, lan-taldekoen zaletasun, gustu edo fobiekin badu zerikusirik?*

*30- Gaiet aukeraketa egiterako orduan, herriari buruz beste hedabide batzuek esandakoa kontuan hartzen duzue?*



- 31-Politika zergatik ez da gehiago jorratzen, beste hedabideetan lantzen delako eta zuek beste zer edo zer eskaini nahi duzuelako?*
- 32-Uste duzue horrek jendearengan aurreiritziak sor ditzakeela zuen ildo editorialarekiko?*
- 33-Zuen ildo editoriala dela eta, alderdi guztietatik jasotzen dituzue kritikak?*
- 34-Nolako harremana duzue udalarekin?*
- 35-Zer nolako harremana duzue herrian dauden alderdi politiko ezberdinekin?*
- 36-Joaten zaizkizue euren ekitaldien berri ematera?*
- 37-Herriko talde guztiei egiten diezue lekua?*
- 38-Eurak etortzen dira edo zuek joaten zarete?*
- 39-Zuekiko gertutasuna duen jendea eta taldeak aldizkarian askotan ez sartzea begiratzen duzue?*
- 40-Gizarte arazoen gaia unean uneko garrantziaren arabera lantzen da?*
- 41-Udalak, herrian martxan dauden proiektu urbanistikoei buruzko informazioa ematen dizue?*
- 42-Euskararen gaiarekin, diskriminazio positiboa egiten duzuela esan daiteke?*
- 43-Kultur eragile gisa eragiten duzuela uste duzue aldizkariaren bitartez?*
- 44-Kultur eragile moduan eragitea nahiko zenukete?*

Elkarrizketa horietan lortutako informazio kualitatibo aberatsa, oso lagungarria suertatu da datu enpiriko eta kuantitatiboen interpretazio erreala egiteko. Izan ere, elkarrizketatuek aldizkarietako egunerokotasuna hurbiletik ezagutzen dute eta haiek emandako erantzunak eta beraiekin egindako hausnarketa ezinbestekoak izan dira, azterketa kuantitatibotik lortu ditugun emaitzak modu egoki eta fidagarrian interpretatu ahal izateko.

### **3.2- AZTERKETA KUANTITATIBOA**

Metodo kuantitatiboen artean, eduki-analisia erabiltzea hobetsi dugu: “eduki-analisia, metodologia kuantitatiboaren metodo modura ulertuta, komunikazioak aztertzeko teknika-sorta bat da; beraz, edozein komunikazio-eduki azter daiteke” (Zabaleta: 1997:180). Komunikabideen mezuak azterzea da beraren zeregin nagusia eta ezaugarri zehatzak ditu, errespetatu behar direnak. “Eduki-analisiak objektibo, sistematiko eta kuantitatiboa izan behar du” (Zabaleta: 1997: 187). Eduki analisiaren bitartez, sei herri-aldizkariotan agertzen diren edukiak aztertu dira. Alegia, bost urteko epean Deba Barreneko herri ezberdinetako agerkarietan kaleratutako gaiak eta

kazetaritza-generoak zeintzuk eta nolakoak izan diren. Era berean, bost urteko epean kazetaritza-genero eta gaiak agerkari ezberdinetan izan duten bilakaera ezagutu nahi izan da.

### **3.2 1- Ikerlanaren unibertsoa**

Ikerlanaren unibertsoa, 2000. urtetik 2004. urtera bitartean (biak barne) Deba Barrena bailaran informazio orokorra euskaraz argitaratzen duten sei herri-aldizkariak izan dira.

Argitalpenetan agertzen diren sail guztietako edukiak aztertu dira ikerlan honetan: informazio-testuak, iritzi-testuak, eta testuen lagungarri diren irudi, grafiko eta argazkiak ere kontuan hartuz. Hauek guztiak, laguntzen dioten testuaren baitan konputatu dira, hau da, albistea eta albistearen testua ilustratzen duen argazkia, item bakar gisa zenbatu dira, ez baita inolako bereizketarik egin analisi unitateen tamainaren arabera. Alegia, analisi unitate guztiak tamaina bera izango balute bezala aztertu dira. Unibertso osoaren tamaina 28.709 itemetakoa da gutxi gora behera. Guk ikerketa honetan aukeratutako laginaren arabera, orotara, 12.226 item kodifikatu ditugu, hots, unibertso osoaren %42,5a aztertu da tesi honetan.

Aldizkarietako publizitatea ez da ikertu gure lan honetan, nahiz eta datu batzuk jaso diren, oro har aldizkari bakoitzak duen publizitate bolumena nolako den jakiteko. Publizitatearen azterketa sakona, ordea, ez da ikerlan honen helburua, beraz, publizitate-erreportaje moduan argitaratu diren elkarrizketa eta bestelakoak ez dira azterketa kuantitatiboan neurtu .

Unibertsoaren denbora-muga aukeratzeko arrazoi nagusiak honako hauek izan dira: alde batetik, 2000. urtea, Euskal Herriko herri-aldizkarien esparruan aldaketa urtea delako. Tokian tokiko aldizkariak sortu zirenetik 2000. urtera bitartean, aurretik egon ez diren aldaketak sumatzen direlako: tokian tokiko agerkarietako tiradak handitu egiten dira, maiztasunak ere gora egiten du zenbait aldizkaritan, egunkari formatua agertzen da eta talde multimediak sortzen dira hurbileko prentsaren esparruan. Bestetik, 2000. urteko tokian tokiko prentsaren egoera orokorrak, Deba Barreneko bailaran izan zuelako eraginik; talde multimedia sortzeko lehenengo pausuak 2003an eman ziren, guk aukeratu epearen baitan hain zuzen ere. Azkenik, azterketa-epari muga jartzeko 2004. urtea aukeratu da, 5 urteko epea egokia iruditu zaigulako aldizkarietan argitaratu diren gai eta kazetaritza-generoak sakonean ezagutzeko eta era

berean, denbora-tarte horretan izan diren aldaketak antzemateko aukera eskaini digulako aukeratu epe-mugak.

### **3.2.2- Laginaren aukeraketa**

Tesi honetan lagina aukeratzekoan, Deba Barreneko euskarazko sei herri-aldizkariak hartu dira kontuan. Probabilitatezko laginketa erabili da. “Probabilitatezko laginketan ikerleak franko ongi eta kuantitatiboki ezagut dezake, zernola eta zenbateraino ordezkutzen duen laginak unibertsoa” (Zabaleta, 1997: 154). Lan honetan, Deba Barrena bailaran 2000-2004 bitartean euskarazko herri-prentsaren ordezkari diren aldizkari guztiak aztertu dira. Izan ere, “Ikerkuntza zientifikoan, maiz, alde zehatz zehazki definitutako unibertsoetik, prozedura zehatz baten bidez, unibertsoaren ordezkagarria den lagina hautatzen da. *Ordezkarria* hitza oso garrantzitsua da hemen, zeren eta laginaren balioa horretan baitatza, unibertsoaren ordezkari lana egitean” (Zabaleta, 1997: 154). Hona hemen ikerlan honetan aztertu diren Deba Barreneko euskarazko herri-aldizkarien zerrenda:

- *Drogetenitturri* hilabetekaria: Ermua eta Mallabian.
- *...eta kitto!* astekaria: Eibarren.
- *Pil-pilean* hamabostekaria: Soraluzen.
- *Barren* astekaria: Elgoibarren.
- *Berriketan* hilabetekaria: Deban.
- *Kalaputxi* hilabetekaria: Mutrikun.

Sei aldizkariok orotara 566 zenbaki kaleratu dituzte 2000-2004 bitartean, urteko produkzioa honako hau izanik:

- *...eta kitto!*-k 205 zenbaki bost urtetan (41 ale urteko). Abuztuan ez dute alerik kaleratzen.
- *Barrenek* 210 zenbaki bost urtetan (42 ale urteko). Abuztuan ez dute alerik kaleratzen.
- *Drogetenitturrik* 55 ale bost urtetan (11 ale urteko). Abuztuan ez dute aldizkaririk argitaratzen.
- *Berriketanek* 60 zenbaki bost urtetan (12 ale urteko). Abuztuan aldizkaria kaleratzen dute.
- *Kalaputxik* 36 zenbaki hiru urtetan (11 ale urteko). Abuztuan ez dute aldizkaririk argitaratzen.

- *Pil-pilean*ek 85 zenbaki bost urtetan (Hilabetekaria zenean 11 ale urteko eta hamabostekari bihurtzen denean, 21 ale urteko). Ez dute abuztuan aldizkaririk kaleratzen.

Jakina denez “normalean, ezinezkoa izaten da unibertso osoko unitateak banan-banan ikertzea, eta horregatik erabiltzen dira laginak” (Zabaleta, 1997:153).

Aldizkarion maiztasunari dagokionez, aldizkari bakoitzak maiztasun ezberdina du eta gure azterketa-epean aldaketak izan badira ere, lagina aukeratzeko orduan, errebista guztiak hartu dira kontuan: ...*eta kitto!* eta *Barren* astekariak dira. *Berriketan*, *Kalaputxi* eta *Drogeteniturrri* hilabeteen behin kaleratzen dira eta *Pil-pilean*, gure azterketa-epean hilabetekaria eta hamabostekaria izan da (2001eko abendura arte hilabetekari da, 2002ko urtarriletik aurrera hamabostekari). *Kalaputxi* hilabetekariko 0. zenbakia 2001eko urrian kaleratzen da.

Maiztasunak maiztasun, urte bakoitzeko 12 hilabeteko ale bat aukeratzea iruditu zaigu egokiena. Zaila izan da ordea, guztientzat komuna den data edo aleen lagina aukeratzea; beraz, ahalik eta zenbaki gehien eta emaitza fidagarrienak lortzeko asmoz, honako hautaketa sistema erabiltzea erabaki dugu:

- a) Hilabetekarien kasuan, bost urte horietan kaleratu diren ale guztiak ikertu dira, hots, *Drogeteniturrri*ren 55 ale<sup>64</sup>, *Berriketan*en 57 ale<sup>65</sup>, *Kalaputxi*ren 32 aleak<sup>66</sup>. 2000-2001 bitartean, *Pil-pilean* hilabetekaria den garaiko 22 ale<sup>67</sup>.
- b) 2002ko urtarriletik aurrera Soralezeko *Pil-pilean* aldizkaria hamabostekari bihurtzen da eta Deba Barrenean hamabostean behin kaleratzen den aldizkari bakarra bilakatzen da, hilero 2 ale kaleratuz. Beraz, hilabete bateko lehenengo zenbakia eta hurrengo hilabeteko bigarren zenbakia hartu dugu, *Pil-pilean* hamabostekariko lagina osatzeko: Adibidez, 2001eko urtarrileko lehenengo hamabostaldiko zenbakia, 2001eko otsaileko bigarren hamabostaldiko alea, 2001eko martxoko lehenengo hamabostaldiko zenbakia, 2001eko apirileko bigarren hamabostaldiko alea... Horrela, hilero ale bat aukeratuz. Sistema horrek, urte batean hileko lehenengo alea hartu bada,

<sup>64</sup>- 2000-2004 bitartean kaleratu diren *Drogeteniturrri* guztiak. 65. zenbakitik 119. zenbakira arte.

<sup>65</sup>- 2000-2004 bitartean kaleratu diren *Berriketan* guztiak. 18. zenbakitik 76. zenbakira arte. Gurekin zerikusirik izan ez duten arrazoiengatik, ezin izan dira 2001eko maiatzeko 33. alea eta 2001eko abuztuko 36. alea lortu. 2001ean ez zen otsailean aldizkaririk kaleratu.

<sup>66</sup>- Ale guztiak 2002an kaleratzen hasi zenetik. Horregatik, ale kopurua gainerako aldizkarietan baino txikiagoa da. Gurekin zerikusirik izan ez duten arrazoiak medio, ezinezkoa izan da *Kalaputxi* aldizkariaren 0, 1, 2 eta 4. zenbakia lortzea. Ondorioz, *Kalaputxi* aldizkariko 32 ale aztertu dira ikerlan honetan.

<sup>67</sup>- 2000-2001 bitarteko *Pil-pilean* ale guztiak. 20. zenbakitik 41. zenbakira arte.

hurrengo urtean hilabete bereko bigarren alea hartzeko aukera ahalbidetzen du eta alderantziz. Beraz, *Pil-pilean* hamaboskaria denetik, 32 zenbaki ikertu dira, aipatu aukeraketa eginez.

d) ...*eta kitto!* eta *Barren* aldizkariak astekariak izanik, hilabete bakoitzean zenbaki bat aztertzea iruditu zaigu egokiena, hile bakoitzeko aste ezberdinetako zenbakiak aukeratuz. Hau da, urtarrilean kaleratu den lehenengo asteko aldizkaria, otsailean argitaratu den bigarren asteko aldizkaria, martxoan kaleratu den hirugarren asteko aldizkaria, apirilean argitaratu den laugarren asteko aldizkaria, maiatzean berriz ere, argitaratu den lehenengo asteko zenbakia... Horrela, ikerketarako epea osatu arte. Guztira, ...*eta kitto!*-ren 60 ale eta *Barrenen* beste horrenbeste ale aukeratu dira.

Orotara, 566 aldizkari kaleratu dira 2000-2004 bitartean Deba Barreneko herri ezberdinetan eta ikerketa hau egiteko aukeratu den lagina, **318**<sup>68</sup> aldizkarik osatzen dute, ikerketaren epean kaleratutako aldizkari guztien %56,79a izanik. Handia dirudi kopuruak, baina salbuespenez betetako unibertsoa izanik, nahiago izan dugu horrela egitea.

### **3.3- HIPOTESIAK ETA LAN-GALDERAK**

Ikerlan honetan finkatu ditugun helburuak aintzat hartuta, hiru zutabe nagusitan antolatu diren honako hipotesi eta lan-galderak izan dira abiaburu:

#### **3.3.1- Deba Barreneko komunikazio sistemaren ezaugarriak**

- a) Zeintzuk dira Deba Barreneko aldizkarietan lantzen diren gai nagusiak?
- b) Kazetaritza-genero eta gaien dagokionez, nolako aldizkariak dira, euskarazko Deba Barreneko komunikazio sistema idatzia bermatzen duten aldizkariak?
- c) Zeintzuk zailtasun dituzte Deba Barreneko aldizkariak kazetaritza-genero eta gaiak lantzerako orduan?
- d) Ba al dute harremanik lan-baldintzek, genero eta gaien erabilpenarekin? Hots, zein da aldizkarian lanean diharduten langileen eta aldizkarian kaleratzen diren kazetaritza-genero eta gaien arteko erlazioa?

<sup>68</sup>- Ikus lan honetako I. eranskinean zeintzuk aldizkarik osatzen duten lagina. (759-769 or.).

- e) Aldizkari bakoitzean dagoen lan-taldearen antolaketak eta lan egiteko moduak, nola eragiten dio kazetaritza-genero eta gaien erabilerari?
- f) Ba al dago harremanik aldizkarien maiztasun eta agerkarietako gainiztasunaren artean?
- g) Euskaraz idatzita egoteak bermatzen al du kazetaritza-genero eta gaien egokitasuna Deba Barreneko aldizkari guztietan?

### **3.3.2- Epe laburreko erronka berriak**

- h) Aldizkarien egitura profesionala eta kalitatearen arteko harremana froga daiteke Deba Barreneko aldizkarietan?
- i) Deba Barreneko komunikazio sistema idatzia kalitatezkoa izango bada, beharrezkoak ditu kazetari profesionalak idazgeletan?
- j) Zeintzuk dira Deba Barreneko tokian tokiko aldizkarien ahuleziak eta indar-guneak epe laburrera begira?

### **3.3.3- Etorkizunaren diseinua**

- k) Deba Barreneko aldizkari ezberdinen berrantolaketa beharrezkoa al da etorkizunari aurre egiteko?
- l) Deba Barreneko aldizkarien bateratzeak eraginkortasun eta kalitate handiagoak ekarriko lituzke prentsa idatziaren esparrura?
- m) Eskualdeko egitasmo multimedia sortzeak, zer abantaila eta desabantaila ekarriko lizkioke aldizkari ezberdinei eta irakurleei?

Hipotesi eta lan-galdera horiek frogatzea eta baieztatzea izango da tesi honen nondik norakoen ildo nagusietakoa.

## **3.4- KATEGORIA SISTEMA**

Ikerlan hau egiterako orduan, bertan aztertzen diren sei herri-aldizkariarentzat baliagarria den kategoria sistema sortzen saiatu gara, guztietan agertzen diren kazetaritza-generoak modu egoki eta zehatzean sailkatu ahal izateko eta emaitza fidagarrienak lortzeko. Kategoria sistema propioa garatu da, tokian tokiko hedabideen sektorea aztertzeko aurrez egindako lanak kontuan hartuta. Batez ere, hiru iturri erabili dira definizio propioak garatzeko unean:

1- Idoia Camachoren “*Herri-aldizkariaren funtzioa euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999*” doktore-tesia hartu da kontuan.

2- Herri-aldizkarien inguruan aurretik eginda dauden eduki azterketetan oinarritu gara: “*Sei herri-aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat*”, Jotxo Larrañaga, Miren Gabantxo eta Asier Arangurenegandako ikerketan esaterako.

3- Tokian tokiko prentsa aztertzen ez bada ere, María Pilar Diezhandino eta César Cocaren “*La nueva información*” lana kontuan hartu da kategoria sistema osatzerako orduan. Kazetaritza-generoak sailkatzeko eta definitzeko erabilitako bibliografia guztia zuzeneko iturrietan kontsultatu eta egiaztatu ondoren, lan honetarako egokitu eta osatuz honako kategoria sistema sortu da:

### **A- KAZETARITZA-GENEROAK**

Kazetariak generoak erabiltzen dituzte euren kontakizunak idazteko. Generoek kazetarien lana errazteaz gain, irakurleari lagundu egiten diote irakurtzen eta ulertzen. “Kazetarien lana errazteko balio dute lehenbizi generoek. Baina gehixeago aztertuz gero, berehala konturatuko gara nola irakurlearen laguntzaz ere eginak diren: nolabait irakurlearen lana, dekodeketa errazten dute generoek” (Díaz Noci, 2000:103). Hala ere, denborarekin aldatuz joan dira gizarteari erantzuteko asmoz. Izan ere, generoek funtzio desberdinak betetzen dituzte gizartearen behar ezberdinei erantzuna emateko “gizartearen eskakizunak aldatzen diren heinean, kazetaritzako generoen ezaugarriak aldatu dira, eta orain ere aldatzen ari dira. Generoak gizarteak eskatzen dituen informazio-nahiak hobeto asetzeko sortuak dira: gauzei buruz informatzeko modu egokienak direlakoan, kazetariak kontraera batzuk eratu dituzte”. (Díaz Noci, 2000:103).

Etengabeko aldaketa hori dela eta, gaur egun komunikabideek hedatzen dituzten testu askotan ez dago argi generoen arteko muga eta batzuetan zaila gertatzen da sailkapena. Lan honetan, kazetaritza-generoak definitzeko erabili den bibliografia guztiak, eguneroko informazio orokorreko egunkarietan du oinarria, egunkarietan agertzen diren generoak izanik. Tesi honetan Deba Barreneko sei herri-aldizkari aztertu dira eta maiz, generoen arteko muga ez dago egunkarietan bezain argi definitua. Aldizkarietan erabiltzen diren kazetaritza-generoek egunkarietan erabiltzen direnen funtzio bera badute ere, generoak askatasun handiagoarekin erabiltzen dira, generoen hibridazioa ohikoa izanik. Hortaz, ez dute beti egunkarietan duten itxura eta egitura izaten.

Kontuak kontu, hona hemen Deba Barreneko tokian tokiko aldizkarietan kaleratzen diren kazetaritza-generoak sailkatzeko sistema:

**1. INFORMAZIOA:** Informazioa, datuen interpretazioaren ostean, informazio-hartzailearengana heltzen den emaitza da. Zabalago esanda, “testuen, irudien edo soinuen bitartez horien jasotzaile edo hartzaile denari ezagutarazten zaion oro da informazioa. Datuak interpretatzearen eta prozesatzearen ondorioz lortzen den emaitza dugu informazioa” (Basterretxea, 1997: 28). Informazioaren definizio hau kontuan hartuta, multzo honetan gertakariak jakinarazteko erabiltzen diren generoak sartzen dira, bai duela gutxi gertatutakoaren informazioa eskaintzen duena (albistea), baita gertakizunak ulertzeko elementu gehiago eskaintzen duten balorazio-generoak ere: erreportajea, elkarrizketa eta kronika (Camacho, 2001: 35). Definizioa ontzat hartuta, Camachok egindako sailkapena mantentzea iruditu zaigu egokiena. Izan ere, bibliografia osatzeko erabili diren liburuek ere, sailkapen bera edo oso antzekoa erabiltzen dute.

**Albistea:** Gehien erabiltzen den informazio-generoa da berau. “Albistea lehen informazio-generoa dugu, garrantzitsuena, erabiliena eta funtsezkoena. Informazio-estiloaren paradigma dela esan dezakegu, eta informazio-genero guztien oinarri” (Díaz Noci, 2000: 121). Notziaren oinarritzko elementuek osatua da, Martín Vivaldiren arabera “idazkuntzaren ikuspuntutik, berau kazetaritza-genero nagusia izanda, gaurkotasunarekin zerikusia duen eta ezagutzera ematea merezi duen gertakizun bati buruz informatzen duena, laburki baina osoki”<sup>69</sup>. Kontuan izan behar da, gertakizun hori ezagutaraztea merezi duen ala ez, kazetariak edo komunikabideak erabakiko dutela hartzaileari igorri aurretik. Hots, “egitate batzuk albiste bilakatzea eta beste batzuk, ostera, ahaztea edota informazio-kategoriarik ez irabaztea, komunikazioaren profesionalek erabakitako gauza da eta ez egitatei berei dagokien ezaugarria” (Basterretxea, 1997: 33). Gertaerak albiste-kategoria irabazteko prozesu horren atzean, komunikazio profesionalen botere-egintza dago eta egitateek albiste-kategoria lortzen dutenean, hedabide bakoitzak bere erara kontatzen du bere begien aurrean gertatu denetik interesgarrien iruditu zaiona” (Basterretxea, 1997: 37).

Gure azterketa honetan, albiste gisa hartu ditugu 600 karaktere baino gehiago dituzten informazioak.

<sup>69</sup>- “Desde el punto de vista de la redacción, género periodístico por excelencia que da cuenta, de un modo sucinto pero completo, de un hecho actual o actualizado, digno de ser conocido y divulgado, y de innegable repercusión humana”(Martín Vivaldi, 1981:143).



**1.1.1. Albiste laburra:** Espazio txikia betetzen duen albistea. Gurean, aztertu behar ditugun aldizkarietan honako sail hauetan agertzen diren albisteak izango dira: *Drogetenitturrin*: “Motzean”, “Laburrean”. ...*eta kitto!*-n: “Bi hitzetan”, “Hautuan” eta “Firin Faranen laburrak”. *Pil-Pileanen* “Berri motzak”.

Gainontzeko ataletan, 600 karaktere baino gutxiago dituzten albisteak hartuko ditugu albiste labur moduan. Hemen argitu beharra dago, 600 karaktere baino gutxiago baditu eta titularra bi ilaratan badauka, argazkia eta albisteak guztira orrialde osoaren laurdena hartzen badu, albistea izango da, ez albiste laburra. Bestalde, urtekarietan agertzen diren aipamen txikiak, bi edo hiru lerro hartzen dituztenak albiste labur gisa hartuko ditugu, urtean zehar gertatu diren berrien laburpena baitira. Era berean, *Barren* aldizkarian eskutitzen atalean agertzen diren galderak, albiste labur bezala sailkatu dira; herritarren zalantza batetik abiatuz, aldizkariak zalantza hori argitu dezakeenarengana jotzen du eta erantzuna eskainiz, albiste labur bihurtzen du. Aldizkarian agertzen diren oharrek, irakurleei emandako informazio dira. Kasu gehienetan, oharrek izaten baitira zerbait jakinarazteko edo aurreko alean izandako okerrak zuzentzeko. *Barren*, ...*eta kitto!* eta *Pil-pilean* aldizkariak abenduan argitaratzen dituzten urtekarietako aipu txikiak, albiste labur moduan sailkatu dira. Urtekari horietan, urtean gertatu diren gauzarik garrantzitsuenak modu laburrean gogorarazten dira.

**1.1.2. Argazki-albistea:** Genero honetan, argazkiak albistearen zehaztasunak islatzen ditu, ahalik eta erantzun garrantzitsuenak emanez. Mariano Cebrianek honela definitzen du argazki-albistea: “Argazki-albistea, ahalik eta erantzun gehien, edo gutxienez garrantzitsuak biltzen saiatzen da”<sup>70</sup> “Argazkiak, berez, balio informatiboa du eta ia ez du testurik behar, izenburua edota hitz batzuk ez badira. Argazki-albiste guztiek ez dute zertan testua eraman behar” (Camacho, 2001: 36). Lan honetan aztertutako errebista batzuetan agertzen diren “Argazki

<sup>70</sup>- “La fotografía de noticia trata de congregar el mayor número posible de respuestas o al menos las más esenciales” (Cebrián, 1992:271).

zaharrak” sailak aipatu ezaugarriak betetzen dituztenez, argazki-albiste gisa sailkatuko dira. Era berean, ...*eta kitto!*-ko “Gazte kitto” sailean agertzen diren “gure argazkiak” atalean argitaratutako argazkiek funtzio bera dutela uste dugu. Izan ere, jendea gazteagoa zen garaiko argazkiak agertzen dira eta argazkiak berak ematen du informazioa, beraz, argazki-albiste gisa kontsideratu ditugu. Sail horretan hiru argazki agertzen dira eta guztiak item bakarrean multzokatuko ditugu. Azkenik *Barren*, ...*eta kitto!* eta *Pil-pilean* aldizkarietako urtekarietan argitaratzen diren argazkiak (argazki-oin edo testu oso laburrekin) argazki-albiste gisa hartu dira.

### **Interpretazio-generoak:**

**1.2. Erreportajea:** “Kontakizun periodistiko bat, batez ere informatzailea, gaiari dagokionez librea dena, gehienetan estilo zuzenean idatzia, giza interesa duen gai batez aritzen dena, edota gaurkotasuna duen gertakizun batez” (Díaz Noci, 2000: 152-153). Erreportajearen kontraera albiste baina literarioagoa eta libreagoa da eta aldi berean, egituraren aldetik konplexuagoa. Martínez Albertosen arabera, kazetaritza-kontakizuna -deskriptibo edo narratiboa-, albiste baina luzeagoa izanik, literario samarra izan daiteke eta kazetariaren nortasunaren arabera idatzia. Gaurkotasuna duten gertakizunak azaltzen saiatzen da, nahiz eta gertakari horiek berez notizia ez izan. Sarri askotan erreportajeak ez du gaurkotasunik, giza interesekoa izan dadin ez baita ezinbestean gaurkotasunarekin lotuta egon behar, gehienetan hala bada ere (Martínez Albertos, 1983: 314). Martín Vilvaldik honako ezaugarri hauek eranstean dizkio erreportajeari: alde batetik, ideiak argiak izan behar dira eta esposizioak gardenak. Bestetik, erreportajeak, sakona den heinean, originaltasuna behar du. Egitateak interpretatuz, galderak planteatu eta erantzuten saiatu behar da. Albiste baina luzeagoa izango da, interpretazioetarako esparru luzeagoa behar duelako. Azkenik, erreportajea anitza da, iturriak ugariak diren neurrian, erreportajeak pluraltasun hori islatu behar du.

**1.2.1. Erreportaje laburra:** Duela gutxi gertatutakoa kontaktzen du. Hori dela eta, albiste soiletik oso hurbil dago, baina hizkuntza eta egitura aldetik

aberatsa eta libreagoa da. Carl Warrenek dioen bezala, interes jarraia duten gertakizunak kontatzeko kontaerak izanik, informazio-generoarekin antzekotasun handia dute. Albistean baino hizkuntza baliabide gehiago eta aberatsagoak agertzen dituzte. (Martínez Albertos, 1983: 322).

**1.2.2. Aipu-erreportajea:** Erreportaje mota honetan elkarriketatuaren hitzak eta kazetariak egindako deskribapen edo kontakizunak txandakatzen dira<sup>71</sup>. “Erreportaje mota hau ez dugu elkarriketarekin nahastu behar. Egia da biak pertsonen deklarazioetan oinarritzen direla, horixe baita hain zuzen ere iturri nagusia, baina elkarriketan pertsonak garrantzi handiena du; erreportajea, aldiz, gertakizunak. Beraz, pertsona baten edo batzuen hitzen bidez gertakizuna argitzen saiatuko gara”. (Díaz Noci, 2000: 166).

**1.2.3. Gaurkotasun-erreportajea:** “Albistearekin zerikusirik handiena duena da eta modu azkar batez, albiste handi bat bezala defini genezake. Gaurkotasunak, beste erreportaje batzuetan ez bezala, erreportaje-mota honen izaera baldintzatzen du. Lehenik eta behin, denbora aldetik mugatuta gaude: albistea bezain azkar eskaini behar dugu erreportaje hau. Bigarrenik, albistean bezala, informazioa da nagusi, interpretazioa (albistean ez bezala, gehienetan) sartzen bada ere”. (Díaz Noci, 2000:168-169).

**1.2.4. Erreportaje handia:** Erreportajeen artean nagusiena da. “Erreportaje interpretatzailea edo erreportaje sakona ere deitzen zaio” (Díaz Noci, 2000: 169). Martín Vivaldiren arabera, egituraren aldetik, kazetariaren nortasunaren arabera idatzitako testu libreagoa da. Erreportaje mota honetan kazetariak askatasun estilistiko eta formal gehiago du eta kontakizunean bere interpretazioa islatzen da, gertakizunaren aurrekariak eta analisisa eskainiz (Martín Vivaldi, 1981: 67).

**1.2.5. Argazki-erreportajea:** Argazkiz osatutako erreportajea da hau. Mariano Cebrianen definizioari jarraiki: argazki-erreportajeak informazioa era narratiboan azaltzen du, gertaera segidako ekintzetan kontaktzen baitu.

<sup>71</sup>- “Un reportaje en el que se alternan las palabras textuales del personaje interrogado con descripciones o narraciones que corren a cargo del periodista” (Martínez Albertos, 1983:321).

Hori dela eta, argazki-erreportajearen ezaugarri nagusia sekuentzialtasuna da. Argazkiak bata bestearen segidan ipintze soilean baino, haien arteko harremana sortzean datza<sup>72</sup>.

**1.2.6. Ikerkuntza-erreportajea:** Irakurleari, audientziari, ahalik eta ekoizpen osoenak eskaintzeko joera honetan, gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari den formatua. Erreportaje handiaren aldaera bat da (erreportaje sakona, *indepth reporting*) (Díaz Noci, 2000; 172).

Txostenak eta txostenetatik ateratako datuak eta emaitzak ere, epigrafe honetan sartuko ditugu, datuak ikerketa edota dokumentazio lan baten ondorio direlako. Esate baterako, *Drogetenitturri* aldizkariko 100. alean, aldizkariaren inguruko hainbat eta hainbat datu eta zerrenda ematen dira.

**1.3. Elkarrizketa:** Kazetariak erabiltzen duen baliabidea, zeinaren bidez pertsona batekin harremanetan jartzen den. Elkarrizketak kazetaritzarako interesa izan dezake pertsonaiaren nortasunagatik, karguagatik edo adierazpenengatik (Quesada, 1984:197)<sup>73</sup>. Kazetaritza-elkarrizketa mugatua da, informazio orokorra, zehatza edo jakina lortzea helburu duena: gai bati buruzkoa, elkarrizketatuaren nortasunari buruzkoa, nortasunaren zenbait alderdiri buruzkoa eta abar. (Díaz Noci, 2000: 183-184).

**1.4. Kronika:** Martínez Albertosek dionez, notizia bati buruzko kontaketa zuzena eta berehalakoa da, zenbait osagai baloratzaileratuena, osagai horiek betiere gertakariaren kontakizunaren menpeko direlarik. Bi datoren artean gertatutakoa islatzen saiatzen da: hortik datorkio bere izaera etimologikoa *Literaturaren Historian*<sup>74</sup>.

Kronikaren lehen ezaugarria hibridotasuna da, bai informazioa, bai interpretazioa, baita iruzkin eta juizioak nahasten dituelako. Kronika, funtsean informatzailea da, beraz, datuek dute pisu handiena. Baina, erreportajeaz ez

<sup>72</sup>- “El reportaje fotográfico, expone la información con carácter narrativo al contar el hecho en acciones sucesivas. La característica clave del reportaje fotográfico es, pues, la secuencialidad. No se trata de una simple colocación de una fotografía detrás de otra, sino de establecer una relación entre ellas” (Cebrián, 1992:377).

<sup>73</sup>- Quesada, Montse. (1984): *La entrevista: obra creativa*, Mitre, Bartzelona, in Camacho, Idoia. (2001): “*Herri-aldizkariaren funtzioa euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999*” doktore-tesia, EHU, Bilbo.

<sup>74</sup>- “Narración directa e inmediata de una noticia con ciertos elementos valorativos, que siempre deben ser secundarios respecto a la narración del hecho en sí. Intenta reflejar lo acaecido entre dos fechas: de ahí le viene su origen etimológico en la Historia de la Literatura” (Martínez Albertos, 1983:360).

bezala, interpretazioa baino gehiago iritzia sartzen da, iruzkina” (Díaz Noci, 2000: 205). Martín Vivaldiren definizioari jarraiki, “kronika, informazio interpretatzaile eta baloratzailerak da, non kontatu ezik, epaitu ere egiten den”<sup>75</sup>. Hona hemen Vilvaldik bestelako informazio-generoekin egiten duen alderaketa: kronika ez da erreportajea, ez delako iruzkina onartzen. Erreportaje interpretatzailea edo sakona ere ez da, interpretazioa ez duelako erreportariak zuzen-zuzenean ematen, berak jasotako iturri eta osagaiek baizik. Eta literatur artikulua ere ez da, genero horretan ez baitira nahitaez gertakizunak kontatu behar. Kronikan, aldiz, kazetariak kontakizun bat egin behar du.

2. **IRITZIA:** Honako generoak, batez ere, ideiak eta iritzia hedatzeko erabiltzen dira. Armañanzas eta Díaz Nocik horrela definitzen dituzte testu iritzia: “Iritzi testu guztiek komunean dutena, ideien gainean aritzen direla, gutxi gora behera momentuko gertaeren ondorioak ateratzen dituztela. Gaiak erabateko gaurkotetasuna ez badute ere, bizitza sozialaren barnean dauden gaiak izango dira edo bat-bateko gertaera batengatik gaurkotetasuna hartuko dutenak”<sup>76</sup>.

**Editoriala:** Gertakizun baten inguruan hedabideak ematen duen iritzia da, beraren ikuspuntu ofiziala islatzen duen testua, normalean bertan argitaratzen diren berriei buruzkoa. Editoriala, izenpetu gabeko testua da, argitalpenaren ildo ideologikoaren erakuslea, momentuko gertaerak juzgatuz egunerokotasuna daukana. Talde editorialeko kide batek edo ordezkari batek idatzia<sup>77</sup>. *Pil-Pilean* aldizkariko “Ataixa” atalean agertzen den “Telegrapak”, editorialak egunkarietan betetzen duen funtzio bera duela uste dugu. Hots, iritziarekin batera agertzen da, sinatu gabe eta aldizkarian agertzen diren gaiak baloratzen ditu. Idazteko era ez dator bat editorialetan erabiltzen denarekin, baina arestian aipatu bezala, herri-aldizkarietan, maiz kazetaritza-generoak askatasun handiagorekin erabiltzen dira.

<sup>75</sup> - “Una información interpretativa y valorativa de los hechos noticiosos, actuales y actualizados, donde se narra algo al propio tiempo que se juzga lo narrado” (Vilvaldi, 1981: 128-129).

<sup>76</sup> - “Lo que presentan en común todos los textos de opinión es que trabajan sobre ideas, deducen consecuencias de unos acontecimientos más o menos actuales. Si no lo son, tratarán de asuntos vigentes, es decir, que laten dentro de la vida social, o recobrarán la actualidad a raíz de un hecho que acabe de ocurrir” (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 85).

<sup>77</sup> - “Consideramos editorial al texto anónimo, portavoz de la línea ideológica de la publicación puesta al día a través del enjuiciamiento de los acontecimientos más actuales, redactado por un miembro del equipo editorial o persona delegada” (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996:84).

**Artikulua:** Artikulua, maiztasun finkorik gabe kaleratzen den iritzi testu bat da, argitalpenak berak gonbidatutako pertsona ospetsuek sinatzen dutena eta era ezberdinean eta askotariko gaien inguruan aritzen dena. (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 105). Martín Vivaldin arabera, “eduki eta egitura aldetik era askotakoa izan daitekeen idazkia da artikulua, egilearen ustez garrantzi handia duen gaurkotasunari buruzko gertakaria edo ideia baloratu edo azaltzen duena”<sup>78</sup>.

Artikuluen baitan, mota desberdinak aurkitu ahal dira:

**2.2.1. Tribuna libre edo publikoa:** Egunkariak, gonbidatzen dituen idazleei irekita uzten dien espazioa da. Bertan, egunkariarekin zerikusirik ez duten iritziak eta elkarrengandik (egunkariaren ildo editoriala eta idazlearena) urruntzen diren iritziak sartzen dituzte<sup>79</sup>. Normalean, azalpen testuak izaten dira eta interes orokorra duten momentuko gertaeren inguruan iritzia emateko eskatzen direnak. (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 110). Martínez Albertosen arabera, hedabidea iritzi horietaz kanpo geratzen da eta iritzi-emaileei argitalpenean lekua erraztera mugatzen da. (1983: 407).

**2.2.2. Saiakera:** Saiakerak ez du albistearekin zerikusirik. Albistea gertatutako zerbaiten narrazioa da; saiakera, ordea, hausnarketa subjektiboa da. Martínez Albertosen esanetan, saiakera, zientzia zabaltzeko lana da, laburki eta era eskematikoan azalduta. Saiakerak egileak egindako lanaren ondorioak islatzen ditu beti: ideiak, aurkikuntzak, hipotesiak... Albistearen kontrakoa da<sup>80</sup>.

**2.2.3. Ohitura-artikulua:** Natividad Abrilen definizioari jarraituz, ohitura artikuluaren beste agerbide garrantzitsu eta berrienetarikoa *ohitura-*

<sup>78</sup>- “Escrito, de muy vario y amplio contenido, de varia y muy diversa forma, en el que se interpreta, valora o explica un hecho o una idea actuales, de especial trascendencia, según la convicción del articulista” (Martín Vivaldi, 1981:176).

<sup>79</sup>- “Es un espacio que el periódico deja abierto a disposición del público invitado por el medio para la inserción de otras opiniones ajenas al periódico y que frecuentemente divergentes de las que mantiene en sus editoriales” (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 110).

<sup>80</sup>- “Es un trabajo de divulgación científica expuesto brevemente y de manera esquemática. El ensayo refleja siempre conclusiones de trabajo elaboradas por el autor: ideas, hallazgos, hipótesis... Es algo opuesto a la noticia” (Martínez Albertos, 1983: 395).

*erreportajea* dugu, garai edo herri baten ohiturak islatzen dituen kazetaritza-testu bezala ulertuta. Kazetaritza-lan horrek eguneroko prentsaren mugak gainditzen ditu eta asteburuetako gehigarri berezietan soltura handiz finkatu eta garatzen da<sup>81</sup>. Ohitura artikulua literaturatik haratago doaz: artikulua horiek informazioa eta gaurkotasuna ere badute. (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 110).

**2.2.4. Atzera begirako artikulua:** Historia zabaltzeko artikulua da, erreportaje eta ikerkuntza-artikuluaren arteko genero hibridoa da (Martínez Albertos, 1983:397). Natividad Abrilen arabera, “adituak diren edo gaian espezializatuak dauden pertsonak idazten dituzten artikulua dira, baina orokorrean kazetaritza teknikak ez dituzte ezagutzen. Praktikan, kazetaritzan oinarritu beharrean, artikulua hauek ikerkuntza historikoaren arauetan oinarritutako ideiak azaltzera jotzen dute. Atzera begirako artikulua, gaia berriro gaurkotasunera ekartzen duen urteurrena edo oroipen baten ospakizunaren harira, argitaratu ohi da”<sup>82</sup>.

**2.3. Kritika:** Ikus-entzuleari erakusten zaion sormen lan baten (arte plastikoak, antzerkia, musika, zinea...) aurkezpena, azalpena, azterketa eta balorazioa da kritika. Normalean, sormenaren arloren batean aditua den eta kazetaritzan aritzen ez den kolaboratzaileak idazten du. (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 85). Martín Vilvaldik honako definizioa ematen du: “Lan literario, artistiko edo ikuskizun bati buruzko balorazio-artikulua da. Kazetaritza kritikak, iritzia emateaz gain, informazioa ere ematen du. Ohikoak dira zine, antzerki, musika, liburu... kritikak”<sup>83</sup>. Normalean, kritika ikuskizun baten aurrean adituek duten iritzia da.

<sup>81</sup>- “El artículo de costumbres, entendido como trabajo o texto periodístico en el que se retratan las costumbres de una época o país, tiene otra de sus importantes y más recientes manifestaciones en el ‘reportaje costumbrista’, una pieza periodística que traspasa los límites de la prensa diaria y se asienta y desarrolla con gran soltura en los cuadernillos especiales y suplementos de fin de semana” (Abril, 1999: 158).

<sup>82</sup>- “Son artículos escritos por personas estudiosas y especialistas en la materia pero que, por regla general, desconocen las técnicas periodísticas. En la práctica, estos artículos tienden a ser una exposición de ideas expresadas con unas reglas más propias de la investigación histórica que de la narración periodística. El artículo retrospectivo se suele publicar con motivo de la celebración de un aniversario o de una conmemoración que trae ese tema de nuevo a la actualidad” (Abril, 1999: 159).

<sup>83</sup>- “Es una reseña valorativa de una obra humana literaria o artística-, o de un espectáculo. La crítica periodística, a la par que juzga, informa. Son habituales las críticas de teatro, cine, libros, música, etc.” (Martín Vivaldi, 1981: 331).

**2.4. Inkesta:** Herritarren artean gai bati buruzko iritziak ezagutzeko erabiltzen da inkesta; guk aztertu ditugun aldizkarietan “Kale-inkesta” izendatzen den atala. Oro har, eremu urriko prentsan egiten diren inkestak galdera bakarrekoak izaten dira. Hala ere badira salbuespenak galdera gehiago dituztenak. Bestalde, atal honetan, Elgoibarko *Barren* aldizkarian “Alkatea banintz” eta “Elgoibarren bada zer hobetua!” ataletan hiritar ezberdinek ematen dituzten iritziak sartuko ditugu.

**2.5. Iruzkina:** Argudioak ematen dituen iritzi-testua da. Ia beti sinatuta agertzen dena eta gaurkotasuna duten gaiak kolokan ipintzen dituena. Editorialetik gertu dagoen generoa da, baina editorialaren zurruntasunetik aldendu egiten da. Estiloari dagokionez, iritzia eskatzen du. (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 85-121). Martínez Albertosen definizioaren arabera, “iruzkina arrazonatzailea, orientagarria, analitikoa, interpretatzailea edo baloratzailea izan daitekeen artikulua da, editorialak duen helburu bera duena”<sup>84</sup>.

**2.6. Zutabea:** Leku eta maiztasun finkoa daukan iritzi testua da, edozein gai epaitzen duena. Gaiak ez du zertan iruzkin eta editorialean duen gaurkotasunik izan behar. Iruzkinarekin konparatuz, zutabegileak adierazpen askatasun handiagoa dauka idazterako orduan. (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 123-126).

**2.7. Irakurleen gutunak:** Irakurleen iritziak argitaratzeko lekua da. Forma aldetik oso desberdinak izan daitezke. Natividad Abrilen arabera, “idazketak gutunaren forma har dezake, baina batzuetan bestelako idazki motak izan daitezke, hala nola, prentsa-oharrak, salaketak edo artikulatu bikainak. Egunkarietara euren gutunak bidaltzen dituztenak ez dira beti pertsona ezezagunak edo gizarte taldeak”<sup>85</sup>. Batzuetan, tirabirak sortzen dira atal honetan, batzuek beste batzuei erantzunak emanez. *Barren* aldizkarian

<sup>84</sup>- “Es un artículo razonador, orientador, analítico, enjuiciativo, valorativo – según los casos – con una finalidad idéntica a la del editorial” (Martínez Albertos, 1983: 389).

<sup>85</sup>- “La redacción puede tomar la forma de misiva, pero en otras ocasiones se asemeja a notas o comunicados de prensa, otras adquieren la forma de denuncia y en ocasiones son brillantes artículos. No siempre quienes envían sus cartas a un periódico son personas anónimas o colectivos sociales” (Abril, 1999: 162).



irakurleen gutunen ondoan, herritarren kexak agertzen dira. Herritarrek telefono mezu baten bidez euren kexak edo zorionak uzten dituzte eta aldizkariak argitaratzen ditu. Aldizkarian herritarren izena agertzen ez bada ere, aldizkarira deitzen duen pertsonak bere izen eta abizenak eman behar ditu derrigorrez. Beraz, argitalpenak badauki norena den kexa hori. Gero, aldizkariak hitz horiek kakotx artean jartzen ditu, irakurleen iritzi zuzena agertuz. Gauza bera gertatzen da *Pil-pilean* aldizkariko “Hormatxulotik begira” atalean; irakurleek euren kexak edo txaloak uzten dituzte bertan, sinatuta, ordea. Natividad Abrilen definizioari jarraituz, irakurleen gutunek duten funtzio bera betetzen dutela uste dugu eta aldizkarien hustuketa egiterako orduan, irakurleen gutun gisa hartuko dira.

3. **LITERATURA:** Informazio eta iritzi-generoez gain, literaturarekin zerikusia duten testuak sailkatzeko multzoa osatu dugu. Izan ere, herri-aldizkarietan idatzizko eta ahozko literatura lantzen duten testuak sarri agertzen dira. Ipuinak, bertsoak, txistekak, esamoldeak edota fotonobelak ere.

**Ipuinak:** Edozein ataletan agertzen den eta ipuin itxura duen testua. Askotan, literatura lehiaketetan parte-hartzen dituzten ipuin irabazleak kaleratzen dira. Halaber, amodiozko gutun lehiaketan parte-hartzen dituzten gutunak ere, epigrafe honetan sartuko ditugu. Hau da, prosa laburrean idatzita dauden testuak sailkatu dira atal honetan.

**Bertsoak:** Bertsoen neurri, irizpide eta arauak jarraituz kaleratzen diren testuak. Esaterako, *Drogetenitturri* aldizkarian “Bertsoak” “Euskara lantzen” edota “Bertsolaritza” ataletan agertzen den bertso sorta, item bakar bezala sailkatuko da. Ohikoa baita, ale bakoitzean agertzen diren bertso guztiek gai bera jorratzea eta horrela, gaien azterketa egiterakoan emaitza errealagoak lortzea ahalbidetzen digu. Edozein aldizkaritan agertzen diren bertsoekin irizpide bera erabiliko da.

**Txistekak:** Idatziz zein irudiz lagunduta agertzen diren umorezko testuak edota barrea eragiteko idazten diren istoriotxoak dira. Gehienetan irudia ilustrazio moduan eta txistea testu bitartez azaltzen da.

**Fotonobela:** *Berriketan* aldizkariak kaleratzen du. Gai ezberdinetan oinarrituz, argazkiak eta argazki oinak erabiliz, asmatutako istorioak dira.

**Esamoldeak:** Ahozko literaturari lotutako esaera, esamolde eta ;errefrauk jasotzen dituzten atalak, ez dute albiste edo kazetaritza-genero ezberdinen egitura. Beraz, kategoria honetan sartuko ditugu. Bestalde, hizkuntzaren inguruko aholkuak, esaera edo esamoldeak era egokian nola erabili behar diren azaltzen dituzten atalak ere hemen sailkatuko ditugu.

**4. KOMIKIA:** Aldizkari ezberdinetan agertzen diren umorezko komiki-tirak edo irudiak. Txisteetan ez bezala, komikietan irudia da protagonista eta agertzen den testu apurra irudiari laguntzeko agertzen da. *Barren* aldizkarian, kexen azpian agertzen den irudizko istorioa ere, ez da txiste gisa hartuko, komiki bezala baizik. Nahiz eta iritziarekin batera agertu, ez dugu iritzi bezala hartuko, ez dutelako intentzio horrekin kaleratzen; aldizkariaren orrialde hori aukeratu dute komikia sartzeko, baina diseinuaren irizpideak jarraituz soilik, ez iritzi ikonografiko bezala.

**5. ZERBITZUAK:** Gero eta gehiago dira albisteak ez diren, baina bezeroarentzat erabilgarriak izan daitezkeen testuak sartzen dituzten agerkariak. Gaur egun, egunkari gehienetako azken orrialdeetan, denbora-pasak, agenda kulturalak, errezetak, eguraldiaren aurreikuspena, autobus eta trenen ordutegiak edo bitxikeriak kaleratzen dira. Irakurlearentzat baliagarriak eta erabilgarriak diren atalak dira, irakurle ugari dituztenak. Zerbitzu-informazioaren ezaugarri nagusia hartzaileari ekintzarako elementuak eskaintzea da, hots, hedabideak irakurleak mugiarazten dituela. Diezhandinoren arabera, “zerbitzu-informazioa hiru motakoa izan daiteke: 1- Lokalizatzailea: ekintzaren denboraren eta lekuaren berri ematen du, datozen bileren aurrerapena, hiletak, karitatezko laguntzen eskaerak, irrati-telebista saioak, galdeketak eta abar. 2- Identifikatzailea: pertsonen beste indibiduo, talde edo entitateak ezagutzeko edo beraiekin harremanetan jartzen laguntzeko izenak eta aurkitzeko informazioa eskaintzen du. Bertan pertsonen izen eta helbideak, telefono zenbakiak, aurkitzeko errazak diren erakundeen izen eta karguak, deskripzio fisikoak,

elkarteen izenak. 3- Taktikoa: jokabide-eredu esplizitu eta implizituak eskura ipintzen dizkigu. Adibideak: sukaldaritza-errezetak, edertasun eta lorezaintzari buruzko aholkuak, delituetako joera egokiak eta desegokiak eta grebetan erabilitako taktika arrakastatsuak zein porrot egindakoak, mugimenduak eta ekintza politikoak...”<sup>86</sup>. Lan honetan aztertu diren aldizkari guztiek zerbitzu-informazioa ematen dute eta beharrezkoa izan da kategoriak sortzea zerbitzu ezberdinak sailkatzeko:

**5.1. Agenda/Egitaraua:** Atal honetan, kultur zein kirol agendak, jai egitarauak eta bestelako egitarauak sartuko dira. Hau da, zine karteldegiak, kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak, aste kulturalak, egun bereziak, odol emateak, irteerak, ikastaroen eta bestelakoen iragarpenak. Kirol ezberdinen iragarpena eta baita kirol ezberdinetan izan diren emaitzak ere, hemen sailkatuko ditugu.

**5.2. Zerbitzu-informazioa:** Zerbitzua eskaintzen duten testuak sartuko ditugu hemen. Autobusen edo trenen ordutegiak, guardiako farmaziak, intereseko telefono zenbakiak, Eusko Jaurlaritzak gazteentzat kaleratzen duen informazioa (bekak, lehiaketak, jarduerak, lana...), eguraldiaren iragarpena, ilargiaren aldiak, hildakoen, ezkonduetakoen eta jaiotakoen inguruko informazioa eta zorion agurren inguruko informazioa, mezen ordutegiaren informazioa, efemerideak aipatzen dituzten testuak edota liburuak irakurri, musika entzun edo filmak ikusteko aholku zerrendak ere. Guztiak multzoka hartuko dira, hau da, tren eta autobus ordutegia testu bakar bat izango balitz bezala kontsideratuz; irizpide bera erabiliko da, intereseko telefono guztiak biltzen dituen testuarekin edo Eusko Jaurlaritzak gazteentzat kaleratzen duen informazioarekin.

<sup>86</sup>- “1- Localizadora: proporciona información sobre tiempo y lugar de la actividad, avance sobre próximas reuniones, funerales, solicitudes de ayuda caritativa, programas de radio y televisión, cuestionarios tan en boga hoy día, como los de recórtelo y envíenoslo, etc.

2- Identificadora: suele incluir tanto nombres como suficiente información localizadora para permitir a las personas reconocer y/o entrar en contacto con individuos, grupos o entidades. Incluye nombres y direcciones de individuos, números de teléfono, nombres y cargos de organizaciones relativamente estables, fácilmente localizables, descripciones físicas..., marcas comerciales sin mucha información movilizadora localizadora, nombres de compañías.

3- Táctica: pone a nuestra disposición modelos de conducta explícitos e implícitos.

Ejemplos: recetas de cocina, consejos de belleza y de jardinería, modus operandi atinados y desatinados en delitos y tácticas usadas en huelgas con o sin éxito, movimientos y actividades políticas...” (Diezhandino, 1994: 85-86).

**5.3. Informazio erabilgarria:** Hemen sailkatuko ditugun testuek irakurleari datu erabilgarriak emango dizkiote, zerbait egiteko instrukzioak edo aholkuak, alegia. Adibidez, sukalderako errezetak edota etxean erabiltzen diren gauzak egoera onean izateko aholkuak, osasuna mantentzeko giltzarriak, urgentzia egoeretan zer egin argi izaten laguntzen duten idazkiak, inauterietan mozorrotzeko ideiak, brikolajearen aritzeko pausuak eta antzerako testuak hemen sartuko ditugu. Jolasen jatorria azaldu eta hura garatzeko eman beharreko pausuen argibideak, eta izenen jatorria azaltzen duten testuak kategoria honetan sartuko ditugu, baliagarriak izan daitezkeelako norberak erabiltzeko.

**5.4. Denbora-pasak:** Gurutzegramak, hizki-zopak, horoskopoa, testak, kultura orokorrari buruzko galderak, zozketak eta bestelako lehiaketak ere, kategoria honen barnean sartuko dira.

**5.5. Salerosketak eta trukeak:** Atal honetan irakurleek egiten dituzten eskaera eta eskaintzak biltzen dituzten iragarkiak sartuko ditugu. Informazio hau, ez dugu publizitate gisa hartu, informazio hau jartzeagatik aldizkariak ez duelako dirurik kobratzen eta informazio mota hori irakurlearentzat zerbitzua dela uste dugulako. Izan ere, salerosketez gain, trukeak, galdutako objektu, animalia edo tresnen berri ematen da eta, lan eskaintza eta eskariak egiten dira Beraz, “Merkekitto” (...*Eta kitto! aldizkarian*), “Eskaintzak edo doaneko iragarkiak” (*Pil-pilean aldizkarian*) edo “Merkatu txiki” (*Barren aldizkarian*) bezalako sailak kategoria honi dagozkio. Hemen ez dugu bereizketarik egingo agertzen diren azpi-atal ezberdinen artean, guztia testu bakar gisa kontsideratuko baita.

**6- BESTE:** Aurreko kategorietan sailkatu ezin daitezkeen testuak epigrafe honetan sartuko dira.

## **B- GAIK**

Informazio-generoak sortzeko egin den bezala, gaiak sailkatzeko, aurretik egindako lan ezberdinak kontuan hartu dira: Idoia Camachoren “*Herri-aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999*” tesia eta “*Sei herri-aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat*”, Jotxo Larrañaga, Miren Gabantxo eta Asier

Arangureneg egindako lana oinarri hartuta, gaitegi propioa garatu dugu aztertu diren sei herri-aldizkariarentzat baliagarria den eredu komuna sortuz, eta jorratzen dituzten gaietara ahalik eta hoberen egokitze asmoz. Lan hau egiteko aukeratu den epean (2000-2004) gai batzuek gaurkotasuna galdu eta beste batzuk, ordea, protagonismoa irabazi dute. Hala eta guztiz ere, sarritan, gaiak sailkatzerako orduan zalantzak sortu ahal dira. Kasu horietan kazetariak titularra idazteko egin duen aukeraketa hartuko da kontuan eta bertan agertzen dena lehenetsiko da. Hau da, titularrean agertzen den informazioa eta ezinbestean albisteak berak lantzen duen gai nagusia izango da, gaia definitu eta sailkatzeko jarraituko den irizpide nagusia.

Adibidez, “Caritasek arropa bilketa egin du” titularra duen albistea nola sailkatuko genuke? Caritasek antolatu du arropa bilketa, beraz, 3.1. kategorian sar daiteke. Bestalde, arropa bilketa ekintza bera, 3.2 kategorian sailka daiteke, giza laguntza delako. Titularrean arropa bilketa aipatzen denez eta albistea horren inguruan antolatzen denez, 3.2. kategorian sartuko genuke.

## 1. **POLITIKA**

Udala: Hemen agertzen diren testuak udalen bizitzaren ingurukoak dira, hala nola, bere osaketa, barneko politika, eztabaida orokorra, akordioak, hartutako erabakiak, udalbatzaren osaketa, eta bertan gertatzen diren gorabeherak, udaleko langileen bizitza eta egunerokotasuna esaterako. Bestalde, udaleko sail ezberdinen inguruko informazioak ere hemen sailkatuko ditugu. Direla komun publikoak, direla emakumeentzako planak, konponketak, Jai Batzordeetako erabakiak, udal garbiketa zerbitzua. Alegia, udaleko edozein sailek hartzen dituen erabaki eta ekitaldien inguruko albisteak. Hala nola, udaltzainek egiten dituzten txostenak eta txosten horietatik ateratzen diren datu eta ondorioak ere udalaren jardueraren barnean sartu ditugu. Izan ere, tokian tokiko argitalpenetan aparteko garrantzia duen atala da udalari lotutako informazioa.

Aldundia: Aurreko atalean esandakoak kasu honetarako ere balio du, Aldundiari buruzko albisteetan, baina testuko protagonista nagusia Aldundia bera denean.

Eusko Jaurlaritza: Gobernuari buruzko berriak, osaketa, funtzionamendua, eztabaidak, ekintzak. Atal honetan, Eusko Jaurlaritza albisteko protagonista nagusia denean.

Alderdiak: Alderdi politikoen bizitza, barneko eztabaidak, antolatzen dituzten prentsaurrekoak edo ekitaldiak, elkarrizketak edo kide baten adierazpenak. Hauteskundeen inguruko testu eta datuak ere hemen sartuko ditugu, alderdi ezberdinek osatzen dituzten ekitaldiak izaten direlako. Legez kanpo utzitako herri plataformak alderdi gisa hartuko ditugu, jarduera politikoa dutelako; beraz, antolatzen dituzten ekitaldiak hemen sartuko ditugu, udal-kontuak ez direnean.

Euskal Herriko gatazka: Gai honekin zerikusi zuzena eta jakina duten testuak; esate baterako, euskal presoei egindako omenaldiak edo alderdien legeari buruzko testuak edota atentatuen gaitzespena adierazten duten oharra.

Erakunde ezberdinak: Erakunde ezberdinen artean egiten diren hitzarmenak edota erakunde (publiko zein pribatu) bat baino gehiago albistearen protagonista direnean. Esaterako, bariantearen aurreproiektua egiteko herriko udalak Bizkaiko/Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena edo euskara herrian sustatzeko udalak euskara elkartearekin batera hitzarmena sinatutakoa.

Gerrak eta ejerzitoak: Gerrei, ejertzitoei eta soldaduzkari buruzko informazioak zenbaki honen baitan sailkatuko ditugu.

Beste: Aurreko ataletan sartu ezin daitezkeen testuak.

## **2. EKONOMIA**

Enpresa: Herrietan dauden enpresen jarduerak, hala nola, hitzarmenak, emaitzak, batzarrak, ematen zaizkien sariak, bertako langile eta jabeen inguruko albistek. Enpresa berriak sortzeko ekimenak ere, esaterako Deba Barreneko Garapen Ekonomikorako Agentziak jarduera berriak sortzeko antolatzen dituen ikastaroak, hemen sartuko ditugu. Etxeetan ura, gasa edo elektrizitatea kontrolatzeko egiten diren ikuskaritzak enpresa bezala hartuko dira, enpresa ezberdinek bidalitako langileen bitartez egiten direlako. Era berean, gida komertzialen inguruko testuak (...eta kitto!-n)

enpresa bezala sailkatuko dira, diru-iturri eta diru-etekinak ateratzeko ekimenak baitira. Gauza bera lortzen da loteria salmentarekin, finantziarioa lortzeko ekimena baita. Ogasunaren inguruko albisteak epigrafe honetan sailkatzea erabaki dugu, berez estatuko enpresa delako ogasuna.

Lan bizitza: laborala/langabezia: Eremu honetan sartzen diren testuak, lan egoera, akordioak, lan istripuak, grebak, langabetuentzako ikastaroak, langabeziaren inguruko datuak, sindikatuen jarduera edo udalak beste erakunde batzuekin batera abian jartzen dituen enplegu-programak langabezia gutxitzeko; esaterako, udalek Inem-Korporazio lokalekin sinatzen dituzten akordioak. Pentsioen, gizarte segurantza eta kotizazioekin zerikusia duten testuak ere hemen agertuko dira, lanetik edo langabeziatik sortzen diren ondorio zuzenak dira-eta. Bestalde, sindikatuen inguruko albisteak ere hemen sailkatuko dira, hots, euren jarduera enpresetan edota hauteskunde sindikalen inguruko berriak. Administrazioan lan egiteko baldintzen inguruko albisteak ere hemen joango dira.

Nekazaritza/Abeltzaintza: Nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko jarduerak, diru-laguntzak, mobilizazioak, elkarteak, produktuak, abeltzaintza edo nekazaritzaren inguruko azokak.

Itsaslana/Arrantza: Gai honekin zerikusia duten testuak. Itsasoan lan egiten dutenei buruzkoak, euren jarduera, bizitza, arazoak eta baita itsasoarekin zerikusia duten lanbideei buruzkoak ere: arraintzako pentsuak aztertzen ari diren langileei buruzko albisteak esate baterako.

Merkataritza/Finantzak eta Burtsa: Herriko denden edota tabernen arazoak, denda edo tabernetan gertatzen diren sute edo lapurretak, merkatari edo tabernari elkarteek antolatzen dituzten ekitaldiak, azoken berriak (prezioak, merkealdi kanpainak, eskaintzak...). Finantza, moneta eta burtsaren gorabeherak aipatzen dituzten albisteak epigrafe honetan sailkatuko dira. Euroaren inguruko gorabeherak esaterako, moneta eta diru faltsuaren inguruko albisteak, iruzur ekonomikoak.

Beste: Aurreko ataletan sartu ezin ditugun ekonomiaren inguruko testuak.

### **3. GIZARTE-GAIAK**

Taldeak: Herriko edozein talde, elkarte sozial eta erlijiosoen bizitzari buruzko idazkiak, barneko funtzionamendua, ekintzak edota prentsaurrekoak jasotzen dituztenak. Talde antimilitaristak, emakumeen taldeak, gobernuz kanpoko erakundeak, gazteak, gazte asanbladak, dantza taldeak, bakearen aldeko taldeak, Abiadura Handiko

Trenaren aurkako taldeak, hirugarren adinekoak edo parrokiako taldeak izan daitezke atal honetan sartzen diren albisteen protagonistak. Herrietan dauden talde erregional ezberdinen inguruko albisteak ere hemen sartuko ditugu: ekitaldi kultural (gastronomia, dantzak, musika...) ezberdinak biltzen dituen testua bada ere, hemen sartuko dugu, protagonista taldea bera delako (Extremadurako taldea, Andaluziakoa, Galiziakoa...)

*Giza laguntzak/Elkartasuna/Gizarte arazoak:* Auzo marjinalei buruzko notiziak, behartsuei laguntzeko instituzioak eta ekimenak, borondatezko laguntza, elbarrituen arazoak, gobernu kanpoko erakundeek antolatzen dituzten elkartasun kanpainak (dela elikagaien bilketa, arropa bilketa, eskola-material bilketa). Bestalde, emakumeen aurkako biolentzia eta edozein gizakiren aurkako indarkeria, tratu txarrak eta erasoak orokorrean gizarte arazo gisa kontsideratuko ditugu. Halaber, gizartean oihartzuna eta isla duten arazoak hemen sartuko ditugu: hiesa bezalako gaixotasunak, familia eredu berrien inguruko testuak, homosexualitatea, genero berdintasunari buruzko testuak, imigrazioa eta etorkinen inguruko aipamenak bezalakoak. “Bulling”-aren esparrua hezkuntza izan arren, momentu konkretu batean gizarte arazo bihur daiteke eta orduan epigrafe honetan sailkatuko dugu; suizidioek, eraikinei edo beste pertsona batzuei egiten zaizkien erasoek ere, herriko arazo bihur daitezkeen neurrian, hemen izango dute euren lekua.

*Etxebizitza:* Udaleko etxebizitza politika, babes ofizialeko etxebizitzak, eraikuntzak, etxebizitza pribatuei buruzko testuak, etxebizitza edo baserrien inguruko legedia. Honi jarraiki, baldin eta etxebizitzaren arazoa konpontzeko plataforma bat sortzen bada eta ekimen bat egiten badu, talde ekimen gisa hartuko dugu, beraz, 3.1. epigrafean sailkatuko genuke. Talde horrek etxebizitzaren arazoaren inguruan iritzi-artikulu idazten badu, ordea, kategoria honetan sailkatuko dugu. Etxebizitzetan izaten diren arazo, istripu, sute, uholdeak eta horrelako gertakizunak etxebizitzaren arazoak diren heinean hona zuzenduko ditugu.

*Herrilanak:* Atal honetan obrei buruzko testu guztiak sartuko dira, tutu-konponkeetatik hasi, herriko altzari, Gabonetako argiak zein farola berriak jartzeko egitasmoetatik pasatuz, autopista, saihesbide edo merkataritza-zentro baten eraikuntzaraino. Era berean, eraikuntzaren bat eraitsi dutela azaltzen duten albisteak ere hemen sailkatuko ditugu.

*Trafikoa/garraio bideak:* Trafikoarekin eta garraio bideekin zerikusia duten testuak. Garraio publikoaren inguruko albisteak, garraio berrien inguruko egitasmoak. Trafiko



istripuen inguruko informazioa ere hemen sartuko dugu. Aparkalekuekin zerikusia duten testuak eta herriko automobilen erroldako datuen berri ematen dituzten albisteak ere bertan izango dira lerrokatuak. Garraio publikoen ordutegiak, 3.12 zerbitzuen atalean sailkatuko dira.

*Hezkuntza:* Maila guztietako hezkuntzaren inguruko inprimakiak sartuko ditugu hemen. Haurtzaindegiak, ikastetxeak, unibertsitatea, helduentzako hezkuntza, Hizkuntza Eskolak. Kasu berekoak dira zientzia, teknologia eta ikerkuntzaren inguruan argitaratutakoak, doktorego, tesi, zientzia eta teknologia ikerkuntzarekin zerikusia dutenak ere. Hezkuntzarekin zerikusia duten ikastaroak (ez ordea, enplegua sustatzeko ikastaroak, horiek 2.2 kategorian sailkatuko genituzke), hezkuntza-ereduak, ikasketa planak, matrikulazio datuak ere atal honetan sartuko ditugu. Hezkuntzaren arloan gertatzen diren arazoak gizarte oihartzun garrantzitsua sortzen dituztenean, “bullyng”-a esaterako, gizarte arazo kontsideratuko da eta 3.2 epigrafean sailkatuko da. Eskola orduetan egiten diren ekitaldi ezberdinak (antzerkiak, zine-emanaldiak, ipuin-kontaktak...) ere hemen sailkatuko ditugu. Beraz, atal honi dagozkie Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez bezalako jaiei buruzko testuak, herrialde ezberdinetako ikastola elkarteek antolatzen dituzten jaialdiak direlako. Era berean, teknologia berrien erabilpenari buruzko testuak edo ikastaroak hezkuntzaren baitan klasifikatuko ditugu eta baita gizon eta emakumeen arteko berdintasun kanpainen informazioari buruzkoak ere, gizartea berdintasunean heztea baitute helburu. *Drogeteniturrin* agertzen den “Sexuaz” eta *Barreneko* “Gaztia naiz Barren” gehigarrian agertzen den “Sexualitatea konplexurik gabe” zutabeek helburu bera dute, gizartea heztea, beraz, epigrafe honetan sailkatuko ditugu. Arte eskola edo itsaso eskolen inguruko testuak ere, hemen sailkatuko dira, azken finean gai horietan formazioa ematen duten eskolak izanik, hezkuntza sistemaren barne daudelako. Dena den, euskaltegiak eta hauen inguruko albisteak ez ditugu hezkuntzan sartuko, heziketan baino, euren lehentasun eta helburu nagusia euskara irakastea delako. Beraz, euskara kategorian sartuko ditugu. Halaber, Debarreneko Ekonomia Garapenerako Agentziak antolatzen dituen enpresa berriak sortzeko ekimen eta ikastaroak, 2.1 epigrafean sartzea egokiago iritzi diogu, enpresa sortzea delako ikastaro horien helburu nagusia. Udaletako gizarte-ekintza sailek antolatzen dituzten ikastaroak (jende aurrean hitz egiten ikasteko, yoga, tailandiar masajea, gurasoei zuzendutakoak edo gaixoei laguntza eskaintzeko ikastaroak esaterako) hemen sailkatuko ditugu, sorosle titulazioa

ateratzeko DYA-k edo Gurutze Gorriak antolatzen dituztenekin batera. Titulaziorik eskaintzen ez duten arren, pertsonari formazioa ematen baitiote.

Osasuna: Osasuna zaintzeko kanpainak, odola emateko kanpainak, gaixotasun baten inguruko informazioa, ospitaleen eta anbulatorioen egoerari buruzko albisteak. Sarritan, gaixotasun ezberdinen inguruko albistek, hiesa kasu, gizartean isla eta eragina izaten dute; kasu horietan gizarte oihartzun eta arazo bilakatzen da gaixotasuna bera eta 3.2 Gizarte Arazoak kategorian sartzea egokiago irizten diogu.

Ekologia/Ingurunea/Natura: Ingurugiroari buruzko testuak, hala nola, parke natural baten izendapena, isurkinak, birziklapena, inguruko animalia basatien bizimodua. Ingurugiroa babesteko eta zaintzeko herrietan egiten diren lanen berri, herrietako kaleak garbi mantentzeko kanpainak, balkoiak apaintzeko lore banaketak, zaborra birziklatzeko kanpainak, urtegien egoeraren inguruko informazioa, eguraldiaren inguruko albisteak. Mikologia bera ere, naturarekin zuzenean lotuta dagoenez, hemen sailkatuko dugu; izan ere, mikologian aritzen den jende gehienak, zaletasunaz gain, natura zaintzea du helburu. Senda belarrak edo aromaterapia bezalako gaiak jorratzen dituzten testuak ere hona ekarriko ditugu, naturan oinarria duten teknikak erabiltzen baitituzte.

Aisialdia/Turismoa: Jendeak aisian egiten duen edo egin ahal duenari buruzko albisteak. Umeek eskolatik kanpo egiten dituzten ekitaldiei eta irteerei buruzko idatziak, esaterako, udalekuei buruzko albisteak, aisialdi taldeek antolatzen dituzten ekintzak, pailazoen edo magoen emanaldiak. Nola ez, udan jendea nora joan ohi den azaltzen duten testuak, edo bizikletaz egindako bidaia bat kontatzen duen idatzia, nekazal turismo edo eskualdeko turismoaren inguruko erreportaje eta albisteak. Joko eta jolas ezberdinen inguruko informazioa ere hemen sailkatuko dugu; adibidez, herria ezagutzeko “trivial” jolasa edo herriko jende famatu eta toki ezberdinen karta-jokoa atal honetan sailkatuko genituzke. Era berean, filatelia, musa, kartetako edozein lehiaketa edo txori kantarien lehiaketa bezalako jarduerak aisialdian sartuko ditugu, astia dugunean egin ohi diren zaletasunak direla uste dugulako.

Herritarren bizitza eta ohiturak: Atal honetan herrian egin ohi diren hainbat ekintza, herriko jendearen bizimodua, herritarrek egiten dituzten txangoak, bazkariak edo afariak, kintoak direlako edo eskola bateko ikasle ohiak direlako, Arrate izena dutelako, kale konkretu batean jaio direlako... Herrietako ohiturak, herritar arrunten bizitzaren gorabeherak (*Drogetenitturrin*, “Boteprontoan” sailean agertzen den jendeari egiten zaizkion elkarrizketak esaterako hemen sartuko ditugu, edo ...*eta*

*kitto!ko* “Gazte Kitto”-n agertzen den elkarrizketa txikia), herrietako jaiak, inauteriak, gabonetan egiten diren ekitaldiak (Olentzero edo erregeen ingurukoak), omenaldien berri ematen dituzten notiziak. Esate baterako, aspaldian Aste Santuan herrian egiten ziren ekintzak edo garai bateko jai eta tradizioei buruzko informazioa ematen duten testuak ere atal honetan sartuko ditugu. Halaber, herri txikietan nolakoa den/zen bizimodua kontatzen duten testuak ere. Askotan argazki zaharrak kaleratzen diren ataletan horrelako bitxikeriak kontatzen dira: sasoi bateko inauteriak, ezkontzak, zein familiakoak ziren protagonistak. Horrelakoetan atal honetan sailkatuko ditugu. Besteetan, aldiz, argazki zaharraren gaia beste bat izan daiteke (kirola, ingurugiroa...); orduan, dagokion epigrafean sailkatuko dugu. Halaber, iraileko aldapa edota ligatzeko kontu banalei buruzko inkesta eta testuak herritarren ohitura kategorian sailkatuko ditugu, ohitura bihurtu baita irailean iraileko aldapari buruz mintzatzea, eta gazteek ligatzeko dituzten formulak gazteen bizitza eta ohituren zati eta parte direlako. Esan beharra dago, erlijioaren eta sinesmenen inguruko albiste zein testuak ere hemen sartuko ditugula, azken finean sinesmena eta fedea ohiturei lotuta daudelako zuzenezuzenean. Beraz, norbaiten omenez egiten dituzten elizkizunak ere hemen sartuko ditugu. Orobat, norbaiti eskerrak emateko idazten diren irakurleen gutunak edo albisteak, atal honetan sailkatuko ditugu, herritarren ohitura eta bizitzari lotuta baitaude erabat, herritarren artean egiten dituzten ospakizunen ingurukoak izaten dira-eta.

*Gizarte-bizitza*: Urtebetetzeak, ezkontzak, jaiotzak, bataioak, hildakoak, herriko erroldaren informazioa ematen duten albisteak, eta baita herriko pertsonaia famatuena jaiotze edo heriotzaren efemerideak aipatzen dituzten testuak sartuko ditugu atal honetan.

*Zerbitzuak*: Zerbitzu publiko zein pribatuei buruzko testuak, farmazien, liburutegiko, kiroldegiko edo KZguneko ordutegien inguruko informazioak, eguraldi iragarpenari buruzko aurrerapena, ilargiaren aldiei buruzko gorabeherak, intereseko telefonoak agertzen diren zerrendak, beka deialdiak, oposizioak, lan eskaintza eta eskariak biltzen dituzten testuak. Era berean, arropak egiteko, janzteko, etxea garbi edukitzeko aholkuak, salerosketen ataletan agertzen diren iragarkiak edota izenen jatorria eta izenen zerrenda ematen duten oro hemen sartuko ditugu. Atal honen barne daude ere, denbora-pasak, txisteak eta lehiaketak; aldizkariak aisialdirako eskaintzen dituzten zerbitzuak direnez, zerbitzu gisa hartuko ditugu eta gaia definitzerako orduan hemen sailkatuko ditugu. Efemerideak ere hemen sailkatuko ditugu. Agendetan

aipatzen diren ekitaldi guztiak item bakar bezala hartuko dira kontuan eta 4.15 epigrafean sartuko dira, *agenda* deritzon epigrafean.

Beste: Aurreko ataletan sartu ezin ditugun gizarte-gaien inguruko testuak.

Gizarte-gaien baitan, hamahiru azpi-atal hauek bederatzi multzotan birsailkatu ditugu, datuen dispersioa saihesteko eta emaitza esanguratsuagoak lortzeko. Horretarako, elkarrekin zerikusia duten gaiak multzo berean bildu ditugunez, honako kategoria hauek erabili dira azken emaitzetan:

### **3.1-Taldeak.**

### **3.2-Gizarte laguntza/arazoak.**

**3.3-Lanak:** Lanen baitan **herrilanak** eta **etxebizitzaren** gaia sartu ditugu, gehienetan etxebizitzaren eraikuntzarekin zerikusia duten testuak direlako.

### **3.4-Hezkuntza.**

### **3.5-Osasuna.**

**3.6-Ingurumena:** Multzo honetan **ekologia**, **natura**, **trafikoa** eta **garraioak** sartu ditugu, azken biek ingurumenean duten eragin nabarmena dela-eta.

**3.7-Gizarte ohiturak:** Atal honetan, **aisialdia**, **herritarren bizitza**, **ohiturak** eta **gizarte bizitza** bildu ditugu, hirurek dutelako zerikusi zuzena gure gizartean ditugun ohiturekin eta, kasu honetan, herri ezberdinetako gizarte ohiturekin.

### **3.8-Zerbitzuak.**

### **3.9-Beste.**

**4. KULTURA:** Sail honetan kultura eta ikuskizunen inguruko berriak agertuko dira, gaiaren arabera sailkatuak.

Antzerkia: Antzerkiari buruzko testuak, kritikak edo antzerkiko protagonistei eginiko elkarrizketak. Herriko antzerki tailerrak egiten duen matrikulazio kanpainaren inguruko informazioak ere, hemen izango luke bere lekua. Txotxongiloen eta mimoen ikuskizunak antzerkiaren barnean sartuko ditugu, antzerkiak dituen ezaugarri oso antzekoak dituztelako.

Musika: Antzerkirako aipatutakoak atal honetarako balio du, baina musikaren alorrean. Musika eskolei buruzko testuak, matrikulazioa, ekitaldiak eta kontzertuak, musika taldeak, bandak, dj-ak eta musika gai nagusia izanik idatzitako testu guztiak.

Dantza: Dantzaren inguruko testuak. Herriko dantza taldeen inguruko idazkiak, elkarrizketak, balet edo dantza ikastaroei buruzko testuak.

Pintura/Marrazkigintza: Pintura eta marrazkigintza gai nagusia duten testuak. Herrietako pintura eskolei buruzko albisteak. Graffitiak ere diziplina honen barnean sartuko ditugu; teknika ezberdina erabiltzen bada ere, pintatzeko era bat delako. Halaber, komikia marrazkigintzaren barnean sartuko litzateke.

Eskultura: Eskulturari buruzko testuak.

Artisautza/Eskulanak: Edozein artisau-lan eta eskuz egindako lanei buruzko testuak. Zeramika, larrua lantzeko tailerrak, grabatuak, damaskinatuak, eskulan ezberdinen erakuste kontuak, tailerrak, graffitiak, egur-lanketa... beti ere, testuan agertzen direnak esku-beharrak badira.

Arte-ondarea eta historia: Elizak, gazteluak, dorretxeak, aztarna arkeologikoak. Bertan gertatutako pasadizoak, dauden errelikia eta ondareak, antzinako liburuak, dokumentuak edo gutunak edota aztarna arkeologikoei buruzko testuak. Halaber, herri bakoitzeko historiari aipamena egiten dioten idatziak eta hitzaldiak ere, epigrafe honetan sailkatuko ditugu.

Gastronomia: Sukaldaritza edo janariarekin zerikusia duten testuak zein errezetak ere hemen sartuko ditugu. Errezeta bakoitza item bakar moduan konputatuko da.

Bertsolaritza: Bertso saio, bertsolari, bertso txapelketa eta ikastaroei buruzko aipemanak edota bertsoak batzen dituzten testuak.

Literatura/liburuak: Idatzizko zein ahozko literatura (esamoldeak, esaerak, ipuinak eta txistek) batzen dituzten idatziak. Literatura eta liburuen inguruko testuak, liburuen azokei buruzko testuak (Ermuko eta Eibarko liburu eta disko azoken inguruko idatziak ere hemen sartuko ditugu, nahiz eta literatura eta musika landu). Literatura lehiaketei buruzko berriek ere hemen izango dute euren tokia.

Zinea/Telebista/Irratia/Prentsa: Zineari, telebistari, irratitari edo prentsari buruzko testuak. Edozein kasutan, herriz gaindiko komunikabideei buruzko informazioak jasoko dira atal honetan, herri komunikabideei buruzko testuek epigrafe propioa baitute, 3.12 *Herri komunikabideak* alegia. Beraz, zine zuzendari, irradi aurkezle edo telebistako aurkezle bati egindako elkarrizketa (esaterako, ETB1-eko Basetxea lehiaketan parte hartu duen eibartarrari jasotakoa), bai programazio edo ikuskizunak berri ematen dituzten albisteak edota zinea eta herriz gaindiko telebista, irratia eta prentsa gaitzat hartuta ematen diren berriak edo datuak. Pelikulei buruzko kritikak edo gomendioak ere hemen sailkatuko ditugu. Herritik kanpoko irradi, telebista, prentsa eta zineak oro har teknikoki nola funtzionatzen duten azaltzen duten testuak ere, kulturaren azpi-atal honetan sartuko ditugu (adibidez, Euskadi Irratian lan egiten duen

elgoibartar bati buruzko testua). Diaporama, bideo-emanaldiak eta bideo-forumak ere epigrafe honetan sartuko ditugu, irudi ezberdinak eta musika uztartuz muntaia egiten delako.

Herri komunikabideak: Herriko aldizkari, telebista, irrati zein hedabide elektronikoen inguruko albisteak, edozein hizkuntzatan idatzita daudela. Hots, kutsu lokala, herrikoa, gertukoa, gure kasuan Deba Barreneko herriekin zerikusia duten komunikabideei buruzko testuak. Herri komunikabideen urteurrenak, inaugurazioak eta horrelakoak ere epigrafe honetan sartuko dira. Adibide bezala dugu, *Pil-pilean* Soraluzeko aldizkariak bosgarren urteurrena bete duela.

Argazkigintza/Kartelgintza: Kartelgintza edo argazkigintza gai nagusi duten testuak. Esate baterako, kartel edo argazki lehiaketan inguruko testuak, argazkigintza ikastaroei buruzkoak, erakusketak. Nola ez, logotipo eta pegatina diseinuei buruzko testuak, kartelak egiteko teknika oso antzerakoak erabiltzen direlako. Sarri askotan kartelen diseinuak pegatina formatura pasa ohi dira. Halaber, diapositiben inguruko testuak ere hemen sartuko ditugu, argazkilaritzaren beste alor bat delako.

Euskara: Euskara hizkuntza bezala testuaren gai nagusia denean. Idazti hauen erakusle dira, Euskaltzaindiaren jarduera, euskalduntzeko politika, euskara bultzatzeko ekitaldi eta ekimenen berri eskaintzen dizkigutenak. Euskara helburu izanik, euskaltegiatiko testuak, datuak eta matrikulazio kanpainen inguruko albisteak hemen sartuko ditugu. Halaber, euskaltegiek klasetik kanpo, euskara sustatzeko egiten dituzten ekimenak, AEK-k bi urtean behin antolatzen duen *Korrikaren* inguruko informazioa edo euskararen aurkako erasoen berri ematen dituztenak.

Agendak: Musika, antzerkia, literatura, dantza edo beste edozein kultur adierazpen lotzen dituen ikuskizunei buruzko testuak, edo liburu eta disko azoka, baita kultura arloko hainbat ekintza desberdin aipatzen dituzten testuak ere. Esaterako, liburutegietan antolatzen diren ekitaldiak zein agendan aipatzen diren ekitaldi kultural ezberdinak hemen sailkatuko ditugu gai moduan. Kultur agenda osoa item bakar gisa hartuko da, aurretik kazetaritza-generoen atalean egin den bezala. Orobat, artista baten erakusketa edo obra, artelan eta diziplina ezberdinek (pintura, eskultura, zeramika eta argazkigintza) osatzen badute, hemen sailkatuko dugu.

Beste: Goian definitu ditugun kategorietan, sailkatu ezin izan ditugun kulturaren inguruko albisteak.

Gizarte-gaien atalean egin dugun bezala, kulturaren baitan sortu ditugun hamasei kategoria horiek zortzi multzotan klasifikatu ditugu datuen sakabanaketa hain handia izan ez dadin eta emaitza sendoagoak ateratzeko. Azken emaitzak zortzi bloke horiek kontuan hartuz atera dira:

**4.1-Arte eszenikoak:** Eszenatokian egiten diren diziplinak bildu ditugu multzo honetan, **antzerkia, musika eta dantza** alegia.

**4.2-Arte plastikoak:** Kategoria honen baitan **pintura, eskultura, artisau** eta **eskulanak, arte ondarea, argazkigintza eta kartelgintza** sailkatu ditugu.

**4.3-Gastronomia.**

**4.4-Literatura:** **Liburuak** eta **bertsolaritza** sartu ditugu, idatzizko eta ahozko literatura bildu nahi izan dugulako.

**4.5-Komunikabideak:** Atal honetan **zinea, telebista, irratia, prentsa** eta **herri komunikabideak** sailkatu ditugu, guztiak baitira komunikabideak.

**4.6-Euskara.**

**4.7-Agenda.**

**4.8-Beste.**

**5. KIROLA:** Arlo honen inguruko testu guztiak, gaiaren arabera sailkatuko dira:

Futbola.

Atletismoa/Krossa/Maratoia.

Eskubaloia.

Saskibaloia.

Igeriketa/Urpekaritza. Uretan egiten diren kirolak hemen bilduko ditugu, Water-poloa esaterako, kayak eta piraguak edo belaontziak, surfa eta bere azken horren kirol-aldaerak.

Arraunketa.

Txirrindularitza /Ziklo-Krosa..

Herri kirolak.

Ehiza.

Eskia.

Pilota/Zesta-punta/Erremontea.

Mendia/Eskalada.

Duatloia/Triatloia.

Xakea.

Judo/Karate eta borroka arteak.Errugbia.Automobilismoa/Motoziklismoa

Kirol agenda eta emaitzak: Kirol agendak eta emaitzak biltzen dituzten testuak sartuko ditugu atal honetan. Bestalde, boxeoa, boloak, aerobic, gimnasia erritmikoa edo squasha aipatzen dituzten berriak, gutxi direnez, hemen sartuko ditugu. Batez ere gehienetan agendetan edo testu laburretan agertzen direlako. Olinpiadak edo hainbat kirol aipatzen dituzten testuak ere epigrafe honetara ekarriko ditugu, agenden antzera, kirol ezberdinak bere baitan hartzen dituzte-eta. Kiroldegiko konponketa, ordutegi aldaketa eta horrelakoak, 3.12 zerbitzuen epigrafean sartuko dira; kirolarekin baino, bezeroari eta herriari ematen dioten zerbitzuarekin zerikusia dutela estimatzen dugu.

*Beste*: Goiko kirol kategorietan sailkatu ezin daitezkeen kirol albisteak.

Kirolen atalean ere, gizarte-gaietan eta kultura gaietan jarraitu den irizpide bera markatu da, emaitza esanguratsuagoak lortzeko asmoz. Izan ere, hemeretzi kirol bloke ezberdinetan emaitzak oso sakabanatuak lirateke. Horrela bada, kirolean bost bloke nagusi sortu ditugu eta emaitzen bost multzo horien arabera antolatu dira:

**5.1-Talde kirola**: Normalean taldeka egiten diren kirol ezberdinak sartu dira hemen. Jakin badakigu hauetako batzuk, mendia esaterako, bakarka ere egin daitekeela; guk aztertu ditugun sei aldizkarietako testuetan talde kirol moduan agertu denez, hemen sartzea iruditu zaigu egokiena. Honatx talde kirolaren baitan agertzen direnak: **futbola, eskubaloia, saskibaloia, arraunketa, mendia eta errugbia.**

**5.2-Banakako kirola**: Banaka praktikatzen diren kirol diziplinak sailkatu dira bloke honetan: **Atletismoa, igeriketa, txirrindularitza, herri kirolak, eskia, pilota, duathloia/triathloia, borroka arteak eta automobilismoa/motoziklismoa.** Txirrindularitza oro har talde kirola bada ere, protagonistak banaka agertzen dira gehienetan testuetan, hori dela eta banakako kirolaren baitan sartzea iritzi diogu egokiago.

**5.3-Ehiza+Xakea**: Ehiza eta xakeak duten kirol izaeraren inguruan zalantzak sortzen direnez, atal berean sartu ditugu biak.

**5.4-Kirol agenda eta emaitzak.**

**5.5-Beste.**



6. **GAINONTZEKOAK:** Sortu dugun gaitegi osotik kanpo geratzen diren testuak.

### **3.5 –IKERKETA FITXA**

Ikerketa fitxa *Excel* programa informatikoan landu da eta analisi unitate bakoitzari buruzko honako datuak jaso dira fitxa horretan:

Item zenbakia, aldizkariaren izena, aldizkaria kaleratzeko data (urtea eta hilabetea), jatorrizko atalaren izena, kazetaritza-generoak eta gaiak<sup>87</sup>.

Arestian aipatu bezala eta sortutako kategoria sistemari jarraituz, aldizkari bakoitzeko informazio, iritzi, literatura, komiki eta zerbitzu testuak banan-banan aztertu dira; euren tamaina ez da kontuan hartu eta bakoitza analisi-unitate bakar eta berdin bezala sailkatua izan da. Publizitatea ez da aztertu lan honetan.

Ikerketa fitxan zenbakiak eta hitzak erabiltzen dira analisi-unitate bakoitza sailkatzeko. Kazetaritza-generoak eta gaiak izendatzeko zenbakiak bat datoz sortu dugun kategoria sisteman izendatutako kategoria zenbakiekin. Beraz, kategoriak izendatzeko erabiltzen ditugun zenbakiak ez dute balio matematikorik, deiturak baino ez dira. Kategoria guztiak elkarren artean batera ezinak dira, baztertzailak: batean dagoenak ez du tokirik beste batean.

### **3.6- IKERKETAREN FIDAGARRITASUNA**

Metodo kuantitatiboan oinarrituz, tesi hau egiteko sortu den neurketa sistemaren fidagarritasuna frogatzeko, estudio pilotu bat egin da. “Edozein eskalak eta indizek, edozein neurketa-prozedurak, bi kualitate hauek izan behar ditu: fidagarritasuna eta baliagarritasuna. Horregatik, eskala edo indize berri bat egiten denean, estudio pilotu batean frogatu behar da beraren egokitasuna” (Zabaleta, 1997: 119).

Ikerketa honetako metodologiari funtzionamendu-proba ezarri zaio, kodelari independenteak erabiliz. Estudio pilotua egiteko, lau kazetari eta soziologo bat aukeratu dira. Kazetariak, kazetaritza-generoen arteko ezberdintasunak ezagutzen dituztelako eta soziologoa, bere lanean ohituta dagoelako ikerketa metodo ezberdinak erabiltzen. Soziologoa *Drogetenitturri* aldizkariko kolaboratzailea da eta kazetariak

<sup>87</sup>- Ikus lan honetako III. eranskina. (779.-781.or.) eta CDa.

Eibarko ...*eta kitto!* aldizkariko erredaktoreak. Eibarkakoak aukeratu dira bailaran egun dagoen aldizkaririk beteranoena, handiena eta langile gehien dituen delako.

Konfiantza zientifikoa bermatzen duen froga-ariketa hau burutzeko, doktoregai honek kodelari independenteak prestatu ditu. Kodelari hauek bildu eta metodologia azaldu zaie froga ariketaren helburua zein den zehaztuz, eta hainbat adibide praktiko egin ondoren, kodelariek bere lanari ekin diote.

Froga ariketa, honako pausu hauek jarraituz gauzatu da 2005eko urtarrilean:

-Azaldutako metodologia ulertu eta ariketa praktikoak egin ondoren, kodelarien artean sei aldizkari banatu dira. Aldizkariak, 2004ko urtarrileko azken astekoak izan dira, ikerketa bera hasi aurretik, autore honek ale berberak aukeratu baitzituen froga egiteko. Aldizkari guztiak doktore-tesi honetan aukeratutako laginaren baitan erabili eta aztertu dira. Kodelariei emandako aldizkariak originalen fotokopiak izan dira.

-Kodelari bakoitzak berari ausaz suertatu zaion aldizkari bat aztertu du lehenengo txanda batean. Guztiak elkarrekin aritu dira gela berean eta denbora antzekoa erabiliz. Bigarren txanda batean, lau horietako bi kodelarik beste aldizkari bana aztertu dute.

-Ikerketa-fitxetan ezarri dituzte metodologia honetan agertzen diren kodeak, analisi-unitate bakoitzak iradokitzen zienaren arabera koderik aproposena aukeratu.

-Guztira, lau kodelariek 420 kodifikazio-erabaki hartu dituzte estudio pilotu honetan.

-Froga zuzentzeko, kodifikazio erabaki guztiak hartu dira kontuan eta guk egindako kodifikazioen emaitzekin alderatu dira. Ondoren, Hoslti-ren<sup>88</sup> fidagarritasun formula aplikatu dugu.

Horrela, ikerketarako sortu den kategoria sistema eta item bakoitza neurtzeko modua egoki eta fidagarri direnentz frogatu da. Izan ere, “fidagarritasuna eduki-analisiaren gako-kontzeptua da. Ikerketa bera zenbait aldiz errepikatuko balitz emaitza berdinak lortuko liratekeela esan nahi du fidagarritasunak. Beste era batera esanda, metodo hori fidagarria dela. Kodelarien arteko fidagarritasuna nolakoa edo zenbaterainokoa den jakiteko, froga bat egiten da, eta froga hori zenbait metodo erabiliz egin daiteke”. (Zabaleta, 1997:225).

<sup>88</sup> - Holsti, O. (1969): *Content Analysis for the Social Sciences and Humanities*, Reading (Mass.), Addison-Wesley.

Guk erabili dugun Holsti-ren fidagarritasun formularen, kodelarien arteko adostasuna neurtzeko, honako formula hau proposatzen da:

$$\text{“Fidagarritasuna : } \frac{2 M}{N_1+N_2}$$

Non:

M = Bi kodelariak ados daudeneko kodifikazio-erabakien kopurua.

N<sub>1</sub> = Lehen kodelariak – K<sub>1</sub> – egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

N<sub>2</sub> = Bigarren kodelariak – K<sub>2</sub> – egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua”.

(Zabaleta, 1997: 226).

Gure fidagarritasun frogan erabilitako ekuazioa honela planteatzen da, banan-banan kodelari bakoitzak egindako froga ariketa guk egindakoarekin alderatuta:

- Soraluzeko *Pil-pilean* hamabostekariko 83. alearen froga ariketaren emaitzak:  
M = Bi kodelariak ados daudeneko kodifikazio-erabakien kopurua kasu honetan, 64koa da.  
N<sub>1</sub> = Lehen kodelariak egindako kodifikazio-kopurua 70ekoa.  
N<sub>2</sub> = Bigarren kodelariak egindako kodifikazio-kopurua 70ekoa.

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2 M}{N_1+N_2} = \frac{2 \times 64}{70 + 70} = \frac{128}{140} = 0,91 = \underline{\underline{\% 91}}$$

- Elgoibarko *Barren* astekariko 474. alearen froga ariketaren emaitzak:  
M = 90  
N<sub>1</sub> = 96  
N<sub>2</sub> = 96

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2 M}{N_1+N_2} = \frac{2 \times 90}{96 + 96} = \frac{180}{192} = 0,94 = \underline{\underline{\% 94}}$$

- Ermua eta Mallabiko *Drogetenitturri* hilabetekariko 109. alearen froga ariketaren emaitzak:  
M = 71  
N<sub>1</sub> = 76  
N<sub>2</sub> = 76

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2 M}{N_1+N_2} = \frac{2 \times 71}{76 + 76} = \frac{142}{152} = 0,93 = \underline{\underline{\% 93}}$$

- Eibarko ... *eta kitto!* astekariko 465. zenbakiaren froga ariketaren emaitzak:

$$M = 79$$

$$N_1 = 84$$

$$N_2 = 84$$

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2M}{N_1+N_2} = \frac{2 \times 79}{84 + 84} = \frac{158}{168} = 0,94 = \underline{\underline{\% 94}}$$

- Debako *Berriketan* hilabetekariko 65. alearen froga ariketaren emaitzak:

$$M = 30$$

$$N_1 = 32$$

$$N_2 = 32$$

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2M}{N_1+N_2} = \frac{2 \times 30}{32 + 32} = \frac{60}{64} = 0,94 = \underline{\underline{\% 94}}$$

- Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekariko 26. zenbakiaren froga ariketaren emaitzak:

$$M = 60$$

$$N_1 = 62$$

$$N_2 = 62$$

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2M}{N_1+N_2} = \frac{2 \times 60}{62 + 62} = \frac{120}{124} = 0,97 = \underline{\underline{\% 97}}$$

Formularen emaitzen arabera, ikerketarako erabili dugun sistema fidagarria dela esan daiteke, froga egin duten kodelari bakoitzaren eta gure artean %90etik gorako fidagarritasuna baitago; kodelari independenteen emaitzak bataz beste, **%93,8an** etorri dira bat gure emaitzekin. Ondorioz, guk ikerlan honetarako sortu dugun kategoria sistema fidagarria da. “Metodologok, kodelarien artean gutxienez %90eko fidagarritasun-portzentajea lortzea kontsideratzen dute egokia”. (Zabaleta, 1997:226).



## **4- DATUEN AURKEZPENA**



#### 4- DATUEN AURKEZPENA

Laugarren atal honetan biltzen da ikerketa honen datuen muina, Deba Barreneko sei herri aldizkarien azterketa kualitatibo zein kuantitatibotik lortutako datuen analisi sakona aurkezpena baita.

Errebista guztien analisisian jarraitu den lan-eskema bera izan da:

Lehenengo eta behin aldizkari bakoitzaren **aurkezpen** orokorra egin da eta agerkari bakoitza ikerketa epean (2000-2004) kokatu da. Aldizkariaren **historia** 2004ra arte bildu da hasierako atal honetan. Ondoren, errebisten **fitxa tekniko**en aurkezpena eta alderaketa egin da. Bertan aldizkarien ezaugarri teknikoak bildu dira eta langileei buruzko datu batzuk. Fitxa teknikoan bi daten arteko datuak erkatzen dira: alde batetik, Asier Aranguren<sup>89</sup> **1999an bildutako datuak** eta bestetik, **2004an guk bildutako datuak**. Fitxa teknikoekin batera, aldizkari bakoitzaren 2004ko balantze ekonomikoa aurkeztu da, gure ikerketa epean aldizkari bakoitzaren bolumen ekonomikoa ezagutzea interesgarria eta baliagarria izan delako, batez ere ondorioen atala osatzeko.

Sei aldizkarien ezaugarri ekonomiko eta teknikoak ezagututa, aldizkari bakoitzaren **kazetaritza-generoen datuen aurkezpena eta interpretazioa** egin da, kazetaritza-genero bakoitzaren azterketa orokorra eta urtez urteko azterketa eginez. Hots, **informazioa, iritzia, literatura, komikia** eta **zerbitzuak** banan-banan ikertu dira, bi grafikoren bitartez. Batean 2000-2004ko datu orokorren analisisa egiten da eta bestean, kazetaritza-genero bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera aztertzen da.

Gaien aurkezpena egiteko kazetaritza-generoen eredu bera jarraitu da, alegia, alde batetik **gai bakoitzaren agerpen orokorra** aztertu da eta bestetik, **gai ezberdinek urtez urte** aldizkarietan izan duten agerraldiak azaldu dira.

Azkenik, aldizkari bakoitzaren analisisa bukatzeko, **agerkari bakoitzaren ardatzak biltzen dituen laburpena** egin da, analisisian zehar jasotako daturik esanguratsuenak gogoraturaz.

<sup>89</sup>- Aranguren, Asier. (2000): “*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*” doktorego-tesia, EHU, Bilbo.







Eibarko astekaria  
474 zkia. 2004-IV-2



**SASOIAN SASOIKOA**

Urreak modu naturalaren  
mundura ekarzea  
eskatzen dute

**FIRIN FARAN**


Herritako pertsonaia  
ezagunari biografiaz  
kaleratuko dira



**GEURE GAIA**

Ikasketa teknikoetan  
nesken partehartzea  
kauditzeko ahalegina

# ...eta kitto!



## Puntaren puntako Aste Santua

**BEGIRATU  
TXORITXOARI**



Eskuratu argazki-kamera,  
melodia polifonikoa  
eta koloretako pantaila dituen  
Siemens MC60 bat

**49€** -ren truke\*

Eusketaren kontrolatutako  
botanera alia emanda.

**ROUTER  
COMUNICACIONES S.L.**

Emetel, 15. beheko  
Etxe  
Tel. 943 70 03 69  
Fax. 943 20 00 67

**Euskaltel** eko Banatzaile Ofiziale

\* Eusketaren kontrolatutako botanera alia emanda. Eusketaren kontrolatutako botanera alia emanda. Eusketaren kontrolatutako botanera alia emanda. Eusketaren kontrolatutako botanera alia emanda.



#### **4.1- ... ETA KITTO! ALDIZKARIAREN ANALISIA**

...*eta kitto!* aldizkaria 1988ko abenduan Eibarren kaleratu zen, euskara bultzatzeko, gertuko informazioa eskainiz, jendea euskaraz informazioa jasotzera ohitzeko eta profesionaleri aukera berriak emateko asmoz. Ezin ahaztu daiteke, *Arrasate Press* 1988ko abenduan ere lehen aldiz kaleratutako eta *Ttipi-Ttapa* 1989an argitaratzen hasitako aldizkariekin batera, herri-aldizkarigintzan aitzindari<sup>90</sup> izan zela ...*eta kitto!* ere. Hasierako urteetan, aldizkaria hilero kaleratzen zen, baina bost urteko ibilbidea egin ondoren, Eibarren argi ikusi zuten maiztasunean aurrera egin behar zutela eta 1992an hamabostean behin kaleratzen hasi ziren. Bi urte beranduago, 1994an astekari izatera pasa zen. Gaur egun ere, astero kaleratzen da. Egitasmoa oinarri sendoekin abiatu zen, soldatapeko langileak baitziren aldizkariaren zutabe nagusia eta langileekin batera, elkarlanean kolaboratzaile lan-talde finkoa aritzen zen.

...*eta kitto!* astekaria ...*Eta kitto!* Euskara Elkartek argitaratzen du eta astero, 7.850 ale doan banatzen dira Eibarko etxe, taberna, denda eta leku publikoetan. Gaur egun astekaria bada ere, hasierako urteetatik egoerak hobera egin du oro har. 2000-2004 tartean, urte onak bizi izan zituzten publizitateari dagokionez eta horrek eragin zuzena izan zuen auto-finantziazioan. Horri esker, langile kopurua gehitu eta produktua finkatzea lortu zen bost urte horietan. ...*Eta kitto!* Euskara Elkarteko komunikabide batzordeko koordinatzaile den Koldo Mitxelena Zumaranek dioen moduan:

*“2000-2004 urteetan, asteroko ginen eta maiztasunari eutsi diogu; publizitateak gora egitea lortu dugu, gure auto-finantziazioa igotzeko ekimenak egiten ditugu (lan bereziak, gida komertzialak...) eta horiek indartu egin direla esango nuke. Urte oso onak izan ziren 2000-2002ra bitartekoak publiziterako. Orduetik ekonomikoki atzeraldi momentu batean gaudela diote bezeroek eta beheranzko joera nabaritzen da. Guk urte horiek aprobetxatzen jakin izan ditugula azpimarratuko nuke. 1998an batez ere hasi zen aldaketa hori, gehigarriak sartzen hasi ginenean. Horrek produktua finkatu duela uste dut. Langileriari dagokionez, langile gehiago egotea lortu dugu, pertsona bat gehiago egotea. Izan ere, 2002an ...*Eta kitto!* Euskara Elkartek 10 urte bete zituen eta orduan erabaki zen web orrialdeari indar berezia ematea; buletina sortzen da eta langile berria horretan ari da”<sup>91</sup>.*

Gaur egun, diseinugile-maketatzailea (kazetaria), koordinatzailea (kazetaria), erredaktore burua (kazetaria), publizista bat eta web orrialdeko arduraduna (kazetaritza ikaslea) jardunaldi

<sup>90</sup>- Aranguren, Asier. (2000): *“Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian”* doktore-tesia, EHU, Bilbo, 389-390. or.

<sup>91</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

osoz ari dira lanean. Bestalde, beharren arabera sortzen diren lanei erantzuteko langileak dituzte baina azken horiek ez dute lan kontraturik. Horien artean, banaketak sortzen duen lan guztia bere gain hartzen duen pertsona bat dago. Era berean, publizista laguntzaile batek gehigarri eta ale berezietan lana egiten du, ale berezien kopurua nahiko altua delako eta publizitatea denborarekin lantzen delako. Bestelako lan zehatz batzuetarako (*Gida Komertziala* urtean behin kaleratzen dena, San Juanetako *Bixamona* argazki liburua urtean behin ekainean kaleratzen dena) lanean ari diren pertsonak ere, ez dira langile finkoak eta ez dute lan kontraturik.

Aldizkaria sortu zenetik gaur egunera arte egindako lanari esker, ...*eta kitto!*-k bere tokia egitea lortu du, komunikabide arloan kompetentzia handia duen Eibar bezalako herri batean. Bi egunkari (*El Correo* eta *Diario Vasco*), *KTB* telebista lokala (Vocento taldeak erosi berri duena), *Arrate Irratia* (euskara hutsez), *Cadena Ser*, *Formula Hit*, *Herri Irratia*, *Onda Cero* irratia (gaur egun ez dago) eta *Eibar* aldizkaria aritzen dira Eibarko komunikazio esparruan. Horien guztien artean euskara hutsean, ...*eta kitto!* astekariak eta *Arrate Irratiak* dihardute.

Hasierako helburuari eutsi badiote ere, argi daukate euskalgintzako eragile diren aldetik, bai euskara elkarteak zein aldizkaria zenbat eta indartsuagoa izan, orduan eta eragin eta isla handiagoa izango dutela hirian. Hori lortzeko, epe motzerako helburuak aldatuz eta egokituz joan dira: orri kopuru gehiago dituzten aldizkariak egin dituzte, profesionalizatzean aurrera egin dute, produktu berriak (*Bixamona*, *Gida Komertzialak*, *Txikitto*) sortu dituzte, jendeari produktu horiek euskaraz jasotzeko aukera emanaz. Emaitzak begi-bistakoak dira, Deba Barreneko bailaran, herri-aldizkari garrantzitsuena berau dela esan daiteke; ...*eta kitto!* da bailaran tirada eta aurrekontu handiena duen aldizkaria, langile gehien, orritsuena eta beteranoena.

### **Aldizkariko atalak**

2000-2004 bitartean, ...*eta kitto!* astekariak honako atal hauek kaleratu ditu. Kontuan hartu behar da 2001ean aldizkariaren diseinua berriro egiten dela:

**-Eskutitzak:** Irakurleen gutunak kaleratzen diren atala.

**-Danon ahotan:** Egunerokotasunean gertatzen diren albiste motzak argitaratzen diren atala. Politika kontuak, hirigintzako kontuak... besteak beste.

**-Elkarrizketa:** Zer edo zer esateko daukanari egiten zaion elkarrizketa. Izan ere, elkarrizketatua ez da zertan famatua edo ezaguna izan behar.

**-Sasoian sasoikoa:** Erreportaje moduan izenak dioen bezala, sasoiko kontuak lantzen diren atala eta beti kale-inkestarekin lotuta agertzen den saila da.

**-Auzorik auzo:** Orri bat izaten du. Eibarko auzoetan eta normalean hirigintzarekin zerikusia duten obrak eta horrelakoak argitaratzen diren atala.

**-Geure gaia:** Edozein gairi buruzko asteko erreportaje zentrala.

**-Kaleko inkesta:** Hiritar ezberdinei (lauzpabost herritarrei) astero gai ezberdinei buruz kalean egiten zaien inkesta euren iritzia eskatuz.

**-Teen-ajeak:** Gazteei buruzko informazioa argitaratzen den atala. Albiste, erreportaje eta elkarrizketaz gain, horoskopoa kaleratzen da.

**-Kirolez kirol:** Kirol informazioa lantzeko bi edo hiru orriko atala.

**-Firin faran:** Argazki-albiste, albiste labur eta elkarrizketa arinen bitartez, kultura gaiak agertzen diren saila. Normalean bi orri izaten ditu.

**-Agenda:** Hurrengo asterako agenda kulturala argitaratzen duen saila.

**-Botikak:** Hurrengo aste osorako zaintzako botiken ordutegiari buruzko informazioa.

**-Zinema:** Hurrengo asterako Eibarko zineen egitaraua.

**-Eguraldia:** Aldizkaria kaleratzen den astebururako eguraldiaren iragarpena.

**-Hildakoak/Jaiotakoak:** Aurreko hilean hil diren eta jaio direnen zerrenda.

**-Merkekitto:** Iragarki txikien salerosketa eta trukeen atala (Lan eskaintza/eskaera, lokalak, etxebizitza edo garajeen salerosketa eta alokairuak...). Orri osoa horrelako iragarki txikiez kaleratzen da ale guztietan.

#### **2000-2004 bitartean agertu eta desagertu diren beste sail batzuk:**

**-Galde debalde:** Bi hilabete inguru iraun zuen atala. Herritarrek astero herriko pertsonaia bati galderak egiteko atala. Esaterako, udaltzain buruari.

**-Eibartarren ahotan:** Hilero Eibarko historiari buruzko erreportajeak kaleratzen diren saila, beti ere eibartarren ahotik jasotako erreportajeak.

**-Iturri onetik:** Iritzi orria da. Aditu eta kolaboratzaile ezberdinen artikuluak argitaratzen den atala.

**-Erreportajea:** Sasoian sasoikoa atalaren aldaera bat.

**-Euskara:** Euskararekin zerikusia duten gaiak lantzen dituen atala.

**2000-2004 bitartean ...*eta kitto!*-n kaleratu diren gehigarriak:**

**-“Gaztekitto”:** Gazte-jendeari zuzendutako gehigarria. 2000-2004 bitartean hilean behin kaleratzen da, nahiz eta 2004ko urritik aurrera astean bi orri sartzea erabakitzen den. Eta kitto Euskara Elkarteak beti nahi izan du gazteen artean euskara bultzatzea eta baita gazte-jendeari protagonismoa emanaz eskaintza bat egitea. “Teen-ajeak” atalak beti izan du orri bat aldizkarian, baina “Gaztekitto” hilean behin kaleratzen hasten denean, gaiak ez errepikatzearren, fusionatzea erabaki zen. “Teen-ajeak” desagertu egiten da eta gazteei zuzendutako informazioa, “Gaztekitto”-n sartzen da.

**4.1.1- ...ETA KITTO! ALDIZKARIAREN FITXA TEKNIKOAK**

Lan honetan aukeratu den azterketa-epea bost urtekoa izan da, 2000-2004 bitartekoa alegia. Hurrengo fitxa teknikoetan aldiz, 1999 eta 2004ko datuak agertzen dira. Herri-aldizkariaren inguruan datu horiek jasotzen dituen lan bakarra aprobetxatu nahi izan da. Alde batetik, eskema bera jarraituz datuak eguneratzeko eta bestetik, 1999ko datuek milurteko berria hasi aurretik aldizkariaren egoera zein den ezagutzeko aukera eskaini digutelako.

	<b>1999eko fitxa teknikoa</b>	<b>2004ko fitxa teknikoa</b>
	Asier Aranguren <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian kaleratutako datuak	Asier Aranguren txantiloia kontuan hartuta, doktoregai honek eguneratutako datuak.
<b>...eta kitto!</b>	.Isasi, 39 BIS. 20600 Eibar (Gipuzkoa) Tf. 943 20 67 76	Urkizu Pasialekua. 20600 Eibar (Gipuzkoa).Tf. 943 20 67 76
<b>Herria/Eskualdea</b>	Eibar. 31.187 biztanle. Euskaldunak %46,8	Eibar Biztanleak 27.673, euskaldunak 19.732 (%71) <sup>92</sup>
<b>Argitaratzailea</b>	... Eta kitto! Euskara Elkarte	... Eta kitto! Euskara Elkarte
<b>Nortasun juridikoa</b>	Kultur Elkarte	Kultur Elkarte
<b>Zuzendaria</b>	Marijose Telleria	Koldo Mitxelena Zumaran
<b>Lehen alea</b>	1988ko abendua	1988ko abendua
<b>Maiztasuna</b>	Astekaria	Astekaria
<b>Hizkuntza</b>	Euskara hutsez, batzuk eibartarrez	Euskara hutsez, atal batzuk eibartarrez.
<b>Zabalkundea</b>	Eibar, Ermua, Soralue	Eibar
<b>Tirada</b>	7.000	7.850
<b>Prezioa</b>	Doan	Doan
<b>Formatua</b>	DIN-A4	DIN-A4
<b>Orrialdeak</b>	24	32
<b>Lan-taldea</b>	Bost soldatapean, lau egun osoz,	Bost lagun soldatapean egun

<sup>92</sup>- Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.



	bat egun erdiz. Kolaboratzaileek ez dute kobratzen.	osoko kontratuarekin eta bi egun erdiko kontratuarekin. Hamar kolaboratzaile puntual (bi paga jasotzen dituzte urtean, bata ekainean eta bestea abenduan).
<b>Edukiak</b>	Informazioa % 85. Lokala %85. Testua %80	Informazioa %79, Iritzia %7, Zerbitzuak %14
<b>Sortze arrazoiak</b>	Euskara bultzatzekoa. Gertuko informazioa eskainiz, jendea euskaraz informazioa jasotzera ohitzekoa	Euskara bultzatzekoa. Gertuko informazioa eskainiz, jendea euskaraz informazioa jasotzera ohitzekoa eta profesionalei aukera berriak eskaintzekoa
<b>Publizitatea</b>	Modulua: 2.040 pzta. Publizista komisioan. Katalogorik ez	Modulua 33€ + BEZ. Egun osoko kontratua (langileen atalean agertzen den horietako bat da) eta komisioa. Urtean publizitate bezero finkoak: 50
<b>Ezaugarri teknikoak</b>	Auto-edizioa. Azala kuartrikomia (koloretan), barrukoak bi koloretan. Hasi zuri beltzean eta egunkari formatuan hasi zen. 1992ko maiatzean DIN-A4, 94ko maiatzean koloretan azala.	Auto-edizioa. Azala kuartrikomia (koloretan), barrukoak zuri beltzean. Zuri beltzean eta egunkari formatuan hasi ziren. 1992ko maiatzean DIN-A4 formatura pasa ziren eta 1994ko maiatzean azalean kolorea sartu zuten
<b>Finantziarioa</b>	<b>Gastuak:</b> 24.252.850 pzta. <b>Sarrerak:</b> 22.692.547 pzta. <b>Diru-laguntzak:</b> 8.667.079 pzta. <b>Publizitatea:</b> 13.775.468 pzta. <b>Besteak:</b> 250.000 pzta.	<b>Gastuak:</b> 251.530,73 € <b>Sarrerak:</b> 242.045,39 € <b>Diru-laguntzak:</b> 85.419,38 € <b>Publizitatea:</b> 119.244,85 € <b>Besteak:</b> 1.800 €
<b>Tresneria</b>	4 i-Mac sarean lotuta. Faxe bai,	2 kamara digital, 3 i-mac, 3 G4,

	modema ez. Argazki laborategia bai. Telefono linea bakarra	eskanerra, kanpoko CD grabagailua, barruko CD grabagailu bat, barruko DVD grabagailua, kanpoko ZIP bat eta barruko ZIP bat, fotokopiagailu bat, inpresora bat, 2 telefono linea, fax-a, ADSL, ordenadore guztiak sarean, 3 telefono mugikor, ordenadore portatil bat
<b>Konpetentzia:</b>	<u>Irratiak:</u> <i>Onda Cero, Radio Estudio, Arrate Irratia.</i> <u>Telebista:</u> <i>KTB. Aldizkariak:</i> <i>Eibarpress eta Coliseo.</i> Oso hiri gogorra da konpetentzia mailan, bai informazio eta baita publizitatean ere	<u>Irratiak:</u> <i>Cadena Ser, Formula Hit, Herri Irratia, Arrate Irratia.</i> <u>Telebista:</u> <i>KTB. Egunkari eta aldizkariak:</i> <i>El Correo, Diario Vasco eta Revista Eibar.</i> Oso hiri gogorra da konpetentzia mailan, bai informazio eta baita publizitatean ere
<b>Oharrak</b>	Konpetentzia gogorreko hiria. Hiru irrati bertan, <i>Arrate Irratia</i> euskara soilez gainera. Baita telebista lokala ere	Eibarko euskarazko komunikazio esparruan, ... <i>eta kitto!</i> astekaria eta <i>Arrate Irratiak</i> dihardute Konpetentzia gaztelerazkoa da

...*eta kitto!* astekarian 1999-2004 bitartean izan diren aldaketek, argi eta garbi erakusten dute finkapen eta profesionalizatze prozesu bati erantzuten diotela:

- Egoitzaz egoitza ibili ostean, Urkizun handiagoa, hobe eta aldizkariaren zein euskara elkartearen beharretara egokitzen den lokala izatea lortu dute.
- Lan-taldea kohesionatu eta sendotu egin da sei urteren buruan. 1999an bost langile ari ziren (gaur egun bertan segitzen dutenak), eta 2004an zortzi langile daude. 1999an lau langilek zuten egun osoko lan kontratua eta 2004an bat gehitzen zaie. 1999an langile

bakarra ari zen egun erdiz eta 2004an bigarren bat ari da kontratu mota horren menpe. 2004an aldizkariko kolaboratzaileek diru apur bat jasotzen dute euren lanarengatik. Oro har lan baldintzek hobera egiten dute sei urtetan zehar.

- Ezaugarri teknikoei dagokionez, taulan argi ikus daiteke, poliki-poliki inbertsioak egiten joan dira, aldizkariko kalitatea hobetzeko asmoz. Diseinurako ordenagailu hobeak erosi dituzte, kamera digitalak (argazkien kalitatea dezente hobetu dutenak) eta ordenagailu guztiak sarean jarri dituzte, eguneroko lana erraztuz eta efizienteagoa eginez. Oro har, teknologia berrien trenean bete-betean sartu da Eibarko astekaria eta horrek eragin positiboa izan du produktua egiterako orduan eta eguneroko lanean. Aldizkariaren edukiei erreparatzen badiegu, informazioa hazi egin da, bestelako kazetaritza-generoak ere indartuz. Kazetaritza-generoak ikuspegi akademikotik begiratuta, oso ondo erabiltzen dira eta beraien arteko oreka mantentzen da aldizkarian, beti ere informazioa gainerako generoen artean gailenduz. Horren adibide garbia, aldizkariaren orrietan antzeman daiteke, sei urtetan aldizkariari zortzi orri gehitu dizkiote-eta.
- Orain arte esandakoa gastuetan ere nabaritzen da, sei urtetan 105.753 € gehiago gastatu baitira aldizkarian (17.594.021 pezeta gehiago). Hurrengo atalean zehatz-mehatz aztertuko dugu diru hori zertan inbertitu den 1999-2004 bitartean.
- Deba Barreneko herri gehienetan bezala, Eibarren ere biztanleria jaitsi egin da 1999tik 2004ra, 3.500 pertsonatan gutxi gorabehera. 1999ko datuekin alderatuz gero, euskaldun kopuruak nabarmen egin du gora, hogeita lau puntutan hain zuzen ere. Beraz, ...*eta kitto!* astekariaren irakurle potentzialak gero eta gehiago dira eta aldizkariaren asteroko tiradak hori bera adierazten du, 2004an 850 ale gehiago kaleratzen direlako.
- Eibarren betidanik egon da komunikabide ugari eta gehienak nagusiki gazteleraz aritzen dira. Horretan aldaketa txarrerako izan da, 1999an hiru ziren euskaraz ziharduten hedabide lokalak eta 2004an ...*eta kitto!* eta Arrate Irratia baino ez. Gero eta murriztagoa da Eibarko euskarazko esparru komunikatiboa osatzen duten hedabideen kopurua. Halere, bai batak zein besteak bere irakurlego eta entzuleriari erantzuten dio, bere espazio komunikatiboa egunez egun finkatuz.

**4.1.2- ...ETA KITTO! ALDIZKARIAREN AURREKONTUAK ETA BALANTZE EKONOMIKOAK**

<b>...eta kitto!</b>	<b>1999ko aurrekontua</b>	<b>2004ko balantzea</b>
	Asier Aranguren <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian kaleratutako datuak.	Asier Aranguren txantiloia kontuan hartuta, doktoregai honek eguneratutako datuak.
<b>GASTUAK</b>	Langileak_____ 8.842.855 pzta. Funtzionamendua_1.298.664 pzta. Inbertsioa _____ 1.733.759 pzta. Inprenta_____ 12.269.278 pzta. Zabalkundea _____ 108.294 pzta. <b>GUZTIRA 24.252.850 pzta.</b>	Langileak_____ 117.803,27 € Funtzionamendua_ 13.908,81 € Inbertsioa_____ 5.762,00 € Inprenta_____ 112.076,65 € Zabalkundea _____ 1.980,00 € <b>GUZTIRA 251.530,73 €</b>
<b>SARRERAK</b>	Diru-laguntzak__ 8.667.079 pzta. Udala _____ 4.300.000 pzta. Aldundia _____ 2.705.311 pzta. Jaurlaritza _____ 1.661.768 pzta. Propioak _____ 14.025.468 pzta. Publizitatea ____ 13.775.468 pzta. Harpidetza Salmenta Bestelako ekarpenak ____ 250.000 pzta. <b>GUZTIRA 22.692.547 pzta.</b>	Diru-laguntzak____ 85.419,38 € Udala _____ 38.895,00 € Aldundia _____ 22.050,00 € Jaurlaritza _____ 24.474,38 € Salmentak_____ 35.581,16 € Publizitatea _____ 119.244,85 € Harpidetza Salmenta Bestelako ekarpenak _____ 1.800 € <b>GUZTIRA 242.045,39 €</b>
<b>BALANTZEA</b>	GASTUAK 24.252.850 pzta. SARRERAK 22.692.547 pzta. <b>EMAITZA -1.560.303 pzta.</b> <b><u>(9.378,57 €)</u></b>	GASTUAK 251.530,73 € SARRERAK 242.045,39 € <b>EMAITZA: -9.485,34 €</b>

➤ Aurrekontu eta balantze ekonomikoen arabera, oro har Eibarko aldizkariaren gastua sei urtetan 105.753 eurotan igo da. Egoera ekonomikoa atalez atal aztertzen badugu argi eta

garbi ikusiko dugu igoera orokorra izan dela. Gainera, 1999koa pezetan eta 2004koa eurotan azaltzen direnez, merezi du gastuen atal bakoitzak zenbateko igoera<sup>93</sup> izan duen aztertzea.

➤ Gastuen atalean igoera honelako izan da sei urteotan:

Langileen gastuak **64.651,21** eurotan igo dira.

Funtzionamendu gastuak **6.102,88** eurotan hazi dira.

Inbertsio gastuek behera egin dute, **4.659,17** eurotan.

Inprenta gastuek **38.329,27** eurotan egin dute gora.

Zabalkunde gastuak **1.329,07** eurotan igo dira.

Gastuen atal guztiek egin dute gora, eta neurri batean bizitzaren garestitzearekin bat dator joera hori, baina langile eta inprenta gastuak igo dira bereziki. Langileen gastuak bikoiztu egin dira; halere, kontuan hartu behar da langileen egoera hobetu egin dela eta lan-taldea handitu. Era berean, inprenta gastuak nabarmen igo dira, aldizkarien orri kopurua handiagoa delako eta tirada apur bat handitu da-eta. Funtzionamendu gastuak ere bikoiztu egin dira sei urtetan; produktua finkatuz, sendotuz eta lan-taldea handituz doan neurrian, proiektuaren funtzionamendua ere handituz doa, beraz, bilakaeraren ondorioa dela esan daiteke. Inbertsio gastuak, ordea, ia erdira jaitsi dira, 2004rako aldizkarian egin beharreko inbertsio inportanteenak eginda baitaude.

➤ Igoera sarreretan ere antzeman daiteke, orokorrean Eibarko ...*eta kitto!* aldizkariaren sarrerek sei urtetan 36.398,89 eurotan egin baitute gora. Hona hemen diru-laguntza eta publizitate sarreraren igoeren<sup>94</sup> zenbatekoa:

Diru-laguntza guztiak **33.323,86** eurotan igo dira.

Udalak ematen duen diru-laguntza, **13.048,84** euro hazi da.

Aldundiaren diru-laguntza, **5.789,09** euro gehiago da.

Eusko Jaurlaritzak banatzen duen diru-laguntza, **14.485,93** euro gehiagokoa da.

Publizitate sarrerak **36.444,16** eurotan hazi dira.

Salmenten bitartez **35.581,16** euro gehiago lortzen dira.

Bestelako sarrerak **297,32** euro gehiago izan dira.

<sup>93</sup>- Igoera guztiak 2004ko balantzeari 1999ko aurrekontuaren kopurua kenduz kalkulatu dira, 1999ko kopuru guztiak eurotara pasatuz.


<sup>94</sup>- Igoera guztiak 2004ko balantzeari 1999ko aurrekontuaren kopurua kenduz kalkulatu dira, 1999ko kopuru guztiak eurotara pasatuz.

Gastuen atalean eman den joera bera suma daiteke sarrerren atalean ere. Erakunde ezberdinetatik jasotzen diren diru-laguntzen kopurua hazi egin da sei urtetan, baina publizitateak izan duen hazkundera benetan handia izan da. Publizitatea eta salmenten bitartez 2004an lortzen den diru kopuruak 1999ko publizitate kopurua ia bikoiztu egiten du. Argi ikus daiteke aldizkariak esfortzu handia egiten duela auto-finantziazio indizea handitzeko eta lortu ere, egin duela.

- 1999ko eta 2004ko datuei erreparaturaz, langileria eta inprenta gastuak dira aurrekontuaren zatirik handiena eramaten duten bi atal nagusiak. 2004an, ...*eta kitto!* astekarian langileen gastua aurrekontuaren %46,8koa izan zen. Inprenta gastuak %44,5era heldu ziren. Sarreretan ordea, taulan ageri diren bi urteetan argi ikusten da sarrerek bi atal nagusi dituztela: erakunde ezberdinen diru-laguntzak eta aldizkariak lortzen duen publizitate eta auto-finantzaketak. Izan ere, instituzio ezberdinen diru-laguntzek ...*eta kitto!* aldizkariaren 2004ko aurrekontuaren %33,9 estali zuten; publizitate eta sarrera propioek %61,5.

## 4.1.3 - KAZETARITZA-GENEROAK

1A. grafikoa



Kazetaritza-generoen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

1B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	INFORMAZIOA	IRITZIA	LITERATURA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
	2000-2004	2.382	217	4	427	3.030
	2000	382	45	0	83	510
	2001	393	47	0	85	525
	2002	592	42	0	88	722
	2003	469	39	1	84	593
	2004	546	44	3	89	682

Kazetaritza-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Kazetaritza-generoei dagokionez, ...eta kitto! aldizkariaren bost urteotan erabili diren kazetaritza-generoak oso finkatuta egon dira: informazioa, iritzia eta zerbitzuak landu dira nagusiki, literaturaren agerpena murriztagoa izanik. Horrek argi islatzen du, produktua bera oso finkatuta egon dela eta lan-taldean profesionalizatzeko mailak gora egin duela nabarmen. Euskara elkarteko komunikabide batzordeko koordinatzaile den Koldo Mitxelena Zumaranez, horrela definitzen du bost urteko epean aldizkariak izan duen bilakaera:

*“Gehien bat finkapen prozesua izan dela azpimarratuko nuke nik bost urteko epe hori. Alde negatiboei dagokionez, kolaboratzaile kopuruak behera egin du. Kazetaritza ikasleen kopuruak Eibarren behera egin duelako eta horrez gain, kazetaritza ikasten ari direnek gaur egun ez dutelako interes berezirik aldizkarian kolaboratzeko beste gauza askotan sartuta daudelako eta unibertsitatean ere gehiago eskatzen omen zaielako. Ondorioz, guretzat 2000-*

*2004 tartea gogorra izan da, aldaketa sumatu dugu, aldizkaria profesionalen esku geratzen ari da. Profesionalek espero baino lan gehiago egin behar dituzte eta hori igarri egiten da egunerokotasunean. Era berean, duela hamar urteko aleak eta oraingo aleak aztertzen ditugunean, argi ikusten dugu informazio askoz gehiago lantzen dugula, informazio gehiago sartzen joan izan gara urteekin batera”<sup>95</sup>.*

Guk aukeratu dugun laginaren arabera, azterketa-epean 3.030 item izan dira ikergai. Horietatik 2.382 informazioari dagozkio, 217 iritzi-itemak dira, 426 item zerbitzuek osatzen dituzte eta literaturari 4 item eskaini zaizkio

### **A) INFORMAZIOA**

Eibarko aldizkariak informazioaren aldeko apustu garbia egiten du. Urtez urteko bilakaerari erreparatu, informazio-itemek gora egiten dute etengabe eta joera bera antzematen da grafikoetan agertzen diren portzentajeetan. Lehenengo bi urteetan haziera ez da nabaritzen grafikoetan agertzen diren portzentajeetan. 2000. urtean, hirurehun eta laurogeita bi informazio-item kaleratzen dira eta 1A. grafikoan %75eko portzentajea agertzen da; 2001. urtean hirurehun eta laurogeita hamahiru informazio-itemen portzentajeak, %75ekoa izaten jarraitzen du; 2002tik aurrera, 2003an apur bat jaitsi arren, askoz nabarmenagoa da informazioaren hazkundera. Kontuan hartu behar da, bost urteko epean azertu diren hirurogei aleen artean ale bereziak egon direla, informazio kopuruan zuzenean eragin dutenak. Hau da, batz besterik ...*eta kitto!* aldizkariak hogeita zortzi orrialde kaleratzen ditu eta ale berezi horiek orri gehiago eta informazio gehiago dute. Esaterako, 2000. urteko urtarrilean “Kirolkitto” ale berezia (hogeita hamar orri) kaleratzen da eta 2000ko ekainean “San Juanetako” ale berezia (hirurogeita bi orri). 2002ko abenduan urtekaria azertu da (berrogei orri). 2003ko urtarrilean “Kirolkitto” berezia (hogeita hamabi orri) eta urte bereko azaroan, “San Andres” ale berezia (berrogeita lau orri). 2004ko ekainean “San Juanetako” ale berezia (hirurogeita zortzi orri) eta 2004ko abenduko urtekaria (berrogeita hamabi orri) azertu dira. Argi dago, joera horrek aldizkariaren bilakaerari erantzuten diola eta baita aldizkariaren helburu eta sortze arrazoiei ere. Aldizkaria, euskara bultzatzeko, gertuko informazioa eskainiz, jendea euskaraz informazioa jasotzera ohitzeko asmoarekin sortu baitzen 1988.ean. Urteekin batera, aldizkari orritsuagoak egitea eta informazio gehiago ematea ere, helburu bilakatu da.

---

<sup>95</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.



**B) IRITZIA**

Lehenengo begirada batean, ...*eta kitto!* astekarian iritziaren agerpena, informazioarena baino murrizagoa dela berehala antzematen da. Gainera, iritziaren portzentajeak urteekin beheranzko joera hartzen du, nahiz eta kopuru absolutuetan beherakada hori ez den hain nabaria. Ikus dezagun adibide baten bitartez: 2000. urtean berrogeita bost iritzi-item kaleratzen dira eta orotara, iritziaren portzentajea %9koa da. 2004an iritzi-item kopurua berrogeita laukoa da eta portzentajea, ordea, %6koa. Portzentajeak urte bakoitzean kaleratu diren item kopuru osoaren arabera kalkulatu dira eta azken hiru urteetan item kopuru orokorrak gora egin duenez, nahiz eta kopuru antzerakoak mantendu, iritziaren portzentajeak behera egin du. Hala ere, guk aztertu dugun epean, iritziari eskaintzen zaion tartea aurreko epeekin alderatuz, nabarmen jaitsi da, aurreko garaitik zetozen iritzi atal batzuk desagertuz joan baitira. Hasierako urteetan ...*eta kitto!*-n iritzi pertsonalek indar handia zuten, batez ere hilabetekaria zen garaian. Astekari bihurtu zenean, kolaboratzaile kopuruak behera egin zuen poliki-poliki, egunerokotasunak eskatzen zuen konpromiso maila handitzen joan zen heinean. 2000tik 2003ra ere, iritziaren jaitsiera sumatzen da eta estatistikoki bi edo hiruko aldea oso nabarmena ez bada ere, aipagarria da. 2004an iritziaren portzentajea baxuagoa den arren, item kopuruak aurreko urteekin alderatuz, gora egiten du. 2004an, aldizkaria egiten duen lan-taldearen baitan, hausnarketa epea irekitzen da. Epe berri horretan iritziaren presentzia gehitzeko ahalegina egiten da eta kolaboratzaile zerrenda luzea osatzen da, kolaboratzaile bakoitzak bi hilean behin baino gehiago idatzi ez dezan eta hartutako konpromisoari errazago erantzun diezaion.

**C) ZERBITZUAK**

Zerbitzuen agerpena aldizkarian inportantea da. Orotara, 427 aldiz agertzen da zerbitzu-informazioa. 1A. grafikoan agertzen diren portzentajeak, 2001etik aurrera zerbitzuen beheranzko joera adierazten dute baina item kopurua kontuan hartzen badugu, 2002an (laurogeita zortzi item) eta 2004an (laurogeita bederatzi item) zerbitzu-testu gehien argitaratzen dira, nahiz eta bi urte horietan portzentajerik baxuenak agertu 1A. grafikoan, %12 eta %13 hurrenez hurren. Zerbitzuen barruan dauden atalak arinak izateaz gain, informazio asko ematen dute eta jendearen gustukoak izaten dira. Gainera, ...*eta kitto!*-ko lan-taldeak badaki asko irakurtzen diren atalak direla eta horrelako gaiek, herrian erreferente izaten asko laguntzen dutela. Herrian jendea informazio hori irakurtzen eta begiratzen ohitu da eta bide batez, gainerako informazioa ere, begiratu eta irakurri

egiten du. “*Herri-aldizkariak euskararen erabilerarako hizkuntza normalkuntza-prozesuan lagundu egin dute, euren esparruan euskara ohiko hizkuntza bihurtu dutelako*” (Camacho 2001: 316). Zerbitzuen atal zehatz batzuk osatzeko herritarren parte hartze zuzena behar da, “Merkekitto” (salerosketa eta trukeen atala) egiteko adibidez. Horrelakoen bitartez, herritarren eta aldizkariaren arteko harremana sendotzen da eta bata bestearengandik gertuago egoteaz gain, feedback zuzena sortzen da irakurle eta aldizkariaren artean.

#### **D) BESTEAK**

Arestian aipatu bezala, literaturaren agerpena hutsala da bost urteko epean. Guztira, lau literatur item<sup>96</sup> kaleratu dira 2003 eta 2004 artean. Aurreko urteetan ez da literatura-generorik agertu guk aztertu ditugun aleetan. Hasierako urteetan ...*eta kitto!*-n gehiago lantzen zen literatura, baina 1994an astekari bihurtu zenean, informazioak berak garrantzi handiagoa hartu zuenez, literatura alde batera utzi zen. Bestalde, 2004ko azaroa eta abenduan esamoldeak<sup>97</sup> sartzen dira “Eskutitzak” atalean. Esamolde horien helburua, Eibarren sasoi batean erabiltzen zuten euskara gogora ekartzea eta berreskuratzea da.

2004ko urrian, aldizkariko lan-taldea hausnarketa epean murgilduta dagoela, literatura lantzeko “Lapikotxiki” atal berria sortzen da aldizkarian. Bertan, kolaboratzaile batek umeen inguruko literatura idazten du. Bi urteko konpromisoa eskatzen duen lana da; hiru astean behin ume baten hazkunde prozesua kontatzen duen tradiziozko kontakizun sorta da, hiztegi zehatza eta kantu bat ere dakarrena. Helburua, ahozko ondareko kantuak ezagutaraztea da, literatura eta puerikultura uztartzen dituen testu baten parte izanik, gauza ezberdinak eta bereziak eskaintzea da. Halere, guk aztertu dugun epe honetan aldizkarian literaturarik ez aurkitzeak, zirikusi zuzena dauka ...*Eta kitto!* Euskara Elkartek hilean behin kaleratzen duen beste produktu batekin, *Txikittorekin* hain zuzen ere. Hilean behin, LH-ko ikasleei zuzendutako hamasei orriko aldizkaria kaleratzen du euskara elkarteak. Aldizkariko lan-taldea argazkiak egiteaz, gaiak aukeratzeaz eta aldizkaria maketatzeaz arduratzen da. Hilabete bakoitzean herrian dauden ikastetxe ezberdinek lan bereziak (ipuinak, txistek, denbora-pasak...) egiten dituzte *Txikitton* kaleratzeko. Beraz, umeei zuzendutako informazio gehiena bertan argitaratzen denez, aldizkarian ez dago umeei zuzendutako sail berezirik. Horrek ez du esan nahi aldizkarian umeei buruzko informaziorik

<sup>96</sup>- Adibidea: “Amodiozko gutunak Itzion”. 2003ko martxoko 431. zenbakiko “Gaztekitto” gehigarrian. (16. or.).

<sup>97</sup>- Adibidea: “Afarari: berbatik beste batzuk be sortu dira: Afariketa (Esanahia eta adibideak), afariketako edo afariketarako (Esanahiak eta adibideak), afariketan egin, ibilli, jardun (Esanahiak eta adibideak). 2004ko abenduko 500. alean. (4. or.).

sartzen ez denik. Umeen joko batek izugarriko arrakasta izan badu adibidez, *...eta kitto!* astekarian kaleratuko da.

### **Kazetaritza-generoak bi hitzetan**


Laburbilduz, 2000-2004 bitartean kazetaritza-generoak oso finkatuta agertzen dira aldizkarian. Profesionalizatzeko maila igo egin da kolaboratzaileen parte hartzea jaistearekin batera eta horrek eragin zuzena izan du eguneroko jardunean, lan gehiena profesionalen esku geratu baita. Informazioaren indartzea urtetik urtera nabaritzen da, orri gehiago duen aldizkaria egitea eta informazioa gehiago ematea urteekin helburu bilakatuz. Kolaboratzaile kopuruak behera egin ahala, iritziaren atala ere ahuldu egin da, hainbat iritzi atal desagertuz. Zerbitzугunearen indartzea apala izan dela esan daiteke. Aldizkarian zerbitzuei eskaintzen zaien tokia inportantea bada ere, ehunekoetan apur bat jaitsi egin da. Literatura oso gutxi agertzen da aldizkarian, bestelako produktu batzuetan lantzen delako bereziki.

#### 4.1.3.1- Informazioa

Eibarko aldizkarian informazioa beste genero guztien artean gailentzen da. Izan ere, gure azterketa-epean informazioak %79ko portzentajea izan du. Informazio-generoen garapena hurrengo bi grafiko eta taulen bitartez azalduko dugu. Hau da, lehenengo eta behin, 2000-2004 bitartean informazio-genero ezberdinen agerpen orokorra nolakoa izan den ikusiko dugu. Ondoren, bigarren grafiko eta taulan informazio-genero bakoitzak urtez urte aldizkarian izan duen bilakaera zein izan den aztertuko dugu.

##### 4.1.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean

2A. grafikoa



Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *...eta kitto!* aldizkarian bost urteko epean.

2B. taula

	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Aipu-erreportajea	Elkarriketa	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	915	896	206	227	12	126	2.382

Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan

2A. grafikoan ageri diren portzentajeak, 2.382 informazio-itemen arabera kalkulatu dira; bost urtetan *...eta kitto!* aldizkarian lan honetarako aukeratu diren hirurogei aleetan kaleratu diren informazio testu guztien arabera hain zuzen ere.

**A) ALBISTEA ETA ALBISTE LABURRA**

2A. grafikoan oso argi adierazten da, albisteak eta albiste laburrak gainerako generoen artean nabarmen gailentzen direla, balio portzentualak oso esanguratsuak baitira. Bi informazio-genero nagusi horiek batuta, %76ko portzentajea dugu hirurogei aletan. Gainontzeko %24, argazki-albiste, erreportaje eta elkarrizketen artean banatzen da. Ez da harritzekoa, ordea, albisteak eta albiste laburrak nagusitzea; alde batetik, *“Albistea, informazio-estiloaren paradigma dela esan dezakegu, eta informazio-genero guztien oinarri”* (Díaz Noci, 2000: 121). Bestetik, albiste laburrek arindu eta erraztu egiten dutelako irakurketa eta era berean, eduki gehiago sartzeko aukera eskaintzen dutelako. *“Aldizkari guztietan, baina akaso herri-aldizkarietan modu nabarmenagoan, irakurketa erraztu egin behar zaio irakurleari, gauzak erraz eta samur irakur ditzan”* (Aranzabal, 1992: 75).

Eibarko aldizkarian, albiste eta albiste laburren portzentajea bera izanik, item kopuruari begiratuz, gehiago dira albisteak albiste laburrak baino. Horrek ez du esan nahi gainerako informazio-generoen agerpenak garrantzi gutxiago duenik. Lan honetan behin baino gehiagotan aipatu bezala, kazetaritza-generoak premiazkoak dira: *“Gaur egun, mundu osoko kazetariak bere kontakizunak genero batzuen arabera idazten dituzte. Genero horiek, beraz, konbentzio batzuk dira, molde batzuk zeinetara kazetarien istorioak egokitzen diren”* (Díaz Noci, 2000: 130). ...*eta kitto!*-k ere jarraitzen ditu molde horiek eta bertan sartzen dituen generoen arteko oreka bilatzen saiatzen da, aldizkariko ataletan oreka bilatzeko joera hori islatuz. 2001eko maiatzean, aldizkariko diseinua aldatu egiten da, baina aldizkarian agertzen diren atalak finko mantentzen dira. Izan ere, bost urteko epean, informazioa, iritzia eta zerbitzuak agertzen diren sailak oso finkoak dira eta atal bakoitzean erabiltzen diren kazetaritza-generoak ere, oso gutxi aldatzen dira. Ikus dezagun ondoren atal ezberdinetan argitaratzen diren informazio-generoak zeintzuk diren:

“Danon Ahotan” atalean, albisteak<sup>98</sup> eta albiste laburrak<sup>99</sup> nagusitzen dira, nahiz eta inoiz argazki-albisteren<sup>100</sup> bat ere agertzen den, batez ere 2001eko maiatzetik aurrera diseinu berriarekin batera. Atal horretan egunerokotasuna eta gaurkotasuna lantzen dira, politikan dauden

<sup>98</sup>- Adibidea: “Lau eibartar hauteskunde zerrendetan”. 2000ko otsaileko 304. alean. (4. or.)

<sup>99</sup>- Adibidea: “...Eibar laguntzen...”. 2000ko abenduko 337. zenbakian. (5. or.)

<sup>100</sup>- Adibidea: “Istripua herri barruan”. 2000ko abenduko 337. alean. (5. or.)

informazioak, hirigintza albisteak eta herrian gaurkotasuna duen beste edozein gai ere<sup>101</sup>. Atal finkoa da bost urteetan zehar eta bi orri izaten ditu.

“Auzorik auzo” sekzioak normalean orri bat izaten du eta Eibarko auzoetan gertatu eta hirigintzarekin lotuta dauden albisteak<sup>102</sup> izaten dira bertan nagusi. Hala ere, albiste laburrak<sup>103</sup> eta erreportajeak<sup>104</sup> ere agertu ohi dira atal honetan. “Kirolez kirol” sailean kirol anitzen inguruko informazioa lantzen da bi edo hiru orrialdetan. Bertan, albiste<sup>105</sup> eta albiste laburrak<sup>106</sup> nagusitzen badira ere, elkarrizketa<sup>107</sup> eta erreportajeak<sup>108</sup> noizean behin argitaratzen dira.

Albisteak, albiste laburrak eta argazki-albisteak kaleratzen diren beste atal finkoa, “Firin faran” saila da. Azken horretan, kulturari buruzko informazioa argitaratzen da hiru orritan. Atal berean, kulturarekin zerikusia duen pertsona bati elkarrizketa labur bat<sup>109</sup> egiten zaio, baina, albisteak<sup>110</sup>, albiste laburrak<sup>111</sup> eta argazki-albisteak<sup>112</sup> nagusitzen dira.

“Teen ajeak”, gazteei buruzko informazioa kaleratzen den orri bateko sailean ere, albisteak<sup>113</sup> nagusitzen dira baina gaiak horrela eskatzen duenean, erreportajeak<sup>114</sup> ere egiten dira.

## B) ERREPORTAJEA

Erreportajeen portzentajea argazki-albisten portzentajearen parekoa da (%9) ...*eta kitto!*-n. Hau da, hirurogei aletan berrehun eta hogeita zazpi erreportaje kaleratu dira, argazki-albisteak baino gehiago. Bataz beste, hiru erreportaje argitaratzen dira ale bakoitzeko baina kontuan hartu behar da, zenbait elkarrizketak aipu-erreportaje itxura izaten dutela eta elkarrizketa sailean badoaz ere, guk erreportaje moduan konputatu ditugula, aipu-erreportaje modura hain zuzen ere. “Sasoian sasoikoa” sailean (bat edo bi orri), sasoiko kontuak lantzen dira erreportajeen<sup>115</sup> bitartez

<sup>101</sup> - Adibidea: “Maxi Eroski berria zabaldu dute”. 2000ko maiatzeko 315. zenbakian. (4. or.).

<sup>102</sup> - Adibidea: “Azittaingo depuratoria lasten ipiñiko dabe martxan”. 2000ko apirileko 311.alean. (8. or.).

<sup>103</sup> - Adibidea: “Estaziñoko hormei aurpegixa garbitzen dihardue”. 2001eko urriko 372. zenbakian. (12.or.).

<sup>104</sup> - Adibidea: “Urkiko jaixen txanda”. 2001eko ekaineko 358. alean. (6. or.).

<sup>105</sup> - Adibidea: “Iñaki Lejarretak irabazi zuen Arrateko Mountain-Bike proba”. 2001eko apirileko 353. zenbakian. (20. or.).

<sup>106</sup> - Adibidea: “Baque taldearen nagusitasuna Goierriko Itzulian”. 2001eko iraileko 367. alean. (16. or.).

<sup>107</sup> - Adibidea: “Oso gustora nago Eibarren”, Blas Ziarreta, Eibar foball taldeko entrenatzaileari egindako elkarrizketa. 2001eko otsaileko 342. zenbakian. (17. or.).

<sup>108</sup> - Adibidea: “Arrateren bigarren taldearen benetako ordua”. 2001eko apirileko 353. alean. (19. or.).

<sup>109</sup> - Adibidea: “Antonio Irisarri argazkilaria: Ordenagailuak aukera amaigabeak eskaintzen ditu”. 2001eko urtarrileko 341. zenbakian. (22. or.).

<sup>110</sup> - Adibidea: “Asier Errasti Ikusentzuzeko II. Jaialdia Eibarren”. 2001eko azaroko 373. alean. (19. or.).

<sup>111</sup> - Adibidea: “Mintegi-Mahai ingurua”. 2001eko azaroko 374. zenbakian. (28. or.).

<sup>112</sup> - Adibidea: “Hezkuntza Esapurruko aretoa zirko bihurtuta”. 2002ko maiatzeko 397. alean. (30. or.).

<sup>113</sup> - Adibidea: “Martitzenean Betimu Untzagan grabatuko da”. 2002ko urtarrileko 381. zenbakian. (17. or.).

<sup>114</sup> - Adibidea: “Matraillako irratixa: kaleratzen, etxeratzen”. 2002ko ekaineko 402. alean. (17. or.).

<sup>115</sup> - Adibidea: “Gripea, gaixotasun bat baino gehiago”. 2002ko otsaileko 386. zenbakian. (8. or.).

eta atal hau beti kale-inkestarekin<sup>116</sup> lotzen da. Beraz, erreportajeen lantzen den gaiari buruz galdetzen zaio jendeari kalean. “Geure gaia” atalean edozein gaiari buruzko asteko erreportaje zentrala<sup>117</sup> argitaratzen da bi edo hiru orritan. Bi atal horietan lantzen diren informazioak, erreportaje moduan kaleratzen dira. Horiez gain, aurrean aipatutako elkarrizketa batzuk, erreportaje moduan<sup>118</sup> kaleratzen dira. Bestalde, beti ez bada ere, noizean behin erreportajeak kaleratzen diren beste atal batzuk ere badira aldizkarian: “Auzorik auzo” edo “Kirolez kirol” esaterako.

...*eta kitto!*-n argazki-erreportajeak ez dira asko erabiltzen. Oso momentu puntualetan eta salbuespena direla esan daiteke, hirurogei aletan lau argazki-erreportaje<sup>119</sup> baino ez direlako aurkitu.

Aipu-erreportajeak gutxi badira ere, guztira hamabi aipu-erreportaje<sup>120</sup> bost urteetan, hauen presentzia nabarmendu nahi izan da lan honetan. Elkarrizketa baten ondoren egindakoak dira, baina ezin ditugu elkarrizketarekin nahastu, aipu-erreportajeetan gertakizunek dutelako garrantzia.

### C) ELKARRIZKETA

Aztertu diren hirurogei aleotan ehun eta hogeita sei elkarrizketa kaleratu dira Eibarko astekarian. Bataz beste bi elkarrizketa aleko. Normalean, “Elkarrizketa” atalean argitaratzen diren orri bateko edo bi orriko elkarrizketak<sup>121</sup> eta “Firin faran” ataleko elkarrizketa laburrak<sup>122</sup>. Bi horiek ale gehienetan agertzen dira eta noizean behin, gainerako sailen batean argitaratzen diren elkarrizketak izaten dira. Dena dela, 3A. grafikoan urtez urteko genero bakoitzaren bilakaera zehatza aztertuko dugu.

#### Informazioa bi hitzetan

Beraz, informazioaren baitan albisteen eta albiste laburren erabilera da nagusi, eduki gehiago era irakurterazean landuz. Erreportajeak ere asko erabiltzen dira aldizkarian, gehien

<sup>116</sup>- Adibidea: “Zein da gripia pasatzeko modurik onena, ume eta nagusixendako zure eritzixan?”. 2002ko otsaileko 386. alean. (9. or.).

<sup>117</sup>- Adibidea: “Coliseoaren atea, zabaltzeko prest?”. 2002ko martxoko 387. zenbakian. (11.-12.-13. or.).

<sup>118</sup>- Adibidea: “Saharatarrak oasisik gabeko basamortuan”. 2002ko ekaineko 402 alean. (8.-9. or.).

<sup>119</sup>- Adibidea: “Mendeko azken Sanandresei agur!”. 2000ko abenduko 335. zenbakian. (14.-15. or.).

<sup>120</sup>- Adibidea: “Gema Florido geografian doktorea: Ingurune geografikoa gizakiak baldintzatzen du”. 2000ko otsaileko 304 alean. (7. or.).


<sup>121</sup>- “Unai San Martin, artista: Baillara sakon baten barruan daguan laberintua da Eibar”. 2002ko azaroko 415. alean. (12. or.).

<sup>122</sup>- “Haritz Gisasola: Askotan automatikoki marrazten dut”. 2002ko urtarrileko 381. zenbakian. (22. or.).

lantzen den hirugarren informazioa generoa baita; gainera, elkarrizketa batzuk erreportaje moduan agertzen dira. Argazki-albisteak erreportajeak beste agertzen dira ...eta kitto!-n eta gero eta gehiago erabiltzeko joera igartzen da. Elkarrizketak erreportajeak baino gutxiago agertzen dira baina ale bakoitzean batzuk beste bi elkarrizketa argitaratzen dira. Aipu-erreportajeak eta argazki-erreportajeak oso gutxi agertu dira, salbuespena direla esan daiteke. Orokorrean, Eibarko aldizkarian atalak oso definituta daude eta atal horietan erabiltzen diren generoak ere bai. Ondorioz, informazio-genero bakoitzak toki finkoa du astekarian, aztertu diren ale gehienetan eskema bera errepikatzen baita. Aldizkarian zehar kazetaritza-genero ezberdinen arteko oreka zaindu egiten da eta baita atal bakoitzean ere; diseinuari lotuta, informazio-generoen arteko oreka ere bilatzen da.

4.1.3.1.2- Informazioaren bilakaera

3A. grafikoa



Informazio-generoen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

3B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Albiste	Albiste laburrak	Argazki-albiste	Erreportaje	Elkarrizketa	GUZTIRA
	2000	135	176	4	41	26	382
	2001	184	121	17	38	33	393
	2002	185	281	62	43	21	592
	2003	186	171	22	68	22	469
	2004	228	144	101	49	24	546

Informazio-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.



Oro har, informazio kopurua hazi egiten da 2000-2004 tartean. 3B. taulan guztira atalean agertzen diren kopuruek argi eta garbi adierazten duten bezala, 382 informazio-item argitaratu dira 2000. urtean eta 2004an, 546 informazio-item kaleratzen dira. Beraz, argi dago informazioa gero eta gehiago sartzen dela aldizkarian. Koldo Mitxelena Zumaranek dioenez,

*“Oso modu naturalean eman da informazio hazkundera. 2005 urtearen hasieran aurreko aleak begiratu eta alderatu, informazio askoz gehiago sartuz joan garelako konturatu ginen.. 2004-2005 urteetan, hausnarketarako beta hartu genuen; batez ere EDITON programak diseinu aldaketa eskatzen zuelako, diseinu aldaketa egin behar genuela konturatu ginen. Kolaboratzaileen pisua gero eta txikiagoa zela ikusi genuenean eta ahalik eta aldizkari biribilena egiteko asmoz elkartu eta erabakitzen hasi ginen: nola gustatuko litzaigukeen egitea, atalak definitu eta gero, egingarriak zirenak atera genituen, besteak alde batera utziz. Diseinu aldaketa egin dugunean benetan konturatu gara informazio asko sartzen dugula. Oso deigarria izan da, atal berria sortu dugu (2005ean), aspaldi sortu nahi genuena, aldizkariak hamar urte bete zituenetik baina atzeratzen joan dena eta 2005ean sortu dena, “Orain dela 10 urte”. Hori egiten hasten garenean, konturatzen gara orain dela hamar urteko aldizkariak orri gutxiago izateaz gain, testu kopuru txikiagoa zuela”<sup>123</sup>.*

### **A) ALBISTEA**

Arestian aipatu bezala, albiste eta albiste laburren kopurua altuagoa da, gainerako informazio-generoekin konparatu eta joera hori, urtero mantentzen da. Urtetik urtera, ordea, genero guztietan aldaketak izan direla ikus daiteke 3B. taulan. Esaterako, albisteen item kopurua urteekin hazi egiten da, nahiz eta 3A. grafikoan agertzen diren portzentajeek ez duten joera bera adierazten urtero, baina horrek guztira urte bakoitzean kaleratzen den item kopuruarekin du zerikusia. Zenbat eta handiagoa izan item kopurua orotara, orduan eta portzentaje baxuagoak ateratzen baitira. Kontuak kontu, albisteen kopurua poliki-poliki haziz joan da, 2001 (%47) eta 2004an (%42) portzentajerik altuena lortuz. Baina, 2003an (ehun eta laurogeita sei item) eta 2004an (berrehun eta hogeita zortzi item) informazio-item kopuru gehien kaleratuz. Albisteetan bilakaera izan da nahiz eta atalak ez diren horrenbeste aldatu. Argi dago, ...eta kitto!-k ibilbide luzea egin duela eta hasieran jendea euskaraz irakurtzen ohituta ez bazegoen ere, gaur egun eta guk aztertu dugun epe horretan, Eibarko jendearengan euskaraz irakurtzeko ohitura sortuz joan

---

<sup>123</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

da. Beraz, hasierako urteetan albiste laburrak gehiago ziren arren, gaur egun albisteak gehiago dira aldizkarian, jendea ohitu baita albisteak eta genero landuagoak euskaraz irakurtzen.

### **B) ALBISTE LABURRA**

Albiste laburren kopurua ere altua da Eibarko astekarian. Hala ere, hauen bilakaera albisteen kontrakoa da. Urteekin jaitsi egin dira: 2004 urtea da albiste labur gutxien kaleratzen den urtea eta 2002a, aldiz, albiste labur gehien ikusten duena. Kontuan izan behar da, bi urte horietako (2002 eta 2004) abenduan urtekariak kaleratzen diren aleak aztertu ditugula. 2002ko urtekarian albiste laburren kopurua, argazki-albisteen kopurua baino nabarmen altuagoa da. 2004an, ordea, abenduko urtekarian argazki-albisteak kaleratzen dira batez ere. 3B. taulak argi adierazten du bi generoen arteko inbertsioa kopuru absolutetan. Orobat, ezin ahaztu daiteke Eibar bezalako herri batean informazio asko sortzen dela eta informazioa aldizkaritik kanpo lagatzea oso zaila izaten dela, zer sartuko den eta kanpoan zer geratuko den erabakitzea batere erraza ez delarik Beraz, askotan informazio asko era laburrean sartzten da. Horrez gainera, 2004ko urrian aldizkariko orri kopurua gehitzeak informazio gehiago sartzeta ahalbideratu du.

### **C) ARGAZKI ALBISTEA**

Argazki-albistek urteekin protagonismo handiagoa hartu dute aldizkarian. Izan ere, irudien indarrak eta testu txikiak irakurketan lagundu eta irakurketa bera arindu egiten du. Gogoratu beharra dago: *“Foto-albistean, garrantzitsuena irudia da, irudiarekin nahiko da, eta testua lagungarri bat besterik ez da”* (Díaz Noci, 2000:130). 2000, 2001 eta 2003an ez dira argazki-albiste asko agertzen, baina 2002 eta batez ere 2004an argazki-albisteen kopurua hazi egiten da bi arrazoi nagusi direla-eta: alde batetik, 2004ko abenduko urtekarian argazki-albistek duten protagonismoarengatik eta bestetik, 2004ko irailetik aurrera lan-taldean egiten den hausnarketaren ondorioz, aldizkarian argazki-albiste gehiago sartzeta erabakitzen delako.

### **D) ERREPORTAJEA**

Erreportajeen kopuruak oro har goranzko joera adierazten du. Guztira, berrehun eta hogeita hemeretzi erreportaje kaleratu dira (erreportajeak, aipu erreportajeak eta argazki-erreportajeak barne) guk aztertu ditugun aleetan. 2001ean kopururik baxuena agertzen da, hogeita hamazortzi erreportaje hamabi aletan eta 2003an aldiz, erreportaje kopuru altuena, hamabi aletan hirurogeita zortzi erreportaje. Azken urte horretan, “Sasoian sasoiko” eta “Gure gaia” ataletan

doazen erreportajeez gain, “Kirolez kirol” eta “Teen-ajeak” sailetan, ohi baino erreportaje gehiago kaleratu izan dira. 2003ko urtarrileko alea, kirolari eskaintzen zaion ale berezia da. Bertan, hogeireportaje kaleratzen dira. Bestalde, “Erreportaia” atala, noizean behin agertzen dena eta beharren arabera sartzen dutena, normalean baino sarriago agertzen da 2003 urtean. 2004ko ekaineko San Juanetako ale berezia aztertu dugu eta ale horretan soilik, bost erreportaje daude.

### **E) ELKARRIZKETA**

Elkarrizketek oro har, beheranzko joera adierazten badute ere, nahiko egonkor mantendu dira bost urteetan eta aleko bi elkarrizketa kaleratu dira gutxi gorabehera. Arestian aipatu dugun legez, “Elkarrizketa” eta “Firin faran” ataletan bi elkarrizketa finko agertzen dira ia beti. 2001ean, atal horietako elkarrizketez gain, “Kirolez kirol” atalean eta “Gazte-Kitto” gehigarrian elkarrizketa gehiago aurkitu ditugu. Horrez gain, ale batzuetan “Elkarrizketa” saila bikoitza izan da, esaterako 2001eko azaroan eta urte bereko irailean ere. Testuari elkarrizketa edo erreportaje formatua ematea, momentuan erabakitzen du lan-taldeak. Izan ere, erreportaje guztiak elkarrizketa baten ostean sortzen dira eta egiten diren elkarrizketa guztiak formatu berarekin sartzeari larregizkoa iruditzen zaie bertako langileei. Hogeita zortzi orriko aldizkarian zortzi elkarrizketa edo zortzi erreportaje sartzeari desorekatua dela irizten diote. Azken finean, oreka mantentzen saiatzen dira informazio-genero ezberdinen artean. Orobat, gertatu ohi zaie, argazkiak direla eta, elkarrizketa testuari erreportaje formatua eman behar izatea. Adibidez, psikologo batek bere hitzaldia eskaini aurretik, informazioa eman badie, baina hobe irizten diote hitz egin duen gaiari buruzko argazkiak sartzeari, psikologo beraren argazkia sartzeari baino.

Erabaki horrek, testua elkarrizketa formatutik, erreportaje formatura ekartzea eskatuko luke. Honelako erabakiek argi erakusten dute lan-taldearen baitan dagoen koordinazioa eta lan egiteko modua, erredakzio gela berean aritzen baitira profesional ezberdinak eta unean uneko erabakiak denon artean modu ordenatu batean hartzeko bide ematen du, produktuan oreka hori islatuz.

#### **Informazioaren bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, orokorrean urtetik urtera informazioa hazi egiten da Eibarko aldizkarian eta informazio-genero batzuk urteekin indartu egiten dira: albisteak, argazki-albisteak, erreportajeak.


Elkarrizketak eta albiste laburrak, ordea, mantendu edo gutxituz joan dira denborarekin. Urtean zehar aldizkariak kaleratzen dituen ale bereziek zuzenean eragiten dute urtez urteko informazio-genero ezberdinen kopuruan. Urteak aurrera egin ahala, irakurtzeko luzeagoak diren generoak gehiago agertzen dira, irakurleak hasieran ez bezala, dagoeneko ohituta daudelako albisteak eta genero landuagoak euskaraz irakurtzen. Hala eta guztiz ere, ale guztietan informazio-generoen arteko oreka mantentzeko ahalegina egiten da. Lan-taldea era profesionalean idazgela berean aritzeak oreka bilatzen laguntzen du, eguneroko erabakietan guztiek parte hartzen dutelako eta erredaktoreen arteko harremana zuzena delako.

**4.1.3.2.- Iritzia**

Bost urtetan ...*eta kitto!* aldizkariak iritziari eskaini dion portzentajea orotara %7koa izan da. Jakina da, informazioa eta zerbitzuak baino gutxiago landu dela epe horretan iritzia. Hala ere, iritzi-generoek oso leku eta espazio finkoa daukate aldizkarian guk aztertu dugun epean. Hurrengo bi ataletan iritziaren bilakaera nolakoa izango den aztertuko dugu. Alde batetik, 2000-2004 bitartean iritzi-generoek aldizkarian izan duten agerpen orokorra nolakoa izan den ikusiko dugu. Bestatik, iritzi-genero bakoitzak urtez urte izan duen garapena azaltzeri ekingo diogu.

**4.1.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean**

4A. grafikoa



Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, ...*eta kitto!* aldizkarian bost urteko epean.

4B. taula

	Artikulua	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutunak	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	6	59	33	11	217

Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Behin baino gehiagotan aipatu dugu, azterketa-epean Eibarko astekarian iritziari eskaintzen zaion espazioa oso finkoa dela. Sail konkretu batzuetan lantzen da iritzia: “Eskutitzak”, “Danon ahotan”, “Kaleko inkesta” eta 2004ko urritik aurrera “Firin faran” atalean ere. 4A. grafikoak eta 4B. taulak argi erakusten dute, bost urtetan irakurleen gutunak gainerako iritzi-generoen artean gailentzen direla. Kontuan izan behar da “Eskutitzak” atalean irakurleen

gutun bat baino gehiago kaleratzen dela normalean eta gutun bakoitza item indibidual gisa konputatu dugula. “Kaleko inkesta” atalean ordea, bost iritzi jasotzen badira ere, guztia item bakar bezala hartzen dugu. Artikuluak eta zutabeak ere, item indibidual bezala zenbatu dira.

### **A) IRAKURLEEN GUTUNAK**

Hilabetekaria zen sasoiarekin alderatuta, 2000-2004 bitartean iritzia gutxiago landu da Eibarko aldizkarian. Dena dela, irakurleen gutunak betidanik sartu izan dira errebistan: ondo funtzionatu duen atala izateaz gain, irakurle eta aldizkariaren artean harreman zuzena lortzen lagundu duelako. Irakurleen gutunen bitartez, egunkari eta irakurleen arteko harreman esplizitua lortzen da. ‘Zuzendariari gutunak’ atalean, irakurleek gai ezberdinen inguruko iritzia helarazten diote euren egunkariari, zuzendariari bidalitako gutun labur baten bitartez. Gutunak, argitalpenak dituen irakurle motaren adierazle dira<sup>124</sup>. Era berean, aldizkariak, irakurleei euren iritziak plazaratzeko lekua egin nahi izan die beti eta bertan atal bat uzten zaie irakurleek bete dezaten. Kaleratuko diren gutunek baldintza batzuk<sup>125</sup> bete behar dituzte eta erredakzioak baldintza horiek betetzen ez dituzten gutunak ez kaleratzea erabaki dezake. Irainak agertuz gero, lehenengo idatzi duen pertsonari deitu eta berarekin konpontzen saiatzen dira.

Argitalpenaren maiztasunak zerikusi zuzena dauka irakurleen gutunak kaleratzerako orduan, gaiak ez baitira zaharkituta geratzen, hilabetekariaren kasuan bezala. Bestalde, asterokoa izanik, aukera ematen du gai baten inguruan norbaitek aurreko astean idatzi duenari erantzuteko, gaia urrunegi geratu gabe. Esaterako, 2003ko urriko 451 alean “Josuren gutunari erantzuna” eskutitzean, irakurle batek aurreko astean beste irakurle batek Elgoibarren gazteen artean asteburuetan gertatzen diren ezbeharri buruz idatzitako gutunari erantzuten dio. Oro har, gai guztien inguruko gutunak<sup>126</sup> idatzi dira 2000-2004 epean Eibarko astekarian.

### **B) ARTIKULUA**

Artikuluak apurka-apurka desagertuz joan dira, zutabeei lekua eginez. ... *eta kitto!*-n artikuluak ez dira inoiz iritzi-generoen artean asko landu. Izan ere, artikuluak izan zitezkeenak iritzi-zutabe bilakatuz joan dira. Gure azterketa-eparean aurretik artikulua gehiago kaleratu ziren;

---

<sup>124</sup>. “Las cartas de los lectores suponen una manera explícita de contacto entre el periódico y los lectores. En la subsección ‘Cartas al Director’ los lectores exponen a su periódico su propio punto de vista acerca de diversas cuestiones a través de una breve misiva dirigida al director del medio. Las cartas son un indicador del tipo de lectores que tiene una publicación” (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 164).

<sup>125</sup>. Gutun guztiak sinatuta jaso behar dira, egilearen izen-abizenekin eta baita nortasun agiriaren zenbakiarekin. Testuen luzera 20-25 lerrokoa izango da gehienez. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango du argitalpenak. Ez da testu iraingarriarik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gainera erantzukizunik.

<sup>126</sup>. Adibidea: “B eredua gutxiesten duten gutziei zuzendua”. 2000ko otsaileko, 304. alean. (3. or.). “Atentatuen gaitzespena”. 2003ko otsaileko, 426. zenbakian. (3. or.). “Zorionak Antzerki Jardunaldien antolatzaileei”. 2003ko martxoko 431. alean. (3. or.). “Korrika 13 Eibarren”. 2003ko apirileko 435. zenbakian (3. or.).

besteak beste, guk aztertu dugun epean “Iturri onetik” saila desagertu egin delako (2000ko otsailean azken artikulua<sup>127</sup> kaleratzen da eta sail horretan lantzen ziren batez ere artikulua). Urteetan argitaratu den iritzi orria izan da, pertsonaia ezberdinek eurek nahi dutenari buruz idazteko aukera izan dute, baina kolaboratzaile falta dela eta, desagertuz joan da atal hori.

### **C) INKESTA**

Kaleko inkestak hasierako urteetatik kaleratu dira Eibarko aldizkarian. Guk aztertu dugun epean, “Kaleko inkesta”-n bost pertsonen iritziak jaso dira ale bakoitzean eta “Kaleko inkesta”, epe horretan “Sasoian sasoikoa” atalarekin lotu izan da. Adibidez, “Sasoian sasoikoa” sailean “Hurtzaindegia zabalduko dute Bittor Sarasketan”<sup>128</sup> erreportajea kaleratzen da eta “Kaleko inkesta” atalean, “Hurtzaindegixen biharra ikusten dozu herrixan?”<sup>129</sup> galderari erantzuten diote herritarrek. Bestalde, 2000ko otsaila, martxoa eta apirilean kaleratzen den “Galde Debalde” saila, inkesta moduan hartu dugu. Oso gutxi iraun zuen atal honek (bi hilabete inguru). Herrian ezagunak ziren pertsonaiek herritarren galderari erantzuten zieten. Sekzioak iraun bitartean, udaltzain burua edo kirol patronatuko zuzendaria agertu ziren besteak beste. Lan honetan aztertu diren hiru aletan soilik<sup>130</sup> agertzen da atal hau eta bere helburua, irakurle eta aldizkariaren arteko feedbacka bilatzea eta sustatzea izan bazen ere, ez zen jaso jendearen aldetik espero zen erantzunik, beraz, kentzea erabaki zuten.

### **D) ZUTABEA**

Iritzi-zutabeak ez dira aztertu ditugun ale guztietan agertzen, aurreko epean iritzi-zutabeak idazten zituzten hainbat kolaboratzailek utzi egin zioten idazteari guk ikertutako epean. 2000-2004 tartean “Danon ahotan” atalean zutabe bat sartzen da gehienetan (aztertu ditugun ale guztietan ez). Sasoi horretan, kolaboratzaile gehienak kazetariak ziren eta erredakzioko kideak argi ikusi zuten kazetariak idaztera ohituta zeudela eta ez zitzaizela hainbeste kostatzen asteroko konpromisoari erantzutea. Beste kolaboratzaile batzuei gehiago kostatzen zitzaien idaztea, baina era berean gai zehatz batean adituak zirenez, gaia menperatzen zuten. Kasu horietan erraztasunak ematen zitzaizkien, hau da, gazteleraz idazten hobeto moldatzen baziren, gazteleraz egiten zuten testua eta gero erredakzioan itzultzen zen.

---

<sup>127</sup> - “Nola kendu soberan ditugun kilo horiek”. 2000ko otsaileko 304 alean. (14. or.).

<sup>128</sup> - 2003ko maiatzeko 436. zenbakian. (7.-8. or.).

<sup>129</sup> - 2003ko maiatzeko 436. alean. (9. or.).


<sup>130</sup> - 2000ko otsaileko 304. zenbakian (3. or.). 2000ko martxoko 310. alean (3. or.) eta 2000ko apirileko 311. zenbakian. (3. or.).

### Iritzia bi hitzetan

Orokorrean 2000-2004 tartean Eibarko aldizkarian iritzia gutxiago landu izan da ...eta kitto! hilabetekaria zen sasoiarekin alderatuta. Alde batetik, astekaria denetik iritzi-emaileak diren kolaboratzaileek gutxiago idazten dutelako, asteroko konpromisoa mantentzea zaila delako. Horren ondorio zuzena, artikulua eta iritzi-zutabeen agerpenaren jaitsiera litzateke. Bestetik, iritziari lotuta egon diren atalak ere desagertuz joan dira. Beraz, bost urteotan indartsu agertu diren iritzi-generoak irakurleen gutunak eta kale-inkestak izan dira, aldizkariaren hastapenetatik mantendu direnak, oso ondo funtzionatu dutelako eta irakurle eta argitalpenaren artean elkarrengintasuna eta harreman zuzena izatea ahalbidetzen dutelako, herritarren ahotsari aldizkarian toki bat eginez.

#### 4.1.3.2.2- Iritziaren bilakaera

5A. grafikoa



Iritzi-generoen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

5B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Artikulua	Inkesta	Zutabea	Irakurle gutunak	GUZTIRA
	2000	3	11	7	24	45
2001	0	13	9	25	47	
2002	1	12	7	22	42	
2003	2	11	3	23	39	
2004	0	12	7	25	44	

Iritzi-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.



*...eta kitto!* aldizkarian guztira urtero kaleratzen den iritzi-item kopuruak ez du gorabehera nabarmenik izan eta batatz beste, urteko berrogeita hiru iritzi-item kaleratu dira 2000-2004 bitartean. Iritziak 2001ean gora egiten du apur bat inkesta, zutabe eta irakurleen gutun gehiago kaleratzen baitira. 2003an, ordea, jaitsi egiten da iritzi-generoen kopurua, batez ere zutabe kopuruak behera egiten duelako.

### **A) ARTIKULUA**

Aurrean aipatu bezala, artikuluen agerpena esporadikoa da *...eta kitto!*-n. 2000. urtean hiru artikulua aurkitu ditugu. 2002an artikulua bakarra<sup>131</sup> kaleratzen da “Gaztekitto” gehigarrian. 2003an bi artikulua kaleratzen dira: bata aldizkariaren “Egunkariaren alde”<sup>132</sup> atal berezian eta bestea “Gaztekitto” gehigarrian<sup>133</sup>. Behin baino gehiagotan azaldu da “Gaztekitto” gehigarria: izenak berak dioen bezala, gazteei zuzenduta dagoen gehigarria da. Gazteen artean euskara bultzatzeko nahia eta gazte-jendeari protagonismoa emateko nahia beti izan da ...*Eta kitto!* Euskara Elkartearen helburuetako bat eta gehigarriaren bitartez eskaintza hori egiten saiatzen dira. Euskara elkarteak betidanik izan du Gaztedia Saila, denborarekin Gaztekitto bihurtu zena eta orduan frogatu moduan gehigarria sortu zen. Guk aztertu dugun epean, “Gaztekitto” hilero argitaratzen den lau orriko gehigarria da. 2004ko hausnarketa prozesuaren ostean, “Gaztekitto”-k bi orri izango dituela erabakitzen da.

### **B) INKESTA**

Inkesten kopurua finko mantentzen da urtetik urtera eta ale bakoitzean kale-inkesta bat argitaratzen da, salbuespenak salbu. 2001eko urtarrileko “Kirolkitto” berezian ez da kaleko inkestarik agertzen, baina 2001ean hamahiru kaleko inkesta aurkitu ditugu. Urte horretako ekainean, “Sasoian sasoikoa” atalarekin lotzen den eta ohikoa den kaleko inkestaz gain, “Kirolez kirol” sailean, Euskal bizikletari buruzko inkesta egiten zaie bost txirrindulariri<sup>134</sup>. 2003ko urtarrilean berriz ere, “Kirolkitto” kirolei buruzko monografikoa kaleratzen da eta bertan ez da kaleko inkestarik argitaratzen. Argi dago atal hau hasieratik landu dela, guk aztertutako epean finko mantendu dela eta gaur egun ere, arrakasta berezia duen atala izanik kaleratzen jarraitzen dutela. Erakargarria baita, herritarren iritzi ezberdinak bilatzeko eta konpartitzeko balio duelako.

<sup>131</sup>- “Ondo amaittu jaiak eta irailera arte!”. 2002ko ekaineko 402. alean. (13. or.).

<sup>132</sup>- “Egunkariaren aldeko bonoak salgai ...*eta kitto!* Euskara Elkartearen”. 2003ko martxoaren 431. zenbakian. (6. or.).

<sup>133</sup>- “Arrateak pasatutakoan bueltan gaude!”. 2003ko uztaileko 444. alean. (16. or.).

<sup>134</sup>- “Nola ikusten duzu aurten Euskal Bizikleta?” “Zein da, zure ustez, faborittoa?”. 2001eko ekaineko 358. alean. (24. or.).

2000-2004 urteen artean “Sasoian sasoikoa” sailarekin lotzen da eta Eibarrekin zerikusia duten gaiak<sup>135</sup> lantzen dira sarritan, baita gai orokorragoak<sup>136</sup> ere.

2004ko hausnarketa prozesuaren ondorioz, “Kaleko inkesta” “Sasoian sasoikoa” sailetik guztiz banatzea erabakitzen da eta inkestaren bitartez egunerokotasuna duten gaiak lantzen dira, edozein gai agertuz, dela Irakeko gerra hala Txontako auzia. Gaur egun lau pertsonen iritziak jasotzen dira eta sarrera bat egiten zaio inkestari, jorratzen den gaiari buruzko informazio apur bat emanaz, irakurlea kokatzeko asmoz. 2004ko azaroan<sup>137</sup> formatu berrian agertzen da kale-inkesta.

### C) ZUTABEA

Zutabeak ez dira ale guztietan kaleratzen eta agertzen direnean oso sail finkoetan agertzen direla aipatu dugu arestian. Urtero zazpi zutabe inguru kaleratzen dira, 2003an salbuespena izanik: hiru zutabe baino ez dira agertzen urte horretan aztertu ditugun hamabi aleetan. 2000. urtean “Iritzia” atalean agertzen da zutabe bat<sup>138</sup>, baina atal hori otsailetik aurrera desagertu egiten da eta gainerako sei iritzi-zutabeak “Danon ahotan” sailean<sup>139</sup> agertzen dira. 2001ean, agertzen diren bederatzi zutabeetatik zazpi, “Danon ahotan”<sup>140</sup> atalean agertzen dira eta bi “Gaztekitto” gehigarrian<sup>141</sup>. 2002an kaleratzen diren zutabeetatik, lau “Gaztekitto” sailean<sup>142</sup> agertzen dira, bi “Danon ahotan” sekzioan<sup>143</sup> eta 2002ko abenduko 420. alean (urtekarian) “Ekonomia” atalean zutabe bat argitaratzen da, Carmelo Urdangarinek sinatzen duen “Lurreratzea” iritzi-zutabea hain zuzen ere. 2003an kaleratzen diren hiru zutabeetatik bi, “Gaztekitto”-n<sup>144</sup> agertzen dira eta “Danon ahotan” sailean zutabe bakarra<sup>145</sup> agertzen da urte osoan. 2004an argitaratzen diren zazpi zutabeak azarotik abendura bitartean kaleratzen dira eta horrek argi erakusten du, iritzi kolaborazioak gehitzea izan dela aldizkariaren hausnarketa epean hartu den erabakietako bat.

<sup>135</sup>- “San Andres azokako produktuak karuaguak izatia zer beittantzen jatzu?”. 2003ko azaroko 457. zenbakian. (19. or.).

<sup>136</sup>- “Hiesaren sendagaixak duan banatu bihar dirala pentsatzen dozu?”. 2003ko abenduko 458. alean. (9. or.).

<sup>137</sup>- “Zelako neurriak hartu biharko leukiez Cannelle hartzarena barriz ez gertatzeko?”. 2004ko azaroko 496. zenbakian. (7. or.).

<sup>138</sup>- “Geurea den auziaren zain”, Naiara Azpeitiak sinatutakoa. 2000ko urtarrileko 299. alean. (10. or.).

<sup>139</sup>- Adibidea: “Far Wild West”, Silbia Hernandezek sinatutakoa. 2000ko otsaileko 304. zenbakian. (4. or.).

<sup>140</sup>- Adibidea: “Maitasunaren ateak parez-pare zabalik”, Unai Artetxeren eskutik. 2001eko maiatzeko 357. zenbakian. (4. or.).

<sup>141</sup>- Adibidea: “Epa gazte”, Lorea Arikistainek sinatuta. 2001eko ekaineko 358. alean. (14. or.).

<sup>142</sup>- Adibidea: “Prestige”, Unai Artetxek idatzitakoa. 2002ko azaroko 415. zenbakian. (14. or.).

<sup>143</sup>- Adibidea: “Maitasun hilgarria”, Silbia Hernandezek sinatuta. 2002ko urtarrileko 381. alean. (4. or.).

<sup>144</sup>- Adibidea: “Egunkaria aurrera”, Unai Artetxeren eskutik. 2003ko martxoko 431. zenbakian. (14. or.).

<sup>145</sup>- “Fikzioa eta errealitatea uztarturik”, Iker Aranberrik idatzitakoa. 2003ko abenduko 458. alean. (4. or.).

2004ko azaroko alean bakarrik, lau iritzi-zutabe argitaratzen dira: bi “Danon ahotan” atalean<sup>146</sup>, bat “Firin faran” atalean<sup>147</sup> eta beste bat “Gaztekitto” sailean<sup>148</sup>.

2000-2003 bitartean argitaratzen diren zutabe gehienak kazetariak idatzitakoak dira, bai aldizkarian lan egiten dutenek eta baita Eibarkoak diren beste kazetari batzuk ere. Erredakziokoak ez diren kazetariak idazteko eskatzen zaienean, iritzi-zutabe horiek egunerokotasunarekin lotzeko eskatzen zaie. 2004an, profil ezberdina eta gai konkretuei buruz idazteko gai diren pertsonak bilatzen dira zutabeak idazteko. Izan ere, ...*eta kitto!*-n lan-taldea hausnarketan murgilduta zegoenean, aldizkaria ahalik eta borobilena eta heterogeneoena egitea lortu nahi zela erabaki zuen lan-taldeak, hau da, maila informatiboan ahalik eta gai gehien jorratzeko ahalegina egingo zela. Gai zehatz batzuk lantzea (ekonomia gaiak adibidez) zaila zenez, iritzi-zutabeen bitartez landuko zirela erabaki zuten eta horretarako kolaborazio gehiago lortzen saiatu dira. Gaur egun, zutabegile batzuk gai zehatz bati buruz idazten dute, burtsari buruz esaterako. Erredakzio kontseiluak proposamena luzatzen die eta batzuetan zutabegileak ...*eta kitto!*-koak eskatu dioten horri buruz idazten dute, beste batzuetan ordea, nahiago duten gai bat aukeratzen dute. Adibidez, Tomas Etxaluzek burtsari buruz idazten duenean, berak erabakitzen du burtsaren mugimenduei buruz idazten duen edo interesei buruz idatziko duen. Gaia zehatza bada ere, gaurkotatasunarekin lotu daiteke eta askotan hori izaten da joera errazena.

Zutabeen bitartez, ahalik eta aldizkari pluralena egiten saiatzen dira eta soslai ezberdina duen jendea bilatu dute: irakasleak, abokatuak, medikuak, enpresariak, kazetariak, finantza aholkulariak izan dira besteak beste zutabegile aldizkarian.

#### **D) IRAKURLEEN GUTUNAK**

Irakurleen gutunak dira iritzi-generoen artean, gehien agertzen direnak. 5A. grafikoan agertzen diren kopuruak arabera, urtero %50etik gorako portzentajea dute irakurleen gutunek ...*eta kitto!*-n. Beraz, kaleratzen den iritzi-generoen erdia, irakurleen gutunak dira. 5B. taulan agertzen diren kopuru absolutuei erreparatuz gero, urtero kopuru antzerakoa agertzen da, hogeita hiru gutun<sup>149</sup> urteko hamabi aleetan. Hasierako urteetatik egin zaie lekua irakurleen iritziei ...*eta kitto!* aldizkarian. Guk aztertu dugun tarte horretan gainera 500. alea kaleratzen da, 2004ko

<sup>146</sup>- Adibidea: “Zergatik ailegutzen gara berandu burtsara?”, Tomás Etxaluze finantza aholkulariak idatzitakoa. 2004ko azaroko 496. zenbakian. (6. or.).

<sup>147</sup>- “Liburu azoka”, Jorge Beorlegiren eskutik. 2004ko azaroko 496. alean. (21. or.).

<sup>148</sup>- “Euskalduna ala euskal herritarra?”, Mikel Urkiak idatzitakoa. 2004ko azaroko 496. zenbakian. (14. or.).

<sup>149</sup>- Adibidea: “Txirringuluri Elkartetik eskerrak”, Eibarko Txirringuluri Elkarteak sinatutakoa. 2003ko abenduko 458. alean. (3. or.).

abenduan hain zuzen ere. Ibilbidea ez da laburra izan eta horrek eragin zuzena dauka irakurlearengan, gaur egun, aldizkarian gutun bat kaleratzeko bete behar diren baldintzak jende gehienak ezagutzen dituelako eta oro har ez dute arazorik izaten irakurleekin.

### **Iritziaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, iritzi atala oro har urtetik urtera nahiko geldituta agertzen da, 2004ko bigarren erdialdera arte. Iritzi-artikuluak noizean behin agertzen dira, ez baitira finkoak Eibarko aldizkarian.

Zutabeak poliki-poliki batez ere 2004tik aurrera indartzen hasten dira aldizkarian. Atal ezberdinetan agertzen badira ere, aldizkariak egunerokotasuna lantzen duen sailetan erabiltzen da nagusiki iritzi-genero hau. Aditu eta kolaboratzaile ezberdinen iritziaren bitartez, aldizkari pluralagoa egiteko asmoz, iritzi-emaileen kopurua handitzea erabakitzen delako, ahalik eta gai gehien jorratzeko asmoz.

Inkestak eta irakurleen gutunak urtetik urtera finko mantentzen dira, goranzko joera apala erakutsiz. Kale-inkestak gure azterketa-epean “Sasoian sasoikoa” atalarekin lotuta agertzen dira, gai orokorrak eta herriko gai zehatzak landuz, baina 2004ko azken bi hilabeteetako kale-inkestak aldatu egiten dira; ez dira “Sasoian sasoikoa” gaiarekin lotzen, diseinua aldatu egiten da eta lau herritarren iritziak jasotzen dira ale bakoitzean.


Irakurleen gutunen atala urtero gehien lantzen den iritzi-generoa da aldizkarian. Hasieratik argitaratu dira irakurleen gutunak eta 500 zenbaki atera ostean, irakurle eta argitalpenaren artean dagoen *feedbacka* argi erakusten du irakurleen gutunen urteroko kopuruak.

### **4.2.3.3- Zerbitzuak**

Eibarko aldizkariak garrantzi berezia ematen dio zerbitzuen atalari eta hori, ale bakoitzean zerbitzuei eskaintzen zaien espazioan nabartzen da, izan ere, zerbitzu-guneak iritziak baino agerpen handiagoa du aldizkarian. Zerbitzuek izan duten agerpena eta bilakaera nolako izan den hurrengo bi ataletan azalduko dugu. Lehenengo grafiko eta taulan, 2000-2004 bitartean ...*eta kitto!* astekarian zerbitzuek izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Bestalde, bigarren grafiko eta taulan zerbitzu atal bakoitzak urtez urte izan duen garapena nolakoa izan den ikusiko dugu.

## 4.1.3.3.1- Zerbitzuak 2000-2004 bitartean

6A grafikoa



Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, ...eta kitto! aldizkarian bost urteko epean.

6B. taula

	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Denbora-pasak	Salerosketa/trukeak	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	<b>123</b>	<b>180</b>	<b>65</b>	<b>60</b>	<b>427</b>

Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan

Aztertu ditugun hirurogei aleotan zerbitzu-informazioak orotara, kazetaritza-generoen %14 hartzen du. Iritziarekin alderatuz gero, balio bikoitza dute zerbitzuek ...eta kitto! astekarian. Informazio astekariak izateaz gain, zerbitzu-aldizkaria badela esan daiteke. Kopuru absolutuei dagokionez, zerbitzuak 427 aldiz agertzen dira bost urteetan. Lan-taldeak badaki zerbitzuei buruzko atalek ondo funtzionatzen dutela, bertan informazio asko, arina, praktikoa eta erabilgarria eskaintzen delako.

### A) ZERBITZU-INFORMAZIOA

6A. grafikoan agertzen diren portzentajeen arabera, zerbitzu-informazioa da gehien errepikatzen dena guk aztertu dugun epean. Hain zuzen ere, ehun eta laurogei aldiz agertzen da zerbitzu-informazioa. Eibarko aldizkarian azpi-kategoria honen baitan, botiken ordutegia, astebururako eguraldiaren iragarpena eta hilean behin sartzen diren hildako, jaiotako eta

ezkondutakoen zerrendak agertzen dira, hirurak finkoak izaki ale guztietan. Aipatu beharra dago, zerbitzu-informazioaren barruan, 2000ko urtarrilean eta otsailean “Efemerideak” atala kaleratzen dela. Efemeride horiek, udaleko Ego-Ibarra batzordeko Nerea Aretak jaso zituen, (Ego-Ibarra) batzorde horren helburua, Eibarko memoria historikoa errekuiperatzea delarik. Lan horretan jaso ziren efemeride batzuk ...*eta kitto!*-ren esku utzi zituzten, aldizkarian kaleratzea oso interesgarria zelako. 1998tik 2000ko otsailera arte aldizkarian hamaikatxo efemeride<sup>150</sup> argitaratu ziren.

## **B) AGENDA**

Agenda da zerbitzu-informazioaren ostean gehien agertzen dena, hirurogei aletan ehun eta hogeita hiru agenda aztertu baitira. Bataz beste ale bakoitzeko bi agenda aurkitu ditugu. 2000ko maiatzetik aurrera “Zinea” azpi-atala sortzen da eta zinerako programazioa, “Asteko agenda”-tik kanpo agertzen da, zinearen agenda txiki bat sortuz. Hori dela eta, “Asteko agenda” eta “Zinea” atalak bereiztu egiten dira eta bakoitza agenda independente bezala konputatu dugu guk ere. Horiez gain, ale berezietan<sup>151</sup> agertzen diren “San Juanak” edo “San Pedroak” bezalako egitarau bereziak agenda gisa hartu ditugu. Azken egitarau horiek, urtez urteko agenda kopuru orokorrean eragin zuzena dute. Hori dela eta, urte batzuetan besteetan baino agenda kopuru handiago agertzen da.

## **C) DENBORA-PASAK**

Denbora-pasak (hirurogeita bost item) eta salerosketa/trukeak (hirurogei item) atalek portzentaje antzerakoak dituzte, %15 eta %14 hurrenez hurren. Denbora-pasen atalean “Teen ajeak” sailaren baitan kaleratzen den horoskopoa agertzen da. Atal horrek betidanik izan du orrialde bat aldizkarian eta astero kaleratzen saiatu dira beti. 2001eko irailean, “Gaztekitto” gehigarria hilean behin argitaratzen hasten denean, ezintasunak sortzen dira. “Teen ajeak” eta “Gaztekitto” gehigarriak, biak dira gazteei zuzendutako atalak eta zenbaitetan gaiak bietan ez errepikatzeke arazoak sortzen dira. Horregatik biak fusionatzea erabakitzen da. “Teen ajeak” atala desagertu egiten da eta “Gaztekitto” mantentzen da. Bestalde, 2004an hasi zen hausnarketa

<sup>150</sup> - Adibidea: 2000ko urtarrileko 299. zenbakian honako hauek irakur daitezke: “1660. urteko Eneruan Gipuzkoako soldaduen errepartua egin zanian, Eibarri 60 lagun bidaltzia tokatzen jakon”. “1739. urteko eneruan, amaittu eban bere biharra Fernando Arizpe eskultoriak San Andres parrokixako erretabluan”. “1635-1-17an, Arrabalgo Agustina Recoleta monjen Komentuan, Sor Maria de la Fe, komentua sortu ebenetako bata, hil zan, santa famiarekin: ba 1802. urtian, bere gorputza ondiok osorik gordetzen zan, itxuria”. (5. or.). Nerea Aretak Eibarko kronika historikoa 1936 arte bildu zuen. Areta, Nerea. (2003): *Eibarko Efemeridiak*, Ego-Ibarra, Eibar.

<sup>151</sup> - San Juanetako ale berezia. 2000ko ekaineko 320. zenbakian. (4.-5.-6.-9. or.).

epean, “Gaztekitto” gehigarriak zuen hilabeteko maiztasuna txikia zela ikusi zen eta 2004ko urritik aurrera, “Teen ajeak” atala kentzeaz gain, “Gaztekitto” astero kaleratzea erabaki zuen lan-taldeak. Gaur egun, bi orri ditu, baina guk aztertu dugun epe osoan, hilero kaleratzen zenean, “Gaztekitto” gehigarriak lau orri zituen.

#### **D) SALEROSKETA ETA TRUKEAK**

Salerosketa eta trukeen atala betidanik agertu izan da Eibarko aldizkarian, “Merkekitto” izenburupean hain zuzen ere. Horren bitartez herritarrei etxebizitzak, lokalak, autoak saltzeko eta erosteko aukera eskaintzen zaie, “Merkekitto”-n iragarkia jarriz. Bestelako gauzak ere eros eta sal daitezke atal honetan<sup>152</sup>. Ikusi baino ez dago ale bakoitzean atal honek hartzen duen espazioa, astero orri osoa. Horregatik Koldo Mitxelena Zumaranek argi dauka jendeak erabili egiten duela zerbitzu-informazioa:

*“Merkekitto-k nola funtzionatzen duen ikusita, hildako eta jaiotakoen atalak nola funtzionatzen duen ikusita, argi dago izugarritzko feedbacka sortzen dela aldizkari eta irakurleen artean. Gurera datoz euren iragarkiak jartzera, gurekin hartu eman zuzena dute. Normalean etortzen direnean, aldizkariaren inguruko komentarioren bat egiten dute beti, ona edo txarra izan daitekeena. Horrek, herritarrengandik hurbilago egoten laguntzen digu eta herritarrak gustuko eta ez hain gustuko dituen gauzak jakiteko aukera eskaintzen digu”<sup>153</sup>.*

#### **Zerbitzuak bi hitzetan**

Laburbilduz, zerbitzu-gune garrantzitsua du Eibarko aldizkariak. Jakin badakite ondo funtzionatzen duten atalak direla zerbitzu-informazioaren barnean daudenak. Informazio asko, arina, praktikoa eta erabilgarria delako eta horren adierazle garbia, aldizkariak zerbitzu-informazioari eskaintzen dion espazioa da. Agenda ere asko erabiltzen da ...eta kitto!-n, kultur ekitaldiak iragartzeko eta baita jai ezberdinen egitarauak iragartzeko. Izan ere, agendaren egitura praktikoa, erabilgarria eta irakurtzeko erraza da. Denbora-pasen atalean horoskopoa izan da gehien agertu dena, beti ere gazte-jendeari zuzendutako ataletan, “Teen ajeak” edo “Gaztekitto” sailetan hain zuzen ere. Salerosketa eta trukeen sekzioa urteekin finkatu eta sendotu den atala da aldizkarian; gainera, lan-taldeak badaki irakurleek erabili egiten dutela eta


<sup>152</sup>- Adibidea: “Fagor garbigailua salgai, 800 reboluzio. Egoera onean. Tel: 616 277493. Juan Carlos”, 2003ko abenduko 458 zenbakian. (22 or.). Lana bilatzeko aukera ere badago sail honetan: “Neska eskaintzen da arratsaldeaz umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel: 647 239751”. 2003ko abenduko 458. alean. (22. or.).

<sup>153</sup>- Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarriketa osoa CDan.

arrakasta duen saila dela, iragarkia jarri nahi duen herritarra aldizkariko langileekin zuzenean jarri behar delako harremanetan.

4.1.3.3.2- Zerbitzuen bilakaera

7A. grafikoa



Zerbitzu-generoen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

7B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Denbora-pasak	Salerosketa/Trukeak	GUZTIRA
	2000	22	38	11	12	83
	2001	25	34	13	12	84
	2002	23	37	16	12	88
	2003	27	35	13	12	87
	2004	27	37	12	12	88

Zerbitzu-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Zerbitzuen atalak gero eta garrantzi gehiago dauka komunikabideetan oro har eta hedabideek gero eta denbora eta espazio fisiko gehiago eskaintzen diote informazio mota honi: telebista, egunkari, irrati eta baita sarean ere. Uneoro trafikoaren gaineko informazioa eskaintzen zaigu irratietan: Euskadi Irratia eta Radio Euskadin esaterako. Eguraldiaren tarteak bere espazio eta tarte propio dauka ETB1 eta ETB2an. Aldizkarietan, irakurleei interesatzen zaizkien gaiak eta irakurleentzat erabilgarriak direnak sartzea ezinbesteko bilakatu da eta horregatik Eibarko aldizkariak zerbitzu-informazioa sartzearen aldeko apustua egin zuen hasieratik. Eguneroko eta



unean uneko hedabideen antzera, Eibarko astekariak zerbitzu-informazioa bere maiztasunera egokitu du.

Oro har, 2000-2004 epean urtero kaleratzen den zerbitzu-item kopuruak ez dauka gorabehera handirik. 2002 eta 2004an zerbitzu-item kopuru altuenak kaleratzen dira, laurogeita zortzi item urte bakoitzean.

### **A)AGENDA**

Agenden kopurua urtez urte nahiko egonkorra bada ere, apurka-apurka hazi egiten da urteekin batera, konstantea bilakatuz. Arestian aipatu dugunez, 2000ko maiatzetik aurrera zine-egitaraua asteko agendatik bereizten da eta ale bakoitzean bi agenda finko agertzen dira. Era berean, ale berezietan argitaratzen diren egitarauak asko erabiltzen diren 2000tik aurrera, testuei arintasuna emateko. 7A. grafikoan ikus daitekeen bezala, portzentajerik altuena 2003an ageri da (%31). 7B. taulan agertzen diren kopuru absolutuetan, ordea, 2003 eta 2004an kaleratzen da agenda kopuru gehien, hogeita zazpi hain zuzen ere. Aste osorako ekitaldiak biltzen dituzten agenda kulturalak izaten dira normalean eta bestalde, zine egitarauak. Irakurleentzat interesgarria eta erabilgarria izateaz gain, erreferente bilakatu da atal hau...*eta kitto!*-ko irakurleen artean. Asteko agenda eta zine agendak agertzen dira normalean ale guztietan, baina bestelako agenda eta egitarau bereziak<sup>154</sup> ere kaleratu dira astekarian.

### **B) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Zerbitzu-informazioa urteekin batera, jaitsi egin da portzentajeetan, zerbitzuei eskaintzen zaizkien atalak ez baitira urteekin aldatu. 7A. grafikoa begiratzen badugu, 2000. urtean agertzen da portzentajerik altuena (%46) eta 7B. taulako kopuru absolutuetan ere, urte horretan agertzen da item kopuru altuena, hogeita hamazortzi item hain zuzen ere. Hala ere, kopuru absolutuetan dagoen aldea ez da hain nabarmena urtetik urtera, 2001ean eta 2004an hogeita hamazazpi item agertzen baitira eta 7B. taulan bi urte horietan zerbitzu-informazioak %42ko portzentajea lortzen du.

### **C) DENBORA-PASAK**

Denbora-pasak nahiko homogeneo mantendu dira bost urteetan. Ale bakoitzeko denbora-pasa bat baino ez da kaleratzen normalean eta berau, “Teen ajeak” sailaren baitan argitaratzen den horoskopoa izaten da. Hala ere, 2002an ohi baino denbora-pasa kopuru altuagoa agertzen da

---

<sup>154</sup>- Adibidea: “Eibarko antzerki jardunaldien egitaraua”. 2000. urteko martxoko 310. zenbakian (25. or.). “Pertsona nagusien hamabostaldiko egitaraua” eta “2 de Mayo kaleko jaixak” egitarauak. 2003ko apirilko 435. zenbakian (6.or.eta 8.or.).

eta hori bera islatzen da 7A. grafikoan ere. Urteko %13-15eko portzentajeak agertzen dira eta 2002an denbora-pasak %18ko portzentajearen kokatzen dira. Arestian aipatu bezala, hilero “Teen ajeak” sailaren baitan horoskopoa kaleratzen da, baina horrez gain “Gaztekitto” gehigarri berezian<sup>155</sup> denbora-pasak sartzen dira. 2002an aztertu diren hainbat aletan “Gaztekitto” gehigarria aztertu da eta ondorioz, urte horretan denbora-pasen kopurua gainerako urteetan baino apur bat altuagoa da.

Eibarko aldizkarian denbora-pasak gazteei zuzendutako ataletan agertzen dira soilik, ez ordea aldizkarian zehar. Gazteen atal honetan oro har kazetaritza-genero arinak (elkarrizketa txikiak, albiste laburrak, argazki-albisteak) erabiltzen dira, irakurtzeko ohitura gehiegirik ez dutelako. Beraz, gazteei zuzendutako gehigarria erakargarriagoa eta irakurterrazagoa egiteko asmoz, kazetaritza-genero arinez gain, denbora-pasak ere sartzen dira.

#### **D) SALEROSKETA ETA TRUKEAK**

Salerosketa eta trukeen atalaren kopurua oso finkoa da. Ale bakoitzean item bakarra agertzen da urtero. 7B. taulari begiratzen badiogu, urtero hamabi item agertzen dira eta guk urte bakoitzeko hamabi aldizkari aztertu ditugu.


#### **Zerbitzuen bilakaera bi hitzetan**

Beraz, 2000-2004 epean urteroko zerbitzu-item kopuruan ez da aldaketarik sumatzen, aurreko epeetatik nahiko indartuta datorren atala baita. Agenden kopuruak goranzko joera apala erakusten du bost urteko epean. Ohikoak eta finkoak diren agendez gain, bestelako egitarauak ere argitaratzen direlako aldizkarian, informazioa arintzen laguntzen dute-eta. Zerbitzu-informazioaren gunea jaitsi egiten da urtetik urtera portzentajeetan, zerbitzu-informazioa eskaintzen duten atalak urteetan mantendu egin direlako eta ez delako aldaketarik egon. Denbora-pasak nahiko homogeen mantendu dira bost urteetan; ale bakoitzean horoskopoa bakarrik agertzen delako, baina 2002an denbora-pasen portzentajeak gora egiten du. Bestalde, “Gaztekitto” gehigarri berezian bestelako denbora-pasak sartzen hasten dira: hitz gurutzatuak eta lehiaketak esaterako. Horien bitartez, gazteei zuzendutako gehigarria erakargarriagoa eta irakurterrazagoa egitea lortu nahi da.

<sup>155</sup>- Adidibea: 2002ko urtarrileko 381. aleko “Gaztekitto”-n gurutzegramak agertzen da (16 or.). 2002ko ekaineko 402 zenbakian, “Gaztekitto”-n hitz dorrea izeneko denbora-pasa kaleratzen da (16 or.). 2002ko urriko 411. alean (16 or.) eta 2002ko azaroko 415 zenbakietako (16 or.) “Gaztekitto”-etan, Zeuk asmatu izeneko denbora-pasak aurkitu dira.

## 4.1.4-GAIAK

8A. grafikoa



Gaien bilakaera portzentuala...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

8B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	POLITIKA	EKONOMIA	GIZARTE-GAIK	KULTURA	KIROLA	GUZTIRA
	<b>2000-2004</b>	166	196	1.306	833	528	<b>3.030</b>
	<b>2000</b>	21	32	231	120	106	<b>510</b>
	<b>2001</b>	29	22	229	154	89	<b>525</b>
	<b>2002</b>	40	46	334	202	99	<b>722</b>
	<b>2003</b>	44	42	227	161	122	<b>593</b>
	<b>2004</b>	32	54	286	197	112	<b>682</b>

Gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

...eta kitto!-n bost urteko epean gai ezberdinei egin die lekua bere orrietan. Idoia Camachok “*Herri-aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)*” doktoresian tokian tokiko prentsaren ezaugarriak zerrendatzerakoan, edukien aniztasuna aipatzen du: “*Euskarazko herri-aldizkarien artean egon badaude gai konkretuetara mugatzen direnak, kirola, musika, kultura... jorratzen dutenak. Alabaina, tokian tokiko aldizkari gehienek, informazio ezberdinak hedatu eta mota guztietako gaiak eskaintzen dituzte*” (Camacho, 2001: 90).

Argi dago gai batzuek beste batzuek baino agerpen handiago dutela. 8A. grafikoa eta 8B. taulan ikus daitezkeen bezala, gizarte-gaiak, kultura eta kirolak, politika eta ekonomia baino gehiago lantzen dira Eibarko aldizkarian. Argitalpen nazionaletan, aldiz, politika eta ekonomia dira gai indartsuenak eta gehien agertzen direnak. Beraz, ...eta kitto!-n kontrako joera nabari da;

prentsa nazionalak horrenbeste lantzen ez dituen gaiak ematen zaie garrantzia eta prentsa nazionalarentzat hain garrantzitsuak diren gaiak bigarren maila batean kokatzen dira ...*eta kitto!*-n.

Halere, gaien agerpena hein handi batean egunerokotasunak markatzen du, kasu honetan Eibarko egunerokotasunak, Eibarren gertatzen direnak, gaia edozein dela. Izan ere, “*euskarak ateak zabalik behar ditu gai guztietan; ez bakarrik folklorea eta metahizkuntzan*” (Basterretxea, 2001: 74). Eibarko aldizkariak egiten duen eguneroko lanak argi eta garbi uzten du, euskarak edozein gairi buruz informatzeko balio duela.

Oro har, gai guztiei buruzko itemek urtetik urtera gora egiten dute. Alde batetik orri kopuru gehiago kaleratzen delako, batez ere 2004an, urte bereko urrian aldizkariko orri kopurua igo egin baitzen. Bestetik, 2000-2004 bitartean informazio gehiago sartzen delako aldizkarian. Herrian bertan informazio asko sortzen da eta zaila da gauzak aldizkaritik kanpo uztea. Koldo Mitxelena Zumaran ...*eta kitto!*-ko koordinatzaile nagusiak aitortzen duen bezala:

“*Gauza on bat dugu Eibarren, batzuetan arazo bihurtzen dena, gauza asko egiten dira, agenda nahiko beteta egoten da. Herri handia da, pertsona ezagun asko dago, artista asko, zer edo zer kontatzeko jende asko. Ez dugu arazorik aldizkaria edukiz betetzeko*”<sup>156</sup>.

Lan honetan aztertu ditugun hirurogei aleetan, 3.030 item kaleratu dira. Horietatik, 166 itemek politika gaiak jorratzen dituzte. 196 itemetan ekonomia gaiak lantzen dira. Zalantzarik gabe, gizarte-gaiak dira agerpen nagusiena duten gaiak, 1.306 itemetan agertzen baitira. Kultura ere, gehien lantzen den gaien artean dago ...*eta kitto!*-n, hirurogei aletan 833 item baitira kulturari buruzkoak. Kirolak ere leku handia dauka Eibarko astekarian, bost urtetan 528 aldiz agertzen baitira kirol gaiak ...*eta kitto!*-n.

Aldizkarian sartuko diren gaiak, erredakzio kontseiluak erabakitzen ditu. Aldizkaria ostegunean bukatu, inprentara bidali eta erredakzio kontseilua biltzen da, hurrengo astean Eibarren antolatuta dauden ekitaldiak zeintzuk diren aztertzeko. Era berean, tirada nazionaleko egunkarietan irakurritako gai batzuk eta Eibarrera ekar daitezkeenak kontuan hartzen dira hurrengo alean lantzeko.

“*Tokian tokiko agerkarietan gertakariak ikuspegi lokaletik begiratu behar dira, nahiz eta esparru orokorrean gertatu. Izan ere, askotan gertatzen da, adibidez, herri bateko telebistako*

<sup>156</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarriketa osoa CDan.

*programazioa Estatu Batuetatik satelitearen bidez heltzen zaiona izatea. Telebista hau ez litzateke, nire ustez, hedabide lokala, herri batean hedatu arren. Ondorioz, ez da lokala herrian gertatzen dena soilik, baizik eta herrian bizi den jendeari interesatzen zaiona, herrian bertan edo kanpoan gertatu” (Camacho, 2001: 94).*

Hori dela eta, Eibarko aldizkarian bogan dauden gaiak lantzen saiatzen dira baina herrian bertan gertatzen direnek lehentasuna izaten dute, baita herrikoak diren pertsonak sortzen dituzten albiste eta gaiak ere. Azken finean, gertutasunak garrantzi berezia izaten du herri-aldizkarietan. *“Aldizkari bat zenbat eta hurbilago egon herritarrengandik, hainbat hobeto. Hurbiltasun horrek abantaila ikaragarriak dauzka” (Askoren artean, 1992: 64).* Besteak beste, tokian tokiko prentsak eremu zabalagoko prentsak lantzen ez dituen hurbileko gaiak hobeto lantzeko aukera du.

Aldizkariaren maiztasuna asterokoa dela kontuan hartuz eta horrek dituen mugak zeintzuk diren jakinda, gaurkotasunari heltzen saiatzen dira. Izan ere, gaur egun informazioa berehala zaharkituta geratzen da; unean uneko informazioa eskura dugu sarean, irradian eta telebistan eta aldizkariak herrian bertan duten konpetentzia oso gogorra da (prentsa idatzian *El Correo* eta *Diario Vasco*). Horrela bada, beste hedabideetan landu diren gaiak era luzeagoan kaleratuz eta gehienetan informazioa gertatu aurretik kaleratzen ahalegintzen dira. Hots, ordua eta lekua zehaztuta duten ekitaldi konkretuak direnean, esaterako hitzaldi baten kasuan, informazioa aurretik ematen da. Dena den eta gutxitan bada ere, gertatzen ohi da ekitaldia antolatu duen pertsonari aurretik komunikabideetan agertzea ez interesatzea. Horrelakoetan, ekitaldia pasa eta gero, hitzaldiari buruzko informazioa eta ekitaldiko argazkia argitaratzen dira.

### **Gaiak bi hitzetan**

Laburbilduz, *...eta kitto!* aldizkarian lantzen diren gaien artean eduki aniztasuna nabaritzen da. Izan ere, gai guztiei buruzko itemek urtetik urtera gora egiten dute, aldizkarian orri kopuru gehiago sartuz joan direlako eta informazioa oro har hazi egin delako. Gaien agerpena herrian gertatzen denak markatzen du eta Eibar informazio asko sortzen duen herria da. Herrian sortzen den informazio guztia ganoraz kudeatzen saiatzen dira eta ahalik eta informazio gutxien aldizkaritik kanpo uzten. Zentzu horretan, gizarte-gaiak, kultura eta kirolak ordena horretan nagusitzen dira aldizkarian, politika eta ekonomia askoz neurri txikiagoan agertuz. Hala eta guztiz ere, gaien arteko oreka bilatzen da aldizkarian; hori dela eta, gaiak atalka sailkatuta daude. Herriko ikuspegia galdu gabe, *...eta kitto!*-k eremu zabalagoko prentsak lantzen ez dituen hurbileko gaiak hobeto lantzeko aukera aprobetxatu egiten du; esaterako, egunerokotasunari heltzeko gaiak sakonago jorratzen dituzte. Horrela bada, Eibarko aldizkarian


herritik kanpo bogan dauden gaiak lantzen dira, baina herrian bertan gertatzen direnek lehentasuna izaten dute, baita herrikoak diren pertsonen sortzen dituzten albiste eta gaiek ere.

#### 4.1.4.1- Politika

Politika ez dago gehien agertzen diren gaien artean, baina urteen poderioz, politikaren agerpenean hazkundera apala eman dela suma daiteke Eibarko astekarian. Hurrengo bi ataletan bost urteetan politika gaien bilakaera nolakoa izan den aztertuko dugu. Lehenengo eta behin, lan honetan kontuan hartu diren hirurogei aleetan, politikaren baitan dauden gai ezberdinek izan duten agerpen orokorra ikusiko dugu. Ondoren, bigarren grafiko eta taulan politika gai bakoitzak urtez urte izan duen garapenaren analisia egingo dugu.

##### 4.1.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean

9A. grafikoa



Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *...eta kitto!* aldizkarian bost urteko epean.

9B. taula

	Udala	Aldundia	E.J.	Alderdiak	E.Hko gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerra/ejertzioak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	45	1	5	45	61	5	4	166

Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Aztertu diren *...eta kitto!* astekariko hirurogei aleetan, politikak gaien %5eko portzentajea hartzen du datu orokorretan, gutxien lantzen den gaia berau izanik.

*“Arrisku inportante bat badago eta zera da: joera politiko zehatz batekin lerrotzea. Eta ez kanpotik etor daitekeen eraginagatik, baizik eta aldizkariak berak har dezakeen bideagatik. Jendeak sumatzen badu aldizkaria norbaiten edo zerbaiten alde ari dela, horrekin identifikatzen ez diren guztiak, automatikoki, kontra jartzen dira eta aldizkariak sinesgarritasuna galtzen du. Aldizkaria errebindikatzaile izan daiteke, baina inolako siglekin identifikatu gabe. Independentzia politikoa mantentzea oso garrantzitsua da”* (Askoren artean: 1992, 59).

Eibarko aldizkarian politikaren gaia herri mailakoa denean lantzen da eta horregatik ez da beste gai batzuk bezain beste agertzen, egunerokotasunean herrian egiten den politikak ez duelako horrenbesteko eragin eta presentziarik. Koldo Mitxelena Zumararen ustez, *“Guk ezin diogu eman Diario Vascok esaterako politikari ematen dion ikuspegia. Diario Vascok Eibarko orrietan politikari egiten dion tokiarekin alderatuz gero, agian Diario Vascon gutxiago agertuko dira herriko gai politikoak”*<sup>157</sup>.

#### **A) EUSKAL HERRIKO GATAZKA**

Deigarria da aldizkariko honako datu hau: politika gutxien lantzen den gaia izanik, politikaren baitan, Euskal Herriko gatazka sarri askotan agertzen da. Kasu honetan portzentajea (%37) eta kopuru absolutuak (hirurogeita bat) bat datoz. Hots, 9A. grafikoan zein 9B. taulan gai bera gailentzen da. Euskal Herriko gatazkaren gaia ...*eta kitto!* aldizkarian agertzen denean, Eibarko herritarrekin eta Eibarko taldeekin zerikusia duenean agertzen da normalean: “Giza katea Eibarko Amnistiaren aldeko komiteak antolatuta”<sup>158</sup> albiste adibidez. Gutxienak badira ere, agertzen dira noizbait, gai horren inguruan Eibartik kanpo gertatu diren albisteak eta herrian nolabaiteko eragina izan dutenak. Adibidez, “Atentatuaren salaketa”<sup>159</sup> albiste laburra. Batez ere, egunerokotasunarekin zerikusia duten ataletan agertzen da Euskal Herriko gatazkaren gaia, “Danon ahotan” atalean eta “Eskutitzak” sailean. Hurrengo atalean aztertuko dugu urtez urte zein izan den gai honen bilakaera eta zenbateko espazioa eskaintzen zaion oro har astekarian.

#### **B) UDALA**

Udalaren eta alderdien gaia berdinduta agertzen dira 9A. grafikoko portzentajeetan eta 9B. taulako kopuru absolutuetan. Gai bakoitza aztertu ditugun hirurogei aleetan berrogeita bost aldiz agertzen da (%27ko portzentajea).

<sup>157</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumarán, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>158</sup>- 2000ko martxoaren 310. alean. (5. or.).

<sup>159</sup>- 2000ko abenduko 337. zenbakian. (4. or.)

Udalaren gaia aldizkariko atal ezberdinetan aurki daiteke: “Auzorik auzo”<sup>160</sup>, “Firin faran”<sup>161</sup>, “Sasoian sasoikoa”<sup>162</sup>, “Kale-inkesta”<sup>163</sup>, “Danon ahotan”<sup>164</sup>, “Geure gaia”<sup>165</sup>, “Eskutitzak”<sup>166</sup>, “Gaztekitto”<sup>167</sup>, “Teen ajeak”<sup>168</sup> eta baita “Kirolez kirol”<sup>169</sup> atalean ere.

Atal honetan sailkatu ditugunak, udalaren gestioarekin eta bertan hartzen diren erabakiekin zerikusi zuzena duten testuak izan dira, hau da, udala albistearen protagonista nagusia izan denean. Badira, ordea, udaleko zerbitzuen inguruko hainbat albiste hemen sartu ez ditugunak, liburutegiko edo kiroldegiko ordutegi buruzko testuak adibidez. Horiek, kategoria sisteman definitu bezala, Zerbitzuen atalean sartu dira. Eibarko astekariak udalarekin harreman zuzena badu ere, udalaren aldetik informazio jasotzerako orduan, Vocento komunikazio taldeko komunikabideek baino informazio gutxiago jasotzen dutela diote.

### C) ALDERDIAK

Aldizkariak harreman ona du Eibarko alderdi guztiekin eta normalean alderdi ezberdinetako bozeramaleak eurengana joaten dira informazioa ematera. “*PPrekin igarri izan dugu ez direla konstanteak. Bolada batzuetan etortzen dira eta beste batzuetan ez*”<sup>170</sup>, aitortzen du ...*eta kitto!*-ko koordinatzaileak. Alderdi guztiei egiten zaie tokia aldizkarian, baina azken aipu honen eragina begi-bistakoa da. Guztira, berrogeita bost aldiz agertzen da alderdien gaia lan honetan aztertu ditugun aleetan: EAJ-EA koalizioa hamahiru aldiz agertzen da, Ezker Batua eta Ezker Abertzalea hamar aldiz bakoitza, PSE-EE lau bider agertzen da, EA bi aldiz, Aralar eta PP behin bakoitza. “Danon ahotan” atalean aurkitu ditugu alderdiei buruzko albiste gehienak.

### D) BESTEAK

Gainerako gai politikoek agerpen urria dute Eibarko astekarian. Erakunde ezberdinen gaia bost aldiz agertzen da, Eusko Jaurlaritzari buruzko informazioa bost bider, Gerra eta ejertzitoen gaia lau aldiz da albiste eta Foru Aldundia behin baino ez da agertzen. Azken gai politiko hauek ez daude herriko politikatik hain hurbil eta emaitzak horren isla dira. Hala ere, gaia landu

<sup>160</sup>- Adibidea: “Amañako pasialekua maiatzerako amaitzia espero dabe” albiste. 2003ko abenduko 458. alean. (6. or.).

<sup>161</sup>- Adibidea: “Arrateetako txosnak” albiste laburra. 2003ko uztaileko 444 zenbakian. (24. or.).

<sup>162</sup>- Adibidea: “Udal ordenantza barrixak isunak ipiñiko ditu. Zikintziak badaka prezixua” erreportajea. 2001eko ekaineko 358. alean. (9.-10. or.).

<sup>163</sup>- Adibidea: “Zer bigittantzen jatzu zikintziagaittik isunak ipintzeko daken asmua?”. 2001eko ekainaren 358. zenbakian. (11. or.).

<sup>164</sup>- Adibidea: “Udalerako lanpostuak” albiste laburra. 2003ko ekaineko 441. zenbakian. (5. or.).

<sup>165</sup>- Adibidea: “Diputaziotik jasotako saria Patronatoari dagokio”, Miguel Diego Udal kirol patronatuko zuzendariari egindako elkarrizketa. 2000ko urtarrileko 299. alean. (26. or.).

<sup>166</sup>- Adibidea: “Noizko txosnak zentruan?”, Iker Abanzabalegik sinatuta. 2002ko ekaineko 402. alean. (3. or.).

<sup>167</sup>- Adibidea: “Eibarko artista gazteentzako diru-laguntzak sortu ditu udalak” albiste laburra. 2004ko iraileko 489 alean. (16. or.).

<sup>168</sup>- Adibidea: “Koadrilentzako laguntzak emango ditu Udalak” albiste laburra. 2004ko maiatzeko 479 alean. (14. or.).

<sup>169</sup>- Adibidea: “Udal diru-laguntzak kirol taldeentzako” albiste laburra. 2002ko apirileko 392. zenbakian. (15. or.).

<sup>170</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.



dutenean, gehienetan eibartarrekin edo Eibarko taldeekin zerikusia izateagatik jorratu dute eta horrela adierazten dute hurrengo adibideek: Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordea den Jon Barrutia eibartarrari egindako elkarrizketa<sup>171</sup>. Aldundia protagonista izan den albiste bakarrean, eibartar bat agertzen da: “Nuria Lopez de Gereñu Gipuzkoako Foru Gobernuan”<sup>172</sup> albiste laburra. Erakunde ezberdinak berriaren protagonista dira “Coliseoa, Udala eta Madril ados ipini dira” albistean<sup>173</sup> esaterako. Gerra eta ejertzitoen gaia landu denean, herriarekin edo herritarrekin zerikusia izan duenean agertu da: “Irakeko krisia, martitzenetan Berbetan aztergai” albiste laburrean<sup>174</sup> adibidez.

### **Politika bi hitzetan**

Laburbilduz, politika, ...*eta kitto!* aldizkarian 2000-2004 bitartean gutxien lantzen den gaia da, baina aldizkarian politikaren gaia herri mailakoa denean lantzen da batez ere; datuen arabera, eguneroko bizitzan herrian egiten den politikak ez du hedabide nazionaletan duen beste eragin eta presentziarik. Euskal Herriko gatazka da gehien errepikatzen den gai politikoa eta egunerokotasunarekin zerikusia duten sekzioetan eta eskutitzen atalean agertzen da.

Euskal Herriko gatazkaren ondoren, gehien agertzen diren bi gaiak, udala eta alderdien gaia dira portzentaje berean gainera. Udalaren gaia aldizkariko edozein ataletan aurki daitekeen bitartean, alderdien gaia egunerokotasunean gertatzen diren albiste motzak argitaratzen diren sailean agertzen da beti. Azterketa-epean, EAJ-EA koalizioa agertu da gehien, ondoren Ezker Batua eta Ezker Abertzalea, agerpen erdia izan du PSE-EE-k eta EA, Aralar eta PP-ren agerpena hutsala izan da. Erakunde ezberdinak, aldundia eta Eusko Jaurlaritza herriarekin edo herritarrekin zerikusi zuzena dutenean soilik agertu dira, beraz, aurreko gaiak baino askoz gutxiago. %1-%3 tarteko portzentajeetan. Gai alternatiboek ez dute leku handirik Eibarko aldizkarian.

<sup>171</sup> - “Lege proiektu propixua etara biharko dogu”. 2001eko abenduko 377. zenbakian. (7. or.).


<sup>172</sup> - 2003ko uztailako 444. alean. (5. or.).

<sup>173</sup> - 2002ko otsailako 386. zenbakian. (4. or.).

<sup>174</sup> - 2003ko maiatzeko 436. alean. (23. or.).

## 4.1.4.1.2- Politikaren bilakaera

10A. grafikoa



Politika gai ezberdinen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

10B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Udala	Aldundia	Eusko Jaurlaritz	Alderdiak	E.Hko gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerrak/Ejerzitoak	GUZTIRA
	2000	8	0	0	4	9	0	0	21
	2001	9	0	1	4	13	0	2	29
	2002	9	0	1	7	22	1	0	40
	2003	10	1	2	18	10	1	2	44
	2004	9	0	1	12	7	3	0	32

Politika gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

2000tik 2004ra bitartean politikaren gaiak izan duen garapenari begiratzen badiogu, aurreko ataletan aipatutako joera bera suma daiteke. Orokorrean politika lantzen duen item kopurua hazi egin da urtetik urtera eta hazkunde hori oso nabarmena da 2002 (berrogei item) eta 2003an (berrogeita lau item). 2002. urtean udala (%23), alderdien gaia (%18) eta batez ere Euskal Herriko gatazkaren gaiak (%55) lantzen dira politikaren barnean. 2003an, ordea, alderdien gaia (%41) gailentzen da batez ere momentuko egoera islatuz. Izan ere, 2003an azken udal hauteskundeak izan ziren.

Eibarko aldizkarian gehien agertzen diren gai politikoak honako hauek dira orden honetan: Euskal Herriko gatazka, udala eta alderdiak. Ikus dezagun gai bakoitzaren bilakaera urtetik urtera.

### A) UDALA

Udalaren gaia hamar puntutan jaitsi da 2000tik 2004ra bitartean eta beheranzko joera hori nahiko orekatua izan da. 10A. grafikoan agertzen diren portzentajeetan hain nabarmena den jaitziera hori, 10B. taulan agertzen den urtez urteko item kopuruan ez da horrenbeste antzematen. Item kopurua jaitsi baino, berdin mantentzen delako urtez urte eta 2000 urtean zortzi item (%38) kaleratzen badira, 2004an udal politikari buruzko bederatzizko item (%28) argitaratzen dira. Kasu horretan ere, kopuru absolutuek gora egin ahala, gai bakoitzaren portzentajeak behera egiten du item kopurua berdin mantendu arren. Arestian aipatu dugun moduan, udalaren gaia aldizkariko sail ezberdinetan agertzen da, “Danon ahotan”, “Firin faran”, “Geure gaia”, “Eskutitzak” edo “Sasoian sasoikoa” ataletan alegia. Udalaren gaia, politikaren barnean agertzeaz gain, bestelako gaietan ere (gizarte-gaiak, kultura, ekonomia) agertzen da baina testuko gai nagusia herrilanak badira, gizarte-gaietan sailkatu da informazio hori.

*“Azkenean politikari buruz hitz egiten dugunean beti hitz egiten da bakeari buruz eta horrekin zerikusia duten gaietara buruz. Herri mailan lanean dihardugun hedabideok, politika azkenean alor guztietan dagoela konturatzen gara. “Danon ahotan”-en sartzen diren gai asko eta asko, politika dira, gertatzen dena da, udal aurrekontuari buruz hitz egiten dela. Berez, gaia lantzen da, baina herriko egunerokotasunean gai horiek ez dute horrenbesteko presentziarik eta eraginik izaten”<sup>175</sup>*, azpimarratzen du Koldo Mitxelena Zumarane.

Udalari orrietan eskaintzen zaion espazioa nahiko finkoa eta orekatua da aztertu diren hirurogei aletan. Informazio hori batez ere albiste labur eta albisteen bitartez ematen da. hirurogei aletan, gai honi buruzko hamasei albiste labur<sup>176</sup>, hamazazpi albiste<sup>177</sup>, argazki-albiste bat<sup>178</sup>, elkarrizketa bat<sup>179</sup>, lau eskutitz<sup>180</sup> sei erreportaje<sup>181</sup> eta inkesta bat<sup>182</sup> aurkitu ditugu.

<sup>175</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumarane, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>176</sup> - Adibidea: “Udalak lanpostu bi betetzeko jendea behar du”. 2001eko azaroko 373. alean. (5. or.).

<sup>177</sup> - Adibidea: “Lau mila milioi pezetako aurrekontua”. 2000ko apirilko 311. zenbakian. (4. or.).

<sup>178</sup> - Adibidea: “Udal brigadako langileen mobilizazioak”. 2004ko uztailko 485. alean. (5. or.).

<sup>179</sup> - Ikus lan honetako 203. orrialdeko behealdean agertzen den 165. adibidea.

<sup>180</sup> - Adibidea: “Coliseo-ko kulebroia”. 2000ko ekaineko 320. alean. (3. or.).

<sup>181</sup> - Adibidea: “Tentsioa nagusi azken pleno berezian”. 2001eko urriko 372. zenbakian. (4. or.).

<sup>182</sup> - Ikus lan honetako 203. orrialdeko behealdean agertzen den 163. adibidea.

**B) ALDERDIAK**

Alderdien gaiak urteekin gora egin du nabarmen: 2000. urtean %19ko portzentajea izatetik, 2003an %41era heldu arte eta 2004an apur bat jaisten bada ere, %38an kokatzen da. 2003an udal hauteskunde urtea izanik, alderdien gaia da gai politiko guztien artean gehien errepikatzen dena: hamazortzi aldiz agertzen da urte horretan aztertu diren hamabi aleetan. ...*eta kitto!*-ko kideek alderdiekin duten harremana ona bada ere, alderdi guztiek egin izan diote noizbait kritikaren bat aldizkariari. “*Alderdi politikoek aldetik beste balorazio bat egiten da, positiboa da, baina azken finean eurak politikoak dira eta euren protagonismoa bilatzen dute*”<sup>183</sup>, esaten du ...*eta kitto!* aldizkariko koordinatzaileak.

Bestalde, alderdiei eskaintzen zaien espazioa urteekin batera asko handitu da, hasierako bi urteetan gai hau lantzen duten zortzi informazio kaleratzen dira (lau item urte bakoitzean) eta horietatik zazpi albiste laburrak<sup>184</sup> dira eta eskutitzen<sup>185</sup> atalean iritzi bat kaleratzen da. 2002an alderdien gaia zazpi aldiz agertzen da; lau albiste labor<sup>186</sup>, bi argazki-albiste<sup>187</sup> eta albiste bat<sup>188</sup> argitaratzen dira. Argi ikus daiteke, urtean zehar landu diren gai batzuk abenduko urtekarian errepikatu egiten direla albiste labor edo argazki-albisteen bitartez. Beraz, batzuetan urteko konputu globalean errepikatu egiten da albiste bera, urtean zehar izan duen garrantzi eta transzendentziaren arabera. 2003an alderdien gaiak askoz espazio gehiago dauka aldizkarian eta horren arrazoi nagusia, 2003ko maiatzean izan ziren udal hauteskundeetan aurkitu daiteke. Urte horretan, bost albiste labor<sup>189</sup>, hamabi albiste<sup>190</sup> eta elkarrizketa bat<sup>191</sup> kaleratzen dira. 2004an, alderdiei buruzko informazioak behera egin arren, hamabi aldiz agertzen da guk aztertu ditugun hamabi aleetan: zazpi albiste<sup>192</sup>, argazki-albiste bi<sup>193</sup> eta hiru albiste labor<sup>194</sup> argitaratzen dira.

<sup>183</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>184</sup> - Adibidea: “Errepublikako bandera Untzagan”. 2001eko apirilko 353.alean. (4. or.).

<sup>185</sup> - Adibidea: “Kritikatxoa”, Iker Abanzabalegik sinatutakoa. 2000ko martxoko 310. zenbakian. (3. or.).

<sup>186</sup> - “Bake alternatiba aurkeztu zuen Batasunak”. 2002ko martxoko 387. alean. (5. or.).

<sup>187</sup> - Adibidea: “II. Errepublika”. 2002ko abenduko urtekariko, 420. zenbakian. (15. or.).

<sup>188</sup> - “Bigarren Errepublika gogoan”. 2002ko apirilko 392. alean. (5. or.).

<sup>189</sup> - Adibidea: “Jeltzaleek hauteskunde programa aurreratuko dute”. 2003ko apirilko 435. zenbakian. (4. or.).

<sup>190</sup> - Adibidea: “PP-ren erreposoa legegintzaldiari”. 2003ko maiatzeko 436. alean. (4. or.).

<sup>191</sup> - “Iñaki Arriola, barriro be alkate: Udal gestioa egiten baiño gustorago ez naiz iñun egongo”, Iñaki Arriola berriz alkate aukeratua atera denari elkarrizketa. 2003ko ekaineko 441. zenbakian. (18.-19. or.).

<sup>192</sup> - Adibidea: “Botoa korreoz emateko aukera”. 2004ko otsailaren 468. alean. (5. or.).

<sup>193</sup> - Adibidea: “Espainiako Kongresurako hauteskundeak egin ziren martxoaren 14an”. 2004ko abenduko urtekarian 501. zenbakian. (18. or.).

<sup>194</sup> - Adibidea: “Eibar Sortzen-ek buletina kaleratu du”. 2004ko iraileko 489. zenbakian. (5. or.).

### C) EUSKAL HERRIKO GATAZKA

Euskal Herriko gatazkaren gaiak gorabeherak ditu bost urteetan zehar. Hasierako hiru urteetatik azken urtera arte erdira jausi dira portzentajeak. 2000. urtean %43ko portzentajea dauka (bederatzi item) eta 2002an %55era igotzen da (hogeita bi item). 2004an aldiz, %22ko portzentajera jaisten da (zazpi item). Gai politikoaren artean berau da 2002an gehien errepikatzen dena. Gai hau lantzeko erabili diren kazetaritza-genero ezberdinak aztertzen baditugu, erdia iritzi-generoetan kokatzen dela konturatuko gara. Gai horri buruz hirurogei aletan kaleratu diren hirurogeita bat testutik hogeita bederatzi, iritzi-generoak dira: hogeita zazpi eskutitzak eta bi iritzi-zutabeak. Gainerako informazioak, albiste laburretan (hamasei), albisteetan (hamar), argazki-albisteetan (bost) eta erreportaje batean agertu dira. Ikus dezagun urtez urte gaia nola landu den eta zenbat aldiz agertu den ...*eta kitto!*-ko orrietan:

2000. urtean, Euskal Herriko gatazkari buruzko zazpi albiste labor<sup>195</sup> eta bi eskutitz<sup>196</sup> kaleratzen dira. 2001ean, hamahiru item kaleratzen dira: bederatzi eskutitz<sup>197</sup>, iritzi-zutabe bat<sup>198</sup>, albiste labor bat<sup>199</sup> eta bi albiste<sup>200</sup>. 2002an, hamar eskutitz<sup>201</sup>, lau albiste labor<sup>202</sup>, hiru argazki-albiste<sup>203</sup>, lau albiste<sup>204</sup> eta iritzi-zutabe bat<sup>205</sup>. 2003an hamazortzi itemetan erabiltzen diren kazetaritza-generoak honako hauek dira: lau eskutitz<sup>206</sup>, bi albiste labor<sup>207</sup>, bi albiste<sup>208</sup> eta erreportaje bat<sup>209</sup>. Azkenik, 2004an, bi eskutitz<sup>210</sup>, bi albiste labor<sup>211</sup>, argazki-albiste bat<sup>212</sup> eta bi albiste<sup>213</sup> erabiltzen dira Euskal Herriko gatazkaren gaia islatzeko.

<sup>195</sup>- Adibidea: "Presoen aldeko martxa". 2000ko maiatzeko 315. alean. (4. or.).

<sup>196</sup>- Adibidea: "Argitaratzeko erreguarekin". 2000ko iraileko 327. zenbakian. (3. or.).

<sup>197</sup>- Adibidea: "Atentatuen kondena". 2001eko otsaileko 342. alean. (3. or.).

<sup>198</sup>- Adibidea: "Garçon, s'il vous plait". 2001eko urtarrileko 341. alean. (4. or.).

<sup>199</sup>- "Garazi Biteri atxilotu dute". 2001eko martxoko 347. zenbakia. (4. or.).

<sup>200</sup>- Adibidea: "Muñoari epaiketa egingo diote". 2001eko maiatzeko 357. alean. (4. or.).

<sup>201</sup>- Adibidea: "Julen, gurekin jarraitzen duzu". 2002ko martxoko 387. zenbakian. (3. or.).

<sup>202</sup>- Adibidea: "Presoen aldeko barrikotea apirilaren 26an". 2002ko apirilaren 392. zenbakian. (4. or.).

<sup>203</sup>- Adibidea: "Elkarrizketaren aldeko sinadurak jasotzen dihardute". 2002ko otsaileko 386. alean. (5. or.).

<sup>204</sup>- Adibidea: "Atxilotuak kargu barik askatu zituzten barixakuan". 2002ko maiatzeko 397. zenbakian. (4. or.).

<sup>205</sup>- "Manipulazioa euren armetako bat", Ehari Ulaziak idatzia. 2002ko urriko 411. alean. (14. or.).

<sup>206</sup>- Adibidea: "Eskerrik asko", Oskar Garitanok Errepresioaren Kontrako Eibarko Plataformaren izenean idatzitakoa. 2003ko urtarrileko 421. alean. (3. or.).

<sup>207</sup>- Adibidea: "Muñoa hilabete honetan epaituko dute". 2003ko irailaren 446. zenbakian. (4. or.).

<sup>208</sup>- Adibidea: "Baldintzarik gabeko kartzela Garaiondorentzat". 2003ko azaroko 457. alean. (6. or.).

<sup>209</sup>- "Euskal Herria zeharkatzen dihardu Erixe Lopezek". 2003ko uztaileko 444. zenbakian. (12. or.).

<sup>210</sup>- Adibidea: "Zuek zarete iturria", Alcalá-Mecón kartzelaratuta dauden Simone eta Rikardok idatzia. 2004ko ekaineko 484. alean. (3. or.).

<sup>211</sup>- Adibidea: "Kontzentrazioa Untzagan". 2004ko otsaileko 468. zenbakian. (4. or.).

<sup>212</sup>- "Dispertsioaren kontrako enkartelada". 2004ko abenduak 500. alean. (5. or.).

<sup>213</sup>- Adibidea: "Amnistiaren aldeko astea". 2004ko maiatzeko 479. zenbakian. (4. or.).

## **D) BESTEAK**

Aurreko atalean aipatu bezala, Aldundiari buruzko gaia albiste labur batean agertzen da 2003an eta Eibarko herritar batekin zerikusia duelako. Eusko Jaurlaritza 2001etik 2004ra agertzen da, urtero behin eta 2003an birritan. Agertzen den bost aldi horietan, gaiak herriarekin eta herritarrekin zerikusi zuzena duelako da. 2001ean elkarrizketa bat, 2002an albiste labur bat, 2003an bi albiste eta 2004an albiste bat. Erakunde ezberdinei buruzko lau albisteak 2002-2004 bitartean sartzen dira eta herriarekin zerikusia dute albiste guztiek. 2002an albiste bat kaleratzen da, 2003an albiste labur bat eta 2003an, 2 albiste eta albiste labur bat. Gerra eta ejertzitoen gaia ere herritartu egin da eta gaia lantzen den lau aldi horietan, bi aldiz eskutitzak atalean agertzen da, behin albiste labur batean eta beste behin erreportaje batean.

### **Politikaren bilakaera bi hitzetan**

Orokorrean politikari buruz argitaratzen den item kopurua, urtetik urtera hazi egiten da eta hazkundera 2002 eta 2003an sumatzen da batez ere, item kopurua gainontzeko urteetako bikoitza izanik. Kontuan hartu behar da 2003ko maiatzean udal hauteskundeak izan zirela eta horrek eragin zuzena duela herri mailako politikan.

Udalaren gaia hamar puntutan jaisten da 2000tik 2004ra bitartean eta jaitsiera portzentajeetan nabaritzen da batik bat, item kopurua oso antzekoa baita. Dena dela, udalaren presentzia politika gaien baitan agertzeaz gain, bestelako gaietan ere agertzen da; lanei buruzko testuetan, kulturari... Udalaren gaiari buruzko testu gehienak informatiboak dira: albisteak eta albiste laburrak.

Alderdien gaiak urteekin gora egiten du nabarmen, lehenengo urtetik bukaerara arte portzentajea ia bikoiztuz. Horrez gain alderdiei buruzko informazio gehienak albiste eta albiste laburren bitartez ematen dira, urteekin gaiari eskaintzen zaion espazio informatiboa handituz.


Oro har politikaren baitan Euskal Herriko gatazkaren gaia gehien errepikatzen dena izan arren, urtetik urtera aldaketa handiak izan ditu. Lehenengo urtetik azken urtera arte portzentajea erdira jaisten da. Euskal Herriko gatazkaren gaia gutunetan atalean agertzen da batez ere.

**4.1.4.2- Ekonomia**

...eta kitto!-n lantzen diren gai nagusien artean ez da ekonomia agertzen. Portzentaje orokorren arabera, politika baino puntu bat gehiago agertzen den arren, lan honetan aztertu den epean gutxien agertzen den bigarren gaia da ekonomia. Hurrengo bi ataletan ekonomia gaien garapena azalduko dugu bi urratsen bitartez. Lehenengo eta behin, ekonomia gai ezberdinek 2000-2004 bitartean izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Bigarren urratsaren bitartez, gai ekonomiko bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera orokorra zein izan den ikusiko dugu.

**4.1.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean**

11A. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunetotan, ...eta kitto! aldizkarian bost urteko epean.

11B. taula

	Enpresa	Laborala/Langabezia	Nekazaritza/Abeltzaintza	Merkataritza	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	93	40	10	53	196

Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Politika gaiaren atzetik, ...eta kitto!-n gutxien landu den bigarren gaia da ekonomia. Politikarekin gertatzen den bezala, informazio ekonomikoa sortzen doan heinean gaia lantzen saiatzen dira. Egia da, zailtasunak izaten direla lan-taldean ekonomia gaietan murgiltzeko. Alde batetik, kazetariak ez direlako ekonomian adituak eta bestetik, gaia era ulergarrian eta

irakurterazean idazteko beldurra eta bertigoa izaten delako maiz kazetari ez espezializatuen artean.

### **A) ENPRESA**

Kontuak kontu, ekonomiaren gaia herrian notizia bilakatzen denean, gaiari arreta jartzen zaio. Datu orokorren arabera, ekonomiak bost urteko epean, %6ko portzentajea dauka ikertu diren hirurogei aleetan, 196 item kaleratu dira ekonomia gai ezberdinekin zerikusia dutenak eta horietatik laurogeita hamahiru itemek enpresarekin zerikusi zuzena dute. Hots, ekonomia gaien artean, ia erdiak (%47) enpresa du protagonista nagusia. Beraz, enpresa munduak informazio asko sortzen duela ondoriozta daiteke, baina informazio hori nahiko arrotza eta espezializatua izaten da eta batzuetan lantzea kosta egiten da. Hala ere, ...*eta kitto!*-n enpresaren gaia jorratzen ahalegintzen dira. Era berean, kontuan izan behar da Eibar herri industrializatua izan dela beti eta enpresak herriko ekonomian izan duen eta gaur egun daukan eragina handia dela.

### **B) MERKATARITZA**

2000-2004 bitartean merkataritza sarritan agertzen da; merkataritzari buruzko berrogeita hamahiru testu (% 27) kaleratu dira. Eibarko egunerokotasunean merkataritzak daukan garrantzia handia da oso. Denda txiki eta merkatal gune handiek (El Corte Ingles, Maxi Eroski) osatzen dute Eibarko merkataritza sarea eta Deba Barrenean erreferentzia bilakatu da erosketak egiterako orduan. Ermutik, Mallabitik, Sorluzetik, Elgoibar eta Mendarotik jende asko mugitzen da Eibarrera erosketak egitera. Indar handiko sektorea da eta informazioa sortzen duena. Eibarko Merkatarien Elkartearen eskutik informazio asko sortzen da, hedabideen bitartez hedatuz. Komunikabide horien artean ...*eta kitto!* dago, Merkatarri Elkartearekin hartu eman zuzena eta etengabea mantentzen duena.

### **C) LABORALA ETA LANGABEZIA**

Gai laboralak eta langabeziaren gaia berrogei itemetan (%20) agertzen da eta enpresaren kasuan bezala, notizia sortzen denean edo sindikatuek informazioa ematen dutenean jorratzen da gaia. Esaterako, maiatzaren 1ean gai horrek Eibarren bertan duen oihartzuna dela eta, urtero agertzen da aldizkarian. Badira ordea, langabeziaren tasen gorabeherak bezalako datuekin egiten diren albisteak. Hauek urtean behin edo birritan lantzen dira, astekaria izanda lar errepikatuko liratekeelako gehiagotan sartuz gero.



## **D) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA**


Nekazaritza eta abeltzaintzaren gaia oso gutxitan agertzen da lan honetan aztertu ditugun aleetan. Hamar dira nekazaritza edo abeltzaintza protagonista dituzten testuak, guztira gai ekonomiko guztien %5. Datu horiek, herriaren izaeraren isla adierazten dutela esan daiteke. Arestian esan bezala, Eibar industria tradizio (Armagintza) handiko herria izan da betidanik eta hiriguneko bizimodua enpresaren inguruan antolatu da. Gaur egun ere horrela da; merkataritza (zerbitzuak) eta enpresa dira bertoko ekonomiaren sektore garrantzitsuenak. Baserriak sasoi batean izan zuen pisua apurka-apurka galduz joan da eta gaur egun, kanpo aldeko auzoetara mugatzen da nekazaritza eta abeltzaintza Eibarren.

### **Ekonomia bi hitzetan**

Beraz, ekonomia oro har gutxien lantzen diren gaien artean dago Eibarko aldizkarian. Izan ere kazetariak maiz informazio mota hori modu erraz eta irakurgarri batean lantzeko zailtasunak izaten dituzte, informazioa oso espezializatua delako. Enpresari lotutako gaiak nagusitzen dira ...*eta kitto!*-n, ez da harriztekoa, ordea, Eibar tradizio industrialeko hiria baita. Ondoren, ia item kopuru erdiarekin merkataritza da gehien agertzen den gaia, herriko eguneroko jardueran oso bizirik eta indartsu dagoen sektorea. Gai laboralak neurri txikiagoan baina albiste direnean agertzen dira aldizkarian eta nekazaritza eta abeltzaintza oso gutxi agertzen dira 2000-2004 bitartean ...*eta kitto!*-n.

## 4.1.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera

12A. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

12B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Enpresa	Laborala/ Langabezia	Nekazaritza/ Abeltzaintza	Merkataritza	GUZTIRA
	2000	18	1	5	8	32
	2001	9	12	0	1	22
	2002	22	6	3	15	46
	2003	17	10	2	13	42
	2004	27	11	0	16	54

Ekonomia gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Ekonomia gutxien lantzen den gaien artean badago ere, urtetik urtera gai ekonomikoei buruzko testuak areagotuz joan dira poliki-poliki. 2000. urtean hogeita hamabi item kaleratu dira eta 2004an berrogeita hamalau testu. Aurrean esan bezala, gaia albiste denean, garrantzia eta protagonismoa ematen saiatzen dira Eibarko astekarian eta datuek joera hori islatzen dute. Urtez urteko garapenari begiratuz, kasu honetan ere, item kopurua eta portzentajeak ez datoz beti bat.

**A) ENPRESA**

Esaterako, enpresaren gaia 12A. grafikoaren arabera 2000. urtean lantzen da gehien, %56ko portzentajea lortuz (hamazortzi item), baina 2004an kaleratzen da enpresari buruzko item kopuru altuena, hogeita zazpi testu (%50eko portzentajea). Enpresaren gaia lantzeko batez ere albiste laburrak eta albisteak erabiltzen dira. Hona hemen aztertu diren hirurogei aleetan enpresari buruz

agertu diren kazetaritza-genero ezberdinak: berrogeita bat albiste labur<sup>214</sup>, hogeita hamaika albiste<sup>215</sup>, bederatzi argazki-albiste<sup>216</sup>, hiru elkarrizketa<sup>217</sup>, zortzi erreportaje<sup>218</sup>, lau inkesta<sup>219</sup> eta bost eskutitz<sup>220</sup> kaleratu dira.

## B) MERKATARITZA

Merkataritza ere, albiste eta albiste laburren bitartez lantzen da nagusiki. Azterketa-epean, merkataritzari buruzko hamabost albiste labur<sup>221</sup>, hamar albiste<sup>222</sup>, zazpi argazki-albiste<sup>223</sup>, zortzi erreportaje<sup>224</sup>, elkarrizketa bakarra<sup>225</sup>, lau inkesta<sup>226</sup>, hiru eskutitz<sup>227</sup>, bi artikulu<sup>228</sup> eta iritzi-zutabe bat<sup>229</sup> argitaratzen dira.

## C) LABORALA ETA LANGABEZIA

Gai laboralak ere urtero agertzen dira ...*eta kitto!*-n. Urteroko bilakaerari erreparatzen badiogu, hasierako urtean (item bakarra) oso agerpen murrizta duen gai ekonomikoa izatetik, 2001ean gehien errepikatzen den gaia izatera pasatzen da. Gai honekin zerikusia duten, hamahiru albiste<sup>230</sup>, hamaika albiste labur<sup>231</sup>, hiru argazki-albiste<sup>232</sup>, bost erreportaje<sup>233</sup>, lau inkesta<sup>234</sup>, bi eskutitz<sup>235</sup>, eta iritzi-zutabe bat<sup>236</sup> kaleratu dira. Horiez gain, 2004ko iraileko 489.alean, “Gaztekitto” gehigarrian, lan elkarrizketa batean norberaren burua saltzeko gomendioak biltzen dituen “Zure burua saldu” aholku zerrenda kaleratzen da. Azken hori, informazio erabilgarri gisa sailkatu dugu generoen atalean.

<sup>214</sup>- Adibidea: “Novapyme arrakastatsua”. 2003ko azaroko 457. alean. (5. or.).

<sup>215</sup>- Adibidea: “Kalitatearen aldeko ekimena enpresetan”. 2002ko otsaileko 386. alean. (4. or.).

<sup>216</sup>- Adibidea: “Lanbrettari buruzko erakusketa”. 2004ko abenduko 500. zenbakian. (32. or.).

<sup>217</sup>- Adibidea: “Eduardo Zubiaurre, Jaz-Zubiaurreko gerentia: Berrikuntza aktibidade guztietan egin bihar da”. 2003ko abenduko 458. alean. (10.-11. or.).

<sup>218</sup>- Adibidea: “Punta-puntako teknologixan aintzindari”. 2004ko martxoko 473. zenbakian. (10.-11. or.).

<sup>219</sup>- Adibidea: “Zer begitatzten jatzu gasoliñaren igoeria?”. 2000ko iraileko 327. alean. (13. or.).

<sup>220</sup>- Adibidea: “Solac-ekin elkartasuna”. 2000ko apirilko 311. zenbakian. (3. or.).

<sup>221</sup>- Adibidea: “Dendarien zozketa”. 2000ko urtarrileko 299. alean. (29. or.).

<sup>222</sup>- Adibidea: “Aldaketa merkadilloan”. 2004ko urtarrileko 463. zenbakian. (5. or.).

<sup>223</sup>- Adibidea: “Lekunberri botika lekuz aldatuko dute”. 2004ko urriko 490. alean. (5. or.).

<sup>224</sup>- “Beherapenetako zurrunbiloan barrena”. 2004ko urtarrileko 463. zenbakian. (7.-8. or.).

<sup>225</sup>- Adibidea: “Julita Valenciaga, Dendari Elkarteko presidentia: Merkatu plazia eta inguruak ondo ipintzia nahi dogu, zentruari bizitasuna emoteko”. 2002ko martxoko 387. alean. (6.-7. or.).

<sup>226</sup>- Adibidea: “Azokako produktuak karuaguak izatia zer begitatzten jatzu?”. 2003ko azaroko 457. zenbakian. (19. or.).

<sup>227</sup>- Adibidea: “El Corte Inglés”. 2002ko azaroko 415. alean. (3. or.).

<sup>228</sup>- Adibidea: “Zergatik ailegatzten gara berandu burtsara”, Tomas Etxaluze finantza aholkulariak idatzitakoa. 2004ko azaroko 496. zenbakian. (6. or.).

<sup>229</sup>- “Lurreratzea”, Carmelo Urdangarinek idatzitakoa. 2002ko abenduko 420. alean. (8. or.).

<sup>230</sup>- Adibidea: “Manifestazioak Maiatzaren Lehenengan”. 2001eko otsaileko 353. zenbakian. (5. or.).

<sup>231</sup>- Adibidea: “Lan arriskueterako ikastaroa”. 2002ko martxoko 387. alean. (5. or.).

<sup>232</sup>- Adibidea: “Lan hitzarmengintzagaittik kontzentraziñua”. 2004ko ekaineko 484. zenbakian. (5. or.).

<sup>233</sup>- Adibidea: “Geontologikoko grebak aurrera dirau”. 2004ko iraileko 489. alean. (10.-11. or.).

<sup>234</sup>- Adibidea: “Zer begitatzten jatzu umia eukitzian baja aittak eskatzia?”. 2003ko ekaineko 441. zenbakian. (9. or.).

<sup>235</sup>- Adibidea: “Garbitzaileen greba eta EH”. 2001eko ekaineko 358. alean. (3. or.).

<sup>236</sup>- “35 ordurako bidian”. 2001eko otsaileko 342. zenbakian. (4. or.).

## D) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA

Nekazaritza eta abeltzaintzaren gaiaren agerpena hutsala da aztertu diren hirurogei aleetan, guztira hamar testutan agertu baita. 2000. urtean bost item kaleratzen dira eta hurrengo urtean gaia ez da agertu ere egiten zuzenean aldizkarian. 2002an (hiru item) eta 2003an (bi item) kaleratzen dira eta 2004an ez da gaia jorratzen. Beraz, nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko item kopurua jaisteaz gain, gaiaren agerpena desagertuz doa aldizkarian. Orotara, lau albiste labor<sup>237</sup>, hiru albiste<sup>238</sup> eta hiru erreportaje<sup>239</sup> kaleratu dira.

Gai ekonomiko guztiak, albiste labor eta albisteen bitartez lantzen dira gehien bat. Lan honetan behin baino gehiagotan aipatu bezala, herri-aldizkariet batez ere hasieran, irakurtzeko errazak ziren generoak erabiltzen zituzten, jendea ez baitzegoen euskaraz irakurtzen ohituta. Eibarko aldizkariak albistek gehiago erabiltzen ditu 2000-2004 bitartean, hamabi urteko lana ez baitu alferrik egin eta herritar asko, euskaraz irakurtzen jarri dituzte.

*“Herri-aldizkariet duten beste funtzio bat euskaraz irakurtzeko zaletasuna lortzea da, batez ere noizean behin edo ia inoiz irakurtzen ez dutenek gustura irakur dezaten. Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez dutenak ere kontuan hartu behar dira aldizkaria egiterako orduan eta haiei erraztu egin behar zaie irakurketa. Ildo horretan, euskararen normalizazioaren aldeko lana egiten dute euskarazko aldizkari lokalek”* (Camacho 2001: 102).

Ekonomia gaiet ulertzeko duten konplexutasuna dela eta, albiste labor eta albistek erabiltzen dira gai horiet jorratzeko. Inkestak ere erabiltzen dira gai ekonomikoak jorratzeko, errazagoak eta arinagoak baitira irakurtzerako orduan. Hala eta guztiz ere, erreportajeak (hogeita bat item) eta iritzi eta interpretazio-generoak (hamabost item) erabiltzen dira.

### Ekonomiaren bilakaera bi hitzetan

Laburbilduz, aldizkarian agertzen diren gai gehien antzera, gai ekonomikoek ere, gero eta agerpen handiagoa dute, beti ere gutxien lantzen diren gaien artean daudela ahaztu gabe. Bost urteko epean ekonomiari buruzko item kopurua ia bikoiztu egin da. Enpresa, merkataritza eta gai laboralei buruzko item kopuru handiena, 2004an kaleratu da. Portzentajeei dagokionez, merkataritzak eta gai laboralek izan dute urtetik urtera hazkunde nabarmenena. Gai ekonomiko

<sup>237</sup>- Adibidea: “Nekazaritza ekologikoa Debegezan”. 2002ko urtarrileko 381. zenbakian. (5. or.).

<sup>238</sup>- Adibidea: “Sosola basarrixa, bizitzeko beste modu bat”. 2000ko iraileko 327. alean. (6. or.).

<sup>239</sup>- Adibidea: “Berto-bertoko espezie eta arrazak”. 2003ko azaroko 457. zenbakian. (15. or.).


guztiak nagusiki informazio-generoen bitartez argitaratzen dira Eibarko astekarian; albiste eta albiste laburren bitartez batik bat, aldizkariak irakurleari informazio mota hau genero arin eta irakurterrazen bitartez helaraziz.

#### 4.1.4.3- Gizarte-gaiak

Gizarte-gaiak dira guztien artean aldizkariko protagonista nagusiak bost urteko epean. Gizarte-gai horiek izan duten bilakaera hurrengo bi grafiko eta tauletan ikusiko dugu. Lehenengo grafiko eta taularen bitartez, ...*eta kitto!* aldizkarian 2000-2004 bitartean gizarte-gaiak izan duten agerpen orokorra nolakoa izan den ikusiko dugu. Bigarren grafiko eta taulak ordea, gizarte-gai bakoitzak urtez urte izan duen garapena eta horren zergatiak berri emango dugu.

##### 4.1.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean

13A. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, ...*eta kitto!* aldizkarian bost urteko epean.

13B. taula

	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	123	83	135	173	44	101	377	270	1.306

Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Guztira, 3.030 item aztertu dira ...*eta kitto!* aldizkarian. Horietatik, 1.306 itemek (gai guztien artean %43ko portzentajea) gizarte-gaiekin du zerikusia. Gizarte-gaien agerpena ulertzeko, ondorengo bi datu hauek gogora ekartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu: alde batetik, kontuan hartu behar da atal honek gainerako atalek (politika, ekonomia, kultura eta kirola) baino azpi-kategoria gehiago dituela bere barnean eta bestetik, herri-aldizkari gehienetan bezala, herriko eguneroko jardunarekin lotura handiagoa duten heinean, gai horiek garrantzia eta presentzia nabarmenagoa dutela herrietako bizitzan.

Atal honen baitan, gizarte ohiturak (hirurehun eta hirurogeita hamazazpi aldiz) eta zerbitzuak (berrehun eta hirurogeita hamar bider) dira gehien errepikatzen direnak. Hezkuntza (ehun eta hirurogeita hamahiru item), lanak (ehun eta hogeita hamabost item) eta taldeak (ehun eta hogeita hiru item) ere agerpen garrantzitsua dute Eibarko aldizkarian. Ikus dezagun zein den bost urteko epean gizarte-gai bakoitzak duen agerpen orokorra.

#### **A) TALDEAK**

Herrian lanean diharduten taldeei, ehun eta hogeita hiru item (% 9) eskaintzen zaie 2000-2004 bitartean aztertutako aldizkarietan. Herriko talde guztiei lekua egiten saiatzen dira eta informazioa eskaintzeko duen orok dauka lekua ...*eta kitto!*-n. Lan honetan talde oso ezberdinak izan dira testuetako protagonista (kirol taldeak, talde kulturalak, gizarte taldeak, emakume taldeak, Gazte Asanblada, Nagusilan, Atzegi, jubilatua...). Talde horiek dira herriko gizarte bizitzan eragile nagusiak eta herri-aldizkarian beraien oihartzuna islatzen da. Koldo Mitxelena esanetan “*batzuetan gu joaten gara taldeengana informazio bila eta beste batzuetan eurak datoz guregana. Igartzen da urteak pasa ahala, gero eta jende gehiago etortzen zaigula euren informazioa aldizkariaren bidez zabaldu nahian*”<sup>240</sup>. Argi dago ...*eta kitto!* aldizkariak duen eragina herrian garrantzitsua dela, jendeak ezagutzen duela, irakurtzen dela eta erreferente bilakatu dela. Herriko taldeek badakite, eta gero eta gehiago dira euren informazioak astekariaren bitartez gainerako herritarrei ezagutarazten dietenak.

Atal honetan taldeen funtzionamendu, antolaketa edo ekitaldi zehatzekin zerikusia duten testuak sartu ditugu: esate baterako, “Klub Deportiboak 75 urte”, 2000ko urtarrileko 299. alean kaleratzen den albiste laburra. Hala eta guztiz ere, taldeak beste hainbat ataletan protagonista dira, antolatu dituzten ekitaldi horiek beste epigrafe batean sailkatuta egon arren. Adibidez,

---

<sup>240</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

Arrate eskubaloi taldeak irabazi badu, “Eskubaloi” atalean sailkatuko dugu item hori. Testu horretan eskubaloia da gai nagusia, baina taldea ere bertan agertzen da eta erabateko protagonismoa dauka.

### **B) GIZARTE ARAZOAK**

Gizarte arazoaren gaia, unean uneko garrantziaren arabera lantzen dela esan daiteke. Gai honi buruzko laurogeita hiru testu agertu dira hirurogei aletan. Mundu mailako gaiak izanik ere, herrian duten oihartzunaren arabera jorratzen dira eta herri mailan egiten diren ekimenekin lotzen dira.

*“Esaterako, emakumeenganako biolentziaren gaia Tele5 katean lantzen denean, Madrileko kasuak agertuko dira eta ETB-n, Donostia edo Bilbo izan daitezke erreferentzia. Horrek ez du esan nahi nazio mailakoak diren hedabideak ez garenok horrelakoak landu ezin ditugunik. Eibarren hildakorik ez badago ere, elkarreak daude, udalak deialdiak egiten ditu eta guk horiek kaleratzen ditugu aldizkarian”*,<sup>241</sup> azpimarratzen du Koldo Mitxelena Zumaran, ...*eta kitto!*-ko koordinatzaile nagusiak.

### **C) LANAK**

Lanen (herrilanen eta etxebizitzaren) gaia ehun eta hogeita hamabost aldiz errepikatzen da ...*eta kitto!*-n eta hori portzentajeetara itzulita, gizarte-gaien artean %10 da.

Herrilaneekin zerikusia duten ehun eta bost testu kaleratu dira eta etxebizitzaren eraikuntzarekin erlazionatutako hogeita hamar item. Herrilanei buruzko informazio gehiena udaletik jasotzen dute, baina batzuetan *El Correo* eta *Diario Vascok* kaleratu ondoren argitaratu izan dituzte gai hauekin zerikusia duten idaztiak.

### **D) HEZKUNTZA**

Hezkuntzaren gaia, gizarte-gaien artean gehien errepikatzen den hirugarrena da. Hirurogei aletan ehun eta hirurogeita hamahiru aldiz agertzen da eta gizarte-gaien artean %13ko portzentajea dauka. Informazio asko sortzen duen arloa dela jakinik, badira aldizkarian atal berezi batzuk, “Teen ajeak” esaterako, non kaleratzen diren informazio asko hezkuntzari lotuta dauden. Arreta berezia jartzen dioten gaia dela esan daiteke, batzaz beste, ale bakoitzean ia hiru aldiz agertzen baita. Metodologian agertzen den kategoria sistema kontuan hartzen badugu, nahiko esparru zabala duen gaia da hezkuntzarena eta egunerokotasunean oso bizirik dagoena

---

<sup>241</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

(ikastetxeek antolatzen dituzten ekitaldiak, hezkuntza ereduak...). Hurrengo atalean frogatuko dugun moduan, urteekin batera protagonismo gehiago hartzen duen gaietako bat berau da.

### **E) OSASUNA**

Osasuna gutxien lantzen den gaia da; bost urteko epean berrogeita lau bider baino ez da agertzen, gizarte-gaien artean %3ko portzentajea izanik. Agertzen denean, herrian eta herritarrekin zerikusia duten ekimenei lotuta agertzen da. Alegia, gai orokorragoak badira ere, osasunarekin zerikusia duten testuak herritartu egiten dira. Gainera urteak pasa ahala, ez da nabaritzen osasuna gehiago lantzeko joera berezirik. Beraz, aurreko emaitzak ikusita, herriko eguneroko bizitzan osasunaren gaiak ez duela eragin nabarmenik ondoriozta daiteke.

### **F) INGURUMENA**

Ingurumenari buruzko ehun eta bat item (gizarte-gai guztien %8) argitaratu dira hirurogei zenbakitan. Horietatik hirurogei testu, ekologia eta ingurumenarekin lotutakoak dira eta gainontzeko berrogeita bat idaztiekin, trafiko eta garraioekin dute zerikusia.

Ingurumen eta ekologia gaiek oro har gizartean urteekin irabazi duten protagonismoa argi islatzen da ...*eta kitto!*-n ere. Hasierako urteetatik bukaera arte askoz nabarmenagoa da ingurumenaren agerpena. Esate baterarako, 2000. urtean ingurumenari buruzko hamar testu kaleratzen dira eta 2002an hogeita bat idatzitan da albiste ingurumena.

### **G) GIZARTE OHITURAK**

Arestian aipatu bezala, gizarte ohiturak dira ...*eta kitto!*-n protagonista nagusiak, hirurehun eta hirurogeita hamazazpi aldiz agertuz. Kopuru hori desglosatuz gero, honako emaitza hauek ditugu: aisialdiari buruzko laurogeita bederatzi testu, gizarte bizitza gai nagusia den laurogeita bost idatzi eta herritarren bizitza ardatz duten berrehun eta hiru idazki aurkitu dira hirurogei aleotan.

Herritarren bizitza da Eibarko egunerokotasunean eragile nagusienetarikoa eta eguneroko bizitzaren sortzaile. Beraz, ez da harritzekoa herritarrek duten protagonismoa aldizkarian islatzea. Herritarrak aldizkariko protagonistak bilakatzeko ahalegina betidanik egin da eta aurrerago esan dugunez, urteekin eta aldizkaria herritarrentzat beharrezko bihurtu den heinean, gero eta herritar gehiagok erabiltzen du bozgorailu gisa. Herritarrak aldizkarira hurbiltzen ez direnean, aldizkariak bihurtzen ditu herritarrak protagonista, herriarentzat interesgarria izan daitekeen edozer esateko duenarengana hurbilduz.



## H) ZERBITZUAK

Zerbitzuek ere leku berezia dute ...*eta kitto!*-n, gehien errepikatzen den bigarren gizarte-gaia berau baita. Berrehun eta hirurogeita hamar aldiz agertzen da eta %22ko portzentajea dauka gizarte-gai guztien artean.


Atal honetan item kopurua altua izatearen arrazoi nagusia, aldizkarian kaleratzen den zerbitzu-informazio kopurua altuan aurki daiteke. Izan ere, zenbaki guztietan agertzen den zerbitzu-informazio finkoa (agenda, botikei buruzko ordutegiak, eguraldiari buruzkoa, zine aretoetako programazioa eta salerosketen “Merkekitto” atala) gaietan sailkatzerako orduan, zerbitzuen atalean sartu da. Informazio horrez gain, herriko zerbitzuen inguruko (liburutegi, kiroldegi ordutegiak) testuak ere atal honetan sartu dira.

### **Gizarte-gaiak bi hitzetan**

Laburbilduz, gizarte-gaiak dira aldizkariko zutabe nagusia eta beraien artean, agerpen-maila handiena gizarte ohitura eta zerbitzuen atalek daukate, %29ko eta %21eko portzentajearekin hurrenez hurren. Gizarte ohitura atala gai ezberdinek sortzen dute eta, herritarren bizitza eta ohituren atala dira alde nabarmenarekin gehien errepikatzen direnak. Izan ere, herritarrak aldizkariko protagonista nagusiak dira. Gainerako gai guztien agerpen-maila %3 - %13 tartean kokatzen da. Horrela bada, gizarte ohitura eta zerbitzuen ostean, hezkuntza, lanak, taldeak eta ingurumena dira gai erabilienak 2000-2004 urteen muga artean. Osasuna eta gizarte arazoak, aldiz, oso gutxi agertzen dira Eibarko astekarian, baina agertzen direnean herriko ikuspegi edo protagonistak izaten dituzte testu horiek.

## 4.1.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera

14A. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte

14B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
	2000	20	10	28	18	10	20	72	53	231
	2001	19	10	23	35	8	19	61	54	229
	2002	35	20	38	47	10	31	94	59	334
	2003	19	14	20	37	5	11	71	50	227
	2004	30	29	26	36	11	20	80	54	286

Gizarte-gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

...eta kitto! aldizkarian gizarte-gaien kopuruak gorabeherak izan ditu bost urteetan zehar. Beste gaiekin gertatzen ez den bezala, ez da goranzko joera argirik nabaritzen. 2001ean gizarte-gaien kopuru orokorrak (229) behera egiten du pixka bat 2000ko datuekin (231) alderatzen badugu. 2002an ordea, igoera, handia da (334 item); aurreko urtean baino 105 item gehiago kaleratzen dira. 2003an nabarmen jaisten da testu kopurua (227), 2004an berriz igotzeko (286). Ondorioz, 2002 eta 2004 urteetan kaleratzen dira gizarte-gaiei buruzko item kopuru gehien. Kontuan hartu behar da, justu bi urte horietako abenduko aleak, urtekariak direla eta urtean izandako albiste ezberdinei errepassoa egiten zaiela bertan. Beraz, guk aztertutako aleetan agertzen diren testu batzuk errepikatu egin dira eta gure laginean sartu ez diren aleetan agertu diren gizarte-gaiei buruzko testu berriak agertzen direla urtekarian.

Gai batzuk beste batzuk baino gehiago agertzearen arrazoia, herriko bizitza eta egunerokotasunean bila daiteke. Erredakzio kontseiluan herrian dagoen informazioa hartzen da kontuan eta horren arabera antolatzen da asteko alea. “*Segur aski, gai horiek lantzeko aldizkarian zein espazio eman aukeratzen dugunean, gure gustu, zaletasun eta interesek izango dute eragin bat*”<sup>242</sup>, aitortzen du Koldo Mitxelena Zumaranek, ...*eta kitto!*-ko koordinatzaileak. Ikus dezagun gizarte-gai bakoitzak zenbateko espazio daukan aldizkarian eta zer nolako kazetaritza-generoak erabiltzen diren gai horiek lantzeko.

### A) TALDEAK

Taldeen gaia 2002 eta 2004an gainerako urteetan baino gehiago agertzen da, bi urte horietan abenduko aleak urtekariak dira-eta. Ikerketa-epean, taldeak protagonista diren berrogei albiste<sup>243</sup>, berrogeita hamasei albiste labur<sup>244</sup>, bederatzi argazki-albiste<sup>245</sup>, hamar elkarrizketa<sup>246</sup>, bi erreportaje<sup>247</sup>, bost irakurleen gutun<sup>248</sup> eta iritzi-zutabe bat<sup>249</sup> kaleratu dira. Aldizkariak duen joera orokorra islatzen da gaietan ere, eta albisteak eta albiste laburrak gailentzen dira kazetaritza-generoen artean.

### B) GIZARTE ARAZOAK

Gizarte arazoen gaia unean uneko garrantziaren arabera lantzen da eta 14B. taulan ikus daitekeen moduan, 2002an eta 2004an gai horri buruzko testu gehiago argitaratzen dira. Bi urte horietako abenduko aleetan urte osoko errepaso egiteak, eragin zuzena dauka item kopuruan eta horretatik da altuagoa. Bost urtetan gizarte arazoen gaia jorratzeko, albiste bakarra<sup>250</sup>, hogeita hamaika albiste labur<sup>251</sup>, hamalau argazki-albiste<sup>252</sup>, elkarrizketa bat<sup>253</sup>, hamasei erreportaje<sup>254</sup>, hamar irakurleen gutun<sup>255</sup>, sei iritzi-zutabe<sup>256</sup> eta lau kale-inkesta<sup>257</sup> argitaratu dira. Gai hauen

<sup>242</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>243</sup>- Adibidea: “Untzagako jubiletzia gero eta gertuago”. 2000ko apirileko 327. alean. (5. or.).

<sup>244</sup>- Adibidea: “Goruntz taldearen lanak Donostiako Egian”. 2004ko azaroko 496. alean. (22. or.).

<sup>245</sup>- Adibidea: “Eibarko Kofradixiak domekan ospatu zuen bere X. kapitulua”. 2003ko iraileko 457. alean. (8. or.).

<sup>246</sup>- Adibidea: “Hariari alkartia, sorterritik kanporatzeko arriskuan dagoaz adin txikikuen babeslia”. 2000ko apirileko 311. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>247</sup>- Adibidea: “...Eta kitto Euskara Elkartia lau urterako Plan Estrategikua aurkeztu dau”. 2002ko apirileko 392. alean. (10.-11. or.).

<sup>248</sup>- Adibidea: “Zorionak ...Eta kitto!”. 2002ko apirileko 392. zenbakian. (3. or.).

<sup>249</sup>- “Geurea den auziaren zain”, Naiara Azpeitiak idatzitakoa. 2000ko urtarrileko 299. zenbakian. (10. or.).

<sup>250</sup>- “Emakumearen kontrako tratu txarrei aurre egiteko ekitaldiak”. 2002ko azaroko 415. zenbakian. (17. or.).

<sup>251</sup>- Adibidea: “Andrea jotzeagatik atxilotua”. 2004ko urriko 490. alean. (4. or.).

<sup>252</sup>- Adibidea: Emakumeen mahiak genero indarkeria salatu zuen”. 2004ko abenduko 501. zenbakian. (37. or.).

<sup>253</sup>- Adibidea: “Erabilera da sexista eta ez hizkuntza”, Idoia Eizmendi berdintasunerako eragilea denari egindako elkarrizketa. 2002ko azaroko 415. alean. (17. or.).

<sup>254</sup>- Adibidea: “Tratu txarren aurka lanean tinko”. 2000ko abenduko 335. zenbakian. (8. or.).

<sup>255</sup>- Adibidea: “Lanean jarraitzeko beharra”. 2001eko martxoko 347. alean. (3. or.).

<sup>256</sup>- Adibidea: “Andrak aurrera goiazela!!?”, Silbia Hernandezek idatzitakoa. 2000ko abenduko 335. alean. (4. or.).

agerpena albiste labur eta erreportajeen bitartez islatzen da batik bat. Hots, egunerokotasunarekin zerikusia duten gaiak albiste labur eta argazki-albisteen bitartez argitaratzen dira eta gaiak oihartzun berezia duenean, erreportajeak kaleratzen dira.

### C) LANAK

Lanen (herrilanak eta etxebizitza) gaiak gorabeherak dituen arren, batz bestea, hogeit hamar hogeita bost aldiz agertzen da urtero, 2002. urtea salbuespena izanik, hogeita hamazortzi aldiz errepikatzen baita. Urte bereko abenduko urtekarian bakarrik hamabost bider agertzen da gaia. Begi-bistakoa da, urtekariak duten eragina gaien item kopuruan.

Guztira, bost urteetan, lanen gaia islatzen duten berrogeita hamazazpi albiste<sup>258</sup>, berrogeita bi albiste labur<sup>259</sup>, hemeretzi argazki-albiste<sup>260</sup>, zortzi erreportaje<sup>261</sup>, bost irakurleen gutun<sup>262</sup>, zutabe bat<sup>263</sup> eta hiru inkesta<sup>264</sup> argitaratu dira ikerketa-epan. Albisteak, albiste laburrak eta argazki-albisteak nagusitzen dira, ia ale guztietan agertzen den gaia baita. Ez da harritzekoa, herriko eguneroko jardunean garrantzi handia dutela lanek, begi-bistakoak direlako eta herritarrengan jakin-mina sortzen dutelako.

### D) HEZKUNTZA

Hezkuntzaren gaiak urteekin garrantzi gehiago hartzen du eta bere presentzia nabarmen areagotzen da aldizkarian. 2000. urtean hezkuntzari buruzko hamazortzi item kaleratzen dira eta 2001ean hogeita hamabost, ia bikoitza; hurrengo urteetan apur bat igo edo kopuru horretan mantentzen da. 2001ean “Gaztekitto” gehigarri berezia kaleratzen denean, hezkuntza gaien hazkundera nabaritzen da; gazteei zuzendutako gehigarri honetan jorratzen diren gai asko hezkuntzari lotuta baitaude. 2002an gai honi buruzko berrogeita zazpi item kaleratzen dira, urte bereko abenduko urtekarian soilik, hezkuntzari buruzko zazpi albiste labur agertuz. Bost urteetan kaleratzen diren ehun eta hirurogeita hamahiru testuak honela banatzen dira kazetaritza-genero

<sup>257</sup> - Adibidea: “Etorkiñak ondo tratatzen dittugu hamen?”. 2001eko martxoko 347. zenbakian. (11. or.).

<sup>258</sup> - Adibidea: “Isasiko 6. zenbakixa ixa jausitta”. 2000ko martxoko 310. zenbakian. (12. or.).

<sup>259</sup> - Adibidea: “Urkiko parkia haundittuko dabe”. 2004ko abenduko 500. alean. (10. or.).

<sup>260</sup> - Adibidea: “Abontza itxura barritu dabe”. 2001eko urriko 372. zenbakian. (12. or.).

<sup>261</sup> - Adibidea: “Etorkizuneko Eibar plano gaiñian”. 2000ko azaroko 328. alean. (12.-13. or.).

<sup>262</sup> - Adibidea: “Polonia Etxebarria kaleko espaloiak”. 2001eko maiatzeko 357. zenbakian. (3. or.).

<sup>263</sup> - “Udaletxe zahar berritua”, Mikel Arrillagak idatzitakoa. 2000ko uztaileko 322. alean. (4. or.).

<sup>264</sup> - “Proteksiño sozialeko etxietan apuntatzeko ingreso minimo bat eskatzia zelan ikusten dozu?”. 2001eko urtarrileko 341. zenbakian. (7. or.).

ezberdinetan: hirurogei albiste<sup>265</sup>, berrogeita hemeretzi albiste labur<sup>266</sup>, hamasei argazki-albiste<sup>267</sup>, hamasei elkarrizketa<sup>268</sup>, hamaika erreportaje<sup>269</sup> eta lau kale-inkesta<sup>270</sup>

### E) OSASUNA

Osasunaren gaiaren agerpena nahiko finko mantentzen da urtero, batz bestez zortzi item kaleratuz. Gaia lantzen denean, herriko ikuspegitik egiten da herritarrak protagonista diren osasun gaiak landuz. Horretarako, hamahiru albiste<sup>271</sup>, bederatzi albiste labur<sup>272</sup>, bederatzi elkarrizketa<sup>273</sup>, zazpi erreportaje<sup>274</sup>, zutabe bat<sup>275</sup>, lau kale-inkesta<sup>276</sup> eta iritzi-artikulu bat<sup>277</sup> argitaratu dira osasunaren inguruan.

### F) INGURUMENA

Ingurumenari (trafikoa, garraioak, ekologia, ingurugiroa eta natura) dagokionez, lehenengo urtetik amaierara arte gai honen agerpena mantendu egiten da. 2002an ohi baino hamar item gehiago argitaratzen dira, baina urte horretako urtekarian bakarrik, ingurumenarekin zerikusia duten bederatzi albiste labur aurkitu ditugu. 2003an, hamaika itemera jaitsi da aurreko urteko kopurua eta gainerako urteetan, hogeita idazti inguru kaleratzen dira. Ingurumena jorratzen duten testuetan, hogeita hamaika albiste<sup>278</sup>, hogeita zortzi albiste labur<sup>279</sup>, hamaika argazki-albiste<sup>280</sup>, hamalau erreportaje<sup>281</sup>, bost irakurleen gutun<sup>282</sup>, bi zutabe<sup>283</sup> eta bederatzi kale-inkesta<sup>284</sup> bilatu ditugu.

<sup>265</sup> - Adibidea: "Ama Mesedeetako ikasleek kurtso hau bertan amaituko dute". 2000ko otsaileko 304. alean. (8. or.).

<sup>266</sup> - Adibidea: "Juan San Martin beka". 2003ko ekaineko 441. zenbakian. (24. or.).

<sup>267</sup> - Adibidea: "Ingeniari promozio berria". 2002ko maiatzeko 397.alean. (30. or.).

<sup>268</sup> - Adibidea: "Teknologia berrienganako beldurra kendu behar dugu", Amaia Telleria Eibarko KZguneko arduradunari egindako elkarrizketa. 2003ko maiatzeko 436. zenbakian. (22. or.).

<sup>269</sup> - Adibidea: "Miarritzen eta Iruñean izango dira Udako Euskal Unibertsitateko saiua". 2002ko uztaileko 403. alean. (10. or.).

<sup>270</sup> - Adibidea: "Ordenadore baxia erosteko asmua dakazu?". 2000ko abenduko 337. zenbakian. (9. or.).

<sup>271</sup> - Adibidea: "Ikastaroa antolatuko dute DYAKoek". 2002ko urriko 411. alean. (24. or.).

<sup>272</sup> - Adibidea: "Memoria lantzeko tailerra". 2004ko otsaileko 468. zenbakian. (20. or.).

<sup>273</sup> - Adibidea: "Jose Miguel Amostegi fisioterapeuta: Andrak gero eta gehiago preparatzen dira ama izateko". 2001eko uztaileko 364. alean. (10.-11. or.).

<sup>274</sup> - Adibidea: "Gaixotasun psikikuen alde *Ibiltzen*". 2003ko urriko 451. zenbakian. (12.-13. or.).

<sup>275</sup> - "Adam", Silbia Hernandezek idatzitakoa. 2000ko urriko 328. alean. (4. or.).

<sup>276</sup> - Adibidea: "Odol emailia zara? Zergaitik emongo zenduan odola?". 2002ko urtarrileko 381. zenbakian. (9. or.).

<sup>277</sup> - "Nola kendu soberan ditugun kilo horiek", Silvana Huegun nutrologak idatzitakoa. 2000ko otsaileko 304. alean. (14. or.).

<sup>278</sup> - Adibidea: "Taxi-busa urtebete gehiago egongo da martxan". 2003ko otsaileko 426. zenbakian. (10. or.).

<sup>279</sup> - Adibidea: "Energia ekoizpena eta kontsumoa". 2002ko abenduko 420. alean. (12. or.).

<sup>280</sup> - Adibidea: "Tren geltokia berri dute". 2002ko iraileko 405. zenbakian. (5. or.).

<sup>281</sup> - Adibidea: "Energia ganoraz sortu eta pentsautu kontsumitu". 2002ko urtarrileko 381. alean. (10.-11. or.).

<sup>282</sup> - Adibidea: "Abiadura murrizteko bandak". 2004ko maiatzeko 479. zenbakian. (3. or.).

<sup>283</sup> - Adibidea: "Prestige", Unai Artetxek sinatutakoa. 2002ko azaroko 415. alean. (14. or.).

<sup>284</sup> - Adibidea: "Zer deritoxozu herri barruan arbolak landatziari? Ondo zaintzen dittugu?". 2004ko martxoko 473. zenbakian. (9. or.).

## G) GIZARTE OHITURAK

Gizarte ohiturak atala da Eibarko astekarian gehien errepikatzen den gaia eta ikertu ditugun hirurogei zenbakietan espazio gehien eduki duen gaia izan da zalantzarik gabe. Kopuruak ikustea besterik ez dago, albiste, albiste labur, argazki-albiste eta erreportaje gehien eskaini zaion gaia izan da bost urte hauetan. Urteekin batera item kopuru absolutuak gora egiten du eta urtero %25etik gorako portzentajea duen gizarte-gai bakarra berau da. Ehun eta bi albiste<sup>285</sup>, ehun eta hamabost albiste labur<sup>286</sup>, hogeita hamabost argazki-albiste<sup>287</sup> bederatzi elkarrizketa<sup>288</sup>, hogeita zazpi erreportaje<sup>289</sup>, hamahiru irakurleen gutun<sup>290</sup>, bederatzi iritzi-zutabe<sup>291</sup>, hamabi kale-inkesta<sup>292</sup>, bi iritzi-artikulu<sup>293</sup> eta berrogeita hamabost zerbitzu-informazio<sup>294</sup> kaleratu dira hirurogei zenbakiotan.

## H) ZERBITZUAK

Zerbitzuei eskaintzen zaien espazioa finkoa dela esan daiteke eta zerbitzu-informazioa hori emateko lantzen diren generoak, ez dira ohiko kazetaritza-generoak. Atal honetan, agendak, zerbitzu-informazioa, informazio erabilgarria, denbora-pasak eta salerosketa eta trukeak nagusitzen dira, berrehun eta berrogeita zortzi aldiz agertuz. Bestelako kazetaritza-genero hauetan jorratzen da zerbitzuen gaia ere: zazpi albiste<sup>295</sup>, hamabi albiste labur<sup>296</sup>, elkarrizketa bat<sup>297</sup> eta irakurleen gutun batean<sup>298</sup> hain zuzen ere.

<sup>285</sup> - Adibidea: “Astelena, danbor doinuen erritmora”. 2004ko urtarrileko 463. alean. (19. or.).

<sup>286</sup> - Adibidea: “Magostos Urkizu parkean”. 2004ko azaroko 496. zenbakian. (21. or.).

<sup>287</sup> - Adibidea: “Santa Agedako koplak”. 2004ko abenduko 501. alean. (16. or.).

<sup>288</sup> - Adibidea: Amagoia Cañori egindako elkarrizketa “Gaztekitto”-n, 2001eko abenduko 377. zenbakian. (14. or.).

<sup>289</sup> - Adibidea: “Sua, udiari ongi etorrixa emoteko”. 2004ko ekaineko 484. alean. (39. or.).

<sup>290</sup> - Adibidea: “Eskerrak ematen”. 2003ko azaroko 457. zenbakian. (3. or.).

<sup>291</sup> - Adibidea: “Maitasunaren ateak parez-pare zabalik”, Unai Artetxek idatzitakoa. 2001eko maiatzeko 357. alean. (4. or.).

<sup>292</sup> - Adibidea: “Sanjuanetan zenbateko pagia emoten zetsuen? Zertan gastatzen zenduan?”. 2004ko ekaineko 484. zenbakian. (28.-29. or.).

<sup>293</sup> - Adibidea: “Ondo amaitu jaiak eta irailera arte!”, Ainara Labadok “Gaztekitto”-n idatzitakoa. 2002ko ekaineko 402. alean. (13. or.).

<sup>294</sup> - Ale gehienetan agertzen diren hildakoen eta jaiotakozen zerrenden gaia gizarte bizitza moduan sailkatu dugu. Adibidea: “Hildakoak: Dolores Gorrotxategi Zabala. 86 urte. 2003-XI-27 (...). Jaiotakoak: Aitor Prieto Alzelai. 2003-XI-24 (...)”, 2003ko abenduko 458. alean. (22. or.).

<sup>295</sup> - Adibidea: “Liburutegia astelehenetik aurrera zabalik”. 2002ko urtarrileko 381. zenbakian. (23. or.).

<sup>296</sup> - Adibidea: “Ordutegi aldaketa polikiroldegian”. 2000ko martxoko 310. alean. (5. or.).

<sup>297</sup> - “Jende askok uste du liburuzainek liburutegiko gauza guztiak irakurtzen ditugula”, Eva Alberdi liburuzainari egindako elkarrizketa. 2001eko martxoko 347. zenbakian. (8. or.).

<sup>298</sup> - “Liburutegia ixtearen inguruan”. 2002ko urtarrileko 381. alean. (3. or.).

### **Gizarte-gaien bilakaera bi hitzetan**


Oro har, gizarte-gaiei buruzko testu kopurua nahiko antzerakoa da bost urteetan, 2002 eta 2004an izan ezik, non goranzko joera atzematen den gai gehienetan. Igoera horren arrazoa, abenduko aleetan aurkituko dugu, bi urte horietan gure laginerako hartu ditugun abenduko aleak urtekariak baitira. Bi urte horiek alde batera utzita, gizarte-gaien baitan urtetik urtera goranzko joera argia erakusten duten gai bakarrak, gizarte arazoak eta hezkuntza izan dira. Gainerako gizarte-gai guztiak mantendu edo apur bat jaitsi egin dira. Gizarte-gaien artean kazetaritza-genero anitz aurki daitezke, baina informazio-generoak nagusitzen dira zalantza izpirik gabe, albisteak eta albiste laburrak.

**4.1.4.4- Kultura**

Kultura da gehien errepikatzen den bigarren gai nagusia ...eta kitto! aldizkarian 2000-2004 bitartean. Hurrengo bi ataletan kulturaren bilakaera orokorra bost urte horietan nolakoa izan den ikusiko dugu bi urrats eginez: lehenengo urratsean, kultura gaiak izan duten agerpen orokorra nolakoa izan den ezagutuko dugu. Bigarren urratsaren bitartez, kultura gai bakoitzak aldizkarian urtez urte izan duen garapena aztertuko dugu.

**4.1.4.4.1- Kultura gaiak 2000-2004 bitartean**

15A. grafikoa



Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, ...eta kitto! aldizkarian bost urteko epean.

	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agendak	15B. taula GUZTIRA
Kopuru absolutuak	209	191	20	109	141	81	82	833

Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Ikerketa-epean kultura 883 testutan aurkitu da ...eta kitto! aldizkarian eta, gizarte-gaien atzetik gehien agertzen den gaia berau da. Azpi-kategoria asko eta informazio asko sortzen duen gaia da kulturarena; ikustea besterik ez dago ...eta kitto!-k ale bakoitzean gai honi eskaintzen dion orri kopurua. Aldizkariko atal ezberdinetan agertzen da kulturaren gaia, baina “Firin faran” saila bereziki kulturarekin zerikusia duten gaiak zuzenduta dago. Astero, hiru orri izaten ditu atal



horrek eta informazioz beteta egoten da (elkarrizketa labur bat, bost albiste labur, lau argazki-albiste eta bi albiste gutxi gorabehera).

#### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoak berrehun eta bederatzi aldiz agertzen dira eta kultura gai guztien artean kopuru handiena (%25) duen azpikategoria bilakatu da. Honen baitan ordea, agerpen-maila ezberdina duten azpi gaiak daude: antzerkia berrogeita zazpi aldiz agertzen da, dantza hogeita bederatzi bider eta musikak ehun eta hogeita hamahiru agerpen ditu. Azken datu horrek, musika munduan Eibarren betidanik egon den mugimendu handia adierazten du. Gazteek musika lokalak dituzte, Musika Eskola handia da, danborrada ospatzen da eta txistularien bandak garrantzi handia du herrian. Musikaren inguruan Eibarren informazio asko sortzen da eta aldizkariak oso ondo islatzen du, horregatik kultura gaien artean gehien errepikatzen den gaia da musika. Antzerkiaren oihartzuna Eibarren ezin dugu ahaztu, urtero martxoan Eibarren egiten diren Antzerki Jardunaldiak ezagunak direlako bailara osoan, eta baita Euskal Herrian ere.

#### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoek guztira, kultur gaien %23ko portzentajea izan dute 2000-2004 bitartean, ehun eta laurogeita hamaika aldiz agertuz. Kategoria honen baitan, pintura hogeita hamar bider izan da albiste, eskultura hamar aldiz, artisau eta eskulanen gaia berrogeita hamalautan, arte ondarea bi aldiz eta argazkigintza eta kartelgintzaren gaia hirurogeita hamabost bider agertu da ...*eta kitto!* aldizkarian. Emaitzok herrian kultura alor horretan dagoen mugimenduaren isla argia dira. Eibarren hiru pintura eskola daude: Udal Pintura eta Zeramika Eskola, Eibarko Arrate Kulturalean dagoen pintura eskola eta partikular batek (Arrate Osorok) pintura klaseak ematen ditu. Udal pintura eskolan, pintura, eskultura, zeramika, marrazketa eta bestelako eskulanak egiten dira. Zalantzarik ez dago jende ugari biltzen dela pinturaren inguruan eta informazioa sortzen duen gaia bilakatu dela.

15.A. grafikoan ikus daitekeen moduan, arte eszenikoak eta arte plastikoen portzentaje orokorrak batuz gero, kultura gaien erdia gehitzen dute.

Argazkigintza eta kartelgintzaren gaiak duen agerpena, gero eta ohikoagoak bihurtu diren lehiaketetan bilatu daiteke. Udalak eta herriko zenbait taldek martxan jartzen dituzten logotipo edo argazki lehiaketak ohikoak bihurtu dira azken urteetan. Esate baterako, udalak San Andres, San Juan eta inauterietarako kartel lehiaketak antolatzen ditu urtero. Eibarko Arrate Kultur

Elkartek ere, zenbait argazki erakusketa eta lehiaketa antolatzen ditu urtean zehar eta horiek guztiak ...*eta kitto!*-k bere orrietan jasotzen ditu.

### **C) GASTRONOMIA**

Gastronomia oso gutxi agertzen da Eibarko aldizkarian, aztertu diren hirurogei aleetan gastronomiarekin zerikusia duten hogeitaz idatzi aurkitu dira. Gaia agertzen denean, sukaldaritza ikastaroen berri emateko izaten da batez ere (sukaldaritza begetarianoa, gazteentzako sukaldaritza ikastaroa...); albiste eta albiste laburretan agertzen da, “Firin faran” atalean gehienetan.

### **D) LITERATURA**

Literatura ehun eta bederatzi idaztitan aurkitu dugu: bertsoaritzak hogeita sei bider agertu da eta literatura eta liburuei buruzko itemak laurogeita hiru izan dira. Eibarko udaleko kultura sailak antolatzen dituen hitzaldi, lehiaketa eta literaturaren inguruko ekitaldiez gain, ...*Eta kitto!* Euskara Elkartearen eskutik, literaturarekin zerikusia duten ekitaldi guztiei egitean zaie tokia aldizkarian, herriko kultur eragilea baita. Azken zortzi urteetan Elkartea eta aldizkaria oso lotuta daude eta gauzak denon artean eramaten dira aurrera; aldizkariak elkartetik laguntza jasotzen du eta aldizkariko langileak oso inplikaturik daude elkartean. Aldizkariko kazetariak Elkartek antolatzen dituen ekitaldien berri zuzena dute eta aldizkaria horiek iragartzeko aprobetxatzen da.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideen gaia ehun eta laurogeita hamaika bider agertzen da lan honetan ikertu diren hirurogei zenbakietan. Telebista, zinea eta herrikoak ez diren komunikabideak ehun eta zazpi aldiz aurkitu ditugu eta herri komunikabideen gaia hogeita hamalau bider. Kontuan izan behar da, zine emanaldiei buruz ale guztietan agenda bat argitaratzen dela, nahiz eta zine eta telebistari buruzko testuak oro har ugariak diren. Telebistarekin zerikusia duten testu gehienetan, eibartarrak dira protagonistak, telebistan agertu direlako edo telesailatako protagonistak Eibarrera etorri direlako. Esate baterako, 2001eko ekaineko 358. alean, “Gaztekitto” gehigarrian, Gorka Igartua, ETB1eko “Hasiberriak” telesailako aktoreari egindako elkarrizketa.

Zinearen gaia jorratzen denean, ohiko zine aretoetatik kanpo izaten diren zine emanaldi edo zine jardunaldiekin zerikusia duten testuak izaten dira.

### **F) EUSKARA**

Euskararen gaia laurogeita bat aldiz errepikatzen da Eibarko astekarian. Sasoi batean, “Euskara” saila argitaratzen zen aldizkarian, baina guk aztertu ditugun aleetan, 2003ko iraileko

446. alean eta 2004ko abenduko 501. zenbakian agertzen da “Euskara” aldizkariko sail moduan. 2005ean egiten den diseinu berriarekin berreskuratu egiten da atala.

Euskararen inguruan sortzen diren albisteekin diskriminazio positiboa egiten dela aitortzen du Koldo Mitxelena:

*“Kontuan hartu behar da, euskaren inguruan sortzen diren albiste asko, ...Eta kitto! Euskara Elkarateak bultzatzen dituela edo bestela udalak, euskara elkaratearekin elkarlanean. Nahi eta nahi ez, aldizkaria euskara elkaratearen umea da eta aprobetxatu egiten dugu”<sup>299</sup>.*

Horrez gain, Eibarren AEK eta Udal Euskaltegia daude, eta horiek sarritan erabiltzen dute aldizkaria euren ekitaldiak eta informazioak iragartzeko.

### **G) KULTUR AGENDA**

Kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituzten laurogeita bi agenda aurkitu dira hirurogei zenbakietan. Asteroko kultura agendak (hirurogei) eta jai ezberdinetan<sup>300</sup> argitaratu izan diren kultur egitarauak hain zuzen ere.

#### **Kultura bi hitzetan**


Orokorrean Eibarko aldizkariak kulturari arreta berezia eskaintzen dio, astero kaleratzen diren hogeita zortzi orrialdeetatik bizpahiru beti kultura gaietara buruzkoak izaten baitira. Arte eszenikoak eta arte plastikoak dira gehien agertzen diren gai kulturalak, bien portzentaje orokorrak batuta, kulturari buruzko testu guztien erdia hartzen dute. Bi atal horietan gainera, musika, antzerkia, eskulanak eta argazkigintza nagusitzen dira. Kontuan hartu behar da, Eibar bizitza eta programazio kultural handiko hiria dela, eta aldizkarian hori islatzen da. Apur bat gutxiago agertzen dira komunikabide eta literaturari buruzko gaiak, orokorrak izan arren, beti Eibar eta eibartarrekin zerikusia dutenean agertzen baitira. Euskara eta agendak gutxi agertzen dira eta gastronomiaren presentzia, hutsaren hurrengoa da.

<sup>299</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Koldo Mitxelena Zumaran, 2006-02-08). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>300</sup>- San Juan, San Pedro, Arrateko jaietan.

## 4.1.4.4.2- Kultura gaien bilakaera

16A. grafikoa



Kultura gai ezberdinen bilakaera portzentuala ...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

16B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agenda	GUZTIRA
	2000	33	22	5	10	19	18	13	120
	2001	42	34	2	15	26	21	14	154
	2002	49	46	6	35	31	15	20	202
	2003	33	36	4	26	29	13	20	161
	2004	52	53	3	23	37	14	15	197

Kultura gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

16B. taulan ikus daitekeenez, urtetik urtera kultura gaien buruzko item gehiago agertzen dira. 2000. urtean ehun eta hogeita testu argitaratu dira kulturaren inguruan eta 2004an, 2000an baino hirurogeita hamazazpi item gehiago (197). Orain arte aztertu ditugun gai ezberdinekin gertatzen den antzera, kultura gaien kopurua hazi egiten da bereziki 2002 urtean. Urte horretako abenduako urtekarian soilik, hogeita hemeretzi kultur gai aurkitu ditugu.

### A) ARTE ESZENIKOAK

Arte eszenikoak (antzerkia, musika eta dantza) albiste diren testu kopuru absolutuak gora egin du 2000tik 2004ra bitartean. Urtero idazti kopuru gehiago argitaratu dira, baina 16A. grafikoa agertzen diren portzentajeen arabera, gai horien agerpena urtetik urtera jaitsi egiten da apur bat. Hots, 2000an, hogeita hamahiru item kaleratzen dira eta 16A. grafikoa %28ko

portzentajea agertzen da. 2003an, hogeita hamahiru testu kaleratzen dira eta %20ko portzentajea ikus daiteke 16A. grafikoan. Portzentajea urte osoko kopuruaren arabera kalkulatzen da eta 2003an altuagoa da urteko item kopuru absolutua; gauza bera gertatzen da gainerako urteetan. Arte eszenikoen baitan dauden gaiek urtero duten agerpena kontuan hartzen badugu, urtero musika nagusitzen da. Beraz, Eibarko musikak duen protagonismoa aldizkariaren edukietan islatzen da. Urtero musikari buruzko hogeitik gora idatzi kaleratzen dira ... *eta kitto!*-n, 2004n hogeita hamalau testutan<sup>301</sup> agertuta, kopuru hori gaituz. Antzerkiaren gaia urtero batz besterik hamar idatzitan aurkitu dugu eta 2002an, antzerkiari buruzko hamabi informazio<sup>302</sup>. Dantza, 2002tik aurrera lantzen da apur bat gehiago eta 2004an du gai honek presentzia handiena, zortzi itemekin<sup>303</sup>.

## B) ARTE PLASTIKOAK

Arte plastikoen agerpena 2000tik aurrera hazi egiten da, urtero %20ko portzentajetik gora kokatuz. Item kopuru absolutuek goranzko joera argia adierazten dute 2001etik aurrera. 2002an berrogeita sei item eta 2004an berrogeita hamahiru argitaratzen dira arte plastikoei buruzko testu gehien. Bi urte horietako abenduko aleak urtekariak diren arren, orokorrean urtetik urtera gai hauen agerpena handiagoa izan dela kontuan hartu behar da. Pintura, argazkigintza eta kartelgintzaren gaiak batez ere 2004an lantzen dira. Pintura hamazortzi aldiz<sup>304</sup> agertzen da eta argazkigintza eta kartelgintza hogeita bost bider<sup>305</sup>.

Eskulturari buruzko testu gehien 2001ean argitaratzen dira, bost hain zuzen ere<sup>306</sup>.

Artisau eta eskulanen atala 2002an agertzen da gehien, hemeretzi testu<sup>307</sup> kaleratzen baitira.

Arte ondarea hirurogei aleetan bi aldiz soilik agertzen da, 2000 eta 2001ean<sup>308</sup>. Sasoi batean “Eibartarren ahotan” atala kaleratzen zen; guk bakarria aurkitu dugu gure ikerketa-epean, 2000ko otsailean kaleratzeari utzi baitzioten. Bertan, historiari buruzko testuak jasotzen ziren eta

<sup>301</sup>- Adibidea: “Kontzertu liriko arrakastatsua” albistea. 2004ko martxoko 473. zenbakian. (31. or.).

<sup>302</sup>- Adibidea: “Arrate antzerki taldea berpiztuko dute gaurko antzerki irakurrian” aipu-erreportajea. 2002ko urriko 411.alean. (17. or.).

<sup>303</sup>- Adibidea: “As Burgas: ikastaroa” argazki-albistea. 2004ko iraileko 489. zenbakian. (23. or.).

<sup>304</sup>- Adibidea: “Ander Hormazuri Topalekuan” argazki-albistea. 2004ko urriko 490.alean. (18. or.).

<sup>305</sup>- Adibidea: “Argazkiak identifikatzen laguntzeagatik saritua” albistea. 2004ko urtarrileko 463. zenbakian. (17. or.).

<sup>306</sup>- Adibidea: “Oteizaren eskulturari bisita” albistea. 2001eko otsaileko 342. alean. (18. or.).

<sup>307</sup>- Adibidea: “Zilarretik bitxiak ateratzen dituzten artistak” albistea. 2002ko maiatzeko 397. zenbakian. (6. or.).

<sup>308</sup>- Adibidea: “Sagartegieta basarrixa monumentu historiko-artistikua” albistea. 2000ko maiatzeko 315.alean. (7. or.).

horietako asko, arte ondarea atalean sartzeko modukoak ziren. Beraz, ...*eta kitto!*-n aurretik gehiago landu den gaia dela era gogoratu behar dugu.

### **C) GASTRONOMIA**

Gastronomia, kultura gaien artean gutxien agertzen den gaia da eta urtero kaleratzen den testu kopurua txikia da, urteekin gainera ez du informazio kopuruak gora egiten. Item kopuru gehien 2002an kaleratzen dira, baina 16A. grafikoaren arabera 2002a ez da portzentajerik handiena duen urtea (%3), 2000. urtea baizik non bost testu<sup>309</sup> kaleratzen diren eta portzentajea %4koa da.

### **D) LITERATURA**

16.A. grafikoan agertzen diren portzentajeak eta urtero literaturari buruz kaleratzen den item kopuruari erreparatuz, ...*eta kitto!*-ko orrialdeetan urteekin, gaia gero eta gehiago agertzen dela ondoriozta daiteke. Bertsolaritza eta literatura elkartu ditugu kategoria honetan eta urtero, literatura eta liburuei buruzko informazioa gailentzen dela esan beharra dago. Bertsolaritzak 2002an soilik lortzen du bost itemen muga gainditzea, bertsolaritzari buruzko hamar testu<sup>310</sup> kaleratzen baitira orduan. Literatura eta liburuei buruzko informazioek aise lortzen dute hamarretik gora idazki urtero. 2000. urtean zazpi testu kaleratzen dira eta 2001etik aurrera, literatura eta liburuen inguruko hogeitaz idatzi argitaratzen dira. Gai horrek 2002an du agerpen handiena, hogeita bost item<sup>311</sup> argitaratuz.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideen atalean, zine, telebista eta herri komunikabideei buruzko testu kopurua hazi egiten da urtetik urtera; 2000. urtean testu hauen portzentajea %16koa izatetik, 2004an %19koa izatera pasatzen da. Era berean, item kopuruak gora egiten du urtero eta 2001etik aurrera, komunikabideei buruzko hogeita bost item baino gehiago agertzen dira urtero.

Atal honetan zine eta telebistari buruzko testuak nagusitzen dira beti, zine egitaraua ale guztietan finkoa baita. Horrezaz gain, telebistarekin zerikusia duten informazioak herri komunikabideei buruzkoak baino gehiago dira. Zine eta telebistaren inguruko hogeitik gora testu

---

<sup>309</sup>- Adibidea: "Sukaldari begetarianoak sukaldean dagoeneko" albistea. 2000ko maiatzeko 315. alean. (30. or.)

<sup>310</sup>- Adibidea: "Bertso jaia Kulturalean" albistea. 2002ko otsaileko 386. zenbakian. (19. or.)

<sup>311</sup>- Adibidea: "Gaur Izagirren hitzaldia" albistea. 2002ko apirilko 392. alean. (19. or.)

aurkitu dira 2001etik aurrera, 2002an idazki kopuru altuena izanik, hogeita lau testu<sup>312</sup> hain zuzen ere. Herri komunikabideen gaia aldiz, kopuru horien azpitik agertzen da 2000-2004 bitartean, hasirako lau urteetan bi eta zazpi testuren artean kokatuz. 2004an bikoiztu egiten da kopurua eta herri komunikabideei buruzko hamabost testu kaleratzen dira, 2004ko 501 alean, ...*eta kitto!* astekariari hamaika orri berezi eskaintzen zaizkio, 500.alea kaleratzen delako. Zenbaki horretan bakarrik, herri komunikabideei buruzko zazpi testu<sup>313</sup> argitaratzen dira.

## F) EUSKARA

Euskararen gaiaren agerpena murriztuz joan da 2000-2004 bitartean. Hasierako bi urteetan, %15 inguruko portzentajeak ditu eta 2002tik aurrera erdira jausten dira portzentajeak. Item kopurua 2002tik aurrera baxuagoa bada ere, ez da portzentajeak bezain nabarmena jaitsiera. 2001ean euskarari buruzko testu gehien kaleratzen dira, hogeita bat item<sup>314</sup> hain zuzen ere. 2003an, aldiz, gai honen inguruko hamahiru testu aurkitu ditugu. Arestian aipatu bezala, garai batean “Euskara” aldizkariko atala izan zen. Orduan, euskararekin zerikusia zuten gaietara espazio gehiago ematen zitzaaien, baina guk aztertu dugun epean, euskara beste gai guztien arteko bat da, nahiz eta arreta berezia eskaintzen zaion, euskara elkarteak dituen helburuak direla-eta.

## G) KULTUR AGENDA

Kultur agenda kopururi dagokionez, portzentajeek beheranzko joera adierazten dute oro har. Item kopuruei erreparatuz, 2002 eta 2003an aurkitzen dira kultura agenda gehienak, hogeita item urte bakoitzean. Ale bakoitzean ohikoa den asteko kultura agendaz gain, bi urte horietan kultura ekitaldi anitz biltzen dituzten informazio eta iritzi ezberdinak ere kaleratzen dira. 2002an Arrateko jaiei buruzko agenda berezia kaleratzen da eta urtekarian, kultur ekintza ezberdinei buruzko lau albiste<sup>315</sup> argitaratzen dira. 2003ko apirila eta maiatzean Euskal Jaiari buruzko erreportajeak<sup>316</sup> aurkitu ditugu eta azaroan, San Andres jaien inguruko agenda berezia besteak beste.

<sup>312</sup>- Adibidea: “Diapositiba emanaldiak martitzenetik aurrera” albiste laburra. 2002ko ekaineko 402. zenbakian. (20. or.).

<sup>313</sup>- Adibidea: “Eibarko berri, munduan barrena” albiste. 2004ko 501. alean. (31. or.).

<sup>314</sup>- Adibidea: “Baillarako euskeriaren alde biharrian urtebete Badihardugu” erreportajea. 2001eko azaroko 373. alean. (12.-13. or.).

<sup>315</sup>- Adibidea: “Hainbat erakusketa ikusgai” albiste. 2002ko abenduko 420. zenbakian. (5. or.).

<sup>316</sup>- Adibidea: “Euskal Jaia, maiatzeko bigarren asteburuan”. 2003ko maiatzeko 435. alean. (31. or.).

### **Kulturaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, kultura gaiak indartu egin dira urteen poderioz Eibarko astekarian. Hazkundera 2002an nabaritzen da batez ere, urte horretako abenduko alea urtekaria delako. Arte eszenikoek beheranzko joera adierazten dute, nahiz eta musikari buruzko item kopurua hazi egiten den urtetik urtera, antzerkia mantentzen den eta dantzaren gaiak igoera apala erakusten duen. Arte plastikoak, ordea, hazi egiten dira. Horien baitan, pintura, argazkigintza eta kartelgintzari buruzko testuak gero eta gehiago agertzen dira. Artisau eta eskulanen inguruko idatziak mantendu egiten dira eta eskultura eta arte ondarearen agerpena hutsala da. Komunikabideei eskaintzen zaien tartea handituz doa urteekin, batez ere zinearekin eta telebistarekin zerikusia duten testuak. Euskara eta agenden inguruko testuak, aldiz, gero eta gutxiago agertzen dira aldizkarian. Gastronomia ez da inoiz kulturaren baitan garrantzitsua izan eta urteekin gutxiago, ia desagertu arte.




**4.1.4.5- Kirola**

Kirola da ...*eta kitto!* aldizkarian gehien agertzen den hirugarren gaia. Ale bakoitzean bizpahiru orri eskaintzen zaie kirol ezberdinei. Hurrengo bi grafiko eta tauletan, kirol ezberdinek izan duten bilakaera azalduko dugu. Lehenengo eta behin, kirol ezberdinek 2000-2004 bitartean aldizkarian izan duten agerpen orokorra nolakoa izan den aztertuko dugu. Ondoren, kirol bakoitzak urtez urte izan duen garapena eta horren arrazoiak zeintzuk izan diren ikusiko dugu.

**4.1.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean**

17A. grafikoa



Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, ...*eta kitto!* aldizkarian bost urteko epean.

17B. taula

	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	218	239	16	55	528

Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

17A. grafikoan eta 17B.taulan ikus daitekeen moduan, bi talde handi daude kirolen baitan: talde kirola eta banakako kirola. Metodologian azaldu dugu, bi bloke hauek emaitza esanguratsuak lortzeko asmoz sortu direla eta era berean, emaitzen sakabanatzea saihesteko. Katetoria sisteman banakako kirolak talde kirolak baino gehiago dira eta 17B. taulako kopuruek horrela adierazten dute. Hau da, ...*eta kitto!* astekarian banakako kirol ezberdinak berrehun eta hogeita hemeretzi aldiz agertzen dira eta talde kirolak berrehun eta hamazortzi bider errepikatzen dira 2000-2004 tartean.

## A) TALDE KIROLA

Kirol guztien artean gehien errepikatzen dena futbola da, ehun eta zortzi bider agertzen da hirurogei aleotan. Eibarren bigarren mailako futbol taldea dagoen arren, beste futbol talde batzuei egiten zaie lekua ...*eta kitto!*-n, adibidez areto foballari<sup>317</sup>. Izan ere, Eibar Futbol Taldearekin oso harreman ona dute eta bigarren mailako taldea albiste denean aldizkariak jasotzen du, baina partidu bakoitzaren kronika eta asteroko jarraipenik ez diote egiten. Bigarren mailan dago eta eliteko taldea izanik, komunikabide asko ditu atzetik eta herriko beste futbol taldeek edo beste kirol batzuek ez dute horrenbesteko presentziarik medioetan. Hori dela eta, ...*eta kitto!*-k nahiago du, hedabideetan ateratzeko zailtasunak dituzten eta protagonismo gutxiago duten herriko kirol talde edo kirolariei protagonismoa aitortzea.

Talde kirolen baitan, eskubaloia (berrogeita bat item), mendia (hogeita bost item), saskibaloia (hogeita hiru item) eta errugbia (hogeita item) ere agertzen dira. Eibarko Arrate Eskubaloia Taldea maila profesionalean ari da eta kirol horrek jende asko mugitu izan du betidanik Eibarren; gizon zein emakumeen talde garrantzitsuak egon dira eta daude eta horren guztiaren isla dira emaitzak. Kontuan hartu behar da, lan-taldeak ahalegin berezia egiten duela, futbola ez den gainerako kirolei aldizkarian lekua egiten eta horretarako, astero bi edo hiru orrialde eskaintzen zaio kirol informazioari “Kirolez kirol” atalean. Kirol ezberdinei buruzko albisteak eta albiste laburrak nagusitzen dira atal honetan nahiz eta argazki-albiste, erreportaje eta elkarrizketak ere agertzen diren.

## B) BANAKAKO KIROLA

Banakako kirolen barnean, txirrindularitza (hirurogeia sei item) eta pilota (berrogeita bederatzi item) dira gehien errepikatzen diren kirolak. Txirrindularitzak informazio asko sortzen du Eibarren. Urtero Euskal Bizikleta egiten da, Debarrena txirrindulari taldeak Eibarren dauka egoitza nagusia eta bailara osoko txirrindulariak biltzen ditu. Klub Ziklista taldea ere Eibarren dago, urteetan lanean dihardu eta herrian garrantzitsu bilakatu da. Guztiek egiten dituzten ekitaldiek dute oihartzuna aldizkarian.

Pilotari dagokionez, gaur egun itxita dagoen Astelena frontoian lehen mailako partiduak jokatu izan dira urteetan. Aspe pilota enpresak Eibarren du bere egoitza nagusia eta oro har pilota beti izan da notizia Eibarren. Pilotan ere, ezezagunagoak izan diren kirolariei egin zaie lekua

---

<sup>317</sup> - Eibarren futbolari, *foballa* esaten zaio eta aldizkarian hitz hori erabiltzen dute.

Eibarko astekarian. Astelena frontoian astero gertatzen denaren kronika ez da egin guk aztertu dugun epean.

Banaka egiten diren kirolen barnean, atletismoa (hogeita hamalau item), judo, karate eta borroka arteak (hogeita bederatzi item), errugbia eta igeriketa (hogeita item bakoitza), herri kirolak (hamazazpi item), eskia (hamabi item), duatloi/triatloi (bederatzi item) eta automobilismo eta motoziklismoari (hiru item) ere lekua egiten zaio aldizkariko orrietan. Oro har, futbola ez den beste kirolei arreta gehiago jartzea modu kontzientean egiten duten zerbait da, nahiz eta zaila izaten den, oihartzun handiagoa duten kirolei jarraipena egitea errazagoa izaten delako normalean.

### **C) EHIZA ETA XAKEA**

Metodologian aipatu bezala, Idoia Camachok *“Herri-aldizkariaren funtzioa euskara normalizatzeko prozesuan 1989-1999”* tesirako egindako kategoria sistema hartu dugu kontuan gure kategoria sistema propioa garatzeko. Bertan, ehiza kirol gisa agertzen da eta guk xakea kirol bihurtu dugu, aldizkari gehienetan<sup>318</sup> agertzen baita. Emaitzetarako, ordea, ehiza eta xakea atal batean bildu ditugu bi diziplina horiei buruz zalantzak izaten direlako kirol moduan kontsideratzeko. ...*eta kitto!*-n bai bata zein besteak kirol gisa hartzen dituzte, agertzen direnean kirolen orrialdeetan agertzen direlako. Horrela bada eta emaitzen arabera, Eibarko astekarian ehiza (bost item) zein xakea (hamaika item) ez daude gehien agertzen diren kirolen artean.

### **D) KIROL AGENDA**

Kirol agenda deituko dugun atal horretan bi motako testuak sailkatu dira. Alde batetik, kirol bat baino gehiago sartzen dituzten informazioak (urteroko kirol sariak, olinpiadak edo agenda moduan sartzen diren kirol agenda eta emaitzen taulak) eta bestetik, kategoria berezirik ez duten kirolak. Azken horien emaitzak honako hauek izan dira ...*eta kitto!*-n: Arku tiroa zortzi aldiz agertzen da, gimnasia hamazazpi bider, squash-a lau aldiz eta boloak hamasei bider. Boleoi dagokionez, “Hiru Txirlo” boloen txapelketak oso ezagunak eta ohikoak dira Eibarren eta aldizkariak beti egin izan dio tokia informazio horri. Gainerako hedabideek ez zioten kasu handirik egiten eta “Hiru Txirlo”-koak prentsa oharrak eginez eta euren ekintzen berri puntualki zabalduz, azkenean hedabide ezberdinetan agertzea lortu dute.

---


<sup>318</sup>. Soralezeko *Pil-Pilean* aldizkarian izan ezik, lan honetan aztertu diren aldizkari guztietan xakea kirolean agertzen da. Orotara 39 aldiz agertzen da xakea kirol moduan aldizkari ezberdinetan bost urteko epean. Emaitza hau aldizkari guztietako datuak batuz lortu dugu.

### **Kirola bi hitzetan**

Orain arte esandakoa laburbilduz, kirol informazioa inportantea da aldizkarian, ale gehienetan eskaintzen zaion espazio handia delako (bi edo hiru orri) eta urtero kirolari buruzko zenbaki berezia kaleratzen delako. ...*eta kitto!*-k kirol atalean aniztasuna bilatzen du, elitekoak ez diren kirol eta kirolariak agertzearen aldeko apustua egiten du, hedabideetan irteteko zailtasunak dituztenei bidea erraztuz. Jokaera hori kontzientea da eta uneoro presente dago aldizkarian. Hala eta guztiz ere, kirol guztien artean futbolaren hegemonia azpimarra daiteke, baina eliteko futbola ez denari arreta berezia eskainiz. Neurri txikiagoan bada ere, talde kirolen artean, eskubaloia, mendia, saskibaloia eta errugbia ere agertzen dira. Banakako kirolen artean, txirrindularitza eta pilota dira nagusi, atletismoa, borroka arteak eta igeriketari ere espazioa eskainiz. Ehiza eta xakearen agerpena hutsala da eta kirol agenden baitan, gimnasia eta boloak dira nagusi.

## 4.1.4.5.2- Kirolaren bilakaera

18A. grafikoa



Kirol gai ezberdinen bilakaera portzentuala...eta kitto! aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

18B. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
	2000	32	55	5	14	106
	2001	42	36	2	9	89
	2002	47	41	4	7	99
	2003	48	60	2	12	122
	2004	49	47	3	13	112

Kirol gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Kirolei buruzko informazio testu kopuru altuena, 2000, 2003 eta 2004an agertzen da. Izan ere, ...eta kitto!-k kirolei buruzko ale monografikoa ateratzen du urtero, urtarrileko lehenengo edo bigarren astean<sup>319</sup>, eta bertan aurreko urteko kirolari errepassoa egiten zaio. Gure laginean 2000 eta 2003 urteko “*Kirolkitto!*”-ak aztertu ditugu eta horrek eragin zuzena izan du kirol testuen kopuru orokorrean, “*Kirolkitto!*” bakoitzean kaleratzen den kirolari buruzko informazioa, ohiko aleetan baino askoz altuagoa izaten delako. 2000ko “*Kirolkitto!*”-n, berrogeita zazpi testu

<sup>319</sup>- Gabonetako oporren arabera, lehenengo edo bigarren astea izaten da. 2000. urteko lehenengo astean ez zuten alerik kaleratu eta bigarren asteko alea izan zen “*Kirolkitto!*” berezia. 2003an, aldiz, lehenengo astean alea kaleratu zuten eta kirolei buruzko ale berezia izan zen.

kaleratzen dira eta 2003ko “*Kirolkitto!*”-n hogeita sei idazki. Ohiko aleetan, kirol ezberdinei buruzko sei informazio argitaratzen dira bataz beste.

### A) TALDE KIROLA

18A. grafikoan agertzen diren portzentajeak eta 18B. taulako datuek argi erakusten dute talde kirolaren agerpena hazi egiten dela lehenengo urtetik aurrera eta hazkundera 2000tik 2001era antzematen da bereziki, hamazazpi puntutan egiten baitu gora. Hurrengo urtean mantendu egiten da portzentajea, 2003an berriz jaisteko (%39) eta 2004an %44an kokatzeko. Talde kirolaren barnean urtero, futbolari eskaintzen zaio espazio gehien aldizkarian, Eibarren, bigarren mailako taldeaz gain, futbolearen aritzen diren hainbat talde daudelako (areto futbola, nesken futbola edota futbol zaletuko taldeak besteak beste). 2002an futbolari buruzko testu gehien agertzen dira ...*eta kitto!*-n, hogeita sei item<sup>320</sup> hain zuzen ere; bataz beste aleko bi item baino apur bat gehiago eskaintzen zaizkio futbolari 2002an. Urte horretako abenduko alean, urtekaria izanik, ez zaio kirolari leku asko<sup>321</sup> eskaintzen; ulergarria da gaien artean oreka mantendu nahi bada, urtekarian kirolak horrenbeste protagonismorik ez izatea, urtarrilean kirolari buruzko ale berezia kaleratzen baita.

Eskubaloari buruzko informazio gehien 2001ean kaleratzen da (hamar item)<sup>322</sup>, saskibaloari buruzko zazpi item argitaratu dira 2001<sup>323</sup> eta 2003an, eta urte horietan izan du saskibaloiak agerpen handiena ...*eta kitto!*-n. Mendia gehien agertzen den bi urteetan zortzi aldiz<sup>324</sup> agertzen da, 2002 eta 2004an hain zuzen ere. Taldeko kirolen artean errugbiak du agerpen gutxien Eibarko aldizkarian. 2002 eta 2003an agertzen da gehien eta orduan bost aldiz<sup>325</sup> da errugbia albiste.

### B) BANAKAKO KIROLA

Urteek aurrera egin ahala, banakako kirolak gutxiago agertzen dira aldizkarian, 2000an %52-ko portzentajea izatetik, 2004an hamar puntu gutxiago (%42) izatera jaisten da banakako kirolen portzentajea. Talde kirolen agerpenak gora egiten duen neurrian, banakako kirolen presentzia jaitsi egiten da aldizkarian. Banakako kirolen artean urtero txirrindularitza gailentzen

<sup>320</sup>- Adibidea: “Eibartarrak-eko hiru jokalarik Athletic-ekin jokatuko dute”, nesken futbolari buruzko albiste. 2002ko iraileko 405. zenbakian. (6. or.)

<sup>321</sup>- 2002ko urtekarian kirolari buruzko erreportaje bat (20.-21. or.) eta albiste labur bat (19. or.) agertzen dira.

<sup>322</sup>- Adibidea: “Aitor Etxaburu, Bidasoaren entrenatzaile berria” albiste. 2001eko uztaileko 364. alean. (15. or.)

<sup>323</sup>- Adibidea: “Datac Computer maila igotzeko asmoarekin” albiste laburra. 2001eko apirileko 353. zenbakian. (21. or.)

<sup>324</sup>- Adibidea: “Goi mailako Aste Santua Leongo mendietan” erreportajea. 2004ko apirileko 474. alean. (14. or.)

<sup>325</sup>- Adibidea: “Rugbi taldeak gero eta sendoago” albiste laburra. 2002ko azaroko 415. zenbakian. (18. or.)

da ...*eta kitto!*-n eta kirol honi buruzko testu kopuru altuena 2003an aurkitu dugu, hamabost item<sup>326</sup> hain zuzen ere.

Banakako kirolen artean gehien agertzen den bigarren kirola pilota da, urtero ia hamar testu kaleratuz eta 2004an pilota albiste diren hamabi<sup>327</sup> informazio argitaratzen dira.

Atletismoari buruzko sei testu kaleratzen dira ale bakoitzean batz bestetik guk aztertu dugun epean. Gehien agertu den urtea, 2003a izan da eta urte horretan atletismoari buruzko bederatzi item<sup>328</sup> aurkitu ditugu.

Borroka artei (judoa, karatea, wu-shu) urtean bost testu inguru eskaintzen zaie ...*eta kitto!*-n. 2000-2004 bitartean bederatzi aldiz<sup>329</sup> agertzen dira borroka arteak eta guztiak 2003 urtean.

Igeriketari buruzko testu gutxi aurkitu ditugu, bost testutik behera urtero eta 2003an zortzi informazio<sup>330</sup> kaleratzen dira igeriketarekin zerikusia dutenak.

Herri kirolak, duatloi/triatloia, eskia, automobilismoa eta motoziklismoa gutxi agertzen dira oro har. Herri kirolei buruzko sei testu<sup>331</sup> kaleratzen dira 2003an eta dualoi/triatloia albiste duten lau testu<sup>332</sup> agertzen dira 2000. urtean. Eskiari urtero bi item eskaintzen zaizkio, 2001ean izan ezik, lau testu<sup>333</sup> kaleratzen baitira. Automobilismo eta motoziklismoa guztira hiru bider<sup>334</sup> agertzen da hirurogei aleetan.

### C) XAKEA ETA EHIZA

Xakea eta ehizari buruzko testu gutxi aurkitu ditugu aztertu ditugun aleetan, eta urteekin gero eta gutxiago agertzen dira. 2004an kaleratzen da xakeari buruzko item kopuru altuena, hiru testu<sup>335</sup> hain zuzen ere eta ehiza gehien agertzen den urtean ere, hiru aldiz<sup>336</sup> agertzen da.

<sup>326</sup>- Adibidea: "Jose Antonio Pecharroman, Euskal Bizikletako ezustekoa" albiste. 2003ko ekaineko 441. alean. (20. or.).

<sup>327</sup>- Adibidea: "Etxaniz eta Bengoetxearen garaipenak asteburuan" albiste. 2004ko apirilko 474. zenbakian. (15. or.).

<sup>328</sup>- Adibidea: "Lau eibartar Zegama-Aizkorri mendi maratoian" albiste. 2003ko uztaileko 444. alean. (21. or.).

<sup>329</sup>- Adibidea: "Herriko karateka bi garaile Eskualdeko karate txapelketan" albiste. 2003ko otsaileko 426. zenbakian. (16. or.).

<sup>330</sup>- Adibidea: "Urbateko igerilariak 2. mailari eusteko asmotan" albiste. 2003ko azaroko 457. alean. (30. or.).

<sup>331</sup>- Adibidea: "Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolaria: Tamaina horretako egurrekin inoiz ez dakik asmatuko duan". 2003ko azaroko 457. zenbakian. (26.-27. or.).

<sup>332</sup>- Adibidea: "Iron Mana, triatloikoen helburua" albiste. 2000ko urtarrileko 299. alean. (14. or.).

<sup>333</sup>- Adibidea: "Negu beltzean ere, eskiatzen bero-bero" erreportajea. 2001eko otsaileko 342. zenbakian. (7.-8. or.).

<sup>334</sup>- Adibidea: "Alberto Aramendi Arrateko Auto Igoerako antolatzaile: Aurten egun bakarrean egin nahi dugu lasterketa". 2000ko urtarrileko 299. zenbakian. (24. or.).

<sup>335</sup>- Adibidea: "Alfil taldeak irabazi zuen San Juanetako xake torneo" albiste. 2004ko uztaileko 485. zenbakian. (16. or.).

<sup>336</sup>- Adibidea: "Eskualdeko ehiza txapelketa txakurrekin" albiste laburra. 2000ko urriko 328. alean. (15. or.).

## D) KIROL AGENDA

Kirol agenda eta emaitzen baitan sailkatu ditugun testuak<sup>337</sup> 2000 eta 2004an agertzen dira batez ere, hamalau eta hamahiru aldiz hurrenez hurren. 2000. urtean “*Kirolkitto!*” kirolari buruzko ale berezia agertzen delako eta 2004an, squash<sup>338</sup> eta boloei<sup>339</sup> buruzko testuak agertzen direlako batez ere.

### **Kirolaren bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, kirola gehien agertzen den gaien artean dago Eibarko astekarian, nahiz eta urtetik urtera ez den kirolaren hazkunde argirik nabaritzen. Talde kirola hazi egiten da urtero futbola, eskubaloia, saskibaloia eta mendiari buruzko informazioak apurka-apurka gero eta gehiago izanez. Banakako kirola, ordea, jaitsi egiten da urtetik urtera, nahiz eta pilota eta txirrindularitzari buruzko idatziak nahiko goian mantentzen diren. Atletismoa, borroka arteak eta igeriketa mantendu eta batzuetan jaitsi egiten dira. Ehiza eta xakeari buruzko idatziak gutxi dira eta gainera urteak pasa ahala, beheranzko joera argia erakusten dute. Kirol agenden baitan, squash eta boloei buruzko informazioak gero eta ugariagoak dira. Oro har gainerako hedabideetan gertatzen den antzera, kirol batzuek (futbola, pilota edo txirrindularitza) beste batzuek (igeriketa, eskia edo triatloia) baino protagonismo gehiago daukate ...*eta kitto!*-n, baina ezin da ukatu aldizkariak kirol askori egiten diola tokia; astero ateratzen ez badira ere, noizbait izan dira albiste bertan.

---

<sup>337</sup> - Adibidea: “V. Kirol Sariak”erreportajea. 2000ko urtarrileko 299. zenbakian. (15. or.).

<sup>338</sup> - Adibidea: “Eibar Hiria squash txapelketa berria Yanguasentzat” albiste. 2004ko uztaileko 485. alean. (16. or.).

<sup>339</sup> - Adibidea: “Bolo txapelketa berria abiapuntuan” albiste. 2004ko iraileko 489. zenbakian. (20. or.).



#### **4.1.5- ...ETA KITTO! ALDIZKARIAREN ARDATZAK**

Aztertzeko aukeratu den epean, ...*eta kitto!* Eibarko aldizkarian kazetaritza-generoak oso finkatuta egon dira. 2000-2004 bitartean, aldizkariko lana antolatzeko moduaren aldaketa aipatu beharra dago, aldizkaria neurri handi batean bertoko langile eta profesionalen esku geratu da, kolaboratzaileen parte hartzea urria izan delako. Horrek zerikusia izan du kazetaritza-genero eta gaiak bost urte horietan izan duten bilakaeran.

##### **4.1.5.1- Kazetaritza-generoak**

Urtetik urtera ...*eta kitto!*-k **informazio** gehiago eta ordenatuagoa eskaintzen dio irakurleari. Aldizkariko sailak oso finkatuta daude eta baita bertan erabiltzen diren generoak ere. Aldizkarian oro har eta baita aldizkariko sail ezberdinetan ere, kazetaritza-genero ezberdinen arteko oreka orokorra kontuan hartzen da. Informazio-generoen artean, **albisteak**, **argazki-albisteak**, **erreportajeak** urteekin indartuz joan dira; elkarrizketak eta albiste laburrak, aldiz, mantendu edo gutxituz joan dira. Urteen poderioz, aldizkariak irakurleen artean irakurtzeko sortu duen ohitura argi eta garbi erakusten dute informazio-generoek, irakurtzeko luzeagoak diren generoak gero eta gehiago agertzen baitira, irakurleak hasieran ez bezala, dagoeneko ohituta daudelako albisteak eta genero landuagoak euskaraz irakurtzen.

Aldizkariko iritzi-atalak indarra galdu du urtetik urtera; izan ere, iritzi kolaboratzaileen figura ahulduz joan da, gero eta jende gutxiagok aldizkarian idatziz. Beraz, kolaboratzaileen idatziak, iritzi-artikulu eta zutabeak esaterako, gero eta gutxiago agertzen dira aldizkarian. Herritarren artean egiten diren **inkestak** eta **irakurleen gutunak** guztiz finkatuta daude aldizkarian eta, gutunen kasuan, aldizkariak urteetan egindako lana nabaritzen da, irakurleen artean euskaraz idazteko ohitura sortuz joan delako, argitalpen eta idazlearen arteko harreman zuzena sustatuz. 2004ko bigarren erdialdean iritziaren berragertze apala nabaritzen da.

...*eta kitto!*-n zerbitzuen atala sendotuta dago eta horrela mantendu da gure ikerketa-epean. Gainera, zerbitzuei eskaintzen zaien espazio oso definitua dago aldizkarian; **kultur agendak**, **zerbitzu-informazioa**, **salerosketa/trukeak** eta **denbora-pasak** beti agertzen dira. Kultur agendak, salerosketa/trukeak eta zerbitzu-informazioa publiko orokorrari eskaintzen zaio; denbora-pasen atala, ordea, irakurle gazteei zuzenduta dago.

#### 4.1.5.2- Gaiak

Eibarko astekarian gai aniztasuna antzematen da, 2000-2004 bitartean gai guztiak agertu direlako bertoko orrietan eta oro har gai ezberdinetan goranzko joera nabaritzen da urtetik urtera. Gai gehienak herriko ikuspegitik lantzen dira, herria eta herritarrak protagonista bilakatuz. Gizarte-gaiak (kultura eta kirolak), politika eta ekonomia baino askoz gehiago agertzen dira aldizkarian, baina gaien arteko oreka zaintzen saiatzen dira.

Politika da gutxien lantzen den gaia ...*eta kitto!*-n 2000-2004 bitartean, baina urtetik urtera politikak apurka-apurka garrantzia irabazi du. 2003. urtea berezia da, udal hauteskunde urtea izanik, gai politikoetan argi eta garbi ikusten da. Hala ere, Eibarko aldizkarian **Euskal Herriko gatazka** da gehien errepikatzen den gai politikoa, batez ere irakurleen gutunen bitartez agertzen delako. Ondoren, **udala** eta **alderdien** gaia dira landuenak, biak portzentaje berean. Erakunde ezberdinak, Aldundia eta Eusko Jaurlaritza herriarekin edo herritarrekin zerikusi zuzena dutenean soilik agertu dira; beraz, aurreko gaien ondoan, bere agerpena hutsala izan da.

Ekonomia da gutxien agertzen den bigarren gaia, nahiz eta poliki-poliki urtez urte gai ekonomikoei buruzko testuak areagotzen joan diren. **Enpresa, merkataritza** eta **gai laboralak** dira gehien agertzen direnak ordena horretan...*eta kitto!* Aldizkarian, baina batez ere urtetik urtera bere presentzia gehitu duten gaiak, merkataritza eta gai laboralak izan dira.

Arestian aipatu bezala, gizarte-gaiak dira aldizkariko izarrak, batez ere herritarrak protagonista dituzten atalak eta zerbitzuen saila. Gizarte-gaien baitan dauden kategoria kopurua kontuan hartuta, guztiz logikoa da atal hau izatea gehien agertzen dena. **Gizarte ohitura** eta **zerbitzuen** gaien ostean, **hezkuntza, lanak, taldeak** eta **ingurumena** dira gai landuenak bost urte hauetan eta osasuna eta gizarte arazoan gaiak gutxien agertzen direnak. Baina gaien bilakaerari erreparatzen badiogu, gizarte arazoan gaiak eta hezkuntza gaiak bakarrik erakutsi dute goranzko joera argia.

Kultura gaiak dira gizarte-gaien ostean gehien agertzen diren bigarrenak Eibarko aldizkarian, gainera urtetik urtera kultura atala indartuz doa aldizkarian. Izan ere, kulturari eskaintzen zaion orri kopurua finkoa eta handia dela esan daiteke. **Arte eszenikoak** eta **arte plastikoak** dira gehien agertzen diren gai kulturalak. **Musika, antzerkia, eskulanak** eta **argazkigintza** nagusitzen dira. Gutxiago agertzen dira euskara eta agendak, eta zer esanik ez gastronomiari buruz, oso gutxi agertzen baita.

Kirolen blokea, gehien agertzen den hirugarren gaia da aldizkarian eta urtetik urtera mantendu egiten da. Kirolari eskaintzen zaion espazioa finkoa da eta kirol ezberdinei buruzko informazioak kaleratzen dira. Erredaktoreen aldetik badago joera jakin bat, elitekoak ez diren kirol eta kirolariei aldizkarian espazioa eskaintzearena: horregatik **futbola** gehien agertzen den kirola den arren, ez da Eibar taldeko futbola, gainontzeko hedabideetan presentziarik ez duen futbola baizik: nesken futbola, areto futbola edo zaletuen futbola esaterako. Horrezaz gain, **pilota** eta **txirrindularitza** dira gehien agertzen diren kirolak.

#### 4.1.5.3- Gibel-iruzkinak

Kazetaritza-generoen arteko oreka argi eta garbi ikusten da aldizkarian, genero landuago eta luzeagoak urtetik urtera ugarituz. Halaber, kazetaritza-generoak aldizkarian nola erabiltzen diren ikusita, zalantzarik ez dago atzean daudenak, kazetari profesionalak direla.

Gaiei dagokionez, urteetako eskarmentua begi-bistakoa da. Aldizkariak 2006ko abenduan hemezortzi urte bete ditu, adinez nagusitu da eta hori gaiak lantzerako orduan antzematen da. Gaiak aukeratzeko orduan, Eibarko beste hedabide batzuek esandakoa kontuan hartzen duten arren, lan-taldeak oso argi dauka Eibarko esparru komunikatiboan ari diren hedabideek eta euskarazko herri-aldizkariak esparru ezberdinak lantzen dituztela. Esaterako, hirigintzan, alderdien arteko liskarrek eguneroko hedabideetan isla zuzenagoa izaten dute eta ez horrenbeste ...*eta kitto!*-n. Gizarte eta kultura gaiak, ordea, ...*eta kitto!*-n era autonomoagoan lantzen dira eta bertan agertzen diren protagonista asko eta gai asko, ez lirateke inoiz eguneroko batean agertuko ezta protagonista izango.





#### **4.2- PIL-PILEAN ALDIZKARIAREN ANALISIA**

*Pil-pilean* aldizkaria 1996ko urtarrilaren 25ean kaleratu zen lehenengoz Soraluzen, euskara bultzatzeko eta herrian hainbat ekintza kultural sustatzeko asmoz. Hasieran hiru hilero kaleratzen zen, baina berehala ohartu ziren maiztasuna handitu beharra zegoela; 1997an hilean behin argitaratzen hasi zen eta bost urte beranduago, 2002an, hamabostekari bilakatu zen. Hasierako lau urteetan ez zegoen langilerik erredakzioan eta borondatez jarduten zuen lan-talde osoak. Egitasmoa, erabat militante jaio zen Soraluzen, *Pil-pilean* Kultur Elkartearen babespean eta egitura sendorik gabe, lagun talde batek sortu zuen aisialdian. Sasoi hartan Soraluzen ez zegoen herri komunikabideetan esperientziarik eta ahal zutena eginez kaleratzen zuten agerkaria.

Zentzu horretan, 2000. urtea aldaketa urtea izan da *Pil-pilean* aldizkariarentzat. Urte bereko irailetik aurrera, koordinatzailea eta publizista lehenengoz diru-sari baten truke hasi ziren lanean eta 2001etik aurrera, kazetaria ere soldatapean hasi zen. Lau urtetan aldizkarian ez zuen inork soldatarik jaso eta lan baldintzen hobetzea erabakigarria izan zen maiztasuna handitzeko. Aldizkaria hilabetekari izatetik hamabostekari izatera pasa zen 2002an.

Egoitz Unamuno *Pil-pilean* aldizkariako erredakzio buruaren ustez, lan baldintzen hobetzea eta antolatze modua, ezinbestekoa izan da 2000-2004 bitartean aldizkariaren garapenerako:

*“Nik uste dut 2000-2002 urteetan nahiko ataskatuta egon zela aldizkaria, aurrera egin ezinik. Orduan, asanbladan funtzionatzen genuen, batez ere elkartea egituratu gabe zegoelako eta ia dena asanblada bitartez erabakitzen zelako. Horrek izugarrizko eragina zuen, jendea hona etorri eta benetan burua honetan izan gabe, bakoitzak bere burutazioak botatzen zituen, izan zitezkeen aldizkariarekin lotutakoak edo kulturarekin lotutakoak eta horrek, eragin zuzena zeukan aurrera ez egitearekin. Hala ere, 2000. urtean jendea diru-sariarekin hasten denean, poliki-poliki jende horrek esperientzia hartu eta ardura eta konpromiso maila gero eta altuagoa hartzen du aldizkariarekiko eta aurrera egiten doa, 2002an hamabostekari bihurtuz”*

340

Sortu zenetik tirada handitu egin du eta gaur egun (1.920 ale) Soraluzeko etxe guztietan banatzen da *Pil-pilean* aldizkaria.

---

<sup>340</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

2002ko abenduan aldizkariko azalean eta kontra-azalean kolorea sartu zuten eta gutxi izan bada ere, langileen egoera hasieratik apur bat hobetu da. Halere, oraindik hutsune nabarmenak sumatzen dira aldizkarian, lan baldintzak eta administrazio lanak hobetu beharra dago-eta.

2000-2004 bitartean, lau pertsonak osatzen dute lan-taldea: publizistak, kazetariak, maketzaileak (hiru horiek diru-saria jasotzen dute, baina ez dute lan kontraturik) eta erredakzio buruak (lau orduko lan kontratua duena). Aldizkarian idazten dutenen artean kazetari bakarra dago.

Egitura hain txikia, prekarioa denean eta baliabide pertsonal eta material gutxi daudenean, antolatzeke erak produktuan erabateko eragina dauka. Egoitz Unamuno erredakzio buruak, gaur egun profesionalizatzeko maila altuagoa egon beharko litzatekeela uste du:

*“Zuk pertsona bati egun erdiko lan kontratua eskaintzen badiozu, pertsona hori ezin da hortik bizi beste lanpostu erdi bat izan ezean. Pertsona hori, kazetaria izan, publizista izan, diseinugilea izan, beti dago beste lekuren batera begira. Beraz, urte bete edo bitan ondo egon ahal zara, baina gero beti besteren bat topatu behar. Gaur egun ere, karanbola batzuekin ondo moldatzen gara, sostengatzen da, baina profesionalizatzeari begira eta administrazio kontuei begira, azken hori oso gaizki eraman izan baita beti, hutsuneak daude oraindik aldizkarian”<sup>341</sup>.*

Arazoak arazo, ezin da ukatu, urteek aurrera egin ahala, *Pil-pilean* aldizkariak bilakaera handia izan duela. Soraluzen hamar urtean zehar egindako lanak eman ditu bere fruituak eta hamabostekariak herrian bere esparrua irabazi du, jende askoren lan militanteari esker nagusiki.

### **Aldizkariko atalak**

2000-2004 bitartean, *Pil-Pilean* aldizkarian honako atal hauek aurkitu dira, kontuan hartuta, 2002an hamabostekari bihurtzen dela eta diseinu eta atal aldaketak izan direla:

**-Iritzia/Ataia:** Hilero/hamabostero kolaboratzaile batek edozein gairi buruz idatzitako iritzi-zutabea eta aldizkariaren editoriala argitaratzen den saila.

**-Gutunak:** Hilabetekaria zenean, irakurleen gutunak osatzen zuten atala. Hamabostekari bilakatu zenean, orri berean gutunak eta **Zerbitzuak** argitaratzen dira: Zorion agurrak, gazte informazioa, jaiotakoak/hildakoei buruzko zerbitzu-informazioa eta partikularren iragarki txikiek osatzen dute sekzioa.

---

<sup>341</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

**-Zer irizten dotsazu?:** Herritar ezberdinei (sei herritarri) hilero/hamabostero gai ezberdinei buruz egiten zaien inkesta.

**-Berri motzak /Zer berri:** Gaurkotasunari heldu nahian, “Zer berri” atalean ia inoiz ez da sartzen pasatu den ekitaldirik. Berez, aurrera begira lantzen diren gaiak dute lekua bertan; “Kirola”, “Kultura”, “Elkarrizketa” eta “Erreportaje” sailetatik kanpo geratzen direnak hemen sartzen ziren.

**-Gizartea/Erreportaia:** Herriari lotutako eta gaurkotasunarekin zerikusia izan dezakeen bi orriko erreportajea.

**-Gaztetxoek txokoa:** Hamabostekari bihurtu aurretik (2002ko urtarrila) sartzen den atala. Beste aldizkari batean ikusi, gustatu eta bere egin zuten ideia, baina 2001ean eskolekin “Ugaraxo” gehigarria kaleratzen hasi zen eta gaztetxoek txokoa desagertu zen.

**-Hormatxulotik begira:** 2000-2001 epean kaleratzen den atala. Edozer gauza sar daiteke sail honen baitan. Izenburu arina, gauza arinak, argazki zaharra eta lehiaketa sartzen ziren besteak beste. Batzuetan zerbitzuak eta denbora-pasak ere aurki daitezke.

**-Udal kontu:** 2002ko martxora arte, udalari buruzko informazioa lantzen zen atala. Ordutik aurrera informazio hori “Zer berri” atalaren baitan sartzen da.

**-Sutondoan epeletan:** Zer edo zer azpimarragarria duen edo zerbaitengatik ezaguna den pertsonari egiten zaion elkarrizketa sakona.

**-Kale Kantalian:** Edozein herritarri egiten zaion elkarrizketa arina.

**-Kirola:** Kirol ezberdinei buruzko albiste, erreportaje edota elkarrizketak sartzen diren atala.

**-Kultura:** Kulturari lotutako gaiak lantzen diren saila. (1-2 orri)

**-Kontuak kontu:** “Hormatxulotik begira” atalaren antzekoa da. Argazki zaharra, lehiaketa, denbora-pasak sartzen dira bere baitan.

### **2000-2004 bitartean kaleratu diren gehigarriak:**

**-Ugaraxo gehigarria:** 2001eko ekainean herriko eskolarekin elkarlanean sortzen den gehigarria. *Pil-pilean* aldizkariko taldeak, beste herri-aldizkari batzuetan gaztetxoek inguruan gehigarriak ateratzen zirela ikusita, Soraluzen horrelako bat egitea proposatu zuen Euskara Batzordean. Ikastetxetik oso ekimen egokia zela ikusi zen eta udalak horretan laguntzeko konpromisoa hartu zuen. “Ugaraxo” ikastolakoa den pertsonaia da eta gehigarriari izen hori



jartzea erabaki zuten. Hilean behin kaleratu izan da beti (lau orri), eskolak oporrak dituenean izan ezik. Gehigarri honen helburua, elkarlanean arituz, gaztetxoei txoko bat eskaintzea da.

**-Jaurti gehigarria:** Euskara Batzordean bertan sortu zen ideia “Ugaraxo”-rekin bezala, baina kasu honetan DBH-ko ikasleekin egiten zen. Urtean, lau orriko hiru ale kaleratzen ziren. Ez zuen asko iraun, irakasleen aldetik ez baitzen jaso espero zuten konpromiso eta inplikazio maila. 2002an kaleratzeari utzi zioten.

**4.2.1- PIL-PILEAN ALDIZKARIAREN FITXA TEKNIKOAK**

...*eta kitto!* aldizkariaren analisisian egin den bezala, hemen ere 1999ko datuak aprobetxatu nahi izan ditugu, nahiz eta guk azterketarako aukeratu dugun epea 2000-2004 bitartekoa izan. Erabili dugun fitxa teknikoak, gure ikerketa hasi aurretik *Pil-pilean* aldizkariaren egoera zein den ezagutzeko oso baliagarria izan da. Bestalde, eredu bera jarraituz datuak eguneratu ditugu eta bi epeen arteko konparazioa egiteko bide eman digute.

	<b>1999eko fitxa teknikoa</b> <i>Asier Arangurenek Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian doktore-tesian kaleratutako datuak.</i>	<b>2004ko fitxa teknikoa</b> Asier Arangurenen txantiloia kontuan hartuta, doktore gai honek eguneratutako datuak.
<b><i>Pil-pilean</i></b>	Frontoi kalea 5, behea erdia. 20590 Soraluze (Gipuzkoa). Tf: 943 75 17 34	Frontoi kalea 5, behea, erdia. 20590 Soraluze (Gipuzkoa). Tf: 943 75 13 04
<b>Herria/Eskualdea</b>	<b>Herria:</b> Soraluze. 4.653 biztanle. Euskaldunak % 59,5	<b>Herria:</b> Soraluze. 4.083 biztanle. Euskaldunak 3.131 (%77) <sup>342</sup>
<b>Argitaratzailea</b>	Pil-pilean Kultur Elkarteak	Pil-pilean Kultur Elkarteak
<b>Nortasun juridikoa</b>	Kultur Elkarteak	Kultur Elkarteak
<b>Zuzendaria</b>	Gorka Prieto	Egoitz Unamuno
<b>Lehen alea</b>	1996ko urtarrilaren 25ean	1996ko urtarrilaren 25ean
<b>Maiztasuna</b>	Hiru hilabetekaria	Hamabostekaria
<b>Hizkuntza</b>	Euskara hutsez	Euskara hutsez
<b>Zabalkundea</b>	Soraluze	Soraluze
<b>Tirada</b>	1.600	<b>Tirada:</b> 1.920. Soraluzeko etxe guztietara heltzen da.
<b>Prezio</b>	Doan	Doan
<b>Formatua</b>	DIN-A4	DIN-A4
<b>Orrialdeak</b>	36	16

<sup>342</sup>- Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

<b>Lan-taldea</b>	Bakarra soldata txiki baten truke (kontraturik gabe).	Bakarra 4 orduko kontratuarekin, bat 2 orduko kontratuarekin, maketatzailleak ez du kontraturik. Publizistak ez du kontraturik. 15 kolaboratzaile eta ez dute kobratzen.
<b>Edukiak</b>	Informazioa %90, lokala %100, testua %80.	Informazioa %66, Iritzia %13, Literatura %2, Zerbitzuak %19.
<b>Sortze arrazoiak</b>	Euskara bultzatzea eta herrian hainbat ekintza kultural sustatzea.	Euskara bultzatzea eta herrian hainbat ekintza kultural sustatzea.
<b>Publizitatea</b>	Modulua 1.000 pezeta. Publizistaren komisioan, katalogorik ez.	Modulua 30 € + BEZ. Publizistak kopuru finkoa kobratzen du hilean eta ez dauka komisiorik.
<b>Ezaugarri teknikoak</b>	Auto-edizioa. Azala bi koloretan, barruko orriak zuri beltzean.	Auto-edizioa. Azala koloretan, barruko orriak zuri beltzean. Urtean publizitate bezero finkoak: 40.
<b>Finantziazioa</b>	<b>Gastuak:</b> --- <b>Sarrerak:</b> --- <b>Diru-laguntzak:</b> --- <b>Publizitatea:</b> --- <b>Besteak:</b> --- <sup>343</sup>	<b>Gastuak:</b> 43.550 € <b>Sarrerak:</b> 43.550 € <b>Diru-laguntzak:</b> 21.000 € <b>Publizitatea:</b> 17.000 € <b>Besteak:</b> 2.250 €
<b>Tresneria</b>	Ordenagailu bakarra, Inprimagailua eta eskanerra bai, modem eta faxik ez. Telefono linearik ez. Argazki makina bat, baina laborategirik ez. K3 inprimategia.	3 i-mac, eskanerra, kamara digitala, bideo kamara digitala, inpresora eta CD grabagailua, telefono linea bat, ADSL, 3 ordenadoreak sarean.

<sup>343</sup>- Aranguren Asier. (2000): *"Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian"* doktore-tesia, EHU, Bilbo. Atal hau hutsik agertzen da. (569 or.).

Konpetentzia	Herri komunikabideetan ez	Herri komunikabideetan ez
<b>Oharrak</b>	Lagun talde batek aisialdian sortutako aldizkaria, azpiegitura sendorik gabe.	2006an, langileak daude bertan, baina profesionalizatzeko bidean dagoen egitasmoa da.

Aurreko taulan agertzen diren datuen arabera, ezin da ukatu Soraluzeko aldizkarian 1999-2004 bitartean aldaketa eta hobekuntza nabarmenak izan direla. Aisialdian lagun talde batek sortu zuen proiektua, poliki-poliki sendotuz joan da eta nahiz eta oraindik baldintza prekarioak dituen, profesionalizatzeko bidean jarri da. Aldizkariak aurrera pausu handia eman du maiztasunean; noizean behin argitaratzen 2002an hamabostean behin kaleratzen hasi zen hutsik egin gabe. Garapen honetan hainbat faktorek izan dute zerikusia:

- Egitasmoan langile figuraren agerpena eta finkapena ezinbestekoa izan da, hortik aurrera eman den bilakaerari erantzuteko. Lan-taldean ordain sari baten truke pertsona bakarra izatetik, lau orduko lan kontratua izatera pasa da. Horrezaz gain, beste langile bat bi orduko lan kontratuarekin izatea lortu da eta beste bi lagun lanean ari dira ordain sari baten truke, baina lan kontraturik gabe. Lan-taldea handitu eta apurka-apurka sendotuz joan da eta horrek bakoitzaren lana eta funtzioak hobeto banatzeko aukera eskaintzen du, aldizkariaren edukietan eragin zuzena izanik.
- Ezaugarri teknikoek ere hobera egin dute nabarmen. Sei urteko epean inbertsio garrantzitsuak egin dira aldizkariaren azpiegitura hobetzeko eta horrek, eguneroko lan eta jardueran eragin inportante izan du, batez ere eguneroko lana errazten lagundu duelako. Orobat, 1999tik 2004ra bitartean, maiztasunari dagokionez jausi kuantitatibo garrantzitsua egin du Soraluzeko aldizkariak, 2002ko urtarrilean hileroko maiztasuna izatetik hamabostean behin kaleratzera pasatuz. 2002ko abenduan, aldizkariaren itxura hobetze aldera, kolorea sartzen da azalean eta kontra-azalean. Nahi eta nahi ez, koloreak aldizkariari ukitu profesionalagoa ematen dio. Bestalde, aldizkariaren edukietan ere izan da aldaketarik; informazioa da nagusi, baina 1999an baino neurri txikiagoan, bestelako kazetaritza-generoak ere indartuz eta finkatuz joan direlako.
- 1999-2004 bitartean Soraluzeko biztanleria jaitsi egin da apur bat, baina euskaldun kopuruak hamazazpi puntutan egin du gora. Horrek argi erakusten du *Pil-pilean* aldizkaria irakurtzeko gai diren herritarrak gehitu egin direla herrian eta gainera, aldizkariak tirada

gehitzea lortu du: hamabostean behin 320 ale gehiago kaleratzen dira eta Soraluzeko etxe guztietara heltzen dira. *Pil-pilean* hamabostekaria, herriko etxe guztietan jasotzen den aldizkari bakarra da Deba Barrenean.

**4.2.2- PIL-PILEAN ALDIZKARIAREN BALANTZE EKONOMIKOA (2004)<sup>344</sup>**


Asier Aranguren <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian ez zuen <i>Pil-pilean</i> aldizkariko aurrekonturik kaleratu 1999an. Beraz, 2006ko aurrekontua soilik jarri dugu.	<b>2004ko Balantzea</b>
<b>GASTUAK</b>	Langileak _____ 16.520 € Funtzionamendua _____ 3.430 € Inbertsioa _____ 1.300 € Inprenta _____ 21.000 € Zabalkundea _____ 1.250 € <b>GUZTIRA 43.550 €</b>
<b>SARRERAK</b>	Diru-laguntzak _____ 24.000 € Udala _____ 12.000 € Aldundia _____ 4.500 € Jaurlaritza _____ 7.500 € Publizitatea _____ 17.000 € Salmentak _____ 350 € Bazkideen ekarpena _____ 2.200 € <b>GUZTIRA 43.550 €</b>
<b>BALANTZEA</b>	GASTUAK 43.550 € SARRERAK 43.550 € <b>EMAITZA: 0€</b>

<sup>344</sup> - Atal honetan ez dugu alderaketarik egin, Asier Aranguren lanean ez baita 1999ko balantzerik agertzen. Lan honetan 2000-2004 tartea hartu dugunez, 2004ko balantzea hartu dugu aldizkariaren bolumen ekonomikoaren erreferentzia gisa.

- Goiko taula begiratuta begi-bistakoa da, gastuen zatirik handiena langileria eta inprentan daramatzatela. 2004ko aurrekontu osoaren %37,9a; langileen gastuena izan zen eta inprentaren kostua; %48,2koa. Sarreretan, aldiz, erakunde ezberdinen diru-laguntzak aurrekontuaren erdia baino gehiago estaltzen dute, %55,10 hain zuzen ere. Aldizkariak 2004an izan zituen sarrera propioen portzentajea %44,8koa izan zen.

## 4.2.3– KAZETARITZA-GENEROAK

19C. grafikoa



Kazetaritza-generoen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

19D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	INFORMAZIOA	IRITZIA	LITERATURA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
	2000-2004	1.411	272	48	410	2.163
	2000	320	63	7	102	493
	2001	344	65	17	128	559
	2002	269	51	15	59	397
	2003	242	47	6	55	358
	2004	236	46	3	66	356

Kazetaritza-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Pil-pilean* aldizkarian bost urteetan erabiltzen diren kazetaritza-generoak hiru atal nagusitan banatzen dira: informazioa, zerbitzuak eta iritzia. 2000-2004 bitartean hiru generoen arteko oreka mantendu da. Halere, 2002ko urtarrilean aldizkaria hamabostekari bihurtzen da eta informazioaren portzentajeak gora egiten du eta zerbitzuen portzentajea, aldiz, jaitsi egiten da. Maiztasun aldaketak, ordea, ez dauka eraginik iritzi-portzentajeetan ezta literaturaren agerpenean ere. Literaturaren presentzia aldizkarian oso esporadikoa da oro har; “Ugaraxo” eskoletako gehigarria hilean behin kaleratzen dutenean agertzen da literatura, bertan argitaratzen baitira bertsoak, txistek eta ipuinak.

Soraluzeko aldizkariko 2.163 item aztertu dira berrogeita hamalau aleotan. 1.411 testu, informazio-generoek osatzen dute, 272 idazki iritziari dagozkio, literatura-generoetan 48 item aurkitu ditugu eta zerbitzuak 410 aldiz agertzen dira.



## A) INFORMAZIOA

19C. grafikoan agertzen diren portzentaje eta 19D. taulan agertzen diren datuei erreparatuz, argi dago urtero informazioa gailentzen dela beste genero guztien artean. Informazioa, %60tik gora kokatzen da urtero eta 2002tik aurrera ia %70era heltzen da informazioaren kopuru orokorra. 2002tik aurrera aldizkariaren maiztasuna handitzearekin batera, item kopurua jaitsi egiten da, ale bakoitzean orri kopuru gutxiago kaleratzen delako. 2000-2001 epean aldizkariak bataz beste hogeita sei orri dituzte eta hamabostekari denetik, *Pil-pilean*-ek hamasei orri kaleratzen ditu zenbaki bakoitzean, beraz, hileru guztira hogeita hamabi orri kaleratzen dira. Lan honetarako aukeratu den laginean hile bakoitzeko ale bat baino ez dugu aztertu, baina hileru kaleratzen den orri kopurua guztira hazi egin da hamabostekaria denetik.

Hilabetekaria nahiz hamabostekaria izan, *Pil-pilean* aldizkarian informazio kopurua gainerako generoak baino askoz altuagoa da. Informazioaren aldeko apustu argia egiten da, herriari eta herritarrei zerbitzu eta informazio praktikoena emateko helburuarekin. *Pil-pilean* aldizkariko erredakzio buruaren esanetan, “*Informazioa, autonomia gehien ematen duen generoa da; iritziak, aldiz, lan eta denbora gehiago eskatzen du*”<sup>345</sup>.

Maiztasunak zerikusi zuzena dauka aldizkarian lantzen diren edukietan. 2002tik aurrera informazio-item kopuru gutxiago kaleratzen badira ere, argitaratzen den informazioa gaurkotuagoa da.

## B) IRITZIA

Iritziaren agerpena oso homogenea da bost urteetan eta %13an kokatzen da.

2000-2001 urteetan iritzi-item kopurua altuagoa bada ere, hurrengo hiru urteetan portzentajea mantendu egiten da, hamabostekari izan arren, iritziari eskaintzen zaion espazioa finko mantendu delako aldizkarian: gutunak, inkesta eta iritzi-zutabea ez dira aldatu eta ale guztietan agertzen dira.

## C) LITERATURA

Literaturak ere badu tokirik *Pil-pilean* aldizkarian; guk aztertu dugun epean literaturarekin zerikusia duten berrogeita zortzi item kaleratu dira. Ipuinak, bertsoak, txisteak eta esamoldeak agertzen dira, batez ere gazte-jendeari lotutako sailetan: “Ugaraxo”, “Jaurti”, “Hormatxulotik begira” edo “Gaztetxoek txokoa” ataletan, hain zuzen ere. 2001 eta 2002 urteetan agertzen dira

---

<sup>345</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

literaturarekin zerikusia duten testu gehien, bi urte horietan “Ugaraxo” eta “Jaurti” gehigarriak kaleratzen baitira. 2002tik aurrera “Ugaraxo” soilik argitaratzen da, “Jaurti” urte horretan desagertu egiten da-eta.

#### **D) ZERBITZUAK**

Soraluzeko aldizkarian, informazioaren ostean, gehien errepikatzen den generoa, zerbitzuena da. Guk aztertu ditugun berrogeita hamalau aleetan laurehun eta hamar aldiz agertzen dira zerbitzuak: agenda, zerbitzu-informazioa, informazio erabilgarria noizbait, denbora-pasak eta salerosketa gutxi batzuk. Atal honetan argi bereizten dira maiztasunak markatzen dituen bi aldiak. Hasierako bi urteetan, aldizkaria hilabetekaria denean, zerbitzu-informazio gehiago sartzen da eta gehiena, “Hormatxulotik begira” atalean aurki daiteke. 2002tik aurrera, item kopurua jaitsi egiten da eta “Zerbitzuak” sailean antolatzen da informazio mota hau. Atal finkoak jartzen dira lana ahalik eta gehien sistematizatzeko eta era berean, irakurlearentzat erreferente bilakatu dadin, zerbitzu-informazioa zenbat eta antolatuago egon, irakurleak hobeto eta errazago bilatuko du aldizkarian.

#### **Kazetaritza-generoak bi hitzetan**


Ondorioz, aldizkariaren maiztasun ezberdinak aldizkarian bi garai markatzen dituela esan daiteke, baina kazetaritza-generoen erabilera ez dago aldaketarik bi garai horietan. Informazioa beste genero guztien artean nagusitzen da, herriari eta herritarrei zerbitzu eta informazio praktikoena eman nahian. Hamabostekari bihurtzen denean informazioak gaurkotasunean irabazten du. Bestalde, aldizkariaren bi aldietan iritziari eskaintzen zaion espazioan ez da aldaketarik sumatzen, iritzia lantzeko atalak finko mantendu direlako. *Pil-pilean*-en agertzen den literatura apurra, gazteei zuzendutako ataletara murrizten da eta zerbitzu-gunea hamabosteroko maiztasunarekin jaitsi egiten da apur bat, baina apurka-apurka finkatuz doa, irakurlearentzat erreferentzia bilakatuz.

### 4.2.3.1 - Informazioa

Genero guztien artean, berau da nagusi *Pil-pilean* aldizkarian. Arestian aipatu den datua esanguratsua da oso, informazioak duen garrantzia ulertzeko. Urtero aldizkarian kaleratzen diren edukien erdia baino gehiago (%60-tik gora) informazio-generoen bitartez eskaintzen da. Hurrengo bi grafiko eta tauletan informazio-generoen bilakaera orokorra nolakoa izan den aztertuko dugu. Lehenengo urratsaren bitartez, 2000-2004 bitartean informazio-generoek aldizkarian izan duten agerpena orokorra ikusiko dugu. Bigarren urratsean, informazio-genero bakoitzak urtez urte izan duen garapena zein izan den azalduko dugu.

#### 4.2.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean

20C. grafikoa



Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

20D.taula

	Albistea	Albiste laburra	Argazki-albistea	Erreportajea	Argazki-erreportajea	Elkarrizketa	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	427	479	248	101	33	121	1.411

Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan

#### A) ALBISTEA ETA ALBISTE LABURRA

*Pil-Pilean* aldizkarian, albiste laburrak eta albistek herritarrei informazioa eskaintzeko erabiltzen dira batez ere. 1.411 informazio-item aztertu dira; horietatik 479 albiste laburrak dira

eta 427 albisteak. Bien portzentajeak batzen baditugu, informazioaren erdia baino gehiago (%64) bi genero horietan biltzen da.

Metodologian aipatu dugun Martín Vivaldiren definizioa gogora ekarriz, albisteak, idazkuntzaren ikuspuntutik, kazetaritza-genero nagusia da, beraz, ulertzekoa da albiste laburrekin batera gehien erabiltzen den generoa berau izatea. Gainera, albiste laburrek erraztu egiten dute irakurketa, espazio txikiak betez informazio gehiago ematea ahalbidetuz. Irakurleari irakurketa erraztearena, lotuta dago herri-aldizkari gehienek duten helburuetako batekin: informazioa euskaraz eskainiz jendea euskaraz irakurtzen jartzea eta hizkuntzaren normalizazioan laguntzea.

Ekar ditzagun gogora Jose Felix Díaz de Tuestaren hitzak herri-aldizkariaren hasierako urteetan:

*“Prensa lokalaren ikuspegia aldatu egin da. Nire ustez, orain arteko euskal prentsa-lokala eta ez lokala- “masoka” samarra izan da, euskararen aldeko militantziak eragindakoa eta betiko euskaltzaleei zuzendutakoa. Oraingo prentsa lokalean ikuspegi hori aldatu egin da eta helburua ez da betiko euskaltzaleek irakurtzea, baizik eta sekula euskaraz irakurri ez duen jendearentzat produktu on eta erakargarri bat egitea”* (Askoren Artean, 1992:52).

Eibarko *...eta kitto!* astekarian gertatzen den antzera, Soraluzeko hamabostekarian ere, albisteak eta albiste laburrak dira informazio-genero landuenak, nahiz eta portzentajeak *Pil-pilean* hamabostekarian *...eta kitto!*-n baino apur bat baxuagoak diren: albisteak 8 puntu baxuagoak eta albiste laburrak 4 puntu beherago kokatzen dira.

## **B) ARGAZKI-ALBISTEA**

Aldizkariak ematen duen informazioa ahalik eta irakurterazena eta erakargarria lortze aldea, *Pil-pilean*-en genero arinak erabiltzen dira. Alde batetik, aurrean aipatu ditugun albiste eta albiste laburrak eta bestetik argazki-albisteak, nahiz eta azken hauen kopurua albiste laburren erdia (berrehun eta berrogeita zortzi argazki-albiste) izan. Aldi berean, *Pil-pilean*-en argazki-albisteen portzentajea, *...eta kitto!* astekariaren bikoitza da.

Argazki-albisteei dagokionez, argazkiak berak arindu egiten du irakurketa eta erakargarriago bihurtzen du informazioa. *“Askotan esan izan da irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela; eta batzuetan aldiz, hitz batek mila irudik baino gehiago. Kazetaritzan, bai irudi, bai hitzen garrantzia ukaezina da. Askotan, gainera, biak osagarriak dira”* (Díaz Noci, 2000: 128).

### C) ERREPORTAJEA

*Pil-pilean*-en kazetaritza-genero arinagoak nagusitu arren, elkarrizketak eta erreportajeak ere lantzen dira. Horrelakoak ere behar beharrezkoak direlako aldizkariaren oreka mantentzeko eta irakurlearen deskodetzea errazten laguntzen dutelako.

Aztertu ditugun berrogeita hamalau aleetan, ehun eta bat erreportaje<sup>346</sup> aurkitu ditugu eta hogeita hamahiru argazki-erreportaje. Argazki-erreportajeak ekitaldi edo jai bereziak daudenean kaleratzen dira eta batez ere kronika moduan, hau da, gertatu dena argazkien bitartez islatuz. Esate baterako, 2000ko martxoko 22. alean argitaratzen den “2000ko Karnabaleri begira” argazki-erreportajea; bertan, urte horretako inauterietako kronika argazkien bidez jasotzen da. Horrelako erreportajeek argazki asko izaten dituzte eta testu gutxi, beraz, arindu egiten dute irakurketa. Gainera, herriko jende asko agertzen da eta horrek erakargarriago bihurtzen du irakurlearentzat.

*“Argazkiak guztiz beharrezkoak direla herri-aldizkari batean esango nuke. Argazki biziak, herritarrak protagonista eta subjektu nagusi dituztenak. Argazkiek sekulako arrakasta daukate, besteak beste jendeari (denoi) izugarri gustatzen zaiolako (zaigulako) berauetan agertzea. Jendearentzat zaila izango da egunkari handietan inoiz agertzea, baina posibilitateak areagotu egiten dira ikaragarri herri-mailako aldizkari batean. Euskaraz jakin ala ez, argazkiak bere hizkuntza propioa du, jendeak baloratu egiten ditu argazkiak eta beraietan motiborik agertuz gero, albokoa irakurtzera edo itzulpena eskatzera bultzatuko du”* (Aranzabal, 1992:77).

Portzentajeetan ez dago alde handirik Eibarko *...eta kitto!* astekaria eta *Pil-pilean*-en artean. *...eta kitto!*-k apur bat gehiago erabiltzen du, baina aldea puntu batekoa baino ez da. Beraz, oso balio antzerakoetan kokatzen da. Hori bai, Eibarren erreportajeak eta aipu-erreportajeak kaleratzen dira eta oso noizean behin argazki-erreportajerik. Soraluzen argazki-erreportajeak sarriagoak erabiltzen dira.

---

<sup>346</sup>- Adibidea: “Gune urbanistikoaren ikerketa soziourbanistikoa abian”. 2000ko otsaileko 21. zenbakian. (4. or.).

## D) ELKARRIZKETA

Bost urtetan Soraluzeko aldizkarian ehun eta hogeita bat elkarrizketa argitaratu dira. Hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, elkarrizketak kaleratzeko atal finkoak daude *Pil-Pilean* aldizkarian “Kale kantalian”<sup>347</sup> eta “Sutondoaren epeletan”<sup>348</sup>. Horiez gain, aldizkariko beste hainbat sailetan ere agertzen dira elkarrizketak: “Kultura”<sup>349</sup> edo “Kirolak”<sup>350</sup> ataletan besteak beste. Dena dela, eta Eibarko astekariarekin alderatuz gero, elkarrizketen agerpena *Pil-pilean*-en inportantea dela esan daiteke: portzentajeetan, Soraluzeko hamabostekariak lau puntu ateratzen dizkio ...*eta kitto!*-ri. Kontuan hartu behar da, elkarrizketa erreportajea baino errazago irakurtzen den interpretazio-genero dela.

### Informazioa bi hitzetan

Laburbilduz, Soraluzeko aldizkarian informazioa genero arinen bitartez eskaintzen zaio irakurleari, albiste laburrak, albisteak eta argazki-albisteak nagusituz. Horrezaz gain eta neurri txikiagoan bada ere, erreportajeak eta elkarrizketak informazioa eskaintzeko erabiltzen dira. Erreportaje arinak (argazki-erreportajeak) zein erreportaje landuak eta elkarrizketa arinak eta baita elkarrizketa landuagoak ere, batzuen eta besteen arteko oreka bilatuz.

<sup>347</sup>- Adibidea: “Caribiakin enamorauta nao”, Lino Alberdiri egindako elkarrizketa. 2004ko martxoko 87. zenbakian. (13. or.).


<sup>348</sup>- Adibidea: “Nire ilusiñua litzake, liburutegi edar bat izatia herrixan, herri honek merezi dau!”, Arantza Gabilondo liburuzainari egindako elkarrizketa. 2004ko apirileko 88. alean. (11. or.).

<sup>349</sup>- Adibidea: “Lanerako eta ikasteko gogo handia du abesbatzak”, Ezoziko Ama Abesbatzaren zuzendaria den Silvia Hernandezi egindako elkarrizketa. 2000ko apirileko 23. zenbakian. (11.or.).

<sup>350</sup>- Adibidea: “Mendia gurea dela uste dugu, eta nik alderantziz esango nuke”, Zigor Gallastegi Soraluze Mendi Taldeko kideari egindako elkarrizketa. 2000ko otsaileko 21. alean. (18. or.).

## 4.2.3.1.2 – Informazioaren bilakaera

21C. grafikoa



Informazio-generoen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

21D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Elkarrizketa	GUZTIRA
	2000	114	115	31	37	23	320
	2001	137	126	26	36	19	344
	2002	59	89	79	23	19	269
	2003	49	76	59	24	34	242
	2004	68	73	53	16	26	236

Informazio-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Arestian aipatu dugun moduan, 2001etik aurrera urtero kaleratzen den informazio-item kopuru orokorra jaitsi egin da. Alde batetik, 2002an hamabostekaria bihurtzen denetik aurrera, gure laginean hileko ale bakarra hartu dugulako eta bestetik, hamaboskariek orri gutxiago dituztelako. Beraz aztertu den item kopurua txikiagoa izan da eta horrek, informazio-generoetan ere eragina izan du. Ikus dezagun bost urteetan zein izan den informazio-generoen bilakaera:

**A) ALBISTEA ETA ALBISTE LABURRA**

Albisteen kopurua 2001etik aurrera ia erdira jaisten da; horien bilakaerak bost urteetan gorabehera ugari izan ditu. Horren arrazoi nagusia, hamabostekari bihurtzearekin dator. Egoitz Unamuno erredakzio buruak azpimarratzen duen moduan, aldizkaria hamabostekari bihurtzearekin batera, informazioaren kudeaketa hobe egiten saiatzen dira.

*“Bereizten saiatzen gara zein gaik ematen duen laburrago edo luzeago lantzeko beste. Izan ere, aldizkarian agertzen diren gai guztiak ez ditugu guztiz landuta ematen. Irakurle guztiak*

*ez daude euskaraz irakurtzen ohituta eta horrez gain, bertan genero ezberdinak eskaintzen saiatzen gara, horien artean oreka bat mantentze aldera*”<sup>351</sup>.

Albisteak batez ere, “Gizartea”, “Kultura”, “Kirola”, “Udal kontu”, “Gaztetxoaren txokoa” eta “Musika” sailetan agertzen dira. 2001era arte “Zer berri” sailean ere albiste<sup>352</sup> asko kaleratzen dira, baina 2002tik aurrera, sail horretan albiste laburrek<sup>353</sup> eta argazki-albisteek hartzen dute ordura arte albisteek duten lekua. Hori dela eta, 2002tik aurrera albiste laburrak albisteak baino gehiago dira oro har aldizkarian.

## **B) ARGAZKI-ALBISTEA**

Argazki-albisten kopurua bikoiztu egin da 2000. urtetik 2004ra bitartean. Hazkundera ikaragarria izan da zalantza gabe eta horretan bi arrazoi nagusik izan dute eragina. Alde batetik, hamabostekaria denetik, hobeto definitzen da gaien eta kazetaritza-generoen arteko erlazioa eta bestetik, aldizkaria erakargarriagoa eta irakurtzeko erraza bihurtzeko asmoarekin argazki-albisteak batez ere “Zer berri” sailean<sup>354</sup> areagotzen dira. Era berean, 2002tik aurrera abenduko alean lau orriko urtekaria kaleratzen da, urteko gertakariei erreposoa egiteko. Bertan, informazio guztia argazki-albisten<sup>355</sup> bitartez ematen da eta gure laginerako 2002, 2003 eta 2004ko abenduko urtekariak hautatu dira. Beraz, hiru ale horiek urte bakoitzeko argazki-albisten kopuruan eragin zuzena dute.

## **C) ERREPORTAJEA**

Erreportaje eta argazki-erreportajeen kopuruak batuta, berrogeita hamalau aletan, ehun eta hogeita hamalau erreportaje kaleratu dira Soraluzeko aldizkarian. Hasierako bi urteetan batz bestea hiru erreportaje argitaratzen dira aleko. Hamabostekaria denetik, bi erreportaje batz bestea zenbaki bakoitzean eta azken urtean, erreportaje t’erdi aleko. Behin baino gehiagotan aipatu dugunez, *Pil-pilean* hamabostero kaleratzen hasten denetik, sailak finkatu egiten dira, erreportaje handia<sup>356</sup> (normalean portadan joaten dena) zein izango den aurrez erabakitzen da, hilabetekaria denean ez bezala. Horregatik jaisten da erreportaje kopurua 2002tik aurrera. Maiztasunak eragina dauka eta sailak finkatuta egoteak ere bai. Argazki-erreportajeen kopuruan ez dago alderik

<sup>351</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>352</sup>- Adibidea: “Eskolaurrean euskalkiak erabili beharko lirakeela uste du Koldo Zuazok” albiste. 2000ko martxoko 22. zenbakian. (7. or.).

<sup>353</sup>- Adibidea: “Lapurretak Kakuanian eta Bolian” albiste laburra. 2002ko martxoko 45. alean. (7. or.).

<sup>354</sup>- Adibidea: “Agenda 21 institutuan” argazki-albiste. 2002ko azaroko 59. zenbakian. (6. or.).

<sup>355</sup>- Adibidea: “Larreategiko zubibidean arazoak” argazki-albiste. 2003ko abenduko 81. aleko urtekarian. (Urtekaria 2. or.).

<sup>356</sup>- Adibidea: “Bizileku bat lortzeko bestelako aukerak herrian” erreportajea (portadara eraman dutena). 2004ko 95. zenbakian. (8.-9. or.).



hilabetekari denean edo hamabostekaria denean. Horrelakoak oso momentu puntualetan sartzen direlako: inauterietan, herriko jaietan, “Korrika” Soraluzetik pasatzen denean eta gehienak ia urtero errepikatzen dira.

#### **D) ELKARRIZKETA**

Elkarrizketa kopuruak, ordea, erreportajeen kontrako bilakaera izan du 2000-2004 bitartean. Hau da, urteak pasa ahala gero eta elkarrizketa gehiago argitaratzen dira. Lehenengo eta behin 2002tik aurrera beti elkarrizketa moduan lantzen diren bi sail finko<sup>357</sup> daudelako: “Sutondoaren epeletan” (azpimarratzeko duen zerbait edo zer edo zer dela eta ezaguna den herriko pertsonari egiten zaion elkarrizketa sakonagoa) eta “Kale kantalian” (edozein herritarri egiten zaion elkarrizketa arina). Bestalde, hamabostekaria denetik, azalera eramaten den gai nagusia, batzuetan erreportaje moduan lantzen delako eta besteetan elkarrizketa<sup>358</sup> sakon moduan. Egoitz Unamunoren ustez gainera, “*Elkarrizketa irakurtzeko eta idazteko erraza den generoa da. Kazetariaren mailaren arabera, kazetariak errazago lantzen du elkarrizketa edo erreportajea*”. Soraluzeko aldizkarian maiztasun finkoarekin idazten dutenen artean<sup>359</sup>, kazetari bakarra dago; gainerakoak tituludunak badira ere, ez dituzte kazetaritza ikasketak egin eta kazetaritza-generoak lantzerako orduan, nabaritzen da.

#### **Informazioaren bilakaera bi hitzetan**

Oro har, 2002tik aurrera aldizkariaren atalak finkoagoak direla begi-bistakoa da eta kazetaritza-generoen artean oreka handiagoa dagoela. Izan ere, informazio-item kopuru orokorra jaitsi egiten da aldizkaria hamabostekari bihurtzen denean, aleen orrialde kopurua jaisten delako batik bat eta guk hileko ale bakarra aztertu dugulako. Berehala antzematen den ondorioetako bat, albisteen kopurua urtetik urtera jaitsi egiten dela, baita albiste laburren kopuru orokorra ere. Ez, ordea, argazki-albisteen kopurua, gero eta gehiago erabiltzen den informazio-generoa baita. Erreportaje kopurua apurka-apurka jaitsi egiten da eta elkarrizketak indartu egiten dira. Maiztasuna areagotu izanak eta sailak gero eta finkoagoak izateak, kazetaritza-generoen erabileran eragina zuzena dauka. Horrela bada, informazioa hobeto kudeatzea eta informazio-genero eta gaien arteko oreka bilatzeko ahalegina gero eta handiagoa da.

<sup>357</sup> - “Kale kantalian” atala, 2000. urtean ere bazegoen, 2002tik aurrera “Sutondoaren epeletan” saila kaleratzen hasten da.

<sup>358</sup> - Adibidea: “Eztigintzaren nondik norakoak” erreportajea. 2004ko azaroko 99. alean. (8.-9. or.).


<sup>359</sup> - Erredakzio buruak, kazetariak eta bost kolaboratzaile finkok idazten dute zenbaki bakoitzean. Bestalde, noizean behin idazten duten hogeit kolaboratzaile-sarea dago.

### 4.2.3.2 – Iritzia

2000-2004 bitartean, *Pil-pilean* aldizkarian %13ko portzentajea eskaini zaio iritziari. Hurrengo bi grafiko eta taulen bitartez iritziaren garapen orokorra aztertuko dugu. Lehenengo grafiko eta taulan 2000-2004 bitartean Soraluzeko aldizkarian iritzi-generoen agerpena nolakoa izan den ikusiko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, iritzi-genero bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera nolakoa izan den zehaztasun handiagoz azalduko dugu.

#### 4.2.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean

22C. grafikoa



Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

22D. taula

	Editoriala	Artikulua	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutunak	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	48	9	74	54	87	272

Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Pil-pilean* aldizkariko berrogeita hamalau aleotan, 272 iritzi-item aurkitu ditugu. Artikuluak izan ezik, aldizkarian iritziari eskaintzen zion espazioa nahiko finkoa da bost urteetan eta erabiltzen diren generoak ez dira apenas aldatzen, editoriala, inkesta, zutabea eta irakurleen gutunak ale gehienetan agertzen diren iritzi-generoak izanik.

## A) EDITORIALA

Egun kaleratzen diren herri-aldizkari gehienek eta lan honetan aztertu diren sei aldizkarietatik lauk<sup>360</sup>, ez dute editorialik kaleratzen. Hona hemen Jesus Mari Zalakainen gogoeta herri-prentsaren inguruan:

*“Egoera politikoaren aldaketa, politikari profesionalentzat utziko du, herriko gatazketan ez du zuzenean parte hartuko, guztientzat zabalik mantenduko ditu orrialdeak, bakoitzak esan dezala nahi beste (joko demokratikoaren errespetua mantenduz), editorialak ebitatuko ditu iritzia emateak duen arriskua saihestuz, iritzi-ugaritasuna bilatuko du”* (1994: 58).

Soraluzen, ordea, aldizkariak berak eta kultur elkarteak izan duten egituraketa dela eta, beti kaleratu izan dute editoriala. Egoitz Unamunok honako irakurketa hau egiten du:

*“Aldizkaria ez da inoiz profesionaltasun maila batera heldu. Horrek egiten du aldizkaria bera oso pertsonala izatea eta aldizkaria egiten duen jendearekin oso lotuta egotea. Hori horrela izanik, beti dago norberaren iritzia emateko tentazioa”*<sup>361</sup>.

Eta horrela egin da *Pil-pilean* aldizkarian, bertoko jendearen iritzia ematen da, nahiz eta editorialak umore tonuan izan.

## B) ARTIKULUA

Iritzi-artikuluek ez dute leku finkorik Soraluzeko aldizkarian eta emaitzek erakusten duten moduan oso noizean behin kaleratzen dira. Berrogeita hamalau aleotan bederatzi iritzi-artikulu aurkitu ditugu eta kaleratu direnak, batez ere hasierako hiru urteetan argitaratu dira. Zazpi iritzi-artikulu, Etxazpi Soraluzeko historialariaren liburutik hartutako historiari buruzko artikuluak<sup>362</sup> dira eta gainerako bi artikuluak<sup>363</sup>, gazteei zuzendutako gehigarri eta orrietan argitaratu dira.

## C) INKESTA

Herritarrari iritzia eskatzen zaion inkesta hasieratik kaleratu izan da *Pil-pilean* aldizkarian. Irakurtzeko erraza da, laburra izaten delako eta bestalde, herriko jende ezagunaren argazkia agertzeak, erakargarri bihurtzen du atala. Hori horrela, “Ugaraxo” eta “Jaurti” gehigarrietan ere, ikasleen artean egiten diren inkestak kaleratzen dira. Oro har, ikasle zein herriko jendeari gustatzen zaion atala da eta denborarekin gehien irakurtzen den sekzioetako batean bihurtu da.

<sup>360</sup> - ...eta kitto!, Barren, Berriketean eta Drogeteniturrri aldizkariak.

<sup>361</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>362</sup> - Adibidea: “Cine Soraluze”. 2001eko uztaileko 37. alean. (15. or.).

<sup>363</sup> - Adibideak: “Berdinak gara” 6. mailako ikasleek idatzitako artikulua. 2000ko apirileko 23. zenbakian (9. or.).

“Gaztetxea: Gazteen etxea”, “Jaurti” gehigarrian DBH-ko ikasleek idatzitako artikulua. 2002ko abenduko 60. alean. (3. or.).

Kontuan hartu behar da kale-inkesta dela iritziaren baitan gehien errepikatu den bigarren generoa eta irakurleen gutunekin batera, iritzi atal osoaren erdia baino gehiago hartzen dutela.

#### **D) ZUTABEA**

2000-2004 bitartean, editorialarekin batera iritzi-zutabe bat kaleratzen da *Pil-pilean* aldizkarian “Kolaborazioa” edo “Ataixa” izenburupean. Zutabe horiek aldizkarian noizean behin idazten duten kolaboratzaileek egiten dituzte eta horien bitartez, argitalpenak iritzi pluraltasuna bilatu eta eskaini nahi du. Idazleak, irakasleak, kazetaritza ikasleak, soziologia eta psikologian adituak izan dira besteak beste zutabegile 2000-2004 bitartean. Kolaborazio horiek eskatzerako orduan, jende adituarengana jotzen da, iritzi kualifikatuagoa lortzeko asmoz eta zailtasunak izaten direlako euskaraz idazteko oinarrizko maila duen jendea aurkitzeko. 22C. grafikoan agertzen diren portzentajeen arabera, ez dago alde nabarmenik, kolaboratzaileei eskatzen zaien iritzi eta bertakoek ematen duten iritziaren (editorialaren) artean. Hau da, aldizkaritik eskatutako iritzia eta argitalpenak berak ematen duena oso parekatuta daude.

#### **E) IRAKURLEEN GUTUNAK**

Irakurleen gutunak dira iritzi-generoen artean agerpena maila altuena izan dutenak Soraluzeko aldizkarian. Guztira laurogeita zazpi gutun kaleratu dira, bataz beste gutun bat baino gehiago zenbaki bakoitzean. Irakurleen gutunen eta inkesten portzentajeek, guk aztertu ditugun berrogeita hamalau aleetan *Pil-pilean* hamabostekariak kaleratu duen iritziaren erdia batzen dute. Aldizkaria lehenengoz kaleratu zenetik izan dute tokia irakurleen gutunek *Pil-pilean* aldizkarian, herriko jende guztiari ahotsa ematea baitute helburu.

*“Jendeak elkarren berri gehiago jakin nahi du eta herri-mailako aldizkariak ederto bete lezake behar hori. Besteak beste herriko plaza bihurtu daitekeelako, iritzi guztiak biltzen dituen plaza. Horretarako, mundu guztiko komunikabide idatzietan erabiltzen den gutun-saila dago”* (Aranzabal, 1992: 78).

*Pil-pilean* aldizkarian argitaratzen diren gutunak sinatuta egon behar dira eta ez da irainik onartzen. Hortik aurrera, heltzen diren guztiak kaleratzen dira.


#### **Iritzia bi hitzetan**

Beraz, iritziari aldizkarian eskaintzen zaion tokia oso finkoa da 2000-2004 bitartean. Ondorioz, ale gehienetan agertzen diren iritzi-generoetan ere aldaketa gutxi suma daiteke bost

urteko epean. Bakoitzak duen agerpen-mailaren arabera, honako hauek izan dira garrantzitsuenak aldizkarian: irakurleen gutunak, inkestak, iritzi-zutabeak eta editoriala. Azken hori ez da ohikoa izaten herri-aldizkarietan, baina Soraluzeko hamabostekarian betidanik sartu izan da, bai euskara elkarte eta aldizkariak berak izan duten egitura, antolaketa eta lan egiteko era ez profesionala dela-eta.

#### 4.2.3.2.2 - Iritziaren bilakaera

23C. grafikoa



Iritzi-generoen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

23D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Editoriala	Artikulua	Inkesta	Zutabea	Irakurle gutun	GUZTIRA
	2000	11	1	12	11	28	63
	2001	11	4	14	11	25	65
	2002	8	4	16	10	13	51
	2003	8	0	17	11	11	47
	2004	10	0	15	11	10	46

Iritzi-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Urtez urteko iritziaren bilakaerari erreparatzen badiogu, argi ikus daiteke, artikuluak desagertu egin direla 2003tik aurrera eta irakurleen gutunen kopuruak behera egiten duela 2002tik aurrera, bi faktore horiek item kopuru orokorrean eragin zuzena izanik. Hamabostekaria denetik beraz, irakurleen gutun gutxiago aztertu dira, baina ez ahaztu gure laginean hileko ale bakarra sartu dugula. Hots, irakurleen iritzia hilean bi aletan banatzeko aukera eskaintzen duela hamabostekariak. Bestalde, editorial kopuruak ez du gorabehera handirik izan bost urteotan eta

inkesta eta zutabe kopuruak gora egin du maiztasuna aldatzearekin batera. Izan ere, hilabetekaria denean inkesta bat eta zutabe bat kaleratzen dira hilero eta 2002tik aurrera kopuru hori bikoiztu egiten da, bi inkesta eta bi zutabe kaleratuz.

### A) EDITORIALA

Iritziaren barnean editoriala da *Pil-pilean* aldizkaria nabarmentzen duen iritzi-generoa. Lan honetan aztertu diren Deba Barreneko aldizkari guztien artean, aurrerago ikusiko dugunez Mutrikuko *Kalaputxirekin* batera editoriala duen aldizkari bakarra Soraluzekoa da. Editorialean ere aldizkariaren maiztasun aldaketak badu eraginik. Hasierako bi urteetan “Editorial”<sup>364</sup> izenburupean kaleratzen da eta 2002tik aurrera, “Telegrapak” titulupean agertzen da, formatu ezberdinarekin eta idazteko era berezi batekin. Izan ere, hamabostekari bihurtzen denean telegrama itxura hartzen dute editorialek<sup>365</sup>. Kazetaritzako esku-liburuetan editorialari buruz agertzen diren definizioak kontuan hartzen badira, “Telegrapak” atala ez litzateke guztiz bat etorriko definizioarekin, bai ordea betetzen duen funtzioarekin eta aldizkariak berak aitortzen dion editorial funtzioarekin.

*“Editoriala berez oso genero serioa da eta guk beti eman nahi izan diogu tonu satirikoa. Hasieran, editorialean zati bat komikoagoa sartzten genuen eta bestea tonu serioagoarekin egiten genuen. Baina konturatu ginen tonu serioan landuz gero, jasotzen genituen erantzunak ere oso serioak zirela eta azkenean guztia kutsu satirikoa mantenduz, baina umore gehiagorekin sartzea erabaki genuen”*<sup>366</sup>, argitzen du Egoitz Unamunok.

Ale guztietan sartzten da editoriala, baina 2002ko<sup>367</sup> ekainean eta azaroan eta 2003ko<sup>368</sup> otsaila, maiatza eta uztaileko aleetan ez dago editorialik, ale horietan iritzi-zutabea luzeagoa delako. Editorialaren portzentajea antzerako mantentzen da urtetik urtera, baina 2004an apur bat indartu dela nabaritzen da. Bestalde, kontuan hartu behar da hilabetekaria denean editorial bakarra argitaratzen dela, baina hamabostekari bihurtzen denean, hilean bi editorial kaleratzen direla, nahiz eta guk hileko ale bakarra aztertu dugun.

<sup>364</sup>- Adibidea: “Editoriala”. 2001eko abenduko 41. zenbakian. (3. or.).

<sup>365</sup>- Adibidea: “Telegrapak”. 2004ko ekaineko 72. alean. (3. or.).

<sup>366</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>367</sup>- 2002ko 50 zenbakian eta 59. alean.

<sup>368</sup>- 2003ko 64., 69. eta 73. zenbakietan.

## B) IRITZI-ARTIKULUA

Iritzi-artikuluak 2000-2002 urteetan agertzen dira eta gehienak Soraluzeko historia liburu batetik itzulitako artikuluak dira. Haren egilea Etxazpi historialari soraluzetarra da. Testuak, autore beraren liburutik atera eta ia bi urtez sartu izan dituzte aldizkarian eta gaia agortu denean, kaleratzeari utzi diote. Bestalde, gazteei zuzendutako sailetan aurkitu dira beste bi artikulu<sup>369</sup>. 2003tik aurrera desagertuz joan da iritzi-genero hau eta aztertu diren aleetan ez da iritzi-artikurik aurkitu.

## C) INKESTA

Inkestaren atala hasieratik finkoa izan bada ere, urteekin kopurua bikoiztu egin da aldizkariaren maiztasuna dela eta. *Pil-pilean* aldizkariko erredakzio buruak argi dauka, iritzi-genero horrek oihartzun handia duela irakurleen artean, baina agian espazio gehiegi eskaintzen zaiola uste du: *“Inoiz agortzen ez den kontua dela uste dut. Batzen duen iritziaren indarrarengatik eta ordezkartzarengatik; berez, espazio gutxiago beharko luke, baina erraz irakurtzen da eta hori oso inportantea da”*<sup>370</sup>.

Zalantzarik ez dago garrantzia ematen zaiola genero horri, hamabostekari bihurtzen denean ale guztietan kaleratzen delako *“Zer irizten dotsazu?”*<sup>371</sup> atalean. Ale bakoitzean gai ezberdinei buruz sei herritarren iritzia biltzen da, hamabi iritzi hilero hain zuzen ere. Bestalde, *“Jaurti”*<sup>372</sup> eta *“Ugararaxo”*<sup>373</sup> gehigarrietan ere, inkestak sartzen dira. Gehigarri bakoitzean ikasle ezberdinen lau iritzi jasotzen dira.

## D) ZUTABEA

Zutabeen item kopurua oso finkoa da urtero, baina 23C. grafikoan argi eta garbi ikusten da 2002tik aurrera iritzi-zutabeak hazi egiten direla, aleko iritzi-zutabe kopuru bera mantendu delako maiztasuna aldatu denean ere. Alegia, aldizkaria hilabetekaria denean iritzi-zutabe bat argitaratzen da hilero eta hamabostekari bihurtzean denean, ale bakoitzean zutabe bat kaleratzen da; beraz, hilean bi zutabe argitaratzen dira, bikoiztuz iritzi-genero horren presentzia. Gehienetan iritzi-zutabegileek erabakitzen dute zeri buruz idatzi, baina herrian edo herritik kanpo gairen batek gaurkotasun berezia duenean, aldizkariak zutabegilea gai konkretu horri buruz idaztera

<sup>369</sup>- Adibidea: “Berdinak gara”. 2000ko apirileko 23. alean. (9. or.).

<sup>370</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>371</sup>- Adibidea: “Zer iruditzen jatzuz laguntza sozialak eta banatzen diran modua?”. 2004ko azaroko 79. zenbakian. (5. or.).

<sup>372</sup>- “Internetik badakazue? Eta zetan erabiltzen dozue?”. 2002ko apirileko 46. zenbakian. “Jaurti” 3. alea. (4. or.).

<sup>373</sup>- “Ikusten dozue Sinosuke?”. 2002ko apirileko 46. zenbakian. “Ugararaxo” 7. alea. (3. or.).

gonbidatzen du. Batzuetan herriarekin zerikusia duten gaiak<sup>374</sup> jorratzen dira, baina gai orokorrak eta gaurkotasuna dutenak<sup>375</sup> ere, lekua izaten dute sail honen baitan.

### E) IRAKURLEEN GUTUNAK

Irakurleen gutunak oro har iritziaren barnean nagusitzen badira ere, urteak aurrera egin ahala, irakurleen gutunen kopuruak behera egiten du nabarmen. 23C. grafikoan agertzen diren datuen arabera, 2000. urtean irakurleen gutunak %44ko portzentajetik %22ra jaisten dira 2004an. Arrazoi ezberdinak daude jaitsiera hori azaltzeko: *Pil-pilean* hilabetekaria denean, bataz beste ale bakoitzean ia hiru gutun<sup>376</sup> kaleratzen dira. Horrezaz gain, 2000. urtean “Kexak eta txaloak”<sup>377</sup> atala argitaratzen da eta atal horretako kexa eta txaloak irakurleen gutun moduan hartu dira, herritarren iritziak baitira. Atal horrek ez zuen asko iraun, 2000ko martxotik 2000ko uztaile arte. Hasieran oso gauza arinak sartzen ziren, batez ere txaloak izaten ziren eta kexen atalean inor gehiegi konprometitzen ez zuten kexak<sup>378</sup> agertzen ziren. Baina kexa serioagoak heltzen hasi zirenean, sekzio horren ardura zuen pertsona ez zen aurrera jarraitzen ausartu. Horrekin batera, urteko irakurleen gutunen kopurua jaitsi egiten da eta 2001ean gutxiago dira irakurleen gutunak, baina benetako beherakada aldizkaria hamabostean behin kaleratzen hasten denean nabaritzen da, ale bakoitzeko, bataz beste irakurleen gutun bakarra<sup>379</sup> argitaratzen baita. Hala ere, hilabete batetik bestera aldaketak egon daitezke eta guk hileko ale bat soilik aztertu dugu. Maiztasunean aldaketa izan bada ere, herritarrek gutunen bitartez parte hartzen dute aldizkarian eta zalantzarik ez dago gutunen atala termometro interesgarria dela oso, irakurle eta herritarren artean dagoen hartu eman zuzena neurtzeko.

### Iritziaren bilakaera bi hitzetan

Laburbilduz, urtez urteko bilakaerari begiratuz editoriala mantendu egiten da azken urtean indarra hartuz; artikulua apurka-apurka desagertu egiten dira, inkestak eta iritzi-zutabeak gero eta indar gehiago hartzen dute eta irakurleen gutunen jaitsiera urtetik urtera nabarmenago da.

<sup>374</sup>- Adibidea: “Plaentzia, oinezkoen paradisia”, Gurutze Ariznabarretak idatzitakoa. 2000ko ekaineko 25. zenbakian.(3. or.).

<sup>375</sup>- Adibidea: “Eskuko telefonoak, zer dakigu beraietaz”, Mari Karmen Larrañagak sinatutakoa. 2000ko apirilko 23. alea. (3. or.).

<sup>376</sup>- Adibidea: 2001eko abendu 41. alean hiru gutun agertzen dira: Bittor Trebiñoren “Udala, kalitatea eta laguntza”. (4 or.), “Eskerrak guztioi!”, Atxa Memorialeko antolakuntza taldeak sinatutakoa (4. or.) eta “Aupa gazte!”, Segik idatzitako gutuna (4. or.).

<sup>377</sup>- 2000ko maiatzeko 24. alean horrela jasotzen da “Hormatxulotik begira” sailean irakurle baten iritzia: “Apirilean Ane Muroaren deia jaso genuen erredakzioan eta zera zioen: “Oso interesgarria iruditu jata Gazte txoko atalean argitaratu dozuen “Berdinak gara” artikulua. Oso gai interesgarria uste dot dala hain neskato eta mutiko gazteak bertan azaltzen duten pentsamoldea txalotzeko modukoa da. Segi horrela, Zorionak!”. (22. or.).

<sup>378</sup>- 2000ko otsaileko 21. zenbakian horrela jasotzen zen herritar baten kexa: “Kaixo. Diar ein dot esatiarren ia zergattik ez daon autobusen ordutegirik zubixan. Aspaldi ipini zittuan PESA-k, ordutegixa ipintzekuak, baina ordutegirik ez. Zela jakin bihar dogu ze ordutan datorren? Eskerrik asko”. (20. or.).

<sup>379</sup>- “Aurreko baten DVn”, Gorka Salaberriak idatzitakoa. 2003ko urriko 77. alean gutun hori bakarrik argitaratzen da. (4. or.).




Ezin aipatu gabe laga hamabostekaria denetik aurrera, guk hileko ale bakarra aztertu dugula eta emaitzak, gure laginaren arabera kalkulatu direla.

### 4.2.3.3- Literatura

Literatura beste generoekin alderatuz, gutxiago agertzen da, baina Soraluzeko aldizkariak beti egin dio lekua literaturari eta honen baitan genero ezberdinak landuz. Hurrengo bi ataletan literaturak *Pil-pilean*-en izan duen bilakaera orokorra nolakoa izan den ikusiko dugu. Lehenengo urrats batean, literaturak 2000-2004 bitartean izan duen agerpen orokorra ezagutzeko saiakera egingo dugu. Bigarren urratsean, literatura-genero ezberdinek urtez urte aldizkarian izan duten garapena aztertuko dugu.

#### 4.2.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean

24C. grafikoa



Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

24D. taula

	Ipuinak	Bertsoak	Txistek	Esamoldeak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	11	20	5	12	48

Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Pil-pilean* aldizkarian agertzen diren kazetaritza-generoen artean, literatura da gutxien lantzen dena, guztira 2000-2004 bitartean %2ko portzentajea baitu. Literaturarekin zerikusia duten berrogeita zortzi item aurkitu dira. Oro har genero hauek gazte-jendeari zuzendutako ataletan agertzen dira aldizkarian, “Ugaraxo”, “Jaurti”, “Hormatxulotik begira” eta “Gaztetxoan

txokoa” sailetan hain zuzen ere. Egoitz Unamunoren ustez, gazteek errazago jasotzen dituzte euskarazko produktu kulturalak:

*“Euskaraz produzitzen den kultura eta idatzi kulturalak gazteei errazago sartzen zaizkie, ohituago daudelako euskaraz irakurtzen, euskaraz alfabetatuta daudelako. Beraz, euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duenak edo euskaraz alfabetatu gabea den norbaitek informazio labur eta sinple bat landuagoa dagoen testua baino askoz errazago irakurriko du, eta uste dut hori beti presente izango dugula”<sup>380</sup>.*

### **A) BERTSOAK**

Literaturaren barnean gehien lantzen den atala bertsoena da. Horrek zerikusi zuzena dauka, *Pil-pilean* egiten duen taldeko jendearen gustuekin, erredakzio burua bertsolari zaletua da eta. Iñaki Mendigurenek *Jazten* aldizkarian gogorazten duenez, aldizkaria egiterako orduan kontuan hartu behar da ahalik eta jende gehienari zuzendutakoa izan behar duela. Aldi berean, produktua kaleratzen duen elkarteak eta komunikabideen kudeatzaileek, presente izan behar dute euren gustu eta produktua egiteko tentaziotik aldendu beharra dagoela. Dena dela, profesionalizatzeko maila oso altua ez den kasuetan saihestezina da bertan ari den jendearen gustuak neurri batean aldizkarian islatzea. *Pil-pilean* aldizkariko erredakzio buruak lan egiteko moduarekin zerikusia duela onartzen du: *“Profesionaltasun maila bat ez badago eta ez badago zuzendari bat ia dena kontrolatzen duena, oso subjektiboa da eta dagoen edo dauden pertsonen arabera produktua egiten da”<sup>381</sup>.*

### **B) IPUINAK**

Berrogeita hamalau aleetan aurkitu diren ipuin gehienak “Ugaraxo” eta “Jaurti” gehigarrietan kaleratu dira, gazteak euskaraz ikasi eta alfabetatuak dauden neurrian, horrelako idatziak askoz hobeto ulertu eta irakurtzen dituztelako. Badira ipuinen artean salbuespenak, aldizkariko beste atal batzuetan agertu direnak: “Kultura” sailean amodio gutunen lehiaketa<sup>382</sup>, erreportaje gisa kaleratzen den Olentzeroren ipuina<sup>383</sup> eta “Erreportaje” sailean argitaratzen den amodio gutunen lehiaketa<sup>384</sup>.

<sup>380</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>381</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>382</sup> - 2001eko apirilko 34. zenbakian. (14. or.).

<sup>383</sup> - 2002ko abenduko 60. alean. (10.-11. or.).

<sup>384</sup> - 2004ko ekaineko 92. zenbakian. (9. or.).

### C) ESAMOLDEAK

Esamoldeen atalean, hizkuntzaren zuzentasun edo aberastasunarekin zerikusia dituzten testuak sartu dira. Hurrengo atalean ikusiko dugu batez ere 2002an aurkitu ditugula esamoldeak *Pil-pilean* aldizkarian, “Hanka sartzeak zuzentzen” sailean<sup>385</sup>. Gainerako urteetan agertu direnak, “Ugaraxo” eta “Jaurti” gehigarrietan kaleratu dira.

### D) TXISTEAK

Txiste kopurua nahiko baxua da, bost txiste baino ez dira aurkitu berrogeita hamalau aleetan eta guztiak “Ugaraxo” eta “Jaurti” gehigarrietan, oso aproposak direlako gazteen gehigarrietarako. Gainera, “Ugaraxo”-n eta “Jaurti”-n testu guztiak ikasleek egiten dituzte eta eurak erabakitzen dituzte gehigarrian sartuko diren genero eta gaiak zeintzuk izango diren. *Pil-pilean* aldizkariko lan-taldeak gehigarri horietako inkestak egiten ditu soilik.

### Literatura bi hitzetan


Beraz, literatura gutxien agertzen den generoa da *Pil-pilean* eta agertzen den literatura gehiena, gazteei zuzendutako gehigarrietan argitaratzen da. Gazte-jendea ohituagoa dagoelako literatura irakurtzen, euskaraz alfabetatuak direlako. Bertsoak, esamoldeak eta ipuinak aurkitu ditugu, baina guztien artean bertsoak nagusitzen dira, ahozko tradizioa gailenduz.

---

<sup>385</sup> - Atal honek urtebete iraun zuen. Garai horretan euskararen zuzentasunaren inguruan kezka handia zegoen eta ez zen oso argi ikusten aldizkariaren bitartez nola landu zitekeen gaia. *Pil-pilean*ek euskararen zuzentasunari begira aholku sorta bat kaleratzea erabaki zuen ale bakoitzean.

## 4.2.3.3.2 - Literaturaren bilakaera

25C. grafikoa



Literatura-generoen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

25D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Ipuinak	Bertsoak	Txisteak	Esamoldeak	GUZTIRA
	2000	3	3	0	1	7
	2001	4	10	1	2	17
	2002	2	2	2	9	15
	2003	1	4	1	0	6
	2004	1	1	1	0	3

Literatura-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Literatura gutxi landu bada ere, bertan atal ezberdinak jorratu dira bost urteko epean eta 2001 eta 2002 urteetan literatura-genero guztiak agertzen izanda. Dena den, literaturari eskaintzen zaion tarte aldizkarian poliki-poliki gutxituz doa eta 2004an hiru item soilik argitaratzen dira.

**A) IPUINAK**

Ipuin item kopuru altuena 2001ean argitaratzen da, nahiz 25C. grafikoaren portzentajeen arabera, 2000 eta 2004 ipuin kopuru gehien agertzen diren urteak diren. 2000. urtean agertzen diren hiru ipuinak ale berean<sup>386</sup> agertzen dira eta urte horretan aldizkariaren baitan gazteei zuzendutako gehigarri berezirik ez dagoenez, ipuinetako bat “Gaztetxoen txokoa” sailean

<sup>386</sup>- Adibidea: “Matematikako maisua” (7. or.) eta bi amodio gutun: “Iragana berriro itzul baledi” eta titulurik gabeko beste bat (12.-13. or.), 2000ko otsaileko 21. alean.

argitaratzen da. 2001etik aurrera “Ugaraxo” eta “Jaurti” gehigarri bereziak sortzen dira eta bertan agertzen dira ipuin gehienak. 2001eko lau ipuinetatik bat, aldizkarian agertzen da “Kultura” sailean<sup>387</sup> eta beste hirurak “Jaurti”<sup>388</sup> eta “Ugaraxo”<sup>389</sup> gehigarrietan. 2002an bi ipuin kaleratzen dira, bata “Ugaraxo”<sup>390</sup> gehigarrian eta bestea aldizkariko “Erreportaje” atalean<sup>391</sup>. 2003. urtean argitaratzen den ipuin bakarra “Ugaraxo”-n<sup>392</sup> kaleratzen da eta 2004koa “Erreportaje” sailean<sup>393</sup>.

## B) BERTSOAK

Bertsoak hasierako bi urteetan “Hormatxulotik begira” atalean argitaratzen dira, bai 2000ko hiru bertso sortak<sup>394</sup> eta baita 2001eko otsailetik urrira bitartekoak<sup>395</sup>. 2001ean sortu zen Soraluzen Bertso Eskola eta aldizkaria bertsoak sartzeko aprobetxatzen da. Izan ere, 2001eko azarotik aurrera “Ugaraxo” eta “Jaurti” gehigarrietan kaleratzen dira guztiak<sup>396</sup>. Bertsoetan salbuespen bakarra dago, “Gutunen” atalean agertzen den gutun bat<sup>397</sup>, bertso moduan agertzen dena.

## C) TXISTEAK

Txistek 2001etik aurrera agertzen dira gazteei zuzendutako gehigarrietan, “Jaurti”<sup>398</sup> eta “Ugaraxo”-n<sup>399</sup> hain zuzen ere. Arestian aipatu bezala, ikasleek erabakitzen dute zein genero landu eta txistek ere, eurek idazten dituzte. “Jaurti” gehigarria desagertzen denean, “Ugaraxo”-n argitaratzen dira, baina ez da gehigarri guztietan kaleratzen den atal finkoa, noizean behin agertzen dena baizik.

## D) ESAMOLDEAK

Esamoldeak, hasierako hiru urteetan agertzen dira eta batez ere 2002an, aldizkaria hamabostekari bihurtzen denean. Izan ere, orduan “Hanka sartzeak zuzentzen” atal berezia sortzen da. Sail horren bitartez, aldizkariak herritarrengan eragin nahi du hizkuntza era zuzenean

<sup>387</sup>- “Amodio gutun lehiaketa”. 2001eko apirileko 34. zenbakian. (14. or.).

<sup>388</sup>- “Beldurrezko istoria”. 2001eko maiatzeko 35. alean. Jaurti 0. alea. (3. or.).

<sup>389</sup>- “Ezkutaketan”, “Altu altuka” ipuin laburrak. 2001eko azaroko 40. zenbakian. Ugaraxo 3. alea (2. or.).

<sup>390</sup>- “Landarelandia”. 2002ko ekaineko 50. zenbakian. Ugaraxo 9. alea. (4. or.).

<sup>391</sup>- “Olentzero eta Mari Dominginen kontakizuna”. 2002ko abenduak 60. alean. (10.-11. or.).

<sup>392</sup>- “Hiru txerrikumeak”. 2003ko otsaileko 64. zenbakian. Ugaraxo 14. alea. (2. or.).

<sup>393</sup>- “Hola Karmentxu!” Amodiozko gutunen lehiaketa. 2004ko ekaineko 92. alean. (9. or.).

<sup>394</sup>- 2000ko maiatzeko 24. alean (20. or.), ekaineko 25. alean (24 or.) eta iraileko 27. alean (20 or.), “Hormatxulotik begira” sailean.

<sup>395</sup>- 2001eko otsaileko 32. alean (20. or.), martxoko 33. alean (20. or.), ekaineko 36. alean (20. or.), uztailako 37. alean (20. or.) eta urriko 39.alean (20. or.), “Hormatxulotik begira” atalean.

<sup>396</sup>- 2001eko azaroko 40. alean (2. or.) eta abenduak 41.alean (4. or.) “Ugararaxo” gehigarrian. 2002ko abenduak 60. aleko “Jaurti” (4. or.) eta “Ugaraxo” (4. or.) gehigarrietan. 2003ko otsaileko 64. alean (4. or.), maiatzeko 69. alea (2. or.) eta abenduak 81. alean (6 or.) “Ugaraxo”-n eta 2004ko abenduak 102. alean (4. or.) “Ugaraxo”-n.

<sup>397</sup>- “Eskubide kontua”, Senideak taldeak sinatutako gutuna. 2001eko azaroko 40. alean. (4. or.).

<sup>398</sup>- 2001eko maiatzeko 35 zenbakian (4. or.) eta 2002ko abenduak 60.alean (4. or.).

<sup>399</sup>- 2001eko azaroko 59. alean (4. or.), 2003ko azaroko 79. zenbakian (2. or.) eta 2004ko maiatzeko 91. alean (3. or.).

erabiltzeko eta horretarako aholkuak ematen dira. Esate baterako, 2002ko urriko 56. zenbakian hizkuntzaren zuzentasunari buruz argitaratzen diren aholkuak<sup>400</sup>. 2002ko azarotik aurrera, gaia agortu eta kaleratzeari uzten diote.

### **Literaturaren bilakaera bi hitzetan**

Orokorrean, literatura gutxi lantzen da eta urteak aurrera egin ahala gutxiago. Atal honetan aldaketa handiak daude urtetik urtera eta ez dago irizpide finkorik literatura lantzeko. 2001 eta 2002an agertzen dira literatura-genero guztiak: ipuinak, bertsoak, txistek eta esamoldeak. Guztiek beheranzko joera adierazten dute urteekin, txistek izan ezik, apur bat gora egiten baitute. Hori bai, literatura jende gazteari zuzenduta dago, gazteak baitira genero hauek irakurtzeko hobeto prestatuak daudenak eta gehigarri berezietan eurak direlako literaturaren sortzaileak.

---


<sup>400</sup>- "Dago Mikel (gaizki), Mikel hor dago? Mikel etxian dago? (Ondo). Ondoren horren azalpena ematen da: Euskaraz, erdaraz ez bezala, galdera hori egiterakoan egon aditzak osagarri bat eskatzen du, lekua edo bestelako osagarri bat. Beraz, lagunari deitutakoan: Mikel etxian dago? Edo bestela egon aditza erabili barik: Jarri leike Mikel?, Hor da Mikel?, Etxean da Mikel?". (14. or.).

#### 4.2.3.4 – Zerbitzuak

Informazio-generoen ostean zerbitzuen atala da *Pil-pilean* aldizkarian gehien lantzen dena; %19ko portzentajea dauka eta iritziaren eta literaturaren gainetik kokatzen da. Hurrengo bi ataletan zerbitzuen bilakaera nolakoa izan den ikusiko dugu. Lehenengo eta behin, zerbitzu ezberdinek Plaentziako aldizkarian 2000-2004 bitartean izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu, horrekin batera, zerbitzu atal bakoitzak urtez urte izan duen garapena zein izan den azalduko dugu.

##### 4.2.3.4.1 -Zerbitzuak 2000-2004 bitartean

26C. grafikoa



Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

26D. taula

	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Saleros/Truke	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	66	213	20	96	15	410

Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Zerbitzuen atalean 410 item kaleratu dira 2000-2004 bitartean. Aldizkaria erabilgarri egitea da atal horren helburu nagusia eta era berean, irakurlearentzat praktikoa izatea. Zerbitzua irakurle eta argitalpenaren arteko harremana sendotzeko baliagarria izan daiteke, baina beti

ez da horrela gertatzen. *Pil-pilean* aldizkarian zerbitzuen atala ez dute era egokian lantzen jakin izan eta hori da Egoitz Unamunok zerbitzuetan sumatzen duen hutsuneetako bat:

*“Aldizkaria erabilgarri egitea da zerbitzuen helburua, baina horretan ez dugu asmatu. Zerbitzuen kontua beti izan da oso ondo nola landu jakin izan ez dugun atala. Beti egon da aukera edozein iragarki sartzeko (merkatu txiki antzera), agendan ere beti sartu ditugu ekitaldiak. Baina aletik alera ezberdintasun handiak daude, hau da, ale batean bost iragarki edo bost agenda egon daitezke eta hurrengo alean ez dago bat ere ez”<sup>401</sup>.*

### **A) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Kontuak kontu, zerbitzuen baitan zerbitzu-informazioa nagusitzen da. Guztira zerbitzu-informazioa eskaintzen duten 213 item argitaratu dira Soraluzeko aldizkarian. Bertan, hildakoen eta jaiotakoen informazioa, botiken ordutegiak, mezen ordutegiak, autobus ordutegiak, telefono interesgarriak, zorion agurrak, gazte informazioa eta ilargiaren faseen inguruko informazioa ematen da. Gure azterketa-epea hasi zenetik agertzen da zerbitzu-informazioa, baina aldizkariaren maiztasun aldaketak izan du hemen ere eraginik. Hots, aldizkaria hilabetekaria denean, informazio hori “Hormatxulotik begira” atalaren baitan sartzen da (aldizkariko azken orrietan) eta hamabostero kaleratzen hasten denean, atal batzuk kendu egiten dira: autobusen ordutegia, ilargiaren aldiak, intereseko telefonoak, mezen ordutegiak eta botiken ordutegiak. Horien ordeztan, gazte informazioa sartzen da.

2002tik aurrera, “Zerbitzuak” sailaren baitan (aldizkariko laugarren orrian) argitaratzen den informazioa askoz finkoagoa da. Hildako eta jaiotakoen informazioa, zorion agurrak eta gazte informazioa eskaintzen da. Atal finkoak bihurtzen dira, lana ahalik eta gehien sistematizatzeko eta era berean, praktikotasunari begira, irakurlearentzat zerbitzu-informazioa zenbat eta antolatua egon, aldizkariaren orrietan errazago bilatzeko.

### **B) BESTEAK**

Zerbitzu-informazioaren atzetik denbora-pasak dira gehien errepikatzen direnak, laurogeita hamasei aldiz agertzen dira berrogeita hamalau zenbakietan. Lehengo eta bigarren urtean horoskopoa eta lehiaketa sartzen dira eta bigarren urtean atal horri Elkarlan argitaletxekoekin egindako liburu zozketa<sup>402</sup> gehitzen zaio. Maiztasun aldaketarekin, ordea,

<sup>401</sup> - Dokore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>402</sup> - *Elkarlan* argitaletxeak 2001ean hainbat herri-aldizkariri egindako proposamena izan zen. Aipatu argitaletxeak bi liburu doan ematen zizkion aldizkariari irakurleen artean zozketatzeko. Zozketan parte hartzeko kulturarekin zerikusia zuen galdera erantzun



horoskopoa eta liburu zozketa desagertu egiten dira eta denbora-pasa gehienak “Jaurti” eta “Ugaraxo” gehigarrietan argitaratzen dira. Hala ere, 2002tik aurrera aldizkarian argazki lehiaketa egiten da hamabostero, bi lagunentzako afaria zozketatuz.

Agendak ez dira betidanik sartu *Pil-pilean*-en. Hasierako urteetan ez dute leku finkorik aldizkarian eta ez dira ale guztietan agertzen. Erredakzio buruarentzat, gai bera agendan eta aldizkarian zehar agertzea larregizkoa da, horregatik hautatu egiten dute batean edo bestean sartzeko. “*Guk gai bat agendan jartzeari eta gero aldizkari barruan berriz gai bera lantzeari ez diogu zentzurik ikusten. Beraz, agenda agertu ez den aleetan, ez agertzearen arrazoia hori izan da. Horregatik agenda eta iragarki partikularren atalak beti ibili dira dantzan*<sup>403</sup>”. Egia bada ere, 2002tik aurrera agenda erregulartasunez kaleratzen da, toki berean eta zenbaki gehienetan.

Informazio erabilgarriaren barnean aurkitu diren hogeit hamar itemetatik hemeretzi sukalde-errezetak izan dira. Errezetak hasierako urteetatik sartzen ziren aldizkarian. Hilabetekaria denean, aisialdiak aldizkarian toki asko dauka eta aisialdian egin daitezkeen gauzei buruzko informazio gehiago sartzen da, baina poliki-poliki bigarren mailan geratu dira horrelako gaiak, beste informazio batzuei garrantzi gehiago eman zaielako.

Salerosketa eta trukeen atala ez da inoiz finkoa izan, ez baita lortu irakurlearekin horrelakoetan beharrezkoa den feedbacka. Aldizkariak beti eman dio aukera herritarrari nahi dituen iragarkiak sartzeko, baina Plaentzian ez da espero bezalako erantzunik jaso eta oso noizean behin argitaratzen dira partikularren iragarkiak. Datuetan oso argi ikusten da, berrogeita hamalau aletan hamabost iragarki argitaratu dira.

### **Zerbitzuak bi hitzetan**

Beraz, agerpen-mailari dagokionez zerbitzuen atala da informazioaren ostean aldizkarian inportanteena. Bere baitan zerbitzu-informazioa gailentzen da alde nabariarekin eta informazio mota hori modu ordenatuago batean eta finkoagoan agertzen da aldizkaria hamabostekaria denetik aurrera, bide batez atalak ematen duen lana sistematizatuz. Denbora-pasak eta agendak ere maiztasunez argitaratzen dira eta horiek ere, *Pil-pilean* hamabostero kaleratzen denean finkatu egiten dira. Salerosketa/trukeen atala eta informazio erabilgarria nahiko atal

---


behar zuen irakurleak eta aldizkariara erantzuna bidali. Aldizkariak zozketa egiten zuen orrian *Elkarlan* argitaletxeko publizitatea egiten zuen liburuaren truke.

<sup>403</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

esperimentalak izan dira beti, aldaketa nabarmenak izan baitituzte eta ez baitira inoiz guztiz finkatu.

#### 4.2.3.4.2 - Zerbitzuen bilakaera

27C. grafikoa



Zerbitzu-generoen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

27D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Saleros/Truke	GUZTIRA
	2000	11	58	13	16	4	102
	2001	21	62	6	33	6	128
	2002	13	29	0	16	1	59
	2003	7	31	0	15	2	55
	2004	14	33	1	16	2	66

Zerbitzu-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Nahiz eta zerbitzuen barneko atal batzuk urteekin desagertu diren, zerbitzuen bilakaera orokorra hazi egin da bost urteetan. Horrela adierazten dute 27C. grafikoa agertzen diren portzentajeek eta baita 27D. taulan agertzen diren kopuruek ere. 2000 eta 2001ean aldizkaria hilabetekaria denean, ehun eta bi eta ehun eta hogeita zortzi item kaleratzen dira urte bakoitzean hurrenez hurren. Hamabostekaria bihurtzen denean, 27D. taulan agertzen den urte bakoitzeko item kopurua baxuagoa da, baina kontuan hartu behar dugu hilean bi ale kaleratzen direla, beraz,

zerbitzu-informazioa bikoiztu egin da, guk hilabete bakoitzeko ale bat bakarrik aztertu dugun arren.

### **A) AGENDA**

Agenden kopurua bikoiztu egin da 2000tik 2004ra bitartean. Lehenengo urtean agendek ez dute leku finkorik aldizkarian eta ez dira hilero agertzen. Zenbaki guztietan agertzen ez diren kultur agendek<sup>404</sup> gain, kirol agenda bakarra<sup>405</sup> agertzen da 2000. urtean eta uztaileko alean jai agendak<sup>406</sup> kaleratzen dira. 27C. grafikoan agertzen diren portzentajeetan ez da horrenbeste nabaritzen (%16), baina item kopuru absolutuari begiratuz, *Pil-pilean* aldizkarian 2001ean kaleratzen da agenda gehien. Urte horretan bederatzi kultur agenda, jaietako bi agenda eta kirol ekitaldiak biltzen dituzten hamar agenda kaleratzen dira. 2002tik aurrera hamabostekaria bihurtzarekin batera, kultur agenden agerpena orekatuagoa da eta urtarrilean izan ezik, hilero kaleratzen da. 2002an kirol agendak martxoa eta maiatzean soilik argitaratzen dira. 2003an kultur agenden kopuruak behera egiten du, lau hilabetetan<sup>407</sup> bakarrik agertuz eta kirol agendak azaroa eta abenduan kaleratzen dira soilik. 2004an sei kultur agenda<sup>408</sup> eta bederatzi kirol agenda argitaratzen dira. Poliki-poliki agenden presentzia areagotuz doa aldizkarian.

### **B) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Zerbitzu-informazioak ez du gorabehera handirik izan urtetik urtera, baina gure azterketa-epe osoan oso portzentaje altuetan mantendu da, %50aren inguruan; beraz, beti izan da zerbitzuen baitan atal esanguratsua eta nagusia. Hilabetekaria den hasierako bi urteetan zerbitzu-informazio kopurua, hamabostekaria denean baino bi aldiz altuagoa da, hamabostekaria denean informazioa hilabete osoan bi zenbakitan banatzen baita. Hori dela eta, hilabetekarian lantzen diren hainbat zerbitzu-informazio mantendu egiten dira, batez ere hamabostean behin aldatu edo berritu daitezkeenak, esaterako zorion agurrak, jaiotakoak eta hildakoak eta gazte informazioa<sup>409</sup>. Beste

<sup>404</sup>- 2000ko otsaileko 21. alean (21. or.), maiatzeko 24. alean (21. or.), ekaineko 25. alean (25. or.), irailako 27. alean (21. or.), azaroko 29. alean (25. or.) eta abenduko 30. alean (25. or.).

<sup>405</sup>- 2000ko urtarrileko 20. alean. (14. or.).

<sup>406</sup>- "Santa Ana Jaixak 2000" (20 or.) eta "Andramarixak 2000" (21. or.) egitarauak. 2000ko uztaileko 26. alean.

<sup>407</sup>- 2003ko apirilako 68. alean (4. or.), maiatzeko 69. alean (4. or.), irailako 74. alean (4. or.), azaroko 40. alean (23. or.) eta abenduko 81. alean (8.-10. or.) kaleratzen dira kultur agendak.

<sup>408</sup>- 2004ko urtarrileko 83. alean (4. or.), otsaileko 84. alean (12. or.), martxoko 87. alean (4. or.) eta abenduko 102. alean (10.-11. or.) kaleratzen dira kultur agendak.

<sup>409</sup>- Adibidea: 2004ko urriko 97. alea. (4. or.)

Batzuk, aldiz, kendu egiten dira: autobusen ordutegia, mezen ordutegia, telefono interesgarriak, ilargiaren aldiak<sup>410</sup>.

### C) INFORMAZIO ERABILGARRIA

Informazio erabilgarria gero eta gutxiago agertzen da aldizkarian eta hamabostekaria bihurtzen denean, erabat desagertzen da. Ordura artea, sukalde-errezetak<sup>411</sup> kaleratzen dira “Sukaldaritza” atalaren baitan. Informazio erabilgarriaren baitan bi salbuespen aurkitu ditugu: “Ugaraxo” gehigarrian sukalde-errezeta bat<sup>412</sup> eta “Gaztetxoan txokoa” atalean, eskolako arautegia eta hondartzara joateko aholku zerrenda bat<sup>413</sup>.

### D) DENBORA-PASAK

Denbora-pasak 2000. urtetik aurrera areagotu egiten dira. Hasierako bi urteetan horoskopoa<sup>414</sup> eta ale guztietan agertzen den lehiaketa<sup>415</sup> aurkitu ditugu atal honen baitan. 2001ean, aipatu bi horiez gain, “Kultura” sekzioan liburu lehiaketa<sup>416</sup> sartzen da. Lehiaketa horrek gutxi iraun zuen ez baitzuen lortu jendearengandik espero zen erantzunik eta kaleratzeari utzi zioten. 2002tik aurrera, horoskopoa desagertu egiten da, baina lehiaketa mantendu egiten da eta bestelako denbora-pasak “Jaurti”<sup>417</sup> eta “Ugaraxo”<sup>418</sup> gehigarrietan argitaratzen dira. Denbora-pasak gazteei zuzendutako gehigarrietan kaleratzen diren tartean, indartu egiten da horien presentzia aldizkarian.

### E) SALEROSKETA ETA TRUKEAK

Salerosketa eta trukeen atala ez da finkoa eta irakurleek aldizkarira iragarkiak bidaltzen dituztenean soilik kaleratzen da. Datuetan interpretatu daitekeenez, irakurleek ez dute ohiturarik izan aldizkarian euren iragarkia jartzeko. Izan ere, Eibarko *...eta kitto!* edo Elgoibarko *Barrenen* ez bezala, ez dute iragarkiz betetako orri osoa kaleratzen, bi edo hiru iragarki<sup>419</sup> agertzen dira normalean. Beraz, salerosketak eta trukeak orrialdeak betetze aldera sartzen direla esan daiteke, irizpide finkorik gabe.

<sup>410</sup>- Adibidea: 2000ko abenduko 30. zenbakia. (26. or.)

<sup>411</sup>- Adibidea: Intxaur saltsia” errezeta. 2000ko azaroko 29. alean “ (20. or.)

<sup>412</sup>- 2004ko urtarrileko 83.aleko “Ugaraxo”gehigarrian. (4. or.)

<sup>413</sup>- 2000ko maiatzeko 24. zenbakian. (18. or.)

<sup>414</sup>- “Hormatxulotik begira” atalean. 2001eko azaroko 40. alean. (20. or.)

<sup>415</sup>- “Zelan dauka izena argazkixan agertzen dan basarrixak?”. 2000ko azaroko 29. alean. (23. or.)

<sup>416</sup>- “Harry Potter eta Sekretuen ganbera” liburuko bi ale zozketatzen dira. 2001eko urriko 39. zenbakian. (16. or.)

<sup>417</sup>- “Zein da argazkixan agertzen dan irakaslia?” lehiaketa. 2002ko apirileko “Jaurti” 3. alean. (4. or.)

<sup>418</sup>- 2002ko azaroko 59. aleko “Ugaraxo”-n hizki-zopa eta marrazki zenbakiduna denbora-pasak. (4. or.)


<sup>419</sup>- Adibidea: “GUARDASOLA GALDU NEBAN. Kainaberazko kertena daukana. Zeozer badakizu eskertuko nuke diar bat. Harremanetarako telf: 943 75 21 40”. 2001eko abenduko 41. alean adibidez. (22. or.)

### **Zerbitzuen bilakaera bi hitzetan**

Ondorioz, zerbitzuen gunea urteekin indartuz joan da eta hobeto antolatuta agertzen da. Agenda kopurua hazi egiten da, bost urtetan bere kopurua bikoiztuz. Kultur agendez gain, kirol agendak eta jaietako egitarauak argitaratzen dira. Zerbitzu-informazioa portzentaje antzerakoetan mantendu da eta apur bat jaitsi bada ere, aldizkarian urtero argitaratzen den zerbitzu atala agerpen-mailari dagokionez inportantea dela esan daiteke. Informazio erabilgarria aldizkaria hamabostekaria bihurtzen denean desagertu egiten da. Denbora-pasak hazi egiten dira urteen joan etorriarekin eta salerosketan atala gutxi agertzen da ez duelako inoiz arrakastarik izan.

## 4.2.4 – GAIAK

28C. grafikoa



Gaien bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

28D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	POLITIKA	EKONOMIA	GIZARTE-GAIAK	KULTURA	KIROLA	GUZTIRA
	2000-2004	299	82	1.059	465	258	2.163
	2000	76	15	228	123	51	493
	2001	88	16	281	114	60	559
	2002	50	12	192	95	48	397
	2003	39	14	181	70	54	358
	2004	46	25	177	63	45	356

Gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Pil-pilean* aldizkariko orrietan gai guztiak jorratu dira bost urteko epean nahiz eta gai batzuen presentzia bestea bano nabariagoa izan. 2000-2004 bitartean agerpen-mailari dagokionez, honako hauek dira eta ordena honetan Soraluzeko aldizkariko gairik inportanteenak: Gizarte-gaiak, kultura, politika eta kirolak. Ekonomia gutxiago lantzen bada ere, badu tokirik aldizkarian. Era errazean eta herriaren ikuspegitik lantzen diren gai ezberdinak egiten dute aldizkaria erakargarri. Honatx, Jose Manuel Irigoien, *Ttapi-Ttapa* aldizkariko kidearen hitzak, euren esperientzia gogoan hartuta:

*“Herrietako informazioa da irakurlegoak gehien estimatzen duena. Estetikoki atsegina izatea eta hamabostekariak dakarren informazioa begietatik sartzea lortu beharra dago. Bide horretan, argazki ugariak eta infografiak, helburu hori lortzea erraztu egiten dute. Segur aski*

*fenomeno hori ez litzateke berdina izanen nagusiki gaurkotasuneko berriak agertu beharrean aldizkariaren pisua, literaturan, komikietan, kontu zaharretan edota bertsolaritzan egonen balira. Honek ez du esan nahi, noski, gai hauek sekulan agertu behar ez luketenik, interes orokorragoa duten sailak nagusi izan behar dutela baizik” (Irigoien, 1992: 113).*

Horrela, bada, gai ezberdinak jorratzen ditu *Pil-pilean* aldizkariak, Soraluzeko eguneroko bizitzan gertatzen direnak islatuz. Guztira, 2.163 item aztertu dira eta horietatik 299 testuetan politika lantzen da, ekonomiari buruzko 82 item kaleratu dira, 1.059 idatzitan agertzen dira gizarte-gaiak, 465 testuk kultura lantzen dute eta 258 aldiz agertzen da kirolaren gaia.

Hasierako bi urteetan item kopuru orokorra altuagoa bada ere (hilabetekaria da eta orri gehiago ditu), 2002tik aurrera ez da item kopurua erdira jaisten, beraz, hilean bi aldiz kaleratzen denetik testu kopuru gehiago dago *Pil-pilean* aldizkarian, informazioa hobeto kudeatzen delako. Hala ere, gai batzuen agerpena gutxituz joan da urteekin, beste gai batzuen mesedetan. Gai politikoak adibidez, hamabostekaria denetik gutxiago lantzen dira. Kultura gaiak azken urtean gutxiago agertu dira, baina gizarte-gaiak, ekonomia eta kirolen agerpena indartu egin da 2002tik aurrera.

Aldizkarian sartuko diren gaiak erabakitzeke, hamabostean behin bilera egiten da, aldizkaria kaleratu aurreko astean hain zuzen ere. Bertan, erredakzio kontseiluan dauden bost kide elkartzen dira. Normalean, zuzendariak proposamen zerrenda eramaten du eta kasurik onenean kazetariak ere. Horren gainean eztabaidatu, erabaki eta lanak banatzen dira. Kolaboratzaile finkoek ere, bilera horietan parte hartzen dute eta euren proposamenak kontuan hartzen dira, baina Erredakzio Kontseiluan erabakitakoa eta han banatutako lanak agintzen zaizkie kolaboratzaileei.

Gaien gaurkotasunak duen garrantzia erlatiboa dela dio Egoitz Unamonok:

*“Nik uste dut, guk ateratzen dugun maiztasunerako gaurkotasun gehiago ezin dela izan. Guk aldizkaria ostegun gauean bidaltzen dugu inprentara eta azken albistea ere sartzen da. Horri zuku gehiago ezin zaio atera gaurkotasunaren aldetik. Zalantzarik gabe, aldizkaria maiztasun gehiagorekin ateratzea gure helburuen artean dago”<sup>420</sup>.*

Gaurkotasuna dela eta, argi dago aldizkariak ezin duela eguneroko hedabideekin lehiatu, horregatik *Diario Vascon* agertzen diren gai eta informazioei beste ikuspegi edo “*informazio*

<sup>420</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

*plus*<sup>421</sup> bat ematen ahalegintzen dira. Gaiak errepikatzea saihestezina da, batez ere politika eta herrilaren inguruko informazioetan. Horregatik *Pil-pilean* aldizkaria, hurbiltasuna aprobetxatuz, beste gai batzuk sakonago lantzen saiatzen da, gizarte-gaiak edo kultura besteak beste.

### **Gaiak bi hitzetan**

Beraz, gai guztiek dute tokia Soraluzeko aldizkarian eta agerpen-maila neurtuz gero, aldizkariaren zutabe nagusia gizarte-gaiak direla ondoriozta daiteke, agertzen diren gai guztien artean erdia, atal honetan kokatzen delako. Jarraian, kultura gaiak agertzen dira, ondoren politika, kirolak eta gutxien lantzen den gaia ekonomia da. Guztiak herria eta herritarrak erreferentzia moduan hartuta lantzen dira, irakurlearentzat erakargarri eginez eta aldizkariaren izaera propioa bilatuz.

---

<sup>421</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.




#### 4.2.4.1- Politika

Soraluzeko hamabostekarian politikak gai guztien %14ko portzentajea dauka 2000-2004 bitartean; Deba Barreneko sei herri-aldizkarien artean, *Pil-pilean*en agertzen da gehien politika. Hurrengo bi grafiko eta tauletan politikaren bilakaera nolakoa izan den ikusiko dugu. Lehenengo grafiko eta taularen bitartez, 2000-2004 bitartean politika gai ezberdinek aldizkarian izan duten agerpen orokorra azalduko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, politika gai bakoitzak urtez urte izan duen agerpen-mailaren nondik norakoak aztertuko ditugu.

##### 4.2.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean

29C.grafikoa



Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

29D. taula

	Udala	E.J	Alderdiak	E.H-ko gatazka	Erakunde ezberdinak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	148	4	54	85	6	299

Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Politika gehien jorratzen den hirugarren gaia da Soraluzeko hamabostekarian eta datuek horrela adierazten dute: 299 aldiz agertzen dira politika gaiak aztertu ditugun berrogeita hamalau aleetan. Kontuan hartu behar da, politika aldizkariaren gai garrantzitsuen artean izan dutela beti eta Soraluzeko eta Euskal Herriko kontu politikoei beti jarri zaiela arreta. Hala ere, Erredakzio Batzordean iritzi ezberdineko jendea egon da momentu ezberdinetan. Batzuk politika kontuak ez lantzearen alde agertu dira beti eta beste batzuk, aldiz, herritarren bizitza mugiarazten duen gaia

konsideratu izan dute, landu beharreko gai gisa ikusiz. Ondorioz, lan-taldean egon den jendearen arabera gehiago edo gutxiago landu den gaia izan da.

### A) UDALA

Gai politiko nagusiak udala, Euskal Herriko gatazka eta alderdiak dira bost urtetan. Izan ere, 2000tik 2002ko martxora arte, “Udal kontu” atala ia hilerokaleratzen da. Hamabostekaria den hasierako hilabeteetan sekzio hori mantendu egiten da, baina hausnarketa baten ostean, udalari buruzko informazioa “Zer berri” atalean sartzea erabakitzen da. Hona hemen Egoitz Unamuno *Pil-pilean* aldizkariko erredakzio buruak gai honi buruz esandako hitzak:

*“Udaletxeko informazioa jasotzeko udaletxera joan behar zen eta orain ere. Horrek pertsona bat bertara joan eta horretan denbora ematea eskatzen du. Gainera, udaletxeko kontuak ondo, ganoraz eta oinarrizko kalitate batekin landu behar dira, bestela arazoak ematen ditu eta alderdi guztien aldetik kritikak jaso ahal dira. Aldizkarian langileen dedikazioa handitu zenean, pertsona batek jasotzen zuen udaletxeko informazioa. Hala ere, hasieran udaletxeko albisteak ez lantzea gabezia bat zela uste genuen eta errazena, udaletxeko aktak hartu eta zeuden moduan pasatzen ziren orrira. Hasierako modua horretan datu solteak ematen ziren. Baina datuak solte emanda, ez zitzaizela testuingururik ematen ikusi zen eta aktetan gauza guztiak ez zirela jasotzen, oso garrantzitsuak ziren albisteak hain garrantzitsuak ez zirenekin nahastuz. Beraz, horrelakoak egiteko gaitasunik ez zegoela ikusita eta udaleko berriak gainerako berrietatik bereizteak ez zuela zentzu handirik ikusita, udaletxeko albisteak gainerako albisteekin batera lantzen hasi ginen”<sup>422</sup>.*

### B) EUSKAL HERRIKO GATAZKA

Gehien lantzen den bigarren gaia Euskal Herriko gatazkaren gaia izan da. Gaia “Zer berri”, “Gutunak” eta “Editoriala” sailetan agertzen da batez ere, nahiz eta bi aldiz<sup>423</sup> “Gizartea” atalean jorratu den. Euskal Herriko gatazkaren gaia *Pil-pilean*-en agertzen denean, herriko errealitate eta ekintzekin zerikusia duenean izaten da, adibidez, “Soraluzeko Baterak kontzentrazioak egiten jarraitzen du”<sup>424</sup> albiste laburra. Gutunetan eta editorialetan Euskal

<sup>422</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>423</sup> - “Soraluzetar presoak gose greba mugagabea”. 2000ko maiatzeko 24. zenbakian (7. or.) eta “Sakabanaketaren aurkako kontzentrazioa Soraluzen”. 2001eko urriko 39. alean. (12. or.).

<sup>424</sup> - 2000ko otsaileko 21. alean. (9. or.).

Herriko gatazka modu orokorragoan<sup>425</sup> lantzen da normalean, Euskal Herri mailako gai orokor gisa, nahiz eta herriko taldeek sinatzen duten.

### C) BESTEAK

Alderdien gaia berrogeita hamalau bider agertu da aldizkarian bost urteetan eta alderdi guztiak agertu dira bertan. Hala ere, alderdi abertzaleak gainerakoak baino gehiago agertu direla ikusi dugu. Ezker abertzalea hogeita lau aldiz agertu da, EAJ-EA koalizioa lau bider, EAJ lau aldiz, EA hiru bider, PSE lau aldiz, PP sei aldiz eta Aralar behin agertu da. Ezker abertzalearekin harreman zuzena dute aldizkarikoek eta Egoitzen esanetan, *“Ezker abertzaleak beti egin du aldizkaria bere, hasieratik tresna baliagarri gisa ikusi duelako”*<sup>426</sup>. Dena dela, gainerako alderdiekin ere badute harremana, EA-rekin batez ere. EAJ-rekin alderdi moduan oso harreman gutxi izan dute baina udalean EAJ dago eta udalarekin daukaten harremana zuzena eta ona da. Alderdi Sozialistarekin harremana *“korrektoa”*<sup>427</sup> da, Alderdi Popularrekin bezala, baina azken horrekin oso harreman gutxi izan dute.

Datuek adierazten dutenez, Eusko Jaurlaritza eta erakunde ezberdinak agertzen diren testuak oso gutxi dira, lau eta sei aldiz agertzen dira hurrenez hurren eta Soraluzeko herriarekin zerikusia izan dutenean agertu dira. Esate baterako, *“Ezozki Auzoko parkea”* albiste laburra<sup>428</sup> edo *“Karakaten eolikoak jartzeko proiektua baztertua”*<sup>429</sup> albiste laburra.

### Politika bi hitzetan

Oro har, *Pil-pilean* aldizkarian beti jarri zaio arreta politikari, nahiz eta politikaren gaia Erredakzio Batzordean unean-unean izan den jendearen arabera gehiago edo gutxiago landu den. Gai politikoen artean udala da gehien agertzen dena: informazio politiko osoaren erdia udalaren gaiei buruzko da. Udalaren ondoren Euskal Herriko gatazka agertzen da eta azkenik alderdiak. Herritik kanpoko erakundeekin zerikusia duten gaiak oso noizean behin kaleratzen dira, Eusko Jaurlaritza eta erakunde ezberdinak esaterako.

<sup>425</sup>- Adibidea: “Haika lagun”, Soraluzeko Haika-k idatzitako gutuna. 2001eko martxoko 33. alea. (4. or.).

<sup>426</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.


<sup>427</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>428</sup>- “Udaleko arduradunek Eusko Jaurlaritzako Lurralde antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailarekin harremanetan dabilta, bidezko baimena lortu ahal izateko”. 2000ko abenduko 30. zenbakian. (12. or.).

<sup>429</sup>- 2002ko otsaileko 43. alean. (10. or.).

4.2.4.1.2 - Politikaren bilakaera

30C. grafikoa



Politika gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

30D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Udala	Aldundia	Eusko Jaurlaritza	Alderdiak	E.H. gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerrak/Ejerzitoak	GUZTIRA
	2000	44	0	0	9	22	1	0	76
	2001	50	1	0	11	25	0	1	88
	2002	17	0	3	11	16	3	0	50
	2003	16	0	1	15	6	1	0	39
	2004	21	0	0	8	16	1	0	46

Politika gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

30D. taulak adierazten duenez, *Pil-pilean* hilabetekaria den garaian, aldizkariak gehiago jorratzen du politika. Hala eta guztiz ere, hamabostekaria denean politikaren portzentaje orokorra bi edo hiru puntu jaisten da eta kontuan hartu behar da, gure laginean hileko ale bat bakarrik aztertu dugula. Hamabostekaria denean ale bakoitzean portzentaje bera edo antzerakoa landuz gero, informazio gehiago kaleratzen denez, politika ere gehiago lantzen dela pentsa daiteke.

**A) UDALA**

Udalaren gaiak hasierako urtetik hamabi puntutan egin du behera eta 2001etik 2002ra bitarteko jaitsiera oso nabarmena izan da. Lehenago aipatu dugunez, “Udal kontu” atala 2002ko martxoan desagertzen da eta bertan, udal informazioari buruzko hiruzpalau albiste eta albiste

labur argitaratzen dira hilero<sup>430</sup>. Horrek item kopuru orokorrean duen eragina begi-bistakoa izanik, “Udal kontu” saila kaleratzeari uzten diotenetik udalaren gaia gutxiago agertzen baita. Gai horiek lantzerako orduan arazoak izan dituztela aitortzen du Egoitz Unamunok:

*“Gai politikoak, udalekoak esaterako gai delikatu eta oso erlatiboak dira, ikuspegi ezberdin asko daudelako eta oso markatuak izaten direlako, beste gai batzuetan gertatzen ez den bezala. Gainera ikusita zein den egoera politikoa, izan duguna eta bizi duguna oso delikatuak izan da eta arazo asko ekarri dizkigun gaia izan da”<sup>431</sup>.*

Hilabetekaria denean, udalaren gaia “Udal kontu” sailean lantzen da batez ere, albiste eta albiste laburren bitartez. 2002tik aurrera, “Zer berri” atalaren baitan agertzen dira udalarekin zerikusia duten informazioak; albiste, argazki-albiste eta albiste laburretan hain zuzen ere.

## **B) ALDERDIAK**

Alderdien gaiaren agerpena hazi egiten da 2000tik 2004ra bitartean eta 2003an lortzen duen portzentajea 2000koaren hirukoitza da. Urte horretan udal hauteskundeak izanik, herriko politika lantzeko aukera ez dute galdu aldizkarian. Hori dela eta, 2003ko maiatzeko 69. alean azalera eramaten dute hauteskunderen gaia; barruan, editorialean<sup>432</sup> eta kale-inkestan<sup>433</sup> hauteskunderen gaia jorratzen da. Halaber, udalean ordezkapena duen alderdi bakoitzari (EAJ-EA, Askatasun Haizeak herri plataforma, PSE-EE eta PP) orri bateko elkarrizketa egiten zaio ale berean.

2002. urtean ere ohi baino gehiagotan agertzen da alderdien gaia, urte horretan ezker abertzalea legez kanporatu zutelako. 2002an agertzen diren hamaika itemetik, bost testutan<sup>434</sup> aipatzen da alderdien legea.

## **C) EUSKAL HERRIKO GATAZKA**

Euskal Herriko gatazkaren gaia ere hazi egiten da urteak aurrera egin ahala, 2003. urtea salbuespena izanik. Urte horretan ohi baino gutxiago agertzen da Euskal Herriko gatazka *Pil-pilean* aldizkarian, nahiz eta oro har Soraluzeko aldizkarian gaiari arreta jartzen dioten, Euskal Herrian oso presente dagoen gaia den heinean, herrietan ere islatzen baita. Guztira, laurogeita

<sup>430</sup>- Adibidez, 2000ko azaroko 29. zenbakian “Udal kontu” sailaren baitan Gobernu Batzordeei buruzko lau item kaleratzen dira. (12. or.).

<sup>431</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>432</sup>- “Zeini emango diot nire bozka?” Egoitz Unamunok idatzitako editoriala. 2003ko maiatzeko 69. alean. (3. or.).

<sup>433</sup>- “Zer pentsatzen dozu hauteskunde honetan dagan giruaz?” kale-inkesta. 2003ko maiatzeko 69. zenbakian. (5. or.).

<sup>434</sup>- “Batasunaren ilegalizazioaren aurka” argazki-albiste. 2002ko uztaileko 53. alean (6. or.). EAJ-k, EA-k eta PSE-k bere iritzia plazaratzen dute Batasunaren legez kanporatzearen inguruan bakoitzak gutun bat idatziz. 2002ko iraileko 55. alean (7 or.). Batasunaren legez kanporatzea gogorrazten da argazki-albiste batean. 2002ko abenduko 60. aleko urtekarian (17. or.).

bost aldiz agertzen da Euskal Herriko gatazka *Pil-pilean*en eta horietatik hogeita hirutan, iritzi-generoen bitartez landu da, editorial eta irakurleen gutunetan hain zuzen ere.

#### **D) BESTEAK**

Gainontzeko gai politikoak oso gutxi agertu dira aldizkarian, herriko eguneroko bizitzan duten eragina ez baita gainerako gai politikoaren bestekoa. Datuak begiratzea baino ez dago. Aldundia<sup>435</sup> eta gerra eta ejertzitoen<sup>436</sup> gaiak behin agertu dira aldizkariko orrietan. Eusko Jaurjaritza lau aldiz<sup>437</sup> eta erakunde ezberdinak sei bider<sup>438</sup> agertu dira berrogeita hamalau aleetan. Agertu diren gutzietan, herriarekin edo herritarrekin zerikusi zuzena izan dute, herrikoak bereziki ez diren gai horiek ere herritartuz.

#### **Politikaren bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, hilabetekaria denean politika oro har gehiago azaltzen da aldizkarian eta hamabostekari bihurtzearekin batera, gaiari espazio gutxiago eskaintzen zaio. Udalarari buruzko testuak gutxitu egin dira urteekin, udalarari buruzko informazioa espresuki lantzen den atala ere desagertzen delako, nahiz eta 2000-2004 bitartean, udala izan gehien lantzen den eta agertzen den gai politikoaren. Alderdiei buruzko informazioa, ordea, hazi egiten da urteekin eta bereziki 2003an agertzen da udal hauteskunde urtea izan zelako. Euskal Herriko gatazkaren gaia ere indartu egiten da eta urteekin gero eta gehiago lantzen da. Euskal Herriko gatazka agertzen den testu asko (erdia) iritzi testuak dira. Urtetik urtera herritik kanpokoak diren erakundearen testuen kopurua ez da hazten, oro har hutsala delako.

<sup>435</sup>- "Erlei Txurruka pilotaria eta Arrate Azkona atleta etorkizuneko kirolari izendatu dituzte" albiste argazkia. 2001eko abendu 41. zenbakian. (14. or.).

<sup>436</sup>- "Benetako justiziaren ordua", Mikel Santiagok irailaren 11ri buruz idatzitako zutabea. 2001eko 38. alean. (3. or.).

<sup>437</sup>- Adibidea: "Diru-laguntzak umeak izateagatik" argazki-albiste. 2002ko 55. zenbakian. (6. or.).


<sup>438</sup>- Adibidea: "Bidegorria egingo da Bergarararte". 2003ko 68. alean. (6. or.).

#### 4.2.4.2- Ekonomia

2000-2004 bitartean Soraluzeko aldizkarian gutxien agertzen den gaia ekonomia izan da. Gaien guztien artean %4ko portzentajea dauka lan honetan aztertu ditugun berrogeita hamalau aleetan. Hurrengo bi ataletan *Pil-pilean* aldizkarian ekonomiak izan duen garapena nolakoa izan den ikusiko dugu. Lehenengo eta behin, ekonomia gai ezberdinek bost urteko epean izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Ondoren, ekonomia gai bakoitzak urtetik urtera izan duen bilakaera zein izan den azalduko dugu.

##### 4.2.4.2.1 -Ekonomia 2000-2004 bitartean

31C. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunetotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

31D. taula

	Enpresa	Laborala/Langabezia	Nekazaritza/Abeltzaintza	Itsaso/Arrantza	Merkataritza	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	26	16	8	1	31	82

Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Ekonomiari buruzko 82 testu aurkitu dira bost urteko epean eta horrek gutxien lantzen den gaien artean jartzen du ekonomia.

Gai batzuk beste batzuk baino gehiago lantzeak Erredakzio Batzordearen egituraketarekin zerikusi zuzena duela uste du *Pil-pilean* aldizkariko erredakzio buruak: “*Ekonomia bezalako gaiak urrunago geratzen dira. Erredakzio Batzordean ez badago pertsona bat horretara heltzen*

*dena, oso zaila izaten da lantzea; ezinezkoa ez da, baina gai horren inguruan modu kontziente batean lan egitea eskatzen du*<sup>439</sup>. Alegia, gai ekonomikoak era ulergarrian eta irakurterrazean jorratzeak, beste gai batzuetan baino lan gehiago eskatzen du.

#### **A) MERKATARITZA**

31C. grafikoan argi ikus daitekeen moduan, merkataritza eta enpresa dira ekonomiaren baitan gehien agertzen direnak. Aldizkariak merkatariekin harreman estua izan du beti, merkataritzan publizitate bezero onak lortu baititu. Herri txikietan komertzioak eta tabernak gune sozial inportanteak dira eta aldizkarian hori islatzen ahalegintzen dira, herriko merkataritza eta tabernen egunerokotasuna hain zuzen ere.

#### **B) ENPRESA**

Enpresaren gaiari buruzko hogeita sei idatzi kaleratu dira *Pil-pilean* aldizkarian 2000-2004 bitartean. Erredakzio Batzordeak jakin badaki enpresa mundua inoiz ez dutela hurbil izan eta konturatzen dira enpresaren alorra gutxi landu dutela. Horretaz jabetuta eta Soraluzeko enpresak herriko motore ekonomikoak diren heinean eta batzuk *Pil-pilean* aldizkariko bezero, azken urteetan arreta gehiago jarri zaio enpresek sortzen duten informazioari.

Merkataritza eta enpresaren portzentajeak batuta, lan honetan aztertu ditugun berrogeita hamalau zenbakitan argitaratu diren ekonomia gai guztien erdia baino gehiago batzen dute.

#### **C) LABORALA ETA LANGABEZIA**

Merkataritza eta enpresaren atzetik gai laborek ekonomia gaien %20ko portzentajea daukate Soraluzeko hamabostekarian. Herriko eguneroko bizitzan beste gai batzuek (gizarte-gaiak) duten presentzia eta garrantzia ez badute ere, gai honen inguruan notiziak sortzen direnean aldizkarian agertzen dira.

#### **D) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA**

Datuei begiraturaz gero, argi ikus daiteke nekazaritza eta abeltzaintzaren gaiak askoz gutxiago lantzen direla, gaia zortzi testutan agertu baita berrogeita hamalau zenbakietan. Oro har herrian gertatzen ari denaren isla dela esan daiteke. Aldizkariko Erredakzio Batzordeak gaia lantzeko ahalegina egin badu ere, herrian bertan gainbehera doan sektorea da, gero eta indar gutxiago duena eta zoritxarrez, nahi baino gutxiago landu izan duten gaia dela onartzen du Egoitz Unamunok.

---

<sup>439</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.




### Ekonomia bi hitzetan

Beraz, ekonomia gutxien lantzen den gaia da *Pil-pilean* aldizkarian. Profesionalen prestakuntza espezializatuen gabezia izan daiteke, gai horiek ez lantzeko arrazoietako bat. Hala ere, merkataritza eta enpresaren gaia dira gehien agertu direnak, merkataritzarena bereziki, aldizkariarekin lotura estua eta zuzena dutelako, baina enpresari gero eta arreta gehiago jartzen zaio. Neurri txikiagoan gai laboralak ere agertzen dira albiste direnean eta nekazaritza eta abeltzaintza desagertzen doazen sektoreak diren heinean, aldizkarian ere hauen agerpena hutsala da.

#### 4.2.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera

32C. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

32D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Enpresa	Labo/Langa	Neka/Abel	Itsas/Arrant	Merkataritza	GUZTIRA
	2000	1	3	2	0	9	15
	2001	5	2	1	0	8	16
	2002	5	1	0	0	6	12
	2003	9	3	1	1	0	14
	2004	6	7	4	0	8	25

Ekonomia gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Ekonomia gaiaren agerpena eskasa da *Pil-pilean* orrietan, baina item kopuru orokorra kontuan hartzen badugu, aldizkaria hamabostekaria denetik ekonomia gehiago lantzen da.

Enpresa, laborala eta merkataritza dira ekonomiaren baitan gehien jorratzen diren gaiak eta guztiek, urteekin batera hazkunde nabarmena izan dute.

### A) ENPRESA

32C. grafikoan argi ikusten da enpresaren gaiak goranzko bilakaera argia izan duela. Hasierako urteko portzentajea hurrengo urteetan hirukoiztu egiten da eta 2003an, gai honi eskaintzen zaion item kopurua (bederatzi) bereziki altua izanik. Urteekin batera item kopuruak gora egiten duen neurrian, aldizkarian enpresaren gaiari eskaintzen zaion espazioa kazetaritza-generoen arabera ere handitu egiten da. 2000. urtean behin bakarrik agertzen da enpresaren gaia kale-inkesta batean<sup>440</sup>. Hurrengo urteetan, zortzi albiste labur<sup>441</sup>, bost argazki-albiste<sup>442</sup>, hiru albiste<sup>443</sup>, lau erreportaje<sup>444</sup>, elkarrizketa bat<sup>445</sup>, artikulua bat<sup>446</sup> eta editorial bat<sup>447</sup> kaleratzen dira enpresaren gaiaren inguruan. Erredakzio buruak egiten duen hausnarketa ekarriko dugu gogora: *“Gu kontziente izan gara enpresaren gaia gutxi jorratu dugula. Ezer ez lantzetik apur bat lantzea beti da zerbait. Ekonomia eta enpresa alorra ez dugu inoiz asko landu, ez delako gugandik hurbil egon eta gu horretaz jabetzen gara oraindik gainditu gabe dugun ikasgaia da”*<sup>448</sup>. Urteekin beraz eta era kontzientean euren orrietan lekua irabaziz joan da enpresa.

### B) LABORALA ETA LANGABEZIA

Gai laboralak 2000, 2003 eta 2004an lantzen dira batik bat. Atal honetan ez dira argi bereizten aldizkariaren bi epeak (hilabetekari eta hamabostekaria). Hala ere, hamabostekari bihurtzen denean, gaiaren agerpen handiagoa dela sumatzen da, azken bi urteetan datuek hori adierazten baitute.

Gai laborala betidanik hartu da kontuan Soraluzeko aldizkarian. Guk sortu dugun kategoria sisteman, gai laboralak ekonomiaren baitan sailkatu ditugu, baina *Pil-pilean*ek herriko arazo sozial gisa hartu ditu gai laboralak eta beste gizarte arazoei bezalaxe, arreta berezia jarri dizkie gai hauei: *“Nik uste dut, sindikatu eta lan kontuak arazo sozialen barnean sartzen direla*

<sup>440</sup> - “Gure herrian gas naturala jartzea zer iruditzen jatzu?”. 2000ko maiatzeko 24. alean. (5. or.).

<sup>441</sup> - Adibidea: “Lapurreta Olako Tornidecon” albiste laburra. 2003ko 81. zenbakian. (7. or.).

<sup>442</sup> - Adibidea: “Arma praktikak 1955ian” kañoi fabrikako langileen argazki-albistea (“Argazki zaharra” atalean). 2002ko azaroko 59. zenbakian. (14. or.).

<sup>443</sup> - Adibidea: “Rafael Barrenetxea Espainiako Makina eta Erreminta Erakundeko presidente berria” albistea. 2001eko maiatzeko 35. alean. (7. or.).

<sup>444</sup> - Adibidea: “Sacia botatzeko beste lau hilabete biharko dira” erreportajea. 2001eko azaroko 40. zenbakian. (10.-11.or.).

<sup>445</sup> - “Gaztelupeko Hotsak, 70 disko eta zerbait gehiago” elkarrizketa. 2002ko azaroko 59. alean. (8.-9. or.).

<sup>446</sup> - “Euskaldunako sirenia”. 2002ko martxoaren 45. zenbakian. (14. or.).

<sup>447</sup> - “Telegrapak”. 2003ko ekaineko 72. zenbakian. (3. or.).

<sup>448</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

*eta gu beti saiatu gara herrian izan diren eta dauden arazo sozialak kontuan hartzen eta horren inguruan adi egoten*<sup>449</sup>, azpimarratzen du aldizkariko erredakzio buruak. Gai hau albiste laburren bitartez lantzen da *Pil-pilean* aldizkarian, hamasei testu aurkitu dira eta zortzi, albiste laburrak<sup>450</sup> dira. Bestalde, hiru albistetan<sup>451</sup>, bi elkarrizketetan<sup>452</sup>, argazki-albiste batean<sup>453</sup>, iritzi-zutabe batean<sup>454</sup> eta editorial batean<sup>455</sup> jorratzen da gaia.

### C) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA

Nekazaritza eta abeltzaintza oro har oso gutxi lantzen da eta 2000 eta 2004an agertzen da gehien, baina urte horietan, gaiarekin zerikusia duten informazioak bi eta lau aldiz argitaratu dira hurrenez hurren. Guztira, aztertu ditugun berrogeita hamalau zenbakietan zortzi testu aurkitu ditugu nekazaritza eta abeltzaintzaren ingurukoak: hiru albiste labur<sup>456</sup>, bi albiste<sup>457</sup>, bi elkarrizketa<sup>458</sup> eta iritzi-zutabe bat<sup>459</sup>. Gaia lantzeko ahalegina egin bada ere, ez da asko agertu bost urteetan.

### D) ITSASOA ETA ARRANTZA

*Pil-pilean* aldizkarian, itsasoa eta arrantzarekin zerikusia duen testu bakarra kaleratu da gure laginerako aukeratu ditugun berrogeita hamalau aleetan: 2003ko martxoko 65. alean, Arianne Unamunok idatzitako “Hilda Koxme” iritzi-zutabea hain zuzen ere.

### E) MERKATARITZA

Merkataritza, ekonomia gai inportanteena da aldizkarian, berau baita gehien errepikatzen den gaia. 2000tik 2002ra aldizkarian lantzen diren gai ekonomikoen erdia (%50) merkataritzari buruzko testuek osatzen dute. 2003an, ordea, merkataritza ez da behin ere ez agertzen eta 2004an gaia jorratzen da baina ez hasierako hiru urteetan beste (%32). Merkataritzaren gaia informazio-genero eta iritzi-genero ezberdinen bitartez lantzen da. Horrela bada, bederatzi albiste labur<sup>460</sup>, sei

<sup>449</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>450</sup> - Adibidea: “107 plaentziar lan gabe INEMeko datuen arabera” albiste laburra. 2002ko iraileko 55. zenbakian. (6. or.).

<sup>451</sup> - Adibidea: “Sindikatuak lehen bezala” albiste. 2004ko iraileko 95. alean. (7. or.).

<sup>452</sup> - Adibidea: “Aurtengo maiatzaren bata oso ezberdina izango da”, LAB sindikatuko ordezkariari elkarrizketa. 2003ko 68. zenbakian. (11. or.).

<sup>453</sup> - “SAPAKo langileak protestan” argazki-albiste. 2004ko 102. alean (Urtekariko 2. or.).

<sup>454</sup> - “Zapaldua eta zapaltzailea”, Unai Larreategik idatzitako iritzi-zutabea. 2004ko martxoko 87. zenbakian. (3. or.).

<sup>455</sup> - “Telegrapak”. 2004ko apirilko 87. alean. (3. or.).

<sup>456</sup> - Adibidea: “Soraluzetarrak Austrian” albiste laburra. 2001eko urriko 38. alean. (6. or.).

<sup>457</sup> - Adibidea: “Elgeako bi artzai Gaztetxian” albiste. 2000ko abenduko 30. zenbakian. (10. or.).

<sup>458</sup> - Adibidea: “Erreforma baserritarren merkatuarendako azken aizkorakada izan daiteke”, Marije Intxaustiri egindako elkarrizketa. 2003ko uztailko 73. alean. (10. or.).

<sup>459</sup> - “Oraindik bizirik dirau”, Jone Ariznabarretak idatzitako iritzi-zutabea. 2000ko urriko 28. zenbakian. (3. or.).

<sup>460</sup> - Adibidea: “Denda, taberna eta negozio txiki askok itxi dituzte ateak uda honetan” albiste laburra. 2000ko iraileko 27. alean. (8. or.).

argazki-albiste<sup>461</sup>, hiru albiste<sup>462</sup>, zazpi erreportaje<sup>463</sup>, bi zutabe<sup>464</sup>, editorial bat<sup>465</sup> eta hiru kaleko inkesta<sup>466</sup> aurkitu dira merkataritzaren gaiari buruz aritzen direnak. Hogeita hamaika testu horietatik bederatzi itemetan Gazteñerre azoka agertzen da. Gazteñerre azoka azaroan herrian antolatzen den nekazaritza azoka garrantzitsuena da. Pil-pilean Kultur Elkarteak azokaren inguruko ekitaldiak antolatzen ditu; beraz argi dago, horrenbeste aldiz agertuz, *Pil-pilean* aldizkaria, kultur elkartearen ekitaldiak iragartzeko aprobetxatzen dela.

### **Ekonomiaren bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, ekonomia oro har gutxi agertzen da eta lan-taldeak badaki ekonomiari ez zaiola inoiz arreta berezirik jarri aldizkarian, baina urteekin apur bat lantzeko ahalegina egin dute. Emaitzetan argi ikusten da urteak pasa ahala, gehiago agertzen dela ekonomia *Pil-pilean* aldizkarian, batez ere hamabostekaria denetik aurrera. Orokorrean merkataritza da gehien agertzen den gaia, baina urteen bilakaeran merkataritzak indarra galtzen du, enpresa eta gai laboralei buruzko testuak gero eta ugariagoak diren bitartean.

<sup>461</sup>- Adibidea: “Gazteñerre azoka” argazki-albiste. 2002ko abenduko 60. zenbakian (Urtekarian 4. or.).

<sup>462</sup>- Adibidea: “Euroa ikasgai” albiste. 2001eko ekaineko 36. zenbakian. (7. or.).

<sup>463</sup>- Adibidea: “Merkataritza bizirik herria bizirik” erreportajea. 2004ko urtarrileko 83. alean. (8.-9.-10. or.).

<sup>464</sup>- Adibidea: “Aurrerapenaren morroi”, Karmele Ortuetak idatzitako iritzi-zutabea. 2004ko urtarrileko 83. zenbakian. (3. or.).

<sup>465</sup>- Adibidea: “Telegrapak”. 2004ko urtarrileko 83. alean. (3. or.).


<sup>466</sup>- Adibidea: “Zergatik egiten dittugu erosketak herritik kanpo?” kale-inkesta. 2004ko urtarrileko 83. zenbakian. (5. or.).

### 4.2.4.3- Gizarte-gaiak

*Pil-pilean* aldizkarian %49ko portzentajea lantzen dira gizarte-gaiak, bost urteetan aldizkarian gehien agertzen diren gaiak izanik. Hurrengo ataletan gizarte-gai ezberdinek izan duten garapena bi grafikoko eta tauletan ikusiko dugu. Lehenengo grafikoa eta taulan, 2000-2004 bitartean gizarte-gaiak aldizkarian izan duten agerpen orokorra nolakoa izan den erakutsiko dugu. Bigarren grafikoa eta taulan, gizarte-gai ezberdinek urtez urte izan duten bilakaera aztertuko dugu.

#### 4.2.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean

33C. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

33D. taula

	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	52	76	106	102	42	115	364	203	1.059

Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Lan honetan aztertu diren berrogeita hamalau zenbakietan 1.059 aldiz agertzen dira gizarte-gaiak informazio eta iritzi-genero ezberdinetan. Esan beharrik ez dago berauek direla aldizkariko gai izarrak. Era berean, tesi honetan aztertu diren gainerako bost herri-aldizkarietan ere, gizarte-gaiak gailentzen dira beste guztien artean. Hala ere, ezin ahaztu daiteke gizarte-gaien atalak azpi-kategoria asko dituela eta azpi-kategoria horietan agertzen direla herritarrekin zerikusi

zuzena duten gai nagusiak (herritarren bizitza esaterako, gehien errepikatzen den gaietako bat izanik). Kopuruen arabera, gehien agertzen den gaia gizarte ohituren gaia (aisialdia, herritarren bizitza eta gizarte bizitza) da, 364 aldiz errepikatuz. Berrehunetik gorako kopurua dauka zerbitzuen atalak (berrehun eta hiru), ehunetik gora agertzen dira lanak (ehun eta sei) eta hezkuntza (ehun eta bi). Gainerakoak berrogeitik gora agertzen dira 2000-2004 epean. Azter dezagun kategoria bakoitza banan-banan.

### **A) TALDEAK**

Herriko talde ezberdinak berrogeita hamabi aldiz agertzen dira *Pil-pilean*en orrietan. Izan ere, mugimendu sozialekiko gertutasun handia izan du aldizkariak betidanik eta horrek lana bera errazteaz gain, gai horiek lantzeko joera areagotu egiten du. Aldizkaria beti saiatu da ahalik eta talde eta jende gehienarengana iristen, nahiz eta batzuetan ez den erraza izaten; normalean aldizkariko erredaktoreek joan behar izaten dutelako taldeengana eta horrek badu arrisku bat, jende ezagunarengana joateko tentazioa. Hona hemen gaiaren inguruan Egoitz Unamunok egiten duen gogoeta:

*“Nire ustez argi dago aldizkarian jorratuko dena Erredakzio Batzorde edo zuzendaritzatik ateratzen dela. Izan daiteke kontziente edo inkontziente, ez garela konturatzen zer sartzen dugun aldizkarian eta zer ari garen kanpoan uzten. Orduan, hori oso lotuta egon da jendearen bizimodu eta harremanekin. Herri mailan lan eginez gainera, askoz nabarmenagoa da hori, informazioa lortzeko modu bakarra askotan norberak dituen kontaktuak izaten dira. Aldizkari moduan jendeak guregana jotzen du, baina ez du funtzionatzen teletipo moduan, noizean behin etortzen dira. Beraz, gu joan behar izaten gara jendearengana”<sup>467</sup>.*

### **B) GIZARTE ARAZOAK**

Gizarte arazoen gaia hirurogeita hamasei bider azaldu da aldizkarian bost urteetan. *Pil-pilean*-en kontuan izan dute beti arazo sozialen gaia. Horregatik, herrian izan diren eta dauden gizarte arazoak eta herritik kanpo izaten direnak ere, lantzen saiatzen dira eta arreta berezia jartzen zaie, gizartearentzat garrantzia duten heinean herritarrentzat ere interesgarriak izan daitezkeelako.

---

<sup>467</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

### **C) LANAK**

Lanak atala (herri lanak eta etxebizitza) ehun eta sei bider aurkitu dugu aldizkariko informazio eta iritzietan. Gai honetan herritarren interesak kontuan hartzen dira eta herrian martxan dauden proiektu urbanistiko guztien berri ematen ahalegintzen dira. Herrian egiten diren lanen inguruko informazioa udalean lortzen dute eta herrilan eta etxebizitzari buruzko gaiak oro har udalarekin zerikusi zuzena dutenez, “Udal kontu” bezalako sailetan agertu izan dira.

### **D) HEZKUNTZA**

Hezkuntzaren gaia gehien lantzen den gaien artean dago Soraluzeko aldizkarian. Izan ere, “Gaztetxoan txokoa” sailean eta “Jaurti” eta “Ugaraxo” gazteei zuzendutako gehigarrietan agertzen diren informazio eta iritzi asko hezkuntzaren ingurukoak dira; herriko ikastetxeetako ikasleek egindako gehigarriak direnez, ikastetxeei buruzko informazioa biltzen baitute biek. Horrek ez du esan nahi gehigarrietan soilik lantzen denik hezkuntzaren gaia, aldizkarian zehar ere agertzen da-eta.

### **E) OSASUNA**

Osasunaren gaia gizarte-gaien artean gutxien landu den gaia izan da bost urte hauetan. Gai honetan aldizkariaren bi aldiak oso argi nabaritzen dira. Hilabetekaria denean, “Gure Sorgina” atalean osasunari buruzko erreportajeak kaleratzen dira. Oier Oregi medikuak ale gehienetan osasunarekin zerikusi duten gai ezberdinak (lepoko minak, hidratazioa ariketa fisikoa egiterakoan, bularreko minbizia...) lantzen ditu, argazki eta grafiko ezberdinak erabiliz. Hamabostekari bihurtzen denean, atal hau desagertu egiten da eta osasuna aldizkariko gainerako ataletan azaltzen da albiste edo albiste labur moduan, ez zaio toki berezirik egiten.

### **F) INGURUMENA**

Ingurumena ehun eta hamabost bider agertzen da 2000-2004 bitartean eta gai anitz lantzen dira ingurumena eta ekologiarekin zerikusia dutenak. Normalean herriarekin eta herritarrekin zerikusia duten ingurumen gaiak izaten dira eta gaia orokorragoa denean ere, herriko ikuspegia kontuan izanik lantzen da, adibidez birziklatzearen gaia. Garraioetan beste horrenbeste gertatzen da, herritarrei zuzenean eragiten dieten gaiak agertuz: herrian edo inguruetan gertatzen diren trafiko istripuak, aparkalekuak edo isunak besteak beste.

## **G) GIZARTE OHITURAK**

Gizarte ohituren atala hirurehun eta hirurogeita lau aldiz agertzen da bost urteetan. Aisialdia hogeita hamaika bider, herritarren bizitza berrehun eta hamazazpi aldiz eta gizarte bizitza ehun eta hamasei bider errepikatzen da. Herritarrak aldizkariko protagonista bilakatzea da helburu eta horregatik jendearen parte hartzea bilatzen da. Jendearen parte hartze hori mantendu edo apur bat igotzea lortu dutela dio Egoitz Unamunok, baina herriak ematen duen beste lantzeraz ezin izan direla heldu, ez dutelako horretan asmatu. Hori bai, herriko jendea arlo ezberdinetan (kirolean, kulturean, ekonomian, politikan...) albistea denean aldizkarian agertuko da. Dena den, herrikoa izateagatik soilik ere aldizkarian agertu daiteke eta horren erakusle garbia “Kale kantalian” atala da. Bertan, edozein herritarri elkarrizketa arin bat egiten zaio, herritar hori hamabostaldiko protagonista bilakatuz.

## **H) ZERBITZUAK**

Gizarte-gaien baitan gehien lantzen den bigarren atala, zerbitzuen atala da, berrehun eta hiru aldiz errepikatuz. *Pil-pilean* aldizkariak kaleratzen duen zerbitzu-informazio kopurua altua denez, gizarte-gaien zerbitzu atalak presentzia garrantzitsua du. Izan ere, botiken ordutegia, mezen ordutegia, denbora-pasak, salerosketa eta trukeak, gazte informazioa, telefono interesgarriak eta ilargiaren faseei buruzko informazio guztien gaia, zerbitzuak atal honetan sailkatu dugu. Badira zerbitzuen atalean sartzen diren beste testu batzuk ere, herriko zerbitzu publikoekin zerikusia dutenak, kiroldegi edo liburutegiari buruzkoak direnak, baina azken horiek sei aldiz soilik agertzen dira.

### **Gizarte-gaiak bi hitzetan**


Laburbilduz, gizarte-gaiak dira Soraluzeko aldizkariaren gai ezberdinen artean garrantzitsuenak, agerpen-maila kontuan hartzen badugu bederen. Dena den ezberdintasuna nabarmenak daude atal hau osatzen duten azpi-kategoria ezberdinen artean: gizarte ohituren atala da gehien agertzen dena, %34ko portzentajeetan kokatuz. Zerbitzuen atala %19an kokatzen da. Lanak, ingurumena eta hezkuntzak %10-%11 inguruko balioak dituzte. Taldeak, gizarte arazoak eta osasunaren gaiak, ordea, %4-%7an kokatzen dira.

Herritarrak protagonista nagusiak diren gaiei eta arazo sozialei arreta berezia eskaintzen zaie aldizkarian, herriko jende eta talde ezberdinarengana heltzeko ahalegina eginez.



#### 4.2.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera

34C. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

34D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
	2000	14	13	21	10	11	22	81	56	228
	2001	14	16	40	19	9	32	81	70	281
	2002	5	26	16	29	8	23	68	17	192
	2003	9	10	17	18	7	20	70	30	181
	2004	10	11	12	26	7	18	64	30	177

Gizarte-gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Arestian aipatu bezala, gizarte-gaiak dira *Pil-pilean* aldizkarian benetako protagonistak. Bost urte hauetan kaleratu den informazioaren erdia gizarte-gaiei eskaintzen zaie eta horrek egiten du aldizkaria gertukoa izatea, herriko eta herritarren eguneroko bizitza gertutik jarraitzen baitu.

34D. taulako kopuru absolutuei begiratzen badiegu, argi eta garbi antzematen da *Pil-pilean* hilean behin argitaratzen denean, hamabostean behin kaleratzen denean baino item kopuru altuagoa agertzen dela bertan. Dena den, 34C. grafikoa agertzen diren portzentajeek ez dute beherakada nabarmen hori islatzen, kasu batzuetan kontrakoa izanik. Alegia, gai batzuk hamabostekaria denean hilabetekaria denean baino gehiago lantzen dira, gizarte ohiturak esate baterako.

## A) TALDEAK

Taldeei eskaintzen zaien tartea bost urteetan nahiko finko mantentzen da, %5aren inguruan, nahiz eta hamabostekari bihurtzen denean apur bat gutxiago lantzen den, batez ere 2002an. Gure azterketa-epean talde ezberdinak agertu dira aldizkarian: kultur elkarteak, euskara taldeak, Haiaka, Kristau taldea, Karakateko parke eolikoaren aurkako taldea, Gazte Asanblada, Jubilatua, Gutxitu Fisikoen taldea, Senideak, Bai Euskal Herriari Plataforma, emakumeen taldea... Egoitz Unamunok oso argi dauka, talde guztiek dutela tokia aldizkarian eta beti ahalegindu direla jende guztiarengana heltzen:

*“Gu saiatu gara ahalik eta talde eta jende gehienarengana iristen, sekula ez dugu gai bat baztertu informazioaz kanpoko arrazoiengatik. Alderantziz, beti euskal mundutik gertu ez dagoen jendearengana iristeko obsesioa izaten dugu eta aldizkarian tokia egiteko. Buruan hori dugu, gero lortzea zailagoa izaten da”<sup>468</sup>.*

Talde ezberdinak atal honetan agertzen dira nagusiki, baina aldizkariko beste hainbat informazioetan ere agertzen dira, nahiz eta guk beste epigrafe batean sailkatu ditugun. Adibidez, gaztetxean kontzertu bat antolatzen bada, guk item hori musikaren epigrafean sartu dugu, baina gaztetxeko jendea albistean antolatzaile moduan agertuko da. Horrelako kasuetan, taldeek protagonismo guztia ez badute ere, inplizituki beste gai batzuetan agertuko dira.

Taldeen gaia aldizkariko edozein ataletan agertzen da, baina batez ere “Zer berri” eta “Kultura” sailetan. Albiste laburrak<sup>469</sup>, albisteak<sup>470</sup>, argazki-albisteak<sup>471</sup>, erreportajeak<sup>472</sup>, zutabeak<sup>473</sup> edo gutunak<sup>474</sup> dira gai hau lantzeko genero erabilienak.

## B) GIZARTE ARAZOAK

Gizarte arazoaren gaia portzentaje berean (%6) mantentzen da urtero, 2002an izan ezik. Urte horretan nabarmen hazten da %14ra heldu arte. Unean uneko garrantziaren arabera, herrikoak diren edo orokorrak diren arazo sozialak jorratzen dira, arreta berezia jarritz. Bost urteko epean agertu direnen artean honako titular hauek aipa daitezke: “Zer iruditzen jatzu behi

<sup>468</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>469</sup> - Adibidea: “Itxaropenako zuzendaritza batzordearen berriztea” albiste laburra. 2001eko martxoko 33. alean. (7. or.).

<sup>470</sup> - Adibidea: “Jubilatuaren aste arrakastatsua” albiste. 2001eko azaroko 40. zenbakian. (8. or.).

<sup>471</sup> - Adibidea: “Galtzagorriren ekarpena jaietan” argazki-albiste. 2004ko abenduko 102. alean (Urtekariko 3. or.).

<sup>472</sup> - Adibidea: “Sendotza, kristautasunaren onarpena egiteko prestatzen dira barikuro” erreportajea. 2000ko azaroko 29. zenbakian. (6. or.).

<sup>473</sup> - Adibidea: “Gazteok antolatu eta Gaztetxea indartu!”, Julen Mendikutek idatzitako iritzi-zutabea. 2004ko azaroko 99. alean. (3. or.).

<sup>474</sup> - Adibidea: “Danborradako Komisia desaginda”, Danborradako Komisia sinatutako gutuna. 2001eko apirileko 34. zenbakian. (4. or.).

eruen arazua?” inkesta<sup>475</sup>, 2001eko abenduko 41. aleko editorialean hirugarren munduarekin elkartasunean ari diren soraluzetarrak gogoratzen dituzte. “Lapurretak Gilan eta Golen” argazki-albistea<sup>476</sup>, “Ekuatoriar komunitatea Soraluzen” erreportajea<sup>477</sup>, “Mundua Soraluzen bizi den musulman baten begietatik” elkarrizketa<sup>478</sup>, “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako bateratzea” albistea<sup>479</sup>, Bosco Garciak idatzitako “Botellonak” iritzi-zutabea<sup>480</sup> edo “Boliviarako material bilketa” albiste laburra<sup>481</sup> besteak beste.

### C) LANAK

Lanen gaia, aldizkaria hilabetekaria den hasierako bi urteetan gehiago lantzen da eta batez ere 2001ean, orduan lortzen baitu portzentajerik altuena (%14) izatea eta baita item kopuru altuena ere (berrogei item). Urte horretan batz bestea ale bakoitzean lanen gaia hiru aldiz baino apur bat gehiagotan agertzen da. Lanen gaiak herritarren artean interes handia pizten du eta *Pil-pilean* aldizkariko lan-taldea jabetu da horretaz: “*Herrian martxan dauden proiektu urbanistiko guztien berri ematen saiatzen gara, agian ez dugu jakin izan jendeak horrenganako duen interes mailaren arabera lantzen. Beti pentsatu izan dugu herrilanak obrak baino ez direla eta jendeari asko interesatzen zaizkio*”<sup>482</sup>.

Atal honetan herri lanak urtero nagusitzen dira etxebizitzaren gaiaren gainetik. Izan ere 2000-2004 bitartean, etxebizitzaren gaia hogeita bat aldiz agertu da aldizkarian eta herri lanen gaia laurogeita bost bider. Bai bata zein bestea “Zer berri” atalean agertzen da albiste eta albiste laburren bitartez batik bat. 2001eko azaroko alean gaia bereziki lantzen da eta “Zer berri” sailean sei albiste labur eta albiste argitaratzen dira gaiaren inguruan: herri lanei buruzko lau albiste labur<sup>483</sup> eta beste hiru albiste labur<sup>484</sup> etxebizitzari buruzkoak. Albiste eta albiste laburrez gain iritzi-genero batzuen bitartez ere landu izan da gai hau, kale-inkestan<sup>485</sup>, iritzi-zutabe<sup>486</sup> edo gutunetan<sup>487</sup> ere.

<sup>475</sup>- 2001eko urtarrileko 31.alean. (5. or.).

<sup>476</sup>- 2002ko urriko 56. zenbakian. (6. or.).

<sup>477</sup>- 2000ko urriko 56. alean. (8.-9. or.).

<sup>478</sup>- 2004ko martxoko 87. zenbakian. (8.-9. or.).

<sup>479</sup>- 2002ko abenduko 60. alean. (8. or.).

<sup>480</sup>- 2002ko otsaileko 43. zenbakian. (3. or.).

<sup>481</sup>- 2004ko apirileko 88. alean. (6. or.).

<sup>482</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>483</sup>- Adibidea: “Amutxastegiko lanak”. 2001eko azaroko 40. alean. (7. or.).

<sup>484</sup>- Adibidea: “Errabalgo etxebizitzak”. 2001eko azaroko 40. zenbakian. (7. or.).

<sup>485</sup>- “Zenbat urtekin juan zinan etxetik? Zein adin iruditzen jatzu onena etxetik juateko?” kale-inkesta. 2004ko 95. zenbakian. (5. or.).

<sup>486</sup>- “Margari eta Maria”, Sabin Mendizabalek idatzitako iritzi-zutabea. 2004ko iraileko 95. alean. (3. or.).

## D) HEZKUNTZA

Hezkuntza, hamabostekaria denean hilabetekari denean baino gehiago agertzen da *Pil-pilean* aldizkarian, baina arestian aipatu bezala, “Ugaraxo”<sup>488</sup> eta “Jaurti”<sup>489</sup> gehigarrien agerpenak zerikusi zuzena dauka horretan. Bi gehigarriak 2001ean kaleratzen dira lehenengoz eta bertan lantzen diren gai gehienak hezkuntzari lotuta daude. 2002an “Jaurti” desagertu egiten da eta “Ugaraxo”-n agertzen diren informazio eta iritziez gain, aldizkariko beste ataletan ere lantzen dira hezkuntza gaiak, esaterako “Zer berri”<sup>490</sup> edo “Kultura”<sup>491</sup> ataletan.

## E) OSASUNA

Osasunaren gaia berdin mantentzen da 2000tik 2004ra bitartean nahiz eta 2002an ohi baino gehiago agertzen den. Osasunaren gaia lehenengo bi urteetan “Gure Sorgina” atalean lantzen da erreportaje<sup>492</sup> edo albiste<sup>493</sup> moduan eta aldizkaria hamabostekari bihurtzen denean, diseinu berriarekin atala desagertu egiten da eta “Zer berri” sailean<sup>494</sup> lantzen da batez ere albiste eta albiste laburren bitartez.

## F) INGURUMENA

Ingurumenaren gaiaren barnean, garraioak berrogeita bi aldiz eta ekologia eta ingurugiroa hirurogeita hamahiru bider errepikatu dira, eta joera bera mantentzen da urtero. Hots, gehiago agertzen da ekologia eta ingurugiroa, garraioen gaia baino. Kasu honetan ez dago ezberdintasunik aldizkaria hileroko edo hamabostekari kaleratzen denean. Hau da, gai hauen agerpena berdintsu mantentzen da bost urte hauetan zehar, 2002an hogeita hiru bider agertuz eta portzentajerik altuena lortuz (%12). Gai horiek “Zer berri” atalean edo “Gizartea” sailean argitaratu dira informazio eta iritzi-genero ezberdinak erabiliz. Trafikoari dagokionez, isunak<sup>495</sup>, istripuak<sup>496</sup>,

---

<sup>487</sup>- “Zenbat oskol daude hutsik Soraluzen?”, Etxebizitza duin baten Aldeko Plataforma Sortzenek idatzitako gutuna. 2003ko martxoko 65. zenbakian. (4. or.).

<sup>488</sup>- Adibidea: “Irteera Iruñera” albiste. 2004ko abenduko 102. alean. “Ugaraxo” gehigarrian. (4. or.).

<sup>489</sup>- Adibidea: “Paris-Holanda-Belgika ikasbidaia” erreportajea. 2001eko maiatzeko 35. zenbakian. “Jaurti” gehigarrian. (1. or.).

<sup>490</sup>- Adibidea: “HHI matrikula zabalik” albiste laburra. 2004ko iraileko 95. alean. (6. or.).

<sup>491</sup>- Adibidea: “Eskola Eremitik atera ahal izateko eskubidearen alde” albiste. 2000ko otsaileko 21. zenbakian. (15. or.).

<sup>492</sup>- Adibidea: “Menisko hausturak” erreportajea. 2001eko urtarrileko 31. zenbakian. (7. or.).

<sup>493</sup>- Adibidea: “Diabetesa” albiste. 2000ko urtarrileko 20. alean. (15. or.).

<sup>494</sup>- “Organu Emaileen bila Soraluzen” albiste. 2002ko maiatzeko 50. zenbakian. (6. or.).

<sup>495</sup>- Adibidea: “Zer irizten dotxazu kotxiari isunak jartziari?” kale-inkesta. 2000ko otsaileko 21. alean. (3. or.).

<sup>496</sup>- Adibidea: “Sagar Errekan 23 urteko gazte bat hil zen istripuz” albiste laburra. 2000ko otsaileko 21. zenbakian. (8. or.).

aparkalekuei buruzko testuak<sup>497</sup> kaleratu dira. Ekologia agertzen den testuetan, herrian izandako haizeteak<sup>498</sup>, uholdeak<sup>499</sup>, beroa eta lehortea<sup>500</sup>, birziklatzea<sup>501</sup>, Karakateko mendiko parke eolikoa<sup>502</sup> aurkitu ditugu besteak beste.

### G) GIZARTE OHITURAK

34C. grafikoak erakusten duenez, gizarte ohiturak agerpen handia izan dute aldizkarian 2000-2004 bitartean. Izan ere, 2001ean izan ezik, urtero %35etik gora kokatu dira gizarte ohitura atalaren portzentajeak. Beraz, *Pil-pilean* hilabetekaria izan zein hamabostekaria izan, gizarte ohituren atala -aisialdia, gizarte bizitza eta batez ere herritarren bizitza- gehien landu dena izan da. Aldizkariko edozein ataletan agertzen den gaia da gizarte ohiturena. Aisialdiri buruzko testuak, “Gaztetxoan txokoa”<sup>503</sup>, “Zer berri”<sup>504</sup>, “Kultura”<sup>505</sup> sailetan dute lekua batik bat. Gizarte bizitzaren gaiak, zorion agurretan eta hildako eta jaiotakoen atal horretan bereziki, baina badira herriko norbait gogoratuz idatzi diren testuak<sup>506</sup> ere. Herritarren bizitza, edozein sailetan ager daiteke eta informazio zein iritzi-genero ezberdinak erabili izan dira gai horiek jorrazteko. Jaiak<sup>507</sup>, erregeak eta Olentzero<sup>508</sup>, herrietako ohiturak<sup>509</sup>, herritarrei egiten zaizkien elkarriketak<sup>510</sup> edo argazki zaharretan agertzen diren herritarrak<sup>511</sup> izan dira besteak beste *Pil-pilean* aldizkarian bost urte hauetan agertu direnak.

### H) ZERBITZUAK

Zerbitzuak ia erdira jaisten dira aldizkaria hamabostekari bihurtzen denean eta bai datuetan eta baita portzentajeetan ere, beheranzko joera hori nabarmena da. 2000 eta 2001ean zerbitzuen portzentajea %25ekoa da eta 2002an %9ra arte jaisten da, 2003 eta 2004an berriz %17ra igotzeko.

<sup>497</sup>- Adibidea: “Guk be *Vip* izan gura dogu”, Iban Arantzabalek idatzitako gutuna. 2002ko azaroko 29. alean. (4. or.).

<sup>498</sup>- Adibidea: “Haizeak ia eraman gintuen” argazki-erreportajea. 2000ko urtarrileko 20. zenbakian. (4. or.).

<sup>499</sup>- Adibidea: “1953ko uholdeak” argazki zaharra. 2002ko abenduko 60. zenbakian.(22. or.).

<sup>500</sup>- Adibidea: “Udako berua jasaingaitza pentzau jatzu? Zelan egin dotsazu aurre?” kale-inkesta. 2003ko iraileko 74. alean. (5. or.).

<sup>501</sup>- Adibidea: “Nora bota pilak” albiste laburra. 2002ko azaroko 59. zenbakian. (6. or.).

<sup>502</sup>- Adibidea: Mendigainak ukitu bez taldeak idatzitako gutuna. 2000ko uztaileko 26. alean. (4. or.).

<sup>503</sup>- Adibidea: “Euskal Olinpiadak” albiste. 2000ko ekaineko 25. alean. (12. or.).

<sup>504</sup>- Adibidea: “Udaleku irekiak abian” albiste laburra. 2001eko ekaineko 36. zenbakian. (7. or.).

<sup>505</sup>- Adibidea: “Txatxilixatxi programak arrakasta handia izan du” albiste. 2000ko maiatzeko 24. zenbakian. (16. or.).

<sup>506</sup>- Adibidea: “Errezidentziako Karmen hil da” albiste laburra.2003ko 79. alean. (6. or.).

<sup>507</sup>- Adibidea: “San Andres jaixak 2001” erreportajea. 2001eko ekaineko 36. zenbakian. (10.-11. or.).

<sup>508</sup>- Adibidea: “Olentzeroren eta erregeen mezua” albiste laburra. 2000ko urtarrileko 20. alean. (6. or.).

<sup>509</sup>- Adibidea: “Eliza bete-bete San Blas Egunean” edo “Kalean eta baserrietan kantu kantari Santa Ageda bezperan” albiste laburra. 2000ko otsailko 21. zenbakian. (10. or.).

<sup>510</sup>- Adibidea: Maite Dominguezi egindako elkarriketa. 2004ko apirileko 88. alean. (13. or.).

<sup>511</sup>- Adibidea: “1921eko Plaentziako Aratustiak” argazkia albiste, “Argazki zaharra” sailean. 2003ko otsailko 64. zenbakian. (14. or.).

Hasierako bi urteetan zerbitzuen atalean informazio-item gehiago agertzen dira (mezen ordutegiak, telefono interesgarriak, autobusen ordutegiak, ilargiaren faseak) eta horiek guztiak 2002tik aurrera ez dira kaleratzen. Zerbitzuen gaia jorratzen duten berrehun eta hiru informazioetatik, sei bakarrik dira kirol instalakuntza eta liburutegiko zerbitzuen gaia lantzen duten testuak<sup>512</sup>.

### **Gizarte-gaien bilakaera bi hitzetan**

Beraz, gizarte-gaiak dira *Pil-pilean*eko benetako protagonistak eta urtez urte euren agerpena handituz doa aldizkarian, lehenengo urtetik bukaerara bitartean, lau puntutan gora eginez. Azken finean, horrelako gaiak landuz, herritarrengandik hurbil dauden eguneroko bizitza islatzen da eta aldizkaria berak, gertu egotea lortzen du eta irakurlearentzat erakargarria izatea. Gizarte-gaien baitan, hezkuntza eta gizarte ohituren atalak indartu egin dira urtetik urtera, gainerako guztiek oso balio eta portzentaje antzerakoetan mantenduz: taldeak, gizarte arazoak, lanak, ingurumena eta osasuna ere mantendu egin dira.

Gizarte-gaiak jorratzeko genero ezberdinak erabili dira, baina informazioa nagusitzen da beste genero guztien artean; albiste laburrak, albisteak eta 2002-2004 bitartean argazki-albisteak dira gehien agertzen diren informazio-generoak.

#### **4.2.4.4- Kultura**

*Pil-pilean* aldizkarian kultura da gehien agertzen den bigarren gaia, baina gizarte-gaiekin alderatuz, portzentajeen artean alde nabarmenak daude. Kulturaren portzentajea bost urteetan %22koa da eta gizarte-gaiena %49koa.

Hurrengo bi ataletan kultura gaien bilakaera ikusiko dugu. Lehenengo eta behin kultura gai ezberdinek Soraluzeko aldizkarian 2000-2004 bitartean izan duten agerpen orokorra nolakoa izan den aztertuko dugu. Bestalde, bigarren grafikoa eta taularen bitartez, kultura gai bakoitzak urtez urte izan duen garapena azalduko dugu.

<sup>512</sup>- “Kirol instalakuntzen egoera” gutuna. 2000ko abenduko 20. alean (4. or.).

“Polikiroldegia urtarrilean zabalduko da” albiste laburra. 2002ko abenduko 60. alean (8. or.).

“Kiroldegia zabaldu bihar dabe, eta?” txiki inkesta. 2003ko otsaileko 64. zenbakian. “Ugaraxo” gehigarrian (3. or.).


“Badaukazu kiroldegira juateko ohiturarik? Zelan aurkittu dozu?” inkesta. 2003ko martxoko 65. zenbakian (5. or.).

“KZ-Guneko eta liburutegiko ordutegi berria” albiste laburra. 2003ko ekaineko 72. zenbakian (7. or.).

“Kirol eskaintza zabaldu Aranen” albiste. 2003ko iraileko 74. alean (12. or.).

## 4.2.4.4.4- Kultura 2000-2004 bitartean

35C. grafikoa



Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

35D. taula

	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	104	40	24	86	51	104	56	465

Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Kulturaren gaia 465 itemetan aurkitu dugu lan honetan aztertu diren berrogeita hamalau zenbakietan, gehien lantzen den bigarren gaia bilakatuz. Gizarte-gaiak atalaren antzera, kulturaren atal honek azpi-kategoria asko ditu, kulturaren baitan alor asko jorratzen baitira. Hala ere, *Pil-pilean* aldizkariarentzat betidanik izan dira kultur gaiak garrantzitsuak. Alde batetik, aldizkaria *Pil-pilean* Kultur Elkartek argitaratzen duelako eta bestetik, aldizkaria sortu zenean<sup>513</sup> euskara bultzatzea eta herrian hainbat ekintza kultural sustatzea helburua zutelako. Aldizkarian bertan kulturari espazio berezia eskaintzen zaio, “Kultura” edo “Musika” sailak, aztertu diren aldizkari gehienetan agertzen baitira. Normalean bat edo bi orri betetzen dira kultura informazioarekin.

35D. taulak adierazten duenez, kulturaren baitan arte eszenikoak eta euskara dira gehien errepikatzen diren gaiak, ehun eta lau aldiz agertzen da bakoitza.

<sup>513</sup>- Ikus lan honetako *Pil-pilean* aldizkariaren fitxa teknikoetan agertzen diren sortze arrazoiak.(253.-254.or.).

### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoen barnean, antzerkia, musika eta dantza agertzen dira eta horien artean musika da gehien errepikatzen den gaia, urtero joera bera mantenduz. Kontuan hartu behar da musika informazio handia sortzen duela Soraluzen. Ugariak dira kontzertuak antolatzen dituzten herriko taldeak eta enpresa pribatuak. Bestalde, gaztetxean egiten diren kontzertuak eta kultura agendan programatzen diren kontzertuak kontuan hartzen badira, beste edozein arte diziplinak baino presentzia handiagoa du musikak herrian eta hori, aldizkarian islatzen da. Antzerkia oso gutxitan agertu da aldizkarian, zortzi informazio baino ez dira aurkitu antzerkiaren gaia lantzen dutenak eta dantza, sei testutan aurkitu dugu gai nagusi moduan. Egon badaude herrian antzerki taldeak eta dantza taldeak, baina ez dute musikak besteko mugimendurik sortzen herrian.

### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoak berrogei aldiz agertu dira bost urte hauetan aldizkarian. Katetoria honen barnean, pintura hamar bider errepikatu da, eskultura behin baino ez, artisau eta eskulanen gaia bost aldiz agertu da eta arte ondarea bost bider. Argazki eta kartelgintzaren gaia, aldiz, beste guztien artean nagusitu da hemeretzi bider agertuz. Azken diziplina horren baitan, argazki lehiaketak eta kartel lehiaketak izaten dira ohiko gaiak. Era berean, Soraluzen herrian dagoen “Kontrajarri” argazki taldeak egiten dituen ekitaldi asko aldizkarian islatzen dira. Arte plastikoen baitan lantzen diren gainerako gaiak agertzen direnean, herriko artistekin edo herrian dauden arte lehiaketekin dute zerikusia. Dena dela, *...eta kitto!* astekarian lantzen diren kultura gaiekin alderatzen badugu, arte plastikoen agerpena eskasa da *Pil-pilean* aldizkarian. Arte plastikoek Eibarko aldizkarian %23ko portzentajea dute eta Soraluzeko hamabostekarian %8koa. Beraz, aldea nabarmena da.

### **C) GASTRONOMIA**

Gastronomiaren gaia hogeita lau aldiz errepikatzen da *Pil-pilean* aldizkarian 2000-2004 bitartean. Gaia, “Sukaldaritza” sailean sukalde-errezetak argitaratzen diren bi urteetan soilik agertzen da. Hamabostekari bihurtzen denean eta diseinu berriarekin batera, atal hori desagertzen da eta ordutik aurrera gastronomia lau aldiz agertzen da 2004ra bitartean.

### **D) LITERATURA**

Literaturaren barnean, bertsolaritza hogeita hamabost aldiz agertzen da eta literatura/liburuei buruzko atala berrogeita hamaika bider errepikatzen den gaia da. Arestian



aipatu bezala, bertsoaritzaren gaia 2000 eta 2001 urteetan agertzen da bereziki. Alde batetik, 2001ean Bertso Eskola sortzen delako eta bestetik, erredakzio taldeko kide batzuk Bertso Eskolan parte hartzen dutelako. Ondorioz, Bertso Eskolak sortzen dituen informazioak *Pil-pilean* era zuzenean sartzen dira, hartu emana zuzena delako alegia. Literatura eta liburuei buruzko informazioak gehien bat kultura sailean agertzen dira, baina baita “Gaztetxoaren txokoa”, “Ugararaxo” eta “Jaurti” gazteei zuzendutako gehigarrietan ere. Liburuaren eguna, liburu aurkezpenak eta literatur lehiaketak dira besteak beste atal honekin zerikusia duten testuak.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideek ere badute tokirik Soraluzeko aldizkarian, berrogeita hamaika aldiz agertu dira 2000-2004 bitartean. Alde batetik, zine eta telebistarekin zerikusia duten testuak aurkitu ditugu (hogeita bi) eta bestetik, herri komunikabideen gaia lantzen duten idatziak (hogeita bederatzi).

Herrian dauden zine emanaldi ezberdinak agertzen dira (gaztetxean egiten diren proiektzioak, kalean egiten diren zine emanaldiak) eta telebistaren gaia, iritzi-generoetan lantzen da batez ere (telebistaren eragina eguneroko bizitzan edo telebistako saioren inguruko iritzi-zutabeak).

Herri komunikabideen artean, *Pil-pilean* aldizkaria da protagonista nagusia, ale bereziak kaleratzen direnean (50. alea, 100. alea) edo aldizkariarekin zerikusia duten informazioak argitaratzen direnean.

### **F) EUSKARA**

Euskararen gaia proportzioan bera bakarrik hartuta, gehien errepikatzen den kultur gaia da, ehun eta lau bider agertzen da, lan honetan aztertu ditugun berrogeita hamalau zenbakietan. Bataz beste ale bakoitzean 2,85 aldiz agertzen da euskara. Erredakzio taldeak onartzen du normalizazioan eragitea helburua den neurrian, konplexurik gabe lantzen duten gaia dela eta arreta berezia jartzen diotela. Are gehiago, “*agian behar beste*” ez lantzenaren sententzia ere badutela aipatzen dute. Herrian dagoen euskararen aldeko mugimendua islatzeko, aldizkaria tresna egokia ikusi dute euskalgintzako taldeek eta *Pil-pilean* horren erakusle da. Eibarko ...*eta kitto!*-rekin konparatuz, *Pil-pilean*-en euskararen agerpena bikoitza da.

## **G) KULTUR AGENDA**


Kultur agendak edo kultur arlo ezberdinak lantzen dituzten testuak berrogeita hamasei aldiz agertzen dira aldizkarian bost urteko epean. Item guztiek, kultur agendetan agertzen diren kultur ekitaldi ezberdinak jasotzen dituzte, bai herrian dagoen kultura programazioa eta baita jai ezberdinetako egitarauetan agertzen diren kultur ekitaldiak ere.

### **Kultura bi hitzetan**

Laburbilduz, *Pil-pilean* aldizkarian kultura gehien agertzen den bigarren gaia da. Kontuan hartu behar da, aldizkariko ale gehienetan kultur informaziorako atal bereziak kaleratzen direla, bat edo bi orri kultura gaiei eskainiz. Kulturaren baitan, euskara eta arte eszenikoak dira gehien errepikatzen (%22) diren gaiak. Euskarari arreta berezia jartzen zaio eta inolako konplexurik gabe lantzen duten gaia da. Arte eszenikoen baitan musika nagusitzen da, antzerkia eta dantzaren gainetik, informazio asko sortzen duen diziplina baita. Agerpen-maila baxuagoa dute literaturari buruzko testuek (%19). Agendak (%12) eta komunikabideak (%11), gehien errepikatzen diren gaiak duten portzentaje erdian kokatzen dira. Arte plastikoak eta gastronomia gutxien lantzen diren bi gaiak dira *Pil-pilean* aldizkarian.

4.2.4.4.2- Kulturaren bilakaera

36C. grafikoa



Kultura gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

36D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agenda	GUZTIRA
	2000	30	8	12	22	18	23	10	123
	2001	17	8	7	29	8	31	14	114
	2002	22	9	0	15	17	21	11	95
	2003	14	10	2	12	6	17	9	70
	2004	21	5	3	8	2	12	12	63

Kultura gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

36.D. taulak erakusten duenez, hasierako bi urteetan kaleratzen den item kopurua guztira, azken hiru urteetan kaleratzen dena baino altuagoa da, beraz, aldizkariaren maiztasunak item kopuru orokorrean zuzenean eragiten duela ondoriozta dezakegu. Are gehiago, kontuan hartzen badugu *Pil-pilean* aldizkaria hamabostekaria bihurtzen denean, gure laginerako hilabete bakoitzeko ale bat bakarrik aztertu dugula lan honetan. Horrek ez du esan nahi ezinbestean, item kopurua txikiagoa denean, orokorrean gai guztiak gutxiago lantzen direnik; arte eszenikoak, arte plastikoak eta agenden portzentajeek 2002tik aurrera goranzko joera argia erakusten baitute. Kultura gaiak beti egon dira aldizkariaren lehentasunen artean, herrian kultur eragile gisa eragitea izan baita aldizkaria egiten dutenen asmoa. Horrekin erabat lotuta dago, aldizkaria kaleratzen duen elkartearen izaera, kultur elkarte baita. Horregatik aprobeztatzen da aldizkaria *Pil-pilean*

Kultur Elkartearen ekitaldien berri emateko. Bestalde, elkartearen eta aldizkariaren funtzionamendua oso lotuta daude, azken finean aldizkaria bera elkartearen baitan dagoelako eta elkartearen produktua delako.

### A) ARTE ESZENIKOAK

Arte eszenikoen gaia gehiago lantzen da *Pil-pilean* aldizkariaren bigarren epean, alegia, aldizkaria hamabostekaria denean eta batez ere 2004an, orduan lortzen baitu portzentajerik altuena (%33) izatea. Arte eszenikoetan gehien agertzen den gaia musikarena da; bost urteetan musikari buruzko laurogeita hamar testu aurkitu dira, albiste<sup>514</sup>, albiste labur<sup>515</sup>, argazki-albiste<sup>516</sup>, elkarrizketa<sup>517</sup> eta erreportaje<sup>518</sup> ezberdinetan. Iritzi-generoetan askoz gutxiago agertzen den gaia da musikarena. Antzerkia zortzi aldiz agertu da: lau albiste laburretan<sup>519</sup>, bi albistetan<sup>520</sup>, argazki-albiste batean<sup>521</sup> eta erreportaje batean<sup>522</sup>. Dantza, hiru albistetan<sup>523</sup>, bi albiste laburretan<sup>524</sup> eta gutun batean<sup>525</sup> aurkitu dugu.

### B) ARTE PLASTIKOAK

Arte plastikoak arte eszenikoak baino gutxiago agertzen dira oro har aldizkarian, baina portzentajeei begiratu gero, atal hau apur bat gehiago agertzen da 2002tik aurrera. Argazkigintza eta kartelgintza da atal honen baitan bost urte hauetan gehien agertzen dena. Herrian dauden argazki erakusketa, lehiaketa eta kartel lehiaketei buruzko informazioak aurkitu ditugu nagusiki, esaterako “Jose Luis Feo bergararra garaile argazki rallyan” albistea<sup>526</sup>. Pinturaren gaia “Kultura” sailean agertzen da gehienetan, “Argoitz Ariznabarreta eta M<sup>a</sup> Antonia Martinez garaile VIII. Kanpoko Margolan Lehiaketan” albistea<sup>527</sup> adibidez. Eskulturari buruzko “Maltzagako artelana” argazki-albistea<sup>528</sup> soilik aurkitu dugu berrogeita hamalau zenbakietan. Artisau eta eskulanei

<sup>514</sup>- Adibidea: “Plaentziarra Donostian” albistea. 2000ko otsaileko 21. zenbakian. (15. or.).

<sup>515</sup>- Adibidea: “Udaberriko kontzertua musika eskolaren eskutik” albiste laburra. 2000ko apirileko 23. alean. (6. or.).

<sup>516</sup>- “Bergarako eta Tolosako Orfeoien kontzertua domeka honetan” argazki-albistea. 2002ko azaroko 59. zenbakian. (10. or.).

<sup>517</sup>- Matxura taldekoei egindako elkarrizketa. 2004ko urriko 97. alean. (11. or.).

<sup>518</sup>- Adibidea: “Haize berriak Musika Eskolan” erreportajea. 2002ko maiatzeko 50. zenbakian. (8.-9. or.).

<sup>519</sup>- Adibidea: “Petrikiloak taldeak gozatu zituen umeak” albiste laburra. 2000ko azaroko 29. alean. (18. or.).

<sup>520</sup>- Adibidea: “Eibarko Antzerki Jardunaldiak” albistea. 2004ko maiatzeko 91. zenbakian. “Ugaraxo” gehigarrian. (2. or.).

<sup>521</sup>- “1962. urteko antzezlanaren Soraluze zinian” argazki-albistea, “Argazki zaharra” sailean. 2003ko azaroko 79. alean. (14. or.).

<sup>522</sup>- “Antzerki taldeak arrakasta handia lortu zuen” erreportajea. 2000ko otsaileko 21. zenbakian. (14. or.).

<sup>523</sup>- Adibidea: “180 dantzarik baino gehiagok parte hartuko dute maiatzaren 14ko Euskal Jaian” albistea. 2000ko maiatzeko 24. alean. (16. or.).

<sup>524</sup>- Adibidea: “Fandango eta arin-arin ikastaroa” albiste laburra. 2002ko apirileko 46. zenbakian. (12. or.).

<sup>525</sup>- Urratsa Dantza Taldeak sinatutako gutuna. 2001eko martxoko 33. alean. (4. or.).

<sup>526</sup>- 2004ko abenduak 102. zenbakian. (10. or.).

<sup>527</sup>- 2000ko ekaineko 25. alean. (8. or.).

<sup>528</sup>- 2003ko azaroko 79. zenbakian. (10. or.).

buruzko albiste bat<sup>529</sup>, bi albiste labur<sup>530</sup>, erreportaje bat<sup>531</sup> eta argazki-albiste bat<sup>532</sup> kaleratu dira Soraluzeko aldizkarian. Arte ondarea gai nagusi duten, erreportaje bat<sup>533</sup>, bi albiste<sup>534</sup>, albiste labur<sup>535</sup> bat eta gutun bat<sup>536</sup> argitaratu dira *Pil-pilean* hamabostekarian 2000-2004 bitartean.

### C) GASTRONOMIA

Gastronomiaren gaia aldizkariaren maiztasunaren arabera landu dela argi eta garbi erakusten dute emaitzek. Hots, hilabetekaria denean “Sukaldaritza” atalean sukaldeko errezeta bat edo bi errezeta<sup>537</sup> kaleratzen dira ale gehienetan. Hamabostekaria bihurtzen denean, atala desagertu eta bost item bakarrik aurkitu ditugu gastronomiarekin zerikusia dutenak orotara: “Sukaldaritza landuak beti eukiko dau garrantzixa” Ainhoa eta Jurdanari egindako elkarrizketa<sup>538</sup>, “Badator” gaztañerre baba txapelketaren inguruko albiste<sup>539</sup>, eta “Gaztañerre azokako babajana” albiste laburra<sup>540</sup> besteak beste.

### D) LITERATURA

Literaturaren gaia 2001. urtean agertzen da batik bat, urte horretatik aurrera poliki-poliki bere agerpena gutxitu egiten da-eta. Kontuan hartu behar da urte horretan bertsolaritzari buruzko ohi baino testu gehiago agertzen direla (2001ean sortu zen Bertso Eskola) eta baita literatura eta liburuei buruzko testu gehiago ere (*Elkarlan* argitaletxearekin batera liburu zozketa egiten da). Urte horretan bertsolaritza hamabi aldiz<sup>541</sup> agertzen da eta literatura eta liburuei buruzko berrogeita hamaika testu<sup>542</sup> kaleratzen dira. Hamabostekari bihurtzen denean, bertsolaritza zein literatura eta liburuei buruzko testu gutxiago agertzen dira aldizkarian.

<sup>529</sup>- “Inazio de Miguel Soraluzetarrak, Gipuzkoa merkataritza ganbarak emandako diploma jaso du” albiste. 2000ko otsaileko 21. alean. (9. or.).

<sup>530</sup>- “Aitor Amor saritua Basauriko Euskal Artisauen azokan” albiste laburra. 2000ko urriko 28. zenbakian. (9. or.)

<sup>531</sup>- “Ferreteruaren itsasontsiak” erreportajea. 2002ko apirileko 46. alean. (11. or.).

<sup>532</sup>- “HHIko eskulanak ikusgai” argazki-albiste. 2003ko ekaineko 72. zenbakian. (7. or.).

<sup>533</sup>- “Burdin bidea ezagutzen”. 2001eko abenduko 41. alean. “Ugaraxo” gehigarrian. (1. or.).

<sup>534</sup>- “Kontu zaharrak (Herriaren sortze data...)”. Testuko datuak Ramiro Larrañagak idatzitako "Soraluze Placencia de las Armas Monografía histórica" liburutik atera dira. 2001eko apirileko 34. zenbakian. (19. or.).

<sup>535</sup>- “Soraluzeko dokumentu historikoak” albiste laburra. 2001eko ekaineko 31. alean. (7. or.).

<sup>536</sup>- “Komarkako arma museoaz”, Roman Garmendiak idatzitako gutuna. 2003ko uztaileko 73. zenbakian. (4. or.).

<sup>537</sup>- “Gabonetako menu berezixa” (hiru errezeta). 200ko abenduko 30. alean. (23. or.).

<sup>538</sup>- 2003ko martxoko 65. zenbakian. (11. or.).

<sup>539</sup>- 2003ko urriko 77. alean. (10. or.).

<sup>540</sup>- 2004ko urriko 97. alean. (10. or.).

<sup>541</sup>- Adibidea: “Ibilixan ibilixan bertso eskolia/ irteera eta bazkari, alai eta kantari, gara bertsolari” albiste. 2001eko otsaileko 32. zenbakian. (20. or.).

<sup>542</sup>- Adibidea: “Irati Trebiño garaile ipuin lehiaketan” albiste. 2001eko ekaineko 36. alean. (14. or.).

## E) KOMUNIKABIDEAK

Komunikabideen baitan herri komunikabideak eta zinea/telebistaren azpi gaiak agertzen dira. Gaia batez ere 2002an lantzen da, urte horretan *Pil-pilean* aldizkariak bere 50. alea kaleratzen du ekainean eta bertan, *Pil-pilean* aldizkariari buruzko lau orriko monografikoa kaleratzen da. Urte horretan herri komunikabideei buruz argitaratzen diren hamaika itemetatik sei, ale monografikoan agertzen dira. Oro har, urteekin gutxiago agertzen den gaia da komunikabideena eta 2004an gai horien jaitsiera aldizkarian nabarmena da oso eta datuek argi eta garbi islatzen dute: zinea eta telebista behin<sup>543</sup> agertzen dira eta herri komunikabideen<sup>544</sup> gaia ere behin agertzen da soilik.

## F) EUSKARA

Aurrean esan dugun moduan, euskararen gaia aldizkarian gehien agertzen den kultur gaia da. Hasierako urtean %19ko portzentajea kokatzen da (hogeita hiru item) eta 2001etik 2003ra arte, portzentaje horretatik gora kokatzen da euskara, nahiz eta 2004an berriz ere %19ra jaisten den. Jaitsierak jaitsiera, euskara gehien lantzen diren gaien artean dago urtero. *Pil-pilean* aldizkarian ez dago sail berezirik gaia lantzeko, baina aldizkariko edozein ataletan aurki daitekeen gaia da (“Kultura”, “Zer berri”, “Udal kontu”, “Gizartea”, “Kirola”, “Gutunak”, “Editoriala” edo “Ataixa” saileko iritzi-zutabea). Hona hemen esandakoaren adibide batzuk: “Euskeriak eta kirolak batera joan behar dabe” Xuban Katalan kirola euskaraz ekimeneko entrenatzaileari egindako elkarrizketa<sup>545</sup>. “Gure berbetia” Mikel Santiagok idatzitako gutuna<sup>546</sup>, “Ikasle eta irakasle berriak AEK-n” argazki-albiste<sup>547</sup>, 2004ko urriko 98. aleko editoriala, “Euskara ikasleendako familiak behar dira” albiste laburra<sup>548</sup>, “Jarraipen handia Egunkariaren aldeko egunean. Euskalgintzak Herri Batzordea sortzeko deialdia egin du” albiste<sup>549</sup>.

## G) KULTUR AGENDA

Kultur agenden kopurua aldizkariaren maiztasunak markatzen du. Hau da, 2001era arte agenden agerpena aldizkarian ez da erabat finkoa, baina hamabostekaria bihurtzen denean, erregulartasun handiagoz kaleratzen da, nahiz eta ale guztietan ez den agertzen, esaterako 2003ko

<sup>543</sup> - “Gauatemala gertutik, ikusentzunezkoa” albiste. 2004ko urriko 97. zenbakian. (7. or.).

<sup>544</sup> - “Euskarazko multimedia egitasmoa garatzeko aukera Debarrean” erreportajea. 2004ko azaroko 99. alean. (11. or.).

<sup>545</sup> - 2000ko urtarrileko 20. alean. (14. or.).

<sup>546</sup> - 2000ko otsaileko 21. zenbakian. (2. or.).

<sup>547</sup> - 2004ko azaroko 99. alean. (6. or.).

<sup>548</sup> - 2003ko apirilaren 68. zenbakian. (10. or.).

<sup>549</sup> - 2003ko martxoko 65. alean. (7. or.).

otsaileko eta martxoko aleetan ez dago kultur agendarik. Herriko hamabosteroko kultur ekitaldiak biltzen dituzten agendak<sup>550</sup> agertzen dira alde batetik, eta jai ezberdinen inguruko egitarau eta agendak<sup>551</sup> bestetik.

### **Kulturaren bilakaera bi hitzetan**

*Pil-pilean* aldizkarian kultura gaiak betidanik izan dute lehentasuna, bai hilabetekaria zenean eta baita hamaboskari bihurtu zenean ere. Ezin ahaztu daiteke, hamabostekaria argitaratzen duen elkarteak, kultur izaera duela. Gainera, arte eszeniko, arte plastiko eta agenden portzentajeak hamabostekari denetik aurrera indartu egiten dira eta gehiago lantzen dira. Arte eszeniko eta plastikoen baitan, musika, argazki eta karteletan buruzko testuek goranzko joera erakusten dute eta gainerako atal guztiak mantendu edo jaitsi egiten dira. Gastronomiaren gaia aldizkaria hamabostekari bihurtzearekin batera desagertuz joan da, sukalde-errezetak kaleratzen diren atala ere desagertu delako. Literatura eta komunikabideen gaiak poliki-poliki indarra galtzen dute eta gero eta gutxiago agertzen dira. Euskararen gaia bost urteetan mantendu egiten da eta 2001-2003 bitartean indartu.

---

<sup>550</sup>- Adibidea: "Agenda". 2004ko urtarrileko 83. alean. (3. or.).


<sup>551</sup>- Adibidea: "Ezoziko jaixak 2001" egitaraua. 2001eko maiatzeko 35. alean. (15. or.).

#### 4.2.4.5- Kirola

Soraluzeko aldizkarian kirola gutxien lantzen den gaien artean dago. Portzentajeek erakusten dutenez, bost urteotan %11ko kopurua eskaini zaie kirolei *Pil-pilean* aldizkarian. Kirolek izan duten bilakaera hurrengo bi grafiko eta tauletan ikusiko dugu. Lehenengo urrats batean, 2000-2004 bitartean kirol ezberdinek aldizkarian izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Bigarren urrats bat eginez, kirol bakoitzak urtez urte izan duen garapena nolakoa izan den azalduko dugu.

##### 4.2.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean

37C. grafikoa



Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Pil-pilean* aldizkarian bost urteko epean.

37D. taula

	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza +Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	99	142	1	16	258

Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Orain arteko taulak kontuan hartuz, argi ikusten da kopuruetan kirola ez dela gehien lantzen den gaien artean ageri Soraluzeko herri-aldizkarian. Kirol ezberdinei buruzko 258 item aurkitu ditugu berrogeita hamalau aleotan. Erredakzio taldeak oso ongi daki kirola albo batera utzita duten gaia dela, lehenetsuna gai sozial eta kulturelei emanez. Erredakzio buruak berak azpimarratzen du azken urteetako joera hori izan dela: “*Kirola nahiko utzita izan dugun gaia dela*



*badakigu. Kultur eragile gisa eragitea izan da gure asmoa, gizarte-gaiak eta kultura landuz. Herrian kulturalki eragitea izan da gure lehentasuna gai sozialekin batera*”<sup>552</sup>. Hala eta guztiz ere, kirol gaiak lantzeko sail propioa dauka aldizkariak, “Kirolak”, eta noizbait bi orri eskaini bazaizkio ere, normalean orrialde bat izaten duen sail finkoa da.

37D. taulan agertzen diren datuek erakusten dutenez, Soraluzeko herri-aldizkarian ere, bi bloke handitan banatzen da kirola. Talde kirola eta banakako kirola dira protagonista nagusiak, bi talde horietan hainbat azpi gai biltzen direlako. Talde kirola sei kirol ezberdinek osatzen dute eta banakako kirolaren barnean bederatzi kirol diziplina ezberdin bildu ditugu. Horregatik hain zuzen ere, banakako kirola talde kirolari hamazazpi puntutan gailentzen zaio.

### **A) TALDE KIROLA**

Taldeka praktikatzen diren kirolen artean eta banaka egiten diren kirolen multzoan ere, badira inoiz agertzen ez diren kirol batzuk: saskibaloia, arraunketa eta errugbia ez dira inoiz agertu guk aztertu ditugun berrogeita hamalau zenbakiotan. Kontuak kontu, taldeka egiten diren kirolen artean futbola da nagusi urtero, eskubaloia bi aldiz (2001ean eta 2003an) baino ez da agertzen berrogeita hamalau aleetan, eta mendia hasieran oso gutxi agertzen bada ere, urteak aurrera egin ahala areagotu egin da kirol honen presentzia Soraluzeko hamabostekarian.

### **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kirolen baitan, igeriketa eta duatloi/triatloiari buruzko informaziorik ez da inoiz kaleratu. Hori horrela, pilota lehenengo eta atletismoa ondoren dira gehien lantzen diren gaiak, gainerako kirolekin konparatuz aldea nabarmena izanik. Txirrindularitza hamabost aldiz agertu da guk aztertu ditugun zenbakietan eta borroka arteak bederatzi testutan aurkitu ditugu. Motoziklismoa eta automobilismoaren gaia bi testutan agertzen da 2004. urtean.

### **C) BESTEAK**

Xakea ez da agertu ere egiten eta ehiza behin bakarrik agertzen da 2004ko urriko 98 alean. Ez da “Kirolak” sailean agertzen, “Zer berri” sekzioan baizik: “Ehiza postuak mendi gainean” albiste laburra. Argi dago *Pil-pilean* aldizkarian ehiza ez dutela kirol gisa kontsideratzen.

Kirol agendaren atalean hamasei item aurkitu ditugu gure laginerako aukeratu ditugun zenbakietan. Horietako hamaika itemek kirol emaitzak eta agendak biltzen dituzte. Bestalde, atal

---

<sup>552</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.


horretan katalogatu gabeko kirolak ere sartzen dira eta *Pil-pilean* aldizkarian, aerobic, gimnasia, boloak eta ping-ponga noizbait agertu izan dira.

### Kirola bi hitzetan

Ondorioz, ekonomiarekin batera kirola gutxien lantzen den gaia da *Pil-pilean* aldizkarian. Kirol gutxi batzuei egiten zaie jarraipena aldizkarian: futbola, pilota, atletismoa, mendia, txirrindularitza eta kirol agendei hain zuzen ere, horiek agertzen baitira 2000-2004 bitartean aldizkarian. Gainerako kirolen agerpena hutsala da. Talde kirolen barnean futbola da inportanteena eta agerpen-maila txikiago batean, hogeitaz azpitik, mendia. Banakako kirolen artean pilota da nagusi, ondoren sei puntu gutxiagorekin atletismoa eta hamahiru puntu beherago, txirrindularitza eta kirol agendak aurkitzen ditugu.

#### 4.2.4.5.2- Kirolaren bilakaera

38C. grafikoa



Kirol gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Pil-pilean* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

38D. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
	2000	15	36	0	0	51
	2001	24	36	0	0	60
	2002	20	27	0	1	48
	2003	26	25	0	3	54
	2004	14	18	1	12	45

Kirol gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Urtetik urtera kirolen agerpena areagotu egiten da *Pil-pilean* aldizkarian. 38D. taulan ikus daitekeen moduan, hamabostekaria bihurtzen denean, kirola oro har, gehiago lantzen da Soraluzeko aldizkarian, beti ere guk aztertu ditugun aleen arabera. Lan honetarako laginean, 2002tik aurrera hileko ale bat bakarrik aztertu dugula kontuan hartu behar da. Hasierako bi urteetako zenbakietan gehiagotan agertzen dira kirolari buruzko bi orri. Hamabostekari bihurtzen denean orri batean lantzen da kirolari buruzko informazio guztia, baina esan bezala hilean bi aldiz, nahiz eta guk bakarra aztertu dugun.

2000-2004 bitartean orokorrean eta ordena honetan, futbola, pilota eta atletismoa dira *Pil-pilean* hamabostekarian gehien agertzen diren hiru kirolak. Izan ere herrian hiru kirol horiek duten oihartzuna handia da. Diziplina horietan diharduten kirolariak dira albiste eta hori, herri-aldizkarian argi eta garbi islatzen da. Bestelako kirolek ere badute tokia aldizkarian albiste direnean batez ere. Bestela ere, agertzen dira baina askotan talde guztiengana heltzea ezinezkoa izaten da, normalean aldizkariko erredaktoreak joan behar izaten direlako kirolariengana. Halaber, erredakzio taldean argi daukate, kirola beste gaiak beste ez lantzeko arrazoi ezberdinak daudela. Alde batetik, herria bera oso txikia izanik, kiroleetan jende bera agertzen dela. Beti aldizkariko orrietan eta bestetik, erredakzio taldean inork ez daukala kirol gaiekiko gertutasun handirik. “*Kirolarekin horrelako herri txiki batean, ia beti antzerako albisteak izaten dira, orduan beti jende bera, argazki antzerakoak eta kirol berberak hainbestetan ez errepikatzeke, ez dugu hainbeste landu. Bestalde, Erredakzio taldean gure artean ez da kirolzale asko egon*”<sup>553</sup>, azpimarratzen du Egoitz Unamunok.

### A) TALDE KIROLA

Talde kirolak orokorrean hazi egiten dira urteekin batera, 2000ko %29ko portzentajea izatetik 2003an %48ko baliora heltzen dira. Futbola da urtero gehien errepikatzen den talde kirola. 2000 urtean hamalau item, hurrengo hiru urteetan hamazazpi testu<sup>554</sup> eta 2004an hamar item argitaratzen dira. Informazio guztietan, herriko futbol taldeak dira albisteetako protagonista nagusiak. Mendia lehengo urtean behin bakarrik agertzen da, 2000ko otsaileko 21. alean. 2001ean sei aldiz, 2002an hiru bider, 2003an mendiari buruzko zortzi testu<sup>555</sup> agertzen dira (urte horretan agertzen da gehien) eta 2004an lau informaziotan agertzen da. Eskubaloia 2001eko eta

<sup>553</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Egoitz Unamuno, 2006-02-15). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>554</sup> - Adibidea: “Denboraldi berriaren aurrean ilusioa” albiste. 2000ko iraileko 27. zenbakian. (14. or.).

<sup>555</sup> - Adibidea: “Mendizaleen babajana Txurrukan” argazki-albiste. 2003ko azaroko 79. alean. (12. or.).

2003ko aleetan agertzen da: Aritz Sudupe eskubaloi jokalaria egindako elkarrizketa<sup>556</sup> eta “Aritz Sudupe Zaragozan” albiste laburra<sup>557</sup>.

## **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kiroletan pilota da kirol izarra<sup>558</sup> eta ia urtero beste guztien artean gailentzen dena: 2001ean hamar testutan agertzen da, 2001ean bikoiztu egiten da eta hoge itemetan errepikatzen da, 2002an jaitsi egiten da hamahirura, 2003an hamabi aldiz agertzen da eta 2004an erdira jaisten da, sei kirol testutan pilota protagonista izanik.

Atletismoa da banakako kiroletan agerpenari dagokionez bigarren kirol nagusia<sup>559</sup>. Hasierako urtean kirol honi buruzko hamasei testu aurkitu dira, hurrengo hiru urteetan hamar testutan lantzen da atletismoa eta azken urtean erdira jaisten da kirol hau lantzen duen testu kopurua, bost item aurkitu baitira.

Txirrindularitza ere agertzen da Soraluzeko aldizkarian, baina batez ere lehenengo urtean, zazpi testutan<sup>560</sup>. 2001etik aurrera urtero bi edo hiru aldiz bakarrik agertzen da txirrindularitza kiroletan.

Borroka arteak<sup>561</sup> (judo, karate...) asko agertzen ez badira ere, beste kirol batzuk baino gehiago agertu izan dira guk aztertu ditugun berrogeita hamalau zenbakietan. 2000. urtean hiru aldiz, 2001ean lau bider eta 2002 eta 2003an behin agertu dira diziplina hauek aldizkariko orrietan.

Gutxien agertu diren banakako kirolak bost urteetan, herri kirolak (2004an agertzen dira soilik), motoziklismo eta automobilismoa (bi item aurkitu ditugu 2004an) eta eskia (hiru bider agertu da 2002 eta 2004 artean) izan dira.

Banakako kirola talde kirola baino gehiago agertu bada ere, poliki-poliki bere agerpena gutxituz joan da lehenengo urtetik azken urtera arte portzentajea ia erdira jaitsiz.

## **C) BESTEAK**

*Pil-pilean* hamabostekari bihurtzen denean, kirol agenda eta emaitzak kaleratzen hasten dira, baina ez dira ale guztietan horrelakoak argitaratzen. Horien agerpena 38D. taulako datuek erakusten dutenez, batez ere 2004an finkatzen da. Agenda eta emaitza horietan futbola, pilota eta

<sup>556</sup> - “Aurten jubilatzeo asmua daukat”. 2001eko urriko 39. zenbakian. (14. or.).

<sup>557</sup> - 2003ko iraileko 74. zenbakian. (12. or.).

<sup>558</sup> - Adibidea: Soraluzeko pilota taldeari egindako elkarrizketa. 2003ko urriko 77. alean. (12. or.).

<sup>559</sup> - Adibidea: “Arrate Urrezko orkatiladun jauzilari plaentziarra” erreportajea. 2003ko martxoko 65. zenbakian. (8.-9. or.).

<sup>560</sup> - Adibidea: “Saunier Duval taldea jaun eta jabe III. Soraluze sarian” albiste. 2000ko maiatzeko 24. zenbakian. (14. or.).

<sup>561</sup> - Adibidea: “Jose Luis Nieto Urrezko Domina Azpeitian” albiste. 2000ko apirileko 23. alean. (12. or.).

atletismoa agertzen dira gehienetan, bai emaitza eta baita agendan ere<sup>562</sup>. Hiru kirol horiek, herrian dagoen kirol mugimenduaren isla direla esan daiteke. Sailkatu gabeko kirolen artean honako hauek aurkitu ditugu: aerobicari buruzko argazki-albiste bat<sup>563</sup>, gimnasia agertzen den albiste labur bat<sup>564</sup>, boloei buruzko albistea<sup>565</sup> eta argazki-albiste bat<sup>566</sup> eta ping-pong-ari buruzko argazki-albiste bat<sup>567</sup>.

### **Kirolaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, urteak pasa ahala kirolari buruzko informazioa areagotu egiten da aldizkarian eta batez ere *Pil-pilean*, hamabostekaria bihurtzen denean. Talde kirolak indartu egiten dira urtetik urtera, futbola gehien errepikatzen den kirol gisa mantentzen da eta mendiari buruzko informazioa gehitu egiten da. Banakako kirolak, aldiz, gero eta gutxiago agertzen dira; pilota gehien agertzen den kiroltako bat izanik, bere presentzia gutxituz doa urteekin. Atletismo eta txirrindularitzari buruzko testuak ere gutxituz doaz poliki-poliki. Gainerako kirol guztien agerpena eskasa edo hutsala da Soraluzeko aldizkarian bost urteetan zehar. Hala era, kirol agendak 2002tik aurrera agertzen hasten dira eta azken urtera arte goranzko joera erakusten dute, 2004an finkatuta geratu arte.

<sup>562</sup>- Adibidea: 2004ko abenduko 102 zenbakiko kirol emaitza eta agenda. (12. or.).

<sup>563</sup>- "Aerobica; gorputza zaintzeko". 2002ko urriko 56. zenbakian. (10. or.).

<sup>564</sup>- "Erretiratuendako gimnasia". 2004ko iraileko 95. alean. (12. or.).

<sup>565</sup>- "Barela elgoibartarra lehenengoa". 2003ko apirileko 68. alean. (12. or.).

<sup>566</sup>- "Elgoibartarrak nagusi Txurrukan eta Ezozin". 2004ko apirileko 88. zenbakian. (12. or.).

<sup>567</sup>- "Ping-pong txapelketa". 2004ko urtarrileko 83. zenbakian. (12. or.).

#### **4.2.5-PIL PILEAN ALDIZKARIAREN ARDATZAK**

*Pil-pilean* aldizkariak antolaketa eta funtzionamendu eran aldaketa inportanteak bizi izan ditu 2000-2004 bitartean. Hilabetekaria kaleratu zenetik lehenengo aldiz bertako lan-taldea soldatapean arituko da eta lehenengoz lan kontratuak egitea lortzen dute gure azterketa-epean. Beraz, lan baldintzak guztiz lotuta daude epe horretan aldizkarian izango den maiztasun aldaketarekin, 2002ko otsailean hilabetekari izatetik hamabostekarirako jauzia egiten du-eta.

##### **4.2.5.1- Kazetaritza-generoak**

Maiztasun aldaketa horrek kazetaritza-generoen erabilera eta agerpenean ez dauka eragin berezirik, **informazioa** beti nagusitu baita *Pil-pilean*en eta informazio-genero arinek agerpen handiagoa izan dute beti; **albiste laburrak** eta **albisteak**. Eibarko ...*eta kitto!* aldizkarian ere, albisteak eta albiste laburrak izan dira informazio-genero indartsuenak. *Pil-pilean hamabostekari* bihurtzen denetik aurrera, **argazki-albisteen** erabilera nabarmen areagotzen da eta horrezaz gain, erreportajeak urtetik urtera jaitsi egiten dira, elkarrizketak indartuz. Eibarko astekarian, aldiz, albisteak, argazki-albisteak, erreportajeak indartuz joan dira eta elkarrizketek protagonismoa galdu dute urteak pasa ahala.

Lan-taldearen lana sistematizatzeko aldera, hamabostekaria bihurtzen denean aldizkariko atalak ere finkatu egiten dira eta ondorioz, kazetaritza-generoak ere, gero eta finkoak dira eta horien arteko erabilera orekatuagoa.

Iritziari eskaintzen zaion espazioa oso antzerakoa da aldizkariaren bi epeetan; iritzira bideratzen diren atalak oso definituta daude eta ez dute aldaketarik izan. Agerpen orokorraren arabera, **irakurleen gutunak**, **inkesta**, **iritzi-zutabeak** eta **editoriala** dira iritzi atal garrantzitsuenak. Urteekin batera, irakurleen gutunak beherezko joera erakusten dute, inkesta eta iritzi-zutabeak indartu egiten dira eta editoriala bere horretan mantentzen da. Editoriala ez da ohikoa izaten tokian tokiko aldizkarietan; horregatik *Pil-pilean* aldizkarian, umore ukitua emateko erabiltzen dute, nahiz eta editoriala berez, oso genero serioa dela badakiten. Eibarko ...*eta kitto!* aldizkarian, aldiz, irakurleen gutunak gora egiten dute urtetik urtera eta iritzi-zutabeek behera, inkestak bere horretan mantenduz. Beraz, iritziaren kontrako joera nabaritzen da bi agerkarien artean. Portzentaje orokorrak kontuan hartuz, bost urteko epean, ...*eta kitto!* astekarian sartzen den iritzi kopuru bikoitza agertzen da *Pil-pilean* aldizkarian.

Literatura gutxi agertzen da Soraluzeko aldizkariaren orrietan eta urteak pasa ahala indarra galduz doan generoa da. Agertzen denean gainera, gazteek eurek egindako sekzioetan eta gazte-jendeari zuzenduta dauden sailetan agertzen da: bertsoak, ipuinak, esamoldeak eta txisteak esaterako. Eibarko astekariarekin konparatuz literatura agertzen da *Pil-pileanen*, ...*eta kitto!*-n gutxi lantzen baita.

Zerbitzuen atala da gehien agertzen den bigarren kazetaritza-generoa eta urteekin sendotuz joan dena. Izan ere, aldizkaria hamabostean behin kaleratzen hasten denean, zerbitzuegunea hobeto antolatuta agertzen da *Pil-pilean* aldizkarian. Urtero zerbitzu-informazioa gehien agertzen den bigarren atala da eta urteekin bere horretan mantentzen da apur bat behera eginez. **Denbora-pasak** eta **agendak** gero eta gehiago agertzen dira; informazio erabilgarria eta salerosketa eta trukeen atala desagertuz doaz urtetik urtera. ...*eta kitto!*-n ere, informazioaren atzetik zerbitzuegunea da atalik landuena, baina bere baitan joera ezberdina nabaritzen da, zerbitzu-informazioa baita atalik inportanteena eta baita kultur agendak ere. Salerosketa eta trukeen atala finkoa da oso eta denbora-pasak mantendu edo apur bat jaitsi egiten dira urteekin.

#### 4.2.5.2- Gaiak

Soraluzeko aldizkarian gai ezberdinak landu dira bost urte hauetan, nagusiki herria eta herritarrekin zerikusi zuzena duten gaiak. Hori dela eta, **gizarte-gaiak** eta **kultura** izan dira gehien agertu direnak eta horren arrazoi nagusia lan-taldean aurki daiteke, bi atal horietan arreta berezia ezarri baitu betidanik. Beraz, politika, kirola eta ekonomia gutxiago landu dira *Pil-pilean* aldizkarian guk aztertu dugun epean. Ezin ahaztu daiteke, Eibarko ...*eta kitto!* aldizkarian lantzen diren gaietan joera bera dela, alegia, gehien agertzen diren gaiak, gizarte-gaiak direla eta kulturarekin zerikusia dutenak ondoren.

Politika gutxien lantzen den gaien artean badago ere, aldizkariak ez du inoiz alde batera utzi, horregatik ikerlan honetan aztertu ditugun sei aldizkarien artean politika gehien jorratzen duen aldizkaria *Pil-pilean* da. Bost urteetako portzentaje orokorraren arabera, ...*eta kitto!*-k baino hiru aldiz gehiago landu ditu *Pil-pileanek* politika gaiak. Hala ere, maiztasun aldaketarekin politika gaia gutxiago agertzen dela igartzen da.

Gai politikorik inportanteena agerpena mailaren arabera, **udala** da, nahiz eta urteekin gutxiago agertzen den. **Euskal Herriko gatazka** eta azkenik **alderdien** gaia agertzen dira gehien

orden horretan, gainera urteekin biak indartu egiten dira. ...*eta kitto!* astekarian ez da ordena bera mantentzen, baina aipatu hiru gaiak dira politikaren baitan gehien agertzen direnak, Euskal Herriko gatazka landuena izanik. Herritik kanpoko erakundeen agerpena minimoetan mantentzen da, hutsala baita.

Ekonomia oso gutxi agertzen da aldizkarian, berau da agerpen-maila baxuena duen gaia; urteekin apur bat gehiago lantzeko ahalegina sumatzen da, gehiagotan agertzen delako, batez ere hamabostekari bihurtzen denean. Oro har **merkataritza** eta **enpresa** dira atal honetan gehien agertu direnak, baina urteekin merkataritza gutxiago agertzen da, enpresa eta gai laboralak indartzen diren bitartean. Nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko testuak gutxi izan dira eta urteekin desagertzeko joera erakutsi dute. Eibarko aldizkarian ere, gutxien lantzen den gaia ekonomia da eta atal horren baitan, enpresa, merkataritza eta gai laboralak dira gehien agertu direnak 2000-2004 bitartean.

Gizarte-gaiak dira aldizkarian gehien landu direnak eta urtero apurka-apurka gora egin dutenak, baina ez da zaila atal honetan dauden azpi-kategoriak zenbat diren kontuan hartuz gero. Gizarte-gaien baitan, **gizarte ohituren** atala da inportanteena, ondoren 15 puntu beherago **zerbitzuak** kokatzen dira. Hortik behera, **lanak**, **ingurumena** eta **hezkuntza**. Gutxien lantzen direnak, gizarte arazoak, taldeak eta osasun gaiak dira. Urteen bilakaerari erreparatzen badiogu, gehienak mantendu egin dira, **gizarte ohitura** eta **hezkuntza** izan ezik, biak **indartuz** joan direlako. ...*eta kitto!*-n gizarte-gaien baitan gehien agertu diren gaiak *Pil-pilean* hamabostekarian agertzen diren berberak dira eta gizarte ohitura eta zerbitzuak dira gehien errepikatzen direnak. Beraz, gizarte-gaien baitan Eibarko eta Soraluzeko errebistetan joera bera jarraitzen da.

Kultura gaiak gizarte-gaien atzetik eta neurri txikiagoan, aldizkarian gehien agertzen diren bigarren gai garrantzitsuenak dira. Alde batetik, kultura gai ezberdinei buruzko informazioak kaleratzeko atal bereziak dituelako *Pil-pilean*ek. Izan ere, ale bakoitzean kulturari buruzko orri bat edo bi argitaratzen dira. Bestetik, aldizkariko gainerako ataletan ere kultura gaiei buruzko testuak argitaratzen dira. Kopuru antzerakoetan mantentzen bada ere, urteekin kulturari eskaintzen zaion espazioa apur bat gutxitu egin dela erakusten dute portzentaje orokorrek. Halaber, **euskara**, **arte eszenikoak** eta **literatura** gehien errepikatzen diren gaiak dira datuen arabera eta arte eszenikoen baitan **musika** da nagusi. Urtez urteko bilakaerari dagokionez, **arte eszenikoak**, **arte plastikoak** eta **agendak indartu** egiten dira 2002tik aurrera, batez ere musika,




argazki eta kartelgintza. Gainerako gaiak mantendu edo gutxiago agertzen dira. Eibarko aldizkarian ere astero orri kopuru finkoa eskaintzen zaio kultura gaiei, baina bertan arte eszenikoak eta baita arte plastikoak dira gehien lantzen direnak. ...*eta kitto!*-n euskara gutxien lantzen den gai kulturala den bitartean, *Pil-pilean* aldizkarian gehien errepikatzen den kultura gaien artean dago.

Kirola oro har gutxien agertzen den gaien artean dago *Pil-pilean* aldizkarian, baina urteek aurrera egin ahala, kirolen presentzia areagotu egiten da. Eibarko astekariarekin alderatuz, Soraluzeko hamabostekarian kirolaren agerpen orokorra sei puntu azpitik agertzen da. **Futbola, pilota, atletismoa, mendia, txirrindularitza** eta **kirol agendak** orden horretan agertzen dira batez ere 2000-2004 bitartean. Urtetik urtera talde kirolak gero eta gehiago agertzen dira, **futbola** eta **mendiari** buruzko testuak **areagotuz**. Banakako kirolek kontrako joera erakusten dute: pilota, atletismo eta txirrindularitzari buruzko informazioak gutxituz doaz. Bestalde, kirol agenda kopurua aldizkaria hamabostekaria denetik aurrera areagotu egiten da, ez ordea, gainerako kirolen agerpena, beti eskas mantendu baita. ...*eta kitto!*-n gehien errepikatzen diren hiru kirolak, *Pil-pilean* gehien agertzen direnekin bat datoz; futbola, pilota eta txirrindularitza.

#### 4.2.5.3- Gibel-iruzkinak

Orokorrean, maiztasun aldaketak gai eta aldizkariko edukien gestio eta antolatze moduan izan du zerikusirik. Zalantzarik gabe errebista hamabostekari bihurtzen denean, gaiek gaurkotasuna irabazten dute eta azken unera arte gertatzen den oro aldizkarian sartzen ahalegintzen dira. Era berean, gaiak hobeto lantzeko eta kudeatzeko ahalegina nabaritzen da. Hori dela eta, hamabostekaria denera arte, horrenbeste landu ez diren gaiak gehiago agertzen dira, gai ekonomikoak eta kirol gaiak esaterako.





**4.3-BARREN ALDIZKARIAREN ANALISIA**

*Barren* aldizkaria 1992ko abenduaren 24an kaleratu zen estreinakoz Elgoibarko Izarra Euskara Elkartearen eskutik, euskararen normalizazioa eta herri-prentsaren hutsunea betetzeko. Elgoibarko informazioa euskaraz emanez, jendea euskaraz irakurtzen ohitzeko helburuarekin jaio zen, orduan ez baitzegoen gaur egun dagoen euskarazko beste produkturik. Bide batez, aldizkariaren bitartez herritarrak euren artean elkar ezagutzea izan zen *Barrenen* helburuetako bat. Aldizkaria betidanik izan da astekaria eta egitasmoa hasieratik profesionalen esku egon da. Hasieran lau langile ziren astekaria egiteko ardura zutenak, izan ere *Barren* sortu zenean euskarazko prentsan gauzak aldatzen hasiak ziren. Ekar ditzagun gogora *Arrasate Press*-eko Jose Felix Díaz de Tuestak herrietako prentsari buruzko mahai inguru batean esandakoa:

*“Gaurko prentsa lokalak enpresa-moduko edo antzeko egitura serio eta sakonaz funtzionatu behar duela ikusi du, lehengo amateurismoa eta militantziak baztertuz. Informatikaz baliatzea, esate baterako, oso aurrerapauso inportantea izan da. Esango nuke lehenbizikoz dihardugula behar besteko giza baliabide eta baliabide teknikoekin lanean, eta euskarak aurrea hartu diola gaztelerari munduan ematen ari diren esperientziak geureganatzeko orduan. Orain arte hau ez zen horrela gertatzen”* (Askoren artean, 1992: 52-53).

*Barrenek* aurrea hartu zion Elgoibarren erdarari eta hasieran inpaktu eta oihartzun handia lortu zuen herrian. Asier Orbea *Barren* aldizkariko kazetariak honela gogoratzen ditu aldizkariaren hastapenak: *“Hasieran jende guztiak zekien zer zen Barren, gainera jendeak asko estimatzen zuen aldizkaria”*<sup>568</sup>.

Hasieran arrakasta lortu bazuen ere, aurrera egin beharra zegoen eta profesionalizatzea beharrezkoa zen, produktua bera finkatzeko. Urtero, langileek euren buruari jartzen dioten erronka horixe da hain zuzen ere, aldizkaria bera profesionalagoa bihurtzea: argazki hobeak eginez, gehigarri berriak sortuz, publizitate bezero gehiago lortuz, tirada handituz, diseinuan hobetuz edota aldizkaria erakargarriagoa bihurtuz. *Barren* aldizkariak hamalau urte bete ditu 2006an eta guk aztertu dugun epean 500. alea kaleratu da, 2004ko irailean kaleratu ere.

2000-2004 bitartean, Elgoibarko aldizkaria guztiz finkatuta dago, lau langile ari dira egun osoko kontratuarekin. Bi kazetari, maketazaile/diseinatzailea eta publizista. Horiez gain, zazpi lagunek dihardute aldizkarian kolaboratzaile finko moduan, baina horiek ez dute diru-saririk

<sup>568</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.

jasotzen, borondatez ari dira (gehienak kazetaritza ikasketak bukatuta dituzte). *Barrenen* azken urteetan, kolaboratzaileak bilatzeko zailtasunak izan dituzte, elgoibartar gutxi egon delako kazetaritza ikasten eta ikasleen egoera aldatu egin delako urte batzuetatik 2004ra bitartean. Asier Orbeak honako gogoeta hau egiten du kolaboratzaileen inguruan:

*“Gure garaian, gehiago hurreratzen ginen gu Barrenera, Barren guregana baino, eta gaur egun oso jende gutxi etortzen da praktikak egin nahian eta kolaboratzaileak lortzeko arazoak izan ditugu. Batek dirua eskatu zigun eta dirurik ordaindu gabe ez zuela egingo esan zigun eta ez zuen egin. Bestalde, gaur egun kolaboratzaile finkoak direnak ez dira ikasleak, dagoeneko bukatu dituzte kazetaritza ikasketak eta beste gauzaren batean ari dira, baina ez ikasten”<sup>569</sup>.*

Bi urtetik behin gutxi gorabehera diseinua aldatzearen ohiturari jarraituz, 2000ko irailean diseinua aldatzen da. Diseinu aldaketa, jendea aspertu ez dadin eta produktuari beste ukitu bat emateko asmoz egiten da. Maiztasunari dagokionez, astekaria izaten jarraitzen du eta lan-taldean pertsona aldaketak izan arren, aurrean aipatu ditugun langile figura berberak mantentzen dira 2006an ere.

### **Aldizkariko atalak**

*Barren* aztertu dugun bost urte hauetan, honako atal hauek kaleratu dira aldizkarian:

**-Urruzunoren begi ezkutua:** Gutunen atalean kaleratzen den iritzi-zutabea edo literatur idatzia da. Urruzuno Elgoibarko Literatur taldea da. Taldeko kide batek bere ikuspegia ematen du edozein gairi buruz, idazten duen testuari kutsu literarioa emanez. Batzuetan iritzi-zutabe bezala agertzen da eta beste batzuetan, aldiz, literatura bezala.

**-Galderak, txaloak eta kexak:** Irakurleek egunerokotasunarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz helarazten dituzten galdera, txalo eta kexak. Aldizkariarekin harremanetan jartzeko bide ezberdinak erabiltzen dituzte: telefono deiak, korreo arrunta, e-posta, baina irakurleak batez ere erredakziora joaten dira eta kexa, txaloak edo galderak azaltzen dituzte.

**-Eskutitzak:** Irakurleen gutunen atala.

**-Erreportajea:** Denetarik lantzen da. Sakon aztertzea merezi duen zerbait (aurreko astean gertatu bada edo hurrengoan gertatuko dena) erreportajearen sartzen da. Bestalde, sasoiaren sasoi

---

<sup>569</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.

erreportajeak ere egiten dira, “San Valentin”, “Nazioarteko Krossa”... eta orri bat edo bi izaten ditu.

**-Inkesta:** Herritarrei edozein gairi buruz egiten zaien galdera. Elgoibarrekin zerikusi zuzena duten gaiet buruz edota sasoikoak diren eta herriarekin zerikusirik ez duten gaiak ere lantzen dira bertan.

**-Motz:** Albiste, albiste labur eta argazki-albisteen bidez, astean zehar gertatutakoa biltzen duen atala. (Normalean bi orri izaten ditu).

**-Informazioa:** Intereseko telefonoak, farmazien ordutegia, okindegien ordutegia, tren eta autobusen ordutegiak kaleratzen diren sekzioa. Hilean behin, hildako, jaiotako eta ezkonduakoei buruzko informazioa argitaratzen da, sail hau hilabeteko lehenengo alean agertuz.

**-Kultura:** Kultura gaiet buruzko albisteak lantzen diren atala. (bat edo bi orri). Normalean albisteak izaten dira, baina albiste labur, argazki-albiste eta elkarrizketak ere kaleratzen dira atal honetan.

**-Kirolak:** Kirol ezberdinei buruzko albisteak kaleratzen diren saila, (orri bi edo bakarra).

**-Merkatu txikia:** Iragarki txikiak sartzeko gunea. Salerosketa eta trukeen atala (lan eskaintza/eskaera, lokalak, etxebizitza edo garajeen salerosketa eta alokairuak...). Zenbaki bakoitzean, orri osoa iragarki txikiz betetzen da.

**-Agurrak:** Zorion agurren atala, (orri osoa edo erdia). Orri berean, **Gazte informazioa** kaleratzen da: Gazteei zuzendutako lan eskaintzak, bekei buruzko informazioa e.a.

**-Agenda:** Asteko kultur agenda, zine egitaraua eta hainbat albiste labur biltzen dituen atala, (bi orri).

**-Erretratu zaharra:** Antzinako argazkiak kaleratzen diren saila.

**-Ikasbarren:** Eskola ezberdinei buruzko albisteak kaleratzen diren sekzioa. Hasieran gehigarri moduan agertzen da, baina 2004tik aurrera, atal finko izatera pasatzen da eta astero orri bat eskaintzen zaio.

### **2000-2004 bitartean agertu diren eta desagertu diren beste atal batzuk:**

**-Ispiluari begira:** Lanbideei buruzko elkarrizketa arinak. Ez zen astero kaleratzen. Aspalditik zegoen saila zen eta horregatik kendu zen, agortuta zegoelako.

**-Bai esan?:** Astean behin, elgoibartar bati, gaurkotasuna duen gai bati buruz egiten zaizkion hiru galdera labur. Esaterako, tabernen ordutegi berria dela eta, tabernari bati egiten zaizkio galderak. Kaleratzen den epean, astero agertzen den sekzioa da.

**-Udaletxetik:** Udaletxeko kontuei buruzko albisteak agertzen diren saila. Atal honek iraun bitartean astero kaleratzen da orri bat.

**-Elgoibartik...(Ginebrara...):** Elgoibartik kanpo bizi den jendeak idazten duen kronika. Protagonistek, non bizi ziren, zergatik joan ziren hara eta nolakoa den hango bizimodua kontatzen dute idatzi horretan. Atal hau hilean behin kaleratzen da eta gaia agortzen denean desagertu egiten da.

**-Osasuna gure ondasuna:** Osasun arloko profesionalak publizitatea egiten dute hilean behin aldizkariak kaleratzen duen “Osasun gida”-n. Aldizkarian publizitatea sartzen duen profesioletako bakoitzak, hilean behin bere espezialitateari buruz idazten du, informazio erabilgarria eskainiz.

**-Alkatea banintz...:** Kale-inkesta modukoa da, “bai esan” atalarekin txandakatzen da hilean behin kaleratuz. Kalera irten eta norbaiti “Alkatea banintz...?” galdera egiten zaio. Kale-inkesta baino luzetxoagoa da.

**-Negozioak aldatu egin direla!:** Oso gutxitan agertzen da, bi argazkiren konparazioa eginez, gaur egungo eta sasoi bateko negozioak alderatu egiten dira.

**-Norbere ofizioan:** “Ispiluari begira” atalaren ondorengoa, sail horren bilakaera.

**-Gogoratzu:** Herriko pertsonaia ospetsu eta ezagunak izan zirenei buruzko informazioa da.

**-Elgoibartarrak munduan zehar:** Munduan zehar bidaiatzen ibili diren elgoibartarrek egiten duten kronika laburra, euren esperientzia kontatuz.

**-Elkarrizketa:** Hiru orriko elkarrizketa sakona. Ez da astero sartzen. Hilean lau gehigarri kaleratzen dira eta hiru orriko elkarrizketa sakona gehigarri horietako bat da.

**-Berbetan:** Ez da beti agertzen den saila, zer edo zer esateko duenari egiten zaion elkarrizketa.

**-Asteko errezeta:** Hau ere, “Ispiluari begira” atalaren beste aldaera bat da, jatetxe ezberdinetako sukaldariek errezeta bat proposatzen dute.

**-Nola aldatu diren gauzak:** Hasieratik *Barrenen* kolaboratzaile moduan ari den Juanito Gorostizak egiten duen atala da, adibidez, Sigma duela 40 urte eta gaur egun, bi argazki eta testua. “Negozioak aldatu egin direla!” atalaren antzerako da, baina negozioetara mugatu beharrean, herriko toki ezberdinetan gertatu diren aldaketen berri ematen da.

**-Elgoibarko Izarraren urteurreneko kronikak:** 2002ko bukaeratik 2003ko bukaerara arte, Elgoibarko Izarraren urteurrena dela eta, astero kronika bat argitaratzen da aldizkarian, Elgoibarko Izarrak izan dituen ekitaldi eta egitasmo ezberdinen inguruan.

**-Asteko gaia:** Gai ezberdinei buruzko orri bateko erreportajeak, baina ez da asteko erreportaje nagusia.

**2000-2004 bitartean kaleratu diren gehigarriak:**

*Barrenen* hilean lau gehigarri kaleratzen dira eta hauen helburua, gai bakoitza hobeto eta sakonago lantzea da. Guk aztertu dugun epean kaleratu diren gehigarri ezberdinak honako hauek izan dira:

**-“Kale zulotik baserrira”:** 2000. urtea baino lehenagotik kaleratzen den baserriari buruzko lau orriko gehigarria. Aurreko urteetan dezente lantzen da eta guk aztertutako epean desagertu egiten da gehigarri hau.

**-“Zaharrak berri”:** Hirugarren adinari zuzendutako lau orriko gehigarria. Hau ere, 2000. urtea baino lehenagotik hasten da lantzen. Hilero dauden lau gehigarrien arteko bat zen.

**-“Kilibarren”:** Mendarori buruzko lau orriko gehigarria. 2000-2004 bitartean hilean behin kaleratzen da eta gaur egun (2006), hamabostean behin bi orriko gehigarria argitaratzen da.

**-“Txikibarren”:** Hilean behin Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleei zuzendutako lau orriko gehigarria. 2006an ere kaleratzen da, baina hilean behin bi orri argitaratzen dira. Hilabete bakoitzean ikastetxe bat agertzen da eta bertan dauden elkarrizketa, inkesta edo albisteak *Barreneko* lan-taldeak egiten ditu ikastetxe ezberdinetara joanez.

**-“Euskaltegietan arigera”:** Hau ere aurreko epean landu den gehigarria da. Euskaltegiei buruzko informazioa kaleratzen da lau orritan. Agortuta dagoela uste dutenean, kentzea erabakitzen dute.

**-“Gaztia naiz barren”:** Gazte-jendeari zuzenduta dagoen zortzi orriko gehigarria, hilero kaleratzen dena. Bertan, hiru kolaboratzaile egon ziren eta zortzi orriko gehigarritik atal batzuk euren idazten zituzten. Urtebete inguruko iraupena izan zuen.

Gehigarrietako gaiak *Barrenen* lanean dauden kazetariak erabakitzen dituzte, izan ere, gehigarri guztiak *Barreneko* lan-taldeak egiten ditu. Era berean, generoak gehigarrian bertan oso finkatuta daude.



**4.3.1- BARREN ALDIZKARIAREN FITXA TEKNIKOAK**

Tesi hau burutzeko 2000-2004 epea aukeratu den arren, hurrengo fitxa teknikoetan 1999 eta 2004ko datuak agertzen dira. Herri-aldizkariaren inguruan datu horiek jasotzen dituen lan bakarra aprobetxatu nahi izan dugu ikerlan honetan bi arrazoi nagusi direla eta. Lehenengo eta behin, eskema bera jarraituz datuak eguneratu egin ditugulako eta bestalde, milurteko berria hasi aurretik aldizkariaren egoera zein zen ezagutzeko aukera eskaini digutelako 1999ko datuek.

	<b>1999eko fitxa teknikoa</b>	<b>2004ko fitxa teknikoa</b>
	Asier Aranguren <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian kaleratutako datuak.	Asier Aranguren txantiloia kontuan hartuta, doktoregai honek eguneratutako datuak.
<b>Barren</b>	Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar (Gipuzkoa). Tf. 943 74 41 12	Nafarroa Enparantza 2, 20870 Elgoibar (Gipuzkoa). Tf. 943 74 41 12
<b>Herria/Eskualdea</b>	Elgoibar. 11.280 biztanle. Euskaldunak % 56,5	Elgoibar. Biztanleak 10.219, euskaldunak 7.540 (%74) <sup>570</sup>
<b>Argitaratzailea</b>	Elgoibarko Izarra	Elgoibarko Izarra
<b>Nortasun juridikoa</b>	Kultur Elkartea	Kultur Elkartea
<b>Zuzendaria</b>	Ainhoa Lodoso	Ainhoa Andonegi
<b>Lehen alea</b>	1992ko abenduaren 24an	1992ko abenduaren 24an
<b>Maiztasuna</b>	Astekaria	Astekaria
<b>Hizkuntza</b>	Euskara hutsez	Euskara hutsez
<b>Zabalkundea</b>	Elgoibar eta Mendaro	Elgoibar eta Mendaro
<b>Tirada</b>	3.840	4.000
<b>Prezio</b>	Doan	Doan
<b>Formatua</b>	DIN-A4	DIN-A4
<b>Orrialdeak</b>	28	28
<b>Lan-taldea</b>	Lau soldatapean, hiru egun osoz. Bat egun erdiz. Kolaboratzaileek	Lau lagun egun osoko kontratuarekin. Zazpi

<sup>570</sup>- Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

	ez dute kobratzen.	kolaboratzaile eta ez dute kobratzen.
<b>Edukiak</b>	Informazioa %80, lokala %100. Testua %75.	Informazioa %62, Iritzia %16, Literatura %1, Komika %2, Zerbitzuak %18.
<b>Sortze arrazoiak</b>	Euskararen normalizazioa eta herri-prentsaren hutsunea beten nahian. Herriko informazioa ematea du helburu, beti ere euskaraz.	Euskararen normalizazioa eta herri-prentsaren hutsunea beten nahian. Herriko informazioa ematea du helburu, beti ere euskaraz.
<b>Publizitatea</b>	Moduloa: 2.000 pzta. Publizista komisioa + finkoa.	Moduloa: 15 € + BEZ. Publizistak soldata finkoa eta komisioa jasotzen du. Urtean publizitate bezero finkoak: 50
<b>Ezaugarri teknikoak</b>	Auto-edizioa. Azala koloretan (1994ko martxoaz geroztik). Barrukoak zuri beltzean eta batzuk bi koloretan.	Auto-edizioa. Azala koloretan. Barrukoak zuri beltzean eta batzuk bi koloretan.
<b>Finantziazioa</b>	<b>Gastuak:</b> 24.577.457 pzta. <b>Sarrerak:</b> 24.594.200 pzta. <b>Diru-laguntzak:</b> 12.595.300 pzta. <b>Publizitatea:</b> 11.698.900 pzta. <b>Besteak:</b> 300.000 pzta.	<b>Gastuak:</b> 215.475 € <b>Sarrerak:</b> 215.475 € <b>Diru-laguntzak:</b> 114.775 € <b>Publizitatea:</b> 86.000 € <b>Besteak:</b> 14.700 €
<b>Tresneria</b>	2 Mac ordenagailu sarean. Faxa, modemik ez. 2 telefono linea. Argazki laborategirik ez. Gertu inprimategia.	3 e-mac ordenagailu, G4 ordenagailu bat, PC ordenagailu bat CD grabagailuarekin, eskanerra, bi inpresora, 3 kamara digital, CD grabagailu bat, ahots grabagailu digitala, bi telefono linea, faxa, ADSL eta ordenadore

		guztiak sarean.
<b>Konpetentzia</b>	Ez da konpetentziarik	Ez da konpetentziarik
<b>Oharrak</b>	Astean behin gehigarri bat: umeak, nekazal mundua, hirugarren adina eta “Kilibarren”, Mendaroko berriekin.	Hilean behin gehigarri ezberdinak kaleratzen dira: Elkarrizketa sakona, gazteei zuzendutako “Txikibarren” eta “Gaztia naiz barren” gehigarriak eta Mendaroko kontuei buruzko “Kilibarren” gehigarria.

*Barren* astekarian 1999-2004 bitartean ez da aldaketa sakonik izan eta horrek argi erakusten du aldizkaria 2000. urtea baino lehen finkatuta zegoela. Beraz, guk aztertu dugun bost urteko epean izan diren aldaketa txiki horiek aldizkaria hobetzeko eta sendotzeko lagungarriak izan direla esan daiteke. Hona hemen aipagarrienak:

- Lan-taldean izan den aldaketa bakarrak, lan kontratu erdi bat gehiago izatea ekarri du. Hots, 1999an lau langile ari ziren, hiru egun osoz eta bakarra egin erdiz eta 2004an langile guztiak dihardute egun osoz lanean. Beraz, lan-taldea ez da handitu, baina lan kontratuak hobeto egin dira oro har; hurrengo atalean zehatzago ikusiko dugu soldaten igoera.
- Tresnerian aurrera egin da nabarmen sei urteotan. Izan ere, produktuaren itxura hobetzeko eta eguneroko lana errazteko inbertsioak egin direla ikus daiteke fitxa teknikoan. Diseinurako ordenagailu hobeak erosi dira, kamara digitalak (argazkien kalitatea asko hobetu dutenak) eta ordenagailu guztiak sarean jarri dituzte. Teknologia berriak inplementatu dira Elgoibarko astekarian, produktua hobetzeko eta eguneroko lana errazteko asmoz.
- Aldizkariko edukiei dagokionez, informazioak aldizkariko kazetaritza-genero inportanteena izaten jarraitzen du, baina bestelako kazetaritza-generoak ere indartuz joan dira, iritzia eta zerbitzuen atala esaterako. Kazetaritza-genero arinak asko erabiltzen dira *Barrenen*, gauzak era laburrean idaztea Elgoibarko aldizkariko lehentasunen artean baitago. Kazetaritza-generoak ikuspegi akademikotik begiratuta, era egokian erabiltzen dira eta beraien arteko oreka mantentzen da aldizkarian, beti ere informazioa beste genero guztien artean nagusituz.

- Sei urteotan gastuen atala 67.746 eurotan igo da, 11.270.834 pezetatan hain zuzen ere eta hori, alde batetik pertsonalaren atalean eta inbertsioen atalean egin diren gastuen adierazle da eta bestetik, bizitzaren garestitzearen erakusle.
- 2004an Elgoibarrek 1999an baino 1.000 biztanle inguru gutxiago ditu, baina euskaldunen kopuruak 17,50 puntutan egin du gora. Beraz, euskaraz irakurri dezakeen biztanle kopurua hazi egin da eta aldizkaria jende gehiagorengana heltzen da, bere tirada apur bat igo delako.

**4.3.2- BARREN ALDIZKARIAREN AURREKONTUA ETA BALANTZE EKONOMIKOAK**

	<b>1999eko Aurrekontua</b> Asier Arangurenek <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian kaleratutako datuak.	<b>2004ko Balantzea</b> Asier Arangurenen txantiloia kontuan hartuta, doktoregai honek eguneratutako datuak.
<b>GASTUAK</b>	Langilea_____11.250.129 pzta. Funtzionamendua_1.970.852 pzta. Inbertsioa_____0 pzta. Inprenta_____10.226.380 pzta. Zabalkundea ___1.130.096 pzta. <b>GUZTIRA 24.577.457 pzta.</b>	Langilea_____97.151,71 € Funtzionamendua___11.748,84€ Inbertsioa _____2.028,42 € Inprenta _____65.284,58 € Zabalkundea _____12.963,25 € <b>GUZTIRA 189.176,80 €</b>
<b>SARRERAK</b>	Diru-laguntzak _12.595.300_pzta. Udala _____8.100.000 pzta. Aldundia _____2.519.079 pzta. Jaurlaritza _____1.976.221 pzta. Propioak _____11.998.900 pzta. Publizitatea ___11.698.900 pzta. Harpidetza _____ Salmenta _____ Bestelako ekarpenak __300.000 pzta. <b>GUZTIRA 24.594.200 pzta.</b>	Diru-laguntzak____93.316,49 € Udala _____55.947,41 € Aldundia _____19.995 € Jaurlaritza _____7.374,08 € Publizitatea _____81.832,94 € Harpidetza Salmenta _____6.060,09 € Bestelako ekarpenak _____3.903 € <b>GUZTIRA 185.112,52 €</b>
<b>BALANTZEA</b>	GASTUAK 24.577.457 pzta. SARRERAK 24.594.200 pzta. <b>EMAITZA: 16.743 pzta.</b> <b>(100,64 €)</b>	GASTUAK 189.176,80 € SARRERAK 185.112,52 € <b>EMAITZA: -4064,28 €</b>

- Aurrekontu eta balantze ekonomikoetan agertzen diren datuek erakusten dutenez, *Barren* aldizkariko gastuen atalak sei urtetan 67.746 eurotan egin du gora. Egoera ekonomikoa atalka aztertuz gero, igoera orokorra izan dela antzematen da, bizitzaren igoerarekin zerikusi zuzena duena eta baita zenbait ataletan egin diren inbertsioekin lotuta igoerak agertzen dira. 1999ko aurrekontua pezetan azaltzen denez eta 2004koa eurotan, ikus dezagun gastuen atal bakoitzak zenbateko igoera<sup>571</sup> izan duen eurotan.
- Gastuen atalean igoera honako hau izan da sei urteotan:
- Langileen gastuak **29.530,16** eurotan igo dira.
- Funtzionamendu gastuak **97,43** eurotan jaitsi dira.
- Inbertsio gastuak **2.028,42** eurotan hazi dira.
- Inprenta gastuek **3.816,52** eurotan egin dute gora.
- Zabalkunde gastuak ia bikoiztu egin dira, **6.170,54** eurotan igo baitira.
- Gastuen atal guztiek egin dute gora, funtzionamendu gastuek izan ezik, hauek oso antzerako mantendu dira, ia 100 eurotan jaitsiz. Arestian aipatu dugun moduan, gastuen igoera neurri batean bizitzaren garestitzearekin bat dator, baina langileen gastuen atala eta zabalkunde gastuena bereziki igo dira. Langileen gastuen atalean, urteak pasa ahala langileen lan baldintzak hobetu egin direla ikus daiteke. Inbertsioetan izan den igoerak zera adierazten du, 1999an inbertsiorik egin ez arren, harrez geroztik urtero inbertsio inportanteak egin direla eta urtero zertxobait hobetu beharra egon dela. Inprenta gastuen igoera ez da oso nabarmena izan, orrialde kopuru bera eta formatu bera mantentzen delako eta zabalkunde gastuak horrenbeste igotzearen arrazoia honako hau da: 2004an banaketa egiten duten pertsonen ordain saria atal horretan sartzen dela eta 1999an ez zela atal berean sartu.
- Igoera sarreretan ere antzeman daiteke, oro har aldizkariaren sarrerak sei urtetan 37.283,3 eurotan igo dira. Hona hemen diru-laguntza eta publizitate sarreraren igoeren<sup>572</sup> zenbatekoa:
- Diru-laguntza guztiak **17.609,48** eurotan igo dira.
- Udalak ematen duen diru-laguntza, **7.260,46** eurotan hazi da sei urteotan.
- Aldundiak, **4.853,48** euro gehiago ematen ditu 2004an.

<sup>571</sup>- Igoera guztiak, 2004ko balantzeari 1999ko aurrekontuaren kopurua kenduz kalkulatu dira, 1999ko kopuru guztiak eurotara pasatuz.

<sup>572</sup>- Igoera guztiak, 2004ko balantzeari 1999ko aurrekontuaren kopurua kenduz kalkulatu dira, 1999ko kopuru guztiak eurotara pasatuz.

Eusko Jaurlaritzak banatzen duen diru-laguntza, **5.495,54** euro gehiagokoa da.

Publizitate sarrerak **11.513,95** eurotan hazi dira.

Salmenten bitartez **6.060,09** euro gehiago lortzen dira.


Bestelako sarreretan **2.099,78** euro gehiago agertzen dira.

Sarreretako kontzeptu guztiak hazi egin direla ikus daiteke eta erakunde ezberdinetatik jasotzen diren diru-laguntzen kopurua hazi egin da sei urtetan 17.609,48 eurotan eta igoera handiena, Elgoibarko udaleko diru-laguntzan suma daiteke. Hala eta guztiz ere, aldizkariak medio propioetan atera duen kopurua, diru-laguntzak baino neurri handigoan hazi da. Salmentak, publizitatea eta bestelako ekarpenak batuz gero, *Barrenen* auto-finantzazioa 19.674 eurotan hazi da sei urtetan. Beraz, ezin ukatu aldizkariak auto-finantziazio indizea handitzeko urtetik urtera egiten duen esfortzua eta lana.

➤ 1999ko eta 2004ko datuetan argi azaltzen da langileriak eta inprentak sortzen dituela *Barrenen* gastu gehien. 2004an, *Barren* astekarian langileen gastua aurrekontuaren %51,3koa izan zen. Inprenta gastuak %34,5era heldu ziren. Sarrereren atalean, erakunde ezberdinek banatzen dituzten diru-laguntzak eta sarrera propioen atalak dira indartsuenak. Azken urteko portzentajeen arabera, diru-laguntza eta publizitatearen artean ez da ezberdintasun handirik sumatzen. Hots, 2004an diru-laguntzek *Barren* aldizkariaren 2004ko aurrekontuaren %49,3a estali zuten eta publizitate eta sarrera propioek aurrekontu osoaren %48,5a.

## 4.3.3- KAZETARITZA-GENEROAK

39E. grafikoa



Kazetaritza-generoen bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

39F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	INFORMAZIOA	IRITZIA	LITERATURA	KOMIKIA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
	2000-2004	1.923	489	34	58	557	3.061
	2000	401	89	3	12	110	615
	2001	331	98	5	14	121	569
	2002	313	88	7	12	114	534
	2003	432	100	8	13	104	657
	2004	446	114	11	7	108	686

Kazetaritza-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Elgoibarko aldizkarian 2000-2004 bitartean kazetaritza-genero berberak landu dira. Informazioa, zerbitzuak eta iritzia, literatura eta komikia baino gehiago agertu dira gure azterketa-epean. 2000, 2003 eta 2004an item kopuru gehiago argitaratu direla ikus daiteke 39F. taulan, izan ere, hiru urte horietan aukeratu ditugun abenduko aleetan urtekariak izan dira. Bestalde, aipatu hiru urteotan kaleratu diren gehigarrien orri kopurua, gainerako urteetako gehigarrien orri kopurua baino altuagoa izan da. Hots, 2000. urtean lau orriko sei gehigarri<sup>573</sup>

<sup>573</sup>- "Kale zulotik baserrira" (2000ko urtarrileko 304. zenbakian), "Zaharrak berri" (2000ko otsaileko 309. alean), "Kilibarren" (2000ko martxoko 314. zenbakian), "Txikibarren" (2000ko maiatzeko 320. alean), "Euskaltegietan arigera" (2000ko urriko 337. zenbakian eta 2000ko azaroko 343. alean).



kaleratu dira, 2003an lau eta zortzi orriko sei gehigarri<sup>574</sup> aurkitu dira eta 2004an, lau orriko sei gehigarri<sup>575</sup> argitaratu dira.

Guztira, bost urteetan 3.061 item aztertu dira *Barren* aldizkarian. Horietatik, 1.923 informazio-genero ezberdinetan aurkitu ditugu, 489 iritzi-itemak dira, 34 testuk literatura lantzen dute, 58 komiki argitaratu dira eta 564 item zerbitzuei eskaini zaizkio.

### **A) INFORMAZIOA**

Aldizkarian informazioak duen garrantzia kopuruetan eta portzentajeetan argi ikus daiteke. Urtero, aldizkarian argitaratzen diren kazetaritza-generoen ia %60, informazio-generoak dira. Horrek argi erakusten du astekaria sortu zeneko helburuak gidatu duela aldizkariaren edukia, euskaraz informazioa emanaz, herriko prentsan zegoen hutsunea betetzeko asmoz sortu baitzen. Gogora ditzagun Miguel Angel Elkoroberezibarren hitzak: *“Nazio edota probintzi mailako prentsak betetzen ez duen hutsunea eta eskaintzen ez dituen aukerak hartzen ditu prentsa lokalak bere gain, herri eta eskualdeko informazioa zuzenki eta era sakonean plazaratzen du”* (Elkoroberezibar: 1992:11).

Urtez urteko informazioaren bilakaerari erreparatuz, 2000, 2003 eta 2004an informazio kopurua 2001 eta 2002an baino altuagoa da. Arestian aipatu bezala, informazio gehiago agertzen den hiru urte horietako abenduko aleetan urtekariak aztertu ditugu eta bestalde, kaleratu diren gehigarrietako orri kopuruak eta bertan argitaratzen diren edukiak, informazioaren hazkundera eragin zuzena dauka. Horrez gain, *“Kontuan hartzeko beste datu bat. Barren irakurtzen hasi aurretik euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zutenak %17,1 dira”* (Larrañaga, Gabantxo eta Aranguren, 1997: 33).

### **B) IRITZIA**

Iritzia, 2000. urtetik aurrera apur bat hazi egiten da *Barren* astekarian. Oro har lau urteko epean iritzia atal finko batzuetan (“Iritzia”, “Eskutitzak”, “Kexak, txaloak eta galderak”, “Kale-inkesta” eta “Alkatea banintz...” sailetan) landu izan da batik bat. Bestalde, gehigarri gehienetan inkesta bat argitaratzen da eta “Gaztia naiz barren” gazteen gehigarrian literatura eta musika kritikak ere agertzen dira noizean behin. Aldizkariak zailtasunak izan ditu iritzi-emaileak

<sup>574</sup>- “Santa Ageda” (2003ko otsaileko 434. alean), “Gaztia naiz barren” (2003ko martxoko 439. zenbakian), “Kilibarren” (2003ko apirilko 443. zenbakian, uztaileko 453. alean eta iraileko 458. zenbakian) eta “Txikibarren” (2003ko iraileko 457. alean).

<sup>575</sup>- “Kilibarren” (2004ko urtarrileko 747. alean, apirilko 485. zenbakian eta iraileko 501. alean), “Txikibarren” (2004ko martxoko 480. zenbakian, urriko 503. alean eta azaroko 508. zenbakian).

bilatzeko, jende askok idatzi duelako *Barrenen* eta idazteko konpromisoari eusteko prest dauden kolaboratzaileak lortzea, gero eta zailagoa delako.

*“Zerrenda luze batzuk hartu, aztertu eta deitu egiten zaie kolaboratzaileei. Beste kontu bat izaten da nahi duten ala ez kolaborazio eta konpromiso hori hartzea. Sasoi baterako konpromisoa izaten delako, urtebete edo apur bat gehiagorako kolaborazioak izaten dira, baina astero ez dute idatzi behar, hilean behineko maiztasun bat izaten dute kazetariak eta besteek, gehiago zirenez, maiztasun gutxiagorekin idazten zuten”*<sup>576</sup>.

Horregatik, 2000. urteko urtarriletik uztaileira arte, kolaboratzaile bakar baten iritzi-zutabea kaleratzen da. Hala eta guztiz ere, iritzi-emaileak lortzeko ahalegina egin dute eta 2000ko irailean diseinua aldatzen denean, bi kolaboratzaileen zutabeak (bat herritarrek egiten dute eta bestea kazetariak) kaleratzen hasten dira. Horrez gain, “gutunak” atalaren baitan, “Urruzunoren begi ezkutua” iritzi-zutabea ere argitaratzen da. Ondorioz, 2000ko irailetik aurrera ale guztietan hiru iritzi-zutabe finko agertzen dira.

### C) LITERATURA

Literaturak, gainontzeko informazioekin alderatuz, ordea, oso agerpen murrizta dauka Elgoibarko astekarian. Lan honetan aztertu diren hirurogei aleetan, hogeita hamalau literatura-item aurkitu ditugu.

*Barren* aldizkariko orrietan literatura gutxi argitaratzen bada ere, urtetik urtera item kopurua hazi egin da apur bat. 2000. urtean ez da literaturarik agertzen aldizkarian eta hurrengo lau urteetan %1- %2 inguruko portzentajeetan kokatzen da. “Urruzunoren begi ezkutua” atalean lantzen da literatura nagusiki. Urruzuno, Elgoibarko Literatur taldea da eta atal honetan taldeko kide batek bere ikuspegia azaltzen du edozein gairen inguruan, baina idatziari kutsu literarioa emanez. Batzuetan iritzi-zutabe bezala agertzen da eta beste batzuetan, aldiz, literatura bezala, ipuin bezala hain zuzen ere. Asier Orbea *Barren*eko kazetariak esaten duen moduan, “*Hasieran, asmoa zen bertako kide batek edozein gairi buruz bere ikuspegia ematea, kutsu literario batekin. Asmoa hori zen, baina gero bakoitzak nahi duena egiten du*”<sup>577</sup>. Atal honetan agertzen dira literatur testu gehienak, baina “Txikibarren” gehigarrian ere, bertsoak eta ipuinak kaleratu izan dira.

<sup>576</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.

<sup>577</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.

## D) KOMIKIA

Komikiari hasieratik egin zaio lekua *Barren* astekarian. Komikia ez da iritzi gisa sartzen, Elgoibarko “Kokoe Komiki Elkarte”-rekin egiten den elkarlanaren ondorio delako. Normalean pertsona berak egiten du komikia eta gai ezberdinak jorratzen dira bertan, autorearen esku geratzen direnak. Ale bakoitzean komiki bat kaleratzen da “Barrak, birrak eta barreak” atalaren baitan eta inoiz “Gaztia naiz barren” gehigarrian ere agertu izan da komikirik.

## E) ZERBITZUAK

Zerbitzuak 557 aldiz agertu dira *Barren* astekarian guk aztertu ditugun zenbakietan eta kopuru horrek, zerbitzuena, informazioaren ostean gehien agertzen den atalean bilakatzen du. Atal honetan, agendak, zerbitzu-informazioa eta salerosketa eta trukeak agertzen dira nagusiki; noizean behin baina, informazio erabilgarria eta denbora-pasak ere kaleratzen dira. Zerbitzuak aldizkaria sortu zenetik argitaratzen dira, oso erabilgarriak eta eraginkorrak direlako, irakurleekin hartu eman zuzena izateko aukera eskaintzen dutelako eta bide batez irakurleen gustu eta interesak zeintzuk diren neurtzeko bide ematen dutelako. Zerbitzuek aldizkariari praktikotasuna eta erabilgarritasuna ematen dioten neurrian, aldizkaria erakargarriagoa bihurtzeko aukera eskaintzen dute

### **Kazetaritza-generoak bi hitzetan**


Oro har item kopurua hazi egiten da urtetik urtera *Barren* aldizkarian, alde batetik urtekariak argitaratzen direlako eta bestetik, astero kaleratzen diren gehigarri ezberdinek item kopuruan eragina dutelako. Elgoibarko aldizkarian 2000-2004 bitartean kazetaritza-genero berberak landu dira, aurreko epeetan oso definituta zeudenak eta finko mantendu direnak gure azterketa-epean. Informazioa, zerbitzuak eta iritzia, literatura eta komikia baino gehiago agertu dira bost urte hauetan, gehien landu den generoa informazioa izanik. Iritzia orokorrean apur bat hazi egin da, kolaboratzaile berriak bilatzeko ahalegin berezia egin duelako *Barreneko* lantaldeak. Kolaboratzaileen artean Elgoibarko Urruzuno literatur taldeko kideak daude eta aldizkarian agertzen den literatur apurra, astero kaleratzen diren idatzi horietan argitaratzen da. Gure azterketa-epean komikia atal finkoa izan da aldizkarian, baina ez da iritzi moduan sartu. Zerbitzu-gune indartsua du Elgoibarko aldizkariak betidanik, praktikoa eta eraginkorra izan nahi delako, horregatik da zerbitzuena, informazioaren ostean gehien agertzen dena.

### 4.3.3.1- Informazioa

*Barren* astekarian informazioa, beste kazetaritza-generoen artean nagusitzen da bost urteetan, informazioa baita astekariaren ardatza. Hurrengo bi ataletan informazioak aldizkarian izan duen bilakaera aztertuko dugu. Lehenengo eta behin, informazio-genero ezberdinek 2000-2004 bitartean *Barren*en izan duten agerpen orokorra ikusiko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, informazio-genero bakoitzak urtez urte izan duen garapena nolakoa izan den aztertuko dugu.

#### 4.3.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean

40E. grafikoa



Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak chunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

40F. taula

	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Argazki-erreportajea	Elkarrizketa	Kronika	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	464	733	450	86	29	136	25	1.923

Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan

Guztira *Barren* aldizkarian 1.923 informazio-item aztertu dira 2000-2004 urteen artean. 40E. grafikoan eta 40F. taulan ikus daitekeenez, albiste laburrak, albisteak eta argazki-albisteak nagusitzen dira herritarrari informazioa helarazteko.

### **A) ALBISTE LABURRA**

Guk aztertutako epean, zazpiehun eta hogeita hamahiru albiste labur kaleratu dira *Barrenen*. Izan ere, informazioa era laburrean eskaintzea *Barren* aldizkarian arau bilakatu da urteekin, euskaraz irakurtzen ohituta ez dagoen jendeari irakurketa arintzeko eta errazteko.

*“Barrenek berak duen printzipioetako bat gauzak era laburrean tratatzea da. Azken finean jendea euskaraz irakurtzen ohitu behar baduzu, ezin diozu albiste oso luzea eman. Hor batzuetan kazetariok nahigo genuke luzeago eta sakonago lantzea, baina orokorrean ukitu egiten dira gaiak<sup>578</sup>”,* onartzen du Asier Orbeak, *Barren* astekariko kazetariak.

### **B) ALBISTEA**

Albisteen portzentajea baxuagoa (%24) bada ere, hirurogei aleotan, laurehun eta hirurogeita lau albiste aurkitu dira Elgoibarko astekarian. Jose Luis Martínez Albertosen definizioari jarraituz, albistea da gertakizun bati buruzko informazioa, zehazkizunak eta zirkunstantziak ere adierazten dituen eta hori guztia interesaren arabera azalduko da. Egitateak irakurlearengan izan dezakeen interesa kontuan hartzen da *Barrenen*, egitatea albiste moduan lantzeko. Alegia, interes gehiago izan dezaketen informazioak albiste moduan lantzen dituzte eta gainerakoak era laburragoan. Hala ere, eta gauzak era laburrean lantzeko arauari jarraituz, albistek orri erdikoak izan ohi dira Elgoibarko astekarian. Horren harira, ekar ditzagun gogora Joxe Aranzabalen hitzak:

*“Laburtasunak ikaragarri errazten du irakurketa. Gogoratu helburua irakurtzen ohituta ez dagoen jendearekin komunikatzea dela. Batzuk, euskaraz irakurtzeko gai izan arren, beren ama-hizkuntzan alfabetatuak ez daudelako eta besteak, alfabetatuak diren arren, kultura bisualean hezi direlako. Beraz, artikulua laburrak idatzi, eta luzeak idaztea tokatzen denean, zatikatu edukiak eta modu atseginean antolatu eta aurkeztu, irakurlea errazago sar dadin”* (Aranzabal: 1992: 75-76).

### **C) ARGAZKI-ALBISTEA**

Argazki-albistek (laurehun eta berrogeita hamar), albistek beste erabiltzen dira *Barrenen*. Alde batetik, informazioa era laburrean emateko aukera eskaintzen dutelako eta bestetik, argazkia oso lagungarria delako irakurketa arintzeko eta erakargarri bihurtzeko. *“Nik*

---

<sup>578</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

*uste dut oro har herri-aldizkariaren baza handia argazkiak direla. Gertutasunarekin jokatzuz, norberak bere burua bertan ikustean funtzio bat betetzen da, elkar ezagutzea eta erakargarri egitea eta aldizkariarenganako lotura edo gertutasuna ere lortzen da*<sup>579</sup>, zehazten du Asier Orbea Barreneko kazetariak.

#### **D) ELKARRIZKETA**

Informazio-genero labur eta arinak nagusitzen diren arren, interpretazio-genero ezberdinek ere badute tokia Barren aldizkarian, ale bakoitzean genero guztien arteko oreka mantentzen saiatzen baitira. Interpretazio-generoen artean elkarrizketa gailentzen da. Guztira bost urtetan tamaina ezberdineko ehun eta hogeita hamasei elkarrizketa kaleratu dira errebistan. Oro har, ale bakoitzean agertzen diren elkarrizketa gehienak orri batekoak izaten dira: gehigarri ezberdinetan, “Berbetan”, “Gaztaroa”<sup>580</sup> edo “Kirolak” ataletan eta batzuetan, “Erreportaje” sailean ere agertzen dira elkarrizketak. Horiez gain, “Bai esan”, “Ispiluari begira” edo “Norbere ofizioan” bezalako sekzioetan elkarrizketa laburrak kaleratzen dira. Era berean, hilean behin hiru orriko elkarrizketa sakona argitaratzen da.

#### **E) ERREPORTAJEA**

Bost urte hauetan, hogeita bederatziz argazki-erreportaje eta laurogeita sei erreportaje aurkitu ditugu. Jaiak direnean, kirolen atalean noizbait, urtekarian edo gehigarri ezberdinetan argitaratzen dira argazki-erreportajeak, beraz ez dira ohikoak Barrenenen. Bestelako erreportajeak, ostera, “Erreportaje” atalaren baitan aurkitu ditugu batez ere. Orobat, “Kirolak” sekzioan kaleratu dira erreportajeak eta gehigarri ezberdinetan ere. Astean behin kaleratzen den erreportaje nagusiak bi orri izan ohi ditu eta berau izaten da testurik luzeena aldizkarian. Hala eta guztiz ere, erreportajeetan irakurketa errazteko hainbat elementu sartzen dira: titularra, sarrera, argazkiak, azpi- titularra, argazki-oina, zuriuneak eta elementu tipografiko anitz.

*“Irakurleak astirik ez badu, goiburu aldean irakurriko du, argazki-oina, eta aipuak. Gaia interesatzen bazaio, testu-kutxak ere irakurriko ditu, infografiarekin batera. Eta artikulua irakurtzeak merezi duela erabakiz gero, horixe egingo du idazlan osoarekin. Eta bestela, aurrera egingo du, bere begien arreta erakarriko duen hurrengo orrialderaino”* (Aranzabal, 1992: 75).

<sup>579</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>580</sup> - Sail hau 2000. urteko urtarriletik uztailean bitartean soilik kaleratu zen.

Aldizkarian kazetaritza-generoen arteko oreka mantentze aldera, erreportaje handi bakarra kaleratzen da ale bakoitzean. Beraz, errebistako gainerako sailetan bigarren erreportaje bat kaleratuz gero, bigarren hori orri bakarrekoa izaten da.

#### **F) KRONIKA**

Hirurogei aletan hogeita bost kronika argitaratu dira eta berau da, gutxien erabiltzen den informazio-generoa. “Elgoibartik...(munduko leku batera)” eta “Elgoibartarrak munduan zehar” ataletan kaleratu dira kronika gehienak. Bestalde, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen 40. urteurrena izan zenean, elkartearen kronikak argitaratu ziren.


Normalean iraganari buruzko kronikak kaleratu izan dira eta aldizkariak ahal den neurrian, gaurkotasunari garrantzi gehiago ematen dio eta gaurkotasunari heltzen dio. Horregatik, ulergarria da, errebistan kronikak gutxi agertzea eta momentu puntaletan bakarrik erabiltzea.

#### **Informazioa bi hitzetan**

Beraz, *Barrenen* genero arinak eta laburrak lantzen dira informazioaren baitan: albiste laburrak, albisteak eta argazki-albisteak batez ere, irakurleari irakurketa erraztu eta arintzeko eta era berean, euskaraz irakurtzeko ohitura sortzeko. Labur idaztea aldizkariaren printzipio bilakatu da urteekin eta testu labur eta arinekin batera, argazkiak ere asko erabiltzen dira. Genero landuagoak ere agertzen dira, luzera ezberdineko erreportaje eta elkarrizketak esaterako. Elkarrizketa sakonak, gehigarri gisa hilean behin kaleratzen dira,; ale bakoitzeko erreportaje handi bat soilik agertzen da eta irakurketa errazteko hainbat elementu tipografiko. Kronikak oso momentu puntaletan erabili izan dira. Azken finean informazio-genero ezberdinen arteko konpentsazioa bilatu nahi da, genero arin eta laburrak nagusituz baina aldi berean, informazio-genero landuagoak tartekatuz.

## 4.3.3.1.2- Informazioaren bilakaera

41E. grafikoa



Informazio-generoen bilakaera portzentuala Barren aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

41F.taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Elkarrizketa	Kronika	GUZTIRA
	2000	85	155	88	25	40	8	401
	2001	93	133	61	20	24	0	331
	2002	81	126	59	20	23	4	313
	2003	105	150	118	23	23	13	432
	2004	100	169	124	27	26	0	446

Informazio-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Barren aldizkarian informazio kopuruak oreka mantentzen du 2000-2004 bitartean. 41F. taulan agertzen diren kopuru orokorrei begiratzen badiegu, 2001 eta 2002 urteetan informazio-item gutxiago agertzen direla konturatuko gara, bi urte horietan aztertu ditugun abenduko aleak ez direlako urtekariak eta 2001 eta 2002an agertzen diren gehigarrien orri kopurua, txikiagoa delako.

## A) ALBISTEA

Albisteen agerpena portzentajeen arabera, 2001 eta 2002an hazi egiten da, nahiz eta item kopurua 2003 eta 2004an altuagoa izan. Portzentajeak kopuru orokorraren arabera kalkulatzen direnez, horrek eragin zuzena dauka emaitzetan. Esaterako, 2001ean laurogeita hamahiru albiste argitaratzen dira eta horien portzentajea %28an kokatzen da (331 informazio-item kaleratu dira guztira 2001ean). 2003an, ordea, ehun eta bost albiste argitaratu dira eta %24ko portzentajea



agertzen da 41E. grafikoan (2003an, 432 informazio-item kaleratu dira orotara). Hori dela eta, albisteen agerpena %20tik gora agertzen da urtero *Barrenen*, nahiz eta 2001ean eta 2002an portzentajeek gora egiten duten. Albisteak, “Motzean”<sup>581</sup>, “Kultura”<sup>582</sup>, “Kirola”<sup>583</sup>, “Udaletxetik”<sup>584</sup> ataletan eta gehigarrietan<sup>585</sup> agertzen dira batez ere. Arestian aipatu bezala, *Barren* aldizkariko printzipioetako bat labor idaztea da eta albiste gehienak orri erdiko luzera izaten dute, oso gutxitan agertuz da orri osoko albisterik.

## B) ALBISTE LABURRA

Albiste laburren kopurua %35etik gora kokatzen da urtero *Barren* astekarian, 2001 eta 2002an %40ra helduz. Ondorioz, albiste laburrak bestelako informazio-generoen gainetik agertzen dira urtero, Elgoibarko aldizkarian labor idaztea araua baita eta albiste labor ugari argitaratzen dira ale bakoitzean, hamabi albiste labor bataz beste. Albiste labor gehienak, “Motzian”<sup>586</sup>, “Kontatzekuak”<sup>587</sup>, “Kirola”<sup>588</sup>, “Ikasbarren”<sup>589</sup>, “Kilimotzak”<sup>590</sup> (“Kilibarren” gehigarriaren baitan), 2000ko abenduko urtekarian<sup>591</sup> eta “Agenda”<sup>592</sup> atalean argitaratzen dira. *Barrenen*, ohiko kultura-agenda kaleratzeaz gain, hurrengo asterako programatuta dauden hainbat ekitaldi, albiste labor gisa kaleratzen dira eta agendako laburrak izendatzen dituzte. Bestalde, “Txaloak, kexak eta galderak” sekzioan irakurleek egiten dituzten galderak maiz albiste labor moduan sailkatu dira, aldizkariak galderari erantzunez albiste laborra sortzen duelako. Hona hemen adibide bat:

*“Elgoibarko auto gidari batek honako galdera luzatu digu: Elgoibarren ba al dago grua zerbitzurik? Erantzuna jakiteko Elgoibarko Udaltzainei deitu diegu eta honako hau esan digute: Elgoibarren ez dago gruarik, baina beharrezkoa denean udaltzainon ardura da Eibarko gruari deitzea eta honek jasotzen ditu autoak. Ibilgailuak erretiratzeko arrazoiak hauek izan daitezke:*

<sup>581</sup>- Adibidea: “San Pedro auzoan jolas parke bat egingo du Udalak” albiste. 2000ko urriko 337. alean. (10. or.).

<sup>582</sup>- Adibidea: “Poesia Egunak antolatu ditu Urruzuno Literatur Taldeak” albiste. 2000ko maiatzeko 320. zenbakian. (22. or.).

<sup>583</sup>- Adibidea: “Jose Mari Fernandezek irabazi du Karakateko VII. Igoera” albiste. 2000ko azaroko 343. alean. (20. or.).

<sup>584</sup>- Adibidea: “Alderdiak dimisioa eskatu dio Eulogio Perez Garay PPko zinegotziari” albiste. 2000ko martxoko 314. zenbakian. (12. or.).

<sup>585</sup>- Adibidea: “Zaharrak berri”, “Kilibarren”, Euskaltegiaren arigera”, “Gaztia naiz barren” eta “Txikibarren” gehigarrietan.

<sup>586</sup>- Adibidea: “Bernabe Mugika elgoibartarrari agurra” albiste laborra. 2000ko ekaineko 326. alean. (10. or.).

<sup>587</sup>- Adibidea: “Lau elgoibartar saritu dituzte Mendaroko V. Ipuin Lehiaketan” albiste laborra. 2000ko urtarrileko 304. zenbakian. (11. or.). “Kontatzekuak” atal hori 2000ko urtarriletik irailera arte kaleratu zen, diseinu berriarekin desagertu zen eta “Motzian” izena hartu zuen sekzioak.

<sup>588</sup>- Adibidea: “Zikloturisten irteera apirilaren 9an” albiste laborra. 2000ko apirileko 316. alean. (24. or.).

<sup>589</sup>- Adibidea: “Amaia Vegasek Durangoko Hiria akordeoi txapelketa irabazi du” albiste laborra. 2000ko azaroko 343. zenbakian. (16. or.).

<sup>590</sup>- Adibidea: “Kilimoiairen bilera lehenengo zapatuan” albiste laborra. 2000ko uztaileko 330. alean. “Kilibarren”. (4. or.).

<sup>591</sup>- Adibidea: “Cruz Arriola saritua” albiste laborra. 2000ko abenduko 345. zenbakian (9. or.).

<sup>592</sup>- Adibidea: “Erlaxazio ikastaroa” albiste laborra. 2000ko azaroko 343. alean. (25. or.).

*Badoetan aparkatuta egotea, garajeko jabeak autoa atera nahi izatea, feria egunetan edo ekitaldi bereziak daudenean eta autoak zirkulazioa oztopatzen duenean, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia galeratzen duenean eta elbarrien lekuetan edo zebrabideetan aparkatzea. Azken bi kasuetan oraindik ez ditugu autoak erretiratzen, grua bakarra baitago Eibar, Elgoibar eta Ermurako. Autoa grua eraman ezker, jabea San Roke auzoan dagoen depositora joan behar da bila eta aurtengorako jarri duten multa 8.110 pezetakoa da*<sup>593</sup>. Honelakoak, albiste labur moduan sailkatu dira.

### C) ARGAZKI-ALBISTEA

Argazki-albisten kopuruak gora egin du urteekin batera, 2000, 2003 eta 2004 urteetan argazki-albiste gehien kaleratuz. Kontuan hartu behar da, gure laginean, hiru urte horietako abenduko aleetan urtekariak aztertu ditugula eta urtekari bakoitzean<sup>594</sup> bakarrik, berrogei argazki-albiste inguru kaleratzen direla. Argazkiak berak ematen du informazioa eta ikusgarriagoa izanik, irakurketa arindu egiten du, erakargarriagoa bihurtuz. Urtekarietan argazki-albiste kopuru altua argitaratu arren, *Barren* aldizkariko beste hainbat ataletan ere argazki-albisteak agertzen dira. Esaterako, ale guztietan argitaratzen den erretratu zaharra<sup>595</sup> eta “Kilibarren” (Mendaroko gehigarrian) agertzen den erretratu zaharra<sup>596</sup>. “Argazki zaharra” agertzen den atala, aldizkariko sailik irakurrienetakoa da eta *Barren*en publizitatea egiten dutenak konturatu dira arrakasta duen saila dela; horregatik, hainbat publizitate bezerok publizitatea orri horretan (aldizkariko azken aurreko orrian) sartzeko eskatzen diote publizistari. Bestalde, “Kontatzekuak”<sup>597</sup> (2000ko uztailean arte), “Motz”<sup>598</sup>, “Kirola”<sup>599</sup>, “Ikasbarren”<sup>600</sup> sekzioetan aurkitu ditugu batik bat argazki-albisteak. Hala nola, finakoak ez diren beste sail batzuetan ere agertzen dira argazki-albisteak: “Negozioak aldatu direla”<sup>601</sup> eta “Nola aldatu diren gauzak”<sup>602</sup> sailetan esaterako.

### D) ERREPORTAJEA

<sup>593</sup>- 2000ko urtarrileko 304. zenbakian. (5. or.).

<sup>594</sup>- 2000ko abenduko 345. zenbakiko urtekarian berrogei argazki-albiste, 2003ko abenduko 470. aleko urtekarian berrogeita zortzi argazki-albiste eta 2004ko abenduko 512. zenbakiko urtekarian berrogeita bi argazki-albiste kaleratu dira.

<sup>595</sup>- Adibidea: 1943. urteko San Bartolome jaietako lagun koadrilaren argazki zaharra. 2001eko urtarrileko 348. zenbakian. (26. or.).

<sup>596</sup>- Adibidea: 1966an Mendaroko futbol taldeko argazki zaharra. 2001eko abenduko 386. alean. “Kilibarren” 80. zenbakian. (4. or.).

<sup>597</sup>- Adibidea: “Lan istripuen aurkako eskualdeko kontzentrazioa egin zen Elgoibarko plazan”. 2000ko otsaileko 309. alean. (11. or.).

<sup>598</sup>- Adibidea: “Gurean Bai hitzarmenak iazko urtean egindako lanaren balorazio positiboa egin du”. 2001eko apirileko 360. zenbakian. (11. or.).

<sup>599</sup>- Adibidea: “Goenaga eta Iriondok 22-5 galdu dute Pilotako Euskal Ligako finala”. 2002ko martxoko 395. alean. (21. or.).

<sup>600</sup>- Adibidea: “Ikastolako ikasleak Kutxa-Espazio zientzia museoan izan ziren”. 2001eko martxoko 354. zenbakian. (11. or.).

<sup>601</sup>- Adibidea: 1921 eta 1990 urteetako negozioak alderatzen dira. 2000ko urriko 27. alean. (9. or.).

<sup>602</sup>- Adibidea: 1975 eta 2001 artean Elgoibarko etxe baten konparazioa. 2000ko martxoko 354. zenbakian. (10. or.).

Erreportajeen kopurua oso orekatua izan da bost urte hauetan, urtero %5-6ko portzentajea izanik. Erreportaje kopurua ale bakoitzean aurrez definitzen saiatzen dira eta normalean, bi orriko asteko erreportaje nagusia<sup>603</sup> eta “Kilibarren”<sup>604</sup> eta “Gaztia naiz barren”<sup>605</sup> gehigarrietan agertzen diren erreportajeak finkoak dira. Horiez gain, noizbait “Kultura” edo “Kirolak” ataletan erreportajeren bat kaleratu izan da, baina ez da ohikoa; arestian aipatu bezala, generoen arteko oreka mantentzeko ohitura dago eta informazio gehiena era laburrean ematen saiatzen dira. Une zehatzetan argazki-erreportajeak ere kaleratzen dira, jaiak direnean adibidez<sup>606</sup>. 2000. urteko urtarriletik uztaile arte, diseinua aldatzen den momentura arte alegia, “Gogoratzuz”<sup>607</sup> sekzioan agertzen diren informazioak ere, erreportaje moduan kodifikatu ditugu. Atal horretan Elgoibarko pertsona ospetsuen bizitzari buruzko datu zehatz eta informazio osatua jasotzen baita. Atal hori 2000. urtean bakarrik argitaratzen da.

### **E) ELKARRIZKETA**

Elkarrizketa kopuruak behera egin du nabarmen, bost urteetan zehar ia erdira jaitsiz. 2000. urtean berrogei elkarrizketa kaleratzen dira eta 2001etik aurrera, hogeita hiru elkarrizketa inguru argitaratzen dira. Kontuan hartu behar da, hasierako urtean elkarrizketa txikiak egiten diren hiru sail daudela: “Ispiluari begira”<sup>608</sup>, “Bai esan”<sup>609</sup> eta “Norbere ofizioan”<sup>610</sup>.

Bestalde, “Zaharrak berri” eta “Kale zulotik baserrira” gehigarrietako bakoitzean elkarrizketa bat agertzen da eta bi horiek 2001etik aurrera desagertu egin dira. 2000. urtean “Ikasbarren” atalaren ordean, “Gaztaroa”<sup>611</sup> saila argitaratzen da eta bertan gaztetxoren bati elkarrizketa bat egiten zaio beti.

2001etik aurrera, gehigarri ezberdinetan agertzen diren elkarrizketez gain, “Berbetan”<sup>612</sup> atalean agertzen den elkarrizketa, “Kultura”, “Kirolak” eta “Erreportajea” ataletako elkarrizketak

<sup>603</sup>- Adibidea: “Laino guztien azpitik eta olatu guztien gainetik” erreportajea. 2001eko azaroko 383. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>604</sup>- Adibidea: “Kilimon Futbol Taldea, etorkizun beltza” erreportajea. 2001eko maiatzeko 364alean. “Kilibarren” 74. zenbakian. (2. or.).

<sup>605</sup>- Adibidea: “Kirolak eta arriskuak bat egiten dutenean...”. 2001eko uztaileko 371. alean. “Gaztia naiz barren” gehigarrian. (4.-5. or.).

<sup>606</sup>- Adibidea: 2000ko iraileko 332. alean argitaratzen den San Bartolome jaietako argazki-erreportajea. (18. or.).

<sup>607</sup>- Adibidea: “Jose Mari Etxabe Etxaniz (1912-1979) gogoratzuz”. 2000ko urtarrileko 304 zenbakian. (18. or.).

<sup>608</sup>- Adibidea: Rosa Mari Daquinta, Netto merkatalguneko paper dendakoari egindako elkarrizketa. 2000ko urtarrileko 304. alean. (9. or.).

<sup>609</sup>- Adibidea: Miren Lore Zubizarreta Rezola gasolindegiko langileari egindako elkarrizketa. 2000ko martxoko 314. zenbakian. (5. or.).

<sup>610</sup>- Adibidea: Jesus Mari Etxeberria, Etxeberria ehortzetxeko langileari egindako elkarrizketa. 2000ko iraileko 332. alean. (9. or.).

<sup>611</sup>- Adibidea: Leire Arruabarrena ikasleari egindako elkarrizketa. 2000ko apirilko 316. zenbakian. (27. or.).

<sup>612</sup>- Adibidea: “Ama batek semearengatik edozer egingo luke”, Dominga Astigarragari egindako elkarrizketa. 2000ko azaroko 341. alean. (17. or.).

eta hilean behin prestatzen den elkarrizketa sakona<sup>613</sup> argitaratzen dira. Beraz, 2001etik aurrera, Elgoibarko aldizkarian agertzen den elkarrizketa kopurua finkatu egiten dela esan daiteke.

## F) KRONIKA

Beste generoekin alderatuz, kronika gutxitan agertzen da *Barren* aldizkarian; une zehatzetan erabili den informazio-generoa izan da eta emaitzak begiratzea baino ez dago horretaz konturatzeko. 2000, 2002 eta 2003an bakarrik agertzen dira kronikak. 2000. urtean agertzen diren zortzi kronikak "Elgoibartik... (Munduko leku batera)"<sup>614</sup> eta "Elgoibartarrak munduan zehar"<sup>615</sup> ataletan aurkitu dira. 2002 eta 2003an kaleratzen diren guztiak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen 40. urteurrena dela eta, astero argitaratzen diren kronikak<sup>616</sup> dira.

### Informazioaren bilakaera bi hitzetan

Laburbilduz, informazioa urtetik urtera poliki-poliki bada ere, hazi egiten da, azken bi urteetan informazioaren igoera nabarmenagoa izanik. Albisteak eta argazki-albisteak goranzko joera erakusten dute. Albiste laburren kopurua urtero mantendu egiten da berau izanik informazio-generorik indartsuena. Erreportajeen kopurua ez da aldatzen eta nahiko baxua da urtero eta elkarrizketak, gero eta presentzia urriagoa dute aldizkarian urteak pasa ahala. *Barrenek* kaleratzen duen ale bakoitzean eta gehigarri bakoitzean informazio-genero ezberdinen oreka mantentzen du, gehien bat informazioak era laburrean idatziz.

### 4.3.3.2- Iritzia

Gure azterketa-epean Elgoibarko astekarian iritziak %16ko portzentajea izan du. *Barrenen* iritzi-genero ezberdinek izan duten bilakaera nolakoa izan den aztertuko dugu hurrengo bi grafiko eta taulen bitartez. Lehenengo grafikoa eta taulan, 2000-2004 bitartean iritzi-generoen agerpen orokorra ikusiko dugu. Bigarren grafiko eta taularen bitartez, iritzi-genero bakoitzak Elgoibarko astekarian izan duen bilakaera urtez urte zein izan den azalduko dugu.

<sup>613</sup>- Adibidea: "Osasunarentzat ez dao astian behin sauna eta masaje sesio bat hartzia baino hoberik", Pedro Ezkurra masajistari egindako elkarrizketa. 2001eko martxoko 354. zenbakian. (13.-14.-15. or.).


<sup>614</sup>- Adibidea: "Elgoibartik Ginebrara", Kristina Etxanizek idatzitako kronika. 2000ko otsaileko 309. zenbakian. (18. or.).

<sup>615</sup>- Adibidea: Itziar Ajuriak Errusiako bidaiari buruz idatzitako kronika. 2000ko azaroko 343. alean. (5. or.).

<sup>616</sup>- Adibidea: "10 Barren urteurrena: Auskalo zenbat laguntzaile!" kronika. 2002ko urriko 421. zenbakian. (3. or.).

## 4.3.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean

42E. grafikoa



Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

42F. taula

	Kritika	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutunak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	11	80	99	299	489

Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Guztira 489 iritzi-item kaleratu dira *Barrenen* bost urteko epean. Iritzi-generoak oso finkatuta daude aldizkarian eta urtero genero berberak agertzen dira: zutabeak, inkestak eta irakurleen gutunak hain zuzen ere. Kritikak ez dira ohikoak Elgoibarko aldizkarian eta guk aztertu ditugun hirurogei aleetan agertu direnak, “Gaztia naiz barren” gehigarrian kaleratu dira. *Barrenen* finakoak diren iritzi-genero guztietan, herritarren parte-hartzea eskatzen da; aldizkariak herritar ezberdinak gonbidatzen ditu iritzi-zutabeetan nahi dutenari buruz idatz dezaten. Kale-inkestaren bitartez, herritarrei zuzenean eskatzen zaie iritzia, gai bati buruz galdetuz. Eskutitzen atala, irakurleak bere iritzia emateko zabalik lagatzen den espazioa da. Guztietan herritarren iritziak eta horien parte-hartze aktiboa beharrezkoa da. “*Herritarren parte-hartzea oso da azpimarratzekoa, % 38ak inoiz idatzi baitu Barrenen eta % 42,9ren argazkia agertu da inoiz*” (Larrañaga, Gabantxo eta Aranguren, 1997: 33).

*Barrenen* ez da inoiz editorialik kaleratu eta guk aztertu dugun epean ere ez da aldizkariaren iritzirik argitaratu editorial gisa. Hasieran hartutako erabakia izan zen editorialik ez plazaratzearena, “*neutraltasunaren*” izenean. Eta badirudi ideologia aldetik irakurleen

gehiengoak ez duela korrante politiko konkretu batekin lotzen: “*Irakurlegoaren % 65,7ak ez dio kutsu ideologikorik hartzen eta hartzekotan % 8,6ak HB alderdiarena hartzen dio*” (Larrañaga, Gabantxo eta Aranguren, 1997: 33). Esandakoaren harira, gogora dezagun Iñaki Mendigurenek *Arrasate Press*-en irizpidea editorialari buruz idatzitakoa:

*“Herriko alderdi politiko guztien onespina bereganatu du, PSOE izanik salbuespen bakarra, honek elebidun izatea eskatzen baitu. Honetan asko lagundu du, seguraski, aldizkariak berak ‘irizpide editorial’ bat ez izateak; ‘neutralitate’ honek ez du esan nahi aseptikoa dela eta eduki konprometigarriak baztertzen dituenik, baizik eta herritar guztien iritzietara irekia dagoela eta edonoren partaidetzarako plataforma dela”* (Mendiguren, 1992: 97).

### **A) IRAKURLEEN GUTUNAK**

*Barren* ere iritzi guztiak kontuan hartzen saiatzen da eta hori irakurleen gutunetan igartzen da. 2000-2004 bitartean irakurleen gutunak dira iritzi-genero indartsuena, guztira berrehun eta laurogeita hemeretzi gutun kaleratu baitira. Hau da, iritzi-generoen erdia baino gehiago irakurleen gutunak izan dira.

Elgoibarko astekarian hasieratik kaleratzen da herritarren parte-hartze zuzena bilatzen duen iritzi atal hau. Astero, irakurleek bidaltzen dituzten gutunak<sup>617</sup> argitaratzen dira aldizkarian eta argitaratu gabe geratu direnean, arauak betetzen ez dituztelako edo postontzian sinatu gabe agertu izan direlako izan da.

Bestalde, *Barren* aldizkarian gutunekin batera “Txaloak, kexak eta galderak” atala kaleratzen da eta hemen agertzen diren kexak eta txaloak gutun moduan hartu ditugu. Herritarrek telefonoz, e-postaz edo aldizkarira hurbilduz euren kexa edo txaloen berri ematen dute. Azken horiek izen eta abizenik gabe argitaratzen badira ere, aldizkariko erredaktoreei izen-abizen eta telefonoa utzi behar diete. Atal berean galderak ere agertzen dira, baina horiek albiste labur moduan hartu dira, herritarrak egiten duen galderari erantzunez, *Barrenek* albiste laburra egiten duelako. Sail horrek arrakasta handia lortu du herritarren artean eta aldizkariari arazo bat baino gehiago ekarri dio:

*“Arrakasta handia duela ez dago zalantzarik, baina niretzat atal horrek arrisku handia du, hor inoiz ez da izen eta abizenik ematen. Guk eskatzen diegu izena, abizena eta telefonoa*

---

<sup>617</sup>- Gutunak argitaratzeko honako baldintza hauek bete behar dira: Luzera, identifikatuta egotea, irainik ez agertzea eta sinatzerakoan, gutunak norbaiti edo erakunde bati aipamen zuzena egiten badio, izen eta abizen osoekin sinatu behar da, bestela inizialekin soilik eta NAN zenbakiarekin agertzeko aukera dauka.

*baina argitaratzen direnean beti dira anonimoak eta horrek, behin edo behin arazoak sortu izan dizkigu. Norbait zer edo zergatik kexaka etorri eta guk sinistu egiten diogu eta gero agian ez da egia, ba pentsa! Gainera atal horretako kexa gehienak udalaren aurkakoak izaten dira eta udalak, noski, atal hori gorroto du. Behin baino gehiagotan izan ditugu kexak eta udaltzaina etorri zaigu esanez argitaratutakoa gezurra dela. Pare bat arazo serio izan ditugu atal horrekin. Baina bestalde, alde on hori dauka, izugarrizko arrakasta dauka, jendea askotan udalera kexatzera etorri baino lehen, guregana etortzen da eta behin baino gehiagotan esan behar izan diegu, lehenengo dagokion tokian kexatzeko eta kasurik egiten ez badiete etortzeko guregana, baina lehenengo bertara joateko”<sup>618</sup>*, gogoratzen du Asier Orbeak, aldizkariko kazetariak.

## **B) ZUTABEA**

Zutabeei dagokionez, Armañanzas eta Díaz Nociren arabera, zutabearen bereizgarri nagusia, adierazpenetan duen askatasuna da. Zutabea idazkeran bikaina da eta figura erretorikoetan aberatsa.

Aztertu dituen hirurogei aleetan laurogeita hemeretzi iritzi-zutabe aurkitu ditugu. Beraz, zailtasunak zailtasun, azken hiru urteetan zutabegile ezberdinen konpromisoari eustea lortu du Barrenek. Kolaboratzaileak lortzerako orduan, perfil ezberdina duten idazleak bilatzen ahalegintzen dira, aldizkarian kaleratzen diren iritzietan pluraltasuna lortzeko. “*Kolaboratzaile onak aldizkariaren gatza eta piperra izan ohi dira. Jakin eta gero nortzuk izango diren, lekua egin behar zaie. Komenigarria da bakoitzari beti neurri bateko kolaborazioa eskatzea, bestela sekulako anabasa izateko arriskua dago*” (Aranzabal, 1992: 80). Horrela bada, 2000-2004 bitartean Barren aldizkarian bi motako zutabegileek hartzen dute parte: batetik kazetari profesionalek eta bestetik, kazetari ez diren profesionalek: irakasleak, politikan ari den jendea, gizarte mugimenduetan mugitzen den jendea... adina eta sexuaren arabera jende ezberdina bilatzen saiatzen dira Elgoibarko aldizkarian.

## **C) INKESTA**

Inkestaren atala betidanik argitaratu da Barrenen eta horren arrazoi nagusia irakurleen artean duen arrakasta da. Horren erakusle dira ikerketa ezberdinetako emaitzak: “*Motzian, kontatzekuak, fotozaharra, Udaletxetik udalerrira eta inkesta dira beti irakurtzen diren atalak*” (Larrañaga, Gabantxo eta Aranguren, 1997: 33).

---

<sup>618</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

“Inkesta” jendeak irakurtzen duen atala dela argi dauka Asier Orbeak ere, eta ezaguna den jendearen argazkia eta iritzia paperean ikusteak erakargarri bihurtzen duela atala:

*“Hor oso ondo funtzionatzen du norberaren auzokoa ikustea. Zer esaten duen eta zer pentsatzen duen, eta argazkiak bakarrik erakargarri bihurtzen du kaleko inkesta. Sailik arrakastatsuenetakoa dela argi dago beste batzuekin batera. Erretratu zaharra, kexak eta txaloak edo zorion agurren atalarekin batera. Pentsa! publizitatea egiten dutenek atal horietan sartzeko eskatzen digute. Beraz, horren arabera guk badakigu zeintzuk atal irakurtzen diren gehien”<sup>619</sup>.*

Guztira laurogei inkesta aurkitu dira lan honetan aztertu diren *Barren* aldizkariko hirurogei zenbakietan. Ale bakoitzean finkoa den inkestaz gain, gehigarri ezberdinetan agertzen diren inkestak ere kaleratu direlako, “Txikibarren” edo “Euskaltegietan arigera” gehigarrietan adibidez.

#### **D) KRITIKA**

Kritika kopurua oso txikia izan da 2000-2004 bitartean, hamaika kritika baino ez dira kaleratu eta guztiak, “Gaztia naiz barren” gazteei zuzendutako gehigarrian. Izan ere, 2000. urtea baino lehen, hilean behin liburu eta disko baten kritika egiten zen eta atal horiek aldizkariaren barnean lantzen ziren, baina gazteen gehigarriak egiten hasi zirenean, kritikak gehigarriera pasa ziren zuzenean. Gazteek eurek aukeratutako disko eta liburuei buruzko kritikak egiten ahalegindu ziren, baina saiakera baino ez zen izan, ez baitzuen erantzun onik lortu eta musikan eta literaturan adituak direnengana jo zuten.

#### **Iritzia bi hitzetan**

Beraz, iritziari eskaintzen zaion espazioa finkoa da aldizkarian eta iritzi-genero berberak argitaratzen dira bost urteetan zehar: iritzi-zutabeak, inkestak eta irakurleen gutunak. Kritikak inoiz agertu dira gazteei zuzendutako gehigarrietan, literatura eta musika kritikak hain zuzen ere. *Barrenen* beti argitaratzen diren hiru iritzi-generoetan herritarren parte-hartze zuzena eskatzen da. Gutunen atala da agerpenari dagokionez iritzi-generorik garrantzitsuena gure azterketa-epean, iritzi osoaren erdia baino gehiago gutunak izan dira. Alde batetik ohiko irakurleen gutunak argitaratu dira eta bestetik, herritarrak aldizkarira bidaltzen dituzten eta irakurleen artean


<sup>619</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.



arrakasta handia duten kexa eta txaloen atala. Zutabea, irakurleen gutunen ostean gehien agertzen den iritzi-generoa da, profil ezberdineko zutabegileen parte-hartzea lortu dutelako 2000-2004 bitartean. Inkesta hasieratik landu den iritzi-generoa da eta urteekin mantendu egin dena, erakargarria eta asko irakurtzen delako, horregatik gehigarri ezberdinetan ere erabiltzen den iritzi-generoa da inkesta.

#### 4.3.3.2.- Iritziaren bilakaera

43E. grafikoa



Iritzi-generoen bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

43F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Kritika	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutunak	GUZTIRA
	2000	1	20	19	49	89
	2001	4	19	30	45	98
	2002	4	12	24	48	88
	2003	2	14	18	66	100
	2004	0	15	27	72	114

Iritzi-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Irakurleen gutunak, zutabeak eta inkestak dira iritzi-genero garrantzitsuenak *Barren*en. 43E. grafikoa eta 43F. taulan agertzen diren datuek adierazten dutenez, hiru iritzi-genero horiek 2000-2004 bitartean, finkoak dira Elgoibarko astekarian. Oro har iritziaren portzentajeak gora egin du urteekin batera eta kopuru orokorrak begiratu gero, argi dago urtetik urtera gero eta iritzi-item gehiago argitaratzen direla aldizkarian. Datuen gorabehera horretan, irakurleen

gutunek dute zerikusi zuzena, urtetik urtera eta aletik alera iritzi-genero aldakorrena gutunen atala delako, inkesta eta zutabe kopurua askoz finkoagoa baita ale bakoitzean.

### A) KRITIKA

Guk aztertu dugun epean kritika iritzi-genero gisa ez da *Barren* aldizkarian asko agertzen, nahiz eta aurreko epean gehiago landu izan den. Horren adibide, 2000ko martxoko 314. zenbakian, “Kultura” sailean Jon Gurrutxagak idatzitako “Blues sentimendua eta rock gogorra” musika kritika bakarra da. 2001etik 2003ra bitartean agertzen diren kritika guztiak “Gaztia naiz barren” gehigarrian kaleratzen dira. Gehigarri bakoitzean musika kritika<sup>620</sup> eta literatura kritika<sup>621</sup> bat argitaratzen da, 2001eko uztailan eta irailean hain zuzen ere. 2002ko urtarrilean eta maiatzan eta 2003ko martxoan. 2004an ez da gehigarririk kaleratzen, ezta inolako kritikarik ere ez.

### B) INKESTA

Inkesta kopurua urtetik urtera jaitsi egiten da eta beherakada 2000tik 2002ra nabarmenagoa da, zortzi puntutan behera egiten baitu. 43E. grafikoan ikusten denez, 2000. urtean inkesten portzentajea %22ra heltzen da eta 2002an %14ra jaisten da. 43F. taulan agertzen diren kopuru absolutuetan ere jaitsiera argia sumatzen da: lehenengo urtean hogeit hamar inkesta kaleratzen dira eta 2002an zortzi inkesta gutxiago, hamabi hain zuzen ere. Hasierako bi urteetan ale bakoitzean ohikoa den inkesta<sup>622</sup> eta gehigarri ezberdinetan argitaratzen diren inkestak kaleratzen dira: “Zaharrak berri”<sup>623</sup>, “Kilibarren”<sup>624</sup>, “Txikibarren”<sup>625</sup> eta “Euskaltegietan arigera”<sup>626</sup> gehigarrietakoak.

Bestalde, “Alkatea banintz...”<sup>627</sup> atala, hasierako bi urteetan kaleratzen da soilik. 2002tik aurrera gehigarri gutxiago daude (“Kilibarren”, “Txikibarren” eta 2003ko martxora arte “Gaztia

<sup>620</sup>- Adibidea: Jon Gurrutxagak idatzitako “MS 2000: Dreams and exprensions, Michael Shenker” diskoaren kritika. 2001eko uztaileko 371. zenbakiko “Gaztia naiz barren” gehigarrian. (2. or.).

<sup>621</sup>- Adibidea: “Agurea eta itsasoa, Ernest Hemingway”, Jon Eugik idatzitako liburuaren kritika. 2001eko uztaileko 371. alean. “Gaztia naiz barren” gehigarrian. (3. or.).

<sup>622</sup>- Adibidea: “Eguneroko bizimoduan eragiten al dizu eguraldiak” kale-inkesta. 2000ko ekaineko 326. zenbakian. (23. or.).

<sup>623</sup>- Adibidea: “Zertan ematen duzu denbora libre?” inkesta. 2000ko otsailko 309. alean. “Zaharrak berri” gehigarriaren 41. zenbakian. (3. or.).

<sup>624</sup>- Adibidea: “Zer iruditzen zaizu musika eskola martxan jartzea?” kale-inkesta. 2001eko apirilko 360. alean. “Kilibarren” 73. zenbakian. (3. or.).

<sup>625</sup>- Adibidea: “Zer da zuretzat estresa?” eta “Zer deritzozu ‘Gran Hermano’ eta halako programei buruz?”. 2003eko iraileko 457. alean. “Txikibarren” gehigarriaren 4. zenbakian. (3. or.).

<sup>626</sup>- Adibidea: “Euskara ez da galduko ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik konforme zaude J. Artzeren esaldi honekin?”. 2001eko azaroko 383. alean. “Euskaltegietan arigera” gehigarrian. (2.-3. or.).

<sup>627</sup>- Adibidea: 2000ko iraileko 332 alean (5. or.), urriko 337 zenbakian (5. or.), 2001eko otsailko 349. alean (5. or.) eta iraileko 376. zenbakian (5. or.).

naiz barren”) eta ohikoa den inkesta argitaratzen da ale bakoitzean. “Txikibarren” gehigarriko inkesta finkoa da gehigarria kaleratzen den guztietan. Salbuespen moduan, 2003ko iraileko 458. zenbakian agertzen den inkesta aurkitu dugu. “Jende ugari bildu zen Txankakua Merkatarik Elkartearen jaialdian” albistearen osagarri agertzen da inkesta. Bertan, lau herritarrei jaialdiari buruz galdetzen zaie: “Zer iruditu zaizu Txankakua Merkatarik Elkartearen jaialdia?”<sup>628</sup>.

### C) ZUTABEA

Iritzi-zutabeen kopuruak aldiz, gora egiten du urtetik urtera. 2000. urtean aldizkarian iritzi-emaile gehiago lortzeko ahalegina egiten da eta 2000 urtetik 2001erako igoera nabarmena da oso. Portzentajeetan hamar puntutan egiten dute gora zutabeek. 2000. urtean, urtarriletik uztaile bitartean ale bakoitzean iritzi-zutabe bat kaleratzen da. 2000ko irailetik aurrera eta aldizkariaren diseinu berriarekin batera, iritzi kolaborazioak indartu egiten dira eta protagonismo gehiago hartzen dute aldizkarian. Ale bakoitzean bi zutabe<sup>629</sup> finko kaleratzen dira eta “Urruzunoren begi ezkutua” atalean, zutabe gisa idatzitako testuak<sup>630</sup> agertzen dira maiz. Beste batzuetan Urruzuno Literatur taldeko kideek literatura idazten dute (ipuin txikiak).

2002ko urritik 2003ko abendura arte, zutabe finko bakarra kaleratzen da ale bakoitzean. Kasu horretan, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen 40. urteurrenaren ospakizuna da arrazoia. Hots, bigarren zutabearen orde, Elgoibarko Izarraren kronika argitaratzen da. 2004tik aurrera berriz argitaratzen dira bi iritzi-zutabe finko.

### D) IRAKURLEEN GUTUNAK

Eskutitzen atala da zalantzarik gabe iritziaren barnean *Barren* aldizkarian gehien lantzen dena. Urtero iritzi atalaren %50etik gora, irakurleen gutunek osatzen dute Elgoibarko aldizkarian. Arestian aipatu dugun bezala, gutunez gain, “Kexak, txaloak eta galderak” sailean sartzen diren iritziak telefonoz jasotzen ditu *Barrenek*, eta guk gutun bezala kodifikatu ditugu. Aurreko atalean ikusi dugun moduan, guztira, bost urteko epean berrehun eta laurogeita hameretzi gutun jaso dira Elgoibarko astekarian. Lan honetan azertu diren Deba Barreneko sei agerkarien artean *Barren* da irakurleen gutun kopuru handiena kaleratu duen aldizkaria. Eibarko ...*Eta kitto!*-k, astekaria izanda, 2000tik 2004ra bitartean ehun eta hamaika gutun kaleratu ditu. *Barrenen* argia ikusi duten berrehun eta laurogeita hameretzi gutunetatik, laurogeita bederatz

<sup>628</sup>- 2003ko iraileko 458. alean. (18. or.).

<sup>629</sup>- Adibidea: “Egunak”, Montse Arregik idatzitako zutabea eta “Berdinetan gaude”, Nestor Fuentesek sinatutako zutabea. 2001eko abenduko 386. alean. (3. or.).

<sup>630</sup>- Adibidea: “Belaunaldi pasota”, Jon Eugiren zutabea (Urruzunoren begi ezkutua). 2004ko otsaileko 475. zenbakian. (4. or.).

“Eskutitzak”<sup>631</sup> atalean kaleratu dira eta ehun eta berrogei “Kexa eta txaloen”<sup>632</sup> atalean. Beraz, gutun kopuruaren igoeran

“Kexak eta txaloak” sailak zerikusi zuzena dauka, atal horretako gutunak gehiago baitira urtero. Hala eta guztiz ere, 2003 eta 2004 urteetan irakurleen gutunak eta kexak areagotu egin dira. Ikus ditzagun urteroko datuak: 2000 urtean, hogeita hiru kexa eta hemeretzi eskutitz kaleratzen dira. 2001ean, hogeita sei kexa eta hamahiru eskutitz, 2002an hogeita lau kexa eta hamahiru eskutitz, 2003an hogeita hamabost kexa eta hogeita hiru eskutitz eta 2004an hogeita hamabi kexa eta hogeita hiru eskutitz argitaratzen dira.

### **Iritziaren bilakaera bi hitzetan**

Orokorrean iritzi kopurua hazi egin da urtetik urtera Elgoibarko astekarian eta bertan agertzen diren iritzi atalak eta generoak, finkoak dira. Kritikak noizean behin agertu dira gazteen gehigarrian. Iritzi-zutabeak eta irakurleen gutunak urteak pasa ahala sendotu eta indartu egiten dira. Zutabeak areagotu egiten dira aldizkariak kolaboratzaile finko gehiago dituelako eta irakurleen eskutitzak gehiago dira, irakurleen gutunak, txaloak eta kexak hazi egiten direlako etengabe. Inkestak, aldiz, urteekin gutxiago agertzen dira. Horren arrazoi nagusia honako hau da: urteek aurrera egin ahala, hasierako urteetan baino gehigarri gutxiago argitaratzen dira, beraz gehigarrietan agertzen diren inkestak desagertu egiten dira. Inkesta eta zutabe kopurua aletik alera oso finkoa da, irakurleen gutunen kopurua askoz aldakorragoa izanik.

### **4.3.3.3- Literatura**

Literaturaren agerpena *Barren* aldizkarian txikia da benetan, bataz beste %1ean kokatzen da literaturaren portzentajea aztertu ditugun hirurogei aleotan. Gutxi bada ere, ikus dezagun hurrengo bi ataletan nolakoa izan den literatura-genero ezberdinen bilakaera.


Lehenengo urrats batean 2000-2004 bitartean literatura-genero ezberdinek aldizkarian izan duten agerpen orokorra ikusiko dugu. Bigarren urratsean, aldiz, zehatzago aztertuko dugu literatura-genero bakoitzak urtez urte izan duen garapena.

<sup>631</sup>- Adibidea: “Elgoibarko Eskola kirolari buruz”, L.I.A-k idatzitako gutuna. 2003ko apirilaren 443. alean. (4. or.).

<sup>632</sup>- Adibidea: “Gizonezko batek esan digunez, Sigma auzoan ez du inork debeku seinalea errespetatzen: Auzoan debeku seinale bat dago, eta askotan, kotxe gidariek ez dute errespetatzen. Egun baten ume bat harrapatu zuten ia, horrela jarraitzen badute, egunen batean damutzeko istripuren bat gertatuko da” kexa. 2003ko uztaileko 453. zenbakian. (5. or.).

## 4.3.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean

44E. grafikoa



Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

44F. taula

	Ipuinak	Bertsoak	Txistek	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	31	1	2	34

Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Literatura ez da gehiegi landu *Barren* astekarian, 2000-2004 bitartean, 34 item baino ez ditugu aurkitu-eta. Hala eta guztiz ere, 44E. grafikoa eta 44F. taulako datuak begiratzea baino ez dago, gehien agertzen den literatura-generoa ipuinena dela konturatzeko.

**A) IPUINAK**

Ipuin moduan hartu ditugu “Urruzunoren begi ezkutua” atalean agertzen diren hogeita zortzi testu. Behin baino gehiagotan aitatu dugu lan honetan, “Urruzunoren begi ezkutua” sekzioan argitaratzen diren testu batzuk, iritzi-zutabe gisa kodifikatu direla. Baina beste batzuk ordea, Urruzuno Literatur taldekoek sortzen dituzten ipuin txikiak dira eta ipuin moduan sartu sailkatu ditugula. Horiek dira hain zuzen ere aipatu hogeita zortzi testuak.

Bi ipuin “Txikibarren”, umeen gehigarrian argitaratu dira eta beste bat, 2004ko abenduko “Idazlehiaketa” gehigarri berezian. Normalean ipuinak kaleratzen direnean, “Txikibarren” gehigarrian argitaratzen dira edo bestela, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatzen duen idatz lehiaketan sarituak izan diren idazlanekin, “*Laiotz*” aldizkari berezia kaleratzen da. Guk aztertu dugun epean, urtero “*Laiotz*” argitaratu da, baina 2005ean kaleratzeari utzi zioten.

## **B) BESTEAK**

Bertso bakarra kaleratu da guk aztertu ditugun hirurogei aleetan, 2004ko azaroko 508 zenbakiko “Txikibarren” gehigarrian hain zuzen ere. Gure azterketa-epean argitaratu diren bi txistek ere, “Txikibarren” gehigarrian aurkitu ditugu.


Literatura gazteei zuzendutako gehigarrietan agertzen da *Barren* aldizkarian. Hala ere, Urruzuno Literatur taldearen lanari etekina ateratzen zaio iritzi orrietan, adin guztietako jendeari zuzenduta baitago. Iritziarekin uztartuz, atal horretan idazleari literatura lantzeko beste aukera bat eskaintzen zaio eta irakurleari, ipuin laburren bitartez literatura irakurtzeko aukera. Agian orri osoko ipuina izango balitz, irakurleak ez luke irakurriko, baina bai ordea, orri laurdeneko ipuina. Labur idaztearen printzipioa atal horretan ere kontuan hartzen da.

### **Literatura bi hitzetan**

Oro har, literaturaren agerpena Elgoibarko astekarian minimoa da, guztira hogeita hamalau idatzi argitaratu dira 2000-2004 bitartean. Horietatik hogeita hamabi ipuinak izan dira, batez ere iritzi orrietan Elgoibarko Urruzuno Literatur taldeko kolaboratzaileek idazten dituzten ipuin laburrak.

## 4.3.3.3.2- Literaturaren bilakaera

45E. grafikoa



Literatura-generoen bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

45F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Ipuinak	Bertsoak	Txisteak	GUZTIRA
	2000	2	0	1	3
	2001	5	0	0	5
	2002	7	0	0	7
	2003	7	0	1	8
	2004	10	1	0	11

Literatura-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Oso leku gutxi eskaintzen zaio literaturari *Barren* aldizkarian, baina urteekin gero eta literatura-item gehiago argitaratzen direla igartzen da. Gehienak “Urruzunoren begi ezkutua” atalean agertzen diren ipuin txikiak dira.

### A) IPUINAK

2000tik 2002ra urtero agertzen diren ipuin guztiak<sup>633</sup>, bertan kaleratu dira. 2003an kaleratzen diren sei item “Urruzunoren begi ezkutua” atalean argitaratzen dira eta ipuin bat<sup>634</sup> “Txikibarren” gehigarrian. 2004an argitaratzen diren hamar itemetatik, zortzi “Urruzunoren begi ezkutua” atalean kaleratzen dira, bat “Txikibarren” gehigarrian eta beste ipuin bat<sup>635</sup>

<sup>633</sup>- Adibidea: Mikel Artolak idatzitakoa. 2001eko urtarrileko 348. alean. (4. or.).

<sup>634</sup>- Adibidea: “Trikua eta hartz” ipuina. 2003ko iraileko 457. alean. “Txikibarren” gehigarriaren 4. zenbakian. (4. or.).

<sup>635</sup>- Adibidea: “Sekretu bat daukat” ipuina, Nerea Gurrutxaga idatzitakoa. 2004ko abendu 512. zenbakian. (20. or.).

“Idazlehiaketa 2004”<sup>636</sup> gehigarri berezian. Aipatu dugu behin baino gehiagotan, “Urruzunoren begi ezkutua” ataleko hasierako asmoa, taldeko kide batek gai baten inguruan bere ikuspegia ematea zen testuari ukitu literarioa emanaz. 45F. taulan agertzen diren datuek erakusten dutenez, gero eta gehiago dira iritzi soila ematea baino, literatura idaztea nahiago duten literatura taldeko kideak.

## **B) BERTSOAK**

Bertsoak kaleratzeko ohiturarik ez dago Elgoibarko aldizkarian guk aztertu dugun epean bederen. Horrek ez du esan nahi bertsolaritzak aldizkarian tokirik ez duenik. Gehien lantzen den gaien artean ez badago ere, gai moduan eta aurrerago ikusiko dugunez, bertsolaritza agertzen da. Aztertu ditugun hirurogei aleetan, 2004ko azaroko 508. zenbakiko “Txikibarren” gehigarrian kaleratu da bertso bakarra.

## **C) TXISTEAK**

Txistek ere “Txikibarren” gehigarrietan agertzen dira, 2000ko maiatzeko 320. alean eta 2003ko iraileko 457. zenbakian hain zuzen ere. Gehigarri guztiak *Barren* aldizkariako kazetariak egiten dituzte eta bertan agertzen diren kazetaritza-generoak, aurrez zehazten dira eta oso finkoak dira. Horregatik, gehigarri horietan agertzen diren txiste eta bertsoak salbuespenak direla esan daiteke, normalean ez baitituzte sartzen.

### **Literaturaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, aldizkarian argitaratzen den literatura apurra hazi egiten da urtetik urtera, “Urruzunoren begi ezkutua” atalean kaleratzen diren ipuinei esker. Txistek eta bertsoak oso agerpen puntuala izan dute aldizkarian, ez-ohikoa.

---

<sup>636</sup> Elgoibarko Izarra Euskara Elkarteak, Elgoibarko Atxutxiamaiaka aisialdi taldearekin batera, 2004ko gabonetan antolatu zuen lehiaketa hau, Lehen Hezkuntzako ikasleak idaztera animatzeko helburuarekin. Ipuin eta marrazkiekin gehigarri berezia kaleratu zen.




#### 4.3.3.4- Komikia

Portzentajea txikia bada ere, %2koa hain zuzen ere, komikia literatura baino gehiago lantzen da *Barren* aldizkarian. Hasieratik kaleratzen da Elgoibarko astekarian, herriko komiki taldearekin elkarlanean eta ez da iritzi modura sartzen. Hurrengo bi ataletan komikiak izan duen garapena ikusiko dugu. Alde batetik, 2000-2004 bitartean komikiaren agerpen orokorra zein izan den aztertuko dugu eta bestetik, Elgoibarko astekarian komikiak urtez urte izan duen bilakaera nolakoa izan den azalduko dugu.

##### 4.3.3.4.1-Komikia 2000-2004 bitartean

46E. grafikoa



Komikiaren kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

46F. taula

	Komikia	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	58	58

Komikiaren kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Emaitzek erakusten dutenez, hirurogei aletan berrogeita hamazortzi komiki kaleratu dira; ale bakoitzeko bataz beste ia komiki bat. Komikia ez da iritzi moduan sartzen *Barren* aldizkarian, Elgoibarko "Kokoe Komiki Elkarteko"-ek euren lana kaleratzeko bidea izan da *Barren*en argitaratzen den komikia. Normalean beti pertsona berak egiten du eta guk aztertutako epean hiruzpalau autoreen lanak kaleratu dira astekarian. Lan hori egitearren *Barren*ek ordaindu egiten dio autoreari. Izan ere, astero komiki bat egiteko konpromisoari erantzutea lan handia da eta lan artistikoa izaki, zaila litzateke astero-astero kolaborazio lan moduan egitea. Autoreak


berak astero erabakitzen du zein gai lantzen duen; normalean eguneroko bizitzarekin zerikusia duten gaiak agertzen dira komikietan: Olentzerori buruzko komikia edo tabernen arautegi berrien gaia esaterako.

### Komikia bi hitzetan

Ondorioz, komikia hasieratik herriko komiki taldeari ordainduz egiten den kolaborazio lana da, lan artistiko moduan argitaratzen da eta ez iritzi gisa. Ale bakoitzean komiki bat argitaratzen da eta Deba Barreneko sei herri-aldizkariaren artean *Barren* eta Mutrikuko *Kalaputxin* bakarrik kaleratzen da genero hau.

#### 4.3.3.4.2-Komikiaren bilakaera

47E. grafikoa



Komikiaren bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

47F. grafikoa

Kopuru absolutuak	URTEAK	Komikiak	GUZTIRA
	2000	12	12
	2001	14	14
	2002	12	12
	2003	13	13
	2004	7	7

Komikiaren bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Komikiaren agerpena finkoa da 2000-2004 bitartean, bataz beste astero komiki bat kaleratzen da “Barrak, birrak eta barreak” atalaren baitan.

### Barrak, Birrak eta Barreak



2000-III-24

**BARREN** 3

*2000ko martxoko 314. zenbakian kaleratutako komikia. (3. or.).*

Hala eta guztiz ere, 2001 eta 2003an komiki kopuruak apur bat gora egiten du. Izan ere, 2001eko uztailleko 371 eta iraileko 376. zenbakietan “Gaztia naiz barren” gehigarrian komikiak kaleratzen dira. 2003ko martxoko 439. alean ere, aldizkarian ohikoa den komikiaz gain, “Gaztia naiz barren” gehigarrian beste komiki bat kaleratzen da.



6 **BARREN**

2001-IX-21

*2001eko iraileko 376. aleko “Gaztia naiz barren” gehigarrian kaleratutako komikia. (6. or.).*

2004an berriz, zazpi komiki kaleratzen dira soilik *Barren* aldizkarian, urtarriletik uztaile bitarteko zenbakietan soilik. Komikia egiten duen kolaboratzaileak, “Kokoe Komiki Elkarte”-ko sustatzaileetakoa dena, elkarte alde batera uzteko asmoa duela eta, gazte talde bat agertzen da lekukoa hartzeko prest. *Barren* aldizkarian 2005eko urtarrilean diseinua berria egingo denez, 2004ko irailean komikirik ez sartzearabakitzen da, diseinu berriarekin batera kolaboratzaile berriak hasiko direlako. Beraz, 2004ko irailetik abendura arte ez da komikirik argitaratzen *Barrenen*.

### **Komikiaren bilakaera bi hitzetan**

Komikia umorea sartzeko tresna gisa erabiltzen da Elgoibarko aldizkariaren baitan, herriko komiki taldekoekin elkarlana bultzatuz. Horrez gain, aldizkariak argitaratzen dituen gazteei zuzendutako gehigarrietan ere, inoiz agertu da genero hori, eta hori da hain zuzen ere, urte batzuetan komiki kopurua altuagoa izatearen arrazoia da.


#### 4.3.3.5- Zerbitzuak

Lan honetan aztertu ditugun hirurogei aleetan, zerbitzuek kazetaritza-genero guztien %18ko portzentajea dute *Barren* aldizkarian. Informazioa baino askoz gutxiago landu arren, gehien errepikatzen den bigarren generoa dugu zerbitzuena. Hurrengo bi ataletan Elgoibarko astekarian zerbitzuen bilakaera nolako izan den ikusiko dugu. Lehenengo grafikoa eta taulan 2000-2004 bitartean zerbitzu ezberdinek izan duten agerpen-maila orokorra aztertuko dugu.

Bigarren grafikoa eta taulan, zerbitzu atal bakoitzak urtez urte izan duen garapenaren nondik norakoak azalduko ditugu.

##### 4.3.3.5.1-Zerbitzuak 2000-2004 bitartean

48E. grafikoa



Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak chunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

48F. taula

	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Saleros/truke	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	203	262	18	17	57	557

Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Elgoibarko astekarian zerbitzuen portzentajea (%18), iritziaren portzentajea (%16) baino apur bat altuagoa da, bi puntu gehiago hain zuzen ere. Informazioaren atzetik zerbitzuen atala da *Barren*en gehien agertzen dena. Orotara, 557 item kaleratu dira hirurogei zenbakietan, zerbitzu-informazio anitza eskainiz. Hala ere, zerbitzuak oso egonkorak eta finkoak dira *Barren* astekarian, ale guztietan zerbitzu berberak errepikatzen baitira. Hasieratik agertzen dira zerbitzu

ezberdinak aldizkarian, irakurlearentzat erabilgarriak eta interesgarriak direlako eta baita informazio horren bitartez herritarrei zerbitzua eskaintzea helburu delako ere.

### **A) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

48E. grafikoan agertzen diren portzentajeen eta 48F. taulako datuen arabera, zerbitzuen baitan zerbitzu-informazioa da aldizkarian gehien agertzen dena, ia zerbitzuen erdia (%47) zerbitzu-informazioa izanik. Zorion agurrak, farmazia eta okindegien ordutegiak, intereseko telefonoak eta jaiotakoen, ezkonduetakoen eta hildakoen (hilean behin) informazioa finkoa da eta bost urte hauetan ale guztietan kaleratu da. 2000ko irailetik aurrera eta diseinu berria aprobetxatuz, trenen eta autobusen ordutegiak ere argitaratzen dira zerbitzu-informazioaren baitan eta 2001eko urritik aurrera, ohiko zerbitzu-informazioari, gazte informazio atala gehitzen zaio. Aztertu ditugun ale gehienetan beraz, zerbitzu-informazioari buruzko bost item kaleratzen dira batz bestea. Bestalde, noizean behin eta une puntualetan sartu izan den zerbitzu-informazioa ere aurkitu dugu gure laginerako aukeratu dugun hirurogei aleetan, “Gaztia naiz barren” gehigarrian agertzen dena edo 2001eko otsailean argitaratzen den “Sagardotegien gida” adibidez.

Zerbitzu-informazioa lantzen den atal horietan herri-aldizkari eta irakurleen arteko hartu eman zuzena sortzen da eta Asier Orbea *Barren* aldizkariako kazetaria, herritarren eta aldizkariaren artean sortzen den feedback horren lekuko da:

*“Aldizkarira datorren jendea kontuan hartuta eta nahiz eta horren inguruko inkesta edo azterketarik ez dagoen, badaude neurgarriak atalek ondo edo gaizki funtzionatzen duten jakiteko. Kasu honetan adibidez, argi dago ondo funtzionatzen dutela jendea bertara datorrelako, zorion agurrak jartzera edo parrokiatik orria bidaltzen digute hildakoekin”<sup>637</sup>.*

### **B) AGENDA**

Agendak ere maiz erabiltzen dira *Barrenen*; kultura agenda, zine agenda, kirol agenda eta kirol emaitzak ale gehienetan argitaratzen dira. Beraz, ale bakoitzean batz bestea hiru agenda finko agertzen dira. Bestalde, noizean behin kaleratzen diren jai egitarauak eta gehigarri ezberdinetan argitaratzen diren agendak ere aurkitu dira: “Kilibarren”, “Gaztia naiz barren” gehigarrietako agendak eta “Ikasbarren” gehigarrian aurkitu ditugun eskolarteko kirolen agenda eta emaitzak hain zuzen ere.

<sup>637</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.

Betidanik sartu izan dira agenda ezberdinak *Barren* aldizkarian, baliagarriak direlako, zerbitzua eskaintzen dutelako eta bertan informazio asko agertzen delako. *Barren* aldizkarian kultur agendako hainbat ekitaldi, albiste labur bihurtzen dituzte agendako laburren atalean.

Zerbitzu-informazioarekin batera, agenda da gehien agertzen dena. Bi horiek gainerako zerbitzu atalak baino askoz gehiago agertzen dira, irakurleari zerbitzua eskaintzeko bi atalik esanguratsuenak direlako.

### **C) INFORMAZIO ERABILGARRIA**

Informazio erabilgarria askoz gutxiago agertzen da aldizkarian, hirurogei aleetan hamazortzi item aurkitu dira. Informazio erabilgarria aldizkariko atal ezberdinetan agertu da gure azterketa-epean, baina informazio erabilgarria kaleratzen den atal finko bakarra “Osasuna” saila izan da eta bertan, hamahiru item kaleratu dira. Gainerako bost testuak “Zaharrak berri” gehigarrian, “Asteko errezeta” atalean eta “Euroa informazioa” atal berezian aurkitu ditugu. “Zaharrak berri”, jende edadetuari zuzendutako gehigarria, 2000. urtea baino lehendik zetorren eta guk aukeratutako epean, gehigarri bakarra aurkitu dugu, 2000ko urtarrilekoa. Gehigarri horretan errezeta agertzea ohikoa zen; guk bakarra topatu dugu.

Bestalde, “Ispiluari begira” atalaren beste aldaera bat izan zen “Asteko errezeta” sekzioan, jadetxe ezberdinetako sukaldariak errezeta bat proposatzen dute eta gure laginean aztertu ditugun aleen artean, horrelako hiru argitaratu dira soilik.

Azkenik salbuespen gisa, euroari buruzko informazioa argitaratzen da 2001eko azaroko 383. alean, euroarekin eguneroko bizitzan errazago moldatzeko aholku batzuk proposatuz.

### **D) DENBORA-PASAK**

Denbora-pasak aldizkarian bertan ez dira agertzen, gehigarrietan baizik: “Txikibarren” umei zuzendutako gehigarrian, “Gaztia naiz barren” gehigarrian eta “Euskaltegietan arigera” helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzko gehigarrian aurkitu dira gehienak. Aldizkariko lantaldeak, gehigarriak denbora-pasak kaleratzeko euskarri aproposak eta egokiak direla iritzi zion bere sasoian. Hori dela eta, “Txikibarren” gehigarrian hizki-saldak, puzzleak, asmakizunak eta horrelakoak sartzen dira. “Gaztia naiz barren” eta “Euskaltegietan arigera” gehigarrietan agertzen diren denbora-pasa guztiak, lehiaketak dira.

### **E) SALEROSKETA ETA TRUKEAK**

Salerosketa eta trukeen atala, zerbitzu-informazioa eta agenda baino neurri txikiagoan, baina informazio erabilgarria eta denbora-pasak baino portzentaje handiagoetan agertzen da

*Barren* aldizkarian. Guztira berrogeita hamazazpi item argitaratu dira aztertu ditugun hirurogei aleetan. Atal honek arrakasta handia du irakurleen artean eta oso erabilgarria da gainera. Bertan jartzen diren iragarki txiki guztiak doanekoak dira eta Asier Orbeak dionez, sail horretan dagoen mugimenduak argi erakusten du atala eraginkorra dela:

*“Merkatu txikian (Salerosketak/trukeak) sartzen ditugun iragarkiak hiru asterako izaten dira eta salgai jarri dutena saltzen dutenean edo iragarkia kaleratzeri utzi nahi diotenean, guri abisua emateko eskatzen diegu, eta hor dagoen mugimendua kontuan izanda eta jendeak nola erantzuten duen ikusita, argi dago atal horiek erabilgarriak eta eraginkorrak direla, irakurleek irakurtzen dituztela. Batzuek, lehenengo begiratzen duten atala da. Bestalde, harreman oso zuzena sortzen da gure eta irakurleen artean”<sup>638</sup>.*

### Zerbitzuak bi hitzetan

Laburbilduz, *Barren* aldizkarian informazio-generoen ondoren zerbitzu atala da gehien agertzen dena, baina informazio eta zerbitzuen artean dagoen aldea nahiko handia da. Zerbitzuegunea, oso sendoa eta finkoa da astekarian eta aletik alera ez da aldaketarik sumatzen. Zerbitzu atal honetan zerbitzu-informazioa nagusitzen da bost urteotan zehar, ale guztietan zerbitzu-informazio atal finkoak eskainiz.

Hasieratik agertzen den informazio mota honen bitartez, lan-taldeak aldizkaria erabilgarria eta praktikoa bihurtu nahi du irakurlearentzat.

Agenda kopurua ere oso altua da *Barren*en, ale bakoitzean kultur agenda, zine agenda, kirol ezberdinen agenda/emaitzak eta gehigarri ezberdinetan agertzen diren agenda edo egitarauak argitaratzen baitira.

Gehien errepikatzen den hirugarrena, salerosketa eta trukeen atala da. Ale bakoitzean doaneko iragarki txikiz betetako orrialde osoa kaleratzen da eta hor nabaritzen da sekzio horren benetako arrakasta, astero atala betetzen delako eta etengabeko harremana sortzen delako irakurleen eta aldizkariko langileen artean.


Informazio erabilgarria eta denbora-pasak gutxien erabiltzen diren zerbitzu-generoak dira Elgoibarko aldizkarian. Informazio erabilgarria batez ere osasunarekin zerikusia duen sailetan aurkitu dugu eta denbora-pasak gazte eta umeentzako gehigarri ezberdinetan.

<sup>638</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.



## 4.3.3.5.2- Zerbitzuen bilakaera

49E. grafikoa



Zerbitzu-generoen bilakaera portzentuala Barren aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

49F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Saleros/Truke	GUZTIRA
	2000	44	46	2	6	12	110
	2001	45	54	5	5	12	121
	2002	40	56	4	2	12	114
	2003	39	51	4	1	9	104
	2004	35	55	3	3	12	108

Zerbitzu-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Zerbitzuen atalak urtetik urtera poliki-poliki indarra galtzen du. Lehenengo bi urteetan %18ko portzentajearen kokatzen da, 2002an %21era igotzen da eta 2003 eta 2004an %16ra jaisten da. Beraz, lehenengo urteetatik azken urteetara bi puntutan egin dute behera zerbitzuek. Hasierako hiru urteetan agenda, informazio erabilgarri eta denbora-pasa gehiago argitaratzen baitira gehigarri ezberdinetan eta horrek kopuru orokorrean eragin zuzena dauka.

## A) AGENDAK

Agenden kopuruak behera egiten du urtetik urtera eta 2000 eta 2004 urteen artean, zortzi puntuko aldea dago 49E. grafikoan agertzen diren portzentajeetan. Aurreko atalean aipatu dugun moduan, ale gehienetan finakoak diren kultur agenda, zine agenda eta kirol agendaz gain, 2000.

urtean jaietako lau agenda<sup>639</sup>, “Kilibarren” gehigarrian agertzen den agenda bat<sup>640</sup> eta “Ikasbarren” gehigarrian beste agenda bat<sup>641</sup> kaleratzen dira. 2001ean, “Ikasbarren” gehigarrian sei agenda (Eskolarteko kirolen agenda eta emaitzak) kaleratzen dira eta “Gaztia naiz barren” gehigarrian bi agenda<sup>642</sup> aurkitu dira. 2002an, “Gaztia naiz barren” gehigarrian bi agenda eta “Ikasbarren” gehigarrian bi agenda argitaratzen dira. 2003an, “Ikasbarren”-eko hiru agenda eta “Gaztia naiz barren”-eko agenda bakarra aurkitu dira eta 2004an, “Ikasbarren” atalean agenda bakarra argitaratu da. Aldizkarian ohikoak ez diren agendak, gehigarrietan dute bere lekua *Barren* aldizkarian.

## **B) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Zerbitzu-informazioa urteekin indartu egin da Elgoibarko aldizkarian eta baita finkatu ere. 2000. urtetik 2004. urtera, zerbitzu-informazioak bederatzi puntutan egin du gora eta azken hiru urteetan, kopuruak eta portzentajeak %50aren inguruan finkatuta daudela esan daiteke. 2000. urtean, “Intereseko telefonoak”, “Zorion agurrak”, “Farmazia eta okindegien ordutegiak” eta irailetik aurrera “Tren eta autobusen ordutegiak” kaleratzen dira ale gehienetan; hilean behin, “Hildakoen, jaiotakoen eta ezkonduetakoen” informazioa.

2001eko urritik aurrera “Gazte informazioa” gehitzen da astero. Horrezaz gain, “Sagardotegiaren gida”<sup>643</sup> zerbitzu-informazio berezia kaleratzen da. Era berean, 2001eko uztailera 371. alean, 2001eko urriko 376. zenbakian eta 2003ko martxoko 439. zenbakiko “Gaztia naiz barren” gehigarrian “Gazte informazioa” argitaratzen da.

2002 eta 2004an ohikoa den zerbitzu-informazio argitaratzen da. Guztira zorion agurrak berrogeita hamazazpi bider<sup>644</sup> agertu dira, farmazia eta okindegien ordutegiei buruzko informazioa berrogeita hamazortzi aldiz<sup>645</sup> kaleratu da, intereseko telefonoak berrogeita hamar bider<sup>646</sup>, gazte informazioa hogeita hamabi aldiz<sup>647</sup>, tren eta autobus ordutegiak berrogei bider<sup>648</sup>

<sup>639</sup>- “San Pedro jaiak” eta “Altzolako San Juan jaiak” agendak. 2000ko ekaineko 326. zenbakian (25. or.)

“Sallobenteko jaiak eta “San Rokeko jaiak” egitarauak. 2000ko uztailera 330. alean. (25. or.)

<sup>640</sup>- “Santa Ana jaiak”. 2000ko uztailera 330. alean. “Kilibarren” 66. zenbakian. (4. or.)

<sup>641</sup>- “Eskolarteko kirolak, emaitzak eta agenda”. 2000ko azaroko 343. alean. (16. or.)

<sup>642</sup>- 2001eko uztailera 371. alean. “Gaztia naiz barren” gehigarrian (8.-9. or.) eta 2001eko irailera 376. aleko “Gaztia naiz barren” gehigarrian (6. or.)

<sup>643</sup>- 2001eko otsailera 349. alean. (6.-7. or.). Bi orritan, sagardotegi ezberdinen informazio eta argazkiak azaltzen dira.

<sup>644</sup>- Adibidea: 2004ko apirilera 485. zenbakian. (23. or.). 19 pertsonen zorion agurrak (Orriaren 3/4eko espazioa hartzen du).

<sup>645</sup>- Adibidea: 2004ko apirilera 485. alean. (17. or.). Orri laurden.

<sup>646</sup>- Adibidea: 2004ko apirilera 485. zenbakian. (17. or.). Orri erdi.

<sup>647</sup>- Adibidea: 2004ko apirilera 485. alean. (23. or.). Orri erdi.

<sup>648</sup>- Adibidea: 2004ko apirilera 485. zenbakian. (17. or.). Orri erdi.

eta jaiotakoen, hildakoen eta ezkonduetakoen informazioa hemeretzi aldiz<sup>649</sup> azaldu da guk aztertu ditugun hirurogei zenbakietan.

### C) INFORMAZIO ERABILGARRIA

Azterketa-epean, informazio erabilgarriari ez zaio astero toki berezirik eskaini *Barrenen*, informazio erabilgarririk gehiena “Osasuna” sailean argitaratu baita eta atal hori, hilean behin kaleratzen da.

2000 eta 2001ean behin bakarrik aurkitu dugu atal hori gure laginerako aukeratu ditugun aldizkarietan. 2002 eta 2003an urte bakoitzean lau aldiz agertzen da eta 2004an hiru bider. Atal horretan osasunari buruzko gai bat aukeratuz aholkuak<sup>650</sup> ematen dira. Aurreko atalean aipatu bezala, euroari buruzko informazioak eta lau errezetek<sup>651</sup> osatzen dute Elgoibarko aldizkarian argitaratzen den informazio erabilgarriaren atala 2000-2004 bitartean.

### D) DENBORA-PASAK

Denbora-pasak gehigarrietan soilik agertzen dira bost urteetan. Hau da, aldizkariaren baitan ez da denbora-pasarik agertzen. Aztertu diren hirurogei zenbakietan aurkitu ditugun denbora-pasa guztiak, “Txikibarren”, “Euskaltegietan arigera” eta “Gaztia naiz barren” gehigarrietan azaldu dira. Hasierako bi urteetan “Euskaltegietan arigera” gehigarria kaleratzen denez, denbora-pasa kopurua altuagoa da, 2002tik aurrera “Txikibarrenen” eta “Gaztia naiz barren” (2003ra arte bakarrik kaleratzen dena) gehigarrietan soilik agertzen dira. “Euskaltegietan arigera” gehigarrian kaleratu diren denbora-pasa guztiak, lehiaketak<sup>652</sup> izan dira, atal finkoa baita gehigarri horren baitan. “Txikibarren” gehigarrian, puzzleak, asmakizunak eta antzerako denbora-pasak behin<sup>653</sup> bakarrik aurkitu ditugu. Hortik aurrera, lehiaketak<sup>654</sup> agertzen dira denbora-pasa gisa. “Gaztia naiz barren” gehigarrian, ordea, liburu lehiaketak<sup>655</sup> agertzen dira.

<sup>649</sup> - Adibidea: 2004ko urriko 503. alean. (17. or.). Orri laurden.

<sup>650</sup> - Adibidea: Orbaindutako atzazkalari buruzko informazioa eta tratamendua azaltzen dira Iñaki Rivero Podologoaren eskutik. 2002ko otsaileko 394. alean. (17 or.).

<sup>651</sup> - Adibidea: “Bakailaoa Pil-pil erara” Elgoibarko Txarriduna Jatetxeko errezeta. 2001eko martxoko 354. zenbakian. (9. or.).

<sup>652</sup> - “Okerrak zuzentzen” lehiaketan, 8 esaldiren artean 4 zuzen daude eta beste 4 okerrak dira. Lehiaketan parte-hartzeko okerrak zeintzuk diren asmatu behar dira.

<sup>653</sup> - 2000ko maiatzeko 320. alean. “Txikibarren” gehigarrian. (4. or.).

<sup>654</sup> - Adibideak: Elgoibarko tokiren bateko argazkia agertzen da eta “Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?” galdetzen da. 2003ko iraileko 457. zenbakian (11. or.), 2004ko martxoko 480. alean. “Txikibarren” gehigarrian. (4. or.), 2004ko urriko 503 zenbakian. “Txikibarren” gehigarrian (4. or.), eta 2004ko azaroko 508 zenbakian. “Txikibarren” gehigarrian (4. or.).

<sup>655</sup> - Liburu lehiaketa hau *Elkarlan* argitaletxeak hainbat herri-aldizkariri egindako proposamenaren ondorioz sortzen da. “Gaztia naiz barren” gehigarrian argitaratzen da: 2001eko uztailko 371. alean (7. or.), 2001eko iraileko 376. zenbakian (8. or.), 2002ko urtarrileko 389. alean (6. or.) eta 2002ko maiatzeko 405. zenbakian (6. or.).

## E) SALEROSKETA ETA TRUKEAK

Salerosketa eta trukeen atala, “Merkatu txikia” astean behin kaleratzen den orri osoko iragarki ezberdinen atala da. 49E. grafikoan agertzen diren portzentaje eta 49F. taulako datuen arabera, atal honek bost urteetan ez du gorabehera handirik izan, finko mantendu delako, astero behin kaleratuz. 49F. taulan agertzen diren datuek, ale bakoitzean “Merkatu txikia” atal bat argitaratu dela erakusten dute, 2003an izan ezik. 2003ko maiatzeko 444. alean iraileko 458. zenbakian eta abenduko 470. alean ez delako “Merkatu txikia” sailik kaleratzen.

### Zerbitzuen bilakaera bi hitzetan


Oro har zerbitzuen atala apurka-apurka ahulduz doa *Barren* aldizkarian. Horren erakusle garbia honako hau da: agenden kopurua jaitsi egiten dela gehigarri ezberdinen kopurua jaitsi ahala eta horrek, eragin zuzena dauka agenden kopuru orokorrean, gehigarrietan agertzen baitira ohikoak ez diren egitarau eta hainbat agenda. Gehigarri kopuruak badu zerikusirik denbora-pasek erakusten duten beheranzko joerarekin ere, denbora-pasa gehienak gehigarrietan argitaratzen direlako.

Zerbitzu-informazioa hazi egiten da eta urtetik urtera atal hau sendoagoa eta finkoagoa bilakatzen da aldizkarian: “Zorion agurrak”, “Intereseko telefonoak”, “Farmazia eta okindegien ordutegiak”, “Gazte informazioa”, “Tren eta autobusen ordutegia” eta hilean behin “Hildako, jaiotako eta ezkonduetakoen zerrenda” ale gehienetan argitaratuz.

Urteen joan etorriekin, informazio erabilgarria eta salerosketa eta trukeen atalean ez da gorabehera handirik nabaritzen. Informazio erabilgarria oso kopuru baxuetan mantentzen da eta salerosketa eta trukeen atala urtero gehien agertzen den hirugarren zerbitzu atala da.

## 4.3.4-GAIAK

50E. grafikoa



Gaien bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

50F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	POLITIKA	EKONOMIA	GIZARTE-GAIAK	KULTURA	KIROLA	GUZTIRA
	2000-2004	218	177	1.407	758	501	3.061
	2000	50	51	262	154	97	615
	2001	45	29	255	141	102	569
	2002	23	20	267	145	76	534
	2003	53	31	299	166	108	657
	2004	47	46	324	152	118	686

Gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Barren* aldizkariko orrietan gai guztiei egiten zaie lekua 2000-2004 bitartean, nahiz eta 50E. grafikoa eta 50F. taulan agertzen diren portzentaje eta kopuru absolutuek, argi erakusten duten gai batzuk protagonismo handiagoa dutela beste batzuekin alderatuz gero. Alegia, gizarte-gaiak lehenengo eta kultura gaiak ondoren gailentzen dira gainontzeko gaien artean, bai orokorrean eta baita urtetik urtera ere. Gogora ditzagun *Barren* aldizkariaren inguruan egindako beste azterketen emaitzak zeintzuk diren: “Gaiet dagokionean aniztasuna da nagusi. Gizarte-gaiet daukate lehentasuna eta hori bai, bertako jaiak eta oporrak izanez gero, dagokion aleko

*izar eurak dira, azal eta guzti*” (Larrañaga, Gabantxo eta Aranguren, 1997: 38). Neurri txikiagoan ekonomia eta politika gaiak agertzen dira eta gai batzuk beste batzuk baino gehiago landu arren, aniztasuna da nagusi, gai guztiak agertzen ahaleginduz.

Guztira, 3.061 item aztertu dira hirurogei aleetan eta horietatik 1.407 gizarte-gaiei buruzko testuak dira. 758 itemetan kultura gaia jorratzen da, kirolei buruzko 501 item argitaratu dira, 218 testutan politika da gai nagusia eta 177 itemek ekonomia gaiak jorratzen dituzte.

Urte bakoitzean kaleratu den item kopuru orokorrari begiratuz gero, item kopuruak azken bi urteetan gora egin duela konturatu gara eta era berean, 2001 eta 2002 urteetan item kopuru baxuena kaleratu dela ohartuko gara. Izan ere, bi urte horietan gure laginerako aukeratu ditugun abenduko aleak ez dira urtekaria izan. Urtekari bakoitzak hamabi orri izaten ditu eta orri bakoitzean, hiru albiste labur eta lau argazki-albiste kaleratzen dira gutxi gorabehera. Horrek urteko albiste labur eta argazki-albisteen kopuru orokorrean eragin zuzena du eta gaien agerpenean ere bai. Gaien agerpenean kasu batzuetan portzentajeak mantentzen badira ere, gehienetan gai guztiei buruzko item gutxiago kaleratzen dira 2002 eta 2003 urteetan.

*Barren* aldizkarian gai gehienak lanean ari diren kazetarien artean erabakitzen dira. Ostegun goizean aldizkaria inprentara bidaltzen dute goizeko 11etan eta 11:30ean hurrengo alea prestatzeko bilera egiten da. Bi kazetariak, diseinatzaile/maketatzailea eta publizista elkartzen dira, lau langileak alegia. Publizitate arduradunak eta diseinugileak batez ere hurrengo alerako publizitate kontuak erabakitzen dituzte eta gai gehienak, bi kazetarien esku geratzen dira, baina Elgoibarko Izarra Kultur Elkartetik gaiak erabakitzerako orduan proposamenak jasotzen dituzte, elkartekoak ere, *Barren*en berri dutelako. Azken finean, aldizkaria euskara elkarteak berak kaleratzen duen produktua baita. Kolaboratzaile finkoek ez dute parte-hartzen gaiak erabakitzeko egiten diren bilera horietan, bileraren ostean kazetariak kolaboratzaileei zeri buruz idatzi behar duten proposatzen diete. Asier Orbea *Barren* aldizkariko kazetariak kolaboratzaileen lana benetan estimatzen du, beste eduki batzuk lantzeko bide ematen dielako eta kazetarien lan karga arindu egiten duelako:

*“Kolaboratzaileek freskotasuna ematen diote aldizkariari, beste estilo bat jorrazteko aukera dago, azken finean norberak berea du eta zenbat eta gehiago egon, aniztasun handiagoa dago. Lan konkretu batzuetarako denbora gehiago izan dezake eta lasaitasunez landu dezake gaia, beste ikuspegi bat emanez. Hemen gaudenok askotan asteroko dinamika horretan murgilduta gaude eta egunerokotasunak nahiko lan ematen digunez ezin izaten diegu nahi beste*

denbora eskaini lan eta gai batzuei. Alde txarrak aipatzekotan, segun eta nor tokatzen zaizun, lana arindu baino, lan gehiago eman ahal dizu baina oro har nik alde positiboak azpimarratuzko nituzke. Orain ari direnak ez dira ikasleak eta suposatzen da esperientzia ere badutela. Beraz onerako dira, gehiago izango bagenitu hobe. Sasoi batean izan genituen kolaboratzaile gazte batzuk, "Gaztia naiz barren" gehigarrirako. Hori egiteko, Institutuko hiru ikasle egon ziren, eurak errazago egiten zituzten kontaktuak eta oso baliagarriak ziren"<sup>656</sup>.

Aldizkaria asterokoa izanik, gaurkotasunari garrantzia ematen diote eta pil-pilean dauden gaiak "Motz" atalean argitaratzen dira nagusiki. Baina jakin badakite astekaria izatea batzuetan traba dela, gaiak zaharkituta geratzen baitira, beste batzuetan ordea, astekari izatearen abantailak aprobetxatu izan dituzte, gai batzuk sakonago lantzeko aukera izaten dutelako aste osoan.

Gaietan, gertatu diren eta gertatuko diren ekitaldien artean oreka mantentzen ahalegintzen dira Elgoibarko astekarian. Hots, *Barrenen* ohikoa da ekitaldien aurretik, esaterako inauterien aurretik, gaia herriari aurkeztea, oro har garrantzi gehiago ematen zaiolako datorrenari, pasatu denari baino. Hala eta guztiz ere, pasatu denean beste trataera bat ematen zaio gaiari. Zalantzarik ez dago herrian gertatzen direnak aldizkariko protagonista nagusi direla eta *Barreneko* lantaldeak herriko gaiei ematen diela lehentasuna. "*Barren aldizkaria herriko gaiei buruzko informatzailea eta herriko komunikabidea da % 86,9ren ustez. Elgoibarren gertatzen dena nahiko ondo islatzen du Barrenek % 40aren iritzi*" (Larrañaga, Gabantxo eta Aranguren, 1997: 33).

### Gaiak bi hitzetan

Beraz, *Barren* aldizkariko orrietan gai aniztasuna nabaritzen da 2000-2004 bitartean, gai guztiei neurri handiago eta txikiagoan egiten zaielako lekua bertan, eta datuek hori erakusten dute, urte gehienetan gai ezberdinei buruzko item kopuruak gora egiten baitu.

Agerpen-mailaren arabera, gizarte-gaiak, kultura eta kirolak dira, orden hau jarraituz, inportanteenak eta ondorioz, politika eta ekonomiari ez zaie horrenbeste arreta jartzen baina landu, lantzen dira. Gai gehienak aldizkarian lanean diharduten kazetari profesionalek erabakitzen dituzte eta ondoren, kolaboratzaileen artean egiten dute lan banaketa. Orobat, gaien arteko oreka bilatzen saiatzen dira; herrian gertatuko direnak eta gertatu diren ekitaldien arteko

<sup>656</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.


oreka ere mantenduz. Pasatutakoak era laburrean lantzen dituzte eta garrantzi gehiago dutenak era luzeagoan tratatzen dituzten, beti herria eta herritarrei lehentasuna emanez.

#### 4.3.4.1-Politika

Guk aztertu dugun epean politika gaiak %7ko portzentajea izan dute eta ekonomia gaiekin batera, politika izan da gutxien landu den gaia *Barren* aldizkarian. Hurrengo bi grafiko eta tauletan politika gaien garapena ikusiko dugu. Alde batetik politika gaiak 2000-2004 bitartean aldizkarian izan duten agerpen orokorra azalduko dugu eta ondoren, politika gai horiek urtez urte izan duten bilakaera nolakoa izan den aztertuko dugu.

##### 4.3.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean

51E. grafikoa



Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

51F. taula

	Udala	Aldundia	E.J	Alderdiak	E.H-ko gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerrak/ejertzitoak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	63	2	2	73	66	5	7	218

Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Barren* aldizkarian politika gutxien agertzen den gaien artean dago. Ezin ahaztu daiteke:



*“Independentzia politikoa mantentzen ez bada, publizitatea arriskutan jartzen da. Hor baitago neurri handi batean aldizkarion ‘Akilesen orpoa’. Aldizkari bat sendotua egon arren, erredakzioa aldatu eta joera politiko batekin identifikatzen hasiko balitz, galdu egingo luke sinesgarritasun guztia, eta baita erakundeen eta merkatarien laguntza ere. Besterik da norberak independentzia ekonomikoa izatea eta inplantazio txikiagoa. Baina, nahitaez, herri osora iritsi nahi bada, gaurko egoeran beharrezkoa da independentzia politikoa edo ideologikoa”* (Askoren artean, 1992: 59-60).

Politika hauteskunde garaian lantzen da, udal hauteskundeak direnean bereziki. Oro har herriko ikuspegitik lantzen dira gai politiko ezberdinak: *“Herrikanpoko politika kontuetan elgoibartarrik ez badago inplikaturik ez dugu sartzen; beste gai batzuetan bezala, herritarrak eta herria hartzen ditugu kontuan”*<sup>657</sup>, azpimarratzen du Asier Orbeak. Emaitzetan oso argi antzematen da printzipio hori jarraitzen dutela. Alde batetik, Aldundia (bi item), Eusko Jaurlaritza (bi testu), erakunde ezberdinak (bost idatzi) eta gerra eta ejertzitoen gaiak (zazpi idazki) direlako politikaren baitan gutxien agertzen direnak, ez baitute herriko eguneroko bizitzan, beste gai politikoek izan dezaketen protagonismorik, Eusko Jaurlaritza eta Aldundia herrikan kanto dauden erakundeak direlako eta gerra eta ejertzitoen gaiak, normalean kutsu orokorragoa duelako, herriz gaindikoa. Hala ere, gai horiek aldizkarian agertzen direnean, herrian edo herriarekin zerikusia dutenean argitaratzen dira.

Bestalde, gehien errepikatzen den gaia, alderdien gaia da eta lan honetan hauteskudeei buruzko testuak, alderdien epigrafean kodifikatu ditugu, hauteskundeetan alderdi ezberdinak agertzen direlako. Gehien agertzen den bigarren gai politikoa Euskal Herriko gatazkarena da eta hirugarrenik, udalaren gaia. 51E. grafikoan hiru gai horietan agertzen diren portzentajeak batzen baditugu, ikerlan honetan aztertu ditugun hirurogei zenbakietan politikaren inguruan argitaratu diren testu guztien %92 osatzen dute. Hau da, politikari buruzko testu gehienak hiru gai horien inguruan antolatuta dira *Barren* astekarian.

### **A) ALDERDIAK**

Alderdien gaia gure azterketa-laginean, hirurogeita hamahiru aldiz agertu da. Beraz, gai politiko guztien %33 alderdi ezberdinei eskaini zaizkie. Aldizkarian alderdi guztiak agertzen badira ere, *Barreneko* kazetariak onartzen dute batzuekin beste batzuekin baino harreman hobea

<sup>657</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

eta zuzenagoa dutela eta, alderdi batzuetako zinegotziak Elgoibarkoak ez direnez, harremana hotzagoa dela:

*“Alderdi abertzaleekin harreman zuzenagoa dugu, normalean eurak etortzen dira guregana. PP eta PSE-ko jendea ez da bertakoa eta guregana ez da etortzen. Gu beraiengana joan izan garenean ez da arazorik egon. Alderdi abertzaleak diogunean, Ezker Abertzalea eta EAJ-EA (koalizioan baitaude) dira. Ezker Batuak aurretik zuen zinegotzia ez zen Elgoibarkoa, azken hauteskundeetan Elgoibarkoa zen zinegotzia atera zuen EB-ak eta oso harreman ona geneukan, baina utzi egin zuen eta ordutik gaur egun arte ez dugu harremanik izan”<sup>658</sup>.*

Asier Orbeak esandakoan oso ondo islatzen da alderdi ezberdinek aldizkarian duten protagonismoa neurtzerako orduan. Izan ere, batzuk beste batzuk baino gehiago agertzen dira Ezker Abertzalea (EH, Batasuna eta Herri Plataformak) hogeita hamazortzi bider agertzen dira *Barren* aldizkarian, PNV-EAJ koalizio moduan hamazortzi aldiz agertzen da, EA bederatzi bider, PP bederatzi aldiz, PSE-EE zortzi bider, Ezker Batua lau aldiz, Mendaroko Talde Independentea bi bider eta Aralar behin agertzen da aztertu ditugun hirurogei zenbakiotan. Alderdi ezberdinez gain, hauteskunderen gaia sei aldiz jorratu da alderdi ezberdinak aitatu gabe: behin EEBBetako hauteskunderen inguruan, Legebiltzarreko hauteskundeak bi bider azaltzen dira, beste bi aldiz Espainiako hauteskundeak eta behin Europako hauteskunderen gaia jorratzen da.

Alderdiei buruzko testuak, “Motz”, “Agendako laburretan”, “Hauteskundeak” atal berezian eta “Berbetan” sailean aurkitu ditugu informazio moduan. Bestalde, “Iritzi-zutabea”, “Eskutitzak”, “Kexak” eta “Kale-inkesta”-n ere jorratu da alderdien eta hauteskunderen gaia.

## **B) EUSKAL HERRIKO GATAZKA**

Euskal Herriko gatazkaren gaia da gehien lantzen den bigarren gai politikoa, hirurogeita sei aldiz agertuz aztertu diren hirurogei aleetan. Bataz beste, behin agertzen da Euskal Herriko gatazkaren gaia *Barren* astekariko ale bakoitzean. Gai honekin zerikusia duten testu gehienak, Elgoibarrekin edo Mendarorekin dute lotura zuzena. Nahiz eta askotan gai horiek Euskal Herri mailan oihartzuna izan, herrian bertan horien inguruan egiten direnak nagusitzen dira aldizkarian. Esaterako, atentatuen gaitzespenak herriko plazan edo Amnistiaren aldeko martxak Elgoibartik pasatzen direnean albiste dira. Gaia orokorragoa denean, Euskal Herri mailakoa,

<sup>658</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.

iritzi-zutabe eta eskutitzen atalean agertzen da. Informazioetan ordea, Euskal Herriko gatazka herriko ikuspegitik lantzen da, herrian albiste denean, herrian gai horren inguruan zerbait antolatzen denean alegia.

### C) UDALA

Udalaren gaia hirurogeita hiru bider azaldu da *Barren* aldizkariko hirurogei zenbakiotan. Kasu hauetan udaleko gestioa eta bertoko egunerokotasuna dira albistearen protagonista. Dena dela, udala beste hainbat informaziotan ere agertzen da zeharka, zerbitzu gaietan edota kultura gaietan adibidez.

Aldizkariko langileek udalarekin duten harremana ona bada ere, informazio ematerako orduan arazoren batzuk izaten dituztela aitortzen dute.

*“Udalarekin dugun harremana ez da txarra, baina informazioa ematerako orduan, oro har beste hedabideetako kazetariak ere kexa bera dute. Izan ere, 2000-2004 bitartean bi epe izan dira: 2000tik 2003ko maiatzera arte, aurreko alkatea zegoenean, beste era batera funtzionatzen zuen, ostiralero kazetariekin bilerak egiten ziren eta gaiak prestatuta eramaten zituzten kazetariengana. Orduan komunikabide arduraduna zegoen. Gero, 2003tik aurrera ez dakit komunikazio arduradunik dagoen, baina ez da horrelako bilerarik egiten.”*<sup>659</sup>.

Udalari buruzko informazioa, 2000ko otsaila, martxoa eta ekainean “Udaletxetik” sailean agertzen da. Atal hori gure azterketa-epearen aurretik kaleratzen zen eta 2000ko ekainetik aurrera, “Motz” atalean argitaratzen dira udalari buruzko testuak eta baita iritzi ataletan ere, “kexak” eta “eskutitzak” sailetan batik bat.

#### **Politika bi hitzetan**

Orain arte esandakoa laburtuz, politika ez da lehenasunezko gaia *Barren* aldizkarian. Politikaren baitan, alderdiak, E.H-ko gatazka eta udala dira gehien agertzen direnak, %29-%33ko portzentajeen bitartean hirurak.


Politika gaiak herriarekin eta herritarrekin zerikusi zuzena dutenean agertzen dira aldizkarian eta bereziki udal hauteskunde garaia denean. Hori dela eta, herritik kanpokoak diren erakunde politikoak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta erakunde ezberdinak) oso gutxitan dira albiste *Barrenen*, herriarekin edo herritarrekin lotura zuzena dutenean soilik. Alderdien gaia

<sup>659</sup> - Doktore-tesirako elkarriketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarriketa osoa CDan.

lantzen denean alderdi abertzaleak gainerako alderdiak baino gehiago agertzen dira, aldizkariko erredaktoreen esanetan Elgoibarkoak direlako eta herrian bizi direlako; harremana zuzenagoa eta errazagoa da, Elgoibartik kanpo bizi diren zinegotziekin ez bezala. Gehien agertzen den alderdia, Ezker Abertzale ofiziala izan da gure azterketa-epean. Euskal Herriko gatazkaren gaia informazioetan agertzen denean, Elgoibarrekin eta elgoibartarrekin lotuta dago, iritzi sailean agertzen denean, ordea, Euskal Herri mailako gaiak izaten dira nagusi. Udalari buruzko testuak kaleratzerako “Udaletxetik” atal berezia egon da *Barrenen* urteetan, baina 2000tik aurrera gainerako albisteekin batera lantzen da udalaren gaia ere.

#### 4.3.4.1.2- Politikaren bilakaera

52E. grafikoa



Politika gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

52F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Udala	Aldundia	Eusko Jaurlaritza	Alderdiak	E.H gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerrak/Ejertzitoak	GUZTIRA
	2000	16	0	0	14	16	4	0	50
	2001	13	0	0	10	20	0	2	45
	2002	8	1	0	7	5	0	2	23
	2003	13	1	1	23	12	0	3	53
	2004	13	0	1	19	13	1	0	47

Politika gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Barren* aldizkarian lantzen diren politika gaien artean udala, alderdiak eta Euskal Herriko gatazka dira urtero astekariko orrietan toki gehien duten gaiak, modu egonkor batean agertzen diren gai politikoak izanik.

Emaitzen arabera, politika gaien item kopurua urtetik urtera apur bat gutxituz doa. Gainerako urteekin alderatuz, 2002an politika gaien kopurua erdira jaisten da eta 2003an, ordea, politika gaietako buruzko testu kopuru gehien kaleratzen da. Udal hauteskunde urtea izan zen 2003ko eta *Barrenen* hauteskunde garaian jorratzen dira gai politikoak bereziki. Azter ditzagun banan-banan gai politikoek urte bakoitzean izan duten bilakaera:

### A) UDALA

Udalaren gaia politikaren barnean gehien agertzen den hirugarrena bada ere, urteekin batera gutxiago agertzen da Elgoibarko astekarian. Hasierako hiru urteetan udal gaiek politikaren %30 inguruan kokatzen dira eta azken bi urteetan portzentajeak %25-28ra jaisten dira. Elgoibarko eta Mendaroko udalak agertzen dira guk azertu ditugun aleetan, baina Mendaroko udala Elgoibarkoa baino gutxiago. 2000ko otsailean, martxoan eta ekainean “Udaletxetik” sailean<sup>660</sup> agertzen dira horrekin zerikusia duten informazioak. Urte bereko ekainetik aurrera, udalari buruzko albiste labur<sup>661</sup>, albiste<sup>662</sup> eta argazki-albisteak<sup>663</sup> batez ere “Motzean” sailean aurkitu dira. Udal gaien inguruan hiru elkarrizketa<sup>664</sup> eta hiru erreportaje<sup>665</sup> kaleratu dira. Iritzi-generoetan, udalaren gaia “Kexak eta txaloak”<sup>666</sup> eta “Eskutitzak”<sup>667</sup> ataletan agertzen da eta noizbait, kale-inkestaren batean<sup>668</sup>. Jotxo Larrañaga, Miren Gabantxo eta Asier Arangurennek *Mediatika* liburuan 1997an argitaratutako *Barren* aldizkariako ondorioetako batek honela dio:

<sup>660</sup> - Adibidea: “Udalak plangintza berezia prestatu du Udaltzaingoarentzat” albiste. 2000ko otsaileko 309. alean. (12. or.).

<sup>661</sup> - Adibidea: “Gaztetxeari buruzko bilera egin dute Udaleko ordezkariak” albiste laburra. 2001eko urriko 348. alean. “Kilibarren” 70. zenbakian. (1. or.).

<sup>662</sup> - Adibidea: “EHK Udaleko teknikari baten kontratazio ‘ezegokia’ salatu du” albiste. 2000ko urriko 337. zenbakian. (10. or.).

<sup>663</sup> - Adibidea: “Udala Karakaten parke eoliko bat eraikitzearen aurka” argazki-albiste. 2000ko abenduko 345. alean. Urtekaria/uztaila. (23. or.).

<sup>664</sup> - Adibidea: “Etorkizuneko Elgoibar eraikitzeako oinarriak jartzen ari gara”, Gillermo Garate, alkateari egindako elkarrizketa. 2000ko martxoko 314. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>665</sup> - Adibidea: “Etorkizuneko pentsatuta egindako udaletxea” erreportajea. 2001eko urriko 381. alean. “Kilibarren” 78. zenbakian. (2.-3. or.).

<sup>666</sup> - Adibidea: “San Pedroko bizilagun batzuek, auzoko alkatea txalotu nahi dute, elurra egin zuen egunean auzokideei eskainitako arretagatik: Elurra egin zuen egunetan bideak oso gaizki zeuden, eta alkateak lan handia egin zuen haiek garbitu zitzaizten. Berari esker ez genuen inolako arazorik izan. Eskerrik asko!”. 2004ko martxoko 480. zenbakian. (5. or.).

<sup>667</sup> - Adibidea: “Aurrekontuekin aurretik kontuz”, Mendaroko Auzolanian Herri Plataformak idatzitako gutuna. 2004 irailako 501. alean. (4. or.).

<sup>668</sup> - “Zer iruditzen zaizu udaletxe berria?”, Mendaroko sei herritarren iritzia jasotzen duen kale-inkesta. 2001eko urriko 381. alean. “Kilibarren” 78. zenbakian. (3. or.).

“*Barrenek udaletxeaz ematen duen informazioa ere nahikoa da % 51,4arendako*” (Larrañaga, Gabantxo eta Aranguren, 1997: 33).

## B) ALDERDIAK

Alderdien gaia da politikaren baitan gehien agertzen dena *Barren* aldizkarian 2000-2004 bitartean. Kasu honetan udalaren gaia lantzerako orduan kontrako joera sumatzen da 52E. grafikoan eta 52F. tauletako datuetan ere. Hots, hasierako hiru urteetan gutxiago agertzen dira alderdiak aldizkarian, portzentajeak batuz beste %20 inguruan kokatuz eta 2003 eta 2004an bikoiztuz %40ra heltzen dira. 2003an alderdien gaia agertzen da bereziki, udal hauteskundeetan urtea baita. Aldizkarian agertzeaz gain, udal hauteskundeetan inguruko gehigarri berezia kaleratzen dute hauteskunde eguneko biharamunean. Elgoibarren hauteskundeetan izan diren emaitzak eta udalbatzaren osaketaren berri emanaz. Gorago aipatu dugun moduan, alderdi guztiei ez zaie espazio bera eskaintzen aldizkarian. Ezker Abertzalea (EH, Batasuna eta Herri plataformak), hamabi albiste laburretan<sup>669</sup>, zazpi albistetan<sup>670</sup>, sei argazki-albistetan<sup>671</sup>, eta lau elkarrizketatan<sup>672</sup> aurkitu dugu. Iritzi-generoetan, zazpi gutunetan<sup>673</sup> eta bi iritzi-zutabetan<sup>674</sup> da protagonista Ezker Abertzalea. PNV-EAJ, bi albiste laburretan<sup>675</sup>, hiru albistetan<sup>676</sup>, sei argazki-albistetan<sup>677</sup>, bi elkarrizketatan<sup>678</sup>, hiru gutunetan<sup>679</sup>, zutabe batean<sup>680</sup> eta kaleko inkesta batean<sup>681</sup> agertzen da. EA alderdia, lau albiste laburretan<sup>682</sup>, hiru albistetan<sup>683</sup> eta bi argazki-albistetan<sup>684</sup> da protagonista. PP, hiru albistetan<sup>685</sup>, bi laburretan<sup>686</sup>, elkarrizketa batean<sup>687</sup>, gutun batean<sup>688</sup> eta

<sup>669</sup> - Adibidea: “Manifestazioa” albiste laburra. 2000ko iraileko 332. alean. (25. or.).

<sup>670</sup> - Adibidea: “Auzolanian Herri Plataformak hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du” albiste. 2003ko apirileko 443. alean. “Kilibarren” 94. zenbakian. (1. or.).

<sup>671</sup> - Adibidea: “Greba orokorra EH-ak deituta” argazki-albiste. 2000ko abenduko 345. zenbakian. (3. or.).

<sup>672</sup> - Adibidea: “Gorbata behin bakarrik jantziko dut, preso guztiak kalean daudenean”, Arnaldo Otegi ingandako hiru orriko elkarrizketa. 2001eko ekaineko 365. zenbakian. (13.-14.-15. or.).

<sup>673</sup> - Adibidea: “Hauteskunde aurreko debekuaurrean”, AUB eta Enbiou Elgoibarko Herri Plataformak idatzitako gutuna. 2003ko maiatzeko 444. alean. (4. or.).

<sup>674</sup> - Adibidea: “Aznar pozik”, Ainhoa Lodosok idatzitako iritzi-zutabea. 2003ko martxoko 493. zenbakian. (3. or.). (Ale horretan Enbiou Herri Plataforma portadan agertzen da).

<sup>675</sup> - Adibidea: “Elgoibarko EAJk Uri Buru Batzar berria aurkeztu du” albiste laburra. 2004ko apirileko 485. zenbakian. (9. or.).

<sup>676</sup> - Adibidea: “Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu ziren Elgoibarren uztailaren 2an”. 2004ko uztaileko 496. alean. (8. or.).

<sup>677</sup> - Adibidea: “EAJ nagusitu zen Elgoibarren Europako hauteskundeetan” argazki-albiste. 2004ko 512. zenbakian. (12. or.).

<sup>678</sup> - Adibidea: “Arnaldoren aitak eta nire aitak elkarrekin lan egin zuten Sigman”, Xabier Arzallusi ingandako elkarrizketa. 2002ko maiatzeko 405. alean. (10. or.).

<sup>679</sup> - Adibidea: “Enbido PNV-ri”, Auzolanian Mendaroko herri bilguneak idatzitako gutuna. 2003ko apirileko 443. zenbakian. (4. or.).

<sup>680</sup> - “Hankasartzeak”, Ainhoa Lodosok idatzitako iritzi-zutabea. 2002ko otsailko 394. zenbakian. (3. or.).

<sup>681</sup> - “Egokia iruditzen al zaizu Ibarretzek proposatutako lema?” kale-inkesta. 2000ko urriko 337. alean. (8. or.).

<sup>682</sup> - Adibidea: “Ignacio Mugerza zinegotziak kargua utzi du” albiste laburra. 2000ko azaroko 343. zenbakian. (11. or.).

<sup>683</sup> - Adibidea: “Elgoibarko alderdiek izendatu dituzte Udala Hauteskundeetarako zerrenda buruak” albiste. 2003ko apirileko 443. alean. (8. or.).

<sup>684</sup> - Adibidea: “Alderdi abertzaleen ekitaldi bateratua”. 2000ko abenduko 345. zenbakian. Urtekarian. (8. or.).

<sup>685</sup> - Adibidea: “Alderdiak dimisioa eskatu dio Eulogio Perez Garay PPko zinegotziari”. 2000ko martxoko 314. alean. (12. or.).

<sup>686</sup> - “Eulogio Perez Garay”. 2000ko abenduko 345. zenbakian. Urtekarian. (7. or.).

bi<sup>689</sup> iritzi-zutabetan agertzen da. PSE-EE alderdia, hiru albiste laburretan<sup>690</sup>, bi albistetan<sup>691</sup>, gutun batean<sup>692</sup> eta bi iritzi-zutabetan<sup>693</sup>. Ezker Batua, albiste batean<sup>694</sup>, bi albiste laburretan<sup>695</sup> eta elkarrizketa batean<sup>696</sup> agertu da. Aralar alderdia behin<sup>697</sup> baino ez da agertu eta Mendaroko Talde Independentea, albiste labur batean<sup>698</sup> eta elkarrizketa batean<sup>699</sup> izan da protagonista.

Bestalde alderdien atal honetan, hauteskudeen gaia sei aldiz agertu da: EEBBetako hauteskundeak iritzi-zutabe batean<sup>700</sup>, Legebiltzarreko hauteskudeen gaia bi zutabetan<sup>701</sup> Espainiako hauteskundeak, kale-inkestan<sup>702</sup> eta iritzi-zutabe batean<sup>703</sup>, eta Europako hauteskudeen gaia iritzi-zutabe batean<sup>704</sup> jorratzen da.

### C) EUSKAL HERRIKO GATAZKA

Euskal Herriko gatazkaren gaia, gehien lantzen den bigarren gai politikoa da. Hala ere, hasierako bi urteetan gehiago agertzen da eta 2001etik 2002ra erdira jaisten da. Hurrengo bi urteetan apur bat gehiago landu arren, ez da lehenengo eta bigarren urtean beste agertzen. Orotara hirurogei aleetan, Euskal Herriko gatazkaren gaia jorratzen duten zazpi albiste<sup>705</sup>, hamalau albiste labur<sup>706</sup>, hamalau argazki-albiste<sup>707</sup>, zortzi irakurleen gutun<sup>708</sup>, hamabost iritzi-

<sup>687</sup>- "Proiektu gaztea aurkezten dugu, berritzailea", Iñigo Arkauz PPko hautagaiari egindako elkarrizketa. 2003ko maiatzeko 444. alean. (26. or.).

<sup>688</sup>- "Euskal gezurti ikustezinak", K.C-k idatzitako gutuna. 2002ko urtarrileko 389. zenbakian. (4. or.).

<sup>689</sup>- Adibidea: "Hankasartzeak", Ainhoa Lodosok idatzitako iritzi-zutabea. 2002ko otsaileko 394. alean. (3. or.).

<sup>690</sup>- Adibidea: "PSE-EEren batzarra" albiste laburra. 2000ko azaroko 341. zenbakian. (11. or.).

<sup>691</sup>- Adibidea: "PSE-EEk Gernikako Estatuaren alde aurkeztutako mozioaren aurkako botoa eman zuten EAJ eta EAK". 2003ko abenduko 470. alean. (8. or.).

<sup>692</sup>- "Euskal gezurti ikustezinak", K.C-k idatzitako gutuna. 2002ko urtarrileko 389. zenbakian. (4. or.).

<sup>693</sup>- Adibidea: "Hankasartzeak", Ainhoa Lodosok idatzitako iritzi-zutabea. 2002ko otsaileko 394. alean. (3. or.).

<sup>694</sup>- "Elgoibarko alderdiek izendatu dituzten udal hauteskundeetarako zerrenda buruak". 2003ko apirilko 443. zenbakian. (8. or.).

<sup>695</sup>- "Unai Zulaika EB-IUko zinegotziak kargua utzi du". 2004ko abenduko 512. alean. Urtekarian. (11. or.).

<sup>696</sup>- "Demokrata, ezkertiarra eta koherentea naiz", Igor Irigoien EB-IUko zerrenda buruari egindako elkarrizketa. 2003ko maiatzeko 444. alean. (27. or.).

<sup>697</sup>- "Kexak" atalean: Hauteskunde kanpainan, Aralar Alderdi Politikoaren kartelean jarritako "Colaboracionistas" pegatina onartezina iruditzen zait. "Argazkia Netoko aparkalekuan hartuta dago. Ni ez naiz alderdi horretakoa, baina onartezina iruditzen zait, nazkagarria. Ez nuke nahi pegatina hori ipini dutenek gobernaturiko Euskal Herrian, ez baitute askatasunean sinisten". 2004ko uztaileko 496. alean. (5. or.).

<sup>698</sup>- "Mendaroko Talde Independentearen aurkezpena" albiste laburra. 2003ko martxoko 439. zenbakian. (24. or.).

<sup>699</sup>- "Informazioa herritarrengana iristeko mekanismoak eskasak dira", Esti González MTI-ko zerrenda buruari egindako elkarrizketa. 2003ko apirilko 443. alean. "Kilibarren" 94. zenbakian. (2. or.).

<sup>700</sup>- 2000ko azaroko 341. alean. (3. or.).

<sup>701</sup>- 2001eko maiatzeko 364. alean (3. or.) eta 2001eko ekaineko 365. zenbakian. (3. or.).

<sup>702</sup>- 2004ko martxoko 480. alean. (10. or.).

<sup>703</sup>- 2004ko martxoko 480. zenbakian. (3. or.).

<sup>704</sup>- 2004ko ekaineko 491. alean. (3. or.).

<sup>705</sup>- Adibidea: "7 lagun atxilotu zituen Ertzaintzak Jaio eta Iriondo presoaren aldeko omenaldian". 2002ko azaroko 426. zenbakian. (8. or.).

<sup>706</sup>- Adibidea: "11 elgoibartari 'terrorismoaren apologia' leporatu diete". 2003ko otsaileko 434. alean. (9. or.).

<sup>707</sup>- Adibidea: "Josu Lariz Buenos Airesen atxilotu dute". 2002ko abenduko 427. alean. (8. or.).

<sup>708</sup>- Adibidea: "Harrobia? Harro gaude!", H.O.A-k idatzitako gutuna. 2001eko martxoko 354. zenbakian. (4. or.).

zutabe<sup>709</sup> eta hiru kale-inkesta<sup>710</sup> argitaratu dira *Barren* aldizkarian. Datu horiek kontuan hartuz, gai honi buruzko testuen %42, iritzi atalean argitaratu dira.

Hasierako bi urteetan Euskal Herriko gatazkari aldizkarian eskaintzen zaion espazioa hurrengo hiru urteetan baino handiagoa da. 2000 urtean, albiste bat, hiru albiste labur, sei argazki-albiste, bi gutun, hiru zutabe eta kale-inkesta bat aurkitu dira. 2001ean, bi albiste, bost albiste labur, lau argazki-albiste, lau gutun, lau iritzi-zutabe eta kaleko inkesta bat argitaratzen dira. 2002tik aurrera toki gutxiago hartzen du Euskal Herriko gatazkak astekariaren orrialdeetan: 2002an albiste bakarra, albiste labur bat, argazki-albiste bat eta bi iritzi-zutabe kaleratu dira. 2003an, bi albiste, bi albiste labur, bi argazki-albiste eta sei iritzi-zutabe izan dira eta 2004an, albiste bakarra, hiru albiste labur, bi argazki-albiste, bi gutun, lau iritzi-zutabe eta kale-inkesta bat argitaratzen dira.

#### **D) BESTEAK**

Bestelako gai politikoak oso gutxitan agertzen dira Elgoibarko aldizkarian eta momentu puntualetan kaleratzen dira. Hots, Elgoibarrekin zerikusia dutenean edo elgoibartarrak tartean daudenean, baina ez dira urtero jarraikortasun batekin agertzen diren gaiak. Erakunde ezberdinen gaia, hiru albistetan<sup>711</sup> eta bi argazki-albistetan<sup>712</sup> aurkitu dugu. Aldundia, bi albiste laburretan<sup>713</sup> da protagonista. Eusko Jaurlaritza labur batean<sup>714</sup> eta argazki-albiste batean<sup>715</sup> aurkitu dugu eta gerra eta ejertzitoen gaia, iritzi-generoetan agertzen da batez ere, hiru iritzi-zutabetan<sup>716</sup> eta 2002ko abenduko 427. alean argitaratzen den komikian.

#### **Politikaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, gai politikoak ez dira asko lantzen *Barren*en eta urteekin gutxituz doa gai horien agerpena. Hala ere, presentzia mailaren arabera, alderdiak, Euskal Herriko gatazka eta udala dira gai politikorik garrantzitsuak, urtero argitaratzen baitira gai hauei buruzko testuak. Horrela bada, alderdien gaia indartu egiten da urteak pasa ahala, 2003 eta 2004an bere agerpen-maila altuenak

<sup>709</sup>- Adibidea: “Bi istorio, bi argudio”, Gotzon Arrietak idatzitako iritzi-zutabea. 2003ko 444. alean. (3. or.).

<sup>710</sup>- Adibidea: “Zer iritzi daukazu Carod-Rovira ETArekin batzartzearen gainean?” kale-inkesta. 2004ko urtarrileko 474. zenbakian. (10. or.).

<sup>711</sup>- Adibidea: “Udalak Foru Aldundiari aurreratutako dirua itzultzeko eskatu dio”. 2000ko otsaileko 309. alean. (12. or.).

<sup>712</sup>- Adibidea: “Eusko Jaurlaritzak Elgoibarko Udalarekin akordioa sinatu du”. 2000ko abenduko 345. zenbakian. Urtekarian. 12. or.).

<sup>713</sup>- Adibidea: “Gipuzkoako Udalek espero zutena baino % 4,8 gehiago jasoko dute Foru Aldunditik”. 2003ko urriko 462. alean. (9. or.).

<sup>714</sup>- “Eusko Jaurlaritzak Deba Digitala proiektua bultzatuko du”. 2003ko abenduko 470. zenbakian. Urtekarian. (32. or.).

<sup>715</sup>- “Ekainaren 7an Kontsumo Busa Elgoibarren”. 2004ko ekaineko 491. alean. (9. or.).

<sup>716</sup>- Adibidea: “Luzea, zikina eta gaiztoa”, Alberto Ansuategik idatzitako iritzi-zutabea. 2001eko otsaileko 349. zenbakian. (3. or.).




lortuz. Kontuan hartu behar da 2003. urtean udal hauteskundeak izan zirela eta orokorrean politika aldizkarian hauteskunde garaian agertzen dela. Informazio-generoak nagusitzen dira alderdien gaia lantzeko orduan. Hauteskunde gaia, aldiz, iritzi-zutabeetan agertzen da gehienetan. Euskal Herriko gatazkaren gaia hasierako bi urteetan lantzen da gehien eta hortik aurrera, bere agerpena gutxituz doa. Gaia informazio-generoetan agertzen da batik bat, baina Euskal Herriko gatazkaren inguruan jasotzen den iritzi kopurua ere altua da, %42koa. Udalaren gaiaren presentzia urtetik urtera gutxituz doa, nahiz eta urtero %25etik gorako portzentajeetara heldu. Batez ere Elgoibarko udalari buruzko informazioak eta iritziak kaleratzen dira aldizkariko sail ezberdinetan, Mendaroko udala gutxiago azalduz. .

#### 4.3.4.2-Ekonomia

Ekonomia gutxien agertzen den gaia da *Barren* aldizkarian; gai guztien artean ekonomiak %6ko portzentajea izan du gure azterketa-epean. Politikak epe berean izan duen portzentajea baino puntu bat gutxiago hain zuzen ere. Hurrengo bi ataletan nolakoa izan den ekonomiaren bilakaera eta horren arrazoiak zeintzuk izan diren azalduko dugu. Lehenengo grafiko eta taulan, 2000-2004 bitartean Elgoibarko astekarian gai ekonomikoaren agerpen orokorra aztertuko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, ekonomia gai bakoitzak urte bakoitzean izan duen agerpena eta garapena zein izan den ikusiko dugu.

##### 4.3.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean

53E. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

	Enpresa	Laborala/langabezia	Nekazaritza/Abeltzaintza	Itsasoa/Arrantza	Merkataritza	53F. taula GUZTIRA
Kopuru absolutuak	50	32	7	1	87	177

Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Elgoibarko astekarian hirurogei aleetan kaleratu diren gai guztien artean, ekonomiak %6ko portzentajea izan du. Horrek zerikusirik zuzena dauka, aldizkarian lanean ari diren profesionalak dituzten gustuekin alde batetik, eta gai ekonomikoek lantzeko duten berezko

komplexutasunarekin bestetik. Asier Orbea, *Barren* aldizkariko kazetariak onartzen du ekonomia gaiei ez zaiela benetan duten garrantzia ematen aldizkarian:

*“Kazetarien gaitasunak, kazetarien gustu edo afinitateak uste dut zerikusi zuzena dutela gaiak lantzerako orduan. Gaiak berak duen erraztasunak ere, esaterako makina erremintak Elgoibarren izugarritzko garrantzia dauka eta agian gure aldizkarian ez da gaiak daukan garrantziaren arabera agertzen. Bestalde, kontuan hartu behar da irakurlearentzat ere gai horiek edo beste batzuek izan dezaketean garrantzia zenbaterainokoa den”*<sup>717</sup>.

53E. grafikoan eta 53F. taulan agertzen diren kopuru eta portzentajeen arabera, argi dago ekonomiaren baitan gai batzuk askoz gehiago agertzen direla beste batzuekin alderatuz gero.

### **A) MERKATARITZA**

Merkataritza da bost urteko epean gehien jorratu den ekonomia gaia. Aldizkarian kaleratu diren atal batzuk zehazki merkataritzara zuzenduta egon direlako, “Ispiluari begira” edo “Norbere ofizioan” bezalako sekzioak hain zuzen ere. Astekarian kaleratu diren gai ekonomien ia erdia (%49) merkataritzari buruzko testuetan agertzen da. Era berean, aldizkariko langileen aldetik herriko komertzioarekiko sentsibilitatea handia izan da betidanik, finean, herriko merkataritzak publizitatea eginez, hein handi batean ekonomikoki aldizkaria sostengatzen baitu. *“Publizitate bezero diren aldetik ere, gure arteko harreman zuzena dago. Haiek guri ematen digute eta guk haiek zaintzen ditugu”*<sup>718</sup>, azpimarratzen du Asier Orbeak.

### **B) ENPRESA**

Enpresa gaia ere maiz agertzen da *Barrenen* 2000-2004 bitartean, gehien jorratu den bigarren gai ekonomikoa berau baita; hirurogei aleotan berrogeita hamar testutan izan da protagonista enpresa. Elgoibarren enpresaren sektoreak berebiziko garrantzia dauka, Makina Erremintaren Institutua Elgoibarren dago adibidez. Aldizkarian sektorea kontuan hartzen duten arren, ez dutela merezi duen bezain beste lantzen onartzen dute. Elgoibarko zein Mendaroko hainbat enpresa aldizkariko publizitate bezeroak dira, beraz, hori ere kontuan hartzen da, publizitate bezeroak diren aldetik zaintzea komeni delako. Gogora ditzagun Joxe Aranzabalen hitzak publizitatearen inguruan: *“Herri-aldizkariak ondo zaindu behar du publizitatea, baita bertan egin behar denean ere. Bultzatzaileek ezin dute inolaz ere ahaztu publizitatea dela*

<sup>717</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>718</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

*finantzabiderik inportanteenetakoa eta horregatik hain zuzen ere, babestu eta mimatu egin behar dela”* (Aranzabal, 1992: 78).

### **C) LABORALA ETA LANGABEZIA**

Gai laboralak aurreko biak baino gutxiago agertzen dira *Barrenen*, baina halere gehien agertzen den hirugarren gai ekonomikoa da. Normalean sindikatuak informazioa ematen diete eta orduan lantzen dituzte horrelako gaiak. Langabeziaren inguruko datuak, Maiatzaren 1a edo lan istripuen aurkako kanpainak dira besteak beste atal honetan agertzen direnak.

### **D) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA**

Askoz gutxiago agertzen dira nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko testuak guk aztertu dugun epean. Elgoibarren baserri asko daude eta gaia asko landu da aurreko epean *Barren* aldizkarian. Izan ere, “Kale zulotik baserrira” baserriei buruzko lau orriko gehigarri berezia kaleratzen zen. Bertan, Elgoibarko baserri gehienak agertu ziren eta gaia agortu zenean, kaleratzeari utzi zioten. Guk aztertu dugun epean “Kale zulotik baserrira” gehigarri bakarra aurkitu dugu. Dena dela, datuak erakusten duten moduan, abeltzaintzak eta nekazaritzak eguneroko bizitzan ez dute beste gai batzuek duten garrantzia.


### **Ekonomia bi hitzetan**

Beraz, Ekonomia *Barren* aldizkarian gutxien agertzen den gaia da. Bertan lanean ari diren kazetariak horretaz jabetzen dira. Hau da, ekonomiak herrian daukan garrantziaren arabera ez dutela lantzen, zailtasunak dituztelako gaia era labur eta errazean irakurleari helarazteko.

Gai ekonomikoen artean merkataritza da gehien agertzen dena, herriko denda eta tabernei zuzendutako atal bereziak kaleratuz. Aldizkariko publizitate bezero diren aldetik, herriko denda eta tabernekin harreman zuzena dute aldizkariko langileek. Gehien errepikatzen den bigarren gai ekonomikoa, enpresarena da, nahiz eta lan-taldeak jakin badakien gai honi merezi duen arreta ez zaiola jartzen. Gai laboralak eta langabeziari buruzko informazioak neurri txikiagoan agertzen dira eta batez ere, data finkoetan eta herrian albiste direnean. Nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko testuak gure azterketa-epean oso gutxi agertu dira, baina ezin ahaztu daiteke gai honen inguruan aurretik gehigarri berezia argitaratu zela urteetan.

## 4.3.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera

54E. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen bilakaera portzentuala Barren aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urte urte.

54F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Enpresa	Laborala/ Langabezia	Nekazaritza/ Abeltzaintza	Itsasoa/ Arrantza	Merkataritza	GUZTIRA
	2000	17	10	2	0	22	51
	2001	6	7	1	1	14	29
	2002	6	4	2	0	8	20
	2003	14	5	1	0	11	31
	2004	7	6	1	0	32	46

Ekonomia gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Barren aldizkarian ekonomiaren gaia da gutxien jorratzen dena 2000-2004 bitartean. 54F. taulako kopuru orokorrei begiratu, lehenengo urtean agertzen da indartsuen ekonomiaren gaia, 2001etik aurrera gaiarekin zerikusia duten itemak gutxitu egiten baitira. 2000 urtean gai ekonomikoaren portzentajea %8an kokatzen bada, hurrengo hiru urteetan hiru puntutan egiten du behera eta 2004an berriz ere bi puntuan igotzen da %7ra helduz.

Aurreko atalean aipatu bezala, gai ekonomikoak lantzeko eta irakurlearentzat erakargarri eta ulergarri bihurtzeko zailtasunak, eragin zuzena du kazetariak gai ekonomikoak horrenbeste ez lantzerako orduan. *“Uste dut kontuan hartzen dugula, baina daukan inportantziarekin alderatuz ez dugu asko lantzen. Bestalde, kazetarion aldetik gai horiekiko dugun ezjakintasunak eragina du horrelakoak gehiago ez lantzerako orduan”*<sup>719</sup>, aipatzen du Asier Orbeak, Barreneko

<sup>719</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

kazetariak. Zailtasunak zailtasun eta kazetariak nahi beste agertzen ez bada ere, Elgoibarko aldizkarian gai ekonomiko ezberdinak aurkitu ditugu.

### **A) ENPRESA**

Enpresaren gaiak gorabehera handiak izan ditu urtetik urtera. Dena den, 54E. grafikoan eta 54F. taulan agertzen diren portzentaje eta kopuruaren artean alde handia dago. Esaterako, 2001. urtean enpresari buruzko sei item kaleratu dira eta horren portzentajea 54F. taulan %21ekoa da. 2002an, aldiz, item kopurua bera izanik, sei hain zuzen ere, portzentajea %30era arte igotzen da eta 2004an zazpi item kaleratzen badira ere, portzentajea %15ekoa da. Portzentajeak urte bakoitzeko item kopuru orokorraren arabera kalkulatzen dira eta kopuru orokorra zenbat eta altuagoa izan, gai zehatz bakoitzaren portzentajea jaitsi egiten da.

Kontuak kontu, enpresaren gaia 2000, 2002 eta 2003an agertzen da gehien *Barren* aldizkarian. Guztira aztertu ditugun hirurogei aleetan enpresaren gaia honako kazetaritza-genero hauetan aurkitu dugu: zazpi albiste<sup>720</sup>, hamalau albiste labur<sup>721</sup>, hamabost argazki-albiste<sup>722</sup>, bost elkarrizketa<sup>723</sup>, lau erreportaje<sup>724</sup>, sei gutun<sup>725</sup> eta kaleko inkesta batean<sup>726</sup>.

### **B) LABORALA ETA LANGABEZIA**

Gai laboralen agerpena murriztu egin da Elgoibarko aldizkarian urteekin batera. Hasierako hiru urteetan %20 inguruko portzentajea du gaiak eta azken bi urteetan %15 inguruan kokatzen da bere portzentajea. Kasu honetan ere, urte bakoitzeko portzentaje eta item kopuruaren artean ezberdintasun handiak daude. Adibide batekin argi eta garbi ikus daiteke: 2002an lau item kaleratzen dira eta 54E. grafikoan dagoen portzentajea %20koa da, 2004an sei item kaleratzen dira eta taulako portzentajea %13ra jaisten da. Behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, portzentajeak urte bakoitzeko item kopuru osoaren arabera kalkulatzen dira eta kopurua altuagoa den heinean, gaiaren portzentajea txikitu egiten da. Guk aztertu dugun epean, gai laboralak

<sup>720</sup>- Adibidea: "Goratuk pabiloi berria inauguratu zuen San Anton egunean". 2002ko urtarrileko 389. alean. (6. or.).

<sup>721</sup>- Adibidea: "Euskaltelek 2004. urterako jarriko du martxan zuntz optikoaren sarea Debarrenean". 2003 martxoko 439. zenbakian. (7. or.).

<sup>722</sup>- Adibidea: "Lorezaintzarako tresneria erakusketa izan zen San Migelen". 2003ko maiatzeko 444. alean. (9. or.).

<sup>723</sup>- Adibidea: "Gauzak ondo badoaz, hemendik 10 urtera beste pabiloi bat inauguratzea da gure nahia", Estarta Kooperatibako gerenteari egindako elkarrizketa. 2001eko apirileko 360. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>724</sup>- Adibidea: "Tailerreko Eskuliburu teknikoa (Made in Danobat)". 2004ko uztaileko 496. alean. (12. or.).

<sup>725</sup>- Adibidea: "Hiztegi Teknikoa dela eta", Pello Beristain Danobateko langileak idatzitako gutuna. 2003ko iraileko 458. zenbakian. (4. or.).

<sup>726</sup>- "Bizikleta hartu beharko al dugu?" Kale-inkesta. 2000ko iraileko 332. alean. (8. or.).

jorrazten dituzten hiru albiste<sup>727</sup>, hamar albiste labur<sup>728</sup>, bederatzi argazki-albiste<sup>729</sup>, bost elkarrizketa<sup>730</sup>, hiru gutun<sup>731</sup> eta bi kaleko inkesta<sup>732</sup> aurkitu ditugu.

### C) MERKATARITZA

Merkataritzaren gaia da ekonomiaren barnean gehien agertzen den gaia *Barren* aldizkarian. Aldizkariko lan-taldeak herriko komertzio eta tabernek harreman zuzena dauka, horietako asko *Barren*eko publizitate bezeroak direlako. Era berean, merkataritza herriko motore da, bertan eguneroko harremanak sortzen baitira eta hori aldizkarian islatzen da. *“Komertzioak berak herria sortzen du, herriari bizitza ematen dio, egunerokotasunean oso presente dago eta herriaren parte den heinean herritarrei hori ezagutzera ematea ere oinarritzkoa da”*<sup>733</sup>, gogoratzen du Asier Orbea *Barren*eko kazetariak.

Emaitzek argi adierazten dute merkataritza aldizkarian presente dagoen gaia dela, gero eta gehiago agertzen delako urteak pasa ahala. Hasierako bi urteetan merkataritzak %40tik gorako portzentajea dauka aldizkarian. 2002 eta 2003an gutxiago lantzen da eta %40 eta %35era jaisten da hurrenez hurren, baina 2004an igoera handia sumatzen da, hogeita hamabi item kaleratuz %70eko portzentajearen kokatzen da-eta. Bestelako gai ekonomikoekin alderatuz, merkataritzari aldizkarian espazio gehiago eskaintzen zaio: bederatzi albiste<sup>734</sup>, hamalau albiste labur<sup>735</sup>, hamazortzi argazki-albiste<sup>736</sup>, zortzi elkarrizketa<sup>737</sup>, sei erreportaje<sup>738</sup>, kronika bat<sup>739</sup>, bi informazio erabilgarri<sup>740</sup>, hamalau komiki<sup>741</sup>, sei kale-inkesta<sup>742</sup>, zazpi gutun<sup>743</sup> eta bi iritzi-

<sup>727</sup> - Adibidea: “Debegesak arrisku laboralen prebentziorako ikastaroak antolatu ditu”. 2003ko iraileko 457. zenbakian. (9. or.).

<sup>728</sup> - Adibidea: “Gestio ikastaroak Debabarreneko enpresentzat”. 2004ko iraileko 501. alean. (9. or.).

<sup>729</sup> - Adibidea: “Eskualdeko emakumeak lan mundura bideratzeko ikastaroa hasi dute IMHn”. 2001eko iraileko 376. zenbakian. (9. or.).

<sup>730</sup> - Adibidea: “Kalean sokorristei buruz dagoen mentalitatea ez da zuzena”, Andrea Etxaniz sorosleari bere lanari buruz egindako elkarrizketa. 2000ko ekaineko 326. alean. (17. or.).

<sup>731</sup> - Adibidea: “Patronalak hiltzera kondenatzen gaitu”, Elkartzen taldeak idatzitako gutuna. 2003ko martxoko 439. zenbakian. (4. or.).

<sup>732</sup> - Adibidea: “Zein da hainbeste lan istripu izatearen arrazoia?” kale-inkesta. 2000ko otsaileko 309. alean. (8. or.).

<sup>733</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>734</sup> - Adibidea: “Edarien prezioek gora egin dute Elgoibarko tabernetan”. 2000ko otsaileko 309. alean. (10. or.).

<sup>735</sup> - Adibidea: “Lapurreta saiakera izan zen asteartean Eroski Charterren”. 2001eko maiatzeko 364. zenbakian. (10. or.).

<sup>736</sup> - Adibidea: “Ander Gerenabarrenak irabazi du Txankakuaren Gabonetako zozketako sari nagusia”. 2002ko martxoko 395. alean. (9. or.).

<sup>737</sup> - Adibidea: “Ofizioa” sailean Nu-Van altzari dendako Ainara Etxebarriari egindako elkarrizketa. 2004ko otsaileko 475. zenbakian. (18. or.).

<sup>738</sup> - Adibidea: “Euroa, diru berria Elgoibarren”. 2000ko urriko 337. alean. (6.-7. or.).

<sup>739</sup> - “Toletxe Taberna”, Elgoibarko Izarraren kronika. 2003ko azaroko 464. zenbakian. (3. or.).

<sup>740</sup> - Adibidea: “Txotx” sagardotegiei buruzko gida. 2001eko otsaileko 349. alean. (6.-7. or.).

<sup>741</sup> - Adibidea: 2002ko apirilko 400. zenbakian. (5. or.).

<sup>742</sup> - Adibidea: “Ostegunean merkatua lekuz aldatzeko erabakiak soka luzea ekarri du herrian. Udalak atzera egin beharko luke hartutako erabakian?”. 2004ko iraileko 501. alean. (10. or.).

<sup>743</sup> - Adibidea: “Merkatu txikia ala alkatetza autoritarioa”, Iñaki Odriozolak eta Iñaki Bengoetxeak sinatutako gutuna. 2004ko iraileko 501. zenbakian. (4. or.).

zutabe<sup>744</sup> aurkitu ditugu aztertu ditugun hirurogei zenbakietan. Bitxia da, komiki ezberdinetan taberna edo komertzioa hainbestetan agertzea, baina eguneroko harremanak bertan sortzen diren heinean, herrian eta herritarren artean protagonismo handia duen gaia da eta komikiaren autoreak horrela islatzen du bere lanetan.

#### **D) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA**

Nekazaritza eta abeltzaintzaren gaia jorratzen duten hiru erreportaje<sup>745</sup>, labur bat<sup>746</sup>, bi elkarrizketa<sup>747</sup> eta argazki-albiste bat<sup>748</sup> kaleratu dira 2000-2004 bitartean guk aztertu ditugun aldizkarietan. Arrantzaren gaia agertzen den testu bakarra aurkitu dugu, 2001eko azaroko 383. aleko “Laino guztien azpitik eta olatu guztien gainetik” erreportajea hain zuzen ere.

#### **Ekonomiaren bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, ekonomia *Barren*en gutxi lantzen da eta urteekin indarra galtzen du, ekonomiari buruzko item kopuruak beheranzko joera erakusten duelako. Enpresaren gaiak gorabehera handiak ditu urtetik urtera, hasieran apur bat jaitsi egiten da, 2002 eta 2003an indartsu agertu ondoren, 2004an portzentajeak erdira jaisten dira. Enpresari buruzko testu informatiboak nagusitzen dira bost urte hauetan. Gai laboralek ere, poliki-poliki indarra galtzen dute aldizkarian, gaiaren inguruan gero eta informazio gutxiago emanez. Urteak pasa ahala merkataritzari arreta handiagoa ezartzen zaio. Beste gai ekonomiko guztien artean urtero nagusitzen den gaia izateaz gain, urtetik urtera merkataritzari buruzko testuak areagotu egiten dira. Horren erakusle 54E. grafikoan agertzen diren portzentajeak dira, lehenengo urtetik azken urtera arte kopuruak ia bikoiztu egiten baitira. Nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko testuak gero eta gutxiago dira, gaia bera ia desagertu arte.

<sup>744</sup> - Adibidea: “Ogiaren garrantzia”, Ainhoa Andonegik idatzitako iritzi-zutabea. 2001eko azaroko 382. alean. (3. or.)

<sup>745</sup> - Adibidea: “Zeleta, energia berriztagarriak tomateen zerbitzura”. 2003ko maiatzeko 444. zenbakian. (6.-7. or.)

<sup>746</sup> - “Jesus Mari Gerenabarrena Ezti lehiaketako irabazlea Debarrenean”. 2000ko abenduko 345. alean. (32. or.)

<sup>747</sup> - Adibidea: “Gorputzantzat, kalia baino hobia da basarrixa”, Manuel Salegi baserritarrari egindako elkarrizketa. 2001eko azaroko 382. zenbakian. (13.-14.-15. or.)

<sup>748</sup> - “Peio Rubiok nekazaritza ekologikoari buruzko erakusketa egingo du Eibarren”. 2002ko urtarrileko 389. zenbakian. (7. or.)



#### 4.3.4.3- Gizarte-gaiak

Gizarte-gaiak dira Elgoibarko aldizkarian gai izarrak, eta emaitzek hori adierazten dute, ia gaien erdia (%46) gizarte-gaiei buruzko testu ezberdinak osatzen dute-eta. Hurrengo bi ataletan gizarte-gaien garapena eta agerpenaren nondik norakoak azalduko ditugu. Alde batetik, lehenengo grafiko eta taularen bitartez, gizarte-gai bakoitzak *Barren* aldizkarian 2000-2004 bitartean izan duen agerpena aztertuko dugu. Bigarren grafiko eta taularen bitartez, gizarte-gai bakoitzak urtetik urtera astekarian izan duen bilakaera erakutsiko dugu.

##### 4.3.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean

55E. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

55F. taula

	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	54	101	164	211	74	117	420	266	1.407

Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Orotara 3.061 item aztertu dira *Barren* aldizkarian. Kopuru horren ia erdia (%46), 1.407 item alegia, gizarte-gaiei buruzko testuak izan dira. Beraz, gehien errepikatu diren gaiak atal honen baitan daudenak dira. Alde batetik, atal honek gainerako atalek baino azpi-kategoria gehiago dituelako eta beste alde batetik, herri-aldizkari gehienetan gertatzen den moduan, gizarte-gaiak direlako aldizkarietako protagonista nagusiak. Jotxo Larrañaga, Miren Gabantxo

eta Asier Arangurenek “Sei herri-aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat” lanean egindako ikerketaren ondorio orokorretan ere, gizarte-gaien lehentasuna azpimarratzen da.

Gizarte-gaien artean, gizarte ohiturak (laurehun eta hogeit), zerbitzuak (berrehun eta hirurogeita sei), eta hezkuntza (berrehun eta hamaika) dira gehien errepikatzen diren gaiak. Neurri txikiago batean, lanak (ehun eta hirurogeita lau) eta ingurumenak (ehun eta hamazazpi) ere agerpen garrantzitsua dute Elgoibarko aldizkarian. Atal honetan argitaratzen den kategoria bakoitzak 2000-2004 bitartean izan duen agerpena nolakoa izan den azalduko dugu hurrengo lerroetan:

### **A) TALDEAK**

Herrian lanean ari diren talde ezberdinei buruzko berrogeita hamalau item kaleratu dira *Barrenen* guk aztertu ditugun hirurogei zenbakietan. Herriko talde guztiei egiten zaie lekua aldizkariko orrietan eta hori zaintzen ahalegintzen dira bertoko kazetariak. Izan ere, bost urte hauetan makina bat talde izan dira testuetako protagonista: emakumeen taldea, jubilatuek, Gutun Sozialaren aldeko plataforma, Euskal Presoen aldeko “Batera” plataforma, Gazte Asanblada, Elizako taldea, Nagusilan elkarteak, Nunca Mais plataforma, drogen inguruko zalantzak argitzeko jaio zen Errotatxo taldea edo Galiziar taldea besteak beste. Asier Orbeak dionez, batzuk beste batzuk baino ohitura gehiago izaten dute aldizkarira joateko euren ekitaldien berri ematera: *“Denetarik egoten da, batzuetan eurak datoz eta beste batzuetan gu goaz eurengana. Askotan talde horietan dagoen jendearen arabera ere izaten da, segun eta nor dagoen errazago hurbiltzen da guregana; beste talde batzuek ez dute inolako ohiturarik etortzeko”*<sup>749</sup>.

Kategoria honetan sailkatu ditugun testuak, taldeen sorrera, ekitaldi edo barne funtzionamenduari buruzkoak izan dira, baina taldeak beste hainbat testutan ere agertzen dira, herrian egiten diren zenbait ekitaldiren antolatzaile diren neurrian. Hots, emakumeen taldeak, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko kanpaina antolatu badu, testua gizarte arazoan epigrafean sailkatuko dugu, baina emakumeen taldea antolatzailea izanik, testuan agertzen da eta protagonista da nahitaez.

### **B) GIZARTE ARAZOAK**

Gizarte arazoan gaiak ez dira jarraikortasunez lantzen Elgoibarko aldizkarian eta momentuan duten garrantziaren arabera agertzen dira. 55E. grafikoan eta 55F. taulan agertzen

---

<sup>749</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

diren datuak horren erakusle dira, hirurogei aleotan ehun eta bat aldiz agertu baita gizarte arazoan gaia. Ez da gehien lantzen diren gaien artean aurkitzen, baina herritarren artean interesa piztu eta oihartzuna duten gaiak direnean lantzen saiatzen dira, nahiz eta horrelakoak batzuetan, herriko gai espezifikokoak izan beharrean, orokorrakoak izaten diren.

### **C) LANAK**

Lanen gaia nabarmen agertzen da *Barren* aldizkarian. Guztira ehun eta hirurogeita lau testutan izan da gai nagusia. Kategoria honen barnean, etxebizitza eta herrilanak agertzen dira eta herrilanen atala etxebizitzaren gaia baino askoz gehiago agertzen da orokorrean eta baita urtez urte ere. Datuen arabera, herrilanak ehun eta berrogeita zazpi bider agertzen dira guk aztertu ditugun hirurogei zenbakietan eta etxebizitzaren gaia hamazazpi testutan azaldu da. Beraz, herrilanez garrantzi handiagoa dutela ondoriozta dezakegu, horregatik, herrian martxan dauden proiektu urbanistiko gehienek berri ematen saiatzen dira *Barrenen* eta informazio hori udaletik jasotzen dute zuzenean.

### **D) HEZKUNTZA**

Hezkuntzaren gaia berrehun eta hamaika testutan aurkitu dugu Elgoibarko aldizkarian. Kopuru horrek gehien errepikatzen den hirugarren gaian bihurtzen du. Gizarte-gai guztien %15 hezkuntzarekin erlazionatutako dago. Hezkuntzaren gaia eguneroko bizitzan oso presente dagoen gaia da, informazio asko sortzen duen alorra delako (ikastetxeetako matrikulazio datuak, ekitaldiak, ikastaroak...). Bestalde, *Barren* aldizkariak hezkuntza gaiak agertzen diren atal eta gehigarri bereziak ditu, “Gaztaroa”, “Ikasbarren” edo “Txikibarren” gehigarria besteak beste. Aldizkariko hainbat ataletan agertu dira hezkuntzari buruzko testuak, “Motz”, “Erreportajea”, iritzi-zutabeetan edo kale inkestetan, baina zalantzari gabe gehienak “Ikasbarren” eta “Txikibarren” gehigarrietan kaleratu dira.

### **E) OSASUNA**

Osasunaren gaia hirurogeita hamalau bider agertu da *Barrenen*. Ez da gehien lantzen den gaien artean agertzen eta oro har, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, albiste laburretan eta informazio erabilgarrietan agertzen den gaia da. Hala eta guztiz ere, osasunari buruzko informazio eta aholkuak emateko atal berezia kaleratzen du Elgoibarko astekariak: “Osasuna” saila hain zuzen ere. Sekzio horretan, aldizkarian publizitatea sartzeko duten osasun arloko profesionalak, hilean behin euren espezialitateari buruzko testuak idazten dituzte. Urteak pasa ahala gai honi buruzko testu gehiago kaleratzen dira astekarian.

## **F) INGURUMENA**

Ingurumenaren gaia ehun eta hamazazpi bider errepikatzen da *Barren* aldizkarian. Trafiko eta garraioei buruzko berrogeita hamar testu, eta ingurumena eta naturarekin zerikusia duten hirurogeita zazpi item aurkitu ditugu 2000-2004 bitartean. Atal honetan argitaratzen diren idatzi gehienak oso lotuta daude herriko egunerokotasunarekin. Hurrengo atalean frogatuko dugun bezala, testu gehienak “Kexak” atalean argitaratzen dira. Beraz, ingurumenaren gaia herriko bizitzarekin eta herritarren kezkekin oso lotuta dagoela esan daiteke.

## **G) GIZARTE OHITURAK**

Gizarte ohituren atalak garrantzi berezia du *Barren* astekarian, berau baita gehien errepikatzen den kategoria, guztira lauhun eta hogeitun testutan agertuz. Ikerlan honetan aztertu diren hirurogei zenbakietan, gizarte ohituren barnean dauden hiru azpi kategorien emaitza orokorrak honako hauek dira: aisialdiaren gaia hirurogeita hemeretzi testutan agertu da, gizarte bizitza ehun eta hamasei idatzitan izan da protagonista eta herritarren bizitza berrehun eta hogeita bost bider argitaratu da *Barrenen*. Astekarian herriko jendea aldizkariko protagonista bilakatzen saiatzen dira eta herritarrak ez badira aldizkarira hurbiltzen, aldizkariak bilatuko ditu herritarrak eta protagonista bihurtuko ditu:

*“Zalantzarik gabe, herritarrak aldizkariko protagonista egiten ahalegintzen gara. Gauza asko hartzen ditugu kontuan; guk geuk zeri ematen diogun garrantzia ere, kontuan hartuko dugu. Elgoibarren edo Elgoibartik kanpo nabarmendu den norbait izatea, lanbidea, guk berari buruz dakiguna...”<sup>750</sup>*, gaineratzen du Asier Orbea kazetariak.

Hurbileko informazioa emateko helburuarekin jaio zen *Barren* astekaria eta hurbileko informazioaren protagonista nagusiak, *Barrenen* astero ikus daitekeen moduan, elgoibartarrak dira

## **H) ZERBITZUAK**

Zerbitzu-gune garrantzitsua du Elgoibarko astekariak. Zerbitzuen gaia gehien errepikatzen den bigarren gizarte-gaia bilakatu baita 2000-2004 bitartean. Zerbitzuei buruzko berrehun eta hirurogeita sei item argitaratu dira *Barrenen* bost urteko epean eta guk aztertu ditugun aleetan. Kontuan hartu behar da ale bakoitzean argitaratzen den zerbitzu-informazio kopurua oso altua dela eta ale bakoitzean argitaratzen den zerbitzu-informazio finko guztia

---

<sup>750</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.


(intereseko telefonoak, okindegi eta farmazien ordutegiak, tren eta autobusen ordutegiak, gazte informazioa eta merkatu txikia) zerbitzuen gai bezala sailkatu dela, azken emaitza nabarmen handituz. Bestalde, atal honetan herriko zerbitzuekin zerikusia duten albiste laburrak edo kexak ere aurkitu ditugu, hurrengo atalean zehatzago aztertuko direnak.

### **Gizarte-gaiak bi hitzetan**

Beraz, gizarte-gaiak dira aldizkariko protagonista nagusiak, batez ere gizarte ohituren atala %30eko portzentajearekin. Ondoren, zerbitzuak eta hezkuntzari buruzko testuak %19-%15eko portzentajeetan agertzen dira hurrenez hurren. Gainerako gai guztiak, %4-%12 bitartean kokatzen dira. Gizarte ohituren atala hiru azpi-kategoria ezberdinek osatzen dute eta zalantzarik gabe gehien agertzen dena, herritarren ohitura eta bizitzari buruzkoa da. Bertan herritarrak eta horien egunerokotasunak aldizkariko protagonista bilakatu. Gizarte ohitura eta zerbitzuen atzetik, lanak eta hezkuntza dira gure azterketa-epan gehien errepikatzen diren gaiak. Herrian egiten diren lan gehienei buruzko informazioak agertzen dira eta hezkuntza lantzeko atal bereziak kaleratzen dira, “Ikasbarren” eta “Txikibarren” gehigarria. Osasuna eta taldeen gaia *Barrenen* gutxien agertzen diren gizarte-gaiak dira.

4.3.4.3.4- Gizarte-gaien bilakaera

56E. grafikoa



Barren Gizarte-gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

56F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
	2000	15	12	32	20	15	16	103	49	262
	2001	4	24	27	25	14	32	78	51	255
	2002	13	23	31	39	13	23	71	54	267
	2003	15	21	33	58	15	27	81	49	299
	2004	7	21	41	69	17	19	87	63	324

Gizarte-gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Bost urteko epean *Barren* aldizkariak izan duen bilakaerari erreparatu badiogu, gizarte-gaiei buruz argitaratzen diren testuak gero eta gehiago direla antzeman daiteke. Poliki-poliki bada ere, urtetik urtera eta datu orokorreki erreparatu, gizarte-gaiei buruzko itemek gora egin dute. 2000. urtean guztira gizarte-gaiei buruzko berrehun eta hirurogeita bi testu kaleratzen dira eta 2004an, hogeita hamazortzi idatzi gehiago, hirurehun eta hogeita lau item hain zuzen ere. Dena dela gizarte-gaien barnean gorabeherak izan dira gai ezberdinen artean eta gai batzuk beste batzuk baino gehiago errepikatu dira.

Astero hurrengo alerako gaiak lan-taldeko bi pertsonen artean erabakitzen dituzte beraien gustu eta zaletasunekin zerikusia duten gaiak sartzea saihestu ezinik. “Argi dago gure mundutik

*kanpo irteten saiatzen garela, baina nahitaez zer edo zer nabarituko da*<sup>751</sup>, argitzen du Asier Orbea, *Barren*eko kazetariak. Gaiak aukeratzeko orduan Elgoibarri buruz beste hedabide batzuk esandakoa kontuan hartzen bada ere, *Barren* aldizkariak bere izaera propioa lantzen du eta bertoko profesionalen ustez, aldizkarian agertzen diren gai eta protagonistak eta *Diario Vascon* agertzen direnak ezberdinak dira. “*Bai hartzen dugu kontuan batez ere Diario Vascon agertzen dena. Nik uste dut, erreportaje eta elkarrizketetan irabazten diegula; irabazi baino, beste gai eta protagonista batzuk dira horietan eta gurean agertzen direnak*”<sup>752</sup>. Horrela bada, hurrengo lerroetan gizarte-gai bakoitzak urte urte izan duen bilakaera azalduko dugu.

### A) TALDEAK

Taldeen gaia 2000 eta 2003an agertzen da batez ere, bi urte horietan talde ezberdinei buruzko hamabost item kaleratuz. Gainerako hiru urteetan gorabehera handiak daude taldeen gaiaren agerpenean. Izan ere, 2001ean lau testutan bakarrik dira taldeak protagonista. 2002an taldeei buruzko hamahiru testu agertzen dira eta 2004an zazpi item argitaratzen dira. Aurreko atalean aipatu bezala, taldeen bizitza eta antolaketari buruz diharduten testuak sailkatu ditugu epigrafe honetan, baina taldeak beste hainbat gai jorratzen direnean ere inplizituki agertzen dira aldizkarian. Gainera, urtero batzuen ekitaldiak eta gaiak errepikatzen direnean, *Barren* aldizkariako kazetariak talde horien gaia era ezberdinean lantzen ahalegintzen dira, aurretik landu den horri, ikuspegi ezberdina emanez edota kazetaritza-genero ezberdina erabiliz. Aztertutako epean, taldeei buruzko bost albiste<sup>753</sup>, hogeitun albiste labur<sup>754</sup>, hamaika argazki-albiste<sup>755</sup>, elkarrizketa bat<sup>756</sup>, hiru erreportaje<sup>757</sup>, hamar gutun<sup>758</sup>, hiru kronika<sup>759</sup> eta iritzi-zutabe bat<sup>760</sup> aurkitu ditugu.

### B) GIZARTE ARAZOAK

Gizarte arazoei buruzko itemak lehenengo urtetik bigarren urtera arte bikoiztu egiten dira eta 2001etik aurrera item kopurua urtero nahiko antzerako mantentzen den arren, portzentajeak

<sup>751</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>752</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>753</sup>- Adibidea: “Euskal Presoen aldeko ‘Batera’ plataforma eratu dute Mendaron. 2000ko martxoko 314. alean. “Kilibarren” 63. zenbakian. (4. or.)

<sup>754</sup>- Adibidea: “Iñaki Insaustik jarraituko du jubilatuen lehendakari izaten”. 2004ko martxoko 480. zenbakian. (8. or.)

<sup>755</sup>- Adibidea: “Elgoibarko emakumeek txangoa egin zuten Hondarribia eta Donostia”. 2000ko martxoko 314. alean. (11. or.)

<sup>756</sup>- “Momentua bizi behar da, iragana atzean utziz eta etorkizunaz gehiegi pentsatu gabe”, Haizea Emakume Taldeko Eskarne Larrinagari egindako elkarrizketa. 2003ko azaroko 464 zenbakian. (18. or.)

<sup>757</sup>- Adibidea: “Drogak? Erantzuna Errotatxok emango dizu”. 2003ko azaroko 464. alean. (6.-7. or.)

<sup>758</sup>- Adibidea: “2001ean ere In Leike”, Mendaroko In Leike taldeak idatzitako gutuna. 2001eko urtarrileko 348. alean. (4. or.)

<sup>759</sup>- Adibidea: “40 urte 40 istorio, Elgoibarko Izarra: 1992. Elkartearen bigarren etapa”. 2003ko uztaileko 453. zenbakian. (3. or.)

<sup>760</sup>- “Gaztetxian fama txarra”. 2000ko urtarrileko 304. alean. (3. or.)

apur bat behera egiten du 2003 eta 2004an. Gizarte arazoak momentuan momentuko garrantziaren arabera jorratzen diren gaiak dira, batzuetan herriarekin lotura zuzena dutenak, esate baterako larunbat arratsaldeetan Elgoibarko kaleetan sortzen den giroa (gazteak Elgoibarrera joaten dira edatera). Beste batzuetan, aldiz, gizarte-gaiak orokorrakoak izaten dira, baina herritarren artean interesa pizten dute, herrian bertan oihartzuna izanik. Hirurogei aleetan gizarte arazoei eskaini zaien espazioari dagokionez, hamar albiste<sup>761</sup>, hogeita lau albiste labur<sup>762</sup>, hamahiru argazki-albiste<sup>763</sup>, bi elkarrizketa<sup>764</sup>, bost erreportaje<sup>765</sup>, hamabost gutun<sup>766</sup>, hamar inkesta<sup>767</sup> eta hogeita bi zutabe<sup>768</sup> argitaratu dira *Barren* aldizkarian. Gizarte-gaiei buruz argitaratu diren testuetatik ia erdia, berrogeita zazpi hain zuzen ere, iritzi-generoen bitartez aurkeztu da.

### C) LANAK

Lanen gaia oso finko mantendu da urtero *Barrenen*. Item kopurua hogeita hamar inguruan kokatu da urtero eta portzentajeak %11-%12an. 2004. urtean item kopurua igo egin da berrogeita batera eta portzentajea %13ra. Atal honen baitan herri lanen gaia, etxebizitzarena baino gehiago landu da urtero, garrantzi handia aitortzen diotelako. Horregatik, lanena ohikoa den gaia da, bataz beste, 2000-2004 bitartean ale bakoitzean bi testu baino gehiago lanei buruzkoak dira. Herrilanak herritarrentzat interesgarriak eta jakin-mina pizten duten gaiak direla uste du aldizkariak eta hori, astekariko orrialdeetan gai hauei eskaintzen zaien espazioan antzeman daiteke. Guk aztertu ditugun hirurogei aleetan, hogeita hamabi albiste<sup>769</sup>, hemeretzi albiste labur<sup>770</sup>, hogeita hamazortzi argazki-albiste<sup>771</sup>, bi erreportaje<sup>772</sup>, hirurogeita zazpi gutun<sup>773</sup>, lau inkesta<sup>774</sup> eta bi zutabe<sup>775</sup> aurkitu dira. Datuen arabera, Elgoibarko aldizkarian

<sup>761</sup>- Adibidea: "Eibartar bat droga aldean eramateagatik atxilotu dute Elgoibarren". 2002ko otsaileko 394. zenbakian. (8.or.).

<sup>762</sup>- Adibidea: "Duroaren kanpaina jarri dute martxan Chernobilgo haurrei laguntzeko". 2000ko ekaineko 326. alean. (11. or.).

<sup>763</sup>- Adibidea: "525 kilo janari bildu dira S.O.S. Sahara kanpainan". 2003ko otsaileko 434. zenbakian. (9. or.).

<sup>764</sup>- Adibidea: "Arrazakeria gizakiak barnean daukan deabrutxoa bezalakoa da", Musti Hadiri egindako elkarrizketa. 2000ko otsaileko 309. alean. (17. or.).

<sup>765</sup>- Adibidea: "Elgoibarko seme-alaba berriak" erreportajea. 2001eko azaroko 382. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>766</sup>- Adibidea: "Elgoibar larunbat arratsaldeetan", A.A-k idatzitako gutuna. 2003ko iraileko 457. alean. (4. or.).

<sup>767</sup>- Adibidea: "Behi eroen gaitza dela eta, Europar Batasunak behi txuletak merkatutik kentzea erabaki du. Txuletak kenduz gero, joango al zara sagardotegira?". 2001eko otsaileko 349. zenbakian. (8. or.).

<sup>768</sup>- Adibidea: "Alkohola erraz eta merke", Ainhua Andonegik idatzitako iritzi-zutabea. 2002ko martxoko 395. alean. (3. or.).

<sup>769</sup>- Adibidea: "Leku Eder aldameneko hainbat edifizio botako dituzte etxeak eraikitzeko". 2001eko azaroko 383. zenbakian. (10. or.).

<sup>770</sup>- Adibidea: "Berrikuntzak Olaizaga kiroldegian". 2002ko iraileko 416. alean. (20. or.).

<sup>771</sup>- Adibidea: "Fundizioa botatzen hasi dira Maladan errotonda bat egiteko". 2003ko otsaileko 434. zenbakian. (9. or.).

<sup>772</sup>- Adibidea: "Mendaro, berrikuntzaren bidean aurrera". 2000ko martxoko 314. alean. "Kilibarren" 63. zenbakian. (2.-3. or.).

<sup>773</sup>- Adibidea: "Alkateari gutun irekia", Jon Azurmendi Iriondok idatzitako gutuna. 2002ko apirileko 400. zenbakian. (4. or.).

<sup>774</sup>- Adibidea: "Elgoibarren bataz beste 40 milioitik gora balio dute etxe berriek. Zer irizten diozu Elgoibarren etxe berriek duten prezioari?". 2004ko ekaineko 491. alean. (10. or.).



herrilanen gaia, genero arin eta irakurterazzen bitartez lantzen da batik bat, albiste, albiste labur eta argazki-albisteen bitartez hain zuzen ere. Gutunak ere asko dira eta gutunen baitan erdia baino gehiago “Kexak” atalean agertzen da.

#### **D) HEZKUNTZA**

Hezkuntzaren gaia gizarte-gaien artean gehien agertzen den hirugarren gaia bilakatu da *Barren* aldizkarian. Urtetik urtera gehiago landu da eta espazio gehiago eskaini zaio aldizkarian. Haziera nahiko graduala izan da bere agerpena bikoiztu arte. 2000. urtean hezkuntzari buruzko hogeitau kaleratzen dira (%8) eta 2004an gai bera hirurogeita bederatzitau itemetan agertzen da, portzentajea %21ean kokatuz.

Hezkuntzaren alorrak informazio asko sortzen du herriko eguneroko bizitzan, (Ikastolak, Institutua, Makina Erremintaren Institutua, Gestio Eskola) eta bestalde, aldizkariak “Ikasbarren” eta “Txikibarren” bezalako ikasleei zuzendutako atal eta gehigarri bereziak sortu izan ditu. Halaber, “Gaztia naiz barren” gehigarrian hezkuntzaren gaia noizbait agertzen da, baina gazte-jendeari buruzko gehigarria izanik, beste gai asko agertzen dira bertan (aisialdia, herritarren bizitza, gizarte arazoak...). Hezkuntzari buruzko hogeitau hamaika albiste<sup>776</sup>, hirurogeitau hamaika albiste labur<sup>777</sup>, hirurogeitau hamar argazki-albiste<sup>778</sup>, hamalau elkarrizketa<sup>779</sup>, bost erreportaje<sup>780</sup>, kronika bat<sup>781</sup>, hamabi gutun<sup>782</sup>, bi inkesta<sup>783</sup> eta bost iritzi-zutabe<sup>784</sup> kaleratu dira hirurogeitau aletan.

#### **E) OSASUNA**

Osasunaren gaiari buruzko item kopurua oso antzerakoa izan da urtetik urtera, hamahiru eta hamazazpi artean egon da urtero argitaratu den item kopurua eta %5eko portzentajea izan du gaiak 2000tik 2004ra bitartean. Agendetako laburretako abisu eta oharrak dira osasunari buruz

<sup>775</sup>- Adibidea: “Hainbeste urte eta urte Elgoibar herriarekin batera ibilita ez al dut, bada, gehiago merezi?”, Aitor Argaratek idatzitako iritzi-zutabea. 2000ko apirilko 316. zenbakian. (3. or.).

<sup>776</sup>- Adibidea: “Veneziako ikasleek Venetoko hiriburuari buruzko hitzaldia eskaini zuten”. 2004ko martxoko 480. alean. (12. or.).

<sup>777</sup>- Adibidea: “Gestio eskolako 100 ikaslek aukera berdintasunerako mintegian hartu zuten parte”. 2000ko martxoko 314. zenbakian. (11. or.).

<sup>778</sup>- Adibidea: “San Juan Bosco Eguna ospatu zuten Institutuan urtarrilaren 26an”. 2001eko otsaileko 349. alean. (12. or.).

<sup>779</sup>- Adibidea: “Jendeari ikasteko beharra daukala errekonozitzea kostatu egiten zaio”, Marian Hernandez EPA-ko (Helduentzako Eskola) arduradunari egindako elkarrizketa. 2003ko iraileko 457. zenbakian. (18. or.).

<sup>780</sup>- Adibidea: “Elgoibartarrak Unibertsitatean irakasle”. 2000ko otsaileko 309. alean. (6.-7. or.).

<sup>781</sup>- “Escuela Parroquial San Bartolome”, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen kronikak. 2003ko martxoko 443. zenbakian. (3. or.).

<sup>782</sup>- Adibidea: “Elgoibarko Eskola Kirolari buruz”, L.I.A-k idatzitako gutuna. 2003ko apirilko 443. alean. (4. or.).

<sup>783</sup>- Adibidea: “Espainiako Gobernuak erlijioa ikasgaien zerrendatik kentzeko proposamena egin du. Erlijioa ikastetxeetan ematearen alde ala kontra zaude?”. 2004ko urriko 503. zenbakian. (12. or.).

<sup>784</sup>- Adibidea: “¡Eli con dos cojones!”, Eli Moreno sexologoak idatzitako iritzi-zutabea. 2002ko urtarrileko 389. alean. “Gaztia naiz barren” gehigarrian. (7. or.).

gehien aurkitu diren idatziak eta “Osasuna” sailean, osasun arloko espezialista ezberdinek idatzitako informazio erabilgarriak. Guztira, zazpi albiste<sup>785</sup>, hogeita hamazazpi albiste labur<sup>786</sup>, bi argazki-albiste<sup>787</sup>, lau elkarrizketa<sup>788</sup>, lau erreportaje<sup>789</sup>, hamahiru informazio erabilgarri<sup>790</sup>, bi gutun<sup>791</sup>, hiru inkesta<sup>792</sup> eta bi iritzi-zutabe<sup>793</sup> kaleratu dira. Argi dago osasunaren gaia informazio-generoen bitartez landu dela *Barren* aldizkarian, gai horri buruzko informazioa eta zerbitzu praktikoa emateko asmoz.

## F) INGURUMENA

Urteak pasa ahala ingurumenari buruzko testuak gero eta gehiago agertzen dira Elgoibarko aldizkarian. Hala eta guztiz ere, portzentaje altuena 2001. urtekoa da (%13) eta 2002 eta 2003an apur bat jaisten bada ere, %9an kokatzen da, 2004an %6ra jaisteko. Atal honen baitan, trafikoa, garraioak, ekologia eta naturaren gaiak elkartu ditugu eta urtero natura eta ekologiarekin zerikusia duten gaiak gailentzen dira. Orotara, hamasei albiste<sup>794</sup>, hamasei albiste labur<sup>795</sup>, hamalau argazki-albiste<sup>796</sup>, hiru elkarrizketa<sup>797</sup>, bost erreportaje<sup>798</sup>, berrogeita sei gutun<sup>799</sup>, hamaika inkesta<sup>800</sup> eta sei iritzi-zutabe<sup>801</sup> kaleratu dira *Barren* aldizkarian guk aztertu ditugun hirurogei aleetan. Ingurumenarekin zerikusia duten gaien buruz herrian dauden iritzi ezberdinak biltzen dira aldizkarian, kaleratu diren ehun eta hamazazpi itemetatik, erdia baino gehiago, hirurogeita hiru testu, iritzi-generoen bitartez aurkeztu baitira.

<sup>785</sup>- Adibidea: “Organu emaile izateko mahai informatiboa jarri zuten Plaza Handian”. 2003ko ekaineko 449. zenbakian. (9. or.).

<sup>786</sup>- Adibidea: “Gaur, hilak 12, odol ateraldia”. 2003ko iraileko 458. alean. (25. or.).

<sup>787</sup>- Adibidea: “Elgoibarko eta Urola bailarako 125 gaixo eta elbarritu Elgoibarren elkartu ziren igandean”. 2000ko azaroko 341. zenbakian. (10. or.).

<sup>788</sup>- Adibidea: “Arazo psikikoak dituztenekin lan egiten dut baina ez ditut kolektibo berezi bezala tratatzen”, Maider Gallastegi psikologoari egindako elkarrizketa. 2001eko urtarrileko 348. alean. (17. or.).

<sup>789</sup>- Adibidea: “Eguzki gosea, herriko zelaietan”. 2001eko ekaineko 365. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>790</sup>- Adibidea: “Oinak gorputzaren oinarri”. 2001eko urriko 381. alean. (9. or.).

<sup>791</sup>- Adibidea: “Esker Oharra”, Odol Emaleen Elkartek idatzitako gutuna. 2004ko otsaileko 475. zenbakian. (4. or.).

<sup>792</sup>- Adibidea: “Tabako paketeetan kantzer irudi gogorak ikusiko dira laster. Tabakoa erretzea debekatu egin beharko al litzateke?”. 2003ko iraileko 457. alean. (10. or.).

<sup>793</sup>- Adibidea: “Agian guk nahi duguna ez dator bat gure ideiekin”, Jokin Martinezek idatzitako zutabea. 2002ko urriko 421. zenbakian. (4. or.).

<sup>794</sup>- Adibidea: “Debabarreneko ume ugari bildu zen Mendaroko EKO-festan”. 2001eko urriko 381. zenbakian. “Kilibarren” 78. alean. (1. or.).

<sup>795</sup>- Adibidea: “25 zuhaitz landatuko dituzte Zuhaitz Egunean”. 2004ko martxoko 480. alean. (9. or.).

<sup>796</sup>- Adibidea: “Maketen eta panelen bidez azaldu zituen parke eolikoaren eraginak”. 2001eko apirileko 360. zenbakian. (11. or.).

<sup>797</sup>- Adibidea: “Herriko talde eta elkarte guztixak, Udala barne, ados jarri dian gauza bakarrenetakoa izango da”, Morkaiko Mendizale Elkarteari Karakateko parke eolikoaren inguruan egindako elkarrizketa. 2000ko uztaileko 330. alean. (6.-7. or.).

<sup>798</sup>- Adibidea: “Mikroaerosorgailuak, haize erroten ondorengo modernoak”. 2004ko otsaileko 475. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>799</sup>- Adibidea: “Mendien industrializazioari STOP”, Zentral Eolikoaren aurkako Hirukurutzeta Karakate Bizirik Plataformak idatzitako gutuna. 2001eko apirileko 360. alean. (4. or.).

<sup>800</sup>- Adibidea: “Aste honetan termometroek 30 gradutik gora igo dira. Hartzen al duzu neurririk horrelako beroen aurrean?”. 2001eko ekaineko 365. zenbakian. (8. or.).

<sup>801</sup>- Adibidea: “Energia ekoizpena I (Garoñako Zentral nuklearra)”, Lorea P. de Albenizek idatzitako iritzi-zutabea. 2001eko iraileko 376. alean. (3. or.).

## G) GIZARTE OHITURAK

Gizarte ohituren atala da gehien errepikatzen dena *Barrenen* eta bertoko orrietan espazio gehien daukana guk aztertu ditugun hirurogei aleetan. 2000. urtean bereziki jorratu den atala izan da gizarte ohiturena, 2001ean item kopurua jaitسي egiten da eta 2002tik aurrera atal honen portzentajea finkatu egiten da. 2000. urtean ehun eta hiru testu kaleratzen dira eta %39ko portzentajea lortzen du. Hurrengo urtean %31ra jaisten da eta 2002tik 2004ra (biak barne) %27an finkatzen da. Gainerako gizarte-gaiekin alderatuz gero, gizarte ohituren atala da, urtero %25etik gorako portzentajea duen bakarra. Izan ere, hogeita bederatzi albiste<sup>802</sup>, ehun eta zortzi albiste labur<sup>803</sup>, laurogeita hamahiru argazki-albiste<sup>804</sup>, hogeita sei elkarrizketa<sup>805</sup>, hogeita bat erreportaje<sup>806</sup>, zortzi kronika<sup>807</sup>, hirurogeita hamazazpi zerbitzu-informazio<sup>808</sup>, hogeita zazpi gutun<sup>809</sup>, hamahiru inkesta<sup>810</sup> eta hamazortzi zutabetan<sup>811</sup> agertu dira gizarte ohiturak bost urte hauetan. Kopuru horiek ikusita, aldizkarian lantzen den gai garrantzitsuena bilakatzen dela ondoriozta daiteke.

## H) ZERBITZUAK

Gizarte-gaien baitan zerbitzuak dira gehien agertzen diren bigarrenak eta urtero, portzentaje berdintsuetan kokatzen dira. Kontuan izan behar da aldizkarian zerbitzuei eskaintzen zaien espazioa nahiko finkoa dela eta ez dela ohiko kazetaritza eta iritzi-generoen bitartez lantzen. Atal honetan, zerbitzu-informazioa, informazio erabilgarria, denbora-pasak eta salerosketa eta trukeak sailkatu dira zerbitzu gai moduan. Bestalde, zerbitzuen gaia, zazpi albiste laburretan<sup>812</sup>, hiru argazki-albistetan<sup>813</sup> eta lau eskutizetan<sup>814</sup> argitaratu da guk aztertu ditugun hirurogei zenbakietan.

<sup>802</sup> - Adibidea: "Hirurogei baserri inguru pasatu zituzten Santa Eskean". 2004ko otsaileko 475. zenbakian. (19. or.).

<sup>803</sup> - Adibidea: "Txango kulturala, Donostia-Hondarribia-Biarritz". 2002ko maiatzeko 405. alean. (25. or.).

<sup>804</sup> - Adibidea: "Anastasio Zearsolok irabazi du San Migel-Aiastiako jaietan zozketatutako txekorra". 2002ko urriko 422. zenbakian. (9. or.).

<sup>805</sup> - Adibidea: "Jende askok Barren ireki eta lehen lana erretratu zaharrari begiratzen diola jakitea pozgarria da" elkarrizketa. 2004ko iraileko 500. alean. (13.-14.-15. or.).

<sup>806</sup> - Adibidea: "Kaleei pertsona ospetsuen izenak ipintzeko ohitura". 2001eko urtarrileko 348. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>807</sup> - Adibidea: Libe Arrieta elgoibartarrak, Manchesterretik bere bizimoduari buruz idatzitako kronika. 2000ko martxoko 314. alean. (18. or.).

<sup>808</sup> - Adibidea: Ale guztietan agertzen diren zorian agurrak eta hilean behin argitaratzen diren hildako, ezkonduetako eta jaiotako enberrenda.

<sup>809</sup> - Adibidea: "Marci Godoy-ri eskutitza", Jose Antonio Zuazubizkarrek idatzitako gutuna. 2003ko maiatzeko 444. zenbakian. (4. or.).

<sup>810</sup> - Adibidea: "Urte zaharrari astebete barru esango diogu agur. Zer izan da, zure ustez, 2004ko onena eta txarrena?". 2004ko abenduko 512. alean. (12. or.).

<sup>811</sup> - Adibidea: "Zenbait hausnarketa", Unai Argaratek idatzitako iritzi-zutabea. 2000ko abenduko 345. zenbakian. (3. or.).

<sup>812</sup> - Adibidea: "Ordutegi berria Olaizaga Kiroldegian irailetik aurrera". 2000ko iraileko 332. alean. (21. or.).

### Gizarte-gaien bilakaera bi hitzetan

Ondorioz, agerpen-maila kontuan hartzen badugu, *Barren* aldizkarian gizarte-gaiak dira garrantzitsuenak eta urtetik urtera indartu egiten dira, item kopuru orokorra hazi egiten delako. Atal honetan aldizkariak bere izaera propioa bilatzen du eta lortu ere, lortzen du gainera; bestelako hedabideetan agertzen ez diren eta inoiz agertuko ez liratekeen gai eta protagonistak astekariko orrietara eramanez eta herritarrak eurak protagonista bilakatuz, batez ere gizarte ohituren atalean. Azken hau da aldizkarian gehien agertzen dena, nahiz eta 2002tik aurrera apur bat jaisten den portzentajea. Gizarte-gaien baitan, gizarte arazoak, hezkuntza eta ingurumenak protagonismoa irabazten dute urtetik urtera. Ingurumenaren barnean dauden garraio eta trafikoari buruzko testuak, ekologiarekin zerikusia duten testuak baino urriagoak dira urtero. Gai hori maiz iritzi-generoen bitartez aurkezten da. Lana eta osasun gaiak berdin mantentzen dira eta talde eta gizarte ohituren atalak beheranzko joera erakusten dute.

Gizarte-gaien baitan kazetaritza-genero anitz aurki daitezke, baina informazio-generoak nagusitzen dira zalantza izpirik gabe: albiste laburrak, albisteak eta argazki-albisteak. Hala ere, lan honetan aztertu diren gainerako aldizkarietan ez bezala, *Barren* aldizkarian argitaratzen den “Kexak eta txaloak” atalean, gizarte-gai asko agertzen dira.

#### 4.3.4.4- Kultura


Kultura gaiak dira gizarte-gaien ondoren *Barren* aldizkarian gehien jorratzen direnak. Halere, gizarte-gaiak baino portzentaje txikiagoan agertzen dira gai kulturalak bost urteko epean. Elgoibarko astekarian guk aztertu ditugun aleetan, gai guztien %25 eskaintzen zaio kulturari. Hurrengo bi atalen bitartez, kultura gaiek bertan izan duten bilakaera ikusiko dugu. Lehenengo eta behin, kultura gai ezberdinek 2000-2004 bitartean izan duten agerpena nolakoa izan den aztertuko dugu. Ondoren, bigarren grafiko eta taularen bitartez, kultura gai bakoitzak urtez urte izan duen garapena nolakoa izan den azalduko dugu.

<sup>813</sup>- Adibidea: “Joan zen asteko kexari erantzuna”, Ramon Mujika Kirol Patronatuko Zuzendariak idatzitako gutuna. 2004ko otsaileko 475. zenbakian. (4. or.).

<sup>814</sup>- Adibidea: “Aukera anitza Udal Patronatuan”. 2004ko abenduko 512. alean. Urtekarian. (30. or.).

## 4.3.4.4.1- Kultura 2000-2004 bitartean

57E. grafikoa



Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

57F. taula

	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	166	105	13	137	151	119	67	758

Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Lan honetan aztertu diren *Barren* astekariko hirurogei zenbakietan, kultura gai ezberdinak jorratzen dituzten 758 item aurkitu dira. Aldizkariko edozein ataletan aurki daitezke kulturarekin zerikusia duten gaiak, “Motz”, ”Kontatzekuak”, “Agendako laburretan”, “Erreportajea”, “Elkarrizketa”, “Berbetan” ataletan edota gehigarri ezberdinetan. Dena dela, Elgoibarko astekariak guk aztertu ditugun ale gehienetan, “Kultura” atala argitaratu du, espresuki kultura gaiei buruzko informazioak bertan jorratuz, gehienetan orri bakarrean nahiz eta inoiz bi orriko saila kaleratu den. Normalean sekzio horretan kultura gai ezberdinei buruzko albisteak izaten dira nagusi, baina albiste labur, argazki-albiste eta elkarrizketak ere kaleratu izan dira. Aldizkariko langileek oso harreman estua eta zuzena izan dute betidanik udaleko kultura teknikariarekin eta aldizkaria horren isla da, bertatik jasotzen duten informazio asko eta asko aldizkarian agertzen delako.

2000-2004 bitartean arte eszenikoak, komunikabideak, literatura eta euskara dira kulturaren baitan gehien errepikatzen diren gaiak.

### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoak ehun eta hirurogeita sei testutan agertzen dira, gehien lantzen den atala berau izanik. Halere, azpi-kategoria ezberdinak daude arte eszenikoen baitan eta guztiak ez dira neurri berean aurkezten. Antzerkia hogeit aldiz agertzen da, dantza berrogeita bost bider eta arte eszenikoen barnean gehien lantzen den gaia musikarena da zalantzarik gabe, ehun eta bat testutan azaltzen baita. Horrek zerikusituzena dauka herrian musikarako dagoen zaletasunarekin. Asier Orbea, *Barren* aldizkariako kazetariaren esanetan, “*Segur aski kultura arloan jende gehien mugitzen den arloa musika izango da. Banda eta txaranga ezagunak daude, Musika Eskolan ikasle asko, musika taldeak ere badira batzuk. Musika bera albiste iturria da*”<sup>815</sup>.

### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoei buruzko ehun eta bost idatzi argitaratu dira *Barrenen* bost urteotan eta argazkigintza eta kartelgintzaren azpi-kategoria da arte plastikoen arten gehien errepikatzen dena, hogeita hamalau testutan agertuz. Herriko talde ezberdinek antolatzen dituzten argazki ikastaroak eta argazki lehiaketak (Elgoibarko Ongarri argazki Kolektiboa, Morkaiko Mendi Taldeko argazki lehiaketa...) urtero dute lekua aldizkarian. Bestalde, udaleko kultura arlotik, argazkilaritza eta kartelgintzarekin zerikusia duten ekimenak ere behin eta berriz agertzen dira. Halaber, artisau eta eskulan ezberdinei buruzko hogeita hamabi idatzi aurkitu dira eta bertan herriko talde ezberdinek herrian egiten duten lana islatzen da: egur arte tailerra eta zeramika taldea besteak beste. Pinturaren gaia hogeita bederatzi itemetan aurkitu dugu astekarian. Atal horren barnean agertzen diren azpi-kategoria gehienetan bezala, pinturaren gaia herriko artistei lotuta agertzen da. Arte ondarea eta eskultura oso gutxi agertu dira 2000-2004 bitartean, diziplina artistiko bakoitzeko bost testu aurkitu dira soilik.

### **C) GASTRONOMIA**

Gastronomiaren gaia hamahiru aldiz agertu da *Barren* aldizkarian guk aztertu ditugun aleetan eta horregatik, ez da gehien lantzen den gaien artean azaltzen. Gastronomiaren gaiarekin zerikusia duten testuek, ikastaro, lehiaketa, bazkari edota afariren baten aipamena jasotzen dute normalean. Dena dela, 2001ean zehar “Asteko errezeta” atalean kaleratzen dira herriko jatetxe ezberdinetako sukaldarien errezetak. Gainerako aleetan, urteko sasoiaren arabera eta gaiak izan

---

<sup>815</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.

dezakeen garrantziaren arabera lantzen da gastronomia, baina inoiz ez da izan aparteko garrantzia duen gaia Elgoibarko astekarian.

#### **D) LITERATURA**

Literaturari buruzko ehun eta hogeita hamazazpi testu aurkitu ditugu *Barrenen*. Bertsolaritzaren gaia hamabost aldiz agertu da eta literatura eta liburuen gaia ehun eta hogeita bi bider. Literatura, aldizkariko atal ezberdinetan (“Motz”, “Kultura”, agendako motzetan, komikietan) eta gehigarri ezberdinetan (“Txikibarren”, “Gaztia naiz barren” eta “Euskaltegietan arigera”) agertzen da. Metodologiaren atalean azaldu dugun moduan, bertsolaritza ahozko literatura den aldetik, literatura eta liburuen gaiarekin batu dugu emaitza esanguratsuagoak lortze aldera. Literatura eta liburugintza, bertsolaritzaren gaineratik agertzen da urteroko emaitzen arabera. Izan ere, Elgoibarren literatura albiste iturri da eta hori aldizkarian islatzen da. Jasone Osoro, Hasier Etxeberria eta Gotzon Garate besteak beste, elgoibartarrak izateaz gainera, idazle ezagunak dira Euskal Herri mailan. Horrezaz gain, “Urruzuno” Literatur Taldeak literaturaren inguruko hainbat ekitaldi antolatzen ditu herrian eta horiek iragartzeko *Barren* toki ezin hobea da.

#### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideen gaia, gehien agertzen den bigarren kultur gaia da guk aztertu dugun epean, ehun eta berrogeita hamaika aldiko agerpenarekin. Atal horren barnean, herri komunikabideak eta zinea/telebistaren gaiak agertzen dira eta zalantzarik gabe, zine eta telebista urtero nagusitzen dira, batez ere zinea. Horren arrazoia alde batetik, ia ale guztietan kaleratzen den zine egitarauan bilatu daiteke. Agendaren orrialdean, Elgoibar, Eibar, Deba eta Bergarako zine aretoetan dagoen zine programazioa argitaratzen da eta ostegunetako zine klubean ematen diren bi pelikulen sinopsia. Bestetik, herriko talde ezberdinen eskutik herrian izaten diren zine edo diapositiba emanaldiak eta horiekin zerikusia duten ekitaldiak ere jasotzen dira aldizkarian.

Herri komunikabideak gutxiago agertzen dira, guztira hogeita hamahiru testu argitaratu dira 2000-2004 bitartean eta gehienetan *Barren* astekariarekin zerikusia duten testuak izan dira. Kontuan izan behar da, 2004ko irailean astekariaren 500. alea kaleratu dela eta hori edukietan nabaritzen da, hurrengo atalean frogatuko dugun moduan.

#### **F) EUSKARA**

Euskararen gaia, hemen ere, Soraluzeko *Pil-pilean* aldizkarian bezalaxe, gehien agertzen den kultur gaien artean dago. 2000-2004 bitartean aztertu diren hirurogei zenbakietan,

euskararen gaia jorratzen duten ehun eta hemeretzi testu kaleratu dira. Alde batetik “Euskaltegietan arigera” gehigarri berezian agertzen diren eduki gehienak euskararen gaiari lotuta daude, Elgoibarko helduen euskalduntze-Alfabetatzeari eskainitako gehigarri honetan. Beste alde batetik, aldizkarian eta aldizkaria kaleratzen duen Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen eguneroko funtzionamenduan, euskararen gaia oso presente dago eta aldizkariko kazetariak horretaz jabetzen dira: *“Euskararen gaia aldizkarian askotan sartzen dugula eta gai horrekiko diskriminazio positiboa egiten dela errealitatea dela uste dut. Azken finean euskara elkarte baten aldizkaria gara, beraz, hortik abiatuta argi dago baietz, kontziente ez bagara ere, egingo dugu”*<sup>816</sup>, azpimarratzen du Asier Orbea kazetariak.

### **G) KULTUR AGENDA**

Kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituzten hirurogeita zazpi agenda edo egitarau aurkitu ditugu Elgoibarko astekarian. Guztira, ale bakoitzean kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituen hirurogei agenda, lau jaietako agenda, gazte agenda bat eta kultura ekitaldi anitz lantzen dituen hiru albiste eta albiste labur bat aurkitu ditugu.

#### **Kultura bi hitzetan**

Beraz, kultura gaietan aniztasuna antzematen da Elgoibarko astekarian, kultura gai ezberdinen presentzia horren isla nagusia izanik. “Kultura” saila badago ere, kultura gaiak aldizkariko edozein ataletan aurki daitezke. Bost urte hauetan *Barrenen* gehien agertu diren gaiak honako hauek izan dira: arte eszenikoak, komunikabideak, literatura, euskara eta arte plastikoak. Arte eszenikoen baitan musika nagusitu eta arte plastikoen barnean kartelgintza eta argazkigintzaren gaia errepikatu da gehien gure azterketa-epean. Kultur agendak gutxien lantzen diren gaien artean daude eta gastronomiaren presentzia hutsaren hurrengoa da.


Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek antolatzen dituen ekitaldiak iragartzeko aprobetxatzen da *Barren* aldizkaria. Elkartek berak duen helburuetako bat herrian kultur eragile gisa eragitea denez, aldizkariak sarri askotan elkartearen bozgorailu funtzioa betetzen du.

<sup>816</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.



## 4.3.4.4.2- Kulturaren bilakaera

58E. grafikoa



Kultura gai ezberdinen bilakaera portzentuala Barren aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

58F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agenda	GUZTIRA
	2000	30	18	4	19	35	29	19	154
	2001	20	19	4	30	24	32	12	141
	2002	38	14	2	26	37	16	12	145
	2003	48	28	2	31	26	20	11	166
	2004	30	26	1	31	29	22	13	152

Kultura gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Kultur gai ezberdinei buruzko item kopurua urtero ehun eta berrogeitik gorakoa da Elgoibarko astekarian. 58E. grafikoa eta 58F. taulan agertzen diren datu orokorrak begiraten baditugu, 2000, 2003 eta 2004an kulturari buruzko item gehien kaleratzen direla konturatuko gara. Izan ere, justu hiru urte horietan gure laginerako hautatu ditugun abenduko aleak urtekariak izan dira. Lan honetan behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, urtekarietan, albiste labur eta argazki-albisteen bitartez urteko albisterik esanguratsuenak erreparatzen dira. 2000ko abenduko urtekarian bakarrik, kultura gaiei buruzko hamasei item kaleratu dira. 2003ko urtekarian zortzi testu eta 2004ko urtekarian, kultur gai ezberdinak protagonista dituzten hogeita hamar idatzi aurkitu ditugu. Aztertu dezagun atalez atal gai bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera:

#### A) ARTE ESZENIKOAK

Arte eszenikoek gorabehera handiak izan dituzte urte batetik bestera euren agerpenari dagokionez. Lehenengo urtetik bigarren urtera jaitsi egiten da item kopurua eta 2002an hamabi

puntutan egiten du gora arte eszenikoei buruzko testuen portzentajeak. 2003an beste hiru puntutan igotzen da %29an kokatuz, baina 2004an %20ra arte jaisten da. Argi dago arte eszenikoen baitan dauden gai ezberdinei aldizkariak ez diela arreta bera jartzen edo berez, ez dutela informazio kopuru bera sortzen. Antzerkiaren gaia, bi eta sei itemen artean kokatzen da urtero. 2004an kaleratzen dira antzerkiari buruzko testu gehien eta erdia baino gehiago (hamaika) albisteak<sup>817</sup> izan dira. Dantzaren gaia antzerkia baino gehiago azaltzen bada ere, gehienetan hamar testu baino gutxiago kaleratzen dira urtero, 2003an izan ezik, hamazazpi idatzi argitaratzen baitira. Dantzaren gaia albiste<sup>818</sup> (hamahiru) eta albiste laburretan<sup>819</sup> (hoge) agertu da bereziki gure azterketa-epean. Musikak, aldiz, urtero arte eszenikoen barnean agerpen-maila altuena du, urtero hamarretik gora testu kaleratzen dira musikari buruz eta 2003an bakarrik, musika protagonista den hogeita zazpi idatzi aurkitu dira, gehienak albiste laburrak<sup>820</sup>, hogeita hemeretzi hain zuzen ere.

## **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoen gaia gutxika-gutxika bada ere, gehiago agertzen da urteak pasa ahala, nahiz eta 2002an beherakada txiki bat dagoen, hurrengo bi urteetan %17an finkatzen da portzentajea eta 2000. urtean %12an kokatzen da. Arte plastikoen barnean sailkatu ditugun bost azpi kategorietatik hiru dira gehien agertzen direnak ordena honetan: argazkigintza/kartelgintza, artisau/eskulanak eta pintura. Argazkigintza eta kartelgintzari buruzko sei edo zortzi testu kaleratzen dira urtero eta horietako gehienak (hogeita lau) albiste laburretan<sup>821</sup> aurkitu ditugu. Artisau eta eskulanei buruzko testu gutxien 2001 eta 2002an kaleratu dira, hiru item urte bakoitzean eta gehien 2003 eta 2004an, hamar testu urte bakoitzean. Bost urteetan artisau eta eskulanei buruz argitaratu diren testu gehienak (hamazazpi) albiste laburrak<sup>822</sup> izan dira. Pinturaren gaia arte plastikoen baitan gehien errepikatzen den hirugarren gaia da. 2000. urtean oso gutxi lantzen da, bi item baino ez, eta 2001 eta 2003 urteetan agertzen da gehien pintura; urte bakoitzean zortzi testutan da protagonista. Bost urte hauetan pinturari buruz argitaratu diren hogeita bederatzi testuetatik ia erdia (hamalau) albiste laburrak<sup>823</sup> izan dira.

<sup>817</sup>- Adibidea: "A ze para! Maskarada Antzerki Taldearen eskutik gaur, Herriko Antzokian". 2004ko urriko 503. alean. (19. or.).

<sup>818</sup>- Adibidea: "Haritz Euskal Dantzari Taldea". 2003ko irailako 458. zenbakian. (25. or.).

<sup>819</sup>- Adibidea: "Haritz Euskal Dantzari Taldeak 'Pas de Basque' ikuskizunean parte hartuko du Ordizian". 2004 urriko 503. alean. (19. or.).

<sup>820</sup>- Adibidea: "Eibarko Musika Banda". 2003ko urriko 562. zenbakian. (25. or.).

<sup>821</sup>- Adibidea: "Etiopia argazki erakusketa". 2004ko otsaileko 475. alean. (24. or.).

<sup>822</sup>- Adibidea: "Altzariak zaharberritzeko ikastaroa". 2004ko irailako 501. alean. (24. or.).

<sup>823</sup>- Adibidea: "Marrazketa ikastaroa". 2001eko irailako 376. zenbakian. (25. or.).

Eskultura eta arte ondarea oso gutxi agertu dira guk aztertu ditugun hirurogei zenbakietan. Eskulturaren gaia bost urtetan bost aldiz aurkitu dugu eta arte ondarea beste horrenbeste. Eskulturaren gaia albisteen bitartez jorratu da, guztira hiru albiste<sup>824</sup>, elkarrizketa bat eta albiste labur batean agertu da. Arte ondarearen gaia, aldiz, erreportajeetan argitaratu da gehien bat. Izan ere, arte ondareari buruzko hiru erreportaje<sup>825</sup>, albiste bat eta albiste labur bat kaleratu dira.

### C) GASTRONOMIA

Gastronomiaren gaia une konkretuetan soilik azaldu da *Barrenen* eta 58E. grafikoan eta 58F. taulako datuek erakusten dutenez, guk aztertu dugun epean gastronomiaren gaiak ez du jarraikortasunik izan; gainera, urteak pasa ahala gero eta gutxiago agertu den gaia izan da. Hasierako bi urteetan lantzen da gehien, batez ere 2001ean asteko errezetak kaleratzen direlako. Ordutik aurrera gaia noizean behin agertzen da. Guztira gure azterketa-epean, gastronomiari buruzko lau errezeta, bost albiste labur, argazki-albiste bat eta bi erreportaje kaleratu dira. Gehienetan, beraz, gaia albiste laburren<sup>826</sup> bitartez agertu da.

### D) LITERATURA

58E. grafikoan agertzen diren portzentajeak eta 58F. taulan agertzen diren kopuruak begiratu, literatura gero eta gehiago agertzen den gaia dela argi dago. 2000tik 2004ra, zortzi puntutan egin du gora literaturak aldizkarian. Atal horren barnean, bertsolaritza eta literaturarekin erlazionatutako testuak sailkatu dira eta batzuen eta besteen artean dagoen ezberdintasuna nabarmena da oso. Bertsolaritzaren gaia 2003an agertzen da gehien eta sei testu baino ez dira argitaratzen urte horretan. Gainerako urte bakoitzean bertsolaritzari buruzko testu bakarra, bi edo hiru idatzi soilik agertzen dira. Zortzi aldiz albiste laburretan<sup>827</sup> agertu da, lau bider argazki-albisteetan eta behin albiste, iritzi-zutabe eta kexen bitartez.

Literatura eta liburuei buruzko gaiak askoz gehiago agertzen dira. Urtero, 2000. urtean izan ezik (hamazortzi), literatura eta liburuei buruzko hogeita testu baino gehiago argitaratzen dira. 2001ean eta 2004an gai bera hogeita zortzi idatzitan aurkitu dugu eta informazio, iritzi zein literatura-genero ezberdinetan lantzen da gaia. Guk aztertu ditugun hirurogei aleetan, hemeretzi

<sup>824</sup>- Adibidea: "Alberto Torresen eskultura erakusketa inauguratuko da martxoaren 28an". 2003ko martxoko 439. alean. (19. or.).

<sup>825</sup>- Adibidea: "Mendaroko konbentua, historiadun monumentua". 2000 ekaineko 326. zenbakian. "Kilibarren" 65. alean. (2.-3. or.).

<sup>826</sup>- Adibidea: "Gabon zaharretako gazta lehiaketa". 2000ko abenduko 345. alean. (55. or.).

<sup>827</sup>- Adibidea: "Bertso afaria In Leikek antolatuta". 2003ko iraileko 458. zenbakian. "Kilibarren" 98. alean. (1. or.).

albiste laburretan, hamabost albistetan<sup>828</sup>, sei argazki-albistetan, erreportaje batean, zazpi elkarrizketetan, hiru zutabetan, sei gutunetan, bost kritikatan, hogeita bost komikitan, hogeita bost ipuinetan, lau lehiaketatan (literatur lehiaketak), bertso batean eta txiste batean aurkitu dugu gaia. Informazio-generoetan albiste labur eta albisteen bitartez lantzen da literatura. Bestalde, komiki gehienak sailkatzerako orduan, literaturan sailkatu dira gai zehatzak ez direlako eta sormen lanak direlako. Ipuinen kopurua hain altua izatearen arrazoia, iritziaren atalean argitaratzen den “Urruzunoren begi ezkutua” atalean aurkituko dugu. Bertan, maiz agertzen dira literaturarekin zerikusia duten ipuin zati txikiak. Azken finean iritzi-zutabe edo ipuin atal horien helburua hori baita, Urruzuno Literatur taldeko kideek kutsu literarioa duten iritziak ematea. Esaterako, 2004ko martxoko 480. alean Iñigo Otañok idatzitako “Ciber Amodioak II” ipuin laburra.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideen barnean, zinearekin eta telebistarekin zerikusia duten testuak eta herri komunikabideei buruzko idatziak sailkatu dira. Hasierako urtetik azken urtera bitartean gorabeherak izan ditu gaiak eta urteak pasa ahala gutxiago agertzen da *Barrenen*. 2000. urtean komunikabide ezberdinei buruzko hogeita hamabost item kaleratzen dira (%23) eta 2004an hogeita bederatzi idatzi kaleratuz, gaiaren portzentajea lau puntutan jaisten da, %19an kokatuz. *Barren* aldizkarian zinearekin eta telebistarekin zerikusia duten testuak urtero nagusitzen dira. Herri komunikabideen gaia, 2002an agertzen da gehien (hamabi item) eta 2001ean bi aldiz bakarrik agertzen da. 2002an Elgoibarko Izarrak 40. urteurrena ospatzeko astero kronika bat kaleratzen du iritzi-zutabearen alboan. 2002an *Barren* aldizkariaren 10.urteurrena dela eta, *Barren* aldizkariko kronikak 2002ko urritik abendura bitartean leku berean kaleratzen dira. Esaterako, “10 urteurrena Barren, auskalo zenbat laguntzaille!”, 2002ko urriko 421. zenbakian.

Komunikabideen baitan zinea/telebistaren gaia urtero hogeitik gora testutan aurkitu dugu. 2003an gaia gutxiago lantzen da eta hogeitaz idatzitan agertzen da. 2000. urtean zine eta telebistarekin zerikusia duten hogeita zazpi testu argitaratzen dira. Izan ere, ale gehienetan argitaratzen dira zine egitarauak eta bestalde, albiste edo albiste laburretan lantzen da gaia. Adibidez, 2002ko urtarrileko 389. zenbakian kaleratzen den “La Mugre y la Furia” eta “La Espalda del Mundo” dokumentalak eskainiko ditu Ongarri Zine Klubak” albistea.

---

<sup>828</sup> Adibidea: “Gurasoak ipuinak irakurtzera eta kontatzera animatzeko ikastaroa antolatu du Udal liburutegiak”. 2004ko otsaileko 475. alean. (9.or.).

**F) EUSKARA**

Euskararen gaia, 2000 eta 2001 urteetan, hurrengo hiru urteetan baino gehiago lantzen da. 2000. urtean euskararekin zerikusia duten hogeita bederatzi testu (%19) aurkitu dira eta 2001ean hogeita hamabi idatzi (% 23). Hurrengo urteetan portzentajeak ia erdira jaisten dira %11-12 inguruan kokatuz. Hasierako bi urteetan helduen euskalduntze-alfabetatzeari zuzendutako “Euskaltegietan arigera” gehigarria kaleratzen da eta bertako gai gehienak, euskarari lotuta daude zuzenean. Adibidez, “Terturliak egitasmoa, ikasleek euskaltegietatik kanpo euskaraz berba egiteko prestatutako programa berezia” albistea<sup>829</sup>. Beraz, gehigarri bakoitzean kaleratzen diren zortzi edo hamar itemak euskararen gaia lantzen dutenez, zalantzarik gabe gehigarri berezi hori kaleratzeak urteko testu kopuru orokorrean eragin zuzena dauka. 2000. urtean “Euskaltegietan arigera” gehigarriaren bi zenbaki kaleratzen dira eta 2001ean beste bi. 2002tik aurrera gehigarria ez da gehiago argitaratzen eta euskararen gaia, aldizkariko atal ezberdinetan agertzen da: inkestetan, gutunetan eta batez ere albiste<sup>830</sup> eta albiste laburretan<sup>831</sup>. Beraz, argi dago *Barren* aldizkarian euskararena kontuan hartzen den gaia dela.

**G) KULTUR AGENDA**

Agendaren agerpenari dagokionez, 2000. urtetik aurrera 58E. grafikoan eta 58E. taulan agertzen diren datuek behera egiten dute, testu kopurua hamaika edo hamabi itemetan finkatuz. Lehenengo urtean, kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituzten hemeretzi agenda kaleratzen dira, ale bakoitzean argitaratzen den asteroko kultur agenda alegia. Beraz urte gehienetan hamabi kultur agenda aurkitu dira. 2000. urtean, hilabete bakoitzean agenda bat aurkitu dugu, baina jaietako bost egitarau<sup>832</sup>, ekitaldi kultural ezberdinak biltzen dituen albiste bat<sup>833</sup> eta albiste labur bat<sup>834</sup> ere argitaratu dira. 2001ean ohiko agenda kulturalak aurkitu ditugu eta uztaileko 371. alean “Gaztia naiz barren” gehigarrian gazte agenda bat. 2002 eta 2003an ez da ohikoa ez den bestelako agenda edo albisterik kaleratu eta 2004an kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituzte

<sup>829</sup>- 2000ko azaroko 341. aleko “Euskaltegietan arigera” gehigarrian. (15. or.).

<sup>830</sup>- Adibidea: “Udan euskara ikasten ari den jendea hartzeko prest dauden familia euskaldunak behar dira”. 2003ko apirilko 443. alean. (9. or.).

<sup>831</sup>- Adibidea: “Elgoibarko Izarra Elkarrekin, ‘euskara errefortzuak’ programa jarriko du martxan”. 2004ko urtarrileko 474. zenbakian. (9. or.).

<sup>832</sup>- “San Pedro” eta “Altzolako jaiak”. 2000ko ekaineko 326.alean (25. or.).

“Santa Ana”, “Sallobente” eta “San Rokeko jaiak. 2000ko uztaileko 330. alean. (25. or.).

<sup>833</sup>- “Pilota partiduak, Golden Apple Quartet, Taun Taun antzezataldea eta Ertzantzaren banda San Anton jaietako egitarauaren barnean” albistea. 2000ko urtarrileko 304. zenbakian. (12. or.).

<sup>834</sup>- “Ekitaldi ugari udaran Santa Ana jaiak artean” albiste laburra. 2000ko ekaineko 326. alean. “Kilibarren” 65. zenbakian. (4. or.).

bi albiste hauek kaleratu dira: “Gaztetxeari agur jaialdia ospatuko da bihar, hilak 13” eta “Xukan taldearen eskutik dantza, trikitixa eta bertsolaritza izango da datorren larunbatean”.<sup>835</sup>

### **Kulturaren bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, kultura oro har urtez urte indartu egin da apur bat *Barrenen* eta hazkunde hori, urtekariak aztertu ditugun hiru urteetan sumatzen da bereziki. Arte eszenikoek igoera apala izan dute bost urteko epean: musikaren gaiak gorabeherak izan ditu 2000-2004 bitartean, dantzari buruzko testuak areagotuz joan dira eta antzerkia gutxi bada ere, apur bat hazi egin da. Arte plastikoen igoera orokorra nabarmenagoa izan da, bertan pintura eta artisau/eskulanen gaiak goranzko joera garbia adieraziz. Argazkigintza eta kartelgintzari buruzko testu kopurua mantendu egin da eta eskultura eta arte ondarearen gaia oso gutxi landu da urtero. Literatura hazi egin da, batez ere liburu eta gai literarioekin zerikusia duen testu kopurua. Gastronomiari buruzko testuak gutxituz joan dira ia desagertu arte. Komunikabideen gaiak beheranzko joera apala erakusten du, gaiaren baitan urtero zine eta telebistari buruzko testuak nagusituz. Euskararen gaia lehenengo bi urteetan lantzen da bereziki, bi urte horietan “Euskaltegietan arigera” gehigarria argitaratzen delako; hurrengo hiru urteetan gaiak beheranzko joera argia erakusten du. Agenda kopuruak ere behera egiten du urteak pasa ahala.


#### **4.3.4.5- Kirola**

*Barren* aldizkarian gehien errepikatzen den hirugarren gaia kirolena den arren, gizarte-gaiekin eta kultura gaiekin alderatuz, gutxiago agertzen da kirola. Hots, gizarte-gaiak baino hiru aldiz gutxiagotan agertzen dira kirolak aldizkarian eta kultura gaiak baino bederatzita puntu azpitik kokatzen da kirolen portzentajea. Atal guztietan jarraitutako eredu bera erabiliko dugu hemen ere kirolaren garapena aztertzeko. Lehenengo urratsean 2000-2004 bitartean kirol ezberdinen agerpena nolakoa izan den aztertuko dugu eta bigarren urratsaren bitartez, kirol bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera ikusiko dugu.

<sup>835</sup>- 2004ko martxoko 480. alean (19. or.)  
2004ko apirileko 485. zenbakian. “Kilibarren” 105. alean (1. or.).

## 4.3.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean

59E. grafikoa



Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Barren* aldizkarian bost urteko epean.

59F. taula

	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza + Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	159	212	25	105	501

Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Gainerako aldizkarietan gertatzen den antzera, *Barren* astekarian ere, kirola bi atal handitan kontzentratzen da: talde kirolean eta banako kirolean. Ezin ahaztu daiteke kirol gehienak bi kategoria horien baitan bildu direla emaitza sendoagoak lortzeko, beraz, kirol azpi-kategoria ia guztiak bi bloke horietan daude sartuta. Hala eta guztiz ere, *Barren* aldizkarian, Deba Barreneko beste aldizkarietan ez bezala, kirol agenda eta emaitzak oso ugariak dira. Hurrengo atalean frogatuko dugun moduan, ale bakoitzean batz bestea, kirol agenda bat baino gehiago argitaratzen da.

Guk aztertu ditugun ale gehienetan kirolari buruzko bi edo hiru orri kaleratu dira eta guztira hirurogei aleotan kirolari buruzko 501 testu aurkitu ditugu. 59E. grafikoa agertzen diren portzentaje eta 59F. taulako datuen arabera, orokorrean banakako kirola talde kirolari gailentzen zaio, banakako kirolaren baitan, azpi-kategoria gehiago biltzen baitira. Talde kirolean sei azpi-kategoria dauden bitartean, banako kirolaren atala bederatzi azpi kategoriek osatzen dute.

Kirol guztien artean, futbola da gehien errepikatzen dena (hirurogeita hamaika item). Hala eta guztiz ere, mendia (hirurogeita lau item) edo atletismoarekin (berrogeita hamazortzi item) konparatuz, aldea ez da horren handia. Aipatu hiru horiek dira orokorrean ere, *Barren*

aldizkarian gehien agertzen diren kirolak. Herrian jende gehien biltzen duten hiru kirol taldeak eta arrakasta nabarmena dutenak dira. Beraz, albiste iturri bihurtu dira eta horren eragina begibistakoa da aldizkarian.

### **A) TALDE KIROLA**

Informazio orokorreko hedabide nazional gehienetan (prentsa, irratia, telebista zein sarean) ohikoa da futbola beste kirol guztien gainetik agertzea, izarra bilakatu baita. Elgoibarko aldizkarian, ordea, joera hori saihesten ahalegintzen dira eta modu kontzientean egiten dute gainera, Asier Orbea kazetariak aitortzen duen bezala:

*“Futbolaz gain beste kirol batzuk sartzen saiatu gara beti. Hori nahita egiten dugu, hasieratik egin nahi izan zaie lekua beste kirol batzuei aldizkarian. Nahiz eta guk nahita egin, futbolak bere indarra eta eragina dauka. Adibidez, Elgoibarko Futbol Talde inportanteenari buruzko albiste gutxi sartzen ditugu eta hori erabat kontziente egiten dugu, azken finean beste hedabide batzuetan lekua dute eta agertzen dira. Zerbait berezia egiten duenean sartzen dugu”*<sup>836</sup>. Beraz, herrian protagonismoa duten kirolak sartzen saiatzen dira eta, emaitzen arabera, talde kirol horiek futbola eta mendia dira.

Gainerako talde kirolen agerpena txikiagoa da *Barren* aldizkarian. Eskubaloia hogeita bat testutan agertu da gure azterketa-epean eta saskibaloia hiru aldiz bakarrik. Bestalde, talde kirolen barnean sailkatu ditugun errugbia eta arraunketa ez dira inoiz agertu guk aztertu ditugun hirurogei zenbakietan, beraz ez dira albiste Elgoibarren.

### **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kirolen baitan, atletismoa (berrogeita hamazortzi item), pilota (hogeita hamahiru item), txirrindularitza (hogeita hamabi item), judo, karate eta borroka arteak (hogeita bederatzi item), igeriketa (hogeita bederatzi item), automobilismoa eta motoziklismoa (hamabost item), duatloi eta triatloia (bederatzi item), herri kirolak (sei item) eta eskia (item bakarra) agertu dira gure laginerako aukeratu ditugun hirurogei aleetan. Gogoratu beharra dago atletismoan nazioarte mailan ezaguna den “Juan Mugerza krosa” izaten dela urtero Elgoibarren.

Orokorrean, kirol batzuk beste batzuk baino gehiago agertzen badira ere, kirol askori egiten zaio lekua *Barren*eko orrialdeetan, beraz, kirolean aniztasuna dagoela esan daiteke.

---

<sup>836</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Asier Orbea, 2006-02-17). Elkarrizketa osoa CDan.



Bestalde, herrian lanean ari diren kirol talde ezberdinak aldizkarian agertzeko bertako lantaldeak egiten duen ahalegina ezin daiteke ukatu, emaitzak horren isla baitira.

### **C) EHIZA ETA XAKEA**

Ehiza eta xakea atal berean bildu ditugu, ez dagoelako argi, bi diziplina horiek kirola diren ala ez eta iritzi eta argudio ezberdinak daude eztabaida horren inguruan. *Barren* aldizkarian ehiza zein xakea agertzen direnean, “Kirolak” atalean agertzen dira, beraz Elgoibarko aldizkarian argi dago kirol gisa kontsideratzen direla biak. Ehiza hamabost bider agertzen da eta xakea hamar testutan izan da kirol nagusia.

### **D) KIROL AGENDA**

Kirol agendak atalaren barnean, bi testu mota sailkatu ditugu: alde batetik, kirol anitz aipatzen dituzten testuak eta beste alde batetik, kirol ezberdinei buruzko agenda eta emaitzak (agenda egitura dutenak). Izan ere, atal honetan guztira agertzen diren ehun eta sei testuetatik, hirurogeita bederatzi itemetan kirol agenda eta emaitzak argitaratzen dira. Kirol agenda eta emaitzak irakurleari informazio interesgarria eskaintzen diote. Era berean, kirol arloan jende ugari mugitzen da herrian eta ahalik eta kirol gehienei lekua egiten ahalegintzen dira astero. Bestetik, atal honetan kategoriazko propiorik ez duten zenbait kirol sartu ditugu eta *Barren* aldizkarian honako kirol hauek aurkitu ditugu: boxeoa, squash, boloak, tenisa, power dumbell, spinning, arku tiroa, kulturismoa, espeleologia, zaldi lasterketa, gimnasia, aerobic eta aquarobic-a.


### **Kirola bi hitzetan**

Beraz, *Barren*en kirola gehien lantzen den hirugarren gaia da, baina gizarte-gaiak eta kultura baino portzentaje txikiagoan. Hala ere, aldizkariak kirolari eskaintzen dion espazioa ez da txikia. Ale bakoitzean bizpahiru orri argitaratzen dira kirolaren informazioarekin eta kirol ezberdinei egiten zaie tokia. Dena dela, astekarian gehien agertzen diren hiru kirol nagusi daude: futbola, mendia eta atletismoa. Emaitzen arabera, banakako kirolak talde kirolen gainetik agertzen dira ia urtero eta aurrean aipatu ditugun kirolez gain, bestelako kirolei ere egiten zaie lekua astekarian. Pilota, txirrindularitza, igeriketa eta borroka artean agerpena %6-%7an kokatzen da. Gutxiago agertzen da xakea eta ehiza, %5ean kokatzen baita. Kirol agenda kopurua, aldiz, altua da; beste aldizkari batzuetan baino kirol agenda gehiago aurkitu ditugu

*Barrenen*. Astero kirol ezberdinen agenda eta emaitzak argitaratzea ohitura bihurtu da eta jendeak informazio mota hori benetan estimatzen du.

#### 4.3.4.5.2-Kirolaren bilakaera

60E. grafikoa



Kirol gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Barren* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

60F. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
	2000	20	51	4	21	96
	2001	35	42	3	22	102
	2002	23	34	5	14	76
	2003	33	46	7	22	108
	2004	48	39	6	25	118

Kirol gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

60F. taulan agertzen diren emaitzen arabera, kirolei buruzko testu kopurua urtetik urtera hazi egiten dela ikus daiteke argi eta garbi, 2002an izan ezik. Urte horretan kaleratzen baitira kirol testu kopuru gutxien, aurreko urtean baino hogeita sei idatzi gutxiago hain zuzen ere. 2002an aztertu ditugun ale gehienetan bi orri eskaintzen zaizkio kirolari, otsaileko eta ekaineko aleetan izan ezik, kirolei buruzko orri bakarra argitaratzen da-eta. 2002ko salbuespena alde batera utzita, *Barren* aldizkarian gero eta kirol informazio gehiago sartzen da urteekin.

#### A) TALDE KIROLA

Talde kirolean, urteekin gertatzen den hazkundera nabarmena da. Lehenengo urtetik azken urtera bitartean talde kirolaren agerpena aldizkarian bikoiztu egiten da. 60E. grafikoan agertzen

diren emaitzen arabera, %21eko portzentajea izatetik %41 izatera pasatzen da. Talde kirolaren portzentajea 2001etik 2003ra %30 inguruan kokatzen da. Talde kirolaren baitan, eta orokorrean ere, futbola da gehien agertzen den kirola. Urtero, futbolari buruzko hamarretik gora idatzi argitaratzen dira eta 2004an hogeita bat testutan<sup>837</sup> agertzen da futbola, ale bakoitzeko item bat baino gehiagotan bataz beste.

Aldiz, eskubaloari buruzko informazioak urteekin behera egin du. Hasierako bi urteetan sei testu<sup>838</sup> kaleratzen badira ere, 2002tik aurrera kopurua jaitsi egiten da eta 2004an eskubaloia bi aldiz bakarrik agertzen da aldizkarian.

Guk azertu ditugun hirurogei zenbakietan, saskibaloiak ez du eman zeresan handirik, hiru urtetan bakarrik agertu baita; 2000 eta 2001ean albiste bat<sup>839</sup> urte bakoitzean eta 2004an albiste labur bat.

Mendiari buruzko informazioa 2001etik aurrera asko hazten da. 2000. urtean mendia protagonista den testu bakarra kaleratzen da, 2004an mendiaren gaia hogeita lau testutan<sup>840</sup> agertzen da. 2001etik 2003ra, hamahiru testutan lantzen da kirol gai hori.

## **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kirolari dagokionez, atletismoa da gehien agertzen dena. Urtero hamar testu inguru argitaratzen dira kirol honen inguruan, baina 2001ean apur bat gehiago lantzen dela antzeman daiteke, hamasei testutan<sup>841</sup> agertuz. Herrian oihartzun berezia duen kirola dela aipatu beharra dago. Horren erakusle garbia, urtarrilean antolatzen den nazioarteko krosa da. Era berean, herrian bertan jende gaztearen artean atletismorako zaletasuna oso zabaldua dago.

Igeriketari buruzko testuak ez dira ugariak izan eta urtero kaleratu den item kopurua oso antzerakoa izan da. 2000, 2003 eta 2004an igeriketari buruzko sei idatzi<sup>842</sup> kaleratu dira urte bakoitzean, 2001ean lau item eta 2002an bost testu aurkitu ditugu.

---

<sup>837</sup>- Adibidea: "Taldeak aldagelan funtzionatzen badu zelaian ere berea emango du", Jose Luis Insausti, C.D. Elgoibar-ko presidenteari egindako elkarrizketa. 2004ko ekaineko 491. alean. (19. or.).

<sup>838</sup>- Adibidea: "Estatu osoko 6 talderik onenak Jubencil Nesken Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatzeko ari dira Elgoibarren" albiste. 2000ko maiatzeko 320. zenbakian. (20. or.).

<sup>839</sup>- Adibidea: "Saskibaloi taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu du" albiste. 200ko azaroko 343.alean. (21. or.).

<sup>840</sup>- Adibidea: "55 mendizalek egin zuten Valderejo eta Herran arteko trabesia" albiste. 2004ko azaroko 503. zenbakian. (21. or.).

<sup>841</sup>- Adibidea: "Nekatuta gaudelako erabaki dugu Mugerza Krosaren antolaketa lagatzea", Juan Mari Iriondo, Ego-Tokiko elkartearen atletismo batzordeko kideari egindako elkarrizketa. 2001eko urtarrileko 348. alean. (19. or.).

<sup>842</sup>- Adibidea: "Elgoibarko Igeriketa taldekoek Eibarko Txapelketan parte hartu zuten" argazki-albiste. 2004ko ekaineko 491.alean. (21. or.).

Herri kirolak 2001, 2002 eta 2004an agertzen dira bakarrik. 2001ean argazki-albiste batean, 2002an albiste labur batean, bi erreportajetan<sup>843</sup> eta elkarrizketa batean eta 2004an argazki-albiste batean.

Eskia ez da albiste izan askotan 2000-2004 bitartean, behin bakarrik agertu da-eta. 2003ko martxoko 439. zenbakian, eskiari buruzko “Ekaitz Isasik ‘Eski Estremo’ Txapelketa batean hartu du parte” albistea hain zuzen ere.

Pilotari buruzko informazioak gorabehera handiak izan ditu 2000-2004 bitartean. 2003an izan ezik, inoiz ez dira kaleratu pilotari buruzko bost testu baino gehiago. 2003an pilota hamalau idatzitan<sup>844</sup> da protagonista nagusia.

Duatloia eta triatloia gutxien agertzen diren kirolen artean daude. 2000. urtean agertzen da gehien, lau testutan hain zuzen ere. 2001 eta 2003an behin kaleratzen da urte bakoitzean eta 2004an, hiru aldiz da gai nagusia. Guztira, hiru albiste labur, hiru albiste eta bi argazki-albiste eta gutun batean agertzen dira duatloi eta triatloia. Adibidez, “20 emakume elgoibartarrek hartu zuten parte XV. Lilatoian” albistea<sup>845</sup>.

Judo, karatea eta borroka arteei buruzko informazioa urtero argitaratzen da *Barrenen*. Hala ere 2000tik 2004ra bitartean, kirol horri buruzko testuak poliki-poliki gutxituz joan direla suma daiteke. Lehenengo bi urteetan lantzen den gaia da batez ere, 2000. urtean hamar testu<sup>846</sup> eta 2001ean zazpi idatzi kaleratuz. Hurrengo hiru urteetan, borroka arteen gaia lantzen duen item kopurua, bostera ozta-ozta heltzen da.

Elgoibarko astekarian automobilismo eta motoziklismoari buruzko testu banaka batzuk argitaratu dira gure azterketa-epean. Urteroko item kopurua oso antzerakoa izan da, ez du gorabehera handirik izan. Item kopuru altuena 2004an argitaratzen da eta urte horretan motoziklismo eta automobilismoari buruzko bost testu<sup>847</sup> aurkitu ditugu. Gainontzeko urteetan, ez da bost itemera heldu testu kopurua.

Oro har, *Barren* aldizkarian gehien agertzen diren kirolen (futbola, mendia, atletismoa, pilota, txirrindularitza igeriketa eta borroka arteak) jarraipena egiten da. Ale guztietan agertzen

<sup>843</sup>- Adibidea: “Ahari jokoak, galtzeaz dagoen herri kirola” erreportajea. 2002ko azaroko 426. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>844</sup>- Adibidea: “Eguskizak eta Antxiak jokatuko dute Elite Euskadi 4 t’erdiko Txapelketaren finala San Anton Egunean” albistea. 2003ko urtarrileko 430. alean. (16. or.).

<sup>845</sup>- 2004ko martxoko 480. zenbakian. (20. or.).

<sup>846</sup>- Adibidea: “Xabi Gonzalez judoka elgoibartarra Espainiako Judo Txapelketa jokatzeko sailkatu da” albistea. 2000ko urriko 337. alean. (20. or.).

<sup>847</sup>- Adibidea: “Emaitza onak lortu dituzte ‘Txusko Moto Klub’ taldeko kideek Barakaldoko Enduro Txapelketan” albistea. 2001eko uztaileko 371. alean. (21. or.).

ez badira ere, kirol horiei denboraldiaren nondik norakoak modu jarraituan egiten zaizkie. Saskibaloia, herri kirolak edo eskiari ez ordea.

### **C) EHIZA ETA XAKEA**

Aurreko atalean esan bezala, *Barrenen* ehiza eta xakea kirol gisa hartu dira. Guk aztertu ditugun hirurogei zenbakietan bi kirol horiek oso agerpen murrizta dute. Ehizari buruzko testu kopurua urtero bostetik beherakoa da. 2003 eta 2004an lau idatzi<sup>848</sup> aurkitu ditugu urte bakoitzean. Xakea ehiza baino gutxiagotan da informazioaren protagonista, nahiz eta urteekin kirol horri buruzko idatzi kopurua areagotu egin den. Hasierako bi urteetan item bakarra argitaratzen da, 2002 eta 2003an xakeari buruzko hiru testu<sup>849</sup> kaleratzen dira eta 2004an bi idatzitan agertzen da.

### **D) KIROL AGENDAK**

Kirol agenden kopuruak urteekin goranzko joera erakusten du eta 2002an izan ezik (hamalau item), urtero kirol ezberdinak biltzen dituen testuen kopurua hogeitik gorakoa da. Ale bakoitzeko bi agenda inguru kaleratzen dira *Barren* aldizkarian. Alde batetik, kirol orrietan herriko kirol ezberdinei buruzko agenda eta emaitzak argitaratzen dira (futbola, eskubaloia, areto futbola eta pilota) eta bestetik, “Ikasbarren” atalean, eskoletako kirolen emaitza eta agendak agertzen dira. Deba Barreneko aldizkarien artean, kirol agenda eta emaitzak gehien erabiltzen dituen aldizkaria *Barren* da. Kirol emaitza eta agendako informazio gehienek egitarau itxura dute. Bestalde, hirurogei aleotan kirol ezberdinak aipatzen dituen albiste labur bat eta albiste bat bakarrik aurkitu ditugu: “Dinamo Kalimotxok irabazi du Gabonetako IX. Koadrilen Arteko Txapelketa” albistean<sup>850</sup>, krosa, txirrindularitza, areto futbola eta saskibaloia dira protagonista nagusiak. “I Gorputz Kurtitze’ hilabetea antolatu du Gazte Asanbladak” albiste laburrean<sup>851</sup>, futbitoia, atletismoa, ping-pong eta pilota aipatzen dira.

Bestalde, gure kirol kategorietatik at dauden, honako kirol ezberdinak aurkitu ditugu *Barren* aldizkarian: boloak (lau item), tenisa (zazpi item), arku tiroa (zortzi item), kulturismoa (bi item), zaldi lasterketa (bi item), aerobio (lau item), espeleologia (item bat), spinning-a, (bi item), squash (item bat), boxeoa (item bat), Power Dumbel (item bat), gimnasia (bi item) eta

<sup>848</sup> - Adibidea: “Zatzu Mendin ehiza xeheko txapelketa” albiste laburra. 2004ko iraileko 501. zenbakian. “Kilibarren” 109. alean. (1. or.).

<sup>849</sup> - Adibidea: “XII. Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 12tik 20ra jokatu da” albistea. 2002ko azaroko 426. alean. (21. or.).

<sup>850</sup> - 2000ko urtarrileko 304. zenbakian. (20. or.).

<sup>851</sup> - 2001eko maiatzeko 364. zenbakian. “Kilibarren” 74. alean. (1. or.).

aquarobic-a (item bat) agertzen dira. Talde horretan arku tiroa da gehien errepikatzen den kirola. Adibidez, 2000ko ekaineko 326. alean argitaratzen den “Zarta Arkulari Taldeko ordezkariak irabazi dute Elgoibarko arku tiraketa txapelketa” albistea.

### **Kirolaren bilakaera bi hitzetan**

Orokorrean kirolaren presentzia urtetik urtera *Barren* astekarian hazi egiten da eta horren erakusle garbia, talde kirolak urtetik urtera hartzen duen indarra da, bere portzentajea bost urtetan bikoiztuz. Talde kiroletan, futbola urtetik urtera mantendu edo hazi egiten da apur bat, mendiari buruzko informazioak hazkunde nabarmena erakusten du, eskubaloaren presentzia gutxituz doa eta saskibaloaren agerpena hutsala da. Errugbia eta arraunketa ez dira inoiz agertzen.

Banakako kirola, berriz, jaitsi egiten da apurka-apurka: atletismoa da gehien agertzen den banakako kirola eta urtetik urtera mantendu egiten da, igeriketa eta pilota nahiko kopuru baxuetan mantentzen dira urtero, herri kirolak gutxi dira oro har eta ez dute urtez urteko jarraipenik, duatloi/triatloi eta motoziklismo/automobilismoari buruzko testu gutxi batzuk argitaratzen dira, gutxien agertzen diren banakako kirolak horiek izanik.

Ehiza eta xakea Elgoibarko aldizkarian ez dira gehiegi agertu, baina urteek aurrera egin ahala bi kirolen presentzia apur bat hazi egiten da.

Kirol agendak ugaritu egiten dira, kirol orrietan argitaratzen diren agendez gain, “Ikasbarren” atalean, eskoletako kirol agendak argitaratzen hasten direlako. Kirol agenden barnean, boloak, tenisa, arku tiroa, kulturismoa, zaldi lasterketa, aerobic, espeleologia, spinning, squash, boxeo, Power Dumbel, gimnasia eta aquarobic-a agertu dira. Emaitzen arabera, *Barren* aldizkariak kirol aniztasuna erakusten du, kirol asko eta asko izan direlako noizbait albiste bere orrietan.

### **4.3.5- BARREN ALDIZKARIAREN ARDATZAK**

2000-2004 bitartean *Barren* astekarian argitaratu diren kazetaritza-generoak aurreko urteetatik finkatuta egon direnak izan dira. Aldizkariak urteetako lana du atzean eta eskarmentu handia herriko informazioa lantzen. Horrek sendotu egin du produktua eta 2000-2004 epean gehiago finkatu ere. Kazetaritza-genero asko erabili dira baina guztien artean informazioa gailendu da. Era berean, kazetaritza-generoen artean oreka mantendu da.

#### **4.3.5.1- Kazetaritza-generoak**

**Informazioa** hazi egin da urteekin, aldizkarian informazio gehiago agertuz eta beti ere labur idaztea aldizkariaren printzipio bilakatu dela ahaztu gabe. Horregatik, informazio-genero arinak eta laburrak dira nagusi, irakurketa errazteko eta euskaraz irakurtzeko ohitura sortzeko. **Albisteak** eta **argazki-albisteak** indartu egiten dira urteekin, **albiste laburren** kopuru altua mantenduz. Bestalde, erreportajeak beren horretan mantendu dira, baina elkarrizketek beheranzko joera erakusten dute. Genero ezberdinen arteko konpentsazioa lortzen da, genero arin eta laburrak nagusituz, baina aldi berean informazio-genero landuagoak tartekatuz.

Oro har, orain arte lan honetan aztertu ditugun bi aldizkarietan ere, informazioa da genero izarra, eta bai *...eta kitto!*-n eta baita *Pil-pilean* ere, albisteak, albiste laburrak eta argazki-albisteak nagusitu dira gure azterketa-epean. Eibarko astekarian erreportajeak indartu egin dira eta *Barrenen* bezala, elkarrizketak gero eta gutxiago erabili dira, baina *Pil-pilean* hamabostekarian, ordea, elkarrizketek gero eta protagonismo gehiago dute. Informazio-portzentaje orokorrak kontuan hartuz, *Barrenek* dauka portzentajerik baxuena, %62, *Pil-pileanek* %66 eta Eibarko *...eta kitto!*-k %79.

Iritziaren atala indartu egiten da 2000-2004 bitartean, nahiz eta iritzi-generoak oso finkoak diren. Agerpen-mailari dagokionez, **irakurleen gutunak**, **zutabeak** eta **inkestak** dira orden horretan iritzi-genero garrantzitsuenak *Barrenen*. Irakurleen gutunak eta iritzi-zutabeak urtetik urtera areagotu egiten dira, herritarren parte-hartzea handiagoa delako eta iritzi-kolaboratzaile finkoak ere gehiago direlako aldizkarian. Elgoibarko astekariak badu “Kexak eta txaloak” iritzi atal berezia, gutun gisa sailkatu dena eta herritarrak benetan erabili eta estimatzen dutena. Inkesta kopuruak beheranzko joera apala izan du azken hiru urteetan, gehigarri ezberdinak desagertu ahala, gehigarri horietan kaleratzen ziren inkestak argitaratzeari utzi

zaiolako. Kritikak gutxitan argitaratu dira eta agertu direnean, gazteei zuzendutako gehigarrietan agertu diren musika eta literatur kritikak izan dira.

Eibarko aldizkarian iritzia gutxituz joan da urteekin, izan ere, ...*eta kitto!* da bost urte hauetan iritzia gutxien lantzen duen aldizkaria, %7an kokatuz portzentaje orokorra. *Pil-pileanen* portzentajea ia bikoitza da, %13koa alegia eta *Barren* da hiruren artean iritziari toki gehien egin dion aldizkaria, %16ko portzentajearekin. ...*eta kitto!*-n inkestak eta irakurleen gutunak nagusitzen dira, azken horiek urteekin indartuz eta iritzi-zutabeak, aldiz, indarra galduz. *Pil-pilean* hamabostekarian, irakurleen gutunak, inkesta, iritzi-zutabeak eta editoriala dira garrantzitsuenak. Irakurleen gutunak, Eibarren eta Elgoibarren ez bezala, behera egiten dute Soraluzen, baina *Pil-pileanen* Barrenen bezala, iritzi-zutabeak gora egiten dute urtetik urtera.

Literaturari aldizkarian eskaintzen zaion espazioa minimoa da, baina urtetik urtera apurka-apurka goranzko joera erakusten du literaturak, batez ere Urruzuno Literatur taldeko kolaboratzaileek idazten dituzten testuei esker. Soraluzeko aldizkarian ere oso gutxi lantzen da literatura, baina kasu horretan, urtetik urtera gero eta gutxiago agertzen da eta agertzen denean, gazte-jendeari zuzendutako gehigarrietan da. Eibarko astekarian literaturaren agerpena hutsala da.

Era berean komikiaren portzentaje orokorra ez da handia *Barrenen*, baina komikia sail finkoa da ale guztietan, Elgoibarko komiki taldearen lanaren erakusleihoa. Bestalde, gehigarri ezberdinetan agertu da noizbait beste komikiren bat. Orain arte aztertu ditugun hiru aldizkariaren artean, *Barrenen* soilik aurkitu dugu komikia.

Aldea nabarmena izanik, zerbitzuen atala da gehien agertzen den bigarren generoa aldizkarian, nahiz eta urteak pasa ahala atal hau ahulduagoa agertzen den. Izan ere, zerbitzuei eskaintzen zaion espazio eta atalak oso zehatzak eta finkoak dira bost urteko epean. **Zerbitzu-informazioa, agendak** eta **salerosketa/trukeen** atala ale gehienetan argitaratzen dira. Zerbitzu-informazioa urteekin indartu egiten da, agendak gutxitu eta salerosketa/trukeen atalean ez da aldaketarik sumatzen. Informazio erabilgarria gutxi agertzen da eta osasuna eta errezetak lantzen diren ataletan aurkitzen da bereziki. Denbora-pasak urteekin gutxiago agertzen dira, ume eta gazteen gehigarrietan kaleratzen direlako; beraz, gehigarriak desagertu ahala, denbora-pasak ere gutxiago dira aldizkarian.

Kazetaritza-generoei dagokionez, ...*eta kitto* eta *Pil-pilean* aldizkarietan ere, informazioaren atzetik zerbitzu-guneak du protagonismo gehien. Zerbitzuen portzentaje



orokorrak begiratu gero, *Pil-pilean* hamabostekaria da zerbitzu gehien eskaintzen duen aldizkaria, %19an kokatuz. Ondoren, *Barren* astekaria %18ko portzentajearekin eta azkenik, ...*eta kitto!* %14ko portzentajearekin. Hala eta guztiz ere, Elgoibarko astekariak eta Eibarko astekariak lantzen dituzten zerbitzu atalak badute antzekotasunik, agendak, zerbitzu-informazioa eta salerosketa/trukeak direlako bietan atalik inportanteenak. Soraluzeko aldizkarian agendak eta denbora-pasak gero eta indar gehiago dute eta zerbitzu-informazioa eta salerosketa/trukeen atala aldiz, gero eta gutxiago lantzen dira.

#### 4.3.5.2- Gaiak

*Barren* astekarian neurri handiago edo txikiagoan gai anitz agertu dira 2000-2004 bitartean, gainera urte gehienetan gai ezberdinei buruzko item kopuruak goranzko joera apala erakusten du. Astekarian lanean ari diren bi kazetari profesionalek egiten dute gaien aukeraketa eta oso argi dute herriak eta herritarrek dutela lehentasuna. Halaber, gaurkotasuna duten eta atenporalagoak diren gaien artean, oreka zaintzen dute. **Gizarte-gaiak** dira aldizkarian garrantzitsuenak, ondoren **kultura** eta **kirolak** eta, politika eta ekonomia gutxien agertzen diren bi gaiak dira. Eibarko eta Soraluzeko aldizkarietan ere, gizarte-gaiak dira nagusi. ...*eta kitto!*-n *Barrenen* joera bera sumatzen da: gizarte-gaien atzetik, kultura eta kirolak direlako gehien lantzen direnak. *Pil-pilean* hamabostekarian, aldiz, gizarte-gaien atzetik, kultura eta politika nagusitzen dira.

Politika ez da inoiz *Barren* aldizkarian lehentasuna izan duen gaia eta urteekin bere agerpena murriztuz joan da. Politika bereziki hauteskunde garaian, herritarrekin eta herriarekin zerikusi zuzena duenean agertzen da astekarian. Horrela bada, **alderdiak**, **Euskal Herriko gatazka** eta **udala** dira 2000-2004 bitartean eta ordena horretan gehien agertu diren gai politikoak. Alderdien gaia urteekin gero eta gehiago agertzen da, Euskal Herriko gatazka eta udalaren presentzia, berriz, gutxitu egiten da urtez urte. Herritik kanpoko erakunde ezberdinen agerpena hutsala da, herriarekin edo herritarrekin zerikusia duenean bakarrik agertzen baita eta ondorioz, gutxitan da albiste *Barrenen*.

*Barrenen* bezala, Eibarko aldizkarian ere, politika gutxien lantzen diren gaien artean dago baina Soraluzeko hamabostekarian gehien lantzen den hirugarren gaia politika da. Portzentaje orokorrak kontuan hartuz, ...*eta kitto!* da politika gaiak gutxien lantzen dituen, bost urteetan %5eko portzentajea izanik. Ondoren, *Barren* dugu, %7ko portzentajearekin. *Pil-pilean*

aldizkariaren portzentajea, ordea, bikoitza da, %14koa hain zuzen ere. Bitxia da, hiru aldizkarietan agerpen gehien duten gaiak berberak izatea, baina aldizkari bakoitzean batek dauka lehentasuna. Hau da, udala, Euskal Herriko gatazka eta alderdiak dira, *Barrenen*, ...*eta kitto!*-n eta *Pil-pilean* aldizkarietan gehien azaltzen diren hiru gai politikoak. Eibarko aldizkarian Euskal Herriko gatazka da gehien agertzen dena, *Pil-pilean* aldizkarian udala eta *Barrenen* alderdiak.

Ekonomia da Elgoibarko astekarian gutxien lantzen den gaia eta urteekin ez da bere agerpen-maila handitzen. **Merkataritza** da gehien agertzen den gai ekonomikoa eta urtez urte garrantzitsuagoa bilakatzen dena. Agerpen-mailari dagokionez, **enpresa** da bigarren gai ekonomikoinportanteena, aldizkarian nahiko finko mantendu dena. Jarraian, gai laboralei buruzko informazio eta iritziak dira nagusi, baina azken hauek urteekin indarra galtzen dute. Nekazaritza eta abeltzaintza gaiak ez dira apenas agertzen 2000-2004 bitartean eta desagertzeko joera erakusten dute, nahiz eta 2000. urtea baino lehen, nekazaritza eta abeltzaintzaren gaia gehiago landu den, hilerobaserriari buruzko gehigarria argitaratzen zen-eta.

Eibarko astekarian eta Soraluzeko hamabostekarian ere gutxien agertzen den gaien artean dago ekonomia. Portzentaje orokorrak begiratu, *Barren*, ...*eta kitto!* eta *Pil-pilean* aldizkarietan ekonomia ez da gure azterketa-epean %6tik gora kokatzen. ...*eta kitto!* eta *Barrenek* %6ko portzentajeetan lantzen dute eta *Pil-pileanek* %4an. Elgoibarko eta Soraluzeko aldizkarietan gehien lantzen diren gaiak, merkataritza, enpresa eta gai laboralak dira orden horretan. Eibarko astekarian enpresa, merkataritza eta gai laboralak. Laburbilduz, hiru gai horiek orden ezberdinarekin aldizkarietako gai ekonomikoprotagonistak dira

Gizarte-gaiak, aldiz, Elgoibarko astekariko gai izarrak dira eta urtetik urtera arreta gehiago bereganatzen dute *Barrenen*, gai horien inguruko testu gehiago kaleratzen delako. **Gizarte ohiturak, zerbitzuak, lanak eta hezkuntza** dira agerpen-maila altuena duten gizarte-gaiak. Osasuna eta taldeak, ordea, gutxien agertzen diren gaiak dira. Gizarte ohiturak eta lanak presentzia galtzen dute urtetik urtera; lana eta osasunaren gaietan ez dago aldaketarik eta gizarte arazoak, hezkuntza eta ingurumena, indartu egiten dira urteen joan-etorriekin.

Eibarko astekarian eta Soraluzeko hamabostekarian ere gizarte-gaiak dira jaun eta jabe. ...*eta kitto!*-n bost urteko epean %42ko portzentajeetan kokatu dira gizarte-gaiak, *Barrenen* %46an eta *Pil-pilean* aldizkarian %49an. Hiru aldizkarietan beraz, %40tik gora. Hiru errebistetan gizarte ohituren atala da gehien agertzen dena. ...*eta kitto!* eta *Barrenen* gehien agertzen den bigarren atala zerbitzuena da eta hiru agerkerietan gehien errepikatzen diren gaien artean hezkuntza eta

lanak daude. Beraz, ezberdintasunak ezberdintasun, gizarte-gaien baitan nahiko joera antzerakoa jarraitzen dute hiru aldizkariak

Kultura gizarte-gaien ostean gehien agertzen den gaia da Elgoibarko astekarian eta urteak pasa ahala, gai kulturaletan hazkunde apala antzematen da. Aldizkariko “Kultura” sailean espazio finkoa dute kultura gaiak, baina bestelako sekzioetan ere lantzen den gaia da. Agerpen-mailaren arabera, **Arte eszenikoak, komunikabideak, literatura, euskara eta arte plastikoen** gaiak izan dira garrantzitsuenak gure azterketa-epetan. Arte eszenikoen baitan **musika** nagusitu da eta arte plastikoen artean **argazkigintza/kartelgintza**. Kultur agendak eta gastronomia gutxien agertzen diren kultur gaien artean daude.

*Barren*, ...*eta kitto!* eta *Pil-pilean* aldizkarietan kultura da gizarte-gaien ostean gehien errepikatzen den gaia eta hirurek dute kultura lantzeko atal berezia euren orriotan. Eibarko eta Elgoibarko astekarietan kulturak presentzia irabazten du urteekin; Soraluzeko hamabostekarian, ostera, gero eta gutxiago agertzen dira kultura gaiak. Izan ere, datu orokorreari dagokionez, *Pil-pilean* da bost urteetan kultura gaietan hiru aldizkarien artean portzentaje baxuena duena, %21, *Barrenek* %25 eta Eibarko astekariak %28koa. Hiru aldizkariotan, arte eszenikoak gehien agertzen diren gaien artean daude eta hiruretan arte eszenikoen baitan musika da protagonista nagusia. *Pil-pileanen* eta *Barrenen*, literaturak eta euskarak protagonismo berezia dute.

Kirolari ale bakoitzean eskaintzen zaion espazioa finkoa eta handia da eta horrek aldizkariko hirugarren gai garrantzitsuenean bihurtzen du, urtetik urtera kirolaren agerpena areagotuz. Futbola gehien agertzen den kirola bada ere, Elgoibarko astekarian modu kontzientean egiten diote lekua beste kirol batzuei. Izan ere, bestelako hedabideetan horrenbeste agertzen ez diren herriko kirolei protagonismoa ematen ahalegintzen dira. **Kirol agendak, futbola, mendia eta atletismoa** dira gehien agertzen diren kirolak. Neurri txikiagoan, pilota, txirrindularitza, igeriketa eta borroka artei buruzko informazioak kaleratu dira.

Eibarren eta Elgoibarren gizarte-gai eta kulturaren atzetik, kirolak dira gehien agertzen diren hirugarrenak, baina Soraluzen kirolak gutxiago lantzen dira, politikaren atzetik kokatzen baitira. Ikus ditzagun hiru aldizkariak bost urte hauetan orokorrean kirolari eskaini dioten portzentajea nolakoa izan den: Eibarko aldizkaria izan da hiruren artean portzentaje handiena lortu duena, %17; ondoren puntu bat beherago *Barren* daukagu %16ko portzentajearekin eta *Pil-pilean* %11rekin. Hiru agerkarietan kirolen baitan, banakako kirolen atala da nagusi, baina oro har gehien agertzen den kirola futbola da. Bai Elgoibarren zein Eibarren, eliteko futbola ez den

bestelako futbol diziplinei arreta gehiago jartzen saiatzen dira. Futbolaz gain, ...*eta kitto!* eta *Pil-pilean* aldizkarietan pilota eta txirrindularitza ere asko agertzen dira. Elgoibarko eta Soralezeko aldizkarietan, mendia, atletismoa eta kirol agendak ditugu gehien agertzen diren kirolen artean. Beraz, kirolean ere, *Barren*, ...*eta kitto!* eta *Pil-pilean* aldizkariak ez dira hain ezberdinak eta bat datozen zenbait kirolean.

#### **4.3.5.3- Gibel-iruzkinak**


Oro har *Barren* aldizkariak bere izaera propioa bilatzen du gai eta generoei dagokionez. Hots, bestelako hedabideetan agertzen ez diren eta inoiz agertuko ez liratekeen gai eta herritarrak astekariko protagonista bilakatzen ditu. Bestalde, astero kaleratzeak eskaintzen duen patxada aprobetxatzen dute, eguneroko zurrumbilo informatibotik aldenduz, gainerako hedabideek lantzen dituzten gaiei beste ukitu bat eta tratamendu bat emateko.

Era berean kazetari profesionalen errodajea nabaritzen da, bai generoak hautatu eta erabiltzerako orduan ere, lana oso antolatuta eta finkatuta baitago. Zalantzarik ez dago aldizkaria kazetaritzaren ikuspegitik egiten dela, generoen arteko oreka, erabilera eta gaien arteko oreka ale gehienetan sumatzen baita.




2004ko udal-aurrekontuak aztergai


Mutrikuko herri-aldizkarixa  
28. zenb. 2004ko apirila




# KALAPUTXI



HESIAK GAINDITUZ  
**BORXA**  
arrillaga



**ELENITA BERRIA:**  
ilusioz betetako  
itsasontzi berria



**JUAN DE LANDA**  
Hollywoodeko  
aktore mutrikuarra



#### **4.4- KALAPUTXI ALDIZKARIAREN ANALISIA**

Ikerlan honetan aztertu diren sei herri-aldizkarien artean, Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekaria da Deba Barreneko herri-aldizkaririk gazteena. 2001eko azaroan ikusi zuen argia lehenengoz, herritarrei hurbileko informazioa euskaraz irakurtzeko aukera emateko asmoz. Halaber, Mutrikun herri-prentsan zegoen hutsunea bete nahian argitaratu zen *Kalaputxi* eta euskaraz irakurtzen ohituta ez zegoen jendea, euskaraz irakurtzen ohitzeko helburuarekin.

Ordura arte *Kalaputxi* bezalako herri-aldizkaririk ez zen inoiz Mutrikun kaleratu. Sasoi batean, AEK-ren aldizkariak kaleratzen ziren, baina ez modu iraunkor batean. Bestelako esperientzia batzuk ere egon dira Mutrikun, baina kaleratu diren publikazio gehienek bi osagai izan dituzte: alde batetik, osagai politikoa, ideologikoa. Hizkuntza komunikazio-tresna zen, baina argitalpen horiek behar politiko bati erantzuteko helburua zuten eta ez ziren euskara hutsean, gaztelerak ere bazuen tokirik.

80. hamarkadaren bukaeran, herri-aldizkarien loraldia hasi zenetik *Kalaputxi* jaio arte, ez zen Mutrikun bestelako euskarazko argitalpenik izan. Ekar ditzagun Iñaki Mendigurenek hitzak, *Arrasate Press* aldizkariaren hastapenak gogoratuz:

*“Laster ikusi zen ordura arteko ohizko ereduetatik urrundu beharra zegoela, ezin zela aldizkaria betiko gutxiengo euskaltzale militante edo kultur zalearentzat bakarrik planteatu, euskarari eta euskal kulturari buruzko diskurtso ideologiko eta kontzientziatzailea zuzenean egin gabe, euskaldunen gehiengoa erakarri eta irabazi behar zela euskara idatzira. Beraz, aldizkari herrikoi, sinple, praktikoa, irakurterraza egin behar zen; albiste erakargarri eta artikulua laburrekin, argazki eta elementu grafiko askorekin etab.”* (Mendiguren, 1992:92).

2002ko hasieran lau lagun hasi ziren *Kalaputxi* aldizkarian eta inork ez zeukan esperientziarik herri-aldizkarien alorrean. Inguruko herrietara joan ziren eta bertan egiten zena ikusi eta aztertu ondoren, profesionalen esku uztea erabaki zuten aldizkaria:

*“Inguruko herrietakoak imitatu nahian, hasieran aldizkaria bi profesionalen esku uztea erabaki genuen, baina hilabete gutxi batzuetan porrot egin zuen saiakera horrek. Nik gero egindako hausnarketaren arabera ondorioak atera ditut. Normalean herri-aldizkariak euskara elkarteen babesean edo baitan daude, eta normalean herri-aldizkarietan lanean dagoen jendea, elkartekoa edo elkartetik hurbil dagoen jendea izaten da, apur bat sintonia berean dabilen jendea. Gure hasierako planteamenduan, bi langile hartu behar genituela pentsatu genuen eta etorri zirenak ere “langile-langile” ziren. Sei edo zazpi ordu lan egin eta ospa egiten zuten,*



*atxikimendu berezirik gabe. Gaur egun denok ez, baina taldeko hiru pertsona gutxienez kalean erabat erlazionatzen gaituzte aldizkariarekin. Identifikatzen gaituzte. Horretan egin genuen kale hasieran, euskara elkarterik ez zegoen Mutrikun, gaur egun ere ez dago. “Baitxo Euskara Elkarte” izenez bada, baina ez du funtzionatzen”<sup>852</sup>, onartzen du Joseba Palenzuelak, *Kalaputxi* aldizkariko kide-zuzendariak.*

Gaur egun bost lagunek mantentzen dute bizirik egitasmoa eta euren lana guztiz boluntarioa da, alegia, inork ez du diru truke lanik egiten, ezta publizitateaz arduratzen den pertsonak ere. Diseinu eta maketazio lanak inprentan egiten dira, Oñatiko Gertu inprenta arduratzen da *Kalaputxi* aldizkariko diseinu eta maketazioaz.

Formazio aldetik bertan ari diren gehienak (AEK-ko irakasle ohia, euskaltegiko irakaslea, hezkuntza bereziko irakasle bat, enpresa tekniko bat eta udaleko euskara teknikaria) letren alorretik datoz eta ez dago ekonomia, administrazio eta zenbakietan aditurik. Oso presente dute administrazio lana eta publizitatea “gainditu gabeko ikasgaiak” direla.

*Kalaputxin* ari diren boluntarioek jakin badakite horrelako egitura batek arrisku larriak dituela eta aldizkariaren etorkizuna mugatu dezakeela. Borondatezko egitura bat sendotzea oso zaila dela erakutsi die esperientziak eta horrela aitortzen du Joseba Palenzuelak:

*“Borondatez dabilenak egunen batean ‘nik gehiago ezin dut’ esaten badu, hari ezin diozu ezer esan. Hemen ari garenok bakoitzak gure lana izateaz gain, norbere bizitza pertsonala ere badaukagu eta horrek erabateko eragina du; alde horretatik kontziente gara borondatezko egitura batek basazko hankak dituela. Bestalde, ordezkoak bilatzea ez da erraza gaur egun”<sup>853</sup>.*

Izan ere, aldizkaria sortu zenean konbentzitura zeuden jende gehiago hurbilduko zela aldizkarira, baina uste baino jende gutxiago animatu da bertan lan egitera eta idaztera.

Lan honetan aztertu ditugun gainerako herri-aldizkariak ez bezala, *Kalaputxi*ren atzean ez dago kultur edo euskara elkarterik. Karenka Komunikazio Elkarteak kaleratzen du hiltatekaria. Joseba Palenzuelak argi dauka bere garaian hartu zuten erabakia onerako izan zela, *Kalaputxi* sortu zen garai berean, euskara elkarte eta aldizkaria batu nahi izan zituztelako:

*“Ni izan nintzen ezetzaren defendatzailea. Bereiz ditzagun bata bestearengandik, bakoitzak egin dezala bere bidea eta ikusten dugunean biok ondo gabiltzala eta uztartzeko*

<sup>852</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>853</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

*moduan dagoela, orduan elkartuko gara. Euskara elkartearen sortu zenean, herri hizkera lantzeko motibazioarekin sortu zen eta bertan lagun talde bat zebilen. Beste jende talde bat plan estrategikoarekin arduratuta zebilen eta herri-aldizkarigintzan Kalaputxi zegoen. Hiru frentehoriek gutxi gora behera aldi berean abiatu ziren eta gaur egun, bosgarren urtearen buruan, guk bakarrik jarraitzen dugu aurrera, beste biek pot egin zuten. Denok elkarte baten barnean aritu izan bagina, agian gaur egun martxan duguna ez genuke edukiko, nork daki!. Hemen jendeak Kalaputxi ikusten du eta jende gehienak ez daki Karenka Komunikazio Elkartearen (pertsonek berberak gara Karenkakoak) horren atzean dagoela. Guk euskara elkartetik bereizi nahi genuen eta gure leloa hau da: herritik eta herriarentzat. Orduan ez genuen identifikatu nahi produktu hau inongo elkartearekin”<sup>854</sup>.*

Gaur egun Mutrikuko etxe eta baserri guztietara heltzen da Kalaputxi, 1.900 ale banatzen dira hileroko herriko postontzi guztietan:

*“Herri-aldizkari batek, etxe eta baserri gehienetara iritsiz, herritar gehienaren informazio gosea ase dezake, herriko ekintza eta arazoei buruz hitz eginez, eta honako gaiak buruz informazioa eskainiz, egoera sozio-ekonomikoa, balore literarioa eta kulturalak, etab”* (Agirreazaldegia, 1993: 5).

Lau urteko ibilbide laburra egin badu ere, Kalaputxik lortu du bere lekua egitea Mutrikun eta jende gehienak ezagutzen du gaur egun.

Lan-taldeak aldizkaria sortu zenean ezarritako helburuez gain, bizirautea du helburuetako bat, hots, lortu duten martxari eusteko kapazak izatea eta ahal den neurrian asmo berriei heltzea. 2005ean web gunea sortzea aurreikusten zen, baina ezin izan zitzaion aurre egin, egunerokoak eta paperak nahiko lan ematen duelako: *“28 orri betetzeak duen prozesuak ez digu beste ezertarako denborarik uzten”<sup>855</sup>*, ametitzen du Palenzuelak. Zailtasunak zailtasun, tesi honetarako elkarrizketa egin zenean (2006/02/23) 48. alea kalean zen eta 2001eko azarotik hutsik egin gabe, aldizkaria kalean dago gaur egun ere. Hileroko dinamikari eusteko gai dela erakutsi du erabat musu-truk aritzen den lan-taldeak.

## **Aldizkari atalak**

---

<sup>854</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>855</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

Aldizkariaren edukia hobeto ezagutzeko, hona hemen 2002-2004 bitartean *Kalaputxin* kaleratu diren sailen izen eta edukien laburpena:

**-Editoriala:** Argitalpenaren iritzia, gaurkotasuna duen gai baten inguruan idazten dute normalean. (Orri laurden). Ez da ale guztietan kaleratzen.

**-Informazioa:** Intereseko telefonoak, autobus eta tren ordutegiak eta zaintzako botiken ordutegiak kaleratzen diren orrialdea.

**-Zeuk esan:** Irakurleen gutunen atala. (Orrialde osoa).

**-Puri-Purixan:** Gai zentrala, erreportaje nagusia izaten da. Beti ez baina normalean gaurkotasuna duen gairen batekin lotzen da. (Bi orrialde).

**-Bi hitzetan:** Albiste laburrak edo argazki-albisteak sartzen diren atala. (Bi orri)

**-Auzoz auzo:** Ez da beti ateratzen den sekzioa. Auzo ezberdinei buruzko erreportajeak. Normalean baserri giroko erreportajeak izaten dira. (Bi orri).

**-Kale-inkesta:** Herritar ezberdinei (ale bakoitzean zortzi herritarri) gai bati buruz egiten zaien inkesta. (Orrialde bat).

**-Komikia:** Ale bakoitzean jorratzen den gai bati buruzko komikia. (Orri laurden).

**-Karenka:** Ale bakoitzeko elkarrizketa eta pertsonaia nagusia izaten da. (Bi orri).

**-Lan giruan:** Lanbide ezberdinei buruzko elkarrizketa edo erreportajeak. Nahi baino gutxiagotan ateratzen den saila bada ere, nahiko finkoa da. (Bi orri).

**-Gizartea:** Herriko gizarte-gaiak lantzen diren atala, normalean erreportaje itxura izaten dute. (Bat edo bi orri).

**-Kultura:** Kultura gaien inguruko albiste eta erreportajeak. (Bi orri)

**-Kirola:** Kirolari buruzko informazioa argitaratzen den atala. (Bat edo bi orrialde)

**-Zorion agurrak:** Herritarren zorion agurrak agertzen diren atala. (Orri oso bat)

**-Argazki zaharrak:** Antzinako bi argazki eta horien inguruko informazioa kaleratzen den atala. (Orri osoa).

**-Agenda:** Hurrengo hilabeterako ekitaldi kulturalak eta abisuak aurreratzen dituen saila. (Orri osoa).

**-Jolasen txokoa /Olgatzen:** 2002tik 2003ko urtarrilera arte iraun zuen atala. Herrian dagoen aisialdi taldeak eginda, aisialdiari buruzko informazioa argitaratzen den orrialdea. “Olgatzen” atalean ia beti denbora-pasa ezberdinak kaleratzen dira: hizki-zopak, gurutzegramak...

**2002-2004 bitartean agertu eta desagertu diren beste atal batzuk:**

Badira beste atal batzuk noizean behin agertzen direnak, baina aldizkarian finkoak ez direnak: “Osasuna”, “Gazterixa”, “Irakaskuntza”, “Euskara”, “Bidaiak”, “Kalaputxiketan”, “Ongizatia”, “Zaharrak berri”, “... ibili munduan”, “Natura”, “Historixa”, “Aurrera begira”, “Turismoa”, “Teknologia berriak”, “Ikuskizuna”, “Literatura” esaterako. Horrek lan-taldeak jarraitzen duen prozesuarekin du zerikusia. Izan ere, lehenengo gaiak erabakitzen dira eta gero gai horiek sail ezberdinetan sailkatzen dira.

**4.4.1– KALAPUTXI ALDIZKARIAREN FITXA TEKNIKOA (2004)**

Orain arte aztertu ditugun aldizkari ezberdinen analisisian bezala, aurrekoen eredu bera jarraituz, fitxa teknikoak bete dugu hemen ere. Mutrikuko hilabetekariaren kasuan, ordea, 2004ko datuak soilik hartu ditugu kontuan, errebista 2001eko azaroan sortu zelako, beraz 1999ko daturik ez dagoelako.

Asier Arangurenen <sup>856</sup> txantiloia kontuan hartuta, doktore gai honek eguneratutako datuak. <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian tesian ez da Kalaputxi agertzen.</i>	<b>2004ko fitxa teknikoa</b>
<i>Kalaputxi</i>	Karenka Komunikazio Elkarte 20830 Mutriku (Gipuzkoa). Tf: 943 60 34 68
<b>Herria/Eskualdea</b>	Mutriku. Biztanleak 4.655. Euskaldunak 4.444 (%95) <sup>857</sup>
<b>Argitaratzailea</b>	Karenka Komunikazio Elkarte
<b>Nortasun juridikoa</b>	Komunikazio Elkarte
<b>Zuzendaria</b>	Joseba Palenzuela
<b>Lehen alea</b>	2001eko urrian
<b>Maiztasuna</b>	Hilabetekaria
<b>Hizkuntza</b>	Euskara hutsez
<b>Zabalkundea</b>	Mutrikuko kale eta baserriak
<b>Tirada</b>	1.900
<b>Prezio</b>	Doan

<sup>856</sup> - Aranguren, Asier. (2000): “*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*” doktore-tesia, EHU, Bilbo.

<sup>857</sup> - Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

<b>Formatua</b>	DIN-A4										
<b>Orrialdeak</b>	28										
<b>Lan-taldea</b>	Bost lagun. Kontraturik gabe eta borondatez.										
<b>Edukiak</b>	Informazioa %59, Iritzia %16, Komikia %3 eta Zerbitzuak %21.										
<b>Sortze arrazoiak</b>	Herritarrei hurbileko informazioa euskaraz irakurtzeko aukera ematea eta horretan zegoen hutsunea betetzea.										
<b>Publizitatea</b>	Modulua 25€ BEZ-a barne. Publizistak ez du kobratzen. Publizitate bezero finkoak hilero: 20 bezero.										
<b>Ezaugarri teknikoak</b>	Azala koloretan eta barrua bi koloretan. Maketazioa eta diseinua Gertu Inprimategian (Oñatin).										
<b>Finantziarioa</b>	<table> <tr> <td><b>Gastuak:</b></td> <td>31.250 €</td> </tr> <tr> <td><b>Sarrerak:</b></td> <td>31.250 €</td> </tr> <tr> <td><b>Diru-laguntzak:</b></td> <td>19.712 €</td> </tr> <tr> <td><b>Publizitatea:</b></td> <td>11.144,60 €</td> </tr> <tr> <td><b>Besteak:</b></td> <td>393,40 €</td> </tr> </table> (Bazkideen ekarpenak)	<b>Gastuak:</b>	31.250 €	<b>Sarrerak:</b>	31.250 €	<b>Diru-laguntzak:</b>	19.712 €	<b>Publizitatea:</b>	11.144,60 €	<b>Besteak:</b>	393,40 €
<b>Gastuak:</b>	31.250 €										
<b>Sarrerak:</b>	31.250 €										
<b>Diru-laguntzak:</b>	19.712 €										
<b>Publizitatea:</b>	11.144,60 €										
<b>Besteak:</b>	393,40 €										
<b>Tresneria</b>	G5 Machintosh ordenagailu bat, PC bat, CD grabagailua, eskanerra, kamara digitala, inpresora, ADSL-a eta telefono linea.										
<b>Konpetentzia</b>	<i>Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza</i> kaleratzen da, baina <i>Kalaputxi</i> k lan-										

	taldeak ez du konpetentzia bezala ikusten. <i>Hitza</i> egunerokoa izanik eta <i>Kalaputxi</i> hilabetekaria, eduki ezberdinak jorratzen dituzte.
--	---

Mutrikuko aldizkarian ezin dugu konparaziorik egin ez baitauzkagu 1999ko datuak, hala ere sortu berria den hilabetekariaren inguruan hainbat datu azpimarra daitezke:

- Aldizkaria sortu zenean bi langile profesionalekin hasi zen, baina ez zuten inolako lotura eta militantziarik proiektuarekiko eta saiakerak porrot egin zuen. Hiru hilabeteren buruan proiektua erabat militante bihurtu zen eta bere zutabe nagusia borondatez ari diren langileak dira, lanbidez eta formazioz ez dira kazetariak eta dakiten eta hoberen, ahalik eta produktu txukun eta duinena kaleratzen saiatzen dira.
- Aldizkariko aurrekontua ia Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturrri* hilabetekariak duen aurrekontuaren parekoa da; 4.100 euro gutxiago ditu Mutrikuko *Kalaputxi* eta ez du langilerik, nahiz eta aurrekontuko langileen atalean, Oñatiko Gertu inprentak egiten dizkion diseinu eta maketazio lanen kostua sartzen duten. Publizitateaz arduratzen den pertsonak ez du ezer kobratzen eta jakin badakite lan hori hobetu daitekeela, horrela publizitate sarrerak handituz.
- Ezaugarri teknikoek dagokionez, hasieratik aldizkariak inbertsio inportantea egiten du eta auto-ediziorako behar-beharrezko tresneria guztia dauka. Aldizkarian hasieratik sartzen dute kolorea azal eta kontra azalean eta barrua bi koloretan inprimatzen dute. Aldizkariko edukiei dagokionez, informazioa gainerako generoen artean gailentzen da, euskaraz herritarrei informazioa eskaintzeko helburuarekin abiatu zelako egitasmoa. Dena dela, zerbitzuak, iritzia eta komikia ere agertzen dira aldizkarian.
- Tiradari erreparatuz honako ondorio hau atera daiteke: *Kalaputxi* hilabetekariak denbora gutxi behar izan du Mutrikuko etxe, baserri eta leku publiko guztietara heltzeko.

**4.4.2- KALAPUTXI ALDIZKARIAREN AURREKONTUA(2004)**<sup>858</sup>

Asier Arangurenek <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian ez da <i>Kalaputxi</i> aldizkaria agertzen ez baitzen sortu oraindik. Beraz, 2004ko aurrekontua soilik jarri dugu.	<b>2004ko Aurrekontua</b>
<b>GASTUAK</b>	Langileak _____ 5.000 € <sup>859</sup> Funtzionamendua ____ 7.700 € Inbertsioa _____ 1.400 € Inprenta _____ 14.950 € Zabalkundea _____ 2.200 € <b>GUZTIRA 31.250 €</b>
<b>SARRERAK</b>	Diru-laguntzak _____ 19.712 € Udala _____ 10.312 € Aldundia _____ 4.500 € Jaurlaritza _____ 4.900 € Publizitatea _____ 11.144,60 € Harpidetzak _____ 0 € Bazkideen ekarpena ____ 393,40 € <b>GUZTIRA 31.250 €</b>
<b>BALANTZEA</b>	GASTUAK 31.250 € SARRERAK 31.250 € <b>EMAITZA: 0€</b>

➤ Taulako datuen arabera, *Kalaputxi* aldizkarian inprenta gastuak urteko aurrekontuan agertzen diren inportanteenak dira, ia aurrekontuaren erdia inprentan gastatzen baita, % 47,84a hain zuzen ere. Langileriaren atalak aurrekontu osoaren %16ko gastua sortzen dio hilabetekariari eta funtzionamenduak %24,64ko portzentajea.

<sup>858</sup> - Atal honetan ez dugu alderaketarik egin, 1999an sortu gabe zegoelako aldizkaria. *Kalaputxi* aldizkarirako lan honetan 2002-2004 tartea hartu dugunez, 2004ko balantzea hartu dugu aldizkariaren bolumen ekonomikoaren erreferentzia gisa.


<sup>859</sup> - Oñatiko Gertu inprimategiko langileen lana, diseinua eta maketazioa.



➤ Sarrerei dagokionez, aldizkariak 2004an izan zuen aurrekontu osoaren erdia baino gehiago, diru-laguntza publikoek estali zuten, %63a zehazki. Aldizkariak, ordea, % 36,9ko auto-finantzaketa maila izan zuen urte horretan.

## 4.4.3- KAZETARITZA-GENEROAK

61G. grafikoa



Kazetaritza-generoen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean, urtez urte.

61H. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	INFORMAZIOA	IRITZIA	LITERATURA	KOMIKIA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
	2002-2004	598	166	3	29	218	1.015
	2002	174	50	0	9	77	310
	2003	198	61	0	10	74	343
	2004	226	55	3	10	67	362

Kazetaritza-generoen bilakaera, 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak

Mutrikuko *Kalaputxi* hilabetekaria Deba Barreneko aldizkaririk gazteena da. 2001eko azaroan lehenengo alea kaleratu bazen ere, 2002an hasi zuen bere benetako hilabetekari bidea. Hori dela eta, Mutrikuko hilabetekariaren kasuan, bere lehenengo hiru urteen bilakaera aztertuko dugu, gainerako aldizkarietan ez bezala, hemen hiru urteetako datuak bildu dira eta horiek bakarrik agertuko dira grafiko eta taula guztietan.

Guztira hiru urteko epean, 1.015 item aztertu dira. Horietatik 598 informazioari dagozkio, 166 testutan iritzia nagusitzen da, 29 komiki kaleratu dira eta zerbitzuei 218 item eskaini zaizkio *Kalaputxin*.

Kazetaritza-generoei gagozkiola, *Kalaputxi*ren bilakaera nahiko orekatua izan da bere hasierako hiru urteetan; informazioa, iritzia, komikia eta zerbitzuak landu direlako gehien bat eta emaitzek erakusten dutenez, informazio-generoek ez dute aldaketa handirik izan. 61H. taulan agertzen diren kopuru orokorreari begiraturaz gero, item kopurua urtetik urtera apurka-apurka haziz

joan dela antzeman daiteke. Izan ere, aztertu ditugun ale guztiek hogeita zortzi orrialde dituzte, beraz, orrialde kopuru bera mantenduz, testu gehiago sartzen joan direla aldizkarian ondoriozta daiteke. Kalaputxiko zuzendariak dionez, ez da kontzienteki egin den zerbait, baina denborarekin gauzak era laburragoan idazten ikasi dute eta elementu grafiko gehiago sartu dituzte irakurketa errazteko asmoz:

*“Aldizkarian eduki gehiago jorratzen joan gara, baina ez da gauza kontziente bat izan, eta horretaz jabetu gara, txapa batzuk garela; baina hori lehen esan dudanarekin lotzen dut. Guztiok gatoz letra mundutik eta askotan testuetan ez da tartekirik ezta bestelako elementu grafikorik agertzen. Horiek hasieran ez genituen ateratzen, edo gogoratzen ginenean bakarrik sartzen genituen eta orain, gero eta gehiago erreparatzen diogu. Konturatu gara irakurketa erraztu egiten dutela eta irakurri nahi duenak, handitik hasi eta txikira joango dela eta gauza handiak bakarrik irakurri ahal izango dituela nahi izanez gero. Azken batean, aldizkarigintzan hasi ginean, kontziente egiten hasi ginen egunkariak nola irakurtzen genituen guk. Ikasi egin dugu irudiaren garrantziaz eta elementu tipografikoen garrantziaz ohartzen”<sup>860</sup>.*

#### **A) INFORMAZIOA**

Kazetaritza-genero guztien artean informazioa gailentzen da, aldizkaria sortu zen helburua hori baitzen: herritarrei hurbileko informazioa euskaraz irakurtzeko aukera ematea beraz, informazioaren aldeko apustua egiten da. 2002-2004 bitartean informazio kopuruaren portzentajea, zerbitzuen portzentajearen bikoitza eta iritziaren portzentajearen hirukoitza baino handiagoa da. Urtez urteko bilakaera ikustea baino besterik ez dago, aldizkarian informazioa gero eta indartsuagoa dela konturatzeko. Urtero informazioaren portzentajea %50etik gora kokatzen da Mutrikuko hilabetekarian. 2002an ehun eta hirurogeita hamalau informazio-item kaleratzen dira, 2003an ehun eta laurogeita hamazortzi item eta 2004an berrehun eta hogeita sei item, azken urte horretan hain zuzen ere informazioa, %63an kokatzen da. Ordura arte inoiz lortu duen portzentajerik altuenean.

#### **B) IRITZIA**

Iritzia informazioa baino gutxiago agertzen bada ere, lekua egiten zaio *Kalaputxin* iritziari, iritzi-genero anitz argitaratzen baitira hiru urteetan, gehien agertzen den hirugarren kazetaritza-genero izanik. Bertan, editoriala, artikuluak, inkestak, iritzi-zutabeak eta irakurleen

<sup>860</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

gutunak aurkitu ditugu. Aurrerago ikusiko dugun moduan, editoriala, inkestak eta irakurleen gutunak ale gehienetan agertzen dira, finkoak dira aldizkarian eta iritzi-genero horien hazkundeak iritziaren atala indartzearekin zerikusi zuzena dauka. Urtetik urtera iritzi testu gehiago kaleratzen dira eta portzentajeak ere hazi egiten dira 2004an izan ezik. 2004an 2002an baino iritzi-item kopuru gehiago argitaratzen dira. Dena dela, 2004an testu kopuru orokorra altuagoa da eta portzentajeak kopuru orokorraren arabera kalkulatzeko direnez, urte horretako iritziaren portzentajeak apur bat behera egiten du.

### **C) LITERATURA**

Literaturaren agerpena minimoa da aztertu ditugun hogeita hamabi aleotan. Guztira, hiru item baino ez dira aurkitu, oso momentu puntualetan sartzen baitira literatura-testuak. Hala eta guztiz ere, egon da literatur txoko bat aldizkarian sartzeko proposamenik baina ez du aurrera egin: *“Ni oso literatur zalea naiz eta poesia asko gustatzen zait eta pare bat saio egin ditut aldizkarian literatur txoko bat sortzeko, baina taldean ez da ikusi eta ez du aurrera egin. Nik egingo nuke txoko bat jendeari tarte berriak eskaintzeko, baina ez da ikusi”*<sup>861</sup>, onartzen du Joseba Palenzuela *Kalaputxiko* zuzendariak.

### **D) KOMIKIA**

Komikia betidanik sartu izan da aldizkarian, hasieratik lortu den kolaborazioa da eta ez da iritzi moduan sartzen. Aldizkariari irudi ludikoa emateko asmoz sartu da komikia eta ale gehienetan argitaratu da. Kaleratu ez denean, komikigileak ezin izan duelako egin izan da. Lantaldeak hileko gaiak aukeratu eta banatzen dituzenean, gai horiek komikigileari ematen dizkio eta komiki egileak berak nahi duen gaiaren inguruan sortzen du irudia, baina beti aldizkarian agertzen den gairen batekin erlazionatuta egoten da sormen lan hori.

### **E) ZERBITZUAK**

Zerbitzuen atala da, informazioaren atzetik gehien agertzen dena Mutrikuko hilabetekarian. Zerbitzuei buruzko berrehun eta hamazortzi item kaleratu dira hiru urteko epean. Informazio mota hau aldizkaria sortzen den unetik agertzen da. Erabilgarria izateaz gain, aldizkaria bera irakurlearentzat erreferente bilakatzen laguntzen duelako. Aldizkaria etxe guztietara heltzen da, beraz irakurleak telefono, ordutegi edo agenda kontsultatu behar badu, eskura izango du aldizkariaren bitartez.

---

<sup>861</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

Zerbitzuen atala urtetik urtera jaitzi egiten da *Kalaputxin* eta horren arrazoi nagusia honako hau da: atal honetan lantzen diren kategoria batzuk urteekin desagertuz doaz, beste batzuk finkatuz doazen heienean. Atal hau kolokan ibiltzen da eta froga ezberdinak eginez, zeinek funtzionatzen duen hobeto ikusten da eta horren arabera lehentasuna ematen zaio atal bakoitzari. 2003tik aurrera, denbora-pasa eta informazio erabilgarri gutxiago agertzen da aldizkarian.

### **Kazetaritza-generoak bi hitzetan**


Laburbilduz, *Kalaputxin* lehenengo hiru urteetan lantzen diren generoak oso antzera mantendu dira, baina poliki-poliki urtetik urtera informazioa gehituz joan da eta berau bilakatu da aldizkariko genero izarra. Informazioa eta iritzia indartu egin dira urteekin eta zerbitzu-gunea aldizkarian gehien agertzen den bigarren generoa izan arren, ahulduz joan da. Literaturaren agerpena oso txikia da eta komikia ale gehienetan argitaratzen den sormen lana da.

#### 4.4.3.1- Informazioa

Mutrikuko aldizkarian batuz beste hiru urteko epean, informazioa da kazetaritza-genero nagusia. Hilabetekariaren edukien erdia baino gehiago, informazioa baita. Hurrengo bi ataletan informazioaren garapena aztertuko dugu. Lehenengo eta behin, informazio-genero ezberdinek 2002-2004 bitartean izan duten agerpen orokorra azalduko dugu. Ondoren, informazio-genero bakoitzak urtez urte *Kalaputxi* aldizkarian izan duen bilakaera nolakoa izan den ikusiko dugu.

##### 4.4.3.1.1- Informazioa 2002-2004 bitartean

62G. grafikoa



Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak chunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

62H. taula

	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Argazki-erreportajea	Elkarrizketa	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	92	268	62	117	11	48	598

Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan

Orotara Mutrikuko hilabetekarian 598 informazio-item argitaratu dira lan honetarako aztertu diren hogeita hamabi aleetan. Beste modu batera esanda, edukien %59, informazio-genero ezberdinek osatzen dute *Kalaputxin* gure azterketa-epean.

#### A) ALBISTE LABURRA

62G. grafikoa azaltzen diren portzentajeak eta 62H. taulan agertzen diren datuek erakusten dutenez, albiste laburrak modu nabarmenean nagusitzen dira gainerako informazio-

generoen artean, informazio-generoen %45, albiste laburren bitartez ematen baita. Izan ere, euskaraz irakurtzen ohituta ez dagoen jendearentzat, errazagoa da hizkuntza laburrean idatzita dauden albisteak irakurtzea: *“Hizkuntzak ere erraza izan behar du. Herri mailan ari gara eta berriro ere gogora ekartzea komeni da jende gehienak ez duela euskaraz irakurtzeko ohiturarik”* (Aranzabal: 1992:76).

Bestalde, albiste laburrek eduki gehiago jorratzeko bide ematen diote Mutrikuko hilabetekariari. Maiztasuna dela eta, zailtasunak dituzte gaurkotasuna duten gaiak lantzeko, gainera Mutrikun *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* egunkaria (astelehenetan izan ezik egunero argitaratzen dena) kaleratzen da eta *Diario Vascok* ere, egunero kaleratzen ditu herriko albisteak. Hori dela eta, *Kalaputxin* beste hedabide batzuetan agertzen diren gaiak lar ez errepikatzea kontuan hartzen da; ondorioz, beste hedabideek landu dutena gehienetan modu laburrean lantzen dute:

*“Gaurkotasunari heldu ezin diogunez, gaurkotasunari zeinek heltzen dio Mutrikun, Diario Vascok eta 2003an sortu zen ‘Hitza’-k. Guk ere ‘Hitza’-n agertzen direnei garrantzi gutxiago ematen diegu gure aldizkarian, nahiz eta ‘Hitza’ ez den etxe guztietara heltzen. Gaiak errepikatzen ditugu badakigulako ‘Hitza’ ez dela etxe guztietara heltzen, baina larregi ez errepikatzea ere kontuan hartzen dugu eta azken finean, gure berezko izaera ere lantzen saiatzen gara. Bestalde, Diario Vascon agertzen direnak ere gurean agertuko dira, baina beste modu batean. Esaterako, gurean inauteriak agendan agertu dira aurten eta ‘Hitza’ eta Diario Vascon askoz espazio gehiago eskaini diote gaiari”<sup>862</sup>.*

Horrezaz gain, aldizkariko atal gehienak bi orrika antolatzen dira eta “Bi hitzetan” saila ere bi orrikoa da. Bertan lantzen dira gaurkotasunarekin zerikusia duten informazioak, modu laburrean, argazki-albiste eta albiste laburren bitartez, batzaz beste ale bakoitzean zortzi albiste labur inguru argitaratzen dira.

## **B) ALBISTEA**

Albisteak ere lantzen dira Mutrikuko aldizkarian, baina albiste laburrak baino askoz gutxiago. 62G. grafikoan agertzen diren portzentajeei begiratzea baino besterik ez dago, albisteen portzentajea, albiste laburrena baino hiru aldiz txikiagoa dela ohartzeko. Guztira, hogeita hamabi aleetan laurogeita hamabi albiste aurkitu dira, ale bakoitzeko batzaz beste, bi

<sup>862</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

albiste baino zertxobait gehiago. Albisteen neurria *Kalaputxin* nahiko luzea da, ohikoa da orrialde osoko albisteak aurkitzea. Kontuan hartu behar da, lan-taldean ez dagoela kazetaririk. *Kalaputxin* kide guztiak boluntarioak izateaz gain, ez dute kazetaritzan formaziorik eta horrek kazetaritza-generoak idazterako eta antolatzerako orduan eragin zuzena du.

### **C) ERREPORTAJEA**

2002-2004 bitartean, ehun eta hogeita zortzi erreportaje argitaratu dira hilabetekarian, ehun eta hamazazpi erreportaje eta hamaika argazki-erreportajea zehazki. Ale bakoitzean ia lau erreportaje kaleratu dira batz bestea, albisteen kopuruaren bikoitza. Bi arrazoi nagusi daude horrenbeste erreportaje kaleratzeko: alde batetik, hilabetekaria izanik, maiztasunak bide ematen du gai batzuk modu luzeagoan lantzeko, bestetik, lan-taldean kazetaririk ez egotearen ondorio zuzena da. Hau da, hilabete bakoitzeko alea prestatzeko lan-taldeak egiten duen bileran, kide bakoitzak egin behar duen testua eta gaia zein den erabakitzen da, baina ez da erabakitzen kide bakoitzak zein genero erabiliz idatziko duen testua, eta norberak bere kaxa egiten du. Horren ondorio nagusia, informazio-generoen artean oreka falta da.

### **D) ELKARRIZKETA**

Elkarrizketa kopurua erreportajeena baino nabarmen baxuagoa da, orotara hogeita hamabi zenbakietan berrogeita zortzi elkarrizketa argitaratu dira. Ale bakoitzean elkarrizketa bat baino apur bat gehiago agertzen da batz bestea. Dena dela, urteekin elkarrizketarena gero eta gehiago erabiltzen den informazio-generoa bilakatu da. Elkarrizketa gehienak bi orrikoak dira eta “Karenka” atalean agertzen dira ia beti. Noizbait sail horretan agertu den gaia erreportaje moduan argitaratu izan bada ere, ohikoa da elkarrizketa moduan jorratzea. Izan ere, elkarrizketa erreportajea baino arinagoa da, irakurtzeko errazagoa. Gogora ditzagun Díaz Nociren hitzak:

*“Kazetariak gauza guztien gainetik kontuan eduki behar du irakurlearen interesa. Azken buruan, elkarrizketa bat egiten dugunean, kazetaritza-genero guztiak egiten ditugunean bezalaxe, irakurleak informazio bat eskuratu nahi duelako da, eta elkarrizketa forma aukeratzen dugu generorik aproposena delakoan”* (Díaz Noci, 2000:184).

Kontuak kontu, informazio-genero ezberdinak erabili dira Mutrikuko aldizkarian eta albiste laburrak eta erreportajeak, albiste edo elkarrizketak baino gehiagotan hautatu dira informazioa emateko. *Kalaputxi* hilabetekarian oro har ez dago oreka handirik kazetaritza-



generoen artean, ezta informazio-generoen artean ere. Joseba Palenzuela, *Kalaputxi*ko zuzendariak funtzionatzeko era horrek kazetaritza-generoen orekan duen eragina onartzen du:

*“Ez dugu batere orekarik, kapaz gara bi orriko 4 erreportaje egiteko edo 2 orriko 6 elkarrizketa ale berean kaleratzeko. Arrazoa badakit zein den. Hemen biltzen garenon artean gaiak banatzen ditugu, baina generoak ez. Batzuetan konturatzen garenean saiatzen gara generoak orekatzen, baina bestela bakoitzak hartzen duen gaia nahi duen bezala lantzen du. Egia esan helburu moduan ere ez dugu oreka bilatu nahi. Azken batean, gu ez gara kazetariak”<sup>863</sup>.*

### **Informazioa bi hitzetan**


Beraz, informazioa da aldizkarian gehien erabiltzen den kazetaritza-generoa eta informazioaren baitan, albiste laburren kopurua nagusitzen da, Mutrikuko jendea euskaraz irakurtzen ohitzeko eta bide batez eduki eta gai gehiago lantzeko. Albisteak, erreportajeak eta elkarrizketak luzeak izaten dira, aldizkariko edukiak bi orrika antolatzen direlako eta bestalde, alea prestatzeko egiten diren bileretan ez direlako definitzen kazetaritza-generoak, bakoitzak nahi duen generoa erabiliz egokitu zaion gaia jorratzeko. Horrezaz gain, lan-taldean ez dago kazetaririk eta kazetaritza-generoak irakurle gisa ezagutzen dituzte eta horrela erabiltzen dituzte euren idatziak egiterako orduan. Ondorioz, ez dago informazio-generoen artean inolako orekarik.

---

<sup>863</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

## 4.4.3.1.2- Informazioaren bilakaera

63G. grafikoa



Informazio-generoen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

63H. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Elkarrizketa	GUZTIRA
	2002	43	59	19	39	14	174
	2003	31	88	19	47	13	198
	2004	18	121	24	42	21	226

Informazio-generoen bilakaera, 2000-2002 bitartean. Kopuru absolutuak.

Mutrikuko aldizkarian urteak pasa ahala, informazio kopurua nabarmen hazten da, hilabetekarian gero eta informazio gehiago sartuz. Orrialde kopurua (hogeita zortzi) eta urteko ale kopurua (hamaika) bera da hiru urteetan zehar, beraz, urteekin informazioa hobeto kudeatzen ikasi dute aldizkariko kideek. Kopuru orokorrak begiratzea baino ez dago, informazio-item kopuruak gora egin duela konturatzeko. 2002. urtean informazio-itemak ehun eta hirurogeita hamalau izan dira eta 2004an berrogeita hamabi informazio testu gehiago kaleratzen dira, berrehun eta hogeita sei zehazki.

Informaziori gagozkiola, berau da aldizkariko genero izarra, *Kalaputxi*ko edukien erdia baino gehiago informazio-genero ezberdinek osatzen dute-eta. 63G. grafikoak eta 63H. taulak argi eta garbi erakusten dute, Mutrikuko hilabetekariak albiste laburrak erabiltzen dituela herriari buruzko informazioa emateko. Gainera albiste laburren kopuruak hiru urteko epean %20an egin du gora.

**A) ALBISTEA**

Hasierako urtean albiste eta albiste laburren artean oreka handiagoa nabaritzen da, baina urteak pasa ahala, albisteek protagonismoa galtzen dute albiste laburren mesedetan. Lehenengo urtetik 2004. urtera arte, albisteen kopurua erdira jaitsi da. 2002an ale bakoitzeko bataz beste ia lau albiste sartzen dira eta 2004an, *Kalaputxi*ko zenbaki bakoitzean bataz beste ez dira bi albiste baino gehiago agertzen. Aldizkaria berria da eta hasierako urtean sailak aldakorragoak direla nabaritzen da, baina urteekin batera, aldizkariko atalak finkatuz doaz eta generoak ere atal bakoitzean finkoak bihurtzen dira, nahiz eta zenbaki bakoitzean genero ezberdinen arteko orekarik ez den orokorrean antzematen. Arestian aipatu bezala, Mutrikuko aldizkarian kaleratzen diren albiste gehienak luzeak dira, aurkitu direnen artean, asko orri osokoak izan dira. Esate baterako, “Auzorik auzo”<sup>864</sup>, “Gazteria”<sup>865</sup>, “Gizartea”<sup>866</sup>, “Kultura”<sup>867</sup>, “Irakaskuntza”<sup>868</sup>, “Euskara”<sup>869</sup> edota “Kirolak”<sup>870</sup> atalean agertzen diren hainbat eta hainbat albistea orri osokoak izan dira.

**B) ALBISTE LABURRA**

Urtetik urtera albiste laburrak goranzko joera argia adierazten dute *Kalaputxin* eta gero eta gehiago agertzen dira. 63G. grafikoan agertzen diren portzentajeek eta 63H. taulako kopuruak erakusten dutenez, hasierako urtetik 2004ra bitartean albiste laburren kopuruak hogeitun puntutan egin du gora. Hau da, 2002an berrogeita hemeretzi albiste labur (%34) kaleratzen dira eta 2004an ehun eta hogeita bat albiste labur (% 54) argitaratzen dira. Hiru urteotan albiste laburrak “Bi hitzetan”<sup>871</sup> atalean agertzen dira batik bat. Halaber, 2003ko abendutik 2004ko ekainera arte ale guztietan “Kirolak”<sup>872</sup> sekzioan albiste laburrak agertzen dira, hilabete horietan kirol ezberdinei buruzko informazioa albiste laburren bitartez argitaratzen baita. Ikerlan honetan aztertu diren hogeita hamabi zenbakietan ez da aurkitu albiste laburrik gainontzeko sailetan.

<sup>864</sup>- Adibidea: “Kandelaria bero, negua gero” albistea. 2002ko otsaileko 3. alean. (11. or.).

<sup>865</sup>- Adibidea: “Hizki Marrazki 2002” albistea. 2002ko otsaileko 3. alean. (22. or.).

<sup>866</sup>- Adibidea: “Hildakoen organoak bizitza berpizteko”. 2002ko azaroko 12. zenbakian. (16. or.).

<sup>867</sup>- Adibidea: “Mutrikuko arte tailerrak”. 2002ko 8. alean. (17. or.).

<sup>868</sup>- Adibidea: “Mutrikuko institutua martxan dabil”. 2002ko 7. zenbakian. (16. or.).

<sup>869</sup>- Adibidea: “Euskararen geroa... Herrixan oiñarriak jartzen”. 2002ko 8. alean. (21. or.).

<sup>870</sup>- Adibidea: “Izerdiaren emaitzak” albistea. 2002ko 6. alean. (19. or.).

<sup>871</sup>- Adibidea: “Helduentzako zine emanaldiak Zabielen”. 2003ko urtarrileko 14. zenbakian. (9. or.).

<sup>872</sup>- Adibidea: “Mutrikuko arraun taldea”. 2004ko urtarrileko 25. alean. (20. or.).

### C) ARGAZKI-ALBISTEA

Argazki-albisteen bilakaera hiru urteotan nahiko homogenea izan da, urtero %10eko portzentajearen inguruan kokatu baita. Batez ere “Argazki zaharra”<sup>873</sup> atalean agertu diren argazki-albistek aurkitu dira eta sail hori finkoa da aldizkarian. Normalean bi argazki zahar kaleratzen dira eta noizbait bakarra edo hiru argazki agertu izan dira.

### D) ERREPORTAJEA

Informazio-generoen artean, interpretazio-generoak hasieratik landu dira *Kalaputxi* hilabetekarian, bai erreportajeak eta baita elkarrizketak ere.

Hasieratik erreportajeen kopurua altua izan da *Kalaputxin* eta horrela mantendu da hiru urteetan. 2002an hogeita hemeretzi erreportaje kaleratzen dira (%22), 2003an kopuru horrek gora egiten du eta berrogeita zazpi erreportaje argitaratzen dira (%24) eta 2004an berrogeita bi erreportaje aurkitu ditugu. 2004an erreportajeen portzentajeak behera egiten du, urte horretan argitaratzen den informazio-item kopuru orokorra altuagoa delako eta urte bakoitzeko portzentajea horren arabera kalkulatzen delako, beraz, 2004an %19an kokatzen da erreportajeen kopurua.

“Puri purixan” atalean beti argitaratzen da bi orriko erreportaje<sup>874</sup> finkoa. Bestalde, aldizkariko edozein ataletan lantzen diren gaiak, erreportaje moduan agertu daitezke “Kirolak”, “Lan giruan”, “Kultura”, “Osasuna”, “Auzoz auzo”, “Gazteria”, “Gizartea”, “Jolasen txokoa” edo “Historixa” sailetan besteak beste. Adibidez, 2004ko urriko 33. zenbakian “Gizartea” atalean argitaratutako, “Miski Proiektua: konpromisoaren indarra”, erreportajeak hiru orri ditu.

Ohiko erreportajeaz gainera, argazki-erreportaje ezberdinak aurkitu ditugu, Berdel eguna<sup>875</sup> dela, kirol talderen baten urteurrena<sup>876</sup> dela, Prestige ontziaren ondorioak<sup>877</sup> direla edo “Madalen” jaiak direla eta.

### E) ELKARRIZKETA

Elkarrizketa izan da hiru urte hauetan zehar gutxien landu den generoa Mutrikuko hilabetekarian. Igoera handia ez bada ere, urteekin batera gero eta gehiago erabili da informazio-generoa hau. Lehenengo urtetik 2004ra arte elkarrizketaren portzentajeak puntu batean egin du

<sup>873</sup>- Adibidea: “Sariak josten” titulupean antzinako emakumeak sareak josten eta arrantzalea (“Ondarru”) antxoak ateratzen agertzen diren bi argazki-albiste. 2003ko ekaineko 19. zenbakian. (25. or.).

<sup>874</sup>- Adibidea: “Mutrikutik...Nora?” erreportajea. 2002ko urtarrileko 3.alean. (6.-7.-8. or.).

<sup>875</sup>- 2002ko apirileko 6. zenbakian. (14.-15. or.).

<sup>876</sup>- 2004ko urriko 33. alean. (16.-17. or.).

<sup>877</sup>- 2003ko iraileko 21. zenbakian. (6.-7.-8. or.).

gora. Haziera hori, 63G. grafikoan agertzen den portzentajearen baino, 63H. taulan agertzen den elkarrizketa kopuruan nabarmenagoa da. 2002ko hamaika aleetan hamalau elkarrizketa argitaratzen dira eta 2004ko hamaika zenbakietan hogeita bat elkarrizketa. Portzentajeak puntu batean gora egin badu ere, elkarrizketa kopurua ia bikoiztu egin da. Hasierako bi urteetan, ale bakoitzean kaleratzen den elkarrizketa finkoa<sup>878</sup> “Karenka” atalekoa da. Sail horretatik kanpo, elkarrizketa noizbait, “Kultura”<sup>879</sup> sekzioan agertzen da batez ere. 2004an “Karenka” saileko elkarrizketa finkoa mantentzen da, baina informazio eta interpretazio-genero hau gehiago erabiltzen da “Lan giruan”<sup>880</sup>, “Kirolak”<sup>881</sup> eta “Puri purixan”<sup>882</sup> ataletan.

### Informazioaren bilakaera bi hitzetan

Oro har informazioa hazi egin da hiru urteetan eta ale bakoitzeko orri kopurua berdina izanik, lan-taldeak edukiak hobeto antolatzen ikasi duela ondoriozta daiteke. Informazio-generoen artean albiste laburrak eta elkarrizketak indartu egin dira urtetik urtera, albisteen kopurua etengabe jaitsi den bitartean. Argazki-albisteak egonkor mantendu dira eta erreportajeak hasieratik erabili dira asko *Kalaputxin*. Bai ohiko erreportajeak zein argazki-erreportajeak ere. Urteekin batera aldizkariko atalak finkatuz joan dira eta sail bakoitzean erabiltzen diren generoak ere sendotu egiten dira.

<sup>878</sup>- Adibidea: “Mutrikuko fosilak Europa mailan bakarrak dira”, Jesus Mari Narvaez fosil bilatzaileari egindako elkarrizketa. 2002ko apirilko 6. zenbakian. (16.-17. or.).

<sup>879</sup>- Adibidea: “Hamazazpi urte Akelarrekin”, Marisa Martinez Mutrikuko ‘Akelarre’ Antzerki Taldeko sortzaileari egindako elkarrizketa. 2002ko maiatzeko 7. alean. (20.-21. or.).

<sup>880</sup>- Adibidea: “Senegalgo irribarrea”, Leo Belaustegi gizarte laguntzaileari egindako elkarrizketa. 2004ko urriko 33. alean (22.-23. or.).

<sup>881</sup>- Adibidea: “Xakea kirola dela zalantzarik ez dago”, Txaturanga Xake Taldeko kideei elkarrizketa. 2004ko ekaineko 30. zenbakian. (21. or.).


<sup>882</sup>- Adibidea: “Aurtengo aurrekontuak trantsiziokoak izango dira”, Mutrikuko alkateari egindako elkarrizketa. 2004ko apirilko 28. alean. (6.-7. or.).

#### 4.4.3.2- Iritzia

Mutrikuko aldizkarian iritziaren portzentajea lan honen azterketa-epean %16koa da. Informazioarekin alderatuz iritzia askoz gutxiago lantzen da, baina zerbitzuekin konparatuz, eta zerbitzuak dira informazioaren atzetik gehien agertzen direnak, aldea bost puntukoa izaki. *Kalaputxi* aldizkarian iritziak izan duen agerpena aztertzeke bi urrats egingo dira. Lehenengo urratsean iritziari buruzko iruzkin orokorra eginez 2000-2004 bitartean iritziak aldizkarian izan duen agerpen orokorra ikusiko dugu. Bigarren urratsaren bidez, iritzi-genero ezberdinek urtez urte izan duten garapena zein izan den aztertuko dugu.

##### 4.4.3.2.1- Iritzia 2002-2004 bitartean

64G.grafikoa



Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

64H. taula

	Editoriala	Artikulua	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutuna	GUZTIRA
Kopuru absolutua k	23	16	33	13	81	166

Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Iritzia sail ezberdinetan agertzen da *Kalaputxi* hilabetekarian. Alde batetik hasieratik sartu diren eta denborarekin finkatu diren iritzi-generoetan: editoriala, kale-inkesta eta irakurleen gutunetan hain zuzen ere. Beste alde batetik, noizean behin kaleratzen diren iritzi ataletan aurkitu ahal ditugu iritzi-genero ezberdinak. Hau da, artikulua eta iritzi-zutabeak ez dira finkoak *Kalaputxin*, beharren arabera erabiltzen eta argitaratzen diren iritzi-generoak baizik.

Guztira, iritzia 166 itemetan aurkitu da eta ia erdia, irakurleen gutunen bidez kaleratu da 2002tik 2004ra bitartean.

### **A) EDITORIALA**

Editoriala 2002ko maiatzean argitaratzen da lehenengoz eta 64H. taulako kopuruetan ikus daitekeen moduan, ez da ale guztietan kaleratzen. Guk aztertu ditugun aleak hogeita hamabi dira eta guztira, hogeita hiru editorial aurkitu baitira.

Gai banaketa egiten denean, beti geratzen dira bi gauza banatu gabe, azala eta editoriala. Alde batetik azalean joango dena azken unera arte ez da erabakitzen. Beste alde batetik, editoriala nork idatziko duen erabakitzen denbora asko pasatzen dute *Kalaputxin*. Editoriala ez du beti pertsona berak idazten, lan-taldeko kideen artean txandakatzen dira editoriala idazteko. Joseba Palenzuelak zalantzak dauzka, “Editoriala” izenburupean kaleratzen dena benetako editoriala den ala ez definitzeko:

*“Inork nahi ez duenean nik egiten dut eta agian aleren batean sartu ez bada, gogorik izan ez dudalako izan da. Ez dakit oso editoriala den guk kaleratzen dugun hori, horregatik gure ildoak markatuago dagoen edo ez, ez dakit. Denetarik entzun dugu: epelak garela, subertsiboak garela...”<sup>883</sup>.*

### **B) ARTIKULUA**

Artikuluen portzentajea hiru urteetan %10ekoa izan da eta hamasei iritzi-artikulu kaleratu dira Mutrikuko hilabetekarian. Iritzi-artikulu gehienak, herriko talde ezberdinek idatzi dituzte, talde ezberdinei buruzko informazioa kaleratzeko *Kalaputxi* zabalik zegoela hasieratik argi utzi zutelako herrian. Taldeek euren testuak idazten dituztenean, iritzi-artikuluak idazten dituzte, ez dira informazio testuak.

### **C) INKESTA**

Guk aztertu ditugun hogeita hamabi zenbakietan kale-inkesta finkoa izan da, gai baten inguruan zortzi herritarren iritziak jaso dira ale guztietan, behin ere kale egin gabe. Herritarren ahotsa eta argazkia agertzeak oso erakargarri egiten du atala eta herriko jendeak, euren auzokideek diotena ezagutzeko aukera dute. Formatu laburra, arina eta irakurterraza da. Nolanahi ere, 2005ean kentzea erabaki zen: *“Izugarrizko sufrimendua zelako kalera irten eta jendeari txapa ematen hastea, ez zutelako irten nahi eta abar, kendu genuen. Oso erakargarria da eta*

---

<sup>883</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

*herritarrei ahotsa emateko tresna ona da, baina lan gehiago ematen zigun eskaintzen zuena baino*<sup>884</sup>, onartzen du Joseba Palenzuelak.

#### **D) ZUTABEA**

Iritzi-zutabeak noizean behin agertu izan dira, une puntaletan baino ez. Orduan norbaiti eskatu diote iritzi-zutabea egiteko. Baina, *Kalaputxi* aldizkarian ez dago iritzi-zutaberik kaleratzeko ohiturarik, ez dira inoiz iritzi kolaborazio finkorik bilatzen saiatu. Ez baitute beharrezkoa ikusi jendearen iritzia agertu beharra: “*Behin bakarrik jo dugu kanpora iritzi eske eta gaia emanda, Kalaputxik bi urte bete zituenean izan zen*”<sup>885</sup>, azpimarratzen du *Kalaputxi*ko zuzendariak.

#### **E) IRAKURLEEN GUTUNAK**

Irakurleen gutunak dira zalantzarik gabe eta datuen arabera, gehien errepikatzen direnak guk azertu ditugun hogeita hamabi aleotan. Aldizkaria lehenengoz kaleratzen denetik, gutunen atala finkoa izan da, herritar guztiei ahotsa ematea izan du helburu eta iritzi guztien plaza izateko asmoz egiten zaie tokia gutunei aldizkariko orrietan. Horregatik bertan idazteko baldintza bakarra eskatzen zaio irakurleari: *Kalaputxi*ko lan-taldeak eskutitza nork idazten duen jakitea ezinbestekoa da, ez ordea sinatzea. Hau da, gutuna idatzi duen pertsona edo taldeari sinatzeko edo ez sinatzeko aukera ematen zaio. Hori dela eta, ez da gutunen baldintzekin arazo berezirik izan tarte horretan. Inoiz kaleratu gabe utzi izan badira, taldekoek gutuna nork idatzi duen jakin izan ez dutelako izan da. Osterantzean, irainak egon direnean, idatzi duenarekin konpontzen saiatu dira argitaratu baino lehen.

Gutunen atalak iritzi anitz biltzeko aukera eskaintzen du eta horrek irakurleei buruzko informazio asko eskaintzen dio lan-taldeari:

“*Atal hau ere termometroa da, hasieran gutun batzuk guk idazten genituen espazioa hutsik ez uzteko, baina denborarekin betetzen joan da eta orain gutunen atala herritarren gutunekin betetzen da. Hori seinale ona da. Irakurle eta aldizkariaren artean feedbacka ematen den seinale*”<sup>886</sup>, aitortzen du Joseba Palenzuelak. Hasieran atal honetan jarri zuten helburua poliki-poliki betetzen joan da.

<sup>884</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>885</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>886</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.




Kontuan hartu behar da, gutunak eta inkestak direla iritzi-genero indartsuenak Mutrikuko aldizkarian. Izan ere, 64G. grafikoan agertzen diren portzentajeak batuta, herritarren iritzia jasotzen duten generoak iritzi osoaren %70 dira hiru urteko epean.

### Iritzia bi hitzetan

Laburbilduz, iritzia agertzen diren atalak nahiko finkoak dira aldizkaria sortzen denetik eta horrela mantendu dira gure azterketa-epetan: irakurleen gutunak, kale-inkestak eta editoriala hain zuzen ere. Iritzi-artikuluak eta zutabeak momentu oso puntaletan argitaratu dira, ez baita aldizkaritik kanpoko iritziak eskatzeko premiarik ikusi. Irakurleen gutunak dira nagusi aldizkarian, editoriala eta inkesta bat ale bakoitzean kaleratzen baita. Editoriala, lan-taldeko kide ezberdinek txandakatuz idazten dute.

#### 4.4.3.2.- Iritziaren bilakaera

65G. grafikoa



Iritzi-generoen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2000tik 2002ra bitartean urtez urte.

65H. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Editoriala	Artikulua	Inkesta	Zutabea	Irakurle gutun	GUZTIRA
	2002	2	8	10	7	23	50
	2003	10	5	12	6	28	61
	2004	11	3	11	0	30	55

Iritzi-generoen bilakaera, 2000-2002 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Kalaputxi* aldizkarian ia zerbitzuak beste agertzen da iritzia. Hiru urteko epean %16ko portzentajearen kokatzen da iritzia Mutrikuko hilabetekarian. Iritzia agertzen den item kopurua hazi egiten da urtetik urtera, batez ere 2002tik 2003ra, hamaika iritzi testu gehiago argitaratzen direlako 2003an. 2004an item kopuruak behera egiten badu ere, urte horretan 2003an baino bost item gehiago azaltzen dira iritzi atalean..

65G. grafikoan agertzen diren portzentajeek erakusten dutenez, urtero gehien lantzen diren iritzi-generoak, inkestak eta batez ere irakurleen gutunak dira, finkoak baitira gure azterketa-epean. Gainerako iritzi-generoetan gora behera gehiago izan dira 2002-2004 bitartean.

### **A) EDITORIALA**

Lan honetan aztertu diren sei herri-aldizkarien artean, Deba Barreanean editoriala kaleratzen duten aldizkari bakarrak *Kalaputxi* eta Soraluzeko *Pil-pilean* hamabostekaria dira. Jotxo Larrañagak, Miren Gabantxok eta Asier Arangureneg egindako ikerketan<sup>887</sup>, sei herri-aldizkariaren edukia aztertzen da eta bakar batean ere ez da editorialik argitaratzen. Mutrikuko hilabetekarian, aldiz, editoriala urteekin indartu egiten den iritzi-generoa da. 2002tik 2004ra bitartean, editorialen portzentajeak hamasei puntutan egin du gora. Hasierako urtean bi aletan bakarrik agertzen da, 2002ko maiatzeko 7. alean udaberriari buruzko editoriala eta 2002ko uztaileko 9. zenbakian Mutrikuko Malen jaiei buruzkoa. 2003an, urtarrileko alean izan ezik, gainerako guztietan kaleratzen da editoriala eta 2004ko ale guztietan aurkitu dugu. Bestelako gai hauei buruzko editorialak ere aurkitu dira: *Kalaputxiri* buruz aritzen direnak edota beste herri komunikabideak aipatzen dituzten testuak (*Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, 2003ko urrian sortu zena), *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera, Euskal Herriko gatazka, alderdiak, Madalena jaiak, trafikoa, literatura, emakumeenganako genero indarkeria, futbola, taldeak, zinea eta gabonei buruzko editorialak besteak beste. Beraz, urteak pasa ahala, editoriala iritzi-genero finkoa bilakatu da hilabetekarian.

### **B) ARTIKULUA**

Iritzi-artikuluak, ordea, urteekin gutxiago agertzen dira *Kalaputxin*. Izan ere, aldizkarian hasieratik herriko talde ezberdinei egin zaie lekua eta eurak nahi dutenari buruz idazteko aukera luzatzen zaie. Hori dela eta, aldizkarian aurkitu ditugun iritzi-artikulu gehienek tankera hori izan

---

<sup>887</sup> - Larrañaga, Jotxo; Gabantxo, Miren; Aranguren, Asier. (1997): "Sei herri-aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat", in *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación* aldizkaria, 6. zenbakia, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 15-40 or.

dute, herriko talde ezberdinak idatzitako testuak izan dira-eta: Gazte Asanbladak, Mutrikuko portuaren alde eta aurka dauden taldeak, Mutrikuko Torturaren Aurkako Taldeak, Etxerat-ek, AEK-k edo Mutrikuko Euskalgintzak besteak beste idatzi dituzte iritzi-artikuluak. Lehenengo urtean zortzi artikulu kaleratzen dira, horietako bost, 2002ko abenduko 13. alean aurkitu ditugu eta guztiak Mutrikuko portuaren aldeko eta aurkako iritzi ezberdinak biltzen dituzten artikuluak dira. 2003an bost iritzi-artikulu argitaratzen dira, bi urtarrileko 14. zenbakian, bi martxoko 16. alean eta bat apirileko 17. zenbakian. 2004ko uztaileko 31. alean bi iritzi-artikulu eta abenduko 35. zenbakian artikulu bakarra kaleratzen dira. Hasieran herriko taldeen parte-hartze handiagoa sumatzen da eta urteekin aldizkarian taldeen idatzi gutxiago daudela nabari da.

### **C) INKESTAK**

Inkesten portzentajeak ez dauka gora behera handirik hiru urteetan, urtero %20an kokatzen baita eta horrek zera esan nahi du, argitalpen bakoitzeko kale-inkesta bat aurkitu dugula. 65H. taulako datuak begiratzen baditugu, 2002an hamar inkesta agertzen dira, hamar ale aztertu direlako, ezinezkoa izan baita urte horretako otsaileko alerik aurkitu. 2003an hamabi inkesta argitaratzen dira hamaika aletan: azaroko 23. zenbakian, ohikoa den inkestaz gain, kirol atalean herriko hamar kirol taldeen iritziak jasotzen dira. 2004ko ale bakoitzean kale-inkesta bat azaltzen da.

Herritarrei gai ezberdinei buruz galdetu zaie hiru urte hauetan baina atal honetan batez ere gizarte-gaiak nagusitzen dira. Adibidez, “Zer da Malenetan gehixen gustatzen zatzuna?”<sup>888</sup>. Horrez gain, ekonomia (lau aldiz), kultura (behin), politika (batean) edo kirolari (bi) buruzko gaiak jorratu dira kale-inkestan.

### **D) ZUTABEA**

Iritzi-zutabeak hasierako bi urteetan agertu izan dira *Kalaputxin*, baina arestian aipatu bezala, une zehatzetan eskatu da aldizkaritik kanpo iritziren bat. 2002an zazpi iritzi-zutabe<sup>889</sup> argitaratzen dira, 2003an sei eta 2004an bat ere ez. Aldizkariko lan-taldeak, momentu puntualetan izan ezik, ez du kanpoko iritziak sartzeko beharrik ikusi, aldizkariak beti egin dielako tokia bere orrietan herriko iritzi eta talde ezberdinei. Ondorioz, denborarekin desagertuz joan den iritzi-generoa izan da.

<sup>888</sup> 2003ko uztaileko 20. alean. (19. or.).

<sup>889</sup> Adibidea: “Pello Arreitunandiarekin hizketan”, Benito Romero Atxukale Txirrindu Taldeko sortzaileak idatzitako iritzi-zutabea. 2002ko urtarrileko 3. alean. (12 or.).

## E) IRAKURLEEN GUTUNAK

Iritziaren portzentajerik altuena irakurleen gutunek daukate urtero. 2002-2004 bitartean *Kalaputxin* agertzen diren iritzi testuen ia erdia, irakurleen gutunak dira. Herritarren parte-hartzea errazten duen genero hori, urteekin indartu egin da eta aldizkarira euren eskutitzak bidaltzen dituzten irakurle eta herritarrak gero eta gehiago dira. 2002 eta 2003an %46an kokatzen da gutunen portzentajea eta 2004an, bederatzi puntutan hazten da, %55ean kokatuz.

Irakurleen gutunetan gai anitz agertzen badira ere, gizarte-gaiak gailentzen dira beste guztien artean. Mutrikuko udalak portu berria egiteko proiektua aurkeztu eta herrian zabaltzen denetik, gaiak zeresan handia eman du. *Kalaputxi* aldizkarian gai horri buruz jasotzen den gutunen kopurua horren erakusle garbia da. Guztira kaleratu diren laurogeita bat gutunetatik, hoge eskutitzetan<sup>890</sup>, Mutrikuko portuaren gaia azaltzen da.

### Iritziaren bilakaera bi hitzetan

Beraz, iritziari eskaintzen zaion espazioa aldizkarian nahiko zabala da eta urteekin hazi egiten da. Irakurleen gutunak eta editoriala indartu egiten dira urteak pasa ahala. Irakurleak gero eta gehiago idazten dute aldizkarian eta editoriala hasierako urtetik 2004 bitartean iritzi atal finkoa bilakatzen da. Hiru urte hauetan iritzi-artikuluak herriko talde ezberdinek idazten dituzte eta talde ezberdinen parte-hartzea jaitsi ahala, beheranzko joera argia erakusten dute. Kale-inkestak oso finkoa mantentzen dira 2002-2004 bitartean, ale bakoitzean bataz beste inkesta bat argitaratuz. Iritzi-zutabeak oso gutxi agertu dira beti eta urteekin desagertu egin dira.


### 4.4.3.3- Komikia

Komikiak portzentajeetan oso kopuru baxua dauka *Kalaputxi* hilabetekarian. Izan ere, ale bakoitzean komiki bat baino ez da kaleratzen, guztira hogeita hamabi aleetan komikiaren portzentaje orokorra %3koa izanik. Hurrengo grafikoan eta taulan, komikiak izan duen bilakaera aztertuko dugu bi urrats eginez. Alde batetik, 2002-2004 bitartean komikiaren agerpen orokorra zein izan den ikusiko dugu eta bigarren grafikoaren bitartez, urtez urte komikiak izan duen garapena nolakoa izan den azalduko dugu.

<sup>890</sup>- Adibidea: "Zeozar bai baina eozar ez!", Hobetu Leike Taldeak idatzitako gutuna. 2002ko uztaileko 9. zenbakian. (5. or.).

## 4.4.3.3.1- Komikia 2002-2004 bitartean

66G. grafikoa



Komikiaren kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

66H. taula


Komikia	
Kopuru absolutuak	29

Komikiaren kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Emaitzen arabera, lan honetan aztertu diren hogeita hamabi aleotan, hogeita bederatzikomiki argitaratu dira; komiki bat ale bakoitzean gutxi gora behera. *Kalaputxin* komikia ez da iritzi gisa argitaratzen eta hasieratik dagoen atala da “Komikixa”. Komikiaren autoreak hilero aldizkarian lantzen den gairen bati buruzko lana sortzen du. Hasieran, *Kalaputxi*ko kideek komikia egiteko enkargua, hainbat pertsonari eskatzeko asmoa zuten, euren artean txandakatu ahal izateko eta hilero pertsona berak komikia ez egiteko, baina Gotzon Santanderrekin hasi eta horrela jarraitzen dute. Komikia aldizkariari ukitu freskoagoa eta dibertigarriagoa emateko helburuarekin sartzearabaki zen. Lan honetan aztertu diren sei herri-aldizkariarten, *Kalaputxi* eta Elgoibarko *Barrenen* soilik kaleratzen da komikia.

## 4.4.3.3.2- Komikiaren bilakaera

67G.grafikoa



Komikiaren bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

67H.taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Komikia	GUZTIRA
	2002	9	9
	2003	10	10
	2004	10	10

Komikiaren bilakaera, 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Kalaputxi* aldizkarian komikia ale gehienetan agertzen da eta horregatik 67G. grafikoan agertzen diren portzentajeak %100eko balioa dute urtero, aldagai bakarra dagoelako atal honetan. Lan honetan aztertu diren Deba Barreneko aldizkari guztien artean *Kalaputxi* da komikia gehien lantzen duena. Ale guztietan agertzen ez bada ere, gehienetan baitago komikia. Urtero hamaika ale kaleratzen ditu Mutrikuko hilabetekariak, nahiz eta guk 2002an hamar zenbaki aztertu ditugun eta urte bereko urtarrileko 3. zenbakian ez den komikirik argitaratu. 2003ko ekaineko 19. zenbakian ez da komikirik agertzen eta 2004ko iraileko 32. zenbakian ere ez. Komikietan gai ugari lantzen dira, normalean alean zehar agertzen den gaitako bat izaten da komikian jorratzen dena. Ikus dezagun argiago adibide batean. 2003ko abenduko 24. alean, “Gazteria” atalean gaztetxoaren gabonetako parkeari buruzko informazioa argitaratzen dela aprobetxatuz, Olentzero da ale horretako komikiaren protagonista.




2003ko abenduko 24. zenbakian kaleratutako komikia. (*Kalaputxi*, 21. or.).

#### 4.4.3.4- Zerbitzuak

Kazetaritza-genero guztien artean lan honetan aztertu diren 32 aleetan, zerbitzuek % 21-eko portzentajea dute, beraz, informazioaren ondoren gehien agertzen den generoa da. Hurrengo grafikoetan zerbitzuen garapena nolakoa izan den *Kalaputxi* aldizkarian bi urratsen bidez azalduko dugu. Lehenbizikoan, Mutrikuko hilabetekarian 2000-2004 bitartean zerbitzuen agerpen orokorra aztertuko da. Bigarren urratsean, berriz, zerbitzu kategoría ezberdinek urtez urte izan duten bilakaera zein izan den ikusiko dugu.

##### 4.4.3.4.1- Zerbitzuak 2002-2004 bitartean

68G. grafikoa



Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

68H.taula

	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Denbora-pasak	Informazio erabilgarria	Saleros/truke	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	35	134	31	17	1	218

Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Kalaputxi* hilabetekarian informazioaren ondoren zerbitzuen atala da gehien lantzen dena. Begi-bistakoa da, informazioarekin alderatuz gero, askoz gutxiago agertzen direla zerbitzuak,



informazioa baino ia hiru bider gutxiago, alegia. Iritziarekin konparatzen badugu, ordea, zerbitzuen portzentajea iritziarena baino bost puntu altuagoa da.

Guztira zerbitzuen atala osatzen duten 218 item argitaratu dira 2002-2004 bitartean *Kalaputxin*. Irakurleak erabili dezakeen informazio praktikoa izanik, lan-taldekoek interesgarria deritzote zerbitzuen atala aldizkariaren baitan lantzeari.

### **A) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

68G. grafikoan eta 68H. taulan ikusten denez, zerbitzu-informazioa da gehien agertzen den atala guk aztertu ditugun hogeita hamabi aleotan; aldizkariko zerbitzuen erdia baino gehiago zerbitzu-informazioa baita, ehun eta hogeita hamalau itemek ematen dute zerbitzu-informazioa *Kalaputxin*. Kategoria horren barnean, intereseko telefonoen zerrenda, autobus eta trenen ordutegiaren taulak, zaintzako botiken ordutegiak eta zorion agurren atala ale guztietan agertzen den zerbitzu-informazio finkoa da, beraz, ale bakoitzean hiru orritan banatzen diren lau item finko argitaratzen dira.

Informazio hori oso erabilgarria izateaz gain, jendearen interesa neurtzeko tresna baliagarria suerta daiteke eta horrela gogoratzen du Joseba Palenzuelak:

*“Autobus ordutegiaren taula bat kaleratu genuen, jendeak asko estimatu zuen eta aldizkaritik fotokopiatu egin zuen. Guk ez dugu horrelako azterketa eta inkesta sakonik egin jendeak informazio hori irakurtzen eta erabiltzen duen jakiteko, baina batez ere horrelakoetan konturatzen gara jendeak erabiltzen duela, akatsak daudenean, jendeak bronka botatzen digunean”*<sup>891</sup>.

Hasieratik zerbitzu-informazioari toki berezia egin diote aldizkarian eta urteak pasa ahala, indartu egin da atal hori.

### **B) AGENDAK**

Zerbitzu-informazioaren ostean, agendek dute portzentajerik altuena, %16a hain zuzen ere. *Kalaputxin* hileko agenda kulturala ale gehienetan agertzen da, hasieratik sortu eta mantendu den saila baita “Agenda”. Atal horren helburua, hilabeteko ekitaldi kulturalen perspektiba ematea da eta irakurlearentzat baliagarria izatea. Normalean kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituen agenda izaten da, udaleko kultur teknikariaren bitartez lortzen dena, baina beste edozeinek ohar edo abisuren bat sartzeko eskatzen badu, agendaren baitan jartzen da.

---

<sup>891</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

### **C) DENBORA-PASAK**

Denbora-pasek ez dute toki finkorik aldizkarian eta urteen arabera, gutxiago edo gehiago agertzen dira. Izan ere, denbora-pasak orrialdeak betetzeko erabiltzen dira *Kalaputxin*, “Zorion agurrak” atalaren ondoan kaleratzen den “Olgatzen” sekzioa batik bat. “Zorion agurrak” sailak hartzen duen espazioa handia izaten denez, denbora-pasarik ez da sartzen. Beraz, “Zorion agurrak” handitu ahala, denbora-pasak desagertzen joan dira. Hasieran “Olgatzen” atala finkoa da aldizkarian, baina zorion agurren saila nabarmen indartu denez, denbora-pasek orrialdea betetzeko funtzioa hartzen dute.

### **D) INFORMAZIO ERABILGARRIA**

Informazio erabilgarria gutxien lantzen den zerbitzu atala da, hamazazpi item baino ez dira aurkitu aztertu diren hogeita hamabi aleotan.

Informazio erabilgarriaren barnean errezetak argitaratu dira batez ere, eta noizbait, “Jolasen txokoa”-n kaleratu den informazio erabilgarria. *Kalaputxin* errezetak lan-taldeko kideek idazten dituzte eta oso puntualak izaten dira, normalean data esanguratsuekin lotzen direlako. Hots, Mutrikun Berdel Eguna dela eta, berdelaren errezeta sartuko dute aldizkarian. Gabonak direlako, gabon errezetak argitaratzen dira. Beraz, noizean behin kaleratzen dira errezetak.

“Jolasen txokoa”-n argitaratzen den informazio erabilgarria, jolas ezberdinei buruzkoa izaten da. Atal horretan Urtxintxan ibilitako neska batek hilero jolas bat aurkezteko konpromisoa hartu zuen ia urtebetean, Urtxintxak kaleratu zuen jokoen CD batean oinarrituz. Konpromiso hori bukatu zuenean, aisialdi taldeko beste bati eskaini zitzaion atala idaztea eta oso ideia egokia iruditu arren, lanak entregatzeko epeak ez zituen errespetatzen, eta azkenean sekzioa kentzea erabaki zen ganora gutxirekin egiten zelako.


#### **Zerbitzuak bi hitzetan**

Ondorioz, zerbitzuen atala da informazioaren ostean gehien lantzen dena *Kalaputxi* aldizkarian, nahiz eta informazioarekin alderatuz bere agerpen-maila portzentajeetan hogeita hamazortzi puntu baxuagoa izan. Zerbitzuen baitan, zerbitzu-informazioa da gehien agertzen dena, zerbitzu-informazio guztia finkoa baita: zorion agurrak, autobus eta trenen ordutegiak, taulak, intereseko telefonoen zerrenda eta zaintzako botiken ordutegiak. Atal horren bitartez aldizkari eta irakurleen arteko harremana sendotu egiten da. Agendak ere toki finkoa du aldizkarian eta zerbitzu-informazioaren ostean gehien agertzen den zerbitzu atala bera da.

Denbora-pasek orriak betetzeko funtzioa dute, ez baitute toki finkorik aldizkariko orrietan. Informazio erabilgarria gutxi agertzen da: sukalde-errezeta eta jolas informazioa noizbait.

#### 4.4.3.4.2- Zerbitzuen bilakaera

69G.grafikoa



Zerbitzu-generoen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

69H. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Saleros/Truke	GUZTIRA
	2002	11	41	11	13	1	77
	2003	11	47	15	1	0	74
	2004	13	46	5	3	0	67

Zerbitzu-generoen bilakaera, 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Mutrikuko aldizkarian zerbitzuen atala urtetik urtera garrantzia galduz joan da. 69H. taulan agertzen den item kopuru orokorrari erreparatuz gero, lehenengo urtean kaleratzen dira zerbitzuei buruzko item gehien, 2003an eta 2004an, beheranzko joera apala nabaritzen da-eta. 2002an 2004an baino hamar idatzi gehiago kaleratzen dira zerbitzuen atalean. Nolanahi ere, zerbitzuen baitan dauden azpi kategoriek bilakaera ezberdina izan dute urteak pasa ahala, atal batzuk indartu egin dira eta beste batzuek indarra galdu baitute.

#### A) AGENDAK

Agenden kopurua finkoa izan da hiru urteetan, nahiz eta 69G. grafikoan agertzen diren portzentajeetan, 69H. taulako kopuru absolutuetan baino ezberdintasun handiagoa sumatzen den. Hots, behin baino gehiagotan errepikatu dugu lan honetan, atal bakoitzeko portzentajeak urte osoko item kopuru orokorraren arabera kalkulatu direla. Ondorioz, nahiz eta 2002an eta

2003an agenda kopuru bera argitaratu, hamaika hain zuzen ere, urteko item kopuruaren arabera kalkulatu diren portzentajeak ezberdinak dira: 2002an %14 eta 2003an %15. Arrazoi berberetatik 2004an 69G. grafikoan agertzen den portzentajea horren altua da. 2004an hamahiru agenda argitaratzen dira, aurreko bi urteetan baino bi gehiago eta portzentajeak lau puntutan egiten du gora, agenden kopurua %19an kokatuz.

Kontuak kontu, aztertu den ale bakoitzean hurrengo hilerako ekitaldi kulturalak aurreratzen dituen agenda argitaratu da. Bestalde, 2002ko martxoko 5. zenbakian, “Puri purixan” erreportajearen baitan, “Berdel Eguna”-ren egitaraua aurkitu dugu. Bertan, hilabete osoan Berdel Egunaren inguruan izango diren ekitaldi kultural ezberdinak aurreratzen dira. 2004ko martxoko 27. alean, “Kirola” atalean, Mutrikuko tenis taldeak lortutako emaitzen zerrenda argitaratzen da. 2004ko uztaileko 31. zenbakian, “Gazterixa” sailean “Malenak gaztetxian” egitaraua kaleratzen da.

## **B) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Zerbitzu-informazioak urtetik urtera garrantzi gehiago hartzen du *Kalaputxin*, 2002tik 2004ra hamasei puntutan gora eginez. 69H. taulako kopuru absolutuetan zerbitzu-informazioaren hazkundera ez da 69G. grafikoan agertzen diren portzentajeetan beste nabaritzen, aurreko epigrafean emandako arrazoi bera dela-eta. 2002an zerbitzu-informazioa berrogeita bat itemetan agertzen da eta portzentajea %53koa da. 2003an, sei item gehiago kaleratzen dira (berrogeita zazpi) eta portzentajea %64ra igotzen da eta 2004an berrogeita sei item kaleratzen dira (2003an baino item bat gutxiago) portzentajea 2003an baino bost puntu altuagoa izanik, %69koa.

Aztertu dugun ale bakoitzean zerbitzu-informazioa ematen duten lau item finko argitaratu dira: intereseko telefonoak, autobus eta trenen ordutegia, botiken ordutegiak eta zorion agurrak. Zorion agurrak bereziki indartu dira aldizkarian, orri laurden izatetik (3. alean), 2003ko martxotik aurrera orri osoa hartzerara pasa baita atal bera. “*Aldizkariaren atal batzuk, esaterako zorion agurren atala nahiko termometro polita dela iruditzen zait, azken batean jendeak erabili egiten duelako eta horrek erakusten du jendeak erantzuten duela*”<sup>892</sup>, uste du Joseba Palenzuelak, *Kalaputxi*ko zuzendariak.

Zorion agurren atala doan da eta jendeak hori benetan estimatzen du, herriko beste komunikabide batzuetan, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*n esaterako, zorion agurrak jartzearen

---

<sup>892</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

12 euro ordaindu behar dira-eta. Zorion agurrez gain, zerbitzu-informazioa eskaintzen duten beste sei item aurkitu dira atal finkoetatik at<sup>893</sup> daudenak.

### C) INFORMAZIO ERABILGARRIA

Informazio erabilgarria batez ere lehenengo bi urteetan agertzen da aldizkariko orrialdeetan, azken urtean beherakada nabarmena sumatzen baita. Aldizkariko sail ezberdinetan aurkitu da informazio erabilgarria, baina bereziki “Jolasen txokoa” eta “Errezetak” ataletan. Bi sail horiek ez dira finkoak izan hiru urteotan: errezetak sasoiaren arabera kaleratzen dielako eta “Jolasen txokoa” atalak, urte bete eta apur gehiago iraun zuelako. Aisialdi taldeko neska batek hartutako konpromisoari jarraiki, jolas ezberdinen aurkezpena egiten zen hilero aldizkarian, baina konpromisoa bukatzearekin batera atala bera desagertu egin zen.

Guztira honako atal hauetan aurkitu dugu informazio erabilgarria gure azterketa-epean: “Errezetak” atalean (hamar item)<sup>894</sup>, “Jolasen txokoa” (hamahiru item)<sup>895</sup>, “Auzoz auzo” (item bakarra)<sup>896</sup>, “Kirolak” (item bat)<sup>897</sup>, “Bi hitzetan” (lau item, baina guztiak dira errezetak) eta “Kultura” sailean (bi item)<sup>898</sup>.

### D) DENBORA-PASAK

Denbora-pasak hasierako urtean agertzen dira batik bat *Kalaputxin* eta urteekin batera horien agerpena gutxituz doa. 69G. grafikoan agertzen diren portzentajeetan eta 69H. taulako kopuru absolutuetan argi ikusten da aipatu dugun beheranzko joera hori. 2002an hamahiru item kaleratzen dira (%17), 2003an denbora-pasa bakarria argitaratzen da eta 2004an hiru denbora-pasa aurkitu dira (%4). Ale ezberdinetan errepikatu eta ohikoak bihurtu diren denbora-pasak honako

---

<sup>893</sup>- 2002ko urriko 11. zenbakian, “Okelar” Bertso Paper Sariketara aurkeztu ahal izateko arauak argitaratzen dira (21. or.).  
2003ko ekaineko 19. zenbakian, ohiko tren eta autobus ordutegiez gain, aldizkariko beste atal batean, “Autobus Zerbitzu Berriak” taula kaleratzen da (6. or.).  
2003ko urriko 22. alean, “Puri Purixan” atalean eta ohiko tren eta autobus ordutegiez gain, orri osoko autobus ordutegien taulak argitaratzen dira (6. or.).  
2003ko abendu 24. zenbakian, “Gizartea” sailaren baitan, Mutrikuko preso politikoei, “Gabonetan zorion agurrak bidaltzeko helbideak” kaleratzen dira (21. or.), zerbitzu-informazio erabilgarri gisa.  
2004ko maiatzeko 29. alean, ohiko tren eta autobus ordutegiez gain, “Gizartea” sailean, Deba Barreneko autobus zerbitzuei buruzko informazioa kaleratzen da (13. or.).  
2004ko abendu 35. zenbakian, Mutrikuko Euskal Presoei idazteko helbideen berri ematen da, “Gizartea” sailean (21. or.).  
<sup>894</sup>- Adibidea: “Berdel Txaka” errezeta. 2002ko maiatzeko 7. zenbakian. (9. or.).  
<sup>895</sup>- Adibidea: “Izarraren jolasa”. 2002ko uztailko 9. alean. (27. or.).  
<sup>896</sup>- “Olatz ingurua ezagutu eta gozatzeko ibilbidea”. 2003ko uztailko 20. zenbakian. (14. or.).  
<sup>897</sup>- “Artzain Erreka eta Santakutz inguruak ezagutzeko ibilbidea”. 2003ko iraileko 21. alean. (22. or.).  
<sup>898</sup>- Adibidea: Durangoko azokan aurkitu daitezkeen disko eta liburuen proposamenak. 2004ko abendu 35. zenbakian. (12. or.).

hauek izan dira: Hizki-zopak<sup>899</sup>, gurutzegramak<sup>900</sup> eta xake jokia<sup>901</sup>. “Olgatzen” sailean kaleratzen diren denbora-pasak hasieran modu jarraian kaleratzen dira, baina “Zorion agurrak” atala hazten den heinean, denbora-pasak aldizkarian gutxituz doaz eta agertzen direnean, orrialdeak betetzeko argitaratzen dira.

#### **D) SALEROSKETA ETA TRUKEAK**

Salerosketa eta trukeen atal finkorik ez dago aldizkarian eta hogeita hamabi zenbakietan, atal horretan sailkatu dugun item bakarra argitaratu da. 2002ko urtarrileko 3. zenbakian, denbora-pasak eta zorion agurrak agertzen diren orri berean, bi iragarki labur hauek azaltzen dira: “Bigarren eskuko trikiti bat erosiko nuke prezio onean. 943 60 31 02” eta “Cocker marroia erosiko nuke gustora. 943 60 45 96”. Argi dago aldizkariaren bilakaera ikusita, atal honek ez duela aurreikusten zen erantzunik izan.

#### **Zerbitzuen bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, zerbitzuen gunea ahulduz joan da urtetik urtera Mutrikuko hilabetekarian, nahiz eta atal batzuk indartu egin diren. Agenda eta zerbitzu-informazioa areagotu egin dira eta zerbitzu-informazioaren baitan “Zorion agurren” kopuruak etengabe egin du gora urtetik urtera. Informazio erabilgarria eta denbora-pasak, aldiz, beheranzko joera nabarmena erakutsi dute. Izan ere, informazio erabilgarria ez da inoiz atal finkoa izan eta espazio hori beste eduki batzuekin bete ahala, denbora-pasak desagertuz joan dira, salerosketa eta trukeen atalaren antzera, baina azken horren agerpena aldizkarian hutsaren hurrengoia izan da.

---


<sup>899</sup>- Adibidea: 2002ko urtarrileko 3. alean. (24. or.).

<sup>900</sup>- Adibidea: 2002ko martxoko 5. zenbakian. (24. or.).

<sup>901</sup>- Adibidea: 2002ko maiatzeko 7. alean. (24. or.).

## 4.4.4-GAIK

70G.grafikoa



Gaien bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean, urtez urte.

70H. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	POLITIKA	EKONOMIA	GIZARTE-GAIK	KULTURA	KIROLA	GUZTIRA
	2002-2004	50	98	521	220	126	1.015
	2002	6	32	166	71	35	310
	2003	26	36	172	77	32	343
	2004	18	31	182	72	59	362

Gaien bilakaera, 2000-2002 bitartean. Kopuru absolutuak.

Mutrikuko aldizkarian askotariko gaiak jorratzen dira lehenengo hiru urteetan. Gai guztiek dute lekua bertan, nahiz eta batzuk beste batzuk baino gehiago agertzen diren. Horrek argi erakusten du, interes orokorreko informazio orokorra normaltasun osoz landu daitekeela euskaraz. Alegia, euskaraz edozein gai jorratu daitekeela, euskarak edozein gai lantzeko balio baitu. Guk lan honetan ikertu dugun bezalaxe, euskarazko herri-aldizkariaren inguruan egin diren ikerketa ezberdinetan<sup>902</sup> gai ezberdinen agerpena frogatu da.

<sup>902</sup>- Aranguren, Asier. (2000): *Euskarazko Komunikabide lokalak Euskal Herrian* doktore-tesia, EHU, Bilbo.

Camacho, Idoia. (2001): *Herri-aldizkariaren funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)* doktore-tesia, EHU, Leioa.

Cantalapiedra, María Jose. (1996): *La información local en los periódicos de Bizkaia* doktore-tesia, EHU, Bilbo.

Larrañaga, Jotxo; Gabantxo, Miren; Aranguren, Asier. (1997): "Sei herri-aldizkari: edukin azterketaren bidetik hurbilketa bat", in *Mediatika. Cuadernos de Comunicación* aldizkaria, 6. zenbakia, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 15-40. or.

Mutrikuko aldizkarian, gaiak aukeratzeko hilean behin elkartzen dira lan-taldea osatzen duten bost kideak. Bakoitzak gai batzuk eramaten ditu bilerara eta sortuta dagoen txantiloira egokitzen dira gai guztiak:

*“Atal batzuk finkoak dira: ‘Argazki zaharra’, ‘Gutunak’, ‘Zerbitzu-informazioa’, azala, kontra-azala, ez daude beteta baina berez beteko direla badakigu. Ondoren, demagun 20 orri geratzen zaizkigula, atal batzuk hor ere finkoak dira: ‘Puri-purixan’, ‘Karenka’ eta ‘Bi hitzetan’. Zerrendatzen ditugu gaiak eta bakoitza zein ataletan joango den erabakitzen dugu. Beste batzuk izaten dira kultur eta kirol elkarteen ingurukoak; elkarrizketak edo erreportajeak egiten dizkiegu, ‘Gizartea’, ‘Osasuna’, ‘Lan giroan’... Guk orri osoka funtzionatzen dugu eta albisteak nahiko luzeak izaten dira, elkarrizketak, erreportajeak... eta bi edo hiru orri laburrean egiten ditugu noizean behin”<sup>903</sup>*, azaltzen du Joseba Palenzuelak.

Mutrikuko aldizkarian gaurkotasunak ez du gaien agerpenean eragin berezirik, orokorrean gaurkotasunak garrantzi txikia duelako aldizkarian, hilabetekaria baita. Lan-taldeak “handicap” hori argi eta garbi dauka:

*“Hilean behin ateratzen dugunez, gaurkotasunari ezin diogu heldu, kadukatu egiten zaigu. Beraz, garrantzi txikiagoa ematen diogu gaurkotasunari eta denboraz kanpoko gai gehiago sartzen ditugu. Esaterako, Diario Vascoko albisteetan inoiz agertuko ez diren gaiak planteatzen ditugu”<sup>904</sup>*.

Hala eta guztiz ere, “Bi hitzetan” eta “Puri purixan” ataletan gaurkotasunari heltzeko ahalegina egiten da. Bestalde, helduko den edozein ekitaldi garrantzitsu, esate baterako dantza taldeak hogeita bost urte betetzen dituela, aurreratzen saiatzen dira. Askotan, pasatu direnak eta aspaldi gertatu diren kontuak agertzen dira aldizkarian eta lan-taldekoak eta herritarrak ere, jabetu dira horretaz. *“Jende askok egiten digun kritika zera da, atzera begira bizi garela. Askotan entzun dugu batez ere ‘Karenka’-n aspaldiko kontuak lar sartzen ditugulako”<sup>905</sup>*, onartzen du aldizkariko zuzendariak.

Lan-taldearen funtzionamenduak eta profesionalizatzeko ezak, eragin zuzena du gaien agerpenean eta gai horiek jorratzeko moduan. *Kalaputxin*, kazetaritza-generoetan bezalatsu, gaietan ez dute oreka behar beste mantentzen; inpresioka funtzionatzen dutelako eta gaiak

<sup>903</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>904</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>905</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.



bururatu ahala, zerrendatu eta erabakitzen dituzte:

*“Kontzientek gara, bandazoak ematen ditugula, orain dena egiten dugu gizonezkoak, orain, dena emakumezkoak... Produktu bezala edukiak antolatzerako orduan hobetu daitekeela badakigu, baina azkenean eguneroko jardunak jan egiten gaitu. Azken finean hemen guk geure buruarekin daukagu konpromiso bakarra eta noski baita herriarekin ere. Lan-talde profesionala ez garenez, horrek ere lasaitzen gaitu horrelako hutsuneak ikusten ditugunean. Adibidez, hilabete honetan astebete atzeratu da alea eta ez da ezer gertatzen”*<sup>906</sup>, azpimarratzen du Joseba Palenzuela zuzendariak.

Ezberdintasunak ezberdintasun, Deba Barreneko aldizkari gehienetan bezala, gizarte-gaiak nagusitzen dira *Kalaputxin* ere. Jarraian kultura gaiak eta gehien lantzen den hirugarren gaia kirola da. Mutrikuko aldizkarian gutxien lantzen diren bi gaiak politika eta ekonomia dira. 70H. taulan ikus daitekeenez, urtetik urtera item kopurua hazi egiten da eta 2004. urtean lehenengo urtean baino berrogeita hamabi idatzi gehiago kaleratu dira.

Gai guztien erdia baino gehiago gizarte-gai ezberdinen artean banatzen da. Kultura gaiak %20aren inguruan jorratzen dira urtero. Kirol gaiei buruzko testuak, gora behera batzuk tartean, batz bestea % 12an kokatzen dira. Politika eta ekonomia gutxien agertzen diren gaiak diren arren, bai bata zein bestea urteekin ugaltu egin dira.

### **Gaiak bi hitzetan**

Beraz, 2002-2004 bitartean gai ezberdinak agertu dira *Kalaputxi* aldizkarian, denetarik landu da Mutrikuko herri-aldizkarian. Hala ere, antzinako kontuetan oinarritutako gai eta pertsonaia asko atera dira hiru urte horietan. Gaurkotasuna jorratzeko arazoak dituzte, gaiak denboran zaharkituta geratzen direlako. Era berean, gaien artean ez da orekarik sumatzen. Horrek zerikusi zuzena du lan-taldearen funtzionatzeko moduarekin, ez baitira kazetari profesionalak. Dena dela, orain arte lan honetan aztertu diren aldizkari gehienetan bezala, gizarte-gaiak dira protagonista nagusiak, ondoren kultura eta hirugarrenik kirola, gutxien lantzen diren gaiak politika eta ekonomia izanik.


<sup>906</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

#### 4.4.4.1- Politika

*Kalaputxi* aldizkarian politika gaiak oso gutxi agertzen dira, %5eko portzentajea dute gai politiko ezberdinek aztertu diren hogeita hamabi zenbakietan. Hurrengo bi ataletan politikaren garapena aztertuko dugu zehatz-mehatz. Lehenengo eta behin, 2002-2004 bitartean, politikak orokorrean *Kalaputxin* izan duen agerpena aztertuko dugu. Ondoren, bigarren grafiko eta taularen bitartez, aurrez definitu ditugun gai politikoek urtez urte izan duten bilakaera nolakoa izan den ikusiko dugu.

##### 4.4.4.1.1- Politika 2002-2004 bitartean

71G.grafikoa



Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

71H. taula

	Udala	Eusko Jaurlaritza	Alderdiak	E.H-ko gatazka	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	17	1	15	17	50

Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Kalaputxi* aldizkarian jorratzen diren gaien artean, politika da gutxien agertzen dena 2002-2004 bitartean. Orotara, 1.015 item aztertu dira hogeita hamabi zenbakitan eta horietako berrogeita hamar testutan gai politikoak agertzen dira. Lan-taldeak argi dauka politika ez dela aldizkariaren lehenengo gaia eta *Kalaputxin* nahiago dute politikari gai sozial kutsua ematea. Horrela onartzen du Joseba Palenzuela zuzendariak:

*“Gai batzuk ez dira nahita gehiago jorratzen, baina iruditzen zaigu gure aldizkarian politikak ez duela lekurik, bestalde, nahiz eta jendeak ez sinistu guk ez dugulako inoren boz gailua izan nahi. Orain esaterako portuaren inguruan Ezker Abertzalea barne hausnarketa egiten ari da eta seguru horren inguruan aterako dugula zerbait, baina gizarte-gai moduan, ez politika moduan. Argi dago aurrekontuak direnean edo hauteskundeak direnean ateratzen dugula politikaren gaia, baina beti ere gai sozial moduan”<sup>907</sup>.*

Kontuan izan behar da gai politikoak jorratzen direnean, beti herriarekin zerikusi zuzena dutenean agertzen direla. Ondorioz, *Kalaputxin* politika gaiek duten agerpen murrizaren bi arrazoiak honako hauek izan daitezke: batetik, gai politikoak gizarte ikuspegitik lantzen direla eta bestetik, politika kontuak herriarekin lotuta daudenean agertzen direla. Beraz, herriko politikak ez duela Euskal Herri mailan duen oihartzunik ondoriozta dezakegu.

#### **A) UDALA**

Politikaren barnean, udala eta Euskal Herriko gatazka dira gehien errepikatzen diren bi gai nagusiak. Bakoitza hamazazpi bider azaltzen da guk aztertu ditugun aleetan. Bien portzentajeak batuz gero, emaitzek, gai politikoaren erdia baino gehiago udala eta Euskal Herriko gatazkaren ingurukoak direla adierazten dute.

Udalaren gaia aldizkariko atal ezberdinetan aurkitu dugu, “Bi hitzetan”, “Ongizatia”, “Kale-inkesta”, “Gutunak”, “Karenka” eta “Puri purixan” sailetan bereziki. Gainera, *Kalaputxiko* lan-taldeak udalarekin duen harremana ona eta nahiko estua da:

*“Harremana ona da, baina ni nabilelako bertan lanean. Ni Kalaputxin ez banintz egongo, seguru nago askoz ere kontrol gehiago egongo litzatekeela udalaren aldetik aldizkarian. Momentu honetan askatasun guztia dugu. Hala ere, ni Kalaputxin bat gehiago naiz”<sup>908</sup>,* onartzen du Joseba Palenzuelak.

Udal mailako informazioa lortzeko, hauteskundearen inguruko informazioa lortzeko, aurrekontuen berri jasotzeko edota alkateari elkarrizketa egiteko udalarekin jartzen dira harremanetan eta hori guztia aldizkarian islatzen da.

Beste hainbat informazioetan udala protagonista nagusia ez bada ere, modu inplizitu batean agertzen da informazioetan. Hots, udaleko kultur sailak antzerki emanaldia antolatu badu

<sup>907</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>908</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

eta testuan antzerkiari buruz ari badira, guk lan honetan testua antzerkiaren atalean sailkatuko dugu, baina testuan udalaren aipamena agertuko da antolatzailea den aldetik.

## **B) EUSKAL HERRIKO GATAZKA**

Euskal Herriko gatazkaren gaia ere hamazazpi aldiz agertzen da aztertu diren hogeita hamabi aleetan eta berau da udalarekin batera gehien errepikatzen den gai politikoa. Ezin ahaztu daiteke urtero, uztailean eta abenduan, herriko elkarte guztiei aldizkarian euren artikuluak argitaratzeko aukera luzatzen zaiela eta horietako asko, Amnistiaren Batzordeak idatzitako presoiei buruzko testuak izan dira gure azterketa-epean. Euskal Herriko gatazkaren gaia, “Gizartea”, “Bi hitzetan”, “Editoriala”, “Aberri Eguna” eta “Gutunak” sailetan aurkitu dugu.

Euskal Herriko gatazka, politikaren baitan gehien agertzen den gaietako bat izateak, jendearengan aurreiritziak sor ditzakeela argi dauka *Kalaputxi*ko zuzendariak. Izan ere, gai hori makina bat kexa eta kritikaren sortzaile izan da:

*“EAJ-k kritikatzeko gaitu presoek gauzak ateratzen ditugulako eta horrela publikitatearen egiten diegulako eta udalari publikitatearen egitearren kobratu egiten diogulako. Hau da, udalak bi kilo ematen digu funtzionamendurako eta 200 euro kobratzen diegu kontra azalean publikitatea sartzen dutenean. Elkarrizketak nori egiten dizkiogun ere kexarako arrazoi bilakatu dira: hau dela eta bestea dela, ezker abertzalekoen espazio gehiago eskaintzen diegula esaten digute EAJ-tik. Ezkerretik kritika gutxiago jasotzen dugu. Nire ustez nahiz eta gure ildoan edo tonuan oso biguna iruditzen zaien, beharbada lan bat egiten ari garelako defendatu behar dute. Euskarazko publikazio bat egiten ari gara eta zer egingo dute, kritikatu? hori txalotu egin behar da!”<sup>909</sup>.*

## **C) ALDERDIAK**

Alderdien gaia hamabost bider azaltzen da 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak alderatuz gero, udala eta Euskal Herriko gatazka baino bi item gutxiagotan agertzen da alderdien gaia. 71G. grafikoan agertzen diren portzentajeekin konparatuta, ordea, aldea handiagoa da, lau puntu gutxiago dituelako alderdien gaiak. Mutrikuko aldizkarian diharduen lan-taldeak ez du harremanik bertoko alderdi politikoeekin eta daukaten harremana zuzena izaten da, baina alderdi ezberdinetako jendea ez da bertara hurbiltzen euren ekitaldien berri ematera.

Orotara, alderdi ezberdinak agertzen diren hamabi item aurkitu dira. Ezker Abertzalea (Batasuna eta Mutriku Eginez Herri Plataforma) zortzi aldiz agertzen dira, EA bi bider da

---

<sup>909</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

protagonista eta EAJ eta PSE-EE behin agertzen da bakoitza. Gainontzeko testuak, hauteskundeei eta alderdien legeari buruzkoak dira. Emaitzen arabera, ezker abertzalea da gehien agertzen den alderdia.

#### **D) BESTEAK**


Gainerako gai politikoek ez dute inolako eragin eta oihartzunik Mutrikuko aldizkarian, ez baitira agertu ere egiten. Eusko Jaurlaritza albiste labur batean da protagonista, herriko jarduerarekin lotuta dagoelako. Gerra eta ejertzitoen gaia ez da azaltzen, beraz, *Kalaputxin* politikaren baitan sailkatu daitezkeen gai alternatiboagoei buruzko notiziarik ez dute sartu.

#### **Politika bi hitzetan**

Orokorrean politika gutxi landu da 2002-2004 bitartean. Alde batetik lan-taldeak nahiago duelako gai politikoei ukitu soziala ematea eta beste alde batetik, politika herria eta herritarrekin lotuta dagoenean agertzen delako. Politikaren baitan udala eta Euskal Herriko gatazka dira gai nagusiak, biak portzentaje berean (%34) lantzen dira-eta. Apur bat gutxiago agertzen da alderdien gaia (%30) eta protagonismo gehien duen alderdia ezker abertzalea da. Bestelako gai politikoen agerpena minimoa da aldizkarian, batzuek herritik kanpoko erakundeak direlako eta gai politiko alternatiboak ez direlako kontuan hartzen..

## 4.4.4.1.2- Politikaren bilakaera

72G.grafikoa



Politika gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

72H. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Udala	Eusko Jaurlaritza	Alderdiak	E.H. gatazka	GUZTIRA
	2002	1	0	2	3	6
	2003	9	0	10	7	26
	2004	7	1	3	7	18

Politika gaien bilakaera, 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Mutrikuko hilabetekarian politikaren gaia asko agertzen ez bada ere, urtetik urtera izan duen bilakaerari erreparatuz gero, bere agerpena areagotu egin dela antzeman daiteke. 2002. urtean oso gutxi agertzen da politika orokorrean. 2003an, ordea, gora egiten du nabarmen politikari buruzko item kopuruak. Izan ere, 2003an udal hauteskundeak izan ziren maiatzean eta hori da *Kalaputxin* urte horretan politika hainbeste agertzearen arrazoia. Hauteskundeen gaia 2003an herriko jarduerari zuzenean lotuta baitago, beraz, urte horretan alderdiei aldizkariko orrialdeetan toki berezia egiten zaie

## A) UDALA

Udalaren gaiak urteekin garrantzia hartu du aldizkarian eta hasierako urtetik bukaerara arte, portzentajeak bikoiztu egin dira. Alabaina, 72H. taulako kopuru absolutuen eta 72G. grafikoan agertzen diren portzentajeen arteko aldea handia da oso. 2002an udalari buruzko item bakarra argitaratzen da eta portzentajeetan %17 da. 2003an bederatzi aldiz agertzen da udala eta horren portzentajea %35ekoa da. 2004an zazpi bider dugu udala testuen protagonista eta portzentajea aurreko urtean baino altuagoa da, %39koa. Kasu horretan ere, portzentajeak, urteko

item kopuru orokorraren arabera kalkulatu dira, beraz zenbat eta altuagoa izan kopuru orokorra, urte bakoitzeko portzentajea baxuagoa da.

Udalaren gaia, iritzi eta informazio-generoen bitartez lantzen da bereziki. Udalari buruzko lau albiste labur,<sup>910</sup> lau elkarrizketa<sup>911</sup>, kale-inkesta bat<sup>912</sup> eta zortzi gutun<sup>913</sup> kaleratu dira guk aztertu ditugun hogeita hamabi zenbakietan.

## **B) EUSKO JAURLARITZA**

Eusko Jaurlaritzaren gaia ez da urtero lantzen, 2004ko abenduko 35. zenbakian agertzen da soilik eta albiste labur batean: “Amann Mutrikun izan da”, Mutrikuko portuaren inguruan Eusko Jaurlaritzaren ikuspegia azaltzeko Alvaro Amann Garraio eta Obra Sailburua izan zen Mutrikun. Agertzen den informazio horretan, argi ikus daiteke herrian oihartzun handia eta garrantzitsua den gai batekin zerikusia duelako agertzen dela Eusko Jaurlaritza.

## **C) ALDERDIAK**

Alderdien gaia batez ere 2003an agertzen da, udal hauteskunde urtea baita. Gainerako bi urteetan oso gutxitan kaleratu dira alderdiekin zerikusia duten idatziak. Gogora dezagun aurreko atalean aipatutakoa: aldizkariak ez dauka alderdi ezberdinetako ordezkariekin harremanik eta alderdietako kideak ez dira aldizkarira hurbiltzen euren ekitaldiak aldizkariaren bitartez zabaltzeko. Udal hauteskundeak direnean, ordea, aldizkariak bilatzen ditu ordezkari politikoak. Kopuru absolutu eta portzentajeen artean alde handiak nabaritzen dira hiru urteetan. 2002. urtean alderdiei buruzko bi item kaleratu dira eta %32ko portzentajea dauka urte horretan alderdien gaiak. 2003an hamar testu argitaratu dira eta portzentajea %38koa da eta 2004an hiru itemen portzentajea %17ra jaisten da. Alegia, azken urtean lehenengo urtean baino item bat gehiago kaleratu da eta portzentajea erdira jaisten da. Horren arrazoia, urteko item kopuru orokorrean aurkituko dugu, 2002ko politika gaien testu guztiak sei direlako eta 2004koak hamazortzi.

Alderdien gaia iritzi-generoetan agertzen da nagusiki. Alderdiei buruz kaleratu diren hamabost testuetatik, hamar iritzi-genero ezberdinetan aurkitu dira. Bost gutun<sup>914</sup>, bi

<sup>910</sup>- Adibidea: “Mutrikuko plan estrategikoa”. 2004ko otsaileko 26. alean. (17. or.).

<sup>911</sup>- Adibidea: “Alkatearekin azken 4 urteei erreparazio emanez...”, Mutrikuko alkateari elkarrizketa. 2003ko apirilko 17. zenbakian. (14.-15. or.).

<sup>912</sup>- “Hurrengo alkate izango danai, ze eskatuko diozu?”. 2003ko maiatzeko 18. alean. (13. or.).

<sup>913</sup>- Adibidea: “Udaletxia ala batzuen etxia? Udaltzaingoa ala polizia errepresibo bat? Administraria ala morroia? Alkatia norena, danona ala batzuna? Hau irakurri eta gero zeuek erantzun”, Raquel Legardak sinatutako gutuna. 2004ko iraileko 32. zenbakian. (5. or.).

<sup>914</sup>- Adibidea: “Batasunaren ilegalizazioa”, Mutrikuko Batasunak sinatutako gutuna. 2002ko iraileko 10. alean. (5. or.).

editorial<sup>915</sup>, hiru iritzi-zutabe<sup>916</sup>, albiste bat<sup>917</sup>, elkarrizketa bat<sup>918</sup> eta hiru albiste labur<sup>919</sup> argitaratu dira aztertu ditugun hogeita hamabi zenbakietan.

#### D) EUSKAL HERRIKO GATAZKA

Portzentajeei begiraturaz, Euskal Herriko gatazkaren gaiak hiru urteetan gora behera nabarmenak izan ditu, baina 72H. taulan agertzen diren kopuruak aztertzen baditugu, 2003 eta 2004an gai horri buruzko item kopuru berbera kaleratu dela konturako gara. 72G. grafikoan agertzen diren portzentajeen arabera, Euskal Herriko gatazka 2003 eta 2004an, 2002an baino gutxiago agertzen da; baina 72H. taulako kopuruaren arabera 2003 eta 2004an 2002an baino testu gehiago argitaratzen dira: 2002an hiru item argitaratzen dira (%50), 2003an zazpi item (%27) eta 2004an zazpi item (%39). Azken bi urteetan item kopurua berbera izanik, portzentajeetan dagoen aldea nabarmena da, urte bakoitzeko item kopuru orokorraren arabera kalkulatzeko baita eta 2003an item kopuru orokorra altuagoa denez, urte bakoitzeko portzentajeak behera egiten du.

Euskal Herriko gatazkaren gaia, alderdien gaien antzera, iritziaren atalean agertzen da gehienetan. Gai horren inguruan argitaratu diren hamazazpi testuetatik, hamar iritzi-genero ezberdinetan aurkitu dira. Hona hemen Euskal Herriko gatazkaren gaiari aldizkarian eskaintzen zaion espazioa zein izan den iritzi eta informazio-generoetan: hiru albiste labur<sup>920</sup>, bi albiste<sup>921</sup>, lau iritzi-artikulu<sup>922</sup>, hiru iritzi-zutabe<sup>923</sup>, bi editorial<sup>924</sup>, gutun bat<sup>925</sup>, eta bi zerbitzu-informazio<sup>926</sup> argitaratu dira, lan honetan aztertu diren 32 aleetan.

#### Politika bi hitzetan

Oro har gai politikoak ez dira asko agertzen *Kalaputxin*, baina poliki-poliki gero eta gehiago lantzen dira, batez ere 2003an, udal hauteskundeak urtea izan zelako. Udalaren gaiak urteekin garrantzia irabazi du, alderdiak 2003an agertzen dira bereziki eta azken urtean ia erdira

<sup>915</sup>- Adibidea: "Hauteskundeak 2003". 2003ko maiatzeko 18. zenbakian. (3. or.).

<sup>916</sup>- Adibidea: 2003ko maiatzeko 18. alean hiru iritzi-zutabe kaleratu dira. PSE-EE-k (8. or.), EA-k (9. or.) eta Mutriku Eginez Herri Plataformak (6. or.) euren hauteskunde programei buruz idatzitakoak dira.

<sup>917</sup>- "Udal aurrekontuak", EA eta Mutriku Eginez alderdiko ordezkarien proposamenak jasotzen diren albistea. 2004ko apirilko 28. zenbakian. (8. or.).

<sup>918</sup>- EAJ alderdiaren alkate-gaiari egindako elkarrizketa. 2003ko maiatzeko 18. alean. (7. or.).

<sup>919</sup>- Adibidea: "Batasuneko zinegotzien itxialdi-baraualdia". 2002ko uztailko 9. zenbakian. (8. or.).

<sup>920</sup>- Adibidea: "Herriko presoekin elkartasuna". 2002ko maiatzeko 7. zenbakian. (9. or.).

<sup>921</sup>- Adibidea: "Ettxerat bidean da". 2002ko urtarrileko 3. alean. (23. or.).

<sup>922</sup>- Adibidea: "Hemen ere torturatzen da". 2004ko abenduaren 35. zenbakian. (20. or.).

<sup>923</sup>- Adibidea: "Zuri lagun", Ettxerat-ek sinatutako gutuna. 2003ko abenduko 24. alean. (20. or.).

<sup>924</sup>- Adibidea: "Aberri eguna 2003". 2003ko apirilko 17. zenbakian. (3. or.).

<sup>925</sup>- "Nire karneta, EHNA", A.A-k sinatutako gutuna. 2004ko ekaineko 30. alean. (5. or.).

<sup>926</sup>- Adibidea: "Gabonetako zorion agurrak bidaltzeko helbideak" (Mutrikuko euskal preso politikoei). 2003ko abenduko 24. zenbakian. (21. or.).




jaisten da alderdien portzentajea. Euskal Herriko gatazka askoz gehiago agertzen da lehenengo urtean hurrengo bi urteetan baino. Alderdien eta Euskal Herriko gatazkaren gaia iritzi-generoetan jorratzen da nagusiki eta udalarena iritzi eta informazio-generoetan.

#### 4.4.4.2- Ekonomia

*Kalaputxi* hilabetekarian ekonomiaren gaia politikarekin batera, gutxien lantzen den gaien artean dago. Nolanahi ere portzentajeei erreparatuta, ekonomia politika baino bi aldiz gehiago agertzen da, %10eko portzentajea kokatuz. Gai ekonomikoek izan duten garapena nolakoa izan den azaltzeko bi urrats egingo ditugu hurrengo lerroetan. Lehenengo urratsaren bitartez, 2002-2004 bitartean ekonomia gai ezberdinek izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Bigarren urratsean, ekonomia gai bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera zehatza ikusiko dugu.

##### 4.4.4.2.1- Ekonomia 2002-2004 bitartean

73G.grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

73H.taula

	Enpresa	Laborala/Langabezia	Nekazaritza/Abeltzaintza	Itsasoa/Arrantza	Merkataritza	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	21	13	18	30	16	98

Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Ikerlan honetan aztertu diren sei aldizkarien artean ekonomiaren gaia gehien lantzen duena *Kalaputxi* da. Gainontzeko aldizkariak ekonomiari eskaintzen dioten portzentajearen bikoitza eskaintzen dio Mutrikuko hilabetekariak. Beraz, ekonomiaren gaia aldizkarian diharduen lan-taldeak oso kontuan hartzen duen gaia dela ondoriozta dezakegu; herriko errealitatea eta egunerokotasuna islatu nahian, Mutrikuko sektore ezberdinei buruzko testuak kaleratzen direlako. *Kalaputxi* hilabetekarian, ale guztietan ez bada ere, “Lan giruan” izeneko saila argitaratzen da. Bertan, ofizio ezberdinei buruzko erreportajeak lantzen dira eta herriko sektore ekonomiko guztiei egiten zaie lekua, artisauak barne.

### **A) ITSASOA ETA ARRANTZA**

Guztira 98 item kaleratu dira guk aztertu ditugun *Kalaputxi* aldizkariko hogeita hamabi zenbakietan eta gehien lantzen den ekonomia gaia itsasoa eta arrantza da, herrian dagoen sektore horri protagonismoa ematen ahalegintzen baitira aldizkarian. Aldizkariko zuzendariaren esanetan, *Kalaputxin* ez bada, ez baitzaio leku askorik egiten gainerako hedabideetan gaiari:

*“Guk oso argi dugu hemen ateratzen duguna ez dugula ateratzen gure gustukoa delako, gauza batzuk bai noski, baina ‘in mente’ herritarrak eta irakurleak ditugu beti. Iruditzen zaigu itsasoko gaiak hemen ez bada, inon ez direla aterako eta herriratzeko modu bat da horrelako gaiak Kalaputxin jorratzea”<sup>927</sup>.*

### **B) ENPRESA**

Enpresaren gaia, gehien agertzen den bigarren gai ekonomikoa da *Kalaputxin*, %21eko portzentajea izanik. Mutriku ez da Deba Barreneko herri industrializatua, Eibar, Elgoibar, Mallabia, Mendaro edo Ermua bezala. Alabaina, *Kalaputxi*ko kideek herrian dagoen industria apurra aldizkariaren bitartez irakurleengana hurbildu nahi izan dute hiru urte hauetan. *“Industriaren gaia ere herriratu nahi izan dugu, hau da, herrian dugun industria gutxi hori, jendeari erakustea, noizkoa den, zer egiten duten”<sup>928</sup>*, gaineratzen du *Kalaputxi*ko zuzendariak.

### **C) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA**

Nekazaritza eta abeltzaintzaren gaia hamazortzi bider agertu da hiru urte hauetan Mutrikuko hilabetekarian. Horrela bada, ekonomiaren baitan gehien lantzen den hirugarren gaia bilakatu da, %18ko portzentajearekin.

---

<sup>927</sup>. Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>928</sup>. Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

Gure azterketa-epean Mutrikun baserriak ez du sasoi bateko garrantzirik izan, hirurogei baserri inguru daude bertan, baina baserriak zuzenean bizi direnak oso gutxi dira, dozena bat baserri gutxi gora behera. Hala eta guztiz ere, *Kalaputxi* aldizkariko orrietan nekazaritza eta abeltzaintzari tarte bat egin nahi izaten diote, normalean “Auzoz auzo” sailean. Aldizkariko kide eta zuzendari den Joseba Palenzuelak dionez, nahi baino gutxiagotan agertzen da gaia:

*“Atalekin ez dugunez orekarik eta esku artean ditugun gaien arabera antolatzen dugunez, askotan nekazaritza eta abeltzaintzaren gaia pasa egiten zaigu. Azken batean Mutriku, itsasoa (gero eta gutxiago), kalea eta baserriak osatzen dute, beraz dena islatu behar da. Askotan ez gara irteten herritik eta gure buruari esaten diogu: goazen mendi aldera, horiek ere mutrikuarrak dira eta”<sup>929</sup>.*

#### **D) MERKATARITZA**

Gai ekonomikoen artean gehien lantzen den gaia ez bada ere, merkataritza ez dute ahazten herri-aldizkarian. Guztira merkataritzarekin lotura duten hamasei testu aurkitu dira 2002-2004 bitartean. Mutrikuko “Bertan Merkataritza Elkarte” publizitate bezero finkoa da *Kalaputxin* eta aldizkariak Merkatarien Elkarteari arreta berezia jartzen dio. Hilabetekaria herriaren alde lanean ari den heinean, herri mailan diharduten talde eta elkarten erakusleiho izan nahi du.

#### **E) LABORALA ETA LANGABEZIA**

Laborala eta langabeziaren gaia ez da horrenbeste agertzen eta gainerako gai ekonomikoekin alderatuz, gutxien agertzen dena berau da. Gai laborala eta langabeziari buruzko hamahiru idatzi kaleratu dira guk aztertu dugun epean. Momentu puntualetan jorratzen den gaia da, “Maiatzaren 1a” delako edota herrian eta herritarrekin zerikusia duen gaia denean. Kasu horietan, herritarren baimena eskatzen dute ezer kaleratu aurretik, arazoak sahisteko: *“Herritarren baimenarekin ateratzen ditugu, euren berri ematea eta Kalaputxin agertzea interesatzen bazaie ondo eta bestela, ez dugu ateratzen. Behin adibidez, enpresa baten itxiera zela eta, langileek nahiago izan zuten ezer ez kaleratzea negoziatzen ari zirelako”<sup>930</sup>*, gogoratzen du Joseba Palenzuelak.

---

<sup>929</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.


<sup>930</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

## Ekonomia bi hitzetan

Orokorrean, Mutrikuko aldizkarian ekonomia gutxien lantzen den gaien artean egon arren, kirolaren agerpenarekin ez du horrenbesteko alderik, gai ekonomikoaren portzentaje orokorra, kirolena baino bi puntu baxuagoa delako. Hori dela eta, Deba Barreneko aldizkari guztien artean *Kalaputxi* da ekonomia gehien lantzen duen agerkaria. Bertan “Lan giruan” atalean jorratzen dira bereziki ekonomiarekin zerikusia duten gaiak. Kostako herria izanik, itsasoa eta arrantzaren sektorea da gehien agertzen dena, lan-taldearen ustez, aldizkaria leku egokia delako gaiari protagonismoa emateko. Ondoren enpresaren gaia da inportanteena. Nekazaritza, abeltzaintza eta merkataritza kopuru antzerakoetan agertzen dira *Kalaputxin* eta gai laboralak dira portzentaje txikiena dutenak 2002-2004 bitartean.

### 4.4.4.2.- Ekonomiaren bilakaera

74G.grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

74H.taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Enpresa	Laborala/ Langabezia	Nekazaritza/ Abeltzaintza	Itsasoa/ Arrantza	Merkataritza	GUZTIRA
	2002	5	3	7	12	5	32
	2003	9	3	8	9	7	36
	2004	7	7	3	9	4	30

Ekonomia gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Herrian diharduten sektore ekonomiko ezberdinen berri emateko asmoz, ekonomiaren gaia lantzen dute *Kalaputxi* hilabetekarian. Horretarako batzuetan antzinako jarduerak albiste bihurtzen dituzte eta besteetan, gaurkotasun handiagoa duten jarduerari buruzko informazioa ematen da. Nolanahi ere, aldizkarian oso presente dagoen gaia da eta horrelaxe adierazten dute datuek. Hiru urteetan ekonomia gai ezberdinei buruzko hogeita hamarretik gora item kaleratu dira. 74H. taulan agertzen diren datu orokorren arabera, 2003an argitaratu dira ekonomiari buruzko testu gehien. Urte horretan, enpresa, nekazaritza, abeltzaintza eta merkataritzari buruzko item kopuru altuenak agertzen baitira. Hala eta guztiz ere, gai ekonomikoen agerpena oso finkoa izan da gure azterketa-epean.

Arestian aipatu bezala, “Lan giruan” atalean ekonomia testu gehienak biltzen dira, nahiz eta aldizkariko gainerako sailetan ere, ekonomia gaiak aurkitu ditugun: “Bi hitzetan”, “Puri purixan”, “Karenka”, “Argazki zaharra”, “Historixa” edota “Auzoz auzo” ataletan esaterako. Hurrengo lerroetan, gai bakoitzak izan duen bilakaera urtez urte aztertuko dugu.

#### **A) ENPRESA**

Enpresari buruzko testuak ugaltu egin dira hasierako urtetik azken urtera bitartean. 2002an bost testu argitaratzen dira eta 2003an testu kopurua ia bikoiztu egiten da, bederatzi item kaleratzen baitira. Hala ere, portzentajea ez da bikoizten, 2003an altuena bada ere, %25ean kokatzen da. 2004an enpresei buruzko testu kopuruak behera egiten du, zazpi idatzi argitaratzen dira %23ko portzentajea izanik.

2002-2004 bitartean, enpresaren gaia batez ere informazio-generoen bitartez argitaratzen da *Kalaputxin*, enpresa gaia nagusi duten bost albiste<sup>931</sup>, zazpi albiste labur,<sup>932</sup> bost erreportaje<sup>933</sup>, bi kale-inkesta<sup>934</sup> eta gutun bat<sup>935</sup> aurkitu dira.

#### **B) LABORALA ETA LANGABEZIA**

2004an gai laboral eta langabeziari buruzko testuen hazkundera nabarmena da. Hasierako bi urteetan testu kopuru bera kaleratzen da, hiru item urte bakoitzean, nahiz eta portzentajeetan ezberdintasunak dauden. 2002an eta 2003an testu kopurua bera izanik, portzentajea 2002an puntu bat altuagoa da, %9koa hain zuzen ere. Ezin ahaztu daiteke urte bakoitzeko item kopuru

<sup>931</sup>- Adibidea: “Lantegian mozorroak josten”. 2002ko urtarrileko 3. alean. (16. or.).

<sup>932</sup>- Adibidea: “Gasa heldu da”. 2002ko urriko 11. zenbakian. (9. or.).

<sup>933</sup>- Adibidea: “Yurrita e Hijos: Arrain kontserba XXI. mendean”. 2003ko urtarrileko 14. alean. (12.-13. or.).

<sup>934</sup>- Adibidea: “Zer nahixo dezu etxeako, elektrizidadia ala gasa?”. 2004ko maiatzeko 29. zenbakian. (11. or.).

<sup>935</sup>- “Eman aukera euskarari!”, Andikok sinatutako gutuna. 2004ko azaroaren 34. alean. (5. or.).

orokorraren eraginez, portzentajeetan ezberdintasunak sortzen direla. Hau da, nahiz eta kopuru bera izan, urteko item kopuru orokorrak gora egin ahala, urte bakoitzeko portzentajeak behera egiten duela. Langabezia eta gai laboralak jorratzen dituzten, sei argazki-albiste<sup>936</sup>, bi albiste labor<sup>937</sup>, albiste bat<sup>938</sup>, erreportajea bat<sup>939</sup>, komiki bat<sup>940</sup> eta bi gutun<sup>941</sup> argitaratu dira guk aztertu ditugun *Kalaputxi* aldizkariko hogeita hamabi aleotan.

### C) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA

Nekazaritza eta abeltzaintzaren gaiak nabarmen egin du behera azken urtean. 2002an zazpi item eta 2003an zortzi idatzi kaleratuz, bi urteetan %22ko portzentajea kokatzen da gaia. 2003ko item kopuru orokorra aurreko urtekoa baino altuagoa baita. Azken urtean nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko hiru testu soilik kaleratu dira.

Jakin badakigu, ale bakoitzean landuko diren gaiak erabakitzerako orduan, ez direla aldizkariko atalak kontuan hartzen eta nekazaritza eta abeltzaintza “Auzoz auzo” sailean jorratzen dela batez ere. Hori dela eta atal hori ez da finkoa izaten zenbaki guztietan. Hori bai, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren gaia lantzen denean, erreportaje moduan agertzen da. Guztira, gaia jorratzen duten hiru albiste<sup>942</sup>, hiru albiste labor<sup>943</sup>, bederatzi erreportaje<sup>944</sup> eta hiru elkarrizketa<sup>945</sup> argitaratu dira 2002-2004 bitartean.

### D) ITSASOA ETA ARRANTZA

Itsasoa eta arrantzaren gaia urtero gehien agertzen den gaia ekonomikoa da *Kalaputxin*. Lan honetan aztertu diren gainerako aldizkariekin alderatzen badugu, Mutrikuko aldizkarian soilik jorratzen da itsasoa eta arrantzaren gaia. Ezin zitekeen beste era batera izan, Mutrikuko ekonomiaren sektore inportanteenetakoa itsasoa baita eta, gainerako bost aldizkarietan ez bezala, Mutrikuko herri-aldizkarian argi eta garbi islatzen da sektorearen garrantzia. Deba Barreneko gainerako herrietan sektore hori ez da existitu ere egiten.

Arrantzaren gaia batez ere hasierako urtean agertzen da *Kalaputxin*, hamabi testu kaleratzen dira 2002an. Hurrengo bi urteetan testu kopuruak behera egiten du eta urte bakoitzean

<sup>936</sup>- Adibidea: “Perratzailianeko langiliak (1956)” argazki zaharra. 2002ko urriko 11. zenbakian. (25. or.).

<sup>937</sup>- Adibidea: “Maiatzaren lehenena”. 2004ko apirilko 28. alean. (10. or.).

<sup>938</sup>- “Metalgintzako hitzarmena”. 2003ko ekaineko 19. zenbakian. (12. or.).

<sup>939</sup>- “Maiatzaren lehena, lan-baldintza hobeak guztiontzat”. 2002ko apirilko 6. alean. (6.-7.-8. or.).

<sup>940</sup>- Publizitatea postontzietan banatzen duten langileei buruzko komikia. 2004ko urtarrileko 25. zenbakian. (10. or.).

<sup>941</sup>- Adibidea: “Etxez Etxeko laguntza”, E.M.B-k sinatutako gutuna. 2003ko uztailko 20. alean. (5. or.).

<sup>942</sup>- Adibidea: “EHNE”. 2002ko apirilko 6. zenbakian. (8.or.).

<sup>943</sup>- Adibidea: “Euskal arrazako artzai-txakurren lehiaketa”. 2003ko urriko 22. alean. (12. or.).

<sup>944</sup>- Adibidea: “Izan zen arkume garaia!”. 2004ko martxoko 27. zenbakian. (16. or.).

<sup>945</sup>- Adibidea: Julian Ansorregi “Agerretxo”, azken ahuntzainari elkarrizketa. 2002ko ekaineko 8. alean. (14.-15. or.).

bederatzi item argitaratzen dira. 2003 eta 2004an item kopurua bera izan arren, portzentajea 2004an 2003an baino altuagoa da. Azken urte horretan argitaratzen den idatzi kopuru orokorra altuagoa delako.

Arrantza eta itsasoaren gaiari aldizkarian eskaintzen zaion espazioa kontuan hartzen badugu, gehienetan gai honi buruzko erreportajeak argitaratzen direla aipatu beharra dago. Aztertu diren hogeita hamabi zenbakietan, lau albiste<sup>946</sup>, hiru albiste labur<sup>947</sup>, hamaika erreportaje<sup>948</sup>, elkarrizketa bat<sup>949</sup>, sei argazki-albiste<sup>950</sup>, bi komiki<sup>951</sup>, artikulu bat<sup>952</sup> eta bi gutun<sup>953</sup> aurkitu ditugu.

### E) MERKATARITZA

Merkataritzaren gaia urtero agertzen da aldizkarian, merkatariek herrian egiten duten lana islatzen saiatzen baitira *Kalaputxin*. 2002tik 2004ra jaitsi egin da merkataritzari buruz kaleratu den testu kopurua, nahiz eta 2003a gehien agertzen den urtea izan, merkataritza gai nagusia den zazpi testu aurkitu dira-eta. 2002an bost idatzi kaleratzen dira eta 2004an merkataritzaren gaia lantzen duten lau item argitaratzen dira. Gai hori batez ere albiste laburren bitartez jorratzen da *Kalaputxin*, “Bi hitzetan” atalean hain zuzen ere. 2002-2004 bitartean gaiari aldizkarian eskaini zaion espazioa, honako hau izan da kazetaritza eta iritzi-genero ezberdinetan: albiste bat<sup>954</sup>, bederatzi albiste labur<sup>955</sup>, erreportaje bat<sup>956</sup>, elkarrizketa bat<sup>957</sup>, bi kale-inkesta<sup>958</sup> eta bi gutun<sup>959</sup> kaleratu dira 2002-2004 bitartean.

### Ekonomiaren bilakaera bi hitzetan

Laburbilduz, Mutrikuko hilabetekariko lan-taldeak ekonomia kontuan hartzen du eta gehienetan “Lan giruan” sailean lantzen bada ere, gainontzeko ataletan ere agertzen den gaia da.

<sup>946</sup>- Adibidea: “Antxo txarraren ostean, atunetan esperantza”. 2002ko ekaineko 8. zenbakian. (12. or.).

<sup>947</sup>- Adibidea: “Atuneta hasi da”. 2004ko uztailko 31. alean. (9. or.).

<sup>948</sup>- Adibidea: “Agur Pilartxo”. 2002ko martxoko 5. zenbakian. (16.-17.-18. or.).

<sup>949</sup>- “Gipuzkoako arrantza zaharrei omenaldia”. 2004ko uztailko 31. alean. (12.-13. or.).

<sup>950</sup>- Adibidea: “Buzua” argazki zaharra. 2003ko urtarrileko 14. zenbakian. (25. or.).

<sup>951</sup>- Adibidea: 2002ko iraileko 21. alean. (20. or.).

<sup>952</sup>- “Atuneta”, Edurne Burgaña sinatutakoa. 2002ko iraileko 10. zenbakian. (17. or.).

<sup>953</sup>- Adibidea: “Kofradiatik hainbat gogoramen hausnarketarako”, Joseba Burgaña, Kofradiako idazkariak sinatutako gutuna. 2002ko azaroko 12. alean. (5. or.).

<sup>954</sup>- “Dendetan beherapenak”. 2002ko urtarrileko 3. alean. (17. or.).

<sup>955</sup>- Adibidea: “Tabernariak mus txapelketa antolatu dute”. 2004ko abendu 35. zenbakian. (10. or.).

<sup>956</sup>- “Bertan Mutrikuko dendarien elkarteak”. 2002ko abendu 13. alean. (16.-17. or.).

<sup>957</sup>- “Tabernaixekin berriketan”. 2002ko uztailko 9. zenbakian. (14. or.).

<sup>958</sup>- Adibidea: “Badezu ohituraik erosketak merkatu-plazan eitzeko?”. 2002ko maiatzeko 7. alean. (13. or.).

<sup>959</sup>- Adibidea: “Kaixo Kalaputxin irakurle guztioi”, sinatu gabe agertzen den gutuna. 2003ko uztailko 20. zenbakian. (5. or.).


Urteek aurrera egin ahala, enpresa eta gai laboralen protagonismoa igartzen da. Nekazaritza, abeltzaintza, itsasoa, arrantza eta merkataritza buruzko testuak gutxitu egiten dira urtetik urtera. Oro har gehien lantzen diren gaiak honako hauek dira: itsasoa, arrantza, nekazaritza eta abeltzaintza, batez ere erreportajeen bidez ezagutzera emanak.

#### 4.4.4.3- Gizarte-gaiak

*Kalaputxin* hiru urteko epean landu diren gaien %51, gizarte-gaiak izan dira, hilabetekarian agertu diren gaien erdia hain zuzen ere. Ikus dezagun zein izan den gizarte-gai horien agerpena eta garapena. Lehenengo grafiko eta taulan gizarte-gaiak orokorrean 2002-2004 bitartean izan duten agerpen-maila aztertuko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, berriz, gai bakoitza zehatzago aztertuko da, alegia, urtez urte gizarte-gai bakoitzak izan duen bilakaera nolakoa izan den azalduko dugu.

##### 4.4.4.3.1- Gizarte-gaiak 2002-2004

75G.grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

75H.taula

	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	23	30	57	48	14	50	179	120	521

Gizarte- gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.



2002-2004 bitartean *Kalaputxi* aldizkarian guztira 1.015 item aztertu dira eta horietatik 521 itemetan gizarte-gai ezberdinak landu dira. Ondorioz, aldizkarian gizarte-gaiak dira gehien errepikatzen direnak. Joera hau lan honetan analizatu diren gainerako aldizkarietan ere errepikatu da, errebista guztietan nagusitzen baitira gizarte-gaiak. Alde batetik, herriko eguneroko bizitzan gai horiek duten eragin eta garrantziarengatik eta bestetik, gizarte-gaiak izendatutako multzo horretan azpi-kategoria asko sartu ditugulako, hamahiru azpi-kategoria hain zuzen ere.

Hiru urteko epean atal honen barnean gehien agertzen diren gaiak honako hauek izan dira: gizarte ohiturak (ehun eta hirurogeita hemeretzi aldiz) eta zerbitzuak (ehun eta hogeitabider). Lanen gaia (berrogeita hamazazpi aldiz), ingurumena (berrogeita hamar bider) eta hezkuntzaren gaia (berrogeita zortzi) gutxiago errepikatzen badira ere, agerpen-maila garrantzitsua dute aldizkarian.

#### **A) TALDEAK**

Herriko talde ezberdinak hogeita hiru testutan agertu dira gure azterketa-epetan eta gizarte-gaien baitan gutxien jorratzen den gaien artean dago taldeen gaia, %4ko portzentajea baitu orotara. Herrian lanean ari diren talde kultural ezberdinak (kirol taldeak, Kofradiako taldea, nagusia, Amnistiaren aldekoa eta elkarte gastronomiko ezberdinak) izan dira *Kalaputxi*ren lehenengo hiru urte hauetan agertu direnak. Izan ere, uztailean (Mutrikuko Malen jaiak) eta abenduan (Gabon jaietan) talde guztiek euren artikuluak aldizkariaren bitartez kaleratzeko aukera dute. Horrez gain, urte osoan zabalik dute aldizkaria nork bere jardueraren berri emateko. Talde batzuek ohitura hartu dute jada eta aldizkaria aprobetxatu egiten dute euren ekitaldien berri emateko. Beste batzuk baina, oraindik ez dira *Kalaputxi*ra hurbiltzen eta lan-taldearen helburuetako bat horixe litzateke, aldizkarira talde gehiago hurbiltzeko erraztasunak eskaintzea. Joseba Palenzuelak argi dauka aldizkarira urreratzen diren guztiei lekua egiten zaiela bertan: *“asko datorrena, asko ateratzen da eta gutxiago datorrena, gutxiago ateratzen da. Eta gu gainera pozik eurak datozelako”*<sup>960</sup>.

#### **B) GIZARTE ARAZOAK**

Giza laguntza eta gizarte arazoen gaia hogeita hamar aldiz agertu da guk aztertu ditugun hogeita hamabi aleetan. Batzuetan beste, ale bakoitzean behin kaleratu da gaiarekin zerikusia duen testuren bat. Ez da gutxien lantzen den gaia, baina ez dago gehien agertzen diren gaien artean ere.

---

<sup>960</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

Kontuan hartu behar da maiz gai horiek herritik kanpo oihartzun handiagoa izaten dutela eta herriz gaindiko hedabideetan agertzen direla normalean. Nolanahi ere, *Kalaputxin* gai orokorrak herritartzen saiatzen dira. Horretarako, gai horiekin zerikusia duten herritarrak bilatzen dituzte eta gehienetan “Puri-purixan” atalean lantzen dira. Bestalde, badira gai batzuk (emakumeenganako indarkeria) modu orokorragoan jorratzen direnak eta maiz “Editoriala” sailean lekutxo bat egiten zaie.

### **C) LANAK**

Lanen gaia berrogeita hamazazpi bider agertu da Mutrikuko aldizkarian. Lanen barnean, etxebizitzarekin zerikusia duten bederatzi testu aurkitu dira eta herrilanei buruzko berrogeita zortzi item. Herrian martxan dauden proiektu urbanistikoek berri ematen saiatzen dira eta informazioa udaletik jasotzen dute. Alabaina, herri lanekin zerikusi zuzena duen eta guk aztertu dugun epe horretan maiz agertzen den Mutrikuko portuko proiektuaren gaia “tabu” bilakatu da aldizkarian:

*“Izan dugu gai bat gurean tabu izan dena: portuaren gaia. Hemen baietzaren eta ezetzaren aldeko posturak oso tinko daude eta gu beti erdian sentitu izan gara eta gaiari heldu izan diogunean, erdiko ikuspegia eman diogu”<sup>961</sup>*, azaltzen du Joseba Palenzuelak.

Hurrengo atalean ikusiko dugunez, aldizkarian portuko lanei buruzko erreportaje, artikulua eta gutunak azaldu dira alde guztien iritziak agertuz.

### **D) HEZKUNTZA**

Hezkuntzaren gaia berrogeita zortzi itemetan agertu da eta gizarte-gai guztien artean %9ko portzentajea izan du hiru urte hauetan. Gizarte-gaien baitan hezkuntza ez da gehien lantzen den gaia, baina aldizkarian arreta jartzen zaiola esan daiteke. Kopuru absolutuen arabera, ale guztietan jorratu da, “Irakaskuntza” atalean eta “Kirolak” sailean agertuz. Azken horretan eskola kirola maiz azaltzen baita. Horrezaz gain, “Gizartea”, “Karenka”, “Aurrera begira”, “Puri-purixan”, “Bi hitzetan” eta “Teknologia berriak” ataletan aurkitu dugu hezkuntzaren gaia. Sail gehienak ez dira finkoak ale guztietan, lan-taldeak lehenengo gaiak erabakitzen dituelako eta ondoren atalen izenak jartzen ditu-eta.

---

<sup>961</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

## **E) OSASUNA**

Osasunak ez dauka beste gai batzuek duten agerpena aldizkarian, hamalau testu baino ez dira aurkitu aztertu diren *Kalaputxi*ko hogeita hamabi zenbakietan. Osasunarekin zerikusia duten gaiak aldizkarian agertu direnean, herrira ekarri izan dira gehienetan: “Erretzeari lagatzeko kanpainak”, “Organo emaileen elkarteak”, “Alergiak”, “Parkinsona” edo “Gaixotasun mentalak”, herriko ikuspegiak emanez landu dira. Hau da, gaia orokorra izanik ere, Mutrikuko osasunaren inguruko taldeekin edo Mutrikun izan diren osasunaren inguruko ekimenenekin izan dute zerikusia aldizkarian kaleratu diren testu guztiek. Datuek argi erakusten dute osasunaren gaia momentu puntaletan agertu dela eta herriko eguneroko bizitzan ez duela beste gai batzuek duten oihartzunik. Hala ere, gaia ez da alde batera uzten; osasunak aldizkarian atal propioa du eta, noizean behin kaleratzen den “Osasuna” saila hain zuzen ere. Beste sail batzuekin gertatzen den antzera, osasunarena ere ez da atal finkoa aldizkarian.

## **F) INGURUMENA**

Ingurumenaren gaia berrogeita hamar bider agertu da *Kalaputxin* 2002-2004 bitartean, gizarte-gaien %10 izanik. Atal honen barnean, trafikoa eta garraioen gaia hamahiru testutan aurkitu dugu, ekologia eta naturarekin zerikusia duten itemak hogeita hamazazpi izanik. Datuek erakusten dutenez ekologia eta natura nagusitzen dira atal honetan. Guk azterketarako aukeratu dugun epean, Mutrikun bi gertakari garrantzitsu izan dira ekologia eta naturarekin lotura zuzena izan dutenak. Alde batetik, 2002ko abenduan izan zen “Prestige” ontziaren auzia eta Mutrikuko portuaren egitasmoa bestetik. “Prestige”-aren ondorioak Euskal Herriko kostalderaino heldu ziren eta Mutriku horren lekuko izan zen. Halaber, Mutrikuko portuak zeresan handia eman du herrian, 2002-2004 bitartean herriko gai garrantzitsuenetakoa bilakatuz.

## **G) GIZARTE OHITURAK**

Zalantzarik gabe Gizarte ohituren atala da inportanteena *Kalaputxin* hiru urteko epean. Gaiarekin zerikusia duten ehun eta hirurogeita hemeretzi testu aurkitu dira, gizarte-gai guztien %34ko portzentajea izanik. Hiru atal nagusi daude gizarte ohituren barnean: aisialdiari buruzko berrogeita lau item argitaratu dira, gizarte bizitza gai nagusi duten hogeita hamazortzi testu aurkitu dira eta herritarren bizitzari buruzko laurogeita hamazazpi testu kaleratu dira. Azken hori da hain zuzen ere, gehien errepikatzen dena, herritarrak aldizkariko protagonista direlako; euren bizitza eta ohiturak dira aldizkariko ardatza eta horretan ahalegin berezia egiten da, aldizkarian

diharduen lan-taldeak oso argi dauka *Kalaputxi* herritarrentzat eta herriarentzat egiten dutela. Herriko eguneroko bizitzan herritarrek dute zeresana eta emaitzek halaxe adierazten dute.

## **H) ZERBITZUAK**


Gizarte ohituren ostean zerbitzuak dira gehien errepikatzen direnak, bere toki propioa baitute aldizkariko orrietan. Ehun eta hogeia aldiz agertzen dira, %23ko portzentajea izanik. Atal honetan sailkatu dugun item kopurua oso altua da, aldizkariak kaleratzen duen zerbitzu-informazioaren ondorioz. Alegia, *Kalaputxin* argitaratu diren denbora-pasak, salerosketa eta trukeak eta zerbitzu-informazio gehiena (autobus eta tren ordutegiak, intereseko telefonoak eta zaintzako botiken ordutegia) gaika sailkatzerako orduan, atal honetan sartu direlako.

### **Gizarte-gaiak bi hitzetan**

Beraz, 2002-2004 bitartean, aldizkarian gizarte-gaiak dira agerpen-mailaren arabera inportanteenak. Gizarte ohiturak (%34) dira gehien errepikatzen direnak, jarraian zerbitzuak (%23). Lanak, ingurumena eta hezkuntza %9-%11 bitartean kokatzen dira eta gainontzeko gizarte-gai guztiak %3-%6ko balioetan. Gizarte ohituren atalaren baitan herritarren ohitura eta bizitzari buruzko testuak dira nagusi, aldizkariak herriarentzat interesgarria den zerbait kontatzeko daukan herritarra bihurtzen duelako protagonista.

## 4.4.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera

76G.grafikoa



Barren Gizarte-gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

76H.taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
	2002	7	7	22	6	4	16	60	44	166
	2003	8	9	17	17	4	20	58	39	172
	2004	8	14	18	25	6	14	61	37	183

Gizarte-gaien bilakaera, 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Urte bakoitzean guztira 76H. taulan agertzen diren kopuruak kontuan hartzen baditugu, Mutrikuko aldizkarian urtetik urtera item kopuruak gora egin duela argi eta garbi ikus daiteke. 2004an 2002an baino hamazazpi item gehiago kaleratu dira gizarte-gai ezberdinen inguruan. Ondorioz, gizarte-gaiek gero eta agerpen handiagoa dute *Kalaputxin*, gero eta garrantzitsuagoak bilakatu dira eta euren protagonismoa finkatuz joan da aldizkarian. Azter dezagun gizarte-gai bakoitzaren bilakaera urtez urte.

## A) TALDEAK

Herriko taldeei buruzko testu kopurua finko mantendu da hiru urteotan eta 76G. grafikoan agertzen diren portzentajeetan ere, ez da gora behera handirik izan. 2003an eta 2004an item kopurua bera izanik, portzentajea puntu bat altuagoa (%5) da 2003an, item kopuru orokorra hurrengo urtean baino apur bat baxuagoa delako. Atal honetan, herriko talde ezberdinen funtzionamendu eta antolaketarekin zerikusia duten testuak sailkatu ditugu. Horrek ez du esan nahi, herriko talde ezberdinak gainerako gaietan agertzen ez direnik. Izan ere, edozein gai jorratzen denean talde, erakunde edo pertsona bat egoten da haren atzean. Adibidez, Chernobilgo

umeak hartzen dituzten familiei buruzko albistea argitaratzen bada, “Gizarte arazoak” atalean sailkatuko dugu; era berean, urte osoan gai horren inguruan lanean ari den jende taldea agertuko da albistean eta, nahitaez, taldea ere protagonista bilakatuko da.

Kontuak kontu, Mutrikuko talde ezberdinei buruzko hiru albiste<sup>962</sup>, zazpi albiste labur<sup>963</sup>, hiru erreportaje<sup>964</sup>, hiru elkarrizketa<sup>965</sup>, hiru gutun<sup>966</sup>, bi artikulua<sup>967</sup>, inkesta bat<sup>968</sup> eta editorial bat<sup>969</sup> kaleratu dira 2002-2004 bitartean.

Aldizkarian talde guztiei lekua egiten zaie eta euren ekimenak plazaratzeko aukera duten arren, sarritan aldizkariko kideei, talde batzuek beste batzuek baino pribilegio gehiago dituztela leporatu izan diete:

*“Niri leporatu izan didate, ez dakit nori hiru orri eman diozue X taldekoa delako eta zergatik ez duzue beste hau edo hau ateratzen? Ba ez zaigulako bururatu. Gurean, euskalgintzaren munduan zerbaitetarako mugituz gero berehala izaten dira aurreiritziak, hor HB-ko jendea dago... Berehala identifikatzen zaituzte eta ikusten dute aldizkaria direkzio bakarrean doan tresna moduan. Malenetan (Mutrikuko jaietan) eta gabonetan lehenengo urtetik etorri zaizkigu Amnistia taldekoak txoko bat eskatzen eta orri bat eman genien, motz geratzen zen eta gero luzatu egin genuen. Jaietan bi orri eta gabonetan orri bat gordetzen dugu eurei eskaintzeko. Horregatik nik udaletxean kristorenak entzun ditut eta iruditzen zait erratuta daudela, lan-taldeak uste du Amnistiaren taldea herriko beste elkarte bat dela eta talde guztiei lekua eskaintzen zaien bezala, hauei ere eskaintzen zaie eta eurek erabili egiten dute, baina beste batzuentzako gu politizatuta gaude. Gure ustez, gai soziala da; gero taldeak idazten duen horretan ikuspegi politikoa ematen diola gaiari... baina guk ez diogu ematen, guk elkarte bati txokoa uzten diogu. Beste aldetik ere entzun ditugu; epelak garela, ez dakit zein gai ez dugula sartzeko, hau eta bestea. Gu pozik gaude, bide erdian gaudelako, ez gara ez batzuekin ezta besteekin ezkontzen”<sup>970</sup>*, azpimarratzen du Kalaputxiko zuzendariak.

<sup>962</sup>- Adibidea: “Anaiarte Biltokiaren asmo berriak”. 2004ko apirilaren 28. alean. (12. or.).

<sup>963</sup>- Adibidea: “Burumendi mendi taldeak 50 urte”. 2003ko ekaineko 19. zenbakian. (7. or.).

<sup>964</sup>- Adibidea: “Kalbaixoko kofradiaren bihotzean”. 2002ko iraileko 10. alean. (14.-15. or.).

<sup>965</sup>- Adibidea: “Ziñua elkarte, 1973tik hona, hogeita hamar ikusi ditugu!”. 2002ko uztaileko 9. zenbakian. (22.-23. or.).

<sup>966</sup>- Adibidea: “Gure Ametsa Dantza Taldea berriro ere kale gorrian!”, Gure Ametsa Dantza Taldeak sinatutako gutuna. 2004ko otsaileko 26. alean. (5. or.).

<sup>967</sup>- Adibidea: “Gaztetxia Malenetan ere bai”. 2004ko uztaileko 31. zenbakian. (23. or.).

<sup>968</sup>- “Kirol elkarten iritziak”. 2003ko azaroko 23. alean. (20.-21. or.).

<sup>969</sup>- “Burumendik 50 urte” editoriala. 2004ko uztaileko 30. zenbakian. (3. or.).

<sup>970</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

## B) GIZARTE ARAZOAK

Urteak pasa ahala, gizarte arazoen gaiak garrantzia hartu du *Kalaputxin* eta lehenengo urtetik azken urtera arte kaleratu den item kopurua bikoiztu egin da. 2002an zazpi item argitaratzen dira eta 2004an gizarte arazoei buruzko hamalau testu aurkitu dira. Portzentajeak ere bikoiztu egin dira, %4 izatetik %8an kokatzera. Gai horiek orokorrak izaten dira sarri askotan eta aldizkarian herriko ikuspegitik lantzen saiatzen dira, adibidez: “Saharako umeak Mutrikun”, “Emakumeak elkarte gastronomikoetan” edo “Elkartasun proiektuak Afganistanen Mutrikuko taldeen eskutik”. Halere, beste batzuetan ikuspegi orokorra ematen zaizkie gizarte arazoei: “Gizon eta emakumeen ezberdintasuna” esate baterako.

Atal honetan sartu diren beste testu batzuk gertaera edo ezbeharrekin dute zerikusia, adibidez, lapurretak izan direla herrian edo gizon bat itsasotik erreskatatu dutela. Gizarte arazoekin zerikusia duten testu gehienak albiste laburrak eta erreportajeak izan dira, nahiz eta iritzi-generoen bitartez gaia landu den. Albiste bat<sup>971</sup>, hamar albiste labur<sup>972</sup>, hiru elkarrizketa<sup>973</sup>, zazpi erreportaje<sup>974</sup>, hiru gutun<sup>975</sup>, hiru inkesta<sup>976</sup>, komiki bat<sup>977</sup>, editorial bat<sup>978</sup> eta ipuin bat<sup>979</sup> argitaratu dira.

## C) LANAK

Lanei buruzko testu kopurua ez da gehiegi aldatu hiru urteotan, nahiz eta 2002an herrilan eta etxebizitzarekin zerikusi duten testu gehiago kaleratzen diren, hogeita bi idatzi %13ko portzentajea dutenak. 2003an eta 2004an portzentajea %10eraino jaisten da eta testu kopuruak ere behera egiten du, hamazazpi eta hamazortzi item argitaratzen dira urte bakoitzean hurrenez hurren.

Herrian egiten diren lanek jendearengan sortzen duten jakin-mina asetzeko asmoz, herriko proiektu urbanistiko ezberdinei buruzko informazioa zabaltzen ahalegintzen da *Kalaputxi*. Era

<sup>971</sup>- “Elkartasun bideak garatzen”. 2002ko abenduak 13. alean. (18. or.).

<sup>972</sup>- Adibidea: “Txernobilgo haurrak gure herrian”. 2002ko uztaileko 9. zenbakian. (8. or.).

<sup>973</sup>- Adibidea: “Oztopo arkitektoniko asko dago Mutrikun”, Iñigo Larramendi ezindu fisiko eta psikikoari egindako elkarrizketa. 2004ko iraileko 32. alean. (14.-15. or.).

<sup>974</sup>- Adibidea: “Lehen etorri ziren eta gaur ere badatoz, Alejandro eta Carole: Garai berriko etorkin gazteak”. 2002ko urriko 11. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>975</sup>- Adibidea: “Errespetu eskaria”, Mari Conchi Oianguren eta Martin Arrizabalagak idatzitako gutuna. 2002ko urriko 11. alean. (5. or.).

<sup>976</sup>- Adibidea: “Zuenian zein eitzen ditxu etxeko lanak?”. 2003ko martxoko 16. zenbakian. (11. or.).

<sup>977</sup>- Emakumeak Elkarte Gastronomikoetan bazkide egiteko eztabaidarekin lotutako komikia. 2003ko apirilko 17. alean. (10. or.).

<sup>978</sup>- Emakumeenganako biolentzia. 2004ko otsaileko 26. zenbakian. (3. or.).

<sup>979</sup>- “Emakumezkoen lanbideak eta gizonezkoen lanbideak: Egia ala gezurra?”, Iraia Oianguren idazlan saritua. 2004ko apirilko 28. alean. (22.-23. or.).

berean, aldizkaria Mutrikuko portuari buruzko iritzi ezberdinak batzen saiatu da hiru urte hauetan. Horregatik, lanei buruzko testuen erdia baino gehiago iritzi-genero ezberdinen bitartez jorratu da: hogeita bi gutun<sup>980</sup>, bost artikulua<sup>981</sup>, hiru inkesta<sup>982</sup>, bi komiki<sup>983</sup>, bost erreportaje<sup>984</sup>, hamazortzi albiste labur<sup>985</sup> eta bi albiste<sup>986</sup> kaleratu dira etxebizitza eta herri lanen inguruan.

#### D) HEZKUNTZA

Hezkuntzaren gaia gero eta gehiago lantzen da *Kalaputxin*. Urteek aurrera egin ahala, gai horren agerpena bikoiztu egin da aldizkarian. 2002an hezkuntzarekin zerikusia duten sei item (%4) kaleratzen dira eta 2003an hamazazpi testutan (%10) agertzen da hezkuntza. 2004an, ordea, hogeita bost aldiz errepikatzen da gaia %14ko portzentajearen kokatuz. Hezkuntzaren gaia lantzeko atal espezifikoak argitaratzen dira aldizkarian “Irakaskuntza” edo “Teknologia berriak” adibidez. Dena dela, aztertu ditugun ale guztietan ez dira sail finkoak izan. Hala eta guztiz ere, herriko ikastetxeak albiste sortzaile diren neurrian, aldizkarian isla dute. Oro har, hezkuntzaren gaia lantaldean oso presente dago eta albiste askoren iturri izan da. Lan honetan aztertu diren hogeita hamabi aleetan, hezkuntzarekin erlazionatutako bederatzia albiste<sup>987</sup>, hogeita hamaika albiste labur<sup>988</sup>, bi erreportaje<sup>989</sup>, elkarrizketa bat<sup>990</sup>, bi argazki-albiste<sup>991</sup>, gutun bat<sup>992</sup>, komiki bat<sup>993</sup> eta kale-inkesta bat<sup>994</sup> argitaratu dira.

#### E) OSASUNA

Nahiz eta zenbaki batzuetan “Osasuna” izeneko saila kaleratu den, oro har osasunaren gaia gutxi landu da 2002-2004 bitartean. 76G. grafikoko portzentajeek eta 76H. taulan agertzen diren datuek erakusten dutenez, gaia noizean behin argitaratzen da eta urteak aurrera doazen

<sup>980</sup> - Adibidea: “Frontoiko lanak” Mutrikuko Pilotazale batek sinatutako gutuna. 2004ko maiatzeko 29. zenbakian. (5. or.).

<sup>981</sup> - Adibidea: “Puri-Purixan” atalean portu berriari buruzko bost artikulua agertzen dira: “Aurrera doa herri nahia”, “Herekixak Mutrikuko portuan”, “Portu berriak eragingo lituzkeen txikizioak direla eta...”, “Mutrikuko gazteak martxan” eta “Aurrera doaz portu berrirako errepideko lanak”. 2002ko abenduko 13. alean. (6.-7.-8.-9.-10. or.).

<sup>982</sup> - Adibidea: “Zelan ikusten dezu etxebizitzian gaia Mutrikun?”. 2002ko azaroko 12. zenbakian. (11. or.).

<sup>983</sup> - Adibidea: Etxebizitzaren arazoari buruzko komikia. 2002ko azaroko 12. alean. (18. or.).

<sup>984</sup> - Adibidea: “Etxebizitza: sarritan amets bilakatzen den beharra”. 2002ko 12. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>985</sup> - Adibidea: “Elizatzeko etxeak martxan”. 2003ko urtarrileko 14. alean. (9. or.).

<sup>986</sup> - Adibidea: “Herriaren ondarea denon aberastasuna, udaletxea herriko etxea”. 2003ko maiatzeko 18. zenbakian. (18. or.).

<sup>987</sup> - Adibidea: “Enpresa simulatua: Ikasketa teorikoak praktikara eramateko saioa”. 2004ko maiatzeko 29. alean. (12. or.).

<sup>988</sup> - Adibidea: “Mutrikuko euskeria aztertze beka”. 2002ko azaroko 12. zenbakian. (9. or.).

<sup>989</sup> - Adibidea: “Faustino Uranga entomologoa”. 2003ko martxoko 16. alean. (16.-17. or.).

<sup>990</sup> - “Itsasoak badu etorkizunik, akuakultura eskolak ematen hasi dira institutuko ziklo formatiboan baita”. 2004ko urriko 33. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>991</sup> - Adibidea: “1943 San Francisco Javier Eskolakoak” argazki zaharra. 2003ko urriko 22. alean. (25. or.).

<sup>992</sup> - “Denok gaude ikasteko”, Andikok sinatutako gutuna. 2002ko ekaineko 8. zenbakian. (5. or.).

<sup>993</sup> - Interneti buruzko komikia. 2004ko ekaineko 30. alean. (11. or.).

<sup>994</sup> - “Erabiltzen al dezu internet?”. 2004ko ekaineko 30. zenbakian. (13. or.).



neurrian, bere horretan mantentzen da. 2002an eta 2003an osasunari buruzko lau item (%2) argitaratzen dira urte bakoitzean eta 2004an sei testu (%3) kaleratzen dira. Guztira, lau albiste<sup>995</sup>, lau albiste labur<sup>996</sup>, bi erreportaje<sup>997</sup>, elkarrizketa bat<sup>998</sup>, iritzi-zutabe bat<sup>999</sup>, komiki bat<sup>1000</sup> eta kale-inkesta batean<sup>1001</sup> jorratzen da osasunaren gaia gure azterketa-epean.

## F) INGURUMENA

Ingurumena ale guztietan agertzen dela esan daiteke, urtero hamarretik gora item kaleratzen baitira aldizkarian. Hala ere, hasierako bi urteetan gehiago lantzen da, portuko proiektua eta “Prestige”-aren ondorioak (2002ko abenduan) direla eta. 2002an ingurumenarekin zerikusia duten hamasei testu kaleratzen dira, %10eko portzentajea kokatuz. 2003an item kopurua hogeiraino igotzen da, %12ko portzentajea kokatuz. Baina 2004an ingurumenari buruzko idatziak hamalaura jaisten dira eta portzentajea %8an kokatzen da. Nolanahi ere, aldizkariak ingurugiroarekin zerikusia duen guztiari arreta jartzen dio eta ingurumenari aitortzen zaion garrantzia, gaia jorratzeko erabiltzen diren kazetaritza-genero ezberdinetan eta aldizkarian eskaintzen zaion espazioan antzematen da. 2002-2004 bitartean, ingurugiroari buruzko albiste bat<sup>1002</sup>, hamahiru albiste labur<sup>1003</sup>, elkarrizketa bat<sup>1004</sup>, hamalau erreportaje<sup>1005</sup>, argazki-erreportaje bat<sup>1006</sup>, bost kale-inkesta<sup>1007</sup>, bost gutun<sup>1008</sup>, bi iritzi-zutabe<sup>1009</sup>, zazpi komiki<sup>1010</sup> eta editorial bat<sup>1011</sup> kaleratu dira.

## G) GIZARTE OHITURAK

Gizarte ohituren atala gizarte-gaien barnean gehien agertzen dena da, urtero kopuru eta portzentajeetan oreka mantenduz. Lehenengo urtean gai horiek %36ko portzentajea dute eta

<sup>995</sup> - Adibidea: “Erretzeari lagatzeko kanpaina terapeutikoa”. 2002ko 3. alean. (23. or.).

<sup>996</sup> - Adibidea: “Kurtso psikoedukatioak”. 2004ko urtarrileko 25. zenbakian. (9. or.).

<sup>997</sup> - Adibidea: “Buruak laguntzen ez duenean... hortxe dago familia”. 2002ko martxoko 5. alean. (9. or.).

<sup>998</sup> - “Parkinsondun gaisoen bizitza-kalitatea asko hobeto daiteke”, Jesus Astigarraga Aspargi Elkarteko kideari elkarrizketa. 2003ko apirilko 17. zenbakian. (20. or.).

<sup>999</sup> - “Alergiak gure artean”, Maribel Urkiri Arrutik idatzitakoa. 2003ko martxoko 16. alean. (22. or.).

<sup>1000</sup> - Odol emaleei buruzko komikia. 2004ko otsaileko 26. zenbakian. (17. or.).

<sup>1001</sup> - “Zer iruditzen zatzu organo emaille izatia?”. 2004ko otsaileko 26. alean. (11. or.).

<sup>1002</sup> - “Galipotak hortxe jarraitzen du”. 2003ko maiatzeko 18. alean. (10. or.).

<sup>1003</sup> - Adibidea: “Boluntarioak prest”. 2002ko abenduko 13. zenbakian. (13. or.).

<sup>1004</sup> - Adibidea: “Mutrikuko fosilak Europa mailan bakarrak dira”, Jesus Mari Narvaez fosil biltzaileari egindako elkarrizketa. 2002ko apirilko 6. alean. (16.-17. or.).

<sup>1005</sup> - Adibidea: “Galipota iritsi da Mutrikura”. 2003ko urtarrileko 14. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>1006</sup> - “Noiz arte jarraituko dugu ikusten?” (Galipota). 2003ko iraileko 21. alean. (6.-7.-8. or.).

<sup>1007</sup> - Adibidea: “Zuenian badakazue zakarrak apartatzeko ohiturak?”. 2003ko urtarrileko 14. zenbakian. (11. or.).

<sup>1008</sup> - Adibidea: “Zaborraz lepo egin aurretik”, Garbiñe A.-k sinatutako gutuna. 2004ko ekaineko 30. alean. (5. or.).

<sup>1009</sup> - Adibidea: “Koarta-Tenporak” Pello Zabalak idatzitakoa. 2002ko martxoko 5. zenbakian. (10.-11. or.).

<sup>1010</sup> - Adibidea: Birziklatzeari buruzko komikia. 2003ko urtarrileko 14. alean. (10. or.).

<sup>1011</sup> - “Bihar eta berandu”. 2003ko iraileko 21. zenbakian. (3. or.).

hurrengo bi urteetan %34an kokatzen dira. Alabaina, 76G. grafikoan agertzen diren portzentajeak eta 76H. taulako kopuruak ez datoz bat. 2002an hirurogei testu argitaratzen dira eta %36ko portzentajea kokatzen da. 2004an hirurogeita bat item kaleratzen dira eta portzentajea %34koa da. Azken urteko item kopuru orokorra 2002koa baino altuagoa denez, urteko kopuruak behera egiten du.

Gure azterketa-epean, gizarte ohiturei espazioa asko eskaini zaie aldizkarian eta atal gehienetan argitaratzen dira noizbait gai hauei buruzko informazio eta iritziak. Aztertu diren hogeita hamabi zenbakietan gizarte ohiturak jorratzen dituzten hamabi albiste<sup>1012</sup>, hogeita bi albiste labur<sup>1013</sup>, hogeita hamazortzi argazki-albiste<sup>1014</sup>, hiru elkarrizketa<sup>1015</sup>, hamasei erreportaje<sup>1016</sup>, sei argazki-erreportaje<sup>1017</sup>, hogeita hamaika zerbitzu-informazio<sup>1018</sup>, zazpi komiki<sup>1019</sup>, hamasei informazio erabilgarri<sup>1020</sup>, hamaika kale-inkesta<sup>1021</sup>, hamar gutun<sup>1022</sup>, artikulu bat<sup>1023</sup>, lau editorial<sup>1024</sup> eta ipuin bat<sup>1025</sup> kaleratu dira.

## H) ZERBITZUAK

Zerbitzuen gaia duten testuak gutxituz joan dira urteak pasa ahala. 2002an hurrengo bi urteetan baino zerbitzuei buruzko item gehiago kaleratzen dira, berrogeita lau item (%27) hain zuzen ere. 2003an bost item gutxiago kaleratzen dira eta portzentajea %23ra jaisten da eta 2004an hogeita hamazazpi item argitaratuta, portzentajea %20koa da. Beraz, gero eta gutxiago lantzen dira zerbitzu gaiak aldizkarian. Ezin ahaztu daiteke, urtetik urtera item kopuru orokorra hazi egin dela eta, urteko item kopuruetan hainbeste alde ez badago ere, portzentajeak jaitسي egiten direla. Zerbitzuen gaia lantzeko ez dira ohiko kazetaritza-generoak erabiltzen. Atal honetan, zerbitzu-informazioa eta denbora-pasak agertzen dira batik bat, ehun eta hamasei aldiz hain zuzen ere.

<sup>1012</sup>- Adibidea: “Kandelaria bero, negua gero”. 2002ko urtarrileko 3. alean. (11. or.).

<sup>1013</sup>- Adibidea: “San Isidroko jaiak Olatzen”. 2003ko maiatzeko 18. zenbakian. (11. or.).

<sup>1014</sup>- Adibidea: “Kalbaixo gainian” argazki zaharra. 2003ko otsaileko 15. alean. (25. or.).

<sup>1015</sup>- Adibidea: “Udako goizak kirolean eta jolasean”, Txantxangorri Aisialdi Taldeari egindako elkarrizketa. 2004ko ekaineko 30. alean. (22. or.).

<sup>1016</sup>- Adibidea: “Mutrikuko turismo bulegoa, urte guztian zabalik”. 2004ko maiatzeko 29. zenbakian. (18.-19. or.).

<sup>1017</sup>- Adibidea: “2002ko Berdel eguna”. 2002ko apirilko 6. alean. (14.-15. or.).

<sup>1018</sup>- Adibidea: 2003ko martxoko alean izan ezik, gainerako guztietan “Zorion agurren” atalean agertzen den informazioaren gaia, gizarte bizitzaren atalean sailkatu da.

<sup>1019</sup>- Adibidea: “Berdel Jaia Mutrikun”. 2002ko martxoko 5. zenbakian. (15. or.).

<sup>1020</sup>- Adibidea: “Sakaponak”, “Jolasen Txokoan” argitaratzen diren jolasen azalpenak. 2002ko ekaineko 8. alean.

<sup>1021</sup>- Adibidea: “Kalbaixuak ala Malenak?”. 2002ko iraileko 10. zenbakian. (9. or.).

<sup>1022</sup>- Adibidea: “Angelitak ekarri eta mutrikuarrak ahaztu”, Kepak sinatutako gutuna. 2003ko apirilko 17. alean. (5. or.).

<sup>1023</sup>- “Irailak 30, San Jeronimo, earrak jaixak, bai horixen”, sinatu gabeko artikulua. 2002ko iraileko 10. zenbakian. (19. or.).

<sup>1024</sup>- Adibidea: Malen jaiet buruzko editoriala. 2003ko uztailko 20. alean. (3. or.).

<sup>1025</sup>- Txantxangorri Aisialdi Taldeak Olentzerori idatzitako gutuna. 2004ko urtarrileko 25. zenbakian. (23. or.).

Halaber, zerbitzuen gaia hiru erreportajetan<sup>1026</sup> eta elkarrizketa batean<sup>1027</sup> ere jorratu da eta erreportaje guztiak Mutrikuko kiroldegiaren jarduerari buruzkoak izan dira.

### **Gizarte-gaien bilakaera bi hitzetan**

Ondorioz, gizarte-gaiak urtetik urtera indartu egiten dira Mutrikuko aldizkarian eta hazkunde orokorra, gai horien baitan dauden azpi-gaietan izan diren gora beheretan antzematen da. Hots, gai gehienak mantendu egin dira urteen joan etorriarekin: taldeak, gizarte ohiturak eta osasuna esaterako. Gizarte arazoei buruzko testuak apurka-apurka areagotu egin dira eta hezkuntzak nabarmen egin du gora. Lanen, ingurumenaren eta zerbitzuen atalak berriz, ahuldu egin dira poliki-poliki. Gizarte-gaiak lantzeko kazetaritza-genero ezberdinak erabili dira, baina informazioa beti nagusitu da. Hala ere, gai batzuk jorratzeko gehiago erabiltzen dira iritzi-generoak: lanak, ingurumena eta gizarte ohiturei buruzko testuetan adibidez.

---

<sup>1026</sup>- Adibidea: “Puntako kirol eskaintza Mutrikun”. 2002ko martxoko 5. alean. (22.-23. or.).


<sup>1027</sup>- “Kaleak egunero garbitzen”, Juan Mari eta Txomin kale garbitzaileei elkarrizketa. 2004ko uztaileko 31. zenbakian. (10.-11. or.).

#### 4.4.4.4- Kultura

Kultura da aldizkarian gehien agertzen den bigarren gaia. Hala eta guztiz ere, gizarte-gaien portzentajearekin alderatuz gero, kulturaren portzentajea erdira jaisten da. Hiru urteko epean kultura gai ezberdinen agerpena %22koa izan da. Hurrengo bi ataletan Mutrikuko hilabetekarian kulturaren agerpena eta bilakaera nolakoa izan den ikusiko dugu. Lehenengo eta behin, kultura gai ezberdinek 2002-2004 bitartean izan duten agerpena aztertuko dugu. Ondoren bigarren grafiko eta taularen bitartez, kultura gai bakoitzaren bilakaera urtez urte zein izan den azalduko dugu.

##### 4.4.4.4.1- Kultura 2002-2004 bitartean

77G.grafikoa



Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

77H.taula

	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agendak	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	35	34	16	27	45	29	34	220

Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Kalaputxi* aldizkaria aztertu den hiru urte hauetan 220 testutan agertzen da kulturaren gaia, aldizkarian gehien lantzen den bigarren gairik inportanteena bilakaturik. Alabaina, kulturarekin alderatuz gizarte-gaien agerpena bikoitza da 2002-2004 bitartean. Kultura gaien inguruko albiste eta erreportajeak gehienetan aldizkariko “Kultura” sailean lantzen dira. Atal hori zenbaki guztietan agertzen ez bada ere, nahiko finkoa da eta normalean kulturari orri oso bat edo bi eskaintzen zaizkio.

Kulturaren baitan gehien errepikatzen den gaia, komunikabideena da, hogeita hamabi aleetan berrogeita bost item kaleratu dira gai horren inguruan. Bataz beste, testu bat baino gehiago ale bakoitzean, beraz, hilerro jarraipena egiten zaion gaia dela esan daiteke. Ikus dezagun gai bakoitzaren agerpena nolakoa izan den, 77G. grafiko eta 77H. taularen ordena jarraituz.

#### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoen gaia hogeita hamabost testutan agertu da Mutrikuko aldizkarian eta atal hori da komunikabideen ondoren gehien agertzen dena. Hala ere, kategoria hau osatzen duten azpi gai guztiek ez dute agerpen-maila bera izan hiru urte hauetan. Antzerkiaren gaia hamar bider errepikatu da, musikaren gaia hemeretzi testutan agertzen da eta dantza sei aldiz aurkitu da hogeita hamabi zenbakietan.

Mutrikun badago musikarako zaletasunik, bandan eta musika eskolan esate baterako. Bertan, jende ugari biltzen da eta herrian musikaren arloan dagoen mugimendu hori hilabetekarian islatzen da. Beraz, aldizkarian gehien errepikatzen den arte eszenikoa musika izatea ez da kasualitate hutsa. *Kalaputxi* argitaratzen hasten denetik, herriko musika taldeak ohartu dira herri-aldizkaria euren ekitaldiak iragartzeko tresna ezin hobea dela, eta konturatu dira hilabetekariak euren ekitaldiak iragartzeko bozgorailu funtzioa betetzen duela herrian. Bestalde, hilabetekarian ari den lan-taldeak oso kontuan izan du musikaren gaia urte hauetan, musika talde ezberdinei elkarrizketak egin dizkiete-eta.

#### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoen kategorian bost azpi gai daude eta gehien errepikatzen direnak, arte ondarea, artisau eta eskulanen atala dira. Gainerako diziplina artistikoak gutxi agertu dira *Kalaputxin* gure azterketa-epean. Pinturari buruzko bi testu aurkitu dira, eskultura behin baino ez da izan elkarrizketa batean gai nagusia, artisau eta eskulanen gaia hamar bider agertu da, arte ondareari buruzko hamasei item kaleratu dira eta argazkigintza eta kartelgintza bost aldiz errepikatu da. Artisau eta eskulanen gaia, Mutrikuko arte tailerraren eskolarekin zerikusia duten testuetan agertu da batez ere. Berrogeitik gora pertsona heldu, hogeitik gora haur eta lau irakasle ari dira Mutrikuko Eskolan gure azterketa-epean.

Lan-taldearentzat, Mutrikuko historian garrantzia izan duten eraikin eta gaiak herriari ezagutzera ematea garrantzitsua da eta atal honetan arte ondareari buruzko gaiak nagusitzearen

arrazoi nagusia horixe da. Gogora dezagun Jasone Mendizabal Topaguneko Zuzendariak “Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea”<sup>1028</sup> txostenean jasotzen dituen hitzak:

*“Topaguneko tokiko hedabideek gertuko/tokiko informazioa jorratzen dute. Horixe da, hurbileko informazioa hain zuzen ere, sektore honen lehengaia. Hedabide hauek giza komunitate horretan gaurkotasunezkoak diren informazio eta albisteak eskaintzen dituzte. Horren gainean, badira Moragasen definizioan jasotzen diren bestelako funtzioak ere betetzen dituzten tokiko hedabideak: arte zein kultur ondarea jorratzen dutenak nahiz memoria historikoa jasotzen dutenak adibidez. Baina honelako edukiak hedabideok aberastu ahal badituzte ere, ez dira ezinbestekoak tokiko hedabideen alorrean”.* (Mendizabal, 2005: 140).

77G. grafikoan agertzen diren kopuruaren arabera, arte eszenikoen eta arte plastikoen portzentajeak batzen baditugu, kultura gaien herena bi horiek osatzen dute hiru urte hauetan.

### **C) GASTRONOMIA**

Gastronomia gutxien lantzen den gaia da eta agertu denean, sukalde-errezeta moduan kaleratu da guk aztertu ditugun hogeita hamabi aleotan. Gaia hamasei testutan agertzen da eta horietatik hamahiru, momentu puntualetan argitaratzen diren sukalde-errezetak izan dira.

### **D) LITERATURA**

Literatura hogeita zazpi idatzitan da protagonista *Kalaputxin*, kultura gai guztien artean %12ko portzentajea izanik. Atal honen baitan, bertsolaritza nagusitzen da, hamabost aldiz agertzen baita, literatura eta liburuen gaia ordea, hamabi testutan. Bertsolaritza, zein liburu eta literaturari buruzko testu guztiek zerikusi zuzena dute herriko talde eta herrian bertan antolatzen diren ekitaldiekin. Hots, Mutrikuko Bertso Eskolak herrian egiten duen lana eta antolatzen dituen ekitaldiak aldizkarian jasotzen dira. Era berean, urtero antolatzen den “Hizki marrazki” literatur eta marrazki lehiaketari buruzko testuak eta Mutrikun izan diren liburu aurkezpenei buruzko informazioak jasotzen dira.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

2002-2004 bitartean komunikabideena da gehien lantzen den kultur gaia, %20ko portzentajearen kokatuz. Komunikabideen barnean, zine eta telebistarekin zerikusia duten testuak hamalau izan dira eta herri komunikabideei buruzko idatziak hogeita hamaika. Hau da, komunikabideen kopurua zine eta telebistaren bikoitza da. Kontuan izan behar da gure azterketa-

---

<sup>1028</sup>- Askoren artean. (2005): “*Kazetaritza Euskaraz: oraina eta geroa*”, EHU, Bilbo.

epean aldizkaria sortu berria dela herrian eta bestalde, 2003an “*Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*” sortzen dela.

*“Editorialean edo gutunetan agian agertuko da gure inguruko informazio edo iritzirik, bestela gure bururi ez diogu inoiz erreportajerik eta horrelakorik egin. ‘Hitza’-ri ordea, egin diogu jarraipena aldizkarian, ‘Hitza’-ri buruzko elkarrizketa eta erreportaje gehiago argitaratu ditugu, Kalaputxiri buruzkoak baino”*<sup>1029</sup>, zehazten du Joseba Palenzuelak.

## F) EUSKARA

77G. grafikoan ikus daitekeenez, euskararen gaia %13ko portzentajea kokatzen da, aztertu ditugun hogeita hamabi zenbakietan hogeita bederatzi bider errepikatuz. Euskara ez dago gehien lantzen den gaien artean *Kalaputxin*. Izan ere, lan-taldeak ez du euskararen gaiarekin diskriminazio positiboa egiteko beharrik sentitzen, naturaltasun osoz bizi baitute hizkuntza.

*“Normalean ekitaldi guztiak Mutrikun euskaraz egiten dira, beraz, guk ez dugu diskriminazio positiboa egiteko behar hori sumatzen. Euskararen aldeko kanpainak, adibidez Kontseiluak antolatzen dituenak eta, gu ez gara horretan larregi sartzen. Hain naturala da guretzat euskaraz bizitzearena, kanpainen beharra ez dela guretzat handia”*<sup>1030</sup>. Gogoratu, *Kalaputxi* hilabetekaria ez duela kultur edo euskara elkarte batek argitaratzen, komunikazio elkarte batek baizik.

## G) KULTUR AGENDA

Kultur ekitaldi ezberdinak jasotzen dituzten hogeita hamalau kultur agenda kaleratu dira *Kalputxin* guk aztertu ditugun zenbakietan. Testu guztiak agenda egitura dute eta horietako hogeita hamabi, hileroko argitaratzen diren kultur agendak dira; beste bi agendek herriko jaiei buruzko ekitaldi ezberdinak biltzen dituzte.

### **Kultura bi hitzetan**

Laburbilduz, kulturari buruzko testuak dira aldizkarian gehien agertzen diren bigarren gairik garrantzitsuenak 2000-2004 bitartean. “Kultura” atala nahikoa finkoa da eta kultura gaiak bertan agertzen dira gehienetan, nahiz eta aldizkarioko beste sailetan ere jorratzen diren. Hiru urteotan gehien errepikatu diren kultura gaiak honako hauek izan dira orden honetan: komunikabideak, arte eszenikoak, arte plastikoak eta agendak. Komunikabideen atalean herri

<sup>1029</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.


<sup>1030</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

komunikabideen testuak dira protagonista nagusiak, 2002-2004 bitartean Mutrikun bi herri komunikabide sortu dira, *Kalaputxi* eta *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza* hain zuzen ere.

Arte eszenikoaren barnean musika nagusitu da, eta arte plastikoaren baitan arte ondarea eta artisaua eta eskulanak errepikatu dira gehien hiru urteetan. Gastronomía, euskara eta literatura gutxien landu diren kultur gaiak dira. Dena dela, agerpen-mailari dagokionez, gai batzuen eta besteen artean ez dago alde handirik, gehien agertzen den gaia eta gutxien agertzen den gaiaren artean zortzi puntuko aldea baitago eta gai guztiak, %7-%20 tartean kokatzen dira.

#### 4.4.4.4.2- Kulturaren bilakaera

78G.grafikoa



Kultura gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

78H.taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agenda	GUZTIRA
	2002	15	9	5	9	13	9	11	71
	2003	12	12	7	9	14	12	11	77
	2004	8	13	4	9	18	8	12	72

Kultura gaien bilakaera, 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

78H. taulan agertzen diren datuen arabera, kultur gaiei aldizkarian eskaintzen zaien espazioa oso finkoa izan da gure azterketa-epan. Lehenengo urtetik azken urtera bitartean



kultura gaiak gora egin dute baina hazkundera oso motela izan da, urtero kulturarekin zerikusia duten gaien kopuruak ez baitu gora behera handirik izan, 71 eta 77 itemen artean kokatuz.

### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoen agerpena gutxituz joan da urteak pasa ahala; 2002tik 2004ra bitartean item kopurua eta portzentajeak erdira jaisten dira-eta. Atal honetan urtero musikaren gaia nagusitzen da, baina bereziki 2002an, bederatzi testutan<sup>1031</sup> argitaratzen den gaia delako. Antzerkiari buruzko hiruzpalau testu aurkitu dira urtero aldizkariaren orrietan, gehien landu den urtea 2003a izanik, antzerkia gai nagusi duten lau idatzi<sup>1032</sup> kaleratuz. Dantza da atal honetan urtero presentzia gutxien duen gaia, hiru item baino gehiago ez dira inoiz kaleratu guk aztertu dugun epean, 2002an dantzari buruzko hiru testu<sup>1033</sup> argitaratzen dira eta urte horretan agertzen da gehien.

### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoen baitan dauden gaiak urteekin gehiago agertzen dira Mutrikuko hilabetekarian, bere portzentajeak hasierako urtetik bukaerara arte bost puntutan gora eginez. Hau da, 2002an arte plastikoen gaia bederatzi testutan (%13) agertzen da eta 2004an hamahiru bider (%18) errepikatzen da, ale bakoitzean behin gutxienez agertuz. Arte ondarea eta artisau eta eskulanei buruzko testuak gailentzen dira urtero *Kalaputxin*. Arte ondarearen areagotzea hiru urteko epean nabarmena da, hasierako bi urteetan hiruzpalau testutan agertzen bada ere, 2004an arte ondarea gai nagusi duten bederatzi item<sup>1034</sup> kaleratzen dira.

Artisau eta eskulanei buruzko gaiak lehengo bi urteetan agertzen dira *Kalaputxin*, 2002an lau aldiz eta 2003an sei testutan<sup>1035</sup>. 2004an ez dago gai horri buruzko informazio eta iritzirik Mutrikuko aldizkarian.

Argazkigintza eta kartelgintza, pintura eta eskultura oso gutxi agertu dira aldizkarian lan honen azterketa-epean. Argazkigintzari urtean bi testu<sup>1036</sup> (2002 eta 2003an) eskaini zaizkio gehienez. Pinturari buruzko bi informazio<sup>1037</sup> kaleratzen dira 2004an bakarrik, eta eskultura gai nagusia den elkarrizketa bakarra<sup>1038</sup> aurkitu da aztertu ditugun hogeita hamabi aleetan.

<sup>1031</sup>- Adibidea: "In Memoriam mutrikuar musika taldeak lehenengo maketa kalean" erreportajea. 2002ko apirilko 6. alean. (22. or.).

<sup>1032</sup>- Adibidea: "Antzerkiaz blai" albiste laburra. 2003ko urriko 22. zenbakian. (11. or.).

<sup>1033</sup>- Adibidea: "Arantza Lasarte Uranga, oinak airean dituela" albiste. 2002ko azaroko 12. alean. (20. or.).

<sup>1034</sup>- Adibidea: "Atxukaleko bateria, herria defendatu beharra zegoeneko oroitarriak" erreportajea. 2004ko otsaileko 26. zenbakian. (22.-23. or.).

<sup>1035</sup>- Adibidea: "Artisautza ofizio bilakatzuz" erreportajea. 2003ko otsaileko 15. alean. (14.-15. or.).

<sup>1036</sup>- Adibidea: "Argazki rallya" albiste laburra. 2003ko martxoko 16. zenbakian. (9. or.).

Arte eszenikoei buruzko testuek behera egin ahala, arte plastikoei buruzko idatziek gora egin dute hiru urte hauetan; beraz, kopuru eta portzentajeetan inbertsioa eman dela ondoriozta daiteke, beti ere bi diziplina horiek komunikabideen gaiarekin batera, kulturen nagusi izan direla presente izanik.

### C) GASTRONOMIA

Gastronomiaren gaiak gorabeherak izan ditu hiru urte hauetan. Hots, 2002an bost sukalde-errezeta<sup>1039</sup> kaleratzen dira, %7ko portzentajea izanik. 2003an, bost sukalde-errezeta eta gastronomiari buruzko bi erreportaje<sup>1040</sup> argitaratzen dira, urte horretako portzentajea %9an kokatuz. 2004an errezeta kopurua jaitsi egiten da eta urte horretan hiru sukalde-errezeta eta gastronomiaren gaia agertzen den komiki bat<sup>1041</sup> aurkitu dira.

### D) LITERATURA

Literaturari buruzko testuak %13ko portzentajearen mantentzen dira 2002-2004 bitartean eta urtero kaleratzen da testu kopuru bera, bederatzi idatzi urte bakoitzean hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, 2003an portzentajea %12ra jaisten da, urte bereko item kopuru orokorra altuagoa delako. Atal horren barnean 2003 eta 2004an bertsoaritza da protagonista nagusia, 2002an literatura eta liburuei buruzko item gehiago argitaratzen direlako, bost testu<sup>1042</sup> alegia. Bertsoaritzaren gaia 2003an lantzen da bereziki, urte horretan sei testu<sup>1043</sup> kaleratuz.

### E) KOMUNIKABIDEAK

Komunikabideak dira kultur gaien artean gehien errepikatzen direnak gure azterketa-epean eta gai honen presentzia urtetik urtera areagotu egiten da. 2002 eta 2003an komunikabideen gaia hamahiru eta hamalau idatzitan agertzen da hurrenez hurren eta 2004an gai bera hamazortzi itemetan jorratzen da, portzentajeak zazpi puntutan gora eginez eta %25ean kokatuz. Komunikabideen baitan urtero herri komunikabideen gaia gailentzen zaio zine eta telebistaren gaiari. Herri komunikabideei buruzko hamar item argitaratzen dira urtero 2004an izan ezik, orduan hamaika testutan<sup>1044</sup> jorratzen baita gaia. Zine eta telebistaren gaia 2004an agertzen da aurreko urteetan baino gehiago eta urte horretan zazpi idatzitan<sup>1045</sup> aurkitu dugu.

<sup>1037</sup>- Adibidea: "Bittor Arizmendi: bitzita bat kolore artean" erreportajea. 2004ko martxoko 27. alean. (14.-15. or.).

<sup>1038</sup>- "Aniceto Uranga *Txorixa*", Aniceto Uranga eskultoreari egindako elkarrizketa. 2004ko urriko 33. zenbakian. (14.-15. or.).

<sup>1039</sup>- Adibidea: "Berdel rosketea erramu eran" errezeta. 2002ko ekaineko 8. alean. (9. or.).

<sup>1040</sup>- Adibidea: "Kalbaixuak laino artean" erreportajea. 2003ko iraileko 21. zenbakian. (16.-17. or.).

<sup>1041</sup>- Tortila lehiaketari buruzko komikia. 2004ko uztaileko 31. alean. (9. or.).

<sup>1042</sup>- Adibidea: "Liburu bilketa" albatea. 2002ko urtarrileko 3. zenbakian. (22. or.).

<sup>1043</sup>- Adibidea: "Plazatik Gaztetxera: II. edizioa" albatea. 2003ko maiatzeko 18. alean. (19. or.).

<sup>1044</sup>- Adibidea: "Hitza lanbide bihurtzen denean" elkarrizketa. 2004ko ekaineko 30. zenbakian. (14.-15. or.).

<sup>1045</sup>- Adibidea: "Biharko ekoizpenak, ikus-entzunezkoen ekoizpenak" erreportajea. 2004ko ekaineko 30. alean. (7.-8. or.).

## **F) EUSKARA**

Euskara presentzia galduz joan da urteekin batera. 2002an euskara gai nagusia duten bederatzi item (%13) argitaratzen dira, 2003an portzentajea %16ra igotzen da hamabi testu kaleratuz, baina 2004an berriz ere behera egiten du testu kopuruak, zortzi idatzi kaleratzen dira, urte horretako portzentajea %11an kokatuz. “Euskara” noizbait aldizkariko atala izan da eta bertan euskararekin zerikusia duten gaiak jorratu izan dira, baina ez da inoiz aldizkariko sekzio finkoa izan eta gure azterketa-epean 2002an eta 2003an aurkitu dugu sail hau soilik.

## **G) KULTUR AGENDA**

Kultur agenda kopuruak ez du gora behera handirik izan hiru urteotan eta finko mantendu da. 2002an hamaika ale aztertu beharrean, hamar zenbaki ikertu ditugu eta bakoitzean kultur agenda bat aurkitu da. Halaber, 2002ko martxoko 5. alean Berdel jaien agenda azaldu da. 2003an hamaika kultur agenda argitaratu dira eta 2004an hamaika kultur agenda eta 2004ko uztaileko 31. zenbakian, “Malenak gaztetxian” agenda. 78H. taulako kopuru absolutuetan ez dago ezberdintasun handirik hiru urteen artean, baina 78G. grafikoan azaltzen diren portzentajeei begiratuz, 2003an item kopurua aurreko urteko bera izanik, portzentajea puntu bat baxuagoa da, %14koa. 2004an, aldiz, item bat gehiago kaleratuz portzentajeak bost puntutan egiten du gora, %17an kokatuz. Urteko item kopuru orokorra zenbat eta altuagoa izan, urte bereko portzentajea orduan eta baxuagoa da.

### **Kulturaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, kultura gaien hazkundera apala izan da hiru urteetan. Arte eszenikoak erdira jaitsi dira eta bertan musika izan da nagusi, dantza eta antzerkia urtero gutxi landu baitira. Arte plastikoak indartu egin dira, batez ere arte ondarea, artisau eta eskulanean gaiak, urtetik urtera goranzko joera argia erakutsiz, ez ordea argazkigintza, kartelgintza, pintura eta eskultura, oso gutxi agertu direlako urtero. Gastronomiaren gaiak gorabeherak izan ditu eta azken urtean apur bat behera egin du. Literatura kopuru antzekeotan mantendu da, urtetik urtera bertsolaritzari buruzko testuak nagusituz.


Komunikabideei buruzko testuen hazkundera nabarmena izan da, herri komunikabideak protagonista nagusiak izanik. Euskararen gaia 2003an agertzen da bereziki, baina 2004an nabarmen jaisten da eta agenda kopuruak etengabe egiten du gora urtetik urtera.

#### 4.4.4.5- Kirola

Kirol gai ezberdinek badute tokirik Mutrikuko aldizkarian. Orokorrean 2002-2004 bitartean gehien agertzen den hirugarren gaia kirolena baita. Dena dela, gizarte-gaiak baino lau aldiz gutxiago agertzen dira kirolak eta kultura gaiak baino bi aldiz gutxiago. Ikus dezagun hurrengo grafiko eta tauletan kirolek izan duten garapena *Kalaputxi* aldizkarian. Lehenengo eta behin, kirol gai bakoitzak hilabetekarian izan duen agerpen orokorra nolakoa izan den erakutsiko dugu. Ondoren, bigarren grafiko eta taularen bitartez, kirol gaien baitan dauden kategoria ezberdinek izan duten bilakaera aztertuko dugu.

##### 4.4.4.5.1- Kirola 2002-2004 bitartean

79G. grafikoa



Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Kalaputxi* aldizkarian hiru urteko epean.

79H.taula

	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	63	48	11	4	126

Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Kalaputxi* aldizkarian kirola gehien errepikatzen den hirugarren gaia dela esan dugu arestian. Guztira guk aztertu ditugun hogeita hamabi zenbakietan kirolak protagonista diren 126 testu aurkitu dira. Beraz, ale bakoitzean batz besteko kirolei buruzko hiru item baino apur bat

gehiago argitaratzen dira. Hilero “Kiolak” atalean gaia jorratzeko toki berezia du aldizkariak, bertan kirol ezberdinei buruzko albiste laburrak kaleratzen dira-eta.

Lan-taldeak gaiak aukeratu eta lantzerako orduan irakurlea kontuan hartzen badu ere, badira arrotzagoak egiten zaizkien gaiak eta ondorioz, gutxiago lantzen dituztenak. “*Gu saiatzen gara gure gustukoak bakarrik diren gaiak ez ateratzen, irakurlea gogoan dugu, baina saihestezina da norberaren gustuak nonbaiten agertzea. Esaterako, kirolaren gaia guztioi nahiko urrun geratzen zaigu*”<sup>1046</sup>, aitortzen du aldizkariko zuzendariak.

79G. grafikoak eta 79H. taulak adierazten dutenez, kirolean bi bloke nagusi daude: talde kirola eta banakako kirola eta horiek dira hain zuzen ere, esanguratsuenak aldizkarian. Metodologian azaldu dugun bezala, emaitzen dispersioa saihesteko asmoz, kirolak bi atal nagusitan elkartu dira.

Banakako kirolen barnean azpi-kategoria gehiago dauden arren, talde kirola gehiagotan agertzen da *Kalaputxin*, hirurogeita hiru aldiz errepikatzen da talde kirola, kirolen erdia izanik. Gure azterketa-epean banakako kirola berrogeita zortzi bider azaldu da eta % 38ko portzentajea kokatu da.

Kirol guztien artean, futbola eta mendia dira gehien errepikatzen direnak, bakoitza hamazortzi bider agertu da guk aztertu ditugun hogeita hamabi zenbakietan. Horrek zerikusi zuzena dauka herrian kirol diziplina horietan biltzen diren protagonistekin eta, era berean, aldizkaria egiten duen lan-taldeak protagonista horiekiko duen gertutasunarekin. Izan ere, *Kalaputxira* gehien hurbildu diren bi kirol taldeekin hartu eman handiagoa izan dute lan-taldekoek.

### **A) TALDE KIROLA**

Esan bezala, talde kirolen baitan ere, futbola eta mendia nagusitzen dira, baina arraunketari buruzko testuak ere ugariak izan dira hiru urte hauetan; guztira, arraunketa hamasei idatzitan izan baita protagonista. Eskubaloia hamaika testutan aurkitu dugu, eta talde kirolean sailkatu ditugun saskibaloia eta errugbia aipatu ere ez dira egiten *Kalaputxin*. Emaitzok Mutrikuko kirol paisaiaren isla direla esan daiteke.

Futbolariak eta mendizaleak harreman etengabea dute aldizkariko lan-taldekoekin eta bien arteko feedbacka lortu da urte hauetan. Gauza bera gertatu da eskubaloia taldearekin, batez ere azken urtean harremana handitu eta finkatu baita. Bestalde, Mutriku kostako herria da eta bertan

---

<sup>1046</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Joseba Palenzuela, 2006-02-23). Elkarrizketa osoa CDan.

arraunak duen presentzia aldizkarian islatuta agertzen da, tesi honetan aztertu diren gainerako aldizkarietan ez bezala.

### **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kirolean igeriketa eta ur kirolak dira presentzia gehien dutenak, hamabi idatzitan protagonista izanik. Itsasoa duen herria denez, Mutrikun ur kiroleko zaletasun handiagoa dago eta emaitzak horren adierazle garbia dira. Lan honetan aztertu diren gainerako aldizkariekin konparatuz, *Kalaputxin* agertzen dira soilik ur kirolak eta arrauna.

Bestalde, banakako kirolen artean, atletismoa eta pilota beste kirol diziplinak baino gehiagotan agertzen dira. Bakoitza hamar bider izan da albiste 2002-2004 bitartean.

Herri kirolak zortzi aldiz errepikatzen dira, txirrindularitza eta igeriketa zazpi idatzitan aurkitu dira eta judoa behin bakarrik izan da kirolean protagonista nagusia. Banakako kirol atal hau osatzen duten eskia, duatloi eta triatloia, automobilismoa eta motoziklismoa ez dira inoiz agertu aldizkarian guk aztertu dugun epean.

### **C) EHIZA ETA XAKEA**

Guztira ehiza eta xakeari buruzko hamaika item aurkitu ditugu hogeita hamabi aletan. *Kalaputxi* aldizkarian xakea kirola dela argi dago, agertzen denean (sei bider) “Kirolak” sailean kaleratzen da-eta. Ehizaren gaia bost testutan jorratu da eta beti aldizkariko bestelako sekzioetan landu da, “Auzoz auzo”, “Kale-inkesta” eta “Komikixa” sailetan, baina inoiz ez “Kirolak” atalean.

### **D) KIROL AGENDA**

Atal honetan kirol anitz biltzen dituzten testuak (kirol bat baino gehiago agertzen diren testuak edo agendak) eta kirol atalean sortu ditugun hamazortzi kategorietatik kanpo dauden kirolak sailkatu dira. Orotara lau testu sartu dira atal horretan eta horietatik bakarrak dauka agenda itxura, gainerakoak albiste laburrak baitira. *Kalaputxin*, tenisa, spinning-a eta Body Combact-a aurkitu ditugu.

#### **Kirola bi hitzetan**


Ondorioz, kirola gehien agertzen den hirugarren gaia da *Kalaputxin*. Gaiari hileroko orri bat eskaintzen zaio kirol ezberdinei buruzko informazio laburrekin. Orokorrean talde kirolak banakako kirolak baino presentzia handiagoa dute aldizkarian eta emaitzak horren erakusle dira,

gehien errepikatzen diren bi kirolak, talde kirolak direlako: futbola eta mendia. Apur bat gutxiago, baina nahiko portzentaje antzerakoetan, arraunketa azaltzen da, kostako herrietan egiten diren kirolen erakusle argia. Mutrikuko hilaetekarian bestelako kirol batzuei ere egiten zaie tokia: igeriketa, eskubaloia, atletismoa, eta pilota %10-%8ko portzentajeetan kokatzen da. Gainerako talde kirol eta banako kirolak %6tik behera.

Xakea eta ehizaren agerpena %9koa izan da eta kirol agenda kopurua nahiko baxua, %3koa besterik ez.

#### 4.4.4.5.2- Kirolaren bilakaera

80G.grafikoa



Kirol gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Kalaputxi* aldizkarian, 2002tik 2004ra bitartean urtez urte.

80H. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
	2002	16	16	2	1	35
	2003	15	11	5	1	32
	2004	32	21	4	2	59

Kirol gaien bilakaera, 2002-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Urteak pasa ahala kirolari espazio gehiago eskaintzen zaio *Kalaputxin* eta emaitzak horren erakusle dira. Hasierako bi urteetan, urteko kirol testuen kopurua oso antzerakoa da, 2002an apur bat altuagoa izanik, baina benetako hazkundera 2004an nabaritzen da, 2002an baino hogeita lau

testu gehiago eta 2003an baino hogeita zazpi item gehiago argitaratzen baitira. Arestian aipatu bezala, lan-taldeko kideen artean ez dago kirol gaiak lantzeko zaletasun handirik eta urrun geratzen zaie diziplina hori. Hasierako bi urteetan nahi baino gutxiago lantzen dutela ikusita, 2004an arreta gehiago jartzeko ahalegina egin da. Bestalde, bai kirol taldeek zein aldizkariko kideek denbora behar izan dute elkarren arteko hartu emana sortu eta finkatzeko.

### A) TALDE KIROLA

Orokorrean, aldizkarian talde kirola banakako kirola baino gehiago agertzen da eta emaitzak begiratzea baino ez dago hori horrela dela frogatzeko. Izan ere, urtetik urtera talde kirol ezberdinei buruzko testuak ugaltu egiten dira. 2004an, hasierako urtean kaleratzen den testu kopurua bikoiztu egiten da: 2002an talde kirol ezberdinei buruzko hamasei testu aurkitu dira eta 2004an hogeita hamabi item. 80G. grafikoa eta 80H. taula begiratzen badugu, talde kirolen portzentajeak ez direla kopuru absolutuen neurri berean hazten ohartuko gara. Behin baino gehiagotan lan honetan errepikatu den bezala, urte bakoitzeko portzentajea, urte bereko kopuru absolutuen arabera kalkulatu da. Kasu honetan, 2002an kirol testuak guztira hogeita hamabost dira eta talde kirolen portzentajea %46koa da; 2004an guztira berrogeita hemeretzi kirol idatzi argitaratzen dira eta portzentajea %54an kokatzen da.

Talde kirolen barnean, urtero futbola eta mendia dira gehien agertzen diren kirol diziplinak. 2002 eta 2004an futbolari buruzko zortzi testu kaleratu dira (lau item urte bakoitzean) eta 2004an hamar idatzitan<sup>1047</sup> agertzen da futbola. Futbolaren baitan Mutrikuko neska futbolariak agertzen dira gehienetan, nesken taldeak aldizkarira joateko ohitura gehiago izan duelako.

Mendiari buruzko bost testu kaleratzen dira urtero, 2004an izan ezik, orduan zortzi itemetan<sup>1048</sup> da eta protagonista mendia.

Arraunketari aldizkarian eskaintzen zaion espazioa hazi egin da urteekin eta 2004an agertzen dira arraunketari buruzko testu gehien<sup>1049</sup> (zazpi item).

Eskubaloia ere gero eta gehiago agertzen da *Kalaputxin*, batez ere azken urtean, kirol hau zazpi aldiz<sup>1050</sup> errepikatzen baita.

<sup>1047</sup> - Adibidea: "Futbola momentu onean Mutrikun" albistea. 2004ko apirilko 28. alean. (21. or.).

<sup>1048</sup> - Adibidea: "Burumendi Mendi Elkartea, mende erdia mendiz mendi" erreportajea. 2004ko martxoko 27. zenbakian. (20.-21. or.).

<sup>1049</sup> - Adibidea: "Mutrikuko arraun taldea" albiste laburra. 2004ko urtarrileko 25. alean. (20. or.).

<sup>1050</sup> - Adibidea: "Jauja eskubaloia taldea" albiste laburra. 2004ko ekaineko 30. zenbakian. (20. or.).



## B) BANAKAKO KIROLA

Banakako kirolari dagokionez eta 80G. grafikoko portzentajeen arabera, urtetik urtera gutxiago agertzen den kirol multzoa da. Hots, 2002an banakako kirolak hamasei aldiz agertzen dira *Kalaputxin* eta urte horretan %46ko portzentajea kokatzen dira. 2003an aldiz, hamaika testutan agertzen dira banakako kirol ezberdinak, portzentajea %34ra jaitsiz. 2004an inoiz baino banakako kirolari buruzko testu gehiago argitaratzen dira, hogeita bat item hain zuzen ere, baina portzentajea %36koa da, 2002 urteko portzentajea baino baxuagoa da testu kopurua altuagoa izanik.

Banakako kirolen barnean, igeriketa eta ur kirolak agertzen dira gehien, lehenengo eta bigarren urtean hiru testu izatetik, 2004an sei informaziotan<sup>1051</sup> agertzera pasatu da. Igeriketaren ostean, atletismoa eta pilota dira gehien errepikatzen diren bi kirolak.

Atletismoa 2002an agertzen da batez ere, urte horretan lau testu<sup>1052</sup> argitaratzen baitira. Pilota urtetik urtera gehiago lantzen da aldizkarian eta 2004an agerpena maila altuena lortzen du bost idatzitan<sup>1053</sup>.

Herri kirolak eta txirrindularitza gutxiagotan agertu diren arren, badute lekurik *Kalaputxin*. Herri kirolak bi aldiz agertzen da 2002an eta sei aldiz<sup>1054</sup> 2004an. Txirrindularitza gehien agertzen den urtea 2002a da, lau testutan<sup>1055</sup> jorratzen baita.

Judoa behin bakarrik aurkitu dugu aztertu ditugun hogeita hamabi aleetan, 2002ko martxoko 5. alean kaleratutako “Judoa” albistean. Eskia, automobilismoa eta motoziklismoa ez dira albiste Mutrikun *Kalaputxi* aldizkariarentzat.

## C) EHIZA ETA XAKEA

Ehiza eta xakeari buruzko testuek gora egin dute urteekin, baina igoera nabarmenena 2003koa da: bost item kaleratzen dira eta %16ko portzentajea kokatzen da atal hau. Urte berean kaleratzen dira ehizari buruzko testu gehien, hiru item<sup>1056</sup> hain zuzen ere. Xakea 2004an agertzen da bereziki, hiru testutan<sup>1057</sup> protagonista izanik. Ehizak urteekin presentzia galdu ahala, xakea gero eta gehiago agertzen da aldizkarian.

<sup>1051</sup>- Adibidea: “Urpekaritza” albiste laburra. 2004ko otsaileko 26. alean. (20. or.).

<sup>1052</sup>- Adibidea: “Mutrikuko VII. Herri krossa” albiste laburra. 2002ko urriko 11. alean. (8. or.).

<sup>1053</sup>- Adibidea: “Denok bat, pelota elkarte” albiste laburra. 2004ko urtarrileko 25. zenbakian. (21. or.).

<sup>1054</sup>- Adibidea: “Mutrikuko Herri kirol taldea” albiste laburra. 2004ko maiatzeko 29. alean. (20. or.).

<sup>1055</sup>- Adibidea: “Pello Arreitunandiarekin hizketan” elkarrizketa. 2002ko urtarrileko 3. zenbakian. (12.-13. or.).

<sup>1056</sup>- Adibidea: “Basurde ehizan” erreportajea. 2003ko otsaileko 15. alean. (12.-13. or.).

## D) KIROL AGENDA

Atal honetan ez da gora behera handirik izan hiru urteotan, %3an kokatu baita urtero kirol agenden portzentajea. Atal honetan *Kalaputxi* aldizkarian sartu diren bost itemak, lan honetarako sortu diren kategoria ezberdinetan sailkatu ezin daitezkeen kirolak izan dira.

Kirol ezberdinen emaitza edo agendak argitaratzeko ohiturarik ez dago *Kalaputxin*. Guk aztertu ditugun hogeita hamabi zenbakietan behin bakarrik aurkitu dugu kirol agenda bat: 2004ko martxoko 27. alean argitaratzen den “Tenis taldea” informazioak agenda itxura dauka eta bertan tenis taldekoen sailkapenak agertzen dira. Gainerako hiru itemak, albiste laburrak izan dira: 2002ko apirileko 6. zenbakian “Mutrikuko VII. Tenis txapelketa” albiste laburra kaleratzen da, 2003ko iraileko 21. alean, “Musika lagun kirola egiten” spinning-ari buruzko albiste eta 2004ko martxoko 27. zenbakian “Body Combact maratokia” albiste laburra aurkitu dugu.

### **Kirolaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, urteak aurrera egin ahala, kirola gero eta garrantzitsuagoa bilakatu da *Kalaputxin* eta kirol testuen hazkundera 2004an oso nabarmena da. Lan-taldeari kirolen gaia urrun geratzen bazaio ere, urteekin batzuen eta besteen arteko harremana sendotu dela erakusten dute emaitzek. Talde kirola indartu egiten da urtetik urtera eta hori kirol testu kopuruan nabaritzen da, futbola, mendia, arraunketa eta eskubaloari buruzko testuak areagotuz joan dira-eta.

Banakako kirolak, ostera, beheranzko joera erakusten du urteekin. Dena dela, igeriketa eta ur kirolei buruzko testuak 2004an gehiago dira aurreko bi urteetan baino. Pilota ere gero eta gehiago agertzen da aldizkarian, baina atletismoa, herri kirolak eta txirringaritzaren agerpen-maila gutxituz doa.

Ehiza eta xakearen atala 2003an agertzen da bereziki, ehizak urteekin protagonismoa galdu ahala, xakeak irabazi egiten du. Xakea beti kirolen baitan agertzen da; ehiza, ordea, aldizkariko bestelako ataletan agertzen da *Kalaputxin*.

Kirol agendek agerpen eskasa izan dute beti, agenda itxura duten testuak ez direlako kaleratu. Bestalde, guk sortu ditugun kategorietatik kanpo dauden kirolak ere gutxi izan dira: tenisa, spinning-a eta Body Combact-a.

<sup>1057</sup>- Adibidea: “Xakea kirola dela zalantzarik ez dago”, Mutrikuko Txaturanga Xake taldekoei egindako elkarrizketa. 2004ko ekaineko 30. zenbakian. (21. or.).

#### **4.4.5- KALAPUTXI ALDIZKARIAREN ARDATZAK**

*Kalaputxi* aldizkaria 2001eko urrian kaleratu zen eta lan honetan bere ibilbidearen lehenengo hiru urteak aztertu dira. Aldizkaria oso berria da, lan-taldean ez dago kazetaritza ikasi duen inor eta 2002-2004 epea ikasketa prozesua izan dela esan daiteke. Hiru urte horietan aldizkarian lantzen diren generoak nahiko finkoak izan dira, beti ere **informazioa** nagusituz. Generoak irakurleen ikuspegitik landu dira, ez baitago aldizkarian kazetaririk. Bestalde generoen arteko orekari ez zaio arreta berezirik jarri.

##### **4.4.5.1- Kazetaritza-generoak**

Urtetik urtera hazi egiten da **informazioa**, baina orri kopuruak ez du gora egin. Beraz, edukien gestio hobea egiten dela ondoriozta daiteke. Informazioaren baitan **albiste laburrak** dira nagusi eta urteak aurrera egin ahala ugaldtu egiten dira. Kontuan izan behar da, 2001era arte ez zela inoiz euskarazko herri-aldizkaririk argitaratu Mutrikun eta jendea ez zegoela euskaraz irakurtzen ohituta. Hori dela eta, eduki arin eta laburrak ezinbestekoak dira jendea ohitzeko. Bestalde, lan-taldeko kideen artean gaiak banatzearekin batera ez da aurrez definitzen erredaktore bakoitzak landu behar duen generoa zein izan behar den eta ondorioz, ez dago inolako orekarik generoen artean. Hau da, ale berean bost erreportaje ager daitezke eta elkarrizketa bakarra. Bestalde, **erreportajeak, elkarrizketak eta albisteak luzeak** izaten dira *Kalaputxin*, atalak eta gaiak bi orrika antolatzen direlako. Dena dela, urteak aurrera egin ahala aldizkariko atalak eta generoak finkatuz doazela antzematen da.

Orain arte aztertu ditugun *...eta kitto!*, *Pil-pilean* eta *Barren* aldizkarietan ere, informazioa izan da kazetaritza-genero izarra. Bost urteko epean, agerkari bakoitzak izan duen informazio-portzentaje orokorra kontuan hartuz gero, honako emaitza hauek ditugu: Mutrikuko *Kalaputxi* %59 (hiru urtetan), Elgoibarko *Barrenek*, %62, Soraluzeko *Pil-pileanek* %66 eta Eibarko *...eta kitto!*-k %79. Informazioaren baitan albiste laburrak erabili dira irakurleari irakurketa errazteko. Aipatu hiru erreibistetan, albisteak eta argazki-albisteak ere asko erabili dira. Eibarko eta Elgoibarko astekarrietan erreportaje kopuruak gora egin du gure azterketa-epean eta elkarrizketak gero eta gutxiago izan dira. *Pil-pilean* hamabostekarian, aldiz, elkarrizketak indartu egiten dira urtetik urtera. Oro har, hiru aldizkarietan kazetaritza-generoen arteko oreka lortzen da, genero arin eta laburrak nagusituz baina aldi berean, informazio-genero landuagoak tartekatuz.

Iritziari aldizkarian eskaintzen zaion espazioa hasieratik nahiko finkatuta dago eta urtetik urtera iritzi-atala indartuz doa. **Irakurleen gutunak, kale-inkestak** eta **editoriala** finkoak dira aldizkarian eta agerpen-maila kontuan hartuz inportanteenak. Gainera irakurleen gutunen eta editorialen kopurua urtetik urtera areagotu egiten da. Iritzi-zutabeak oso gutxitan argitaratu dira eta iritzi-artikuluak herriko talde ezberdinek egindako testuak izan dira, urteekin gutxituz joan direnak.

Elgoibarko *Barrenen* ere iritzia indartu egin da 2000-2004 bitartean. Izan ere, *Kalaputxi* eta *Barren* dira orain arte aztertu ditugun aldizkarien artean iritziari toki gehien egiten diotenak. *Barrenek* bost urtetan eta *Kalaputxik* hiru urtetan iritziari %16ko portzentajea eskaini diote. Eibarko astekarian eta Soraluzeko hamabostekarian iritziak indarra galdu du: *Pil-pileanen* bost urtetan % 13 eta *...eta kitto!*-n bost urtetan erdia, %7ko portzentajea kokatu da iritzia. Iritziaren baitan, *...eta kitto!*-n eta *Barrenen* irakurleen gutunak oso inportanteak dira eta urteekin gainera ugaltu egin dira; *Pil-pileanen* irakurleen gutunek gero eta agerpen-maila eskasagoa izan dute urteen joan etorriarekin. Inkestak iritziaren baitan garrantzitsuak dira hiru agerkarietan, eta iritzi-zutabeen kopurua hazi egiten da *Barren* eta *Pil-pileanen*, *...eta kitto!*-n indarra galtzen duten bitartean. *Kalaputxin* bezalaxe, *Pil-pilean* hamabostekarian editoriala finkatu eta sendotu egiten da urtetik urtera; tesi honetan aztertu diren sei aldizkarien artean editoriala kaleratzen duten bi aldizkariak bi horiek dira eta.

Komikiak aldizkarian duen agerpena neurtuz gero, portzentajea %3koa da; ez da handia, baina ale gehienetan argitaratzen den sormen lana da komikia, urteekin aldizkariko atal finkoa bilakatu dena eta aldizkariari umore ukitua ematen diona.

Elgoibarko *Barrenen* ere, komikia sail finkoa da ale guztietan eta bere agerpen orokorra bost urteotan, %2koa izan da. Orain arte aztertu ditugun lau aldizkarien artean, *Barrenen* eta *Kalaputxin* bakarrik aurkitu dugu komikia.

Zerbitzuena da agerpenari dagokionez, aldizkariko bigarren genero garrantzitsuena, baina informazioarekin konparatuz askoz gutxiago agertzen da. Gainera urteekin zerbitzu-gunea ahulduz joan da *Kalaputxin*. Hasieran hainbat zerbitzu eskaintzen dira eta denborarekin aldizkaritik desagertzen joan dira, denbora-pasak eta informazio erabilgarria esaterako. **Zerbitzu-informazioa** eta **agendak**, berriz, urteekin indartu egin dira.

Aurretik aztertu ditugun hiru argitalpenetan ere, informazioaren atzetik zerbitzuen atala da aldizkarian garrantzitsuena. Portzentaje orokorrak kontuan hartuz, *Kalaputxi* da zerbitzu-gune indartsuena duen aldizkaria, %21ko portzentajearekin. Ondoren, *Pil-pilean* hamabostekaria %19ko portzentajearekin kokatuz, *Barren* astekaria %18an eta *azkenik, ...eta kitto!* %14ko portzentajearekin. Elgoibarko eta Eibarko astekariak lantzen dituzten zerbitzu atalek, *Kalaputxin* agertzen diren zerbitzuekin *Pil-pilean* agertzen direnekin baino antzekotasun handiagoa dute. Hots, *Kalaputxin*, *...eta kitto!*-n eta *Barrenen*, agendak eta zerbitzu-informazioa dira atalik inportanteenak; Eibarko eta Elgoibarko astekarietan salerosketa/trukeak ere bai. Soroluzeko aldizkarian, osterak, agendak eta denbora-pasak ugaritu egin dira urteekin, baina zerbitzu-informazioa eta salerosketa/trukeak gero eta presentzia eskasagoa dute.

#### 4.4.5.2- Gaiak

Mutrikuko hilabetekarian gai anitz agertu dira 2002-2004 bitartean. Guztien artean, **gizarte-gaiak** dira aldizkariko protagonista nagusiak hiru urteotan eta horien ostean, kultura eta kirolak dira aldizkariko gai inportanteenak agerpenari dagokionez. Gaiak aukeratu eta lantzerako orduan, lan-taldeko kideen gustu eta zaletasunak nabaritzen dira, ez baitira langileak ezta kazetari profesionalak ere. Askotan pasatutako gertakariak gehiegi agertzen dira eta gaurkotasuna alde batera uzten da, beraz, ez dago gaien arteko orekarik ez dagoela esan daiteke.

Eibarko, Soroluzeko eta Elgoibarko aldizkarietan ere, gizarte-gaiak dira nagusi. *...eta kitto!*-n eta *Barrenen*, *Kalaputxin* bezalaxe, gizarte-gaiak kultura eta kirolak dira orden horretan aldizkarian gehien agertzen direnak. Soroluzeko *Pil-pileanen*, gizarte-gaien ostean, kultura eta politika nagusitzen dira.

Politika gaiak ez dira inoiz aldizkariaren lehentasuna izan, baina gai horien agerpenak urteekin apurka-apurka gora egin du. Gai politikoak ikuspegi sozialetik lantzen dituzte *Kalaputxin* eta herriari eta herritarrekin zerikusia dutenean bakarrik. **Udala**, **Euskal Herriko gatazka** eta **alderdiak** dira gai politiko nagusiak. Udala eta alderdiak urtetik urtera gehiago lantzen dira, Euskal Herriko gatazkaren gaiak protagonismoa galtzen duen bitartean. Gainerako gai politikoaren agerpena hutsala da hiru urteotan.

Tesi honetan orain artean aztertu diren lau aldizkarietan, politika gutxien lantzen den gaien artean dago, Soroluzeko *Pil-pileanen* izan ezik, oso kontuan hartu den gaia izan baita

betidanik. Politikaren portzentaje orokorrek oso argi erakusten dute orain arte esandakoa: Eibarko ...*eta kitto!* eta Mutrikuko *Kalaputxi* dira gure azterketa-epean politika gutxien landu dutenak, biek %5eko portzentaje orokorra izan dute. Elgoibarko *Barren* dugu ondoren %7ko portzentajearekin. *Pil-pilean* aldizkariaren portzentajea *Barrenen* bikoitza da, %14koa.

Kopuruak kopuru, lau aldizkarietan lantzen diren gai politikoak berberak dira. Hau da, guztietan udala, Euskal Herriko gatazka eta alderdiak dira gehien agertzen diren gai politikoak. Aldizkari bakoitzean, ordea, batek dauka lehentasuna bestearen gainetik: *Pil-pilean* eta *Kalaputxin* aipatu hiru gaien artean udalak du lehentasuna, ...*eta kitto!*-n Euskal Herriko gatazka eta *Barrenen* alderdiak.

Ekonomia gutxien jorratzen diren gaien artean badago ere, politika baino bi aldiz gehiago agertzen da eta lan honetan ikertu diren aldizkari guztien artean, *Kalaputxi* da ekonomia gehien lantzen duen herri-aldizkaria. Urtetik urtera ekonomiari buruzko gaiak kopuru oso antzerakoetan mantendu dira. **Itsasoa/arrantza** dira gai ekonomiko garrantzitsuenak, ondoren **enpresa, nekazaritza/abeltzaintza** eta **merkataritza**. Gai laboralak gutxien agertzen diren ekonomi gaiak dira 2002-2004 bitartean. Urteak aurrera egin ahala, enpresa eta gai laborek bakarrik erakusten dute goranzko joera, gainerako guztien agerpena urtetik urtera murriztuz doalarik.

*Pil-pilean*, ...*eta kitto!*, eta *Barrenen*, ekonomia *Kalaputxin* baino askoz gutxiago lantzen dute: kopuru orokorren arabera, gaiaren agerpena erdira jaisten da. Mutrikuko hilabetekarian hiru urtetan %10eko portzentajea kokatu da ekonomia. ...*eta kitto!* eta *Barrenen* %6an eta *Pil-pileanen* %4an. Elgoibarko eta Soraluzeko agerkarien joera bera da ekonomiaren baitan, merkataritza, enpresa eta gai laboralak, orden hori jarraituz, errepikatzen direlako gehien. Eibarko astekarian, aldiz, enpresa, merkataritza eta gai laboralak. *Kalaputxiren* eskema bestelakoa da erabat: lehentasuna, itsasoa/arrantzak du; ondoren enpresak; nekazaritza/abeltzaintza hirugarrenik eta azkenik merkataritzak. Gainerako hiru erreibistetan ia agertu ere ez diren itsasoa/arrantza eta nekazaritza/abeltzaintza, Mutrikuko hilabetekarian gai ekonomiko garrantzitsuenen artean agertzen dira.

Behin baino gehiagotan errepikatu dugunez, gizarte-gaiak dira aldizkariko gai izarrak hiru urteotan eta bere agerpena urtetik urtera handitu egiten da. **Gizarte ohiturak, zerbitzuak, lanak, ingurumena** eta **hezkuntza** dira gairik garrantzitsuenak. Taldeak, gizarte arazoak eta osasuna gutxien agertzen diren hiru gaiak dira 2002-2004 bitartean. Gizarte arazoaren eta hezkuntzaren gaia

dira urteekin hazten diren bakarrak. Lanak, ingurumena eta zerbitzuek indarra galtzen dute eta gainerako gizarte-gaiak mantendu egiten dira urtetik urtera.

*Pil-pileanen*, ...*eta kitto!*-n, eta *Barrenen* ere, gizarte-gaiak dira nagusi; gainera, hiruretan bost urteko epean %40tik gorako portzentajea kokatzen dira gizarte-gaiak. Eibarko astekarian %42an, *Barrenen* %46an eta *Pil-pilean* aldizkarian %49an eta *Kalaputxin* %51an. Beraz, orain arte ikertu diren lau errebisten artean Mutrikuko hilabetekarian jorratzen dira gehien gizarte-gaiak. Agerkari guztietan gizarte ohiturak dira nagusi. ...*eta kitto!*, *Barren* eta *Kalaputxin* gizarte ohituren atzetik zerbitzuena da atalik inportanteena. Bestalde, lau aldizkariotan gehien errepikatzen diren gaien artean hezkuntza eta lanak aurkitu ditugu. Gizarte-gaien baitan aldizkariak jorratzen dituzten gaietan antzekotasun handiak daudela esan daiteke.

Kultura gaiak garrantzitsuenak dira gizarte-gaien ostean eta urtetik urtera apur bat gora egiten dute. Aldizkarian “Kultura” sailean lantzen dira batik bat gai horiek, baina aldizkariko bestelako ataletan ere agertzen dira. **Komunikabideak, musika, arte ondarea, artisautza, eskulanak** eta **agendak** dira agerpen-mailaren arabera gai kultural inportanteenak. Gastronomia, euskara eta literatura gutxiago agertu badira ere, batzuen eta besteen arteko aldea txikia da oro har.

*Kalaputxin* bezala, ...*eta kitto!*-n, *Pil-pilean* eta *Barrenen* kultura da bigarren gairik garrantzitsuena. Aldizkari guztietan kultura lantzeko sail berezia kaleratu da gure azterketa-epean eta gaiari buruzko albiste gehienak bertan agertu dira. Portzentaje orokorreari dagokionez, lau agerkarietan %20-%30 bitartean kokatzen da kultura: *Pil-pileanen* %21, *Kalaputxin* %22, *Barrenen* %25, eta, ...*eta kitto!*-n %28. Guztien artean Sorluzeko *Pil-pilean* da kultura gutxien lantzen duen aldizkaria eta bertan izan ezik, gainerako argitalpenetan kulturaren presentzia areagotu egiten da urteekin. Hala eta guztiz ere, kulturaren baitan lantzen diren gaietan, batzuen eta besteen artean badago ezberdintasunik. Eibarko, Sorluzeko eta Elgoibarko aldizkarietan arte eszenikoak dira nagusi; Mutrikuko hilabetekarian, aldiz, komunikabideena da kultura gai garrantzitsuena. Esan beharra dago, *Kalaputxin* arte eszenikoak gehien errepikatzen diren bigarren gaia direla. Lau aldizkarietan arte eszenikoen barnean musika da gai garrantzitsuena.

*Pil-pileanen* eta *Barrenen*, literaturak eta euskarak protagonismo berezia dute; ...*eta kitto!* eta *Kalaputxin*, aldiz, ez dute inolako lehentasunik.

Kirolak ere badu bere lekua aldizkarian. Gizarte-gaien eta kultura gaien ondoren, kirolak dira gehien agertzen direnak eta urteekin batera protagonismo gehiago hartzen dute aldizkarian, batez ere 2004. urtean. Kirolak bere atal propioa du aldizkarian eta kategorian definitu ditugun kirol guztiak agertzen ez badira ere, urteekin gero eta kirol gehiagori egin diote lekua *Kalaputxin*. Horrela bada, **futbola**, **mendia** eta **arrauna** dira gehien agertzen diren hiru kirolak azterketa-epean; neurri txikiagoan, baina agerpen-maila altua dutenak dira, igeriketa, eskubaloia eta pilota.

Eibarren eta Elgoibarren bezala, Mutrikun gizarte-gai eta kulturaren ostean, kirola da aldizkariko gairik garrantzitsuena. Soraluzean, ostera, kirolaren agerpena murriztagoa da, ekonomiarekin batera gutxien lantzen delako eta hori, gure azterketa-epean jaso diren portzentaje orokorretan, oso argi ikusten da: *...eta kitto!* da lau aldizkarien artean portzentaje handiena daukana, %17, jarraian *Barren* dago %16ko portzentajearekin, *Kalaputxi* %12rekin eta *Pil-pilean* %11rekin. Orain arte aztertu diren hiru aldizkarietan banakako kirola izan da protagonista, baina *Kalaputxin* talde kirola da nagusi. Aldiz, lau argitalpenetan futbola da agerpen-mailari dagokionez kirolik garrantzitsuena. Elgoibarren, Eibarren eta Mutrikun eliteko futbola ez den bestelako futbol diziplinei arreta berezia jartzen diote. *...eta kitto!* eta *Pil-pilean*en pilota eta txirrindularitza ere maiz agertzen dira, Elgoibarko eta Soraluzeko aldizkarietan berriz, mendia, atletismoa eta kirol agendak ugariak dira. *Kalaputxi* da orain arte aztertu ditugun artean antzekotasun gutxien duena, mendia eta arrauna direlako futbolaren atzetik gehien agertzen diren kirol diziplinak.

#### 4.4.5.3- Gibel-iruzkinak

Oro har, lan-taldearen antolaketak eta lan egiteko metodologiak eragin zuzena dauka aldizkarian argitaratzen diren kazetaritza-genero eta gaietan. Hau da, aldizkarian ez dago kazetaririk, beraz, kazetaritza-generoen arteko ezberdintasun teorikoa ez dute ezagutzen, eta idazten dutenean, irakurle gisa ikusitakoaren arabera erabiltzen dituzte kazetaritza-generoak. Oro har, ez dago orekarik kazetaritza-generoen artean, ez direlako aurrez definitzen. Lan-taldeko kide bakoitzak momentuan ateratzen zaion idatzia egiten du.

Gaiei dagokionez, lan-taldeak askotan aspaldiko gertakarietan eta pertsonaietan oinarritutako informazioak kaleratu ditu *Kalaputxin*. Gaurkotasuna duten gaiak lantzeko arazoak dituzte: maiztasuna dela eta gaiak zaharkitu egiten direlako berehala eta beste aldetik, langile



liberaturik ez dagoenez, hainbat gertaera, prentsaurreko edo albiste ezin dira gertatzen diren ordu eta toki berean landu, lan-taldeko kideek beste lan batzuk dituztelako. Horregatik lan-taldeko kideek gaiak aukeratzeko orduan beste ikuspegi bat dute, langile profesionalen ikuspegitik urrun dagoena. Eurak nahi dutelako idazten dute, finean herriko aldizkarian idazteak asebetetzen dituelako. Herri-aldizkariak esker oneko produktuak dira, hilero-hilero norberaren lan eta esfortzua paperean argitaratua ikusten delako eta herriko jendeak irakurtzen eta estimatzen dituelako. Borondate onenarekin egindako produktu duina eta herrikoa bada ere, mugatua da kazetaritzaren ikuspegitik.

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria 2004ko iraila 73. zenb.



## 36 KO GERRA GUREAN



**G**aur eguneko gizartearen gerra hitza ohikoa dugu. IRAK-en gertatzen ari dena edo beste herrialde askotan izaten diren iskanbilak telebistan ikusten ditugu etxeka gelan eserita. Nolabait esateko baditugu erreferentzia batzuk; jakin badakigu basakeria honen berri; badakigu zer nolako hots eta zaratak sortzen dituen, ondorioak zein larriak diren gizarte zibilarentzat edo zer nolako hildako kopuru izugarriak izaten diren halakoetan. Gurean Gerra Zibila piztu zen garaian, ordea, ez zeukaten halako "abantailarik"; ez zeukaten gaur dagoen informazio kopururik eta apenas komunikabiderik. Dena berria zen herritarrentzat: ametrailadorak egiten zituzten zaratak Itziaririk entzuten omen ziren gerra bertaratu aurretik. Tiro hotsak entzun eta fusilenak eta kanioenak zirela konturatzeak zer nolako egonezina sortuko ote zen garai hartako biztanleengan. Inguruetan ibili ziren aboiek, mantso-mantso hegana eginez, beren sabeletatik botatzen zituzten bonbek txapel txikiak ziruditelako didate. Beldurgarriena, eztanda bera baino, erortzean sortzen zuten txistu hotsa omen zen. Onomatopoiak erabiltzen dituzte beti sasoi hura bizi eta sofritu izan zutenek eta, oraindik ere gogor eta mingarri egiten zaie garai haiek oroitzea. Ez dira urte asko gertakari beldurgarri haiek, Euskal Herria eta Estatuak astindu eta, toki ugari birrindu zutelako; hirurogeitazortzi urte besterik ez, "altxamendua" gertatu zela eta, nahiz eta gai honi buruz liburu eta ikerketa ugari egin den, sasoi hartako eguneroko historia oraindik idatzi gabe dago herri askotan.

Foxisten erasoak aurrakirik zegoen; liburuetan azaltzen denez, prestaketek luze jo zuten eta ez omen zen oso ezkulukolana izan. Euskal Herria 1936ko uztailaren 18an banaturik gelditu zen; Bizkaia eta Gipuzkoa Errepublikaren alde eta Nafarroa eta Araba Mola jeneralaren alde. Probintzi bakoitzak egoera desberdina ezagutu zuen.

- Nafarroan ez zen gudarik egin; baina, ondorengo errepresioa izugarriak milaka fusilatutako zituen.
- Gipuzkoan, Donostian, Loiolako koartelean zeuden militarrek hiria bereganatzen saiatu ziren arren, herritarren erasoek makur arazi zituzten.
- Bizkaian altxamenduak berak egin zuen porrot.
- Araban, aldiz, agintari militarrek Molaren aginduetara jarri ziren hasiera hasieratik.

Militarren ustetan egun gutxi batzuen kontua izatekoa zena, hiru urte luzeko guda basatia bihurtu zen. Gipuzkoan, Loiolako koartela menperatu ondoren Nafarroatik zetozen tropei aurre egin zitzaion, Mola jeneralaren helburua muga ixtea zen, eta, Irun erori ondoren, Donostia izan zen hurrengoa.

**UDAL**  
EUSKALTEGIAK

Ibar-kalea, 12  
20820 DEBA  
Tel. 943 192 236  
euskaltegi@deba.net

### EUSKARA IKASTAROAK 2004-2005 Ikasturtea

Sí o... BAI? Erantzuna Udal Euskaltegian

- IKASTARO BEREZIAK: Gurasoak, Enjenerak, EGA ikastaroak (Berunbaleak), Mintzagatikika ikastaroak, Hizkuntz Eskakizunak (Ondakideta, administrazioa, itzultza)
- ORDENAGAILU GELA: HEZKUNTZ, erdunagailu biderko programe osagarria.
- MATRIKULA EPEA: Irailaren 1etik 24ra.

Beka sistema daukagu.  
Galde ezazu!





#### **4.5- BERRIKETAN ALDIZKARIAREN ANALISIA**

*Berriketan* aldizkaria 1998ko abuztuan kaleratu zen lehenengoz, Debako euskaldunak bertako berriak euskaraz jaso ahal izateko eta euskaraz irakurtzeko ohitura sendotzeko asmoz. Aldizkariaren egitura gaur egun ez da profesionala, lauzpabost lagun<sup>1058</sup> artean ateratzen da hileroko eta zuzendari lanak Lukas Dorronsorok egiten baditu ere, *Berriketan* aldizkarian ez dago langilerik: lau edo bost lagun horiek borondatez ari dira eta inork ez du ezer kobratzen bere lana aldizkarian egitearren; publizitateaz arduratzen denak eta banaketaz arduratzen direnek ere ez. Aldizkariaren diseinu eta maketazioaz Euskalinpri inprenta arduratzen da.

Aldizkarian ez dago profesionalik lanean eta lauzpabost lagunek osatzen duten talde horretan ez dago kazetaririk. Hau da, idaztea gustuko dute eta kazetari lana betetzen dute aldizkarian, baina ez dira komunikazio zientzietan lizentziatuak; horrek kazetaritza-generoak eta gaiak lantzerako orduan eragina duela frogatuko dugu aurrerago. Era berean, horrelako antolaketa amateurra izateak, aldizkariaren egitura ahuldu egiten du eta bere etorkizuna zalantzan jartzen du.

*“Argi dago arriskua hor dagoela eta egunen batean norbaitek utzi nahi badu, ezin zaiola ezer exijitu. Baina beste gauza bat ere badauka, era horretan egindakoak askotan iraupena eta geroa bermatzen du. Benetakotasunaren garantia da. Talde hauek herrigintzatik sortutako taldeak dira eta benetan herriko behar horri erantzuten diotenak izaten dira”<sup>1059</sup>*, azpimarratzen du Lukas Dorronsorok.

Alabaina, profesionalizatzeari dagokionez, xehetasun ezberdinak egiten dira lan-taldearen baitan. Lukas Dorronsorok gaur egungo egiturarako ez du uste profesional baten beharra dagoenik:

*“Profesionalizatzen badira, funtzionarioaren gaitza sartzen zaie. Herrian beti izan dira auzolanak eta auzolanak garantizatu dute gure herrietako bideak, baina horri behar diren laguntzak ematen bazaizkio, gero eta gehiago gainera, ordu gehiago libre dauzkanez jendeak, orduan topatu behar dira horrelako gauzetaz arduratzeko auzo-langintzak. Mantendu behar dira daudenak eta sortu behar dira berriak. Nik ez dut esaten ez dela behar ardura duen norbait, baina orain guk egiten dugunerako ez dut uste behar denik. Hogeita hamar orriko aldizkaria*

<sup>1058</sup> - 2006ko otsaileko 24an Debako *Berriketan* aldizkarian egindako elkarrizketan bertoko lau kidek hartu zuten parte: Lukas Dorronsoro, Ina Oiartzabal, Xabi Laka eta Nagore Dorronsorok. Hori dela eta, lau horien aipuak tartekatuko dira *Berriketan* hilabetekariako analisi honetan.

<sup>1059</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

*egitea planteatzen bada, zalantzarik gabe pertsona bat arduratu beharko litzateke eta ordaindu beharko litzaioke*”<sup>1060</sup>.

Xabi Lakak, aldiz, argi dauka gaur egun jendea gero eta gutxiago inplikatzeko dela auzolanean, nahiz eta herrian talde ezberdinetan jendea mugitzen den: *“Gaur egun jendeak ez dauka auzolana barneratuta, herriko beste talde batzuetan ere badabil jendea, borondatez noski, baina nik ikusten dut beste talde horietan jendea berritu egiten dela eta hemen ez ordea, hasierakoak gara edo gutxiago, bai Euskara Elkartean eta baita aldizkarian ere*”<sup>1061</sup>.

Ina Oiartzabalen aburuz, lan garrantzitsuena profesional baten esku uztea litzateke formula egokiena, beti ere profesional horri laguntzeko kolaboratzaile-sarea inguruan dagoela bermatuz: *“Nire ustez, erdi eta erdi izan beharko litzateke, Zuhatza Euskara Elkartean egon zen bezala. Liberatu bat eta gero borondatezko lan-taldea. Baina hor arrisku bat dago eta da, kobratzen duen pertsonarengan dena delegatzea eta pertsona hori erretzea, Euskara Elkartean hori gertatu baitzen*”<sup>1062</sup>.

Profesionalizatzeari gagozkiola, ekar ditzagun gogora, Asier Aranguren *Euskonews & Median* idatzitakoak:

*“Lan kontestua ezagutzen ez duenarentzat behar beharrezko ohar bat: euskal prentsa lokalean bi langile mota nabarmen dago, soldatapean diharduen tituluduna eta borondatez, herrigintzan edo ametsak betez lanean diharduena. Honek, jakina, ez du esan nahi soldatapean dauden guztiak tituludunak direnik (normalean hala den arren) eta ezta borondatez dabilzanak titulurik ez dutenik (eduki ez daukatena diru-ordaina da). Borondatez egindako lana lagungarri da nire ustez, beharrezkoa eta eskerronez mimatu beharrekoa. Zalantzarik ez honetan. Baina erantzukizuna langileek hartu behar dute euren gain. Beste edozein jardueratan bezalatsu, asteroko-hamabosteroko-hileroko aldizkaria etxeetara txukun helarazteko lanak profesionalen esku egon behar du”* (Aranguren, 1999: 19).

Lan-taldeko lau kideek jakin badakite gaur egun duten funtzionamendu erak muga asko dituela eta herritar batzuegan aurreiritziak sortzen dituela:

*“Lau urte hauetako hutsune nagusia, lauzpabost pertsonak soilik parte-hartzen dugula aldizkarian izango litzateke eta ematen dugun itxura, oso ikuspegi mugatutik egiten dela*

<sup>1060</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1061</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Xabi Laka, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1062</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Ina Oiartzabal, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

*aldizkaria esan daiteke. Azken finean Deban berrogeita hamar talde inguru daude eta gu hemen lau edo bost lagun baino ez gaude eta bakoitza bere kontuekin gora eta behera, jo eta su ibiltzen gara. Gai batzuk adibidez askotan ateratzen dira (presoen gaia, Sahara...) eta segur aski beste jende bat egongo balitz hemen, ez litzatekeela agian hainbestetan errepikatuko”<sup>1063</sup>, azpimarratzen du Lukas Dorronsorok.*

Hori dela eta, 2000-2004 tarte horretan herriko hainbat talde gonbidatuz bilera irekia egin zuten, jende gehiago aldizkarira erakartzeko asmoz. Horrela gogoratzen du Lukas Dorronsorok hartutako erabakiaren ondorioz gertatu zena:

*“2001ean edo, herriko hainbat talderekin bilera zabal bat egin genuen. Izan ere, iruditzen zitzaigun hemen aritzen garen lau lagun izanda, aldizkaria oso monolitikoa ateratzen zela eta herrira zabaldu genuen, herriko gorabehera guztiak agertze aldera eta nahi zuen taldeak bere aportazioa egin zezan eta hau, lau laguneren arteko kontua soilik izan ez zedin. Jendeak oso ondo erantzun zuen eta orduz geroztik adibidez, eskolak hileroko-hileroko (opor garaietan izan ezik) kolaboratzen du eta erantzuten du”<sup>1064</sup>.*

Zailtasunak zailtasun, horrela kaleratzen dute zortzi edo hamabi orrialde izaten dituen *Berriketan* aldizkaria hileroko. Urtean hamabi zenbaki kaleratzen dituzte eta gure azterketa-epetan tiradak gora egin du. Izan ere, 2000. urtean 500 ale banatzen dira eta 2002ko urtarriletik aurrera tirada 700 aletara igotzen da. Debako 200 etxetara heltzen da *Berriketan* eta gainerako aleak egunkariak saltzen dituzten herriko bi kioskoen bitartez banatzen dira. Lan-taldearen ustetan, herrian jende gehienak ezagutzen du gaur egun aldizkaria eta noizbait, jendeak bilatu ere egiten du. Kioskoan aleak agortzen direnean aldizkariko egoitzara hurbiltzen da jendea *Berriketan* eske.

### **Aldizkariko sailak**

2000-2004 bitartean ez da aldizkarian diseinu aldaketarik izan eta gure azterketa-epetan aurkitu diren sailei dagokionez, zenbaki gehienetan agertzen diren honako atal finkoak aurkitu ditugu:

**-Azalean:** Herrian garrantzi gehien izan dezakeen gaia normalean azalera eramaten da. Batzuetan portadako orrialdea soilik hartzen du eta besteetan, azaleko orrian eta hurrengoan jorratzen da gaia.

<sup>1063</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1064</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

**-Erreportaia:** Erreportaje bat baino gehiago ateratzen da eta normalean azalean joaten den idatzia ere, erreportajea izaten da.

**-Elkarrizketa:** Ez da beti kaleratzen. Hau da, norbaiti elkarrizketa egiteko aukera dagoenean egiten zaio, baina ez da izaten guztiz finkoa.

**-Kale-inkesta:** Hilero sei herritarri gai ezberdinei buruz egiten zaien galdera-erantzun atala.

**-Laburrak:** Ahalegin berezia egiten da laburrak ateratzeko, baina batzuetan atalak aldatuz doaz eta laburrak eta kultura sailak tartekatu egiten dira.

**-Agenda:** Hilero argitaratzen den kultur agenda.

### **2000-2004 bitartean agertu eta desagertu diren sailak:**

Beste alde batetik, badira aldizkarian argitaratzen diren beste sekzio batzuk noizean behin agertzen direnak eta finkoak ez direnak. 2000-2004 bitartean *Berriketan* aldizkarian honako hauek aurkitu ditugu:

**-Gutuna:** Herritarrei euren iritzia plazaratzeko aldizkariak eskaintzen dien txokoa.

**-Berriak:** “Laburrak” sailaren aldaera bat da, urteekin laburretan bilakatu dena.

**-Iritzia:** Iritzia plazaratzeko saila, gutun eta zutabeen bitartez.

**-Gabon errezetak:** Oso puntuala den saila, gabonetako sukalde-errezetak argitaratzeko.

**-Itziar:** Itziarke herriari buruzko informazioa kaleratzen den saila.

**-Ezetz asmatu:** Argazki zaharrak kaleratzen diren atala.

**-Liburuak/Liburutegia:** Literatura eta liburutegiko informazio eta iritzia kaleratzen diren sekzioa. Liburu kritikak eta liburutegiko ordutegi eta zerbitzuei buruzko informazioa besteak beste.

**-Udala:** Udalarri buruzko informazioa argitaratzen den orrialdea.

**-Lehiaketa /Test kulturala:** Aldizkariak noizbait egin duen lehiaketa kulturala.

**-Olerki musikatuaren txokoa:** Musika eta literatura uztartuz aldizkariak egiten duen lehiaketa.

**-Herriko bozak:** Udal hauteskunderi buruzko informazio eta iritzia kaleratzen diren atala. Oso puntuala, 2003ko maiatzean eta ekainean udal hauteskundeak izan zirenean aurkitu dugu.

**-Jakingarriak:** “Laburrak” eta “Berriak” sailen beste aldaera bat.

**-Kirola:** Kirol ezberdinei buruzko informazioa argitaratzen den atala.

**2000-2004 bitartean kaleratu diren gehigarriak:**

**-“Berriketan Gaztea”:** 2000. urtean kaleratzen hasi ziren eta gazte eta ikasle jendeari zuzendutako lau orriko gehigarria da. Debako ikastolan DBH jarri zenean, eskolako arduradunek idazteko ohiturari garrantzia eman nahian, prentsa tailerra sortu zuten eskolan. Eskola orduetan ikasle eta irakasleek gaiak, argazkiak, testuak eta kazetaritza-generoak erabakitzen dituzte eta lau orriko gehigarria prestatzen dute. Guztia inprentara bidali eta *Berriketan* aldizkarian sartzen da gehigarria.



#### 4.5.1- **BERRIKETAN** ALDIZKARIAREN FITXA TEKNIKOA (2004)

Gainontzeko aldizkarietan jarraitu dugun eredu berarekin, *Berriketan* aldizkariako fitxa teknikoa bete dugu. Mutrikuko *Kalaputxin* bezala, ez dira datuak alderatu, 1999ko informazioa ez dugulako lortzerik izan. Hala ere, gure azterketa-epea 2000-2004 tartea izan denez, 2004ko datuak soilik hartu dira kontuan, Debako hilabetekariaren egoera orokorra zein den aztertzeko.

Asier Aranguren <sup>1065</sup> txantiloia kontuan hartuta, doktore gai honek eguneratutako datuak. <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian tesian ez da Berriketan agertzen.</i>	<b>2004ko fitxa teknikoa</b>
<i>Berriketan</i>	Ifar Kalea, 12 behea. 20820 Deba (Gipuzkoa). Tf: 943 19 13 83
<b>Herria/Eskualdea</b>	Deba. Biztanleak 5.025. Euskaldunak 4.490 (%89). <sup>1066</sup>
<b>Argitaratzailea</b>	Zuhatza Euskara Elkarte
<b>Nortasun juridikoa</b>	Kultur Elkarte
<b>Zuzendaria</b>	Ez dago zuzendaririk, lauzpabost kidek osatzen dute erredakzio taldea eta koordinatzaile lana Lukas Dorronsorok egiten du.
<b>Lehen alea</b>	1998ko abuztuan
<b>Maiztasuna</b>	Hilabetekaria
<b>Hizkuntza</b>	Euskara hutsez

<sup>1065</sup> - Aranguren, Asier. (2000): "*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*" doktore-tesia, EHU, Bilbo.

<sup>1066</sup> - Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

<b>Zabalkundea</b>	Deba eta Itziar
<b>Tirada</b>	700 ale
<b>Prezio</b>	Doan
<b>Formatua</b>	DIN-A4
<b>Orrialdeak</b>	8-12
<b>Lan-taldea</b>	Guztiak boluntarioak, ezer kobratu gabe 6tik 10 lagunera.
<b>Edukiak</b>	Informazioa %58 , Iritzia %20, Literatura %5, Komikia %1 eta Zerbitzuak %17.
<b>Sortze arrazoiak</b>	Debako euskaldunak, Debako berriak euskaraz jaso ahal izateko eta euskaraz irakurtzeko ohitura sendotzeko asmoa.
<b>Publizitatea</b>	Modulua 10€ (BEZ-a barne). Ardura bi kide boluntariok dute, ezer kobratzeke. 18 bezero finko inguru hilero.
<b>Ezaugarri teknikoak</b>	Azala eta barrua bi koloretan.
<b>Finantziazioa</b>	<b>Gastuak:</b> 3.471,70 € <b>Sarrerak:</b> 3.738,33 € <b>Publizitatea:</b> 3.738,33 € <b>Diru-laguntzak:</b> Ez dute diru-laguntzarik jasotzen <sup>1067</sup> . <b>Besteak:</b>
<b>Tresneria</b>	Ordenagailu zahar bat, inpresora, ADSL, kamara digitala eta telefonoa.

<sup>1067</sup> - Debako udalak Zuhatza Euskara Elkarteari ematen dio diru-laguntza, ez dio aldizkariari zuzenean banatzen. Bestalde, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldunditik diru-laguntzak jasotzeko baldintzak ez ditu betetzen aldizkariak. Hilero argitaratzen den orrialde kopurua ez da gutxiengora heltzen.

<b>Konpetentzia</b>	Ez
<b>Oharrak:</b>	Aldizkaria inprentan maketatzen dute eta oro har tresneria gutxi dute.

Debako aldizkarian ez dugu 1999ko daturik, Arangurenen lanak<sup>1068</sup> ez baitu *Berriketan* aldizkariaren daturik jasotzen. Halere, 2004ko datuak kontuan hartuta, Deban argitaratzen den hilabetekariaren inguruan hainbat datu azpimarra daitezke:

- Aldizkaria sortu zenetik, bertan ez da inoiz soldatapeko langile profesionalik egon; kolaboratzaile puntualen artean noizbait izan da kazetariren bat, baina normalean bertan ari diren boluntarioak ez dira kazetaritzan lizentziatuak. Aldizkarian lana egitearren ez du inork ezer kobratzen, ezta aldizkaria herrian banatzen dutenek ere. Aurrekontuan argi eta garbi islatzen da langileen gasturik ez dagoela eta horrek, izugarri merkatzen du produktua egitea.
- Aldizkariko aurrekontua lan honetan aztertu diren aldizkarien artean merkeena da alde handiarekin. Izan ere *Berriketan* egiteak duen kostua urtean 3.000 euro baino apur bat gehiago da. Beraz, *Kalaputxi* edo *Drogetenitturri* baino hamar bider baxuagoa da Debako hilabetekariaren urteko aurrekontua. Hau da, *Berriketan* aldizkariko aurrekontu osoa, aipatu bi hilabetekarietako urtean dituzten funtzionamendu gastuen parekoa da.
- Ezaugarri teknikoak dagokionez, tresneria gutxi dutela ikus daiteke aurreko taulan; aldizkaria inprentan bertan diseinatu eta maketatzen denez, ez dute auto-ediziorako makinaria guztia behar. Zortzi orri kaleratzen dira hileroko eta guztiak bi tintatan inprimatzen dira. Horrek guztiak aldizkaria egiteko kostua asko merkatzen du; langileak eta inprenta izaten baitira aldizkarien gasturik garrantzitsuenak. Bailaran argitaratzen diren gainerako aldizkarietako konparatuz, aldizkariaren itxura nahiko amateurra dela esan daiteke. Azalean kolorerik ez izateak, esaterako, ideia hori sendotzen du.

<sup>1068</sup>- Aranguren, Asier. (2000): “*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*” doktore-tesia, EHU, Bilbo.

**4.5.2- BERRIKETAN ALDIZKARIAREN AURREKONTUA (2004)<sup>1069</sup>**


<p>Asier Aranguren txantiloia kontuan hartuta, doktoregai honek eguneratutako datuak. <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> tesian ez da <i>Berriketan</i> agertzen.</p>	<p style="text-align: center;"><b>2004ko Aurrekontua</b></p>
<p style="text-align: center;"><b>GASTUAK</b></p>	<p>Langileak _____ 0 € Funtzionamendua _____ 286,92 € Inbertsioa _____ 0 € Inprenta _____ 3.184,08€ Zabalkundea _____ <b>GUZTIRA 3.471,70 €</b></p>
<p style="text-align: center;"><b>SARRERAK</b></p>	<p>Diru-laguntzak Udala Aldundia Jaurlaritza Propioak _____ 3.738,33 € Publizitatea _____ 3.738,33 € Harpidetza _____ Salmenta _____ Bestelako ekarpenak _____ <b>GUZTIRA 3.738,33 €</b></p>
<p style="text-align: center;"><b>BALANTZEA</b></p>	<p>GASTUAK 3.471,70 € SARRERAK 3.738,33 € <b>EMAITZA: <u>266,63 €</u></b></p>

<sup>1069</sup> - Atal honetan ez dugu alderaketarik egin, Asier Aranguren lanean ez baita *Berriketan* aldizkariaren balantze ekonomikorik agertzen. Lan honetan 2000-2004 tarte hartu dugunez, 2004ko balantzea hartu dugu aldizkariaren bolumen ekonomikoaren erreferentzia gisa.

- *Berriketan* aldizkariko aurrekontua oso txikia da, urteko aurrekontua milioi erdi pezetatik justu-justu pasatzen da. Aurrekontu osoa hainbat aldizkarik urte osoan funtzionamenduan duten gastuen parekoa da. Izan ere, Debako aldizkariaren gastu ia bakarra, inprenta da; urteko aurrekontu osoaren %91,7 gastatzen du errebistak bertan, ez baitauka langilerik eta ondorioz, langile gasturik ere ez.
- Era berean, sarreren atalean publizitatea da hilabetekariaren euskarri bakarra, ez duelako erakundeetako diru-laguntza publikorik jasotzen. Publizitatean lortzen duten kopurua, aurrekontu osoaren %107koa da, beraz, kasu honetan urteko balantzea positiboa izan da. Ikerlan honetan aztertu diren sei herri-aldizkarietatik, berau da gure azterketa-epean balantze positiboa izan duen agerkari bakarra.

4.5.3- KAZETARITZA-GENEROAK

81I. grafikoa



Kazetaritza-generoen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

81J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	INFORMAZIOA	IRITZIA	LITERATURA	KOMIKIA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
	2000-2004	562	190	46	5	168	971
	2000	147	21	0	1	6	175
	2001	106	23	11	1	23	164
	2002	106	48	12	0	49	215
	2003	93	55	14	2	53	217
	2004	110	43	9	1	37	200

Kazetaritza-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Berriketan* hilabetekarian bost urteko epean informazioa nagusitzen da beste genero guztien artean. Hala eta guztiz ere, 2000-2004 bitartean eta 81I. grafikoan agertzen diren portzentaje eta 81J. taulako datuen arabera, kazetaritza-generoen arteko oreka handirik ez dagoela ondoriozta dezakegu; gure azterketa-epean genero guztiek gorabehera nabarmenak izan dituztelako. Nolanahi ere, Debako hilabetekarian urtero informazioa, iritzia eta zerbitzuak lantzen dira gehien, literaturari tarte txikiagoa eginez eta komikia momentu puntualetan bakarrik kaleratuz.

Guztira, bost urtetan 971 item aztertu dira. Horietatik 562 informazio testuak izan dira, 190 iritzia itemak, 168 item zerbitzuei eskaini zaizkio, 46 literaturari buruzko idatziak dira eta 57 zenbakitan 5 komiki baino ez dira aurkitu.

Azterketa-epeko urte bakoitzean guztira kaleratu den item kopuruari erreparatuz, hazkundera orokorrean orekatua izan dela antzematen da, baina 2001ean item kopuruak behera egiten du. Metodologiaren atalean azaldu bezala, urte horretan hamabi ale aztertu beharrean, bederatzi zenbaki soilik lortu ahal izan direlako; gainerako urteetan baino hiru ale gutxiago eta horrek, emaitza orokorretan eragina izan du. Hurrengo hiru urteetan hamabi ale aztertu dira eta 2002 eta 2003an, 2004an baino item gehiago argitaratu dira.

### **A) INFORMAZIOA**

81I. grafikoan eta 81J. taulan agertzen diren datuek argi erakusten dute informazioa urtero gailentzen dela eta, gainerako kazetaritza-generoen portzentaje eta kopuruak, bikoiztu edo hirukoiztu egiten dituela informazioak. Aldizkaria, Debako euskaldunak, herriko berriak euskaraz jaso ahal izateko eta euskaraz irakurtzeko ohitura sendotzeko asmoz sortu zen 1998an. Gaur egun, *Berriketan* aldizkariak bere gain hartzen du herriko informazioa emateko zeregina, baina lan-taldea ohartzen da, beste medio profesionalago bat izanez gero, aldizkariaren funtzioa birplanteatu beharko litzatekeela. “*Hona oraindik ‘Hitza’ ez da etorri eta horretan hutsunea dago. Izan ere, ‘Hitza’ hemen egongo balitz, informazioa ‘Hitzak’ emango luke eta guk beste planteamendu bat egingo genuke*”<sup>1070</sup>, onartzen du Lukas Dorronsorok.

### **B) IRITZIA**

Iritziak urtetik urte gora egiten du eta 2002-2004 bitartean iritzi kopurua ia 2000. urtekoaren bikoitza da. Orotara, aztertu diren berrogeita hamazazpi aleetan, ehun eta laurogeita hamar iritzi testu kaleratu dira. Kontuan hartu behar da, iritzia aldizkarian informazioarekin batera tartekatzen dela askotan. Hau da, informazio-generoetan landu ahal diren hainbat edukik, iritzi-artikulu itxura hartzen dute. Lan-taldean ez dago kazetari profesionalik ezta kazetaritza ikasketak egin dituenik ere, beraz, generoen arteko hibridazioa etengabea da. Idazleek ez dituzte informazio eta iritzi-generoak ehuneko ehunean menperatzen eta horretaz jabetzen dira. Nagore Dorronsorok dionez, “*Profesionalek ere zailtasunak dituzte inpartzialak izateko edo hori esaten dute; beraz, uste dut saiatzen bagara ere, gu ez garela inpartzialak*”<sup>1071</sup>.

Bestalde, aldizkarian ez dago iritzia lantzeko atal finkorik, gutun saila beti dago irakurleari irekita, nahiz eta guk aztertu ditugun zenbakietan normalean ez den gutunik argitaratu. Era berean, herriko talderen batek idazten duen testua *Berriketan* hilabetekariko erredakziora

---

<sup>1070</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1071</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Nagore Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

heltzen bada, kaleratu egiten da eta horregatik herriko talde ezberdinek idatzitako testuetan iritzia nagusitzen da oro har.

### **C) ZERBITZUAK**

Zerbitzuek ere badute bere tokia *Berriketan* aldizkarian, iritziaren ostean gehien agertzen den kazetaritza-generoa berau baita. Guztira bost urte hauetan ehun eta hirurogeita zortzi aldiz errepikatzen dira zerbitzu ezberdinak. Hain zuzen ere, agenda, liburutegiari buruzko zerbitzu-informazioa, informazio erabilgarria (sukalde-errezetak), denbora-pasa eta lehiaketa ezberdinak aurkitu dira zerbitzuen baitan.

Zerbitzuen atala hasieratik sartu da aldizkarian, *Berriketan* erabilgarria eta praktikoa egin nahi dutelako, batez ere agendari dagokionez. Gehienetan sartzen den agenda, kultur agenda izaten da. Gainontzeko zerbitzu-informazioak ez du atal finkorik aldizkarian eta informazio mota hori erreferente bilakatu nahi izanez gero, ezinbestekoa da ahal den neurrian aldizkarian kokapen bera mantentzea. Ale bakoitzean leku ezberdinean argitaratuz gero, jendea nahastu daiteke eta beste bide batzuk bilatuko ditu informazio mota hori kontsultatzeko. Hots, zerbitzu-informazioa ale bakoitzean leku ezberdinetan agertuz gero, erreferente bilakatu beharrean, kontrakoa efektua sor dezake eta jendea nahastu.

### **D) BESTEAK**

Gainerako kazetaritza-generoekin alderatuz gutxi agertzen bada ere, literaturak badu bere espazioa Debako aldizkarian. Guztira bost urtetan berrogeita sei literatur testu argitaratu dira: ipuinak, bertsoak, txisteak eta fotonobelak. Literatura, “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian agertzen da batez ere, gazte-jendea ohituago dagoelako literatura irakurtzen eta orokorrean, gazteentzat irakurterrazak eta aproposagoak izaten direlako horrelako testuak. *Berriketan* hilabetekarian oro har ez da literatura agertzen, nahiz eta noizbait kaleratu izan den literatur lehiaketan irabazlea izan den ipuinen bat.

Komikia ere, oso gutxi agertzen da Debako aldizkarian, bost urteotan bost komiki kaleratu dira eta guztiak, eskolak egiten duen “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian argitaratu dira. Literatura bezala, horrelako generoak egokiagoak ikusten dira gazte-jendearentzako, eurak egiten dituztelako eta hobeto ulertzen dituztelako.



### **Kazetaritza-generoak bi hitzetan**


Laburbilduz, urtetik urtera aldizkarian kaleratzen den item kopuruak gora egin du eta informazioa bestelako generoan artean nabarmen gailendu da. Iritzia ere urteekin indartu egiten da eta gehien agertzen den bigarren generoa bilakatu da. Zerbitzu-guneak ez du finkotasunik izan eta gorabeherak izan ditu urtetik urtera. Literatura gazteen gehigarrietan agertzen da eta komikiaren agerpena hutsala izan da. Bestalde, 2000-2004 bitartean ez da generoen arteko oreka handirik sumatzen orokorrean. Idazgeletan ez dago soldatapeko langilerik ezta kazetari lizentziaturik ere, eta generoen arteko hibridazioa etengabea da euren idatzietan.

#### 4.5.3.1- Informazioa

Lan honetarako aukeratu dugun azterketa-epean *Berriketan* aldizkarian informazioak %58ko portzentajea izan du bataz beste. Hurrengo bi ataletan informazioaren bilakaera nolakoa izan den aztertuko dugu. Lehenengo urratsean, informazio-genero ezberdinek 2000-2004 bitartean izan duten agerpena azalduko dugu. Bigarren urratsaren bitartez, informazio-genero bakoitzak urtez urte aldizkarian izan duen garapena ikusiko dugu.

##### 4.5.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean

82I. grafikoa



Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean.

82J. taula

	Albistea	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Argazki-erreportajea	Elkarrizketa	Kronika	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	161	213	48	80	3	56	1	562

Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan

82I. grafikoa agertzen diren portzentajeak 561 itemen arabera kalkulatu dira, 2000-2004 bitartean, *Berriketan* aldizkarian kaleratu den informazioaren arabera hain zuzen ere. Begiratu batekin berehala antzematen da, albiste laburrak eta albisteak direla informazioaren zutabe nagusiak Debako aldizkarian. Bi informazio-generoen portzentajeak batuz gero %67ko balioa lortzen da, beraz, bost urteotan kaleratu den informazio guztiaren erdia baino gehiago, albiste eta albiste laburren bitartez eskaini du *Berriketan* aldizkariak.

### **A) ALBISTEA**

Ezin ahaztu daiteke albistea dela informazioan gehien erabiltzen den generoa eta askok, informazioa eta albistea sinonimotzat hartzen dutela. *“Oro har, aditu askok edozein informazio-generori ‘albiste’ edo ‘berri’ deitzen diote. ‘Albistea’ eta ‘informazioa’ sinonimotzat hartu ohi dira”* (Díaz Noci, 2000: 121). Kazetari ez direnen artean ohikoa da, ez baitute ikasi akademikoki zein den generoen arteko ezberdintasuna. *“Hala ere, albistearen eta bestelako generoen artean badago ezberdintasunik. Kazetariontzat ‘informazioa’ kontzeptu orokorra den bitartean, ‘albistea’, ‘erreportajea’, ‘elkarrizketa’, ‘kronika’ eta bestelako generoak informazioa gauzatzeko moduak dira”* (Díaz Noci, 2000: 121).

### **B) ALBISTE LABURRA**

Albiste laburrek aldizkarian informazioa eta eduki gehiago lantzeko aukera eskaintzen dute, are gehiago, hileroko zortzi orri kaleratzen dituen aldizkarian. Bestalde, kontuan hartu behar da jendeari euskaraz irakurtzeko ohitura sendotzen laguntzeko sortu zela *Berriketan*, beraz, genero arinak erabiliz jendeari errazagoa egingo zaio euskaraz irakurtzea eta Lukas Dorronsoro eta lan-taldeak aldizkaria egitean oso presente dute hori.

*“Ahalik eta notizia labur gehien eta argazki gehien publikatzen saiatzen gara. Egia esan, berez aldizkaria ere nahiko arina da, espazio gutxi dagoelako, zortzi orri besterik ez. Hala ere, testu arinak sartzen saiatzen gara, normalean idatzi behar duenari hogeita hamabost lerro inguru idazteko eskatzen diogu, ahal dela orrialde bat baino gehiagoko artikulua saihesten ahalegintzen gara. Bestela astuna da, oso toki gutxian testu luzeak sartuz gero, astuna egiten da”*<sup>1072</sup>.

### **C) ARGAZKI-ALBISTEA**

*Berriketan* aldizkarian aurkitu diren argazki-albisteak, albiste eta albiste laburrak baino askoz gutxiago diren arren, informazioa modu laburrean eta irakurterrazean emateko aukera eskaintzen dute. *“Argazkia idazkiaren lagungarri da: azaltzen ditu hitzez zail adierazten diren gauzak, zehaztu egiten du hitzekin sortutako ideia, indarra ematen dio kontakizunari, ez du bloke tipografikoa hain nekagarria egiten (irakurketa arintzen du, beraz)”* (Díaz Noci, 2000: 128).

---

<sup>1072</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

## D) ERREPORTAJEA

Hilero argitaratzen diren zortzi orrietan genero arinez gain, interpretazio-generoak ere aurkitu ditugu Debako hilabetekarian bost urte hauetan. Erreportaje eta argazki-erreportajeak (laurogeita hiru item) informazioaren %15eko portzentajearen kokatu dira. Informazioaren bilakaera aztertzen dugun atalean frogatuko dugun moduan, erreportajeak hazi egiten dira urtetik urtera; horrek badu zerikusirik kazetaritza-generoak ondo ez ezagutzearekin eta ondo dakite aldizkariko kideek zenbaitetan izaten direla akatsak:

*“Atalen izenak direla eta, erreportaia jartzen duen toki guztietan erreportajeak dira? Ni inprentara joaten naiz lan guztiekin eta aurretik begiratzen dut, orduan gogoratzen badut jartzen diot atalaren izena. Askotan gertatu zait bertan egon eta bertakoek esatea, beno hemen erreportaia jarriko dugu ezta? Nik baietz esan eta etxera bueltatu orduko, ez zela hori jarri behar konturatu, baina etxean nengoela beranduegi”*<sup>1073</sup>, onartzen du Lukas Dorronsorok.

*Berriketan* aldizkaria egiten dutenen artean ez dago kazetaritza ikasi duenik. Horregatik, aldizkarian “Erreportaia” sailaren barnean, albisteak eta iritzi-artikuluak ere aurkitu ditugu 2000-2004 bitartean.

## D) ELKARRIZKETA

Elkarrizketak erreportajeak baino gutxiago agertzen dira eta askotan sailaren izena elkarrizketa izan bada ere, bertan argitaratu diren idatziak albiste moduan kodifikatu izan dira eta inoiz erreportaje moduan ere. Lan honetan aztertu diren *Berriketan* aldizkariko berrogeita hamazazpi zenbakietan, berrogeita hamasei elkarrizketa kaleratu dira, batz bestea, ia elkarrizketa bat ale bakoitzean. Elkarrizketa gehienak, estilo ez zuzenean daude idatzita eta askotan elkarrizketa baino, albiste itxura handiagoa dute. Hona hemen hilabetekariko kideek emandako arrazoiak:

*“Elkarrizketak hasieran galdera erantzun formularekin egiten genituen, baina Mikelek behin egin zuen eta, bertso, erdi puntu moduan sartzen hasi zen. Hori da norberak segun zein esperientzia izan duen idazten eta nondik jotzen duen. Mikel bertsolari eta euskara irakaslea da eta niri hura gustatu zitzaidan eta gerora egin ditut horrelakoak. Beste batzuetan gertatu izan da, elkarrizketa norbaiti egin nahi izatea eta kasurik ez egitea, azkenean elkarrizketa aipuekin bete behar izatea era ez zuzenean. Hamabost galderetatik bi erantzun jaso eta informazioa handik eta*

<sup>1073</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

*hemendik aterata, testua bera osatuz joan behar izatea. Beste batzuetan norbaitekin ordu bete egon eta gero, galdera guztiak eta erantzun guztiak sartzea oso zaila izaten denez, espazioa mugatua delako, era ez zuzenean edukia hobeto atera daiteke eta horregatik era ez zuzenean egin izan dira eta askotan, artikulu itxura handiagoa hartzen dute”* <sup>1074</sup>, azaltzen du Nagore Dorronsorok.

### **Informazioa bi hitzetan**

Beraz, albiste laburrak eta albisteak dira *Berriketan* aldizkarian herritarrak informatzeko erabiltzen diren informazio-genero garrantzitsuenak. Alde batetik espazioa berez murrizta delako, zortzi orri hilerok, eta ongi aprobetxatzen saiatzen direlako ahalik eta eduki labur gehien sartuz. Beste alde batetik, irakurleak euskaraz irakurtzen ohitu gabe daudelako eta genero arin eta laburren bitartez erraztu egiten zaielako irakurketa.


Erreportajeak eta elkarrizketak neurri txikiagoan bada ere erabiltzen dira aldizkarian, baina ez beti era egokian. Sarri askotan, atalaren izena eta bertan erabiltzen den generoa ez datoz bat, elkarrizketa edo erreportajea jartzen duen tokian, iritzi-artikuluak edo albisteak agertzen baitira. Aldizkarian kazetaritza-generoen arteko oreka mantentzen ahalegintzen diren arren, askotan ezinezkoa egiten zaie: gaiak lantzeko ez baitago irizpide finkorik eta kazetaritza-generoak ez dira kolaboratzaileen artean aurrez definitzen. Bakoitzak dakienaren arabera eta dakien moduan egituratzen ditu gaiak.

---

<sup>1074</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Nagore Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

4.5.3.1.2- Informazioaren bilakaera

83I. grafikoa



Informazio-generoen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

83J. taula

URTEAK	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Elkarrizketa	Kronika	GUZTIRA
2000	50	61	20	14	2	0	147
2001	35	39	10	10	12	0	106
2002	27	43	8	17	11	0	106
2003	22	32	4	21	14	0	93
2004	27	38	6	21	17	1	110

Informazio-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Aldizkarian urtero kaleratzen den informazio-item kopuru orokorra urtetik urtera jaitsi egiten da eta beheranzko joera hori 2001etik aurrera nabaritzen da batik bat. Jaitsiera askoz nabarmenagoa da 2003an, urte horretan 2000. urtean baino berrogeita hamalau informazio-item gutxiago argitaratzen baitira. 2001ean ohi baino hiru ale gutxiago aztertu dira eta ikertu diren bederatzi zenbakiotan, 2002ko hamabi zenbakietan argitaratu den item kopuru bera aurkitu dugu. Beraz, *Berriketan* aldizkariak urteekin batera informazioa gutxiago ematen duela izango litzateke ondorio nagusia. Izan ere, orri kopurua ugaltu egiten da, 2001eko apiriletik aurrera DBHko ikasleen “*Berriketan Gaztea*” lau orriko gehigarria kaleratzen hasten direlako. Beraz, informazio-generoak gutxiago erabiltzen dira eta datuek argi eta garbi erakusten dute informazioaren jaitsiera hori: 2000. urteko hamabi aleetan guztira informazioa %84ko portzentajera iristen da. Urtetik

urtera jaitsiz doa kopurua eta 2004ko *Berriketan* aldizkariko hamabi zenbakietako informazioa kopurua, %55ean kokatzen da, hasierako urtean baino hogeita bederatzi puntu beherago hain zuzen ere.

### A) ALBISTEA

Albisteen kopurua apurka-apurka jaitsiz joan da urteekin batera. Hainbatetan gertatzen den bezala, beti ez datoz bat kopuru absolutuak eta portzentajeak. Esaterako, 2000. urtean berrogeita hamar albiste kaleratzen dira eta horien portzentajea %34koa da. 2001ean aldiz, hogeita hamabost albiste argitaratzen dira eta portzentajea %38koa da. Urte batean eta bestean kaleratu den informazio-generoen kopuru orokorra ezberdina da: 2000. urtekoa altuagoa da, horregatik urte horretako albisteen portzentajea 2001ekoa baino baxuagoa da. Dena dela, urtetik urtera albiste gutxiago argitaratzen dira eta emaitzek argi erakusten dute: 2000. urtean argitaratzen den albiste kopurua 2004. urtekoaren bikoitza da.

*Berriketan* hilabetekarian albisteak aldizkariko edozein ataletan ager daitezke, nahiz eta normalean *Azalean*<sup>1075</sup>, *“Elkarrizketa”*<sup>1076</sup>, *“Laburrak”*<sup>1077</sup>, *“Itziar”*<sup>1078</sup>, *“Erreportaia”*<sup>1079</sup> sailetan kaleratzen diren eta *“Berriketan Gaztea”*<sup>1080</sup> gehigarrian. Bestalde, ale ezberdinetan sortzen diren sekzio berrietan ere agertu ohi dira albisteak, adibidez, *“Kultur txokoa”*<sup>1081</sup> atalaren baitan.

### B) ALBISTE LABURRA

Albiste labur gehiago argitaratzen dira 2000-2002 bitartean, hurrengo bi urteetan baino. Arestian aipatu bezala, 2000. urtean kaleratzen da informazio gehien eta hori dela eta, 2000 eta 2002ko portzentajeak berdinak dira, %41ekoak alegia, nahiz eta 2000. urtean albiste labur gehiago kaleratu diren. Jakin badakigu, portzentajeak urte osoko informazio kopuru orokorraren arabera kalkulatu direla, eta zenbat eta altuagoa izan item kopuru orokorra, urte bakoitzeko portzentajea baxuagoa da. Albiste laburrak kaleratzeko ahalegina egiten bada ere, askotan ezinezkoa izaten da albiste laburrei lekua egitea. Alde batetik, ataletan etengabe aldaketak daudelako eta bestetik, kazetaritza-generoak aurretik zehaztu gabe daudelako.

<sup>1075</sup> - Adibidea: “Gertagaitza da Erika untzia hondakinak hondartzan aurkitzea”. 2000ko martxoko 20. alean. (1. or.).

<sup>1076</sup> - Adibidea: “Luzaro eskolako zuzendari berria”. 2000ko iraileko 26. zenbakian. (6. or.).

<sup>1077</sup> - Adibidea: “Harri-Lubeta edo eskoilera”. 2001eko martxoko 31. alean. (6. or.).

<sup>1078</sup> - Adibidea: “Gas naturala Itziarren”. 2000ko urriko 27. zenbakian. (7. or.).

<sup>1079</sup> - Adibidea: “Naparranekua aterpetxea”. 2002ko abuztuko 48. alean. (4. or.).

<sup>1080</sup> - Adibidea: “Euskal Jaia 2002, Deba”. 2002ko urriko 50. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (1. or.).

<sup>1081</sup> - Adibidea: “Plazatik gaztetxera 2003”. 2003ko maiatzeko 57. alean. (7. or.).

2000. urtean, “Itziar”<sup>1082</sup>, “Agenda”<sup>1083</sup> eta “Laburrak” ataletan agertzen dira albiste laburrak. Urte horretan, agendan ekitaldi kultural ezberdinen albiste laburrak sartzen baitira. 2001etik aurrera albiste laburrek “Laburrak”<sup>1084</sup> sailean dute leku finkoa. Noizbait “Berriketan Gaztea”<sup>1085</sup> gehigarrian agertzen dira eta baita bestelako atalen batean ere.

Debako hilabetekarian albiste laburrak beti egon dira albisteen gaintik, baina gerora bi urteetan zazpi eta lau puntuko tartea zegoen hurrenez hurren batzuen eta besteen artean. 2002tik aurrera tarte hori hamasei puntura igotzen da eta azken bi urteetan hamar puntutan mantentzen da.

### C) ARGAZKI-ALBISTEA

83I. grafikoan eta 83J. taulan agertzen diren portzentajeek argi erakusten dute argazki-albisteen beheranzko joera. Bost urteko azterketa-epean, argazki-albisteen portzentajea erdia baino gehiago jaitsi da. 2000. urtean hogeitun argazki-albiste kaleratzen dira (%14) eta 2004ko hamabi zenbakietan sei argazki-albiste bakarrik (%5) aurkitu dira. 83J. taulako datuen arabera, informazioak behera egin ahala gutxitu dira argazki-albisteak, poliki-poliki.

2000-2002 bitartean argitaratzen dira batez ere argazki-albisteak, “Ezetz asmatu”<sup>1086</sup> eta “Berri berriak”<sup>1087</sup> sailetan. Izan ere, “Ezetz asmatu” sekzioan hilero argazki zahar bat kaleratzen da eta irakurleari argazkian agertzen direnen izenak asmatzea proposatzen zaio, baina ez da lehiaketa bat. 2003tik aurrera gero eta argazki-albiste gutxiago argitaratzen dira, “Ezetz asmatu” eta “Berri berriak” atalak desagertzen direlako; beraz, “Laburrak”<sup>1088</sup>, “Erreportaia”<sup>1089</sup> eta “Inkesta”<sup>1090</sup> sekzioetan agertzen dira argazki-albisteak. “Inkesta” sailean agertzen direnak, “Berriketan Gaztea” gehigarrian egiten diren inkestetan aurkitu ditugu.

### D) ERREPORTAJEA

Urteak aurrera egin ahala, erreportajeak (erreportaje eta argazki-erreportajeak) gero eta presentzia handiago dute Debako aldizkarian eta hori adierazten dute datuek. 2000. urtean hamalau erreportaje kaleratzen dira informazioaren baitan, %10eko portzentajea izanik. 2001ean

<sup>1082</sup>- Adibidea: “Unai Osa Girotik etxera”. 2000ko ekaineko 23. zenbakian. (7. or.).

<sup>1083</sup>- Adibidea: “Kontzertua”. 2000ko azaroko 28. alean. (8. or.).

<sup>1084</sup>- Adibidea: “Haur Hezkuntzako ikastetxe berria”. 2001eko iraileko 37. zenbakian. (7. or.).

<sup>1085</sup>- Adibidea: “Drogomenpekotasuna”. 2003ko martxoko 55. alean. “Berriketan Gaztea”. (2. or.).

<sup>1086</sup>- Adibidea: “Ezetz asmatu”. 2000ko apirilko 21. zenbakian. (8. or.).

<sup>1087</sup>- Adibidea: “Euskal Jaian giro bikaina”. 2000ko urriko 27. alean. (8. or.).

<sup>1088</sup>- Adibidea: “Zubiko lanak”. 2003ko maiatzeko 57. zenbakian. (6. or.).

<sup>1089</sup>- Adibidea: “Historiak jaso dezan”. 2003ko abenduak 64. alean. (2. or.).

<sup>1090</sup>- Adibidea: Debako paisaia ezberdinak kaleratzen dira. 2004ko azaroko 75. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (3. or.).



puntu batean jaisten da erreportajeen kopurua, baina ezin ahaztu daiteke 2001ean bederatzi ale bakarrik hartu ditugulako gure laginerako. 2002tik aurrera erreportajeen kopuruak gora egiten du eta portzentajeek ere bai, 2003 eta 2004an erreportaje gehien kaleratuz, hogeita bat erreportaje hain zuzen ere. 2003an portzentajea %23koa da eta 2004an %19koa. 2003an guztira laurogeita hamahiru informazio-item argitaratzen dira eta 2004an ehun eta hamar; azalean<sup>1091</sup> eta “Erreportaia”<sup>1092</sup> sailean agertzen dira batik bat. Dena dela, “Berriketan Gaztean”<sup>1093</sup> azken urtean hainbat aldiz kaleratu dira erreportaje ezberdinak.

### **E) ELKARRIZKETA**

Elkarrizketak gero eta gehiago agertzen dira *Berriketan* aldizkarian, batez ere 2002. urtetik aurrera, eta aipatzekoa da elkarrizketek izan duten bilakaera. 2000. urtean ia ez dago elkarrizketarik, aztertu diren hamabi aleetan bi elkarrizketa aurkitu ditugu, informazio osoaren %1a elkarrizketak dira. Gutxika-gutxika elkarrizketa gehiago sartzen dira aldizkarian, nahiz eta horietako asko, albiste moduan sailkatu diren, orri erdiko edo orri osoko elkarrizketa ez zuzenak direlako. 2003an hamalau elkarrizketa kaleratzen dira eta 2004an hamazpi, bi urteetan portzentajea %15ekoa izanik. 2001etik aurrera, batz bestea, ale bakoitzean elkarrizketa bat kaleratzen da, baina kontuan izan behar da 2001ean “Berriketan Gaztea” gehigarria kaleratzen hasten dela eta bertan, ale guztietan elkarrizketa bat edo bi kaleratzen direla. Aldizkarian, “Elkarrizketa”<sup>1094</sup> eta “Erreportaia”<sup>1095</sup> ataletan agertzen dira elkarrizketa gehienak eta “Berriketan Gaztea” gehigarriko “Elkarrizketa”<sup>1096</sup> sailean. 2002tik aurrera aurkitu diren elkarrizketa gehienak gazteen gehigarrian argitaratzen dira.

### **F) BESTEAK**

Kronika ez da *Berriketan* aldizkarian erabiltzen den kazetaritza-generoa. Bitxikeria moduan aipatu daiteke, bakarra aurkitu dela aztertu diren berrogeita hamazazpi zenbakiotan, “Martxoaren 11ko sarraskia Madrilen” kronika hain zuzen ere. 2004ko apirilko 68. zenbakiko “Berriketan Gaztea” gehigarrian argitaratutakoa.

<sup>1091</sup>- Adibidea: “Mozart-Verdi-Mozart”. 2001eko abenduko 40. alean. (1. or.).

<sup>1092</sup>- Adibidea: “Kutsaduraren aurka ostrak gailen”. 2002ko apirilko 44. zenbakian. (4. or.).

<sup>1093</sup>- Adibidea: “Ikas-bidaia 2003-04”. 2004ko maiatzeko 69. alean. “Berriketan Gaztea”. (1.-2.-3.-4. or.).

<sup>1094</sup>- Adibidea: “Zaharren biltokiko lehendakari, idazkari eta diruzaina”, Ixtiñari egindako elkarrizketa. 2001eko uztaileko 35. zenbakian. (6. or.).

<sup>1095</sup>- Adibidea: “Marrazo eta arrainekin bizitzen akuariumean”. 2001eko martxoko 31. alean. (4.-5. or.).

<sup>1096</sup>- Adibidea: Elene Bravo Mugari egindako elkarrizketa. 2002ko ekaineko 46. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (2. or.).

### **Informazioaren bilakaera bi hitzetan**


Ondorioz, informazio kopurua jaitsi egiten da urtetik urtera aldizkarian, “Berriketan Gaztea” gehigarriarekin orri kopurua gehitu egiten da eta informazio kopuru orokorra jaitsi egiten da. Albisteak eta albiste laburrak gero eta gutxiago erabiltzen dira, baina biak dira urtero gehien agertzen diren informazio-generoak. Argazki-albisteen kopurua ere gutxituz doa urteak aurrera egin ahala, 2000-2004 bitartean erdira jaitsiz. Erreportaje eta elkarrizketak, ordea, gehiago dira urtetik urtera. Hasieran albiste labur, albiste eta argazki-albisteak dira informazio-genero izarrak eta poliki-poliki interpretazio-generoei egin zaie lekua, informazio-generoen arteko oreka bilatu nahian.

### 4.5.3.2-Iritzia

Debako hilabetekarian aztertu diren berrogeita hamazazpi zenbakietan, kaleratu diren genero guztien artean, iritziak, %20ko portzentajea izan du. Ikerlan honetan aztertu diren sei aldizkariaren artean *Berriketan* da iritzia gehien lantzen duena. Iritziak bertan izan duen bilakaera eta agerpena hurrengo bi ataletan aztertuko dugu. Lehenengo eta behin, iritzi-genero ezberdinek 2000-2004 bitartean Debako hilabetekarian izan duten presentzia ikusiko dugu. Ondoren, iritzi-genero bakoitzak urtez urte izan duen garapena nolakoa izan den azalduko dugu.

#### 4.5.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean

84I. grafikoa



Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkariaren bost urteko epean.

84J. taula

	Artikulua	Kritika	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutunak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	37	30	88	25	10	190

Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

*Berriketan* aldizkariako berrogeita hamazazpi zenbakietan 190 iritzi-item aurkitu dira. 84I. grafikoa agertzen diren portzentajeek eta 84J. taulako datuek erakusten dutenez, gehien agertzen diren iritzi-generoa inkestarena da, iritziaren ia erdia inkestek osatzen dute-eta. Kontuan izan behar da, hileroko *Berriketan* aldizkariaren kale-inkesta bat argitaratzen dela, sei herritarri gai bati buruzko iritzia galdetzen zaie eta 2002tik aurrera, inkesten kopurua bikoiztu egiten dela, “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian beste inkesta finko bat agertzen delako. Kale-inkesta irakurterraza eta arina da eta herritar edota ikaslearen iritziaren ondoan agertzen diren argazkiak erakargarri bihurtzen du.

### **A) ARTIKULUA**

Artikuluak da inkestaren ostean gehien agertzen den iritzi-generoa, nahiz eta inkesta kopurua, artikulu kopuruaren bikoitza baino altuagoa den. Gogora dezagun artikuluen definizioa eta zer nolako funtzioa duen: estilo arin honen ezaugarriak, egitura sinplearenak dira, oso bereziak eta anekdotikoak diren egitateetan oinarritutako izaera sinbolikoa eta orokorra duten ondorioak ateratzeko asmoz. Batzuek, estilo hau Literatura eta Kazetaritzaren artean kokatzen dute eta ez dago informazio gaurkotasunari oso lotuta, nahiz eta puri-purian dauden gertaeretan oinarritzen den<sup>1097</sup>.

*Berriketan* aldizkarian aurkitu diren artikuluek bi eratakoak izan dira: alde batetik aldizkariak berak artikuluek egileari eskatzen dizkion idatziak eta bestetik, aldizkariaren herriko talde zein pertsona ezberdinen eskutik heltzen diren testuak, gehienak iritzi-artikuluek baitira.

### **B) KRITIKA**

2001eko urritik aurrera, kritika ezberdinak kaleratzen dira aldizkarian hilero. Gehienetan liburu kritikak izaten dira, liburutegiarekin harreman estua baitago eta bien arteko elkarlana, aldizkariaren “Liburuak” atalean islatzen da. Musika kritikak, antzerki kritikak, baina batez ere literatura kritikak nagusitzen dira bost urte hauetan. Guztira hogeita hamar kritika aurkitu dira eta gehien agertzen den hirugarren iritzia generoa bera da.

### **C) INKESTA**

Inkesta da iritzi-genero izarra 2000-2004 bitartean, lan honetan aztertu diren ale guztietan inkesta finkoa izan baita. Laurogeita zortzi inkesta argitaratu dira berrogeita hamazazpi zenbakietan, bataz beste inkesta t’erdi aleko. Kanean herritarrei egiten zaizkien inkestak estimatuak eta irakurterazak direla ez dago zalantzarik. Era berean, irakurleek gustuko duten saila dela argi dago. Horregatik sartzan dute inkesta *Berriketan* aldizkarian, badakitelako jendeak irakurtzen duela eta estimatzen duela:

*“Kale-inkesta erakargarria delako sartzan dugu, irakurtzen delako. Atal hori egitea asko kostatzen bada ere, azkenean jendea gustatzen zaiola aldizkarian bere burua ikustea eta horren*

---

<sup>1097</sup> - “Las características de este estilo ameno son las de una estructura dialéctica simple, basada en la intención de deducir conclusiones de carácter simbólico y general a partir de los hechos y cosas de carácter anecdótico y muy particular. Un estilo que algunos sitúan entre el Periodismo y la Literatura, y que no se encuentra estrictamente ligado a la actualidad informativa, aunque parta de hechos y acontecimientos que mantienen una vigencia” (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 105-106).

*bitartez, inoiz irakurri ez duenak bertan agertzen delako bakarrik irakurri egingo du eta agian, ohitura sortzen joango da irakurtzen hasteko*”<sup>1098</sup>, azaltzen du Lukas Dorronsok.

2002tik aurrera DBH-ko ikasleek prentsa tailerrean egiten duten “Berriketan Gaztea” gehigarrian ere, inkesta argitaratzen dute eta ordutik aurrera bi inkesta agertzen dira batz bestea ale bakoitzean.

#### **D) ZUTABEA**

2000-2004 bitartean hogeita bost iritzi-zutabe argitaratu dira Debako aldizkarian. Zutabea ez da hilero kaleratzen den iritzi-genero finkoa, momentu puntualetan agertzen dena baizik. Adibidez, 2003an, *Berriketan* aldizkariak bost urte betetzen dituenean argitaratzen dira hainbat iritzi-zutabe. Nolanahi ere, *Berriketan* aldizkaria egiten duen lan-taldearen helburuetako bat, hilabetekarian jende ezberdinaren parte-hartzea lortzea da. Ahalik eta kolaboratzaile-sare zabalena sortzen saiatzen dira, aldizkariari pluraltasuna emateko asmoz, baina onartzen dira zaila izaten dela jende berria erakartzea.

#### **E) IRAKURLEEN GUTUNAK**

Irakurleen gutunen atala oso gutxi agertzen da 2000-2004 bitartean. Atal gisa, behin soilik agertzen da “Gutunak” saila moduan, baina ez du leku finkorik aldizkarian. Eskutitzak erredakziora heldu ahala kaleratzen dira. Lan honetan aztertu diren berrogeita hamazazpi zenbakietan, hamar gutun kaleratu dira. Aldizkariak irakurleei beti luzatzen die idazteko aukera, “*Guk beti uzten dugu atea zabalik. Berez, nahiz eta atala ez den betetzen eta ez den atal bezala agertzen, beti jartzen dugu gutunak idazteko aukera egon badagoela, beraz, atalari ate bat irekitzen diogu, nahiz eta ez den finkoa*”<sup>1099</sup>, zehazten du Lukas Dorronsok. Horren adierazle argia, aldizkarian kaleratutako honako ohar hau da: “Berriketan zaleei oharra: Herritarren kexak, txaloak edota iritziak jasotzeko, aldizkariak gutunak izeneko saila zabaldu du. Idatzi guztiak Ifar kaleko 12.eko z/g-ra bidali beharko dira izena, NAN eta telefono zenbakiarekin, nahiz eta izen-abizenekin soilik argitaratu. Gehienez 25 lerro izan beharko du. Bestalde, lerro hauen bitartez gogorarazten zaizue, aldizkarian lagundu nahi duzuen guztiok ateak irekita dituzuela”<sup>1100</sup>.

<sup>1098</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1099</sup> - Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1100</sup> - 2000ko ekaineko 23. alean. (8. or.).

### **Iritzia bi hitzetan**

Beraz, artikulua, kritika, inkesta eta zutabea urtero nahiko finko agertzen diren iritzi-generoak dira *Berriketan* aldizkarian. Hala eta guztiz ere, iritzi-genero ezberdinek gorabehera ugari izan dituzte bost urte hauetan.

Inkesta da zalantzarik gabe iritziaren baitan gehien agertzen den generoa, aldizkarian eta baita “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian ere erabiltzen delako. Irakurterraza, arina eta atsegina den genero hori arrakastatsuen da.

Neurri txikiagoan bada ere, artikulua da gehien lantzen den bigarren iritzi-generoa, kolaboratzailek idazten dituzten artikulua eta herriko taldeek aldizkarira bidaltzen dituztenak hain zuzen ere.


Aldizkarian kaleratu diren kritikak literaturari lotutakoak izan dira, baina noizbait musika eta antzerki kritikaren bat ere kaleratu da.

Iritzi-zutabeak une puntualetan kaleratu dira eta jende berria aldizkarira gerturatzeko balio izan dute.

Irakurleen gutunak aldizkarira bidaltzeko aukera beti egon bada ere, oso gutxitan erantzun dute irakurleek, gutxien landu den iritzi-generoa izan da-eta.

4.5.3.2.2- Iritziaren bilakaera

85I. grafikoa



Iritzi-generoen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

85J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Artikulua	Kritika	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutunak	GUZTIRA
	2000	4	0	12	0	5	21
	2001	2	3	14	2	2	23
	2002	11	12	21	1	3	48
	2003	7	9	20	19	0	55
	2004	13	6	21	3	0	43

Iritzi-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Arestian aipatu bezala, Deba Barrenean argitaratzen diren sei herri-aldizkarien artean *Berriketan* da iritzia gehien lantzen duen errebista. 85J. taulan urte bakoitzean guztira kaleratzen diren iritzi testuek adierazten duten moduan, urtetik urtera iritzia hazi egin da eta goranzko joera hori 2002tik aurrera nabarmena da oso. Argiago ikus dadin, lehenengo eta azken urteko datuak alderatu daitezke: 2000. urtean orotara hogeita bat iritzi-item kaleratzen dira eta 2004an aldizkarian argitaratzen den iritzi testuen kopurua bikoitza da, berrogeita hiru item hain zuzen ere.

Aldizkarian kazetari profesionalik ez egotearen eta iritzi-generoak gainerako aldizkarietan baino gehiago erabiltzearen artean zerikusirik badagoela ondorioztatu dugu. Izan ere, lan-taldeko jendeak ez du ikasi informazio eta iritzi-generoen artean dagoen ezberdintasuna eta genero ezberdinen funtzioa zein den. Eurak irakurle diren neurrian ezagutzen dituzte eta ezberdintzen dituzte kazetaritza-generoak. Beraz, nahi baino gehiago nahasten da iritzia eta informazioa. Xabi

Laka oso kontziente da gai batzuetan nahi gabe norberaren iritzia sartzen dela: “*Gu saiatzen gara iritzirik ez sartzen guk idatzitako testuetan (adibidez, Casa de Campoko astakeria horretan) eta informazioa ematen, baina zerbait beti sartzen da nahitaez*”<sup>1101</sup>.

### A) ARTIKULUA

Horregatik *Berriketan* aldizkarian aurkitu den artikulu kopurua gainerako aldizkarietan baino altuagoa da. Gainera, artikuluak urtetik urtera gehituz doaz eta horien kopurua hirukoiztu egin da bost urteotan. Portzentajeak begiratzuz gero, alde handiak daude, batez ere urte bakoitzeko iritzi-item kopuru orokorraren arabera kalkulatzen direlako portzentajeak. Horrela bada, artikulu kopuru handiena 2004an aurkitu dugu, urte horretan aldizkarian kaleratu den iritziaren %30a artikulek osatzen baitute, hamahiru artikuluk hain zuzen ere. Artikulek ez dute leku finkorik aldizkarian, edozein ataletan ager daitezke, baina gehienetan azaleko testuan<sup>1102</sup>, “Erreportaia”<sup>1103</sup> edo “Berriak”<sup>1104</sup> atalean aurkitu ditugu.

### B) KRITIKA

Kritika, hasierako urtean ez da batere lantzen eta urteak aurrera egin ahala finkatuz joan da iritzi-genero hau, musika eta literatura kritikak landu dira, 2002an bereziki. Urte horretan hamabi kritika kaleratzen dira, portzentajeetan %25ean kokatuz. Beraz, 2000. urtean kritikak ez agertzetik, 2004an %14ko portzentajea izatera pasatu dira. Atal eta toki finkoa dute kritikek<sup>1105</sup> aldizkarian, “Liburuak” eta “Liburutegia” sailetan agertzen baitira. Urte batetik bestera aldatzen diren izen ezberdinak badituzte ere, guztietan literatura eta liburutegiko informazio eta iritziak kaleratzen dira. Bestalde, “Berriketan Gaztea” gehigarriko “Kulturaren txokoa” sailean ere musika kritikaren bat<sup>1106</sup> aurkitu dugu.

### C) INKESTA

Inkestak, artikuluekin batera, urtero aldizkarian kaleratzen diren iritzi-genero finkoak dira eta datuen arabera, inkesta beste genero guztien artean gailentzen da. Kale-inkestaren portzentajea beste iritzi-generoekin konparatuz altuena da urtero. 2002tik aurrera gainera, kale-inkesten kopurua bikoiztu egiten da “Berriketan Gaztea” gehigarrian ere, ale guztietan inkesta bat

<sup>1101</sup>- Dokore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Xabi Laka, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1102</sup>- Adibidea: “Preso naute eta preso dute familia”, Etxerat taldeak idatzitakoa. 2004ko azaroko 75. alean. (1. or.).

<sup>1103</sup>- Adibidea: “Kontuz semaforoarekin”, Nagore Dorronsorok idatzitakoa. 2003ko martxoko 55. zenbakian. (2. or.).

<sup>1104</sup>- Adibidea: “Mesedez txakurrak zaindu uretara gabe”, Josean Rodriguezek idatzitakoa. 2001eko apirilko 32. alean. (7. or.).

<sup>1105</sup>- Adibidea: “Ipuin baten bezala”, Goizane Aizpuruak egindako liburuaren kritika. 2003ko apirilaren 56. zenbakian. (7. or.).

<sup>1106</sup>- Adibidea: “Meteora” Linkin Park musika taldearen lanaren kritika. 2003ko abenduko 64. alean. “Berriketan Gaztea”. (4. or.).



egiten delako eskolako ikasleen artean. Kopuruak bikoiztu egiten dira, baina ez ordea portzentajeak, eta horren azalpena urteko iritzi testuen kopuru orokorrean bilatu daiteke. Hau da, 2000. urtean hamabi inkesta kaleratzen dira eta portzentajea %57an kokatzen da. 2004an hogeita bat inkesta argitaratzen dira eta portzentajea %49ra jaisten da. Kontuan hartu behar da 2000. urtean hogeita bat iritzi testu kaleratzen direla guztira eta 2004an, berrogeita hiru item. Beraz, urteko iritzi testu kopuru orokorrak gora egin ahala, urte bakoitzeko inkesta portzentajea jaitsi egiten da.

Kontuak kontu, iritziaren barnean herritarren zein eskolako ikasleen iritzia jasotzeak garrantzi berezia du aldizkarian, bereziki irakurtzen den atala delako. Aldizkarian “Kale-inkesta”<sup>1107</sup> atal finkoa da eta “Berriketan Gaztea” gehigarrian “Inkesta”<sup>1108</sup> sekzioa argitaratzen da.

#### **D) ZUTABEA**

*Berriketan* aldizkarian iritzi-zutabeak ez dira askotan agertzen. Lehenengo urtean ez da zutaberik argitaratzen eta hurrengo urteetan ere bizpahiru zutabe baino ez dira agertzen, 2003an izan ezik. Urte hori salbuespena baita, hemeretzi iritzi-zutabe kaleratzen dira-eta. Urte bereko abuztuan *Berriketan* aldizkariaren bosgarren urteurrena betetzen da eta horren harira, aldizkariak kolaborazio ezberdinak eskatzen ditu, horregatik 2003ko abuztuko alean soilik, hamabi iritzi-zutabe<sup>1109</sup> kaleratzen dira eta urte horretan aldizkarian argitaratzen diren zutabeak inkestak beste dira. Horiez gain, “Berriketan Gaztea” gehigarrian ere aurkitu dira iritzi-zutabeak<sup>1110</sup>.

#### **E) IRAKURLEEN GUTUNAK**

Irakurleen gutunak lehenengo hiru urteetan agertzen dira aldizkarian, bereziki 2000. urtean. Urte horretan bost gutun<sup>1111</sup> kaleratzen dira, portzentajea %24koa izanik. Hurrengo bi urteetan atal honen agerpena gutxituz joan da desagertu arte, 2001ean bi gutun kaleratzen dira (%9) eta 2002an hiru eskutitz argitaratzen dira, portzentajea %6ra jaitsiz. Dena den, *Berriketanen* ez da inoiz gutunen atal finkorik egon, nahiz eta aldizkariak gutunak idazteko aukera beti eskaini duen.

<sup>1107</sup>- Adibidea: “Hondartzako obrak eta uda, nola moldatuko gara?”. 2001eko ekaineko 34. alean. (3. or.).

<sup>1108</sup>- Adibidea: “Zer iruditzen zaizu aurtengo txirindularitza denboraldian euskaldunek eginiko papera? Zein da zure txirindularirik gogokoena?”. 2002ko azaroko 51. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (3. or.).

<sup>1109</sup>- Adibidea: “Dagoeneko bost urte”, Mari Searak idatzitako iritzi-zutabea. 2003ko abuztuko 60. alean. (4. or.).

<sup>1110</sup>- Adibidea: “Segapotorik bai?”, Karmele Manzisidor eta Idoia Izagirrek idatzitako iritzi-zutabea. 2003ko 54. zenbakian. “Berriketan Gaztea” (3. or.).

<sup>1111</sup>- Adibidea: “Gazte Asanblada”, Debako Gazte Asanbladak idatzitako gutuna. 2000ko apirilko 21. alean. (5. or.).

### Iritziaren bilakaera bi hitzetan


Laburbilduz, Deba Barreneko herri-aldizkariaren artean *Berriketan* da iritzia gehien lantzen duen aldizkaria eta gainera, urtetik urtera indartuz doa. Aldizkarian idazten duten erredaktoreek ez dute ikasi ikuspegi akademikotik kazetaritza-genero bakoitzaren funtzioa zein den eta nola erabili behar den zehatz-mehatz, ez baitira kazetaritza lizentziatuak. Artikuluak ugaltu egin dira urtetik urtera. Kritikak 2001etik aurrera kaleratzen dira eta hazkunde apala erakusten dute. Inkesten portzentajeak behera egin du apur bat urteekin, baina inkesta kopuruak urtetik urtera gora egin du. Zutabeak batez ere 2003an agertzen dira, *Berriketan* aldizkariako 5. urteurrena delako. Irakurleen gutunen atala nabarmen jaisten da lehenengo urtetik aurrera ia desagertu arte.

#### 4.5.3.3- Literatura

Debako hilabetekarian literatura gutxien lantzen den kazetaritza-generoa izan da. 2000-2004 bitartean literaturaren portzentajea %5ekoa izan da eta bertan kaleratzen den literatura gehiena, “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian aurkitu dugu. Hurrengo bi ataletan literaturaren garapena eta agerpena aztertuko dugu. Alde batetik, gure azterketa-epean literatura-generoen agerpena nolakoa izan den ikusiko dugu. Bestetik, literatura-genero bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera azalduko dugu.

##### 4.5.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean

86I. grafikoa



Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunetotan, *Berriketan* aldizkariaren bost urteko epean.

86J. taula

	Ipuinak	Bertsoak	Txistek	Fotonobela	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	13	12	19	2	46

Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Literaturarekin zerikusia duten berrogeita sei testu aurkitu dira *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean eta horietatik hamaika aldizkarian bertan kaleratu dira; gainerako guztiak, berriz, “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian. Debako aldizkarian literatura gazte-jendeari zuzenduta agertzen dela ondoriozta daiteke. Gazte-gehigarria eskolako prentsa tailerlean bertako ikasle eta irakasleek egiten dute. Gainera, “*Berriketan Gaztea*”-n argitaratuko diren kazetaritza-generoak zeintzuk izango diren euren erabakitzen dute. Argi dago beraz, gazte-jendeak gustuko dituela literatura-generoak eta ohitura gehiago duela horrelakoak irakurtzeko, gehigarria gazte-jendeari zuzenduta baitago.

### **A) TXISTEAK**

Literaturaren baitan guk aztertu ditugun berrogeita hamazazpi aleetan gehien agertu den generoa txisteena izan da; hemeretzi txiste aurkitu dira eta guztiak bati izan ezik, “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian kaleratu dira. Txisteak maiztasun handiarekin argitaratzen dira gehigarrian, ale gehienetan ageri baitira. Argi dago irakurtzeko ohiturarik ez duten gazteek ere, erraz irakurtzen dituztela txisteak, erakargarriak eta arinak baitira. Hala eta guztiz ere, bitxia da literaturaren barnean txisteak ugariak izatea, lan honetan aztertu diren gainontzeko errebistetan ez dugulako horrelakorik aurkitu.

### **B) IPUINAK**

Txisteen ondoren, ipuina da gehien agertzen den literatura-generoa. Guztira bost urteko epean hamahiru ipuin kaleratu dira, %28ko portzentajea izanik. Gehienak “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian argitaratu dira, bederatzi hain zuzen ere. Gainerako lau ipuinak aldizkariko sekzio ezberdinetan aurkitu dira. Gehien lantzen den bigarren literatura-generoa bada ere, ipuinak ez dira finkoak “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian. Argitaratu direnean, ikasleek klasean egin dituzten lanak izan dira, esaterako 2002ko urtarrileko 42. zenbakian aurkitu ditugun hiru ipuinak. Aldizkarian argitaratu diren lau ipuinak, aldizkaria betetze aldera kaleratu dira.

### **C) BERTSOAK**

Bertsoak ere aurkitu dira bai aldizkarian eta baita “*Berriketan Gaztea*” gehigarrian ere. Hamabi bertso argitaratu dira aztertu ditugun zenbakietan. Horietatik erdia aldizkarian eta beste erdia gehigarrian aurkitu ditugu. Gehigarrian agertu direnak “*Berriketan Gaztea*”-ko “Bertsoak”

atalean argitaratu izan dira, 2002. urtean gehigarrian atal finkoa delako bertsoena, baina 2003tik aurrera bertsoen atala desagertu egiten da. Aldizkarian aurkitu diren bertsoak oso momentu puntaletan argitaratu dira, ez baitago bertsoak lantzeko atal finkorik aldizkarian.

#### **D) FOTONOBELA**

Fotonobelak dira literaturaren barnean gutxien agertzen direnak, bi fotonobela argitaratu dira 2000-2004 bitartean. Bi horiek “Berriketan Gaztea” gehigarrian kaleratu dira. Fotonobela ere ez da gehigarrian beti agertzen, ahal dutenean prestatzen dute-eta. Testu eta argazkien bitartez kontatzen duten istorioa da.


#### **Literatura bi hitzetan**

Beraz, literatura gutxi agertzen bada ere, argitaratzen den apur hori gazteei zuzendutako gehigarrian kaleratzen da batik bat, gazte-jendeak genero horiek errazago irakurtzen dituelako eta ohitura gehiago duelako.

Gehien agertzen den generoa txisteena da, ondoren ipuinak eta bertsoak eta gutxien agertu den literatura-generoa fotonobela izan da. 2000-2004 bitartean argitaratu diren txiste, ipuin eta bertso gehienak “Berriketan Gaztea” gehigarrian kaleratu dira, nahiz eta aldizkariko beste atal batzuetan ere agertu diren.

4.5.3.3.2- Literaturaren bilakaera

87I. grafikoa



Literatura-generoen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

87J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Ipuinak	Bertsoak	Txisteak	Fotonobela	GUZTIRA
	2000	0	0	0	0	0
	2001	2	4	5	0	11
	2002	3	4	4	1	12
	2003	7	3	4	0	14
	2004	1	1	6	1	9

Literatura-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Gainontzeko aldizkarietan gertatzen den bezala, Debako aldizkarian ere, literatura gutxien lantzen den generoetako bat da. Alabaina, tesi honetan aztertu diren sei agerkarien artean, *Berriketan* da literatura gehien lantzen duen aldizkaria Deba Barrean. Hein handi batean normala da literaturak agerpen txikia izatea oro har, aldizkariok informazioa emateko helburuarekin sortu zirelako, beraz, literatura agertzen da baina neurri batean, helburua ez baita jendeak literatura irakurtzea, herriko informazio orokorreko albiste eta berriak euskaraz irakurtzea baino.

87I. grafikoa eta 87J. taulan ikus daitekeenez, 2000. urtean ez da literaturarik agertzen aldizkarian, baina urteekin batera gero eta gehiago erabiltzen den kazetaritza-generoa bilakatu da. 2001etik 2003ra literaturarekin zerikusia duen testu kopuruak gora egin du baina 2004an

beheranzko joera antzematen da. Ipuinak, bertsoak eta txisteak urtero kaleratzen dira, fotonobela ez bezala.

Orokorrean, 87J. taulako testu kopuru absolutu eta 87I. grafikoan agertzen diren portzentajeen artean dagoen aldea nabarmena da. Hots, idatzi kopurua txikia izanda, portzentajea nahiko altua da. Adibidez, 2002an bi ipuin argitaratzen dira eta horren portzentajea %18koa da. Orain arte bezala, portzentajeak guztira urte horretan argitaratzen den testu kopuruaren arabera kalkulatzen dira; beraz, kopuru orokorra zenbat eta baxuagoa izan, portzentajea altuagoa da. Hori gertatzen da literatura-generoekin, gutxi direlako kaleratzen diren testuak.

### **A) IPUINAK**

Ipuinen agerpenak gorabeherak ditu 2001-2004 bitartean, baina orokorrean gero eta gehiago kaleratzen dira ipuinak aldizkarian, nahiz eta 2004an asko jaisten den kopurua. 2003an argitaratzen da ipuin kopururik altuena, zazpi ipuin hain zuzen ere. Beraz, urte horretan *Berriketanen* argitaratzen den literaturaren %50a.

Aurreko atalean esan dugunez, ipuin gehienak “Berriketan Gaztea”<sup>1112</sup> gehigarrian kaleratu dira (bederatzi) eta lau ipuin<sup>1113</sup> *Berriketan* aldizkariko gainerako ataletan aurkitu dira.

### **B) BERTSOAK**

Oro har bertsoen jaitsiera urtetik urtera nabaritzen da, 2001ean argitaratzen den bertso kopurua, 2004an kaleratzen denaren hirukoitza izanik. Beste behin ere, portzentajeak eta kopuru absolutuak ez datoz bat. 2001ean lau bertso kaleratzen dira, portzentajea %36koa izanik; 2002an ere lau bertso argitaratzen dira, baina portzentajea %33ra jaisten da. 2001ean guztira hamaika literatur item argitaratzen dira eta 2002an hamabi testu eta bertsoen portzentajeak kopuru horien arabera kalkulatzen dira. 2003an %21era jaisten da portzentajea eta 2004an %11ra, bertso bakarra argitaratzen baita. “Berriketan Gaztea” gehigarrian “Bertsoak”<sup>1114</sup> atalean argitaratu dira gehienak 2002 eta 2003 urteetan. Aldizkariko “Kultura”, “Laburrak” eta “Berriketan 5 urte” sailetan aurkitu ditugu bertsoak<sup>1115</sup>.

<sup>1112</sup>- Adibidea: “Ipuina” DBH ko 4. mailako ikasleek idatzitakoa. 2001eko apirileko 32. alean. “Berriketan Gaztea”. (3. or.).

<sup>1113</sup>- Adibidea: “Debako kanpaik hiru, liburutegiak bi eta galdera bat”, Sagutxok idatzitako ipuina. 2003ko ekaineko 58. zenbakian. (7. or.).

<sup>1114</sup>- Adibidea: “Azken urte ikastetxean” eta “Ikasbidaia”-ri buruzko bertsoak. 2001eko ekaineko 34. alean. “Berriketan Gaztea”. (2. or.). Atal bakoitzean hiru bertso kaleratu dira, baina guk hiruko bakoitza item bakar moduan hartu dugu.

<sup>1115</sup>- Adibidea: “Gabon eta gabon zahar zorion eta zoritzar”, Jon eta Arkaitzen bertsoak. 2002ko abenduako 52. zenbakian. (9. or.). Lau bertso dira, baina guk item bakar gisa sailkatu dugu.

### C) TXISTEAK

Urtetik urtera txiste gehiago sartzen dira aldizkarian eta txiste guztiak bat izan ezik, “Berriketan Gaztea”-n kaleratu dira. Izan ere, txisteen atala finkatuz doa urteekin eta 2004ko “Berriketan Gaztea” gehigarriko ale guztietan “Txisteak” saila kaleratzen da. Debako aldizkarian urtero kopuru altuena duen literatura-generoa bera da, 2001ean eta 2004an item kopuru eta portzentaje altuenak izanik: 2001ean bost txiste (%45) eta 2004an sei txiste (%67). Gainerako bi urteetan argitaratzen den txiste kopurua bera da, lau txiste urte bakoitzean baina portzentajeak ezberdinak dira: %33koa 2002an eta %29koa 2003an.

Gazteek egindako eta gazteei zuzendutako gehigarrian kaleratzeko genero aproposa da txisteena eta datuek hori egiaztatzen dute, lau urteetan kaleratzen diren txiste gehienak<sup>1116</sup> “Berriketan Gaztea”-n aurkitu direlako, aldizkarian bakarra<sup>1117</sup> kaleratu da.

### D) FOTONOBELA

2002an genero berri bat agertzen da, fotonobelarena. *Berriketan* aldizkariaren bereizgarria dela esan daiteke, beste inon ez baitugu horrelakorik aurkitu. Bertan, argazkien bitartez istorio bat kontatzen da. Ipuina, txistea edo komiki gisa ezin daitekeenez sailkatu, literaturaren barnean atal berezia dauka fotonobelak. 2002ko abenduko 52. zenbakian eta 2004ko urtarrileko 65. alean aurkitu dira bi fotonobela horiek.

#### Literaturaren bilakaera bi hitzetan

Literaturaren agerpena nabarmen hazten da Debako hilabetekarian, 2000. urtean literaturak aldizkarian presentziarik ez izatetik, urtero %5-%7ko portzentajeak izatera pasatzen da. Ipuinak oro har gero eta gehiago argitaratzen dira, baina 2004an horien agerpena asko murrizten da. Bertsoak ere urteak pasa ahala gutxitu egiten dira. Txisteak, berriz, gorabehera handiak izan ostean, 2004an goranzko joera argia erakusten dute eta fotonobela oso gutxi agertzen da oro har.

<sup>1116</sup>- Adibidea: “Bi tomate hozkailuan daude eta batek dio: - Hau da hotza hau!, besteak erantzun: - Ño! Hitz egiten duen tomateal!”. 2004ko martxoko 67. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (4. or.).


<sup>1117</sup>- “Tabernatik: Oto ta Pototo, alkarrri lepotik elduta, kalean zear... -Aizak, Pototo, Periko Zerraldo esagutzen al dek?- -Ze izen dula esan dek?- -Zeñek?”, Anes Arrinda debarak idatzitako txisteak duela 38 urte. 2003ko azaroko 63. alean. (8. or.).

#### 4.5.3.4- Zerbitzuak

Zerbitzuen atala da, informazioa eta iritziaren ondoren Debako aldizkarian gehien agertzen dena; baina informazioarekin alderatuz, askoz portzentaje txikiagoan lantzen dira zerbitzuak *Berriketan* aldizkarian. Izan ere, bost urte hauetan hilabetekarian argitaratu diren edukien %17a zerbitzuak izan dira. Bi urrats egingo dira jarraian zerbitzuek izan duten bilakaera nolakoa izan den erakusteko. Lehenengo urratsean, zerbitzuen baitan 2000-2004 bitartean agertzen diren kategoria ezberdinen agerpen orokorra azalduko dugu eta bigarren urratsaren bitartez, zerbitzuen atal bakoitzak urtez urte izan duen garapena aztertuko dugu.

##### 4.5.3.4.1- Zerbitzuak 2000-2004 bitartean

88I. grafikoa



Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean.

88J. taula

	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Salerosketa/Trukeak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	40	36	5	86	1	168

Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Lan honetan aztertu diren *Berriketan* aldizkariko berrogeita hamazazpi zenbakietan, orotara 168 zerbitzu-item kaleratu dira. Informazio hau erabilgarria da irakurlearentzat eta horregatik egiten zaio tokia aldizkarian.



### **A) DENBORA-PASAK**

Zerbitzuen baitan denbora-pasak nagusitzen dira eta horien helburua entretenimendua eskaintzea da. Guztira laurogeita sei denbora-pasa aurkitu dira 2000-2004 bitartean, eta gehienak (berrogeita hamasei) “Berriketan Gaztea” gehigarrian kaleratu dira. Eskolako prentsa tailerrekoek egindako horoskopoa, hizki-zopa eta asmakizunak izan dira denbora-pasa horiek. Gazte-jendeari zuzendutako gehigarria izanik, entretenimendua eskaintzea ezinbestekoa da, horrek irakurlearen arreta pizten baitu.

Neurri txikiagoan bada ere, “Berriketan Gaztea” gehigarritik kanpo ere, aldizkarian bertan, denbora-pasa eta lehiaketa batzuk aurkitu ditugu, hogeita hamar item aurkitu hain zuzen ere. Horien artean hizki-zopak eta lehiaketa ezberdinak, baina 2002ko abendutik 2004ko abendura, “Olerki musikatuaren txokoa” lehiaketa finkatzen da.

### **B) AGENDA**

88I. grafikoan eta 88J. taulan ikus daitekeen moduan, agenda da gehien errepikatzen den bigarren zerbitzua, berrogei agenda argitaratu dira *Berriketan* aldizkarian gure azterketa-epean eta kopuru horrek, zerbitzuen %24ko portzentajearen kokatzen ditu agendak.

Aldizkarian 2000-2003 bitartean beti kaleratu da agenda kulturala, baina ez beti agenda egiturarekin. Hots, 2000ko urtarrila eta ekaina bitartean eta abuztua eta azaroa bitartean, agenda albiste labur ezberdinek osatzen dute, beraz, atal bakoitza albiste labur gisa sailkatu dugu. Agenda kulturalez gain, bost kirol agenda ere aurkitu dira. 2004ko martxotik aurrera ez da agendarik kaleratzen Debako aldizkarian. Agenda argitaratu izan denean, beti toki berean kaleatu da, aldizkariaren kontra-azalean.

### **C) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Zerbitzu-informazioa ere sartu izan da aldizkarian, baina inoiz ez da modu egonkor eta finkoan agertu. Aztertu diren berrogeita hamazazpi aleetan hogeita hamasei aldiz kaleratu da zerbitzu-informazioa; gehienetan, liburutegiaren inguruko informazioa aurkitu dugu, liburutegian aurki daitezkeen liburu, CD eta bideoei buruzko testuak hain zuzen ere. Jakina denez, aldizkariak liburutegiarekin duen harremana estua eta etengabea da eta bien arteko elkarlanaren emaitza da zerbitzu-informazioarena ere.

*Berriketan* aldizkarian ez da tren eta autobus ordutegirik, botiken ordutegirik eta horrelakorik kaleratzen, ez modu iraunkorrez bederen; dena den noizbait argitaratu dira autobus ordutegiak aldizkariko azken orrialdean.

#### **D) INFORMAZIO ERABILGARRIA**

Informazio erabilgarria bost bider aurkitu dugu Debako hilabetekarian eta zerbitzuen atalean %3ko portzentajea kokatzen da, salerosketa eta trukeak atalarekin batera, gutxien lantzen diren zerbitzuak bi horiek izanik. Informazio erabilgarri gisa sailkatu diren bost item horiek oso momentu puntaletan sartu diren sukalde-errezetak izan dira, elkarte gastronomiko ezberdinetako sukaldariak egindakoak.

#### **E) SALEROSKETA ETA TRUKEAK**

Zerbitzuen atalean kaleratzen diren salerosketa eta trukeak, herritarrak eta irakurleak aldizkarira hurbiltzeko aukera eskaintzen dute, horrela bi aldean arteko harremana sendotu eta areagotu daiteke. Atal hori baina, ez da landu Debako aldizkarian, behin bakarrik argitaratu da horrelako iragarki bat, 2000. urteko abuztuko 25. aleko “Merkatu txikia” atalean<sup>1118</sup>. Ezin izan dute momentuz atal honekin asmatu, jendearen aldetik ez duelako erantzunik jaso.

#### **Zerbitzuak bi hitzetan**


Ondorioz, zerbitzu-gunea da informazio eta iritziaren ostean garrantzitsuena. 2000-2004 bitartean kaleratzen diren zerbitzuen erdia, denbora-pasak dira, beraz, alde handiarekin entretenimendua helburu duten zerbitzuak nagusitzen dira eta gehienak, “Berriketan Gaztea” gehigarrian aurkitu dira. Ondoren, agendak eta zerbitzu-informazioa dira inportanteenak agerpen-mailaren arabera. Agendak nahiko finkoak izan dira eta zerbitzu-informazioa nahiko aldakorra izan da. Informazio erabilgarria eta salerosketa eta trukeen atalak oso gutxi agertu dira bost urteetan.

---

<sup>1118</sup> - “Neska edo andra euskalduna behar da egun guztian umea zaintzeko. Mesedez, dei egin honako telefono honetara: 943 19 25 42”. (8. or.).

## 4.5.3.4.2- Zerbitzuen bilakaera

89I. grafikoa



Zerbitzu-generoen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

89J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Agenda	Zerbitzu-informazioa	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Saleros/Truke	GUZTIRA
	2000	2	0	3	0	1	6
	2001	10	3	0	10	0	23
	2002	15	12	0	22	0	49
	2003	11	15	0	27	0	53
	2004	2	6	2	27	0	37

Zerbitzu-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Zerbitzu atal batzuk oso gutxi agertzen diren arren, orokorrean zerbitzu kopuruak hazkundera izan du batez ere 2001etik 2003ra, lehenengo urtearekin alderatuz zerbitzuek hogeit puntutan egiten dutelako gora. 2004an, aldiz, zerbitzu gutxiago agertzen dira *Berriketan* hilabetekarian. 2000. urtean ez da ia zerbitzurik agertzen eta horregatik, 89J. taulako kopuru absolutu eta 89I. grafikoetan agertzen diren portzentajeen arteko aldea handia da.

**A) AGENDA**

Agendak gehitu egin dira Debako aldizkarian 2001etik 2003ra bereziki. Nolanahi ere, 89I. grafikoan agertzen diren portzentajeetan hazkundera ez da horrenbeste antzematen. Hau da, 2000. urtean bi agenda bakarrik aurkitu dira eta portzentajea %33an kokatzen da. 2001ean hamar agenden portzentajea %43koa da, baina 2002an hamabost agenden portzentajea %31koa da.

Lehenengo urtean sei zerbitzu-item bakarrik argitaratzen dira eta 2002an, ordea, berrogeita bederatzi item kaleratzen dira. Beraz, urteko kopuru orokorra zenbat eta altuagoa izan, urte bakoitzeko portzentajea orduan eta baxuagoa da. Kultur agendaren informazioa beti kaleratu da *Berriketan* aldizkarian, baina 2000. urteko hilabete gehienetan (uztaila eta abenduan izan ezik), agenda, kultur ekitaldiei buruzko albiste labur ezberdinek<sup>1119</sup> osatzen dute. 2001etik 2004ko otsailera arte hileroko agenda egitura duen kultura agenda kaleratzen da ale bakoitzean. Aldizkariko azken orrian argitaratzen diren kultura agendez gain, kirol agendak ere aurkitu dira eta guztiak atal honetan sailkatu dira.

### **B) ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Zerbitzu-informazioa liburutegiko langileek aldizkarian kolaboratzen dutenean argitaratzen hasten dira, horregatik ez da beti agertzen. Izan ere, liburutegia lekuz aldatzen denean, lan gehiegi dela-eta, aldizkarian kolaboratzeari uzten diote. Datuek erakusten dutenez, oso argi ikusten da kolaborazio lana 2002 eta 2003 urteetan izan dela, hileroko liburutegiari buruzko zerbitzu-informazioa agertzen baita. Zerbitzu-informazio horren bitartez udal liburutegiko sail ezberdinetan ager daitekeenaren berri ematen da, “Ostolaza Udal liburutegiaren txokoa” sailean<sup>1120</sup>.

Liburutegiari buruzko zerbitzu-informazioaz gain, honako hauek ere kaleratu dira gure azterketa-epetan: “Agustin Zubikarai III. Saria”, “Informatika gelako ordutegia”, “Telefono interesgarriak” eta “KZguneko maiatzeko kurtsoen egutegia”.

### **C) INFORMAZIO ERABILGARRIA**

Informazio erabilgarria oso gutxitan argitaratu da bost urte hauetan *Berriketan* aldizkarian, 2000 eta 2004an bakarrik eta urte bakoitzean oso kopuru baxuak aurkitu ditugu. Dena dela, lehenengo urtean oso portzentaje altua du informazio erabilgarriak, hiru errezeta kaleratuz % 50ko portzentajea hain zuzen ere. Horrek zerikusi zuzena dauka 2000. urtean guztira zerbitzu atalean kaleratzen den kopuru orokorrarekin, sei item soilik argitaratzen dira-eta. Informazio erabilgarria ez da berriz agertzen 2004ra arte, orduan bi sukalde-errezeta argitaratzen dira eta portzentajea 2000. urtekoa baino askoz baxuagoa da, %5ekoa, zerbitzuek orokorrean gora

---

<sup>1119</sup>- Adibidea: “Erakusketa: ‘Zuhatzaren iraupena’ izenburupeko lehiaketako margo eta argazkiak izango dira erakusgai kultur elkarteetan. Bertan, Euskal Herriko eta noski Deba eta Itziarko paisaian, mendeetan hain esanguratsuak izan diren zuhatzak edo metak (belarrez, garoaz... egindakoak) ikusteko aukera izango da”. 2000ko urtarrileko 18. alean. (8. or.).

<sup>1120</sup>- Adibidea: “Haur liburuak, haur literatura, gazte literatura eta helduentzako literatura”, sailkapenaren ezberdinen bitartez gomendatzen diren liburu zerrendak argitaratzen dira. 2001eko urriko 38. alean (5. or.).

egin dutelako urteekin. Atal honen baitan sartu diren bost itemak une zehatzetan argitaratu diren sukalde-errezetak izan dira, adibidez, 2000ko abenduko 29 alean kaleratzen diren hiru errezetak: “ Foie-Gras eskalope beroa, Jerez Brandytan egindako errege-sagarrekin”, “Bakailoa saltsa berdean kokotxeekin” eta “Zapoa amerikar erara”.

#### **D) DENBORA-PASAK**

Denbora-pasak gero eta espazio gehiago hartzen dute aldizkarian eta maizago agertzen dira urtetik urtera. Datuak begiratu, alde handia da, 2000. urtean ez da denbora-pasarik argitaratzen eta 2004an hogeita zazpi denbora-pasa kaleratzen dira, gainera urtero zerbitzuen atalean gehien lantzen den atala bilakatu da.


2001ean “Berriketan Gaztea” gehigarrian agertzen dira lehenengoz denbora-pasak, 2002tik aurrera gazte-gehigarrian denbora-pasen atala finkoa bihurtzen da eta aldizkarian noizean behin hizki-zoparen bat kaleratzen da, batez ere espazioa betetzeko helburuarekin. 2002ko abenduan “Olerki musikatuen txokoa” sekzioa sortzen da, ale guztietan kontra-azalean argitaratzen den lehiaketa da eta 2004ko abendura bitartean hilero kaleratzen da.

#### **Zerbitzuen bilakaera bi hitzetan**

Beraz, zerbitzu-gunea urtetik urtera indartu egiten da. Agendak lehenengo bi urteetan protagonismoa irabazten dute, baina poliki-poliki gutxituz doaz, azken urtean ia desagertu arte. Zerbitzu-informazioa 2001etik aurrera sartzen da aldizkarian eta areagotu egiten da urteak pasa ahala. Informazio erabilgarria lehenengo eta azken urtean agertzen da, baina beheranzko joera argia erakusten du. 2001etik aurrera, denbora-pasen hazkundera etengabea eta nabarmena da. Salerosketa eta trukeen atala 2000. urtean bakarrik agertzen da.

4.5.4- GAIAK

90I. grafikoa



Gaien bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

90J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	POLITIKA	EKONOMIA	GIZARTE-GAIAK	KULTURA	KIROLA	GUZTIRA
2000-2004		45	46	461	342	77	971
2000		8	13	85	54	15	175
2001		8	6	83	51	16	164
2002		10	8	101	78	17	215
2003		10	9	95	94	9	217
2004		9	10	96	65	20	200

Gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

90I. grafikoan agertzen diren portzentajeek eta 90J. taulako datuen arabera, gai ezberdinak jorratzen dira *Berriketan* aldizkarian eta gai guztiek dute lekua bertan, nahiz eta batzuk beste batzuk baino gehiago agertzen diren. Izan ere, “*Eduki aldetik, herri agerkariak arinak eta erraz irakurtzekoak izan ohi dira. Aipatu beharrekoa da prentsa mota honetan, oro har, interes orokorreko informazioa ukitzen dela; ez dira aldizkari kultural edo entretenimendukoak, baizik eta gai guztiak jorratzen dituzte*” (Camacho, 2001: 99).

*Berriketan* hilabetekarian argitaratuko diren gaiak erabakitzeko, lau-pabost laguneko lan-taldea hilean behin elkartzten da eta gaiak, guztien artean aztertu eta bakoitza zein ataletan joango den erabakitzen dute.

Nolanahi ere, Debako aldizkarian gaiak lantzerako orduan ez da hausnarketa sakonik egiten, lan-taldean biltzen direnak ideiak bota eta horren arabera jorratzen direlako aldizkariko edukiak. Hona hemen zuzendari lanak egiten dituen Lukas Dorronsororen hitzak:

*“Guk ez daukagu gai konkretu batzuk lantzeko zerrendarik. Hona etortzen gara eta bakoitzak daukana mahai gainean jartzen du. Bestalde, gaztetxeak edo eskolakoak edo beste talderen batekoek idatziko dutela esan badute, hori ere kontuan hartzen dugu eta gaiak gure artean banatzen ditugu”<sup>1121</sup>.*

Debari buruz beste hedabide batzuek esandakoa, eta batez ere *Diario Vascok* Debako kartan jarritakoa, noizbait kontuan hartu den arren, gaia aipatzeko izan da, *Berriketan* aldizkariko taldeak oso argi daukalako eurek euren erara lantzen dituztela gaiak.

Guztira bost urteko epean 971 item aztertu dira Debako aldizkarian eta gai batzuek protagonismo handiagoa izan dute aldizkarian. Laurehun eta hirurogeita bat testutan gizarte-gaiak lantzen dira, hirurehun eta berrogeita bi item kulturari buruzkoak dira, hirurogeita hamazazpi idatzitan kirola da gai nagusia, ekonomia berrogeita sei aldiz agertu da eta politikari buruzko berrogeita bost testu aurkitu dira. Urtetik urtera eduki gehiago agertu dira, beraz, gai gehiago landu direla ondoriozta daiteke, azken hiru urteotan batik bat, urte bakoitzean berrehun itemetik gora kaleratzen baitira. Horretan aldizkarian kolaboratzen duten talde finkoen laguntzak badu zerikusirik, euren kolaborazio lanei esker lan-taldekoek eduki ezberdinak jorratzeko aukera izan dutelako:

*“Tarte horretan gaztetxea eta ikastola kolaboratzaile finkoak direnez, hemen gaudenok aukera gehiago izan dugu beste gauza batzuei heltzeko eta gauza gehiago lantzeko. Imajinatzen dut esperientziarekin ikasi dugula zerbait. Lehen esan bezala, aldizkaria oso monolitikoa ateratzen zen eta guk ere askotan gai berdinei buruz idazten genuen behin eta berriz, beraz zabaldu beharra zegoela konturatu ginen”<sup>1122</sup>,* aitortzen du Lukas Dorronsorok.

Zalantzarik ez dago, ordea, gizarte-gaiei arreta berezia jartzen zaiela aldizkarian, eguneroko bizitzan ere, herritarrengandik hurbilago dauden gaiak direlako neurri handi batean.

Egunerokotasunari gagozkiola, gaurkotasuna duten gaiak lantzeko ahalegina egiten da *Berriketan* aldizkarian, baina hilabetekaria izanda oso mugatuta daudela aipatu beharra dago. Hori dela eta, ezin dute gaurkotasuna behar bezala landu, askotan gaiak zaharrituta geratzen

---

<sup>1121</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1122</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

direlako. Data finkoa duten gaiak, “Errepublika eguna” esaterako, aurretik lantzen dira aldizkarian, baina momentuan gertatzen direnak aldizkarian kaleratzen direnerako, gaurkotasuna galtzen dute. *“Hilabetekarien arazoa denbora gehiegi pasatzen dela batetik bestera bitartean. Notiziak zaharkituak geratzen dira eta intzidentzia, eragina txikiegia da”* (Askoren artean, 1992: 55).

Zailtasunak zailtasun, gertatu diren eta gertatuko diren ekitaldien arteko oreka mantentzen saiatzen dira, nahiz eta zaila izaten den gaurkotasunari heltzea eta aurreikusi ez diren albisteak eta azken orduan gertatzen direnak zaharkituta geratzen diren.

### **Gaiak bi hitzetan**

*Berriketan* aldizkarian gai ezberdinak landu dira bost urte hauetan, baina alde nabarmena dago batzuen eta besteen artean. Gizarte-gaiak eta kultura izan dira 2000-2004 bitarteko gai izarrak, gainerakoak oso kopuru baxuetan agertu dira. Ez dago orekarik gaiak lantzerako orduan, erredaktoreek ez dutelako kontuan hartzen gaien oreka. Hala ere, bost urte hauetan kolaboratzaile finkoak izan dituzte eta lan-taldekoek gai gehiago jorratu ahal izan dituzte. Maiztasuna dela eta, egunerokotasuna ezin izan dute aldizkarian islatu eta sarri askotan azken orduan gertatzen direnak kaleratu orduko, oso zaharkituta geratzen dira.




#### 4.5.4.1- Politika

*Berriketan* aldizkarian politika da gutxien agertzen den gaia gure azterketa-epean eta urteekin ez du protagonismorik irabazi, oro har politikari buruzko item gutxi kaleratu direlako aldizkarian. Ikus dezagun hurrengo bi ataletan Debako hilabetekarian politikak izan duen garapena nolakoa izan den. Lehenengo grafikoan eta taulan, politika gai ezberdinek 2000-2004 bitartean izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, berriz, politika gai bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera zein izan den azalduko dugu.

##### 4.5.4.1.1- Politika 2000-2004 bitartean

91I. grafikoa



Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean.

91J. taula

	Udala	Alderdiak	E.H-ko gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerrak/ejertzitoak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	13	9	14	2	7	45

Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Gai politikoak gutxi agertzen dira oro har *Berriketan* aldizkarian, aztertu diren berrogeita hamazazpi zenbakietan, gai politikoei buruzko 45 testu aurkitu baitira. Bataz beste, ale bakoitzean politikari buruzko testu bakar bat ere ez da agertzen. Deban, politikaren gora beherek

ez dute Euskal Herri mailan duten oihartzun eta eraginik herritarrengan eta aldizkariko eduki gehienak herrian gertatzen direnak dira, herriko ikuspegitik lantzen direnak alegia.

Lan-taldeak jakin badaki kale-inkesta asko irakurtzen den atala dela, irakurle askok lehenengo begiratzen duten saila delako eta bertan ez da inoiz gai politikorik jorratzen. “Normalean kale-inkestetan Debako gaiei buruz galdetzen dugu. Hor muga bat egon da beti eta behin Ibarretxeren planari buruz galdetzea bururatu zitzaigun, baina salbuespena izan zen hura, bestela inoiz ez dugu gai politikorik sartzen”<sup>1123</sup>, azpimarratzen du Lukas Dorronsorok.

Gai politikoak *Berriketan* aldizkarian agertzen direnean, herriko ikuspegitik lantzen dira eta horiek lantzeko informazio eta iritzi-generoak erabiltzen dira nagusiki. Herrian, udalean gertatzen direnak eta herriarekin zerikusia duten gai politikoak aurkitu ditugu aldizkarian. Bestalde, Debatik kanpo gertatu direnak eta herriko talde edo pertsonak zerikusia izan dutenean, aldizkariak kontuan hartu ditu. Emaitez orain arte esandakoa berresten dute, politikaren baitan gehien errepikatzen diren gaiak, udala eta Euskal Herriko gatazka baitira. Bi gai horien portzentajeak batuz gero, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean kaleratu diren gai politikoen erdia, udala eta Euskal Herriko gatazkari buruzko testuetan agertzen delako.

### **A) UDALA**

Udalari buruzko hamahiru testu aurkitu dira eta kopuru horrek, udala gai politikoen artean %29ko portzentajea kokatzen du. *Berriketan* aldizkarian ez dago udalari buruzko informazio edo iritzirik plazaratzeko atal zehatzik. Hau da, udalari buruzko testuak aldizkariko edozein sailetan ager daitezke eta “Udala” atal moduan agertu denean (2001eko abenduko 40. alean) udalari buruzko albiste osoa agertu delako izan da, *Berriketan* aldizkariko sailen izenak bertan lantzen diren edukien arabera jartzen direlako. Aldizkariak harreman ona mantentzen du udalarekin eta informazio iturri gisa erabiltzen dute behar dutenean. Udalaren gaia, herriko ikuspegia galdu gabe lantzen da.

### **B) ALDERDIAK**

Alderdien gaia bederatzi aldiz agertzen da aztertu diren *Berriketan* aldizkariko berrogeita hamazazpi aleetan. Halere, alderdiek gai politikoen barnean duten portzentajea nahiko altua dela esan daiteke, %20an kokatzen baita portzentajea. 2000-2004 bitartean ez dira alderdi guztiak agertu aldizkarian, lau bider hauteskundearen gaia jorratu da (hauteskunde ezberdinetako

<sup>1123</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

emaitzak), bi aldiz EAJ/PNV-EA koalizioa agertu da, “Deiadar” Debako herri plataforma bi artikulutan eta Itziarko “Herria Sortzen” herri plataformaren iritzi-artikulua behin kaleratu da aldizkarian. Kontuan hartu behar da Deban ez dagoela PP eta PSE-EE alderdien ordezkariarik. Ezker Batua, EAJ, EA eta Ezker Abertzalea daude eta lan-taldearen esanetan, harreman ona da guztiekin.

### **C) EUSKAL HERRIKO GATAZKA**

Euskal Herriko gatazkaren gaia da gehien agertzen dena politikaren barnean Debako aldizkarian, %31ko portzentajea izanik. Euskal Herriko gatazkari buruzko hamalau item kaleratu dira 2000-2004 bitartean eta testu guztiek, herriko talde ezberdinek gai horren inguruan antolatu eta burutu dituzten ekimenekin dute zerikusia. Herritarrak dira protagonistak, herriko presoak edo herriko taldeak. Gai hori lantzerako orduan, lan-taldean bertan aldizkariako ildo editoriala dela eta, aurreiritziak egon izan direla uste du Lukas Dorronsorok:

*“Kritika oso gutxi jasotzen dugu edo ez zaizkigu iristen. Produktuari buruzko kritikak salbuespenak dira. Inoiz alkatea haserretu zaigu, baina salbuespenak dira. Norbaitek esan digu inoiz, “Etixerat”-eko informazioa askotan agertzen dela eta igartzen dela zer nolako ildo duen aldizkariak edo bertoko jendeak”*<sup>1124</sup>.

### **D) ERAKUNDE EZBERDINAK**

Erakunde ezberdinei buruzko bi informazio kaleratu dira aztertu diren berrogeita hamazazpi zenbakiotan eta bi horietan, Deba eta Itziarri buruzko gai garrantzitsuak eta herrian oihartzuna dutenak agertzen dira. Bi albisteetan Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalak agertzen dira, herriarekin zerikusia duen erabakiren bat tartean izan denean.

### **E) GERRA ETA EJERTZITOAK**

Gerra eta ejertzitoen gaia zazpi aldiz aurkitu dugu *Berriketan* hilabetekarian bost urteko epean. Gai politiko hori jorratzen duten testuetan denetarik argitaratu da: herriarekin zuzenean zerikusirik ez duten testuak, asmatutako elkarrizketa zein ipuinak eta Debako talde edo herritarrekin zerikusia duten informazioak. Herriari zuzenean lotuta ez dauden informazioak eta munduan oihartzuna izan duten gai horiek “Berriketan Gaztea” gehigarrian kaleratu dira, DBH-ko prentsa tailerrekoen eskutik.

---


<sup>1124</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

### Politika bi hitzetan

Laburbilduz, gure azterketa-epean politika da gutxien agertu den gaia eta landu denean, herria eta herritarrekin zerikusia izan du gehienetan. Euskal Herriko gatazka eta udala dira gehien agertzen diren gaiak (%31-%29); alderdiak (%20) eta gerra eta ejertzitoen gaiak (%16) gutxiago azaldu dira aldizkarian. Gerra eta ejertzitoen gaia gazteei zuzendutako gehigarrian agertu da askotan. Herritik kanpoko erakunde ezberdinei buruzko testuak herriarekin zerikusia dutenean soilik agertu dira eta horien presentzia hutsala izan dela esan daiteke.

#### 4.5.4.1.2- Politikaren bilakaera

92I.grafikoa



Politika gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

92J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Udala	Alderdiak	E.H-ko gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerrak/Ejertzitoak	GUZTIRA
	2000	5	0	3	0	0	8
	2001	5	1	1	1	0	8
	2002	3	0	6	0	1	10
	2003	0	4	3	0	3	10
	2004	0	4	1	1	3	9

Politika gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Berriketan* aldizkarian, politika ez da gai garrantzitsuenen artean kokatzen: bost urteko epean ikertu diren bederatzehun eta hirurogeita hamaika itemetatik, berrogeita bost testutan agertzen baita eta urtetik urtera gai horrek ez du hazkunderik izan. Urte bakoitzean

kaleratu den testu kopurua begiratzen badugu, berehala konturatuko gara ez dela aldaketa nabarmenik izan, urtero zortzi eta hamar item inguru argitaratu dira-eta. Urte bakoitzean orotara kaleratzen den politikari buruzko testu kopurua hain da baxua, ezen kategoria bakoitzaren kopuru absolutu eta portzentajeen artean alde handia baitago. Hau da, 92J. taulan agertzen diren kopuru absolutuak oso baxuak dira eta 92I taulako portzentajeak ordea, oso altuak. Ikus dezagun banan-banan gai politiko bakoitzaren bilakaera nolakoa izan den.

### **A) UDALA**

Gai politikoen artean udalaren gaia lehenengo bi urteetan gehien agertu den gaia izan da: bost item kaleratu dira 2000 eta 2001ean eta, %63ko portzentajeen kokatu eta gero, 2002an protagonismoa galtzen joan da udala, portzentajea erdira jaitsiz eta azkeneko bi urteetan ez da udalari buruzko testurik agertzen. Udalaren gaia aldizkarian informazio-generoen bitartez landu da batez ere; guk aztertu dugun epean udalari buruzko bost albiste labur<sup>1125</sup>, hiru albiste<sup>1126</sup>, bi erreportaje<sup>1127</sup>, alkateari egindako elkarrizketa bat<sup>1128</sup> eta argazki-albiste bat<sup>1129</sup> argitaratu dira. Azken bi testu horiek “Berriketan Gaztea” gehigarrian azaldu dira.

### **B) ALDERDIAK**

Alderdiei eskainitako espazioa ez da oso handia lehenengo hiru urteetan, behin bakarrik agertzen baita 2001ean hauteskundeen gaia. 2003 eta 2004an, berriz, alderdien gaia da politikaren barnean gehien lantzen dena (%44ko portzentajea) eta alderdiei buruzko lau testu kaleratzen dira urte bakoitzean. 2003an udal hauteskundeak izanik, gaia “Herriko bozak” atalaren baitan agertzen da.

Oro har, alderdien gaia, informazio-generoetan baino iritzi-generoen bitartez landu da gehiago eta emaitzek hori adierazten dute: guztira, alderdiei buruzko bi inkesta<sup>1130</sup>, lau iritzi-artikulu<sup>1131</sup> eta hiru albiste labur<sup>1132</sup> argitaratu dira.

---

<sup>1125</sup>- Adibidea: “Udaletxeko lan poltsak”. 2000ko apirilko 21. zenbakian. (4. or.).

<sup>1126</sup>- Adibidea: “Udalaren asmoak abian”. 2001eko abenduko 40. alean. (9. or.).

<sup>1127</sup>- Adibidea: “Eta hitza proiektu bihurtu zen”. 2000ko uztaileko 24. zenbakian. (1.-2. or.).

<sup>1128</sup>- “Jesus Mari, Debako alkatea”. 2001eko urriko 38. alean. “Berriketan Gaztea”. (2. or.).

<sup>1129</sup>- “Hondartzan kaseta berriak aurtengo udarako”. 2002ko ekaineko 46. zenbakian. “Berriketan Gaztea” (1. or.).

<sup>1130</sup>- Adibidea: “Zer iritzi daukazu Ibarretxe planari buruz?”. 2004ko abenduko 76. alean. (3. or.).

<sup>1131</sup>- Adibidea: “Entzun gure deiadarra”, Debako Deiadar Herri Plataformak sinatutako artikulua. 2003ko maiatzeko 57. zenbakian. (4. or.).

<sup>1132</sup>- Adibidea: “Hauteskunde emaitzak”. 2003ko ekaineko 58. alean. (6. or.).

### C) EUSKAL HERRIKO GATAZKA

Euskal Herriko gatazka urtero agertzen da, baina bere agerpen-mailak gorabehera handiak ditu urtetik urtera. 2000. urtean Euskal Herriko gatazkari buruzko hiru idatzi kaleratzen dira (%38ko portzentajea), 2001ean item bakarra eta 2002an gehien lantzen den gaia berau da, sei testu argitaratzen dira %60ko portzentajearekin kokatuz. 2003an kopurua eta portzentajea erdira jaisten dira eta 2004an Euskal Herriko gatazkaren gaiari buruzko idatzi bakarra azaltzen da aldizkarian.

Iritzi zein informazio-genero ezberdinetan agertu da Euskal Herriko gatazka: bi albiste labur<sup>1133</sup>, hiru erreportaje<sup>1134</sup>, albiste bat,<sup>1135</sup> argazki-albiste bat<sup>1136</sup>, hiru gutun<sup>1137</sup>, bi artikulua<sup>1138</sup> eta bertso bat<sup>1139</sup> kaleratu dira gaiaren inguruan.

### D) ERAKUNDE EZBERDINAK

Erakunde ezberdinen gaiak ez du garrantzi berezirik *Berriketan* aldizkarian, herriz gaindiko erakundeak herriarekin zerikusia dutenean soilik agertzen dira. 2001eko apirilko 32. aleko “Naparrekoa” albiste laburrean, Debako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira protagonistak; 2004ko uztailko 71. zenbakian, “Itziarri eta Igeldori autodeterminatze eskubidea ukatu diete” albistean, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Itziarri udala agertzen dira informazioan.

### E) GERRA ETA EJERTZITOAK

Gerra eta ejertzitoen gaia, 2002tik 2004ra agertzen da bakarrik eta gainera, azken bi urte horietan politikaren baitan gehien agertzen den gaia bilakatzen da. Hasierako bi urteetan gaia ez agertzetik, 2004an hiru aldiz agertzera pasa da, urte horretan gehien lantzen den bigarren gai politikoa izanik, %33ko portzentajearekin kokatuz. Aldizkarian, bi erreportaje<sup>1140</sup> eta albiste labur bat<sup>1141</sup> argitaratu dira eta “Berriketan Gaztea” gehigarrian, ipuin bat<sup>1142</sup>, albiste bat<sup>1143</sup>, inkesta bat<sup>1144</sup> eta fikziozko elkarrizketa bat<sup>1145</sup>. Gazteen gehigarrian genero serioak erabiltzen ez badira

<sup>1133</sup>- Adibidea: “Presoak gogoan”. 2002ko otsailko 19. zenbakian. (7. or.).

<sup>1134</sup>- Adibidea: “Teo eta Koldoren aldeko plataforma”. 2002ko uztailko 47. alean. (1. or.).

<sup>1135</sup>- “Herriruntz taldea etengabe lanean”. 2000ko maiatzeko 22. zenbakian. (5. or.).

<sup>1136</sup>- “Karlos Larrañaga itzuli da”. 2001eko urriko 38. alean. (2. or.).

<sup>1137</sup>- Adibidea: “Nahi eta ezin”, Eugeniok sinatutako gutuna. 2002ko uztailko 47. zenbakian. (5. or.).

<sup>1138</sup>- Adibidea: “Bihotzaren zatirik kuttunena”, Karlos Larrañagak sinatutako artikulua. 2002ko iraileko 49. alean. (4. or.).

<sup>1139</sup>- “Ongi etorri”, Debako Koldo preso politikoari eskainitako bertsoa. 2003ko maiatzeko 57. zenbakian. (6. or.).

<sup>1140</sup>- Adibidea: “36ko gerra gurean”. 2004ko iraileko 73. zenbakian. (1.-2. or.).

<sup>1141</sup>- “Deus ez gerrarako. Egizu objektu fiskala”. 2004ko ekaineko 70. alean. (6. or.).

<sup>1142</sup>- “Paol Megasol CMM-ko korrespontsala Irakeko krisian”. 2003ko maiatzeko 57. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (1. or.).

<sup>1143</sup>- “Beslango sarraskia”. 2004ko urriko 74. alean. “Berriketan Gaztea”. (1. or.).

<sup>1144</sup>- “Zer nahiago zenuke Bush edo Sadam Huseim-en lekuan egongo bazina? Nola definituko zenuke Aznar, Bush eta Blair-en jokaera gerraren aurrean?”. 2003ko maiatzeko 57. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (3. or.).

ere, munduan gerra eta ejertzitoekin zerikusia izan duten gaiak, puri-purian egon direnean jorratu dira. Komunikabide ezberdinetan oihartzuna izan dutenean, ikasleek prentsa tailerrean euren irakurketa eta analisia egin dute gaia euren ikuspegitik landuz.

### **Politikaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, urteekin ez da areagotu politikari buruzko testu kopurua, oso portzentaje antzerakoetan landu baita gaia urtero. Udalaren gaia hasierako bi urteetan garrantzitsuena da, 2002an bere agerpena erdira jaitsi eta hurrengo urteetan agertu ere ez da egiten. Alderdien gaia 2001ean azaltzen da, baina 2003 eta 2004an agertzen da bereziki, udal hauteskunde garaian. Euskal Herriko gatazka urtero agertzen da, baina gorabehera handiak ditu eta 2002tik aurrera protagonismoa galtzen du. Erakunde ezberdinen gaia 2002 eta 2004an aurkitu dugu oso une puntualetan. Gerra eta ejertzitoen lehengo bi urteetan ez da azaldu ere egiten, baina 2002tik aurrera apurka-apurka hazi egiten da gaiari buruzko idatzi kopurua.

---


<sup>1145</sup>- "Bush eta Sadam-i elkarrizketa". 2003ko maiatzeko 57. alean. "Berriketan Gaztea". (2. or.).

#### 4.5.4.2- Ekonomia

Ekonomia politikarekin batera, *Berriketan* aldizkarian gutxien lantzen den gaia da bost urteko epean. Aldizkarian landu diren gai ezberdinen artean %5eko portzentajea izan dute ekonomia gaiak. Hurrengo bi ataletan ekonomiaren agerpena eta garapena nolakoa izango den ikusiko dugu. Lehenengo grafiko eta taularen bitartez, 2000-2004 bitartean ekonomiaren baitan agertzen diren gai ezberdinen agerpena aztertuko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, gai ekonomiko bakoitzak urtetik urtera izan duen bilakaera zehatza zein izan den azalduko dugu.

##### 4.5.4.2.1- Ekonomia 2000-2004 bitartean

93I. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean.

	93J. taula					
	Enpresa	Laborala/Langabezia	Nekazaritza/Abeltzaintza	Itsasoa/Arrantza	Merkataritza	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	7	6	9	2	22	46

Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Lan honetan lagin moduan aukeratu diren berrogeita hamazazpi zenbakietan, ekonomiari buruzko 46 testu argitaratu dira *Berriketan* aldizkarian, ondorioz, politikarekin batera gutxien agertzen den gaien artean kokatzen da. Bataz beste, ez da ale bakoitzean ekonomiari buruzko testu bat argitaratzen. Lan-taldearen ustez, ekonomia hain gutxi agertzearen arrazoia, bertan ari direnek gaia ez menperatzearekin erlazionatuta dago. Izan ere, ekonomia eta batez ere inguruko enpresen garapena landu nahi izan dutenean, herriko adituren bati Deba eta Itziarko ekonomiaren



garapenari buruz idazteko eskatu diote, baina horrelako kolaborazioak oso momentu puntualetan egin izan dira.

### **A) MERKATARITZA**

93I. grafikoan eta 93J. taulan agertzen diren datuek erakusten dutenez, ekonomiaren baitan gehien errepikatu den gaia, merkataritzarena izan da bost urte hauetan. Ekonomiari buruz argitaratu diren testu erdietan (hogeita bi item), merkataritza eta ostalaritza dira protagonista. Merkataritzak Deban gero eta indar gutxiago du eta lan-taldeak hori badaki, horregatik arreta berezia eskaini diote beti gai horri, nahiz eta, hilabetean behin aldizkaria aterata, ezin dutela nahi beste jorratu gaia onartzen duten. Bestalde, herriko merkatarari eta ostalariak aldizkarian publizitatea jartzen dute; *Berriketan* hilabetekariak dituen sarrera ekonomikoen zati garrantzitsua denez, Debako denda eta tabernen publizitateak jasotzen da eta harremana etengabea da. Hori dela eta, lan-taldean merkataritzak interesa sortu du betidanik eta gertutik jarraitu izan da gaia.

### **B) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA**

Merkataritzarekin alderatuz kopuruak erdira jaisten diren arren, nekazaritza eta abeltzaintzaren gaia gehien errepikatzen den bigarrena da. Guztira bost urteko epean nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko bederatzia testu argitaratu dira Debako aldizkarian. Gaia kontuan hartu izan da, herrian desagertzen ari den sektore ekonomikoa delako. Horrez gain, lan-taldeko Xabi Laka bera ere nekazaria da eta nahitaez, horrek zerikusia du gehien lantzen den gaien artean egotearekin. Hala ere, lan-taldeko kideen ustez, gaia nahi baino gutxiago jorratzen da. Izan ere, *“gai batzuk beste batzuek baino gehiago agertzeak, gustuekin agian ez hainbeste, batez ere gure inguruarekin du zerikusia, gure zirkuluarekin”*<sup>1146</sup>, aitortzen du Lukas Dorronsorok. Ezin da ahaztu, kazetari profesionalik ez dagoela, guztiak ari direla borondatez eta sarri askotan gauzak era sakonagoan lantzeko denborarik ez dela izaten, horrek aldizkariaren edukietan eragin zuzena izaten du.

### **C) ENPRESA**

Enpresaren gaia gutxi agertu da lan honetan aztertu diren berrogeita zazpi zenbakietan, guztira enpresa ezberdinei buruzko zazpi testu kaleratu dira-eta. Enpresa sortu berriei buruzko informazioa sartzeko ahaleginak egin dira, Deba eta Itziarren industri poligono garrantzitsuak

---

<sup>1146</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

baitaude, baina lan-taldeak onartu bezala, “*batzuetan segun eta nora heltzea zaila izaten da. Ezin izaten gara enpresetara heldu*”<sup>1147</sup>.

#### **D) LABORALA ETA LANGABEZIA**

Gai laboralak eta langabeziarekin zerikusia duten gaiak ere, sei aldiz izan dira bost urte hauetan. Sindikatuek ez dute aldizkaria euren ekitaldiak iragartzeko erabiltzen, beraz, lan-taldeak bilatu behar du zuzenean informazioa eta langile profesionalik ez dagoenez, ahal dutenean eta dakiten eta hoberen lantzen dute gaia.

#### **E) ITSASOA ETA ARRANTZA**

Are gutxiago agertzen dira itsasoa eta arrantzarekin zerikusia duten testuak, bi informazio baino ez dira aurkitu gure azterketa-epean. Deba kostako herria den arren, oso gutxi agertzen da itsasoaren gaia, baina lan-taldeak bere mugak zeintzuk diren oso argi dauzka. “*Taldean gara garenok eta heltzen gara heltzen garen lekura*”<sup>1148</sup>. Bestalde, Deban arrantzaleen sektorean ez dago mugimendurik; Deban, itsasoak turismoarekin zerikusi handiagoa du-eta.

#### **Ekonomia bi hitzetan**


Horrela bada, ekonomiak ez du agerpen handirik *Berriketan* hilabetekarian, gaia arrotza baita lan-taldeko kideentzat. Horregatik gehien agertu den gai ekonomikoa merkataritzarena izan da (%48), herrian dagoelako, herritarren arteko hartu emanak bertan sortzen direlako eta lan-taldearentzat ere errazagoa delako gai hori lantzea. Askoz gutxiago bada ere (%20), aldizkarian nekazaritza eta abeltzaintza dira bigarren gai ekonomikorik inportanteenak; lan-taldeko kide bat nekazaria da eta sektorearen gainbehera dela-eta, arreta jartzen zaio gai honi aldizkarian. Enpresa eta gai laboralak oso portzentaje antzerakoetan agertu dira (%15-%13) eta itsasoa eta arrantza oso gutxi agertzen dira.

<sup>1147</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Nagore Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1148</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Xabi Laka 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

4.5.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera

94I. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

94J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Enpresa	Laborala/ Langabezia	Nekazaritza/ Abeltzaintza	Itsasoa/ Arrantza	Merkataritza	GUZTIRA
	2000	3	2	3	0	5	13
	2001	0	1	1	0	4	6
	2002	0	1	1	0	6	8
	2003	2	1	1	2	3	9
	2004	2	1	3	0	4	10

Ekonomia gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Arestian aipatu bezala, ekonomia ez da gehien lantzen den gaien artean agertzen *Berriketan* hilabetekarian; gainera, aldizkarian urtetik urtera ekonomiari buruzko item gutxiago kaleratzen direla suma daiteke. 94J. taulako datuei begiratzen badiegu, 2000. urtean ekonomiari buruzko item gehien kaleratu direla konturatuko gara, hamahiru testu hain zuzen ere eta gainera gai ekonomiko ezberdinak noizbait agertzen dira. 2003an ere gai ekonomiko guztiak azaltzen dira, baina urte horretan item kopurua baxuagoa da (bederatzi testu). 2001 eta 2003 bitartean urtero ekonomiari eskaintzen zaion testu kopurua ez da hamar itemera heltzen. Urte bakoitzeko testu kopurua hain baxua denez, gai bakoitzaren kopuru absolutu eta portzentajearen artean dagoen aldea oso handia da.

## A) MERKATARITZA

Kontuak kontu, ekonomiaren barnean merkataritzaren gaia nagusitzen da bost urteetan zehar, urte bakoitzean merkataritzaren portzentajea %30etik gora kokatuz eta 2001 eta 2002an agerpen berezia izanik, %67 eta %75eko portzentajeetara helduz hurrenez hurren. Portzentajeak oso altuak badira ere, 2000-2004 bitartean ez da inoiz merkataritzari buruzko sei item baino gehiago argitaratu.

Merkataritzari eskaini zaion espazioa batez ere genero informatiboetan azaldu da: gaia lantzen duten lau erreportaje<sup>1149</sup>, zazpi albiste labur<sup>1150</sup>, lau albiste<sup>1151</sup>, sei inkesta<sup>1152</sup> eta elkarrizketa bat<sup>1153</sup> aurkitu dira, guztiak Deba edo Itziarko merkataritza eta ostalaritzarekin zerikusia dutenak. Gehienak testu informatiboak dira, baina gaiaren inguruan herritarren iritzia ezagutzea helburu duten inkestak eta sarritan agertzen dira.

## B) ENPRESA

Enpresari buruzko informazioa noizean behin agertu da *Berriketan* aldizkarian, aurreko atalean aipatu bezala. Inguruko enpresei buruzko testuak idazteko saiakerak egin diren arren, lantaldeak ezin izan gaia nahi bezala eta nahi beste jorratu. Horregatik, 2000. urtean hiru item kaleratu dira, hurrengo bi urteetan bat ere ez, eta 2003 eta 2004an enpresarekin zerikusia duten bi item azaldu dira bakoitzean. Aurkitu diren testu gehienak, ez dute zerikusirik Deba eta Itziar inguruko enpresekin, “Danobat-en 50. urteurrena”<sup>1154</sup> erreportajeak izan ezik. Gainerakoak gas naturala eta etxeetako zerbitzu ezberdinekin zerikusia duten albiste laburrak izan dira. Adibidez, 2000ko urriko 27. zenbakian kaleratu zen “Gas naturala Itziarren” albistea.

## C) LABORALA ETA LANGABEZIA

Gai laboral eta langabeziari buruzko testuak urtero agertu izan dira aldizkarian, 2000. urtean izan ezik. Gainontzeko urteetan behin bakarrik agertu dira, nahiz eta urteko portzentajeak oso altuak diren. Hau da, 2001ean gai laboralei eta langabeziari buruzko testu bat kaleratzen da eta bere portzentajea %17an kokatzen da. 2002an, testu bakar bat argitaratzen da eta portzentajea %13ra jaisten da. 2001ean guztira ekonomiari buruzko sei testu kaleratzen dira eta 2002an zortzi

<sup>1149</sup>- Adibidea: “I. Azoka Ekologikoa”. 2000ko abuztuko 25. alean. (8.-9. or.).

<sup>1150</sup>- Adibidea: “Aitor taberna itxita”. 2002ko urriko 50. zenbakian. (6. or.).

<sup>1151</sup>- Adibidea: “Txitxarro berriro martxan”. 2003ko abenduak 64. alean. (6. or.).

<sup>1152</sup>- Adibidea: “Zer moduz konpontzen zara euroarekin?”. 2002ko otsaileko 42. zenbakian. (3. or.).

<sup>1153</sup>- “Biximodunekua”, Itziarko Salegi jatetxeko jabeari egindako elkarrizketa. 2001eko iraileko 37. alean. (4. or.).

<sup>1154</sup>- 2004ko uztaileko 71. zenbakian. (2. or.).

testu. Orotara, gai laboral eta langabezia gai nagusi duten hiru erreportaje<sup>1155</sup>, elkarrizketa bat<sup>1156</sup>, albiste labor bat<sup>1157</sup> eta albiste bat<sup>1158</sup> argitaratu dira *Berriketan* aldizkarian. Beraz, emaitzen arabera argi dago, gai hori lantzeko testu informatiboak erabili direla.

#### **D) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA**

Nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko gaiak badute *Berriketan* aldizkarian bere tokia, lantaldeko kide bat nekazaria delako; beraz, gaia lan-taldean presente izaterako orduan datu horrek eragina duela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, gehien landu den urteetan, 2000 eta 2004an, hiru testu argitaratu dira, gainerako urteetan item bakarra kaleratuz. Guztira, hiru erreportaje<sup>1159</sup>, hiru albiste<sup>1160</sup>, bi albiste labor<sup>1161</sup> eta inkesta batean<sup>1162</sup> agertu da nekazaritza eta abeltzaintzaren gaia.

#### **E) ITSASOA ETA ARRANTZA**

*Berriketan* aldizkarian itsasoa eta arrantzarekin zerikusia duen gaia 2003an agertzen da bakarrik<sup>1163</sup>, eta ez da harritzekoa. Deba kostaldean dagoen herria bada ere, ez dauka porturik, kirol portu txiki bat baizik. Beraz, herriko ekonomian arrantzak ez dauka eragin berezirik eta itsasoa, turismoari lotuta dago.

#### **Ekonomiaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, ekonomiaren presentziak ez du gora egiten urtetik urtera eta oro har, gutxi lantzen da Debako aldizkarian. Enpresaren gaiak ez du jarraikotasunik, 2001 eta 2002an ez delako agertu ere egiten. Gainerako urteetan kopuru antzerakoetan mantentzen da. Gai laboralak eta langabezia urtero azaltzen dira, baina bere agerpena gutxituz doa urtetik urtera. Nekazaritza eta abeltzaintzak gorabeherak ditu eta batez ere 2000 eta 2004an agertzen da. Itsasoa eta arrantzaren agerpena hutsala da. Ekonomiaren baitan, merkataritza da nagusi eta bere hazkundea 2000-2002 bitartean handia da, baina hurrengo bi urteetan beheranzko joera nabaria da.

<sup>1155</sup> - Adibidea: "Langileak eta langabetuak". 2000ko iraileko 26. alean. (1.-2. or.).

<sup>1156</sup> - "Marrazo eta arrainekin bizitzen akuariumean". 2001eko martxoko 31. zenbakian. (4.-5. or.).

<sup>1157</sup> - "Greba orokorra". 2002ko uztailako 47. alean. (6. or.).

<sup>1158</sup> - "Metal arloko greba". 2003ko apirilko 56. zenbakian. (4. or.).

<sup>1159</sup> - Adibidea: "Esnedunak, baserria... babes ditzagun!". 2000ko otsailko 19. alean. (1.-2. or.).

<sup>1160</sup> - Adibidea: "Perixa 2000". 2000ko azaroko 28. zenbakian. (7. or.).

<sup>1161</sup> - Adibidea: "Udabarria badator". 2004ko martxoko 67. alean. (6. or.).

<sup>1162</sup> - "Jaurlaritzak baserriar gazteei laguntzak eskaini dizkie baserriak iraun dezan. Zer derizkiozu? Joango al zinateke baserrian lan eginez bizitzera?". 2004ko maiatzeko 69. zenbakian. (3. or.).

<sup>1163</sup> - "Berrogeita hiru kiloko arraina" argazki-albiste. 2003ko urriko 62. alean (6. or.).


"Angulak noiz arte?" erreportajea. 2003ko abenduak 64. zenbakian. (8. or.).

**4.5.4.3- Gizarte-gaiak**

Gizarte-gaiak dira *Berriketan* aldizkariko gai izarra, bost urteotan aldizkarian kaleratu diren gaien artean %47 gizarte-gai ezberdinak izan dira. Ikus dezagun nolakoa izan den gai horien bilakaera gure azterketa-epean hurrengo bi grafiko eta taulen bitartez. Lehenengo eta behin gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Ondoren, gizarte-gai bakoitzak urtez urte izan dituen gorabeherak eta garapenaren nondik norakoak azalduko ditugu.

**4.5.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean**

95I. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean.

95J. taula

	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	44	22	52	74	7	37	130	95	461

Gizarte- gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Orotara 2000-2004 bitartean *Berriketan* aldizkarian 971 item ikertu dira eta horietatik 461, gizarte-gaiak buruzko testuak dira. Datu horren arabera, aldizkarian gizarte-gaiak gehien errepikatzen direnak direla ondorioztatu daiteke. Alde batetik, kontuan hartu behar da gizarte-gaien barnean azpi-kategoria asko agertzen direla eta bestetik, herrietako eguneroko bizitzan

gizarte-gaiak duten protagonismoa gainerako gaiena baino handiagoa dela. Horren erakusle honako datu hau litzateke: lan honetan aztertu diren Deba Barreneko sei herri-aldizkarietan<sup>1164</sup>, gizarte-gaiak nagusitu direla hain zuzen ere.

Gizarte-gaien baitan, gizarte ohiturak (ehun eta hogeita hamar aldiz) eta zerbitzuak (laurogeita hamabost bider) dira gehien errepikatzen direnak. Ondoren eta neurri txikiagoan, hezkuntza (hirurogeita hamalau item), lanak (berrogeita hamabi testu) eta taldeak (berrogeita lau aldiz). Ikus dezagun nolakoa izan den gizarte-gai bakoitzak duen agerpena bost urte hauetan.

### A) TALDEAK

Deban lanean ari diren taldeei buruzko berrogeita lau testu (%10) argitaratu dira lan honetan aztertu diren berrogeita hamazazpi zenbakietan. Herriko talde guztiei egiten zaie tokia aldizkarian, baina taldeengandik jasotzen duten erantzuna ez da beti lan-taldeak espero duena. Hau da, oro har Debako taldeek ez dute aldizkarira hurbiltzeko ohiturarik. *Berriketaneko* kideen ustez, gutxi dira euren ekitaldiei buruzko informazioa iragartzeko maiztasunez aldizkarira doazenak; Gazte Asanblada, Etxerat, Sahararen aldeko plataforma izan ezik, gainerako taldeengana aldizkariko lan-taldea joan behar izaten da:

*“Saiatzen gara gure ingurutik kanpo ateratzen eta gure nahia hori da, baina askotan geratzen zaigun aukera bakarra izaten da gure inguruan geratzea. Kontua da, talde gutxi batzuk (eskola, gaztetxea, kirol talderen bat) izan ezik, gainerakoei tira egin behar zaiela, hemen gaudela eta aldizkaria euren ekitaldi eta informazioak kaleratzeko erabil dezatela gogorarazi behar zaiela. Askotan gu ez bagoaz, eurei kosta egiten zaie etortzea. Hala ere, 2001ean bilera irekia egin genuenetik, aurretik egiten zenetik egiten denera badago aldea. Agian jendeak euskaraz idazteko beldurra ere badu eta horregatik ez datoz hona, pentsatuz eurek idatzi beharko dutela”<sup>1165</sup>*, azpimarratzen du Lukas Dorronsorok.

Alabaina jendea erakartzeko egin dituzten saiakeren emaitzak poliki-poliki ikusiz joan dira, inguruko taldeak ez ezik, herrian ari diren beste hainbat talde agertu baitira guk aztertu ditugun aleetan: galegoak, gazte taldeak, guraso taldeak, nagusien taldeak, elkarte gastronomikoak, kirol taldeak edota margolari taldea besteak beste.

<sup>1164</sup>- Ikus, ...*eta kitto!*, *Pil-pilean*, *Barren* eta *Kalputxi* aldizkariaren analisietako emaitzak.

<sup>1165</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

## **B) GIZARTE ARAZOAK**

Giza laguntzak, elkartasuna eta gizarte arazoei buruzko hogeita bi testu aurkitu dira *Berriketan* aldizkarian. Gai horiek unean uneko garrantziaren arabera lantzen dira normalean eta gehienetan, herriarekin edo herriko taldeekin lotuta dauden testuak dira. Adibidez, herriko talde eta jendeak herrialde pobreen aldeko elkartasun kanpainak antolatzen dituenean, aldizkarian albiste dira.

Bestalde, atal honetan gertakariak ere sartu dira eta horiek herrian gertatzen direnean azaltzen dira hilabetekariko orrietan, esate baterako, “Ibaian izandako istripua” edo “Zezenak ihes egin du kaleetan barrena”. Beste testu batzuk, aldiz, gai orokorragoak jorratzen dituzte: emakumeenganako tratu txarrak, bullyng-a edo behi eroen gaitza besteak beste. Nahiz eta herriko gai espezifikoak ez diren, herritarrentzat interesgarriak dira eta horren arabera agertzen dira herri-aldizkarian. Era horretako gaiei buruz gehienetan herritarrei galdetzen zaie inkestaren bitartez.

## **C) LANAK**

Lanen (herrilanen eta etxebizitzaren) gaia berrogeita hamabi bider agertzen da aztertu diren aleetan; honek esan nahi du ale bakoitzean gutxi gorabehera behin azaltzen dela gai hau. Izan ere, gehien lantzen den gizarte-gaien artean dago, %11ko portzentajea izanik. Herrilanei buruzko berrogeita hiru testu kaleratu dira eta etxebizitzarekin zerikusia duten hiru item aurkitu dira. Herriko proiektu urbanistiko ezberdinen berri ematen saiatzen dira, herritarren artean interesa pizten duelako. Lan-taldeko kideen ustez, gaia lantzea ondo dago, baina batzuetan gehiegi agertzen dela iruditzen zaie:

*“Gure ustez agian larregi lantzen dugun gaia da. Ondo dago, herritarren interesekoa baita, baina batzuetan asko agertzen da. Interesa pizten duela ez dago zalantzarik, berehala ikusten delako herrian zerbait egiten ari direla, kaletik pasatu eta lanak ikusten direlako”<sup>1166</sup>.*

## **D) HEZKUNTZA**

Hezkuntzaren gaia hirurogeita hamalau idatzitan agertu da guk aztertu ditugun *Berriketan* aldizkariko berrogeita hamazazpi aleotan. Beraz, Debako aldizkarian kontuan hartzen den gaia dela esan daiteke, ale bakoitzean hezkuntzari buruzko testu bat baino gehiago kaleratzen baita batzuetan beste. Gaur egun informazio asko sortzen da hezkuntzaren inguruan eta gainera, aldizkarian DBHko ikasleek prentsa tailerrean egiten duten “*Berriketan Gaztea*” lau orriko gehigarria

---

<sup>1166</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Xabi Laka, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.



agertzen da. Bertan jorratzen diren gai asko hezkuntzari lotuta daude, ikasleek eskolako gaiak jorratzen dituzte-eta.

### **E) OSASUNA ETA INGURUMENA**

Osasunaren gaia oso gutxi agertu da Debako aldizkarian 2000-2004 bitartean, zazpi testutan soilik aurkitu dugu eta guztira %2ko balioa izan du. *Berriketan* hilabetekarian gaia albistea izan denean, gehienetan herriarekin izan du zerikusia. Nahiz eta gaia orokorra izan, gripearen gaia adibidez, herritartu egiten da herriko jendeari galdetuz.

Ingurumenaren gaia hogeita hamazazpi testutan agertu da bost urte hauetan. Atal honen baitan, ekologia eta ingurugiroa hogeita hiru bider errepikatzen da eta trafikoari buruzko hamalau item aurkitu dira. Urtetik urtera ingurumenaren gaiak protagonismoa irabazten du eta herritarrekin lotura duenean agertzen da.

### **F) GIZARTE OHITURAK**

Aurretik aipatu dugun moduan, gizarte ohiturak dira atal honetan gehien agertzen direnak, ehun eta hogeita hamar testutan protagonista nagusiak baitira. Gizarte ohituren baitan hiru azpi-kategoria bildu dira eta 2000-2004 bitartean honako emaitza hauek dira azpi-kategoria bakoitzean: aisialdiari buruzko hogeita bost testu kaleratu dira, herritarren bizitza eta ohiturak laurogeita hamasei itemetan agertzen dira eta gizarte bizitza bederatzi idatzitan kaleratu da. Datuek erakusten dutenez, herritarren bizitza da Debako aldizkariaren gairik preziatuena. Horregatik, herritarrek eguneroko bizitzan duten garrantzia islatu nahi da aldizkarian, herritarrak aldizkariko protagonista bilakatzuz.

*“Herritarrak eta taldeak nahi ditugu gurera hurbiltzea, baina nahiko zaila izan da hori lortzea orain arte, edo gutxienez guk nahi baino gutxiago hurbildu dira. Gu joaten garenean, jende horri buruz herriarentzat interesgarria izan daitekeen zerbait entzun izan dugulako izaten da”*<sup>1167</sup>, argitzen du aldizkariko zuzendari lanetan ari den Lukas Dorronsorok.

### **G) ZERBITZUAK**

Zerbitzuen atala, gizarte-gaien barnean gehien agertzen den bigarren gaia da Debako hilabetekarian. Guztira bost urteetan laurogeita hamabost zerbitzu-item aurkitu ditugu eta horiek %21eko portzentajea izan dute aldizkarian. Gure azterketarako aukeratu ditugun aleetan kaleratu diren txiste, denbora-pasa eta lehiaketa kopurua oso altua izan da, batez ere 2001etik aurrera.

---

<sup>1167</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.


Horren arrazoia “Berriketan Gaztea” gehigarria kaleratzen hastean topatu beharra dago, bertan argitaratzen baitira denbora-pasa eta txiste gehienak. Zerbitzuen baitan noizbait lehiaketa eta denbora-pasaren bat agertu bada ere, gehienetan herriko zerbitzu ezberdinei buruzko informazioa azaldu da: liburutegi, informatika gela edo kiroldegiari buruzko ordutegien berri ematen da informazio horietan.

### **Gizarte-gaiak bi hitzetan**

Laburbilduz, *Berriketan* hilabetekarian ere gizarte-gaiak dira protagonista nagusiak. Gizarte-gaien baitan gizarte ohiturak eta zerbitzuak agertzen dira gehien (%28 eta %21 hurrenez hurren). Apur bat gutxiago agertzen dira hezkuntza, lanak eta taldeen gaiak, %16- %11 bitarteko portzentajeetan kokatuz. Ingurumena, gizarte arazoak eta osasuna gutxi agertu dira oro har, %8- %2ko balioa dagokiela.

4.5.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera

96I. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

96J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
	2000	8	6	8	12	2	7	41	1	85
	2001	8	2	18	11	0	3	26	15	83
	2002	9	8	9	12	1	7	28	28	102
	2003	10	2	12	19	2	11	14	25	95
	2004	9	4	5	20	2	9	21	26	96

Gizarte-gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Orain arte aztertu diren Deba Barreneko aldizkari guztietan bezala, *Berriketan* hilabetekarian ere, gizarte-gaiak dira gai guztien artean gehien agertzen direnak eta urtetik urtera, protagonismo handiagoa dute aldizkariko orrietan. Urte bakoitzean orotara argitaratzen den gizarte-gaien kopuruaren arabera, 2000tik aurrera gizarte-gaiei buruzko testuak ugaritu egiten dira etengabe, 2002an hazkunde nabarmena izanik. Kontuan hartu behar da 2001eko *Berriketan* aldizkariko bederatzia ale soilik aztertu direla lan honetan eta 2000. urtean baino bi item gutxiago konputatu direla.

2002an gizarte-gai kopuru altuena argitaratzen da eta hurrengo bi urteetan kopuruak behera egin arren, guztira lehenengo eta bigarren urtean baino hamar item gehiago kaleratzen dira.

## A) TALDEAK

Aldizkarian herriko talde ezberdinei eskaintzen zaien tartek ez du gorabehera handirik izan gure azterketa-epean, taldeen gaia lantzen duten zortzi edo hamar testu inguru argitaratzen dira urtero, %9-%10-eko portzentajea kokatuz. Horrek ez du esan nahi bestelako testuetan taldeak agertzen ez direnik. Esaterako, futbolari buruzko testua kirolen ataleko 5.1 epigrafean sailkatuko da, baina testuan kirol taldea izango da albistearen protagonista.

Aztertu diren berrogeita hamazazpi aleetan, taldeak protagonista nagusi diren bederatzia albiste<sup>1168</sup>, hamabost albiste labur<sup>1169</sup>, bi erreportaje<sup>1170</sup>, bi gutun, argazki-albiste bat, hiru kale-inkesta<sup>1171</sup>, elkarrizketa bat, bederatzia iritzi-artikulu<sup>1172</sup> eta bi iritzi-zutabe aurkitu dira. Taldeei buruzko testuak informazio atalean gehiago kaleratzen dira iritzi atalean baino.

## B) GIZARTE ARAZOAK

Gizarte-gaien agerpenak gorabeherak izan ditu bost urteotan. Gure azterketa-epean asko landu ez den gaia izan bada ere, 2000 eta 2002an testu gehiago kaleratu dira, baina 2003tik aurrera gai horien agerpena murriztu egiten da nabarmen. Gizarte-gaiei buruzko sei albiste<sup>1173</sup>, bi albiste labur, zazpi erreportaje<sup>1174</sup>, lau inkesta<sup>1175</sup>, gutun bat, kronika bat eta iritzi-zutabe bat aurkitu dira.

## C) LANAK

Herrilanen gaiak ere aldaketa nabarmenak erakusten ditu urtetik urtera. Hasierako urtean %9ko portzentajea izatetik 2001ean %22ra pasatzen da. 2002an, aldiz, %9ra jaisten da, 2003an apur bat igotzeko (%13) eta 2004an kopururik baxuenean kokatzeko %5ean hain zuzen ere. Atal honetan argitaratzen diren testu gehienak herrilanei buruzkoak izan dira: hamabi albiste<sup>1176</sup>, hamasei albiste labur<sup>1177</sup>, zortzi erreportaje<sup>1178</sup>, bi argazki-albiste, zazpi inkesta<sup>1179</sup>, hiru artikulu, hiru gutun<sup>1180</sup> eta iritzi-zutabe bakarra kaleratu dira.

<sup>1168</sup>- Adibidea: "Galiziarren festa: Morriñaren sendagaia". 2000ko apirilko 21. alean. (1. or.).

<sup>1169</sup>- Adibidea: "Zuhatza Euskara Elkartea dinamizatzaile bila". 2003ko ekaineko 58. zenbakian. (6. or.).

<sup>1170</sup>- Adibidea: "Ordua iritsi aurretik kalean!!!". 2003ko apirilko 56. alean. "Berriketan Gaztea". (2. or.).

<sup>1171</sup>- Adibidea: "Herriko gazte mugimendua: 'Gazte lokalak', 'Gaztetxea'... Nola antolatu bien arteko elkarlana?". 2004ko ekaineko 70. zenbakian. (3. or.).

<sup>1172</sup>- Adibidea: "Gazte gara", Debako Gazte Asanbladak sinatutako artikulua. 2002ko martxoko 43. alean. (4. or.).

<sup>1173</sup>- Adibidea: "Debarrak munduan zehar, 3. munduko errealtaterak hurbilduz". 2000ko uztailko 24. zenbakian. (6. or.).

<sup>1174</sup>- Adibidea: "Nork nori barkamena eskatu", Nagore Dorronsorok Australiatik idatzitako erreportajea. 2002ko maiatzeko 45. alean. (4.-5. or.).

<sup>1175</sup>- Adibidea: "Martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna: Zer egiten duzu berezirik egun horretan?". 2002ko martxoko 43. zenbakian. (3. or.).

<sup>1176</sup>- Adibidea: "Harri-lubeta edo eskoilera". 2001eko martxoko 31. alean. (6. or.).

<sup>1177</sup>- Adibidea: "Miramar-ko lanak". 2002ko apirilko 44. zenbakian. (6. or.).

## D) HEZKUNTZA

Hezkuntza, gehien agertzen den gaien artean dago *Berriketan* aldizkarian. 96i. grafikoan eta 96J. taulan agertzen diren datuen arabera, urtetik urtera aldizkarian garrantzi gehiago ematen zaion gaia bilakatu da. 2000tik 2002ra bitartean hezkuntzari buruzko hamabi testu kaleratzen dira urtero eta %12-%14ko portzentajea kokatzen da; azkeneko bi urteetan, ordea, portzentajea bikoiztu egiten da, %20-%21ean kokatuz. Horretan zalantzarik gabe, zerikusi handia dauka 2003 eta 2004an finkatzen den “Berriketan Gaztea” gehigarriak. Bertan, agertzen diren gai asko hezkuntzari lotuta daude ikastetxean bertan gertatzen dena dutelako informazio iturri nagusi.

Hezkuntzaren gaia jorratzen duten hogeita hiru albiste<sup>1181</sup>, hamasei albiste labur<sup>1182</sup>, hamaika erreportaje<sup>1183</sup>, hamar elkarrizketa<sup>1184</sup>, hiru inkesta<sup>1185</sup>, lau argazki-albiste, iritzi-artikulu bat, bi zerbitzu-informazio, fotonobela bat eta hiru bertso kaleratu dira guztira.

## E) OSASUNA ETA INGURUMENA

Osasunaren gaia bost urte hauetan berdin mantendu da eta oro har, gutxi landu da urtero, testu bakar bat edo gehienez bi testu kaleratu izan dira urte bakoitzean eta portzentajeak %2an kokatu dira. Aldizkariko orrietan egiten zaion tartea honako testu hauetan neur daiteke: osasunari buruzko hiru erreportaje<sup>1186</sup>, bi albiste<sup>1187</sup>, albiste labur bat eta inkesta bakarra<sup>1188</sup> kaleratu dira.

Ingurumenari buruzko testuak orokorrean gehitu egin dira urtetik urtera, nahiz eta 2001ean, ordura arte kaleratutako item kopurua erdira jaisten den, hiru testu bakarrik argitaratzen dira-eta. 2002an zazpi testutan agertzen da gaia (2000. urteko kopuru bera) eta 2003an eta 2004an, hamaika eta bederatzi item argitaratzen dira hurrenez hurren. Ingurumenaren gaia, zortzi albistetan<sup>1189</sup>, zazpi albiste laburretan<sup>1190</sup>, bost erreportajetan<sup>1191</sup>, lau argazki-albistetan, hiru

<sup>1178</sup>- Adibidea: “Zubitik behetik gora eta goitik behera”. 2003ko otsaileko 54. alean. (1. or.).

<sup>1179</sup>- Adibidea: “Zer iruditzen zaizu Arakistain plaza peatonal egitea?”. 2000ko urriko 27. zenbakian. (3. or.).

<sup>1180</sup>- Adibidea: “Itziarko irudia zaintzea” Jesus Mari Agirrezabala, Itziarko alkateak idatzitako gutuna. 2000ko urriko 27. alean. (5. or.).

<sup>1181</sup>- Adibidea: “Ikasketa Bidaia, Deba-Salou-Bartzelona-Deba”, 2001eko ekaineko 34. alean. “Berriketan Gaztea”. (1. or.).

<sup>1182</sup>- Adibidea: “Aita San Antonio sasoikua”. 2002ko uztailako 47. zenbakian. (6. or.).

<sup>1183</sup>- Adibidea: “Ikas-bidaia Cambrilsera”. 2002ko maiatzeko 45. alean. “Berriketan Gaztea”. (1. or.).

<sup>1184</sup>- Adibidea: Jokin Lasa, Mendata Institutuko zuzendariari elkarrizketa. 2001eko apirilko 32. zenbakian. “Berriketan Gaztea” (1. or.).

<sup>1185</sup>- Adibidea: “Zer moduzkoa iruditu zaizu amaitu duzun ikasturtea? Aprobaturiko al duzu kurtsoa?, Zergatik? Uztekotan, zein gai utziko dituzu? Zer moduz portatu dira aurtengo irakasleak? Zergatik?”. 2004ko uztailako 71. alean. “Berriketan Gaztea”. (3. or.).

<sup>1186</sup>- Adibidea: “Parkinsondunentzat egoitza”. 2003ko maiatzeko 57. alean. (1. or.).

<sup>1187</sup>- Adibidea: “Gripea Deban”. 2003ko abenduko 64. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (1. or.).

<sup>1188</sup>- “Zer egiten duzu gripearen aurka?”. 2000ko azaroko 28. alean. (3. or.).

<sup>1189</sup>- Adibidea: “Gertagaitza da Erika untxiaren hondakinak hondartzan aurkitzea”. 2000ko martxoko 20. zenbakian. (1. or.).

<sup>1190</sup>- Adibidea: “Aparkalekuen arazoa”. 2002ko martxoko 43. alean. (6. or.).

<sup>1191</sup>- Adibidea: “Zabor erretzearen kalteak”. 2004ko abuztuko 72. zenbakian. (4.-5. or.).

iritzi-artikulutan<sup>1192</sup>, zortzi inkestatan<sup>1193</sup>, iritzi-zutabe bakarrean eta informazio erabilgarria agertzen den testu batean aurkitu da.

### **F) GIZARTE OHITURAK**

Gainontzeko gai guztiekin alderatuz, gizarte ohiturak izan dira bost urteetan zehar aldizkarian gehien agertu direnak, baina urteekin batera gai horrek protagonismoa galtzen du poliki-poliki, lehenengo eta azken urteen artean dagoen aldea handia izanik. 2000. urtean berrogeita bat testutan agertzen da gizarte ohituren gaia (%48) eta 2004an gai bera hogeita bat itemetan agertzen da, %22ko portzentajera jaitsiz, erdira. Hala eta guztiz ere, urtero aldizkarian gehien errepikatzen den lehenengo edo bigarren gaia izaten jarraitzen du. Gizarte ohiturei buruzko hamazortzi albiste<sup>1194</sup>, hogeita hiru albiste labur<sup>1195</sup>, hemeretzi argazki-albiste<sup>1196</sup>, hamar erreportaje<sup>1197</sup>, zazpi elkarrizketa<sup>1198</sup>, hamar artikulua<sup>1199</sup>, hogeita hamahiru inkesta<sup>1200</sup>, bi komiki, bost bertso, bi iritzi-zutabe eta ipuin bat kaleratu dira Debako hilabetekarian.

### **G) ZERBITZUAK**

Gizarte-gaien atal honetan, zerbitzuen gaia gehien errepikatzen den bigarrena da eta bere bilakaera eta hazkundea deigarriak dira. Izan ere, 2000. urtean gaia behin bakarrik agertzen da aldizkarian, hurrengo urtean zerbitzuak hamabost itemetan agertzen dira eta 2002tik aurrera zerbitzu gaien portzentajea %26-%27an kokatzen da, 2004an gairik garrantzitsuena berau izanik. Atal honetan “Berriketan Gaztea” gehigarrian kaleratzen diren denbora-pasak eta lehiaketak nagusitzen dira, ale bakoitzean bizpahiru denbora-pasa argitaratzen dira-eta. Guztira aztertu ditugun berrogeita hamazazpi zenbakietan, hirurogeita bi denbora-pasa, hemeretzi txiste (guztiak “Berriketan Gaztea” gehigarrian), salerosketa truke bat, sei zerbitzu-informazio<sup>1201</sup>, bost albiste labur<sup>1202</sup>, erreportaje bat eta inkesta bat aurkitu dira.

<sup>1192</sup>- Adibidea: “Gure Marea Beltzak”, Xabier Lakak idatzitako iritzi-artikulua. 2003ko otsaileko 54. alean. (4. or.).

<sup>1193</sup>- Adibidea: “Egingo al zinateke bolondresa Debara galipota helduko balitz? Zergatik? Nork uste duzu duela hondamendi honen errua? Zein irtenbide aurkitzen diozu arazo honi?”. 2003ko otsaileko 54. zenbakian. “Berriketan Gaztea”. (3. or.).

<sup>1194</sup>- Adibidea: “Itziarko martxa: 50 urte, historia bat eta mila istorio”. 2002ko maiatzeko 45. alean. (2. or.).

<sup>1195</sup>- Adibidea: “Kabiberriko jaiotza”. 2001eko urtarrileko 30. zenbakian. (7. or.).

<sup>1196</sup>- Adibidea: “Sagardotegira irteera”. 2000ko martxoko 20. alean. (8. or.).

<sup>1197</sup>- Adibidea: “Karnabalak”. 2003ko apirileko 56. alean. (1.-2. or.).

<sup>1198</sup>- Adibidea: Josu Iriondo, arotz debarrari elkarrizketa. 2002ko martxoko 43. zenbakian. (1.-2. or.).

<sup>1199</sup>- Adibidea: “Debarren Eguna nire ikuspegitik”, Raimundo Amutxastegi, kultur arduradunak sinatutako artikulua. 2004ko maiatzeko 69. alean. (4. or.).

<sup>1200</sup>- Adibidea: “Santa Ageda, zeinentzako dirua bilduko zenuke?”. 2000ko otsaileko 19. zenbakian. (3. or.).

<sup>1201</sup>- Adibidea: “Telefono interesgarriak”. 2004ko martxoko 67. alean. (8. or.).

<sup>1202</sup>- Adibidea: “Kultur gida txartela”. 2002ko azaroko 51. zenbakian. (6. or.).

### **Gizarte-gaien bilakaera bi hitzetan**


Beraz, taldeei buruzko testuen kopurua mantendu egin da urtetik urtera eta 2001etik aurrera gora egiten du apur bat. Herriko taldeen inplikazioa aldizkarian lortzea zaila izan da, baina 2001etik aurrera herriko talde gehiago hurbildu dira aldizkarira. Gizarte arazoek gaiak gorabehera handiak izan ditu, unean uneko garrantziaren arabera lantzen delako. Lanen gaiak hasiera lau urteetan goranzko joera izan du, baina azken urtean asko jaisten da; lan-taldeak larregi agertzen den gaia dela uste duelako eta horretaz ohartuta, azken urtean apur bat gutxiago jorratu da gaia. Hezkuntza ere indartuz joan da urtetik urtera eta batez ere 2003-tik aurrera, eskolako gazteek “Berriketan Gaztea” gehigarria kaleratzen dutenetik aurrera, bertako gai gehienak eskolarekin lotura zuzena dutelako. Osasunaren agerpena minimoa izan da. Ingurumenari buruzko testuak hazkunde apala izan dute batez ere azken bi urteetan. Gizarte ohituren atalak 2001etik aurrera etengabe egiten du behera, zerbitzu-guneak ez bezala, 2001etik aurrera nabarmen hazten baita.

#### 4.5.4.4- Kultura

*Berriketan* aldizkarian gehien jorratu den bigarren gaia bost urte hauetan kulturarena izan da. Ikerlan honetan aztertu ditugun berrogeita hamazazpi zenbakietan, %35eko portzentajea izan dute gai kulturek guztira. Hurrengo bi grafiko eta taulen bitartez, horien garapena nolako izan den azalduko dugu. Lehenengo grafiko eta taulan kultura gai ezberdinek 2000-2004 bitartean izan duten agerpena ikusiko dugu. Bigarren grafiko eta taularen bitartez, kulturaren baitan agertzen diren gai ezberdinek urtetik urtera izan duten bilakaera aztertuko dugu.

##### 4.5.4.4.1- Kultura 2000-2004 bitartean

97I. grafikoa



Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean.

97J. taula

	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	103	23	12	111	31	23	39	342

Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Tesi honetan aztertu ditugun *Berriketan* aldizkariako berrogeita hamazazpi aleetan kultura 342 aldiz azaldu da, aldizkarian gehien lantzen den bigarren gaia bilakatuz. Gizarte-gaien atalean gertatzen den bezala, kulturaren baitan kategoria eta azpi-kategoria asko daude. Bestalde, Debako



aldizkarian kultur gaiak kontuan hartzen dira, errebista argitaratzen duen Zuhatza Euskara Elkartearen nortasun juridikoa kultur elkartearena baita. Ahal duten neurrian aldizkariaren

bitartez herriko kulturaren eragitea bilatzen dute: “*Kultur eragile gisa eragin nahi dugu eta saiatzen gara. Historia, euskal kultura gaiak (Olentzero esaterako) ezagutzera ematen ahalegintzen gara*”<sup>1203</sup>, onartzen du Lukas Dorronsorok.

Kultura gaiak aldizkarian zehar edozein ataletan aurki daitezke, baina sail batzuk, bereziki, kultura gaiak jorraztera zuzenduta daude: “Liburuak/Liburutegia”, “Lehiaketa /Test kulturala” eta “Olerki musikatuaren txokoa” sekzioak besteak beste.

Lehenengo begiratu batean, 97I. grafikoak eta 97J. taulak erakusten dutenez, literatura eta arte eszenikoak dira beste guztien artean eta alde handiarekin gehien agertzen diren gaiak. Bi gai horiei buruzko ehunetik gora item kaleratu dira; gainerako gai kulturalak, aldiz, ez dira berrogei itemetara heltzen. Aldizkarian 5 urtetan kaleratu diren kultura gai guztien %62a, literatura eta arte eszenikoei buruzko testuek osatzen dute.

#### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoei buruzko ehun eta hiru testu argitaratu dira 2000-2004 bitartean, baina atal hori osatzen duten kategoriek agerpen-maila ezberdina dute. Hau da, antzerkia hamabost testutan aurkitu dugu, dantza hamazortzi itemetan eta musika, gehien agertzen den gaia arte eszenikoen baitan, hirurogeita hamar aldiz errepikatu da. Deban, Banda, Abesbatza eta Musika Eskola daude eta bertan jende asko mugitzen da. *Berriketan* aldizkariko lan-taldearen ustez, musikak herrian daukan garrantzia edukita, aldizkarian ez zaio musikari behar besteko arreta jartzen, “*Deban musika futbola baino gehiago izango da seguru, eta horrenbeste garrantzi izanda, agian guk ez diogu nahi edo merezi duen beste toki egiten. Eurak ez dira etortzen eta gu ere gutxitan joaten gara eurengana*”<sup>1204</sup>, onartzen du Ina Oiartzabal *Berriketan* aldizkariko kideak. Herriko musika taldeei buruzko testuez gain, 2002an musika kritikak argitaratu dira eta 2003tik aurrera, hilero “Olerki musikatuaren txokoa” azaltzen da aldizkarian.

#### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoen baitan, arte eszenikoen barnean baino azpi-kategoria gehiago dauden arren, arte diziplina horiek gutxiago agertzen dira arte eszenikoekin alderatuz. Izan ere, aztertu diren *Berriketan* hilabetekariko berrogeita hamazazpi aleetan, hogeita hiru idatzitan izan dira arte

<sup>1203</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Lukas Dorronsoro, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

<sup>1204</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Ina Oiartzabal, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

plastiko ezberdinak protagonista. Pintura lau aldiz agertu da, eskultura zazpi bider, artisau eta eskulanean gaia bi testutan aurkitu da, arte ondareari buruzko item bakarra argitaratu da eta argazkigintza eta kartelgintzaren gaia bederatzi testutan kaleratu da.

### **C) GASTRONOMIA**

Gastronomia hamabi testutan agertu da *Berriketan* aldizkarian eta berau da, kulturaren barnean gutxien landu den gaia bost urte hauetan. Izan ere, momentu zehatzetan jorratu izan da gaia; gabonetan sukalde-errezetak kaleratu dira eta sukaldaritzarekin zerikusia izan duten bestelako informazioak, albiste izan direnean agertu dira, beti ere, herriko ekitaldi eta pertsonaiekin zerikusia izan dutenean.

### **D) LITERATURA**

Literatura da 2000-2004 bitartean gehien agertu den kultura gaia Debako aldizkarian. Guztira, ehun eta hamaika itemetan landu da eta berrogeita hamazazpi zenbakietan %32ko portzentajea kokatu da. Bertsolaritza jorratzen duten hogeita bat testu argitaratu dira eta liburu eta literaturari buruzko laurogeita hamar idatzi aurkitu ditugu.

Arestian aipatu bezala, aldizkariko lan-taldeak liburutegiko langileekin duen harremana estua izan da urte hauetan, horren erakusle liburutegiko langileek hilero testuak idatziz, aldizkarian “Liburuak/liburutegia” atalean kolaboratu dutela. Horrez gain, literatur lehiaketak eta literatura lan sarituak kaleratu dira *Berriketan*en.

Bestalde, kontuan hartu behar da, Mikel Aizpurua, bertsolaria dena, aldizkariko lantaldeko kidea ere badela eta gaiarekin gertutasuna handia duela, bertsolaritza jorratzen den testu gehienak berak idatzi baititu. Era berean, bertsolaritza oso presente dago “*Berriketan* Gaztea” gehigarrian, eskolan bertsolaritza lantzen dutelako eta gehigarrian lan hori islatzen delako.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabide ezberdinen gaia hogeita hamaika bider agertu da gure azterketa-epean Debako hilabetekarian. Atal honen barnean herri komunikabideei buruzko testuak nagusitu dira, guztira hogeita itemetan lantzen baita herri komunikabideen gaia. Zine, telebista eta bestelako hedabideak hamaika bider agertu dira. Herri komunikabideen gaia lantzen duten testu gehienek, *Berriketan* aldizkariarekin dute zerikusia, eta telebista, zine eta bestelako hedabideen gaia ere, herriko ikuspegitik lantzen da. Hau da, herrian izango diren diapositiba emanaldiak, telebista saioetan agertu edo lanean ari diren Debako herritarrak agertzen dira aldizkarian. Ez dira horiek,

ordea, komunikabideekin zerikusia duten testu bakarrak, komunikabideen gaia ikuspegi orokorragotik ere lantzen delako, kale-inkestan esaterako.

## **F) EUSKARA ETA KULTUR AGENDA**

Euskarari buruzko testuak hogeita hiru izan dira gure bost urte hauetan. Euskararen gaia aldizkarian oso presente daukatela adierazten dute bertoko kideek eta aldizkaria, Zuhatza Kultur Elkarteak berak antolatzen dituen ekitaldiak iragartzeko erabiltzen dutela onartu ere, nahiz eta hainbat ekitaldi ezin izaten dituzten iragarri, maiztasuna muga delako: hilabetekaria izanda, ekimen asko epez kanpo geratzen dira.


Kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituzten hogeita hemeretzi testu aurkitu dira aztertu diren berrogeita hamazazpi aleotan. Argitaratu diren guztiak, kultur agendak izan dira, ez baitira beti agenda egiturarekin kaleratu. 2000. urteko ale gehienetan, agendarako ekitaldi ezberdinak albiste laburren bitartez iragartzen dira eta 2004an, agendaren atala desagertu egiten da aldizkaritik.

### **Kultura bi hitzetan**

Beraz, Debako hilabetekarian kultura gaiei arreta berezia eskaintzen zaiela ondoriozta daiteke, gehien lantzen den bigarren gai nagusia kultura baita eta aldizkariko atal batzuk kultur gaiak jorratzeko erreserbatuta daudelako. Literatura (%32) eta arte eszenikoak (%30) dira kultur gairik garrantzitsuenak 2000-2004 bitartean. Arte eszenikoen baitan musika da zalantzarik gabe protagonista nagusia. Literaturaren atalean liburuei buruzko testuak gailentzen dira, liburutegiko langileak kolaboratzaile finkoak direlako guk aukeratu dugun epeko urte batzuetan. Askoz gutxiago agertzen da kultur agenden (%11) eta komunikabideen gaia (% 9) eta azken hori agertzen denean, *Berriketan* aldizkariarekin zerikusia dauka gehienetan. Euskara, arte plastikoak eta gastronomia oso gutxi lantzen dira, %7-%4ko portzentajeak izan dituzte bost urteetan. Arte plastikoen baitan argazkigintza eta kartelgintza da gehien errepikatzen den gaia.

4.5.4.4.2- Kulturaren bilakaera

98I. grafikoa



Kultura gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

98J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agenda	GUZTIRA
	2000	25	5	4	5	5	4	6	54
	2001	15	5	1	13	4	5	8	51
	2002	22	3	3	34	2	2	12	78
	2003	15	1	3	35	19	10	11	94
	2004	26	9	1	24	1	2	2	65

Kultura gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Kultura, aldizkariko gai garrantzitsuenen artean agertzen da Debako hilabetekarian. Datuen arabera, kontuan hartzen den gaia dela esan daiteke eta urtetik urtera, aldizkarian bere presentzia areagotu egiten da. Hasierako urtetik aurrera, kultura gaien kopuru eta portzentaje orokorrak gora egiten du. 98J. taulan ikus daitekeen moduan, 2000. urtean berrogeita hamalau itemetan agertzen dira kultura gaiak, hurrengo urtean azertu ditugun bederatzi zenbakietan, kulturari buruzko berrogeita hamaika testu argitaratzen dira. 2002an, aurreko urtean baino hogeita zazpi item gehiago (hirurogeita hamazortzi) argitaratzen dira eta 2003an kultura

laurogeita hamalau idatzitan da protagonista nagusia. 2004an, kulturari buruzko idatzi kopurua jaitsi arren, hasierako urtean (berrogeita hamalau) baino hamaika item gehiago argitaratu dira.

Kulturari arreta berezia jartzen zaio *Berriketan* aldizkarian, herrian kultura mailan lanean ari den Zuhatza Elkarteak kaleratzen duelako hileroko aldizkaria eta kulturaren eragiten saiatzen dira. Horretarako, ekitaldi ezberdinak antolatzen dituzte eta *Berriketan* aldizkaria argitaratzen dute, kulturaren eta herrian eragiteko tresna ezin hobeak baita.

#### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoen agerpenak gorabeherak izan ditu bost urte hauetan, horregatik urte bakoitzean kaleratzen den item kopuruaren eta portzentajearen artean alde nabarmenak daude. Hau da, 2000. urtean arte eszenikoei buruzko hogeita bost testu kaleratzen dira eta portzentajea %46koa da; 2004an, arte eszenikoak hogeita sei idatzitan agertzen dira eta portzentajea %40an kokatzen da. Nola izan daiteke testu kopurua altuagoa izanda, portzentajeak 6 puntutan behera egitea? Kontuan hartu behar da 2000. urtean, guztira, kulturari buruzko berrogeita hamalau item kaleratzen direla eta 2004an, orotara, hirurogeita bost dira idatzitakoak. Sarritan aipatu dugu lan honetan, testu kopuru orokorra zenbat eta altuagoa izan, gai bakoitzaren portzentajea orduan eta baxuagoa izango da.

Arte eszenikoen baitan, musika da urtero gehien errepikatzen den gaia eta 2004an musikari buruzko testu kopuru altuena aurkitu dugu, hogeita bat testutan<sup>1205</sup> agertuz. Antzerkia 2002an lantzen da batik bat, zortzi idatzitan<sup>1206</sup> agertzen da-eta. Dantza, gutxiago lantzen da, baina 2001 eta 2002an arreta berezia jartzen zaio, urte bakoitzean dantzari buruzko bost item<sup>1207</sup> kaleratzen direlako.

#### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoen gaia hasierako bi urteetan %10eko portzentajearen mantentzen da, baina 2002 eta 2003an oso gutxi dira arte plastikoei buruz aldizkarian agertzen diren testuak, ondorioz, portzentajeek behera egiten dute nabarmen: 2002an hiru testu kaleratzen dira (%4ko portzentajea) eta 2003an item bakarra argitaratzen da (%1eko portzentajera jaitsiz). 2004an gehiago lantzen da eta bederatzi testutan argitaratzen da gaia. Hala eta guztiz ere, arte plastikoak orokorrean oso

<sup>1205</sup> - Adibidea: "Debako Korua Madrilan" albistea. 2004ko ekaineko 70. alean. (1. or.).

<sup>1206</sup> - Adibidea: "Marcelino Soroaren omenez" albistea. 2002ko martxoko 43. zenbakian. (5. or.).

<sup>1207</sup> - Adibidea: "Dantza jaialdia" albistea. 2001eko ekaineko 34. alean. "Berriketan Gaztea". (1. or.).

gutxi agertzen dira *Berriketan* aldizkarian, batzaz beste, testu bakarra edo bi testu kaleratzen baitira urtero gehienez. Hona hemen, kategoria hau sortzen duten azpi gaien agerpen-maila 2000-2004 bitartean:

Pintura 2000. urtean agertzen da gehien eta bi testutan<sup>1208</sup> bakarrik lantzen da gaia. Eskulturari buruzko bi item<sup>1209</sup> aurkitu dira 2001 eta 2002 urteetan, gainerako urteetan testu bakarra kaleratu baita. Artisau eta eskulanen gaia 2001ean eta 2004an agertzen da eta urte bakoitzean testu bakar batean<sup>1210</sup> da gai nagusia. Arte ondareari buruzko item bakarra<sup>1211</sup> kaleratu da 2004an eta, argazkigintza eta kartelgintzaren gaia gehiago landu arren, kopuru altuena 2004an aurkitu dugu, bost itemetan<sup>1212</sup> hain zuzen ere.

### C) GASTRONOMIA

Gastronomia, orokorrean, ez da asko agertu Debako aldizkarian 2000-2004 bitartean. Dena dela, 2000. urtean kaleratu dira gastronomiari buruzko testu gehien, lau item<sup>1213</sup> hain zuzen ere (hiru sukalde-errezeta eta albiste labur bat). Hurrengo urteetan testu kopuruak behera egin du, bat eta hiru testu inguru argitaratu dira gehienez. Dena dela, portzentajeak ez dira jaitsi testu kopuruaren arabera, guztira, urte bakoitzean kaleratu diren kultura testuen arabera baizik. Horregatik, 2000. urtean lau testu kaleratuz portzentajea %7koa da eta 2003an, hiru item argitaratuta portzentajea %3an kokatzen da. 2000. urtean berrogeita hamalau idatzi argitaratu dira guztira eta 2003an, laurogeita hamalau testu.

### D) LITERATURA

Literaturaren gaia urtetik urtera etengabe hazten da *Berriketan* aldizkarian. 98I. grafikoan eta 98J. taulan agertzen diren datuen arabera, 2000tik 2004ra bitartean hogeita zortzi puntuko aldea dago. 2000. urtean literatura bost testutan agertzen da %9ko portzentajea kokatuz eta 2004an literaturari buruzko hogeita lau idatzi argitaratu dira, %37ko portzentajera helduz. 2000tik 2001era bitarteko hazkundera ez da hain nabarmena, baina 2002koa deigarria da, hogeita hamalau testutan agertzen baita literaturaren gaia eta portzentajea ere igo egiten da, %44an kokatuz. Hurrengo bi urteetan portzentajeak %37an kokatzen dira. Hasierako bi urteetan literaturari buruz argitaratzen diren testu gehienak, informazio testuak dira, 2002tik aurrera,

<sup>1208</sup>- Adibidea: "Margo lehiaketa" albiste. 2000ko ekaineko 23. zenbakian. (4. or.).

<sup>1209</sup>- Adibidea: "Amatasuna" albiste. 2002ko apirilko 44. alean. "Berriketan Gaztea". (1. or.).

<sup>1210</sup>- Adibidea: "Altzari zahar eta berrien errestituzio ikastaroa" erreportajea. 2001eko urtarrileko 30. zenbakian. (4.-5. or.).

<sup>1211</sup>- "Ernialdeko apaiz txikia gurean" erreportajea. 2004ko otsaileko 66. alean. (5. or.).

<sup>1212</sup>- Adibidea: "Euskal Jaia 2004: kartel lehiaketarako oinarriak" albiste. 2004ko apirilko 68. zenbakian. (5. or.).

<sup>1213</sup>- Adibidea: "Zahaegi erretzea" albiste laburra. 2000ko ekaineko 23. alean. (8. or.).

literatura kritikak eta zerbitzu-informazioa nagusitzen da. Atal horren baitan urtero liburu eta literatura buruzko testuak nagusitzen dira eta bertsolaritza askoz gutxiago agertzen da. Bertsolaritzari buruzko testu kopuru altuena 2002 eta 2003an aurkitu dugu, urte bakoitzean zazpi idatzitan<sup>1214</sup> kaleratuz. Liburu eta literaturaren gaia, 2002tik aurrera hogeitik gora testutan agertzen da eta 2003an hogeita zortzi item<sup>1215</sup> aurkitu ditugu.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Debako aldizkarian komunikabideak orokorrean gero eta gutxiago agertzen dira, 2003. urteko salbuespenarekin. Lehenengo eta bigarren urtean bost eta lau testu argitaratzen dira eta kopuru horien portzentajeak %9 eta %8koak dira hurrenez hurren. 2002an ordea, bi testu baino ez dira agertzen eta portzentajea %3ra arte jaisten da (urte horretako kultur testu kopuru orokorra, aurreko bi urteetako baino altuagoa baita). 2003an komunikabideei buruzko hemeretzi testu kaleratzen dira, horietako bost<sup>1216</sup> zine, telebista eta hedabide ezberdinei buruzkoak dira eta hamalau itemetan herri komunikabideen gaia jorratzen da (*Berriketan* aldizkariaren inguruko informazio eta iritziak batez ere). Azken horiek bereziki 2003an aurkitu ditugu, aldizkariaren bosgarren urteurrena ospatzen delako. 2003ko abuztuko alean soilik, *Berriketan* aldizkariari buruzko hamahiru iritzi-zutabe<sup>1217</sup> kaleratzen dira. 2004an zine eta telebistari buruzko testu bakarra argitaratzen da.

### **F) EUSKARA ETA KULTUR AGENDA**

Euskara ez da *Berriketan* aldizkarian bereziki nabarmendu den gaia bost urte hauetan; datuak begiratzea baino ez dago horretaz jabetzeko. Item kopurua kontuan hartzen badugu, euskara 2003an jorratzen da batez ere, hamar testutan<sup>1218</sup> agertzen da-eta. 98I. grafikoan agertzen diren portzentajeen arabera, aldiz, 2001 eta 2003an lortzen ditu euskarak balio altuenak, %10 (bost item) eta %11 (hamar item) hurrenez hurren. 2001ean, guztira, kulturari buruzko berrogeita hamaika testu kaleratzen dira eta 2003an, orotara, kultura jorratzen duten laurogeita hamalau idatzi argitaratzen dira. Gainontzeko hiru urteetan euskarari buruzko bi edo lau testu aurkitu ditugu soilik.

<sup>1214</sup>- Adibidea: "Bertsolaritza txapelketa nagusia 2001-12-19" albistea. 2002ko urtarrileko 41. zenbakian. (8. or.).

<sup>1215</sup>- Adibidea: "Bereba berua: euskaraz ere posible da adarra jotzea" albistea. 2003ko abuztuko 60. alean. (3. or.).

<sup>1216</sup>- Adibidea: "Parte hartu, zergatik ez?", Ane Bastida, ETB1eko Basetxeko partaideari egindako elkarrizketa. 2003ko urtarrileko 53. zenbakian. (5. or.).

<sup>1217</sup>- Adibidea: "Bostekoa, gure merkatariei esker", Jose Escudero idatzitako iritzi-zutabea. 2003ko abuztuko 60. zenbakian. (8. or.).

<sup>1218</sup>- Adibidea: "Patxi Aldabaldetrecu Beka Debako euskara" albistea. 2003ko otsaileko 54. alean. (5. or.).

Kultur agenden agerpena 2001etik 2003ra bitartean finkatu egiten dela esan daiteke, kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituzten egitarauak hilerok kaleratzen direlako epe horretan. 2000. urtean, ordea, agenda albiste labur ezberdinek osatzen dute eta horien artean badira kultur ekitaldi ezberdinei buruzko albiste labur batzuk ere: esaterako, “Debarren eguna”<sup>1219</sup> albiste laburrean pintura eta literatura aipatzen dira, beraz, albiste labur hori agenden baitan sailkatu da. 2004ko martxotik aurrera ez da kultur agendarik argitaratzen, ezta albiste laburren agendarik ere ez. Hori dela eta, emaitzetan beheranzko joera argia sumatzen da, 2004an agenden portzentajea %3an kokatzen da-eta.

### **Kulturaren bilakaera bi hitzetan**

Laburbilduz, kultura, aldizkariko gai inportanteen artean dago eta urtetik urtera bere presentzia handitu egiten da. Arte eszenikoen gaiak gorabehera handiak izan ditu urtetik urtera eta 2001-2003 bitartean beheranzko joera garrantzitsua erakutsi du, baina 2004an berriz ere gora egiten du nabarmen. Arte plastikoak 2003ra arte jaitsi egiten dira etengabe eta 2004an berpiztu egiten dira. Gastronomia, aldiz, urtetik urtera gutxitu egiten da ia desagertu arte. Literaturak garrantzia irabazten du aldizkarian, azken urteetan hasierako urteko portzentajeak hiru eta lau aldiz gaituz. Komunikabideen gaia ere hasieran gutxi agertzen da, baina azken bi urteetan bere hazkundera handia da, portzentajeak bikoiztuz. Euskararen gaia 2000 eta 2001ean gehiago agertzen da, baina poliki-poliki euskarari buruzko testuak gutxituz joan dira. Agendak hasieran goranzko joera erakusten dute, baina 2004an ia ez da kultur agendarik argitaratzen.

---

<sup>1219</sup>- 2000ko maiatzeko 22. zenbakian. (8. or.).




#### 4.5.4.5-Kirola

Kirola gutxien agertzen den gaien artean dago *Berriketan* aldizkarian; bost urte hauetan kirol ezberdinek gai guztien artean %8ko portzentajea izan dute hilabetekarian. Hurrengo bi ataletan kirolen bilakaera ikusiko dugu bi urrats eginez. Lehenengo urratsean, kirol ezberdinei aldizkarian 2000-2004 bitartean egin zaien tartea aztertuko dugu. Bigarren urratsaren bitartez, kirol bakoitzak urtetik urtera izan duen garapena nolakoa izan den azalduko dugu.

##### 4.5.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean

99I. grafikoa



Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Berriketan* aldizkarian bost urteko epean.

99J. taula

	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	38	31	5	3	77

Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Kirolek ez dute toki finkorik Debako aldizkarian, ez zaio orri berezik eskaintzen kirolari *Berriketan*en eta gainera, kirola ez dago gehien lantzen den gaien artean. Guztira, kirolei buruzko 77 testu kaleratu dira lan honetan aztertu ditugun *Berriketan*eko berrogeita hamazazpi zenbakietan. Aldizkariko lan-taldeak, kirolari ez zaiola leku handirik eskaintzen onartzen du. Alde batetik hilero zortzi orri bakarrik kaleratzeak, espazioa mugatzen duelako eta beste alde

batetik, oso argi dutelako Deban kirolari buruzko informazioa *Diario Vasco* egunkariak ematen duela, eurak duten hutsune hori betez.

99J. taulan ikus daitekeen moduan, kirol gehienak bi atal nagusitan biltzen dira. Talde kirolei buruzko hogeita hamazortzi testu argitaratu dira bost urte hauetan, ondorioz, talde kirolen portzentajea ia kirol guztien erdia da, %49koa hain zuzen ere. Kategoria hori sei kirolek osatzen dute eta horien artean futbola eta mendia daude; bi horiek dira hain zuzen ere orokorrean aldizkarian gehien agertzen diren bi kirolak, talde kirolen artean ere, gehien errepikatzen direnak izanik.

### **A) TALDE KIROLA**

Futbolari buruzko hogeita bat testu aurkitu dira gure laginerako aukeratu diren *Berriketan* aldizkariko berrogeita hamazazpi aleetan, eta mendia gai nagusia den hamalau item argitaratu dira. Ina Oiartzabal aldizkariko lan-taldeko kidearen esanetan, “*futbola inportantea da Deban. Kirolzaleak bagara, baina hilabetekari batean sartzeko askotan datak direla eta, ezin izaten dugu sartu eta bestela ere, ez diegu leku handirik egiten oro har kirolei. Sartzen dugunean, laburrean sartzen da, edo norbaitek, kirol talderen batekoak, zer edo zer ekarri duelako argitaratzen dugu*”<sup>1220</sup>.

Ez da kirolean soilik gertatzen den arazoa, aldizkarian sarritan lan-taldeak bilatu behar izaten duelako notizia, aldizkariko kolaboratzaileak kirol eta talde ezberdinengana hurbildu behar izaten dira horien inguruko informazioaren bila. Nahiz eta jende eta talde gehiengana heltzeko ahalegin handia egiten duen lan-taldeak, hilabeteko maiztasuna izanik eta lan-talde osoa borondatez ari denez, muga handiak dituzte gaiak lantzeko.

Talde kirolaren barnean, futbola eta mendia baino askoz gutxiago arraunketa agertzen da. Deba, kostaldeko herria den arren, ez dago arraun talderik eta aldizkaria horren isla da: gaia lantzen duten hiru testu aurkitu dira 2000-2004 bitartean. Eskubaloia, saskibaloia eta errugbia ez dira albiste *Berriketan* hilabetekarian, bost urte hauetan ez baitira kirol horiek inoiz agertu.

### **B) BANAKAKO KIROLA**

Nahiz eta banakako kirolean diziplina gehiago dauden, bederatzi kirol ezberdin hain zuzen ere, guztira hogeita hamaika aldiz agertu dira kirol horietako batzuk lan honetan aztertu diren aleetan. Atletismoa eta txirrindularitza izan dira gehien errepikatu direnak, zazpina testutan

---

<sup>1220</sup>- Doktore-tesirako elkarrizketa pertsonala (Ina Oiartzabal, 2006-02-24). Elkarrizketa osoa CDan.

izanik protagonista, igeriketa lau itemetan agertu da, herri kirolei buruzko hiru idatzi aurkitu dira, pilotaren gaia lau aldiz agertu da, judoa eta borroka artei buruzko item bakarra kaleratu da, eta automobilismo eta motoziklismoa bost bider agertu dira aldizkarian.

### **C) BESTEAK**

Ehiza eta xakea kategoria berean bildu ditugu, bi diziplina horietan zalantza ugari daudelako: batzuen ustez ezin dira kirol gisa hartu; beste batzuek, berriz, oso argi dute bata zein bestea kirolak direla.

*Berriketan* aldizkarian 2000-2004 bitartean xakeari buruzko bi testu kaleratu dira eta ehiza hiru itemetan agertu da. Xakea kirol gisa aipatzen da, ehizari buruzko testuetan ez da inon kirol hitza agertzen, zaletasuna baizik. Beraz, nahiz eta guk kirol atalean sailkatu dugun, Debako aldizkarian ehiza ez da kirol diziplina gisa kontsideratzen.

Kirol agendak izeneko kategoria honetan, kirol ezberdinen inguruko agenda eta emaitzak sartu ditugu alde batetik; bestetik, guk sortu dugun kategoria sisteman sailkatu ezin diren kirolak. *Berriketan* aldizkarian ez da kirol agendarik argitaratu gure azterketa-epean, baina boloak, boxeoa eta zaldi lasterketa, bakoitza behin agertu da aztertutakoetan.


### **Kirola bi hitzetan**

Ondorioz, kirolak oro har gutxi agertzen dira Debako hilabetekarian. Aldizkariko orrietan ez dute gainera toki finkorik, ez baitago kirolei zuzendutako sekzioirik. Lan-taldeak badaki kirolen informazioirik ez ematea hutsune nabarmena dela.

Talde kirola gehiago agertzen da eta banakako kirolekin alderatuz, ezberdintasuna ez da oso handia: portzentajeetan bederatzi puntu eta item kopuruan zazpi itemeko aldea dago. Orokorrean futbola eta mendia dira gehien agertzen diren bi kirolak eta talde kirolaren baitan ere, bi horiek dira nagusi, horiekin batera arraunketa bakarrik agertzen delako, baina gutxitan agertzen da. Banakako kirolaren baitan, atletismoa eta txirrindularitza dira garrantzitsuenak gure azterketa-epean. Automobilismoa eta motoziklismoa, igeriketa eta pilota %6-%5eko portzentajeetan agertu dira; herri kirolak eta borroka arteak, %5etik gora; gainerako banako kirolak ez dira agertu ere egin. Xakea eta ehizaren presentzia minimoa da, xakea kirol moduan (%3) eta ehiza zaletasun gisa (%4). Kirol agendak oso gutxitan erabili dira aldizkarian eta sailkatu ezin diren hiru kirol ezberdin aurkitu ditugu.

#### 4.5.4.5.2- Kirolaren bilakaera

100I. grafikoa



Kirol gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Berriketan* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

100J. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
	2000	11	3	1	0	15
	2001	8	5	2	1	16
	2002	8	9	0	0	17
	2003	4	5	0	0	9
	2004	7	9	2	2	20

Kirol gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Lan honetan aztertu diren sei aldizkariaren artean kirolari leku gutxien egiten diona *Berriketan* da. Aldizkari guztietan kirolen gaiak %10etik gorako portzentajea du; Debako hilabetekariak, ordea, %8ko portzentajea eskaintzen dio. Gainera, kirolari bereziki eskaintako sailik ez duen aldizkari bakarra berau da.

Ezberdintasunak ezberdintasun, urtero aldizkarian kaleratzen den kirol item kopurua oro har, hazi egiten da urtetik urtera, 2003. urtea salbuespena izanik, kirolei buruzko testu kopurua urte horretan ia erdira jaisten baita. Nolanahi ere, hasierako hiru urteetan hazkundera oso nabarmena ez den arren, urtero kirolei buruzko testu kopuruak gora egiten du apur bat. Adibideetan ikusiko dugun moduan, 2001eko apiriletik aurrera, “*Berriketan Gaztea*” gehigarria kaleratzen denetik, kirol item kopuruak gora egiten du, gehigarriak kirolari tokia eskaintzen

diolako bere orrietan. 2001-2004 bitartean, “Berriketan Gaztea”-n kirol ezberdinei buruzko hogeita zazpi testu argitaratu dira.

#### **A) TALDE KIROLA**

Urteak aurrera egin ahala talde kirola gero eta gutxiago agertzen da aldizkarian, izan ere, urteekin portzentajea erdira jaisten da. 2000. urtean kaleratzen dira talde kirol ezberdinei buruzko testu gehien, hamaka idatzi. Hurrengo urtetik aurrera, behera egiten du item kopuruak eta 2004an zazpi item argitaratzen dira. Beste behin ere, portzentaje eta item kopuruaren arteko ezberdintasunak nabarmenak dira talde kirolean ere. Hots, 2003an lau testu argitaratzen dira %44ko portzentajearen kokatuz; 2004an zazpi testu kaleratzen dira eta portzentajea %35ekoa da. Guztira, urte bakoitzean argia ikusi duten kirol ezberdinei buruzko testu kopuru orokorraren arabera kalkulatzen dira portzentajeak, eta 2003an bederatzi testu argitaratu badira, 2004an hogeitazazpi testu kaleratu dira.

Talde kirolaren baitan hiru kirol soilik agertu dira *Berriketan* aldizkarian gure azterketapean eta protagonismo gehien izan duten kirolak, futbola eta mendia izan dira. Futbolari buruzko testu gehien 2002an argitaratu dira, zortzi item<sup>1221</sup> hain zuzen ere. 2000. urtean mendiari buruzko informazio ugari agertzen da, zazpi albiste labur<sup>1222</sup>; gainerako urteetan bizpahiru testu baino ez zaizkio eskaintzen mendiari. Arraunketa hiru aldiz izan da kirolean albiste<sup>1223</sup> Debako aldizkarian, 2004an hain zuzen ere.

#### **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kirola, talde kirola ez bezala, gero eta gehiago agertzen da aldizkarian, datuak begiratuta argi ikusten da banakako kirolei buruzko testu kopuruak gora egiten duela, eta portzentajeek ere, neurri handiagoan gora egiten dutela. 2000. urtean hiru item kaleratzen dira %20ko portzentajearen kokatuz eta 2004an banakako kirolak bederatzi itemetan dira protagonista nagusi %45eko portzentajea izanik.

Oro har urteekin banakako kirol ezberdinen agerpena aldizkarian handitu den arren, atal horren baitan dauden kirol ezberdin bakoitzeko bost item baino gehiago ez dira inoiz argitaratu.

---

<sup>1221</sup>- Adibidea: “Miguel Angel Perez Lasa epaileari elkarriketa”. 2002ko apirileko 44. alean. “Berriketan Gaztea”. (2. or.).

<sup>1222</sup>- Adibidea: “Mendi irteera” albiste laburra. 2000ko azaroko 28. zenbakian. (8. or.).

<sup>1223</sup>- Adibidea: “Jabixu arraunlaria. Zorionak eta segi horrela” albiste. 2004ko abuztuko 72. alean. (8. or.).

Atletismoa eta txirrindularitza izan dira gure azterketa-epetan gehien agertu diren banakako kirolak. Atletismoari buruzko item kopuru altuena 2002an aurkitu dugu, hiru testu<sup>1224</sup> hain zuzen ere. Txirrindularitza ere 2002an agertzen da gehien, lau item<sup>1225</sup> argitaratu baitira urte horretan. Igeriketa eta uretako kirolei ez zaie arreta berezirik jarri aldizkarian 2004ra arte, orduan hiru testuk<sup>1226</sup> jasotzen dute surf eta urpekaritzari buruzko informazioa. Herri kirolak 2000an (item batean) eta 2004an (bi testutan)<sup>1227</sup> bakarrik agertu dira. Pilota ere ez da asko agertu Debako hilabetekarian; 2001 eta 2004an, urte bakoitzean, bi idatzitan<sup>1228</sup> izan da protagonista. Judoari buruzko albiste bakarra aurkitu dugu 2001eko apirileko 32. zenbakian, “Emakumezkoen nazioarteko 6. judo txapelketa”. Azkenik atal honetan automobilismoa eta motoziklismoaren gaia, 2002an behin bakarrik eta 2003an lau itemetan<sup>1229</sup> agertu da.

Eskubaloia, saskibaloia, errugbia, eskia, duatloi eta triatloia ez dira inoiz agertu *Berriketan* aldizkarian guk aztertu ditugun berrogeita hamazazpi zenbakietan.

### C) BESTEAK

Ehiza eta xakea guztira bost testutan agertu dira 2000-2004 bitartean. Ehiza 2001ean behin agertu da eta 2004an bi testutan<sup>1230</sup>. Xakeari buruzko bi informazio kaleratu dira bost urtetan, bata 2000. urtean eta bestea 2001ean<sup>1231</sup>.

Kirol agendaren barnean, katalogatu gabeko kirolak hiru aldiz agertzen dira *Berriketan* hilabetekarian: zaldi lasterketa eta boloen gaia lantzen duen albiste labur bana eta boxeoari buruzko albiste bat.

### Kirolaren bilakaera bi hitzetan

Beraz, *Berriketan* da kirolari espazio gutxien eskaintzen dion Deba Barreneko aldizkaria. Hala eta guztiz ere, urtetik urtera kirolaren hazkunde apala nabaritzen da, batez ere “*Berriketan Gaztea*” gehigarria kaleratzen hasten denean. Urtetik urtera talde kirolen atalak beheranzko joera

<sup>1224</sup>- Adibidea: “10 km-ko lasterketa batetik maratoi bat egitera”, Jose Sagonak idatzitako iritzi-artikulua. 2002ko abenduko 52. zenbakian. (5. or.).

<sup>1225</sup>- Adibidea: “Zorionak Aitor” albiste. 2002ko maiatzeko 45. alean. (8. or.).

<sup>1226</sup>- Adibidea: “Hiru urpekariri elkarrizketa”. 2004ko ekaineko 70. zenbakian. “*Berriketan Gaztea*”. (2. or.).

<sup>1227</sup>- Adibidea: “Juan Jose Agirregabiria Euskadiko txapeldun aurten ere” albiste. 2004ko iraileko 73. alean. (6. or.).

<sup>1228</sup>- Adibidea: “Jon Arriaga, Zesta Puntako munduko txapelduna” elkarrizketa. 2001eko urriko 38. alean. (6.-7. or.).

<sup>1229</sup>- Adibidea: “Formula 1 ikusten al duzu? Zein duzu gustukoen? Fernando Alonso zer iruditzen zaizu? Horrela jarraituko duela uste duzu edo suertea izan duela uste duzu?” inkesta. 2003ko ekaineko 58. zenbakian. “*Berriketan Gaztea*”. (3. or.).

<sup>1230</sup>- Adibidea: “Gaizka Mendizabal, Erik Mendizabal, Adur Juaristi eta Iraitz Arrizabalaga”, lau ikasle ehiztariri elkarrizketa. 2004ko abenduko 76. alean. “*Berriketan Gaztea*”. (2. or.).

<sup>1231</sup>- “San Roke xake taldea gora!” albiste. 2001eko apirileko 32. zenbakian. (4. or.).

argia erakusten du, portzentajeak erdira jaitsiz; izan ere, talde kirolen baitan agertzen diren futbola, mendia eta arraunketa, urtetik urtera gero eta gutxiago agertzen dira. Banakako kirolen bilakaera guztiz kontrakoa da, gero eta gehiago agertzen dira hasierako urteko kopurua bikoiztuz. Orokorrean atletismoa, txirrindularitza eta igeriketari buruzko testuak areagotu egin dira urteekin. Herri kirolak, pilota, borroka arteak, automobilismoa eta motoziklismoak, aldiz, ez dute urtero jarraipenik izan aldizkarian, noizean behin agertu baitira. Ehiza, xakea eta kirol agendak ere, lantzean behin agertu dira aldizkarian eta urteak pasa ahala, indarra galdu dute.

#### **4.5.5- BERRIKETAN ALDIZKARIAREN ARDATZAK**

*Berriketan* aldizkaria 1998an sortu zen inolako planteamendu profesionalik gabe eta 2000-2004 epea oso aldakorra izan da, esperimentala oro har. Argi ikusten da hori hilabetekarian erabili diren kazetaritza-genero eta gaiak izan duten tratamenduan. Kazetaritza-genero ezberdinak erabili dira, **informazioa** guztien artean nagusituz. Genero ezberdinen bilakaeran gorabehera nabarmenak egon dira eta ez da inolako orekarik mantendu, batez ere lan-taldean inork ez duelako kazetaritza ikasketarik eta ondorioz, kazetaritza-generoak irakurle gisa ikasi dutenaren arabera lantzen dituztelako. Era berean, iritzia eta informazioa etengabe nahasten dira aldizkarian argitaratzen diren idatzietan.

##### **4.5.5.1- Kazetaritza-generoak**

Urteekin batera aldizkariko edukiak hobeto kudeatzen ikasi dituztela nabaritzen da: item kopuru orokorra gero eta handiagoa, aldizkariaren espazioa hobeto aprobetxatuta eta informazio, iritzi, literatura eta zerbitzuen atalak era proportzionalagoan landuta daudelako. **Informazioa** da gehien lantzen den generoa eta batez ere, **informazio-genero laburrak eta arinak** erabiltzen dira, eduki gehiago lantzeko eta era berean, euskaraz irakurtzen ohituta ez dagoen jendeari irakurketa errazteko. Hala eta guztiz ere, albiste laburrak, albisteak eta argazki-albisteak gero eta gutxiago agertzen dira urteekin. Erreportajeak eta elkarrizketak gehiago erabiltzen dira urteak aurrera egin ahala.

Lan honetan aztertu ditugun...*eta kitto!*, *Pil-pilean*, *Barren* eta *Kalaputxi* aldizkarietan ere, informazioa izan da nagusi kazetaritza-generoen artean. *Berriketan*en %58an, Mutrikuko *Kalaputxin* %59an (hiru urtetan), Elgoibarko *Barren*en %62an, Soraluzeko *Pil-pilean*en %66an eta Eibarko ...*eta kitto!*-n %79an kokatu da informazioaren portzentaje orokorra. Emaitzen arabera, Mutrikukoarekin batera, Debako aldizkaria da informazio kopuru baxuena daukana gure azterketa-epean Deba Barrenean. Aldizkari guztietan informazio-genero labur eta arinak gailendu dira 2000-2004 bitartean. Debako hilabetekarian eta Eibarko eta Elgoibarko astekarietan erreportaje kopuruak gora egin du gure azterketa-epean, baina ...*eta kitto!* eta *Barren*en elkarrizketa kopuruak behera egin du. *Pil-pilean* hamabostekarian eta *Berriketan* hilabetekarian, berriz, elkarrizketak ugaritu egin dira urtetik urtera.



Urteekin indartu egin da iritzia eta *Berriketan*, **Deba Barreneko sei herri-aldizkarien artean iritzia gehien lantzen duen argitalpena bilakatu da**. Erabili diren iritzi-generoak finkoak izan dira 2000-2004 bitartean eta ordena honetan izan dira garrantzitsuenak agerpen-mailaren arabera: **kale-inkesta, artikulua, kritikak** eta **zutabeak**. Irakurle gutunen agerpena txikia izan da oro har eta urteekin gutxitu egin da kopurua, ia desagertu arte. Artikuluak eta kritikak, ordea, urtetik urtera ugartuz joan dira, inkesta eta zutabeak apur bat jaitsi diren bitartean.

*Berriketan* aldizkarian bakarrik ez da iritzia indartu, *Barren* eta *Kalaputxin* ere, urteekin gero eta iritzi gehiago sartu dute-eta. Hiru horiek dira hain zuzen ere, orain arte aztertu ditugun aldizkarien artean, iritzi-portzentaje handiena duten argitalpenak: ...*eta kitto!*-n %7koa izan da iritzi-portzentajea; *Pil-pilean*en % 13koa; *Barren* eta *Kalaputxin* %16an kokatu dira iritzi-portzentajeak eta *Berriketan*ek %20 eskaini dio iritziari 2000-2004 bitartean.

Eibarko, Elgoibarko eta Mutrikuko aldizkarietan irakurleen gutunak agerpen-maila handia dute eta urteekin areagotu egin dira. Soraluzeko eta Debako agerkarietan, aldiz, irakurleen gutunak gutxi azaldu dira eta urteekin, desagertuz joan dira. Kale-inkesta oso garrantzitsua da bost aldizkariotan, tesi honetan aztertu diren ale gehienetan azaltzen den iritzi-generoa baita.

Deban gutxien lantzen den generoa literatura da eta batez ere, gazteei zuzendutako gehigarrian agertzen da, gazte-jendeak egiten duelako eta ohituago dagoelako genero horiek irakurtzera. Izan ere, atal honen baitan **txisteak** dira gehien errepikatu direnak. Ipuinak, bertsoak eta fotonobela gutxiago agertzen dira.

Orain arte lan honetan aztertu ditugun bost herri-aldizkarien artean, *Pil-pilean* eta *Barren* izan dira literaturari espazio apur bat eskaini diotenak. Halere, *Berriketan*ekin alderatuz, gutxiago landu izan dute literatura. Elgoibarko *Barrenek*, %1eko portzentajea, Soraluzeko *Pil-pilean*ek %2an eta *Berriketan*ek %5ean. Soraluzeko aldizkarian literaturaren barnean bertsoak dira gehien lantzen direnak, nahiz eta urteekin txisteak soilik indartu diren. Elgoibarko astekarian, aldiz, literaturak goranzko joera erakusten du eta ipuinek dute agerpen-maila altuena.

Zerbitzu-gunea izan da gehien landu den hirugarren atala *Berriketan* aldizkarian, informazio eta iritziaren atzetik, eta urtetik urtera atal honen garrantzia handitu egin da aldizkarian. Gazte-gehigarrian kaleratzen diren **denbora-pasak** nagusitzen dira eta ondoren, **agendak** eta **zerbitzu-informazioa**. Denbora-pasak eta zerbitzu-informazioa urtez urte hazi

egiten dira; agendek berriz, beheranzko joera izan dute. Informazio erabilgarria eta salerosketa eta trukeen atalak gutxi agertzen dira oro har, eta urteekin desagertzeko joera erakutsi dute.

*Berriketan* hilabetekarian izan ezik, gainerako aldizkari guztietan, zerbitzuen saila da aldizkariko atalik inportanteena informazioaren ondoren. Honatx 2000-2004 bitarteko datu orokorrak: ...*eta kitto!*-n %14an, *Berriketanen* %17an, *Barrenen* %18an, *Pil-pileanen* %19an eta *Kalaputxin* %21ean kokatzen da zerbitzuen portzentajea. Beraz, Eibarko aldizkaria da guztien artean zerbitzu-gune ahulena duena.

Zerbitzuen baitan, agendak bost aldizkarietan gehien agertzen diren zerbitzuen artean daude. Mutrikuko *Kalaputxin*, Eibarko ...*eta kitto!*-n, Elgoibarko *Barrenen* eta Debako *Berriketanen* zerbitzu-informazioa ere gehien argitaratzen den sailen artean dago.

Eibarko eta Elgoibarko astekarietan salerosketa/trukeak presentzia nabarmena dute eta Soraluzeko hamabostekarian eta Debako hilabetekarian, denbora-pasak gehien agertzen diren zerbitzuen artean aurkitzen dira.

#### 4.5.5.2- Gaiak

Debako hilabetekarian gai ezberdinak agertu dira 2000-2004 bitartean, baina espazio gehien **gizarte-gaiak** izan dute. Ondoren, alde nabarmenarekin, kultura izan da aldizkariko gairik preziatuena. Kirolak, politika eta ekonomia oro har gutxi agertu dira gure azterketa-epean. Gaiak landu eta aukeratzeko orduan, jende ezberdina erakartzeko eta jende ezberdinarengana heltzeko ahaleginak egiten ditu lan-taldeak.

Orain arte aztertu ditugun gainontzeko aldizkarietan ere, gizarte-gaiak dira bost urte hauetan gehien errepikatu direnak.

Debako hilabetekarian gutxien agertu den gaia da politika eta urtetik urtera ez da bere agerpena areagotu. Gai politikoak herriari lotuta agertzen dira aldizkarian eta **Euskal Herriko gatazka** lehenengo eta **udala** ondoren dira gehien agertzen direnak. **Alderdiak**, **gerra** eta **ejertzitoen** gaia ere agertzen dira, baina neurri txikiagoan. Oro har, gai politikoek, ez dute jarraipenik urtez urte aldizkarian; Euskal Herriko gatazkaren gaia, ordea, urtero azaltzen da nahiz eta urteekin gutxiago agertzen den.

Gainontzeko bost errebisten artean, *Pil-pilean* da politika gehien jorratu duen aldizkaria. Izan ere, Soraluzeko aldizkarian gizarte-gai eta kulturaren ondoren politika baita gai nagusia.

Bost urte hauetan, ...*eta kitto!*, *Kalaputxi* eta *Berriketan* izan dira politikari toki gutxien eskaini dioten hiru aldizkariak, hiruretan portzentaje orokorra %5ean kokatzen baita. *Barrenek* apur bat gehiago landu du politika, %7an kokatuz eta *Pil-pileanek* %14ko portzentajea eskaini dio politikari.

Kopuruetan alde nabarmenak badaude ere, bost agerkarietan jorratzen diren gai politikoen artean antzekotasun handiak daudela esan beharra dago; guztietan, gehien errepikatzen diren hiru gai nagusiak, udala, Euskal Herriko gatazka eta alderdiak direlako. *Pil-pilean* eta *Kalaputxin* udala da gehien agertzen dena; ...*eta kitto!*-n eta *Berriketanen* Euskal Herriko gatazka eta *Barrenen* alderdiak. Gogoratu beharra dago, gerra eta ejertzitoen gaia orain arte, *Berriketan* aldizkarian azaldu dela gehien, gainerako argitalpenetan murrizta izanik bere trataera.

Politika bezala, ekonomia da gutxien lantzen den gaietako bat *Berriketan* hilabetekarian; urteekin berdin mantentzen da, ez baita agertzen. Lan-taldean dihardutenentzat oro har gaia arrotza izateaz gain, konplexua eta zaila da modu ulergarri eta erakargarrian lantzeko. **Merkataritza** da gehien agertu den gai ekonomikoa eta ondoren, alde handiarekin, **nekazaritza**, **abeltzaintza**, **enpresa** eta **gai laboralak**. Itsasoa eta arrantzari buruzko testuak oso gutxitan agertu dira. Orokorrean, ekonomiaren baitan agertzen diren gai guztiek gorabehera handiak izan dituzte gure azterketa-epean.

*Kalaputxi* izan da Deba Barreneko herri-aldizkari guztien artean ekonomia gehien jorratu duena gure azterketa-epean. Mutrikuko aldizkariaren portzentajea hiru urtetan, gainerako errebisten (bost urtetan) portzentajearen bikoitza izan da ekonomiari dagokionez. *Kalaputxin* ekonomia %10ean kokatu da, ...*eta kitto!* eta *Barrenen* %6an, *Berriketanen* %5ean eta *Pil-pileanen* %4an.

*Berriketan* hilabetekarian, *Barrenen* eta *Pil-pileanen* bezala, merkataritza da ekonomia gai nagusia. ...*eta kitto!*-n enpresa da gehien lantzen den gaia, nahiz eta ondoren merkataritza den inportanteena. Guztien artean *Kalaputxi* da erabat ezberdina, bertan itsasoa/arrantza delako gai ekonomiko garrantzitsuena.

Gizarte-gaiak dira aldizkariko protagonista nagusiak 2000-2004 bitartean eta urteak aurrera egin ahala, kopuru altuetan mantentzen dira gizarte-gaien portzentajeak. **Gizarte ohiturak**, **zerbitzuak**, **hezkuntza**, **lanak** eta **taldeak** dira agerpen-mailaren arabera eta ordena honetan garrantzi gehien dutenak; ingurumena, gizarte arazoak eta osasuna, aldiz, gutxien agertu

direnak. Urtetik urtera taldeak, lanak, hezkuntza, ingurumena eta gizarte ohituren gaiak hazi egiten dira.

Lan honetan orain arte aztertu ditugun lau aldizkarietan gizarte-gaiak izan dira protagonista nagusiak eta argitalpen guztietan gizarte-gaien portzentaje orokorrak %40tik gorakoak izan dira: *...eta kitto!-n* %42koa, *Barrenen* %46koa, *Berriketanen* %47koa, *Pil-pileanean* %49koa eta *Kalaputxin* %51koa izan da. Halaber, bost errebistetan gizarte ohiturak dira gehien agertu direnak eta horien ondoren zerbitzuak. Aldizkari guztietan errepikatzen den beste ezaugarri bat ere aurkitu dugu: hezkuntza eta lanak gai esanguratsuenen artean dago bost aldizkarietan.

Kultura gaiak ere protagonismo handia izan dute *Berriketan* hilabetekarian, urteekin batera gai kulturalen agerpena areagotuz joan da. Izan ere, atal zehatz batzuetan lantzen dira kulturarekin erlazionatutako gai ezberdinak. Horrela bada, **literatura, musika, agendak** eta **komunikabideak** dira gehien agertzen diren gaiak. Euskara, arte plastikoak eta gastronomia ez dira horrenbeste landu 2000-2004 bitartean. Arte plastikoak, arte eszenikoak, gastronomia, euskara eta agendak oro har, urteen joan etorriarekin indarra galdu dute eta literatura eta komunikabideen gaiak, ostera, areagotu egin dira.

*Berriketan* hilabetekarian bezala, gainerako guztietan kultura da aldizkariko bigarren gairik inportanteena eta horrez gain, agerkari guztiek kultura lantzeko orri bereziak erreserbatzen dituzte. Bost errebistetan kulturaren agerpen orokorra, %20tik gorako portzentajeetan kokatzen da: *Berriketanen* %35ean, *...eta kitto!-n* %28an, *Barrenen* %25ean, *Kalaputxin* %22an eta *Pil-pileanen* %21ean. Beraz, orain arte analizatu ditugun bost aldizkarien artean Debakoa da kulturari toki gehien egin diona gure azterketa-epean. Aldizkari guztietan arte eszenikoak gehien agertzen diren gaien artean daude eta guztietan, salbuespenik gabe, arte eszenikoen barnean musika da nagusi. Gainerako gai kulturaletan ezberdintasun nabarmenak daude. Esaterako, *Kalaputxin* komunikabideen gaia da inportanteena; *Berriketanen* ere, gehien lantzen diren gaien artean dago. *Pil-pileanen* eta *Barrenen*, literaturak eta euskarak protagonismo berezia dute. Debako aldizkarian, literatura da gehien lantzen den gai kulturala.

Ekonomia eta politika baino apur bat gehiago agertzen badira ere, gutxi lantzen dira kirolak Debako aldizkarian eta ez da kiroletarako sekzio berezirik kaleratzen: kirol gaiak aldizkarian zehar dauden ataletan tartekatzen dira. Dena dela, urteak pasa ahala kirolari garrantzi

handiagoa ematen zaio eta batez ere gazteei zuzendutako gehigarrian kirol ezberdinak agertzen dira. Oro har, **futbola**, **mendia**, **atletismoa** eta **txirrindularitza** dira *Berriketan* aldizkarian espazio gehien izan dutenak bost urteetan.

*Pil-pilean* hamabostekarian bezala, *Berriketan* hilabetekarian ez da gainerako aldizkarietan beste kirol agertzen. Portzentaje orokorrei erreparatuz gero, berehala konturatuko gara *Berriketan* dela kirola gutxien lantzen duen Deba Barreneko herri-aldizkaria. ...*eta kitto!*-n %17an, *Barrenen* %16an, *Kalaputxin* %12an, *Pil-pileanen* %11an eta *Berriketanen* %8an kokatzen dira kirolaren balio portzentualak. *Kalaputxin* izan ezik, orain arte azertu ditugun aldizkari guztietan, banakako kirola gailentzen zaio talde kirolari, baina errebista guztietan futbola da gehien errepikatzen eta agertzen den kirola. ...*eta kitto!* eta *Pil-pileanen* pilota eta txirrindularitza ere maiz agertzen dira, Debako aldizkarian txirrindularitza gehien agertzen diren gaien artean azaltzen da. *Barren* eta *Pil-pilean* aldizkarietan, berriz, mendia, atletismoa eta kirol agendak ugariak dira. *Berriketan* hilabetekarian, ostera, agendak ez dira apenas agertzen, baina mendia eta atletismoa garrantzitsuak dira. *Kalaputxin*, mendia eta arrauna dira futbolaren ondoren gehien azaltzen diren bi kirol nagusiak.

#### 4.5.5.3- Gibel-iruzkinak


Kazetaritza-generoei dagokionez, deigarria den datu bat aurkitu dugu Debako aldizkarian: “*Berriketan* Gaztea” gehigarrian kazetaritza-generoen artean *Berriketan* aldizkarian baino oreka gehiago antzematen da. Kontuan hartu behar da, ikasleek gehigarria eskolako prentsa tailerrean egiten dutela eta kazetaritzari buruzko oinarrizko nozioak ikasten dituztela. *Berriketan* aldizkariko lan-taldekoek ez dute horrelakorik ikasi eta testuetan nabaritzen da hori: informazioa antolatzerako orduan, titularrak jartzerako orduan edo generoak erabiltzerako orduan, besteak beste.

Halaber, aldizkarian argitaratzen diren testu asko herriko taldeek idazten dituzte, 2000-2004 bitartean aldizkariko kolaboratzaile finkoak izan diren taldeek idatzitakoak dira hain zuzen ere. Beraz, herritar batzuen parte-hartzea aldizkarian handia da eta horrek iritziaren atala indartzea dakar, testu horietan taldeen eta herritarren iritziak agertzen direlako. Bestalde, zailtasunak izaten dituzte jende ezberdina aldizkarira hurbiltzeko eta sarritan lan-taldeak bilatu behar du notizia, aldizkariko lan-taldea kirol eta talde ezberdinengana hurbildu behar izaten da

horien inguruko informazioaren bila. Hilabeteko maiztasuna izanik eta lan-talde osoa borondatez aritzen denez, muga handiak dituzte eta ahalik eta hoberen egiten saiatzen dira, ahalik eta jende eta talde gehiengana helduz, baina askotan ezinezkoa da, aldizkariari behar eta nahi beste denbora ezin diotelako eskaini.

Gure azterketa-epean aldizkarian landu diren gaietan ere, ez dugu oreka handirik antzeman. Alde batetik, aldizkariko erredaktoreek gaiak erabakitzerako orduan, gaien arteko oreka ez dutelako kontuan hartzen. Bestetik, talde kideek aldizkaria gustuko dutelako, aisialdian egiten dute, bakoitzak ahal duen denbora mugatu hori eskaintzen diolarik. Hala ere, bost urte hauetan izan dituzten kolaboratzaile finkoei esker, *Berriketane*ko lan-taldekoek gai gehiago jorratu ahal izan dituzte.









#### **4.6-DROGETENITTURRI ALDIZKARIAREN ANALISIA**

1989an kaleratu zen *Drogeteniturri* aldizkariaren lehenengo alea, Ermua eta Mallabian. Gaur egun ere, bi herrietan zabaltzen da. Hasieran aldizkaria saldu egiten zenet<sup>1232</sup> a bi hilean behin argitaratzen zen. Orduan ez zegoen langilerik eta *Drogeteniturri* egiten zuen lan-talde osoa borondatez aritzen zen. Proiektua erabat militante jaio zen, gertuko informazioa eskainiz, euskara Ermua eta Mallabian zabaldu eta sustatzeko asmoz. 1992an kaleratzeari utzi eta hausnarketa sakona egin ondoren, aldizkariaren iraupena ziurtatzeko, profesional baten beharra ikusi zuten eta, kazetari-maketatzailea zen langile finko baten esku lagatzea erabaki zen aldizkariaren pisu handiena. Langile horrek ez zuen inoiz lan kontraturik izan. Horrez gain, kolaboratzaile sarea izan zuen ondoan eta publizitate lanetan aritu ziren bi lagun. Horrela, 1994an hilero birkaleratzen hasi zen; doan eta hilabetekari gisa.

Beste herri-aldizkari askok bezala, *Drogeteniturri*, Kultur Elkarte bat du atzean. Euskal Birusa Elkarte Kulturalak kaleratzen du eta berau, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko bazkidea da. Aldizkaria, gaur egun ere hilero argitaratzen da (hileko azken astean kalean dago), 1.700 aleko tiradarekin eta doan banatzen da Ermua eta Mallabiko etxe askotan eta toki publiko gehienetan. Herri bien berriak emanez, euskararen normalizazioan eragitea du helburu gaur egun ere.

2000. urtea ez zen samurra izan *Drogeteniturri* egiten zuen lan-taldearentzat. Diru-estuasun eta koordinatzaileak lana uztearen ondorioz, Mallabia eta ermurrak kolokan ikusi zuten euren herri-aldizkaria. Apurka-apurka baina, gauzak ubidean sartzen joan ziren eta hilabetekaria, diru arazoetan saneatzeaz gain, koordinatzaile eta aro berriak ezagutu zituen. Gaur egun, kaleratzen den bi herrietan, *Drogeteniturri* erreferente izateaz gain, produktu finkatua da. Horren adierazle, publizitatea, gero eta bezero gehiago lortu ditu aldizkariak 2000-2004 bitartean, datuek argi erakutsiz publizitatearen goranzko joera: 2000. urteko hamaika aleetako publizitate moduluak batuz gero, sei-hun eta hamar bezerok sartu zuten publizitatea aldizkarian. Horietako berrogeita hamar gutxi gora behera, ale guztietan publizitatea sartzen zuten bezero finkoak ziren. 2004ko hamaika zenbakietan, ostera, zazpiehun eta bi bezero agertzen dira, ia ehun gehiago.

---

<sup>1232</sup>- Elkoroberezibar, Miguel Angel. (1992): "Prensa lokala Euskal Herrian", in *Jakin* aldizkaria, 69. zenbakia, Donostia. (37. or.).

Publizitate kopuruak gora egin duen arren, lan baldintzak kaskarrak dira oraindik ere. Hona hemen, *Drogeteniturri* aldizkariaren koordinatzailearen hitzak, 2004ko azaroan, Euskalduna jauregian antolatu zen Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresuan:

*“Orain, zalantzarik gabe ez gaude baldintza onenetan. Izan ere, Drogeteniturrik eskaintzen duen soldatatxoarekin zaila da gaur egun bizitzea. Ezin da ahaztu, ordea, garai txarragoak ere izan direla (ganorazko egoitza barik, auto-ediziorako tresneriarik gabe, la-kontraturik gabe (...))”.*

*“Gurean ere egon da garapenik, ez beste herri-komunikabide batzuetan egon den bilakaera bera, baina hasierako urteetatik gauzak hobetu dira, nahiz eta oraindik ere badagoen zer hobetu zalantzarik gabe (...))”.*

*“(...) Ez gara erabat profesionalak eta argi dago beste herri-komunikabide askoren ondoan gure aldizkariak ez duela maila bera izango, baina gure neurrira kaleratzen dugun produktu duina egiten saiatzen gara. Eta hor dago, 10 urtean kalean, jende askoren parte hartze eta lan militanteari esker”*

Orain arte ereindako haziak jaso ditu bere fruituak, hainbeste urtetan aldizkariak egindako lanari esker, Ermua eta Mallabian bere tokia egitea lortu baitu:

*“2004an LKS ikerketa enpresak Ermuko udalak eskatuta, Ermuan egoera soziolinguistikoa aztertzeko egindako ikerketaren datuek diotenez, Euskal Birusak eta Drogeteniturrik prestigioa dute eta erreferente dira Ermuan, baita biztanle erdal hiztunen artean ere”<sup>1233</sup>.*

### **Aldizkariko atalak**

2003ko irailean *Drogeteniturri* aldizkariak diseinua erabat berriztu zuen eta horrek eragin zuzena izan zuen ordutik aurrerako ataletan. Hona hemen 2000-2004 bitartean, Ermua eta Mallabiko aldizkarian aurkitu diren sailak:

**-Bertsuak:** Bertsoak eta bertsoaritzari buruzko informazioa argitaratzen den saila.

**-Sukaldaritza/On egin:** Sukaldeko errezetak (bi edo hiru) argitaratzen diren atala.

**-Elkarrizketa:** Ale bakoitzeko elkarrizketa nagusia, normalean bi orri izaten dituena. Herriko pertsona edo herrira datorren pertsonaiari egiten zaion elkarrizketa.

---

<sup>1233</sup>- Aiestaran, Alazne. (2005): “Hedabide txikiak ere bagara”, in Askoren Artean. *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta geroa*, EHU, Bilbo. (443.or.).

**-Berriak/Laburrak/Motzean:** Albiste, argazki-albiste eta batez ere albiste laburren bitartez gaurkotasanari heldu nahian lantzen diren gaiak eta informazioak. Normalean bi orri izaten dituen atala da.

**-Mallabiko kontuak/Mallabian Zer?:** Bi orritan, Mallabiko herriari buruzko informazioa biltzen da bertan; elkarrizketak, erreportaje, albiste eta albiste laburrek osatzen dute.

**Ermuko ekintzak/Ermuan Zer?:** Laburrean landu beharrean, espazio gehiago merezi duten Ermuko gaiak kaleratzeko aukera ematen du sekzio honek, erreportaje, elkarrizketa edo albisteekin hornitua.

**-Erreportajea:** Ez da atal finkoa izaten, noizean behin argitaratzen dena baizik. Sakonean aztertzea merezi duen edozein gai landu daiteke, baina maiz atal honetan tradizio, ohitura, usadio eta herriko historiarekin zerikusia duten gaiak agertzen dira.

**-Kirolak/Kirozale:** Herrietako kirol ezberdinei buruzko albiste labur eta kirolariei egindako elkarrizketak argitaratzen dira sekzio honetan.

**-Denborapasak:** Gurutzegrama eta horoskopoiari eskainitako orrialdea.

**-Jakinguran:** Fisika eta biologia ikasleak diren bi kolaboratzaile finkok, zientzia irakurleari gerturatzeko asmoz idazten dituzten erreportajeak.

**-Sexuaz:** Sexologian aritua den kolaboratzaile batek hilero idazten duen iritzi-zutabea.

**-Ikusi-makusi:** Liburu lehiaketa eta literatura, zine edo musika kritika argitaratzen den sekzioa.

**-Agenda:** Hurrengo hilabeterako ekitaldien kultur agenda.

**-Boteprontoan:** Ermuko edo Mallabiko herritarrei egiten zaien elkarrizketa arina eta laburra.

**-Ene aburuak/Iritzia:** Ermua eta Mallabiko jendearen iritziek osatzen duten orrialde bete hau, “Kale-inkesta”-rekin lotuta doa. “Kale-inkestan” jorratzen den gaiarekin zeresana duten herritarrek egiten dute iritzi-artikula.

**-Kale-inkesta:** Herritarrei edozein gairen inguruan egiten zaien galdera. Atal honetan jorratzen diren gaiak, Ermua eta Mallabiarekin zerikusia izan dezakete edota, pil-pilean eta denen ahotan dauden gai orokorrak izan daitezke.

### **2000-2004 bitartean agertu diren eta desagertu diren beste atal batzuk:**

**-Hara hemen:** Euskal izenen proposamenak, aholku praktikoak (arropan zikinkeria kentzeko...) euskararen erabilera hobetzeko gomendioak ...

**-Argazki zaharra:** Antzinako argazkiak kaleratzen diren sekzioa. Urte askotan atal finkoa izan zena, 2000ko ekainean utzi zitzaion kaleratzeari.

**-Irakaskuntza:** Lantzen den gaiak irakaskuntzarekin zerikusia duenean sortzen den atala. Ez da finkoa. 2003ko diseinu aldaketarekin, horrelako gaiak “Ermua Zer” atalean sartzen dira.

**-Kultura:** Kulturari buruzko albiste, erreportaje edo elkarrizketak. 2003ko diseinu aldaketarekin, horrelako gaiak “Ermua Zer” sailean lantzen dira.

**-Emakumea:** Emakume eta gizonezkoen berdintasunari buruzko albiste eta elkarrizketak. Diseinu berriarekin, “Ermua zer” atalean sartzen dira gai horiek.

**-Udala:** Udalarekin zerikusia duten albisteak eta informazioak. 2003tik aurrera “Ermuan Zer” sailean lantzen dira.

**-Euskara:** Euskararen gaia jorratzen duten informazioen atala, oso momentu puntualetan argitaratu izan dena.

**-Gizartea:** Ermua eta Mallabiko bizitzari lotuta jorratzen diren informazioak. “Irakaskuntza”, “Kultura”, “Emakumea”, “Udala” eta “Euskara” bezala, ez da atal finkoa. 2003an izandako diseinu aldaketak ez ditu ezberdintzen atal horiek eta gai guztiak “Ermuan Zer” sailean jorratzen dira.

**-Gurutzegrama:** Sasoi batean gurutzegrama orri oso batean sartzen zen atala zen. Gero “Denbora-pasak” sailean gurutzegrama eta horoskopopak orrialde bera konpartitzen dute.

**-Horroroskopoa:** Gurutzegramarekin gertatzen den bezala, hasieran horoskopopak orri osoa hartzen zuen, gero “Denbora-pasak” atalera pasa zen.

**-Irakurzaletasuna:** *Elkarlan* argialetxearekin batera, hilero bi liburu zozketatzen ziren lehiaketa. Hasieran orri osoa erabiltzen zen lehiaketarako, 2003tik aurrera orri berean, zozketa eta liburu, zine edo musika kritika kaleratzen dira.

**-Ermutik kanpo:** Bizpahiru aldiz agertzen den atala da. Ermuarrak direnak eta Ermutik kanpo bizi direnen kolaborazioa bilatzeko saiakera izan zen. Protagonistek, Ermutik kanpo bizi zutenari buruz idazten dute.

**-Euskara lantzen:** Ermuko Anaitasuna Ikastolako irakasle eta ikasle talde baten ekimenez sortu zen atala. Bertan, adibideen bitartez, euskara egoki erabiltzeko aholku-sorta kaleratzen da.

#### 4.6.1- DROGETENITTURRI ALDIZKARIAREN FITXA TEKNIKOAK

Lan honetan aztertu diren aldizkari guztietan egin den bezala Hurrengo fitxa teknikoetan 1999 eta 2004ko datuak agertzen dira; alde batetik, herri-aldizkariaren inguruan datu horiek jasotzen dituen lan bakarra aprobetxatu nahi izan delako, beraz, eskema bera jarraituz datuak eguneratu dira eta bestetik, milurteko berria hasi aurretik aldizkariaren egoera zein zen ezagutzeko aukera eskaini digute 1999ko datuek.

	<b>1999eko fitxa teknikoa</b>	<b>2004ko fitxa teknikoa</b>
	Asier Aranguren <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian kaleratutako datuak	Asier Aranguren txantiloia kontuan hartuta, doktoregai honek eguneratutako datuak.
<b><i>Drogeteniturri</i></b>	. 247 Posta kutxa. 48260 Ermua (Bizkaia). Tf: 943 17 15 11	Erdikokale 2-1. 48260 Ermua (Bizkaia). Tf: 943 17 93 50
<b>Herria/Eskualdea</b>	Ermua, Mallabia. 18.176 biztanle. Euskaldunak % 16,8	Ermua, 16.379 biztanle, euskaldunak 8052 (%49) Mallabia. 1089 biztanle, euskaldunak 942 (%87) <sup>1234</sup>
<b>Argitaratzailea</b>	Euskal Birusa	Euskal Birusa
<b>Nortasun juridikoa</b>	Kultur Elkarte	Kultur Elkarte
<b>Zuzendaria</b>	Iosu Etxaniz	Alazne Aiestaran
<b>Lehen alea</b>	1994an	1994an
<b>Maiztasuna</b>	Noizbehinkaria (hiruhilabetekaria)	Hilabetekaria
<b>Hizkuntza</b>	Euskara hutsez	Euskara hutsez. Testu batzuk Ermua eta Mallabiko euskalkietan.
<b>Zabalkundea</b>	Ermua eta Mallabia. (Bizkaia)	Ermua eta Mallabia. (Bizkaia)
<b>Tirada</b>	1.600	1.750
<b>Prezioa</b>	Doan	Doan
<b>Formatua</b>	DIN-A4	DIN-A4

<sup>1234</sup>. Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea. (2001): *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

<b>Orrialde kopurua</b>	28	24-28
<b>Lan-taldea</b>	Hiru egun-erdiko soldatapean. Kontraturik gabe.	Bi langile (4 orduz) kontratuarekin. Maketatzailea (lan-kontraturik ez). Publizista (lan-kontraturik ez). Hamar kolaboratzaile inguru, ez dute kobratzen eta ez dira kazetariak.
<b>Edukiak</b>	Informazioa %90, lokala %95, testua %70.	Informazioa %69, Iritzia %9, Literatura %3 eta Zerbitzuak %20.
<b>Sortze arrazoiak</b>	Herri honetan euskara bultzatzea, instrumentu berri batez, euskarazko informazioa eman. “Hemen gaude. Hala ere ez dakigu hurrengoan egongo garen. Gu birusak gaituzu. Eta zeini kalte egin? Hortaz, ez daukagu dudarik, erdarari hain zuzen”.	Herri honetan euskara bultzatzea, instrumentu berri batez, euskarazko informazioa eman. “Hemen gaude. Hala ere ez dakigu hurrengoan egongo garen. Gu birusak gaituzu. Eta zeini kalte egin?. Hortaz, ez daukagu dudarik, erdarari hain zuzen”.
<b>Publizitatea</b>	Modulua 1.000 pezeta. Publizistaren komisioa (%30), katalogorik ez.	Modulua 6,50€+BEZ. Publizistaren komisioa (hilaro publizitatean fakturatzen den kopuruaren %30). Urtean publizitate bezero finkoak 60 inguru.
<b>Ezaugarri teknikoak</b>	Auto-edizioa (ordenadorez egindakoa). Azala bi koloretan, barruko orriak zuri beltzean.	Auto-edizioa. Azala kuartrikomian (koloretan) <sup>1235</sup> , barruko orriak zuri beltzean.
<b>Finantziazioa</b>	<b>Gastuak:</b> --- <b>Sarrerak:</b> --- <b>Diru-laguntzak:</b> --- <b>Publizitatea:</b> ---	<b>Gastuak:</b> 35.360,59 € <b>Sarrerak:</b> 34.304,71 € <b>Diru-laguntzak:</b> 21.158,23 € <b>Publizitatea:</b> 13.146,48 €

<sup>1235</sup> - 2004ko irailean azalean kolorea sartu zen lehenengoz. Handik aurrera koloretan inprimatzen da azala eta kontra-azala.

	<b>Besteak:</b> --- <sup>1236</sup>	<b>Besteak:</b> ---
<b>Tresneria</b>	Mac bakarra, inprimagailua; fax, modem eta eskanerrik ez. Telefono linearik ez, argazki makinarik ez.	G4 Machintosh bat, PC 1, 2 inprimagailu, telefonoa, eskanerra, argazki-kamara digitala, CD grabagailua, ADSLa eta bi ordenadoreak sarean.
<b>Konpetentzia</b>		Publizitate alorrean, bailarako gaztelerazko irratia.
<b>Oharrak</b>	Gestio eta goera ekonomiko oso larrian, desagertzeaz. Hasieran Ermuko informazioa sartzen zen eta gero, Mallabiko berriak ere bai.	Urtean 8 aldiz, Eibarko ... <i>eta kitto!</i> aldizkariarekin elkarlanean publizitate gehigarriak kaleratzen ditu.

Ermua eta Mallabiko aldizkarian izan da aldaketarik 1999-2004 bitartean; aldizkaria desagertzeaz egotetik, hilero-hilero, itxura profesionalagoarekin kalean izatera pasa da. Horretan lagungarri suertatu diren hainbat faktorek izan dute zerikusia:

- 2000. urtean aldizkariak eta berau kaleratzen duen Euskara Elkarteak egoitza finkoa izatea lortu zuten.
- Aldizkariaren zuzendaria aldatzearekin batera, lan-baldintzak hobetzea lortzen da. Lan-kontraturik gabe egotetik, 2 laguni 4 orduko lan-kontratua egitera pasatzen da. Halaber, maketazioaz soilik arduratuko den pertsona bat hasten da lanean 2000. urtean. Lan-taldea handitu, sendotu eta finkatu egiten da; ondorioz, lanak eta funtzioak hobeto bereizten dira, begi-bistakoa izanik aldizkariaren edukietan eragina.
- Ezaugarri teknikoak dagokionez, 2000. urtean aldizkariak inbertsio inportantea egiten du, auto-ediziorako behar-beharrezko tresneria guztia eskuratuz. Horrek inprentarekiko independentzia<sup>1237</sup> ematen dio, produktua bera hobeto diseinatzeko eta kalitatea hobeto

<sup>1236</sup>- Aranguren, Asier. (2000): "*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*" doktore-tesia, EHU, Bilbo. (576.or.). Atal hori hutsik agertzen da.

<sup>1237</sup>- 2000ko maiatzera arte Oñatiko Gertu Inprentan eskaneatzen ziren argazki guztiak, adibidez.



kontrolatzeko aukera eskainiz. Era berean, 2004ko irailean aldizkariaren itxura hobetze aldera, kolorea sartzen da azala eta kontra-azalean. Bestalde, aldizkariko edukiei erreparatzen badiegu, informazio maila jaitsi egiten da –nahiz eta berau izan kazetaritza-genero izarra- bestelako kazetaritza-generoak agertuz. Beraz, kazetaritza-generoen arteko oreka bilatzeko ahalegina egiten dela ondoriozta daiteke, beti ere informazioa zutabe nagusia izanik.

- Fitxa teknikoaren arabera, 1999tik 2004ra Ermua eta Mallabiko biztanleria jaitsi egin bada zertxobait, euskaldun-kopuruak, ordea, gora egin du nabarmen. Euskarazko aldizkaria irakurtzeko gai diren herritarrak gehitu egin dira eta hori *Drogeteniturrri*ren tiradan nabaritzen da, bost urteren buruan tirada apur bat igo baita. Urtetik urtera gehiago dira etxean aldizkaria jaso nahi duten herritarrak.

**4.6.2 –DROGETENITTURRI ALDIZKARIAREN BALANTZE EKONOMIKOA (2004)**<sup>1238</sup>


Asier Aranguren <i>Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian</i> doktore-tesian ez zuen <i>Drogeteniturri</i> aldizkariko aurrekonturik kaleratu 1999an. Beraz, 2004ko aurrekontua jarri dugu soilik.	<b>2004ko balantze ekonomikoa</b>
<b>GASTUAK</b>	Langileak _____ 16.610,41 € Funtzionamendua ___ 3.540,75 € Inbertsioa _____ 503,18 € Inprenta _____ 12.524,55 € Zabalkundea _____ 2.181,70 € <b>GUZTIRA 35.360,59 €</b>
<b>SARRERAK</b>	Diru-laguntzak _____ 21.158,23 € Udala _____ 5.885,0 € Aldundia _____ 10.802,00 € Jaurlaritza _____ 4.471,23€ Publizitatea _____ 13.146,48 € <b>GUZTIRA 34.304,71 €</b>
<b>BALANTZEA</b>	GASTUAK 35.360,59 € SARRERAK 34.304,71 € <b>EMAITZA: <u>-1.055,88 €</u></b>

- Gastuen atalean, langileria eta inprenta dira aldizkariarentzat gasturik handienak. Langileriak 2004an aurrekontu osoaren %46,9ko kostua ekarri zion aldizkariari. Inprentak %35,4ko gastua. Sarrereren atalean, ordea, erakunde ezberdinek ematen dituzten diru-laguntzak eta publizitate sarrerak dira garrantzitsuenak, izan ere horiek dira *Drogeteniturri* aldizkariaren finantziazioaren bi zutabe nagusiak. Diru-laguntza ezberdinek, 2004an aurrekontu osoaren %59,8a estali zuten. Publizitate salmentek %37,17a. Ondorioz urte hartako emaitza negatiboa izan zen, defizitarioa hain zuzen ere.

<sup>1238</sup>- Atal honetan ez dugu alderaketarik egin, Asier Aranguren lanean ez baita 1999ko balantzerik agertzen. Lan honetan 2000-2004 tarte hartu dugunez, 2004ko balantzea hartu dugu aldizkariaren bolumen ekonomikoaren erreferentzia gisa.

#### 4.6.3- KAZETARITZA-GENEROAK

101K. grafikoa



Kazetaritza-generoen bilakaera portzentuala *Drogeteniturre* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

101L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	INFORMAZIOA	IRITZIA	LITERATURA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
	2000-2004	1.298	166	55	370	1.889
	2000	239	26	9	65	339
	2001	272	27	17	73	389
	2002	258	29	7	70	364
	2003	275	41	10	80	406
	2004	254	43	12	82	391

Kazetaritza-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

*Drogeteniturre* aldizkariak proportzio homogeenari eutsi dio, bost urteko epean erabili dituen kazetaritza-generoei dagokionez. Denbora ez da alferrik pasa eta hamar urteko ibilbidean produktuaz gain, edukiak eta generoak finkatuz joan dira.

#### A) INFORMAZIOA

Orotara, gure lanean 1889 item aztertu dira. Horietatik 1.298 informazio-itemak dira. 166 itemek iritzi-generoak lantzen dituzte. 55 item literaturari eskaini zaizkio eta 370 itemek zerbitzu atala osatzen dute. Beraz, informazioa nagusitzen da beste genero guztien artean bost urteko epean eta baita urtez urte ere. 101K. grafikoaren bilakaerari erreparatuz, informazio-portzentajeak urtetik urtera jaitsi egiten dira; item kopuruak, aldiz, gora egiten du. Portzentajeak urte bakoitzean argitaratu diren item guztien arabera kalkulatu dira. Ikus dezagun ezberdintasuna adibide baten bitartez: 2000 eta 2002 urteetan, informazio-portzentaje altuenak agertzen dira 101K. grafikoan. Kopuru absolutuei begiratuta, ordea, 101L. taulan 2001 (berrehun

eta hirurogeita hamabi item) eta 2003an (berrehun eta hirurogeita hamabost item) argitaratzen dira, informazio-item kopuru gehien.

Informazio-generoak gailentzen dira aldizkarian eta horrek egitasmoa bera abiatu zuen helburura garamatza. Hots, herritarrak euskaraz irakurtzen jartzea eta herrietan euskara sustatzea. Izan ere, Ermua eta Mallabiko **informazioa** euskaraz emateko helburuarekin jaio zen aldizkaria eta emaitzek hori erakusten digute, bete-betean asmatu dutela eta gaur egun ere, betetzen dutela hasierako helburua. Herrian gertatzen diren albisteei garrantzia eman nahi zaie, herria bera eta herritarrak baitira aldizkariko benetako protagonistak. Ekar ditzagun gogora, Joxe Aranzabalen hitzak:

*“Ez ahaztu inoiz, herri-aldizkari batek duen ondarerik preziatuenetakoa herriarekiko hurbiltasuna dela, eta egunkari eta aldizkari handiek beste eremu batzuk oso ondo betetzen badituzte ere, hortxe hain zuzen, ezingo dira zuekin lehian sartu. Hurbiltasun horretaz baliatu aldizkaria taxutzerako orduan”* (Aranzabal, 1991: 7).

## **B) ZERBITZUAK**

Zerbitzuen atala gero eta indartsuago ageri da *Drogeteniturr*in. Portzentajeetan ez da igoera hori gehiegi atzematen. Ez bada ere, item kopuruari begiraturaz gero, 2000 urtetik (65 item zerbitzu atalean) 2004ra (82 item) nabarmen egin duela gora ikus daiteke. Igoera hori poliki-poliki gauzatzen joan da, urtetik urtera zerbitzu atalean item gehiago sartuz. Aldizkaria irakurleentzat erabilgarria izatea ezinbestekoa da, irakurleak bereganatu nahi badira. Beraien interesa piztu behar da eta zerbitzuen atala oso aproposa da horretarako. *“Aldizkaria praktikoa izan dadila irakurleentzat: agendak, salerosketak, lanpostuak eta irakurleei interesatzen zaizkien gaiak eta datuak ager daitezela”*. (Aranzabal, 1991: 7).

## **C) BESTEAK**

Gainerako generoen kopuruak hain altuak ez badira ere, ezin ahaztu daiteke genero ezberdinek aldizkarian duten garrantzia. Generoak behar-beharrezkoak dira bai kazetari eta baita irakurlearentzat ere; kazetariari lana errazteaz gain, irakurleari testuak irakurtzen eta ulertzen laguntzen diotelako.

Horrela bada, iritzi-generoak urtetik urtera hasiz eta finkatuz joan dira. Portzentajeen igoera ez da oso nabarmena izan, baina item kopuruak 2000tik 2004ra ia bikoiztu egin dira. Izan ere, hasieratik ohikoak diren iritzi-generoek (kale-inkesta eta zutabeez) gain, azkeneko bi

urteetan kritikak (zine, literatura eta musika) eta beste zutabe mota batzuk (sexuari buruzko gogoetak) areagotu egin dira eta toki finkoa izatea lortu dute aldizkarian. Alde batetik, irakurleentzat interesgarriak eta erreferentziazkoak izan daitezkeen gaiak jorratu dira eta bide batez, herriko jendeari aditua den gai bati buruz idazteko aukera luzatu zaio, hiru hilabetean behin kolaborazioa eskatuz eta ondorioz, kolaboratzaile-sarea zabalduz.

Handia izan ez bada ere, literaturak beti izan du tokitxo bat aldizkarian, finko mantendu dena urteek aurrera egin ahala. Ahozko zein idatzizko literaturaren atal ezberdinak landu dira, aurrerago zehaztuko den bezala. Herri-aldizkariaren funtzioak aipatzen direnean, beste hainbaten artean eta Idoia Camachoren tesian ageri den bezala, “*kultur eragile eta hedatzaileak*” (Camacho, 2001:101) dira herri-aldizkariak. Ermuko aldizkariak funtzio hori betetzeko ahalegina egiten du.

### **Kazetaritza-generoak bi hitzetan**


Laburbilduz, urteak pasa ahala *Drogeteniturri* aldizkarian kazetaritza-generoen arteko oreka sendotzeko joera nabaritzen da, beti ere informazioaren garrantzia mantenduz eta gainerako kazetaritza-generoak baztertu gabe. Izan ere, denborarekin genero bakoitzak bere tokia izatea lortu du aldizkarian. Iritzia hazi egin da iritzi-emaileak diren kolaboratzaileak gehitu ahala. Zerbitzuak gero eta garrantzi eta presentzia handiagoa dute hilabetekarian. Horrek guztiak, kazetaritza-generoak hobeto kudeatzea, ahalbidetu du.

#### **4.6.3.1.- Informazioa**

Orain arte, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean, kazetaritza-generoen bilakaera orokorra nolakoa izan den ikusi dugu. Ondoren, kazetaritza-generoak eta hauen azpi-kategoriak atalka aztertuko ditugu. Hurrengo grafiko eta tauletan, *Drogeteniturri* aldizkarian informazio-genero ezberdinek izan duten garapena aztertuko dugu. Alde batetik informazio-genero ezberdinek bost urteko epean izan duten agerpena zein izan den ikusiko dugu eta bestetik, informazio-genero bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera aztertuko dugu, horren guztiaren arrazoiak zeintzuk diren identifikatuz.

## 4.6.3.1.1- Informazioa 2000-2004 bitartean

102K. grafikoa



Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean.

102L. taula

	Albiste	Albiste laburra	Argazki-albiste	Erreportajea	Argazki-erreportajea	Elkarriketa	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	150	837	15	98	18	180	1.298

Informazio-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

102K. grafikoa agertzen diren portzentajeak 1.298 itemen arabekoak dira, alegia, bost urtetan 1.298 informazio-item aztertu dira.

**A) ALBISTE LABURRA**

Kazetaritza-generoen esku liburu gehienek<sup>1239</sup> “*albiste lehen informazio-generoa, garrantzitsuena, erabiliena eta funtsezkoena*” (Díaz Noci, 2000:121) dela diote. *Drogeteniturri*ko portzentajei erreparatuz, beste ondorio bat atera daiteke. Albiste laburrak dira aldizkariaren informazio-generoen zutabe nagusia. Aurrerago frogatuko dugun moduan, lan honetan aztertu diren gainerako aldizkarietan ere, albiste laburrak albisteak baino gehiago erabiltzen dira informazio-generoen barnean. Izan ere, herri-aldizkari askok ezaugarri bera

<sup>1239</sup>- Martín Vivaldiren definizioa ere bat dator. Martín Vivaldi, Gonzálo. (1981): *Géneros periodísticos: reportaje, crónica, artículo, (análisis diferencial)*, 3ª edición, Pananinfo, Madrid. (143. or.).

dute<sup>1240</sup>. Joxe Aranzabalek “*Herri-aldizkari baten tajuketa*” ponentzian herri-aldizkari bat egiteko hainbat aholku ematen ditu., beti ere, *Arrasate Press* aldizkariaren esperientziatik abiatuz. Beste aholku askoren artean, herri-aldizkarietan gauzak kontatzerakoan laburrak izateko beharra azpimarratzen du:

“*Gauza laburrak egin nahi izan genituen eta letra handi samarrean, bai bait genekien euskaldunok euskaraz oso gutxi irakurtzen dugula, beste herri batzuk berean leitzen dutena baino dezente gutxiago. ‘Laburra eta ona, bi bider ona’, Juanito Leibar mondragoetarrari ‘Gora beherak’ bere berripapera idazteko orduan hainbestetan entzuna nion lelo laburzalea geuretzat hartu genuen egun haietan. Lanean, txikiteoan edo kirola egiten buru-belarri zebiltzan mondragoetarrei gauzak erraztu nahi genizkien zirriborratu genuen maketan. Erreportaje eta elkarrizketak ezik, bestelako saialak oso laburrak dira*” (Aranzabal, 1991: 5).

Izpiritu hori bat dator *Drogeteniturri* aldizkariarekin. Izan ere, *Drogeteniturri* aldizkarian, erreportaje (gehienetan bi orri osoko espazioa dutenak) eta elkarrizketak (orri bakar edo bi orri osora luzatzen direnak) kenduta, gainerako atalak laburrak eta oso arinak dira. Albiste laburren bitartez ahal den neurrian (aldizkaria hilabetekaria baita) egunerokotasuna lantzen ahalegintzen dira: “Zergen igoera”, “Ikastaroei buruzko informazioa”, “Lehiaketak” edo “Herriko lanak” bezalako albisteak kaleratuz. Albiste labur horiek momentuan duten garrantziaren arabera, luzatu egiten dira, albisteak sortuz. Argazki-albisteen kopuru orokorra baxua da, batez ere albiste laburrak argazkirik gabe sartzen direlako. Hala ere, “Motzean” saila 2005eko irailean berriro zen eta bi orrialdetan sei argazki-albiste sartzen hasi ziren hilero, beraz, argazki-albisteen portzentajea eta kopuru absolutua askoz altuagoa zen *Drogeteniturri* 2005ean, 2000-2004 gure azterketa-epetan baino.

## **B) ERREPORTAJEA**

Erreportajeen kopuruari dagokionez, aleko erreportaje bat egoten da gutxi gora behera. Erreportajeek normalean bi orri izaten dituzte, argazkiak barne. Nahiz eta arinak diren, elkarrizketak baino testu gehiago izaten dute. Ermua eta Mallabiko gai historiko<sup>1241</sup> edo egungo gai<sup>1242</sup> buruzkoak izaten dira.

<sup>1240</sup>- Idoia Camachok bere tesian aztertutako bederatzia aldizkariaren emaitzetan ere, albiste laburrak nagusitzen dira aldizkari gehienetan.

<sup>1241</sup>- Adibidea: “Orduan eta gaur be, txistua protagonista” erreportajea. 2002ko martxoko 89. alean. (26.-27. or.).

<sup>1242</sup>- Adibidea: Abentura ataleko mendiko ibilbideak edo “Informazioa eta prebentzioa HIESaren aurkako borrokan” erreportajea. 2001eko azaroko 85. alean. (12.-13. or.).

Argazki-erreportajeak oso momentu puntualetan erabiltzen dira: Euskal Birusa Elkarte Kulturalak (*Drogeteniturri* kaleratzen duenak) antolatzen dituen San Martin azoka eta liburu eta disko azokaren<sup>1243</sup> inguruan, inauteri edo herriko jaien inguruko argazki-erreportajeak. Horregatik da kopurua hain baxua, urtean bizpahiru jokatzeko bada argazki-erreportajeekin.

### C) ELKARRIZKETA

Elkarrizketa kopurua nahiko altua izan da beti, ehun eta laurogei elkarrizketa aztertu ditugu Ermua eta Mallabiko aldizkarian. Ale bakoitzean hiru elkarrizketa finko daude: elkarrizketa nagusia (bi orrikoa), kirolen atalean orri bateko elkarrizketa eta “Boteprontoa” sailean hirugarren bat. “Orrialde berean beti argitaratzen ez den, “Boteprontoa” atalaren baitan, herritarrei edota inoiz herrira etorri den pertsonaia ospetsuren bati egiten zaio elkarrizketa. Aldizkarian asko erabiltzen den generoa da, ez sail honetan bakarrik, aldizkariko orrialdeetan kirolari, musikari, zinegotziei... eginiko hainbat elkarrizketa aurki daitezke”<sup>1244</sup>.

Horiez gain, ale batzuetan elkarrizketa gehiago izaten dira. Oro har oso elkarrizketa arinak eta irakurterrazak izaten dira. Mallabia eta Ermuko jendea izaten da protagonista nagusia<sup>1245</sup>. Hala ere, Ermua eta Mallabiko kultur ekitaldi batzuen harira, bertakoak ez diren pertsona ugari izan dira elkarrizketatuak<sup>1246</sup>.

#### Informazioa bi hitzetan

Orokorrean, *Drogeteniturri* aldizkarian informazioa nagusitzen da eta informazioaren baitan irakurterrazak diren generoak: albiste laburrak eta elkarrizketak batez ere. Informazioa era laburrean eta errazean eskaintzen zaio irakurleari, bide batez erakargarria izan dadin. Gainerako informazio-generoak gutxiago erabiltzen dira, informazio-generoen arteko oreka lortzeko xedearekin.

<sup>1243</sup>- Idoia Camachok bere tesian herri-aldizkariaren funtzio ezberdinak definitzen ditu. Funtzioetako bat honela definitzen du: “Herri-aldizkariak kultur eragile eta hedatzaileak direla esan ohi da. Kasu gehienetan kultur elkartearen ekimenak diren aldetik, tokian tokiko agerkarietan leku berezia betetzen dute herriko ekintza kulturalak. Gainera, euskal hizkuntza eta kultura bultzatu eta zabaltzearen ondorioz, herriaren identitatea indartzen dute, informazioaren globalizazioaren aurrean alternatiba indartsua izanik” (Camacho, 2001: 102).

<sup>1244</sup>- “Bajo el epígrafe Boteprontoan (a bote pronto), una página, no siempre la misma, se destina a entrevistar a los vecinos, y cuando hay ocasión, a alguna celebridad que visita la localidad. Se trata de un género muy cultivado por la revista. No sólo en esta sección, puesto que a lo largo de sus páginas encontramos numerosas entrevistas a deportistas, músicos, concejales...” (Cantalapiedra, 1996: 363-364).


<sup>1245</sup>- Adibidea: “Sari bat irabaziko banu, amonari eskainiko nioke”, Mikel Losada aktore ermuarrari egindako elkarrizketa. 2001eko otsaileko 77. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>1246</sup>- Adibidea: “Antzerkia eta jazz ikuskizun berean biltzen dituen antzezlanak”, Jose Ramón Soroiz aktorea eta Iñaki Salvador musikariari egindako elkarrizketa. 2000ko maiatzeko 69. alean. (6.-7. or.).



#### 4.6.3.1.2- Informazioaren bilakaera

103K. grafikoa



Informazio-generoen bilakaera portzentuala *Drogeteniturre* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

103L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Albiste	Albiste laburrak	Argazki-albiste	Erreportajea	Elkarrizketa	GUZTIRA
	2000	64	121	12	5	37	239
	2001	34	186	3	16	33	272
	2002	24	175	0	27	32	258
	2003	15	187	0	37	36	275
	2004	13	168	0	31	42	254

Informazio-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Aurreko atalean aipatu bezala, albiste laburrak dira aldizkarian gehien agertzen direnak. Hala ere, urtez urteko bilakaerari erreparatuz, aldizkarian aldaketa nabarmenak izan direla antzeman daiteke. Horretan eragin zuzena izan duen faktore garrantzitsua ezin da aipatu gabe utzi. Izan ere, 2000. urtean aldizkaria desagertzeaz zegoen une hartan, koordinazio eta diseinu lanetan pertsona bakarra zebilen eta *Drogeteniturre* aldizkariko lana beste lan batekin tartekatzen zuen. Garai hartan, egoitza finko eta lan kontraturik gabe ari zen langilea, azpiegitura eta baliabide materialak oso eskasak zirelarik. Ondorioz, aldizkaria hilero ahalegin handiz ateratzen zuen. Honen harira, Jon Sarasuaren hitzak gogoratuko ditugu:

*“Herri-aldizkari batzuetan aipatzen da finkotasun faltak eta soldata/ordu ratio eskasak jendea aldegitara bultzatzen duela, beste aukera bat duen lehenengoan. Honek produktuaren finkatze eta kalitatean negatiboki eragiten du”* (Sarasua, 1996: 14).

Horrek guztiak neurri handi batean aldizkarian agertzen ziren eduki, kazetaritza-genero eta diseinuan eragin zuzena izan zuen garai hartan. Koordinatzaile hark beste lan bat aurkitu zuenean, alde egin zuen.

### **A) ALBISTEA**

Hori guztia kontuan hartuz, kazetaritza-generoen bilakaera hobeto uler daiteke. Hau da, albisteak urtetik urtera jaitsiz joan dira eta 2004an, 2000. urtean baino lau aldiz gutxiago agertzen dira albisteak. 103K. grafikoan agertzen diren portzentajeek argi islatzen dute jaitsiera hori. Albiste luzeagoak egin beharrean, 2001etik aurrera albiste laburren kopuruak<sup>1247</sup> gora egiten du. Nahiz eta portzentajeek albiste laburren beherako joera adierazi, kopuru absolutuetan gero eta albiste labur gehiago agertzen dira, irakurleari irakurketa arindu eta errazteko helburuarekin erabiltzen baitira.

### **B) ARGAZKI ALBISTEA**

Argazki-albisteak, ordea, hasierako urtean erabiltzen dira gehien, kasu askotan, diseinuak berak horrela eskatuta edo aldizkaria maketatzearekin batera hartu beharreko erabakiak bultzatuta, argazkia oso handia eta testu oso laburra sartuz. Egiazki, kolaboratzaileen menpe egoteak askotan horrelako erabakiak hartzera behartzen du koordinatzailea: kolaboratzaileak ez duelako bere testua garaiz entregatu, argazki bakarra dagoelako (orduan ez zegoen kamara digitalik) edo astirik ez egoteagatik, besteak beste. Bestalde, 2000. urteko lehenengo lau aleetan eta ordura arte finkoa zen “Argazki zaharra”<sup>1248</sup> atala argazki-albiste gisa hartu da bai *Drogeteniturri* aldizkarian, baita gainontzeko aldizkarien azterketan ere.

### **C) ERREPORTAJEA**

Erreportajeen kopurua begiratu gero, 103K. grafikoan argi azaltzen da goranzko joera, baina kopuru absolutuetan askoz nabarmenagoa da igoera 103L. taulan. Poliki-poliki gora egiten dute erreportajeek eta 2004an, 2000. urtean baino sei aldiz gehiago agertzen dira. Erreportajeen kopuruetan, erreportaje mota ezberdinak<sup>1249</sup> (erreportajeak eta argazki-erreportajeak) sartu dira.

---

<sup>1247</sup>- Adibidea: “Aldapa kaleko urbanizazioa”. 2002ko ekaineko 92.alean. (10. or.).

<sup>1248</sup>- Adibidea: “Harri jasotze markie pixu doblen”. 2000ko martxoko 67. zenbakian. (2. or.).

<sup>1249</sup>- Adibidea: “Sorgiñak eta lapurrak... erre, erre!”. 2002ko ekaineko 92. alean. (22.-23. or.).

Aurrerago gaien azterketan ikusiko dugun moduan, gai anitz eta askotarikoak izango dira erreportajeetan landuko direnak. Oro har arinagoak diren generoak lantzen badira ere, interpretazio-generoak ere lantzen dira, gero eta gehiago gainera.

#### **D) ELKARRIZKETA**

Elkarrizketen kopurua oso antzerakoa izan da urtero. Aldizkariaren garai latzenetan ere, elkarrizketa asko egiten ziren *Drogetenitturri*n. 2000. urtetik aldatu ez diren atalen artean, elkarrizketa luzea (bi orrikoa) eta “Boteprontoa” (orri batekoa) daude. Horiez gain, orri bateko elkarrizketaren bat ia ale guztietan agertzen da.

#### **Informazioaren bilakaera bi hitzetan**


Informazio-generoetan urtetik urtera izan den bilakaerak, aldizkaria gero eta profesionalago dela erakusten du, informazio-generoen arteko oreka handiagoa antzematen baita. Informazio-item kopuru orokorrak urtetik urtera gora egin du, informazio asko eta era laburrean eskaintzen da, baina elkarrizketak eta erreportajeak gehiago landuz. Halere, elkarrizketa eta albiste laburrak nagusitzen dira informazio-generoen artean. Aurrerago gaien atalean ikusiko dugunez, gai anitz eta erakargarriagoak sartzen joan dira urtetik urtera.

### 4.6.3.2.- Iritzia

Iritzi atalaren bitartez, herritarrei euren iritziak plazaratzeko aukera eskaini nahi izan zaie. Informazioarekin alderatuz, askoz espazio gutxiago eskaintzen zaio orokorrean iritziari. Hala ere, hurrengo grafiko eta tauletan, *Drogeteniturri* aldizkarian iritzi-genero ezberdinek izan duten garapena aztertuko dugu zehaztasunez. Lehenengo eta behin bost urteko epean orokorrean iritzi-generoek izan duten agerpena aztertuko dugu eta ondoren, urtez urte izan duten bilakaera eta horren arrazoiak zeintzuk izan diren.

#### 4.6.3.2.1- Iritzia 2000-2004 bitartean

104K. grafikoa



Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean.

	Artikulua	Kritika	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutunak	104L. taula GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	21	14	63	67	1	166

Iritzi-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

104K. grafikoak baino argiago, 104L. taulan agertzen diren kopuru absolutuek adierazten digute; bost urteko epean iritzia, informazioa baino askoz gutxiago landu da *Drogeteniturri* aldizkarian, guztira ehun eta 166 iritzi-item argitaratu baitira. Arestian aipatu bezala, aldizkariak informazioaren aldeko apustu garbia egin du urteekin batera eta iritziaren barnean hasieratik

izandako atal zehatzak landu izan dira, hiritarren pentsaera eta iritziei leku bat egiteko asmoz. *Drogeteniturrrik*, inkesta eta zutabeetan du iritzi aniztasuna biltzeko aukera eta horretan ahalegintzen da.

### **A) ZUTABEA**

Izan ere, 2000. urteko irailetik, inkesta eta aurreko orrian argitaratzen den zutabea lotu egiten dira. Hots, inkestan jorratuko den gaiari buruzko zutabea egiteko proposatzen zaio gai horretan aditua den herritar bati. Bost urteren buruan, profil ezberdineko jendeak idatzi du *Drogeteniturrri*ren orrietan: EITBko kazetariak, aldizkariko kolaboratzaileak, Ermuko ikastetxe ezberdinetako maisu-maistrek, udaleko teknikari ezberdinek, herriko talde ezberdinetako eragileak, sindikalista eta politikoeak, banketxeko, osasun zentroko, kiroldegiko zein merkataritzako langileak edota elizako apaizak, besteak beste. Ezin aipatu gabe utzi beste behin ere, Joxe Aranzabalen hitzak: “(...) leku egiezue aldizkarian herrian egon daitezkeen iritzi, sentiberatasun eta ikusmolde desberdinei”. (Aranzabal, 1991: 7).

### **B) INKESTA**

Kolaborazioekin batera, kale-inkesta da herritarrei euren ahotsa entzun dadin aldizkariak eskaintzen dien beste txoko bat. Hasiera batean hilero Ermuko eta Mallabiko zortzi pertsonen iritziak jasotzen ziren, baina 2003ko irailean egin zen diseinu aldaketarekin batera, hilero sei pertsonen iritziak jasotzen hasi ziren. Horren arrazoi nagusia, publizitateari leku gehiago egitea zen batik bat.

### **C) IRAKURLEEN GUTUNAK**

Kontraesana dirudi, ikuspegi eta iritzi ezberdinak plazaratzeko asmoa egon arren, aldizkarian irakurleen gutunentzako lekurik ez izatea, gutunak izaten baitira edozein agerkaritan herritarrek zuzenean nahi dutenari buruz iritzia emateko bide egokienetakoa: Irakurleen gutunak, argitalpenak irakurleei aitortzen dien eskubidea suposatzen badu ere, gai ezberdinei buruz eurek duten iritziak emateko eta argitalpenak oso ondo maneiatzen dituenak, gutunak argitalpenaren ildo editorialaren zerbitzura dauden elementu eraginkorretan bilakatzen dira<sup>1250</sup>.

104L. taulako kopuru absolutuak begiratu gero, gutun bakarra argitaratu da bost urtetan eta ez dago irakurleen gutunak kaleratzeko toki berezirik aldizkarian. Izan ere, gutunak ez dute zertan

---

<sup>1250</sup> “Si bien las cartas de los lectores suponen un reconocimiento del derecho de éstos a expresar su parecer sobre los más variados temas, otorgado por la publicación, sabiamente manejadas, estas cartas se convierten en un elemento de reconocida eficacia al servicio de la línea editorial del medio” (Armañanzas eta Díaz Noci, 1996: 165).

gaurkotasunik izan behar eta gai ezberdinei buruzkoak izan daitezke: politika orokorra, politika lokala edo argitalpenaren edukiari buruzkoak besteak beste. *Drogeteniturr*i hilabetekaria izanda, gai asko eta asko zaharkituta geratzen dira eta gaiaren haria jarraitzea zenbaitetan zaila eta nahasgarria suertatu daiteke. Hori dela eta, inoiz heldu diren gutunak beste era batean landu izan dira: albiste, elkarrizketa edo erreportaje bezala. Beste kasu batzuetan, gaiaren inguruan aditua den norbaitengana jo eta iritzi-zutabe bezala sartu edota kale-inkestan jorratu da. Hurrengo atalean ikusiko dugun modura, hasierako urteetan bereziki, artikuluek irakurleen gutunen funtzioa bete izan dute.

#### **D) KRITIKA**

Herri-aldizkariaren funtzioen<sup>1251</sup> artean kultur eragile eta hedatzaileen funtzioa ageri da. Hori dela eta, kritikaren bitartez literatura, zine eta musika arloan irakurleengan eragitea bilatzen du edozein argitalpenek. Halaber, gai horietan adituak diren herritarrei parte hartzeko aukera luzatzen zaie. Jarraian, iritziaren urtez urteko bilakaeran aztertuko den moduan, azken bi urteetan agertzen dira kritikak batez ere. 2003ko irailean izandako diseinu berriarekin batera sortu baitzen atal berria.

#### **Iritzia bi hitzetan**


Laburbilduz, iritziak gero eta agerpen handiagoa dauka aldizkarian eta iritziaren baitan gehien lantzen diren generoak inkesta eta zutabeak dira. Horien bitartez, herritarren pentsaera eta ahotsari lekua egiten saiatzen da aldizkaria eta iritzi-zutabeetan idatzi duten kolaboratzaile puntualak bilatzea lortu du. Irakurleen gutunek ez dute toki berezirik *Drogeteniturr*in.

---

<sup>1251</sup>- Camacho, Idoia. (1999): *Herri-aldizkariaren funtzioak euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999* doktore-tesia, EHU, Leioa. (101.-102. or).

## 4.6.3.2.2- Iritziaren bilakaera

105K. grafikoa



Iritzi-generoen bilakaera portzentuala *Drogeteniturr* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

105L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Artikulua	Kritika	Inkesta	Zutabea	Irakurleen gutuna	GUZTIRA
	2000	3	0	12	10	1	26
	2001	3	0	13	11	0	27
	2002	4	0	14	11	0	29
	2003	11	3	13	14	0	41
	2004	0	11	11	21	0	43

Iritzi-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Iritziak ere, urteen poderioz gora egin du *Drogeteniturr*in. Iritziari eskainitako item kopurua urtetik urtera gehituz joan da eta azken bi urteetan nabarmena da igoera hori. Halaber, azken bi urteetan iritzi-generoak finkatuta daudela nabaritzen da aldizkarian. Kritika, inkesta eta zutabeak dira iritziaren baitan gehien agertzen diren generoak.

## A) ARTIKULUA

Aurrerago aipatu bezala, hasierako hiru urteetan irakurle gutunen funtzioa bete izan dute artikuluek aldizkarian. Urtez urte kaleratutako artikuluen egitura begiratuta, argi ikusten baita gutunen funtzioa izan dutela. 2000. urtean agertzen diren hiru artikuluek<sup>1252</sup> Mallabia eta Ermuko talde ezberdinek idatzitakoak dira: Gazte Asanbladak, Herri Batasunak, Ermuko Haikak, Ermuko

<sup>1252</sup>- Adibidea: "Eugenio Aranburu "Txo" gogoratu zuten hilaren hamabian", Mallabiko Herri Batasunak sinatutako artikulua. 2000ko otsaileko 66. alean. (7. or.).

Zuloa Kultur Elkarateak, Mallabiko Jai Batzordeak, Mallabiko alkateak edo Euskal Herrian Euskaraz taldeak besteak beste. Gehienek albiste diseinua badute ere, edukian iritzia da nagusi eta sinatuta daude.

2003an agertzen diren artikulua gehienak ordea, salbuespena dira. Urte horretako martxoan, *Drogeteniturrri*ren Ehungarren alea zela eta, aldizkariaren inguruko monografikoa kaleratu zen. Orduan, argitalpenak berak kolaboratzaile izandako eta momentu horretan kolaboratzaile zirenei, aldizkariaren inguruko iritzi-artikulu ezberdinak idazteko eskatu zien 100. ale-kaleratzea ospatzen zela-eta. Ondorioz, 100. zenbakian bakarrik, bederatzi artikulua<sup>1253</sup> kaleratu ziren *Drogeteniturrri* gai nagusi zela (kolaboratzaile askok, hilabete aurretik itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria* ere izan zuten hizpide euren idatzietan). Ale berean, Topagunea, Euskara Elkarteen Federazioaren izenean eta bertoko bazkide diren euskara elkarte gehienak sinatuta, egunkariaren itxiera salatzen zuen artikulua argitaratu zen, “Egunkaria behar dugu” izenburupean. Artikulu hori ere salbuespena izan zen, egoerak horrela eskatzen zuelako. Ehungarren aleko salbuespenak izan ezik, orain arte aipatu ditugun adibideetan arrazoi ezberdinak egon dira artikulua horiek argitaratzeko: Alde batetik herriko talde ezberdinek aldizkarian idazteko euren burua eskaini dutelako, bestetik, azken unean hartutako erabakien ondorioa izan delako; artikulua heldu eta ez delako beste era batean lantzeko astirik izan. Azkenik, erredakzio taldeak, inoren iritzia atzera ez botatzearen, artikulua moduan kaleratzea egokiena iritzi diolako.

Kontuak kontu, 2004. urtetik aurrera horrelako artikulua beste era batera lantzen hasten dira eta ez da artikulua ezta gutunik ere kaleratzen. Horrek ez du esan nahi aldizkariara hurbiltzen diren herritar edo taldeek lekurik ez dutenik. Aurrean esan dugun bezala, beste genero batzuk erabiliz egiten zaie tokia bere orrietan.

## **B) KRITIKA**

Aldizkariaren itxura aldatzeaz gain, atalak berritzeko aprobeixatu ohi da diseinu aldaketa. 2003tik aurrera agertzen dira kritikak *Drogeteniturrri*ren, hain zuzen ere 2003ko irailetik aurrera, diseinu aldaketa orduan egiten da-eta. *Drogeteniturrri* horrela sortzen da, zine, literatur eta

---

<sup>1253</sup> - Adibidea: “Beste ehun bai??”, Sixto Iturriagak sinatutako artikulua. 2003ko martxoko 100. alean. (16. or.).



musika kritikak bilduko dituen atala<sup>1254</sup>. Bide batez, kolaboratzaile sarea handitzen da, gai horietan adituak diren kolaboratzaile berriak aldizkarira hurbilduz eta bertoko partaide eginez.

### C) INKESTA

Kale-inkestak<sup>1255</sup> finkoak izan dira bost urteetan zehar eta edozein gairi buruz iritzia eskatu zaie herritarrei. Kasu puntualetan, ohiko kaleko inkestaz gain, inkesta gehiago sartu dira aldizkarian. Esaterako, 2000. urteko 68. alean atal berezia kaleratzen da “Zelai” harri-jasotzailearen agurra dela-eta; protagonistari elkarrizketa egiteaz gain, herritarren iritzia jasotzen dira inkestaren bitartez. 2003ko 100. zenbakian Ermua eta Mallabiko eguneroko bizitzan erreferente diren pertsonen aldizkariaren inguruko iritzia eskatzen zaie. Hala nola, inkesta-kopurua ez da urtetik urtera aldatzen, kopuru antzerakoetan mantenduz.

### D) ZUTABEA

Zutabeetan landuko den gaiari buruz dakien jendea bilatzen saiatzen dira *Drogeteniturr*in. Hau da, momentuan momentuko kolaborazio puntuala egingo duen pertsona egokia topatuko da. Aldizkariari pluraltasuna eta aniztasuna emango dio horrek. Hasierako hiru urteetan, hilero zutabe bat<sup>1256</sup> argitaratzen da kale-inkestaren ondoan. 2003ko irailtik aurrera, bigarren zutabe bat finkatzen da aldizkarian, beste behin, aldizkariaren diseinu berriarekin batera datorrena, eta aldizkariko kolaboratzaile finko batek egindako proposamenari esker. Oraingoan ere, ezin ahaztu Joxe Aranbalek bere lanean emandako aholkua: “*entzun, entzun eta entzun herritarrek eta zuen ingurukoek esaten dutena. Kontuan hartu entzundakoak eta laguntzaile-sare ona lortu*”. (Aranzabal, 1991: 7). Horrela bada, hilero, sexuari buruzko zutabea<sup>1257</sup> kaleratzen da aldizkarian eta horregatik 2004an argitaratzen den zutabe-kopuruak 2000an kaleratzen den kopurua bikoiztu egiten du. Arrazoia, “Jakinguran” atalean argitaratzen den sexuari buruzko zutabea aurkituko dugu.

<sup>1254</sup>- Ale bakoitzean gai bati buruzko kritika argitaratzen da (hilabete batean, zine kritika; hurrengoan, literatur kritika eta hirugarrenean musika kritika; hurrengoan berriz ere zine kritika...) hilero txandakatuz. Beraz, kolaboratzaileek hiru hilean behin idatzi behar dute. Adibidea: Arantxa Iturberen “Lehenengo zen Berandu” liburuaren kritika, Marifeli Manzisidorrek sinatuta. 2003ko urriko 106. alean. (26. or.).

<sup>1255</sup>- Adibidea: “Uda datorrela eta, argaltzeko, bikini-operazioa egiten duzu? Zer da egiten duzuna? Zure ingurukoek egiten dute?”. 2003ko apirileko 101. alean. (27. or.).

<sup>1256</sup>- Adibidea: “Fedea eta Jainkoaren esperientzia...”, Santiago Apostol elizako Iñaki Sanchez apaizak idatzitakoa. 2002ko apirileko 90. zenbakian. (26. or.).

<sup>1257</sup>- Adibidea: “Metrosexuala”, Oskar Arandak sinatutako iritzi-zutabea. 2004ko otsaileko 110. alean. (24. or.).

## E) IRAKURLEEN GUTUNAK

Irakurleen gutun bakarra<sup>1258</sup> aurkitu dugu bost urteko epean, 2000. urtean, nahiz eta arestian aipatu bezala, hasieran artikuluek betetzen zuten irakurleen gutunen funtzioa, Ermua eta Mallabiko talde ezberdinek euren iritziak aldizkarira helaraziz.

### **Iritziaren bilakaera bi hitzetan**

Beraz, urteak pasa ahala iritzi-genero gehiago agertzen dira aldizkarian eta finkatu egiten dira guztiak. Hasierako urteetan, artikuluek irakurleen gutunen funtzioa bete izan badute ere, azken urtean desagertu egiten dira. Kale-inkestak, kritikak eta iritzi-zutabeak dira nagusi iritzi-generoen baitan.

---


<sup>1258</sup>- “Don Alejandroren arrenkurak (Ramon Larrañagaren eskari zahar bati erantzunez”, Angel Zelaietak idatzitako gutuna. 2000ko azaroko 74. zenbakian. (20. or).

### 4.6.3.3.- Literatura

*Drogeteniturri* aldizkariak, kaleratzen hasi zenetik, beti egin dio tokia literaturari. Jakina da, herri-aldizkariak kultur eragile eta hedatzaile izateko duten funtzioa. Horrexegatik, literatura gaiak jorratzeaz gain, literatura-generoak ere lantzen saiatzen da hilabetekariko lan-taldea. Hurrengo grafiko eta tauletan, *Drogeteniturri* aldizkarian literatura-genero ezberdinek izan duten garapena aztertuko dugu. Alde batetik, bost urteko epean literatura-generoek izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu. Bestetik, literatura-genero bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera eta horren arrazoiak azalduko ditugu.

#### 4.6.3.3.1- Literatura 2000-2004 bitartean

106K. grafikoa



Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean.

106L. taula

	Ipuinak	Bertsoak	Esamoldeak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	3	33	19	55

Literatura-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Kopuru absolutuak aztertzen baditugu, bost urteko epean, aldizkarian literatura-generoak lantzen dituzten 55 item argitaratu dira. Bataz beste literatura-genero bat ale bakoitzean, alez ale

egindako azterketan, ordea, ez da horrela izan. Hori, atal honetako 107K. grafikoan zehatzago ikusiko dugu, urtetik urtera izan den bilakaera erreala azalduko delako.

### **A) BERTSOAK**

Dena dela, bost urteko datu orokorrei begiratuz, bertsoak dira aldizkarian agerpen gehien izan dutenak: hogeita hamahiru bertso kaleratu dira. Lan hau egiteko definitu dugun kategoria sisteman aipatu bezala, ale bakoitzean agertzen diren bertso ezberdinak (gai beraren inguruan guztiak) item bakar bezala hartu dira. Izan ere, *Drogeteniturrri* aldizkarian, bertso eta bertsolaritzari buruzko orrialde bat kaleratzen da. Beraz, hogeita hamahiru bertso-orri kaleratu dira aldizkarian orotara. Bertso kopurua, aldiz, altuagoa izango litzateke, orri bakoitzean hiru edo sei bertso inguru argitaratu baitira.

*Drogeteniturrri* aldizkarian bertsolaritzak literatura-generoetan horrenbeste protagonismo izateko arrazoia, erredakzio kontseiluko kidea den pertsona baten bertsolaritzarako zaletasunean aurki daiteke. Aldizkaria sortu zenetik, erredakzio kontseiluan egon den kolaboratzaile eta erredakzio kide hori, Deba Beheko Bertso Eskolaren sortzaileetako bat izan zen 2002. urtean. Gaur egun, bertsolari txapelketetan epaile eta gai jartzaile aritzen da. Aldizkarian egiten duen lana guztiz borondatezkoa da eta maiz jendearen lan egiteko gogoia, produktuaren kalitatean garrantzi gehiago duten beste erabaki batzuen aurretik jartzen da. Honen harira, gogora ditzagun Iñaki Mendigurenen hitzak, euskarazko komunikabideek onarpen zabala izan dezaten kontuan hartu beharrekoak aipatzen zituenean: “*egileek ez dute askatasunik beren gustu, zaletasun, joera, filia eta fobiak... komunikabideotan islatzeko. Ez bakarrik ideologia aldetik, ezta estetika edo gaien aukeraketa egiterakoan ere*”. (Mendiguren, 1993: 24). Horrek ez du esan nahi norberaren gustuko direlako soilik kaleratzen direnik horrelako gaiak, bertsolaritzak aldizkariaren irakurleen artean jarraitzaileak dituelako baizik.

### **B) ESAMOLDEAK**

Esamoldeak *Drogeteniturrri* hemeretzi aldiz agertzen dira berrogeita hamabost aletan. Esamoldeak epigrafearen barnean, hizkuntza zuzen erabiltzeko aholkuak ere sartzen dira. Izan ere, 2001ean “Euskara lantzen” atalaren barnean, alde batetik bertsoak eta bestetik, euskara zuzen erabiltzeko aholkuak sartu izan dira. 2003ko diseinu berriarekin batera beste esamolde mota batzuk sartzen hasten dira.

### **C) IPUINAK**


Ipuinen kopurua oso baxua da. Berrogeita hamabost aletan, hiru ipuin kaleratu dira soilik. 1997-1998 urteetan Euskal Birusa Elkarte Kulturalak urtero antolatzen duen “Juanita Ibaibarriaga” literatura lehiaketako idazlan sarituak argitaratzen ziren aldizkariaren barnean, baina poliki-poliki sailak finkatu eta aldatu ahala, lanak kaleratzeari utzi zitzaion. Bestalde, lehiaketako bi modalitateetako (gazte eta helduak) idazlanak ugariak izaten dira eta aldizkariari beste hogeit hamar gehitu beharko zitzaizkion ipuinak argitaratzeko, aldizkariaren baitan beste aldizkaritxo bat plazaratzea ekarriko luke. Ipuin sortarekin liburuxka bat egiteko asmoa jarri da inoiz mahai gainean, baina oraindik ez zaio erronkari heldu.

#### **Literatura bi hitzetan**

Horrela bada, literaturak beti izan du lekua aldizkarian eta hasieratik literaturaren barnean bertsoak nagusitu dira. Bestelako literatura-generoak diseinuaren eta atalen arabera agertu dira, ez ordea aldizkariko atal finko moduan.

## 4.6.3.3.2- Literaturaren bilakaera

107K. grafikoa



Literatura-generoen bilakaera portzentuala *Drogeteniturri* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

107L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Ipuinak	Bertsoak	Esamoldeak	GUZTIRA
	2000	0	9	0	9
	2001	2	11	4	17
	2002	0	7	0	7
	2003	1	5	4	10
	2004	0	1	11	12

Literatura-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Aurreko atalean bertsoen protagonismoaz aritu gara eta hauen agerpenaren arrazoia aldizkarian zein den azaldu dugu.

**A) BERTSOAK**

Hasierako bi urteetan aldizkarian agertzen den bertso kopurua altua da,; 2000. urtean bertsoak bakarrik agertzen dira literatura-genero guztien artean. Bederatzi aletan (bi aletan bertsoen inguruko albisteak argitaratzen baitira) hirurogeita hamasei bertso argitaratzen dira. Aipatu dugu, ordea, ale bakoitzeko bertso sorta, item bakarra bailitzan hartzen dugula, ale bakoitzeko bertso multzoak gai bera jorratzen duelako. 2001eko aldizkari guztietan kaleratzen dira bertsoak, orotara, hogeita hamasei bertso<sup>1259</sup> izanik. 2001eko martxotik maiatzera, euskara

<sup>1259</sup> - Adibidea: Euskal Birusa eta *Drogeteniturri*ren egoitza berriko inaugurazioan, Jon Unanue bertsolari ermuarrak idatzitako bertsoak. 2001eko ekaineko 81. zenbakian. (4. or.).

ondo erabiltzeko aholkuen atala sortzen da bertsoekin batera, horrela bertso kopurua erdira jaisten da eta sei bertso dauden lekuan hiru jartzen dira.

2002ko irailean bertsoak argitaratu ordez, bertsolaritzarekin zerikusia duten elkarrizketa eta albisteei<sup>1260</sup> egiten zaie lekua eta noizean behin, albisteekin batera bertsoen bat argitaratzen da.

2003ko irailetik aurrera, diseinu berriarekin batera, “Ahoz aho” atala bertso albistez eta esamoldeez hornitu eta finkatzen da. Horregatik 2004an agertzen diren bertsoak ez dira atal horretan agertzen, “Ermuan zer” atalean baizik. Euskal Birusa Kultur Elkarteak, ohitura zaharrak berreskuratu nahian inauterietan antolatzen duen “Hartza eguna” dela eta, egun berean kaleetan barrena abesten diren sei bertsoak publikatuak dira. 2004an diseinua eta edukiak erabat finkatuta daude eta ez da bertsoerik kaleratzen.

## **B) IPUINAK**

Ipuinak oso momentu puntualetan argitaratu izan dira *Drogeteniturr*in guk aztertu dugun epean. 2001ean bi ipuin<sup>1261</sup> argitaratzen dira eta 2003an bakarra. *Drogeteniturr*in oso finkatuta agertzen dira aldizkariko atalak eta ez dago ipuinak argitaratzeko ohiturarik.

## **C) ESAMOLDEAK**

Esamoldeen barnean eta aurrean aipatu bezala, bi garai ikus daitezke emaitza absolutuetan oso ondo islatzen direnak. Alde batetik, 2001eko otsailetik maiatzera arte, euskararen erabilera hobetzeko aholkuak<sup>1262</sup> kaleratzen dira Anaitasuna Ikastolako Euskara Batzordearen eskutik. Bigarren aldia, beste behin ere 2003ko irailean egindako diseinu aldaketarekin sortzen da. “Ahoz aho” atalaren barnean, “Esamoldeak” azpi-atala sortzen da eta hilero, esamolde bat<sup>1263</sup> edo bi kaleratzen dira. Maiz, hilabetearekin edo sasoiarekin zerikusi zuzena duten esamoldeak bilatzen dira. Esamolde horiek, Ermuko emakume batek han-hemenka entzun, idatziz bildu eta aldizkariaren esku utzi ditu.

<sup>1260</sup>- Adibidea: “Bizkaiko bertsolari txapelketa abian” albistea. 2002ko iraileko 94.zenbakian. (4. or).

<sup>1261</sup>- Adibidea: “Ni eta nire lagun maitea”, Mallabiko ipuin, bertso idatzi eta orri markatzaileen lehiaketako ipuin irabazlea. 2001eko urtarrileko 76. alean. (10.-11. or.).

<sup>1262</sup>- Adibidea: “Zorionak hitza gaztelaniako ‘felicidades’ hitzaren parekoa da. Modu honetan erabiltzen denean ondo erabilia dago, baina ez, ordea, gaztelaniako ‘cumpleaños’ esateko erabiltzen denean. Ondo: Gaur Olatzen urtebetetzea da.(...) Gaizki: Gaur Olatzen zorionak dira. (...)”. 2001eko martxoko 78. alean. (4. or.).

<sup>1263</sup>- Adibidea: “Ezer ez dagoenean etxean, berriketa gutxi” eta “Txaloen bila ez dabilenak, den-denak merezi ditu”. 2003ko iraileko 105. zenbakian. (4. or.).

### **Literaturaren bilakaera bi hitzetan**

Orokorrean *Drogeteniturri* aldizkarian literatura generoekin frogak egiten dira, hasieran bertsoak soilik argitaratuz eta urteak pasa ahala, bertsoak alde batera utzi eta esamoldeak kaleratuz. Tartean bestelako saiakera batzuk izan badira ere, literaturaren atala nahiko aldakorra eta esperimentalak izan da beti.




#### 4.6.3.4.- Zerbitzuak

Herritarrak gero eta gehiago erabiltzen ditu zerbitzuak. Hori dela eta aldizkarian gero eta garrantzi gehiago ematen zaie zerbitzuei eta horren froga, hurrengo bi grafiko eta taulek eskaintzen digute. Lehenengo grafiko eta taularen bitartez, *Drogeteniturri* aldizkarian zerbitzuen bilakaera orokorra zein izan den ikusiko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, aldiz, zerbitzuen atal bakoitzak urtez urte izan duen garapen zehatza aztertuko dugu.

##### 4.6.3.4.1-Zerbitzuak 2000-2004 bitartean

108K. grafikoa



Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean.

108L. taula

	Agenda	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	GUZTIRA
<b>Kopuru absolutuak</b>	<b>84</b>	<b>138</b>	<b>148</b>	<b>370</b>

Zerbitzu-genero ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Zerbitzuen atal honetan kopuru absolutuek erakusten digutenez, gure laginean 370 item argitaratu dira *Drogeteniturri* aldizkarian 2000-2004 bitartean. Informazioaren ondoren, zerbitzuen atala da gehien landu dena, irakurlearentzat praktikoa eta erabilgarria den informazioa ematen ahalegintzen baita aldizkaria. Era berean, irakurlearekin elkarrengiletasuna bilatzen du aldizkariak, lehiaketen bitartez esaterako.

### **A) DENBORA-PASAK**

Atalkako analisia eginez gero, denbora-pasen kopurua altuena da bost urteetan zehar, ehun eta berrogeita zortzi item izanik orotara. Beraz, ale bakoitzean denbora-pasa bi baino apur bat gehiago (2,69) kaleratzen dira batz bestea. Datu horiek zehatzago aztertuko ditugu 109K. grafikoan, urtez urteko bilakaera ikusiz. Denbora-pasa arruntez gain, (hizki-zopak, gurutzegramak, hitz gurutzatuak...) horoskopoa eta lehiaketak ere sartu ditugu atal horretan, eta bakoitza item independente bezala zenbatu dugu. Hau da, 2001eko irailtik aurrera “Denbora-pasak” atalaren barnean agertzen diren gurutzegramak eta horoskopoa, bi item bezala zenbatu ditugu. Izan ere, 2000. urte osoan eta 2001eko uztaile arte, gurutzegramak orri osoa hartzen du eta horoskopoa beste orri oso bat. Ez daude elkarrekin eta ondorioz item independente bezala zenbatzen dira. 2001eko irailtik aurrera, nahiz eta orri berean agertu, ordura arteko zenbaketa bera jarraitzea erabaki da.

### **B) INFORMAZIO ERABILGARRIA**

Informazio erabilgarria ere kaleratu da *Drogeteniturr*in bost urteetan, irakurleentzat erabilgarriak diren ehun eta hogeita hamazortzi item argitaratuz. Sukalde-errezetak finko mantendu dira guk aztertutako epean; 2000. urtetik 2003ko uztaile arte, ale bakoitzean bi errezeta kaleratzen dira, bakoitza item bat izango balitz bezala konputatu da. 100. alean Ermuko hiru sukaldariren errezeta bereziak agertzen dira. 2003ko irailean, diseinu berriarekin batera, ale bakoitzean hiru errezeta sartzen dira. Edukia finkatu eta errezeten item kopurua gehitu egin da urteekin.

Informazio erabilgarriaren baitan, 2000ko otsailtik maiatzera, euskal izenen jatorria eta esanahia aztertzen duen “Hara hemen” atala kaleratzen da; hilero, neska eta mutilen bospasei euskal izen argitaratuz. 2000ko ekainetik abendura, “Hara hemen” atala, osasun, etxe garbiketa, arropa eta beste zenbait gai buruzko gomendioak kaleratzeko erabiltzen da. Beti ere, irakurlea erakartzeko eta berarentzat praktikoak izan daitezkeen atalak sortzeko asmoz.

### **C) AGENDA**

Azkenik, berrogeita hamabost aleotan laurogeita lau agenda agertzen dira *Drogeteniturr*in; agenda bat baino gehiago ale bakoitzean batz bestea. Kultur agenda hilero kaleratu da guk aztertutako epean. Udalak eta herriko talde ezberdinek programatzen dituzten ekitaldi ezberdinak iragartzen dituen agenda hain zuzen ere. Gehienetan, uztaile (herriko jaiak)

eta abenduan (gabonak) izan ezik, aldizkaria hilabeteko azken astean kaleratzen da eta horrek, irakurleari hurrengo hilabete osoko agenda aurreratzeko aukera ematen du. Bestelako agendak ere kaleratu dira momentu puntualetan aldizkarian. Esaterako, San Martin Azokako (Euskal Birusa Elkarte Kulturalak antolatutako azoka eta horren inguruko ekitaldi kulturalak) agenda, martxoaren 8ko ekitaldien egitaraua, Urriko jaien agenda edo Santixau jaietako buruzko egitaraua besteak beste. Honen harira, Joxe Aranzabalen hitzak ekarriko ditugu berriz gogora;


*“Maketak herriko irakurleak edozein herri-aldizkariri eskatzen dion informazio praktikoari lekua egin behar dio derrigorrez: deialdiak, zineak, erakusketak... herriaren taupada adierazten duen informazioari, alegia”* (Aranzabal, 1992: 78).

### **Zerbitzuak bi hitzetan**

Laburbilduz, zerbitzuen atalari garrantzia aitortzen dio aldizkariak, irakurlearentzat erabilgarria delako eta irakurle eta agerkariaren artean feedbacka sortzeko aukera eskaintzen duelako. Denbora-pasak, informazio erabilgarria eta agendak dira zerbitzuen baitan 2000-2004 bitartean gehien agertu direnak.

## 4.6.3.4.2- Zerbitzuen bilakaera

109K. grafikoa



Zerbitzu-generoen bilakaera portzentuala *Drogeteniturri* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

109L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Agenda	Informazio erabilgarria	Denbora-pasak	Saleros/Truke	GUZTIRA
	2000	14	33	17	1	65
	2001	21	23	30	0	74
	2002	15	22	33	0	70
	2003	18	27	35	0	80
	2004	16	33	33	0	82

Zerbitzu-generoen bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Aurrean aipatu dugun moduan, zerbitzuen atala landu da gehien informazioaren ostean. Urteroko bilakaerari begiratuz, urtetik urtera zerbitzu item gehiago agertzen dira *Drogeteniturri* aldizkarian. Joera hau, egunkari eta ikus-entzunezkoetan gero eta nabariagoa da. Izan ere, egunkari gehienak zerbitzuei eskaintzen dieten orrialde kopurua hasiz joan da poliki-poliki. EITBen esaterako, trafikoaren egoera, aholkuak, eguraldiari eskaintzen zaion tartea handituz joan da denborarekin, ikus-entzuleari eta irakurleari interesatzen zaion informazioa delako. Zerbitzu-informazioak, irakurlea prentsaren kasuan eta ikus-entzulea gainerako hedabideen kasuan, mugiarazten baitu. Orobat, zerbitzuen barneko atal ezberdinen bitartez irakurle eta aldizkariaren arteko elkarreragiletasuna lortzen da, salerosketen edota lehiaketan bitartez adibidez. Beraz, alde horretatik begirata, maiztasun txikiko aldizkari hau bat dator, maiztasun handiko aldizkariaren joerarekin.

## A) AGENDA

Agendak leku finkoa izan du beti aldizkarian. Hala ere, 2000. urtetik 2003ko irailera arte, aldizkariko 20. orrialdean argitaratzen da, diseinua berritzen denean, agenda 22. orrira pasatzen da. Argitalpen gehienetan ohikoa da zerbitzu-informazioak kokapen bera mantentzea, irakurleak badakielako non bilatu behar duen; informazio mota hori etengabe lekuz aldatuko balitz, irakurlea nahastu egingo litzateke eta ez luke erabiliko argitalpena informazio hori bilatzeko. Hurrengo hilabeterako ekitaldiak iragartzen dituen kultur agendaz gain, momentu zehatzetan informazioekin batera egitarau ezberdinak<sup>1264</sup> kaleratzen dira, informazioari laguntzeko eta irakurleari irakurketa errazteko, albiste bera erakargarriagoa bihurtuz.

## B) INFORMAZIO ERABILGARRIA

Informazio erabilgarriaren baitan, bi atal nagusi bereiz daitezke *Drogeteniturr*in. Alde batetik sukalde-errezetak<sup>1265</sup>, hasieratik argitaratzen direnak eta kopuruz hazi egin direnak urteekin batera. Errezetak berrogeita hamabost aleetan leku finkoa izan dute. Aldizkariaren 5. orrialdean kaleratu dira beti. Errezeten atalak izen ezberdinak izan ditu, 2000tik 2003ko irailera arte “Sukaldaritzak” atalean (bi errezeta kaleratzen dira) eta ordutik aurrera, “On egin” sailean (hiru errezeta agertzen dira). Aldizkariaren hastapenetan Ermuko jatetxeetako sukaldariak aldizkarian kolaborazioak egiten hasi ziren, euren errezetak herritarrei gerturatu nahian eta sukaldaritzarako zaletasuna piztu nahian. Ahalik eta herritar gehienei aldizkarian lekua egiteko asmoz eta sukaldaritzak azken urteetan irabazi duen garrantzia<sup>1266</sup> dela eta, atal hau finkoa da gaur egun ere. Informazio erabilgarria osatzen duen bigarren zatia, “Hara hemen” sailean kaleratzen da, baina atal hori 2000. urtean agertzen da soilik. Bertan, euskal izenen jatorria<sup>1267</sup> deskribatzen da eta irakurlearentzat erabilgarriak izan daitezkeen aholkuak<sup>1268</sup> ematen dira.

<sup>1264</sup>- Adibidea: “Mallabiko Andra Mari jaietako agenda”. 2000ko uztaileko 71. alean. (9. or.).

<sup>1265</sup>- Adibidea: “Pasta entsalada barazkiekin” eta “Piper beteak tomate saltsan”, Elias Uriarte sukaldari ermuarraren errezetak. 2002ko uztaileko 93. zenbakian. (5. or.).

<sup>1266</sup>- *Berria* egunkarian eta beste askok asteburuetan kaleratzen dituzten gehigarri gehienetan errezetak argitaratzen dira. Telebista eta irrati kate gehienetan sukaldaritzako saio bereziak daude gaur egun.

<sup>1267</sup>- Adibidea: “Neska izenak: Nerea, Nire: Jabetasunaren esanahia alde batera utzirik, maitasuna edo txera adierazten dute ‘amatxo nerea’, ‘ene laztana’ edo ‘umetxo nerea’ bezalako adierazpideak” eta Mutil izenak: Unai: Erdi aroko testu nafarrak aztertuz gero, ikus daiteke lanbideen izenak sarritan agertzen direla”. 2000ko martxoko 67. alean. (22. or.).

<sup>1268</sup>- Adibidea: “Orrazi garbiketa: Orrazia garbitzeko era erraz bat hauxe da: urez eta amoniakoz osoturiko nahaste batean sar ezazu. 2000ko azaroko 74. zenbakian. (26. or.).

### C) DENBORA-PASAK

Denbora-pasei dagokionez, horoskopoa gure azterketa-epearen hasiera baino lehen argitaratzen hasi zen aldizkarian orrialde oso batean. 2001eko ekainean kolaboratzaile berri batek egindako proposamenari esker, gurutzegrama sartzen da beste orri oso batean. 2001eko irailean, aldizkariko espazioa hobetu aprobetxatu nahian, gurutzegrama eta horoskopoa txikitu, eta biak orri berean sartzen dira.

2001eko martxoan, *Elkarlan* argitaletxeak *Drogeteniturrri* aldizkariari, beste herri-aldizkari batzuei bezala, eskaintza berezia luzatzen dio. Hilero, *Drogeteniturrrik* “Elkarlan” argitaletxearen laguntzarekin bi liburu zozketatzen ditu bere irakurleen artean. Zozketa egiten den orri berean kulturari buruzko galdera bat kaleratzen da hilero<sup>1269</sup> eta irakurleak erantzuna, izen, abizen eta telefonoarekin batera aldizkariaren postontzian uzten du. “Elkarlan” argitaletxeak bi liburuak doan emango dizkio aldizkariari eta aldizkariak horren truke, zozketa egiten den orrian, *Elkarlan* argitaletxeko publizitatea egingo du. *Drogeteniturrrik* eskaintza onartzen du eta 2004ko abendura arte hilero bi liburu zozketatuko ditu. 2003ko uztailera arte, zozketarako aldizkariko orri osoa erabiltzen da, baina 2003an eta diseinu berriarekin batera, zozketarako orri erdia erabiltzen da. Beste erdia, literatur, zine eta musika kritika atal berriari dagokio. Horrela, espazioa irabazteaz gain, kolaborazio sarea zabaldu egiten da. Hilabete bakoitzean, kolaboratzaile ezberdinek egiten dituzten kritikak sartzen dira. Atal hori egiteko, bost kolaboratzaile finko daude aldizkarian.

#### Zerbitzuen bilakaera bi hitzetan


Beraz, urtetik urtera zerbitzuen atala indartuz joan da Ermua eta Mallabiko aldizkarian, irakurleak benetan estimatzen duen informazioa delako eta zerbitzu-informazioa erabiltzen duelako. Zerbitzuen tokia oso finkoa izan da beti *Drogeteniturrin*, nahiz eta 2003an diseinua berritu eta zerbitzuen kokapena egokitzen joan da, orrietako espazioa gehiago aprobetxatzeko eta edukiak hobeto kudeatzeko helburuarekin.

---

<sup>1269</sup>- Adibidea: “Hiru ermuar hauetatik, zeinek ez du inoiz Bizkaiko Bertso Txapelketan parte hartu? Guillermo Bengoetxea *Txindurri*, Jon Unanue edo Patxi Mandiola *Asuntza*. Ale horretan Juan Martin Elexpururen ‘Hamaika ipuin’ liburuko bi ale zozketatu ziren. 2001eko martxoko 78. alean. (26. or).

## 4.6.4- GAIK

110K. grafikoa



Gaien bilakaera portzentuala *Drogeteniturri* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean, urtez urte.

110L. taula

Kopuru absolutuak	110L. taula						
	URTEAK	POLITIKA	EKONOMIA	GIZARTE-GAIK	KULTURA	KIROLA	GUZTIRA
	2000-2004	136	69	740	698	245	1.889
	2000	22	9	138	103	68	340
	2001	33	19	158	118	60	388
	2002	30	15	145	135	39	364
	2003	26	11	152	166	49	404
	2004	25	15	147	176	29	392

Gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Bost urteko epean, *Drogeteniturri* mota guztietako gaiak landu dira. Euskarak edozein gai<sup>1270</sup> buruz idazteko balio baitu, komunikazio-tresna den heinean. “*Gizakiak bere harreman indibidualak zein kolektiboak garatzeko eta bideratzeko beharrezkoa duen tresna kognitiboa eta azaltzaile nagusia da hizkuntza, giza eta gizarte-harremanetarako eta komunikaziorako erremintarik behinena*”. (Basterretxea, 2003: 71).

<sup>1270</sup> Zuberogoitia, Aitor. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean* doktore-tesia, EHU, Leioa. Bertan frogatu bezala, prentsa elebidunak euskarari mesede baino kalte gehiago egiten dio. Euskarazko idatziak euskal gai (gatazka politiko, euskara edota euskal kultura) buruzkoak dira askotan. Joera hori muturrera eramatea euskara ghettoan hesitzeko modua izan daiteke. Euskara ghettoan edota gai ia-ia anekdotikoen esparruan hesitzeko arriskua beste kontu batzuetan ere suma daiteke: euskal artikulak sail jakin batzuetan sailkatzeko joeran, alegia. (Zuberogoitia: 2003, 520).

Bestalde, Garmendia, Elixabete. (2005): “Euskal kazetari modernoaren pausajea: Ukapenetik izatera”, in Askoren Artea. “*Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*”, EHU, Bilbo. Lan horretan, autoreak oso ondo azaltzen du ETB-1 eta ETB-2an gaiei ematen zaien tratamendua.

Beraz, gai guztiek dute lekua aldizkarian, nahiz eta batzuk beste batzuk baino gehiago lantzen diren. Herritarrak dira aldizkariaren protagonista nagusiak, herritarrak eta hauen arazo, bizitza, ohitura eta ardurak. Era berean, herritarrak ez direnak baina herrira etorri direlako, aldizkarian protagonista bilakatzen dira. Finean, herriaren egunerokotasuna ordezkatzeko saiatzen da *Drogeteniturri*. Joxe Aranzabalek *Arrasate Press* sortzeko hartu ziren erabakiak aipatzen dituenean, honela dio:

*“Garbi geneukan Arrasate Pressekin zerikusirik txikia izan behar zuela ordura arte herrietan zehar euskaraz egin ziren aldizkariekin. Haien sarri asko euskarari buruzko aldizkariak izaten ziren bitartean, geurean herriarekin zerikusirik zuen edozertaz idatziko zen... euskaraz. Haietan, hizkuntza askotan zailean idatzitako artikulu luzeak, geurean laburrak izango ziren, hizkuntza errazean. Eta azkenik, Euskal Herriko arazo transzendental eta serioak, arrasatearrek bizitzen zituzten eguneroko gorabeheraz ordezkatzeko genituen, modu erakargarri eta atseginean idatzita”* (Aranzabal, 1991: 3).

2003ko martxoan 100. alea kaleratu zenean, Ermua eta Mallabiko pertsona ezagunei (alkate, musikari, kirolari, udal langile eta irakasleei besteak beste) eskatu zitzaizkien aldizkariaren gaineko iritzia. PAM eta Kokein taldeetako musikaria den Iker Zaitetik honela zioen: *“azken bi urte hauetan Drogeteniturri erakargarriagoa da, artikulu txikiak daudelako, irakurterraza delako eta gainera, atal asko jorrotzen dira eta neurri ezberdinetan. Batzuetan musika da lehendabiziko gaia, beste batzuetan kultura, udal politika. Mallabiko kontuetan ere, gero eta ekarpen gehiago dago”*<sup>1271</sup>.

110L. taulan ikus daitekeenez, item kopuru orokorrak gora egiten du urtetik urtera eta emaitzen arabera, gai batzuk beste batzuk baino protagonismo handiagoa dute. Esaterako, bost urteotan gizarte-gaiak (guztira zazpiehun eta berrogei item) nagusitzen dira, joera hori urtero errepikatuz. Orobat, mila zortziehun eta laurogeita bederatzi itemetik, seiehun eta laurogeita hamazortzi idatzik kultura dute gai nagusi eta urtez urte, kultura gaien esparrua gehituz doa; 110L. taulan agertzen diren emaitza absolutuei begiratzea baino ez dago. Ohiko egunkarietan gertatzen ez den bezala, non politika, ekonomia eta kirola gai nagusiak izaten diren, herri-aldizkariaren ezaugarri nagusia, herritarren hurbiltasuna izanik, herritarren egunekotasunean

---

<sup>1271</sup>- 2003ko martxoko *Drogeteniturri* 100. alean jasotako adierazpenak. (37. or.).



biziago eta gertuago dauden gaiak jorratzen da. Ohiko egunkarietan protagonismo gehiago duten gaiak ere agertzen dira *Drogeteniturrin* ere, baina neurri txikiagoan.

Politika gaiak 2000. urtetik aurrera gehiago agertzen dira. Azken bi urteetan udal zerbitzuen inguruko gaiak, gizarte-gaietan sartu direnez, Ermua eta Mallabiko udalei buruzko item kopurua apur bat jaitsi egin da.

Gai ekonomikoek ere, hasierako urtetik aurrera agerpen handiagoa izan dute aldizkarian. Kirol gaietako buruzko item kopuruak, ordea, behera egin du, hasierako hiru urteetan; “Kirola laburrean” atala argitaratzen da eta bertan, bospasei kirol albiste labur agertzen dira. 2002ko abendutik aurrera, “Kirolak” sailean orri osoko elkarrizketa bakarra agertzen da.

Gaietako buruz ari garenez gogora dezagun Jon Sarasuak idatzitakoa: “*akatsen artean, aseptikoezia, hutsalegia izatea leporatzen zaio herri prentsari, gai zailetan sartzeko beldurra*”. (Sarasua, 1996: 26). Badira beste interpretazio batzuk herri-aldizkarietako jorratzen dituzten edo jorratu beharko lituzketen gaien inguruan:

“*Inorentzat higuigarria ez eta ahalik eta sektorerik gehienek gustuko produktua lortu beharko da. (...) Ahalik eta gehienak kontentatzeko praktika honek, euskara elkarteek bultzaturiko komunikabideak halako neutraltasun edo aniztasun batera eraman beharko lituzke, baina ez dut uste horregatik akritiko edo amorfoak izan behar dutenik, plataforma irekiak baizik, alde bateko nahiz besteko iritziak orekaz kaleratzeko aukera emanek.*” (Mendiguren: 1993: 24-25).

### **Gaiak bi hitzetan**

Beraz, gai guztiei buruzko informazio eta iritziak kaleratu dira *Drogeteniturrin* 2000-2004 bitartean. Gainera, hasieran presentzia gutxiago zuten gaiak, urteek aurrera egin ahala gero eta gehiago agertzen dira aldizkarian, ekonomia eta politika esaterako, baina gizarte-gaiak eta kultura alde nabarmenarekin gailentzen dira. Gizarte-gaiak herritarren eguneroko bizitzaren tenperatura neurtzeko termometroa dira eta aldizkarietako benetako protagonistak herritarrak dira: “*Jendeak askotan ispilu bezala hartzen du aldizkaria. Euren gauzak aldizkarian islatuta ikustea gustatzen zaiolako*”<sup>1272</sup>. Finean, urteen poderioz edukien gestio hobea egiten da eta hori gaien tratamenduan nabaritzen da baita, herritarrek aldizkariari egiten dioten harrera eta kritiketan ere.


<sup>1272</sup>- Mallabiko Kultura Teknikariak *Drogeteniturrin* egindako adierazpenak. 2003ko martxoko 100. alean. (38. or.).

#### 4.6.4.1- Politika

Aldizkariko gai garrantzitsuen ez bada ere, herrian gertatzen diren eta politikarekin zerikusia duen informazioa jasotzen saiatzen da aldizkariko lan-taldea. Hurbiltasuna kontuan hartuz, *Drogeteniturri* gai politikoak agertzen direnean, gehienak Mallabia eta Ermuko bizitza politikoarekin zerikusia izango dute. Horiek guztiak izan duten bilakaera zein izan den ezagutzeko ezinbestekoa da hurrengo bi grafiko eta taulen azterketa. Lehenengo grafiko eta taularen bitartez, gure azterketa-epetan *Drogeteniturri* aldizkarian politika gai ezberdinek izan duten agerpen orokorra ikusiko dugu. Bigarren grafiko eta taulan, ordea, politika gai bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera eta horren arrazoiak aztertuko ditugu.

##### 4.6.4.1.1 Politika 2000-2004 bitartean

111K. grafikoa



Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekatotan, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean.

111L. taula

	Udala	Aldundia	Alderdiak	E.Hko gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerra/ejertzioak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	83	1	19	16	5	12	136

Politika gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Orotara aztertu diren berrogeita hamabost aleetan, 1.889 item konputatu dira, horietatik 136 itemen gai nagusia politika izan da. 111K. grafikoan argi eta garbi ikusten da politikarekin zerikusia duten gaietan, udala dela protagonista, Ermuko zein Mallabiko udalak hain zuzen ere. Aldizkariak batz bestea hogeita lau orri ditu eta Mallabiko informazioari bi eskaintzen zaizkio; beraz, gehiagotan agertzen da Ermuko udala, Mallabikoa baino. Izan ere, bost urteetan kaleratu den informazio politikoaren %61 (83 item) udal politikari buruzko informazioa izan da.

#### **A) UDALA**

2000ko ekainetik 2002ko apirilera arte, “Udala” saila kaleratzen da hilero aldizkarian, udalarekin zerikusia duen informazioa orri oso batean edo bitan jasoz. Orri batekoa denean, bi albiste agertzen dira eta atala bi orrikoa denean lau albiste. Normalean, hirigintza proiektuei buruzko albisteak, udalak udalbatzan hartutako erabakiak, udaleko arlo ezberdinetatik bideratzen diren proiektuak (Emakumearen Saila, Gazteria Saila, Kultura Saila...) dira informazio politikoaren ardatza.

2002ko maiatzetik 2003ko irailera arte (diseinu berria egiten den hilabetera arte) “Udala” saila desagertu eta “Ermuko ekintzak” atala sortzen da. Beraz, udal informazioa kaleratzeko ez dago leku berezirik. Hemendik aurrera, “Laburrean” sailean agertzen dira udalari buruzko albisteak. 2003ko irailean, aldizkariaren diseinu osoa aldatu eta sailen izenak berritzen direnean, “Ermuko ekintzak” atala “Ermuan Zer” atalak ordezkatzeko du eta “Laburrak” atalak, “Motzean” izena hartzen du. Ondorioz, 2003tik aurrera “Motzean” atal honetan agertzen da batez ere udal informazioa.

2000-2004 bitartean, Ermuko udalak ez du izan komunikazio arduradunik eta horrek informazioa jasotzea baldintzatu du zenbait momentutan. Unean uneko informazioa, sail bakoitzeko (hirigintza, enplegua, gazteria, kultura, euskara...) udal langile teknikarien bitartez lortzen da eta bestalde, udaleko sail bakoitzak antolatutako prentsaurrekoetarako hurbilduz bertan jasotzen da informazio zuzena. Esaterako, Berdintasunaren Sailak joko ez sexisten kanpaina ezagutarazteko prentsaurrekoan edo Euskara Sailak euskara sustatzeko kanpaina aurkeztutakoan. 2003ko maiatzeko udal hauteskundeak baino lau hilabete lehenago, udalak komunikazio arduraduna jartzen du eta teknikariei galarazi egiten zaie komunikabideei informazioa ematea. Komunikazio arduradun honek, ordea, ez du bere eginkizuna ganoraz betetzen eta harremanak hoztu eta zitaldu egiten dira. Ondorioz, Ermuko *El Correo* egunkariko

arduradunaren bitartez lortzen da informazioa kasu askotan. 2004an, legegaldi berriarekin batera, udalak komunikazio arduradun orokorra izendatzen du. Hilero zuzenean biltzen hasten da herriko hedabideetako kazetariekin (bakoitzarekin bilera bat eginez) eta hainbat gairi buruzko informazio zuzena jasotzen hasten da *Drogeteniturri* ere.

## **B) ALDERDIAK**

Arazoak arazo, politikaren barnean, alderdiei buruzko hemeretzi item kaleratu dira *Drogeteniturri*ren berrogeita hamabost aleotan. Hemeretzi item horietatik, zazpi itemek hauteskunderen gaia jorratzen dute, hauteskunde ezberdinetan izan diren emaitzak batik bat. Lan honetan ez da kontuan hartu, 2003ko maiatzaren 25eko udal hauteskunderen buruz, hurrengo egunean kaleratu zen ale berezia. Hauteskunderen gaia agertzen ez den gainerako testuetan, alderdi abertzaleak agertzen dira soilik, (EA, EAJ, Herri Batasuna, Aralar eta Mallabia eta Ermuko 2003ko herri plataformak). Hauteskunderen buruzkoa ez den testu batean aipatzen dira UPN eta PP alderdiak. 2000ko martxoan (67. alean), alderdi horiek dira ale horretan argitaratzen diren bertsoen protagonistak. Testu horretan UPN eta PP alderdiak, ultra eskuindarrak, diktadore gisa agertzen dira, bertsolarien (kolaboratzaileen) iritzi zuzena zein den erakutsiz. Alderdi abertzaleen ekitaldiak aldizkarian agertu direnean, alderdien aldetik euren ekitaldietara joateko gonbidapena jaso delako izan da. PSE-EE-ren ekitaldi politikoetarako *Drogeteniturri* ez du inoiz gonbidapenik jaso, baina udala bera agertzen denean, alderdia ere agertzen da inplizituki, PSE-EE alderdiak gehiago absolutua baitu Ermuan. Hala ere, ekar dezagun gogora, 100. alean Ermuko alkateak aldizkariari buruz eman zuen iritzia:

*“Bi alde positibo ikusten dizkiot aldizkariari. Euskara berreskuratzeko eta sustatzeko baliagarria dela eta gaien aldetik, jorratzen dituen gai kultural eta historikoek balio handia dutela. Hala ere, artikulua batzuen eduki politikoarekin ez nago batere ados. Ezker abertzaleko ideologia islatzen duten artikuluekin hain zuzen ere. Dena den, gaur egun arte, aldizkariari buruzko balorazioa positiboa da”<sup>1273</sup>.*

Elkarrizketa hori egin zenean, 2000. urtetik 2003ra arte, Ezker Abertzalea albistearen protagonista hiru informaziotan agertzen da eta Euskal Herriko gatazkarekin zerikusia zuten hamabi informazio kaleratu ziren.

---

<sup>1273</sup>- 2003ko martxoko *Drogeteniturri* 100. alean egindako adierazpenak. (37. or.).

Mallabiko orrialdeetan, EAJ eta Ezker Abertzalea dira alderdi protagonistak. 2003ra arte bi alderdi horiek dute gehiengo udalean. Izan ere, PSE-EE eta PP alderdietako zinegotziak ez dira Mallabikoak eta 2003ko hauteskundeetan, EAJ-k lortzen du gehiengo absolutua, PSE-EE-k zinegotzi bat lortzen du, Mallabikoa ez dena.

### **C) EUSKAL HERRIKO GATAZKA**

Euskal Herriko gatazkaren gaiak politikaren baitan %12ko portzentajea hartzen du bost urteko epean. Hamasei itemetan jorratzen da gaia. Informazio horietan, herrietako pertsonekin zerikusia duten informazioak eta herrietako taldeek antolatzen dituzten ekitaldiak jasotzen dira. Hau da, Euskal Herriko gatazkaren gaia, herritik haratago dagoen gaia bada ere, herriaren ikuspegitik jorratzen da.

### **D) ERAKUNDE EZBERDINAK**

Atal honetan udalek, beste erakunde batzuekin elkarlanean sortutako egitasmoei buruzko informazioak azaltzen dira. Behin eta berriz aipatu bezala, herria bera da aldizkariko albiste iturri eta noizbait agertu da horrelako informaziorik, baina batez ere herrian bertan egiten den jarduera politikoari lotuta.

### **E) GERRA ETA EJERTZITOAK**

Gerra eta ejertzitoen gaia, hamabi aldiz (%9) agertzen da *Drogeteniturr*in. Espainiar ejertzitoaren gaia, intsumisoen inguruko albisteak eta mundu mailako gerrak (Afganistan eta Irakeko gerrak) dira testu horietako gaiak. Intsumisoen eta soldaduskaren inguruko artikulua askoz gehiago kaleratu izan dira *Drogeteniturr*in 1995etik 1999ra bitartean, intsumisioaren eta Kontzientzia Eragozpenaren Mugimenduen loraldiarekin batera. Derrigorrezko zerbitzu militarra desagertu zenean, gaiak berak protagonismoa galdu zuen. Guk azterketarako aukeratu dugun epean (2000-2004), gaiak ez du horrenbesteko agerpenik izan, baina agertu denean gaiarekin zerikusia izan duten herritarren ekimenak izan dira protagonista, Afganistango gerra edo Irakeko gerra salatzeke ermuar talde batek egindako ekitaldia adibidez.


### **Politika bi hitzetan**

Laburbilduz, politika *Drogeteniturr*i aldizkarian gutxien agertzen den gaien artean dago eta hor, politikaren baitan, udal informazioa nagusitzen da. Mallabiko eta Ermuko udalak dira politikaren ardatza eta bereziki Ermuko udala, aldizkariaren orrialde gehienetan Ermuko informazioa agertzen delako. Hasieran udalari buruzko informazioa kaleratzeko atal berezia

egokitzen bada ere, gerora gainerako informazioekin batera lantzen da, bereiztu gabe. Ermuko udaletik informazioa lortzeko zailtasunak izan zituen hasieran aldizkariak, baina 2003tik aurrera egoerak onera egin zuen, udalaren aldetik herriko hedabideekiko jarrera nabarmen hobetu zuen-eta. Askoz gutxiago agertzen dira alderdien gaia eta Euskal Herriko gatazkaren gaia, eta gai politiko guztiak herriaren errealitate eta ikuspegitik lantzen ahalegintzen dira.

#### 4.6.4.1.2- Politikaren bilakaera

112K. grafikoa



Politika gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Drogeteniturri* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

112L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Udala	Aldundia	Alderdiak	E.Hko. gatazka	Erakunde ezberdinak	Gerrak/Ejerzitoak	GUZTIRA
	2000	12	0	5	2	1	2	22
	2001	17	0	3	8	0	5	33
	2002	21	1	3	4	1	0	30
	2003	18	0	2	1	1	4	26
	2004	15	0	6	1	2	1	25

Politika gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Urtez urteko bilakaerari erreparatzen badiogu, gai politikoaren artean udala da gehien agertzen dena. Politika jorratzen duten itemen erdia baino gehiagotan, udalari buruzko informazioa ematen da eta joera hori urtero errepikatzen da. Horrezaz gain, argi utzi behar da

gizarte-gai eta ekonomia arloko hainbat informazioetan ere, inplizituki udala agertzen dela nahiz eta kasu horietan gai nagusia herrilanak edota enpresa diren.

### A) UDALA

2000. urtean udalari buruzko item gutxiago kaleratzen bada ere, informazio horiek aldizkarian hartzen duten espazioa, hurrengo urteetan baino handiagoa da. Hots, 2000. urtean kaleratzen diren hamabi itemetatik, hiru “Laburrak”<sup>1274</sup> atalean kaleratzen dira. Gainerako guztiak, “Berriak”, “Kultura” edo “Udala” sailetan agertzen diren, orri laurden, orri erdi eta orri osoko albisteak<sup>1275</sup> dira. 2001ean, udalari buruzko item gehiago argitaratzen dira baina gehienak albiste laburrak dira, hamazazpitik hamalau albiste laburrak<sup>1276</sup> baitira. Urte berean, orri osoko bi albiste eta orri erdiko bakarra agertzen dira aldizkarian. 2002an udalen gaia hogeita bat aldiz agertzen da *Drogeteniturrin*. Hamazazpi aldiz, albiste laburren bitartez kaleratzen da eta hiru aldiz orri osoa eskaintzen zaio. 2003. urtean udalari buruzko hamazazpi albiste labur kaleratzen dira eta Ermuko udaleko berdintasun saileko zinegotziari egindako bi orrialdeko elkarrizketa agertzen da 100. alean. 2004an, udalaren inguruko hamahiru albiste labur<sup>1277</sup>, zutabe bat<sup>1278</sup> eta elkarrizketa bat<sup>1279</sup> argitaratzen dira *Drogeteniturrin*.

### B) ALDUNDIA

Aldundia behin izan da bost urtetan albiste batean<sup>1280</sup> gai nagusia. 112K. grafikoan %3ko balioa agertzen da eta kopuru absolutuetara ekarrita, item bat baino ez da. Herri-aldizkarien esparru lokaletik haratago dauden gaiak izanik, oso gutxitan agertzen dira.

### C) ALDERDIAK

2000 eta 2004 urteetan jorratzen da gehien alderdien gaia<sup>1281</sup>. 112K. grafikoan agertzen diren portzentaje eta kopuru absolutuen arteko aldea nabarmena da. 2000. urtean %23ko portzentajea aitortzen zaio alderdien gaiari (bost item) eta 2004an %24ko portzentajea (sei item).

Oro har, hasierako urteetan alderdien gaiari espazio gehiago egiten zaio aldizkarian, orri oso edo orri erdiko albisteak, elkarrizketak edo iritzi-artikuluak argitaratuz. Aurrerago aipatu

<sup>1274</sup>- Adibidea: “Zinegotzientzat ikastaroa” albiste laburra. 2000ko urriko 73. alean. (25. or.).

<sup>1275</sup>- Adibidea: “Udalak udal euskaltegiaren kokapena aztertuko du” albiste. 2000ko urtarrileko 65. zenbakian. (14. or.).

<sup>1276</sup>- Adibidea: “Egitezko bikoteen erregistroa martxan”. 2001eko martxoko 78. alean. (12. or.).

<sup>1277</sup>- Adibidea: “Mallabiko argazki zarren bildume sortzeko ekimena”. 2004ko martxoko 111. zenbakian. (9. or.).

<sup>1278</sup>- “Guztion zinema”, udaleko kultur teknikariak sinatua. 2004ko urtarrileko 109. alean. (20. or.).

<sup>1279</sup>- “Etorkinak eta gu formatu behar gara”, Jose Luis Araujo udaleko gizarte ongizate, formazio eta enplegu saileko zinegotzia eta Nestor Berri-Otxoa inmigratio teknikariari egindako elkarrizketa. 2004ko azaroko 118. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>1280</sup>- “Landalurreko katastrue” albiste laburra. 2002ko ekaineko 92. alean. (9. or.).

<sup>1281</sup>- Adibidea: “2000. urteari, bakea eta herri honek benetan hitza izatea eskatuko nioke”, Xabier Arzallusi egindako elkarrizketa. 2000ko urtarrileko 65. alean. (12.-13. or.).

bezala, hasierako urteetan maiz aldizkaria betetze aldera, informazioak luzatu egiten dira, albiste laburrak izan daitezkeenak, orri erdi edo orri osoko albiste bihurtuz. 2002tik aurrera, aldiz, gai honi buruzko albisteak era laburrean jorratzen dira. Alde batetik, alderdi bakoitzaren ildo nagusia beste hedabide batzuek gehiago lantzen dutelako eta hurbiltasuna kontuan hartuz, alderdiak agertzen direnean, gehienak Mallabia eta Ermuko alderdiekin zerikusia dutelako. Bestetik, aldizkariaren maiztasuna dela eta, gehienetan informazio horiek egunerokotasuna eta notizia bezala duten freskotasuna galdu egiten dutelako eta beste gai batzuei bezala, “Laburrean”/“Motzean” sailetan albiste labur<sup>1282</sup> gisa lantzen direlako.

#### **D) EUSKAL HERRIKO GATAZKA**

Euskal Herriko gatazkaren gaia, hamasei itemetan<sup>1283</sup> agertu da *Drogeteniturrri* aldizkarian berrogeita hamabost aletan. Zortzi aldiz gaia albiste laburretan agertu da. Hala ere, 112K. grafikoan eta 112L. taulan agertzen diren portzentaje eta item kopuru absolutuen balioak tentuz aztertu behar dira, portzentaje eta balio absolutuen artean aldea baitago. Portzentajeek balio altuena agertzen duten urteetan, %24 (2001ean) eta %13 (2002an), gai horri buruzko zortzi item eta lau item argitaratzen dira hurrenez hurren. Oro har *Drogeteniturrri* Euskal Herriko gatazkaren gaiak ez du inoiz agerpen handirik izan eta agertu denean, herriko taldeekin eta herriko jendearekin zerikusi zuzena izan duenean agertu da. Euskal Herriko gatazka politikoa dela eta, aipatu beharra dago 2003an alderdien legeak aldizkarian izan zuela eraginik. Izan ere, legearen ondorioz hainbat herri plataforma legez kanporatu zirenean, arazoak izan ziren aldizkarian publizitate hori jarri ahal izateko. Une hartan legez kanporatutako herri plataformen publizitatea sartzek, aldizkariari aurrerantzean ekar ahal zizkion arazo legalak zirela-eta, Topagunea, Euskara Elkarteen Federazioari eskatu zitzaion iritzia. Topaguneak abokatuekin kontsulta egin ondoren, orduko egoeran hobe zela publizitaterik ez sartzea aholkatu zion aldizkariko koordinatzaileari, beti ere azken erabakia aldizkariaren esku utziz. *Drogeteniturrri*, Eremu Ermuko herri plataformaren publizitaterik ez sartzea erabaki zuen lan-taldeak.

#### **E) GERRA ETA EJERTZITOAK**

Gerra eta ejertzitoen gaia 2001ean eta 2003an agertzen da batez ere. 2001ean kaleratzen diren bost itemetatik, hiru Afganistango gerrari buruzkoak dira<sup>1284</sup>. 2003an argitaratu ziren lau

<sup>1282</sup>- Adibidea: “Hauteskundeetako emaitzak Ermuan”. 2004ko ekaineko 114. zenbakian. (21. or.).

<sup>1283</sup>- Adibidea: “Zortzi lagunek gose greba egin zuten Ermuan” albiste. 2001eko urtarrileko 76. alean. (14. or.).

<sup>1284</sup>- Adibidea: “Afganistango gerraren aurkako ekintzak” albiste laburra. 2001eko urriko 84. alean. (10. or.).



itemak, Irakeko gerrari buruzkoak dira: bi albiste labur<sup>1285</sup>, iritzi-zutabe bat<sup>1286</sup> eta kale-inkesta bat<sup>1287</sup> hain zuzen ere. Gainerako urteetan, ejertzito profesionala, gastu militarren kontrako jardunaldiak eta Ermuko azken intsumisoei buruzko informazioak kaleratzen dira. Argi dago, mundu mailako gaiak ere ematen dutela zeresana herrietan. *Drogeteniturrik*, gai horiei ere lekua egiten die, herrietako talde ezberdinek gai horien inguruan antolatzen dituzten ekitaldiak diren heinean eta herrian bertan duten oihartzuna kontuan hartzen baitu.

### **Politikaren bilakaera bi hitzetan**

Orain arte esandakoa gogoratuz, oro har politikari buruzko item kopuruak gora egin du apur bat 2000. urtetik 2004ra bitartean, nahiz eta hazkundera ez den oso nabarmena izan. Horrek badu zerikusirik, eduki eta gaiak hobeto kudeatzearekin. Herri mailako politika gaiak jorratzen dira batik bat eta aldizkarian islatzen da, politikak ez duela horrenbesteko garrantzirik herrietan. Politikaren baitan bost urteetan gehien agertzen den gaia zalantzarik gabe udala da. Gainerako guztiak agerpen murrizta dute urtero.

---

<sup>1285</sup> - Adibidea: "Irakeko gerrari buruzko hitzaldia". 2003ko apirilko 101. zenbakian. (12. or.).

<sup>1286</sup> - "Gerrarik ez", Jantxo Diez Ermuko Komite Internazionalistako kideak idatzitakoa. 2003ko otsaileko 99. alean. (30. or.).


<sup>1287</sup> - "Zein iritzi duzu Iraken kontrako erasoan inguruan? Zergatik? Jendea kalera irten izanak zeozertarako balio duela uste duzu?, Zer da gertatuko dena?". 2003ko otsaileko 99. zenbakian. (31. or.).

#### 4.6.4.2- Ekonomia

Ekonomiaren gaia da 2000-2004 bitartean aldizkarian agertu diren gai guztien artean, gutxien lantzen dena *Drogeteniturri*: bost urteko epean batuz beste %4ko portzentajea agertu da ekonomia. Orotara ekonomiari buruzko hirurogeita bederatzi item argitaratu dira. Horren garapenari buruzko azterketa azalduko dugu hurrengo bi ataletan. Lehenengo eta behin, *Drogeteniturri* aldizkarian ekonomia gai ezberdinek bost urteko epean izan duten agerpen orokorra aztertuko dugu eta ondoren, ekonomia gai bakoitzak urtez urte izan duen bilakaera nolakoa izan den ikusiko dugu.

##### 4.6.4.2.1-Ekonomia 2000-2004 bitartean

113K grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean.

113L. taula

	Enpresa	Laborala/Langabezia	Nekazaritza/Abeltzaintza	Merkataritza	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	14	24	1	30	69

Ekonomia gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Tesi honetan aztertu diren *Drogeteniturri* aldizkariko berrogeita hamabost aleetan, hirurogeita bederatzi itemetan agertzen da ekonomiaren gaia eta ia testu erdietan, hogeita hamar itemetan hain zuzen ere, merkataritzaren gaia da nagusi. Ondoren, lan arloari

(laborala/langabezia) buruzko testuak dira ugarietak, gaia hogeita lau idatzitan agertzen baita. Azkenik, enpresari buruzko hamalau item kaleratu dira guk aztertu dugun epean. Horrek argi eta garbi erakusten du nolakoa den herriaren izaera, batez ere Ermuaren izaera. Ez da ahaztu behar, aldizkariak Ermua eta Mallabiko informazioa jasotzen duela eta hileroko Mallabiko informazioarekin bi orri kaleratzen direla, beraz, proportzioan Ermuak protagonismo handiagoa duela aldizkarian.

### **A) MERKATARITZA**

Merkataritzari buruzko hogeita hamar informazio horietatik hamabi, *Drogeteniturrri* aldizkaria kaleratzen duen Euskal Birusa Kultur Elkarteak antolatutako San Martin azokari (nekazal produktu eta artisau azoka) buruzkoak dira. Hau da, urtero urriko alean San Martin azoka iragartzen da eta azaroko alean hiru orriko bi argazki-erreportaje kaleratzen dira. Argazki-erreportajeok beharrezko eta ia ezinbesteko bihurtu dira azken urteetan, azokaren antolaketan parte hartu eta lagundu duten herritar guztien izenekin eskerrak emateko era eta bide egokiena bilakatu baita. Horrek, argi erakusten du aldizkaria kaleratzen duen kultur elkarteak bere ekitaldien berri emateko daukan tresnarik eraginkorrena oso ondo erabiltzen duela.

Merkataritzari buruzko gainontzeko testu gehienak era laburrean jasotzen dira. Lan honetan behin baino gehiagotan esan dugun bezala, helburua informazio laburra eta irakurterraza eskaintzea delako. Argi dago gaiak lantzeko erabiltzen diren generoak, gaia bera samurtzen dutela eta irakurketa errazagoa egiten duela. Esaterako, euroari buruzko erreportaje ekonomikoa kaleratuko balitz, jendeak ez luke hain erraz irakurriko. Horren ordez, bankuko zuzendariak, herritarrei informazioa helarazten die, modu eta hizkuntza erraza erabiliz. Merkataritza herriko bizimoduaren motore garrantzitsuenetakoa den heinean, aldizkariak arreta jartzen diola ez dago zalantzarik. Horrez gain, herriko denda eta taberna asko, aldizkariaren publizitate bezeroak dira eta beraien arteko harremana zuzena da, beraz, aldizkariaren aldetik sentsibilitatez lantzen da merkataritzaren gaia. Aipatu beharra dago, azterketa-epean aldizkariak publizitate bezero gehiago lortu dituela; guztira Ermuko denda, taberna eta bezero finkoak hirurogei ingurura heltzen dira hileroko.

### **B) LABORALA ETA LANGABEZIA**

Lan munduarekin zerikusia duten hogeita lau item kaleratu dira *Drogeteniturrin* bost urtetan. Horietatik, hogeita bat item “Laburrak” eta “Motzean” sailetan agertzen diren albiste

laburrak dira. “Langabeziaren datuak”, “Enplegu ikastaroak” edo “Lan programak” bezalako titularrak dira besteak beste arlo honetan agertzen direnak. Kasu horretan ere, albiste luzeegiak eta datu larregi eman beharrean, aldizkariak era laburrean jasotzen ditu, irakurlea datuekin ez nahasteko.

### **C) NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA**

Nekazaritza eta abeltzaintzarekin zerikusia duen item bakarra<sup>1288</sup> argitaratu da bost urtetan. Bitxia da, Mallabiko auzo asko, baserri-guneak direlako. Horrek ez du esan nahi, baserrietako informaziorik jasotzen ez denik, baina ez zuzenean nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako gaiak, herritarren usadio eta ohiturei lotutakoak baizik. Adibidez, 2004ko azaroko 118. alean “Mallabian Zer” atalean, txondorrari buruzko erreportajea kaleratu zen: “Txondorra, aintzineko ofiziuere Mallabin keetan” tituluarekin.

### **D) ENPRESA**

Enpresaren mundua ere islatzen da neurri batean aldizkarian. Gai ekonomikoen artean, hamalau itemek jorratzen duten gaia da. Kontuan izan behar da, Ermuan eta Mallabian industria poligono garrantzitsuak daudela eta betidanik izan direla herri industrializatuak. Azken hamar urteetan herrian bertan egon diren enpresa gehienak herritik kanpora atera dira, Mallabiko poligonoenetara hain zuzen ere. Beraz, Ermua eta Mallabiko enpresek jasotzen dituzten sariak, enpresa berrien sorrera edota hainbat enpresek dituzten arazoak *Drogeteniturr*in albiste dira.

### **Ekonomia bi hitzetan**


Laburtze aldera, azterketa-epean aldizkarian agertzen diren gaien artean, gutxien lantzen dena ekonomia da. Hala ere, merkataritzari arreta berezia jartzen zaio, berau baita agerpen handiena duen gai ekonomikoa: alde batetik herriko sektorerik garrantzitsuenetakoa delako eta informazio sortzen duelako eta bestetik, aldizkariak harreman zuzena duelako herriko denda eta tabernekin, aldizkariaren publizitate bezeroak dira-eta. Gai laboralak eta enpresarekin zerikusia dutenak gutxiago agertzen badira ere, Ermua edo Mallabian albiste direnean, aldizkarian ateratzen saiatzen dira. Nekazaritza eta abeltzaintza ez dira jorratzen *Drogeteniturr*in.

---

<sup>1288</sup>-Paul Nicholson, ENHE sindikatuko kideak Ermuan hitzaldia eskaini zuela aprobetxatuz, elkarriketa egin zitzaion: “Mugimendu sozialen esku dago etorkizuna”. 2002ko abenduko 97. alean. (6.-7. or.).

## 4.6.4.2.2- Ekonomiaren bilakaera

114K. grafikoa



Ekonomia gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Drogeteniturre* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

114L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Enpresa	Laborala/ Langabezia	Nekazaritza/ Abeltzaintza	Merkataritza	GUZTIRA
	2000	5	0	0	4	9
	2001	2	9	0	8	19
	2002	1	8	1	5	15
	2003	4	1	0	6	11
	2004	2	6	0	7	15

Ekonomia gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Guztira gai horren inguruan argitaratzen den item kopuruak gora egin du; 2001, 2002 eta 2004a haziera horren isla izanik. 2000. urtean bederatziz item kaleratzen dira eta hurrengo urtean hamar gehiago, hemeretzi hain zuzen ere. Urtez urteko bilakaera kontuan hartuz, ez da beti ekonomia gai bera gailentzen. Hau da, 2000. urtean enpresa da protagonista (bost item) 2001 eta 2002an gai laboralak eta 2003 eta 2004an merkataritza da gehien errepikatzen den gaia. Hala ere, 114L. taulako kopuru absolutuek erakusten duten bezala, merkataritza da gehien agertzen den gai ekonomikoa.

## A) ENPRESA

Guztira, Ermua eta Mallabiko enprekin zerikusia duten hamalau testu kaleratu dira *Drogeteniturri* eta erdia, zazpi hain zuzen ere, albiste laburrak dira: 2000. urtean, labor bat<sup>1289</sup> bi albiste<sup>1290</sup>, zutabe bat<sup>1291</sup> eta kale-inkesta bat<sup>1292</sup> argitaratzen dira. 2001ean, enpresei buruzko bi albiste labor<sup>1293</sup>. 2003an, hiru albiste labor<sup>1294</sup> eta Mallabiko Envasa enpresari buruzko albiste<sup>1295</sup>. Azkenik, 2004an elkarrizketa bat<sup>1296</sup> eta Eibarko Alfa lantegiari buruzko albiste<sup>1297</sup> argitaratzen dira.

## B) LABORALA ETA LANGABEZIA

2001 eta 2002an gai ekonomikoen artean lan munduarekin zerikusia dutenak agertzen dira batez ere. 2000. urtean ez da item bat bera ere agertzen gai horren inguruan, baina 2001ean bederatzi item agertzen dira: zazpi albiste labor<sup>1298</sup>, albiste bat<sup>1299</sup> eta jaietan lana egin behar duten ermuarrei egindako inkesta bat<sup>1300</sup>. 2002an argitaratzen diren lanari buruzko informazio guztiak albiste laburrak<sup>1301</sup> dira. 2003an langabeziaren datuak jasotzen dituen albiste bakarra kaleratzen da. 2004an lana eta langabeziari buruzko sei item argitaratzen dira: sei albiste labor<sup>1302</sup> eta Durangoko hiltegiari buruzko albiste bat<sup>1303</sup>.

## C) MERKATARITZA

Merkataritza izan da gai ekonomikoen artean gehiagotan azaldu dena aldizkarian, guztira, hogeita hamar bider. Urtez urteko agerpenari begiratuz, 2001 eta 2004an beste gai ekonomikoen artean merkataritza nagusitzen dela ikus daiteke. 2000. urtean argitaratzen diren lau itemetatik,

<sup>1289</sup> - "Bi sari jaso ditu Monroe lantegiak". 2000ko uztaileko 71. zenbakian. (13. or.).

<sup>1290</sup> - Adibidea: "Lantegi batuak enpresak hainbat egoitza garbituko ditu". 2000ko urtarrileko 65. alean. (15. or.).

<sup>1291</sup> - "Kezkaturik nago" Asier Ibaibarriagak sinatutako iritzi-zutabea. 2000ko urriko 73. zenbakian. (34. or.).

<sup>1292</sup> - "Zein da zure iritzia gasolinaren auziaren inguruan? Badago arazoa konpontzeko biderik?". 2000ko urriko 73. alean. (35. or.).

<sup>1293</sup> - Adibidea: "OFA aseguratuaren bulego berria". 2001eko martxoko 78. zenbakian. (12. or.).

<sup>1294</sup> - Adibidea: "Microdeco enpresarentzat saria". 2003ko urriko 106. alean. (21. or.).

<sup>1295</sup> - "Envasa, 19 egun greba mugagabien". 2003ko azaroko 107. zenbakian. (10. or.).

<sup>1296</sup> - "Gure eskaintza osagarria da, ez konpetentzia", Teresa Azkuenaga Ongizan enpresako sortzaileari egindako elkarrizketa. 2004ko maiatzeko 113. alean. (12. or.).

<sup>1297</sup> - "Ermuan ere, Alfa denon ahotan". 2004ko iraileko 116. zenbakian. (12. or.).

<sup>1298</sup> - Adibidea: "Lantegi Eskolako inaugurazioa". 2001eko urtarrileko 76. alean. (12. or.).

<sup>1299</sup> - "Auzolan programak enplegua sustatuko du Ermuan". 2001eko martxoko 78. zenbakian. (10. or.).

<sup>1300</sup> - "Baduzu jaietaz gozatzeko denborarik?". 2001eko uztaileko 82. alean. (18. or.).

<sup>1301</sup> - Adibidea: "Langabeziak behera 2001ean". 2002ko otsaileko 88. zenbakian. (10. or.).

<sup>1302</sup> - Adibidea: "Langileentzako prestakuntza ikastaroak". 2004ko urtarrileko 109. alean. (11. or.).

<sup>1303</sup> - "Durangoko hiltegiaren alde". 2004ko abenduko 119. zenbakian. (8. or.).

hiru albiste laburrak<sup>1304</sup> dira. 2000ko urriko 73. alean argitaratu ziren sei bertsoen gaia, “San Martin azoka” izan zen. 2001ean genero ezberdinak erabiltzen dira merkataritzari buruz idazteko: albiste laburrak<sup>1305</sup>, inkestak<sup>1306</sup>, argazki-erreportajeak<sup>1307</sup>, iritzi-zutabea<sup>1308</sup> eta bertsoak<sup>1309</sup>. 2002an merkataritzari buruzko bost item argitaratzen dira eta batzuk errepikatu egiten dira, San Martin azokako argazki-erreportajeak, euroari buruzko inkesta merkatarien artean eta albiste labur bat. 2003an argitaratzen diren sei itemetatik, bat albiste laburra da, merkealdiei buruzko iritzi-zutabe bat eta kale-inkesta bat, eta San Martin azokari buruzko argazki-erreportajeak. 2004an komertzio txikiaren egoerari buruzko zutabea<sup>1310</sup> eta kale-inkesta<sup>1311</sup> agertzen dira, San Martin azoka iragartzen duen albistea, San Martin azokari buruzko argazki-erreportajeak eta Ermuko Merkataritza Elkarteari buruzko bi albiste labur<sup>1312</sup>.

### Ekonomiaren bilakaera bi hitzetan

Ikusi dugunagatik, ekonomiari buruzko idatziak urtetik urtera *Drogeteniturrin* hazi egin direla esan daiteke, nahiz eta goranzko igoera hori ez den oso deigarria izan. Hazkundera batez ere 2001ean nabaritzen da eta hurrengo urteetan mantendu egiten da, gaia gutxi landuz. Hori bai, ekonomia gaia jorratzeko albiste laburrak erabiltzen dira aldizkarian, irakurketa erraztea baita helburua eta are gehiago ekonomia bezalako gaiak lantzerako orduan. Gai ekonomikoak berez dira konplexuak, beraz informazioa erakargarriagoa eta ulergarriagoa bihurtzeko asmoz, ekonomiari buruzko informazioa era laburrean eskaintzen da.

<sup>1304</sup>- Adibidea: “Merkataritza Elkartearen zozketa”. 2000ko urtarrileko 65. alean. (8. or.).

<sup>1305</sup>- Adibidea: “Ermuko Merkataritza Elkartea”. 2001eko 76. alean. (13. or.).

<sup>1306</sup>- Adibidea: “Nola ikusten duzu zure burua moneta berriaren aurrean? Euroan murgiltzea positiboa dela iruditzen zaizu? Gure bizimoduaren aldaketa nabarmenik gertatuko dela uste duzu?”. 2001eko abenduko 86. zenbakian. (27. or.).

<sup>1307</sup>- San Martin azokako argazki-erreportajeak, urtero kaleratzen direnak. 2001eko azaroko 85. alean. (26.-27. or.).

<sup>1308</sup>- “Hemen dugu... Euroa”, Iñigo Erauskin ekonomilariak sinatutako zutabea. 2001eko abenduko 86. zenbakian. (26. or.).

<sup>1309</sup>- Euroari buruzko lau bertso. 2001eko abenduko 86. alean. (4. or.).

<sup>1310</sup>- “Komertzio txikiaren egoera”, Riki González, Ermuko Merkataritza Elkartearen kideak sinatutako iritzi-zutabea. 2004ko martxoaren 11. zenbakian. (32. or.).

<sup>1311</sup>- “Azken boladan denda asko itxi direla uste duzu? Zein da horren arrazoi nagusia eta izango dituen ondorioak?”. 2004ko martxoaren 11. alean. (33. or.).


<sup>1312</sup>- Adibidea: “Ermuko merkataritza behera”. 2004ko abenduko 119. zenbakian. (12. or.).

#### 4.6.4.3- Gizarte-gaiak

Arestian aipatu bezala, *Drogeteniturr*in gizarte-gaiak dira protagonista nagusiak. Metodologiaren atalean azaldu dugun bezala, emaitza esanguratsuagoak lortu guran eta datuen sakabanaketa saihesteko asmoz, gizarte-gaien atalean dauden azpi-kategoria ezberdinak batu egin dira eta hasierako hamahiru azpi-kategoriak bederatzi ataletan sailkatu dira. Horiek izango dira hain zuzen ere, hemen kontuan hartuko direnak. Hurrengo grafiko eta taulen bitartez, gizarte-gai ezberdinen bilakaera orokorra aztertuko dugu. Alde batetik, gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean izan duten agerpena orokorra ikusiko dugu. Bestetik, gizarte-gai bakoitzak urtez urte izan duen garapena eta horren arrazoiak zeintzuk izan diren azalduko ditugu.

##### 4.6.4.3.1- Gizarte-gaiak 2000-2004 bitartean

115K. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturr* aldizkarian bost urteko epean.

115L. taula

	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zerbitzuak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	79	60	106	92	31	44	206	122	740

Gizarte-gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Guztira, 1.889 item aztertu dira Ermua eta Mallabiko aldizkarian eta gizarte-gai ezberdinak lantzen dituzten 740 item argitaratu dira. Gizarte-gaien atalaren baitan, gizarte



ohiturak (berrehun eta sei aldiz), zerbitzuak (ehun eta hogeita bi bider) eta lanak (ehun eta sei aldiz) dira gehien errepikatzen direnak.

### **A) TALDEAK**

Mallabia eta Ermuko taldeei buruzko hirurogeita hemeretzi informazio argitaratu dira *Drogeteniturrin*. Herrietan lanean ari diren talde ezberdinak agertu dira 2000-2004 bitartean aldizkarian: emakume feministen taldeak, emakume alargunen taldea, Kakitzat talde antimilitarista, jubilatuen plataforma, zentro erregional ezberdinak (Galizia, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Andaluzia), Gazte Asanblada, Cáritas edo Alkoholicos Anónimos besteak beste.

Adibideak adibide, herrietako sektore eta talde ezberdinei lekua egiten ahalegintzen da *Drogeteniturrri*. Herriko taldeek, hedabideak euren ekitaldietara hurbiltzea benetan estimatzen baitute-eta *“jendearentzat zaila izango da egunkari handietan inoiz agertzea, baina posibilitateak areagotu egiten dira ikaragarri herri mailako aldizkari batean”* (Aranzabal, 1992: 77). Batzuek eta besteek elkarren beharra dute, aldizkariak herriko taldeak behar ditu bere orrietako protagonista direlako, eta taldeek beharrezko dituzte herri-aldizkariak euren ekimenei buruzko informazioa herrian ezagutzera emateko. Gero eta gehiago dira euren ekitaldien berri emateko, prentsaurrekoak antolatu eta hedabideak konbokatzen dituzten taldeak. Konturatu baitira, horrelakoetan herri-aldizkariak oso gutxitan egiten dutela kale: *“Drogeteniturrri beharrezkoa da euskara suspertzen duelako eta gainera ez oso inguru euskaldunean. Era berean, beste hedabideetan agertzen ez diren taldeak presentzia dute bertan”*<sup>1313</sup>.

### **B) GIZARTE ARAZOAK**

Gizarte arazoen artean etorkinen legea, ihesa, emakumeenganako genero indarkeria bezalako gaiak argitaratu dira bost urteotan zehar. Horrezaz gain, giza laguntza eta elkartasuna bezalako gaiak sailkatu ditugu atal honetan, herrialde azpigaratuen aldeko elkartasun kanpainei buruzko testuak edota Sahararen aldeko kanpainei buruzko informazioak agertzen dira horien artean. Gizarte arazoak gehienetan ez dira herriko arazo zehatzak izaten, baina herritartu egiten dira. Adibidez, behi eroen krisiaren garaian, Ermuko harakinei gaitzak euren negozioetan izan zuen eraginari buruz galdetu zitzairen. Elkartasun eta giza laguntzen arloa askoz lokalagoa da, herrietako elkartasun taldeek antolatzen dituzten ekitaldiei (liburu bilketa, Irakerako eskola

---

<sup>1313</sup>- Begoña Arriaga irakasleak *Drogeteniturrin* egindako adierazpenak. 2003ko martxoko 100. alean. (39. or.).

material bilketa...) buruzko informazioak argitaratzen baitira. Batzuk zein besteak, hurbiltasuna kontuan hartuz lantzen dira. *“Arlo guztietako pertsonaiek zein gaiak, denak herriari lotuak, dute lekua errebista hauetan”*. (Miguel Angel Elkoroberezibar: 1992: 11)

### **C) LANAK**

Lanen atalean ehun eta sei item argitaratu dira: etxebizitzari buruzko hogeita hamasei item eta herri lanen inguruko hirurogeita hamar item. Bi azpi-kategoriak lanak izeneko atalean sartu ditugu, emaitza esanguratsuagoak lortu nahi izan ditugulako. Bestalde, etxebizitzarekin zerikusia duten testuek, etxebizitzaren eraikuntzarekin lotura zuzena dutelako gehienetan. Etxebizitzaren gaiak azken urteetan gizartean hartu duen garrantzia dela eta, inoiz baino gehiago landu da aldizkarian gaia eta aurreko urteetan baino agerpen handiagoa izan du. Alde batetik, Ermuan zein Mallabian 2000-2004 epean babes ofizialeko etxebizitza proiektuak ugariak izan direlako eta bestetik, etxebizitza erostea gaur egun arazo izugarria bilakatu delako herritar gehientzat (gazteentzat bereziki).

### **D) HEZKUNTZA ETA OSASUNA**

Hezkuntzaren gaia ere, indartu egin da aldizkarian 2003ko irailetik (diseinua berritu zenetik) aurrera batez ere. Ordura arte kaleratzen diren testuez gain, 2003ko irailean, “Jakingunran” sail berria sortzen da. Bertan zientziari buruzko testu bat eta sexuari buruzko iritzi-zutabe bat kaleratzeari ekiten zaio. Zutabe horren egilearen helburua, sexuari buruzko zalantzak argitzea eta jendea sexu alorrean heztea da. Horregatik, hezkuntza atalaren baitan sailkatu ditugu zutabe horretan agertzen diren sexu gaiak.

Osasun gaiak, gainerako gaien antzera, herrietako ikuspegitik lantzen dira. Alegia, Ermua eta Mallabian, gripearen txertoa hartzeko kanpainaren epeen berri ematen da edota osasunaren inguruan dauden zerbitzu berriei (Eguneko ospitale psikiatrikoa) buruzko informazioa eskaintzen da. Bestalde, “Jakinguran” atalean zenbaitetan osasun gaiak aztertzen dira baina ikuspegi zientifikotik, egileak Ermuko biologo bat eta fisiko bat dira-eta. Eurek dakitena, era sinple eta ulerkorrean herriari eskaintzea proposatu zioten aldizkariko erredakzio taldeari. “Jakinguran” sailak 2003ko irailean bidea hasi zuen eta egun oraindik aldizkariko atal finkoa da. *“Herritarrek modu askotan har lezakete parte. Aldizkarian idazten edo hainbat albisteren pistak ematen, banatzen edota, besterik gabe, irakurtzen”* (Aranzabal: 1992, 73).

### **E) INGURUMENA**

Ingurumenaren atalean, trafikoarekin zerikusia duten hamasei item kaleratu dira eta ingurugiroari buruzko hogeita zortzi item. Urteak aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira gai hauei buruzko informazio eta iritziak. 2003ko irailetik aurrera, “Jakinguran” atalean argitaratzen diren hainbat testuk, ekologia eta ingurugiroarekin zerikusia dute (eguzki energia, birziklatzea eta klima aldaketa...). Era berean, gaiak gizar-tean duen oihartzuna gero eta handiagoa da eta erakunde ezberdinek martxan jarri dituzten kanpainak eta egitasmoak, herrietara heldu dira (Ingurumena zaintzeko GAP programa Deba Barrenean). Trafikoa, arazo bihurtu da herri gehienetan: automobilen hazkundeak, aparkaleku gutxiago eta kutsadura ekarri ditu lotuta.

### **F) GIZARTE OHITURAK**

Gizarte ohiturak atalaren barnean, herritarren bizitza eta ohiturei buruzko testuak (ehun eta berrogeita hamahiru item), aisialdiari buruzko testuak (hogeita hemeretzi item) eta gizarte bizitzaren inguruan jazotzen direnak (hamalau item) biltzen dira. Gizarte ohituren atal honetan, Ermuko eta Mallabiko herritarrak dira protagonista nagusiak eta aldizkariko atal batzuek helburu hori dute. Adibidez, “Boteprontoan” sailean Ermuko eta Mallabiko emakume edo gizon bati hilero elkarrizketa arina egiten zaio. “Elkarrizketa” sailean maiz, Mallabikoak eta ermuarrak agertzen dira edozein arrazoik protagonista bilakatzen dituelako: 100 urte bete dituztelako, dantza saria irabazi dutelako, komikigileak direlako, kirolariak direlako...

2000ko hasierako hiru hilabeteetan argitaratzen diren “Argazki zaharra”-k ere, herritarren gora behera eta ohituren ingurukoak izaten dira: familia osoaren argazkia, lagun talde batek mendira egindako txangoa... “Kale-Inketa”-n egiten diren galderek ere, askotan herritarren ohituren inguruko gaiak jorratzen dituzte: “Siestarik egiten duzu?”, “Telebista ikusten duzu?”, “Mozorrotzen zara inauterietan?”, besteak beste. Aldizkariaren atal askotan jorratzen diren gaiak zuzenean dute zerikusia gizarte-gai eta herriko ohitura eta usadioekin.

### **G) ZERBITZUAK**

Gizarte ohituren ostean, zerbitzuen atala da gehien jorratzen dena. Bertan, denbora-pasak (gurutzegrama eta horoskopoa), herritarrentzat erabilgarriak izan daitezkeen aholkuak “Hara hemen” atalean argitaratzen direnak eta udalerriko zerbitzuei buruzko informazioak. Atal honetan kaleratu diren ehun eta hogeita bi itemetatik, sei itemetan jasotzen dira herriko zerbitzuei buruzko albiste eta iritziak. Zazpi itemetan herritarrentzat erabilgarriak eta praktikoak diren


aholkuak agertzen dira “Hara hemen” sailean. Gainerakoak gurutzegrama eta horoskopoak dira eta metodologian azaldu dugun bezala, bakoitza item independente bezala zenbatu dugu.

### **Gizarte-gaiak bi hitzetan**

Gizarte-gaien atala da, zalantzarik gabe, aldizkarian gehien lantzen eta agertzen dena guk aztertu dugun bost urteko epean. Gizarte ohiturak, zerbitzuak eta lanak izan dira behin eta berriz errepikatu diren gizarte-gaiak. Gizarte ohiturak, herritarrek direlako protagonista nagusiak eta aldizkariko sail askok horrelako gaiak jorratzeko bide ematen dutelako. Zerbitzuak, gero eta arreta gehiago jartzen zaiolako informazio mota honi, irakurlearentzat erabilgarria edo entretenimenduzkoa delako eta lanak, interesa sortzen dutelako herritarren artean eta etxebizitza proiektu asko jarri direlako martxan 2000-2004 bitartean. Gainontzeko gizarte-gaiak neurri txikiagoan agertzen badira ere, beti herriko ikuspegitik lantzen dira, herriko talde, elkarte zein jendeari lekua eginez aldizkariko orrietan.

## 4.6.4.3.2- Gizarte-gaien bilakaera

116K. grafikoa



Gizarte-gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Drogeteniturr* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

116L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Taldeak	Gizarte arazoak	Lanak	Hezkuntza	Osasuna	Ingurumena	Gizarte ohiturak	Zertbitzuak	GUZTIRA
	2000	27	6	7	15	6	7	44	26	138
	2001	15	25	32	18	3	2	38	25	158
	2002	13	12	33	14	1	7	42	23	145
	2003	12	12	22	15	14	11	42	24	152
	2004	12	5	12	30	7	17	40	24	147

Gizarte-gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

116L. taulan agertzen diren kopuru absolutuei begiratu, urtetik urtera gizarte-gaien kopuruak etengabe gora egiten duela antzeman daiteke. Aztertutako epean, gizarte-gaiek izan dute portzentajerik altuena (%39) *Drogeteniturr*in. Hots, guztira aztertu diren 1889 idatzietatik, 740 itemen gai nagusia gizarte-gaiak dira. Urteek aurrera egin ahala, gai batzuen protagonismoa areagotuz joan da, beste batzuen presentzia murrizten joan den heinean. Aztertu dezagun gizarte-gai bakoitza banan-banan eta ikus dezagun bere bilakaera.

**A) TALDEAK**

Taldee buruzko itemenak gutxituz joan dira 2000tik 2004ra erdira jaitsiz. Horrek ez du esan nahi ordea, taldeen agerpena aldizkarian gutxitu denik. Garai bateko taldeak desagertuz joan dira herrietan: Zuloa Kultur Elkarte, Kakitzat Talde Antimilitarista, Gazte Asanblada esaterako.

Bestalde, dantza taldeek edo elkarte erregionalek urtero ekitaldi berberak antolatzen dituzte eta horren berri agendaren bidez iragartzen da aldizkarian, urtero albiste bera ez errepikatzearren. Hori bai, taldeek berrikuntza edo ekitaldi bereziren bat antolatuz gero, jaso geratzen da errebistan. Era berean, taldeek antolatzen dituzten ekintza edo ekitaldiek albistean protagonismo gehiago badute, dagokion kategorian sailkatuko dira: musika bada taldeak antolatu duen ekitaldia, musikaren epigrafean sailkatuko dugu; beraz, informazio horretan taldeen izena agertuko da, baina gaia musika izango da. Ondorioz, herrietako taldeak zuzenean ez bada ere, etengabe agertzen direla aldizkarian esan daiteke. Guztira, hamalau albiste<sup>1314</sup>, berrogeita hamabost albiste labur<sup>1315</sup>, erreportaje bat<sup>1316</sup>, lau elkarrizketa<sup>1317</sup>, bi artikulua<sup>1318</sup>, inkesta bat<sup>1319</sup>, iritzi-zutabe bat<sup>1320</sup> eta bertso sorta bat<sup>1321</sup> kaleratu dira talde ezberdinen inguruan.

## B) GIZARTE ARAZOAK

Gizarte arazo eta elkartasunaren gaia, aldiz, oso presente dago 2001, 2002 eta 2003 urteetan. Herrietako talde ezberdinek bultzatuta, hainbat ekimen eta elkartasun kanpaina burutu direlako aldi horretan. Atal horretako protagonista nagusiak herritarrak eta eurak bultzatuko ekimenak dira, nahiz eta gaia askoz orokorragoa izan. Kategorია honetan sailkatu ditugun bederatzi albiste<sup>1322</sup>, hogeita zazpi albiste labur<sup>1323</sup>, lau erreportaje<sup>1324</sup>, lau elkarrizketa<sup>1325</sup>, iritzi-artikulua bat<sup>1326</sup>, sei inkesta<sup>1327</sup>, sei iritzi-zutabe<sup>1328</sup> eta hiru bertso sorta<sup>1329</sup> aurkitu ditugu. Kopuruari erreparatzen badiogu, gizarte arazo eta elkartasunaren gaia lantzeko *Drogeteniturri* aldizkarian informazio-generoak erabiltzen dira gehien bat.

<sup>1314</sup>- Adibidea: "Berria berri egunkari barrixan aldeko batzordie Mallabin". 2003ko maiatzeko 102. alean. (8. or.).

<sup>1315</sup>- Adibidea: "Alkoholikos Anonimosek 15 urte bete ditu". 2001eko martxoko 78. zenbakian. (21. or.).

<sup>1316</sup>- "Elexoste zabaldu dogu!" argazki-erreportajea. 2001eko ekaineko 81. alean. (22.-23. or.).

<sup>1317</sup>- Adibidea: "Guk erabakiko dugu zer izango den Ateneoa", Ermuko Ateneo Libertarioko taldeari egindako elkarrizketa. 2003ko ekaineko 103. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>1318</sup>-Adibidea: "Kalea gurea da, goazen plazara!", Zuloa Kultur Elkarteak sinatutako artikulua. 2000ko apirileko 68. alean. (10. or.).

<sup>1319</sup>- "Badakizu Ermuan gaztetxea dagoela? Zer iruditzen zaizu? Joango zinateke, zergatik?. 2001eko maiatzeko 80. zenbakian. (23. or.).

<sup>1320</sup>- "Gaztetxea 2001: Odisea Ermuan", Oskar Arandak sinatutako iritzi-zutabea. 2001eko maiatzeko 80. alean. (22. or.).

<sup>1321</sup>- Josu Araiztegik Gaztetxeari buruz idatzitako hiru bertso. 2001eko maiatzeko 80. zenbakian. (4. or.).

<sup>1322</sup>- Adibidea: "Ermua eta Saharaiuen arteko harremanak estutuz". 2002ko otsaileko 94. alean. (13. or.).

<sup>1323</sup>- Adibidea: "Emakumeenganako biolentziaren aurka". 2004ko azaroko 118. zenbakian. (11. or.).

<sup>1324</sup>- Adibidea: "Sahararen aldeko kanpaina". 2003ko azaroko 107. alean. (11. or.).

<sup>1325</sup>- Adibidea: "Guk ezagutu dugun blokeoa, egunero jasaten dute", Juantxo Díez eta Marga Perez ermuar brigadistei egindako elkarrizketa. 2001eko iraileko 83. zenbakian. (6.-7. or.).

<sup>1326</sup>- "Nagusiek ere badute zeregina gizartearen" artikulua, Patxi Epeldek sinatuta. 2003ko 99. alean. (24. or.).

<sup>1327</sup>- Adibidea: "Gaixotasun mentalak gero eta gehiago dira? Eta onartzen ditu gaur egungo gizarteak?". 2003ko urriko 106. zenbakian. (29. or.).

<sup>1328</sup>- Adibidea: Behi eroei buruzko "Muuuuu!!!!!" iritzi-zutabea, Ainhoa Delgadok sinatua. 2001eko urtarrileko 76. alean. (22. or.).

<sup>1329</sup>- Adibidea: Inmigratioari buruz Deba Beheko Bertso Eskolak idatzitako lau bertso. 2001eko urriko 84. zenbakian. (4. or.).

### C) LANAK

Lanen gaia nabarmen hazten da 2000tik 2001ra, eta 2002 eta 2003an nahiko altu mantentzen da. Gogoratu, etxebizitza eta herrilanak batu ditugula atal honetan eta urtero herrilanei buruzko testuak nagusitzen direla. 2000. urtean, herrilanei buruzko bost item kaleratzen dira *Drogeteniturrin* eta etxebizitzaren gaia jorratzen duten bi testu. 2001. urtean, herrilanei buruzko hogeita lau item eta etxebizitzari buruzko zortzi item kaleratzen dira. 2002. urtea da lanen inguruko item gehien argitaratzen den urtea: herrilanei buruzko hamabost item eta etxebizitzari buruzko hamasei item hain zuzen ere. 2003an herrilanei buruzko hamasei item eta etxebizitzari buruzko sei item argitaratzen dira. 2000-2003 bitartean Ermuan eta Mallabian herrilanen inguruko hainbat egitasmo sortzen dira eta inportanteenak jasotzen saiatzen da aldizkaria. 2004an, proiektu bakan batzuk baino ez daude herrietan, herrilanei buruzko zazpi testu aurkitu dira eta etxebizitzaren gaia jorratzen duten bost idatzi. Guztira, bost urteko epean lanei buruzko hogeita albiste<sup>1330</sup>, hirurogeita hemeretzi albiste labur<sup>1331</sup>, bi erreportaje<sup>1332</sup>, artikulua bakarra<sup>1333</sup>, bi kale-inkesta<sup>1334</sup> eta bi iritzi-zutabe<sup>1335</sup> kaleratu ditu Ermua eta Mallabiko aldizkariak. Argi dago, albiste laburrak direla herriko lanei buruz informazioa emateko *Drogeteniturrrik* erabiltzen duen informazio-genero nagusia. Izan ere, herrietan garatzen den proiektu bakoitza, dagoen fasean arabera, behin baino gehiagotan ateratzen da, beraz nahikoa irizten diote era laburrean lantzeari.

### D) HEZKUNTZA ETA OSASUNA

Hezkuntzari buruzko gaiak urtetik urtera gehituz doaz aldizkarian. Hasierako lau urteetan kopuru antzerakoetan mantentzen da, baina hazkundera berezki 2004an nabaritzen da, lehenengo urtean kaleratzen den testu kopuruaren bikoitza argitaratzen baita urte horretan eta hezkuntzari buruzko hogeita hamar testu kaleratuz. Aipatu hazkundera hain nabaria izatearen arrazoia, 2003ko irailetik aurrera kaleratzen den sexuari buruzko zutabeen aurki daiteke. Sexuari buruzko zutabe guztien gaia hezkuntzaren baitan sartu dugu, helburua hori delako, jendea eta batez ere gazte

<sup>1330</sup>- Adibidea: "15 etxebizitza gehiago eraikiko dira Abeletxen". 2002ko urtarrileko 87. alean. (14. or.).

<sup>1331</sup>- Adibidea: "Berrikuntzak espaloietan". 2004ko iraileko 116. zenbakian. (10. or.).

<sup>1332</sup>- Adibidea: "Etxebizitza sozialak eiteko urbanizaziño proiektue aprobau da". 2002ko maiatzeko 91. alean. (8.-9. or.).

<sup>1333</sup>- "Abeletxeko proiektuari buruz Drogeteniturrin argitaratutako artikuluari erantzuna" Ermuko Batasunak idatzitako artikulua. 2002ko otsaileko 88. zenbakian. (21. or.).

<sup>1334</sup>- Adibidea: "Gaur egun Ermuan etxebizitza lortzea posible da? Zergatik? Nola ikusten duzu etorkizuna?". 2002ko urriko 95. alean. (31. or.).

<sup>1335</sup>- Adibidea: "Etxebizitza duina guztiontzat, orain!", Ermuko Etxebizitza Guztiontzat taldearen izenean Aritz Kordobak idatziko iritzi-zutabea. 2004ko azaroko 118. zenbakian. (32. or.).

jendea sexuan heztea. Guztira bost urteotan, hezkuntzari buruzko bederatzi albiste<sup>1336</sup>, berrogeita hamahiru albiste labur<sup>1337</sup>, hiru elkarrizketa<sup>1338</sup>, hiru erreportaje<sup>1339</sup>, bost inkesta<sup>1340</sup>, hamazortzi iritzi-zutabe<sup>1341</sup> eta bertso sorta bat<sup>1342</sup> argitaratu dira. Hezkuntzaren gaia ere modu laburrean eta informazioaren bitartez agertzen da aldizkarian.

Osasunaren gaia, beste gizarte-gai batzuekin alderatuz, ez da horrenbeste agertzen aldizkarian eta hasierako hiru urteetan gutxi agertzen dela esan daiteke. 2003an osasunari buruzko itemak nabarmen egiten dute gora, “Jakinguran” (zientziari buruzko atala) saila 2003ko maiatzetik aurrera agertzen delako, maiatzetik uztailela “Zientzia ulertu nahian” sail bezala. 2004an item kopurua erdira jaisten da, zazpi item kaleratuz. Horietatik hiru “Jakinguran” atalean agertzen dira. Hala ere, osasunaren gaia bost urteetan bi albiste<sup>1343</sup>, hamahiru albiste labur<sup>1344</sup>, zazpi erreportaje<sup>1345</sup>, elkarrizketa bat<sup>1346</sup>, lau inkesta<sup>1347</sup> eta lau iritzi-zutaberen<sup>1348</sup> bitartez landu da.

## E) INGURUMENA

Ingurumenaren gaia hasierako urteetan ez da asko agertzen (2001ean bi item baino ez: bata ingurugiroarekin zerikusia duena eta bestea trafikoarekin zerikusia duena). 2000. urtean, ingurumenari buruzko hiru item eta trafikoaren gaia jorratzen duten lau item kaleratzen dira. 2002an, ingurumenari buruzko bost item eta trafikoaren inguruko bi baino ez. 2003tik aurrera, gaiak presentzia gehiago dauka *Drogetenitturri*ko orrialdeetan. Izan ere, ingurugiro eta naturarekin zerikusia duten bederatzi testu kaleratzen dira. Azkenik 2004an, ingurumenari buruzko hamar item kaleratzen dira eta trafikoa eta garraioei buruzko zazpi testu. Atal honetan agertzen diren gaiak, maiz herriko gai espezifikoak izan beharrean izaera orokorra daukate, baina

<sup>1336</sup>- Adibidea: “Konekta zaitez, Internet ailegatu da Mallabira”. 2002ko azaroko 96. alean. (8. or.).

<sup>1337</sup>- Adibidea: “Eskoletako matrikulazioa”. 2004ko iraileko 116. zenbakian. (10. or.).

<sup>1338</sup>- Adibidea: “Ikastolako umeak kantu jolasak erakusten”, Estibalitz González irakasleari egindako elkarrizketa. 2001eko ekaineko 81. alean. (6.-7. or.).

<sup>1339</sup>- Adibidea: “Ermuko kaleak umez beteta”. 2001eko iraileko 83. zenbakian. (14.-15. or.).

<sup>1340</sup>- Adibidea: “Zer moduz kurtso hasiera? Eskolara gogoz bueltatu zara?”. 2004ko iraileko 116. alean. (21. or.).

<sup>1341</sup>- Adibidea: “Zulo ilunak ziberespazioan”, Interneten aditua den Ramon Carrascok sinatutako zutabea. 2001eko martxoko 78. zenbakian. (30. or.).

<sup>1342</sup>- Interneti buruz Jon Unanuek idatzitako hiru bertso. 2001eko martxoko 78. alean. (4. or.).

<sup>1343</sup>- Adibidea: “DSP, Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua botikan”. 2004ko ekaineko 114. zenbakian. (8. or.).

<sup>1344</sup>- Adibidea: “Alzheimerri buruzko ikastaroa”. 2004ko urriko 117. alean. (11. or.).

<sup>1345</sup>- Adibidea: “Udaberriko bisita: alergia”. 2003ko maiatzeko 102. zenbakian. (14. or.).

<sup>1346</sup>- “Azterketa medikua edozeini gomendatzen diot”, Luken Izagirre medikuari egindako elkarrizketa. 2003ko urtarrileko 98. alean. (17. or.).

<sup>1347</sup>- Adibidea: “Osasunari begira, zer da zuretzat ondo elikatzea? Euskal Herrian ondo elikatzen garena uste duzu? Eskolan ondo elikatzen erakutsiko lukeen ikasgaia beharrezkoa da?”. 2003ko ekaineko 103. zenbakian. (31. or.).

<sup>1348</sup>- Adibidea: “Zertarako usteldu?, Sixto Iturriagak organo emailei buruz sinatutako iritzi-zutabea. 2000ko urtarrileko 65. alean. (26. or.).



herritarrei eragiten dien neurrian, herriko jendearen iritziak jasotzen dira, bai inkestan eta baita zutabeetan ere, gaia nolabait herritartzea lortuz. Guztira, ingurumenari buruzko hiru albiste<sup>1349</sup>, hamazortzi albiste labor<sup>1350</sup>, bederatzi erreportaje<sup>1351</sup>, zazpi inkesta<sup>1352</sup> eta zazpi zutabek<sup>1353</sup> ikusi dute argia aldizkariaren orrietan.

## F) GIZARTE OHITURAK

Gizarte ohituretan ez dago gora behera handirik, urtero item kopuru oso antzerakoa kaleratzen baita. Gainera, atal horren barneko azpi-kategoria bakoitzean agertzen den item kopurua ere, oso antzerakoa da. 2000 urtean aisialdiko zortzi testu kaleratzen dira, herritarren bizitza eta ohiturei buruzko hogeita hamalau item eta gizarte bizitzari buruzko bi item. 2001ean, aisialdiarekin zerikusia duten zazpi testu herritarren bizitza eta ohituren inguruko hogeita hamar item eta gizarte bizitzaren inguruko bakarra. 2002an aisialdia hamar aldiz agertzen da, herritarren bizitza eta ohiturak hogeita bederatzi bider eta gizarte bizitza hiru aldiz. 2003an, aisialdiri buruzko zazpi testu, herritarren bizitzari buruzko hogeita hamaika eta gizarte bizitzari buruzko lau item. 2004an zazpi bider agertzen da aisialdiaren gaia, hogeita bederatzi aldiz herritarren bizitza eta ohituren gaia eta lau aldiz gizarte bizitzaren gaia. Atal hau da gaien artean aldizkariaren zutabe nagusia. Behin eta berriz errepikatu dugun bezala, aldizkariko protagonista nagusiak herritarrak baitira: herriko kirolariak, herriko idazleak, herriko margolariak eta baita herritar soilak ere, Santa Agedan kantuan irteten diren herritarrak esaterako. Atal honetan iritzia zein informazio-genero ezberdinak erabiltzen dira, nahiz eta informazioa nagusitzen den. Datuen arabera, 2000-2004 bitartean, hamalau albiste<sup>1354</sup>, hirurogeita lau albiste labor<sup>1355</sup>, lau argazki-albiste<sup>1356</sup>, hogeita bederatzi erreportaje<sup>1357</sup>, hirurogeita bost elkarrizketa<sup>1358</sup>, artikulua bat<sup>1359</sup>,

<sup>1349</sup>- Adibidea: "Saintzeko pague". 2003ko otsaileko 99. zenbakian. (9. or.).

<sup>1350</sup>- Adibidea: "Zaborra birziklatzen". 2002ko martxoko 89. alean. (11. or.).

<sup>1351</sup>- Adibidea: "Artadixa: aspaldiko garaixetako laguna". 2003ko maiatzeko 102. zenbakian. (12.-13. or.).

<sup>1352</sup>- Adibidea: "Zein iritzi duzu Prestige-rekin geratu denaren inguruan?, Nola uste duzu erantzun dutelako politikoe?, Zer gertatuko da hemendik aurrera?". 2002ko abenduaren 97. alean. (27. or.).

<sup>1353</sup>- Adibidea: "Perretxikoak", Riki Gonzálezek Ermuko Mikologiaren Lagunak taldearen izenean sinatutako iritzi-zutabea. 2002ko azaroko 96. zenbakian. (30. or.).

<sup>1354</sup>- Adibidea: "Mallebiko jaixek". 2000ko iraileko 72. alean. (9. or.).

<sup>1355</sup>- Adibidea: "Santixauetan berrikuntzak". 2002ko uztaileko 93. zenbakian. (10. or.).

<sup>1356</sup>- Adibidea: "Santa Eufemian hippirik ez". 2000ko apirilko 68. alean. (2. or.).

<sup>1357</sup>- Adibidea: Anbrosia Agirregomezkortari buruzko erreportajea: "Onerako edo txarrerako neutaz eifi deixela berba". 2004ko urriko 117. zenbakian. (27. or.).

<sup>1358</sup>- Adibidea: Iraitz Udabe: "Betizun egon nazen arren, injineru izetie nahi dot". 2004ko otsaileko 110. alean. (9. or.).

<sup>1359</sup>- Mallabiko urriko jaiei buruz Mallabiko Jai Batzordeak sinatutako artikulua. Titulurik gabe. 2001eko azaroko 85. zenbakian. (8. or.).

bederatzi inkesta<sup>1360</sup>, bederatzi zutabe<sup>1361</sup>, irakurle gutun bat<sup>1362</sup>, zortzi bertso sorta<sup>1363</sup> eta bi ipuin<sup>1364</sup> argitaratu dira. Informazioaren baitan albiste laburrak eta elkarrizketak dira nagusi, batez ere “Boteprontoan” sailean agertzen diren elkarrizketak, guztira berrogeita hamabost baitira.

### G) ZERBITZUAK

Gizarte-gaien atalean gehien agertzen den bigarren gaia zerbitzuena da, baina urtetik urtera ez da zerbitzu-informazioaren kopurua asko aldatzen, gai honi buruz argitaratzen diren item eta sailak oso finkoak baitira bost urteetan. Hasierako urtean portzentajea apur bat altuagoa (%19) bada ere, 2001-2004 bitartean %16an kokatzen da. Ale bakoitzeko denbora-pasak (horoskopoa eta gurutzegrama) eta 2000tik 2001eko urtarrilera arte “Hara hemen” sailean agertzen diren gomendioak finko mantentzen dira zerbitzuen atalean. Bestalde, kiroldegiko eta liburutegiko zerbitzuei buruzko informazio eta iritziak gutxi izan badira ere, lau albiste labur<sup>1365</sup>, kale-inkesta<sup>1366</sup> eta zutabe bat<sup>1367</sup> aurkitu dira.

#### Gizarte-gaien bilakaera bi hitzetan

Laburbilduz, gizarte-gaiek presentzia irabazten dute urtetik urtera Ermua eta Mallabiko aldizkarian. Herritarrengandik hurbilen dauden gaiak jorratzen dira eta herritarrak eurak dira protagonista nagusiak. Horren adierazle, herriko lanak, hezkuntza eta ingurumenari buruzko testuak bost urteko epean areagotu egiten direla.

Era berean, gizarte ohituen atala da urtero gehien errepikatzen eta agertzen dena. Izan ere herritarrak eta euren eguneroko bizimodua dira aldizkariko protagonista nagusiak.

Kazetaritza-genero ezberdinak erabiltzen diren arren, informazio-generoak nagusitzen dira gizarte-gaiak lantzerako orduan. Gizarte-gaiei buruzko bostehun eta hogeit hamar informazio-item aurkitu dira eta laurogeita bederatzi iritzi testu. Gaia %70, 27an informazioaren bitartez landu da eta %12,03an iritzi-generoen bitartez. Ez da harriztekoa, aldizkariak duen helburua kontuan hartzen bada, Ermua eta Mallabiko informazioa herritarren artean zabaltzea.

<sup>1360</sup>- Adibidea: “Zer egiten duzu Santixauetan? Adin guztietarako jaiak direla uste duzu? Zeozer falta zaiela uste duzu?. 2001eko uztaileko 82. alean. (23. or.).

<sup>1361</sup>- Adibidea: “Zer dela eta... despedidak?”, Juanmi Bravok sinatutako iritzi-zutabea. 2003ko uztaileko 104. zenbakian. (24. or.).

<sup>1362</sup>- Kazetaritza-generoen atalean aipatu dugun gutun bera. 2000ko azaroko 74. alean. (20. or.).

<sup>1363</sup>- Adibidea: “Hartza eguna, koplakantari otsailaren 20an”. 2004ko urtarrileko 109. zenbakian. (13. or.).

<sup>1364</sup>- Adibidea: “Olentzeroren etorrera”. 2001eko abenduak 86. alean. (9. or.).

<sup>1365</sup>- Adibidea: “Gero eta jende gehiago kiroldegian”. 2001eko ekaina, 81 zenbakian. (11. or.).

<sup>1366</sup>- “Ulertzen saiatzen naiz...”, Alazne Aiestaranek sinatutako iritzi-zutabea. 2000ko iraileko 72. alean. (22. or.).


<sup>1367</sup>- “Zer iruditzen zaizu kiroldegia abuztu osoan itxita egotea? Abuztuari dagokion dirua bueltatu beharko litzateke ala beste era batean konpentsatu beharko litzateke?. 2000ko iraileko 72. zenbakian. (23. or.).

#### 4.6.4.4- Kultura

Kultura gaien presentzia nabarmena da aldizkarian, gizarte-gaiekin batera gehien lantzen den gaia kultura da-eta. Metodologian azaldu dugun bezala, berez atal honetan azpi-kategoria gehiago definitu eta sortu dira, baina emaitzen dispersioa saihesteko, zortzi multzotan sailkatu dira hasierako kategoria guztiak. Horrela bada, lehenengo grafiko eta taulan kultura gaiak 2000-2004 bitartean *Drogeteniturr* aldizkarian izan duten agerpen orokorra zein izan den aztertuko dugu. Bigarren grafiko eta taulak, kultura gai ezberdinek urtez urte hilabetekarian izan duten bilakaera nolakoa izan den erakutsiko digu.

##### 4.6.4.4.1- Kultura 2000-2004 bitartean

117K. grafikoa



Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturr* aldizkarian bost urteko epean.

117L. taula

	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	75	76	130	208	62	73	74	698

Kultura gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Azterketa-epean, *Drogeteniturr*in aztertu ditugun 1.889 itemetatik 698 itemetan kultura gaiak ukitzen dira. Beraz, bost urteetan kaleratu diren testuen % 37k kulturarekin zerikusia duten gaiak lantzen dituzte eta ondorioz, kultura aldizkarian gehien lantzen den bigarren gaia bilakatu da. Gizarte-gaien ostean, aldizkarian kultura gaiak presentzia gehien badute ere, horrek ez du

esan nahi aldizkaria guztiz kulturala denik, orain arte frogatu dugun bezala gai ezberdinak lantzen baitira, herritarrarentzat interesgarriak izan daitezkeen gai ezberdinak hain zuzen ere.

*“Eduki aldetik, herri agerkariak arinak eta erraz irakurtzekoak izan ohi dira. Ildo horretan ere aipatu beharreko da prentsa mota honetan, oro har, interes orokorreko informazioa ukitzen dela; ez dira aldizkari kultural edo entretenimendukoak, baizik eta gai guztiak jorratzen dituzte”* (Camacho, 2001: 99).

*Drogeteniturr*in kultura gaiak edozein ataletan ager daitezke, nahiz eta hasieran noizbait<sup>1368</sup> “Kultura” sailean kulturarekin zerikusia duten gaiak zehatzago lantzen diren. Dena dela, “Berriak”, “Laburrak”, “Motzean” “Sukaldaritza”, “Elkarrizketa”, “Ermuan Zer?”, “Mallabian Zer?”, “Bertsoak” sailetan aurkitu daitezke kultura gaiak. Beste behin ere Ermua eta Mallabiko aldizkaria herriko izaeraren isla dela esan daiteke, batez ere Ermuan mugimendu kultural asoziazionista handia dagoelako, kultura esparru ezberdinetan jende ugariaren partaidetzarekin. Hona hemen 2003. urteko Ermua Zinemako datuak:

*“Bukatu berri den 2003. urtean, gure aretoan 209 ekitaldi kultural izan ditugu, 219 eguneko okupazioa izanez. Ekitaldi guztietatik zine komertzialaren egitaraua kenduta, 97 ekitaldi izan dira, hau da % 70 herriko elkarte eta taldeek antolatu dituzte. Diziplina artistikoei begiratuta, zalantzarik gabe, zinemak hartu du leku gehien, 182 emanaldi izanik. Baina ezin ahaztu, egon diren 35 antzezlanak, 45 entseguak eta sailkatzeko zailagoak diren beste ekitaldi artistiko”<sup>1369</sup>.*

Urteko programazioan ekitaldi anitz izaten dira eta aldizkariak udaleko kultur teknikariarekin duen harreman estua kultura gaietan antzematen da; erraztasun handia dago kultur ekitaldi ezberdinei buruzko informazio zuzena teknikariaren bitartez lortzeko. Hilero *Drogeteniturr*i aldizkarian argitaratzen den kultur agendaren egilea, Patxi López udaleko kultura teknikaria da.

Kulturaren baitan dauden atal ezberdinei dagokionez, literatura (berrehun eta zortzi) eta gastronomia (ehun eta hogeita hamar) dira gehien errepikatzen diren bi gai nagusiak. Gainerako azpi gaiei buruzko ehunetik behera item aurkitu dira. Ikus dezagun atal bakoitzaren agerpena banan-banan:

<sup>1368</sup> - Bost urteetan aztertu diren berrogeita hamabost aleetan, 2000ko maiatzeko 69. eta 2000ko ekaineko 70. aleetan soilik agertzen da “Kultura” saila.

<sup>1369</sup> - “Guztion Zinema” iritzi-zutabearen Patxi López Ermuko udaleko kultura teknikariak emandako datuak. 2003ko urtarrileko 109. alean. (20. or.).

### **A) ARTE ESZENIKOAK**

Arte eszenikoak hirurogeita hamabost testutan agertzen dira, baina bertan dauden azpi-kategoria ezberdinak ez dira aldizkarian neurri berean lantzen. Izan ere, bost urteotan antzerkiari buruzko hamabost idatzi argitaratu dira, dantzari buruzko hamalau testu eta zalantzarik gabe, gehien jorratu den gaia musikarena izan da, berrogeita sei itemetan agertu baita. Joera orokor hori, urtez urte ere errepikatzen da, urtero musika gainerako arte eszenikoen gainetik agertuz. Kontuan hartu behar da, udalek programatzen dituzten hainbat kontzertu aurreratzeko, aldizkarian elkarrizketak egin direla, batez ere 2001-2002 urteetan. Bestalde, Ermukoak zein Mallabikoak diren musika talde eta abeslari ezberdinek ere izan dutela tokia aldizkariko orrialdeetan: Opera kantariak, rock taldeak, musika eskolako talde ezberdinak, eta musika eskola bera hainbatetan izan da albiste *Drogeteniturr*in. Halaber, 2003ko irailean aldizkariaren diseinu osoa aldatzen denean, sail berri bat sortzen da eta bertan hiru hiletik behin musika kritika agertzen da.

### **B) ARTE PLASTIKOAK**

Arte plastikoek arte eszenikoen portzentaje bera izan dute 2000-2004 bitartean, %11koa hain zuzen ere eta argitaratu den item kopurua hirurogeita hamaseikoa izan da. Atal honetan azpi-kategoria gehiago daude eta honelako emaitzak izan ditu bakoitzak: pintura hamahiru aldiz agertu da, artisau eta eskulanei buruzko hamasei testu kaleratu dira, arte ondarea lau bider izan da gai nagusia eta argazkigintza eta kartelgintzari buruzko berrogeita hiru item aurkitu dira. Azken kategoria hau horrenbeste errepikatzearren arrazoia, udalek eta herriko taldeek antolatzen dituzten argazki eta kartel lehiaketan aurkitu daiteke. Urtero, Ermua eta Mallabian hiruzpalau kartel lehiaketa ofizial antolatzen dira eta bestalde, herriko talde (Mendi talde, kultur elkarte, Merkatari Elkarte...) ezberdinek urtean zehar antolatzen dituzten argazki lehiaketak aldizkarian urtero agertzen dira behin baino gehiagotan. Lehenengo, lehiaketak iragartzeko eta ondoren, lehiaketako irabazleak zeintzuk izan diren jakitera emateko.

### **C) GASTRONOMIA**

Gastronomiaren gaia ehun eta hogeita hamar bider azaltzen da aztertu diren berrogeita hamabost aleetan. Ondorioz, lan honetan aztertu diren gainerako aldizkarietan ez bezala, Ermua eta Mallabiko hilabetekarian agerpen berezia duen gaia da gastronomiarena. Ermuko jatetxeetako sukaldarien kolaborazioa hileroko jasotzen da, beraiek prestatutako errezetak kaleratuz. Guztira, ehun eta hogeita sei sukalde-errezeta argitaratu dira aldizkarian eta hainbat sukaldarik idatzi

dituzte errezeta horiek. Atal hau gainera irakurleek estima handian dute: “*Drogeteniturrri gustatzen zait, gustura irakurtzen dut Ermura natorrenean. Ondo dago Ermuan euskarazko aldizkari bat egotea eta, gainera, herriko gauzak ikusteko aukera eskaintzen du. Bertsoak eta errezetak dira gehien atsegin ditudan atalak*”<sup>1370</sup>.

Aldizkariaren 100. alearekin batera hainbat ekimen proposatu zituen *Drogeteniturrri* lan-taldeak eta horietako bat, hasieratik ordura arte aldizkarian jaso ziren errezeta guztiekin liburu bat egitea zen. Gaur egun oraindik ez da liburu argitaratu.

#### **D) LITERATURA**

Literaturari buruzko berrehun eta zortzi item argitaratu dira Ermua eta Mallabiko hilabetekarian. Bertsolaritzaren gaia, hirurogeita hamabost bider azaldu da eta literatura eta liburuen gaia ehun eta hogeita hamahiru aldiz. Bertsolaritzaren gaia askotan agertzen den arren, urtero liburu eta literaturari buruzko gaiak nagusitzen dira aldizkarian. Bertsolaritzari buruzko testuak batez ere “Bertsoak” eta “Ahoz aho” ataletan agertzen dira, bost urteotan mantendu den saila baita bertsolaritzari eskainitakoa. Bestalde, literatura eta liburuen gaia aldizkariko sail ezberdinetan agertzen da, nahiz eta aldizkariko txoko batzuetan beti literaturaren gaia lantzen den. Esaterako, “Hara hemen” eta “Ahoz aho” sailaren baitan agertzen diren euskarazko esamoldeak edota 2001eko martxotik aurrera Elkarlan argitaletxearen laguntzarekin egiten den liburuen zozketa. Era berean, 2003ko iraileko diseinu aldaketarekin, liburu kritika atal berria sortzen da eta bertoko gaia beti da literatura. Argi eta garbi ikusten da atal berezien bitartez literaturari tartea egiten zaiola aldizkarian.

#### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideei buruzko atala da *Drogeteniturrin* gutxien agertzen dena baina hala eta guztiz ere berrogeita hamabost aleetan hirurogeita bi aldiz agertu da. Herri komunikabideen gaia hogeita zortzi bider agertu da eta zine eta telebistari buruzko testuak hogeita hamalau izan dira. Herri komunikabideei buruzko gaiaren baitan, , 2002an sortu zen Arreta Irratia eta egun desagertuta dagoen Ermuko telebista eta *Drogeteniturrri* bera dira protagonista nagusiak. Zine eta telebistari buruzko testuak, herrian eta herriko talde ezberdinek antolatzen dituzten zine emanaldi eta jardunaldien ingurukoak dira. Besteak beste, 2000-2004 bitartean Mudo-Drogot cinematrogafo taldea, Emakumea eta Zinea Aretoa eta Sosioux Kultur Band taldeek antolatzen

---

<sup>1370</sup>- Matxalen Ziarsolo, Akaba Bera-Bera eskubaloi taldeko kirolariak aldizkariari buruz emandako iritzia. 2003ko 100. alean. (37. or.).

dituzten zine emanaldiek bere tartea izan dute aldizkarian. Horrezaz gain, 2003ko irailetik aurrera, hiru hilean behin zine kritika kaleratzen da.

#### **F) EUSKARA**

Euskararen gaia hirurogeita hamahiru aldiz agertu da Ermua eta Mallabiko aldizkarian eta batez ere, herriko euskalgintzan aritzen diren talde ezberdinei lotuta. Izan ere, Ermuan euskalgintzan lanean diharduten hainbat taldek (tartean Euskal Birusa Elkarte, AEK, Udal Euskaltegia, EHE, Ikastetxeak...) proiektu ezberdinak antolatzen dituzte elkarlanean. Behin baino gehiagotan azaldu dugun moduan, herri-aldizkariak kaleratzen dituzten elkarteek, aldizkaria euren bozgorailu gisa erabiltzen dute. Bestalde euskararen gaia aldizkariko beste atal batzuetan ere agertzen da, non euskara egoki erabiltzeko aholkuak ematen diren.

#### **G) KULTUR AGENDA**


Kultur ekitaldi ezberdinak biltzen dituzten hirurogeita hamalau agenda argitaratu dira *Drogeteniturr*in 2000-2004 bitartean. Ale bakoitzean hurrengo hilabeteko kultur agendaz gain (berrogeita hamabost), gainerakoak herrietako jai edo ekitaldi zehatzen inguruko egitarauak izan dira.

#### **Kultura bi hitzetan**

Beraz, Ermuan kultura informazioa gai garrantzitsua da eta aldizkariak hori islatzen du; kultura gaiak lantzeko toki bereziak izan arren, berau edozein sailetan aurki daiteke aldizkarian. Kultur teknikariarekin aldizkariak duen harremanak asko errazten du kultura informazioa lortzea. Gastronomia eta literaturari buruzko itemak nagusitzen dira kulturaren baitan, atal bereziak eta finkoak dituzten gaiak baitira. Gainerako gaiak albiste bilakatzen dira unean-unean.

4.6.4.4.2- Kulturaren bilakaera

118K. grafikoa



Kultura gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Drogetenituri* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

118L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Arte eszenikoak	Arte plastikoak	Gastronomia	Literatura	Komunikabideak	Euskara	Agenda	GUZTIRA
	2000	13	21	22	24	4	6	13	103
	2001	15	16	23	24	7	16	17	118
	2002	18	16	23	37	6	20	15	135
	2003	8	11	28	59	31	15	14	166
	2004	21	12	34	64	14	16	15	176

Kultura gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Kultura gaien buruzko item kopurua poliki-poliki hazi egiten da bost urteko epean. 2000. urtean orotara ehun eta hiru item kaleratzen dira kulturarekin zerikusia dutenak, hurrengo urtean ehun eta hamazortzi eta kopuruak gora egiten du urtez urte 2004an, ehun eta hirurogeita hamasei testu kaleratuz. Beraz, kulturarekin zerikusia duten informazio, iritzi eta gainerako kazetaritza-generoei gero eta garrantzi gehiago aitortzen zaie aldizkarian, beti ere herriko ikuspegia galdu gabe. Ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu Euskal Birusa bera kultur elkartea dela eta bere oinarrietako bat Ermuan, euskararen erabileran oinarrituta eta euskara gizartearen alor guztietara zabalduz, kultura sustatzea dela.



### A) ARTE ESZENIKOAK

Arte eszenikoen gaiak hasierako hiru urteetan portzentaje berean mantendu dira (%13an), nahiz eta 118L. taulan ikus daitekeen moduan, kopuru absolutuak gutxika-gutxika hazi egin diren. Baina atal bakoitzeko portzentajeak urte osoko kultur testuen kopuru orokorraren arabera kalkulatu direnez, hasierako hiru urteetan berdin mantentzen dira. Hau da, 2000. urtean arte eszenikoekin zerikusia duten hamahiru item kaleratzen dira eta urte horretako kultur testu kopuru orokorra ehun eta hirukoa da, beraz, arte eszenikoen portzentajea %13koa. 2002. urtean arte eszenikoei buruzko hamazortzi testu kaleratzen dira eta portzentajea bera da, %13koa, baina urte horretako kultur item kopuru orokorra 2000koa baino altuagoa denez, ehun eta hogeita hamabostekoa, horrek portzentajea jaitsi egiten du.

Hurrengo bi urteetan portzentajea jaitsi egiten da, 2003an bereziki eta baita testu kopurua ere, baina 2004an berriz ere %12an kokatzen da. Horretan guztian zerikusi zuzena dute arte eszenikoen baitan dauden gai ezberdinek, alde nabarmenak daudelako bakoitzak urtero duen agerpenean. 2000-2004 bitartean ez da inoiz antzerkiari buruzko bost item baino gehiago kaleratu; izan ere, 2001ean aurkitu ditugu testu gehien, bost idatzi<sup>1371</sup> hain zuzen ere. Dantzari buruzko item kopurua urtero bat edo hiru testuren artean kokatzen da, 2000. urtea salbuespena izanik, sei item<sup>1372</sup> argitaratzen baitira dantza gai nagusi dutenak. Aurreko atalean aipatu bezala, musika da 2000-2004 bitartean arte eszenikoen baitan gehien errepikatzen den gaia eta urtero, bost item baino gehiago kaleratzen dira, 2004an dantzari buruzko hamalau testu<sup>1373</sup> argitaratzen dira.

### B) ARTE PLASTIKOAK

Arte plastikoen ataleko gaiak gero eta gutxiago agertzen dira *Drogeteniturr*in eta joera hori argi antzematen da 118K. grafikoan agertzen diren portzentajeetan eta 118L. taulan agertzen diren balio absolutuetan. Lehenengo urtean, arte plastiko ezberdinei buruzko hogeita bat testu agertzen dira (%20) eta lau urtetan erdira jaisten da item kopurua; 2004an hamabi testu baino ez dira kaleratzen eta portzentajea erdia baino gehiago jaisten da, %7an kokatuz. Jakin badakigu horren arrazoia, urteko kultur item kopuru orokorrean dagoela. Atal honen baitan sailkatu ditugun gai gehienak 2000 eta 2001ean gehiago agertzen direlako hurrengo hiru urteetan baino.

---

<sup>1371</sup>- Adibidea: "Hollywooden jendea gu bezalakoa da", Antonia San Juan antzerki aktoreari egindako elkarrizketa. 2001eko martxoko 78. alean. (6.-7. or.).

<sup>1372</sup>- Adibidea: "Andre Maixetan Kuba aldera" albistea. 2000ko uztaileko 71. zenbakian. (8. or.).

<sup>1373</sup>- Adibidea: "Musika Bandia be eukitxakuak gara" erreportajea. 2004ko azaroko 118. alean. (12.-13. or.).

2000. urtean argitaratzen dira pinturari buruzko testu gehien, sei item<sup>1374</sup> hain zuzen ere, hortik aurrera gutxiagotan agertzen da. Artisau eta eskulanak urtero bizpahiru aldiz agertu dira informazio ezberdinetan, 2001ean ordea zazpi testu<sup>1375</sup> argitaratu dira pinturaren inguruan. Arte ondarea guztira lau aldiz izan da albiste aldizkarian, 2003 eta 2004an, urte bakoitzean bi testutan<sup>1376</sup> agertuz. Argazkigintza eta kartelgintzari buruz urtero sei testu baino gehiago aurkitu dira eta 2000. urtean item kopuru altuena, hamabi informazio<sup>1377</sup> argitaratu dira eta berau da atal honetan gehien agertzen den gaia urtero. Eskultura ez da behin ere agertu *Drogeteniturr*in, guk aztertu ditugun berrogeita hamabost aleetan.

### C) GASTRONOMIA

Portzentajeak begiratu gero, gastronomia hasierako bi urteetan (%21 eta %19 hurrenez hurren) gehiago lantzen dela ondorioztatuko dugu. Testu kopurua kontuan hartzen badugu, aldiz, 2003 eta 2004an gastronomiari buruzko itemak hazi egin direla antzeman daiteke: 2003an hogeita zortzi testu eta 2004an hogeita hamalau testu argitaratzen dira, baina portzentajeak jaitsi egiten dira urteko testu kopuru orokorra azken bi urteetan altuagoa delako. Testu gehienak sukalde-errezetak diren arren, erreportaje bat<sup>1378</sup> eta gastronomiari buruzko hiru albiste labur<sup>1379</sup> ere aurkitu ditugu.

### D) LITERATURA

Literatura da gai guztien artean gehien agertzen den kultura gaia *Drogeteniturr*i aldizkarian eta urtetik urtera gaia gero eta gehiago agertzen da. Izan ere, portzentajeek bost urtetan hamahiru puntutan egin dute gora (2000. urtean %23ko portzentajea dute eta 2004an %36koa) eta item kopurua ia hirukoiztu egin da 2000-2004 bitartean: 2000. urtean literatura hogeita lau testutan agertzen da eta 2004an ordea, hirurogeita lau itemetan. Atal honetan gehiago errepikatzen da idatzizko literatura, ahozko literatura (bertsolaritza) baino, nahiz bata zein bestea urtero hazten diren. Bertsolaritzari buruzko sei item agertzen dira 2000. urtean eta 2004an hogeita bederatzi testu, gehienak albiste laburrak<sup>1380</sup>. Literatura eta liburuei buruzko testuak

<sup>1374</sup>- Adibidea: "Mugarteako erakusketa" albiste laburra. 2000ko abenduko 75. zenbakian. (8. or.).

<sup>1375</sup>- Adibidea: "Eskulan ikastaroa" albiste laburra. 2001eko ekaineko 81. alean. (9. or.).

<sup>1376</sup>- Adibidea: "Parrokixako errelikiak" erreportajea. 2003ko otsaileko 99. zenbakian. (22. or.).

<sup>1377</sup>- Adibidea: "Inauteri kartela aukeratzeko lehiaketa" albiste laburra. 2000ko urtarrileko 65. alean. (11. or.).

<sup>1378</sup>- "IV Gastronomia jardunaldiak". 2004ko ekaineko 114. alean. (22. or.).

<sup>1379</sup>- Adibidea: "Errioxa arabarrera bidaiatxo". 2002ko apirilko 90. zenbakian. (9. or.).

<sup>1380</sup>- Adibidea: "Durangaldeko bertsolari txapelketa". 2004ko maiatzeko 113. alean. (4. or.).

hamazortzi dira 2000. urtean eta 2004an, kopurua bi aldiz handiagoa da, hogeita hamabost itemetan<sup>1381</sup> agertzen baita.

### **E) KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideen atala hasierako hiru urteetan nahiko finko mantentzen da, %4 - %6 portzentajeen artean. Testu kopurua ere ez da asko aldatzen, 2000. urtean lau testu argitaratzen dira, 2001ean zazpi item eta 2002an sei idatzi, baina 2003an testu kopuruak gora egiten du urte horretan *Drogeteniturri* aldizkariaren 100. alea kaleratzen delako, herri komunikabidean oinarrituriko ale berezia hain zuzen ere. Hori dela eta, urte horretan bakarrik herri komunikabideei buruzko hogeita hiru testu<sup>1382</sup> argitaratzen dira. Zine eta telebistari buruzko idatziak urtero lau eta zazpi itemen artean kokatzen dira, 2003an zortzi testu<sup>1383</sup> kaleratuz.

### **F) EUSKARA**

Euskararen gaia batez ere 2000tik 2001era hazten da, ordutik aurrera finko mantenduz item kopuru absolutuari dagokionez. Euskara gai moduan lantzen duten testu gehien 2002an argitaratzen dira, hogeitaz item<sup>1384</sup> hain zuzen ere. Normalean arreta berezia eskaintzen zaie aldizkarian euskarari lotutako albisteei eta gehien azaltzen den gaien artean badago ere, datuen arabera guk aztertu dugun epean, gaiaren agerpena ez da bereziki altua izan.

### **G) KULTUR AGENDA**

Agenden portzentajeak murriztuz doaz poliki-poliki urtetik urtera nahiz eta kopuru absolutuetan ez den horrenbesteko ezberdintasunik atzematen. 2000. urtean hamahiru agenda kaleratzen dira eta urte horretako portzentajea %13koa da. 2004an hamabost agenda kaleratzen dira eta portzentajea %9koa da. Agenden kopurua nahiko finkoa da bost urteetan, ale bakoitzean hilabeteko ekitaldi kulturalak biltzen dituen agendaz gain, noizean behin herrietako jaietako agenda kultural ezberdinak<sup>1385</sup> agertzen direlako.

---

<sup>1381</sup>- Adibidea: "Neguko liburu zozketaren irabazleak" albiste laburra. 2004ko martxoko 111. zenbakian. (10. or.).

<sup>1382</sup>- Adibidea: "Hilero, aldizkaria pausoz pauso" argazki-erreportajea. 2003ko martxoko 100. alean. (20.-21. or.).

<sup>1383</sup>- Adibidea: "Laburmetraiak genero bihurtzen ari dira", Begoña del Tesori egindako elkarrizketa. 2003ko urtarrileko 98. zenbakian. (15. or.).

<sup>1384</sup>- Adibidea: "Eskolak euskaldundu behar du" albistea. 2002ko martxoko 89. alean. (25. or.).

<sup>1385</sup>- Adibidea: "Andra Mari jaiak 2000". 2000ko uztaileko 71. alean. (9. or.).

### **Kulturaren bilakaera bi hitzetan**


Laburbilduz, Kultura gaiek gero eta protagonismo handiagoa dute aldizkarian. Arte eszenikoen gaia, gastronomia eta literatura hazi egiten dira. Komunikabideei buruzko testuak, euskara eta agenda kulturalak biltzen dituzten egitarauak mantendu egiten dira, eta 2000-2004 bitartean arte plastikoei buruzko itemak jaisten dira. Tarte horretan arreta berezia eskaintzen zaie, literatura eta liburuen gaiari, gastronomiari, bertsolaritzari, agendei, euskara eta musikari.

#### 4.6.4.5- Kirola

*Drogeteniturri* aldizkarian gizarte-gaien eta kultura gaien ostean, kirolak dira gehien agertzen diren hirugarren gaia, baina aldea nabarmena da batzuen eta besteen artean. Gizarte-gaiak eta kultura %35etik gorako portzentajeetan azaltzen dira eta kirolak guztira bost urteko epean %13ko portzentajeetan kokatzen dira. Orain arte jarraitutako eskema bera errepikatu dugu atal honetan ere, bi grafiko eta taulen bitartez kirolen garapena aztertuko dugu. Lehenengo eta behin, Ermua eta Mallabiko aldizkarian 2000-2004 bitartean kirol ezberdinen agerpen orokorra nolakoa izan den ikusiko dugu. Ondoren, kirol bakoitzak urtez urte hilabetekarian izan duen bilakaera azalduko dugu.

##### 4.6.4.5.1- Kirola 2000-2004 bitartean

119K. grafikoa



Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak ehunekotan, *Drogeteniturri* aldizkarian bost urteko epean.

119L. taula

	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
Kopuru absolutuak	69	150	10	16	245

Kirol gai ezberdinen kopuru orokorrak, zenbaki absolutuetan.

Kategoria sisteman azaldu dugun bezala eta 119K. grafikoan eta 119L. taulan ikus daitekeenez, kirol guztiak lau bloke nagusitan sailkatu dira, emaitzen sakabanatzea saihesteko eta kopuru esanguratsuagoak lortzeko. Horrela bada, kirol ezberdinak batzen dituzten hamazortzi

azpi-kategoriak lau taldetan banatuta daude. Ikus dezagun azpi gai bakoitzaren agerpen orokorra 2000-2004 bitartean Ermua eta Mallabiko hilabetekarian.

Guztira kirolari buruzko 245 item argitaratu dira *Drogeteniturr*i aldizkarian eta ikerketa honetan aztertu diren berrogeita hamabost aleetan, bi garai bereiz daitezke kirol informazioari dagokionez: Lehenengoa 2000-2003 tartean kokatuko genuke, non kirolari buruzko informazioak bi orri dituen eta maiz, orrietako batean kirol ezberdinei buruzko lau edo bost albiste labur kaleratzen diren. Bigarren epea 2003ko apiriletik 2004ko abendura arte doana da, non orri bakarria eskaintzen zaion kirolari eta normalean kirol bakar bati buruzko elkarrizketa argitaratzen den. Horrela bada, hurrengo atalean frogatuko dugu, urtetik urtera item kopuruak behera egiten duela.

119K. grafikoan eta 119L. taulan argi ikus daiteke, banakako kirola talde kirola baino gehiago agertu dela aldizkarian. Ezin ahaztu daiteke banakako kirolaren atala bederatzi azpi gaiak osatzen dutela eta talde kirolaren baitan sei azpi gai baino ez daudela, hori guztia ezinbestean emaitza orokorretan islatuz. Gainera, kirol guztien artean Ermua eta Mallabiko hilabetekarian bost urteotan gehien agertu diren kirolak, pilota eta txirrindularitza izan dira; biek oso kopuru antzerakoa izanik, berrogeita hamabi eta berrogeita bederatzi item hurrenez hurren eta biak banakako kirolen blokean sailkatuta daude.

#### **A) TALDE KIROLA**

Talde kirolari dagokionez, mendia izan da gehien errepikatu den kirola, guztira berrogeita hamabost aleetan hogeita bederatzi aldiz agertuz. Izan ere, bost urteotan Ermuko Artarrai Mendi Taldeko kidea den kolaboratzaile finkoa izan da aldizkarian. Berari esker landu da mendiaren gaiari: ibilbide ezberdinak edota eskaladari buruzko erreportajeak izan dira besteak beste atal honetan kaleratu direnak.

Mendiarekin batera gehien agertu den bigarren talde kirola, futbola izan da; orotara futbolari buruzko hogeita zortzi testu kaleratu dira. Gaur egun, beste hainbat herritan bezala, Ermuan zein Mallabian, futbol talde ezberdinetan jende eta gazte ugari mugitzen da eta aldizkariak horiei tartea egiten die bere orrietan, bereziki beste hedabide batzuetan ateratzeko zailtasunak dituzten taldeei: gaztetxoek futbola, nesken futbola edo zaletuen futbolari esaterako.

Eskubaloia eta saskibaloia askoz gutxiago agertu dira aldizkarian 2000-2004 bitartean. Eskubaloiar buruzko bederatzi testu eta saskibaloiar buruzko hiru testu soilik argitaratu dira

*Drogeteniturrin* berrogeita hamabost aleotan. Ahalegintzen bada ere, aldizkariak askotan ezin izaten du herrietako kirol talde guztien jarraipen etengabea egin, berauen kopuru zabalari, aldizkariak bere giza baliabideekin ezin diolako aurre egin. Sarritan kirol taldeak aldizkarira hurbiltzen direnean heltzen zaio gaiari.

### **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kirolen artean pilota (berrogeita hamabi item) eta txirrindularitza (berrogeita bederatzi testurekin) izan dira berrogeita hamabost aleotan gehien jarraitutakoak. Izan ere, aldizkarian beti jarri izan zaie bi kirol horiei arreta berezia. Alde batetik, bai Mallabia zein Ermua kirol horietan, batez ere pilotan, betidanik zale eta pilotari askoren harrobi izan direlako: Igor Astarloa, Aitor Hernández, Mikel Pradera, Aitor Galdos, Pedro Horrillo... Bestetik, protagonista direnei ez zaielako bestelako hedabideetan kasu handirik egiten eta aldizkarira sarri askotan jotzen dutelako. Aldizkariak horren isla izan nahi du, herriak estimatu eta gogoko dituen protagonista horiek bere orrietan aterata eta aldizkaria bera erakargarri bihurtuz. Ez dago esan beharrik, agerraldi horik euren lan eta ahaleginen errekonozimendu izan nahi dutela.

Bestelako banakako kirolek ez dute horrenbesteko agerpen-mailarik izan, atletismoa hamalau testutan agertu da, herri kirolak hemeretzi aldiz, borroka arteak bederatzi idatzitan izan dira protagonista, automobilismoa eta motoziklismoa hiru bider azaldu da, duatloi eta triatloia bi itemetan eta igeriketa bi testutan izan da albiste. Eskia ez da inoiz albiste izan aldizkarian.

### **C) EHIZA ETA XAKEA**

Ehiza eta Xakea atalean, bi kirol horiek bildu dira, diziplina horien kirol izaeraren inguruan zalantza ugari sortzen delako. Ehiza ez da inoiz agertu aldizkarian, ez kirol atalean ezta bestela ere. Xakea, aldiz, kirol moduan agertu izan da beti *Drogeteniturrin*. Are gehiago, horri buruzko eztabaida, iritzi-zutabe eta kale-inkesta bateko gaiak izan dira bost urte hauetan. Guztira hamar testutan izan da protagonista xakea aldizkarian.

### **D) KIROL AGENDA**

Kirol agenda izendatu dugun bloke horretan bi motatako testuak sailkatzen dira: batetik, kirol bat baino gehiago aipatzen dituzten testu, agenda eta informazioak eta bestetik, kategoria zehatza ez duten kirolak. *Drogeteniturrin*en kasuan, kirol bat baino gehiago biltzen dituzten zortzi testu aurkitu dira eta kategoria sistematik at dauden bost kirolei buruzko informazioak

argitaratu dira: raftinga, skate, boloak Ermuko emakume raketistei eskainitako testu bakarra eta boxeolari buruzko biak.


### **Kirola bi hitzetan**

Oro har, Ermua eta Mallabian oihartzun gehien duten kirolak, *Drogeteniturr*in gehien agertzen direnak, pilota eta txirrindularitza dira. Batetik, informazio mota hori esker onekoa delako, batez ere irakurlea erakartzen baitu aldizkarira eta bestetik, jende asko mugitzen delako kirol horien inguruan eta batzuetan zailtasunak dituztelako bestelako hedabideetan irteteko. Azken ikuspegi hori, ordea, herrietako bestelako kirolak lantzerako orduan ere oso kontuan hartzen da. Bost urte hauetan aldizkariaren orrietan agertu diren kirol ezberdinek hori erakutsi dute, eta erredakzio taldean ahal den neurrian kirolen arteko oreka bilatzeko ahalegina egiten da. Hau da, behin agertu bada atletismoari buruzko elkarrizketa, denbora tarte bat pasatu arte ez da berriz elkarrizketa gisa azalduko. Halaber, erredakzio taldean kontratupeko langile bakarra izateak badu eraginik gaiei heltzerako orduan, zer esanik ez kirolen atala lantzen duen erredaktorea (gainerako guztiak bezala, koordinatzailea izan ezik) borondatez ari denean. Hala ere, esan beharra dago, gaian espezializatu eta kirol erreferente esanguratsua dela kirol taldeentzako. Zerbait esan gura dutenean, zuzen zuzenean jotzen dute berarengana.



#### 4.6.4.5.2- Kirolaren bilakaera

120K. grafikoa



Kirol gai ezberdinen bilakaera portzentuala *Drogeteniturri* aldizkarian, 2000tik 2004ra bitartean urtez urte.

120L. taula

Kopuru absolutuak	URTEAK	Talde kirola	Banakako kirola	Ehiza+Xakea	Kirol agendak	GUZTIRA
	2000	21	39	3	5	68
	2001	14	40	2	4	60
	2002	10	22	2	5	39
	2003	16	32	1	0	49
	2004	8	17	2	2	29

Kirol gaien bilakaera, 2000-2004 bitartean. Kopuru absolutuak.

Urtez urteko item kopuru orokorrari begiraturaz, *Drogeteniturri* kirola gero eta gutxiago lantzen dela ondoriozta daiteke. Hots, 2000. urtean kirolei buruzko hirurogeita zortzi item azaltzen dira eta 2004an kopurua hogeita bederatzira arte jaisten da. Beheranzko joera urtetik urtera antzematen bada ere, askoz gehiago nabaritzen da 2004. urtean. Izan ere, 2003ko apiriletik aurrera kirolari aldizkarian eskaintzen zaion tartea txikiagoa da: ordura arte bi orritan jasotzen dena, ordutik aurrera orri bakarrean agertuko da. Horren arrazoia, aldizkarian bestelako gai eta sail batzuei tokia gitea da batik bat.

#### A) TALDE KIROLA

Talde kirola urtetik urtera jaitsi egiten da baina beheranzko joera hori nabarmenagoa suertatzen da kopuru absolutuetan (120L. taulan) urte bakoitzeko portzentajeetan (120K.

grafikoan) baino. Hau da, 2000. urtean talde kirolari buruzko hogeita bat testu argitaratzen dira eta portzentajea %31ean kokatzen da. 2004an talde kirolari buruzko item kopurua zortzikoa da eta portzentajea hiru puntu bakarrik jaisten da, %28an kokatuz. Behin baino gehiagotan azaldu dugun arrazoiaren ondorioa dela gogoratu behar dugu beste behin ere. Portzentajeak, urte bakoitzeko item kopuru orokorraren arabera kalkulatzen dira eta kopuru orokorra zenbat eta baxuagoa izan, kasu honetan bezala, portzentajeak orduan eta altuagoak dira. Ondorioz, 2000. urteko item kopuru orokorra hirurogeita zortzikoa izanik portzentajea %31koa da eta 2004ko item kopuru orokorra hogeita bederatzikoa izanik, portzentajea %28koa suertatzen da.

Kontuak kontu, talde kirolaren baitan mendiari buruzko testuak nagusitzen dira ia urtero. 2000-2002 bitartean urtero bost item kaleratzen dira eta 2003an hamaika idatzitan<sup>1386</sup> da mendia protagonista. 2004an, aldiz, mendiari buruzko bi testu bakarrik azaltzen dira, mendi taldeko aipatutako kidearen kolaborazioak gero eta urriagoak baitira.

Futbola da mendiaren ostean gehien agertzen den talde kirola, batez ere hasierako urtean hamabi testutan<sup>1387</sup> aurkitu dugu futbolaren gaia. Hurrengo lau urteetan futbolari buruzko item kopurua asko jaisten da, urtero laupabost aldiz agertuz.

Eskubaloia oro har ez da asko agertu aldizkarian eta gainerako kirol guztiak bezala, eskubaloitari buruzko item kopuruak ere, urteak pasa ahala behera egin du. 2000. urtean lau testutan<sup>1388</sup> azaldu bada ere, urtero behin baino ez da agertzen talde kirol hau.

Saskibaloia oso gutxitan agertu da *Drogeteniturr*in eta ez zaio jarraipenik egiten. Gehien agertu den urtea 2001ean izan da eta bi albiste laburretan<sup>1389</sup> baino.

## **B) BANAKAKO KIROLA**

Banakako kirolen artean pilota eta txirrindularitza dira nagusi eta joera hori azterketa epe osoan nabaritzen da. Pilotari buruzko testu gutxien 2002an kaleratzen dira, lau item hain zuzen ere eta gehien 2001ean, urte osoko hamaika aleetan hamasei aldiz<sup>1390</sup> agertzen baita pilotari buruzko testuren bat.

<sup>1386</sup>- Adibidea: "Bi haran ezagutzera" erreportajea. 2003ko martxoko 100. alean. (48. or.).

<sup>1387</sup>- Adibidea: "EFBE: Juventud Txapeldun" albiste laburra. 2000ko ekainaren 70. zenbakian. (25. or.).

<sup>1388</sup>- Adibidea: "Datorren urtean Donostiako Bera-Bera taldera joango naiz seguruenik", Esther Larrañaga ermuarrari egindako elkarrizketa. 2000ko martxoko 67. alean. (21. or.).

<sup>1389</sup>- Adibidea: "Saskibaloit taldeko jokalaria bat zigortua" albiste laburra. 2001ko urtarrileko 76. zenbakian. (17. or.).

<sup>1390</sup>- Adibidea: "Esperientzia bikaina Ameriketara", Mallabiko Unai Martin eta Agustín Solozabal pilotariei egindako elkarrizketa. 2001eko urtarrileko 76. alean. (6.-7. or.).

Txirrindularitza askotan agertu da aldizkarian bost urteotan, nahiz eta azken urtean joera orokorraren eraginez, item kopuruak nabarmen egin duen behera. 2002an txirrindularitzari buruzko hamahiru item<sup>1391</sup> kaleratzen dira, urterik oparoena izanik, baina 2004an lau testutan agertzen da txirrindularitza. Beraz, 2003ko apiriletik aurrera aldizkarian kirol gutxiago sartzearen eragina txirrindularitzan ere antzematen da.

Gainontzeko banakako kirolak neurri txikiagoan agertzen dira, pilota eta txirrindularitzarekin alderatuz. Atletismoa 2000, 2001 eta 2003an lau testutan<sup>1392</sup> agertzen da urte bakoitzean, 2002 eta 2004an behin bakarrik urte bakoitzean. Herri kirolak hasierako urtean agertzen dira batik bat, bederatzi testutan<sup>1393</sup> hain zuzen ere; hortik aurrera agerpen-maila nabarmen jaisten da ia desagertu arte. Borroka artei buruzko hiru testu<sup>1394</sup> aurkitu ditugu 2000 eta 2001ean eta hortik aurrera hirutan agertu da 2002-2004 bitartean. Igeriketari buruzko bi testu<sup>1395</sup> kaleratu dira, bata 2001ean eta bestea 2004an. Duatloia eta triatloia bi aldiz<sup>1396</sup> izan dira albiste hilabetekarian, behin 2000. urtean eta beste behin 2001ean. Automobilismoa eta motoziklismoa ere ez dira asko agertu *Drogeteniturrin*, 2000. urtean behin eta 2001ean bi testutan<sup>1397</sup> bakarrik.

### C) EHIZA ETA XAKEA

Ehiza ez da azaldu ere egiten *Drogeteniturrin* eta xakeari eskaintzen zaion portzentajea urtero,%5 - %6 artekoa da eta item kopurua urtero oso antzerakoa da. 2000. urtean xakeari buruzko hiru albiste labur<sup>1398</sup> argitaratzen dira, 2001, 2002 eta 2004an bi item urte bakoitzean eta 2003an behin bakarrik agertzen da albiste gisa.

### D) KIROL AGENDA

Azkenik, kirol agenda atalari batzaz beste %7ko portzentajea dagokio urtero, nahiz eta azken bi urteetan item kopuruak behera egin. 2000. urtean, bost item kaleratuta, %7ko portzentajea aitortzen zaie kirol agendei. 2002. urtean bost item kaleratzen dira eta portzentajea

<sup>1391</sup> - Adibidea: "Italiakoa esperientzia aberasgarria izan da", Aitor Galdos ermuar txirrindulariari egindako elkarrizketa. 2002ko urtarrileko 87. zenbakian. (16. or.).

<sup>1392</sup> - Adibidea: "Udazkenarekin batera badator kros denboraldia" erreportajea. 2003ko iraileko 105. alean. (15. or.).

<sup>1393</sup> - Adibidea: "Harri jasotzearekiko lotura ez dut sekula galduko", *Zelai* Mallabiko harri jasotzaileari egindako elkarrizketa. 2000ko apirileko 68. zenbakian. (8. or.).

<sup>1394</sup> - Adibidea: "Karatea emakumeen kirola ere bada", Rosi Sanchez karatekari egindako elkarrizketa. 2000ko ekainaren 70. alean. (24. or.).

<sup>1395</sup> - Adibidea: "Umeek uste baino gehiagotan harritzen gaituzte", David Marcos eta Leire Garcia kiroldegiko igeriketa monitoreei egindako elkarrizketa. 2004ko otsaileko 110. zenbakian. (22. or.).

<sup>1396</sup> - Adibidea: "Hawaiko Iron Man-a egitea ere nahiko nuke", Manolo Mendez Ermuko Triatolariari egindako elkarrizketa. 2000ko urriko 73. alean. (28. or.).

<sup>1397</sup> - Adibidea: "Muiños Espainiako moto txapelketan" albiste laburra. 2001eko ekaineko 81. zenbakian. (25. or.).

<sup>1398</sup> - Adibidea: "Xake taldea euskal ligan". 2000ko azaroko 74. alean. (25. or.).

%13ra arte igotzen da eta 2004an, bi testu argitaratuz, portzentajea %7an kokatzen da. Jakin badakigu urte bakoitzeko item kopuru orokorrak eragiten dituela horrelako aldaketak portzentajeetan. Kirol bat baino gehiago aipatzen dituzten zortzi albiste labur<sup>1399</sup> kaleratu dira eta kategoria sistematik kanpo dauden kirol ezberdinei buruzko honako testu kopurua aurkitu dugu Ermua eta Mallabiko hilabetekarian: rafting<sup>1400</sup> (bat), skate<sup>1401</sup> (bat), Ermuko emakume raketistak<sup>1402</sup> (bat), boxeoa<sup>1403</sup> (bi), gimnasia eta aerobic<sup>1404</sup> (bi) eta boloak<sup>1405</sup> (bat).

### **Kirolaren bilakaera bi hitzetan**

*Drogeteniturr*in urteak pasa ahala, kirolaren presentzia urriagoa da. Lehenengo hiru urteetan kirol gehiago modu laburragoan sartzen badira ere aldizkarian, 2003ko apiriletik aurrera, kirol bakarrari egiten zaio tokia hileroko modu zabalagoan landuz. Urteen arabera argi antzematen da kirol batzuei jarraipen gehiago egiten zaiela beste batzuei baino; horretan eragina izan dezake, lan-taldean ari den jende gehienak ez duela kirol zaletasun handirik eta pertsona bakar batean erortzen dela kirolari buruzko informazioa biltzeko ardura gehiena.

<sup>1399</sup> - Adibidea: "Santixauetan kirol ugari". 2000ko maiatzeko 69. zenbakian. (16. or.).

<sup>1400</sup> - "Rafting-ak zirrara une asko eskaintzen du", Endika Fernández, Rafting taldeko kideari elkarrizketa. 2002ko martxoko 89. alean. (6.-7. or.).

<sup>1401</sup> - "Skate parke baten premia" erreportajea. 2002ko martxoko 89. zenbakian. (29. or.).

<sup>1402</sup> - "Garai bateko Ermuko raketistak gogoratuz" erreportajea. 2002ko apirileko 90. alean. (20.-21. or.).

<sup>1403</sup> - Adibidea: "Nazioarteko boxeoa emanaldia" albiste laburra. 2000ko otsaileko 66. zenbakian. (28. or.).

<sup>1404</sup> - Adibidea: "Aerobik eta gimnasia" albiste laburra. 2002ko iraileko 94. alean. (9. or.).

<sup>1405</sup> - "Bolo txapelketa kanporaketie Goititan" albiste laburra. 2004ko azaroko 118. zenbakian. (9. or.).

#### **4.6.5- DROGETENITTURRI ALDIZKARIAREN ARDATZAK**

*Drogeteniturri* aldizkaria 2000. urtean berpiztu zela esan daiteke. Oso egoera larrian egon eta gero, burua altxatu eta aurrera egitea lortu zuen. Ezinbestekoa izan zen lan-taldearen indarra, Eibarko ...*eta kitto!* astekariko langileen laguntza eta azpiegituran inbertsio garrantzitsua egitea. Ordutik aurrera aldizkaria etengabe hobetu da, bai edukiz zein itxuraz, publizitate-bezero gehiago lortu ditu eta profesionalizatzeko bidean jarri da. Horren erakusle garbia dira, 2000-2004 bitartean kazetaritza-generoek eta gaiek *Drogeteniturrin* izan duten bilakaera.

##### **4.6.5.1- Kazetaritza-generoak**

Bost urteotan **informazioa** izan da kazetaritza-genero izarra aldizkarian, baina iritzia eta zerbitzuen presentzia urtetik urtera areagotuz joan da. Ondorioz, kazetaritza-generoak hobeto erabili dira eta horien arteko oreka handiagoa lortu da. Izan ere, informazioa hazi egin da urtetik urtera, eta irakurleari irakurterrazak diren generoen bitartez eskaini zaio informazioa, **albiste labur, elkarrizketa** eta **albisteen** bitartez, edukiak erakargarriagoak bihurtuz.

Tesi honetan agertu diren gainerako bost aldizkarietan ere, informazioa da kazetaritza-genero garrantzitsua eta informazioaren baitan, aldizkari guztietan genero labur eta arinak dira nagusi: albiste laburrak eta albisteak batik bat. Hona hemen aldizkari bakoitzaren informazio kopuru orokorrak: Debako *Berriketan*en %58, Mutrikuko *Kalaputxin* %59 (hiru urtetan), Elgoibarko *Barrenen*, %62, Soraluzeko *Pil-pileanen* %66, *Drogeteniturrin* %69 eta Eibarko ...*eta kitto!*-n %79ko portzentajearen kokatu da informazioa. *Berriketan*, *Drogeteniturri* eta *Barrenen* urteekin erreportajeak gero eta gehiago erabiltzen dira. ...*eta kitto!* eta *Barrenen*, berriz, elkarrizketa kopuruak behera egin du, *Pil-pileanen*, *Berriketan* eta *Drogeteniturrin*, elkarrizketa kopuruak gora egiten duen bitartean.

Halaber, iritziari ere toki handiagoa egiten zaio aldizkari orrialdeetan, batez ere **kale-inkesta** eta **iritzi-zutabeei**. Bi iritzi-genero horiek erabiliz hiritarren pentsaera eta ahotsari lekua egiteko saiakera sumatzen da aldizkarian, kolaboratzaile puntualen kopurua gehituz eta iritzi-pluraltasuna lortuz.

Hala eta guztiz ere, *Drogeteniturri* dugu, ...*eta kitto!*-rekin batera, iritziari toki gutxien eskaintzen dion aldizkaria. Gogora ditzagun aldizkari bakoitzaren balio portzentualak:

...*eta kitto!*-n %7an kokatzen da iritzia, *Drogeteniturrin* %9an, *Pil-pileanen* %13an, *Barren* eta *Kalaputxin* %16an eta *Berriketanen* %20an.

...*eta kitto!*, *Barren* eta *Kalaputxin* irakurleen gutunak dira iritziaren baitan inportanteenak; *Pil-pilean*, *Berriketan* eta *Drogeteniturrin*, ordea, irakurleen gutunen agerpen-maila hutsala izan da. Dena dela, sei aldizkarietan gehien agertzen den iritzi-generoa, kale inkesta izan da 2000-2004 bitartean.

Literatura betidanik agertu da aldizkarian **bertso** edo **esamolde** itxurarekin, baina beti izan da aldakorra eta esperimentalak.

Lan honetan aztertu ditugun aldizkari guztietan literatura gutxien landu den atala izan da eta datuek horixe frogatzen dute: *Barrenek*, %1ean landu du literatura, *Pil-pileanek* %2an, *Drogeteniturririk* %3an eta *Berriketanek* %5ean. *Drogeteniturrin*, *Pil-pileanen* bezala, literaturaren barnean bertsoak izan dira nagusi. Dena dela, literatura aldizkari bakoitzean oso modu ezberdinean azaldu da eta gehienetan genero esperimentalak izan dela esan daiteke.

Urteak pasatu ahala, zerbitzuen atala indartu eta finkatu egin da, aldizkariko bigarren atalik inportanteena bilakatuz; irakurleak erabili eta estimatzen duen informazioa baita gainera. Zerbitzu-gunearen baitan, **denbora-pasak**, **informazio erabilgarria** eta **agenda** izan dira ugarietak gure azterketa-epean.

Debako aldizkarian ez eze (iritzia da informazioaren ostean sailik indartsuena), gainerako bost agerkarietan ere zerbitzuena da informazioaren ostean atalik garrantzitsuena. 2000-2004 bitartean Eibarko ...*eta kitto!*-n %14ko portzentajea kokatu dira zerbitzuak, *Berriketanen* %17an, *Barrenen* %18an, *Pil-pileanen* %19an, *Drogeteniturrin* %20an eta *Kalaputxin* (2002-2004) %21ean. Zerbitzuen barnean, agendak sei errebistetan agertzen dira gehien errepikatzen direnen artean. *Kalaputxin*, ...*eta kitto!*-n, *Barrenen* eta *Berriketanen* zerbitzu-informazioa asko agertzen da. Eibarko eta Elgoibarko aldizkarietan salerosketa/trukeen atalari astero orrialde bat eskaintzen zaio; *Pil-pilean*, *Berriketan* eta *Drogeteniturrin*, ordea, denbora-pasak zerbitzurik garrantzitsuenen artean ditugu.

#### 4.6.5.2- Gaiak

Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturrri* hilabetekarian 2000-2004 bitartean gai anitzei buruzko informazio eta iritziak kaleratu dira. Hasieran gutxiago lantzen ziren gaiak, ekonomia

eta politika esaterako, urteen poderioz gehiago landu dira. Dena dela, **gizarte-gaiak** eta **kultura** dira aldizkariko gai nagusiak eta bertan antzematen da herriko eguneroko bizitza eta herritarren intereseko gai nagusiak zeintzuk diren. Gai guztiek, kirolak izan ezik, hazkundera izan dute 2000-2004 bitartean. Orokorrean, urteen joan etorriarekin aldizkariko edukiak hobeto orekatzen eta kudeatzen ikasi du lan-taldeak.

Lan honetan ikertu ditugun gainerako bost herri-aldizkarietan ere, lehenengo gizarte-gaiak eta ondoren kultura izan dira gehien agertu direnak 2000-2004 bitartean.

Guk aztertu dugun epean, politika gutxien agertzen den gaien artean egon da eta kopuru finkoetan mantendu da. Politika agertzen denean, ia beti herriko ikuspegitik lantzen da. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritza eta Aldundia bezalako herriz gairik erakundeei buruzko testuak ez dira agertu ere egiten. Bai ordea, herriko erakundeak, Ermua eta Mallabiko **udalak** esaterako, eurak baitira politikaren protagonista nagusiak. Ondoren, baina askoz gutxiago, **alderdiak**, Euskal Herriko gatazka eta **gerra/ejertzitoen** gaiak azaldu dira.

*Pil-pilean* hamabostekarian izan ezik, berau da politika gehien jorratu duen aldizkaria gure azterketa-epetan; politika gutxien landu den gaien artean agertzen da gainerako bost aldizkarietan. Ikus ditzagun 2000-2004 bitarteko portzentaje orokorrak: ...*eta kitto!*, *Kalputxi* eta *Berriketanen* %5ean kokatzen da portzentajea. *Barrenen* eta *Drogeteniturrin* %7an eta *Pil-pileanek* azken bien portzentajearen bikoitza eskaini dio politikari, %14 hain zuzen ere.

Deba Barreneko sei herri-aldizkarietan gehien agertzen diren gai politikoak honako hauek dira: udala, Euskal Herriko gatazka eta alderdiak. *Pil-pilean*, *Drogetenituri* eta *Kalputxin* udala da gehien agertzen dena, ...*eta kitto!*-n eta *Berriketanen* Euskal Herriko gatazka eta *Barrenen* alderdiak. Gogoratu beharra dago, gerra eta ejertzitoen gaia *Berriketan* eta *Drogeteniturr* aldizkarietan landu dela gehien.

Gai ekonomikoei ere, ez zaie arreta berezirik jartzen *Drogeteniturrin*, ez bederen herritarrei zuzenean eragiten dien edo irakurleentzat erakargarriak izan daitezkeen gaiak ez direnean. Horregatik, atal honetan gehien agertzen den gaia **merkataritza** da, herriko ekonomiaren motore garrantzitsuenetakoa dena. **Laborala/langabezia** eta **enpresa** ere gai garrantzitsuak dira ekonomiaren baitan. Oro har, ekonomiari buruzko informazio gutxi eta era laburrean ematen da, gaiaren konplexutasuna samurtzeko.

Gainontzeko bost aldizkarietan ere, gutxi azaldu da ekonomia: *Pil-pilean* eta *Drogeteniturrin* %4an kokatu da bost urteko portzentaje orokorra, *Berriketanen* %5ean, ...*eta kitto!* eta *Barrenen* %6an eta *Kalaputxin* hiru urtetan ekonomia %10ean kokatu da.

Sei aldizkarietatik lautan merkataritza da gehien azaltzen den gai ekonomikoa: *Berriketan*, *Barren*, *Pil-pilean* eta *Drogeteniturrin* hain zuzen ere. Enpresa da gai ekonomiko nagusia ...*eta kitto!*-n eta jarraian merkataritza. *Kalaputxin*, ordea, itsasoa/arrantza da gehien errepikatzen den gai ekonomikoa.

**Gizarte-gaiak** dira nagusi *Drogeteniturrin*, herritarren eguneroko bizitzatik gertu dauden gaiak diren neurrian. Horrez gain, sarritan herritarrak eurak dira protagonistak eta herriko aldizkarian euren errealitatea islatuta agertzea eskertzen dute, irakurleek euren berri izan dezaten, bestelako hedabideetan inoiz ez lirakeelako albiste izango. Hori dela eta, **gizarte ohiturena** da gehien agertzen den gaia. Ondoren eta orden honetan, **zerbitzuak**, **lanak**, **hezkuntza** eta **taldeak** azaltzen dira.

Joera bera jarraitzen dute gainerako bost aldizkarietako ere. Gizarte ohiturak lehenengo eta zerbitzuak ondoren agertzen direlako gehien gizarte-gaien baitan. Mutrikuko *Kalaputxik* %51ko portzentajea eskaini die gizarte-gaiei, Soraluzeko *Pil-pileanek* %49koa, Elgoibarko *Barrenek* %46koa, Debako *Berriketane* %47koa, Eibarko ...*eta kitto!*-k %42koa eta Ermuko eta Mallabiko *Drogeteniturr* baxuena, %39koa. Gizarte ohitura eta zerbitzuekin batera, hezkuntza eta lanak sei aldizkarietan gehien agertzen diren beste bi gaiak dira.

Arestian aipatu bezala, kultura da aldizkariko bigarren gai garrantzitsuena, Ermuan eta Mallabian dagoen bizitza kulturalaren isla. Izan ere, lan honetan aztertu diren sei aldizkarien artean, *Drogeteniturr* dauka kulturaren portzentajerik altuena. **Literatura**, **gastronomia**, **bertsolaritza**, **agenda**, **euskara** eta **musika** dira gai kultural erabilienak.

Ermua eta Mallabiko hilabetekariarekin batera, Debakoa da kultura gehien jorratzen duena: *Drogeteniturrin* bost urtetan kulturaren portzentaje orokorra %37an kokatu da, *Berriketanen* %35ean, ...*eta kitto!*-n %28an, *Barrenen* %25ean, *Kalaputxin* %22an eta *Pil-pileanen* %21ean. Deba Barreneko sei herri-aldizkarietan arte eszenikoak, gehien jorratzen diren gaien artean azaltzen dira, eta guztietan arte eszenikoen barnean musika gehien errepikatzen dena da. ...*eta kitto!*-n eta *Barrenen* gai kultural garrantzitsuena arte eszenikoena da; *Pil-pileanen* eta *Barrenen*, literaturak eta euskarak protagonismo berezia dute, *Berriketan*



eta *Drogeteniturrin* gai garrantzitsuena literatura da. *Kalaputxin* komunikabideak azaltzen dira gehien.

Kirola da 2000-2004 bitartean agerpen-maila murriztu duen gai bakarra, tarte gutxiago eskaintzen zaio kirol informazioari urteak aurrera egin ahala. Oro har banakako kirola agertzen da gehien eta banakakoen artean, **pilota** eta **txirrindularitza** dira kirol nagusiak; Ermua eta Mallabiko zaletasun handien isla hain zuzen ere. Dena dela, kirol batzuek beste batzuek baino jarraipen handiagoa dute aldizkarian. Kirol gaiak lantzeko erredaktore boluntario bakarra izateak eragin zuzena izan dezake horretan.

Urteekin *Drogeteniturrin* kirolak beheranzko joera izan badu ere, *Pil-pilean* eta *Berriketan* aldizkarietan Bizkaiko hilabetekarian baino gutxiago agertzen da kirola. Gure azterketa-epean *Berriketan*en %8ko portzentajea izan du kirolak, *Pil-pilean*en %11koa, *Kalaputxin* %12koa, *Drogeteniturrin* %13koa, *Barrenen* %16koa, eta, ...*eta kitto!*-n %17koa. Sei aldizkarion artean, Mutrikukoan soilik nagusitzen da talde kirola, gainontzekoetan banakako kirola aurretik agertzen baita. Errebista guztietan futbola da gehien azaltzen den kirola, *Drogeteniturrin* izan ezik, pilota delako nagusi. Era berean, futbolarekin batera, ...*eta kitto!* eta *Pil-pilean*en pilota eta txirrindularitza gehien agertzen diren bi kirolak dira. Debako eta Ermua eta Mallabiko aldizkarietan ere, txirrindularitza gehien agertzen diren kirolen artean dago. *Barren* eta *Pil-pilean* aldizkarietan, mendia, atletismoa eta kirol agendak inportanteak dira agerpen-mailara dakionez. *Berriketan* hilabetekarian ere, mendia eta atletismoa sarri askotan aurkitu ditugu. *Kalaputxin*, mendia eta arrauna dira futbolarekin batera bi kirol inportanteenak.

#### 4.6.5.3- Gibel-iruzkinak

Aldizkaria bera irakurterraza eta arina da, kazetaritza-genero arinak eta gertuko gaiak lantzen dituen eta euskararen normalizazioan eragiten duena.

*“Euskaldunentzat behar-beharrezkoa da eta pozgarria gainera. Euskara ez dakitenentzat pizgarria izan daiteke. Arrazoi bat euskara ikasteko. Bertoko albisteak euskaraz irakurtzeko aukera ematen digu eta ez dugu horretarako aukera gehiegirik. Beraz, bertakoa, euskaraz eta doan. Luxu bat!”*<sup>1406</sup>

---

<sup>1406</sup> - Mari Feli Manzidor euskara irakasleak *Drogeteniturrin* egindako adierazpenak. 2003ko martxoko 100. alean. (38. or.).

Hala eta guztiz ere, aldizkaria egiten duen lan-taldean kontratupeko bi langile daude eta bakarra da kazetaria, gainerako erredaktore guztiak laguntzaileak dira, boluntarioak eta ez dute kazetaritza ikasketarik. Koordinatzailea eta diseinugilea dira kazetari bakarrak eta, Alazne Aiestaran *Drogeteniturri* aldizkariaren koordinatzailearen ustez, *“bi langile horiek maiz irizpide profesionalak markatzen dituzte, batez ere kazetaritza-generoen erabilerari dagokionean. Izan ere, kazetariak ez diren erredaktoreek ez baitakite askotan titularra jartzen, tartekiak ahaztu egiten dituzte edota askotan eurak gustuko dituzten gaiak lantzeko joera nabarmena izaten dute”*.

Ezin ahaztu, ordea, kolaboratzaile finkoak diren batzuk, aldizkaria kaleratzen hasi zenetik dihardutela idazten eta hamasei urteko ibilbidea egin ondoren, kazetaritzaren nondik norakoak zeintzuk diren ikasi dituztela.



## **5- EMAITZA OROKORRAK**



## 5- EMAITZA OROKORRAK

Lan honetan logikarako joera nagusitu da. Izan ere, *“ikerketa baten lehen zatian –zein arazo ikertu, nola ikertu eta hipotesiak ezarri– dedukzioa erabiltzen da batez ere; bigarren partean ikerketa diseinatzen da, eta hirugarrenean indukzioaren bidez ondorioak ateratzen dira”* (Zabaleta, 1997: 14). Beraz, orain arte egin dugun bidearen zati bat, dedukzioaren bidea izan da. Hau da, egoera orokorretik (herri-aldizkarien fenomeno eta herri-aldizkarien testuinguru orokorraren azterketatik) egoera partikularrera egin dugu jauzia (Deba Barreneko sei herri-aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien ikerketara).

Behin azterketa sakona burutu ondoren, indukzioaren prozesua jarraituko dugu, alderantzizko bidea jorratuz: azterketa partikular batetik (Deba Barreneko sei agerkarien kazetaritza-genero eta gaien azterketatik), egoera orokorrera (ondorio orokorrak ateratzera) doan prozesua burutuko dugu hain zuzen ere.

Ondorioak landu baino lehen, ekar ditzagun gogora tesi honen hasieran azaldu ditugun hipotesi eta lan-galdera<sup>1407</sup> nagusiak, aurrera egin aurretik, lan hau abiatu duten hiru ardatz esanguratsuenak biltzea lagungarria izan daiteke eta.

### **A) Deba Barreneko komunikazio sistemaren ezaugarriak**

- **Nolakoak dira Deba Barreneko tokian tokiko agerkariak, gai eta kazetaritza-generoei dagokionez?**
- **Zeintzuk dira bertan lantzen diren kazetaritza-genero eta gai nagusiak?**
- **Aldizkarietako langileen lan-baldintzek, nola eragiten dute kazetaritza-generoen eta gaien erabilpenean?**
- **Agerkarietako lan antolaketak eta lan egiteko erak, zer nolako ondorioak ditu aldizkarietako gai eta kazetaritza-generoen erabileran?**

### **B) Epe laburrerako erronka berriak**

- **Ba al dago harremanik Deba Barreneko argitalpenen egitura profesional eta kalitatearen artean?**
- **Epe laburrean, zeintzuk indar-gune eta ahulezia antzematen dira Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema idatzian?**

<sup>1407</sup> - Hipotesi eta lan-galdera guztiak lan honetako Metodologia atalean agertzen dira. (120.-121.or.).

### C) Etorkizunaren diseinua

- **Deba Barreneko euskarazko prentsa idatzia, berrantolatu beharra dago?**
- **Egitasmo multimedia batean berrantolatzeak, zein onura eta galera ekarriko litzioke Deba Barreneko tokian tokiko euskarazko prentsari?**

Iker galderak zeintzuk diren gogoratu ondoren, lan honetako ondorio nagusiak jorratuko ditugu. Horretarako, hiru atal nagusitan antolatu dira ikerketaren emaitza horiek: alde batetik, arketipoa eraiki dugu, hau da, tesi honetan aztertu diren sei aldizkarien erradiografia sortu dugu. Figura hipotetiko horrek, begi-kolpe batean orain arte aipatu diren datu esanguratsuenak gogoratzen eta ikusten lagunduko digu.


Beste alde batetik, metodologian planteatu ditugun hipotesi eta lan-galderei erantzuteko, ondorio orokorrak, hiru zutabe nagusiri begira landu dira: lehenengo atalean, Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistemaren ezaugarriak bildu ditugu; bigarren atalean, epe laburrerako erronka berriak definitu dira eta hirugarren urratsean, etorkizunaren diseinuaren lerro nagusiak azaldu dira.

Azkenik, etorkizunean Deba Barreneko euskarazko tokian tokiko prentsaren inguruko analisisian jorra daitezkeen bide berriak proposatu ditugu.

### 5.1- ALDIZKARIEN ARKETIPOA

Atal honetan, aztertu ditugun sei aldizkarien ezaugarri esanguratsuenak ekarriko ditugu gogora. Horretarako aldizkari bakoitzaren muina, benetako esentzia, orain arte bezala bi grafikotan laburtuko dugu. Lehenengo grafikoan, gure azterketa-epean aldizkari bakoitzak jorratu dituen **kazetaritza-genero** nagusiak zeintzuk izan diren azalduko dugu. Bigarren grafikoan, errebista bakoitzak lantzen dituen **gai nagusiak** zeintzuk diren ikusi ahal izango da.


### 5.1.1- EIBARKO ...ETA KITTO! ASTEKARIA



- Eibarko *...eta kitto!* astekaria **informazio eta zerbitzu aldizkaria** da, batez ere **informazio aldizkaria**.
- Herriko informazioa emateko, **albisteak, argazki-albisteak eta erreportajeak** erabiltzen ditu batez ere. Kazetaritza-genero labur eta landuen arteko oreka mantentzen du.
- Aldizkariak irakurleari eskaintzen dizkion zerbitzuak, **kultur agendak, zerbitzu-informazioa, salerosketa/trukeak eta denbora-pasak** dira.
- *...eta kitto!*-k astero kaleratzen duen iritziaren bitartez, herritarren eta irakurleen iritziak jasotzen ditu, **inkestak eta irakurleen gutunak** direlako iritzi-genero izarrak. Hala ere, berau da ikerlan honetan aztertu diren sei aldizkarien artean iritzi gutxien landu duena.
- Astekariko gai nagusiak, **gizarte-gaiak eta kultura** dira. Politika eta ekonomia bigarren mailan agertzen dira Eibarko astekarian.
- Gizarte-gaien barnean, **gizarte ohiturak eta zerbitzuak** dira agerpen ugariena dutenak.
- Kulturaren baitan, **arte eszenikoak eta arte plastikoak**.
- Kiroletan, **elitekoa ez den futbola** da nagusi, **pilota** (amateurra) eta **txirrindularitzarekin** (amateurra eta profesionala) batera.




### 5.1.2- SORALUZEKO PIL-PILEAN HAMABOSTEKARIA




- Soralezeko *Pil-pilean* hamabostekaria, **informazio, zerbitzu eta iritzi** aldizkaria da. Informazio aldizkaria batik bat.
- Plaentziako errebistan informazio-genero laburrak eta arinak dira nagusi: **albiste laburrak** eta **albisteak** hain zuzen ere.
- Errebitako zerbitzu-gunea, **denbora-pasa** eta **agendek** osatzen dute.
- Iritzi-genero anitz jorratzen dira *Pil-pilean* aldizkarian; indartsuenak, **irakurleen gutunak, inkesta, iritzi-zutabeak** eta **editoriala** izanik. Barneko (aldizkaritik gertu dagoen jendearen) eta kanpoko (herritar eta irakurleen) iritziek dute tokia aldizkarian.
- **Gizarte-gai** eta **kultura** gaiak ditu zutabe nagusi *Pil-pilean*ek, baina Deba Barreneko euskarazko herri-aldizkaririk **politikoena** ere bada, ekonomia bigarren mailako gaia izanik aldizkarian.
- Gizarte-gai inportanteenak **gizarte ohiturak** eta **zerbitzuak** dira.
- Kulturaren barnean gehien agertzen diren gaiak, **euskara, arte eszenikoak** eta **literatura** dira. **Udala, Euskal Herriko gatazka** eta **alderdiak** gai politiko indartsuenak bilakatu dira.
- Deba Barreneko sei agerkarien artean, kirola **gutxien** lantzen dutenen artean dago Soralezeko aldizkaria. Gehien agertu diren kirolak **futbola, pilota, atletismoa, mendia** eta **txirrindularitza** izan dira, guztiak herrikoak.

### 5.1.3- ELGOIBARKO BARREN ASTEKARIA




- *Barren* astekaria, **informazio, zerbitzu eta iritzi** aldizkaria da, informazioa izaki bere zutabe nagusia.
- **Informazioa era laburrean eskaintzea** aldizkariaren printzipio bilakatu da urteekin. Horregatik, **albiste laburrak, albisteak eta argazki-albisteak** dira informazio-genero garrantzitsuenak.
- Zerbitzuen baitan, **zerbitzu-informazioa, agendak eta salerosketa/trukeen** atalak dira indartsuenak.
- *Barrenek* aldizkari barneko iritziak eta irakurle eta herritarren iritziak jasotzen ditu bere orrietan; **irakurleen gutunak, zutabeak eta inkestak** baitira iritzi-genero erabilienak.
- Elgoibarko astekariaren gaitegia, hiru zutabe nagusitan oinarritzen da: **gizarte-gaiak, kultura eta kirola**, politika eta ekonomia gaiak bigarren mailakok izanik.
- Gizarte-gaien artean, **gizarte ohiturak eta zerbitzuak** dira agerpen-maila altuena dutenak.
- Gai kultural garrantzitsuenak, **arte eszenikoak, komunikabideak, literatura, euskara eta arte plastikoak** izan dira.
- Kirol atalean, **futbola, mendia, kirol agenda eta atletismoari** arreta berezia jarri dio Elgoibarko astekariak gure azterketa-epean; beti ere, herriko taldeekin zerikusia izan dutenean.

### 5.1.4- MUTRIKUKO KALAPUTXI HILABETEKARIA




- *Kalaputxi*, **informazio, zerbitzu eta iritzi** aldizkaria da, baina informazioa ematea da bere zereginik garrantzitsuenak.
- Informazioa ematerako orduan, **albiste laburrak** nagusitzen dira. Hala eta guztiz ere, **erreportaje, elkarrizketa eta albisteen** tamaina oro har luzea izaten da.
- Zerbitzuen baitan, **zerbitzu-informazioa** eta **agendak** dira aldizkarian gehien agertu direnak.
- Iritzi atal anitza du Mutrikuko hilabetekariak, **irakurleen gutunak, kale-inkestak** eta **editoriala** lantzen baititu. Hau da, aldizkarian dagoen lan-taldearen ildo ideologikoa ez da ezkututzen, ezta irakurle eta herritarrena ere.
- *Kalaputxi*ko gaitegian **gizarte-gaiak, kultura** eta **kirol** gaiak dira garrantzitsuenak.
- Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema idatzian, **ekonomia gehien jorratzen duen aldizkaria da**. Ekonomiaren baitan, beste inon agertzen ez den gaia nabarmentzen da: **itsasoa/arrantza**.
- Politika **bigarren mailako** gaia da
- Gehien agertu diren gizarte-gaiak, **gizarte ohiturak, zerbitzuak, lanak, ingurumena** eta **hezkuntza** izan dira.
- Kulturaren barnean, **komunikabideek, musikak, arte ondareak, artisautzak, eskulanek** eta **agendek** izan dute protagonismo nagusia.
- Kirolik garrantzitsuenak herriko **futbol** talde, **mendi** taldea eta **arraun** taldea izan dira.

### 5.1.5- DEBAKO BERRIKETAN HILABETEKARIA



- *Berriketana*, **informazio**, **iritzi** eta **zerbitzu** hilabetekaria da, informazioa aldizkariaren zutabe nagusia izanik.
- **Albiste laburrak eta albisteak** dira informazio-genero erabilienak. Bertan lantzen diren erreportaje eta elkarrizketak oro har nahiko laburrak dira.
- **Iritzi atal indartsua** du Debako hilabetekariak, **sei aldizkariaren artean, iritzia gehien lantzen duena baita. Kale-inkesta, artikulua, kritikak eta zutabeak** dira iritzi-genero landuenak.
- Zerbitzu-generoak **denbora-pasetan** du bere oinarria, baina **agendak** eta **zerbitzu-informazioa** ere agertu dira.
- Deba Barreneko euskarazko sei agerkariaren artean, *Berriketana* da **literaturari toki gehien eskaintzen dion aldizkaria**.
- Debako hilabetekariaren bi gai nagusiak, **gizarte-gaiak** eta **kultura** dira. Kirola, politika eta ekonomia bigarren mailako gaiak dira.
- Gizarte-gaien artean, **gizarte ohiturak, zerbitzuak, hezkuntza, lanak** eta **taldeak** gailendu dira.
- Kulturaren barnean, **literatura, musika, agendak** eta **komunikabideak** izan dira esanguratsuenak.

### 5.1.6- ERMUA ETA MALLABIKO DROGETENITTURRI HILABETEKARIA



- *Drogetenitturri*, **informazio** eta **zerbitzu** hilabetekaria da, **informazio** aldizkaria nagusiki.
- Informazioa, **albiste labur**, **elkarrizketa** eta **albisten** bitartez eskaintzen zaio irakurleari.
- Ermua eta Mallabiko aldizkariaren zerbitzu atala oso indartsua da eta bertan, **denbora-pasak**, **informazio erabilgarria** eta **agenda** nagusitu dira.
- Iritzi atalean, gehien landu diren iritzi-generoak **kale-inkesta** eta **iritzi-zutabeak** izan dira.
- *Drogetenitturriren* gaitegia bi ardatz nagusitan oinarritzen da: **gizarte-gaietan** eta **kulturan**. Kirola ere kontuan hartzen da, eta ekonomia eta politika bigarren mailako gaiak bihurtu dira.
- Aldizkariko gizarte-gairik inportanteenak, **gizarte ohiturak**, **zerbitzuak**, **lanak**, **hezkuntza** eta **taldeak** izan dira.
- Kulturaren barnean, **literatura**, **gastronomia**, **bertsolaritza**, **agenda**, **euskara** eta **musika** izan dira nagusi.
- Kiroletan, Ermuko eta Mallabiko **pilota** eta **txirrindularitza** talde amateurak izan dira protagonista nagusiak.

## **5.2- ONDORIOAK**

Arestian aipatu bezala, ondorio orokorren atal honetan hiru zutabe nagusi landu ditugu eta hiru ardatz horien inguruan antolatu ditugu ikerlanaren emaitza nagusiak:

### **A)- DEBA BARRENEKO KOMUNIKAZIO SISTEMA**

**1- PROFESIONALIZATZEA:** Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema idatzia, hiru maila ezberdineko aldizkariak osatzen dute:

- a. Lehenengo mailan **aldizkari profesionalak** daude, non kazetari eta langile profesionalak egiten dituzten astekariak: Eibarko ...*eta kitto!* eta Elgoibarko *Barren*.
- b. Bigarren maila batean **aldizkari erdi profesionalak** ditugu: horietan langile (kazetari) profesional gutxi dago eta hainbat kolaboratzaile<sup>1408</sup> finko ari dira; Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturri* eta Soralezeko *Pil-pilean* aldizkariak sartu ditugu multzo honetan.
- c. Azkenik, **langile profesionalik gabe funtzionatzen duten aldizkariak** daude, borondatezko lana zutabe nagusi dutenak; Debako *Berriketan* eta Mutrikuko *Kalaputxi* hain zuzen ere<sup>1409</sup>.

Guztira, gaur egun **hemeretzi langile profesional eta borondatez diharduten hamar langilek bermatzen dute Deba Barreneko komunikazio-sare euskaldunaren funtzionamendua**. Horien guztien lana, berriz, Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen

<sup>1408</sup> - Kolaboratzaile finko gehienak ez dira kazetaritzan lizentziatuak.

<sup>1409</sup> - Miguel Elkoroberezibarrek (1992: 12-13) profesional eta ez profesionalak ezberdintzeko honako irakurketa hau egiten du: “Behin proiektua gauzaten denean, era batekoa edo bestekoa izan daiteke: argitalpen laburra, umila, edota zerbait gehiago nahi izatea, argitalpena ahal den neurrian garatzea, handitzea eta esparru zabalagoak eta ezberdinagoak bertan ezartzea. Badago gero, beti bezala, nahia eta ezina, eta aukera izanda nahi eza. Bide bat ala bestea hartzeak errebista guztiz markatzen du. Errebista batzuek borondate hutsez lan egiten duten pertsonak dituzte erredakzioan, eta beste batzuek kazetari profesionalak. Bi errebista kanpotik begiratuta, datu hotz batzuen arabera (hizkuntza, diru-iturriak, maiztasuna, tirada, etab.), berdinak direla pentsa daiteke, baina hor ere badago aldea, kalitatearen ikuspuntua kontuan hartzen badugu behintzat”.

Gotzon Loberak (2005: 329), ordea, honela ezberdintzen ditu aldizkari profesional eta ez profesionalak: “Euskararen aldeko komunikabideak dira langileria eta jardunbidearen ziozko gastuak batuta euren gastu osoaren % 40/45 inguru dituztenak, sarritan langileriaren aldetik kosturik ez dagoela, aldizkari-egileek eurek auzolanean ateratzen baitute hori. ‘Euskarazko komunikabide’ deritzet, ostera, langileriaren ziozko gastuak bakarrik aurrekontu osoaren % 50etik gorakoak dituztenei, bai eta langileriaren eta jardunbidearen ziozko gastuak, baturik, kopuru horretatik gora dituztenei ere; profesionalizazio joera argi ageri da horrelako hedabideetan”.

audientziak neurtzeko egin duen azterketaren arabera, **25.100**<sup>1410</sup> irakurleri dago zuzendua. Datu horien arabera, langile eta audientzia **ratioa, 865ekoa** litzateke.

*Drogeteniturri, ...eta kitto!, Pil-pilean, Barren, Berriketan eta Kalaputxi* kanpotik begiratuta oso antzekoak dira: guztiak euskaraz idatzita daude (aldizkari bakoitzak bere herriko euskalkia neurri handiago eta txikiagoan erabiltzen du), doan banatzen dira, finantziario partekatua<sup>1411</sup> dute (publizitate eta diru-laguntza publikoak), antzeko diseinua jarraitzen dute, eta *Berriketan* izan ezik, gainerako aldizkariok Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko bazkide dira. Oro har, lehenengo begirada batean sei aldizkarien kazetaritza-genero eta gaiak oso antzekoak direla ematen du, baina edukietan sakontzen hasiz gero, azterketa honetan batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak argi geratu dira kazetaritza-genero eta gaitan. Izan ere, Deba Barreneko tokian tokiko euskarazko aldizkarien ezaugarriak eta egiturak ezberdinak izanik, errebistetara erabiltzen diren kazetaritza-generoak ere, ezberdinak dira. **Langile profesionalek diharduten agerkarrietan, kazetaritza-generoak, ikuspegi akademikotik begiratuta, hobeto erabiltzen dira eta kazetaritza-generoen artean oreka handiagoa dagoela antzematen da, langileek horri erreparatzen baitiote.**

**2- KAZETARITZA-GENEROAK:** Deba Barreneko tokian tokiko euskarazko aldizkarietan lantzen diren kazetaritza-generoak, honako hauek izan dira 2000-2004 bitartean:

- a. Sei aldizkarietan **informazioa** da genero izarra. Bailaran euskara hutsean argitaratzen diren sei errebistetara, informazio kopurua %50etik gorakoa da kasu guztietan<sup>1412</sup>, aldizkarietan kaleratzen den edukien erdia baino gehiago. Informazioaren baitan **albiste laburrak, albisteak** eta **argazki-albisteak** nagusitzen dira. Halaber, *...eta kitto!, Kalaputxi eta Berriketan* aldizkarietan, erreportajea da gehien erabiltzen den informazio-generoa.
- b. **Zerbitzu-gunea** aldizkari guztietan – *Berriketan* hilabetekarian izan ezik – gehien errepikatzen den **bigarren generoa da**. Errebista gehienetan zerbitzu kopuruak %14 eta

<sup>1410</sup> Iturria: Eusko Jaurlaritzak. (2006): *Euskarazko Hedabideak* barne txostena, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 72-73.or. Lan honen Euskarazko prentsa idatziaren historia Euskal Herrian kapituluak, audientziak neurtzen dituen ikerketa horri buruzko datu gehiago agertzen dira. (85.-90. or.).

<sup>1411</sup>- Debako *Berriketan* aldizkariak ez du finantziario partekatutik; publikitate sarrerak ditu bakarrik ez baitu diru-laguntza publikorik jasotzen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntzak jasotzeko jartzen dituen baldintza guztiak ez ditu betetzen. Bestalde, Debako udalak aldizkaria kaleratzen duen Zuhatza Elkarteari ematen dio diru-laguntza eta ez zuzenean *Berriketan* aldizkariari.

<sup>1412</sup>- Eibarko *...eta kitto!*-ren informazio kopurua %79koa da. Soralezko *Pil-pilean*en informazioa %66koa da. Elgoibarko *Barren*en %63koa, Mutrikuko *Kalaputxin* %59koa, Debako *Berriketan*en %58koa eta Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturri* %69koa.

%21 bitartean kokatzen dira. Zerbitzuen barnean **zerbitzu-informazioa**, **agenda** eta **denbora-pasak** dira gehien agertzen diren zerbitzuak. ...*eta kitto!* eta *Barren* astekarietan **salerosketa eta trukeen** saila indartsua da oso, astero orrialde osoa kaleratzen baitute doako iragarki ezberdinekin. Gainerako aldizkarietan aipatu atal horrek ez du arrakastarik izan; agerkari batzuetan ez delako inoiz argitaratu eta beste batzuetan, argitaratu arren, irakurleen artean ez duelako jarraipenik izan.

- c. **Iritzia** dugu aldizkari gehienetan **hirugarren generorik garrantzitsuena**. *Berriketan* hilabetekarian hirugarrena da zerbitzu-gunea eta iritzia bigarrena. Iritzi-generorik landuenak, **irakurleen gutunak**, **kale-inkesta** eta **zutabea** dira. *Kalaputxi* eta *Berriketan* hilabetekarietan ez da iritzi-zutaberik argitaratzen normalean; *Drogeteniturrri* eta *Berriketan* hilabetekariak ez dute irakurleen gutunak kaleratzeko atalik.
- d. Literatura eta komikiari espazio gutxi eskaintzen zaio oro har aldizkari guztietan. Beraz, **informazio eta zerbitzu aldizkariak dira Deba Barreneko komunikazio-sare euskalduna osatzen dutenak.**

**3- GAIAK:** Deba Barreneko sei aldizkarietan antzekotasun handiak aurkitu ditugu gaiei dagokionez ere:

- a. Zalantzarik ez dago **gizarte-gaiak direla aldizkari guztietan gehien jorratzen direnak**. Lan honetan ikertu diren sei aldizkarien datuen arabera, aldizkari gehienetan<sup>1413</sup> **gizarte-gaien portzentajea %40tik gorakoa da**. Kasu guztietan gainera eta salbuespenik gabe, gizarte-gaien baitan **gizarte ohiturak** eta **zerbitzuak** dira gairik inportanteenak. Bi horien ostean, errebista guztietan **lanak** eta **hezkuntza** dira gehien agertzen diren gizarte-gaiak.
- b. **Kultura da bigarren blokerik garrantzitsuena kasu guztietan; %20tik gorako portzentajearekin (%22 - %37 bitartean) sei hedabideetan**. Kultura gairik errepikatuenak, oro har, **arte eszenikoak** (horien baitan **musika**), **literatura** eta **komunikabideak** dira. Nolanahi ere, kultur gaietan aldizkari bakoitzak berezko ezaugarriak ditu eta errebista bakoitzaren ardatzetan azpimarratu ditugu. Euskara ez da, oro har, gehien lantzen den gaien artean agertzen; baina aldizkari batzuetan arreta

<sup>1413</sup>- ...*eta kitto!*-n gizarte-gaiak %43ko portzentajea dute, *Pil-pileanen* %49koa, *Barrenen* %46koa, *Kalaputxin* %51koa, *Berriketanen* %47koa eta *Drogeteniturrin* %39koa.



berezia jartzen zaio, batez ere argitalpena kaleratzen duten euskara edo kultur elkarten helburua euskararen sustapena den kasuetan, *Drogeteniturri, ...eta kitto! Pil-pilean* eta *Barrenen* esaterako. *Barrenen* gogoratu behar da euskaren gaia gehigarri berezietan lantzen dela, gure azterketa-epeko lehenengo bi urteetan aztertu dugun “Euskaltegietan arigera” gehigarrian.

- c. **Kirola da hirugarren gai landuena errebista gehienetan.** Kiroletan herri bakoitzean oihartzun gehien dituzten kirolak dira nagusi, baina oro har, **futbola, pilota, txirrindularitza, mendia, atletismoa eta arrauna** (Mutrikuko *Kalaputxin*) izan dira protagonista nagusiak gure azterketa-epetan. Salbuespenak salbu, herri guztietan kirol amateurrari egin zaio tokia aldizkarietan.
- d. **Politika eta ekonomia dira portzentajeen arabera aldizkari guztietan gutxien agertu diren bi gaiak.** Politikaren portzentajeak sei errebistetatik bostetan %10etik beherakoak izan dira, Soraluzeko *Pil-pileanen* salbuespena izanik, bertan %14ko portzentajea kokatu baita politika. Dena dela, aldizkari guztietan politikaren baitan gehien jorratzen diren gaiak, nahiz eta agerpen-mailaren arabera batek besteak baino garrantzi gehiago izan, hiru dira: **udala, Euskal Herriko gatazka eta alderdiak** hain zuzen ere. Hori bai, profesionalak ez diren aldizkarietan, politikaren barnean agertzen diren gai alternatiboei toki gehiago eskaintzen zaie; *Drogeteniturri* eta *Berriketan* hilabetekariak horren erakusle argiak dira.

Ekonomiaren portzentajeak ez dira %10etik gora kokatu aldizkari batean ere ez. Ekonomiaren barnean, **merkataritza** eta **enpresa** izan dira gairik erabilienak. Mutrikuko *Kalaputxi* salbuespena da sei aldizkarien artean, **itsasoa eta arrantza** delako bertan gehien jorratzen den gai ekonomikoa. Hau baino adibide argiagorik ez dago baieztatzeko argitalpen bakoitzak bere herriko errealitatea islatzen duela agertzen dituen gaien bitartez.

**Beraz, gaien erradiografia honek euskarazko aldizkariotan edozein gai, naturaltasun osoz lantzen dela frogatzen du, bertsolaritzaz eta folkloreak haratago idazteko gaitasuna eguneroko jardunean erakusten dutela alegia, prentsa elebidunean ez bezala<sup>1414</sup>. Oro har euskal prentsari leporatu zaion zama hori ez da benetakoa Deba Barreneko komunikazio**

<sup>1414</sup> - Prentsa elebidunean euskaraz agertzen diren gaiei buruzko honako bi azterketa hauek kontsulta daitezke: Zuberogitia, Aitor. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean* doktore-tesia, EHU, Leioa. Basterretxea, Jose Inazio. (2001): “Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua”, in *Uztaro* aldizkaria, 39. zenbakia, 63-74 or.

**sisteman; Deba Barreneko sei aldizkarietan jorratzen diren gaiak, herritarren eguneroko bizitza hartzen dute kontuan eta berau da euren gaitegiaren ardatz nagusia. Politika kontuak, ostera, bigarren mailan agertzen dira tokian tokiko prentsan.**

Datuen arabera, nazio mailako prentsa orokorrean ez bezala, Deba Barreneko herri-aldizkarietan **politika ez da lehen mailako gaia**, herritarrengandik hurbilago dauden gaiak bestelakoak direlako eta ardura politikoak nazio mailako hedabideetan agertzen direlako. Hala ere, herri-prentsa eta euskarazko nazio-prentsa erabat dira osagarriak. Izan ere, egun nazio mailan euskaraz hutsez argitaratzen den egunkari bakarra dago, *Berria* hain zuzen ere. *Berriak* ez dauka herrietako informazio jasotzen duen edizio ezberdinik. Horretarako, zazpi eskualdetan *Hitza* proiektuak ditu. Zazpi eskualde horietan, euskaraz herriko eta nazio mailako informazioa egunero jasotzeko aukera egon badago, baina Deba Barrenean bezala,<sup>1415</sup> *Hitzarik* ez dagoen tokietan, ez ordea. Beraz, euskarazko egunkari nazional bakarrak Deba Barreneko herritarrei eskaintzen ez dien herriko informazio hori, gaur egun herri ezberdinetan argitaratzen diren tokian tokiko aldizkariak eskaintzen dute. Era berean, herri-prentsak jorratzen ez dituen nazio mailako gaiak (politika, ekonomia, nazioarte...), nazio-prentsak lantzen ditu modu luzeago eta zehatzagoan.

**4- HERRI HIZKERAK/EUSKALKIAK:** Lan honetan aztertu diren sei herri-aldizkariak ezaugarriak aipatzerako orduan, herri bakoitzaren hizkerak erreibistetan duen presentzia ezin dugu ahaztu; lan honetan jaso diren ehunka adibideak horren erakusle garbia baitira.

**Sei agerkarietan euskara batua da nagusi salbuespenik gabe; herriko hizkera sail zehatz batzuetan agertzen da eta euskalkiari dagokionez, bakoitzak eredu bat jarraitzen du, ez dago guztientzat komuna den eredu bateraturik.**

Agerkari guztien artean Eibarko *...eta kitto!* da bertoko (Eibarko) hizkera gehien erabiltzen duena, aldizkarian idazteko ereduak kazetarien artean finkatuta eta adostuta dagoelako. Ermua eta Mallabiko *Drogeteniturrri* aldizkarian, Mallabiko eta Ermuko hizkerak<sup>1416</sup> (guztiz ezberdinak) gainerako erreibistetan baino gehiago erabiltzen dira. Ezin ahaztu daiteke, Eibarren, Mallabian eta Ermuan, bertoko euskararen inguruko lanak egin direla eta idazterako orduan, bi

<sup>1415</sup>- Mutrikun, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, kaleratzen da.

<sup>1416</sup>- *Drogeteniturrri*ko erreportariak, bertako euskalkian idazterako orduan, Ermua eta Mallabiko berbetak ikertu dituzten bi filologoekin batera adostutako idazte-arauei jarraitzen diete.

aldizkarietan lan horiek oso kontuan hartzen dituztela, erreferentzia garrantzitsuak baitira. Hala eta guztiz ere, azterketa honetan ikusi dugun moduan, aldizkari guztiek neurri handiago edo txikiagoan, herriko hizkera erabiltzen dute. Jakin badakigu, iritzi ezberdinak daudela euskalkia tokian tokiko aldizkarietan sartzearen inguruan. **Lan honetan agertzen diren adibideetan ikusi ahal izan dugun moduan, norberaren herriko hizkerak herrikoagoa egiten du aldizkaria, nortasun propioa ematen dio, gertutasuna lortzen du irakurlearekin eta herriko hizkera bizirik mantentzen laguntzen du. Beti ere, euskalkia, modu egokian eta herri hizkera idatziaren inguruko arauak errespetatuz erabiltzen bada.**

##### **5- PROFESIONALIZATZEAREN PREMIA KAZETARITZA-GENEROEN**

**IKUSPUNTUTIK:** Ikerlan honetan aztertu ditugun sei aldizkariotan 2000-2004 bitartean ikertu diren kazetaritza-genero eta gaien bilakaerak argi eta garbi erakusten du proiektua sortu zenean hartutako bidea; urteek aurrera egin ahala, **bertan ari diren lan-taldean egitura eta antolaketaren bilakaerak, aldizkariaren edukia erabat markatu du. Hasieratik planteamendu profesionala izan duten egitasmoen eta erabat militante jaio ziren proiektuen garapena erabat ezberdina izan da urteen joan-etorriarekin eta horrek produktuaren edukiak baldintzatu ditu:**

**Kazetari profesionalek lanean diharduten erredakzioetan, ...eta kitto!-n eta Barrenen esaterako, kazetaritza-generoak ikuspegi profesionaletik lantzen dira eta akademikoki ondo erabiltzen dira. Generoen arteko oreka ale guztietan hartzen da kontuan eta aldizkarian agertzen diren sekzioak oso finkatuta daude: gai gehiago lantzen dira eta gaien arteko oreka handiagoa da, bertoko langileak kazetariak eta profesionalak direlako eta kazetaritza lanbidean trebatuak daudelako. Hau da, informazio eta iritzi-generoen arteko ezberdintasuna ezagutzen dute, ikasi egin dutelako. Bestalde, badakite genero bakoitzak aldizkarian betetzen duen funtzioa zein den eta horren arabera antolatzen dituzte aldizkariko edukiak.**

**Aldizkari erdi profesionaletan eta ez profesionaletan, berriz, generoen arteko oreka ez da horrenbeste zaintzen. *Berriketan* eta *Kalaputxin* adibidez, ez dago langile profesional liberaturik eta lan-taldean ez dago kazetaritza ikasi duen inor; beraz, kazetaritzan ez dute formazio teoriko eta akademikorik, ez dute ezagutzarik, eta horrek generoen erabileran eragin zuzena du. Esate baterako, erreportaje gisa izendatzen dutena iritzi-artikulua edo albistea**

izan daiteke. Era berean, lan banaketa egiten denean aldizkarian landuko diren kazetaritza-generoak zeintzuk izango diren ez da kontuan hartzen, ez dira aurreikusten; ondorioz, norberak bere kasa lantzen ditu gaiak, aldizkarian idazten duen bakoitzak dakienaren arabera, prentsa irakurle moduan ikasi duenaren arabera hain zuzen ere. Aldizkari ez profesionaletan ari diren borondatezko langileak ez dira kazetaritza-trebatuak.

Hori dela eta, *Kalaputxi* eta *Berriketan* aldizkarietako atalak, aldizkari profesionaletan eta erdi profesionaletan baino aldakorragoak dira, aletik alera aldaketa handiak sumatzen dira eta sekzioek ez dute finkotasunik. Sarritan, aldizkaria diseinatu eta maketatzen den unean, esku artean dituzten testuen arabera antolatu eta izendatzen dira atalak.

**6- PROFESIONALIZATZEAREN PREMIA GAIEN IKUSPUNTUTIK:** Gaiei dagokionez, **kazetari profesionalik ez dagoen aldizkarietan**, *Berriketan* eta *Kalaputxin* adibidez, **lan-taldeko kideen gustuak, zaletasunak eta euren inguruko jendea aldizkarian gehiago azaltzen dira**. Lan-talde horietan diharduen kide bakoitzak, ahal duen neurrian, dakien moduan eta daukan denbora librearen arabera lantzen ditu gaiak, inolako planteamendu profesionalean oinarritu gabe<sup>1417</sup>. Beraz, errazagoa da gertuko jende eta gaietara jotzeko joera eta zailagoa egiten zaie inoiz aldizkarira hurbiltzen ez den jendearengana heltzea.

Orain arte esandakoa kontuan hartuz, euskarazko tokian tokiko **aldizkari ez profesionalei, daukaten balioa eta betetzen duten funtzioa aitortu behar zaie, euskararen normalizazioan eragiteko gai izan baitira**. Hala eta guztiz ere, **euskaraz izateak ez du bermatzen aldizkariotan agertzen diren gaien egokitasuna. Alegia, euskaraz idatzita egote hutsak eta bestelako hedabideetan agertzen ez diren gaiak aukeratzeak, ez du esan nahi ezinbestean, irakurlearen interesaren ikuspegitik lantzen diren gaiak egokiak direnik**. Horretan oso lagungarria izan daiteke irakurleen iritziak jasotzea, kontuan hartzea, eta horiei kasu egitea, baldin eta eraginkortasuna bilatzen bada eta lortu nahi bada. Horregatik, gaiak aukeratu eta lantzerako orduan oreka mantentzea beharrezkoa da. Norberaren gustuko produktua egitea oso zilegia bada ere, herritar guztiei zuzendua badago, agian desegokia suerta daiteke.

<sup>1417</sup>- Zentzu horretan, Luis Alberto Aranberrik “Amatiñok” 1976an *Argian* (1976/II/1) profesionalizatzeari buruz idatzitakoak gogora ekarri behar ditugu gaur egun ere: “*Hamar ordutan beste edozein ofiziotan lan egin ondoren idazle bat izan daiteke poeta, hizkuntzalari, antzerkigile, saiolari edo dena delakoa. Zaila da, baina izan daiteke. Ez da ordea, luzaro albistari, berri-emale edota erreportagile izango. Ez da posible era horretan kazetari izatea. Afalostea inspirazio ordua izan daiteke edozein literatur mota klasiko idazteko, baina ez da, ordea, ordu horietan kazetariak bildu ahal izango duenik ezer pasatzen. Bizimoduaren dinamika egun argiko lan orduetan gertatzen da*”.

Deba Barreanean, *...eta kitto!* eta *Barren* astekariak, **gaien aniztasuna eta oreka bilatzen dute, gaurkotasunean oinarrituta daude, gaien hautaketa selektiboagoa egiten dute, produktuari nortasun propioa ematen dioten atal bereziak sartzen dituzte, urtekariak kaleratzen dituzte, aldizkariaren edizio digitala (Eibarko *...eta kitto!*-k 2005etik eta Elgoibarko *Barrenek* 2006tik aurrera) kaleratzen dute eta gai zehatzak gehigarrietan lantzen dituzte, tratamendu sakonagoa emanez eta jarraipen berezia eginez.** Bertan ari diren kazetari profesionalen lana eta eginbeharra astero aldizkaria egitea delako, ez da aisialdian euskararen aldeko ekimen gisa lagun talde batek egiten duen aldizkari bat, azken horrek daukan balioa eta betetzen duen funtzioa oso errespetagarria izanik eta zalantzan jarri gabe.

**Beraz, agerkari bakoitzean dagoen lan-taldeak eta berorren egiturak, Deba Barreneko aldizkari bakoitzak erabiltzen dituen kazetaritza-genero eta gaiak baldintzatzen ditu.**

## **B)- ATZEA K ERAKUSTEN DU**

7- **MILITANTZIA:** Milurteko berriak atzean utzi du Deba Barreneko aldizkari gehienak sortu ziren 90. hamarkada. Egun, **euskarazko egitasmoak, ezin dira hartzaileen euskararekiko afektibotasunean eta militantzian bakarrik oinarritu, militantziaren garai onenak pasa direlako eta gaur egun, Deba Barreneko herri-aldizkarietan eskaintzen diren lan baldintzen truke lan egiteko prest oso jende gutxi dagoelako.**

Ikerlan honetan burutu dugun eduki analisisian argi geratu da, Deba Barreneko agerkari gehienek, aldizkarietan kolaboratzeko jende berria bilatzeko zailtasunak dituztela. Bestalde, **tokian tokiko hedabideak orain arte lortu dutena galdu nahi ez badute, ezin dute atzera begira bizitzen jarraitu, aurrera egin behar dute irakurlearen exigentzietara eta eskaeretara egokituz.** Izan ere, informazio lokalaren esparruan gaztelaniazko prentsa sartzen hasia da eta irakurleek gaur egun euskarri ezberdinetan (prentsa idatzian, telebistan, irradian eta sarean) eskuragarri duten eskaintza informatiboa izugarria da eta etengabe areagotzen ari da. **Beraz, gaur egun, era ez profesionalean funtzionatzen duten ekimenak txalogarriak diren arren, eta sortu zirenean euskararen normalkuntzan euren funtzio eta helburuak bete zituzten arren, urteek aurrera egin ahala, edukien aldetik herren daudela erakutsi dute.**

**Hilero ahal den moduan euskarazko herri-aldizkaria argitaratze hutsak ez du bermatzen edukien kalitatea**<sup>1418</sup>.

Beraz, produktuek erakargarriak izan nahi badute euren edukietan kalitatea eta duintasuna behar dute; ikerlan honetan agerian geratu da, **Deba Barreneko esperientzia ezberdinetan oinarrituz, planteamendu profesionalak kalitatea bermatu dezakeela.**

**8- KALITATEA:** Deba Barreneko sei egitasmoek **profesionaltasuna eta kalitatea** uste baino erlazonatuago daudela erakutsi digute, eta horrela behar du izan. **Produktuaren edukian argi eta garbi islatzen da kazetaritza profesionalaren eredia jarraitzen duten aldizkarien kalitatea hobe dela, maiztasun handiagoa dutela eta astekari horiek eduki aldetik zerbitzu hobe eskaintzen diotela irakurleari.** Nolanahi ere, modu ez profesionalean eta erdi profesionalean diharduten lan-taldeen meritua ez dugu lan honetan zalantzan jarriko, ez da gure asmoa, musu-truk eta borondate onenarekin herriari eta euskararen normalizazioari urteetan egin dioten eta oraindik ere egingo dioten ekarpena handia baita. Bertan egon zitezkeen langileei, berriz, mesede eskasa egiten diete; herri-aldizkari bat langilerik gabe egin daitekeela sinestarazten ari direlako eta horrek lanbideari eta produktuari berari prestigioa kentzen diolako. Izan ere, gaur egun Deba Barreneko zenbait udalek tokian tokiko aldizkariari banatzen dizkieten diru-laguntzetan ez dituzte kontuan hartzen langileen gastuak. Proiektua bera diruz laguntzen da, baina langileen gastuak ez. Mutriku eta Debako esperientziak erakusten duten moduan, langilerik gabe aldizkari bat egitea posible da, baina egitasmo horiek dituzten mugak ere handiak dira.

Egia da bestalde, langile ez profesionalek egindako produktu horiek izan ezean, herri horietako hainbat etxetan ez litzatekeela euskarazko aldizkaririk sartuko, ezta irakurriko ere. Hala eta guztiz ere, aldizkari ez profesionalak dauden tokietan, aldizkari profesionalak egongo balira, mesede handiagoa egingo liokete irakurleari eta hizkuntzari, produktu hobeak ekoiztuko lituzketelako eta, ondorioz, eraginkorragoak izango liratekeelako. Alegia, eduki aldetik hobeak izango liratekeela: gaien aukeraketa eta tratamendua hobe, kazetaritza-generoek oreka

<sup>1418</sup> - Kalitateari gagozkiola, hona hemen Azpeitiko *Uztarrria* herri-aldizkariko langileek *Euskonews & Mediaren* 157 zenbakian kalitatearen inguruan idatzi zuten iritzia: “*Herritarrei euskarazko produktu bat ezin zaie eskaini euskarazkoa delako soilik; kalitatea ere eskaini behar zaie, eta gaur egun herri-aldizkariak, oro har, pauso hori emateke dute*” (Uztarrria, 2002/3/1-8). Ildo berean mintzo da Aitor Zuberogoitia ere, euskal hedabideek euskararen erreferentzia propioetan oinarritutako kalitatezko produktuak eskaini behar dituztela dionean: “*Ez da aski informazioa euskaraz ematea: informazioa euskaraz emateaz gain, norbere hizkuntza-komunitatearen erreferentzia-sistema propioan oinarriturik eman behar da; eta kalitatea bazter utzi barik*” (Zuberogoitia, 2003: 531).

handiagoa, diseinuak hobetuko lirateke erakargarriagoak bihurtuz, iritzi-aniztasun handiagoa eta irakurleari zerbitzu sendo eta zabalagoa emango liokete oro har. Herri-aldizkariak herriko produktu erreferentziala izan nahi badu, kalitatea behar du eta edukiak behar bezala zaindu behar ditu, esaterako iritzi ezberdinak bilduz, gaur egun ez dena gertatzen hainbat agerkaritan: *Berriketan* eta *Kalaputxin* ez da iritzi-zutaberik argitaratzen, ez baitute horren beharrik ikusten; *Berriketan* eta *Drogeteniturrin* ez dago irakurleen gutunen atalik. Kalitatea aldizkariaren arlo guztietan hartu behar da kontuan<sup>1419</sup>.

Kalitatean irabaziz gero, produktua hobea litzatekeela ez dago zalantzarik eta ondorioz, eragin gehiago izango luke agerkari horrek euskararen normalizazioan betetzen dituen funtzioetan<sup>1420</sup>. Baina **kalitatea bermatzeko edukiak zaindu egin behar dira eta profesionaltasunez landu, horretarako idazgeletan kazetari profesionalak izatea oso garrantzitsua da eta horien trebakuntza ezinbestekoa**<sup>1421</sup>.

**9- LANAREN DUINTASUNA: Lan baldintza duinak** (lan orduak eta soldatak) **bermatzea ezinbestekoa da profesionaltasunez aritzeko**, bestela alferrik izango da, inoiz ez da lan-taldea sendotuko eta langileak ez du inoiz sentituko lan hori luzerako denik, ezta benetako lana denik ere. Hasierako motibazioa galduz joango da eta aukera hobegoa duen unean alde egingo du beste nonbaitera<sup>1422</sup>. Alde egitea arazo izan badaiteke, arazo larriagoa bilakatu daiteke langile horren ordezkoa lortzea, lan baldintza duinik ez dagoen tokian.

Orain arte hainbat aldizkarik horrela irauin dute, baina **langileen ezegonkortasunak agerian uzten du ez diola aldizkariari inolako mesederik egiten, ez baitio sendotzen eta**

<sup>1419</sup> - Iñaki Mendigurenek eta *Arrasate Presseko* lan-talde osoak argi zuen hasieratik kalitatea bermatu beharra zegoela: “*Kalitate teknikoa, estetikoa... mamiari nahiz formari buruzko kalitatea. Gaur egun dagoen kompetentziarekin, kalitatea ez bada zaintzen, ez dauka zer eginik komunikabide batek. Gauzak duintasunez ez badira egiten, ez dago lehia irabazterik. Berritasuna dela eta, lehen egunean irakurle edo ikus-entzulerik izaten badu ere, bigarreanean ez du izango*” (Mendiguren, 1993: 25).

<sup>1420</sup> - Hona hemen Idoia Camachok bere tesian herri-aldizkariari aitortzen dizkien funtzioak: “*Giza harremanen bultzatzaileak dira, kultur eragile eta hedatzaileak, publizitatearen eragileak, aldizkari herrikoi, sinple, zabal eta irakurteraza egitea eta euskaraz irakurtzeko zaletasuna lortzea da helburua, eta iritzi ezberdinen plaza behar dute izan*” (1999: 101-102).

<sup>1421</sup> - Azkoitiko *Uztarría* herri-aldizkariak horrela definitzen du, tokian tokiko aldizkarietan aritu behar den kazetariaren profila: “*Aldizkariako kazetariak, langile militantea izan behar du; hori, lehenbizi. Behin profil horretako kazetaria lortu ostean, kazetariak etengabeko trebakuntzan jardun behar du: maketazioan, argazkigintzan, euskararen, idazkeran, kazetaritzan... Aldizkariaren produkzio osoa inola ere kazetariaren esku utzi gabe – aldizkaria ez baita kazetariarena, elkartearena baizik – , hein handi batean kazetariak hasi eta bukatuko du aldizkaria bera, eta, ondorioz, kazetaritzako atal guztiak dominatu egin behar ditu*” (Uztarría, 2002/3/1-8).

<sup>1422</sup> - Iritzi berekoa da Gotzon Lobera ere; euskara elkarte eta aldizkariak dituzten langileak zaindu eta mimatu behar dituzte, galdu nahi ez badituzte: “*Kalitatea bermatu behar bada, euskarazko komunikabideetan, langileen egoera hartu behar da kontuan; izan ere, tokian tokiko euskarazko komunikabideak, gaur egun, Lezama beste dira kazetaritzan. Athleticek jokalaria ona lortzen duenean, berak nahi ez badu jokalaria hori galtzea, orduan kontratu ona egin beharko dio jokalaria horri, beste toki batera joan ez dadin*” (Lobera, 2005: 333).

**finkatzen uzten.** Deba Barrenean horrela gertatu da gure azterketa-epean: *...eta kitto! eta Barrenen lan-taldeak handitu eta finkatu egin dira eta bertan diharduten kazetari profesionalak, aldizkariaren zutabe nagusi bihurtu dira.* Aldizkari horietan langileen kontratuak hobetu dituzte eta jende gehiago jarri dute lanean, bestelako esparru batzuk jorratzeko, web orriak lantzeko adibidez. *Pil-pilean eta Drogeteniturri aldizkarietan, ordea, jendearen joan-etorriak proiektuari mugak jarri dizkio etengabe.* Langile profesionalen kopurua oso txikia da bai *Pil-pilean* hamabostekarian zein *Drogeteniturri* hilabetekarian eta horrek langileekiko mendekotasuna handia sortzen du; betebeharrak gehienak gutxi horien esku geratzen direlako eta profesional horiek lana utziz gero, aldizkariaren iraupena arriskuan gera daiteke. Ermua eta Mallabiko hilabetekarian 2000. urtean zegoen langile bakarrak alde egin zuenean, *Drogeteniturri* desagertzeaz egon zen, lan gehiena (maketazioa, diseinua, koordinazioa, administrazioa) berak egiten zuelako, gainerakoak borondatez ari ziren kolaboratzaileak baitziren. **Horrelako proiektu erdi profesioaletan, lan kontraturik ez zuten langileek urteekin lan kontratu eskasak izatea lortu dute, baina oraindik orain, profesionalizatzeko bidean daude.**

**Deba Barreneko aldizkari ez profesionalek, ordea, ez dute langilerian dirurik inbertitu,** Debako *Berriketan* hilabetekariak ez duelako inoiz langilerik izan eta *Kalaputxi* bi langilerekin hasi bazen ere, egitasmoaren izaera berehala aldatu zelako. **Deban eta Mutrikun ez dago soldatapeko langilerik, borondatez ari den lan-talde eta jendearen mende daude erabat, etorkizun ziurrik gabe**<sup>1423</sup>. Horrezaz gain, orain arte esandako guztiak, kalitateko produktu bat egiterako orduan kazetari profesionalen beharra eta garrantzia agerian utzi du. **Nolanahi ere, aldizkari gehienetan benetako lan baldintza duinak lortzeko asko falta da oraindik. Lan baldintzen gaia, gaintu gabe dagoen ikasgaia dela esan daiteke Deba Barreneko aldizkari gehienetan eta aurrera begira, gai honek ausardiaz jokatzeko eskatzen du, langilerian diru gehiago inbertituz eta gaiari lehentasuna emanaz.** Jakin badakigu, lan baldintza egokiak lortzeko aldizkariak egin behar duen ahalegin ekonomikoa handia izaten dela,

<sup>1423</sup>- Luis Alberto Aranberri 1976an idatzitakoa oso interesgarria da gaur egun gogoratzea, euskarazko kazetaritzan ez baita oraindik erabateko profesionalizatzeko lortu: “*Zer gertatuko litzateke ikastoletan baldin eta irakasleak profesionalak ez balira? Irakaskintza irakasleen ogibidea ez balitz, alferrik metodologiarik onena, alferrik bokazio bihozkorrena, hogeita bost urtetik gorako irakasle guti izango genuke benetan. Kazetaritzan beste horrenbeste gertatzen da. Egiatzko kazetaritza egingo bada, notiziaren lekuko izatekotan, nor bere uza (eta ez inori kopiatu) jasotzekotan, kalera atera beharra dago, egun argiz atera ere. Ez da aski luma azkarra izatea, ez alfabetatzeko ikastaroa amaitzea, ez euskal klasikoak buruz ezagutzea eta ezta Euskaltzaindiaren titulua ateratzea ere. Hizkuntzarekiko gaitasunaz gainera (oinarrizko bestalde, edozein hizkuntzatan) dinamika bat bizi eta frogatu egin behar da, eta dedikazio honek diru ordain bat eskatzen du, profesionaltasun bat alegia. Gainerakoak sasi-konponketak dira, avestruzaren jarrera, luzarorako ez den jokoa”.* (Aranberri, 1976-II-1).



baina proiektuaren oinarria ondo finkatu nahi bada, aldizkariak egin ahal duen inbertsiorik onena da. Zoritxarrez, zenbait elkartetan oraindik orain, lan-baldintzen gaia ez da beharrezko urgentzia eta lehenetsiarekin tratatzen den gaia. Maiz, erabaki organoetan dagoen jendeak (boluntarioak) ez duelako jakiten zein den langileen egoera erreala.

Datuen arabera, Deba Barreneko sei agerkarietan langileria eta inprenta gastuak aurrekontuaren atalik garrantzitsuenak dira. **Aldizkari profesionaletan aurrekontuaren ia erdia langilerian inbertitzen da, erdi profesionaletan apur bat gutxiago eta hilabetekari ez profesionaletan<sup>1424</sup> ez da langilerian dirurik inbertitzen.**

**10- ARAZOAK:** Deba Barreneko tokian tokiko aldizkari guztiek helburu komun bat izan zuten sortu zirenean, **herri informazioa euskaraz** ematea hain zuzen ere. Eta horretan ez dute kale egin, oso ondo asmatu dute: bakoitzak bere herrian milaka irakurle, ehunka bazkide eta hamaika bezero izatea lortu du-eta. Baina **informazioa euskaraz emateaz gain, ematen den informazio hori nolakoa den eta nola lantzen den ere kontuan hartu behar da, aldizkariok informazioaren gizartera egokitu nahi badira behintzat.** Hots, hasierako helburua informazio lokala euskaraz ematea izan arren, informazio hori kalitatez emateko garaia heldu da eta horretan indarrak jartzeko unea. Bailaran Eibarko ...*eta kitto!* sortu zenetik, hemezortzi urte pasa dira eta aldizkari bakoitzak bere ibilbidea egin du. *Drogeteniturre, Pil-pilean* eta *Berriketan* baino hobeto moldatu dira garai berrietara ...*eta kitto!* eta *Barren* astekariak: batzuek bere antolaketa<sup>1425</sup> moduari esker bidea leunagoa izan dutelako; beste batzuek, aldiz, zailtasun gehiago aurkitu dituztelako bidaia horretan. **Deba Barreneko aldizkari guztiak ez dira norabide berean mugitu azken urteotan; gehienak (*Drogeteniturre, Pil-pilean, Berriketan* eta *Kalaputxi*) atzean geratu dira eta edukiek erakutsi digutenez, kalitatean aldizkari profesionalek baino gutxiago aurreratzeaz gainera, maiz euren jokabideetan inertzia nagusitu da, egunerokotasunak eta lan-taldearen funtzionamenduak<sup>1426</sup> (langile profesional gutxi, hauen arduraldi mugatua, kolaboratzaileen mendekotasuna...) **inertzia horretara bultzatuz.****

<sup>1424</sup> - *Kalaputxi* hilabetekarian langileen atalean agertzen den kopurua, Oñatiko Gertu inprimategiko langileen lan, diseinu eta maketazioaren kostua da.

<sup>1425</sup> - ...*eta kitto!* eta *Barrenen* lan-taldeetan, zuzendaria, komertziala, maketatzailea, erredakzio burua eta kazetariak daude, bakoitzak bere funtzioa izanik aldizkarian. Ikus, Aranguren, Asier. (2000): "*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*" doktore-tesia, EHU, Bilbo. (129. or.).

<sup>1426</sup> - Normalean, aldizkariako lan-taldea koordinatzaile/zuzendari nagusia, publizistak eta kolaboratzaileek (gehienak kazetari ez direnak) osatzen dute.

**Beraz, sei agerkarien antolaketa eta lan egiteko era ezberdinek erakusten duten moduan, egitura zenbat eta profesionalagoa izan, orduan eta baliabide gehiago ditu aldizkariak garai berrietara egokitzeko, sendotuta dagoelako, berau izanik ...*eta kitto!* eta *Barrenen* kasua. Egitura ez profesionaletan oinarritutako proiektuak ahulagoak dira eta nahikoa lan izaten dute esku artean daukaten produktua mantentzearekin. Ondorioz, ez dute aurrera begiratzeko astirik, ezta hausnarketa eta planteamendu berriak egiteko betarik ere. Halere, egiten duten lanak meritu handia du eta nahiz eta amateurragoa izan, proiektu horietan ari den jendeak egin duen apustu pertsonal eta kolektiboak daukan balioa ez aitortzea, ez litzateke zilegi izango<sup>1427</sup>.**

**11- AHULEZIAK: Desberdintasunak desberdintasun, denbora eza eta diru urritasuna dira Deba Barreneko aldizkari gehienek kontrari dituzten bi faktore nagusiak, eta aldizkariaren egiturak zenbat eta txikiagoak izan, arazo larriagoa bihurtzen da bai bata zein bestea.**

**Eguneroko jarduerak nahikoa zeregin ematen dio bakoitzari eta zaila izaten da patxada hartu eta etorkizuna diseinatzea, oro har lan-talde txikiak direlako eta aldizkariak garaiz ateratzea zeregin garrantzitsuena bilakatzen delako.** Zer esanik ez, langilerik gabe diharduten edo langileen dedikazioa txikia den tokietan. *Kalaputxi* eta *Berriketan* aldizkarietako kideek, aldizkaritik kanpo dituzten betebeharren ostean geratzen zaien denbora libre gutxi hori, aldizkariaren produkzioan ematen dutelako; *Drogeteniturri* eta *Pil-pilean* aldizkarietan ari diren langileek, aldizkaria ateratzea izaten dutelako helbururik inportanteena.

Diru faltak ere, makina bat buruhauste ematen die aldizkariari, Deba Barreneko herri-prentsa erakundeen diru-laguntzen morroi bizi baita hein handi batean. **Datuen arabera, aldizkari ez profesional eta erdi profesionalek diru-laguntzen mendekotasun handiagoa dute:** *Drogeteniturrik* 2004ko aurrekontu osoaren %59,8ko portzentajea jasotzen du diru-laguntzetan, *Pil-pilean* hamabostekariak aurrekontu osoaren %55,10 eta *Kalaputxik* %63. *Berriketan* aldizkariak ez du erakundeen diru-laguntzarik jasotzen, horiek jasotzeko baldintza nahikoak betetzen ez dituelako.

<sup>1427</sup> “*Amateurismoa ikusiko du norbaitek hor, eta badago, eta agian hala behar du izan, edo ez; baina, amateur horiekin batera, esparru txikiko argitalpen horietan, egon badaude komunikazio-zientziak unibertsitatean ikasitakoak. Erdi musu-truk, esango du baten batek, ohi denez horrek duen garrantzia leundu nahian. Musu-truk, edo komunikazio-esparru euskaldunaren aldeko apustu garbian; epe luzeko inbertsio indibidual zein kolektibo moduko zerbait egiten*” (Basterretxea, 2003: 85).

**Aldizkari profesioaletan diru-laguntzen portzentajeak baxuagoak dira: ...eta kitto!**-n %33,9 eta *Barrenen* %49,3. Ondorioz, aldizkari profesionalek diru sarrera propio gehiago dituzte: ...eta kitto!-k 2004ko aurrekontuaren % 61,5 eta *Barrenek* % 48,5.

*Drogetenitturriren* auto-finantzaketa maila 2004an %37,7koa izan zen, *Pil-pilean* aldizkariarena %44,8koa, *Kalaputxirena* %36,9koa eta *Berriketan* aldizkariarena %107koa. Azken horren urte osoko gastuak<sup>1428</sup> ez dira 4.000 eurora heltzen.

**Auto-finantziazio maila gehitzeko arazoak dituzte aldizkari erdi profesional eta ez profesionalek. Alde batetik, jende gutxi ari delako ekonomia esparrua aztertzen eta beste alde batetik, ari diren gutxi horiek ez direlako langile kualifikatuak izaten** (ekonomilariak, administrariak...). Zentzu horretan, kolaboratzaileen figura oso garrantzitsua den arren, kolaboratzaileen ardura nagusia testuak garaiz entregatzea izaten da, ez aldizkariaren kontabilitatea kudeatzea.

Gure azterketa-epean, Deba Barreneko aldizkari bakoitzari Eusko Jaurlaritzak esleitu dion diru-laguntza<sup>1429</sup> kopurua, urtetik urtera jaitsiz joan da poliki-poliki, 2003tik aurrera jaitsiera nabarmenagoa izanik. Kontuan hartu behar da 2000tik aurrera etengabe handitu dela tokian tokiko euskarazko prentsa idatziaren kopurua Hego Euskal Herrian. 2000. urtean hogeita hamaika aldizkarik jaso zuten diru-laguntza Eusko Jaurlaritzatik eta 2004an hogeita hemezortzi aldizkarik, 2006an berrogeita bi izan dira Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza jaso dutenak.

Diru-laguntzak jasotzeko administrazioek gero eta irizpide zorrotzagoak jartzen dituzte eta euskarazko hedabideen kalitatea eta eraginkortasuna neurtzeko ikerketak ere egin berri dituzte. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen audientziak – tokian tokiko prentsa barne – neurtzen duen azterketa egin zuen 2006an eta hortik abiatuz, sektoreko eragileekin batera, euskarazko prentsaren sektorea sustatzeko moduz hausnarketa egiteko asmoa du. Etengabe hazten ari den sektorearen aurrean, administrazioak orden apur bat jarri nahi izatea suma daiteke. Ez da harrizkoa komunikabideen arloan milurteko berrian izan diren aldaketen ondorioz, administrazioak berak kudeatzen dituen diru-laguntzei ahalik eta errentagarritasun handiena atera nahi izatea, eta era berean argitalpenen eraginkortasuna bermatu nahi izatea, banatutako diruen erabilera egokia eta eraginkorra eginez<sup>1430</sup>.

<sup>1428</sup>- Ikus lan honetan *Berriketan* aldizkariaren analisisan agertzen den balantze ekonomikoa. (543. or).

<sup>1429</sup>- Ikus lan honetan agertzen den taula. (86.-87. or.).

<sup>1430</sup>- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia Gotzon Loberak argi dauka XXI. mendean erakunde publikoak ez daudela prest edozer onartzeko: "*XXI. gizaldian ez da onartzeko modukoa, edonork edozer sortu, kudeaketa publikoaren ardura dutenekin ezer kontsultatu barik, eta gero horrek dakarren zama 'herri diru' en lepo gainean jarri. Egia bada,*

Ezin ahaztu daiteke, ordea, egun euskarazko prentsak, eta neurri handi batean herri-prentsari esker, inoiz izan duen irakurle kopururik altuena duela. Tokian tokiko euskarazko argitalpen ezberdinen tiradak batuz gero, gaur egun Euskal Herri osoan, 250.500 aleko botaldia<sup>1431</sup> du herri-prentsak. Ez dago parekorik tiradari dagokionez ezta irakurle kopuruari dagokionez ere. Egia da eta maiz entzuten da, sektorea atomizatu dagoela eta sektorearen arrazionalizatzea beharrezkoa dela. Eskualdeko multimedia egitasmoak sortuz, mapa bat osatuz, sektorea arrazionalizatu daiteke; baina erakunde publikoek aintzat hartu beharko lituzkete diru-laguntzak banatzerako orduan.

#### D) BERRANTOLAKETAREN BEHARRA

**12- ESKUALDERAKO BIDEA:** Milurteko berrian tokian tokiko euskarazko prentsan aldaketak izan dira. Kasu gehienetan, herri mailako hasierako egitasmoek, **herrietako esparrua gainditu dute eskualdera zabalduz**. Sortu diren proiektu berri guztiek antzera jokatu dute, **enpresa egitura sendoago eta handiagoa osatu dute, eta formatu eta euskarri ezberdinetan eskaintzeko produktuak sortu dituzte**<sup>1432</sup>. Beraz, **etorkizunean Deba Barreneko tokian tokiko agerkari txikien antzeko egitasmoak, berregituratze prozesu batera behartuta daudela dirudi, bakoitzak bere herri edo bailarara hobeto egokitzen den bidea hautatuz**.

Horregatik, epe laburrean, lehen baino lehen, Deba Barrenerako eskualde mailako egitasmo multimedia<sup>1433</sup> gauzatu, 2003an hasitako bideari bukaera ematea izango litzateke erronka nagusia, guztientzat mesedegarri. Bateratzearekin, guztiek galduko dute eurena den zerbait, baina guztientzat onuragarria den asko irabaziko dute segur aski, Deba Barreneko aldizkari erdi eta ez profesionalek bezala aldizkari profesionalek ere. Bestelako esperientzia batzuek horrela frogatu dute, bailaran hedatuz erreferentzialtasuna lortu dutelako. Halaber, egun bailaran dagoen aldizkari kopurua arrazionalizatuko litzateke, kalitatezko egitasmo hobea lortuz.

Aldizkari horiek kaleratzen dituzten euskara eta kultur elkarteek komunikabideei euren bidea egiten uztea ezinbestekoa da. Jakin badakigu komunikabideena azkar mugitzen den

*edonork eskubidea duela nahi dituen ekimen guztiak sortzeko legearen barruan, egia da, aldi berean herri agintek, herriaren botoek emaniko legitimazio osoarekin, eskubidea dutela euren jardunbide politikoaren nondik norakoak ezartzeko” (2005: 333).*

<sup>1431</sup> - Ikus lan honetan agertzen den taula. (77.-78.-79. or.).

<sup>1432</sup> - Goiena Komunikazio Zerbitzuak Deba Goienan, Durangaldeko Herri Komunikabideak Durangaldean, *Guaixe* astekaria eta *Beleixe* irratia Sakanan eta eskualde ezberdinetako *Hitzak* besteak beste.

<sup>1433</sup> - Lan honetan Deba Barreneko eskualdeko multimedia egitasmoaren berri eman da. (103.-108. or.).

esparrua dela eta askotan komunikabideok, euskara elkarteak lantzen dituzten bestelako alorrek (kultura, gazteria, merkataritza...) baino garapen eta erritmo azkarragoan egiten dutela aurrera. Horrek ez du esan nahi euskara elkarteen baitan dauden komunikabideek beste esparruak baino garrantzi handiagoa dutenik; bai, ordea, horietan egiten den lana gehiago ikusten dela kalean. Ezin da aipatu gabe laga komunikabideak orokorrean elkarte horiek dituzten produktu erreferentzialak eta eraginkorrenetakoak direla gaur egun bizi garen komunikazio gizartean. Hortaz, komunikabide horiek kudeatzen dituzten euskara elkarte zein kultur elkarteek ez dute horren beldurrik izan behar, ez duelako zertan euskara elkartearen bizi iraupena eta funtzioa zalantzan jarri behar. Komunikabideak hazten diren heinean, garrantzi eta eragin handiagoa dute gizartean eta, euskarazko produktuak diren neurrian, komunikabideen eginkizun nagusia, euskara elkarteen helburuekin bat dator, gertuko informazioa emanez euskara sustatuz, hain zuzen ere.

**13- EKOIZPEN GLOBALA:** 2004ko datuek adierazten dutenez, Deba Barrenak eskualdeko astekari komun bat argitaratzeko ezaugarriak betetzen ditu eta ekonomikoki bideragarria litzateke; beti ere, erakunde publikoen aldetik, ordura arteko diru-laguntzak ziurtatzeko borondatea balego.

Deba Barreneko agerkarien tiradak batzen baditugu, **botaldi bakoitzeko 18.120 ale** doan (zuzenean ez dira kobratzen, bai ordea, zergetatik eratorritako diru-laguntzen bitartez) banatzen dira bailarako herri ezberdinetan, **hilean 55.590 ale** kaleratuz. **Botaldi bakoitzeko 144 orri** argitaratzen dira eta **hilean 332 orri**. **Urteko ekoizpena kontuan hartuz, bailara osoan 583.390 aldizkari-alek ikusten dute argia eta 16.906.204 orri irakurtzen dira.**

2004ko aurrekontu eta balantzeak kontuan hartuz, **Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema idatzia osatzen duten herri-aldizkariak 554.339,82 euro mugitzen dituzte urtean, 92 milioi pezeta pasatxo (92.224.962) hain zuzen ere.** Euskal Herriko aldizkari gehienak bezala, Deba Barreneko argitalpenen diru iturri nagusiak bi dira: erakunde publikoek urtero banatzen dituztenak (herrietako udalek eta Bizkaia zein Gipuzkoako Foru Aldundiek<sup>1434</sup> eta Eusko Jaurlaritzak) eta publizitatetik lortzen dituzten diru sarrerak.

**Orotara, 262.064,61 euro jasotzen dituzte sei agerkariak erakunde publiko ezberdinetatik diru-laguntzatan, 43 milioi t'erdi inguru.**

<sup>1434</sup> - Bizkaiko Foru Aldundia 2000. urtean hasi zen tokian tokiko aldizkarietzako diru-laguntzak banatzen.

Deba Barreneko aldizkari guztien artean bailara osoan 228 publizitate bezero finkori eskaintzen diote zerbitzua eta urtean 250.274,26 euro fakturatzen dira publizitatean, 41 milioi t'erdi (41.637.878 pezeta) gutxi gora-behera. 19 langile profesional eta 10 borondatezko langile ari dira Deba Barreneko euskarazko prentsan. Bederatzi lagunek egun osoko kontratua dute, bostek egun erdiko kontratua, batek egunean bi orduko kontratua dauka eta beste lauk kobratzen badute ere, ez dute lan kontraturik. Mutriku eta Debako hilabetekarietan diharduten hamar lagun borondatez ari dira hilabetekaria egiten, txintik ere kobratu gabe.

**14- GAZTELERAZKO DOAKO PRENTSAREN AURREAN ESKUALDEKO PROIEKTU MULTIMEDIAK:** Deba Barreneko euskarazko herri-aldizkariak sortu zirenean oso ongi jakin zuten **herri informazioan zegoen hutsunea aprobetxatzen. Sasoi hartan zenbait lekutan tokian tokiko euskarazko hedabideak gertuko informazioa ematen lehenak eta bakarrak izan zirelako**, baina milurteko berrian gauzak asko aldatu dira eta **gaur egun, gaztelaniaz dagoen eskaintzak, euskarazko tokian tokiko agerkarien eraginkortasuna txikitzeko arriskua areagotu egin du**. Hirietan, Bilbon kasu (*Nervion, 20 minutos, ADN, Qué!* ...) doan banatzen dira gazteleraazko egunkari batzuk eta joera hori gero eta gehiago hedatzen ari da gure artean. Adituek, paperean argitaratzen diren egunkarien egungo krisiaren arrazoiak artean, doako prentsaren gorabidea aipatzen dute. Badirudi halere, zenbait eskualdetara oraindik ez direla produktu horiek heldu, Deba Barrenera ez behintzat: horregatik, eta dagoen aukera aprobetxatuta, **aurrerantzean produktuak eta egitasmoak garai berrietara egokitzea ezinbestekoa da. Eskualdeko proiektu multimediak diseinatzea<sup>1435</sup> izan daiteke etorkizunean lantzeko aukera bat eta ez dirudi desegokia denik: esperientziak egon badaude, ondo funtzionatzen dutenak eta eredu izan daitezkeenak.**

Deba Barreanean 2003tik aurrera euskarazko eskualdeko telebista gauzatzeko ideiak indarra hartu zuen eta telebista bezalako hedabidea sortuta, eskualde osorako egitasmo multimedia sortzeko arrazoiak, argudioak eta aukerak gehiago dira, eta aprobetxatu egin behar dira. Deba Barreanean telebista sortzeko bidearen zati bat eginda dago; telebista martxan jartzeko

<sup>1435</sup>. Goiena egitasmoaren kudeatzaile izan zen Mikel Irizarrek ere, beharrezko ikusten du tokian tokiko hedabideen berrantolatzea: "*Euskal gizartean, euskararen aldeko ekimenetik sortu dira toki hedabide gehienak. Hala, 90eko hamarkadan euskara hutsezko aldizkariak hartu zuten hurbileko esparrua. Orain, tokiko hedabideei urre-meatze hori babestea dagokie, baina babestea ez da gordetzea, baizik eta meategia antolatzea, urrea ateratzea, inguruan banatzea eta ahal dena kanpora saltzea*" (Irizar, 2002/3/1-8).

egin beharreko inbertsioa minimoa da, azpiegitura materiala, aurretik Mendaro Telebistak erabilitakoa, badagoelako. Behin telebista funtzionamenduan jarrita, hurrengo pausuak (prentsa idatzia, atari digitala...) egoerak horrela eskatuta modu natural eta berezkoan eman daitezke. Hots, telebistarako informazioa lortu duenak, irrati, prentsa zein sarean jartzeko arduraren duenarekin konpartitu dezake bere lana eta horrela hurbileko komunikazioa gaur egun baino modu osatuagoan eskainiko litzateke. Multimediai dituen abantailak lan honen bigarren atalean<sup>1436</sup> aipatu ditugu.

**15- ARAZOAK, AURRERA EGITEKO ARRAZOI:** Argi dago erabat militante jaio ziren egitasmoen zailagoa egiten zaiela bide berriak jorratzea eta sasoi berrietara egokitzea. *Drogeteniturri, Pil-pilean, Kalaputxi eta Berriketan* aldizkariak dira horren adibide Deba Barrenean, agerian geratu baita **aurrera egiteko zailtasun nabarmenak izan dituztela**. Gaur egun Deba Barreneko euskarazko tokian tokiko prentsa idatziak geldialdi garaia bizi duela esan daiteke. Bere horretan jarraitzen duela alegia, duela hamar urte bezala, hainbat arlotan aurrera egin ezinik:

**a)-Lan-taldeak nekez indartu eta handitu dira; ondorioz, behar baino giza baliabide gutxiagorekin ari dira aldizkari guztiak.**

**b)-Lan baldintza duinak izatetik urrun dabilta Deba Barreneko tokian tokiko prentsa idatzian diharduten langile gehienak.**

**c)- Herrietako erakunde guztiek ez diote euskarazko aldizkariak egiten duten lanari merezi duen balioa aitortzen, ezta betetzen duten funtzioa kontuan hartzen ere, sarri askotan udaletan aldizkarietako mesfidantza nagusituz.**

**d)- Giza baliabide eta baliabide ekonomiko ezagatik, aldizkari gehienek (...eta kitto! eta *Barren* izan ezik) ez dute lortu aldizkariaren edizio digitala sarean jartzetik.**

**Oro har, informazio gizartera moldatzeko, edukiak berritzeko eta profesionalizatzeko zailtasunak ditu Deba Barreneko euskarazko herri-prentsak.**

Zailtasunak zailtasun, aurrera pausoak ere eman dira: 2000-2004 bitartean Deba Barreneko aldizkari gehienetan, neurri handiago edo txikiagoan, aldaketak egon dira, baina **aldaketa horiek kasu gehienetan ez dute benetako planteamendu profesionala bermatu**. Diseinuan hobekuntzak izan dira, tiradak gehitu egin dira, lan baldintzarik ez izatetik lan

<sup>1436</sup> - Ikus lan honen 95.-96. or.

baldintza ez duinak izatera pasa dira (*Drogetenitturri* eta *Pil-pilean*), Soraluzeko *Pil-pilean* aldizkarian maiztasuna areagotu da. Halere, Deba Barreneko aldizkari erdi profesional eta ez profesionalak, Eibarko eta Elgoibarko aldizkarien sendotasun eta profesionalizatzeko mailatik urrun daude. Dena dela, eskualdeko aldizkariak euren egoera errotik aldatzeko **birmoldaketa handia behar dute etorkizunean eta gaur egun bizi duten errealitatea ikusita, oso zaila ematen du Deba Barreneko aldizkari erdi profesional eta ez profesionalak guztiz profesional bihurtzea**, zenbait arlotan ahul daudela erakutsi dutelako, eta, ezer egin ezean, etorkizunean ere inertzia horretan jarraituko dutela dirudi. **Beraz, Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistemak berrantolaketa inoiz baino gehiago behar du, eta berrantolaketa multimedia erakoa izan daiteke irtenbidea.**

**16- ETORKIZUNA DEFINITZEKE:** 2003an Deba Barreneko sei euskara elkarteak, etorkizunari buruz elkarrekin aritzeko lehenengoz bildu zirenetik lau urte pasa dira eta tartean bailarako telebista sortzeko aukera suertatu zen eta ikus-entzunezko hedabideari eman zitzaion lehenetasuna. 2007ko lehenengo seihilekoan oraindik ez da ez bata ez bestea gauzatu. Alegia, Deba Barrenean ez dago bailara osorako aldizkari komunik ezta bailarako telebistarik ere. Behin eta berriz aipatu ditugun arazoak, **denbora eza, giza baliabide falta, eguneroko dinamikari erantzun beharra, diru urritasuna eta euskara elkarte bakoitzean ari diren langile edo borondatez dihardutenen dedikazio mugatuak**, bateratze prozesua atzeratu du. Horregatik, **Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistemak berrantolaketa inoiz baino gehiago behar du, aipatu arazo eta zailtasunei aurre egiteko;** bidearen zati bat egina dago; denborak hasierako ilusio eta gogoak urtu ez baditu, aurrerantzean 2003an ekindako amets hura betetzea falta da. Denborak esango du, Deba Barreneko aldizkariak elkarrekin edo bakarka egingo duten etorkizuneko bidea.

Orain arte, sei aldizkariak, bakoitzak bere aldetik, Deba Barreneko euskarazko sistema komunikatibo idatziari eustea eta prestigioa ematea lortu dutela erakutsi dute.

### **5.3- PROPOSAMEN BERRIAK**

Euskarazko tokian tokiko prentsaren esparruan gaur egun dagoen anabasa antolatzea ezinbestekoa da edozein proiektu berri martxan jarri aurretik. Alegia, lehendik herri eta eskualdeetan dauden egiturak aprobetxatuz, helburuak bateratuz, elkarlana gauzatzuz, eta guztien



artean enpresa egitura sendoak bultzatuz, erreferentziazko egitasmo multimediak sortzeko bide egokiena baita.

Deba Barreneko bailaran proiektu multimedia gauzatuko balitz, marko berri horretan sortzen den prentsa idatziaren kazetaritza-genero eta gaien azterketa egitea interesgarria litzateke, lan honetan agertzen diren datuekin erkatu ahal izateko eta benetako ezberdintasunak frogatzeko eta multimedia sortuko balitz, aukeratutako bidea egokia denentz jakin ahal izateko.

Hala ere, euskarazko tokian tokiko prentsan bada oraindik ikertu gabe dagoen esparrurik. Milurteko berrian sortu eta garatu diren eta euskarazko herri-prentsan paradigma bilakatu diren egitasmoen inguruan ezer gutxi egin da orain artean. *Goienkaria* eta *Anboto* astekariaren edo eskualde ezberdinetan sortu diren *Hitza* egunkariaren kazetaritza-genero eta gaien azterketak, multimedia ekimenen baitan prentsaren errealitatea ezagutzeko bide emango liguke. Era berean, Deba Barrenean bezalaxe, hainbat eskualdetan duela hamarkada bat sortu ziren produktuekin alderatzeko eta kontrastatzeko interesgarria litzateke oso.

Bestalde, aldizkariaren diseinu azterketa beharrezkoa litzateke; 2000. urtetik aurrera tokian tokiko euskarazko prentsa idatziak bizi izan dituen aldaketan artean, diseinuarena eta formatuarena inportantea izan baita. Lan honetan behin baino gehiagotan aipatu dugu, egunkari formatua zenbait tokitan aldizkariari inposatu zaiola. Batzuek eta besteek hautatu duten bidearen nondik norakoak, zergatiak eta eraginak aztertzeak berebiziko garrantzia izango luke, euskarazko tokian tokiko prentsaren etorkizuna hobeto diseinatu eta kudeatu ahal izateko.

Halaber, euskarazko herri-prentsaren publizitate ikerketak, produktuen bilakaera ezagutzeko bide emango liguke. Ezin ahaztu daiteke, tokian tokiko prentsaren finantziario iturri garrantzitsua publizitatea dela, erakunde publikoen diru-laguntzekin batera. Beraz, aintzat hartu eta zaindu beharreko arloa da publizitatearena eta aztertzea merezi duena: euskarazko herri-aldizkariak sortu zirenetik gaur egun arte, publizitatearen arloan izan diren aldaketak zeintzuk diren identifikatzen lagunduko liguke, zertan asmatu den, zertan hobetu beharra dagoen eta aukera berriak zeintzuk diren ezagutaraziz. Beste alde batetik, gaur egun, tokian tokiko prentsa idatzian argitaratzen diren formatu ezberdinetako agerkariaren publizitate analisiak, konparaketarako bide emateaz gain, publizitate mota ezberdinen eraginkortasuna neurtzeko aukera eskainiko luke.

## **6- BIBLIOGRAFIA**



**6- BIBLIOGRAFIA**

- ABRIL**, Natividad. (1999): *Periodismo de opinión*, Síntesis, Madril.
- AGIRREAZALDEGI**, Alberto. (1993): “Euskarazko herri-aldizkari bat zure herrian”, in **ASKOREN ARTEAN**. (1993): *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.
- AGIRREAZKUENAGA**, Joseba. (1989): “Prensa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren Garaian”, in *Jakin* aldizkaria, 50. zenbakia, Donostia, 95-119 or.
- AGIRRETXE**, J.L. (2004): “Izan eta izena”, in *ON Oarsoaldean*, 2004/05.
- AIESTARAN**, Alazne. (2004): “Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila”, in *Uztaro giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 49. zenbakia, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 45-57 or.
- AIESTARAN**, Alazne. (2005): “Hedabide txikiak ere bagara”, in **ASKOREN ARTEAN**, *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 441-446 or.
- AMENABARRO**, Esti. (2005): “Hitza egunkaria, gertutasunak onurak eskaintzen dituenean”, in *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 283-289 or.
- AMILIBIA**, Amaia. (2002): “Bierrik elkarrekin eta euskarazko herri komunikabideak Sakanan”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8, [www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm).
- ARANBERRI**, Luis Alberto. “Amatiño”. (1976): “Euskal kazetaritzaren inguruan”, in *Argia*, 675. zenbakia, (1976/II/1), Euskaltzaindia, Bilbo.
- ARANBERRI**, Luis Alberto. “Amatiño”. (1982): “Prensa idatziaren arazoak”, in *Jakin* aldizkaria, 22. zenbakia, Donostia, 70-82 or.
- ARANGUREN**, Asier. (1991): “Prensa lokala Euskal Herrian, ezarpena eta zabalpena”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Prensa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.
- ARANGUREN**, Asier. (1999): “Gutxi baina onenak”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 26. zenbakia, 1999/3/19-26, [www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm).
- ARANGUREN**, Asier. (2000): “*Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*” doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**ARANZABAL**, Joxe. (1990): “Euskal komunikabideak Arrasaten”, in *Jazten* aldizkaria, 3. zenbakia, Arrasate Euskaldun Dezagun, Arrasate, 13-18 or.

**ARANZABAL**, Joxe. (1991): “Herri aldizkari baten tajuketa”, in **ASKOREN ARTEAN**, *Prentsa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.

**ARANZABAL**, Joxe, (1992): “Herri aldizkari baten taxuketa”, in *Jakin* aldizkaria, 69. zenbakia, Donostia, 67-80 or.

**ARANZABAL**, Joxe. (1999): “Euskarazko herri prentsaren bilakaera”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 26 zenbakia, 1999/3/19-26, [www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm).

**ARMAÑANZAS**, Emy; **DIAZ NOCI**, Javier. (1996): *Periodismo de argumentación. Géneros de opinión*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**ARMENTIA**, Jose Ignacio. (1991): “Prensa koloredunaren etorkizuna”, in *Jakin* aldizkaria, 65. zenbakia, Donostia, 89-95 or.

**ARMENTIA**, Jose Ignacio. (1994): “Euskal Herriko egunkarien irudi berria”, in *Uztaro giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 11. zenbakia, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 37-46 or.

**ASKOREN ARTEAN**. (1982): “Euskara eta prentsa”, in *Jakin* aldizkaria, 22. zenbakia, Donostia, 105-123 or.

**ASKOREN ARTEAN**. (1992): “Euskal prentsa lokalaren problematika”, in *Jakin* aldizkaria, 69. zenbakia, Donostia, 51-66 or.

**ASKOREN ARTEAN**. (1999): *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

**ASKOREN ARTEAN**. (2000): “Leku eske ari dira euskalkiak”, (Xabier Letonak gidatutako mahai ingurua), in *Larrun* aldizkaria, 29. zenbakia, 2000/01/30, Lasarte-Oria.

**ASKOREN ARTEAN**. (2003): *Tokiko hedabideak etorkizunera begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak*, Topagunea, Euskara Elkarten Federazioa, Abadiño.

**ASKOREN ARTEAN**. (2005): *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**ASKOREN ARTEAN**. (2006): “Euskal kazetaritzaren urtea”, in *Gu gara Euskal Prentsa, hautu baten kronika 1976/2006 DVD-a*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

**ASKOREN ARTEAN.** (2006): *Prentsa, irratia, sarea, telebista*. Euskarazko Hedabideen topaketa-mintegia txostena, Udako Euskal Unibertsitatea, Eibar.

**ATXAGA,** Mikel. (2001): “Hamarkada urratzailea eta emankorra”, in *Larrun* aldizkaria, 48. zenbakia, Lasarte-Oria, 18-19 or.

**AZKARATE,** Eneko. (2002): “Goienkaria: astekari bat Debagoienarako”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8, [www.euskonews.com/0157zbnk/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zbnk/frgaia.htm).

**AZKARATE,** Miren. (2006): “Erdaldunen eskubideak urratzen direla uste dute milaka herritarrek”, (Jose Mari Pastor eta Jon Eskisabelek egindako elkarrizketa), in *Berria*, 2006/II/4.

**AZPILIKUETA,** A. (2003): “Bigarren hitza, Oarsoaldean”, in *Berria*, 2003/VI/24.

**AZPILIKUETA,** A. (2003): “Tolosaldekoaren bidetik”, in *Berria*, 2003/VI/24.

**BALEIKE.** (2003): “HITZA badator”, in *Baleike* aldizkaria, 117. zenbakia, 2003/12.

**BASTERRETXEA,** Jose Inazio. (1997): *Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

**BASTERRETXEA,** Jose Inazio. (2001): “Hizkuntza eta hedabideak: prentsa idatziaren kasua” in *Uztaro giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 39. zenbakia, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 63-74 or.

**BASTERRETXEA,** Jose Inazio. (2003): *Aurkari ikusezina, identitateaz eta gizarte-komunikazioaz*, ALBERDANIA, Irun.

**BASTERRETXEA,** Jose Inazio. (2005): “Euskarazko kazetaritzaren emantzipazioa (1976-2006)”, in *Berria*, 2005/ XI/ 19.

**BAZTARRIKA,** Patxi. (2006): “Gogoeta eta galderak egin behar ditugu, irakurlearen ikuspuntutik”, (Jakes Goikoetxeak egindako elkarrizketa), in *Berria*, 2006/VII/4.

**BENGOETXEA,** L. (2003): “Bertokoen Hitza”, in *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, 2003/X/11.

**BERASALUZE,** G. (2004): “Eskualdeari hitza, egunero”, in *Urola Kostako Hitza*, 2004/I/17.

**BERRIA.** (2005): “Berriak 70.000 irakurle inguru lortu ditu Hego Euskal Herrian”, in *Berria*, 2005/XII/29.

**BERRIA.** (2006): “Euskarazko eskaintza indartzea lehenetsi dezan eskatu dio sektoreak Jauralaritzari”, in *Berria*, 2006/VI/30.

**BREÑAS,** Estibalitz. (2002): “GEU aldizkaria, Araba osoko euskara hutsezko hilabetekari bakarraren 110 aleko historia”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8. [www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm).

**BUJANDA,** Mikel. (2003): “Euskalerrria irratia”, in **ASKOREN ARTEAN.** “*Tokiko hedabideak etorkizunera begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak*”, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.

**BUSTURIALDEKO HITZA.** (2005): “Busturialdeko egunkaria”, in *Busturialdeko Hitza*, 2005/X/31.

**CAMACHO,** Idoia. (1999): *Herri aldizkariaren funtzioak euskara normaltzeko prozesuan 1989-1999* doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

**CAMACHO,** Idoia. (2002): “Euskarazko herri-aldizkariaren funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian”, in *Uztaro giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 43. zenbakia, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 67-85 or.

**CAMACHO,** Idoia. (2003): “Tokiko prentsa etorkizunari begira”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 231. zenbakia, [www.euskonews.com/0231zkb/gaia23104eu.html](http://www.euskonews.com/0231zkb/gaia23104eu.html).

**CANTALAPIEDRA,** María Jose. (1996): *La información local en los periódicos de Bizkaia* doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**CEBRIAN,** Mariano. (1992): *Géneros informativos audiovisuales*, Ciencia 3, Madril.

**COLLER,** Xavier. (2000): “*Cuadernos Metodológicos, estudio de casos*”, Centro de Investigaciones sociológicas, Madril.

**DIAZ DE TUESTA,** Jose Felix. (2003): “Zenbat buru...”, in *Topaberri Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioaren berripapera*, 27. zenbakia, (2003ko iraila), Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.

**DIAZ DE TUESTA,** Joxe Felix. (2003): “Tokiko prentsaren errezeta”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 231. zenbakia, 2003/11/21-28, [www.euskonews.com/0231zkb/gaia23101eu.htm](http://www.euskonews.com/0231zkb/gaia23101eu.htm).

**DIAZ NOCI,** Javier. (1994): *Euskarazko aldizkari eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.

**DIAZ NOCI**, Javier. (1995): *Kazetaritza-idazkuntzarako eskuliburua: informazio generoak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**DIAZ NOCI**, Javier. (1995)a: *Euskal Prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia.

**DIAZ NOCI**, Javier. (1995)b: “Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: *Euzkadi eta Euzko (1913-1934)*”, in *Uztaro giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 15. zenbakia, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 81-95 or.

**DIAZ NOCI**, Javier. (1999): “Medios de comunicación en euskara: un modelo dependiente del dinero publico”, in *Euskonews & Media aldizkaria*, 26 zenbakia, 1999/3/19-26, [www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm).

**DIAZ NOCI**, Javier. (2000): *Informazio generoak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**DIEZHANDINO**, María Pilar. (1999): *Periodismo de servicio: la utilidad como complemento informativo en “Time”, “Newsweek” y “U.S News and World Report” y otros apuntes del caso español*, Bosch, Bartzelona.

**DIEZHANDINO**, María Pilar; **COCA**, Cesar. (1997): “*La nueva información*”. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**EGUNERO**. (2003): “Oarsoaldeak badu bere ‘Hitza’ ”, in *Egunero*, 2003/V/21.

**EIZAGIRRE**, Estitxu; **IRURETA**, Onintza. (2004): “Euskarazko prentsa etorkizuneko antolaketari begira” (mahai ingurua), in *Larrun aldizkaria*, 80. zenbakia, 2004/11/07, Lasarte-Oria.

**ELIZONDO**, Edurne. (2004): “Guaixe, ostiralero”, in *Berria*, 2004/II/ 4.

**ELKOROBEREZIBAR**, Miguel Angel. (1991): “Euskal Herriko prentsa lokalaren finantzabideak”, in **ASKOREN ARTEAN**, *Prentsa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.

**ELKOROBEREZIBAR**, Miguel Angel. (1992): “Prentsa lokala Euskal Herrian”, in *Jakin aldizkaria*, 69. zenbakia, Donostia, 11-39 or.

**ESCRIBANO**, Matías. (1991): “Prensa gratuita: Distribución –Publicidad– Información”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Prentsa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.

**ETA KITTO!**. (2006): “Agur barkuko kapitainari”, (Fernando Muniozgurenen omenez kaleratutako ale berezia), in *...eta kitto!* aldizkaria, 566. zenbakia, 2006/VII/14..



- EUSKO JAURLARITZA.** (2006): “*Euskarazko Hedabideak*” (barne txostena), Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- FERNANDEZ, Luis.** (1996): “Euskal kazetariaren profila”, in *Jakin* aldizkaria, 96. zenbakia, Donostia, 51-62 or.
- GARMENDIA, Elixabete.** (2005): “Euskal kazetaritza modernoaren pausajea: Ukapenetik izatera”, in **ASKOREN ARTEAN.** *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- GOIKOETXEA, Jakes.** (2004): “Bosgarren Hitza”, in *Berria*, 2004/X/5.
- GOIKOETXEA, Jakes.** (2005): “Topagunea: Guk ez daukagu ospakizunik egiteko gogorik”, in *Berria*, 2005/XII/3.
- GOIKOETXEA, Jakes.** (2006): “Diru-laguntzen igoerak ez du eragingo euskarazko prentsan”, in *Berria*, 2006/V/30.
- GOIKOETXEA, Jakes.** (2006): “Oso urrun geratzen da beharrezko babes ekonomikoa”, in *Berria*, 2006/V/31.
- GOIKOETXEA, Jakes.** (2007): “Busturialdeko Hitza astean bost egunetan, laguntza faltagatik”, in *Berria*, 2007/II/3.
- GONZALEZ, Maria.** (2005): “Tokiko prentsa idatzia”, in **ASKOREN ARTEAN.** *Gu gara Euskal Prentsa, hautu baten kronika 1976/2006 DVD-a*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA.** (2006): “Euskara sustatzeko 2006ko diru laguntzak”, in *Euskararen Berripaperra*, 168. zenbakia, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- IPARRAGIRRE, Pilar; IRAZUSTABARRENA, Nagore.** (2001): “Agustin Ezeiza Zeruko Argia astekariaren sortzailea: ‘Momentua ondo harrapatzen jakin genuen’”, in *Larrun* aldizkaria, 48. zenbakia, Lasarte-Oria, 22-25 or.
- IRIGOIEN, Jose Manuel.** (1992): “Ttipi-Ttapa”, in *Jakin* aldizkaria, 69. zenbakia, Donostia, 103-113 or.
- IRIZAR, Karmen.** (2002): “Maxixatzenen Maxixatzen”, in *EuskoNews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8, [www.euskoNews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskoNews.com/0157zkb/frgaia.htm).
- IRIZAR, Mikel.** (2001): *Goiena esperientzia, eskualdeko talde multimedia baten sorrera*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

**IRIZAR**, Mikel. (2002): “Informazio gizartea”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8, [www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm).

**ITURAIN**, Iñaki. (1999): “Euskara batua ala euskalkiak herri aldizkarietan?”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 26 zenbakia, 1999/3/19-26, [www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm).

**ITURRIAGAETXEBARRIA**, A. (2004): “Pauso luzez eta ziurrez mamitutako proiektua”, in *Berria*, 2004/VI/20.

**LANDA**, Josu. (1996): “Komunikabide-mota berri baten atarian”, in *Jakin* aldizkaria, 96. zenbakia, Donostia, 76-80 or.

**LARRAÑAGA**, Imanol. (2002): “Barren astekaria: 10 urte Elgoibarko berri ematen”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8, [www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm).

**LARRAÑAGA**, Jotxo; **GABANTXO**, Miren; **ARANGUREN**, Asier. (1997): “Sei herri aldizkari: eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat”, in *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación* aldizkaria, 6. zenbakia, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 15-40 or.

**LARRARTE**, Joanmari. (2005): “EKT: Etorkizuneko komunikazio taldearen oinarri sendoa”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**LARRARTE**, Joanmari. (2006): “Diru gutxi gehiago, eta hori erdarazko hedabideentzat”, in *Berria*, 2006/V/31.

**LOBERA**, Gotzon. (2005): “Administrazioaren ikuspegiaren aldaketa”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**MAIZ**, A. (2004): “Eguneroko hitza eskualdean”, in *Goierriko Hitza*, 2004/IX/11.

**MARTIN VIVALDI**, Gonzalo. (1981): *Géneros periodísticos: reportaje, crónica, artículo, (análisis diferencial)*, 3<sup>a</sup> ed, Pananinfo, Madril.

**MARTINEZ ALBERTOS**, José Luis. (1983): *Curso general de redacción periodística*, Mitre, Bartzelona.

**MEES**, Ludger. (2005): “Euskarazko Hedabideen Ikerketa Zentroa”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**MENDIGUREN**, Iñaki. (1992): “Arrasate Press”, in *Jakin* aldizkaria, 69. zenbakia, Donostia, 91-102 or.

**MENDIGUREN**, Iñaki. (1993): “Euskarazko komunikabideak”, in *Jazten* aldizkaria, 8. zenbakia, Arrasate Euskaldun Dezagun, Arrasate, 23-26 or.

**MENDIZABAL**, Jasone. (2002): *Herri komunikabideen egoera eta etorkizunerako erronkak mintegiko akta*, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.

**MENDIZABAL**, Jasone. (2003): *Tokiko aldizkariaren maiztasunari buruzko barne txostena*, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.

**MENDIZABAL**, Jasone. (2005): “Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

**MERCADE MACIA**, Joan. (1991): “Potencialidad de la prensa local y comarcal”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Prentsa lokalari buruzko I. Jardunaldiak*, Arko, Arrasate.

**MOLET**, Jordi. (1992): “Kazetal enpresen antolakuntza”, in *Jakin* aldizkaria, 69. zenbakia, Donostia, 81-90 or.

**MUNIOZGUREN**, Fernando. (1997): “Eremu urriko euskal prentsaren bideetan barrena”, in *Jakin* aldizkaria, 103. zenbakia, Donostia, 73-79 or.

**MUXIKA**, Joxemari. (1999): “Herri aldizkariak zertan diren”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 26. zenbakia, 1999/3/19-26, [www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm).

**MUXIKA**, Joxemari. (2002): “Euskaraz idatzitako aldizkariaren errolda: 1960-1999”, *Mediatika, cuadernos de medios de comunicación* aldizkaria, 9. zenbakia, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

**NARBAIZA**, Bea. (2003): “Lege berriaren eragina Hego Euskal Herriko telebisten egungo mapan”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak*, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.

**NARBAIZA**, Bea; **ARANA**, Edorta; **AZPILLAGA**, Patxi. (2005): “Tokian tokiko telebistak, geroari begira”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 247-256.

**ORTEGA**, Hector. (2002): “Bilbo eta herri aldizkari euskaldunak: Berton eta Prest!”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8, [www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm).

- PETRIATI**, Garbiñe. (2006): “Euskarazko prentsa idatzia Nafarroan”, in *Berria*, 2006/III/1.
- RAMIREZ DE LA PISCINA**, Txema. (1998): *Kazetari-lana Euskal Herrian. Interpretaziorako eta espezializaziorako abiaburuak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- RENTERIA**, Aitor. (2004): “Herria-ren ahotsa”, in *Berria*, 2004/XII/26.
- SARASUA**, Jon. (1996)a: *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari doktore-tesia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- SARASUA**, Jon. (1996)b: “Euskarazko prentsaren diagnostikoa”, in *Jakin* aldizkaria, 96. zenbakia, Donostia, 11-28 or.
- SOLABERRIETA**, Agurtzane. (2004): “Dirua oso berandu banatzen dela salatu dute komunikabideek”, in *Berria*, 2004/XI/16.
- SOLABERRIETA**, Agurtzane. (2005): “Euskarazko prentsari milioi bat euro gehiago emateko eskatu diote Jaurlearitzari”, in *Berria*, 2005/X/11.
- SORALUZE**, Edurne. (2004): “Hedabide sarea osatzeko aldizkaria”, in *Berria*, 2004/V/30.
- TOPABERRI**. (2003): “Euskaldun baten etxean astekari bat”, in *Topaberri Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioaren berripapera*, 24. zenbakia, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- TOPABERRI**. (2003): “III. Jardunaldiak Zamudion”, in *Topaberri Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioaren berripapera*, 30. zenbakia, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- TOPABERRI**. (2003): “Jardunaldiak azaroan”, in *Topaberri Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioaren berripapera*, 27. zenbakia, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- TOPABERRI**. (2006): “Hedabideen mintegia”, in *Topaberri Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioaren berripapera*, 58. zenbakia, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioa, Abadiño.
- TORREALDAI**, Joan Mari. (1997): *Euskal kultura gaur, liburuaren mundua*, Jakin, Donostia.
- URBIETA**, Kepa. (2007): “Egunkaria? Internet, mesedez”, in *Igandea* gehigarria, *Berria* 2007/II/4.

- URRUTIA**, Iñigo. (1996): “Publizitatea jasotzeko eskubidea eta euskal prentsa”, in *Jakin* aldizkaria, 96. zenbakia, Donostia, 89-105 or.
- URRUTIA**, Santi. (2003): “Mapa komunikatiboak eta euskara”, in **ASKOREN ARTEAN**. *Tokiko Hedabideak Etorkizunera Begira (irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista) III. Jardunaldiak*, Topagunea, Euskara Elkarten Federazioa, Abadiño.
- URZELAI**, Pello. (1996): “Euskal komunikabideetako genero informatiboaren gainbehera”, in *Jakin* aldizkaria, 96. zenbakia, Donostia, 81-88 or.
- USABIAGA**, Ander. (2005): “Hemen da Donostiako egunkaria”, in *Irutxuloko Hitza*, 2005/I/19.
- UZTARRIA** (Azpeitiko herri aldizkaria). (2002): “Kalitateko produktu erreferentziala helburu”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 157. zenbakia, 2002/3/1-8, [www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0157zkb/frgaia.htm).
- ZABALETA**, Iñaki. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- ZALAKAIN**, Jesus Mari, (1993): *Euskal prentsa herri proiektua da. Joxemiren uzta*, Txalaparta, Tafalla.
- ZALAKAIN**, Jesus Mari. (1982): “Komunikabidez komunikabide”, in *Jakin* aldizkaria, 22. zenbakia, Donostia, 56-69 or.
- ZALAKAIN**, Jesus Mari. (1996): “Printzipio-alorreko desfioak”, in *Jakin* aldizkaria, 96. zenbakia, Donostia, 71-75 or.
- ZALAKAIN**, Jesus Mari. (2003): “Egunkaria itxi dute, baina proiektua bizirik dago”, in *Uztaro giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, 45. zenbakia, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 29-65 or.
- ZUBELDIA**, Unai. (2004): “Otsailean kaleratuko da Donostian ‘Irutxuloko Hitza’ egunkaria”, in *Berria*, 2004/XII/30.
- ZUBELDIA**, Unai. (2005): “Kalean da ‘Busturialdeko Hitza’, Hitza proiektuen zazpigarrena”, in *Berria*, 2005/XII/15.
- ZUBEROGOITIA**, Aitor. (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean* doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- ZUBIRIA**, Pello. (1999): “Komunikazio aniztasuna eta elkarlana”, in *Euskonews & Media* aldizkaria, 26. zenbakia, 1999/3/19-26, [www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm](http://www.euskonews.com/0026zkb/frgaia.htm).

## I. ERANSKINA

### **TESIAN AZTERTU DIREN ...ETA KITTO! ALEEN ZERRENDA**

#### **2000 URTEKOAK**

**299 zkia.** Urtarrilaren 2. astea  
**304 zkia.** Otsailaren 3. astea  
**310 zkia.** Martxoaren 4. astea  
**311 zkia.** Apirilaren 1. astea  
**315 zkia.** Maiatzaren 2. astea  
**320 zkia.** Ekainaren 3. astea  
**322 zkia.** Uztailaren 1. astea  
**327 zkia.** Irailaren 4. astea  
**328 zkia.** Urriaren 1. astea  
**332 zkia.** Azaroaren 2. astea  
**335 zkia.** Abenduaren 1. astea  
**337 zkia.** Abenduaren 3. astea

#### **2001 URTEKOAK**

**341 zkia.** Urtarrilaren 4. astea  
**342 zkia.** Otsailaren 1. astea  
**347 zkia.** Martxoaren 2. astea  
**353 zkia.** Apirilaren 3. astea  
**357 zkia.** Maiatzaren 4. astea  
**358 zkia.** Ekainaren 1. astea  
**364 zkia.** Uztailaren 2. astea  
**367 zkia.** Irailaren 3. astea  
**372 zkia.** Urriaren 4. astea  
**373 zkia.** Azaroaren 1. astea  
**374 zkia.** Azaroaren 2. astea  
**377 zkia.** Abenduaren 2. astea

#### **2002 URTEKOAK**

**381 zkia.** Urtarrilaren 3. astea  
**386 zkia.** Otsailaren 4. astea  
**387 zkia.** Martxoaren 1. astea  
**392 zkia.** Apirilaren 2. astea  
**397 zkia.** Maiatzaren 3. astea  
**402 zkia.** Ekainaren 4. astea  
**403 zkia.** Uztailaren 1. astea  
**405 zkia.** Irailaren 1. astea  
**410 zkia.** Urriaren 2. astea  
**411 zkia.** Urriaren 3. astea  
**415 zkia.** Azaroaren 3. astea  
**420 zkia.** Abenduaren 4. astea

#### **2003 URTEKOAK**

**421 zkia.** Urtarrilaren 1. astea  
**426 zkia.** Otsailaren 2. astea  
**431 zkia.** Martxoaren 3. astea  
**435 zkia.** Apirilaren 4. astea  
**436 zkia.** Maiatzaren 1. astea  
**441 zkia.** Ekainaren 2. astea  
**444 zkia.** Uztailaren 2. astea  
**446 zkia.** Irailaren 2. astea  
**448 zkia.** Irailaren 4. astea  
**451 zkia.** Urriaren 3. astea  
**457 zkia.** Azaroaren 4. astea  
**458 zkia.** Abenduaren 1. astea

### **2004 URTEKOAK**

- 463 zkia.** Urtarrilaren 2. astea
- 468 zkia.** Otsailaren 3. astea
- 473 zkia.** Martxoaren 4. astea
- 474 zkia.** Apirilaren 1. astea
- 479 zkia.** Maiatzaren 2. astea
- 484 zkia.** Ekainaren 3. astea
- 485 zkia.** Uztailaren 1. astea.
- 489 zkia.** Irailaren 4. astea.
- 490 zkia.** Urriaren 1. astea
- 496 zkia.** Azaroaren 2. astea
- 500 zkia.** Abenduaren 2. astea
- 501. zkia.** Abenduaren 3. astea

## **TESIAN AZTERTU DIREN PIL PILEAN ALEEN ZERRENDA**

### **2000 URTEKOAK**

- 20 zkia. Urtarrila
- 21 zkia. Otsaila
- 22 zkia. Martxo
- 23 zkia. Apirila
- 24 zkia. Maiatza
- 25 zkia. Ekaina
- 26 zkia. Uztaila
- 27 zkia. Iraila
- 28 zkia. Urria
- 29 zkia. Azaroa
- 30 zkia. Abendua

### **2001 URTEKOAK**

- 31 zkia. Urtarrila
- 32 zkia. Otsaila
- 33 zkia. Martxo
- 34 zkia. Apirila
- 35 zkia. Maiatza
- 36 zkia. Ekaina
- 37 zkia. Uztaila
- 38 zkia. Iraila
- 39 zkia. Urria
- 40 zkia. Azaroa
- 41 zkia. Abendua

### **2002 URTEKOAK**

- 43 zkia. Otsailaren 1. hamabostaldia<sup>1437</sup>
- 45 zkia. Martxoaren 2. hamabostaldia
- 46 zkia. Apirilaren 1. hamabostaldia
- 49 zkia. Maiatzaren 2. hamabostaldia
- 50 zkia. Ekainaren 1. hamabostaldia
- 53 zkia. Uztailaren 2. hamabostaldia
- 55 zkia. Irailaren 2. hamabostaldia
- 56 zkia. Urriaren 1. hamabostaldia
- 59 zkia. Azaroaren 2. hamabostaldia
- 60 zkia. Abenduaren 1. hamabostaldia

### **2003 URTEKOAK**

- 61 zkia. Urtarrilaren 1. hamabostaldia
- 64 zkia. Otsailaren 2. hamabostaldia
- 65 zkia. Martxoaren 1. hamabostaldia
- 68 zkia. Apirilaren 2. hamabostaldia
- 69 zkia. Maiatzaren 1. hamabostaldia
- 72 zkia. Ekainaren 2. hamabostaldia
- 73 zkia. Uztailaren 1. hamabostaldia
- 74 zkia. Irailaren 1. hamabostaldia
- 77 zkia. Urriaren 2. hamabostaldia
- 79 zkia. Azaroaren 2. hamabostaldia
- 81 zkia. Abenduaren 2. hamabostaldia

---

<sup>1437</sup>- 2002ko urtarrilean ez da alerik kaleratzen, 2002ko otsaileko hamabostekaria prestatzen ari baitira. Beraz, urte horretako lehenengo alea, 43. zenbakia da.



## **2004 URTEKOAK**

**83 zkia.** Urtarrilaren 2. hamabostaldia.

**84 zkia.** Otsailaren 1. hamabostaldia

**87 zkia.** Martxoaren 2. hamabostaldia

**88 zkia.** Apirilaren 1. hamabostaldia

**91 zkia.** Maiatzaren 2. hamabostaldia

**92 zkia.** Ekainaren 1. hamabostaldia

**94 zkia.** Uztailaren 2. hamabostaldia

**95 zkia.** Irailaren 1. hamabostaldia

**98 zkia.** Urriaren 2. hamabostaldia<sup>1438</sup>

**99 zkia.** Azaroaren 1. hamabostaldia

**102 zkia.** Abenduaren 2. hamabostaldia

---

<sup>1438</sup>- Alean 97. alea jartzen du baina akats baten ondorioa da, 98. zenbakia da berez.

## **TESIAN AZTERTU DIREN BARREN ALEEN ZERRENDA**

### **2000 URTEKOAK**

**304 zkia.** Urtarrilaren 2. astea  
**309 zkia.** Otsailaren 3. astea  
**314 zkia.** Martxoaren 4. astea  
**316 zkia.** Apirilaren 1. astea  
**320 zkia.** Maiatzaren 2. astea  
**326 zkia.** Ekainaren 3. astea  
**330 zkia.** Uztailaren 3. astea  
**332 zkia.** Irailaren 1. astea  
**337 zkia.** Urriaren 2. astea  
**341 zkia.** Azaroaren 3. astea  
**343 zkia.** Abenduaren 1. astea  
**345 zkia.** Abenduaren 3. astea

### **2001 URTEKOAK**

**348 zkia.** Urtarrilaren 4. astea  
**349 zkia.** Otsailaren 1. astea  
**354 zkia.** Martxoaren 2. astea  
**360 zkia.** Apirilaren 3. astea  
**364 zkia.** Maiatzaren 4. astea  
**365 zkia.** Ekainaren 1. astea  
**371 zkia.** Uztailaren 2. astea  
**376 zkia.** Irailaren 3. astea  
**381 zkia.** Urriaren 4. astea  
**382 zkia.** Azaroaren 1. astea  
**383 zkia.** Azaroaren 2. astea  
**386 zkia.** Abenduaren 2. astea

### **2002 URTEKOAK**

**389 zkia.** Urtarrilaren 3. astea  
**394 zkia.** Otsailaren 4. astea  
**395 zkia.** Martxoaren 1. astea  
**400 zkia.** Apirilaren 2. astea  
**405 zkia.** Maiatzaren 3. astea  
**411 zkia.** Ekainaren 4. astea  
**412 zkia.** Uztailaren 1. astea  
**416 zkia.** Irailaren 2. astea  
**421 zkia.** Urriaren 3. astea  
**422 zkia.** Urriaren 4. astea<sup>6</sup>  
**426 zkia.** Azaroaren 4. astea  
**427 zkia.** Abenduaren 1. astea

### **2003 URTEKOAK**<sup>1439</sup>

**430 zkia.** Urtarrilaren 2. astea  
**434 zkia.** Otsailaren 2. astea  
**439 zkia.** Martxoaren 3. astea  
**443 zkia.** Apirilaren 4. astea  
**444 zkia.** Maiatzaren 1. astea  
**449 zkia.** Ekainaren 2. astea  
**453 zkia.** Uztailaren 3. astea  
**457 zkia.** Irailaren 3. astea  
**458 zkia.** Irailaren 4. astea  
**462 zkia.** Urriaren 1. astea  
**464 zkia.** Azaroaren 2. astea  
**470 zkia.** Abenduaren 3. astea

---

<sup>1439</sup>- 459, 460, 461, 465, 466 eta 469 aleak ez daude artxiboan gordeta. Ordena egokitu egin behar izan da.

**2004 URTEKOAK**

**474 zkia.** Urtarrilaren 4. astea

**475 zkia.** Otsailaren 1. astea

**480 zkia.** Martxoaren 2. astea

**485 zkia.** Apirilaren 3. astea

**490 zkia.** Maiatzaren 4. astea

**491 zkia.** Ekainaren 1. astea

**496 zkia.** Uztailaren 2. astea

**500 zkia.** Irailaren 2. astea

**501 zkia.** Irailaren 3. astea

**503 zkia.** Urriaren 1. astea

**508 zkia.** Azaroaren 2. astea

**512 zkia.** Abenduaren 3. astea

## **TESIAN AZTERTU DIREN KALAPUTXI ALEEN ZERRENDA**

### **2002 URTEKOAK**

- 3 zkia. Urtarrila
- 5 zkia. Martxoa
- 6 zkia. Apirila
- 7 zkia. Maiatza
- 8 zkia. Ekaina
- 9 zkia. Uztaila
- 10 zkia. Iraila
- 11 zkia. Urria
- 12 zkia. Azaroa
- 13 zkia. Abendua

### **2003 URTEKOAK**

- 14 zkia. Urtarrila
- 15 zkia. Otsaila
- 16 zkia. Martxoa
- 17 zkia. Apirila
- 18 zkia. Maiatza
- 19 zkia. Ekaina
- 20 zkia. Uztaila
- 21 zkia. Iraila
- 22 zkia. Urria
- 23 zkia. Azaroa
- 24 zkia. Abendua

### **2004 URTEKOAK**

- 25 zkia. Urtarrila
- 26 zkia. Otsaila
- 27 zkia. Martxoa
- 28 zkia. Apirila
- 29 zkia. Maiatza
- 30 zkia. Ekaina
- 31 zkia. Uztaila
- 32 zkia. Iraila
- 33 zkia. Urria
- 34 zkia. Azaroa
- 35 zkia. Abendua

## **TESIAN AZTERTU DIREN BERRIKETAN ALEEN ZERRENDAA**

### **2000 URTEKOAK**

- 18 zkia. Urtarrila
- 19 zkia. Otsaila
- 20 zkia. Martxoa
- 21 zkia. Apirila
- 22 zkia. Maiatza
- 23 zkia. Ekaina
- 24 zkia. Uztaila
- 25 zkia. Abuztua
- 26 zkia. Iraila
- 27 zkia. Urria
- 28 zkia. Azaroa
- 29 zkia. Abendua

### **2001 URTEKOAK<sup>1440</sup>**

- 30 zkia. Urtarrila
- 31 zkia. Martxoa
- 32 zkia. Apirila
- 34 zkia. Ekaina
- 35 zkia. Uztaila
- 37 zkia. Iraila
- 38 zkia. Urria
- 39 zkia. Azaroa
- 40 zkia. Abendua

### **2002 URTEKOAK**

- 41 zkia. Urtarrila
- 42 zkia. Otsaila
- 43 zkia. Martxoa
- 44 zkia. Apirila
- 45 zkia. Maiatza
- 46 zkia. Ekaina
- 47 zkia. Uztaila
- 48 zkia. Abuztua
- 49 zkia. Iraila
- 50 zkia. Urria
- 51 zkia. Azaroa
- 52 zkia. Abendua

### **2003 URTEKOAK**

- 53 zkia. Urtarrila
- 54 zkia. Otsaila
- 55 zkia. Martxoa
- 56 zkia. Apirila
- 57 zkia. Maiatza
- 58 zkia. Ekaina
- 59 zkia. Uztaila
- 60 zkia. Abuztua
- 61 zkia. Iraila
- 62 zkia. Urria
- 63 zkia. Azaroa
- 64 zkia. Abendua

---

<sup>1440</sup>- 2001eko maiatzeko 33. alea ez zegoen artxiboan gordeta.

**2004 URTEKOAK**

**65 zkia.** Urtarrila

**66 zkia.** Otsaila

**67 zkia.** Martxoa

**68 zkia.** Apirila

**69 zkia.** Maiatza

**70 zkia.** Ekaina

**71 zkia.** Uztaila

**72 zkia.** Abuztua

**73 zkia.** Iraila

**74 zkia.** Urria

**75 zkia.** Azaroa

**76 zkia.** Abendua

**TESIAN AZTERTU DIREN DROGETENITTURRI ALEEN ZERRENDA**

**2000 URTEKOAK**

65 zkia. Urtarrila  
66 zkia. Otsaila  
67 zkia. Martxoa  
68 zkia. Apirila  
69 zkia. Maiatza  
70 zkia. Ekaina  
71 zkia. Uztaila  
72 zkia. Iraila  
73 zkia. Urria  
74 zkia. Azaroa  
75 zkia. Abendua

**2001 URTEKOAK**

76 zkia. Urtarrila  
77 zkia. Otsaila  
78 zkia. Martxoa  
79 zkia. Apirila  
80 zkia. Maiatza  
81 zkia. Ekaina  
82 zkia. Uztaila  
83 zkia. Iraila  
84 zkia. Urria  
85 zkia. Azaroa  
86 zkia. Abendua

**2002 URTEKOAK**

87 zkia. Urtarrila  
88 zkia. Otsaila  
89 zkia. Martxoa  
90 zkia. Apirila  
91 zkia. Maiatza  
92 zkia. Ekaina  
93 zkia. Uztaila  
94 zkia. Iraila  
95 zkia. Urria  
96 zkia. Azaroa  
97 zkia. Abendua

**2003 URTEKOAK**

98 zkia. Urtarrila  
99 zkia. Otsaila  
100 zkia. Martxoa  
101 zkia. Apirila  
102 zkia. Maiatza  
103 zkia. Ekaina  
104 zkia. Uztaila  
105 zkia. Iraila  
106 zkia. Urria  
107 zkia. Azaroa  
108 zkia. Abendua

**2004 URTEKOAK**

**109 zkia.** Urtarrila

**110 zkia.** Otsaila

**111 zkia.** Martxoa

**112 zkia.** Apirila

**113 zkia.** Maiatza

**114 zkia.** Ekaina

**115 zkia.** Uztaila

**116 zkia.** Iraila

**117 zkia.** Urria

**118 zkia.** Azaroa

**119 zkia.** Abendua





## II. ERANSKINA

### **GRAFIKOAK**

### **ORRIA**

1A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , kazetaritza-generoak urteka	170
2A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	175
3A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , informazioaren bilakaera	179
4A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	184
5A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , iritziaren bilakaera	187
6A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	192
7A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , zerbitzuen bilakaera	195
8A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , gaiak urteka	198
9A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , politika, 2000-2004 bitartean	201
10A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , politikaren bilakaera	205
11A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	210
12A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , ekonomiaren bilakaera	213
13A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	216
14A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , gizarte-gaien bilakaera	221
15A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	227
16A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , kulturaren bilakaera	231
17A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	236
18A-Grafikoa: <i>Eta kitto!</i> , kirolaren bilakaera	240
19C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , kazetaritza-generoak urteka	259
20C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	262
21C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , informazioaren bilakaera	266
22C-Grafikoa: <i>Pil-Pilean</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	269
23C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , iritziaren bilakaera	272
24C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	276
25C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , literaturaren bilakaera	279
26C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	282
27C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , zerbitzuen bilakaera	285
28C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , gaiak urteka	289

29C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , politika, 2000-2004 bitartean	292
30C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , politikaren bilakaera	295
31C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	298
32C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , ekonomiaren bilakaera	300
33C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	304
34C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , gizarte-gaien bilakaera	308
35C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	314
36C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , kulturaren bilakaera	318
37C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	323
38C-Grafikoa: <i>Pil-pilean</i> , kirolaren bilakaera	325
39E-Grafikoa: <i>Barren</i> , kazetaritza-generoak urteka	347
40E-Grafikoa: <i>Barren</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	351
41E-Grafikoa: <i>Barren</i> , informazioaren bilakaera	355
42E-Grafikoa: <i>Barren</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	360
43E-Grafikoa: <i>Barren</i> , iritziaren bilakaera	364
44E-Grafikoa: <i>Barren</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	368
45E-Grafikoa: <i>Barren</i> , literaturaren bilakaera	370
46E-Grafikoa: <i>Barren</i> , komikia, 2000-2004 bitartean	372
47E-Grafikoa: <i>Barren</i> , komikiaren bilakaera	373
48E-Grafikoa: <i>Barren</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	376
49E-Grafikoa: <i>Barren</i> , zerbitzuen bilakaera	380
50E-Grafikoa: <i>Barren</i> , gaiak urteka	384
51E-Grafikoa: <i>Barren</i> , politika, 2000-2004 bitartean	387
52E-Grafikoa: <i>Barren</i> , politikaren bilakaera	391
53E-Grafikoa: <i>Barren</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	397
54E-Grafikoa: <i>Barren</i> , ekonomiaren bilakaera	400
55E-Grafikoa: <i>Barren</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	404
56E-Grafikoa: <i>Barren</i> , gizarte-gaien bilakaera	409
57E-Grafikoa: <i>Barren</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	416
58E-Grafikoa: <i>Barren</i> , kulturaren bilakaera	420
59E-Grafikoa: <i>Barren</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	426

60E-Grafikoa: <i>Barren</i> , kirolaren bilakaera	429
61G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , kazetaritza-generoak urteka	453
62G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	457
63G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , informazioaren bilakaera	461
64G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	465
65G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , iritziaren bilakaera	468
66G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , komikia, 2000-2004 bitartean	472
67G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , komikiaren bilakaera	473
68G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	475
69G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , zerbitzuen bilakaera	478
70G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , gaiak urteka	482
71G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , politika, 2000-2004 bitartean	485
72G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , politikaren bilakaera	489
73G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	492
74G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , ekonomiaren bilakaera	495
75G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	499
76G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , gizarte-gaien bilakaera	504
77G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	511
78G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , kulturaren bilakaera	515
79G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	519
80G-Grafikoa: <i>Kalaputxi</i> , kirolaren bilakaera	522
81I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , kazetaritza-generoak urteka	545
82I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	549
83I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , informazioaren bilakaera	553
84I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	558
85I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , iritziaren bilakaera	562
86I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	565
87I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , literaturaren bilakaera	568
88I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	571
89I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , zerbitzuen bilakaera	574
90I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , gaiak urteka	577

91I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , politika, 2000-2004 bitartean	580
92I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , politikaren bilakaera	583
93I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	587
94I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , ekonomiaren bilakaera	590
95I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	593
96I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , gizarte-gaien bilakaera	598
97I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	603
98I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , kulturaren bilakaera	607
99I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	612
100I-Grafikoa: <i>Berriketan</i> , kirolaren bilakaera	615
101K-Grafikoa : <i>Drogetenitturri</i> , kazetaritza-generoak urteka	638
102K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	641
103K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , informazioaren bilakaera	644
104K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	647
105K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , iritziaren bilakaera	650
106K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	654
107K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , literaturaren bilakaera	657
108K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	660
109K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , zerbitzuen bilakaera	663
110K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , gaiak urteka	666
111K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , politika, 2000-2004 bitartean	669
112K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , politikaren bilakaera	673
113K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	677
114K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , ekonomiaren bilakaera	680
115K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	683
116K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , gizarte-gaien bilakaera	688
117K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	694
118K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , kulturaren bilakaera	699
119K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	704
120K-Grafikoa: <i>Drogetenitturri</i> , kirolaren bilakaera	708

## **TAULAK**

1B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , kazetaritza-generoak urteka	170
2B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	175
3B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , informazioaren bilakaera	179
4B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	184
5B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , iritziaren bilakaera	187
6B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	192
7B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , zerbitzuen bilakaera	195
8B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , gaiak urteka	198
9B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , politika, 2000-2004 bitartean	201
10B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , politikaren bilakaera	205
11B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	210
12B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , ekonomiaren bilakaera	213
13B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	216
14B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , gizarte-gaien bilakaera	221
15B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	227
16B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , kulturaren bilakaera	231
17B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	236
18B-Taula: <i>Eta kitto!</i> , kirolaren bilakaera	240
19D- Taula: <i>Pil-pilean</i> , kazetaritza-generoak urteka	259
20D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	262
21D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , informazioaren bilakaera	266
22D-Taula: <i>Pil-Pilean</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	269
23D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , iritziaren bilakaera	272
24D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	276
25D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , literaturaren bilakaera	279
26D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	282
27D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , zerbitzuen bilakaera	285
28D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , gaiak urteka	289
29D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , politika, 2000-2004 bitartean	292
30D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , politikaren bilakaera	295

31D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	298
32D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , ekonomiaren bilakaera	300
33D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	304
34D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , gizarte-gaien bilakaera	308
35D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	314
36D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , kultura gaien bilakaera	318
37D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	323
38D-Taula: <i>Pil-pilean</i> , kirolaren bilakaera	325
39F-Taula: <i>Barren</i> , kazetaritza-generoak urteka	347
40F-Taula: <i>Barren</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	351
41F-Taula: <i>Barren</i> , informazioaren bilakaera	355
42F-Taula: <i>Barren</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	360
43F-Taula: <i>Barren</i> , iritziaren bilakaera	364
44F-Taula: <i>Barren</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	368
45F-Taula: <i>Barren</i> , literaturaren bilakaera	370
46F-Taula: <i>Barren</i> , komikia, 2000-2004 bitartean	372
47F-Taula: <i>Barren</i> , komikiaren bilakaera	373
48F-Taula: <i>Barren</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	376
49F-Taula: <i>Barren</i> , zerbitzuen bilakaera	380
50F-Taula: <i>Barren</i> , gaiak urteka	384
51F-Taula: <i>Barren</i> , politika, 2000-2004 bitartean	387
52F-Taula: <i>Barren</i> , politikaren bilakaera	391
53F-Taula: <i>Barren</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	397
54F-Taula: <i>Barren</i> , ekonomiaren bilakaera	400
55F-Taula: <i>Barren</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	404
56F-Taula: <i>Barren</i> , gizarte-gaien bilakaera	409
57F-Taula: <i>Barren</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	416
58F-Taula: <i>Barren</i> , kulturaren bilakaera	420
59F-Taula: <i>Barren</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	426
60F-Taula: <i>Barren</i> , kirolaren bilakaera	429
61H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , kazetaritza-generoak urteka	453

62H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	457
63H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , informazioaren bilakaera	461
64H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	465
65H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , iritziaren bilakaera	468
66H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , komikia, 2000-2004 bitartean	472
67H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , komikiaren bilakaera	473
68H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	475
69H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , zerbitzuen bilakaera	478
70H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , gaiak urteka	482
71H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , politika, 2000-2004 bitartean	485
72H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , politikaren bilakaera	489
73H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	492
74H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , ekonomiaren bilakaera	495
75H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	499
76H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , gizarte-gaien bilakaera	504
77H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	511
78H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , kulturaren bilakaera	515
79H-Taula: <i>Kalaputxi</i> kirola, 2000-2004 bitartean	519
80H-Taula: <i>Kalaputxi</i> , kirolaren bilakaera	522
81J-Taula: <i>Berriketan</i> , kazetaritza-generoak urteka	545
82J-Taula: <i>Berriketan</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	549
83J-Taula: <i>Berriketan</i> , informazioaren bilakaera	553
84J-Taula: <i>Berriketan</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	558
85J-Taula: <i>Berriketan</i> , iritziaren bilakaera	562
86J-Taula: <i>Berriketan</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	565
87J-Taula: <i>Berriketan</i> , literaturaren bilakaera	568
88J-Taula: <i>Berriketan</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	571
89J-Taula: <i>Berriketan</i> , zerbitzuen bilakaera	574
90J-Taula: <i>Berriketan</i> , gaiak urteka	577
91J-Taula: <i>Berriketan</i> , politika, 2000-2004 bitartean.	580
92J-Taula: <i>Berriketan</i> , politikaren bilakaera	583



93J-Taula: <i>Berriketan</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	587
94J-Taula: <i>Berriketan</i> , ekonomiaren bilakaera	590
95J-Taula: <i>Berriketan</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	593
96J-Taula: <i>Berriketan</i> , gizarte-gaien bilakaera	598
97J-Taula: <i>Berriketan</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	603
98J-Taula: <i>Berriketan</i> , kulturaren bilakaera	607
99J-Taula: <i>Berriketan</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	612
100J-Taula: <i>Berriketan</i> , kirolaren bilakaera	615
101L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , kazetaritza-generoak urteka	638
102L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , informazioa, 2000-2004 bitartean	641
103L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , informazioaren bilakaera	644
104L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , iritzia, 2000-2004 bitartean	647
105L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , iritziaren bilakaera	650
106L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , literatura, 2000-2004 bitartean	654
107L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , literaturaren bilakaera	657
108L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , zerbitzuak, 2000-2004 bitartean	660
109L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , zerbitzuen bilakaera	663
110L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , gaiak urteka	666
111L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , politika, 2000-2004 bitartean	669
112L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , politikaren bilakaera	673
113L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , ekonomia, 2000-2004 bitartean	677
114L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , ekonomiaren bilakaera	680
115L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , gizarte-gaiak, 2000-2004 bitartean	683
116L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , gizarte-gaien bilakaera	688
117L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , kultura, 2000-2004 bitartean	694
118L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , kulturaren bilakaera	699
119L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , kirola, 2000-2004 bitartean	704
120L-Taula: <i>Drogeteniturri</i> , kirolaren bilakaera	708